U.Z.E.I.

GIZADIAREN HISTORIA

MENDEZ MENDE

Aro Garaikidea

IRAKASKUNTZA ERTAINAK
Oinarrizko langaiak

ELKAR

Banco de Bilbao
Banketxearen
UZEIko ordenadore-zerbitzuan
landua

Hezkuntza Sailak onetsia 19877-5-15

© UZEI. Esterlines, 8. DONOSTIA
© ELKAR, S. A. Esterlines, 10. DONOSTIA

Dep. Leg.: NA. 819-1987
ISBN 84-7529-449-9

Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L.
Ctra. de Tafalla, Km. 1 - Estella (Navarra)

LANKIDEAK

Pello Arrieta

Agustin Azkarate

Txema Elvira

Xanti Garmendia

Jose R. Kortabitarte

Rafael López Atxurra

Maite Murua

Jesus Odriozola

Maiteder Uribe-Etxebarria

Marian Urkola

Rosa M. Virto

ZUZENTZAILEAK

Joseba Intxausti

Fernando Mendizabal

ZUZENDARIA

Joseba Intxausti

ARGITALPEN-MOLDATZAILEA

U.Z.E.I.

Lankidetzak honela banatu dira, idatz-bulegoko lanetan:

J. Intxausti: Zuzendaritza eta koordinazio orokorra. Irudien bilaketa, hautapena eta testu-gidoia; agirien bilaketa, hautapena eta itzulpena (autore bakoitzarena osatuz); taulak, irudiak, diagramazioa. Zuzenketaren parte bat; zenbait mapa eta grafiko.- **F. Mendizabal** zenbait ikasgaien hizkuntz orrazketa eta agirien itzulpena (4, 5, 6, 9 eta 10. ikasgaiak).- **M. Larrea**: Ordenadoreko lan-koordinazioa eta obraren idazkaritza), **A. Hernández, A. Iruretagoiena** eta **P. Larrea**: Ordenadoreko lehen kopiaketak eta zenbait zuzenketa.

Muntaia eta zenbait mapa eta grafiko: **Luis ERRAZKIN**

Lankidetzak honela banatu dira, originalen sorkuntzan:

P. Arrieta: "3. Europako gizarte industrialaren kultura" (J.R. Kortabitarterekin batera: Azalpena eta agirien hautapen-parte bat).- **A. Azkarate**: "1. Europa, Aro Garaikidean (1789-1973)" (Azalpena eta agirien parte bat).- **Tx. Elvira**: "7. Europa, munduaren ondare?" (Azalpena).- **X. Garmendia**: "5. Asia: Txina eta India" (Azalpena), eta 7. ikasgairako zenbait iradokizun.- **J.R. Kortabitarte**: "2. Mundua, Mendebaldearen menpe: Inperialismo" (Azalpena, zenbait agiri eta irudi-hautapen); "3. Europako gizarte industrialaren kultura" (P. Arrietarekin batera: Azalpena eta agirien hautapen-parte bat; "4. Amerika, lehen deskolonizazioa (1776-1914)" (Azalpena).- **R. López Atxurra**: "6. Afrikaren historiaren bila" (Azalpena eta irudi-agirien hautapen-parte bat).- **M. Murua** "8. Europaren errele-boa munduan" (Azalpena eta agiri-irudien hautapen-parte bat).- **J. Odriozola** eta **M. Urkola**: 4. ikasgairako zenbait idarokizun.- **M. Uribe-Etxebarria**: "10. Iraultza zientifiko eta teknikoa" (Azalpena eta agiri-irudietarako idarokizunak).- **R.M. Virto**: "9. Giza zientziak, Filosofiak eta Artea" (Azalpena eta irudien hautapen-parte bat).

HITZAURREA

Liburuki honekin burutzen dugu ***Mendez Mende****-ren bigarren ekinaldia, Aro Garaikideari dagokiona osatuz hain zuzen: horrela betetzen da Erdi Arotik gure egunetararte ekarri nahi genuen Historia hau.*

Lehen deskolonizazio amerikarretik hasita, hamar ikasgaitan banatu dugu handik honainoko gertakari eta prozesu historikoen azalpena. Saiatu gara, bestalde, historia horren esparru geografikoa Europatik at zabaltzen: Amerika, Asia, Ozeania, Afrika. Ikasgai luzeak eskaini dizkiegu eskualde horietako historiei.

Dena den, eta hala ere, ez dago dudarik, azken mende hauetako protagonista, hain zuzen, protagonista nagusi eta irabazlea, (azken orduan galtzaile gertatu bada ere) batez ere Europa izan zela. Eta garaiko nagusitasun hori ongi ispilatu da ikasliburu honetan ere. Ez dago aurkibidea ikusi besterik.

Europaren autoulerpena eta kanporako proiekzioa aurkezten dira lehenik, beronen kultura gero. Amerika izan zen Europa inperialistaren lehenengo arrakasta eta krisia; baina beste Kontinenteetan aukera berriak egunargitzen zitzaizkion aldi berean zen hori: Ekialde Urruna, Australia, Afrika. Abagune horretan munduaren ondare bilakatuko ote ziren, guztietan txikiena den Europako Kontinente honen ikusmolde, balio eta xedeak? Parte batez deskolonizazioak eman dio galderari erantzuna.

Aro Garaikidean gizadiaren historiak abiada bizkorragoa hartu du, egitura eta gekatarietan, eta hauek planetartu egin dira: Historia, luditartu egin da. Orain bi mende, artean J. Cook Australiaren bila zebilen, baina egun gure teknologia Eguzkiaren planeta-sistematik kanpora irteteko lain bada. Egin da iraultza demografikoa, baina gizadi osoa garbitzeko beste arma ere badugu gure arma-biltegietan.

Hori dena ulergarriago egiteko, ahalegindu gara liburuan gertaerei ezezik, egiturei ere begiratzen; baina ez dugu gure kontaera hau "diskurtsu" abstraktuetan ito nahi izan. Azalpenetan, arazoen bizkarrezur orokorrena eskaintzen da, baina hori bezain erabilgarritzat, eta areago ere bai, dauzkagu bildu ditugun agiriak, irudiak, irudion oin-ohar eta han-hemenka banatu ditugun taula eta eskemak. Begiratu batekin ikus daitekeenez, lan luzea hartu da osagarri didaktiko hauek bildu, hautatu eta lantzen: bostehun bat irudi eta ematen dira hemen. Berauen oin-oharrak puntuz puntu landu dira, lanerako irakurgai eta ikusgai bihurtzeko asmoz.

Hizkuntzaren aldetik, aurrekoak eta oraingo **Mendez Mende: Aro Garaikidea** *honek jite eta irtenbide ber-berak eskaintzen dituzten. Topatu ditugun arazoei irtenbide pedagogiko berdinak eman izan zaizkie, edo kidekoak bederen. Batasun-berdintasun horiei laguntzeko argitaratzen dugu hiztegia ere: hemen darabilgun "corpus" gutxi-asko terminologikoa biltzen dugu hor. Garapen sistematikoagorik ez dugun bitartean lagungarri gertatuko zaio ikasleari batez ere.*

Irakaskuntza Ertainetarako --Erreformarekin edo hori gabe-- langai-bilduma aberats samar bat aurkeztu nahi izan diegu ikasle-irakasleei, euskaraz. Agian, guztiaren erabilgarritasun didaktikoa hobetu ahal izango dugu ondoko lanetan. Hala biz.

1987, Apirila

KRONOLOGIA OROKORRA

URTEAK	GERTAKARIAK
1776	Ipar Ameriketaren askapen-gerratea.
1789	Iraultza Frantsesa.
1796	Jenner: Baztanga-txertoa.
1796-1815	Napoleon: Iraultza eta Inperio.
1815	Viena-ko Kongresua.
1820-1825	Latin Amerikaren Independentzia.
1834	Esklabutzaren abolizioa (kolonia ingeles).
1830	Iraultzak Europan: Polonia, Frantzia...
1845	Irlandako gosetea.
1848	Iraultzak Europan.
1861	Errusia: Serbuen askapena.
1868	Suez-eko Kanalea.
1870-1871	Italiako eta Alemaniako Estatu-bateratzeak Pariseko Komuna.
1885	Berlineko Konferentzia.
	Pasteur: Errabiaren kontrako txertoa.
1898	Gerrate hispano-amerikarra.
1905	Einstein: Erlatibitatearen teoria.
1914-1918	I. Mundu-Gerratea.
1917	Errusia: Iraultza boltxebikea.
1923	Haririk gabeko telegrafia.
1929	Krisi ekonomikoa.
1931	Hitler, agintera.
1939	II. Mundu-Gerratea.
1945	Lehenengo bonba atomikoa.
1947-1962	Gerrate Hotza.
1947-1970	Bigarren deskolonizazio-uhin handia.
1949	Txinako Herri-Errepublika: Mao Zedong.
1957	Erromako Ituna: E.E.E.
	Sputnik I: Lehen satelite artifiziala.
1962	Kubako krisia.
1969	Gizakia lehenengoz Ilargian.
1973	"Petrol[illegible] aren krisia"
1979	Iraneko iraultza: Jomeini.

1
EUROPA, ARO GARAIKIDEAN (1789-1973)

URTEAK	GERTAKARIAK
1789	Frantziako Iraultza: Aldakuntza sozio-ekonomikoak.
1793-1814	Iraultzaren eta Napoleonen gerrak.
1794	Frantzia: Erreakzio termidortarra.
1798	Malthus: "Principles of Population".
1815-1830	Vienako Konkresua: Errestaurazioa.
1820-1825	Latin Amerikaren Independentzia.
1825	Ingalaterran lehenengo langile-erakundeak.
1830	Iraultzak Europan.
1833-1839	Lehenengo Karlistada.
1834	Esklabutzaren abolizioa kolonia ingelesetan.
1834-1843	Desamortizazioak Espainian. Orokorra: 1855.
1848	Iraultzak Europako hiriburuetan.
1861	Errusiako serbutzaren askapena.
1864	Langileen I. Internazionala.
1868	Erreforma "Meijia" Japonian.
1870	Alemania eta Italiaren batasunak. Eliz Estatuen desagerpena.
1871	Pariseko Komuna.
1876	Euskal Foruak abolituta.
1885	Berlin-eko Konferentzia koloniala.
1898	Kubako Gerratea.
1914-1918	I. Mundu Gerratea.
1918	Iraultza Sovietarra.
1929	Munduko krisi ekonomikoa.
1931	II. Errepublika Espainian.
1933	Hitler agintera.
1936-1939	Gerra Zibila Espainian.
1950	Koreako Gerratea.
1956-1964	Hainbat koloniaren independentzia.
1957	Erromako Ituna: E.E.E.
1968	"Maiatzeko Iraultza" (Parise).
1973	Petrolioaren krisialdia.

I. ALDAKUNTZA SOZIO-EKONOMIKOAK

Aro Garaikidean, gizarteko aldakuntzen erritmoa biziki azkartu da; egitura politikoetan edo berrikuntza kulturaletan ezezik oinarrizkoagoak eta aldagaitzagoak izan ohi diren beste osagaietan ere gizarteak mudantza handiak eta bizkorrak jasan ditu, hala nola, ekonomian, demografian edo produkzioaren sistemetan. Beharrezkoa da, beraz, lehenik funtsezko aldakuntza hauek ezagutu eta aintzakotzat hartzea, ondoren beste aldakuntza politiko nahiz kultural haiek hobeki uler ditzagun.



ZAPATARI BATEN FAMILIA (1845). Prusiako marrazki honetan, aldiberean sukalde, egongela, logela eta jostaleku den gela bakarrean bizi da familia (gurasoak eta zortzi-bederatzi haur). Etxebizitza eskasa eta bizilagun gehiegi. XVIII-XIX. mendeetan, aldakuntza politikoen ondoan, benetako iraultza demografiko bat gertatu zen Europan: seme-alaba asko izan eta gehienak umetan hiltzen zitzaizkien haietatik, beste honelako familietara pasa zen egoera berria. Hau da: seme-alaba ugari izan eta, mendikuntz aurrerapenengatik bizirik gorde ahal izan zituzten familia berriak agertu ziren iraultza demografikoarekin. Bere populazioaren indarrez eta sortu berriak ziren makina eta asmakuntzen bidez Europak aurrea hartu zien beste kontinente eta herriei. Europarrak kapaz izan ziren munduaz jabetzeko.



T.R.MALTHUS (1766-1834). Ekonomista ingeles honek, biztanle-hazkuntza azkarra behatzean, oso sonatua den teoria malthustarra eskaini zuen ("An Essay on the Principles of Population", 1798): janariak baino arinago ugaltzen da giza populazioa, eta gerrak, diruak, izurriteak, pobreziak eta bizioak bakarrik balazta lezakete hazkuntza hori, dio Malthus-ek. Berez, proportzio geometrikoan gehitzen da biztanleria, eta janariak, ostera, aritmetikoan.

A) IRAULTZA DEMOGRAFIKOA

Biztanleria europarra, denbora luzez gorabehera iraunkorrik gabe geldi egon ondoren, gehitzen hasi zen, poliki-poliki XVIII. mendean zehar eta azkarrago berriz XIX.ean: ordurarte ezagutu gabeko fenomeno demografiko garrantzitsu bati bidea urratu zitzaion.

Populazioaren gehitze bortitz honen arrazoiak ezberdinak dira: ekonomikoak (nekazal aurrerapenak, janarien ugaritzea eta aberastea, etab.), eta bestelakoak (aurrerapen medikoak, higiene-kondizioen hobetzea, etab.). Guzti honen ondorioa zera izan zen: heriotz eta jaiotz tasa sendoko erregimen demografiko batetik (izatez, Erregimen Zaharreko ezaugarria zena, hain zuzen, berau), jaiotz tasa ertaineko eta hilkortasun gutxiko beste batera iragatea.




LONDRES (1872). Iraultza industrialarekin, bizilagunak hirietan pilatu ziren, ez oraindik gerora ezagutu duen adina, baina bai Europan Erdi Aroaz geroztik ezagutu ez zen neurrian. Nekazariek hirietara jo zuten, bizibide bila; baina haietako langile-auzoak ez ziren batere atseginak (G. Doré-ren marrazkia).

Hazkunde demografiko hau, funtsean, Mendebaldeko gizarte europar industrializatuetan gertatu zen, Ingalaterran eta Alemanian, batez ere, eta Italian eta Frantzian beste neurri batean geroxeago. Herrialde eslaviar eta mediterranearrak, berriz, ekonomikoki atzeraturik zeuden oraindik, beraietariko gehienak Erregimen Zaharreko ziklo demografikoa zutela.

Oro har, emendio demografiko honen ondorioak ikaragarriak izan ziren: mende bat baino zertxobait gehiagoan 60 bat milioi europarrek beren jaioterrietatik aldegin behar izan zuten. Ez da horrelakorik inoiz gertatu gizadiaren historian. Europarrak mundu osoan zehar hedatu ziren, bere kultura eta zibilizazioa han-hemen ezarriz. Migrazio hauek nondik norakoak izan ziren ondoko laukian ikus daiteke.

Ez dugu ahaztu behar, hala ere, beste migrazio handi batzuk ere egon zirela; hala nola, Siberiara migratu zuten 10 milioi errusiar europarrena, edota hainbat milioi txinarena, Asia eta Ameriketako kostalde pazifikarretara.

MUGIMENDU DEMOGRAFIKOA. Hemeretzigarren mendean Europako herrialdeetan biztanleria gora eta gora hasi zen, etengabe, mende baten buruan herrialde batzuek beren bizilagunak bizpahiruz biderkatzeraino. Ikus hemen Frantzia, Alemania eta Ingalaterraren garapen demografikoa nola igo zen.



EMIGRANTEAK

"Strasbourg-eko errepidean, negargarria da gurdi-errenka luzeak ikustea... zoritxarreko pobreak, ondasunak eramanez, paper gezurti batzuei sinetsiz Atlantikoa zeharkatzeko prest. Mantso eta geldiro doaz, orgak miseriaz beteta --azienda ihar horiek iritsiko ote dira, gero, Le Havre-raino?--, pardel pobrez kargatuta, emakume,haur eta gaixoak gainean... Ingalaterran bezala, miseriaren beldurrak bultzatzen du emigrazio alemaniarra... baina mugimendu honen eztenik biziena libertate politiko eta erlijioso oso baten nahia da".

(Chamber's Edinburgh Journal, 1846)

Migrazioen fenomenoa, aldakuntza teknikoekin lotuta ikusi behar da, baina baita ekonomiak izan zituen berrikuntzekin ere. Hirietan ari zen, batez ere, hau jazoten.

Hirien garapena XIX. mendeko gertaera aipagarrienetarikotzat jo daiteke, eta bilakaera demografikoarekin, komunikabide eta industrializazioarekin lotu-lotua ageri da. Hala ere, hirien hazkunde desordenatuak, plangintza ezak eta espekulazioak arazo tekniko, sanitario eta psikologiko larriak sortu zituzten, desberdintasun sozial ikaragarriak egun-argitan utziz.

HIRITAR-POPULAZIOAREN HAZKUNDEA 1850etik 1914era

	1800	1850	1910	
1. Sevilla	100.000	113.000	155.000	50
Madras		103.000	127.000	
2. Lyon	110.000	156.000	524.000	200-400
Barcelona	115.000		537.000	
3. Liverpool	82.000	397.000	756.000	1000
München	40.000	110.000	596.000	
4. Buenos Aires	40.000	76.000	1.272.000	+2000

Lau hazkunde mota bereizten dira, goiko adibideetan ikus daitezkeenez:

1. **Zero hazkundea, edo hazkunde oso ahula: % 50**
   Asia (Japonian eta kolonia europarretan salbu), eta lurralde mediterranearretan.

2. **Hazkunde moderatua: % 200-400**
   Frantzia, Errusia... (industrializazio moderatu edo berantiarra izan zuten herrialdeetan).

3. **Hazkunde bizkorra: % 1.000**
   Ingalaterra, Alemania (industri indartsu eta dinamikoa)

4. **Bapateko hazkundea: % 2.000 edo gehiago**
   Herri berriak (Estatu Batuak, Argentina...)

MIGRAZIO-MUGIMENDU EUROPARRAK	
Emigrazio-guneak	**Inmigrazio-guneak**
Britainia Haundia (17 milioi) Alemania (10 milioi) Lur. balkandar eta danubiarrak (4,5 milioi) Espainia (4,4 milioi) Eskandinavia (2 milioi) Portugal (1,6 milioi)	Estatu Batuak (32 milioi) Argentina (6 milioi) Brasil (4,6 milioi) Kanada (4,5 milioi) Australia, Zeelanda Berria, Afrika...

B) NEKAZAL IRAULTZA

Nekazaritzaren eboluzioa, ekonomi arloko beste adarrena baino geldoagoa izan zen. XIX. mendean zehar, berriz, aldaketa orokorrak eta zakarrak ikus daitezke, bai lur landuen banaketan, bai nekazal metodoetan. Aldaketa hauek, herrialdeen eta lan-moldaeren arabera datoz. Hiru taldetan banatuko ditugu hemen:


a) Nekazaritza intentsiboa, Mendebaldean

Industrian bezala nekazaritzan ere, Ingalaterra izan zen, Holandarekin batera, beste herrialde europarrei aurreratu zitzaiena: uzta-errotazioari, ongarrien erabilerari eta mekanizazioari esker, populazioa eta nekazal produkzioa pareka zitezen ahaleginduz, ikaragarrizko errendimenduak lortu ziren. Lur-maneamenduan aurrerapen zientifikoak egiten dira, lurrak hobeki tratatuz fruitu ugari eta hobeak ateratzeko.

b) Nekazaritza estentsiboa, herrialde berrietan


Europako Mendebaldeko herrialdeetan, produkzioa hobetzen zuten bitartean, herrialde kolonizatuetan aurrera zeramaten nekazaritza zientifi-

A. YOUNG (1741-1820). "Industri Iraultza" esatean, nekazaritzak garai hartan izan zituen aurrerapenak ere aipatu nahi izaten dira. Young ingelesa izan zen nekazal ezagumendu berriak lortu ezezik, Europan suharki zabaldu zituztenetako ezagunena: "Annals of Agriculture" astekariaren bidez, esate baterako (1784-1812).



ko eta estentsibo jaio berria. Urte gutxitan Estatu Batuak, Kanada, Argentina eta Australia batez ere, muntarik handieneko produktoreak bilakatu ziren herrialde epeletako nekazal produkzio tradizional guztietan (garia, haragia, artilea, etab.).

Lehiaketa bat gertatu zen hau dena, eta 1850etik 1890-1900etara nekazal- eta industri produkzioaren eremuan bere nagusigoa galdu egin zuen Europak. Estatu Batuak, ostera, lehen potentziatara pasa ziren ekonomi arloan, beste herri batzuk ere nekazal produktuen merkatuan agertzen ziren aldi berean. Nekazal produkzioaren alorrean, labore- eta haragi-produktugile berriek, hala nola Argentinak, Australiak eta Estatu Batuek, laborantza-bide eta produktibitate handiagoko abelazkun-



KAFE-SAILA (Sao Paulo. Brasil): Kafearen uztaldia Tropikoan. Europarrak ugaritu ala, urruneko lurraldeetan nekazal ustiategi berriak ireki zituzten, komeni zitzaienean esklabu beltzez ere baliatuz.

tza estentsiboak erabili zituzten, prezio merkeagoen bidez Europako produktugileekin lehian sartuz. 1890ean edo, okela amerikarra, garraio-prezioa eta guzti, frantsesaren erdi prezioan jartzen zen Le Havre-n, hozkailuaren asmakuntzari eta garraio-modu berriei esker.

c) Labore ekuatorial eta tropikalak

Lurjabe europar handien menpean, nekazaritza mota horretan tokian tokiko lanesku merkea erabiltzen zen. Uzta gehienak Europan saltzeko ziren: kotoia, azukrea, kakaoa, tea, txokolatea, platanoa, etab.

Hiru talde hauekin batera, munduko nekazal zona handiek (Mediterraneoak eta Ekialdeko Europak, Txinak, Indiak...) beren hartan irauten zuten, hala ere, aurrerabide hauetatik at; errendimendu kaskarra ateratzen zioten lurrari laborantza tradizional hauek.

Laburtuz, baiezta daiteke, XIX.ean eta XX. mendearen hasieran zehar mundu osoko nekazaritza Europa eta Ipar Ameriketako hiri handietako jendearentzat elikagaiak sortzen ari zela, erabatekoa bait zen hiritakoek nekazariekiko zuten dependentzia. Garbi dago, bada, Europak munduan ezarri zuen benetako nagusitasuna; baina, era berean, baita munduarekiko zuen dependentzia ere. Ezin ahantzizko datua da hau.




ESKLABU-ZIGORTUA (Río. Brasil). Labore tropikaletarako laneskua, beltzen tratuaren ondorioz, batez ere esklabu beltzena izaten zen Ameriketan: esku merkea eta gogorki zaildua. Hemen ikusten dena ez zen gertakari errepikatu arrunt bat baizik: gainerako esklabuen eskarmenturako jendaurrean egiten zen zigorketa... Brasil, Karibe eta Estatu batuetan milioika esklabu zeuden XIX. mendearen lehen erdialdian.

C) INDUSTRI IRAULTZA

XVIII. mendetik aurrera, industria modernoaren garapena dela bide, zenbait herritan gertatutako eraldakuntza tekniko, ekonomiko eta sozialei, Industri Iraultza deitzen zaie. Transformazio-prozesu hau, esan bezala, Ingalaterran hasi zen, geroxeago beste herri batzuetara hedatuz.

Historilari batzuek diotenez, hau izan zen Neolito Arotik gizonak ezagutu duen aldakuntzarik garrantzitsuena. Dena aldatzen da: lana, mentalitatea, talde sozialak..., eta aldakuntza horien ondorioz, gainerakoak. Esan daiteke Iraultza honi esker jarri zirela, nolabait, gaur eguneko gizartearen oinarriak. Aldakuntza orokor horren sorrera eta garapena bi zutaberen gain jaso ziren:

PRODUKZIO-ENERGIA. Produkzioaren sistema modernoa energi iturri berriak aurkitzetik ere jaio zen. Uraren edo haizearen indarra, harrikatzarenarekin trukatu zen hainbat lantegitan. Hemen ikusten den ur-errota honen antzeko sistemek ez zuten industria berrian apenas lekurik izan.



hazkunde demografikoan eta nekazaritzaren berrikuntzan, hauek eman bait zuten nekazalgoa hiriratzeko eta industrietan aritzeko behar beste laneskU.

Industri Iraultzan bi momentu bereiz daitezke, luzea izan bait zen prozesua:

1. Hasierako lehen Industri Iraultza, ondoko sektore hauen inguruan sortu zen: energia (ikatza, lurrina) eta siderurgia. Ehungintza kontsideratu ohi da tradizionalki berritze-prozesu honen aintzindari. Gehitze demografikoarekin batera, ehun- eta oihal-eskaria handituz zihoanez, ezinbestekoa zen produkzioa ere azkartzea. 1764ean Hargreaves-ek zortzi hari batera egiten zituen makina bat asmatu zuen ("Spinning Jenny"). Geroxeago, Arkwright-ek (1732-1792), Crompton-ek eta Cartwright-ek (1743-1823) eta beste batzuek ezagumendu berriak ekarri zituzten, denon artean eta asmaturiko tresna berriei esker produkzioa ikaragarri handituz. Ondoko taulan ikus daiteke aurrerapen teknologiko hauek izan zuten produktibitate-eragina.



J. VERNE (1828-1905). Industri Iraultzaren barnean zientziaren eta teknikaren aitzinamenduak harrigarriro aurrikusi zituen J. Verne-k bere liburuetan. Mundu modernoaren alde baikorra erakutsi zuen batez ere bere nobeletan.

Energi mailan ere aurrerapen garrantzitsuak gertatu ziren. Erregai bezala, aspaldidaniko egurrikatzaren ordez (kontutan hartu basoak urritzen hasita zirela) harrikatza erabiltzen hasi ziren lantegiak. Harrikatzak eragindako siderurgia, burdingintza eta industri-guneak meatzen inguruan kokatu ziren. Mende batean (1750-1850) Ingalaterrako labe-produkzioa ehunez biderkatu zen.




G. STEPHENSON (1781-1848). Lehenengo, meatzetarako lokomotoreak (1814), gero trenbideetarakoak (1829) egin zituen. Horrela, burdinbideetarako energi arazoa konponduta geratu zen.



LURRIN-GOLDEA (1854). Lurrin-makina industriara egokitu zen noski lehenengo; baina lantegietan eman zuen laguntza ikusita nekazarien laborantzara ere moldatu zen gero. Hona hemen lehenengo golde haietako eredu bat, ongi bitxia.

2. Mende bat geroago, 1870etik aurrera, Bigarren Industri Iraultza deituriko berrindartzea gertatu zen. Argindarra eta petrolioa agertu ziren ikatzaren ordez; metal berriek (nikela, aluminioa), zaharrek baino hobeak ziruditen; industri kimikoak produktu berriak sortu zituen (ongarri, kolorante, material sintetikoak). Laster agertuko dira telegrafo elektrikoa, telefonoa, irratia, zinema...

Esan bezala, Ingalaterra izan zen XVIII. mendearen bigarren erdialdean industrializazioaren sortzailea. Zerbait beranduago, Frantzia, Alema-



LOKOMOTOREAK (1860). Trenbideen arrakastak sortutako eskearen babesean, trenbide-industria handiki garatu zen munduan. Stephenson lokomotoreak egiten zituen, adibidez, Newcastle-eko lantegi honek (Ingalaterra).

nia, Belgika, Suitza eta Estatu Batuetan zehar zabalduko da, eta beranduago oraindik (XIX. mendearen bigarren zatian) Italiaren iparraldera.

Aurrerapen hauek ez ziratekeen posible izango, **garraio** modu zaharrak zeharo aldatu ez balira, eta, era berean, garraio-sistemaren aldaketa hau ere ez zitzatekeen posible izango Industri Iraultzaren aurrerapen teknikorik gabe. Beraz, esan genezake aurrerapen orokor honen faktore ezberdinon elkar-laguntza estu batek ahalbideratu zuela prozesu osoa.


Garraio-bide tradizionalek (uraren, haize edota abereen indarrean oinarrituek) ezin ziezaioketen garai honetan sortutako egoera berriari ganoraz erantzun. Lurrinaren erabilpenak nabigazioan eta lehorreko garraioetan ikaragarrizko bultzada eman zion sistema guztiari. Adibide argi bat trenarena izan liteke: lehen trenbidea 1825. urtean jarri zen arren, mende bukaerarako burdinbide-sareak milioi bat kilometro zituen munduan. Bapore-garraioaren garapena astiroagoa izan zen. Mende bukaeran, berriz, belaontziak baino tonaketa handiagoa eramateko lain ziren lurrinontziak. Suez-eko (1869) eta Panama-ko (1914) kanaleen irekitzeak, izugarrizko erraztasuna eman zion berez aparteko garrantzia zuen fenomeno honi.

Badator trena!


(Tresna sortzera zihoan unean belaunaldi oso batek ihardun zuen eztabaidan, itxaropenaren eta sinesgogorkeriaren artean. Stephenson-ek 1825ean erakutsi zuen lokomotoreak nolako zerbitzuak eman zitzakeen trenbide komertzial batean. "Times"ek honela deskribatu zuen Ingalaterrako lehenengo trenbidearen irekiera:)

"Berrogeitamarna zaldi-indarreko hiru lurrin-makina aski izan dira salgaiz eta hainbat produktuz kargatutako hamahiru bagoi eramateko. "The Experience" deritzan makina mugikor batilotu dira bagoi hauek, eta agintariak, inbitatuak eta akziodunak zeramatzaten bagoi batzuk ere bai. Guztira hogeitamalau ibilgailu zeuden, hauetako bat soinu-jolez beteta, doinu alaiak joz. Bestea zera zioen bandera batez apainduta zihoan: "Periculum privatum, utilitas publica". Seinalea eman ondoren, hasi zen ibiltzen tren-errenka. Oihuka ekin zuen jendeak, pozarren: zenbait lagunek zaldiz segi nahi izan zien bagoiei, baina laster geratu ziren atzera. Aldapan, pikoenetakoa zen uneetan orduko 40 km-ko abiaduraraino iritsi zen".

('Times' 1825-Iraila-27)



TRENBIDEAK. Komunikabide-moduak oso aldatu ziren trenbideekin: distantziak edo mendikateen muga naturalak ere askoz errazkiago gaindi zitezkeen aurrerantzean. Espainian 1855etik aurrera ireki ziren batez ere trenbideak. Ik. hemen "Frantziako Trenbidea", Pirinioak zeharkatzen zituena.



Trenbide-sarea (1840-1880)


Berrogei urteren buruan, Europan mapa honela estali zuen trenbide-sareak. Ingalaterran hasi zen bide-urraketa hau; Alemania etorri zen berehala, eta Frantzia gero. Azkenik, Europako Mendebalde osoa hartu zuen sareak, eta Errusian ere izan zuen zegokion garapena. "Transiberiarra", berriz, 1891n hasi zen urratzen. Lurrin-trena 1825ekoa zen, baina tren elektrikoa ez zen agertu 1895erarte. Trenbide-sare guzti honek milaka kilometro asko zituen.

Urtea	Brit.Haund.	Aleman.	Frantz.
1840	838	341	360
1850	6.620	3.640	1.890
1860	10.430	6.980	5.880
1870	15.540	11.730	9.770
1880	17.937	20.690	14.500

Trenbidearen eraikuntzak kapital eta lan-indar handiak erakarri zituen, eta negozio-gizonei aparteko aukera eta abantailak eskaini zizkien, izan ere Estatu liberalaren legeria izan bait zuten babestaile eta sustatzailea. Kapital-metatze gaitzak egin ziren, eta Europako legeek orduan definitu zuten sozietate anonimoen nortasun juridiko modernoa. Trengintzaren aro bat ezagutu zuen Europak XIX. mendearen bigarren erdialdian.

D) KAPITALISMO EKONOMIKOA. PENTSAMENDU LIBERALA

Aurreko ikasgaietan ikusi izan den bezala, pentsamendu ekonomikoa aldatuz doa Aro Modernoan zehar. XVI eta XVII. mendeetan pentsaera merkantilista nagusitzen da Europako gobernuetan, bere estatalismo eta protekzionismoarekin. XVII. mendean, berriz, eskola fisiokratikoa agertuko da, nekazaritza indartzearen eta askatasun ekonomikoa ezartzearen aldekoa. XVIII. mendearen bigarren erdialdean, Adam Smith-ek (1723-1790), XIX. mendean hain oihartzun handia izango zuen bere liburu famatua eman zuen argitara, ("Inquiry into the Nature and Causes of the Wealth of Nations": Nazioen aberastasunaren kausa eta izaeraz azterketa, 1776), liberalismo ekonomikoari bere oinarri teorikoak emanez. Smith dugu, beraz, liberalismo ekonomikoaren lehen sortzaile eta defendatzailea; beraren ustez, Estatuak ekonomian parte hartzea alferrikakoa da, nahikoa bait da eskaintza eta eskariaren artean bere joku librean sor daitekeen oreka: "Laissez faire, laissez passer" da slogan-a filosofia ekonomiko honentzat.




INGALATERRAko BANKUA (Manchester-eko Egoitza).Kapitalen metatzea erabat premiazkoa izan zen Iraultza Industriala bultzatzeko. Burgesiak bere irabaziak luxutan ez, baizik lan emankorretan eralgi zituenean garatu ziren teknika berriak, lantegiak eraiki eta jendearen bizimoduak eraldatu. Hau dena Ingalaterran gertatu zen lehenik, eta berau izan zen aldakuntzaren gidaria. 1832an N. Rothschild-ek zera esan zuen: "...munduko Banketxea... Indian, Txinan, Alemanian eta mundu osoan egiten diren transakzio guztiak Ingalaterratik zuzentzen dira, eta hemen erabakitzen".

Merkatu-legeak, eskaintza eta eskariaren artean egiten den jokuan oinarrituak daude, eta nahikoa da berau ekonomia osoa gidatzeko. Merkatua konkurrentzia libreak eratzen du, lan-kontratua ugazaben eta langileen arteko akordio libreari utziz. Interes indibiduala eta soziala beti batera doaz, Adam Smith-ek dioenez; batek norberarentzat lan egiten duenean, gehiago laguntzen dio gizarteari, interes sozialaren alde lanean ari denean baino.

Liberalismo ekonomikoaren ideologiak industrializazio-prozesua, kapitalen metaketa eta enpresa handien sorrera bultzatu zituen. Baina, etika ekonomiatik aldendu zenez, ez zen arduratu industrigintzan sorturiko arazo sozialez.

XIX. mendearen azken herenean industria europarrak mundua konkistatzeko adinako garapena lortu zuen: Kapitalismoaren garaian gaude. Estatu industrialak, garraioen laguntzaz eta berrikuntza teknologikoei esker, alde guztietara heldu ziren. Merkatu mundialaren garaia da. Horretarako Sozietate Anonimoak, Burtsa, Banketxeak, finantza-sistema guztiak hobetzen dira. Enpresa lokalak gainditu eta enpresa bakarrera bildu ziren, sektore batzuetan benetako monopolioak eratuz.



Enpresa-gizonen garaia da: ezerezetik hasita, benetako inperio ekonomikoak sortzeraino heldu ziren batzuk (Rockefeller, Morgan, Carnegie, Ritz, Hearts, Krupp, etab.).

LIBREKANBISMOA. Merkatari librekanbistaren alegoria da hau (Mendizabal Ministrariaren kontrako marrazkia). Ideia ekonomiko liberalek, klase sozial batzuen interesek, kanpotiko produktuen berritasunak eta, azkenik, merkatarien Ingalaterrak bizirik mantendu zuten Espainian ere librekanbismoa, nahiz eta bertako industria ezin jaiorik ibili (Katalunian batez ere).



LUDITAK (1811-1818). Industri Iraultza ez zen burutu gatazka sozialik gabe. Lantegietako makina berriek artisau-langilari aurrea hartu zioten berehala. Langileak elkartu egin ziren makina berri kaltegarri haiek apurtzeko: "luditak" deitu ziren talde hauek Ingalaterran.

Baina ekonomiaren garatze nabarmen honek aurrerapen kapitalistaren egonkortasunik eza ez du ezkutatzen. Goraldiari krisialdia zetorkion ondotik, beroni dagozkion langabezia eta miseriekin: zikloen gurpilean mugitzen zen ekonomia.

Ahantzezina zaigu, gainera, industrializaziotik sorturiko arazo sozialen larritasuna: ordutegi basatiak, soldata txikiak, etxebizitza desegokiak eta, orokorki, langilegoaren esplotazio lotsagarria izan ziren Industri Iraultzaren ondorio sozial latzak.

BERLINeko HIRIA (1800-1900)

"Hirietan hazkuntzarik iraultzaileena Berlin-ekoa izan zen. Mende-hasieran apenas zituen 150.000 biztanle. 1896an, ostera, 1.300.000 ziren hauek. Atzo oraindik Alemaniako hiri handien artean agertzen ez zena, munduko handienen artean topatzen dugu. Dantzing-i kendu dio aleen burtsa-eginkizuna, Breslau-ri ehunen hiriburutza, Essen-i siderurgiaren buruzagitza. (...). Baina Berlin da, gainera, Alemaniako lehen unibertsitatea. Honela, jatorriz bertakoen biztanle-kopurua, % 30 baino gutxiago duen hiri hau (hain ugariak bait dira etorkin frantses eta eslaviarren ondorengoak) (...) industriaren indarrez Alemaniaren etorkizunaren jabe bilakatu da".

(Ch. MORAZE)



LIBERTATEAREN BANDERA.E.Delacroix-ek honela pintatu zuen "Askatasuna,herria gidatzen". Ideia liberaletan libertate politikoen banderak leku seinalatua izan zuen XIX. mendean, burgesentzat eta proletarientzat.

II. ALDAKUNTZA POLITIKO-SOZIALAK

Ikusiz joan garen transformazio ekonomikoei beste era bateko iraultzak dagozkie arlo politiko eta sozialean, Mendebaldeko gizartea, oro har, osorik aldatzeraino. Burgesia izan zen XVIII. mendearen bukaeran "Iraultza-garaia" deitu izan denari hasiera eman ziona, Estatu Batuen independentzia (1776) eta Frantziako Iraultza (1789) zirela bide. Prozesu hau, une batez etena izango da Napoleonen hondamenaren ondoren (Vienako Kongresua, 1815). Baina Erregimen Zaharraren aldeko azken ahalegin hau europar gehienen eske eta gogoen aurka zihoan ez, berehala sortu ziren iraultza-ahalegin berriak: batzuek, joera burges-liberal edo abertzalea izan zuten (1820, 1830, 1848, 1870), beste batzuek, kronologikoki zertxobait beranduagokoak izan arren, Iraultza Industrialean sorturiko langilegoaren beharrei erantzuten saiatu ziren (1870ekoa bera, 1917koa).

Ikus ditzagun, gainetik bada ere, gertaera garrantzitsu hauen ezaugarri nagusiak.

A) ERREGIMEN ZAHARRAREN AMAIA

Tokian tokiko berezitasunak eta prozesuaren une ezberdinak gogoan hartzekoak dira, noski, aldakuntza hauetan; hala ere, hemen orokorki ari garenez, prozesuaren zergati orokorrak bilduko ditugu laburki.

* 1. Zergati orokorrak


Iraultza burges-liberalen zergatiak aztertzean komeni da orokorrak direnak berezietatik edo herrian herrikoei dagozkienetatik banantzea. Azter dezagun zeintzu izan ziren XVIII. mendean zehar Europako Mendebaldean eragin zuzena izan zuten gertaerak.

Lehenik, goian aipatu dugun garapen ekonomiko kapitalista. Bigarren, eta aurrekoaren ondorioz nolabait, sistema feudalaren pausoz pausozko desagerpena, gorantz zihoan klase berri baten mesedetan: burgeseriaren probetxutan, alegia.

Erregimen Zaharrean, burgesia hau, finantz agintearen jabea izan arren, aginte politikotik aldenduta zegoen, Estamentu-egiturek ez bait zioten bestelako aukerarik ematen. Beraz, aginte politikoa eskuratzeko bide berriagoak bilatu beharko zituen nahitaez.

Ez dira ahantzi behar, gainera, gizarte-desorekak, demografi-presioa, beronek sorturiko langabezia, sistema kapitalista berriari dagozkion krisi ekonomikoak, etab. Guzti honek, oro har, bere bizi-kondizioak aldatu nahi zituzten deskontentuen kopurua ugaldu egin zuen.

Filosofia erreformista eta ilustratuak (Locke, Montesquieu, Voltaire, Rousseau...) oinarri ideologikoak eskaini zizkion egoera goibel honi. Entziklopediak, logia masonikoak eta abarrek filosofoen ideiak hedatzen lagundu zuten, ordurarte gizartea oinarritu zuten printzipioak eztabaidatzeko ohitura zabalduz. Honela, agintarien itzal soziala lausotu egin zuten, eta Erregimen Zaharrari lurra janez, haren hondamendia ekarri.


Cahier Général

KEXU-KOADERNOAK. Frantziako Koroapean bizi ziren herri eta talde sozialek beren kexu eta ezinegonak Koaderno hauetan eman zituzten idatzita, Estatu Nagusietan aintzakotzat hartuak izan zitezen.

Asanblada Nazionala (1789)

(Estatu Nagusiak Asanblada Nazional bilakatu ziren Estatu Lauaren, (Hirugarren Estatuaren eskuetan. Aldakuntza honen une larriena gatazka handikoa izan zen:)

"Koadernoetan nazio burgesak azaldutako bakezko ilusioak, bakezko iraultzaren ametsak, zazpi aste iraun duen gudu honetan neurtuko dira. Noblezia indarberritu da, eta liberalak, diren bezalakoak ageri dira: gutxiengo txiki bat bezala. Nobleziatik lau bostenak Erretaulkiaren inguruan irmoki mantentzen ziren, eta orobat gertatzen da apezeriarekin. Baina, oro har,elizgizonak banatuago daude: gehiengoaren eta gutxiengoaren indarrak badirudi orekatuta daudela. (...). Estatu Lauak abildade erabakiorrez zuzentzen du bere erasoa (...), Pilotalekuko zinegitean beste Estamentuetako ordezkari batzuk ere irabaziz. Baina bere kontra ditu armada, auzitegiak, legea, Estatuaren tresneria material osoa, eta Elizaren goi-hierarkia. Funtsezkoa da arriskatzen dena. Hala ere, 60 "abogadu" burges haiek menperatu egin zuten Erregimen Zaharra". (E. LABROUSSE)

* 2. Sistema burges-liberal berriaren ezaugarriak

Despotismo Ilustratuak emandako irtenbide erreformisten porrotak, Erregimen Zaharraren krisialdia gainditzeko proiektu iraultzaile bat hartzera bultzatu zuen burgesia. Proiektu hau honetan zetzan:

a) Aldakuntza politikoa

Ezarritako ordena hankaz gora jarri nahi zuen alda-nahi honek subiranotasuna (agintearen deitura politikoa berau) erregearen eskuetatik burgesiarenetara pasa zedila proposatzen zuen; horretarako, subiranotasunaren jatorria herriarengan jarri zuen teoria politiko berriak: "Subiranotasun nazionala" izendatu zen boterearen iturburu jator bezala.

Subiranotasun nazional honek, ordea, borondate jeneralaren adierazpena posible egiteko, erregimen parlamentari baten bitartez ordezkatze-sistema bat behar zuen.

Estamentu pribilegiatuak baztertu ondoren, burgesiak sistema politiko berria beraren mesedetan eratu zuen, sufragio mugatua ezarriz (sufragio zentsaria), honen bitartez eskubide politikoak diru-kopuru jakin baten jabe zirenengana soilik zabalduz.

Aurrekoaren ondorioz, XIX. mendean zehar agintetik baztertuak izan zirenen artean hautes-kunde-erregimena zuzendu eta osotzeko desio bizia sortu zen, etengabeko borroken bitartez sufragio unibertsala erreibindikatuz.

b) Aldakuntza soziala

Egitura ideologiko berrien arabera berrantolatu zen gizartea, garai berrien eskeari erantzunez.

- Estamentuzko gizarte zaharra (Feudalismoa) klase-gizarte bilakatzen da (Kapitalismoa), beronen printzipio eratzaileak juridikoak izan beharrean ekonomikoak (aberastasuna) direla.

- Gizarte berri hau arautuko duten hastapenak ondoko hauek dira: **berdintasuna**, bai indibiduala (ekonomikoa ez izan arren), bai instituzionala (zentralkeria, foruen abolizioa); **askatasuna** (iharduera ekonomikoaren ikuspegitik begiratua batipat) eta **jabegoa.**

Ingalaterran landuta, teoria politiko honi Ipar Ameriketan eman zitzaion burumendua, nolabait (Estatu Batuetako Independentzi Gerratea, 1776), eta Europan, finkatu eta bere garaitzapena lortu Frantziako Iraultzaren bidez egin zuen.

IDEIA POLITIKOAK

1748	"Legeen Izpiritua" (Montesquieu): Eztabaidak.
1751	Entziklopedia.
1755	"Gizakien arteko ezberdintasunaz" (Rousseau).
1762	"Kontratu Soziala" (Rousseau).
1765	"Korsikako Legeriaz gutunak" (Rousseau).

*** 3. Frantziako Iraultza**

Ez gara sartuko Iraultza honetaz zertzelada sobera ematen, baina beharrezkoa da aurrera jo baino lehen, iraultza-prozesuaren lerro nagusiak bederen ezagutzea.

Fenomeno iraultzailearen zergati orokorrak aipatu berri ditugu eta zergati hauek, neurri handi batean, 1789.eko Frantziako Erreboluzioari ere aplika dakizkioke, berezitasun propioren bat ahaztu gabe.

EGITARAU POLITIKOAK (1789)


"Koadernoak aztertuz argi dago, hiru Estamentuak puntu askotan ados zeudela. Hirugarrenak bezala nobleziak ere, Monarkia, konstituzionala izan zedila nahi zuen; hark bezala, askatasuna zaindu egin nahi zuen arbitrarietatearen kontra, eta administrazio-adar guztien erreforma sakona erabat premiazkoa ikusten zuen. Gizartearen egituraz hitzegin zenean agertu zen gatazka; ez noski salbuespenik gabe, baina onartzen zuen nobleziak bere pribilegio fiskalak baztertzea, hala ere gainerako guztiak gorde egin nahi zituen: Ordena bereizia osatuz segi, nekazarien gain zuen agintea mantendu, jaun-eskubideen bidez. Hirugarren Estamentuak eskubide-berdintasuna eskatzen zuen eta ez zedila egon frantsesen artean kategoria bat baizik". *(G.LEFEBVRE)*

a) Iraultzaren sorburuak

Gariaren prezioak 1788.ean mendeko puntu gorena lortu zuela frogatu du Labrousse-k. Goseak, biziki suminduta zeukan jendea. Bestalde, Estatu frantsesa defizit kronikoa jasaten ari zen. 1788ko "Compte du Tresor" delako dokumentu batek, 629 milioi libra jotzen ditu gastutzat, eta 503 sarreratzat. Beraz, Estatu frantsesaren defizita 126 milioi libratakoa zen; nobleek eta elizgizonek ordaindutako zerga batek bakarrik kita zezakeen diferentzia. Turgot, Necker, Calonne, Brienne, bata bestearen ondoren, saiatu ziren estamentu pribilegiatuen ekarpen ekonomiko hori lortzen, baina ez aristokraten egonezina piztu gabe, eta hauek ministrarien despotismoari mugak ezartzeko aukera ona ikusi zuten Koroaren beharrizan eta eske fiskal haietan: 1614.az geroztik biltzen ez ziren Estatu Nagusien biltzar-deialdia egiteko eskatu zuten, beraz.

Biltzarre honetan, nobleziaren, apezeriaren eta estatu xehearen ordezkariek hartu zuten esku. Erregek amore eman zuenean hauteskunde-kan-

ESTATU NAGUSIAK (1789). Erregek deitzen zituen Estatu Nagusiak (lehenengo deialdia, 1302an); baina aldizkakotasunik ez zen gordetzen deialdietan. 1614az geroztik 1789rarte ez ziren bildu. Iraultzaren ataria gertatu zen deialdi hau, Parlamentuak (Tribunalek) eskatuta eta krisi ekonomikoak beharturik egin zen: 1.100 bat ordezkari hautatu ziren (270 noble, 300 bat elizgizon, 600 bat Estatu Laueko).




painari ekin zitzaion. Estamentu bakoitzak bere eskariak idazten zituen, (kexu-koadernoak: "cahiers de doléances"); garai hartako talde sozialen arazo eta desirak ezagutzeko iturri ezinbaztertuak dira orain historilariarentzat.

Estatu Nagusien biltzarrea, Versailles-en 1789.eko Maiatzaren 5ean ireki zen, Luis XVI.aren lehendakaritzapean.

Nobleziak eta apezeriak, boto-arazoan, ohitura zaharrari eutsi nahi izan zioten: ordezkariek ez zezatela banako botorik izan, baizik eta biltzarre osoa bere hiru estamentu edo adarrekin batera biltzean, boto bana emateko eskubidea hiru hegal hauei (eta ez ordezkari guztiei banaka) aitor zekiela nahi zuten lehenengo eta bigarren Estamentuek. Eske hau onartu ala ez, guztiz erabakiorra zen Biltzarre Nagusiaren nondik norakoa gidatzeko. Estamentuzko botoa onartuz gero, Estamentu xehea edo laua (=burgesia batez ere) beti izango zen galtzaile beste bien kontra. Aldakuntza eskatzen zuen burgesiak ez zezakeen onar nobleziaren eta apezeriaren nahikeria zaharkitu hura, jakin bai bait zekien ordezkarien banako boto-kopuruz beste bi estamentuak baino gehiago zena.

Gizarteari buruzko bi ikuspegi ezberdinen ispilu den arazo juridiko honengatik, eta akordio batera ezin iritsiz, Hirugarren Estatuko ordezkariek alde egin zuten eta Pariseko "Pilota-Lekuan" elkartu. Horrela sortu zen Biltzarre Konstituziogilea, berehala Iraultzaren abiapuntua izango zena.



N° 391.

L'AMI DU PEUPLE,

OU

LE PUBLICISTE PARISIEN,

JOURNAL POLITIQUE ET IMPARTIAL,

Par M. MARAT, auteur de l'Offrande à la patrie, du Moniteur, du Plan de constitution, &c.

Vitam impendere vero.

Du Dimanche 6 Mars 1791.

Nouvelles assemblées et nouvelle conjuration des anti-révolutionnaires, qui s'étoient rassemblés en armes dans l'appartement du roi pour l'enlever. — Exécution projettee de leur complot sous la huitaine, afin de ne pas faire morfondre sur nos frontieres les Capets conspirateurs et leurs amis les Autrichiens, qui n'attendent que la fuite de la famille royale, pour venir nous égorger. — Projet des municipaux de faire proclamer la loi martiale, pour appuyer l'exécution du complot de leurs complices. — Avilissement et dégradation d'un grand nombre des volontaires de l'armée parisienne.

A l'Ami du peuple.

Grand dénonciateur des conspirations contre la liberte publique, apprenez donc aux badauts de Paris, qui en agissent avec les traîtres à la patrie, comme des chasseurs imbécilles qui s'amuseroient à tirer à


IRAULTZAREN IDEIAK. Aldakuntza sozio-ekonomikoek eta ideien aldakuntzek ekarri zuten Iraultza. Eta hau lehertu zenean, egunkari, aldizkari eta moeta guztietako argitalpenetan zabaldu ziren, oraindik indartsuago, ideia berriak. Hemen: Marat-en "L'Ami du Peuple" (=Herriaren adiskidea).

b) Iraultzaren faseak

Historilarien artean ohizkoa da ondorengo etapa hauek bereiztea Iraultza Frantsesaren barnean:

- Biltzarre Konstituziogilea (1789-1791)

Biltzarre hau bildurik zegoen bitartean, herri-mugimenduak gogortuz joan ziren. Hornidura-eskasiak, produktuen garestitzeak eta goseteak kalera bultzatu zuen jendea. Luis XVI.ak Biltzarre Konstituziogilea disolbatu nahi ote zuen zurrumurruaren aurrean, paristarrek La Bastille-ko presondegia hartu zuten Uztailaren 14ean. Parisetik kanpo, ostera, beste garrantzizko faktore eragile batek bizkortu zuen herri-mugimendua: 1789.eko udako Beldurraldi Ikaragarriak ("La Grande Peur"). Aristokratek bandidoak hitzartu zituztela uste zen, mendekari bezala. Egoerari buru egiteko armak hartu zituzten nekazariek. Ustezko bandido haiek ez zituzten aurkitu, eta, urduri, handikien aurka altxatu ziren eta haien gazteluei su eman.



BASTILLEko GAZTELUAREN HARTZEA (1789). Parise iraultzailea, Erregeren armadak une batetik bestera erasoko zion beldur zen: bere buruaren defentsarako arma-bila zebilen jendea. Bastille-ko gotorlekuan bazeudela jakinik, hara abiatu zen herria: lubanarroraino sartzen utzi zituzten, eta orduan tiroka eraso zuten barrukoek. Jendetzak atzera egin zuen, 98 hildakorekin. Gaztelukoek,noragabean edo, zubi altxagarria jaitsi egin zuten eta handik sartu ziren herritarrak. Iraultzaren garaipen-egun sinbolikoa bihurtu zen Frantzian Uztailaren 14a,Bastille hartu zen eguna hain zuzen.


Herritarren ezinegon eta urduritasunek eraginda, Biltzarre Konstituziogileak honako erabaki hauek hartu zituen, benetan iraultzaileak:

- Handikien pribilegioen eta eskubide feudalen deuseztapena: Legearen aurrean, hiritarrei berdintasun osoa aitortu zitzaien.

- Giza Eskubideen Deklarazioa.

- Apezeriaren Konstituzio Zibila: Elizgizonak Estatuaren funtzionari bihurtu ziren. Konbentuak itxi eta Erlijioso-Ordenak kentzea erabaki zen.

- 1791ko Konstituzioaren Aldarrikatzea. Konstituzio hau, Estatuaz jabeturiko klase burges berriaren adierazpen politikoa zen: botereen banaketa, apezeriaren Konstituzio Zibila, sufragio zentsaria ziren sistema berriaren zutabeak. XIX. mendeko konstituzio-prozesu burges guztiarentzako



KONSTITUZIO ZIBILA (1790. urtea). Erregimen Zaharrean, Apezeriak aparteko Estamentu bat osatzen zuen, pribilegio bereziak zituela. Iraultzak, hain zuzen, Estamentu bezala desagertzea eskatu zion, eta pribilegioak uztea. Horretarako, eliztarrei Konstituzio Zibil bat ezarri zion Biltzarre Konstituziogileak: Frantziako Eliza Katolikoaren egitura agintari zibilek birmoldatu nahi zuten, beraz. Elizgizonak "zinegindako" eta "zinegingabeko" bi talde kontrajarritan banatu ziren. Politika iraultzaileak berehala etsai ugari sortu zuen barruan eta kanpoan, eta erbestetik ere erasoak etorri zirenez, "zinegingabekoa" izateak Iraultzaren etsaitzat joa izatea esan nahi zuen: preso hartu zituzten halakoak, erbestera ihesegiterik izan ez zutenak noski. Sarraski odoltsurik ez zen falta izan zinegingabeko preso hauen aurka.

eredu bilakatu zen 1791ko Konstituzio iraultzaile hartan eskubide politikorik gabe geratu zen "laugarren estatu" delakoa, hau da, Hirugarren Estatuen burgesiarekin batera nahasian zegoen herri xumea.

Horrelako erabakien bidez egin zuen bere iraultza Hirugarren Estatuan ordezkatuta zegoen burgesiak; baina "laugarren estatua", herritarrak, langilegoak alegia, ez zuen hor bere irtenbidea aurkitu.

- Biltzarre Legegilea (1791-1792)

Bere eginkizuna buruturik, disolbatu egin zen Biltzarre Konstituziogilea, eta biltzarre berri baterako hauteskundetara deitu zen. Biltzarre Legegile berri honek emigratuen ondasunen bahiketa eta Konstituzioa onartu nahi izan ez zuen apezeriaren deportazioa dekretatu zuen.



Frantziako gertaerez kezkaturik, han eskuhartzea erabaki zuten indar europarrek. Horren kontra beren buruak defendatu beharrez, gerrateak, kausa nazional bakarraren inguruan elkartu zituen indar iraultzaile ezberdinak. Luis XVI.a eta beronen familia, berriz, indar armatu atzerritarren eskumakila bezala ikusi ziren, eta preso hartu. Atzerritarren Valmy-ko garaitzapenak iraultzaileen adorea indarberritu baizik ez zuen egin. Lehen aldiz, orduan egin ziren hauteskundeak sufragio unibertsalez. Honela, Iraultza aro berri batean sartu zen, guztietarik bortitzena eta larriena.

MARIE-ANTOINETTE (1755-1793). Austriarra zen jaiotzez Frantziako Erregina hau. Iraultza aurretik ere, interes austriarren aldekotzat salatua izan zen. Iraultzakoan, erreboltariei gogor buru egiteko eskatu zion Erregeri, eta bere aldetik baita ahaleginik egin ere. Gilotinan lepamoztuta hil zen (marrazkian Erreginaren azken uneak).



FRANTZIA ERASOTA. Frantziaren inguruko erreinuak Iraultzaren kontra doaz, elkartuta. Emigratuek, Austriaren eta Prusiaren laguntza dute. Barnean, berriz, Frantzia erdia erreboltaturik dago; zenbait lekutan lehertu da gerra armatua ere. Etsaiez inguratuta, barrutik ere erasoa, arrisku larrian ikusten du Iraultzak bere burua izan zen Robespierre. Une hau Izualdiarena da (1793-1794), burgesiak boterea eskuratu zuen arte luzatu zen egoera.

- Konbentzioa (1792-1794)

Errepublika deklaratu zen, eta Luis XVI.a kondenatu eta gilotinatu zuten (1793ko Urtarrilean). Aurrerantzean, guztiz ezinezkoa izango zen Iraultzak eta Europa monarkikoak elkar ulertzea.

Aldiberean, prozesu iraultzailea gogortuz zihoan. Barneko kontrairaultzaren eta kanpotiko indar atzerritarren inbasioaren bi arriskuen aurrean, jakobinoek, Robespierre-ren zuzendaritzapean, salbuespen-erregimen bat hautatu zuten, agintea zentralizatuz eta errepresioa ordurarteko iraultzaldian ezagutu gabeko mugetaraino eramanez.

Kanpoko egoera larriaren aurrean, gerrarako jende-bilketa masiboa dekretatu zen: milioi bat lagun izan zen armadetan mobilizaturiko solda-

G.J.DANTON (1759-1794).Iraultzako gizona zen, orduan politikara iritsia. 1792an Justiziako Ministrari izan zen. Berak eratu zuen armada, hau da,atzerritarren kontrako defentsa herritar armatua.1794-ean jakobinoen eskuin hegalaren buru bilakatu zen. Robespierre-k eraman zuen auzitegira. Gilotinan hil zuten.



duteria. Horrela eman zitzaion aurpegi erbestetiko arriskuari.

Barnean, ordea, izua eta beldurra bihurtu ziren lege: hain zuzen, gobernu jakobinoak ezarritako salbuespenezko erregimen errepresiboaren garaia "Izualdia" (1793-1794) bezala ezagutu izan da historilarien artean. Milaka lagun izan ziren heriotzera emanak, Erregina bera ere tartean zela.



- Erreakzio termidortarra

Honela ezagutzen da Robespierre eta honen aldekoen aurkako Estatu-kolpearekin hasten den aro berria, Termidor hilean gertatu baitzen aldakuntza hori politiko (1794.eko Uztailean). Gobernu iraultzailearen politikaren aurkako erreakzio moderatu bat izan zen aldi berri hau. Klub jakobinoak eta herri-elkarteak istea dekretatu zen. Pasata zen, harez gero behin-betirako, herri-mugimenduen aroa. 1795.eko Konstituzio berriarekin ordenu-aro bat hasi zuen Iraultzak.

M. ROBESPIERRE (1758-1794). Iraultzaile hau Iraultzaren "Legegilea" izan zen: gartxua, printzipioetatik sahiestezina, errukigabea. 1794eko udaberri-udetan nagusitu zen diktaduraren burua izan zuen Robespierre. Legeztatu zuen iraultza soziala bultzatu nahi izan zuenean, konbentziotar gehienak kontra jarri zitzaizkion, azkenean garbitzeraino.

ERREAKZIO TERMIDORTARRA (1794)


"Erabaki guzti hauek politikan erregimen autokratikoa bultzatu bazuten, sozialki Iraultzarekin beren abantailak galdutako taldeen nagusitasuna dakarte berriro. 'Konkordatua' izenpetu ondoren, eliza katolikoaren kultua da bakar-bakarrik onartzen dena. Noblezia inperial bat sortzen da, eta beronen kopuruaren garrantzia hazten lagunduko da.


Burgesia handiak bere mozkin komertzial eta industrialak sendotu egiten ditu, eta lurretan inberti dezake.(...). 1789.ean burgesiak bereganatu egin zuen agintea; Iraultzaren goraldian, laugarren Estatua sartu zen bizitza politikoan; Napoleonekin handikiek --aristokraziak, goi-apezeriak eta goi-burgesiak-- berreskuratzen dute nagusitasun soziala". *(A. FERNANDEZ)*

1795.eko Konstituzioak bost laguneko zuzendaritza bat ezarri zuen, **Direktorioa.** Honen gobernaldian oposizio bikoitz bati aurre eman behar izan zitzaion: Iraultza bukatu zela eta Borbondarrek erretaulkira itzuli behar zutela uste zuten erregetiarrenari alde batetik, eta bestetik Iraultza saldua izan zela pentsatzen zuten jakobinoenari.

Egoera honek sortu zuen egonezinak Brumarioren 18ko (1799.eko Azaroaren 18ko) Estatu-kolpea ekarri zuen, eta, ondorioz, **Kontsulatu** baten ezarpena: hiru kontsuli eman zitzaien beteearazteko boterea. Napoleon Bonaparte zen hauetariko bat. Hasieratik bertatik, beste bi lagunei baino betekizun gehiago eman zitzaizkion Bonaparteri. Hori izan zen haren geroko agintearen abiapuntua. Honen aginte pertsonala areagotu egin zen oraindik Bonaparte "biziarteko kontsul" izendatzean. Pausoz pauso iritsi zen, beraz, Napoleon-en Inperioa (1804-1814) Frantzia eta Europara.

Erregimen berriarekin ere irauten du, teorian, subiranotasun nazionalaren dogma rousseautarrak. Baina, praktikan, murriztu egiten dira legegintz gorputzaren konpetentziak. Justizia Napoleonen eskuetan geratu zen eta prentsa-askatasuna desagertu, izatez.





NAPOLEON BONAPARTE (1769--1821). Napoleon, Berlin-en (1806), Jena-ko guduaren ondoren:"Prusiarren armada handi eta eder hura desegin da, udazkeneko behe-lainoa eguzkitan bezala. Ez da deus gelditu". Frantziako Iraultza, arma bidez finkatu zen, eta Napoleon-ek guduak irabazi ezezik, haren ideiak ere zabaldu zituen.

EUROPAren KONKISTA? Frantziako Iraultza ez zen Erreinu edo Errepublika hartako barrutira mugatu. Termidor ondoren ere, Direktorioak segitu egin behar izan zuen Konbentzioko Salbamendu-Batzordearen defentsa- eta eraso--politika.

B) ZAHARBERRIKUNTZARAKO AHALEGINAK

* 1. Vienako Kongresua (1815)

Napoleon garaituta eta Iraultzaren lorpenak baztertuz, Vienan bildu ziren indar irabazleak, Erregimen Zaharreko ideien arabera, Europa berregituratzen saiatzeko. Ordenamendu berria Ingalaterra, Errusia, Austria, Prusia eta Frantziaren ardurapean egin zen.

Europa berregituratu honek oinarritzat dituen hastapenak puntu hauetan laburbil ditzakegu:

1. Zaharberrikuntza eta legitimitate historikoa.

2. Monarkia europarren solidaritatea, kolpe iraultzaileen aurrean (Aliantza Saindua).

3. Indar europarren arteko oreka.

1789.eko ideiek ordea, bizirik zirauten jendartean eta Europako egonezina gehituz zihoan:


- Burgesia liberala frustratuta sentitzen zen iraultzaren porrotagatik: Liberalismoa mugimendu bizia zen, beraz.

- Halaber, nazionalitateek, ez baitziren kontutan hartuak izan Vienako banaketan, beren ahotsa entzun erazi nahi zuten: hortaz, herrien abertzaletasunak indarrean zeuden.

- Langile-klaseak artean lortu gabe zeuzkan bere erreibindikazio guztiak gizartearen antolaketa berriaren zain zeuden: mugimendu sozialak.

Iraultza: sistemaren arriskua

"Iraultza Frantsesa lehertu zenean nahikoa odol hotzez hartu zuten gertakaria Europako gobernuek: Erakundeak bapatean aldatzeak, matxinadak sortzeak, dinastiak erasteak eta erregeak asasinatu edo lepamozteak ez zituen hunkitzen XVIII. mendeko gobernariak, halako gertakarietara ohituak bait zeuden. (...). Baina, 1815.ean, Iraultzari buruz guztiz bestelako jarrera zen nagusi potentzien politikan. Ordurako jakina zen erresuma bateko iraultza ere fenomeno europarra izan zitekeena; haren doktrinak mugetatik kanpo ere heda zitezkeela, eta --okerragoa ere zena-- armada iraultzaileek (helburu iraultzaileen gurutzatu bihurtuta) kontinenteko sistema politikoak ere garbi zitzaketela. Beraz, ikusita zegoen iraultza soziala posible zena; nazioak Estatuetatik zerbait independente bezala ere egon bazeudela, eta pobreak berak ere bazirela zerbait klase-gidarietatik independente bezala ere". *(J.E. HOBSBAWN)*



ALIANTZA SAINDUA (1815). Hiru enperadoreren artean egindako elkartasuna deitu zen honela (Austria, Errusia eta Prusia). Hitzarmen mistiko-politiko bat bezala zen, "Hirutasun Txit Santu eta Banaezinaren izenean" egindakoa. Ingalaterrak ez zuen onartu: "Mistikotasun eta zorakeriaren *monumentu*" bezala ikusi zuen Castlereagh ministrari ingelesak.

Beraz, leherketa iraultzaile berrietarako baldintzak bizirik eta prest aurkitzen ziren. Aipatu berri diren puntuok (Liberalismoa, Nazionalismoa eta mugimendu sozialak) hiru iraultza diren oinarriak izango ziren (1820, 1830, 1848), azkenean burgesiari garaitzapena eman zioten arte.

* 2. Iraultza liberalen jarraipena

a) Lehen ekinaldi iraultzailea: 1820

Alemania, Espainia, Italia, Portugal, Errusia: Monarkia guztiak zeuden altxamendu eta errebolta liberalekin zer gerta zitekeenaren aurrean erne. Riego-ren altxamenduak bereziki urduri jarri zituen.

Askatasuna:
Nahi eta ezin (1820)

*"Grezia eta Ameriketako kolonia espainiarretan, matxinada **politiko** hauek errebolta **nazionalekin** batera nahasian agertzean (1820aren inguruan), Parisetik gidaturiko konplot jakobinoren baten fruitua zela uste izan zuten Metternich eta Zar-ak. Egia esan, nonahi suertatu ziren errebolta hauek, eta berauen kausak orokorrak izan ziren. Askatasuna irabazteko ahalegin desordenatu eta ezina izan zen lehenengo errebolta-olatu hau".*

(J.-B. DUROSELLE)



KARLOS X.a (1824-1830) bere Ministrariekin. Barne-politikan Errestaurazioa lagundu zuen, inolako irekitasunik gabe; kanpoan, berriz, Greziaren independentzia eta Algeriako politika kolonialaren hasiera.



K. METTERNICH (1773-1859). Napoleon-en ondoko Zaharberrikuntzan "Metternich sistema" deitua gidatu zuen Europan. Ministrari austriar honek erabili zituen potentzia ez-liberalen hari diplomatikoak hamarkada haietan. 1848-an erbestealdi bat ere jasan zuen horregatik.

Mugimendu hauek politikoak izan ziren funtsean: erregimen absolutuaren ordez, monarkia konstituzionala lortzea zuten beren xedea.

Grezian, hala ere, askapen nazionala izan zen mugimenduaren helburua: Greziarrek, Europako filohelenismoak lagundurik, independentziarako gerrate luze bat egin zuten (1821-1829).

b) Bigarren ekinaldi iraultzailea: 1830

Gogora ditzagun, Iraultza honen aurreko datu batzuk: nekazal krisiarekin batera (1827), ez zen falta arazo politikorik. Napoleon garaitua izan ondoren, Luis XVIII.a itzuli zen Frantziara, berehala "Gutun Emana" eskainiz (Parlamentu-erregimen zentsaria). Beronen ondorengoak, Karlos X.a (1824) atzerakoiak, Parlamentuaren eskubideak murriztu nahi izan zituen; saio honek Parisen altxamendu bat sortu zuen eta Luis Felipe Orleans-ekoa erregetzat ezarri (1830.eko Uztaila).

Pariseko Iraultzak eragin handia izan zuen Europan, eta baretutako mugimenduak bermugitu egin ziren hainbat tokitan: Espainia, Belgika, Polonia, Alemania... Denetan ez zen esanahi berekoa: Portugalen, adibidez, liberala izan zen, eta Italian nazionala. Mugimendu iraultzaile zabal hau ordea, bi lekutan bakarrik gertatu zen garaile: Frantzian erregimen monarkiko berria ezarri zuen, eta Belgikari Estatu-nortasuna eman zion, independentzia alegia, Herbehereetatik bereizita.

Uztaileko Iraultzak aldi berri bati ematen dio hasiera, hain zuzen burgesiaren garaitzapena eta aristokraziaren behin-betiko erorikoa suposatuko duen aro berriari. Monarkia konstituzional zentsaria nagusituko da Europa mendebaldarrean.

Herrien kontzientzia

"Ene ustez, Iraultza Frantsesak eta Napoleon-en ekintzek begiak ireki erazi zizkioten munduari. Lehenago, nazioek ez zekiten deus, eta Erregeak mundu gain honetako jainkotzat zeuzkaten herriek, eta, hortaz, haiek egiten zuten guztia ongi egina zegoela pentsatzera behartuta zeuden. Gertatu den aldakuntzaren ondoren zailagoa da herrien gobernua".

(KOLOKOTRONIS, 1770-1843 Abertzale greziarra)

CHIOS IRLAKO SARRASKIA. Abertzale greziarren erreboltaren ondoren turkiarrek sekulako hilketak egin zituzten irla honetan, altxamendua itotzeko. Pintura erromantiko jaio berriak honela ikusi zuen gertakaria (Delacroix, 1798-1863). Irla hau, oraindik 1912rarte eduki zuen Turkiak bere menpe.



Haur greziarra

"Heldu dira turkiarrak hara.
Dena da hondamendi eta dolu.
Chios ardoen irlan uhaitz
iluna da oro...

Dena basamortu. Baina ez:
murru beztuen ondoan,
Begi urdineko haur
greziar bat dago,
Eserita, burua makurturik...
(...)

- "Zer nahi duzu?" (...)
- "Lagun hori --dio begi
urdineko haur greziarrak--:
Bolbora eta balak
nahi ditut nik".

(VICTOR HUGO, 1829)



Varsovia-n ordena da nagusi (Lit., Granville, 1831).

POLONIARREN ASKAPEN-ALTXAMENDUA (1830-1831)

(Abertzale poloniarrak aspalditik ari ziren Zar errusiarraren kontra, beren askapen-matxinada prestatzen. 1830eko egokiera sortu zenean lehertu zen iraultza. Herritarrok bederatzi hilabetetan eraso guztiei aurpegi eman ondoren, azkenik armada errusiarrak odoletan ito zuen errebolta. Europa osoan sekulako oihartzuna izan zuen, liberalen artean, Poloniaren ezbehar hark. Altxamendu-ondoko hiru dokumentu jasotzen ditugu: Zarrarena, garaiko egunkari batena, Gregorio Aita Santuarena:)

NIKOLAS ZARRAREN MANIFESTUA

(Agintari armaz garailearen poza eta ideologia politiko-erlijiosoa erakusten dizkigu Errusia guztietako Zarraren agiri honek:)

"Nere menpeko leial guztiei zera ematen diegu aditzera:

Saldukeriak piztutako gerratea amaitu da: Poloniako Erreinuko bizilagunak libratu dira erreboltarien biolentziatik, eta gure armadak alde guztietatik estututa, haietatik azkeneraino beren itsutasunean iraun duten hondarrak Estatu mugakideetan babestu dira, beren armak ere entregatuz.

Menpeko leialok! Garaitzapen honen albistea zuei zabaltzean, berorrek ordenu eta baretasuna ekarri dizkigula da pozgarria batipat; zuekin elkartzen gara berriro ere, gure aita-bihotzarentzat hain penagarria zen borroka honen hasieran egin genuen bezalaxe, herri eta inperioen zortea bere eskuetan duen Harengana zuzenduz, izan ere hain argiro bedeinkatu bait du Hark gure eskubide jatorra".

ZAPALKUNTZAREN BERRIAK

(Armada zaristaren errepresio ikaragarriaren berriak honela eman zituen Alemaniako egunkari batek:)

"Siberiara eramandako poloniarren kopurua bada jadanik 84.000koa. Ilea moztu eta izena ere kendu egiten zaie, zenbaki batez izendatuz.

Siberian, poloniar hauek ezkontzera bortxatzen dituzte, emagalduekin ezkontzera, beren legezko emazteak gerra-harrapakin bezala soldadu errusiarrei ematen zaizkien bitartean". ("Freiburg-eko Abertzalea": 1831-apirila-28)

AITA SANTUAREN HITZAK


(Gregorio XVI.a Aita Santua izan zen libertate politikoen etorkizuna eta jatortasun morala gutxien ulertu zuena. Polonia katolikoaren arrazoiak eta altxamendua honela epaitu zituen Entziklika batean:)

"Jakin dugu, Poloniako erreinu loratsu hura gogo gaiztoko batzuek nolako miseria ikaragarrira eraman duten, eta, erlijioaren interesen aitzakiarekin, nola erreboltatu diren legezko subiranoen boterearen kontra... legezko menpekotasunaren lotura guztiak hautsiz". (Gregorio XVI. 1832-VI-9)

Hala ere, bizilagun gehienak artean politikagintzatik kanpo geratu ziren: burgesia txikia, langileria, nekazariak... Horregatik, hirugarren olatu iraultzaile bat altxatu zen egoera honen aurka.

c) Hirugarren ekinaldi iraultzailea: 1848

Hirugarren une honetako gertakarien arrazoi argigarriak hemen errenkan, elkarren ondoan, eman nahi balira, hauxe izan liteke arrazoi-zerrenda hori:



KONSTITUZIOAREN PILULA (1848). Karikatura honetan irri egiten zaie Konstituzioa onartzera behartuta gertatu ziren Errege absolutistei.

BELGIKAren INDEPENDENTZIA (1830). Pariseko altxamenduek (Uztailaren 27-29) barne-barnetik eztenkatu zuen Valoniako gazteria, Holandaren menpe bait zegoen lurraldea 1814az geroztik. Katolikoen eta liberalen arteko batasunari esker lortu zen erreinuaren independentzia.



"Abertzaleak" aurrera

"1832az gero, mugimendu nazionalak eratu egiten dira: potentzia handiek zapaldutako arraza- eta hizkuntz taldeek ***aberriak****, Estatu independenteak, antolatzea eskatzen dute. Sarrienik,* ***abertzale*** *hauek, politikan, liberalak dira. Italian, Alemanian, Austrian askapen-mugimenduak berjaiotzen dira. Errusian bertan ere, 1825ean itotako "abendutarren" tradizio liberala jarraiki egiten da isilpean".*

(J. DUPAQUIER)



IRAULTZA (1848). Pariseko herritar bat, armatuta.

- Sufragio unibertsalik eza,
- Doktrina sozialisten indartzea,
- Propaganda errepublikazalea,
- Nazionalismoen bizkortzea
- Nekazal krisia (1846-1847).
- Langabezia eta askatasun formalen falta, oligarkiak eta lurjabe handiek menperatzen bait zuten erregimen politikoa.

Otsailean, erretaulkitik iraitzita, Luis Felipe-k erbestera ihesegin zuen, eta Europa osoan izan zuen horrek oihartzuna: Viena-n, Metternich ministrariak ere alde egin behar izan zuen. Langileen eta ikasleen erreboltaren aurrean, aginte absolutua utzi eta Parlamentu hautatu bat agindu behar izan zuen Enperadoreak.

Inperioko herriak armatan altxatu ziren, askapen nazionala eskatuz: Hungariari autonomia oso zabal bat (parlamentua, armada, moneta, diplomazia) agindu zitzaion, Praga-n Kongresu Paneslaviar bat bildu zen, austriarren Venezian Errepublika aldarrikatu zen, Alemanian ideia nazionala hango hiri libre eta erreinuetan indartsu agertu zen... Garaiko langileen eta abertzaleen asmoak nahasi-mahasian ageri ziren herri erreboltatuengan.

1848.ekoa izan zen XIX. mendeko altxamendu iraultzaile bortitzenaren urtea: berau izan zen larriena eta eraginik handienekoa. Porrot egin arren, 1848.ekoaren garrantzia ukaezinezkoa da: herriak, langile klaseak, klase organizatu bezala, lehen aldiz hartzen du parte bizitza politikoan. Honegatik hartu izan da data hau langile mugimenduaren hasieratzat.

Garai zaila (1815-1871)

"Bi gerrate izugarrik odolustutako XX. mende hau 1815 eta 1871ren arteko garaiarekin alderatzen dugunean, gure aurrekoen zorte ona miresteko joera dugu. Ilusio hutsa da. Europaren Historian garairik krudelena eta mingotsena izan da XIX. mende hori. Istiluak, erreboltak, iraultzak barnean; gerrateak, gatazkak, interbentzioak kanpoko harremanetan: guzti horrek mugarritu zuen aldi hura". (J.-B.DUROSELLE)


IRAULTZAREN HERENTZIA (1848)

"1850aren azkenetan dena bukatuta zegoen. Iraultza nonahi deseginda ageri zen.(...). Itxaropen abertzale guztiak moztuta. Europaren mapak ez zuen aldakuntzarik jasan.(...). Hala ere, mugimendu zabal hartatik oinarrizko zerbait salbatu zen. Lehenik, Frantziak gorde zuen sufragio unibertsala.(...). Bigarren, jaun-erregimenaren azken aztarnak ezabatu ziren, ordurarte iraundako herrietan berriz indarrean jartzeko inolako ahalbiderik gabe, Errusian salbu, hemen 1861eraino luzatu bait zen serbutza. Eta, bukatzeko, Estatu gehienek beren Konstituzioei eutsi egin zieten, emandakoak nahiz botoz irabazitakoak izan. Hauetatik bi, bata indar intelektual eta moral handiko Prusia eta bestea Piamonte(...), mugimendu nazionalen erakarpuntu bilakatuko ziren. Laster ikusi ziren horren ondorioak". (I.PINI, M.S.IZZI)

* 3. Mugimendu nazionalak

Viena-ko Kongresu zaharberritzailea (errestauratzailea) gorabehera, asmatu zuen burgesia liberalak bere lorpen iraultzaileak berreskuratzen; 1820, 1830 eta 1848ko mugimenduek lagundu zioten horretan. Europan, hala ere, oraindik bete gabe zegoen bestelako erreibindikazio sakon bat: korronte nazionalistez ari gara, Viena-ko Kongresuak taxututako mapan ezertarako aintzat hartu ez zen herrien gogo politikoaz, alegia.

Nazionalismoa XVIII. mendearen azkenetan eta XIX. mendean zehar sortu zen, ñabardura ezberdinak hartuz, garatzen ari zen Herri bakoitzaren arabera. Erromantizismoak ideologia nazionalista finkatzen lagundu zuen, nazioa hizkuntz erkidetasunean, ohitura eta tradizioetan eta historian agertzen den izaki bizi bezala ulertuz.



SERBIA. Turkiar txikiak zera galdetzen dio serbiarrari, karikatura honetan: "Nola hazi haiz hain denbora gutxian?". Ikustekoa zen nola ari zen desegiten Inperio Otomandarra, XIX. mendean.

Naziotasuna


"Herri bakoitzak betekizun berezia du, eta berori burutuz eskaintzen du bere lankidetza gizadi osoarena betetzeko ere. Betekizun hark egiten du haren ***naziotasuna.*** *Naziotasun hau sakratua da".("Europa Gaztea" Elkarteak, 1834)*

Ez da ahantzi behar, gainera, 1804.etik 1814.erarte Europa Napoleonek menperatu zuela, menperaturiko herriengan beraien burua askatzeko eta nortasun historikoa mantentzeko nahia piztuz.

Guzti honen ondorioz, Europako Estatu nazioaniztunek zapaldutako Herri askoren borondatéei era konkretua eman zieten doktrina ezberdinak agertu ziren.

XIX. mendearen lehen erdialdean, eta ikusitako iraultzen testuinguruan, bi Herrik lortu zuten independentzia: Greziak Turkiatik aldendurik, eta Belgikak Holandatik. Mendean zehar, Italiak eta Alemaniak bateratu eta Estatu bilakatzea ihardetsi zuten, kapitulu honetan ikusiko dugun bezala. Beste zenbait nazionalitatek, hala ere, 1918.eko Versailles-eko hitzarmena arte itxaron behar izan zuen, eta beste batzuk, azkenez, beren askatasunaren alde borrokatuz jarraituko dira oraindik, bukatu gabeko prozesu batean.

ITALIAren BATERATZEA



a) Italiaren bateratzea

Vienako Kongresuaren ondoren, penintsula italiarra zazpi Estatutan banatuta geratu zen: iparraldean, Piamonteko erresuma, Genova eta Saboiaren anexioaz handituta, eta Lombardia-Venetoko Erresuma, austriarren kontrolpean. Erdian Parma, Modena eta Toskanako dukerriak eta Eliz Estatuak. Hegoaldean Napoli-ko Erresuma.

ITALIAREN BATERATZEA (1870). Alemaniakoarekin batera, Italiakoa izan zen batasun-lorpen politikorik handiena Europan. Beste hainbat herrik XX. menderarte itxaron behar izan zuen bitartean, Italiak, Piamonte-tik hasita Erromaraino, bere batasuna egingo du arma bidez, Aita Santuari ere bere Eliz Estatuak kenduz. Baina ez Niza eta Saboia Frantziaren eskuetan galdu gabe; gisa berean, italiartzat emater zen zenbait lurralde (Tirol, edo Veneziarenak izandakoak). Batasun-politikaren ondorioz, Italiako katolikoak 1929rarte (Konkordatua) bizitza politikotik kanpoan geratu ziren.

Une horretatik aurrera, bi ziren Italian batasun-zaleek beren helburuak lortzeko gainditu behar zituzten oztopoak: 1. Penintsulako iparraldean zeuden austriarrak. 2. Eliz Estatuak, 1848ko porrotaren ondoren armada frantsesak babestuak.

Batasun-prozesua pixkaka bete zen, laburki azalduko ditugun ondoko fase ezberdinetan:

1859: Napoleon III.aren eta Cavour-en (Piamonteko lehen ministrariaren) arteko aliantza, austriarren aurka. Magenta eta Solferinoko guduen ondoren, austriarren hondamendiarekin Piamontek Lombardia anexionatu zuen, beronek, trukez, Frantziari Niza eta Saboia utziz.

ELIZ ESTATUAK ZERTARAKO?

"Urte-sail batean Inperio napoleondarraren parte izan ziren eta urte guzti horietan begiz jota zeukan Austriak beretzat herentzia posible hori. Baina Pio VII.aren Estatuko Kardinal-idazkari Consalvi-ren diplomaziak irabazi zuen orduan. 1815etik aurrera, ba, independentzia horren ordain bezala, Aita Santuek berriz ere beren bizkar hartu zuten lurralde baten gobernu-eginkizun ezinkonpondu bat. (...) Estatu hartan administrazio osoa (gehiegikeriarik gabe esan daiteke), subiranoarengandik hasi eta bulego publikoetako enplegatuenganaino klero-jendea zen.

Eta inefikaza zen. Zergak ez ziren pisuegiak, baina ez zegoen industria eta merkatalgorik eta herriaren itzelezko portzentaia bat eguneroko esketik bizi zen. (...).

Frantsesen garaiko gobernaera eraginkorraren oroitzapenak, orduan sistema juridiko eraberdin definitu batetik atera zitezkeen abantailek, edo legearen aurrean denak berdinak ziren denbora haien oroitzapenak (...): guzti horrek Aita Santuaren, fagore izpiritual edo eskomikoen kontrako gogoa piztu eta gogortu baizik ez zuen egiten hiritarrengan. Izan ere, propaganda iraultzaileari ezin bait zioten bestelakorik kontrajarri Leon XII.ak (1823-1829), Pio VIII.ak (1829-1830) eta Gregorio XVI.ak bezalako Aita Santuek". *(Ph. HUGHES)*



"HALAKO BOTARENTZAT AZKENIK OIN ONA!" (1860). Penintsula Iberiarra "zezen-larrua"ren antzekoa edo Frantzia "Hexagono" gisakoa ikusi izan diren bezala, Italia "bota" bat bezala deskribatu izan da. Garaiko marrazki honetan irudi horren ikusera politikoa ematen da: Garibaldik Vittorio Emanuele Erregeri Italia osoa eskaini zion.



PIO IX.a (1846-1878). Kardinal zela liberal-sona zuen; baina gero, Aita Santu bezala, ez zuen benetako erreforma politikorik egin Eliz Estatuetan. Azkenean, Italiaren batasuna Pio IX.aren kontra egin zen (1870).

1860: Piamontetarren garaitzapenaren ostean plebiszituak antolatu ziren Parma, Modena eta Toskanako Dukerrietan, Piamonterekin bategitea erabakiz. Aldiberean, Garibaldik Borbondarrak erretaulkitik iraitzi eta Napoli-ko Erresuma bere asmoetaratzea lortu zuen.

1866: Austria eta Prusiaren arteko gerratea (Sadowa-ko gudua). Italiarrek prusiarrei laguntu zieten, azkenik, garaitzapen-irabazi bezala Venezia eskuratuz.

1870: Eliz Estatuak eta Erroma geratzen ziren bakarrik Piamonte-ren eskuetatik at, soldadu frantsesek defendatuta. Edozein gisatan ere inoren armen esanetara zeuden. Frantzia eta Prusiaren arteko gerratea hastean, (1870, Uztaila), solda-

Gurutze Gorria (1864)

(Solferino-ko guda zelaian halako triskantza ikustean hunkituta, sortu zuen Gurutze Gorria Durant suitzarrak:).

1. Art. Anbulantzia eta Ospitaleak neutraltzat hartuko dira, eta halakotzat aitortuz, gerraegileek babestu eta errespetatu egingo dituzte.

2. Art. Ospitale eta anbulantzietako langileek, eta kapeilauek, neutraltasun horrek babestuta lanegingo dute.

7. Art. Bandera eta jantzi ezagugarriak... Banderak eta besoetakoek, hondo zuri baten gain gurutze gorria izango dute".

SOLFERINOko ITSUA

(Italiako batasun-gerrateek izan zuten oihartzunik Euskal Herrian ere. Elizanburu lapurtarrak (1828-1891), kapitaina izatera iritsi zenak, honela kantatu zuen Solferinoko guduan zaurituta itsu geratutako baten zorigaitza:).

Armen hartzera deitu ninduen
Gazterik zorte etsaiak
Urrundu nintzen, herri alderat
Itzuliz usu begiak,
Itzuliz usu begiak.

Zorigaitzean baitut ikusi
Solferino-ko hegia!
Alferrikan dut geroztik deitzen
Iguzkiaren argia
Iguzkiaren argia.

Betiko gaua, gau lazgarria!
Begietara zait jautsi:
Ene herria, ene lagunak
Nihoiz ez behar ikusi,
Nihoiz ez behar ikusi.

(J.B. ELIZANBURU)



G. GARIBALDI (1807-1882). Lehen urteetan Mazzini idazle eta politiko abertzalearen jarraitzailea izan zen. Ameriketan erbestealdi bat pasata gero (1834-1848), borroka armatuari heldu zion austriarren kontra eta, Saboiatarren inguruan, Italiaren batasunaren alde, Erroman (1849), Iparraldean (1859) eta Sizilia-Napolitan (1860). Abertzale erromantiko liberalaren eredu bilakatu zen.

duteria frantsesak Erroma babesik gabe utzi zuen, eta Napoleon III.ak, Sedan-en gudua galtzean, Erroma saboiatarren eskuetan erori zen: Italiaren batasun politikoa eginda geratu zen, beraz, Erresumaren hiriburua Erroma zela.

b) Alemaniaren bateratzea

1815.ean, Konfederazio germaniarra 39 Estatuz osatuta zegoen, baina hoinbeste partaideren artean bazeuden bi gidari nagusi, Austria eta Prusia. Dieta federal bat zen komunitateko organu bakarra, Austriako Enperadorea buru zuela. Austria, inperio nazioaniztuna bere "status" hartan mantentzen saiatzen zen bitartean, batasuna Prusia eta Bismarck lehen ministrariaren bitartez burutuko da; azken hau izan zen prozesu bateratzaile guztiaren lehen protagonista.

Alemaniako batasun-sentimenduak oinarri tinkoak zituen, ekonomikoak eta intelektualak:

- 1834. urtean **Zollverein**-a edo Alemaniaren iparraldeko Estatuen arteko aduana-batasuna eratu zen, Prusia nagusi zuela. Ondorio ekonomikoak berehalakoak izan ziren, Ruhr industrialdeko ekoizleak baterakuntzaren abantailez berehala konturatu bait ziren.



ADUANA-BATASUNA. Jendearen bizitzan ere, jantzi eta jateko, Alemaniako aduana-sistemak zituen akatsak kritikatzen zituen karikatura honek (1850).







- Bestalde, intelektualak (poetak, irakasleak, ikasleak) nazionalismo alemana goraipatzen hasi ziren, batez ere Fichte-ren Nazio Alemaniarrari Hitzaldiak ("Reden an die deutschen Nation", 1808) delakoen ondoren.

Guzti horrek, aparteko gizona zen Bismarck-en gidaritzapean Alemaniaren batasun-prozesua buru zedin baldintza egokiak sortu zituen.

ALEMANIAren BATERATZEA (1971). Batasun hau egin baino hogei urte lehenago honela ikusten zen Alemaniako mapa: **a)** Alde batetik **Konfederazio Germaniarra** (1815-1866), Austria buruzagi zela (38 Estatu subirano zituen, eta Dieta bat Frankfurt-en, 1850etik aurrera bildu ez zena). Ez zuen Alemaniaren batasun politikorik lortu, eta Prusiaren hedapen politikoa balaztatzeko erabili zuen Austriak Konfederazio hau. **b)** Bestetik, **Aduana-batasun alemaniarra** (Zollverein, 1834-1871). Prusian eta Alemaniako Iparraldean hazkunde ekonomikoak aduanak kendu-premia erakutsi zuen, merkatalgoa bizkortzeko. Prusiak bultzatu zuen asmo hau, "Zollverein" honetatik Austria beti kanpoan utziz. Prusia saiatu zen, gainera, Konfederazioko erakundeetan Austriaren presentzia ahultzen, eta ahal izan zuenean, Holstein Danimarkari kendu eta Austria armaz menperatzen ere (Sadowa, 1866). Hurrengo pausoa, Berlin-en aduana-parlamentua sortzean (1867) eman zuen Bismarck-ek, eta azkena Gerrate franko-prusiarrean (1871): Zollverein-aren barrutiak, gehi Altsazia-Lorenak, eman zizkioten bere lurralde-mugak II. Reich-ari, hau da, Inperio berriari.

BERLINeko UNIBERTSITATEA

(W. von Humboldt oso ezaguna izan da Euskal Herrian, XIX. mendearen hasieran hona egindako bere bidaiengatik eta euskarari buruz idatzi zituenengatik. Orduko jakintsurik handienetakoa zen, Alexander bere anaiarekin batera:)

"Akademia errusiarraren berrantolaketak berrikuntza nabariak ekarri zituen Humboldt anaien eskutik. Herri honen indarberritzean, erudizioak eta jakitateak muntarik handieneko zeregina bete zuten, Jena eta Tilsit-eko hondamendi nazional itzelen ondoren. Wilhelm von Humboldt, humanista, Berlin-en zegoen, eta Alexander von Humboldt, naturalista, Parisen eta bion arteko lankidetzak laburbildu zuen kultura alemaniarrean filosofiaren eta zientziaren arteko elkartasuna. (...).

Berlingo Unibertsitatea 1809-1810etan eraiki zen, galdu eta deitoraturiko Halle eta Erlangen-ekoak ordezkatzeko asmoarekin".

(C.C.GELLISPIE)

Italian bezalaxe, hemen ere etapa ezberdinak bereiz daitezke:

1864: Danimarkaren aurkako gerratea. Danimarkan Federiko VII.a (1863) hiltzean sortutako ondorengotza-arazoa zela medio, Prusiak Austriarekin batera Schleswig, Holstein eta Lanenburg-eko dukerrietan parte hartzea erabaki zuen, populazio gehiena alemaniarra bait zen, nahiz eta Danimarkaren kontrol politikopean egon.

1866: Austria-Prusien arteko gerratea. Laster, ordea, Prusia eta Austriaren arteko zeingehiagoka sortuko da. Prusiarrek austriarrak garaitu zituzten Sadowan (Königgrätz), eta Ipar Alemaniako Konfederazioa eratu zen, Main ibaiaren iparraldeko lurraldeak bilduz. Orduan albo batera geratu zen Austria, hegoaldean, baina batasunaren atari-atarian zegoen Alemania, Prusia buru zela.

Gerra, batasunaren oinarri

(Bismarck, Prusiako lehen Ministraria konbentzimendu honetara iritsi zen 1870a baino lehen: Frantziarekin gerrarik izan gabe ez zegoela Alemaniaren batasun politikoa egiterik. Alde batetik, Frantziak batasun hori oso bere gogoz kontrakoa zuelako, baina baita Alemaniako Iparralde-Hegoalde urrunduak bategiteko, elkarrekin batera egindako gerra premiazko ikusten zuelako ere. Begira zer idatzi zuen honetaz:)

"Konbentzituta nengoen aberrian Iparralde-Hegoaldeen artean Historian zehar sakondutako amildegia betetzeko, ez zegoela deus hoberik, mendez mende gure erasotzailea izan den ondoko herriaren aurka gerra nazional bat egitea baizik... Ez nuen zalantzarik, Alemaniaren antolamendu orokorra egin ahal izan aurretik beharrezkoa zela gerrate franko-alemaniar bat egitea". (BISMARCK, 1898)





O. BISMARCK (1815-1898) eta LEON XIII.a Aita Santua (1878-1903). Alemaniaren batasun-arazoa Prusiaren botere hegemonikoaren bidetik landu zen. Bismarck-ek gidatu zuen botere-politika hori, baina ez Alemanian bertan kontrakorik izan gabe: Eliza katolikoarekin jokatu behar izan zuen "xake-jokaldirik" gogorrena, Prusian bertan batez ere, zenbait apaiz preso hartzeraino ("Kulturkampf", 1871-1887).

Kulturkampf

(Alemaniako indar sozial oro bere esanetara jarri nahi izan zuen Bismarck-ek, Inperio sortu berriaren subiranotasun agintezalearen menpe: haren politikaren helburu nagusia zen asmo hau. Eliza katolikoak bere autonomia gorde nahi izanzuen, eta hortik jaio zen elkarren arteko liskarra: "Kulturkampf=Kultur borroka" deitu zitzaion beroni. Hona horren barruan emandako lege bat:)

"Bere profesio-egitekoetan, publikoki jendaurrean edo elizan, edo erlijio-bileretarako beste edozein lekutan, bake publikoa nahasteko lain gogoetak eginez herri-arazoak aipatzen dituen edozein elizgizoni bi urteko presoaldia eman dakioke"

(ALEMANIAKO LEGEA, 1871)

1870-1871: Frantzia-Prusien arteko gerratea. Isabel I.a erortzean (1868) Espainiako erretaulkirako erregegai baten beharra zegoen, eta arazo honen inguruan Prusiaren eta Frantziaren interes politikoak korapilatu eta ozpindu baizik ez ziren egin, bestalde Bismarck konbentzituta bait zegoen gainera Alemaniaren baterakuntza ezingo zela egin Frantziaren eraso armaturik gabe.

Ems-eko telegrama gogorraren bidez xaxatu zuen hark Frantzia gerra deklara zezan: Napoleon III.ak 1870.eko uztailean eraso zuen. Frantziak berehala galdu zuen gerratea, bi gudu erabakiorretan (Sedan eta Metz). Napoleon prusiarren eskuetan preso erori zen, Inperioa galduz eta Alemanian Inperioa aldarrika zedin bide guztiak garbi utziz: Parisen zeuden Prusiaren indar armatuak, eta Versailles-en aldarrikatu zuten Gilen I.a Enperadoretzat (1871).

ALTSAZIA, ALEMANIARRA?

"Denbora luzean, ez da egon inolako kontraesanik altsaziar izatearen eta alemaniar izatearen artean. Altsaziarrek alemaniarrekin batera gorde dituzte alemaniarrak frantses, ingeles, poloniar, italiar eta abarrengandik berezten dituzten ezaugarriak, hizkuntza batez ere. Beinolako subiranoek lurralderen bat halako edo bestelako Estaturen batera biltzen zutenean, erizpide linguistikoak ez ziren izaten erabakiorrak. Baina, "Francia Occidentalis" (geroko Frantzia) eta "Francia Oridentalis" (geroko Alemania) deituen artean subiranotasuna banatu zenean, altsaziarrak "alemaniarren" aldean aurkitu dira. Ez arrazoirik gabe". (E.PHILIPPS)

ALTSAZIA: MUGEN DANTZA

"Guk, frantsesak izan nahi dugu eta frantses izaten jarraitu nahi dugu, eta ez dago potentziarik munduan, ez dago sinaturarik, frantses izatea galeraziko digunik...

Altsaziar eta frantses bezala, protesta egiten dut, ene ustetan bidegabekeria bat den, gezurra eta desohorea den tratatu honen kontra, eta Asanbladak birretsi behar badu, kausa zuzen guztien mendekatzailea den Jainkoagana jotzen dut aldez aurretik".

(KELLER, Diputatu Frantsesa: 1871)

* 4. Gizarte-mugimenduak

Sistema kapitalistaren garapenaren ondorioz aberastasun handiak bildu ziren gutxi batzuren eskuetan; herri-masa parte handi batek hala moduzko biziera zeraman bitartean: gehiegizko lan-ordutegiak, soldata eskasak, familiak baldintza higieniko eta sanitario gabeko hirietako arrabaletan pilatuta... Egoera honek erreakzio politikoa (sufragio unibertsalaren, elkartzeko eta greba egiteko eskubideen erreibindikazioak, etab.) eta doktrinala ere piztu zituen. Sistema kapitalista berrikusi eta aldatu beharra nabaria zen.




PRUSIA/FRANTZIA. Alemaniaren batasuna Frantzia andereño lirainaren aurka egin beharko zela uste zuen Bismarck gerlariak (Garaiko karikatura).

Kroazia

(Gaur egun Kroazia Jugoslavian dago. XIX.ean, ostera, hungariarrekin batera Inperio Austro-Hungariarrean zegoen. Testuinguru politiko hartan honela idazten zuen abertzale kroaziar batek, Hungariatik ezarri nahi zitzaien magiartze-politikari erasoz:)

"Herri txiki bat gara gu, baina beste arro handiago batekoak (herri eslaviar guztietatik bat, alegia). Gure hizkuntza eta gure aiurri berezia kentzen utzi baino lehen (hau da, gure jeinua, gure odola, gure bizia) Errusiaren besoetara joango gara. Magiarren eskuetan dago gu azken mutur horretaraino ez bultzatzea, Pest-ek Vienan lortu duena Zagreb-i ere eman eta gu geu izango gara orduan San Esteban-en koroaren defendatzailerik beroenak".

SERBUEN ASKAPENA oso berandurarte (1861) ez zen lortu Errusian. 1845-1854 urteetako hamarkadan 348 altxamendu egin zituzten serbuek han. Lege berriarekin, Koroaren 22.500.000 serbuk irabazi zuen askatasuna 1861ean; baina gainerakoek lur-banaketa luze baten prozedura burutu arte itxaron behar izan zuten. Handia zen nekazarien miseria.



Langile-mugimenduetan aintzindaria, berriro ere, Ingalaterra izan zen. Lehenengoz, makinen aurka zuzendu zen borroka, zoritxar guztien erruduntzat berauek hartuz. Gobernarien erantzuna izugarri gogorra izan zen. 1813.ean, esate baterako, 18 langile eman zituzten heriotzera materialak hondatu zituzten salakizunarekin. Apurka, hala ere, langileen ahaleginak beren buruen prestakuntza hobetzera zuzendu ziren.


- 1825.ean lehen **langile erakundeak** ("Trade Unions" direlakoak) legez baimendu ziren. Funtsean haien eskakizunak erabat lanarekikoak ziren: alokairuaren hobakuntza,ordutegiaren laburpena, etab.

- Laster (1837-1842) lan-mugimendu politiko bat sortu zen ("chartism"), lan-munduko arazo hutsetatik aldenduz, erreibindikazioak politikara ere eramanez. Mugimendu honen oinarrizko eskaera sufragio unibertsala izan zen. Politikan aldaketarik sortzen ez bazen, ez zen lortuko benetako gizarte-aldaketarik ere: hori zen mugimendu honen hastapena.

Emakumezkoak lantegietan

"Hamar-hogei urteko neskatxak goizeko laurak edo bostetatik gaueko hamar-hamaikak arte, eta gauerdiraino ere, lanegitera behartuta daude; oso maiz, lanak presa duen aitzakiarekin, gau osoa pasatzera behartzen dituzte... Baina Lyon-eko ospizioetako heriotz erregistroak begiratzen badira, berehala ikusiko da, biriketako eritasunez hildako ehunetik bi heren gutxienez Lyon-eko harildegietatik irtendako neskatxak direna. Badago zenbait lantegi, bizpahiru urte ospitaleetara egonaldi bat egitera joan gabeko aprendizik ez duenik".

(LE PROGRES, 1870)




ZORROTZAILEAK harrian lanean (Thiers-en, Frantzia). Lanerako erosotasun hoberik aurkitu ez zen bitartean, honelako jarrera nekosotan lanegin izan zen Iraultza Industrialaren garaian.

- 1848.eko Iraultzaren porrotaren ondoren, langile-mugimenduaren parte batek **gizarte-iraultza** aldarrikatzen zuten doktrinak sostengatu zituen. Testuinguru honetan langileen Lehen Nazioarteko Elkargoa sortu zen, Londresen 1864ean, Marx-en gidaritzapean.

a) Doktrina sozialak

XIX. mendearen lehen erdialdian, sozialista utopiko edo marxistaurreko deituriko zenbait pentsalari saiatu zen esku pribatuek gainbalioa beregana ez zezaten; interesen harmonian oinarritutako gizarte ordenamendu berri baten ideia zabaldu zen.



HAURREN LANA. Ugazabek gogoz bilatzen zuten haur-laneskua. Zenbait lanpostutan, gainera, egokiagoak (!) ziren produkziorako haurrok,pertsona larriak baino: meatz-zuloetan, adibidez, lan astunik franko egin zuten haurrek.

Saint-Simon, Owen, Proudhon, Fourier, Blanc-ek beren gehiegizko idealismoagatik maiz porrot egingo zuten konponbideak proposatu zituzten.

Idealismo honen aurka, Marx eta Engels-ek errealitatearen kontzepzio materialista baietsi zuten: Ekonomia da historiaren zimentarria; gizartea produkzio-harremanetan oinarriturik eratzen da. Oinarrizkoa da, ba, produkzio-harremanaren datu hori, eta, horregatik, ekonomiaren aldaketak berehala erakusten du gainegituraren errealitatearen zentzua (mentalitatea, Estatu-moeta, erlijioa, zientzia): gainegitura hau harreman haien arabera aldakorra da. Zentzu honetan, ekonomiak bizi izan dituen etapa ezberdinetan zehar (patriarkala, esklabista, kapitalista) garatu den klase-borroka bezala interpretatu izan du teoria marxistak historia. Azkeneko fasea kapitalismo burgesaren suntsiketa eta gizarte komunistarantz bideratuko den proletargoaren diktadura ezartzea izango da.

Legea eta haur-lana

(Frantzian, 1841ean, Cruizot legeak honela arautu zuen haurrek lantegietan egin zezaketen lana:)

*"2. **Artikulua.** Haurrek, lantegietan hartuak izateko, gutxienik zortzi urte beteta izan beharko dituzte.*

Zortzi urtetatik hamabitara, hogeitalau orduero ezin ihardun dezakete lanean zortzi ordu baizik, atsedenaldi bat tartean dela.

Hamabi urtetatik hamaseitara, hogeitalau orduero ezin ihardun dezakete lanean hamabi baizik, atsedenaldi bat tartean dela.

Lan hau ezingo da egin goizeko bostetatik gaueko bederatzi ordutaraino baizik.

*3. **Artikulua.** Gaueko bederatzietatik goizeko bostak arte egindako lana gau-lan bezala hartzen da. Gau-lan oro debekatuta dago hamahiru urte bete ez dituzten guztientzat".*

(CRUIZOT LEGEA, 1841)

HAURREN LANA

"Ez zen bakarrik ankerra zela haur hauei ezartzen zitzaien disziplina, ez zuten bakarrik egunero hamalau-hamazortzi orduko lana egiten, kapataz eta ugazaben aberekeria eta sadismoa ere jasan behar izan zituten. Industri Iraultzaren hasieretako haur-lanaren historia ikuskizun izugarria da; Paul Mantoux-ek eskaintzen dizkigu haietarik ikuskari batzuk. Tortura huts eta soilera iristen ziren kasu basati batzuk aipatu ondoren, Mantoux-ek zera dio: "Zalantzarik gabe, lantegi guztietan ez ziren topatzen honelako ikuskizunak, baina horrelako izugarrikeria sinestezinek bestelakorik iradoki badezakete ere, ez ziren hain arrotzak izan gertakari hauek, eta behin eta berriz errepikatu ziren kontrol gogor bat jarri zen arte". (M.NIVEAU)

Marx-ek, Engels-ekin batera, bere oinarrizko ideiak 1848ko "Manifestu Komunista"n agertu zituen. Geroago, funtsezkoa den beste bere lanean garatuko zituen, hau da, ideologia marxistaren benetako bilgunea den "Kapitala" liburuan.

b) Langile-iraultzak

1848.eko porrota: Langile-Internazionalak eratu baino lehen (I. Internazionala, 1864), langileak iraultza burges-liberaletan partehartuta zeuden, honela beren egoera hobetuko zuten itxaropenarekin. Desengainioa erabatekoa izan zen, batez ere 1848.eko porrotaren biharamunean.

MANIFESTU KOMUNISTA (1848)

"Gure egunetararte izan diren gizarte guztien historiak klase-borrokaren historia izan dira.

Gizaki libre eta esklabuak, patrizio eta plebetarrak, jaun eta serbuak, maisu eta ofizialeak, hitz batez: zapaltzaile eta zapalduak aurrez aurre egon dira beti, etengabeko borrokari eutsi diote, batzuetan isil-estalia, bestetan zabal eta irekia; beti gizarte osoaren eraldakuntza iraultzailearekin edo klase borrokarien hondamenarekin amaitu izan den borroka (...).

Komunisten berehalako helburua gainerako alderdi proletari guztiena bera da: proletariak klase bezala biltzea, menperakuntza burgesa hondatzea, proletargoak botere politikoa hartzea (...).

Komunismoaren berezgarri behinena ez da jabegoa bere orokorrean abolitzea, jabego burgesa abolitzea baizik (...).

Zentzu honetan, formula bakar honetan laburbil dezakete komunistek beren teoria: jabego pribatuaren abolizioan (...).

(C. MARX, F. ENGELS)



KARL MARX (1818-1883). Langileriaren egoera larriak pentsalari askorengan proletarien askapen-ideia piztu zuen. Gizartearen analisirako teoriek eta mugimendu langilezaleek zeresan handia izan zuten XIX. mendean. Teorikorik handiena Marx izan zen. Jaiotzez alemaniarra, desterrualdi luzea jasan zuen (Londres-en, 1849-1883), eta pobrezia gogorra ere bai aldizka. Obrarik ezagunenak: "Manifestu komunista" (1848) eta "Kapitala" (1867-1894).



KRITIKA SOZIALA. Teoriko handien ondoan ez zen falta izan kritika herritarragorik ere, langile-bizimoduaren hobekuntza eskatuz: "Mendeko gizona" tituluarekin agertutako karikatura da hau (A. Hahn).

Behin-behineko gobernuak neurri benetan aurrerakoiak hartu zituen: Errepublika aldarrikatzea, sufragio unibertsala, prentsa-askatasuna, herio-zigorra kentzea, greba-askatasuna, langabetuei lana emango zieten lantegi nazionalen sortzea, etab.

Baina apirileko hauteskundeekin batera gero eta jarrera kontserbakorragoak hartuz joan zen Errepublika liberal bat etorri zen. Harturiko erabakien artean adierazgarriena, agian, lantegi nazionalak istea izan zen. Orduan langileak errebeltatu egin ziren, eta aginteak Cavaignac jeneralaren burubide politiko armatuarekin erantzun zuen: milaka hildako, 4.000 erbesteratu, 11.000 atxilotu...

Frantzian 1848ko esperientzia iraultzailea harrigarria izan arren, Napoleon III.a enperadore hautatzean bukatu zen hura. Iraultza sozialaren beldurrez, burgesia frantsesak indar atzerakoien besoetara eman zuen bere burua.

1871 Pariseko Komuna. Zalantzarik gabe, XIX. mendeko gizarte mugimendurik originaletarikoa eta garrantzitsuenetakoa dugu mugimendu hau. Gerrate franko-prusiarraren testuinguruan, Frantzia armaz menperatuta zegoela eta Enperadorea prusiarren eskuetan, Frantziako gobernariek Parisetik kanpo bilatu zuten babesa. Aukeratu berriak, Thiers buru zutela, Versailles-en bildu ziren.

I. INTERNAZIONALA (1864-1876). Marx-ek eraginda jaio zen nazioarteko langile-elkartasun hau; baina, hasieran, ez zen marxista, ideologiaz pluralista baizik. Hala ere, Bakunin-en jarraitzaile anarkistak baztertuak izan ziren 1872tik aurrera. Nazioarteko langile-elkarteok zeregin handia izan zuten gizarte-harremanak aldatzen.



Pariseko langileria hiritarrak arrazoi asko zituen, hiritik urrun egin nahi zuten politika susmoz begiratzeko.

Zegoen bcteregabezia zela eta, Pariseko Komuna, botere guztiak zuzenean herriarengandik zetozkion eredu politiko berri baten bitartez, egoera antolatzen saiatu zen. Biltzeko eta prentsarako eskubide erabat zabalak onartu zituen, dohakoa eta halabeharrezkoa aitortu zuen irakaskuntza, gau-lana kendu egin zuen, eta langile-batzordeak jabeek bertan behera utzitako lantegiak, autogestio-erregimenean, zuzentzen saiatu ziren...

Bitartean, Versailles-eko behin-behineko gobernuak Parise erreboltatuari eraso zion,170.000 gizonetako armada batez; borroka odoltsu baten ondoren sartu zen armada hiriburuan. Burgesiaren zapalkuntz zigorra basatia izan zen: 38.000 atxilotutatik 7.500 deportatu, 3.400 preso, 270 heriotzera kondenatu (26 exekutatuak), etab. Ez zen amnistiarik eman 1879-1880ak arte.



KOMUNAren AZKENA (1871). Parise agintaririk gabe geratu zenean, bere burua "Komuna" bezala aurkezten zuen Batzorde batek hartu zuen eskuetan hiria, bertakoei eta Frantzia osoari gobernabide berri bat eskainiz. Bordele-ra erretiratutako Asanbladak bere armada bidali zuen, hiriburuaz jabe zedin. Erasoa eta garaipen-ondoa larriak izan ziren komundarrentzat. Hona, orduan heriotzera emandako batzuk, beren hil-kutxetan.

Iraultza-ondokoa (1871)

"Eta errepresioa bihozkabeki etorri zen. Zigortuak guztira 17.000-35.000ren bat izan zirela uste da.(...). Poliziaren beldurrez, zenbat langilek egin zuen hanka Parisetik? Pariseko Udalaren inkesta batek 100.000tan jarri zuen desagertutakoen kopurua. Zenbait lagunek, gainera (eta hau ez da hain ezaguna), epaiketarik gabe, bere eskubide politikoak galdu egin zituen. Pariseko barruti batzuetan hautesle inskribatuen zerrendak % 25 murriztu ziren. Honela, alderdi iraultzailea, lepamoztuta eta eratsita, eszenategi politikotik desagertu egingo zen, beraz... Uste zenez, iraultzaileak hilda, Iraultza hiltzen zen; baina, egiaz, mitoa sortzen ari ziren, luzarora gabe "Commune" deituko zen hark zabalduko zuen eragina izango zuen mitoa". (J. GAILLARD)

Pariseko Komunaren ondorioak ez ziren hor bukatu. Komunaren porrotaren eta beronek Europa mailan eragin zuenaren ondoren, beste zorigaitz bat gertatu zitzaion langile-mugimenduari: I. Internazionalaren deuseztapena (1876). Eten hau argitzean aipatu izan diren zergatien artean Komunaren porrotak sorterazitako etsipena eta, batez ere, marxista eta bakunintzaleen artean sortutako ideologia elkar adiezinak azpimarratu beharra dago.

1889.erarte ez da berrantolatuko II. Internazionala, sozialismoaren eraginpean. Hala ere, Lehen Mundu-Gerrateak eta beronen aurreko gertaerek batasuna apurtzea lortu zuten aberri-sentimenduak kontsigna internazionalisten gainetik agertuz.



IRLANDA POBREA (c. 1860). Grabatu honek erakusten digunez, gatazka soziala ez zen Kontinentekoa bakarrik. Calais-eko Itsasartearen handikaldean ere ikustekoak ziren Irlandako goseteak eta pobrezia. Bi milioi eta gehiago irlandarrek irten behar izan zuen sorterritik erbestera. XIX. mendearen azkenean bi milioi bizilagun pasatxo zuen Irlandak, hirurogei urte lehenago baino bi heren gutxiago. (Marrazkian: armadak nekazari irlandar bat bere etxetik botatzen du).



SIBERIAra! Europa-ko egoera sozialik atzeratuena Errusia-koa zen XIX. mendean. Horrek hainbat errebolta lehertarazi zuen. Politikoetan sonatuena "abendutarrena" izan zen (1825). Holakoetan heriotzak eta desterru-zigorrak eman ohi ziren. Hona Kara-ko (Siberia) presondegian zigortu batzuk.


Iraultza Errusiarra. Nahiz eta Marx-ek iraultza sozialista Mendebaldeko Herri industrializatuetan hasiko zela baieztatu, berori herri erabat nekazari eta atzeratu batean atera zen garaile, Errusian, hau da, oraindik Erregimen Zaharreko eskema politikoan bizi zen herri batean.

1905.ean lehen iraultza bat egon zen jadanik, baina erabat irabazle irteteko 1917.erarte itxaron behar izan zen. Azken urte honetan gertaturikoa ulertzeko Lehen Mundu-Gerratea, gerralekuetan pairatutako zoritxar militarrak, Zar-aren izen gaiztoa eta horrenbestez sorturiko ezinegon orokorra hartu behar dira kontutan.

Otsailean manifestazio masiboak gertatu ziren, soldaduak berak ere ofizialeen kontra matxinatuz, aginduei jaramonik egiteke.

Baina langile-indar iraultzaileak ere eratuta zeuden: 1905az geroztik langile, soldadu eta nekazariak batzordeetan ("soviet" deituetan) elkartuta zeuden. Zar-aren dimisioaren ondoren (martxoaren 15a), behin-behineko Gobernuak datoz,

LENIN (1870-1924). Hamasei urte zituela anaia bat urkatu zioten zaristek, eta laster Siberiara bidali zuten bera ere. Marx aztertu, erbestealdi bat Europan pasatu (1900--1905), 1905eko altxamenduan partehartu eta berriro erbestean egon ondoren, 1917an berak gidatu zuen boltxevikeen iraultza. 1917 eta 1924 urteetan, honen gidaritzapean finkatu zen Errusiako Iraultza.





behin eta berriz birmoldatuak, uztailean Kerenski (1881-1970) sozialista botereaz kargu egin zen arte. Lehentxeago Lenin Suitza-ko bere erbestetik etorri zen, Trotski Ingalaterratik: Iraultza boltxevikeak bazituen, beraz, gidariak.

Kerenskiren Gobernuak bizpahiru fronte larri zituen: bata gerrarena, Petrogradotik urrun; hirian bertan, politikoa; alde batetik langilego boltxevikearena eta, bestetik, indar kontserbakorrena (Kornilov jenerala buru zela). Kerenskik boltxevikeen laguntza eskatu behar izan zuen, jeneralak hiriburua armaz hartzea erabaki zuenean (Iraila 9-14).

Hortik aurrera, Kerenski bere laguntzaile boltxevikeen esanetara geratu zen, benetan. Une horretan, azkenik, bere Estatu-kolpea jo eta Iraultza Sovietarra burutu ahal izan zuen Lenin-ek (Urriko Iraultza, 1917). Kerenskik erbestera ihesegin zuen.

ERRUSIA INGURATUTA. Zarraren Inperioa erori eta Iraultza Sovietarrak irabazita gero ere, oraindik ez zuen honek erabat segurtaturik bere etorkizuna. Mapa honetan ikusten dira Iraultzari kanpotik zetozkion arriskuak non zeuden: **1)** Lehenik errusiar "zuriak", Erregimen zaharraren eustaileak, **2)** Horiei laguntzen zieten mendebaldarrak: ingelesak batez ere, frantsesak eta amerikarrak, inguruko itsasoetatik erasoka (Arktiko, Baltiko eta Itsaso Beltzetik). **3)** Independentzia irabazi berria zuten Estatuak: Lituania, Letonia, Estonia, Finlandia.

KONSTITUZIOA, IRAULTZAREN KONTRA?


"Honela, Konstituzioa ematen zaigu. Bilera-askatasuna eman zaigu, baina bilerak soldaduz inguratzen dira. Hitz-askatasuna eman zaigu, baina lehen bezala dago gero ere zentsura. Irakaskuntz askatasuna eman zaigu, baina soldaduteriak hartu ditu unibertsitateak. Pertsonaren bortxaezina aitortu zaigu, baina presondegiak gainezka daude... Konstituzio bat eman zaigu, baina autokrazia zutik dago. Dena eman zaigu, eta ez zaigu deus eman. Langilegoak ez du nahi makilarik, Konstituzioz bilduta izanik ere". (L.Trotski, 1906)

III. EUSKAL HERRIKOAK

Frantziako Iraultzak, Euskal Herria ere bete-betean harrapatu zuen. Iparraldea lehenik, Hegoaldea gero. Ez zen falta izan gertakari armatu, legezko, politiko eta ideologikorik, prozesu iraultzaile hark aurrera egian zuen ala.

Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherean ongi ulertu ziren Estatu Nagusietarako erret deialdiak izan zezakeen garrantzia eta esanahi instituzional berria. Bakoitzak bere protesta zuzendu zion Erregeri, herrialdeon ohizko tradizio eta nortasun politikoak gogoratuz, izan ere Parisera hala joatea euskal herrialdeen subiranotasuna hemengo Erakundeetan ez baizik hangoetan zegoela aitortzea bait zen, garbiki.

Nafarroak eta Zuberoak partehartu gabe ireki ziren, azkenik, Parisen Estatu Nagusiak. Garat diputatua izan zen lapurtarren ordezkari. Hauen eskakizunen artean, badaude ongi jakingarriak: Emakume donibandarrek boto-eskubidea eska-




PROCLAMATION

ÉGALITÉ. LIBERTÉ. IGUALITATEA. LIBERTATEA.

AU NOM DU PEUPLE FRANÇAIS.

FRANCIACO POPULUAREN ICENEAN.

IRAULTZAren PROPAGANDA. Jendea erakarri eta ideiak zabaltzeko, behin baino gehiagotan erabili zen euskara Frantziako Iraultza-garaian (1789-1794). Iragarki honek Izualdian ihesegindakoei dei egiten zien, berriz ere beren sorterrietara itzul zitezen.



LAPHURTAR Escaldun Francesee, Erresumaco Estatu-generaletarat egorteen dituzten Deputatuei, emaiten dioten botuen eta instruccionen, Cayera.

ESCADUTCARIC bicienarequin eta errespeturie samurrena-Erequin, ikhusten dute Laphurtar Escaldun Francesee, justiciazco eta ontasunezco motiborie handienee ekharri dutela heyen Soberanoa edo Erreguea bere Erresumaco Estatugenerale biltcerat, eta sujet leihal diren becala, ensayatuco dire, ahal becambat, objet handi hortan harren laguntcerat, Estatu-generaletan adiarazteaz, bere Deputatuae cargatu dituzten-botuez.

Botherea baino, berthutea maiteago duen Erregue bat lurraren gainean diren Nacioneric arguituenetaric batetan berecico diren hamabi ehun Deputatu, Ministro bat ceinac ez baitu bertce chederic, izpiritu handi, on eta justu'batec Erresumaren corionarencat, emaiten diotcon sentimenduac balcie; horra nor iranen diren cargatuac Franciari bici berri, puchant eta justuago baten emaiteaz. Cembat arracoin esperantca icateco utcico diotegula gure ondocoei gure ainteinagocoen-ganie erreceibitu dugun baino sorthe dobatsuagoa!

Escaldun Francesen botuac icanen dire lehenic Nacionearen Constitucionearen, Erresumaco Tresoren, eta Justiciaren partitcearen gainean.

Objet handi eta important horietaz mintcatu ondoan balcie,


ASANBLADARA JOATEKO? Euskal Herriak nortasun politikoa bere Erakunde berezietan mamitu zuenez gero, Hegoaldeko euskaldunek Gaztelako Gorteekin edo Iparraldekoek Frantziako Estatu Nagusiekin ez zuten inolako zerikusirik. Horregatik, 1789an han partehartzeko deialdia egin zitzaienean, Iparraldeko Herrialdeei (Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa) funtsezko arazo politikoa iruditu zitzaien ez-ohizko dei hura. Horregatik, ordezkariei baldintzak jarri zitzaizkien beren egitekoan.

tzen zuten, noble eta apezek herri-arazoetan eskurik ez sartzeko eskatzen zuen Hiriburu herriak; haiek, ostera, horretarakoxe erraztasun gehiago.

Nafarroatik prestatu zen txostenean euskal Zuzenbide Publikoari buruz hemengo teoria tradizional osoa zabaltzen zen, eskakizun konkretuekin batera. Erbesteko Iraultza bat bezala ikusten zuten, nonbait, nafarrek Pariseko hura, eta erret hiriraino joanda ere ez ziren Asanblada Nazionalean agertu. Garat lapurtarrak hartu zuen bere gain haien defentsa: "egindako zinari Erregek orain ezetza ematen badio --Nafarroaren Erreinu-nortasuna ukatuz alegia-- eta Asanblada Nazionalak 'Nafarroako Errege' titulua zapuzten badu, nafarrei ez zaie geratzen Errepublika independente bihurtzea baizik".

Iparraldeko herrialdeen autonomia politikoa, Estatu frantsesa Departamentutan banatzean galdu zen (1789), baina ondoren egindako administrazio-barrutietan aitortu zen nolabait betidaniko hiru herrialdeen nortasuna, Maule, Donapaleu eta Uztaritze eman bait zitzaion bakoitzari burutzat.

Iraultzaren zabalkunderako eurrez erabili zuen Iraultzak euskara iragarki eta deialdi ofizialetan; baina, hori gorabehera, herri askotan zenbait erabaki politikori bortizki aurre egin zitzaion. Halanola, soldaduzkarako deiei sarritan Hegoaldera iheseginez erantzun zieten mugaldeko gazteek (Sara, Azkaine...), eta mugaldeko herriok susmagarri gertatzen zitzaizkiolako eta Iraultzari bere Bidasoaldeko muga segurtatzeko, Gobernuak herri osoak Landetara deportatu egin zituen. Lehenengo hartan, euskal erakunde eta jendeen artean



FENIZIA BERRIA (1808). Garat-ek proposaturiko Euskal Herriaren antolamendu politiko honek, guretzat harritzekoa izanda ere, garaiko itxaropenak ematen dizkigu aditzera: Euskal Estatuak Euskal Herri osoa bil zezakeen honela, hiru eskualdetan banatuta, Europa napoleondarraren barnean. Ez da ahantzi behar Napoleon-en Europa berria urte haietantxe antolatu zela, Europaren aurpegi politikoa osoki berreginez.

ez zuen, ba, sarrera samurrik izan Frantziako Iraultzak.

Gorabehera hauek erakutsi zuten bezala, bakearentzat arriskugarria izan zitekeen Euskal Herriko Erakunde eta ohitura nahiz klase agintari edo herriarekin aurrez aurre jokatzea. Zoritxarrez, kontra jokatu behar hau ez zen Iraultza jaio berriarena bakarrik.

Borbondarrak Espainiako Koroa hartu zutenetik, Hegoaldean ere XVIII. mendean nahiko lan zuten euskaldunek beren nortasun politikoa defendatzen. Hemengo gatazka ozpinduak Errepublikaren batekin ez baina Monarkiarekin izan ziren. Horregatik, ez da sobera harritzeko Konbentzio-Gerratean (1793-1795) Hegoaldean gertatutakoaz.

Espainia eta Ingalaterra gerra prestatzen ari ziren Errepublika Iraultzailearen aurka. Berau lehertu zenean, lehenengo ekinaldiaren ondoren, frantsesek Donostia, Bergara, Durango, Bilbo eta

Konbentzioa eta Euskal Herria (1793-95)

Gipuzkoako Diputazioko "Batzorde batek akordio batetarako proposamenak idatzi zituen eta hauen artean zera: 1200. urterarte bezala probintzia independente izan dadila Probintzia. (...). Getariako Batzarrea ere independentziarenean mantendu egiten da. Abuztuaren 24ean, ordea, Probintzia herrialde konkistatu bezala goberna zedila agindu zuen Konbentzioak.(...)

1795ean aldatu egiten da Konbentzioaren jarrera hau. Maiatzaren 10ean Getariako Batzarrean Foruak ezezik Gipuzkoaren independentzia ere ezagutu egiten bait ditu. (...). Gipuzkoako Batzarreak zera eskaini zuen: Espainiarekin bateginda zeukaten lokarriak hautsi eta errepublika independente egitea; eta Araba eta Bizkaia ere laster elkartuko zitzaizkiola (espero zuen)".


(R. LOPEZ ATXURRRA)

Gasteiz-eraino iritsi ziren. Egoera berri honen aurrean, Gipuzkoako Diputazioak, Getarian bilduta, Probintziaren independentziaren hautabidea aukeratu nahi izan zuen, Konbentzio-gobernuarekiko harremanak aurrera zeramatzan bitartean.

Politikoki, gerrate honek erakusten duena zera da: Euskal Herriko zenbait agintari-jendek bazuela ezinegon kezkagarri bat Monarkia espainiarraren muga eta jokamoldeetan, eta nabaria zela bi aldeek elkarrekin zuten mesfidantza. Belaunaldi bat geroago, karlistadek erakutsiko zuten arazo politiko larriaren ataria izan zen gerrate honetako hau.

Gerratea amaitzeko, Basileako Bakeak (1795) mugak hemen, Euskal Herrian, aldatu ez bazituen ere, hemengoak konpontzeko Sto. Domingoko irla utzi behar izan zion Espainiak Frantziari.

KONBENTZIO-GERRATEA (1793-1795). Armada frantsesa Hegoaldean, beronen luze-zabal osoan paseatu zen, hemengo hiriburu eta herri nagusiak hartuz. Egoera politiko armatu berriaren aurrean, agintari gipuzkoarrak etorkizun politikoa elkarrizketaren bidez hasi ziren lantzen.



Bake-sinadurak Godoy ministraria narritatu baizik ez zuen egin, izan ere Konbentzio-Gerrateak salakizun larri bat utzi bait zuen euskaldunen kontra: Zalantza-malantzazko jokabide politiko bat izan zutela, alegia, euskal agintariek Frantziaren kontrako gerrate hartan. Susmo hauek tarteko zirela, euskal erakundeak abolitzeko bidea planteatzen zen. Hala ere, Godoy-k nahiago izan zuen historia bere alde jarri, honela aurrerakoan neurri politiko gogorragoak zuritzeko ideiak prestatuz.

Helburu horrekin hiru liburu argitara ziren gobernu espainolaren beraren mandatuz: "Diccionario Geográfico-Histórico", 1802; "Noticias Históricas de las tres Provincias Vascongadas", 1806-1808; "Colección de cédulas...", 1829-1830. Hauek frogatu nahi zuten tesi politikoa zera zen: Erregek emandako pribilegio hutsak zirela Foruak, eman eta kengarriak, beraz.

Euskaldunen aldetik erantzuna berehalakoa izan zen, baina Foru-arazoa tirabira honetan planteatuta geratu zen XIX. mende osorako, horrek izan zitzakeen arrisku guztiekin.

Espainiako Independentzi Gerratea zela bide (1808-1814), eta Frantziako ideia iraultzaileen eraginez, Espainian, Erregimen Zaharra deuseztatu asmoz, Estatu erdirakoi eta baterakoi baterako printzipio politiko berriak nagusitu ziren (Cadiz-eko Konstituzioa, 1812), Euskal Herriaren aspaldidaniko erregimen politikoa arriskutan jarriz.

Aurrerago, Fernando VII.aren heriotzak arazo dinastiko berria sorterazi zuen, eta arma bidez ebatzi zen eztabaida lehenengo Gerrate Kar-

Monarkia, Euskal Herriari erasoan?

(F. Zamora, Konbentzio-Gerratean (1793-1795), armada espainiarreko ikuskari orokorra izan zen eta euskal erakundeek Konbentzioarekin izan zuten jokabidea ikusita zera idatzi zion Godoy-ri):

"Bake honen ondoren (Basilea, 1795), Foruek kasi partaide hilak eta gainerakoetatik apartekoak bihurtzen dituzten probintzia hauek trabarik gabe nazioarekin bategiterik lortuko bazenu, jakizu, jaun horrek, Cisneros Kardinalaren garaitik Felipe V.arenganaino ikusi ez den egintza handi haietako bat egingo zenukeela. Garai hauek dira (gerrate-ondokoak, alegia) Monarkiaren ondasunak eta indarrak ugaritzeko baliatu behar direnak. Bilbo, Donostia eta mugetako aduanak izango lirateke erreinuko lursailik hoberenetakoak. Hiru probintzietako zerga katastralak, beherenetik jota ere, berrehun mila durotatik gora pasatuko lirateke, ene kalkuluen arabera. Handik aterako genukeen soldaduteria zazpi mila lagunetatik ez litzatekeela jaitsiko pentsa daiteke. Legezko oinarririk ere badago hau egiteko, beren betebeharretan funtsean faltatu bait dute.(...). Badaukagu tokian bertan aski indar, tiro bat ere bota gabe eta hemen inor egiteko hori arbuiatzen ausartu gabe, hau dena burutzeko". (F. ZAMORA, 1795)

listan. Euskal indarrek zuzenean eta azkarki partehartu zuten arma-ekintzetan.

Nahiz eta azken urteotako historilariek Euskal Herriko absolutista eta liberalen arteko planteamendu lar sinplistak gainditu nahi dituzten, gerrate karlisten gaia oso korapilotsua da, eta oraindik ere analisi historiko guztiek motibazio politikoen menpe diraute.

Bergarako Itunaren (1839) ondoren, bere lehen artikuluan honako hau zioen legea diktatu zen: "Se confirman los Fueros de las Provincias Vascongadas y Navarra, sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquía". Bigarren artikuluak Foruei zegokien zera eransten zuen: "(El Gobierno) propondrá a las Cortes la modificación indispensable... conciliándolo con el (interés) general de la Nación y de la Constitución de la Monarquía".




GERRATE KARLISTAK. XIX. mendean Euskal Herriak bizi izandako gertakaririk latzenak izan ziren; baina gerrateok ez dira ikusi behar arma-ekintza bezala bakarrik. Gizarte osoak hartu zuen parte. Euskal Herriaz geroz eta ideia eta ikusmolde ohartuagoak lantzen lagundu zuten gerrate hauek. Irudian: Azken karlistadan, Elorrioko auzo batean baserritarrak prentsa karlista elkarrekin irakurtzen (Garaiko marrazkia,1874).

Lege honen eta Foru-konponketaren bat bilatu asmoz, Diputazioaren eta Gobernuaren artean sortutako elkarrizketen ondorioz, Nafarroako Diputazioa --liberalak bertan nagusi zirela-- Euskal Herriaren gainerakotik deslotu egin zen, "Ley Paccionada" ere deitu izan den akordio batera helduz (1841).

1868.eko krisiaren ondoren ("La Gloriosa", Saboiako Amadeo, I. Errepublika), matxinada berri batek dardarazi zuen Euskal Herria (Bigarren Gerrate Karlista). Hala ere, karlisten behin eta berrizko porrotak eta Alfontso XII.aren erretaulkiratzeak eman zioten azkenekoa gerrari.

Krisi berri honen ostean, euskal problematikari aterabide politikorik aurkitzeko borondate-ezak, 1876ko Uztailaren 21ean, Euskal Foruak edo beraietatik geratzen ziren aztarnak, erabat desegin zituen. Honetara, ondorio larri eta iraunkorrezko zauri sakon bati bide eman zitzaion gure Herrian.





ESTATU LIBERALA. Aro Garaikidean botere-tresna berriak sortu zituzten Estatuek: Soldaduzka behartua, zerga-sistema zentralizatua... Karikatura sozial hauetan ikus daitekeenez, nekazariari egiten zitzaion bortxa kritikatzen du goikoak (1869), eta hiritarrek soldaduzkari zioten higuina erakusten besteak (soldadugaia kuzkurtuta, legezko neurririk eman nahi ez eta. Erteuropako marrazki honen antzekoak hemen ere agertu izan ziren).

2
MUNDUA, MENDEBALDEAREN MENPE: INPERIALISMOA

URTEAK	GERTAKARIAK
1763	Pariseko Bakea: Ingalaterra potentzia kolonial garailea.
1783	Pariseko Tratatua: EE.BB.en Independentzia.
1793-1814	Iraultzaren eta Napoleon-en gerrak.
1820-1825	Latin Amerikaren independentzia.
1830	Frantsesak Algerian.
1834	Esklabutzaren abolizioa kolonia ingelesetan.
1840-1842	Opioaren gerratea.
1845	Irlandako goseteak: hildakoak, emigrazioak.
1857	Indiako soldadu sipaien errebolta.
1866	EE.BB.etan beltzei hiritar-berdintasuna.
1869	EE.BB.etan trenbide transkontinentala.
	Suez-eko Kanalearen irekiera.
1877	Viktoria Erregina, Indiako Enperadoresa.
1882	Ingelesak Egypton.
1884	Alemaniak Hego-mendebaldeko koloni Afrikan.
1885	Berlin-eko Kongresua: Afrikaren partiketa.
1894	Gerrate sino-japoniarra.
1898	Gerrate hispano-amerikarra:Kuba, Filipinak.
1898-1816	EE.BB.ak Karibean eta Ertamerikan.
1899-1902	Faxoda-ko inkontrua (Frantzia/Ingalaterra).
	Boeren gerratea Hego Afrikan.
1900	Boxeren errebolta Txinan.
1904-1905	Gerrate erruso-japoniarra.
1918	Kolonien birbanakuntza.
1935	Indiari Konstituzio berria.
1939-1945	II. Mundu-Gerratea.
1947	Indiaren Independentzia.
1955	Bandung-eko Konferentzia.
1956-1965	Deskolonizazioa.
1975	Vietnam-eko gerratearen amaiera.



HERRITARRAK. Herriaren bizimodua literaturan ezezik pinturan ere eurrez agertu izan da. V. Bécquer (1834-1870) pintoreak (Gustavo Adolfo poetaren anaiak) ongi jaso zituen garaiko ohiturak, baita Euskal Herrikoak ere, batez ere nekazarien bizitza irudiztatuz. Dokumentu-balioa dute marrazki eta pintura hauek. Haurtzaro gogor baten ondoren, hirietako arrabal-bizitza eroria edo erbeste urruna izaten ziren askotan nekazal familia pobreetako haurren etorkizuna eta itxaropena. Europako herritarrak prest zeuden, baldintza sozial gogor haiek eztenkatuta, emigraziora joateko (Estatu Batuetara, Latin Amerikara, Hego Afrikara, Australiara, etab.).

Nahiz eta XV. eta XVI. mendeetatik aurrera, bereziki portugaldarrek eta espainiarrek egindako bilakunde eta konkistek, bidaien bidez gizarte mendebaldarra mundura hedatu izan, XIX. mendeko azken urteetan aurpegi berria hartu zuen fenomenoak. Hedakuntz prozesua, ezaugarri berri eta bereziekin azalduko zaigu XIX. mendean.

Garai honetan Europa jendez eta diruz gainezka dago. Toki guztietara bere bizilagunak, ideiak eta interesak eramateko lain da, beste lurralde batzuetako hainbat herri zapalduz ere bai. Batez ere, Estatu handiek, Ingalaterrak eta Frantziak, ia mundu osoa kontrolatzen zuten. Bestalde, esploratzaileak, ordurarte ezezagunak ziren mendikate eta lurburuetaraino iritsi ziren.

Arazo guzti hau Historia Garaikideko zereginik ondoriotsuenetariko bat da.

MEATZARIAK. Europako langileak, sorterria utzita, milioika irten ziren erbestean lana bilatzera (C. Meunier-en laukia, 1831-1905).







KOLONIZAZIO ZIBILIZATZAILEA? Europar kolonialisten arrazoi zurigarrietako bat, herri "atzeratuak" zibilizatu beharra izan zen. Baina gizarte ezberdinen arteko topaketa, odoltsua eta ankerra izan zen gehienetan (J. Arago: Zeelanda Berria, 1839).

I. KONTZEPTUAK

1870.etik aurrera, sistematikoki, potentzia europarrek Afrika eta Asiaren ustiapen politikoa eta ekonomikoa antolatu zuten. Esplotazio kolonial hau ez zen garai honetako berezitasun bat, zeren eta konkistaturiko herrialdeetako baliabide naturalen eta haietako jatorrizko bizilagunen laneskuaren ustiapena zerbait ezaguna zen lehenagoko kolonialismoan ere. Kolonialismo-une honen berritasuna beste zerbaitetan datza: Kolonizatutako lurraldeak emigrazio-puntu bezala hartu zituen Europako populazioak. Menpetasun politiko eta kulturala lortzeko administrazio europarren egiturak ezarri ziren, kapital-inbertsio emankorretarako aukera berriak bilatuz.

TXINA. Europako merkatalgoa iritsi da Txina-ra, ate joka Industri Iraultzaren indar guztiarekin. Sikiang ibaiaren deltan ageri dira bela-ontzi europarrak, ontzi txinarren ondoan. Indiakoa bezala, Txinakoa ere Europako produktuentzat merkatu gutiziatua zen (XIX. mendeko grabatu ingelesa).





J. COOK (1728-1779). Iberiarrek XV-XVI. mendeetan egindako aurkikundeei segida zabalena Cook-ek eman zien XVIII.ean, batez ere Ozeano Pazifikoko nabigazio-bideak urratuz edo berlanduz. Kolonizazio-lurralde berriak eskaini zizkion Ingalaterrari (Australia, Zeelanda Berria, adibidez).


Kolonialismo eta Inperialismo kontzeptuak esanahi berdintsuarekin erabiltzen dira, batez ere Lenin-ek idatzitako liburuaren argitarapenaren ondoren: "Inperialismoa, kapitalismoaren goi-fasea" (1917).

Ekonomia menperatzen duten monopolioen sorkuntza eta finantz kapitalak duen garrantzia dira inperialismoaren ezaugarririk behinenak. Aro Modernoan industri kapitalismoak produktuak esportatzen bazituen, Garaikidean kapitalak esportatzen dira. Prozesu honen ondorio bezala, mundua finantz monopolioen artean banatuta gelditu zen.

Inperialismo kontzeptuaren esanahia zera da: Metropoliaren edo zapaltzaileen probetxurako herrialde bat ekonomikoki esplotatuta mantentzeari esan ohi zaio inperialismoa. Inperialismoa, ekonomi sistema bezala, XIX. mendeko bigarren erdialdian agertu zen, Industri Iraultzak Europako herrialdeetan izan zuen arrakastaren ondorioz. Ekoizpen berri eta ugariarentzako merkatu berriak

HERRIALDE BIZTANLETSUAK. Lurralde hutsak otorkinak hartzeko interesgarriak ziren bezala (Australia, Ipar Amerika, Argentina, etab.), herrialde biztanletsuek bi balio zituzten gutxienez ekonomia europarrarentzat: lanesku merkea eta produktuen eroslegai ugariak (Indian, oraintsu famili plangintza-kanpainetan erabilitako marrazkia).






KOLONU LUR-BILAKETARIAK. Gerrateek edo lur-berrien premia ekonomikoak bortxatuta, kolonuek lurraldearen zabalkuntzari ekin behar izan zioten, behin baino gehiagotan. Hego Afrikan (boer-herriak) eta Ipar Ameriketan, adibidez, horrela irabazi ziren europarrentzat lurralde berriak, mendikateak, ibaiak eta lautadak zeharkatuz.

behar ziren; bestalde, lehengai merkeak bilatu eta kapitalak inbertitzeko kondizio ekonomiko erosoak nahi ziren.

Europako lurraldeetako merkatuetan konpetentzia handia zegoen eta ia aseta zeuden merkatu horiek, langileen soldata apalek ez bait zuten oraindik bezeria zabalik sortu. Herrialde industrializatuentzat beharrezkoa zen kontsumatzaile berriak bilatzea, produktuen irtenbide bezala. Honela, Asia-Afrika kontinenteetara zuzendu zen hedapen ekonomikoa.

Kolonialismoa, inperialismoaren era edo agerbide bat da. Esplotazio ekonomikoa eratzeko, lurraldea osoki okupatzen du armadak, eta ondoren metropoliaren edo menperatzaileen lege eta kultura ezartzen dira bortxaz.

Gutxiengo atzerritar batek, arruntki kristauak, teknika aurrerakoi baten bidez, eta industri ekonomia indartsuarekin, herrialde kolonializatu horietan jaiotako gehienei, ez-kristauei, teknikagabekoei eta iraupen-ekonomia zute-




BURDINBIDEAK. Txina bezalako lurralde handietan europarren teknikak eta kapitalak, laguntza eskaini eta irabaziak jaso egin zitzaketen. Interesen lehiaketa bizia izan zen, Japonia ere tartean zela (G. Bigot-en marrazkia).

nei egindako zapalkuntza da kolonialismoa. Goimailako enda eta kulturaren jabe zirela ustez, kolonialistek jatorrizko kultura eta antolamendu-sistemak deuseztatu zituzten herri kolonizatuetan.

Geroago, Latin Amerikara europarrek eraman zuten kolonialismotik bestelako bat imposatu zuten Estatu Batuek. Gaur egun Neokolonialismoa deitzen zaio honi: konpainia boteretsuen bidez, presio diplomatiko eta ekonomikoz lagunduz eta, beharrezkoa denean, armadaren eskuharmenaz baliatuz, teorian independentzia politikoa duten herrialdeetan egiten den esplotazio ekonomikoa da Neokolonialismo hau. Honela, Latin Amerikako herrialde gehienen baliabide naturalak kontrolatu zituzten Estatu Batuek, kondiziorik gabeko esanekotasun diplomatikoa lortzeraino. Karibe-aldean gertatu zena da adibiderik onena.

II. EUROPAREN LEKUA

Hemeretzigarren mendearen hasieran Europak zeregin handiko lekua zuen munduko beste eskualdeen artean. Iraultza industriala gora zihoan ala, lanerako teknika, energia eta ahalbide ekonomiko ugariak izan zituen eskuetan, hemengo bere barruti estutik mundu zabalera hedatzeko.



TRENA, GANBELUAREN TRUKE. Batez ere lur-lehorrez zabaldu eta kolonizatu behar ziren lurraldeetan (Siberia errusiarrean edo Estatu Batuetan adibidez) trenbideek zeregin gaitza izan zuten. Garraio-sistema zaharrek ezin izango zuketen halako egitekorik neurri berean bete. Hona burdinbide transkaspiarra, garaiko kazetari batek ikusi zuen bezala.

AFRIKA (1800-1870). Afrika hain hurbila, oso urruna gertatzen zen, parte on batean, europarrentzat. Amerika berpopulatu eta herri berri horiei independentzia ematen zitzaien bitartean (XV-XVIII. mendeetan), Afrika ia gehiena ezezaguna zen XIX. mendearen hasieran, itsasertz mediterranearra eta mapan ikus daitezkeen zenbait puntu ezik.

1800an europarrek menperatzen zituzten eskualdeak
1870ean menperatua
Ibai-arro ezezagunak (1800)

•••• Europarrek 1800ean menperatutakoak


1870aren inguruan menperatutakoak

••••••• Bilaketarien hiru arazo nagusiak: Nilo, Niger, Kongo ezezagunak

---- 1850a aurreko bilabide nagusiak

1850a ondokoak

Basoak



A) MENDE-HASIERAKO EGOERA

Aro Garaikidea hastean, Europa ez zegoen esku hutsik: aurreko mendeetan kontinente honetatik kanpora egindako konkista eta kolonizazioen ondarearen jabe zen Mundu Zaharra. Herentzia hau ezin da ahantzi inola ere, Aro historiko berria zein abiapuntutatik hasten zen jakin nahi bada bederen.

* 1. Herentzia kolonialak

XVI. eta XVII. mendeek inperio kolonial espainiar-portugaldarren eraikuntza ezagutu zuten. Hala ere, poliki-poliki ingeles eta holandarren inperioek itzal egingo zieten zaharragoak ziren haiei.

Merkantilismoaren ideien arabera, XVIII. mendean hedakuntza koloniala nazioen betebehar bat bezala onartu zen, baina koloniez jabetu beharrak lehiaketa bizkortzen zuen Europako potentzien artean. Testuinguru horretan eraiki zen ingelesen lehen inperio koloniala, Ipar Amerikan, hasieratik Frantziak eraikitakoaren aurka norgehiagoka batean. Frantzia eta Britainiaren arteko lehiakidetasun hau etengabekoa izan zen kolonietan, mendean zehar.



SIMON BOLIVAR (1783-1830), "Askatzailea" deitua (**El Libertador**). Markinan jaiotako XVI. mendeko kolonizatzaile baten jatorrikoa zen. Caracas-en jaio zen. Europan ibilaldi luzeak egin zituen (Bilbon ere bizi izan zen), Madril eta Parisen (1799--1806). Hemen jakitun ezagunekin ere izan zituen harremanak (A. von Humboldt-ekin, adibidez). Bere aberri amerikarra Espainiatik askatuko zuela zinegin zuen.

...

* 2. Kolonialismoaren izen gaiztoa

XVIII. mendearen bukaeran, Ilustrazioko ideiak nagusitu zirenean, kolonizazioaren aurkako joera bat sortu zen pentsalarien artean. Entziklopedista frantsesek, defendatu ohi zituzten askatasun- eta berdintasun-ideien aurkako gertaerak sarritan salatu zituzten. Ordurarte eramandako kolonizazio-metodo eta tankeren aurka kritika gogorra egin zuten.

KOLONIALISMOA ETA GERRA

"Inperialismoa, bere esanahi ekonomikoan, XIX. mendearen azken hamarkadetan eta XX.aren hasieran sortu zen. Metropolietan gertatutako kapital-bilketaren eta metaketaren beharrezko ondorio bezala agertu zen, etekin-tasa gutxitu gabe geroz eta kapital-kopuru handiagoak inbertitu beharrak eraginda, industriarako premiazko lehengaiak eskuratu beharrak bortxatuta eta merkatu berriak irekitzeko. Helburu hauek lortu-nahiak, Estatu kapitalisten artean benetako norgehiagoka piztu zuen, mundua konkistatu eta kontrolatzearren. Erabilitako metodoa, armadazko inbasioa izan zen, eta konkistaturiko herrialdeen kontrol politikoa; ezarritako sistema politikoa, berriz, kolonialismoa. (...) 1914ean eginda zegoen munduaren partiketa. Baina Estatu inperialisten arteko kontraesanak hain larriak zirelako, azkenik Lehenengo Mundu-Gerratean lehertu zen dena, beste arazo batzuk konpontzearekin batera munduaren banakuntza berri bat ere egiteko".

(J.M. VIDAL VILLA)

...

Estatu Batuetara bidaia bat egin ondoren, ekin zion azkenik bere bizitzako obrari: diplomaziaz eta armaz baliatuz Latin Amerika librea eraikitzeari (1810-1825). Hasierako kanpainak gorabehera handikoak izan ziren, baina 1818tik aurrera armada espainolari hainbat gudu irabazi zion, Amerikari bere Independentzia eman arte. Bolivar-ek batuta nahi zuen Amerika zatitu zenean jaio ziren Estatu latin-amerikarrak (Venezuela, Kolombia, Ekuador, Peru, Bolivia). Arma-gizona ezezik, ideia zabaleko estatista izan zen Bolivar.


Egokiera eta ingurugiro horretan, Amerikaren independentzi prozesua suertatzen da Ipar eta Hego Ameriketan. Europan ere kolonialismoak indarra galtzen du. Ez da, beraz, harritzekoa, ia ehun urtetan, jeneralean kolonizazio-ideiak herriaren baitan gaizki ikusiak gertatu baldin baziren; batez ere, ideologia liberalaren eragina zutenen artean eta liberalismo ekonomikoa sortuko zutenengan sumatu zen hori. Fisiokratek bezala librekanbistek ere antiekonomikotzat eta errentagarritasun gabekotzat ikusten zuten gertaera kolonialа.

Dena den, honek ez du esan nahi europarrek beren koloniak alde batera utzi zituztenik; baina geldiagotu egin zen prozesu koloniala eta 1875 ingururarte ez zuen izan bere azken bultzada. Orduan, ordea, indar berri batez ekin zitzaion egitekoari eta, berrogeiren bat urtetan, aske zeuden lurralde gehienen jabetasuna eta banaketa egin zen Europako Estatu kolonialen artean.

Kolonien konkista

"Konkistatik sortutako eskubideak, eskubidea ez izanik ez dezake oinarritu beste inolakorik, izan ere konkistaria eta herri konkistatuak gerra-egoeran aurkitzen ziren, nola eta nazioak, berriro ere bere askatasun osora itzulita, ez duen garaitzailea buruzagitzat borondatez aukeratzen. Une horretararte, kapitulazio asko egin arren, denak bortxakerian bakarrik oinarritzen zirenez eta, hortaz, deus ez direnez, hipotesi horren gain ez dago, horregatik ere, ez egiazko gizarterik, ez elkarte politikorik, ez eta indartsuenaren legea ez den besterik".

(J.-J. ROUSSEAU, 1762)



TXINAKO MERKATUA. Ingalaterra zen nagusi Txinako merkatuan (1872rarte % 85 ingelesa). Indiatik opioa saltzen zion hark, merkatalgo hau gerra bidez ere ezarriz (1840-42, 1856-60); Manchester-etik, berriz, kotoi eta artilezko ehunak. Baina laster hurbildu ziren beste lehiakideak ere: Errusia, Japonia... (Marrazkia: G. Bigot).


* 3. Toki ezezagunen esplorazioak

Munduaren Aurkikundeak 1850.erarte geldiro egin baziren ere, handik aurrera oso azkartu ziren. Zientzien eta teknikaren aurrepenez baliatuz, garraioak guztiz hobetu ziren eta ordurarte heltzea posible ez zen tokietara espedizioak antolatzeko aukera izan zen: Hego Amerika barnera, Australia, Asia, Afrika eta Lurburuetara. Garrantzitsuenetarikoak Afrikan zehar egin zirenak dira kontinente ezezagun baten azterketa burutu bait zuten; Afrikaren geografia misteriotsua erakarmen handikoa gertatu zen, ibilaldi hauek antolatzerakoan.


Nilo ibaiaren iturburua bilatzen zuten espedizioek, eta orduan lortu zen uholde gisa ageri ziren haren uraldien zergatia argitzea. 1858 eta 1862 urteetan Burton, Speke eta Grant ingelesek egin zuten azterketa hori. Livingstone eta Stanley, ostera, Afrika barnera ailegatu ziren. Ekuadore aldeko laku handiak, Livingstone-k (1813--1873), mediku eta misiolari eskoziarrak, aztertu zituen 1840-1873etan; (Niasa, Tanganika, Viktoria



D. LIVINGSTONE (1813-1873). XIX. mendean Afrika ezagutzeko lanik handienak egin zituen bidari ingelesa. 1840tik aurrera, bere heriotzeraino, Afrikako hegoaldean eta, iparralderantz, Viktoria Lakuraino luzatu zituen bere ibilaldiak.



LIVINGSTONE, BELTZEN ARTEAN. Livingstone batez ere bidari bezala ezagutu izan da; baina ez da ahantzi behar misiolari protestante bat zela berezikiago Livingstone. Afrikako herriak bihotzez maite izan zituen, eta begirune osoz tratatu, gainera. Horregatik, bere ibilaldietan herri beltzak izan zituen laguntzarik onena. (Marrazkia: Lakuen eskualdeko herriska batean ohorezko harrera Livingstone--ri).



H. STANLEY (1841-1904). Kazetari eta bidari ingelesa. Livingstone "galduaren" aztarnen bila irten zen. Intuizio on bati jarraiki, Kongo ibaiaren ur-gora sartu zen Afrika ekuatorialaren bihotzeraino, Livingstone-rekin topo egin arte (Ujiji, 1871). 1888rarte beste hainbat bidaia egin zuen Stanley-k, eta bibliografia ugaria utzi zuen idatzita, ibilaldion berri emanez.

lakuak alegia). Henry Stanley-k Kongo ibaiaren arroa miatu zuen. Frantsesek ere egin zuten beren ahalegina, mendearen erdialdean, Sahara zeharkatuz. Honela trabeskatu zituzten europarrek Afrikako eskualdeak, alderik alde, kontinente osoa ezagutzeraino.

1870.etik aurrera, Asiaren azterketa sistematikoki egin zen: Turkestan txinarra eta Mongolia esploratu ziren, lehenik, Tibet eta Turkestan txinarraren inguruko beste lurraldeak ondoren.

Lurburuak toki ezezagunak ziren oraindik: Peary iparramerikarra, Groenlandiatik irten eta 1909.ean Ipar Lurburura heldu zen. Amundsen norvegiarra bi urte geroago iritsi zen Hego Lurburura.

Harez gero, bilaketarien jakinnahia beste bi helmugek eztenkatu zuten: hondaleak edo itsas hondoak eta mendi garaieretako gailurrek.



IPAR LURBURUA (1909). Potentzien arteko interes estrategikoak aparte, abenturazaleen norgehiagoka ere izan zen lurralde ezezagunen bilaketa. Karikatura honetan erakusten zaigu F.A. Cook-en (Lurburuaino 1908an iritsi omen zenaren) eta hurrengo urtean egiaz iritsi zen R.E. Peary-ren arteko lehiaketa (1909ko apirilaren 6an, goizeko 10 t'erdietan).

B) POTENTZIA KOLONIALEN EGOERA (1815)

Britainia Hándia-k, nahiz eta 1783.ean Estatu Batuen independentziarekin, Ipar Ameriketako kolonia haiek galdu, 1815.ean koloni jabetasun nahikoa zuen, eta ondorengo urteetan zabalagotuz joan zen, gainera. Garai honetatik aurrera Indiaren konkista osatzen saiatu zen. Horrekin batera, bi merkatalgune berezi sortu zituen Asian: Singapore eta Hong-Kong.

Bienbitartean, Kanada, Australia, Zeelanda Berria eta Hego Afrikako kolonizazio-prozesuak aurrera zeramatzan Britainia Haundiak.

INPERIALISMO KOLONIAL KAPITALISTA

(Inperialismo kolonialaren analisi marxista Lenin-ek osatu zuen batez ere: honela aztertu eta argitu zuen kolonialismoaren esanahi historikoa:)

"Oro har, kapitalismoaren funtsezko ezagugarrien segida eta garapen zuzen bezala agertu zen inperialismoa. Baina kapitalismo hura garapen handi batera iristean bakarrik bihurtu zen inperialismo kapitalista, hau da, kapitalismoaren funtsezko ezagugarri batzuk beren antitesi bihurtu zirenean (...). Bizitza ekonomikoaren ikuspuntutik begiratuta, prozesu honetan dagoen oinarrizkoa zera da, lehiakidetza kapitalista librea monopolio kapitalistekin trukatzea. Lehiaketa librea da kapitalismoaren eta orokorki merkatal produkzioaren oinarri-oinarrizko ezagugarria; monopolioa, lehiaketa librearen erabat kontrakoa da, baina lehiaketa hori gure begi aurrean monopolio bihurtzen ari da, produkzio handia sortuz, txikia baztertuz, produkzio handi hura are handiago batekin trukatuz eta produkzioa eta kapitala kontzentratuz, eta halako puntu bateraino, ze egoera berri horretatik monopolismoa sortu bait da eta sortzen ari bait da: Kartelak, Sindikatuak, Trust-ak eta berauekin bateginda milaka milioi darabiltzan dozena eskas bat banku.

Inperialismoaren definizio ahalik laburrena ematea beharrezkoa balitz, inperialismoa kapitalismoaren epe monopolista dela esan beharko litzateke. (...). Komeni da inperialismoaren definiziorako bost ezagugarri hauek ematea:

***1.** Produkzioaren eta kapitalaren kontzentrazioa garapen-maila hain garaira iritsi da, ze monopolioak sortu ditu, bizitza ekonomikoan betekizun erabakiorra duten monopolioak. **2.** Banku-kapitala industrialarekin bateginda, "finantz kapital" honen gain oligarkia finantzaria sortu da. **3.** Kapitalen esportazioak --merkantzien esportazioaren gainetik-- zeresan handieneko garrantzia lortzen du. **4.** Mundua banatuko duten kapitalisten nazioarteko elkargo monopolistak eratu dira. **5.** Potentzia kapitalista handienen arteko munduaren lurralde-banaketa burutu da".*

(V.I. LENIN)

Errestaurazio-urteetan, **Frantzia**-k pixka bat alde batera utzi zuen politika koloniala; baina laster erakarri zuten Ipar Afrikan Maghreb-aldeko arazoek (Algeria, 1830).

Oraindik zerbait gelditzen zitzaien Estatuak ez ditzagun ahantz, noski: Holanda, Espainia eta Portugal. Ez zituzten galduta beren ukantza kolonial denak, eta saiatu ziren horiek mantentzen. **Holanda**-k Java eta Insulindiako irletan zuen eskua. **Espainia**-ri, 1820.etik aurrera (Hego Amerikako koloniak galdu ondoren) oraindik Kuba, Puerto Rico eta Filipinak gelditzen zitzaizkion. **Portugal**-ek Brasil galdu zuen (1822-25), baina bi lurralde garrantzizko gorde zituen Afrikan: Angola eta Mozambike.

KOLONIALISMOAREN HELBURUAK

"XV. mendearen bukaeratik, Europako kontinente taiki honetako Mendebaldeko herriek lortu zuten Ameriketa, Pazifikoko irletatik gehienak, Asia Hego-ekialdetar kasi osoa eta Afrika eta, azkenik, 1919tik honako epe labur batean, Ertekialde dena konkistatzea. Juridikoki independente mantendu ziren herriek ere (Pertsia edo Iran, Siam edo Tailandia Asian, eta Liberia Afrikan) jasan behar izan zuten mendebaldarren eragin politikoa eta ekonomikoa. Azkenik, fenomeno ezberdin baten ondorio bezala (lur lehorrez egindako konkista izan bait zen kasu honetan), Errusia jabetu zen Siberiaz, XVII. mendetik aurrera, eta Ertasiaz. Txinak berak ere --nahiz eta bere mugagabeko lurraldean, bere tradizioetan eta bere biztanleria kontaezinean babestu-- baseak, faktoriak eta influentzi barrutiak utzi behar izan zituen.

Arazo gutxi izan dira, eta dira, zabalkunde kolonialaren sorburuak bezain eztabaidatuak, XX. mendean batez ere. Kolonialismoaren teoria esplikagarriak bi taldetan banatzen dira:

a) Arrazoi ekonomikoei lehentasuna ematen dieten esplikabideak: Negozio-munduko talde jakin batzuk aberas zitezen, edo, gobernuen aldetik, nazioa aberas zedin konkistatu ziren koloniak.

b) Esplikabide politikoa, ekonomikoa baino garrantzitsuagotzat daukatenak: Izen-handia, boterea, baseak edo puntu estrategikoak eskuratu-nahia, etab.

Oro har, azterketa berriek datu gehiago ekartzen ez diguten bitartean, ondorio honetara iritsiko ginateke: sorreran eta garapenean mugimendu kolonialistaren bi xedeek --ekonomikoak eta politikoak-- batera izan dira eragile, kasu bakoitzean bata nahiz bestea nagusiago zela noski". *(J.B. DUROSELLE)*

III. MENDEBALDEAREN HEDAKUNTZA BERRIA

XIX. mendean Europa kontinente guztietara abiatu zen. Ingalaterrak eta Frantziak, Europako nazio boteretsuenak zirenez, mundu-inperioak osatu zituzten. Hedakuntza hau, hein batetan, Industri Iraultzaren ondorioa zen. Begiratzekoak dira hemen inperialismo horri oinarriak eman zizkieten faktorerik garrantzitsuenak.


A) KOLONIALISMOAREN FAKTORE ERAGILEAK

Molde ezberdinetako faktoreak izan ziren prozesu kolonialaren eragileak: demografikoak, ekonomikoak, politiko eta ideologikoak eta kulturalak.


Harreman ekonomiko berriztatuak

"Herri industrialen eta eskualde periferikoen arteko harremanen lehen eraldakuntza Industri Iraultzaren lehenetan azaldu zen; horrek, mundu-merkatalgoaren aldakuntza ekarri zuen. (...). Aldakuntza hauen eraginez, elkarren arteko trukaketa-korronteak itxuraldatu egin ziren: produktu manufakturatuak (batez ere ehunak) Ekialdeko eta herri berrietako nekazal produktuekin trukatzen hasi ziren negozio-gizonak. (...). Bienbitartean, kapitalen esportatzaileek trenbide-sareak sortzen zituzten herri periferikoetan (Afrikan bezala Asian edo Ameriketan)".

(A. MARGARIDO)



ESTATU-BATUAK: ETORKINEN SORTERRIAK (1850-1940). Grafiko honetan ikus daitekeenez, etorkinak sorterri askotatik iritsi ziren Estatu Batuetara, baina ez beti toki bakoitzetik kopuru berean: 1850ean Irlanda/Britainia Haundia/Alemania hirukoteak orduko etorkinen % 60a egiten zuten; 1940rako, ordea, hiruron ekarpena kasik erdira jaitsi zen, beste sorterrien probetxutan noski. Ekarpen demografiko hauek mamitu zuten, hein handi batean, XIX. mendeko eta geroko Estatu Batuen nortasuna.



EMIGRANTEAK. Atlantikoko portu handietan biltzen ziren batipat Ameriketarako bidea hartu nahi zuten Europako pobreak (Hamburg, Le Havre, eta abar). Euskaldun askok Bordeleko portuan hartu ohi zuen ontzia, pobreziatik eta soldaduzkatik ihesi eta aberaspide hobeen bila. Dena den, emigranteen irteerak kontrolatzen saiatu ohi zen Estatua. Ik. "Ameriketara!" dokumentua (Vicens Vives).(Marrazkia: Hamburg-eko portuan emigranteak,funtzionariek gidatuta).

* 1. Faktore sozio-demografikoak

Europako biztanle-hazkundeak, herrialde askotan presio demografiko bat sortu zuen. Egokiera hartan horren irtenbide bakarra, familia askok beste lurrandietan ogibide berria bilatzea zen.

XIX. mendearen hasieratik 1930.rarte 40 milioi europarrek beren sorterriak utzi eta emigratu egin zuten. Eta kopuru hori 1850-1914 bitartera muga daiteke. Garai honetan gertatu ziren historiako migrazio bortitzenak. 1880-1890etan bostehun mila lagun izan ziren urtero hemendik joandakoak. 1887an 800 milara igo zen kopurua.

Migrazio-prozesua gehituz zihoan garraioen hobekuntzak bultzatuta (baporeak), eta baita lurralde ezezagun aberatsek sortzen zituzten itxaropen hobeek erakarrita ere. Askorentzat, Amerika, adibidez, miseriatik irteteko aukera zen. Nabigazio-konpainiek, emigranteen garraioa tarteko zela, negozio ederrak egin zituzten.

XIX.eko emigrazio europarra

"1850etik aurrerako biztanle-emigrazioek harritu egin zituzten garaiko testiguak ere. Egokiera ona da une hura: garraioen kostua merkatu egin zen, hiriak ez ziren aski landako langabetu guztiak hartzeko, emigranteak askatasuna zuen oraindik hutsik zeuden lurraldeetan lekutzeko. (...).

Erreparorik gabe erabiltzen da propaganda, gizarajo errukarriak erakartzeko. Elkargo erlijiosoek eta nabigazio-konpainiek beren gain hartzen dute garraioa eta aterpea ematea. Bost axola bidaiak aukerarik lotsagarrienetan egitea; lurrak eta, nolanahi ere, lana bederen, izango dituen ziurtasunak, zirikatzen du pobrea. (...).

XIX. bigarren erdialdeko emigrazio izugarri honetan doazenak batez ere proletariak dira". (M. CROUZET)

IPAR EUSKAL HERRITIK AMERIKETARA

"Ameriketara emigratzea izan da, joandeneko 150 urteotan, Iparraldeko gertakaririk garrantzitsuena. Herri-mugimendua izan da, eta zati batez klandestinoa ere bai. Kausak, izan dira, itsas komertzioaren porrota, Inperioaren gerrak zirela medio; artisautzaren desagertzea; nekazaritzaren krisia; aduanak Frantzia-Espainia arteko mugetara aldatzea, zeinak Aturri eta Ebro bitartean zegoen unitate ekonomikoari porrot eragiten bait dio; zazpi urteko soldaduzka luzea.


Masa-mugimendu bat ere izan zen: 1857 eta 1877 bitartean 150.000 emigratzaile irten ziren Frantziatik, hauetan 31.000 euskaldun eta biarnes, gehienak, askoz, euskaldunak izaki; 1885-1887 bitartean, 25.000 dira Frantziatik emigratuak, eta hauetatik 5.653 Pirinio Behereetakoak; 1842an 12.000 dira Buenos Aires-en dauden frantsesak eta 14.000 Montevideokoak, horietako gehienak Iparraldeko euskaldunak dira. Pirinio Behereetako departamentuak bere populazioaren % 9a galdu zuen 1846 eta 1872 bitartean. Soldaduzkatik ihes doazen gazteak izaten dira gehienak: Pirinio Behereetakoak dira Frantziako iheslari guztien artean 2/5, 1/3, 1/2. 1884ean behar zuten 18 erreklutetatik 4 bakarrik agertu ziren Lapurdiko herri batean; 1832 eta 1891 bitartean 79.612 pasaporte entregatu omen ziren, baina klandestinoak askoz ere gehiago izan omen ziren. Lege frantsesak, 1889ko uztailaren 15ekoak, onartu egiten du egitate kontsumatua eta legeztatu egiten du iheskarien egoera.

Amerikako errepublika gazteek inmigranteak behar zituzten beren aberastasunak ustiatzeko: "Gobernatzea populatzea da" esan zuen Alberdi estatista argentinarrak. Emigrazio-agentziak sortu ziren, batzutan errepublika gazteetako kontsulek berek babesturik. Hauek berek antolatzen zituzten bidaiak, beltzeroek beralakoxe baldintzetan antolatu ere, eta 100etik 30eko irabaziak ere ateratzen zituzten. Agintariek, elizakoek eta zibilek, kondenatu egin zuten emigrazioa; panfletoak ere argitaratu ziren, hala nola, Hiribarren-en "Montevideoko berriak". Baina eskaintza onak ziren egiten zirenak eta honek tiratu egiten zieten gazteei. Plata-aldea lehen emigrazio-zona izan zen: Argentina, Uruguay eta Paraguay. Jada 1825ean baziren han euskaldunak; Althabegoiti zuberotarrak bere memoriak utzi dizkigu: Argentinako Gobernuak lursailak lagatzen zizkien Pampa-n, Buenos Aires-eko Hegoaldean, ardiak eta behiak hazten zituzten, ilekia esportatzen zuten eta indioen kontra borrokatzen; Althabegoitik Tandil-eko bazterra urbanizatu zuen. Buenos Airesen euskaldunak nagusitu zireneko industriak hauek izan ziren: gazitegiena, haragi izoztuena, larrugintzako eta esnearena. Pedro Luro, 1820an, jaio zen Garaziko Gamarte-n, eta 17 urterekin gazitegietako langile bezala hasi zen. Hil zenean garai hartako 40 milioitan preziatutako dirutza utzi zuen. Txilen, Iparraldeko euskaldunek, asko Hazparne, Uztaritze, Itsasu, edo Ainhoa-koek, "hacienda"k sortu zituzten hegoaldean, 1840tik aurrera; baina gehienak industriari lotu ziren: larrugintza, zapatagintza, errota, kontserba, eta abarri, edo komertzioari.

XIX. mendearen erdialdera, Kaliforniako urretara jo zuen boladak; baina laster nahiago izan zuten euskaldunek arkume- edo behi-hazkuntzan aritu, hala Migel Leonis Kanbo-kok, "The Big Basque", edo Juan Garatek, zeinak 75.000 akre lur utzi bait zituen. Iparraldeko euskaldunen artean, Nafarroa Beherekoak dira gehienak Kalifornia, Washington, Arizona, Mexiko Berria, Colorado, Wyoming, Montana, Nevada, Utha eta Oregon estatuetan. Errekrutamendua, hasieratik, familiaka edo herrika egin zen; sistema honek abegia eta solidaritatea segurtatzen zizkion helduberriari. Talde-bizitza periodikoetan eta euskal zentruetan ere agertzen da. Horietan biltzen dira euskaldun emigranteak, Iparraldekoak eta Hegoaldekoak, elkarrekin aparteko festa-otorduetan eta erlijiozko jai edo hiletetan. 1856an Betharrandarrak iritsi ziren Argentinara, "Padres Vascos" esaten zitzaien han, eta misioak eta ikastetxeak sortu zituzten".

(E. GOIHENETXE)

IPAR EUSKAL HERRIKO EMIGRAZIOA. "Emigrazioak XIX. mendean bi goraldi izan ditu: **a)** 1846-1855: urte hauetan izan da gosetea (1847) eta 1848ko iraultza. **b)** 1880aren ondotik: Amerikako bidaiak merkexeagoak zirelako (eta behar da ere aipatu gizon biltzaileen lana...), lantegiek --franko ziren-- gelditu zuten beren lana, eritasuna zen mahastietan (Oïdium), bihiak kariotuak ziren". (J. Suhubiette).




BASERRITIK PAMPARA (1865)

"Nere aita Argentinara 1865ean etorri zen. Ibarra ondoan, Izaskundik hurbil, mendi-malda batean dagoen Gorotxun baserriko semea zen... Argentinarako atera zenean 13 urteko mutil koskorra zen, eta familiaren eta herriaren egoera ekonomiko txarrak behartuta egin zuen. Mendiko gizaseme galanta zen, baina analfabetoa. Haren lehenengo lana, indiarren kontra defendatzeko zangak ondeatzen zebiltzan peoiei balde batekin edateko ura inguratzea izan zen. Gero harategi batean jarri zen lanean eta haren egitekoa hiltzeko animaliak ekartzea zenez, zaldizko lanak egiteko grina bizia piztu zitzaion gure aitari, eta abeltzain izatera pasa zen, eta eginkizun honetan eman zuen bere gaztaro osoa. Egoerak lagundu zionean, "estantzietan" animaliak erosten hasi zen, eta arreatuz hazitegietara ekartzen.

1890ean lur-sail bat hartu zion errentan La Colina-n (General Lamadrid hiriko partiduan) Krabbe eta King firma ingelesari. Sailak "Los Pozos" du izena, han bazter batean izen horixe zuen aintzira bat zegoelako. Txahal-zekorren negualdiak egiteari ekin zion: azienda-taldeak prestatu eta Buenos Aires-era ekartzen zituen, saltzeko. Ustiategia zabalduz, taldea garraiatzen lagunduko zioten abeltzain batzuk hartu zituen, kapataz bezala. Nik, gizon helduak zirela ezagutu nituen (...). Garraio hauetan aita bera ere ibiltzen zen; asapalan itzultzen zen lagun-taldea hiritik landara, 100 legoatan. Batezbeste bost egun ematen zituzten horretan eta uda-partean gauez bakarrik ibiltzen ziren".

(J. GOIETXEA: Los Gauchos vascos. M.P.PILDAINi jasoa)



"ONGI ETORRIAK GUZTIOK!".Garaiko karikatura da (J. Keppler: Puck aldizkaria): Gogorra zen oso etorkinen lana Ameriketan. Eta askotan gogoratzen ez dena: anitz itzuli egiten zen berriz bere sorterrira, Estatu Batuetan ezartzen zitzaion lana gogorregia zelako.

Europako herrialdeek bultzatzen zituzten migrazio-mugimendu hauek, baina baita herrialde hartzaileek ere, ekonomiaren garapenerako laneskua gehitzea behar bait zen. Kasu honetan daude Estatu Batuak eta Argentinarako migrazioak. Bestalde, hizkuntzak eta izaera kidetasunak ere emigrazio--herrialde eta inmigrazio-lurraldeen arteko lotura estuagotu egin zuten. Ingelesek eta irlandarrek batez ere Estatu Batuak populatu zituzten; latindarren joera (italiarrak, espainiarrak, portugaldarrak) Hego Amerikarakoa izan zen.

* 2. Faktore ekonomikoak

Europak, XIX. menderarte, beste kontinenteetan produktu exotiko eta arraroak ("espeziak") soilik bilatzen zituen; baina Industri Iraultzak piztu zuen kontsumoak eskatuta oinarrizko produktuak biltzen hasi zen: jakiak eta lehengaiak, alegia.

Potentzia lehiakideak

"Bi botere handi elkarrekin kontrajarriak eta konponezinak daude Europan, beren ekimena mundu osora zabaldu nahi duten bi nazio handi eta munduari merkatal zerga bat ezarri nahi diotenak. ***Ingalaterra****, alde batetik: arrakasta izan duten erasoen bere historia luzearekin, bere interes propioa asez ilunbeetan murgildutako nazioak argitzen ari den bere konbentzimendu harrigarriarekin beti.Eta* ***Alemania****, odol berekoa: borondate ez hain adoretsuarekin, baina beharbada adimen biziagoarekin, munduko puntu guztietan agertu da, eskean. Transvaal-en, Cape Town-en, Ertafrikan, Indian, Ekialdean, Hegoaldeko itsasoetako irletan eta Ipar-mendebalde urrunean, Bibliari jarraikiz bandera bat ezarri den tokietan, eta banderaren ondoren merkatalgoa, horrelakoetan ofizial bidari alemaniarra kinkilari ingelesarekin lehiakide da". (Saturday Review: 1897-Iraila-11)*

Kolonialismoaren defentsa

"Nik zera diot, Frantzia kapitalez aseta dagoela eta nahikoa kapital-kopuru esportatu duela, gainera; orain, arazo kolonialaren alde hau ere gogoan hartzeko prest dago. Gure manufakturei ere irteera aurkitzea problema bera da (...). Kontsumo europarra aseta dago, munduaren beste tokitan kontsumitzaile-masa berriak sortu beharra dago; bestela, gizarte modernoa bankarrotara eramango dugu (...). Garbi esan beharra dago, goiko arrazek badutela eskubiderik beheko arrazen gain, eta baita betebehar bat ere: beraiek zibilizatzeko betebeharra".

(J. FERRY, 1890)

Bilaketa honen lehen arrazoia zera da: Europa, pobrea zen lehengaietan. Industria teknifikatu berriak lehengaiak eta energia eurrez irensten zituen; Europako industriak behar zuen guztia ezin zuen lortu hemengo eremuetan eta beste kontinenteetara irten zen Europa kolonialista.

Bigarren arrazoia, urritasuna ez baizik horrekin batera joan ohi den janarien eta lehengaien garestitzea izan zen: Biztanleriak gora egin zuenez, janariak kariotu egin ziren; era berdinean lehengaiak. Bestalde, langileek soldata hobeagotu nahi zuten, eta entrepresariek beren irabazia gutxitzen ikustean, herrialde atzeratuetan lehengai, janari eta lanesku merkeak lortzea espero zuten.

Hirugarren arrazoia, azkenik, merkatu berriak sortzea zen. Industri ekoizpena ugaria zenean merketu egiten ziren produktuak. Herrialde atzeratuetan lehengaiak lortu eta landutako produktu industrialen truke haiek erostea zen itxurazkoena eskema ekonomiko hartan. Lurralde horiek Europako kapitalak inbertitzeko toki egokiak ziren, gainera, trenbideak, portuak, hiriak, etab. eraikitzeko.



ALGERIAN LURREN BANAKUNTZA (1863). Merkatua, labore berriak edo meatzak ezezik, ahal izan zenean, lur-sailak ere bilatu zituzten kolonietan europarrek. Kolonizazioak, jabegoaren ikusmoldea eta banakuntza berriak ezarri nahi izan zituen. Algeria izan zen honelako kasu bat, eta geroago baita Kongo edo Rhodesia ere. Beti ere, bertakotarren eskubideak atzera egin behar izaten zuten, europarren aurrean.

KOLONIALISMOAREN KONTRA

*"**Goiko arrazak! Beheko arrazak!**. Jakitun alemaniarrak, frantsesa alemaniarra baino arraza apalagokoa dela, eta gerrate franko-prusiarrean bentzutua izan behar zuela zientifikoki erakusten ikusi ditudanetik osorik arbuiatzen dut tesi hori... Arraza apalagoa hinduak? Arraza apalagoa txinarrak? ... Ez. Egon, ez dago goikoak deituriko nazioek behekoen gain omen duten eskubiderik. Ez dezagun, beraz, biolentzia zibilizazioaren izenaz jantzi: ez gaitezen betebeharraren eskubideaz mintza. Proposatzen duzuen konkista, indarrezko abusu hutsa da, zibilizazio zientifikoak eskasagoen gain duen indarrez egina; gizonak menperatu, torturatu eta, gainera, zibilizatzaile omen den horren probetxutan menperatuok duten lan-indar osoa zurrupatzeko bidea. Horretaz zibilizazioa aipatzea biolentziaz gain hipokresia pilatzea da!"* *(G. CLEMENCEAU)*

F. LESSEPS (1805-1894) eta SUEZ. Diplomatiko frantses hau, Egypto-ko Said Paxa-ren adiskidea zen, eta berorren eta Napoleon III.aren laguntzarekin lortu zuen, injineru izan gabe, Suez-eko kanala egiteko baimena (1859-1869), Mediterraneoa Indikoarekin zuzenean lotzeko. --Benetan obra faraondarra izan zen hura: 20.000 fellah-ek egin zuen lana, lehenengo lan bortxatu bezala eta geroago zerbait ordainduta. Puntu estrategiko nagusia. (Adibidez, 1898ko gerratean Espainiari eragotzi egin zitzaion Filipinetarako hartaz baliatzea).



* 3. Faktore politiko-estrategikoak

Hain zuzen, bizitza ekonomikoak segurtasuna eskatzen zuen. Itsas gizonen bidaietako joan-etorriak segurtatu beharra, baporeen hornimendurako. Horregatik, itsasoan irla eta itsasarte estrategikoak, edo lehorrean bide nagusietako kontrolguneak nazio boteretsuen konkistagai bihurtu ziren. Nazionalismoak ere inperio eraikuntzaren alde egiten du lan. Pentsamolde kolonialistak uste zuenez, kolonia menperaturik gabeko Estatua ezin zitekeen botere handitzat har. Izan ere, nazio handi batek munduan eginkizun zibilizatzaile bat bete beharra zuela pentsatzen bait zen.

Politika eta estrategia elkarren eskutik zihoazen: Inperioa, hainbat sostengagunetan oin-hartutako komunikabide-sarea zen, eta lur-jabetze batek bestea zekarren ondoren, kolonuek berek eskatzen bait zuten kolonizazio-eginkizunaren jarraipena.

* 4. Faktore ideologiko eta moralak

Inperialismoa aurrera eramateko, aldez aurretik edo aldiberean, argudioak eta arrazoi zurigarriak eman ziren, egitekoaren balio onak azalduz: Britainia Haundiak, adibidez, bere misio zibilizatzaileaz hitzegiten zuen. Italiak, inperio erromatarra gogoratzen zuen. Espainiak, Urrezko Mendea.

"Atzeratutako" herriei laguntza bat eraman behar zitzaiela esaten zen. Arlo honetan, Europako erlijioak, katolikoa nahiz protestantea, herrialde haiei eramatea oso garrantzizkotzat hartzen zen. Misiolariek gobernuen laguntza jaso ohi zuten. Idazle eta jakintsuek Mendebaldeko gizon zurien betekizun zibilizatzailea goraipatzen zuten: irakaskuntza, higienea, eraikuntza, teknika, moda eta ideia europarrak mundu osora zabaldu behar ziren.

Europartze-prozesua (hau da, Europako teknika eta ideien nagusitasunaren onartzea) herri aurreratuetan ere gertatu zen, baina herri "atzeratuetan" gogorragoa zen oraindik eragina, zeren eta, egon, politikoki ere Europaren menpean bait zeuden.

Kolonia eta irakaskuntza

"Ekonomiaren ikuspegitik ezezik baita frantses populazioaren segurtasunaren aldetik ere, bertakotarren irakaskuntzak Algeriari benetako arriskua dakarkiola ikusita, indigenentzako lehen irakaskuntza kentzearen alde agertzen da kongresu hau".

(Algeriako kolonuen Kongresua, 1908)

IRAKASKUNTZA KOLONIALA. Kolonialismoak bere burua zibilizatzaile bezala definitu zuenez, izan zuen eskolagintzak bere lekua kolonizazioan, nahiz eta kontraesanez betetako sistema izan. Komiki honetan ("Tintin au Congo", 1930), Tintin zuriak zera esaten zien Kongo-ko haur beltzei: "Ene lagun maiteok, gaur zuen aberriaz hitzegingo dizuet: Belgika...". Metropolia zen, beraz, kolonien eta kolonizatuen aberria.



B) IDEOLOGIA KOLONIALA

Topiko kolonialista hauei aurpegi eman zionik ere egon zen Europan eta herri kolonizatuetan: lehenik tokian tokiko erresistentziak herri kolonizatuetan, mugimendu nazionalak, kolonizatzaileen gehiegikerien salaketak; Europan, berriz, mugimendu sozialistek ez zuten onartzen kolonizazio-prozesua. Europako talde iraultzaileek herri kolonizatuen hainbat eskubide bortxatu izana salatu zuten, baina interesak, kritikak baino indartsuagoak izan ziren.

Eritzi antikolonialak gorabehera, kolonizarioarekiko erresistentzia gainditzeko eta eritzi publikoa alde jartzeko, esplorazio-bidaien istorio eta kontaketak jendearen jakin-mina kilikatu zuten lurralde ezezagunetan bideak bezala, europarren gogcetan jarrera kolonialistak urratuz.

Negozio kolonialak (1905)

(Jokabide kolonialaren gogorra, erdizka bederen, enplegatu belgiar batekin izandako elkarrizketa honek erakusten digu, "lan" kolonialen etekin onak aipatzean:)

"Orain urtebete eskas,Estatu Libreko sozietate belgiarreko enplegatu batekin mintzatzean, ea bere negozioekin pozik zegoen galdetu nion:

--Oso pozik, erantzun zidan: joan den hilabetean kautxu-tona asko inguratu dugu, kasik odol-isuririk gabe..."
("Le Congo Léopoldien")

C. RHODES, KOLONIALISTA

(Cecil J. Rhodes, 1853-1902, ideia inperial britainiarraren defendatzaile suharra izan zen. 1887an British South Africa Company sortu zuen, eta sekulako aberastasunak eskuratu zituen. Rhodesia koloniari berak eman zizkion oinarriak eta izena. Hil zenean sei milioi libera utzi zituen, gehienak Oxford-eko Unibertsitateari. Argigarria da ondoko testu hau:)

"Londres-eko East End-en (langile-auzoan) izan nintzen atzo, eta langabetuen asanblada batean egon. Eta 'ogia, ogia!' eskatzen zuten hitzaldi sutsu haiek entzun ondoren, etxera nentorrela, entzundakoa nere gisara gogoematen, inoiz baino areago konbentzitzen ari nintzen inperialismoaren garrantziaz (...). Buruan darabildan ideiak arazo sozialaren irtenbidea erakusten du, hau da: Erreinu Batuko berrogei milioiak zorigaiztoko gerrate zibil batetik salbatzeko, guk, politikari kolonialok, lurralde berriak hartu behar ditugu, biztanle-soberakina berorietan kokatzeko, gure meatz eta lantegietako produktuak saltzeko, merkatu berriak aurkitzeko. Inperioa, beti halaxe esan dut, lapiko-arazoa da. Gerra zibila nahi ez baduzue, inperialista bihurtu behar duzue".
(C.J. RHODES, 1895)

IV. KOLONIALISMOAREN UNE ETA MODUAK

Hiru fase bereiz daitezke kolonia baten eraikuntzan: Konkista, antolamendua eta ustiapen ekonomikoa.

A) KONKISTA

Armada aurreratua zeukaten Estatu kolonizatzaileek errazki burutu zuten konkistaren egitekoa, armamendu eskasagoa eta erakunde politiko ahulagoa zeuzkaten herrialdeen kontra. Ia Afrikako kontinente osoa era honetan menperatu zen.

Batzuetan, gainera, armadari herrialde kolonizatuetan jaiotakoen talde armatu kolonialen laguntza gehitu zitzaion. Teknika ere lagungarri ona izan zen okupazio armatu hartarako. Baporeak ibilkortasun bizia eman zion soldaduteria kolonialari: ibaietan zehar kontinente barneetara azkar hel daiteke armada. Nabigazioan lortutako aurrerapenak tresna oso baliagarriak gertatu ziren aurkikunde eta okupaziorako.

Potentzia batzuek beren nagusitasun militarra munduko bazter askotan agertu zuten. Honela, ingelesek, frantsesek eta alemanek kontinente desberdinetan kokatutako koloniez eraiki zituzten beren inperioak. Beste batzuek, ostera, barruti jakinago batetara mugatu ziren: portugaldarrak eta belgiarrak Afrika ekuatoriarrera, italiarrak Ekialdeko Afrikara, errusiarrak eta japoniarrak Ekialde Urrunera.

Vietnam-dar antikolonialista

"Gure Erregeren gobernua galtzean, gurasoak galdu dituen haurraren goibelaldi berean gaude. Zuen erreinua Mendebaldeko itsasoetakoa da; gurea, Ekialdekoetakoa.

Txakala eta bufaloa bata bestearengandik bereizten diren bezala, bereizten gara gu gure idazkera, hizkuntza eta ohituretan. Gizakia arraza ezberdinetakoa da; hala ere, denek balio bera dute, baina berorren izaera ez da bat bera.

Eskerronak gure Erregerekin lotzen gaitu, egin zaizkion laidoen ordaina hartuko dugu edo haren alde hilko gara. Burdina-suak gutartera ekartzen segitzen baldin baduzue, luzea izango da desordenua; baina zeruaren legeen arabera borrokatuko gara eta gure kausa hau, azkenik, irabazle aterako da.

Bakea nahi baldin baduzue, itzul gure Erregeri bere lurraldeak. Aspertzeke, betiren beti borroka egitea zinegiten dugu".

(Idazle vietnamdarra, 1862)

Sozialista: antikolonialista

"Kolonizazioa lapurreta da, arpilaketa, heriotza. Irabazi-min diren kapitalista gutxi batzuren probetxutan herri soilen kontra egindako makurkeriak". (JULES GUESDE)

B) ANTOLAMENDUA



Herrialdearen okupazioa lehen pausoa da; bereala, eratu egin behar da gizarte koloniala, horretarako administrazio egoki bat antolatuz. Metropolitik ezin dira konkretatu erabaki guztiak eta honela gobernadorearengan biltzen da botere ugari.

Arazoari irtenbidea aurkitzeko ez zen beti sistema bera erabili. Batzuetan, merkantilismo-garaiko sistema jarraituz, konpainia pribatuei kolonia eratu eta baliabideak ustiatzeko pribilegioa eman zitzaien. Baina, normalagoa izan zen,

GERRA KOLONIALAK. Kolonien konkistan, europarren "bakera" iritsi arte, gerraz eta armaz menperatu ziren herriak. Herero herriak honela eraso zion alemaniarren goardizio bati (Windhoek, 1904). Gehienetan, sarraski handiekin bukatu ziren ekintza hauek (zuluen kontrako gerratea, adibidez, 1879).

OPIOAREN GERRATEA: ONDORIOAK (1840-1842)

"Gerrate napoleondarren ondoren, europarren merkatal iharduearen berrikuntza Ekialde Urrunean (Singapoore 1819an eraiki zen) geroz eta biziago zuzentzen zen bere ekinean Txinara. Baina han tearen eta zetaren erosle ziren etxe atzerritarrek oso gogo txarrez jasaten zituzten gobernu mantxutarrak ezartzen zituen mugak. (...). Ekonomia txinarra buruaskia zen, gainera; zilar-metalez ordaindu gabe, beste nolabait beren ordainketa-balantza orekatzeko, mendebaldarrek Txinako hegoaldeko probintzietan opioaren kontrabandoa hasi zuten handizka bizian. (...). Liskarrak ugariak izan ziren Guangzhou-en 1830-1835etan. 1839an Enperadorearen ordezkari bereziak bahiterazi egin zituen hiriko opio-kaxa guztiak, eta denak ospakuntza erlijioso batean erre. (...). Ingalaterrak gerrari ekin zion Yangzi-ren bokalean ("opioaren lehen gerratea"), harik eta 1842an txinarrak garaitu ondoren Nanjing-eko Bakea sinatu zen arte: Txinak baztertu egingo zuen bere merkatal konpainia bitartekaria, bost portu irekiko zizkien erbesteko merkatariei, aduana-zerga % 5era mugatuko zuen eta Ingalaterrari Hong Kong irla utziko zion, Txinan egoitza zuten europarrak ez ziren eskumen txinarraren menpe egongo, kontsul europarren tribunalen pean baizik (...). Portuetako europarren egoitza-auzoak agintari txinar arruntetatik aparte geratuko ziren eta kontsulen kontrolpean merkatari atzerritarren elkarteak administratuta. (...). XVIII.ean debekatutako misiolarien lana ere toleratu egingo zen berriz ere, hurrengo urtean Frantziari aitortu zitzaion pribilegioaren arabera".

(J. COLLET)

tarteko konpainiarik gabe, erakundeztapen kolonialaz Estatu kolonizatzailearen administrazioa bera arduratzea.

Dena den, administrazio metropoliarrak molde ezberdiretako irtenbideak topatu zituen. Hona batzuk:

*** 1. Elkargoa**

Kolonizatutako herrialdeetako jatorrizko administrazio-erakundeak mantendu zituen formula honek. Honela egin zen Afrika Beltzean.

*** 2. Babespena**

Era hau, administrazioa ongi antolatuta zegoen herrialdeetan erabili zen, administrazio hori beti ere gobernu kolonialaren babespean jarrita. Teorian, tokiko agintea errespetatu zen, batez ere barne-politikako arazoetarako; armada eta kanpo-politika aginte kolonizatzaileen eskuetan geratu ziren holakoetan.

KOTOI-MERKATUA (Bombay). XIX. mendeko grabatu honetan ikus daitekeenez, Metropoliek produktu kolonial ugari bildu ohi zituzten lurralde konkistatuetan, eta Londres zen prezioak ezartzen zituena, saltzean ezezik erostean ere.



*** 3. Kontzesioa**

Herrialde oso zabaletan hartu zen bide hau. Txinan, adibidez, lurralde osoan parte hartu gabe, potentzia europarrek nahiago izan zuten merkatal abantaila batzuk lortu eta portu estrategikoetan kokatu.

Kontzesio hauek jeneralean bortxaz lortu ziren, inor behartuta, eta halako herrialde kolonizatuentzat umiliazio gogorra izan zen hori. Txi-

na, bere gizarte tradizionalaren ateak irekitzera beharturik aurkitu zen, lehengaiak saldu eta Mendebaldeko manufakturak erostera. Potentzia europarrek Txinari inposatutako "proportziorik gabeko akordioak" dira kontzesio hauetako adibiderik irtenenak.




URRE-BILAKETA. Nekazaritzak edo eskulan industrialak eman zezaketenaren ondoan, inoiz edo bestetan metal preziatuen meatzek edo urek eskaintzen zutena erakarmen handikoa izan zen etorkin eta abenturazaleen artean. Bizilagun berriak inguratzeko garrantzi ezaguna izan zuen fenomeno honek Hego Afrikan edo Australian, adibidez. ("Gold Rush": Urre-uholdea. Marrazkiak Kaliforniakoa gogoratu nahi du: 1849-1852).

C) USTIAPEN EKONOMIKOA

Hauxe da kolonizatzaileen lehen ardura. Aduana-bateratzea esan nahi du honek: kolonia-metropolien arteko merkatalgoan harremanak mugasaririk gabekoak bilakatu ziren, joan-etorri horietarako erraztasun guztiak sortuz. Aldiberean beste nazioen lehiakidetza urrundu egiten zen, honelakoentzat tartean tarifa babestaileak ezarriz. Metropoliak ekonomian batasun-sistema bat ezartzen du, bere probetxutan eta edozein hirugarrenen kaltetan.

Merkatal harremanetarako egiten ziren "akordio kolonialetan" herrialde kolonizatua menpekotasun-egoeran zegoen: lehengaien hornitzaile eta metropoliko industri produktuen erosle bezala, alegia. Koloniari ez zitzaion industrializazio-prozesurik sustatzen uzten, eta are gutxiago horretarako lagundu, baina bai behartuta zegoen, lehendik merke, landu gabe, metropoliari saldutako produktu berak orain berriro landuta erostera. Adibidez, Indiak kotoia saltzen zion Ingalaterrari, eta gero kotoiezko ehun ingelesak prezioz hainbatetan biderkatuta erosi behar zituzten indiarrek.




DIAMANTE-MEATZAK. Aire zabaleko urre-errekastoek nornahi banako erakar zezaketen, baina meatzak ustiatzeko erakunde kapitalistak behar izaten ziren (=konpainiak). Honelako ustiategietan, ordea, merkeagoak gerta zitezkeen tokian tokiko langileak, etorkinak baino. Horregatik, Hego Afrikan diamante-meatzak aurkitzean (1869), beltzak hartu ziren meatzari bezala: 1874az gero 10.000 lagun enplegatu ziren urteoro Kimberley-ko meatzetan. (Irudia: Langile kafreei, lan-atsedenaldietan, metalezko eskukoak jartzen zizkieten kapatazek, lapurretarik egin ez zezaten. Bongxa-ren marrazkia, 1900).

V. INPERIO KOLONIALEN ERAIKUNTZA

XVI eta XVII. mendeetan eraikitako inperio kolonialek XVIII. mendearen bukaeran edo XIX. menderen hasieran independentzia lortu ondoren (Estatu Batuek 1776-1783etan eta Latin Amerikak 1830.erako, beranduenik), potentzia europarrak Afrika eta Asiako lurralde zati handiak politikoki, militarki eta ekonomikoki kontrolatzera iritsi ziren.

XIX. mende osoan zehar gertatu zen prozesu honek puntu gorena 1870-1914 bitartean lortu zuen. Garai honetan, praktikan, ez da Afrika eta Asiako lur zati bat ere europarren menpetasunetik kanpo gelditzen.

Azter ditzagun batez ere potentzia handien inperioak eta laburrago beste eredu kolonialak.



A) INPERIO INGELESA

XIX. mende-bukaeran inperio luditar bat eratu zuen Ingalaterrak: Ontziteria zuen Ozeanoak zaintzeko. Beraz, Irletako merkatalgoa mundu osoan zehar zabaldu zen eta Afrika, Asia eta Ozeania europartzen lagundu ahal izan zuen; kapital eta teknika ingelesak lurralde urrunetako baliabideak aurkitzeaz arduratu ziren. Londres, munduko hiriburu bilakatu zen, egiaz.

INPERIOAREN BIDEAK. Bide eta lotune estrategikoek ematen zioten batasuna Inperio Britainiarrari. Sare estrategiko osoan, Suez bezalako kanale bat hil-ala-bizizko puntua gertatzen zen nazioarteko lehiaketan. Kapital frantsesak egindako kanale hau (1859--1869) Ingalaterrak eskuratu zuen azkenik, akzioak erosiz (1875).

S U E Z

"Gure adiskide Ferdinand de Lesseps-ek, erakutsi digu Mediterraneoa eta Itsaso Gorria lotzeak ekar ditzakeen abantailak zeintzuk diren ontzi handientzat. Horregatik, Suez-eko istmoa zulatu eta bi itsasoen arteko kanalea ustiatuko duen konpainia unibertsal bat sortu eta zuzentzeko botere oso-bakarra eman diogu berari...

Kontzesio honen iraunaldia laurogeitahemeretzi urtekoa da... Gobernu egyptiarrak irabazi garbietatik urteoro % 15 hartuko du... Gainerako irabazi garbiak honela banatuko dira: Konpainiaren probetxutan % 75, bazkide fundatzaileen probetxutan % 10. *(Suez-eko konpainia sortzean, 1856)*

* 1. Hedakuntzaren zergatiak

1882. urteko ekonomi krisialdiak eta urte batzuetako uzta txarrek, alde batetik, eta areago oraindik merkatu internazionalean Estatu Batuek eta Alemaniak ezarri zituzten produktu merkeen konpetentziak, bestetik, ingeles askori sorterritik kanpora aberastasun-bila joateko desioa piztu zioten. Urtero, 200 edo 300 mila ingeles, lehenengo Estatu Batuetarantz eta geroago kolonietarantz irten ziren. Komunikabideen erraztasun berriek Ingalaterra produktu merkez hornitu zuten. J. Chamberlain-ek kolonietako ministrari-kargua hartu zuenean (1895-1903), gizonen eta produktuen trukea sustatu zuen: "inperioa, merkatalgoa da". Inperioaren doktrina edo erlijio bat sortu zen: "Inperio Britainiarra, Probidentziaren ondoren munduak duen ondasunik handiena da" (Lord Curzon).

Ingalaterrak XX. mendearen hasieran 33 milioi kilometro karratu eta 450 milioi biztanle zituen bere Inperioan, munduko populazioaren laurdena gutxi gorabehera. Toki denetan, portu- eta trenbide-oinegiturak eraikita zeuzkan, eta Indian eta Egypton, adibidez, ureztapen-lanak eginda. Labore-koloniak errendimendurik handienera heldu ziren: Indian eta Egypton kotoia, Zeilan-en tea.

MERKATALGO KOLONIALA. XIX. mendearen hasieratik bukaerara, funts-funtsetik aldatu zen Britainia Haundiko produkzio-kontsumoen arteko merkatal erlazioa. Lehen urteetan kanpotik % 3 bakarrik ekartzen zen garitan, baina mendearen amaieran, sistema kolonialari esker, % 80 bat izatera iritsi zen inportatutako garia. Produktu industrialen truke erosten ziren kanpoan lehengaiak eta aleak.


ERREINU BATUAN KONTSUMITUTAKO GARIAREN SORLEKUA

Urteak	Bertakoa	Kanpotikoa
1811-1830	% 97	% 3
1831-1850	% 87	% 13
1851-1860	% 70	% 30
1861-1870	% 60	% 40
1871-1879	% 45	% 55
1891-1895	% 21	% 79

(P. BAIROCH)

Jende zuriko lurraldeek, gutxiago populatuak, okela, gari eta artile-soberakinak bidaltzen zizkieten. Hegoaldeko Afrika, Australia eta beste herrialde batzuetako meategiek ostera, urrea, diamanteak, eztainu eta kobrea ematen zituzten metropoli industrializaturako.

Ingelesen ekonomi boterearen oinarria, Inperioa izan zen, benetan.




W. HASTINGS (1732-1818) izan zen Indiako lehenen Gobernari Orokorra (1773-1785). Hemen bere elefante ofizialean ageri da. Indiako Inperioan klase nagusien adiskidetasuna eta lankidetza bilatu zituen Ingalaterrak, India osoari bere agintea ezarri ahal izateko.

* 2. Lortutako lurraldeak

Ingalaterrak aurrea hartu zien beste nazioei, toki estrategikoez eta koloniez jabetzean. Haren menpe zeuden lurraldeak gogoratzea komeniko da:

XVIII. eta XIX. mendeetan zehar frantses, holandar, eta espainiarrei konkistatutako **eskala-puntu** estrategikoak daude, lehenik: Malta, Korfu eta Irla Joniarrak Itsaso Mediterraneoan; Gibraltar, Santa Elena Irla, Afrika-Hegoaldeko Lurmuturra (Cape Town), Maurizio Irla, Aden eta Zeilan Indiarako bidean; Singapore eta Hong-Kong, Txinarakoan. Toki hauek eskutan izatean, inperioko lurralde sakabanatuak bateratuta gelditzen ziren eta merkatalgorako itsas bideak militarki kontrolatuta.



OPIOA (India, 1882). Metropoliek herri kolonizatuen arteko merkatalgoa ere beren probetxutan sustatu zuten. Ingalaterrak, esate baterako, Indian opio-belarraren laborantza eta industria lagundu zituen. Droga honen eske handia zegoen Txinan, nahiz eta kontrako legeak emanda egon, benetako arazo sozio-politikoa bait zen gizarte txinarrarentzat. Kontrabandoz sartzen zen Txinara Indiako opioa, merkatari ingelesen irabazirik onenekin. Merkatari ingelesen negozio zikina moztu nahi izan zuenean, armaz eraso zioten mendebaldarrek Txinari (ik. "Opioaren Gerratea" testua).

- Afrikako itsasertzean **merkatalguneak**: Sierra Leona eta Gambia, XVIII. mendean esklabuen salerosketak egiten ziren puntuak, alegia. Afrikan, Iparraldetik Hego Afrikako Lurmuturreraino etenik gabeko inperio bat osatu zuen Ingalaterrak.

- **Produktu tropikalak** ematen zizkioten labore-koloniak: Antillak, Honduras, Guyana.


- **Populaketa-tokiak**: Biztanle-soberakinak toki hauetara abiatu ziren: Kanada, Australia, Zeelanda Berria, Batasun Hegoafrikarra. Azken toki honetan, hala ere, gauzak ez ziren samurrak izan, kolonu boer zuriekiko konponezinengatik.

- **Ustiapen-kolonia** garrantzitsu bat aipatu behar da berezikiago: India, 1777az geroztik, "Ekialdeko Indietako Konpainia"ren administraziopean zegoen; Ingalaterra kotoiez hornitzeko garrantzi handia zuen Indiak. Indiarako bidea kontrolatzeko Suez kanaleko akzio gehienak erosi zituen (Disraeli Ministrariak, 1875) eta Estatu babestatuen bidez isolatuta utzi ere bai, Katxemira, Beluchistan eta Afghanistan Ingalaterraren Estátu babestatuak bihurtu bait ziren. India inperioaren erdigune behinena zen.

BOERren HERRIA. XVII. mendean (1652) Hego Afrikan lekuhartutako kolonu holandarren ondokoak ziren boer-ak (="granjariak"). Lurrak beltzen kontra zabalduz, eta hotentote (1713) eta bantuen (1775) erasoetatik defendatuz sortu eta mantendu zuten beren gizarte zuria.

Ingalaterra Hego Afrikaz nagusitu zenean (1795-1814), lehenengo zalantza batzuren ondoren, boer-ak Britainia Haundiaren kontra jarri ziren: etorkin ingelesen uholdeak eta esklabutzaren abolizioak beldurtuta (1833), hamabi mila boer-ek ihesegin zuen barnerantz, lurralde berrien bila ("Trek Handia" bezala ezagutu dena). Estatu berriak sortu zituzten (1837-1854): Natal (1843an Ingalaterrak beretua); Transvaal (1852) eta Orange (1854), Ingalaterrak independentetzat ezagutuak.

Diamante- eta urre-meatzak agertzean (1867-1869), alde ...



* 3. Lurraldeen "status" ezberdinak

Inperio honetan, ekonomiaren eta antolamentu politikoaren aldetik funtsean bi motatako lurraldeak bereiz daitezke: Dominioak eta Ustiapen-koloniak.

a) Dominioak

Populaketa-lurraldeak ziren, Ingalaterrako migrariek beren bizitokia jartzeko gehien estimatzen zituzten lurraldeak alegia. Autonomia eta Ingalaterrak berak bezalako gobernu-erakundeak zituzten: Parlamentua, alderdi politikoak.

Kanada, Australia, Zeelanda Berria eta Batasun Hegoafrikarra era honetako lurraldeak ziren. Kanadan, Estatu Batuetara joateko asmoa zuten migrariak gelditzea lortu nahi zen. Horretarako lur zatiak dohan edo salneurri baxuan banatu ziren. Munduko garautegi garrantzitsuenetariko bat bihurtu zen lautada kanadiarra.

...

batetik etorkin britainiarrak uholdean etorri ziren, ("uitlanders" deituak: atzerritarrak, alegia), boer-en gizarte kontserbakorra arriskutan jarriz, eta bestetik, Ingalaterrak meatz aurkitu berrien kontrola segurtatu nahi izan zuen. Boer-ei beren sorterria, berriz ere, erbeste bihurtzen ari zitzaien.

Kruger (1825-1904) buruzagi boer-a eta Rhodes kolonialista ingelesa aurrez aurre aurkitu ziren: bi interes-mundu kontrajarriak ziren, noski. 1899an lehertu zen azken gerra: Ingalaterrak kolonietan izan duen gerraterik gogorrena (300.000 soldadu bildu zituzten han ingelesek); Ingalaterrak bere legea ezarri zuen arte luzatu zen gudatea (1902).

Gaur eguneko zurien eta beltzen arteko "apartheid"-politikaren errorik iraunkorrenak boer-herriaren historia gogor honetan sustraituak daude. Marrazkian:Boer-ak gerra-fronterako bidean (garaiko grabatua).



KOLONIA "HUTSAK". Kolonietako lurraldeak biztanlez "hutsak" zirenean (hau da, indiar nomadak bakarrik zituenean: tokikotasun finkorik gabeak, beraz), hango lurralde "europartuaren" hedapena eta segurtasuna gordetzeko soldaduteria koloniala eratu ohi zen. Marrazkian: Hego Gales Berriko (Australia) zaldizko polizia.



VIKTORIA ERREGINA (1837-1901), Indiako Enperadoresa (1877). Erregealdi honetan lortu zuen Britainia Haundiak bere hegemonia koloniala munduan. Estatu boteretsu haren sinbolo bilakatu zen Viktoria. "Aro viktoriarra" Irlaren loraldi ekonomiko eta kulturalaren aparteko garaia bezala ikusi izan da.


Australian horien inmigrazioa moztu nahi izan zen. Bertako toki zabal mortuetan bordak eraiki ziren; urre-meatzen aurkikundeak, artalde ugarien mantenurako baliabideak, eta horrekin guztiarekin batera, Ingalaterran berriro artilezko ehunak herrian harrera ona izateak metropoliko jendea kolonia hauetara erakarri zuen. Alde sozio-ekonomiko on asko zegoen, beraz, kolonia horietan.

Politikan, berriz, barne-arazoetan ia guztiz libreak ziren Dominioak; Ingalaterrako Erregea Gobernadore Orokor batek ordezkatzen zuen. Baina kanpo-politikan, Inperioko Konferentzia batzuen bidez, metropoliaren kontrolpean zeuden. Metropolia, bere eta Dominioen interesak bateratzen saiatzen zen, Konferetzietan bildu ohi ziren lehen Ministrarien eta Dominioetako ordezkarien harremanen bidez. Inperioak praktikan egitura federala zuen.

b) Ustiapen-koloniak

India eta Afrikako lurraldeak (Batasun Hegoafrikarra ezik) mota honetakoak ziren. Lehengaien hornitzaileak ziren, ekonomikoki Ingalaterrak ez zien laguntzarik ematen eta ez zuten dominioen autonomiarik. India zen honelako koloniarik handiena, ia 5 milioi kilometro karratu eta 300 milioi biztanlerekin. XIX. mendearen erdialdetik (1857) aurrera berrantolatu egin zen Indian ingelesen presentzia, Indietako Konpainia kendu (1858) eta Gobernuak kanpo-Administrazioa bere eskuetan zuzenean hartuz. Orduan loratu zen bere osoan Indiako Inperioa: Britainia Handiko Viktoria Erregina Indiako Enperadoresa bilakatu zen (1877). Indiatik datoz lehengaiak: kotoia, garia, olioa, tea, mineralak, ...

ALGERIA "FRANTSESA" (1830-1962). Algeria ez zen frantsesa, baina konkista armatu baten ondoren "frantsestua" izan zen, administrazioz eta antolamendu kolonialez (1830-1870). 132 urte iraun zuen Algerian Frantziaren presentziak. Gerra baten indarrez bilakatu zen kolonia, eta beste batez lortu zuen independentzia.



B) INPERIO FRANTSESA

Frantziak ere garrantzi handiko inperio luditarra osatu zuen. Dena den, honen oinarriak ez ziren Inperio ingelesarenak bezain irmoak. Frantsesek herriz aldatzeko joera gutxiago zuten; (1890aren inguruan 20.000 migrari urtero; ingelesak, ostera, 300.000). Kolonia frantsesek ez zuten, gainera, Kanadak, Australiak edo Indiak ekonomikoki zuten garrantzirik.

Frantsesak, lehenengo Mediterraneo inguruko Afrikako lurraldeak kontrolatzen hasi ziren: Algeria bilakatu zen frantses famili migrarien kolonizazio-tokia. Suez-eko kanaleak estrategikoki zuen garrantziaz ingelesak baino lehen konturatu ziren, eta, kapital frantsesak eraikita, 1869. urtean zabaldu zen kanalea, Fernando de Lesseps injineruak asmatu zuen proiektua aurrera eramanez. Mediterraneo ingurutik eta Afrikako ukantzetatik aparte, Asiako hego-ekialdean ere finkatu ziren frantsesak: Mekong ibaiaren deltan kolonia batean, Kontxintxinan, eta auzoko erresuma batean kolonia babestu batean, Kambodian.

J. FERRY (1832-1893). Ferry Ministrari frantsesak eman zizkion Frantziako politikari bere ideologia eta jokamolde kolonialistak. Hemen kolonia frantsesetako ordezkariekin bilduta ageri da (eskuinetik bigarrena, 1892).



Algeriaren premia


"Algeriak, denbora luzean, Frantziak sortzen dituen produktu landuak eskatu beharko ditu, metropoliko industriarentzat beharrezkoak diren lehengaiak berak bere aldetik ugari eskaini ahal izango dituen bitartean. Baina (...) lehenik haren menpekotasuna indarrez konkistatu beharko da, eta politikaz zaindu". (BUGEAUD, 1842)

1870. urterarte Frantziak ez zuen perspektiba zabal bateko politika kolonialik izan. Prusiaren aurkako gerra galdu ondoren eta ekonomi krisialdi batetan murgilduta, ustiapen kolonialaren bidez indarberritzea pentsatu zuen Frantziak bere burua. Jules Ferry, inperialista politiko soila ezezik, kolonialismoaren teorizatzailerik onenetariko bat ere bada. XIX. mende-bukaeran, Algeria eta Tunisia kolonizatu zituen Frantziak, eta Afrikan zehar sartu ziren soldadu eta bilaketari frantsesak.

1873. urtetik aurrera, frantsesek Kontxintxinan zehar, Mekong ibaian gora, Txinaraino luzatu zuten beren presentzia. Annam, Tonkin eta Laos menperatu zituzten eta lurralde hauekin "Batasun Indotxinarra" (Union Indochinoise) osatu. Ibai-deltetan arroz-sailak hedatzen ziren, eta biztanleria ere azkar gehitzen ari zen. Frantziak handik ateratzen zituen etekin onenak ikatza, eztainua, zinka eta, batez ere, hango arroz ugaria ziren.



TXINA, GARAITUTA. Gerra bidez lortu zituzten potentzia kolonialistek Txinan beren merkatal abantailak. Abertzaletasun txinarrak bere burua umiliatua sentitu zuen gerra haietan. Marrazkian: gerraondoan ezarritako kalte-ordaina europarrei ematera doa segizio hau, Tianjin-eko kaleetan zehar (1858). (Ik. "Opioaren Gerratea" testua).



ESKOLA eta KOLONIZAZIOA.Frantzian politikari berak, J.Ferry-k (1832-1893),eraman zuen politika kolonialaren gidaritza eta irakaskuntzaren erreforma, Estatu moderno liberalari zegokion Eskola laikoa eraikiz. Garaiko marrazkia: Arbelean ageri den esaldia mezu sinbolikoa gertatzen zaigu hemen ("Soldadu izango zara zu"). Europako mentalitate kolonialistari ez zitzaion falta izan zentzu militarrik, eta eskoletan ere landu zen pentsamolde hori.

Afrika-aldera itzuliz, Madagaskar irla aipatu behar da. Oinarrizko puntua izan zen Inperio frantsesean. 1883. urtean hasi zen irla honen menperakuntza. Gallieni jeneralak burutu zuen egiteko hau, irla osoa menperatu arte (1896). Konkistaren ondoren, saiatu zen Frantzia eskolak jaso, trenbideak egin eta portuak eraikitzen.

XX. mende hasieran Frantziak, Ingalaterraren atzetik bazen ere, kontrolatzen zituen merkatal itsas linea batzuk; lehengai eta elikagaia ugari jaso zezakeen bere kolonietatik.

C) BESTE ZENBAIT INPERIO

Holanda-k, XVII. mendeko merkatal hedakuntza jarraituz, lurralde batzuk kontrolatu nahi izan zituen Afrikan (hegoaldeko Lurmuturra: Kaapstad = Cape Town) eta Asian Indonesia. Afrikako hegoaldean, Ingalaterrak erasota, lurralde hura galdu baldin bazuen ere, holandarren inperioak Amerikan eta Indonesiako arkipelagoan zutik iraun zuen XX. mende-erdialderarte.

Inperio Holandarra

"Bere kokalekuen lurralde-, demografi eta ekonomi ez-askitasuna gorabehera, ondoko potentzien jelosia piztu zuen Inperio kolonial bat eraiki zuten Herbehereek. Izan ere, Inperio hauxe da holandarren oparotasunaren funtsa: Ekialde Urruneko faktoria eta ukantzetatik Herbehereetako ontziek espezie preziatuak ekartzen zituzten. Honelako kolonizazio baten originaltasuna zera izan zen: konpainia handiek egin zutela. (...). Ekialdeko Indietako Konpainiak, Estatu Orokorren itzalpean, probintzia ezberdinetatik bildutako kapitalak biltzen zituen. Berak du Ekialde Urrunetik Itxaropen Oneraino eta Hoorn Lurmuturraren mendebaldean merkatal monopolioa, gerra eta bakea egiteko eskubidea, aliantzak lotzekoa, eta azkenean lurraldeak lekuhartzekoa ere".

(G. ZELLER)



ALEMANIA eta INTERES EKONOMIKOEN LIBERTATEA (1905). Gilen II.a Tanger-en. Gilen-ek, diplomatikari europarren eta Abd el-Aziz sultanaren ordezkarien aurrean zera aldarrikatu zuen: "Espero dut, sultanaren subiranotasunpean, nazio guztien bakezko lehiakidetasunerako irekita egongo dela Marokko libre bat, monopolio eta anexiorik gabe, erabateko berdintasun osoan". Eta frantses arduradunari zera gehitu zion: "Erabat erabakita nago, Marokkon merkatalgo alemaniarraren interesak defendatzeko". Hitz hauekin ireki zen europarren arteko beste krisi kolonialista bat.

Alemania-k eta **Italia**-k, 1870.a aurretik ez zuten politika inperialistarik izan, oraindik barneko bateratze-prozesua bukatu gabe zutelako ere bai noski. Asmoari ekin ziotenean, beste potentziak aurrean zihoazen eta oztopo asko gainditu behar izan zituzten. Praktikan, lurralde aberatsenak hartuta zeuden, bi herrialde horiek kolonialismo prozesura eman zirenean.

Alemania, Bismarck-en garaian, nahikoa berandu ohartu zen koloniak edukitzeak ekonomikoki zuen garrantziaz, eta 1882. urterarte ez zen elkarte alemaniarrik ere sortu Afrikarekin merkatal harremanak hasteko.


Dena den, Alemaniak Europan zuen egoera hegemonikoaz baliatuz, Bismarck-ek 1885. urtean Europako nazioei deialdi bat egin zien Berlin-eko Konferentziara, Afrikako lurraldeen banaketa zehazteko. Partiketa hartantxe izan zuen bere aukera Alemaniak.

Lortutakoa zera zen: Hego-mendebalde Afrikarra (Namibia), Kamerun, Togo eta Ekialdeko Afrika Alemaniarra. Afrikatik kanpo, Ozeano Pazifikoan Espainiari zenbait irla erosi zion, gainera: Marianak, Karolinak (1899). Marokkoren babespena lortu nahi izan zuen, baina britainiarrek ere, Alemaniaren berrarmatzearen beldurrez, Frantziari lagundu zioten eta Gilen II.ak, Alemaniako enperadoreak, ezin izan zuen lortu Marokko-tik Frantzia baztertzea. Inperio Otomandarrean, alderantziz, Sultanekin eramandako harremanek ondorio onak izan zituzten Alemaniarentzat: Ekonomi arloan partehartzeko eskubidea lortu zuen, Bagdad-eko trenbidea eraiki eta Asia Txikiko ekonomia antolatuz.

Italiak, Ethiopia bazterrean bi lurralde mortu lortu zituen: Eritrea eta Somalia. 1911. urtean Turkiaren Afrikako probintzia menperatu zuen: Libya.

Belgika-k, Leopoldo II.aren elkargo kolonizatzailearen ahaleginen ondoren Kongo lurraldea lortu zuen, "Kongo-ko Estatu Libre" bezala.

Portugal-en kolonialismoa, Brasilek independentzia lortu ondoren (1822) motelduta zegoen; ez zen berpiztu potentzia handien lehiakidetasuna hasi arte. 1870-1890 urte-tartean hasi zuen hedakuntza Afrikan, itsasertzeko aintzinako kolonietatik barnerantz: Angola eta Mozambike. Lisboako gobernuaren nahia bi itsasertzak, hau da, mendebaldea ekialdearekin bateratzea zen, Afrikako ukantza kolonialak segidan bat izan zitezen; baina britainiarren ultimatum-ak (1890) ideia hori alde batera uztera bortxatu zuen Portugal. Dena den, Portugalen eskumena Angola, Mozambike, Ginea lurraldeetara, India eta Indonesiako puntu estrategiko batzuetaraino hedatu zen.



Kolonialismo espainiarra

"Afrikan duen egitekoak kenduko dio Espainiari bere bihotzetik Gibraltar deritzan arantza zorrotz hori, egiteko horretxek bihurtuko du Peninsula antigoaleko Iberia izatera, eta horrela joango da Agindutako Lurralde berrira, Afrikara, hortxe askatasunaren, zibilizazioaren eta Kristautasunaren izenean gure historiako betekizuna osa dezagun". *(FCO. CAÑAMATE)*

SIBERIAN ZEHAR VLADIVOSTOKeraino! Siberia urrun zegoen oso San Petersburg-etik. Formalki 1588an hasi zen Siberiaren konkista. Jenisei ibaitik Pazifikorainoko lurraldea (ondotxo ere Siberia gehiena) XVII. mendean irabazi zuen Errusiak (1618-1689).

Nolanahi ere, XVIII.ean herrialde berri oso gutxi populatu bezala ageri zen Siberia: lehendikako tribu batzuen ondoan, deportatu sozio-politikoak izan ziren behinenik bizilagun berriak. XX.erarte, bederen, 60 paralelotik iparralderantz ia hutsik zegoen. Vladivostok ez zen jaso 1860an baizik!

Trenbide Transiberiarrak itxuraldatu zuen Siberia erabat (1891-1904): balio kolonizatzailea eta estrategiko militarra zituen. Ural mendikatetik Vladivostok-era 7.021 km-ko bidea! Baina zabalduBehar horri hesia Japoniak jarri zion, ustegabean...




JAPONIA/ERRUSIA (1904-1905). Errusiak bazekien Ekialde Urruneko etsaia zein zuen, baina ez zuen uste Japonia europartu berria (Erreforma Meiji-a, 1868-1912) halako indarrean zetorrenik: Gerrate Erruso-japoniarraren garaiko karikatura da hau (1904-1905). Errusiak gerra hura galtzean ezagutu zen Japonia potentzia handi bezala.

Errusia-ren inperialismoak XIX. mende osoan zehar iraun zuen. Hastapenak, XVI. mendean Ekialderantz (Siberiara) hasitako kolonizazio politikan daude. Estatu Errusiarrak Ertasiaren eta Ekialdeko lurraldeen okupazioa bultzatu zuen. Hedakuntza hau lurralde horietako populazio eskasak eta garraioen garapenak lagundu zuen. Ezin da ahaztu, adibidez, trenbide transiberiarrak arazo honetan edukiko duen garrantzia. Politika horren ondorio bezala, Errusiak XIX. mende-bukaeran lurralde oso zabala kontrolatzen zuen: Ural Mendietatik Ozeano Pazifikoa artekoa, eta hegoaldean Turkestan eta Armenia artekoa. Inperio errusiar honen ezaugarri bat bere kontinentaltasuna da.

XX. mende hasieratik, bi potentzia inperialista ez-europar aurkitzen ditugu Europakoekin norgehiagoka: **Estatu Batuak** eta **Japonia**.

Lehenak, Ertamerikan eta Hego Amerikako lurraldeetan finkatu zuen bere presentzia, "Monroe-ren doktrina" jarraikiz eta potentzia europarrei Ameriketan eskuhartzeko oztopoak jarriz.



KUBA eta FILIPINAK (1898). Galdutako Gerrate Hispano-amerikarraren ondoren badatoz Penintsulara lehenengo soldaduak, garaituta, zauriturik, paludismoak eta sukar horiak jota. (Garaiko grabatua, 1899).

Japoniak, Txina-aldera hedatzea pentsatu zuen; berehala Errusiarekin topo gaizto egin ere bai.

Ipar Amerikan, sorrerako hamahiru kolonia ingelesen lehen hedapena, Atlantikoaren kostaldean gertatu zen, baina Independentzia lortu ondoren Estatu Batu berriak mendebalderantz, Pazifikorantz, hasi ziren bideak urratzen. Lehenik, indiarren zelai zabalak hartuz, eta gero (1845-48) Mexikori bere lurralde erdiak baino gehiago kenduz (Arizona, Texas, Mexiko Berria, Kolorado, Kalifornia). Mendebalderanzko hedakuntza (Far West) osatzen zen bitartean, hazkunde ekonomikoa bultzatu zen barnean, kanpoko merkatuen artean batez ere Latin Amerika eta Asia inguruak merkatalgorako begiz jota zituztela.

Beste herrialdeetan eskuhartzean, batez ere haietako ekonomi baliabideak kontrolatuz egiten zuten Estatu Batuek; hala ere, beren interesak arriskuan ikusten zituztenean, edo halaxe behar zutenean, indarraz ere baliatzen ziren. 1850 eta 1914 urteetan, Panamako kanalea zabaltzen den garaian, Estatu Batuetako armadak Kuba, Santo Domingo, Nikaragua, Uruguay, Txile, Kolombia, Mexiko, Honduras, Guatemala, Haiti, Costa Rica eta Panaman

Estatu Batuak: inperioa?

"1865etik aurrera amerikarrek kanpoan bilatu zituzten beren herrian hain garestiak ziren bakea eta ordena.(...). Garai batean kontinente-barnean egindako lurralde-hedakuntzak (Errepublika gaztearentzat hain garrantzizkoa izan zenak) Latin Amerika eta Pazifikoko hedakuntza ekonomikoari egin zion leku. Kanpo-merkataritza, 1865ean 400 milioi dolaretakoa zena 1890ean 1.600 milioikoa bilakatu zen. Alde batetik hain zuzen merkatalgo hori babesteko baimendu zuen kongresuak lehenengo gurutzero korazatuak egitea ere, eta 1900ean Estatu Batuak munduko hirugarren itsas potentzia bilahatu ziren". *(R.JEFFREYS-JONES)*

INDAR-POLITIKA

(Kontinenteko bere lurralde-hedakuntzarekin batera, Estatu Batuetan garapen ekonomiko handia ezagutu zen. Hortaz, 1898ko Gerrate Hispano-amerikarraren ondoren tentagarria izan zitekeen kanpoko zabalkuntza inperialista bat ere. Egokiera hartan eman zituen ideia hauek Th. Roosevelt Lehendakariak:)

"Herri handia izan nahi badugu, munduan zeregin handi bat betetzen ahalegindu behar dugu... 1898an ezin izan gintzaizkion itzuri Espainiarekiko gerra-arazoari... (Orain) ezin gakizkieke itzuri Hawai, Kuba, Puerto Rico nahiz Filipinetan dagozkigun erantzukizunei.

Gure itsas eta koloni gorentasuna zaindu nahi badugu, mugaldeetako gure boterea eraiki beharra daukagu... Ekialde-Mendebaldeetako Ozeanoetako etorkizuna erabakitzean gure hitza irabakiorra izan dadin posizio abantailatsuak hartuta eduki behar ditugu..." *(Th. ROOSEVELT: 1899-Apirila-10)*

MEXIKO ALA ESTATU BATUAK?

(Ipar Ameriketako Estatu Batuak, jatorrizko Hamahiru Estatuetatik hasita, 1815-1848 urteetan iritsi ziren beren hedakuntzan Pazifikoraino. Baina, tartean beste subiranotasun batzuk egon ziren: nagusienetako bat Mexiko-rena izan zen. Mexikori Texas, Mexiko Berria eta Kalifornia hartu zitzaizkion, 1845-1848).

"1830az geroztik gutxi gorabehera, kolonizazio anglo-saxoniar bat garatu zen Texas-eko lurralde honetan. Gerta zitekeena aise aurrikusia zegoen. 1835ean, Texas-eko Errepublikak bere independentzia aldarrikatu zuen, eta hurrengo urtean Batasunean onartua izatea eskatu. (...). Hamar urtetan egon zen oraindik arazoa esekita, 1845ean hogeitazortzigarren Estatu bezala onartua izan zen arte. Baina orduan sortu ziren beldur izatekoak ziren katramilak, Europak parte hartu gabe, eta Batasunaren onetan azkenik. Ekintza militar distiratsu eta errazen ondoren, garaitua izan zen Mexiko, eta etsi-etsian Guadalupe-Hidalgo-ko Tratatua izenpetu egin behar izan zuen, Estatu Batuei Mendi Arrokatsuen hego-mendebaldea eta Mexiko Berriko eta Kaliforniako lurraldeak emanez".

(C. FOHLEN)

ESTATU BATUEN ETA PANAMAren ARTEKO TRATATUA (1903)

(Kariben eta Ertamerikan Estatu Batuek zuten interes estrategikorik nabarmenetakoa Panama-koa izan zen, kanale honen bidez Ipar Amerikaren bi kostaldeak, Atlantikokoa eta Pazifikokoa, itsasoz elkartuta geratuko bait ziren. Arma bidez ezarri zitzaion Kolonbiari Panama bere probintziaren independentzia, Kolonbiak ekintza kolonialista bezala salatu zuena. Egun gutxitan gertatu zen dena: 1903ko azaroaren 3an errebolta, 6an EEBBen onarpena, 18an Tratatu honen sinadura:)

*"1. **Artikulua.** Estatu Batuek, Panama-ko Errepublikaren independentzia bermatzen dute. 2. **Artikulua.** Panama-k Estatu Batuei ozeanoarteko kanalea egingo den lurraldean lur-zirrindaren errentamendua, okupazioa eta domeinua ematen dizkie betirako. Erdiko marraren bi aldetara bost miliako esparru bana egongo dira. (...). Panama-k, gainera, Estatu Batuei, eta betirako, aipatu eskualde horretatik kanpo beste sail eta uren usarioa, okupazioa eta domeinua ematen dizkie, kanale honen edo beste kanale lagungarrien sostengu, operazio, osasungarritasun eta babeserako komenigarriak eta beharrezkoak gerta daitezkeenean, edota enpresa honetako eskakizunetan premiazkoak direlako. Era berean, Panama-k, arestian deskribaturiko eskualdearen barneko irla guztien usario, okupazio eta domeinua ematen dizkie Estatu Batuei, betirako. (...). 22. **Artikulua.** Kanalearen segurtasun eta babeserako premiazkoa izango da inoiz indar armatua erabiltzea, eta Estatu Batuek eskubidea izango dute beren polizia erabiltzeko, itsas indarrek lehorreratzeko eta gotorlekuak eraikitzeko. 23. **Artikulua.** Hitzarmen honetan Panama-k Estatu Batuei ematen dion barruti honetaz baliatzeko eskubidearen ordainetan, Errepublika honek Panama-ri urrezko 10 milioi pisuko kopuru bat eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean 250.000 pisuko urteroko bat ordaintzea onartzen du. 24. **Artikulua.** Estatu Batuen adostasunik gabe ezingo du Panama-k inolako gobernu-, lege- edo tratatu-aldakuntzarik egin. (...). Washington hirian emana, 1903ko azaroaren 18an".*


TELEGRAMA ANTIKOLONIALISTA

(Estatu Batuen kolonialismoa ez da beti egin herrialdeen independentzia formalki deseginez. Kuba bere menpe hartu ondoren (1898), Ipar Amerikak independentzia aitortu zion, Espainiari kendutako kolonia honi (1902). Egokiera honetan, Sabin Arana Gori-k telegrama hau bidali zion, zorionak emanez, Th. Roosevelt-i. Ez zen Washington-era iritsi, baina bai fiskalaren eskuetara. Aranak hilabete batzuk preso eman behar izan zituen bere telegrama antikolonialistagatik:)

"Roosevelt. Estatu Batuetako Lehendakaria. Washington. Eusko Alderdi Jeltzaleak zorionak ematen dizkio Federazio txit leinargi horretako Lehendakariari esklabutzatik askatutako Kubaren independentzia aitortzeagatik. Estatu boteretsuok horrekin eman duzuen Justizi eta Askatasun-exenplu eta jaiera ezezagunak dira Historian, eta imitaezinak Europako potentzientzat, latinoentzat batipat. Europak hori imitatuko balu, librea izango litzateke eusko nazioa ere, bertoko herririk zaharrena, Estatu Batuen laudorioak merezi izan zituen konstituzio batez zuzenduta libertatea menderik gehien gozatu duen nazioa"

(S. ARANA-GOIRI)

"INTERBENTZIONISMOAK, inperialismoaren goraldi ekonomiko eta politikoaren fruitu bezala, bere zuzenestapena **Roosevelt doktrinan** (1904) izan zuen. Ordurako Ipar Amerika Puerto Rico-n eta Filipinetan lekuturik zegoen, Kubako Konstituzioari **Platt emendakina** erantsi zion eta naziotasun panamarra sortuta zuen. 1904aren ondoren, eta Roosevelt doktrinaren arabera, behin eta berriz errepikatu ziren Antiletan eta Ertamerikan eskuhartze ekonomiko, militar eta politikoak" (F.MORALES PADRON).





INGALATERRA/ESTATU BATUAK. 1890-1920 urteetan arras aldatu zen munduan bi Estatu hauek zuten hegemoni erlazioa. 1898ko marrazki honek honela ikusi zuen munduko boterearen banaketa berria.

eskusartu zuen. Honela, Ertamerika eta Hego Amerikako lurraldeetan botere hegemoniko osoaz egin zen jabe. 1898an, espainiarren aurkako gerratearen ondoren, Hawai eta Filipina Irlak menperatu zituen, Kubako ekonomia kontrolatzeaz gain.

Estatu Batuek, beren mugetatik kanpo ez zituzten lurralde zabalak menperatu, baina kapital iparramerikarren inbertsioak geroz eta herrialde gehiagotara heldu ziren, 1915. urtean ekonomian munduko potentzien artean aitzindari izateraino.

Japonian Meiji-ek egindako iraultza nazionalaren garaian (1867-1912 urteetan) industrializazio azkar bat zuzpertu zen, eta, Mendebaldeko ereduak jarraituz, hezkuntza, armada, hazienda, eta trenbideak antolatu ziren, gizarte feudaleko antolamendua deseginez.

1875ean hasi zuen Japoniak bere hazkundea. Urte horretan Errusiarekin izenpetzen duen akordioaren bidez Kuriles Irlak lortu zituen, Sajalin Irlaren truke. Garai honetan Ryukyu Irlak ere eskuratu zituen.



GERRATE ERRUSO-JAPONIARRA (1904-1905). Hamar urte lehenago Japonia Txinaren kontra gudukatu zen, bere armada modernoaren balioa ongi erakutsiz (Korean eskuharmena lortu zuen orduan). Bigarren ekinaldi honetan europarrek ustegabeko garaitzapenak eskuratu zituen Japoniak Errusiaren kontra: itsasoan eta lehorrean erabat hondatuta geratu ziren Errusiaren armadak eta izenona, Korea, Lüshun/Port Arthur eta Liaotung Japoniaren menpe geratu ziren erabat.

1894-1895 urteetan Txinaren aurka manterdu zuen gerratean, Formosa eta Port Arthur lortu zituen, eta Korea bere menpe gordetzea ere bai. 1904-1905etan, berriz, errusiarrak garaitzean, Japoniak ere antsia inperialistari bere leiho-ateak ireki zizkion, Sajalin Irlaren hego erdialdea eta Mantxuria hegoaldeko babespena lortuz. Azkenik, 1910. urtean Koreaz jabetu zen.

VI. AFRIKAREN BANAKUNTZA (1885)

XVIII. mendean europarrek Afrikari buruz ezagutzen zutena XVI.ean ezagutzen zenaren antzekoa zen; hau da, kostaldea soil-soilik. Amerikak independentzia irabazten zuen bitartean eta Asian kolonizazio-gune oso mugatuak zituenean (ingelesak hegoaldean, eta frantsesak hego-ekialdean), Afrika izan zen potentzia kolonizatzaile europar guztien nahiak erakarri zituen lurraldea.

AFRIKA, NOLA BANA? Amerika aurkitu zenean (1492), saiatu ziren Gaztela eta Portugal aurkitutako lurraldeen gaineko eskubideak Aita Santuarengandik lortzen, eta, besterik ezinean, eskubideak elkarren arteko hitzarmenetan oinarritzen (ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa" 190-192). Afrikaren banakuntza beste era batera egin zen: Konferentzia estatuaniztun batean, Aita Santurik gabe eta Espainiari partaidetza eskasa emanez.

AFRIKAREN BANAKUNTZA EUROPARRA

INGALATERRA

Iparraldea	**Ertafrika**	**Hegoaldea**	**Mendebaldea**
Egypto	Uganda	Rhodesia	Gambia
Sudan	Kenia	Batasun Hegoafrikarra	Sierra Leona
Somalia ing.			Urre-Kosta
			Nigeria


FRANTZIA	**BELGIKA**	**PORTUGAL**	**ITALIA**
Mendebaldeko Afrika Frantsesa	Kongoko Estatu Librea	Angola	Eritrea
Ekuadoreko Afrika Frantsesa		Mozambike	Somalia
Madagaskar		Ginea Portugaldarra	Libya

ESPAINIA: Marokko (parte bat), Sahara Espainola, Ginea Espainola


XIX. mendean barrena ibilaldi asko egin zen kontinente horretan zehar: jendetza gutxiko kontinentea zen, aberastasun handi esplotatu gabeak zituen eta interes estrategikorik ere bai. Kontinente horretarantz ingelesak eta frantsesak abiatu ziren, herrialde inperialista handienak; baina baita belgiar, alemaniar, italiar, portugaldar eta espainiarrak ere. 1880.ean oraindik kontinente ezezaguna zen; europarren jauntasuna kostaldeko toki batzuetara biltzen zen. 1914ean, berriz, potentzia europarren artean banatuta ageri zen, bi Estatu independente izan ezik: Liberia eta Ethiopia.

Afrikaren historia kolonialean banakuntza horren ezagugarririk behinenak hauek dira:

- Kostaldetik barrurantz abiatu ziren konkista eta kolonizazioa. Lehen pausoa, kostaldea menperatzea izan zen. Helburua, ostera, bi kostaldeak elkartzea, etenik gabeko lurralde kolonial bat osatuz. Hori da Ingalaterrak ia-ia lortu zuen xe-



LIVINGSTONEren BIDAIAK. Londres-eko Elkarte Misiolariak bidalita joan zen Betxuanalandiara (Hego Afrikan). **1841--1849**: Hegoaldetik iparraldera egin zuen, Linpopo ibairaino. **1849-1856**: Zanbeze ibaiaren arrotik Luanda-raino iritsi zen, Viktoria ur-jauziak aurkitu eta Indikotik Atlantikorako lehorbidea irekiz. **1858-1873**: Indikotik Laku Handietarainoko lurraldeak kurritu zituen, Zanbezeren iparraldean, Niasa eta Tanganika Lakuak idoroz. Ujiji-n elkartu zen bila zetorkion Stanley-rekin (1871), eta Ilala-n hil zen (Ipar Rhodesian).



AFRIKAren PARTIKETA (1885--1919). Akordio bidez inoiz egin izan den kontinente-banakuntza arautuena izan zen Afrikarena. Banakuntza honetarako aintzakotzat eduki ziren arrazoiak potentzia europarrenak izan ziren, hau da, Afrikako bertako herrien interesek eta borondateak zerikusirik ez zuten kasik izan horretan. Merkatal askatasuna gordetzeko egin zen partiketa hau, azkenean inperio kolonial baten banakuntza bilakatu zen. Kolonialismo europarraren loraldia ekarri zuen partiketa honek.

dea: Egyptoko iparraldetik hegoaldean Itxaropen Oneko Lurmuturreraino inperio bakar bat osatzen ahalegindu zen. Portugal, mendebaldetik (Angola) ekialdera (Mozambike) saiatu zen. Frantzia, mendebaldetik (Sahara) ekialdera (Itsaso Gorria, Somalia frantsesa). Hau gogoan izaki, apenas dagoen esan beharrik: potentzia kolonialen interesak elkarrekin estropezu egin zuten. Berehala jaio zen, beraz, arazoei legezko irtenbideren bat eman beharra.

- Legezkotasuna. 1884-1885etan Berlin-en bildutako Konferentzian eztabaidatu eta erabaki ziren arazo haiek. Oinarrizko erizpide bat definitu zen: Kolonia baten aurkikundea ez zela nahikoa erabaki zen, hartaz jabetu eta hura esplotatzeko; lehen jabetasun hori onartzeko, lurraldea okupatu egin behar zela alegia.

Berlin (1885)

(Europarrek beren artean egiten ari ziren Afrikaren partiketa arriskutsua zen potentzia kolonialen arteko bakerako ere. Bereziki Frantzia eta Ingalaterraren harremanak ozpinduta zeuden, errezeloz beteta. Bestalde, Alemaniak ere prozesu kolonialean partaide izan nahi zuen. Arazoari jokabide-kode bat emateko bildu zituen Bismarck-ek potentzia kolonialak Berlin-en, horretarako aldez aurretik Frantziaren oneritzia hartu ondoren. Nazioarteko Zuzenbidearentzat Berlin-en geratu zen Afrikaren banakuntza koloniala bere lerro nagusietan finkatuta:)

...

...

Azken xedeak. *"Merkatalgoaren eta Afrikako eskualde jakin batzuetarako zibilizazioaren garapenerako baldintzarik onuragarrienak elkarren arteko ulerpen-gogo batez jarri nahirik,*

Eta Ozeano Atlantikora doazen bi ibai afrikar nagusienetan nabigazio librearen abantailak herri guztiei segurtatzeko asmoarekin;

Bestalde, Afrikako kostaldeetan lekuhartze berriak egitean etorkizunean piz litezkeen eztabaida eta gaizki-ulertzapenei itzurtzeko,

Eta aldiberean bertako herrien ongizate moral eta materiala gehitzeko baliabideez arduratuta:

Zera ***erabaki dute*** *(bildutako Estatu-buruzagiek): Nazio guztietako merkatalgoak askatasun osoa izango du bere harremanetan (...). Pabiloi guztiek, inolako nazionalitate-bereiztasunik gabe, aipatu lurraldeetako kostaldeetarako, berauetako ibai-bokaleetarako, Kongoko uretarako eta beronen ibaiadar eta lakuetarako sarbide librea izango dute (...).*

Bertakotarren, misiolari eta bidarien eta erlijio-askatasunerako ***babes-baldintzak*** *(...). Lurralde horietan subiranotasun-eskubideak edo eragina izango dituzten potentzia guztiek hitz ematen dute, bertakotarren herriak zainduko dituztela eta berauen bizi-aukera moral eta materialak hobetuko dituztela. (...)".*
(BERLINeko KONFERENTZIA, 1885)

Berlin-eko Batzarre horretan hasi zen Afrikako banakuntza: Konferentziak kolonialismo gordinenari irekiko zizkion bideak. Ordurarte inperio eraikuntzetan eskurik izan gabeko Estatuek hara zuzendu zituzten beren begiak, asmo kolonialak eta soldaduak.


- Ibai-bailaretatiko sarrera. Bailarak hartzean, kontuan hartu zen arro osoak okupatu eta inguruan kolonia bat eraikitzeko eskubidea zegoela. Nilo, Niger eta Kongo ibaien kasua da hau, adibidez.

- Okupazioa pausoz pausozkoa da. Hasiera batetan ez doaz kolonia sortzera, faktoria baizik: merkatal harremanaz errazteko hiriguneak nahi dira kostaldean. Inperialismoaren doktrina edo teoria beranduagokoa da; lehenengo, obratu egiten da; gero, teoriak egin.

- Nahiz eta problema latzak egon toki batzuetan, Kongo ibaian adibidez, Egypton eta Nilo-ren arroan dago Afrikako okupazioaren gakoa. Sarrera gehienak, Nilo-ren iturburuen bila edo ibaiaren arrotik egiten dira, batez ere ingelesen eta frantsesen interes estrategikoen arabera. Afrikako okupazio kolonialaren pausoak honela deskriba daitezke:

*** 1. Mediterraneoko kostaldea**

Bazirudien, Frantziarentzat gordetako lurraldea zela, ingelesak Suez-eko kanalean agertu ziren arte. 1830ean hasi zuten frantsesek Algeriako kostaren hartzea, Karlos X.a Errege zela. Europarrek biztanleztatzeko kolonia bezala ikusi zen



Algeria: 1870ean, 250.000 frantses bizi ziren han, eta 800.000 1914ean. Tunisia aldera, frantsesak ezezik ingeles eta alemaniarrak ere abiatu baziren ere, frantsesak izango ziren, azkenik, babespen itxurako okupazio bat ezarri zutenak.

1878an, Egypto, ingeles eta frantsesek Suez-eko kanalean zeuzkaten akzioen interesak ezin ordaindurik aurkitu zenean, arazoan zuzenkiago eskuhartzea erabaki zuen Ingalaterrak. Alexandriako europarren hilketak izan ziren horretarako aitzakia (1882): mugimendu nazionalista jaio berria armez ito zuten. Ingelesek administrazio egyptiarra mantendu egingo zuten, itxuraz, herrialdea militarki hartuta zeukaten bitartean. Sudan-en, Profeta gisa agertutako El Mahdi-k arazo militar larria piztu zuenean, Nilo gora hegoalderantz egiteko aukera izan zuen Ingalaterrak.

* 2. Mendebaldeko kostaldea


Hiru kasu jakingarri aipatuko ditugu, hirurak ibai gora egindako sarrerak. Kongo ibaian zehar belgiarrak izan ziren protagonista. Lehenik, ALGERIA eta MAGHREB (1830). Afrikaren Mediterraneoko kostaldea ongi bereizi beharra dago Afrikan, gainerako hegoalderagokotik: Historia eta demografiaz, etnia, kultura eta ekonomiaz arras bestelakoa da Sahara-azpiko herrietatik. Mediterraneoko gorabehera historikoetan beti hartu du parte (Fenizia/Kartago, Erroma, Al-Andalus/Maghreb, Bizantzio, Inperio Otomandarra). XV. mendeaz geroztik kristau-gotorlekuak ez ziren falta izan Afrikako aurpegi mediterranearrean. Ez da, beraz, harritzekoa Europako potentziak indartsu sentitu zirenean, begiak horra luzatzea.

Frantziak hartu zuen aurrea, Aro Garaikidean. "Algeria Frantsesa" deitu izan zena, 1830ean jaio zen. Merkatal arrazoiak (koraldegiak), preso kristauen askapena, pirateriaren garbiketa, esklabutzaren abolizioa... izan ziren aitzakiak. Algeriako bei-a aski ahula izan zenean, armada frantsesak konkistatu zuen lurraldea. Gero etorri ziren lurralde-hedakuntza eta kolonizazioa (1870eraino).

Leopoldo II.a Erregearen Elkargo kolonialarekin, eta gero Kongoko Estatu Libre deituarekin.

Senegal ibaian, berriz, frantsesak izan ziren indar koloniala. Niger-en, ostera, ingelesak.

FAXODA (1898). Ingelesen ametsa, Afrika bere luze osoan Cape Town-etik El Kairo-raino beren menpean lotzea zen. Frantsesak, ordea, asmo horiek mozteko, Atlantikotik (Brazzavilletik hasita) sartu ziren: Marchand-en espedizioa, Faxoda-raino iritsi zen (Sudan, 1898ko uztaila), 18 hilabeteko ibilaldi latzaren ondoren (kanoiak eta armak bizkarrean zituztela). Han suertatu ziren Marchand eta Nilo gora etorritako Kitchener ingelesa. Frantzia orduantxe zebilen, ahulduta, Dreyfus aferarekin, eta Marchand-i atzera egiteko agindu zitzaion. Frantzia kolonialistarentzat porrot lotsagarria izan zen hura (edo halaxe sentitu zuten frantsesek, bederen).



* 3. Ekialdeko kostaldea

Hasieran ez zen ageri oraindik, Estatu kolonial boteretsurik lur lehorrean. Ingelesek Zanzibar portua kontrolatu zutenean, 1886.ean, ingeles, alemaniar eta italiarren interesak elkarrekin aurrez aurre aurkitu ziren; konponbide bezala, iparraldea ingelesentzat geratu zen, alemaniarrentzat hegoaldea.

Italiarrak, Itsaso Gorriaren ertzean hedatu ziren, Eritrea aldean eta gero Ethiopiarantz. Hemen, Nilo-ren arroa hurbil zegoenez ingelesek muga jartzen dute, Italiari eskubide-truke bezala Somalian lurraldea emanez.

* 4. Okupazioaren azken pausoak

Nilo arroan egin zuten talka frantsesek eta ingelesek: haiek mendebaldetik zetozen eta Sudan aldera zuzendu ziren; ingelesak, aldera ntziz, iparraldetik hegoalderantz, Sudan menperatzeko asmoarekin. Armada biek Faxoda-n aurkitu ziren aurrez aurre (1898): frantsesek atzera egin behar izan zuten. Handik aurrera, ingelesek kontrolatu zuten Sudan, eta iparraldetik hegoalderaino ia etenik gabeko inperioa osatu zuten (Ekialdeko Afrika Alemaniarra bakarrik geratu zitzaien tartean).

VII. HEDAKUNTZA KOLONIALAREN ONDORIOAK

XIX. mendean zehar buruturiko hedakuntza europarrak, politikan ezezik gizartean eta kulturan ere, funtsezko ondorioak izan zituen herrialde kolonizatuetan eta baita potentzia kolonizatzaileetan ere. Adierazgarriena zera da, ondorio hauek orokorrak, unibertsalak, direla. Orokorki gure planetako lurralde guztiak astindu zituen kolonizazioak. Dena den, herrialde kolonizatuentzat berezikiago, ondorioak gaitzak eta neurtezinak izan zirela esan behar da.

Goian aipatu dugun unibertsaltasun horrek, europarren hedakuntza medio zela, ordurarte isolatuta zeuden edo kanpokoekin noizbehinkako harremanak zeuzkaten herrialde askoren harremanak bizkortu eta areagotu egin zituen (Afrika, Australia edo Txinaren kasua). Dudarik ez, batez ere mundu-bateratze hau Europaren probetxurako izan zen. Kolonialismoa lagun, kontinente honen garapen ekonomikoa indartu egin zen, eta XIX. mende-bukaeran munduaren jaun eta jabe ageri da Europa. Orduantxe jo zuen sabaia Europaren hegemoniak.

Emigrazio arautua

"Penintsulako zenbait probintziatan Itsasaraindirako emigrazioak hartu dituen proportzio alarmagarriak" ikusita, botere publikoek, jada 1874ean, emigrantegaiei baldintza berriak betetzea eskatu zieten, eta 1881ean batzorde bat sortu zuten hura nola balaztatu aztertzeko. Ez dago esan beharrik ere zein alferrikakoak izan ziren neurriok, izan ere garaiko Espainian irten-beharraren larriak lege-baldintzen mugak hautsi egiten bait zituen".

(J.VICENS VIVES)

MAROKKO "ESPAINOLA" (1912-1920

"1919tik aurrera, Espainiak pixkaka lortu zuen Marokko-n bere okupazio militarra ezartzea, 1912ko akordio hispano-frantsesak mugatutako Maghreb-eko protekturatu-eskualdeen banaketaren arabera. Operazioak geldiro eraman ziren, Melilla inguruko burdin meatzen ustiaketa babestea bait zen haien xede nagusia. (...). Marokko, oso laster Espainiarentzat buruhauste berri bat izan zen: Estatuko Aurrekontuen minbizi irenslea, Prentsan eta Parlamentuan eztabaidarako eguneroko gaia (...). Armadako buruzagi garai batzuk, Marokko uztea proposatzeraino iritsi ziren. Horien artean, Miguel Primo de Rivera jenerala bat".

(J.VICENS VIVES)

Azter ditzagun, ba, partez parte inperialismo eta kolonialismoaren ondorioak.

A) IHARDUERA EKONOMIKOAN



EUSKALDUNAK AFRIKARA? Inperio kolonialak arma-ekintzaz jaso ziren. Baita Afrikan ere: Espainiak, adibidez, bere gerrak izan zituen Marokko-n metropoliaren "eskubideak" zaintzeko. Gerra hauetatik ezagunena "Afrikako Gerratea" deitua izan zen (1859-1860). Euskal Herrian oraindik erbesterako nahitaezko soldaduzkarik ez zegoenez, borondatezkoei dei egin zitzaien. Soldaduteria hartako ofiziale bat da hau (1860). Borondatezko dei hauetxetara zeuden ohituak euskaldunak, eta soldaduzka bortxatua ezarri zenean (1876), oso gaizki hartua izan zen erabakia hemengo gazte eta bizilagunen artean. Gazte askorentzat soldadu-deia izaten zen Ameriketarako "aitzakia" ere.

Giza geografiaren estruktura berri bat sortu zen. Lehenengo kostaldean, instalazio berriekin eraikitzen diren portuetan. Gero, barnean, trenbideez baliatuz sortutako aldakuntzekin. Estruktura berri horrek ekonomi antolamendu eraberritu bat ekarri zuen: mundu-ekonomia ez-berdinkide bat.

Batetik, herrialde industrializatu eta kolonizatzaileak, egunetik egunera aberatsagoak, eta munduko ekonomia kontrolatzen zutenak. Bestetik, lurralde kolonizatuak (kolonizatzaileek lehendik aitortutako betebeharrak kontuan eduki gabe), ustiapen gogor bat jasan zutenak eta beren garapenerako oztopo handiak eduki zituztenak. Ekonomi antolamendu kolonial desegoki hau da, gaur eguneko herrialde garatu eta ez garatuen arteko diferentziaren oinarrietariko bat.

Kolonialismo europarrak kontrolatutako lurraldeen aberastasun naturalak sistematikoki hurrupatzea ekarri zuen andolamendu ekonomiko horrek: energi iturriak, nekazal baliabideak, meategiak, oihan-baliabideak, etab.

Honek ahalbideratu zuen, orainarte batere ez edo ezer gutxi ustiatutako lurraldeak, Australia edo Ertafrika alegia, ekonomikoki probetxatzen hastea ere. "Lurralde kolonizatuen ekonomi espezializazio" bat eratu zen, zeren eta europarrek

toki bakoitzean errazkien ematen ziren edo kalitate onena zuten laboreak sustatu bait zituzten: garia, Kanadan; azukrea, Kuban; kafea, Brasil eta Kolombian; artilea, Australian...

- Ekonomi sistema europarren hedakuntza:XVIII. mende bukaeran eta XIX. mende hasieran Europan sortutako industri kapitalismoa, alegia, beste kontinenteetara zabaldu zen.

- Herrialde kolonizatzaile/ez-kolonizatzaileen artean ere desberdintasun ekonomiko handiak sortu ziren: Batetik, inperio kolonial boteretsuak eraiki zituztenak (Ingalaterrak, Frantziak). Eta, bestetik, inperio kolonialik gabeak edota industrializazio handi batetarako lain koloniarik ez zeukatenak (Portugal).

KOLONIALISMOAREN IZUGARRIKERIA

(L.S. Senghor, Senegal-eko Lehendakaria, izan da antikolonialismoaren gidari moderatuetako bat. Poeta da eta Frantziako kultura metropoliarraren mireslea eta protagonista, Akademiko izateraino. Hala ere, hona idazle eta politiko honen eritzia:)

"Kolonizazioak alde positibo eta negatiboa ditu. Alde batetik, garbi dago, luditartze-prozesu natural baten garapena lagundu duela. Zentzu horretan, kolonizazioari esker, unibertsala deituriko zibilizazio bat mamituz joan da mendez mende. Bestalde, hala ere, jokaera kolonialak bere baitan duen ustiapenagatik zoritxarreko fenomeno bilakatu zen.

Gertatzez, noiznahi ere, kolonizazioak alde oso negatiboak izan ditu. Nahikoa da, adibidez, Afrikaren historia aztertzea. (...) XIX. menderarte, arabiarrek eta europarrek antolatu zuten "beltzen tratua" deritzan gizaki-merkatalgoa. Hogei bat milioi beltz izan ziren Ameriketara eramanak. (...). Genozidio horrek ehunen bat milioi hildako utzi zituela kalkula liteke. Berrehun bat milioi izan zirela uste dut nik neuk. Historiako genozidiorik basatiena da. Afrika beltzari egin zaion kaltea, etnia bati sekula egin zaion izugarriena izan da".

(L.S. SENGHOR, 1975)



DEPORTATUEN KOLONIAK. Hemen ikusten dugun Kaledonia Berriko zutarri oroigarri hau E.Dormoy-ri eskainia da. Dormoy, "komundar" deportatua zen, eta kolonia hartantxe hil zen, hogeitamar urterekin (1877). Frantziak bezala beste potentzia kolonialek ere kolonia biztanle gutxikoetara jaurti ohi zituzten, nahasian, gaizkileak, saihestu sozialak eta kondenatu politikoak. Alde honetatik metropoliarentzat lasapide bat ziren koloniak. Hauxe izan zen, urtetan, Australiaren kasua ere.

B) ONDORIO SOZIALAK



DISKRIMINAZIO KOLONIALAK. Herrien, kulturen eta arrazen arteko harremanen arazoa oso minbera eta gordinki bizi izan zen kolonialismoan. Arrazen arteko berdintasun jatorrik ez zuen onartzen ideologia kolonialistak: horiak ez ziren onartzen Australian edo beltzei ez zitzaien eskubide sozial berdinik aitortzen Ameriketan, Estatu Batuetako indiarrak erreserbetara bildu zituzten... Deskolonizazio--ondoan ere luzatu egin dira arazoak. Hego Afrikako "apartheid"a izan da, eta oraindik ere da, burubide arrazista horren adibide bat: zuriak eta beltzak banatuta zerbitzu publikoetan ere.

Baina ez zen ekonomia bakarrik izan funtsezko aldakuntzak jasan zituena, gizarte osoek, beren osoan hartuta ere, ondorio garrantzitsuenak izan zituzten; hona nagusienak aipatuta:

- Migrazioak: Europako populaziotik hainbat milioi lagun lekuz aldatu zen, jatorrizko kontinentea utzita.

- Migratzaile hauek herrialde kolonialetan sortutako gizarteetan ekonomia, politika eta kultura europarren estrukturak birsortu zituzten.

- Kolonietako jatorrizko gizarte eta kulturen estrukturek krisi historikoa jasan zuten: India, Txina, herrialde islamdarrak. Eskasago eboluzionatutako Amerika edo Afrikako gizarteak desegiteraino iritsi zen kolonizazioa.

Jatorrizko estrukturak hondatu ondoren nagusitu ziren taldeak gizarte sektore berrikoak izan ziren: militarrak, funtzionariak, tratu-gizonak, hau da, kolonizatzaileekin bat zetozenak. Sistema kolonialetik aparte geratutakoak bigarren maila batera pasatu ziren, taldean sakailatuak izan ez zirenean, Ipar Ameriketan gertatu zen bezala.


Alde positibotzat eman behar dira osasun-zerbitzuetan herri kolonizatuek lortu zituzten hobekuntzak. Sendaetxeak eraiki eta gaixotasun tropikalak gainditzeko bideak urratu ziren. Aldiberean komunikabideen aurrerapenak nabariak izan ziren. Eskierki, hilkortasunak behera egin zuen, jaiotz tasa altu mantentzen zen bitartean; horrela biztanleria ugaritu baizik ez zen egin.

C) POLITIKA ARLOAN

Aldakuntza sozio-ekonomiko horien ondoren, nahitaezkoa zen bizitza politikoan ere molde zaharrak krisian erortzea.

- Metropoliak ekonomian eta gizarte-harremanetan ezarri nahi zuen menpekotasunaren kontra kolonietan etengabeko gatazkak gertatu ziren. Nahiz eta europarrak, gizarte kolonialetako jatorrizko diferentzia sozial eskandalagarriak mozten saiatu, konfliktibitatea bizirik mantendu zen.

- Metropolietan ere, Europan batipat, lehiakidetasunak inperialisten artean borrokak sortu zituen potentzien artean. Lehiakidetasun hori izango da Lehenengo Mundu-Gerratearen zergati bat.



"ZERRIARI TIRO eta ardiak lepamoztu". 1890eko grabatu txinar honetan agerian geratzen da mundu kolonial eta erdi-kolonialak Mendebaldearekiko zuen sentiera. Zerria, Kristo da, eta ardiak, kristauak. Hauxe zen boxer-ren altxamenduan (1900) aurki dezakegun sentimendua, baina munduko beste hainbat lekutan ere halatsu zen.

Boxer txinarrak (1900)

"1896aren eta 1902aren artean, interes garestiko finantz mailegu garrantzitsuak ezartzen dizkiote potentziek Txina-ri. Meatzak ustiatzeko eskubidea aitortzera bortxatzen dute Txina, trenbideak irekitzeko, edo lehiakideak uxatu diren eskualde jakin batean lantegiak eraikitzeko eskubidea ezagutzera. Hauek dira "eragin-eskualdeak":Mantxuria, Errusiaren probetxurako; Shandong penintsula Alemaniarentzat; Ingalaterra, ostera, Yangzi-ren arroan, eta Frantzia (dagoeneko Tonkin-ez jabetua) hego-mendebaldeko hiru probintziatan. Finantz inbertsio hauek, Txinako lurraldean lekuturiko base militar iraunkorren bidez babesten dira ("errentan emandako lurraldeak"): Port Arthur Errusiarentzat,Weihaiwei Ingalaterrarentzat, Qingdao Alemaniarentzat, Guangzhowan Frantziarentzat. Mendebaldarren goraldi honek Txinan herritarren artean kontrako erreakzio bizia piztu zuen. "Justizi eta bake-miliziak", hau da, Boxer-en mugimendu delakoa hortik jaio zen: hauek, lehenengo eraso zituztenak misiolariak izan ziren, hain zuzen mendebaldarretatik herri nekazariarekin harremanetan hurbilen bizi zirenak. Misiolariekiko herritarren etsaigoa ez zen gauza berria, 1860 eta 1870 inguruan, eta 1891n berriro, gertaera larriak egon ziren Yangzi garaian; baina 1898--1900etako mugimendu anti-kristaua askoz ere zabalera handiagokoa izan zen".

(J.CHESNEAUX)



W.JONES (1746-1794). 1800aren inguruan ekialdezale honek, garaiko proiektu kolonialistak osatuz, egitasmo kultural ausarta proposatu zuen: Alfabeto arabiarra zerabilten hizkuntzei beren jatorrizko idazkera kendu eta karaktere latinoak ematea, hain zuzen.

D) KULTUR BIZITZA

Kultura europarraren hedakuntzak itzeleko garapena ezagutu zuen. Mundu koloniala europartu egin zen. Batzuetan kultura metropoliarra bortizki inposatu zen, Mendebaldeko kulturak zeukan prestigioak lagunduta.

Mendebaldeko kulturaren indarrez herrialde kolonizatuen nortasuna eta tradizioak ito ere egin ziren. Horregatik, askotan gogor erreakzionatu zuten ezarpen-politika horren aurka, eta kultura nazionalaren berreskuratzea izan zen deskolonizazio-prozesuan erreibindikatu zen eskubiderik garrantzitsuenetarikoa.

Kultura guztiz ezberdinen arteko harremanak ugaritu egin ziren kolonizazioarekin, harreman hori Europakoaren fagoretan gertatu bazen ere. Zientziaz eta teknikaz garatuagoa zelako, herri kolonizatuek Mendebaldeko kultura hartu beharra eduki bazuten ere, kolonietako analfabetismoak atzerakada on bat izan zuen bederen.

IDAZKERA ARABIARRA, LATINOAREKIN TRUKATU?

"Fath-Ali Akhundov-ek (1812-1874) Jones-en tesiari (ikus goian) garapen berria eman zion Pertsian: "Idazkeraren Tratatua"n Krimeako Gerratearen ondoren (1854-1856) eta Indiako altxamenduaren zapalkuntzaren artean (1857-1858), alfabeto koranikoaren kritika "ekialdezalea" beretzat hartu zuen Akhundov-ek; baina emendakin arin batzuk defendatzera mugatu zen, bokal luze eta kontsonante-multzoen artean bokal laburrak ematea proposatuz. Logikoegia izanik, erreforma honek ez zuen karrera onik izan ez "ekialdezaleen" artean (beren idazkera mendebaldarrari lotuegiak zeuden eta), ez XIX.mendeko islamdarren artean (karaktere arabiarren estetikara osorik ohituak). Izan ere, zergatik trukatu behar zen mendeetako usarioa atzerriko usario batekin? Eskritura ez da arazo mekaniko hutsa; neurri handiago batean, aitzitik psikologi eta estetika-arazoa ere bada".

(ALI MAZAHERI)

Bestalde Mendebaldeak ere lurralde horietako kulturaren eragina jaso zuen, batez ere filosofian, literaturan eta arte-arloan; horrelako zerbait gertatu zen Europaren eta Asiaren artean, Europaren eta Afrikaren artean. Adibiderik eman behar balitz, hona kasu batzuk: Delacroix pintorearengan Algeriako egonaldiak izan zuen eragina, arte beltzak Picasso-rengan izan zuen oihartzuna, Gauguin-en Tahiti-ko lanak...

Bukatzeko: Herri kolonizatuentzako etekin positiborik ere egon bazen ere, negatiboak gehiago izan zirela esan behar da: zibilizazioak desegin, jatorrizko hizkuntzak baztertu, industrializazioa debekatu, arrazismoa.

Potentzia kolonizatzaileentzat, alderantziz, abantailak ugariagoak izan ziren: populazio-soberakinaren irteera, industri produktuen salmenta-erraztasunak, lehengai merkeak lortzea.

XIX. mendean zehar gertatutako hedakuntza europarrak mundu elkarlotu bat sortu zuen, batabestearekiko dependentziak geroz eta areago aberastu eta hertsatuz.

Kontzientzia antikoloniala?

*(Kolonizazioaren eta askapen-gerrateen tarteko historia kolonialean, herri kolonizatuen kontzientzia antikoloniala ez zen eztabaida eta zalantzarik gabe argitu. Zentzu horretan irakurtzekoa da gerora Frantziaren kontra gudukatu zen Algeriako gidari politiko Ferhat Abbas-en hau. Gogoan izan urtea: **1936**).*

"Nik, 'nazio algeriarra' aurkitu izan banu, nazionalista izango nintzateke eta ez nintzateke, krimen bat bailitz, horregatik lotsagorrituko. Haizearen gain ez da deus eraikitzen. Aberri hau, egon, ez dago, ez dut aurkitu. Beraz, behin betirako albo batera baztertu ditugu hodei eta kimerak, gure etorkizuna herri honetako obra frantsesari erabaki osoz lotzeko (...). Bestalde, ez du inork gure nazionalismoan serioski sinesten. (...). Gure interesak Frantziarenak dira, Frantziaren interesak gureak diren une beretik" (F.ABBAS, 1936ko Otsailean)

ASIMILAZIO KOLONIALAREN KONTRA

(Ulemak, islamdarren teologo eta jakitunak dira. F.Abbas-en azalpen horri beste honekin erantzun zioten Algeriako ulemek:)

"Guk, gure aldetik, Historiaren orrialdeetan, eta orainaldian ere, bilatzen saiatu gara. Eta ohartu gara, munduan dauden beste nazio guztiak bezala mamitu dela nazio algeriarra ere. Nazio honek badu bere historia, kontaezin ala gertakari handirekin argitua; badu bere batasun erlijioso eta linguistikoa; baditu bere berarizko kultura eta tradizioak, bere ohiturak, beste nazio guztietan bezala onak edo txarrak izan daitezkeenak.

Horren ondoren Nazio algeriar musulman hau ez dela Frantzia esaten dugu: ez da posible hau Frantzia izatea. Ez du Frantzia bihurtu nahi, eta nahi izango balu ere, ezingo luke. Aitzitik, Frantziatik erabat urruna da nazio hau, bere hizkuntzaz, bere ohiturez, bere jatorri etnikoz, bere erlijioz. Ez du nahi, inola ere, asimilaziorik". (ALGERIAKO ULEMAK, 1936)

3
MENDEBALDEKO GIZARTE INDUSTRIALAREN KULTURA

URTEAK	GERTAKARIAK
1789	Lavoisier: "Kimikako Oinarrizko Tratatua".
1796	Jenner: Baztanga-txertoa.
1822	Champollion: Idazkera hieroglifikoaren dexiframendua.
1838	Lyell: "Elements Geology".
1845-1862	A. Humboldt: "Kosmos" (geografia).
1846	Neptuno planetaren aurkikundea.
1859	Darwin: "On the Origin of Species".
1864	Pio IX: "Syllabus".
1865	Gizaki fosila: Neandertalaren hondakinak.
1867	Marx: "Das Kapital".
1868	Cro-Magnon-eko gizakiaren aurkikundea.
1874	Lehen erakusketa inpresionista (Parisen).
1876-1936	Eusko Pizkundea.
1885	Pasteur: Errabiaren kontrako txertoa.
1891	Leon XIII: "Rerum Novarum".
1905	Einstein: Erlatibitate-teoria mugatua.
1919	Kautxu sintetikoa.
1922	Banting eta Brest: Intsulina.
1923	Haririk gabeko telegrafia.
1925	Telebista.
1927	Zinema mintzatua.
1935	Joliot-Curie: Erradioaktibitate artifiziala.
1939	Uranioaren fisioa.
1941	Fleming: Penizilina.
1945	Bonba atomikoa.
1948	Trantsistorea.
1957	Sputnik I: lehen satelite artifiziala.
1966	Lehenengoz ilargiratzea.



ESPAINIAko ESKOLEN MISERIA (1866). Galiziako herritxo bateko eskola da hau. Elizondoko arkupean dago eskola: nolabait esateko, kale gorrian, eta irakaskuntza egoki samar baterako baldintza txarretan. Klase aberatsagoen ikastetxeek ezer gutxi balio zuten herri apalarentzat. Maisu-maistra falta handia zegoen. Orrialde hauetan ikasi ahal izango dugunez, XIX. mendean kultur mundu modernoak loraldi ederra ezagutu zuen, baina herri xumearen hezkuntz egoera oso urrun zegoen klase jasoen gailur haietatik. Eskolagintzan ahalegin arduratsuak ere egin ziren Europan, mende honen bigarren partean batez ere.

Industri Iraultzaren mendean, XIX.ean esan nahi da batez ere, ekonomi eta gizarte-aldakuntza sakonekin batera bizitza eta harreman kulturalak ere aldatu egin ziren, kultur oreka berriak bilatuz. Jendearen mentalitateak eta jakitunen zientzia eta teknika, artisten sormena, itxuraldatu egin ziren arras.

Aldakuntza sozialak edo ekonomikoak bizkorrago gertatu baldin baziren, kultura ez zen bere lanean batere moteldu. Areago: aurkikunde zientifiko batek ondokoa bultzatu zuen, zerbait berririk bilatzeko edo aurkitutakoa berehala zabaltzeko.

Garapen kulturalak hainbat alor ezberdinetan sortu zituen aldakuntzak: Zientzietan, pentsamenduan, literatura eta artelanetan, etab. Baina oinarrizkoentzat zientzi berrikuntza eman deza-

Analfabetismoa eta eskola

"Analfabetismoa gizarteko huts handi bezala agertu arren, ez da eskola-obligazioa legeetan berandu baizik sartzen eta leku guztietan ez da, gainera, bete erazten. Iparraldeko herrietan --Alemanian, Frantzian eta Suitzan-- lehen irakaskuntzak aurrerapen azkarragoak egiten dituela ikusten da. Herri batetik bestera oso modu desberdinean, ordea, eta defentsa nazionalerako ematen direnen ondoan oso atzera geratzen dira irakaskuntzaren alde egiten diren sakrifizioak.

Dena dela, Eskolaren inguruko borrokak klase zuzendarien mentalitatea ispilatzen du, "progresu" ideiaren eta ordena-senaren artean galduta bait dabiltza klaseok".

(R. SCHNERB)

kegu, kultur alor honek beste kultur barrutietakoak ezezik, gizartekoak eta ekonomikoak ere azkarki eragin bait zituen.

Ondoko orrialdeetan kultur bizitzaren alderik nabarmenenak ikusiko ditugu; baina, aurrera egin baino lehen, komeniko da datu jakingarri hau gogoratzea: kultur munduan ere Europa ageri da, garai honetan, sorlekurik biziena bezala, eta gure kontinente honetara begira jasoko ditugu datozen albisteok.

I. ZIENTZIEN eta TEKNIKEN AURRERAPENAK

Gizartearen eraldatze-prozesuan, hamazortzigarren mendeko zientzia akademiko eta elitista, zerikusi handikoa gertatu zen XIX. mendean. Zergati desberdinak laguntzen dute prozesu hau.

Ekonomi iraultzek, alde batetik, zientziaren eta tekniken artean erlazio berriak eraiki zituzten. Batzuetan zientziak sorterazi zuen in-



EMAKUMEZKOEN HEZKUNTZA. "Beste edozertan baino nabariagoa da emakumezkoen irakaskuntzan beronek egitura sozialarekin eta garaiko mugimendu arrakastatsuekin zuen lotura. Interesgarria gertatzen da, klase-diferentzia bat sexu-diferentzian nola ispilatzen zen ikustea". (A.V. MURRAY).

dustri berri baten hasiera: industria elektrikoa, adibidez. Beste batzuetan, industriako premiek eraman zuten bilaketa aurkikunde zientifikoetara: lurrin-makinarenean edo termodinamikan gertatuko da horrela, adibidez.

Bestalde, 1848. urte ingurutik Europako herrialde gehienetan botere politikoaz burgesia jabetu zen. Burgesia dominatzaile honek, finantzatu eta zuzendu zituen ikertzapen asko eta asko. Burgesia hau Unibertsitatetik pasatako talde intelektual bat zen, eta ikastetxe horietan egindako ikerkuntza eta aurkikundeak industrian obratzen saiatu zen.

Liberalismo politikoak, gainera, au rreko mendeetan ezagutu ez zen ikerkuntzarako askatasun-giro bat sortu zuen. Ez dago esan beharrik ere, pentsaera berri honek izan zezakeen eragina noraino hel zitekeen.

Azkenik, XIX. mendean aurreko garaietan metaturiko ondareaz baliatzeko gaitasun hobea aurkitzen dugu:

- XVII. mendetik metodo zientifiko landuagoa zeukaten belaunaldi hauek, alde batetik, eta,
- bestetik, XVIII.eko razionalismo ilustratuak utzitako ezagutza zientifikoz eta gizakiaz eta beronen zorionaz ondutako pentsamendua zeuzkan bere eskuetan.

Baina aurreko mendeetatik jasotako ondare zientifikoari eta berorrek sortutako zientziari XIX. mendeak ezaugarri bereziak eman zizkion:



ESKOLAGABEKO HAURRAK. Eskolaren obligaziozkotasuna berandu ezarri zen legez; baina, orduan ere, legea ez zen bete izan askotan (eskolarik ezagatik, edo beste arrazoi sozialengatik). Haurrek lan egin behar izaten zuten oso umetatik. Hemen ikusten dugun hau Nottingham-eko hari-fabrika bat da: nexka bat lanean, eskola-lanetatik urrun (1883).

LANGILEEN HEZKUNTZA. Egoera eskasa zerbait arintzeko, doan emandako gau-eskola batzuk ere eratu ohi ziren hirietan. Hauetakoa da hemengo hau ere (Madril, 1871). Lantegiek eskatzen zituzten gaitasun berriak lantzeko sortu ohi ziren honelakoak. Baina, oro har, langilegoari ez zitzaion suertatzen ikaskizun berrien bidez gora egiteko aukera sozial handirik.



Espezialitate zientifiko desberdinak agertu ziren eta, honen ondorioz pentsaera bateratu bakar baten batasuna galdu egin zen. Ikertegiak eta tresnak hobetu egin ziren, laborategiak hobeki hornituz. Elkargo, kongresu eta aldizkari espezializatuen bidez nazioarteko lankidetza are gehiago finkatu zen. Burgesia finantzariaren pareko itzala eta izena irabazi zituen zientzilariak.

Orduan agertu zen injinerutza zibila, lehengo militar-karreratik zetozenak baztertuz. Estatuaren, industri burgesiaren eta Prusiako lurjabe handien elkartasunari esker Alemania gertatu zen zientzietan aurreratuena. Bertako Unibertsitateak berriztatu egin ziren, eta nazioartean alemana bihurtu zen hizkuntza zientifiko. Alemaniako ikerlanek, munduan izen handia berenganatu zuten.

Zientzi arloan gertatu ziren aurkikundeak bi epealditan bana daitezke:

- Industri Iraultzako zientziaren lehen fasea XIX. mendearen erdi ingururarte hedatu zen; ideologiaz eta estetikaz Erromantizismo-mugimenduari zetxekion. Garaiko pentsamoldeekin ados, zientzia

Lanbide-heziketa

"Garrantzizkoagoa zen jakitatea, irakaskuntza; Voltaire-k hala idatzi zuen: 'ikasketa da ordenaren, atsedenaren eta zorionaren iturri emankorra'. Analfabetismoaren kontrako borrokarekin hasi behar da akats lotsagarri horren aurka. Inprimategiak eta eskolak hartzen dute parte hor. Tresna horren aurrerapenik gabe, bigarrena ez litzateke eraginkorra izango. Baina norbait, irakurri eta idaztera bultzatuta sentitzen bada --liburua, egunkaria, kartelak zabaldu egiten dira eta eskutitzak merke bidaltzen--, halakoak ez diezaioke eska oinarrizko irakaskuntzari honek eman dezakeena baino gehiago, eta oinarrizko kultura honen merezimenduak handiak izanda ere, ez du balio ofizio baterako prestatzeko. Hortik pizten da lanbide-heziketa baten egarria".

(R. SCHNERB)

erromantikoa batez ere irudimenezko sorkuntza zen, esperimentu-frogaketa baino areago. Dena den, garai honetan sortu ziren zientzi moderno askori oinarria emango zioten sintesiak: Geografiarako Alexander von Humboldt-en (1769-1859) lana edo Palentologiarako G. Cuvier-ena (1769-1832), adibidez.

- Mendearen bigarren erdialdian zehatzagoa egin zen zientzia, teoriak xehetasunez frogatuz, eta datu estatistikoak eskatuz: joera berriari "positibismoa" deitu zitzaion. Honen metodoa Auguste **Comte** (1798-1857) filosofo frantsesak definitu zuen. Aurrerantzean, zientzia zehatz, erreal eta "positibo" honek soilik lortu ahal izango omen zuen gizadiaren problemen irtenbidea. Aurreko belaunaldien erlijio-fedearen ordez, gizaki modernoak zientzian fede berri bat behar du, zioen Comte-k.

KULTURA ERUDITUA ETA KULTURA HERRITARRAK

"1815ean, Europako naziorik gehienek kultur iraganaldi luze eta aberatsa zeukaten beren atzean (...). 1815ean, erudituen kulturak neurriren batean etenda zituen jatorri erlijiosoekiko loturak. (...). 1815ean, kultura erudituak ez zituen ezagutzen kultura herritarrak, haiek mespretxatzen ez zituenean. Gehienez ere, iratzarraldi nazionalak zirikatuta, noizbehinka aurkitu zuen bere etorria eskualdeetako folkloreen ondarean. Hala ere, hain zuzen ondare kultural horretantxe errotuta daude herriaren eta burgesia txikiaren mentalitateak. Kultura iraunkorrak ziren hauek, menderik mende arian-arian mamituak; berauen jatorburuak "denboren gauean" galtzen ziren.

Aldakuntza politiko eta ekonomikoek ez zuten sobera aldarazi haien betidaniko gelditasuna. Barru-barrutik kontserbakorrak ziren. Hirietako kultura herritarrak izan ziren mugikorrago bakarrak, aldakorragoak ez esateagatik. Baina, 1815ean, batez ere landatarra zen Europa. (...).

Kultura herritarrak --espazioan eta denboran zehar egonkorrak--, herri batetik bestera sakoneko aldeak zeuzkan, eskualde batetik bestera, leku batetik ondokora. Haren ezberdintasun nabarrak ez zuen desegin ohitura, usario eta legenden ondare amankomuna. Konfesio kristau ezberdinek ere nolabaiteko eraberdintasuna eman zioten guzti horri. Hala ere, oro har, bere originaltasuna gordetzea lortu zuen kultura herritar bakoitzak". *(P. GERBOD)*



LUISA MICHEL (1830-1905). Emakume irailtzaile frantses hau, neskame baten ume naturala, maistra izatera iritsi zen; baina Napoleon III.ari bere leialtasun-zina ukatu ziolako, ez zuen ikastetxe libreetan irakasterik izan. Zenbait emakumek irakaskuntzan eta gizartean hartutako zeregin berrien aitzindari bezala har dezakegu. Pariseko arrabaletako behartsuei eskuzabalki banatzen zizkien bere irabazi eskasak. Politikara pasa zen, eta Komunan "Birjina Gorria" izengoitiz ezagutu zuen herriak. Ondoren Kaledonia Berrira deportatu zuten (1873-1880). Mugimendu irailtzailearen pertsonaietatik maitagarrienetako bat gertatu zen Luisa Michel.

"Positibismo" hau ez zen zientzia esperimental edo naturaletara bakarrik hedatu, giza zientzietara edo "Letretara" ere zabaldu zen: Historia, Ekonomia, Zuzenbidea, Soziologia eta abarretara. Alor guztietan, baieztapenak errealitatearekin bat ote zetozen frogatzen saiatu ziren; giza ekintzak lege orokorretara biltzen ahalegindu ziren, mineralen aldakaiztasuna edo landareen bizi-izaera bagenitu bezala.

Natur zientziak eta Biologia XIX. mendean sortu edo hobetu ziren; eta indar garrantzitsua hartu zuten giza zientziekin estuki erlazionatuta. Gu bizi garen biologi mundua garatzen den esparru espazial eta lurtarra ikertu ziren, eta, ondoren, gizaki bizidun horren sorkariak aztertu.

Ikerkuntzaren garapena, esperimentazioa eta berau ahalbideratzen zuten asmakuntza teknikoak, zientziek ekarri zuten aurrerakuntzaren arrazoiak eta kausak izan ziren. Aipa ditzagun, ba, oso bidenabar bada ere, zientzi barruti bakoitzeko lorpenik jakingarrienak, lehenik natur zientzietan, eta giza jakintzetan ere.

XIX.eko ESKOLAGINTZA


"XIX-XX. mendeetan, aurrera egin zuen irakaskuntzaren demokratizazioak, baina beti ere, Estatu eta irakas-molde ezberdinetan, ez garrantzizko desfaserik gabe. Honela, lehen irakaskuntza (1789a baino askoz lehenago hasitakoa) bizkortu egin zen XIX. mendean.

Ekinkizun pribatu eta konfesionalekin batera, erabakiorki azkartu zen Estatu irakastunaren zeregina: 1833an Guizot Legea eta 1881-1886etan Jules Ferry-ren Lege errepublikarrak Frantzian, 'board-schools' deituak Ingalaterran, 'Zemstvos' direlakoak Errusian, 1863tik aurrera.

Eskola-obligaziozkotasunaren luzamenduak, eskola-doakotasunaren aldeko ahaleginek, eskolen ugalpenak, maisuen prestakuntza laguntzeko neurriek lagundu egin zuten harrera-egitura efikaz koherenteagoen eraikuntza". *(P. GERBOD)*

A) NATUR ZIENTZIAK

Hamaseigarren mendetik aurrera, arretarik biziena izan zieten garaian garaiko jakintsuek izadiari eta izadian topatu ohi diren fenomeno naturalei. Obra honen aurreko liburukian ikusi ahal izan ditugu zientzia modernoaren atarikoak eta lehen pausoak (ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa", 159-164, 327-337. orr.). Orain XIX.ekoak izango ditugu gogoan.



ILARGIA (1896-1899). Loewy eta Puiseux-ek eman zuten argitara ilargiaren argazki hau. Satelitearen topografi ezagumenduan aurrerapen berrietarako balio izan zuen. Hauen aurretik ere, 1840-1853 urteetan, dagerrotipoaz lortu ziren argazki onak.

* 1. Astronomia

Astronomiari buruzko ikerkuntzek lortu zuten garapenak Unibertsoaren ezagutza zabalago bat edukitzen lagundu zuten. Izarretatik Lurreraino distantzia neurtu zen, adibidez. Teleskopioa hobetu egin zen, eta 1781. urtean Urano planeta eta beronen sateliteak aurkitu ziren. Izar-mundu infinitu baten existentzia frogatu zen.

ASTRONOMIA, XIX. MENDEAN: NEPTUNO (1846)

"Urano-ren lehen taulak denbora gutxian egon ziren ados behaketekin. A. Bouvard-ek taula berriak argitara zituen 1821ean (...); baina desakordioa laster agertu zen berriz, eta hogei urte barru 2'-koa zen. -- Teoriaren ez-askitasunak bi kausa eduki ditzake: Newton-en legea ez da zehatza edota masa ezezagunen bat dago mugimendua nahasten. (...).

Planetaren bat ari dela Uranoren mugimendua nahasten, hartzen bada hipotesitzat, problemaren ezezagunak planeta hipotetikoaren elementuak dira, alde batetik, eta bestetik Uranori lehenago egozten zitzaizkion elementuetan egin behar diren zuzenketak. (...). Arazo honetaz Le Verrier-ek 1845ean hasi zituen bere ikerlanak; 1846ko abuztuaren 31n eman zituen planeta ezezagunaren orbita-elementuak. Urte bereko irailaren 23an, Berlin-eko behategiko J. Galle-k Le Verrier-en eskutitz bat hartu zuen, ustezko egonpuntua emanez, eta zeruan planeta hori bilatzeko eskatzen zion. (...). Galle-k, gau hartan bertantxe, Le Verrier-ek aditzera emandako egonpuntutik 52'-etara mapan ageri ez zen objektu bat behatu ahal izan zuen; hurrengo gauean, lekuz aski aldatuta agertu zen objektua, bere planeta-izaera berresteko". *(J. LEVY)*

Aro eta sistema geologikoak

"Paleontologia estratigrafikoaren aurrerapenei esker, geruzak ***sistematan*** *sailkatzea egingarria gertatu zen, beroriek bata bestetik fosilez eta geruza-diskordantziez bereiziz eta ezaugarrituz.*

Aro Primarioan, R. Murchison eta S. Sedgwick behatzaile bikainek, 1835-1841etan definitu eta izendatu zituzten ***Kanbrikoa, Silurikoa, Devonikoa*** *eta* ***Permikoa,*** *azken hau* ***Karboniferoa****-ren ondokoa, Coynbeare-k 1822an lur karbonifero ingelesa aditzera emateko proposatua.*

Aro Sekundarioa hiru sistematan banatu zen: F. von Alberti-ren ***Triasikoa*** *(1834); Alexander Brongniart-en* ***Jurasikoa*** *(1829), eta d'Omalius d'Halloy-ren (1822)* ***Kretazikoa.***

Aro Tertziarioa Deshayes-ek hiru sistematan banatu zuen, 1830ean, eta Ch. Lyell-ek eman zizkien hiruroi izenak: ***Eozenoa, Miozenoa,*** *eta* ***Pliozenoa.*** *1829an Desnoyers-ek Kuaternarioarekin osatu zuen sistema.*

1820-1860 urteetan gertatu zen herri guztietan, Paleontologia estratigrafikoaren metodo berrietan oinarritutako lanen loraldia (...). Lore fosilak, fauna bezainbat aztertu ziren. 1800ean jada Blumenbach-ek azpimarratzen zituen aro geologiko ezberdinetako fauna- eta flora-aldeak".

(R. FURON)

Ikerkuntz arloan, aparatu geroz eta hobeagoekin, XX. mendeko konkista handien oinarrizko elementuak prestatu ziren.

1859. urtean bi alemaniarrek "espektroskopioa" delakoa aurkitu zuten, eta horren bidez astroen inguruko atmosferaren konposizio kimikoa ezagutu ahal izan zen.


* 2. Geologia

Zientzi arlo hau bi ikuspuntutatik azter daiteke, gutxienez:

- Alde batetik, lurrarekin du zerikusia: konposizioa, aintzinatasuna, eraketa, aldaketak. Zentzu honetan Fisikarekin eta Kimikarekin dago erlazionatuta.

- Baina lurrean bertan bizi izan diren eta bizi diren izaki biziekin erlazionatzen duen ikuspuntua ere izan dezake Geologiak. Kasu honetan, Zoologiarekin, Botanika, Antropologia eta Geografiarekin erlazionaturik dago.

XVII. mendean, lur-geruzak aztertu ziren eta beraietan aurkitutako hondakin fosilak ikertu. XVIII. mendean, ostera, haitzak. XIX.ean, azkenik,



HARRI GEOLOGIKOAK. Honela irudikatu zuen Ch.Lyell-ek (1797--1875) geruza geologikoen egitura bere "Elements of Geology" liburuan (1838).

aro geologikoak osatu zituzten, denporaldiak sailkatuz eta lur-geruzen prozesu eboluzionista baten teoria finkatuz.

Alor honetako beste ekintza batzuk, glaziarrei buruzko ikerkuntzak eta haitz eta fosilen azterketa mikroskopikoak izan ziren.

* 3. Fisika

Fisikan aurkikuntza asko egin zen XVIII. mendean. Mende hartakoak dira sona handiko batzuk: B. **Franklin** (1706-1790) eta L. **Galvani**, esate baterako. A. **Volta**-k (1745-1827) bi metal ezberdinek, bata positiboki eta bestea negatiboki hornituek, elkar ukitzean sortzen den elektrizitate-korronteaz baliatzen zen pila aurkitu zuen.

FISIKAK ETORKIZUN MOTZA OTE?

"XIX. mendearen hasieran, Fisikak goraldi eder bat ezagutu zuen. Aurkikundeak egin eta teoria berriak mamitzen ziren. Pilari esker, elektrizitatea bapatean eta espero ez zen gisan garatzen da. Argiaren uhin-teoriak zokoratu egin zuen emisio-teoria zaharra, sendoa eta behin-betirakoa eman arren. Lehenengo aldiz, azkenekoz ez bada ere, gertatzen da halako iraulketa esanahitsua. Gehi ditzagun, gainera, termodinamikaren jaiotza, eta atomo-teoria modernoarena, eta hortik ikusiko dugu zein emankorra izan zen mende hau. (...).


1880aren inguruan, bukatutzat ematen zen kasik Fisika, eta burututzat aurkikunde handien aroa: hastapenak irmoki tenkatuak zeuden, legeak zehazten hasita; teoriak behin betirako eguneratu eta aplikazio praktikoak garatzen hastec baizik ez zen falta, hala uste zen behintzat. Funtsezkoa eginda zegoen, eta ikertzaileek ez zuten espero bapatean barruti ezezagunak agertuko zirenik". *(P. GUAYDIER)*

Volta-ren pila

"Irakasle-bizitza luze baten ondoren Como-ra bildutako fisikaria zen Volta, 'animali elektrizitateaz" Galvani-k zituen ideien aurka ihardundako irakasle bat. (...).

Esperientzia sonatu baten bidez, Como-ko fisikariak zera erakutsi zuen: beirazko girtenek isolatutako bi disko --bata zilarrezkoa, bestea zinkezkoa--, batak bestea ukitu ondoren, urruntzean, elektrizitate-kantitate txiki batez kargatzen dira berez. Azalpen elektriko hauek indartzeko 'serietan metatzeko' ideia eduki zuen Volta-k (Franklinez gero Leyden-en botilak deskargatzeko egin ohi zenaren gisan). Metal ezberdineko diskoak, segidan txandaka, elkarren gain pilatzeko ideia sortu zitzaion, hortaz.

Zergatik bururatu zitzaion Volta-ri, disko-tartean ur garbiz edo, hobeki, ur arinki azidulatuz blai egindako zapiak jartzea? Ez da erraza erantzutea. (...). Hemen suertatu zen Voltaren 'zori' ona. Elkarren gain pilatuta, haren kobre/zinkezko edo kobre/zilarrezko 'bikoteek' ez zuten tentsio finkoa baizik emango (...). Baina ur azidulatuz blai egindako tarteko zirrindola hauek sartzean zera gertatu zen: metalik oxidagarriena (zinka, adibidez) eraso egiten zuen urak (...): Horrela aurkitu zen ***korronte elektrikoa!".*** *(P. DEVAUX)*



J. MAXWELL (1831-1879). Lege--gizon baten semea zen; Cambridge-n egin zituen ikasketak. Katedratan ibili ondoren, bere basetxera erretiratu zen (1865). 1871n Cavendish Laborategi sortu berria gidatzeko deitu zuten: Geroztik, jakitun sonatu asko pasa da handik. Maxwell-en ekarri zientifikoa batez ere teoriko-matematikoa da (Maxwell-en ekuazioa:elektromagnetismoaren legeak).

James **Maxwell**-k (1831-1879) korronte elektrikoak airez bidal eta har daitezkeela frogatu zuen (uhin hertziarren bidez). Hau izan zen haririk gabeko telegrafiaren funtsa.

Elektrizitate arloan lortutako ezagutzek asmakuntza tekniko ugariak eman zituzten: dinamoa, transformadorea, telefonoa, distantziazko elektrizitate-garraioa, bonbila eta abar. Hain zuzen, elektrizitatearen aurkikuntzari eta beronen aplikazioari esker ahalbideratu zen "bigarren iraultza industriala".

* 4. Kimika

A. **Lavoisier**-ek (1743-1794) landu zuen bidetik jarraitzen da Kimika XIX. mendean. 1789an "Kimikako Oinarrizko Tratatua" argitara zuen, bertan materiari buruzko hiztegia eskainiz. Airearen konposizioa eman eta errekuntzan oxigenoak duen betekizuna aurkitu zuen. Hauetaz aparte, neurtzeko sistema metrikoaren sortzaileetako bat izan zen Lavoisier.

ATOMOAREN AURKIKUNDEA

"Pentsamendu zientifikoaren hasieratatik XIX. mendeko lehen urteak arte, atomoaren nozioa beti ere ikuskera metafisikoz begiratu zen. Ez zen sekula ezagumendu zientifikoaren aurrerapenerako baliagarria izan. XVIII. mendean, kidetasunei buruzko ikerlanek garrantzizko bi emaitza eskaini zituzten: Materiak konposizio gorpuzkularra duela onarterazi zuten garbiki, alde batetik; eta, bestetik, konposatu kimiko ezagun ezberdinak gorputz bakunak egiteko proportzio definituetan bakarrik elkar daitezkeela erakutsi zen. Honela, atomoaren nozioa termino zientifikoz formulatu ahal izateko baldintza guztiak bilduta geratzen ziren.

Zalantzarik gabe John Dalton-i aitortu behar zaizkio teoria handi hau formulatu izanaren merezimenduak: teoria hauxe da, beharbada, Kimikaren Historiako garrantzizkoena".

(M. DAUMAS)

John **Dalton**-ek (1766-1844) teoria atomikoa sortu zuen: "elementu guztiak atomo deitzen zaien partikula txikiz osaturik daude", zioen berak. Jakitun honen abizenetik hartu du bere izena "daltonismoa"k, hau da, koloreak atzemateko ikusmen-gaitz ezagunak.

Mendearen bukaeran, aplikazio desberdinak izan zituen erradioaktibitatearen garrantzizko aurkikuntza lortu zen.



JOHN DALTON (1766-1844). Irakaslea izan zen, eta irakaskuntzatik eta analisi-laneta-tik bizi izan zen. 1793an Manchester-era joan zen bizitzera, eta hiriz hiri ibili hitzaldiak ematen. Izen handia eta zientzilariekin harreman zabalak lortu arren, oso bizitza pobrea eraman zuen: aske eta pobre. Teoria atomiko hura ez dakigu nola bururatu zitzaion.

KIMIKA ORGANIKOA ETA MEDIKUNTZA

"Kimika Organikoaren ezagumendu berriek berehala izan zuten zerikusik Medikuntzarekin. Droga klasikoetatik printzipio eragileak atera zituzten botikariek: 1806an, morfina Sertürner-ek; 1823an, kinina Pelletier eta Caventou-k. Gas irrigarriaren,eter eta kloroformoaren ezaugarriak aurkitu ondoren, kirurgia erabat aldatu zen. Hona data batzuk:


1853 Azido azetilsalizilikoa aurkitzen du Ch. Gerhardt (Aspirina)
1867 Fenola, antiseptiko bezala erabiltzen da
1869 Hidrato kloralaren eragin hinoptikoa
1876 Azido salizilikoaren eragin analgesikoa
1883 Antipirina (Knorr)
1899 Bayer-ek salmentan jartzen du aspirina

KIMIKA ETA INDUSTRIA

"Zientzia hutsaren konkistek ikuspide susmaezinak eskaintzen zizkioten aurreko XVIII. mendean jaiotako industria gazteari. 'Industria kimiko mineral handia' deitu ohi duguna izan zen garapen teorikoetatik lehenengo probetxurik atera zuena. Askotan esan den bezala, azido sulfurikoaren produkzioa eta kontsumoa bihurtu ziren herri baten zibilizazio-mailaren indizerik leialena. (...).

Batez ere, sustantzia koloratzaileen kimikak munduko ekonomian esparru osoak eraldatu zituen. 1897an, adibide bakar bat aipatzeko, Ingalaterrak 11.000 tona anil natural esportatzen zituen Indiatik ekarrita, eta Alemaniak, 600 tona anil sintetiko. 1911n, ostera, Ingalaterrak 860 tona bakarrik, Alemaniak bere fabriketatik mundura 22.000 tona koloratzaile banatzen zuen bitartean". (J.JACQUES)

Ch. DARWIN (1809-1882). Darwin-en teorien inguruan sekulako eztabaida piztu zen XIX. mendean. Galileo-ren garaian bezala, berriz ere Bibliaren interpretazio bat eta zientzia kontrajarrita agertu ziren garaikoentzat.



* 5. Biologia

Biologian eboluzio-teoria izan zen ondoriorik sakonenak eduki zituena. J.-B. **Lamarck**-ek (1744-1829) sortu zuen zientifikoki Biologia eboluzionista. Honen ustez izaki biziek bi printzipiok mugaturik eboluzionatzen dute: Inguru-giroaren eraginez, eta organoen erabileraren edo deserabileraren arabera.

Baina Lamarck-ek baino arrakasta hobea izan zuen Charles **Darwin**-ek (1809-1882) "Espezien jatorriaz" (On the Origin of Species by Means of Natural Selection) obra argitara eman zuenean (1859). 1871n "Gizonaren deszendentzia eta sexuarekiko hautespena" obra ere idatzi zuen. Darwin-entzat eboluzioaren oinarririk funtsezkoena hautespen naturala da. Laburki, haren teoriak zera dio:

CHARLES DARWIN (1809-1882)

Charles Darwin, biologo baten biloba zen. Cambridge-n egin zituen ikasketak, eta berauek bukatzean "Beagle" ontzian irten zen, naturalista bezala, mundua ezagutzera: Hego Amerika eta Pazifikoko zenbait irla esploratu zuen, egiteko horretan bost urte emanez (1831-1836). Bidaia honek eragin handia izan zuen Darwin-en ondoko ideietan, eta orduan bildutako bildumen gain landu zuen bere teoria. Bestalde, Mathus-en "An Essay on the principle of population" (1798: ik. I, 3) liburuak ere asko iradoki zion bere lanetan Darwin-i.

Batez ere, behatzaile oso zolia zen Darwin, eta dohain honi esker ere lortu zuen koherentzia bat hainbat tokitan jasotako datu hain ezberdin eta sakabanatuen arten. Bidaiaren aurretik, oso fixista zen: espezieak erabat finkoak eta aldakaitzak ikusten zituen. Bidaian, ordea, oharkizun jakingarriak bildu zituen aurreritzi hura aldatzeko: Iparraldetik Hegoaldera kideko espezieek nola elkar ordezten zuten ikusi ahal izan zuen, Galapagoak irletako ezberdintasunaz eta endemismoaz ohartu zen, ugaztun edentatu (hortzgabe) bizien eta Panpetako estratuetako espezie suntsituen arteko ahaidetasunak behatu zituen. Datu hauek denak, xehetasunez eta arretaz begiratu ondoren, fixismoarekin ezin ezkonduak iruditu zitzaizkion.

- Espezieak bata bestearengandik eratortzen dira, eboluzio-bide hori egiteko aldakuntza berriak sortu ala.

- Kasualitatez suertatutako giro-eraginagatik, espezie bateko lagun batzuengan espezie arruntarengandik bereizten diren aldakuntza batzuk gertatzen dira. Noizbehinka, aldakuntza hauek banakoren batzuk egokiagotu egiten dituzte, eta beste batzuk desegokitu.

- Aldakuntza horiek herentziaz igarotzen dira ondorengoengana, espezieari bide berria irekiz.

- Izaki biziek beren inguruan dituzten bizibideekin guztiz desproportzionaturik dagoen ugalkortasuna dute; honen ondorioz, beraien artean bizi-borroka bat pizten da eta hautespen naturala egiten, egokituenak bizirik iraunez eta desegokituak desagertuz.

- Prozesu oso luze baten buruan, elkarren segidan ondorengoei pasatako aldakuntzen bidez, bere ingurugiroan bizirik irauteko espezie berri hobeki moldatuak sortu dira.

- Gizakia ere eboluzio prozesu honetan sarturik dago, izadiko beste bizidunak bezalaxe.

Darwin-en ideia hauen zabalkuntzari egokiera sozio-historikoak ongi lagundu zion: Lehenik, burgesia menperatzailearen hautespen- eta lehiaketa-ideiak ongi ispilatzen zituen teoria zen; bigarren, intelektual laikoek aukera ona zuten, tresna teoriko hartaz baliatuz, Elizak, Bibliako Genesia irakurtzean, Kreazioari eman ohi zion interpretazioari erasotzeko.

Gregor **Mendel**-ek (1822-1874) landareen herentziari buruzko ikerkuntzak egin zituen eta lortutako ondorioez herentziaren legeak eta arauak argitan jarri.

Mendel: Genetika

"XIX. mendean zehar, oihartzunik izan ez zuen hainbat ikerlan aipagarriri XX.aren hasieran ulertu zitzaion bere esanahi osoa, eta batzutan zientzia berri oso baten oinarri bilakatu zen. Hauxe da Genetikaren edo herentzi zientziaren kasua. (...).

1858tik 1865erarte, bere monastegiko lorategian, Brno hirian, Mendel bere ikerlanetan ari izan zen, Naudin-ek ere egindakoetan, baina askoz ere harago iritsi zen. Eztabaidarik gabe Mendel-i zor zaio herentziaren funtsezko legeak aurkitu izana. Izpiritu matematiko argia eta kasualitatez ikas-material bereziki aproposaz baliatzen zela, lege haiei azalpen zehatz eta behin-betirakoa eman zien, nahiz eta datuon analisi razionala mende bat geroago bakarrik egin ahal izan".

(M. CAULLERY, J.F. LEROY)

Biologiatik medikuntzara

"1848ko Iraultzak Aro berri baten muga ezarri zuen. Izpiritu libreek zokoratu egin zituzten filosofia teologiko eta metafisikoak, Comte-ren positibismoa hartu zuten eta Biologi Lagunartea sortu. Lagunarte hau, Medikuntzaren garapen anatomo-klinikoa sortu zuen ekarpen biologikoaren sinboloa da. Biologi Lagunartea izan zen, bere eraikuntzatik bertatik, Akademiak baino ekimen-zentru indartsuagoa, biziago eta libreagoa, idatzi zuen M. Berthelot-ek 1866an. (...). Robin-ek honela zioen: Anatomiaren ikasketan eta izakien sailkapenean, funtzioen mekanismoa argitzea da gure helburua; Fisiologian, berriz, organoak nola alda litezkeen ezagutzea, eta egoera normaletik funtzioak zein mugatan desbidera daitezkeen erakustea". (P. ASTRUC)

B) GIZA ETA GIZARTE-ZIENTZIAK

Gizakiarengandik urrunenak gerta zitezkeen izakietatik hasita, ondo-ondoko izakietaraino iritsi zen Zientzia. Horra hurbilduz gero, itzuriezina zen gizonarengana berarengana ere iristea. Mikrobiologiak eta Medikuntzak aztertu zuten gizakia izaki bizidun bezala, garaikoen bizimodua ere hobetu nahiz.

* 1. Mikrobiologiatik Medikuntzara

Biologian eta Kimikan lortutako aurrerakuntzen bidez Mikrobiologia eta Medikuntzaren berrikuntz lanak errazagoak gertatu ziren.

Lehen ikerkuntza garrantzitsuena Edward **Jenner**-ena (1749-1823) gertatu zen, honek aurkitu bait zuen baztanga-txertoa. Louis Pasteur eta Robert Koch ikertzaileen lanen aitzindaria izan zen.

Mendearen hasieran Kimikak prozesu asko argitu gabe zeukan. Gauzak, materiaren berezko erreakzio batek usterazten zituela pentsatzen zen oraindik. Louis **Pasteur**-ek (1822-1895), berez usteldu, ezer ez zela berez usteltzen frogatu zuen, agente edo eragile bizien ekintzaz izan ezik. Airez garraiatutako hozietatik zaindutako ontzi esterilizatu batetan mantentzen zen materia ez zela usteltzen frogatu zuen. Pasteur-i esker, bakteriak edo eritasun batzuen elementu eragileak ere aurkitu ziren, mahatsondoaren filoxera eta zetarraren eritasuna (pebrina) kontrolatzera iristeraino. Pasteur-i zor zaio, gizakiarengan ere gaixotasunak beste honelako bakterietatik sortuak

izan zitezkeen hipotesia; errabiaren birusa isolatu eta kontrako txertoa ere landu zuen.

R. **Koch**-ek (1843-1910) koleraren eta tuberkulosiaren birusak aurkitu zituen. Jaume **Ferran** (1852-1929) katalanak, berriz, kolera eta tifusaren kontrako txertoak.



L. PASTEUR (1822-1895). XIX. mendeko biologoen artean aparteko lekua irabazi zuen Pasteur-ek, bere lanaren originaltasunagatik, metodo-ereduengatik eta hark aurkitutakoek izan zituzten ondorio sozialengatik. Argazkian, errabiaren kontra txertatutako haurrekin Pasteur bera.

BAKTERIOLOGIA

"1870az gero, eritasun kutsakorren azterketara eman zen Pasteur, eritasun horiek organismoan sarturiko infekzio-germenek edo mikrobioek sorturikoak bezala ulertuz. Nahitaez, jarrera honek medikuen ohikeriarekin topo egiten zuen, baina baita izpiritu berrizaleen oposizioarekin ere, Virchow, Helmholz eta du Bois-Reymond eta antzekoekin alegia, izan ere infekzio-germenen eraginaren hipotesia bitalismoz hondatuta ageri bait zen hauentzat, horregatik arazo hauei irtenbide fisiko-kimikoak bilatzen zizkieten beste jakitun hauek. Pariseko Medikuntz Akademia (Pasteur-ek eserleku bat bait zuen bertan 1872tik aurrera) sesio eztabaidatsuen eszenategia izan zen, Pasteur eta mediku tradizionalak aurrez aurre zirela, egia medikoa kimiko batek eduki zezakeenik ezin onartuz".

(M. CAULLERY)



CH. GERHARDT (1816-1856). Hau da aspirina bideratu zuena. Analgesiko guztietan erabiliena berau da gaur egun munduan: 40.000 tona urtecro.

Aspirina (1823, 1853, 1897)

1823an isolatu zuen Henri Leroux-ek, zume zuriaren azaletik, azido salizilikoa. Handik aurrera analgesiko bezala erabiltzerik egon zen; baina azido honek liserigarritasun-arazoak zituen, eta Montpellier-eko Charles Gerhardt-ek eman zuen hurrengo pausoa, azido azetilsalizilikoa lortzean, haren zaporea eta liserigarritasuna hobetuz. Hala ere, azken pauso erabakiorra berrogei urte geroago eman zuen Bayer Laborategietako F. Hoffman-ek, produkziorako bide merkeago bat aurkitzean. Bayer etxeak atera zuen, 1897an, merkatura produktu berria.

Kirurgian antisepsia sortu zen. Anatomian, ginekologian eta oftalmologian ere ezagutzak aurrerakuntza handia lortu zuen. Txertoei esker, kutsapen bidez ematen ziren gaixotasunak efektibotasun handiagoarekin kontrolatu ziren eta elikaduran oinarrizko elementuren baten gabeziak sortutako gaixotasunak bitaminaren aurkikuntzak sendatu ahal izan zituen.

Aurrerakuntza guzti hauen ondorioa gizonaren bizitza luzatu eta hobetzea izan da.

* 2. Psikologia

Ezagumendu berrien katean, giza psikologiari dagozkionetan, Psikologia Filosofiatik banatzea izan zen lorpenik prometagarriena. Zientzia independente bezala definitu zen eta fisiologiarekin erlazionatu.

ANESTESIA ETA KIRURGIA

(Gizadia gizadi denetik, mina eta oinazea izan dira ebakuntza eta operazioetarako eragozpenik okerrenak. Anestesia lortzean zeharo aldatu ziren kirurgiaren sistemak.)

"Sertürner-ek lortu zuen morfina (1817) Derosne-ren opio-gatzetik (1803); Pelletier eta Caventou-k kinina prestatu zuten (1820); gero datoz atropina (1831), kodeina (1832), digitalina (1844). Garai honetan egin ziren beste garrantzizko aurkikunde batzuk: iodoa (1811), iodoformoa (1822), kloroformoa (1831), klorala (1832), fenola (1834) eta pepsina (1834). Sustantzion aurkikundeen eta aplikazioaren artean gogoeta-denboratxo bat igaro zen, odol-ateratzeak eta mediku-agindu estereotipatuak baztertu behar bait ziren lehenengo. (...). Bitartean anestesia orokorra hobetu zen. Pidoux eta C. Paul-ek ziotenez (1876), kirurgilari frantsesek nahiago zuten kloroformoa, eta amerikarrek eta ingelesek eterra. (...). Metodoak arrakasta handia izan zuen erauzketa, eten irato, ebaki, lokadura eta hausturetan". (Cl. D'ALLAINES)

* 3. Soziologia

Giza gertaerak zuzenduko dituzten legeak eraikitzeko egindako ikerkuntzetatik jaio zen zientzia hau. Ordezkaririk garrantzitsuena Auguste **Comte** (1798-1857) izan da. Zientzi metodoek soziologiaren menpe egon beharko luketela da Comte-ren konklusioa, zientzia guztien artean soziologia bait da osoentzat hartzen duena.

Eboluzio-kontzeptua kulturara aplikatu zuen eta ezagutza-moldeetan balio ezberdineko hiru maila bereizi: teologikoa, metafisikoa eta zientifikoa. Dudarik gabe, soziologoarentzat hirugarrena hau zen garrantzizkoena, zerer eta gertakizunak ezagutu eta hobetuz, gizarte berria sor bait zitekeen.



AUGUSTE COMTE (1798-1857). 1822tik aurrera hasi zen idazten; lehen ekinaldi handia 1830-1842etakoa da, eta bigarrena 1849-1857etakoa.Positibismoaren aitatzat eduki izan da Comte. Gizarteko arazo eta gertakariak arreta berri batez begiratu ziren handik aurrera.

* 4. Historia

XIX. mendean sortu zen Historia zientzia bezala, aurreko mendeetako azterketa klasikoenetan ere erabiltzen ez zen metodo berriak beren bidea urratzen hasi bait ziren. Objetibotasunean eta

HISTORIAURREAREN JAIOTZA

"Historiaurre zientifikoa XIX. mendean jaio zen, aurkikundeak ugaritzearekin batera, metodo berrien sorkuntza eta hobekuntzekin. Mende honetan frogatu zen gizakiaren aintzinatasun erreala, harrizko tresnak orduan sailkatu ziren eta haien garaiko faunak aztertu. Lan hau dena, geologilari, antropologilari eta arkeologilarien ahalegin elkartuen ondorioa izan zen: arkeologilariek industria litikoak ikasi zituzten; antropologilariek, gizakiaren hezur-hondakinak; geologilariek, ostera, koaternarioko lurren segida ulertu nahi zuten, beraietan giza hezur fosilak, tresnak eta faunak mailaka ezarriz. 1801etik 1868ra luzatu zen, gizaki fosilaren eztabaida, zientzia ortodoxoaren gordailuzainen eta Historiaurrearen sortzaileen arteko borroka amorratua. Historiaurrelariek kobazulo eta ibai-garraikinetan egindako aurkikundeak zituzten beren frogatzat". (R.FURON)

kritikan oinarritutako metodoez baliatuz hasten da lanean Historia. Ikerlana sistematizatzeko ikastaroak eratu ziren.

Artxibo nazionalak ireki egin ziren, eta Estatuek ikerkuntzari eta lanen argitalpenari ez-ohizko laguntza eman zieten. Partikularrek ere lagundu zuten ahalegin honetan: alde batetik, Nazio-Estatuaren ospeak goraipatzen, eta, bestetik, Historia zientifikoki ikertzen.

Elkargo eta aldizkari historikoak sortu ziren Alemanian (1859), Estatu Batuetan (1859), Frantzian (1876) edo Ingalaterran (1886).

Mende-hasierako egoera izpiritu erromantikoarekin ados zetorren; baina, mendearen bigarren erdialdian, K. **Marx**-en (1818-1883) eta pentsamendu materialistaren eraginez, ikuspideak ekonomiko eta politikoagoak izan ziren, garai bateko lirikotasun ameskoi haiek baztertuz eta zientziatik hitzeginez.

HARRIA, BRONTZEA, BURDINA: HISTORIAURREKO HIRU AROAK

"Aro ezezagunen bateko harrizko, kobrezko, burdinazko edo brontzezko tresna ugarien aurrean aurkitu ziren arkeologilariak XIX. mendearen hasieran. Historiaurrearen oinarria den Harri/Brontze/Burdinen hiru Aroen sailkapena C.Thomsen-ek, Kopenhagen-eko Museo Arkeologiko eta Etnografikoko zuzendariak eman zuen bilduma publikoetako moldaera erabakartzeko. Aintzinako sepulturen ikasketak ondorio beretara eraman zituen Lisch eta Danneil arkeologilari alemanak. Zerbait geroago, Worsaae-k (Kopenhagen-en Thomsen-en ondorengoak) sailkapen osoago bat jarri zuen, Harri leunduan bi azpisail emanez, bi Brontze-Aroan eta hiru Burdin Aroan.

Baina, Brontzea Burdinaren aurrekoa izan zen ideia ez zen errazki onartu. A.F.Tscherning artileri koronel daniarrak zioenez, ezinezkoa zen brontzea, burdinazko edo altzairuzko tresnak erabili gabe lantzea. C.Hostmann-ek esaten zuenez, 'Arkeologia garaikidearen lotsakizuna' zen hiru aroen doktrina, eta honen aberkide C.Güttler-ek idatzitakoaren arabera (1877an), 'Alemania osoari kalte egiten zion aintzinate eskandinaviarretan finkaturiko sailkapen hark".

(R.FURON)

Historilari handien batzuk aipatzeko, gogora ditzagun, Thomas **Carlyle** (1795-1811) eta Thomas **Macaulay** (1800-1859) Ingalaterran; eta François **Guizot** (1787-1874) Frantzian.

Historiaren zientzia lagungarrien sorrera eta Historiaurrearen ezagutzan egindako aurkikunde eta ikerkuntzak, funtsezko pausoak izan ziren Historiaren zientzitasunean.

* 5. Geografia

Giza zientzien artean, Geografiak, XV. mendetik aitzina egindako aurkikundeei esker, aurrerapen nabariak ezagutu zituen. Arktiko eta Antarktikoko lurralde eta itsasoak lehiatsu aztertu ziren.

Bidarien artean ikertzailerik maisuenetako bat Alexander von **Humboldt** (1769-1859) izan zen. Amerika eta Asian zehar ibili zen eta "Kosmos" (1845-1862) idatzi zuen. Honen esperientzia eta oharpenak garrantzizkoak izan dira. (Ez nahas Euskal Herrian ibilitako honen anaia Gilen-ekin).

ALEXANDER VON HUMBOLDT (1769--1859). Izadiaren maitale sutsua, oso gazterik prestatu zen --Europan ibilaldiak eginez eta hizkuntzak ikasiz-- geroko espedizio handietarako (Hego Amerika: Orinoko, Kolombia, Ekuador; Mexiko. Gero Uralak, Altai, Kaspio). Garaiko intelektualekin harreman hertsiak izan zituen: Goethe, Schiller, Gay-Lussac. Parisen bizi izan zen urtetan (1808-1827).



A. HUMBOLDT: GEOGRAFIA MODERNOA

(A. Humboldt izan zen azken jakitun entziklopedikoetako bat: Harekin zorretan daude natur zientziak, geologia, klimatologia, biogeografia, bulkanologia edo historia. Denetan egin zuen lan. Baina batez ere Geografia dago zorretan A. Humboldt-ekin, K. Ritter-ekin batera berak jarri bait zizkion oinarriak Geografia modernoari).

*"Humboldt-en obra guztietatik, **Kosmos** da ezagunena eta esanahitsuena. Unibertsoa deskribatzen du hor, zerua, lurbira, beronen forma, dentsitatea, egitura, bolkanketa, etab. (...). Humboldt-ek --benetako entziklopedia bizia-- dena bildu nahi izan du bere liburuan; testu harrigarriro trinkoarekin topo egiten du irakurleak, eta sarritan ohar oso luzeekin gainera (...). Baina probetxuz irakurtzen da eta Humboldt-ek eragin emankorra izan du Geografian".*

(R. CLOZIER)

* 6. Antropologia

Nahiz eta jakintza honetaz kezkarik eta lanik franko lehenagotik ere egon, XIX. mendean sortu zen, zientzia bezala eta metodo egoki bat zuela, Antropologia. Historia eta Biologiarekin erlazionaturik dago, eta beste hainbat zientziarekin. Antropologia fisikoa, Biologia orokorreko espezializazio bat besterik ez da. Eta, alderantziz, Antropologia kulturalak aurkikuntza historikoak orokortzen ditu.

Gizadiarekin zerikusia duten ezagutza guztiez baliatzen da Antropologia. Sorreratik gaur egunerarte ez ezagunak diren elementuei garrantzi gehiago ematen die Antropologiak, edo denboraz urrunduta daudelako, edota gizatalde primitiboei dagozkielako. Horregatik, Arkeologia eta Etnologia Antropologiaren zientzia lagungarri hurbilak gertatzen dira.

GIZAKI FOSILAREN BILA

"Fuhlrott doktoreak, 1865ean eman zituen argitara Neanderthal-gizakitik salbatutakoak (buruhezur-ganga bat eta zenbait hezur luze), izan ere 1856an, Prusia rhindarrean, Elberfeld-en eta Düsseldorf-en artean, ***Neanderthal****-eko amildegian eskeleto bat aurkitu bait zen. Buruhezurraren ganga nabarmena zen bere kopeta-ihesiagatik, zituen bekain-arku eta garondohezur irtenengatik. Naturalista asko zalantzaz beteta zegoen hondakinok gizakiari egotzi aurretik. Gaur egun Neanderthal-eko gizaki bezala ezagutu ohi denaren tipo berekoa zen, hau da, nonahi tresneria nahiko primitibo batekin nahasian aurkitu ohi ziren hondakinen molde berekoa (...). 1886an, Namur ondoko Spy-n bi eskeleto ia osoak eta ongi kontserbatuak topatu ziren.*

1868an, Périgueux-eko trenbidea ebakitzean, Louis Lartet-ek bost eskeleto aurkitu zituen ***Cro-Magnon****-eko babespean (Dordoinia-ko Eyzies ondoan), 'elur-oreinaren aroko' maila garaikidean. (...) 1888an, Feaux eta Hardy-k Raymonden-eko harkaitz-babespean, Chancelade-n (Périgueux ondoan), maila magdalendarrean estatura txikiko eskeleto bat idoro zuten (...).*

Duda-mudazko aurkikundeak baztertuta ere, XIX. mendearen azkenetan jada ezagunak ziren gizaki-fosilen hiru arraza: Neanderthaldarra, Cro-Magnondarra eta Chanceladetarra". *(R. FURON)*

* 7. Arkeologia

Aurkikuntza arkeologiko asko egin zen, Arkeologia, zientzia bezala, XIX. mendean sortu aurretik. Kasualitatezko aurkitzaile ainitz, bilatutakoek sustaturik, ikertzaile bihurtu zen. Honela, metodo berriz hasi ziren bilaketak egiten.

Historiaurreko Arkeologiak, idazketaren asmakuntzaren aurreko gizadiaren bizi-moldeak ezagutzen oinarrizko laguntza eman zuen. Geologiak eta Paleontologiak, aldiz, hondakin arkeologikoak kokatzen lagundu zuten.


Ikerkuntzak egitean, nahiz eta eztabaida eta zalantza gogorrak sortu, partzialki bederen argitu zen gizadiaren aintzinatasuna, egon ere halako hutsune handiak bait zeuden. Historiaurreko gizakiaren obren errealitatea frogatuta geratu zen.



EGYPTOLOGIA. Arkeologia, lehenengo hartan, batez ere mundu greko-erromatarraz arduratu zen, baina Napoleonek Egypto-ra egindako espedizioaren ondoren (1798-1801), "Description de l'Egypte" liburua agertzean (1809), Egyptologia ere jaio zen. Espedizio haren garaikoa da Napoleon-en hemengo karikatura hau (1798).



INDUSKETA ARKEOLOGIKOAK. Herkulano (1711) eta Ponpei-ko (1741) aurkikundeek barrutik hunkitu zuten Europan mundu klasikoarekiko ardura kulturala. XIX. mendean jakin-min arkeologikoa guztiz zabaldu zen: Grezian eta Italian lehenik, egyptologian eta assyriologian gero, adibidez. Metodo eta teknika berriak asmatu ziren industegi zahar eta aurkitu berrietan erabiltzeko.(Argazkia: Ponpei-n, gorputz desegina, hutsunea betez, bermoldatzen. Orain gutxi egindako indusketa berri batean).



IDAZKERA HIEROGLIFIKOA. Egypto-ko albiste historikoak idazkera honetan eman ziren K.a. IV. milakadatik hasi eta K.o. IV. menderarte. Baina albiste haiek denak ezin ulertuak izan ziren Champollion-ek irakurbidea aurkitu zien arte (1822). Hori lortzean, bapatean milaka urte irabazi ziren Historiarako, izan ere Egypto-ko Dinastien historia idatzita bait zegoen, horrelaxe, hango monumentu ugarietan.

Iker-eskolarik aurreratuena Frantzian sortu zen: J. **Boucher de Perthes** (1788-1868) jakitunaren inguruan sortutako eztabaidak sonatuak izan ziren.

Ikertzaile saiatu batzuk Ekialde Hurbileko eta Egeo-aldeko aintzinako kulturak aztertu eta lanean ezagutuak zabaltzen hasi ziren. Lehen ikertzaileen ondoren inskripzioak deszifratzeak lehenik, eta aztarnategietako hondakin eta altxor arkeologikoek gero lanak jarraitzera bultzatu zituzten talde zientifikoak. Italian hondakin greziar eta erromatarretan, eta kultura etruriarrean zentratu ziren azterketa-lanak. Ponpeia eta Herkulano-ko indusketak izan ziren entzutetsuenak. Egypto-n, Jean F. **Champollion**-i (1790-1832) zor zaio idazkera hieroglifikoaren deszifrapendua.

* 8. Irakaskuntza

XIX. mendeko erreforma arte, irakaskuntza gehienbat pribatua izan zen, eta Zientzia eta pentsamendu moderno batetik urrun zegoen. Orduan, ordea, ideia berriek eta industri garapenak, administrazioak eta merkatalgoak, hezkuntzaren kezka piztu egin zuten: Irakaskuntza aro berri batean sartu zen.

Rousseau-ren "L'Emile" (1762) obran aurki daitezke hezkuntz erreformarako lehen ideiak. Honek eragin handia izan zuen Johann H. **Pestalozzi**-rengan (1745-1827), hain zuzen hezkuntza herritarraren mugimendu modernoa hasi zuen pedagogoarengan. Honen helburua, hezkuntzaren bidez gizona zoriontsu egitea izan zen.

ARKEOLOGIA EGITEN

XVIII. menderarte ez zen egiazko lan arkeologikorik egin. Mende honen bigarren erdialdian aurkikunde arkeologikoetarako desira bizia sumatzen da, baina XIX.ean ikusten dugu zientzia hau erakundetan antolatzen: Atenako Arkeologi Eskola Frantsesa (1846), Arkeologi Institutu Alemana (1874), etab. Baina horraino iritsi aurretik Arkeologiak jakitun aitzindari handiak eduki zituen.

Champollion eta egyptologia

Jean-François Champollion (1790-1832) da Egypto-ko historia idatzia ezagutzeko aurkikunderik handiena egin zuen ikertzailea: Rachid-eko Harria irakurri egin zuen, eta literatura hieroglifikoa irakurtzeko bidea asmatu (1822).

Champollion, liburudendari baten semea zen. Oso txikitatik erakutsi zuen liburu eta hizkuntzetarako grina. Bost urterekin ikasi zuen, bere gisara, irakurtzen; hamaika urtetik aurrera latina, grekoa, hebraiera eta koptera ikasten saiatu zen. 1807-1809etan, hamazortzi-hemeretzi urte zituela beraz, pertsiera, sanskrito eta arabierazko ikastaroak egin zituen. Ordurako hasita zegoen Rachid-eko Harriaren kopia baten gain bere deszifremendu-lanetan.

Rachid-eko Harria ("Roseta-ko Harria" bezala ezagunagoa), Alexandriatik 70 bat kilometratara dagoen Rachid lekuan aurkitu zuen espedizio napoleondarreko soldadu batek (1799): basalto beltzezko estela bat zen. Hiru idazkun zituen: bata hieroglifikotan, bigarrena karaktere demotikotan, eta hirugarrena grekoz. Azken idazkun honek zioenez, dekretu bat bera zen dena, K.a. 196ko udaberrian emandakoa. Hiru hizkuntza parekide haiek teorian laguntza ona eman zezaketen idazkera haiek deszifratzeko.


1809an, Champollion-ek idazkera egyptiarraz teoria berria proposatu zuen: monumentuetako idazkera hieroglifikoaren eta agiri herritarretako demotikoaren artean hirugarren bat azpimarratu zuen, hieratikoa (demotikoa bezala, idazkera kurtsiba etzana). Urte horretatik aurrera, gainera, argitara emandako hainbat idazki egyptiar eskura zeukan, eta ahalegin bizian jarraiki zen jakituna.

1821eko maiatzean gai zen Champollion testu demotikoa hieratikora itzultzeko, eta ondoren hieroglifikoetara pasatzeko: "Ptolomeo" eta "Kleopatra" izen errepikatuek lagundu zioten bereziki aurrera egiten. Bere gisara, demotikotik hipotesiz asmatuta, hieroglifikoz emanda zeukan bezalaxe aurkitu zuen "Kleopatra" idazkun hieroglifiko jator batean. Bi izen haiei esker, hamabi hizki hieroglifiko deszifratuta zeuzkan jada, beraz. Oinarri ona zen. Laster ezagutu zituen beste izen batzuk ere: "Alexander", "Tiberio", "Germaniko", "Trajano".

1822ko irailaren 14ean, jaso berri zuten marrazki hieroglifikoetan errege egyptiarren izenak ere ezagutu zituen: "Ramses" eta "Tutmosis". Ordutik aurrera aski seguru sentitu zen Champollion, eta hilabete hartan bertan aurkeztu zion bere aurkikundea Akademiari: zeinu ideografikoek eta elementu fonetikoek osatzen zuten idazkera egyptiarraren sistema, ikertzaileak eman zuen definizioaren arabera.

Handik aurrerako lana samurragoa izan zen: 1824ean izen ugari eta pasarte osoak eman zituen itzulita. Egyptologiak, harez gero, zientzia beregaina izateko eskubide osoa zuen: Frantziako Kolegiora eraman zuen Champollion-ek (1831), baina irakaslea laster hil zen, oraindik gizaseme gordina (1832).

MIZENA HIRIA. Neolitoaren ondoren jaio zen Grezia, Brontze-Aroan (K.a. 1950--1580etan). Berehala Mizenaren Aroa dugu, hau izan bait zen orduan hiriburu nagusi eta gidaria (K.a. 1600-1100etan). Schliemann--ek guztiz aldatu zituen data historikoak: 1869rarte, jakitunen ustetan, Grezia Olinpiadekin hastan zen (K.a. 776), baina Schliemann hiltzean, Troiaren historia K.a. 2500raino eta Mizena-rena K.a. 1500eraino luzatu ziren.



Schliemann (1822-1890): Troia eta Mizena

Champollion-ek idazkera hieroglifikoa deszifratu zuen urte berean jaio zen H. Schliemann, hark egyptologian bezala, mundu grekoan arkeologiari bultzadarik handiena emango ziona. Mundu klasikoaren barruti honetan Heinrich Schliemann dugu arkeologia preheleniarraren aita.

Alemana zen Schliemann, porrotegindako Artzain protestante baten semea, erabat autodidakta, bere gisara ikasia. Oso gazterik ikasi zituen Ekialdeko hildako hizkuntza zahar sail bat eta hamabost bat hizkuntza bizi. Merkatari-gaitasun handia zuenez, irabazi handiak bildu zituen Errusian. 1868+ rrera, aberastasun hauek ideia finko baten zerbitzuan jarri zituen: " eta "Odisea"ko mundu homerotarra aurkitzeko, alegia.

Aspertzeke ihardun zuen ameslari honek bere asmoaren atzetik. Greziaren mendebaldeko Itaka irlara lehenengo (Uliseren sorterrira), eta Turkiako Hissarlik-era gero, zuzendu zen Schliemann (Dardaneloen ondoko oraingo Tefikiye), Homero-ren Troiak lurpean hantxe egon behar zuela pentsatuz.

Ez zebilen oker: hantxe zegoen hiri zaharra, gainjarritako bederatzi hondakin-geruzatan historia luze baten testigantza erakusteko ikertegi aberatsa eskainiz. Zortzi hiri zeuden han batabestearen gainean. Bazirudien seigarrenak sekulako loraldia ezagutu zuela: murru handi batek babesten zuen; nekazaritza eta abelazkuntza azkarrak zituen (Homero-k "zaldi-hezleak" deitzen zituen troiarrak). Zazpigarrena Iliadak kontatzen duen gerratean hondatu zen, K.a. 1230-1225 urteetan, agian. Hauxe izan liteke akaiarrek erasota desegin zutena.

Schliemman-ek Troia argitara atera zuenetik, lehendik literaturatik ezagutzen ziren albisteek balio heuristiko berria hartu zuten: literatura ikerkizunen abiapuntu bihurtu zen. Troiatik Greziara itzuli zen Schliemann: Troia-ri gerra egin zioten akaiarren sorterrira, Greziara bertara, hain zuzen. Hemen Mizena aurkitu zuen.

Hezkuntza oso bat lortzen saiatu zen, hiru giza elementu erabiliz: burua, bihotza eta eskuak. Hortaz, kulturaren hiru alde hartzen zituen gogoan: lehen, adimenaren kultura; bigarren, sentimenduarena eta hirugarren, bihotzarena. Haur behartsu, akastun eta umezurtzei irakasten saiatu zen. Miseria eta larrialdi estuen ondoren, azkenik arrakasta osoa izan zuen, eta Pestalozzi-ren metodoa Europan beste herrialdeetara ere hedatu zen.

Irakaskuntza ertaina ere mende honetan garatu zen eta herritartzera iritsi. Era berean, klase ertainekoek posibilitate gehiago edukitzeko, Unibertsitate berriak sortu ziren.

Bukatzeko, irakaskuntz arlo honetan karakteristika orokor batzuk azpimarratzea komeni da hemen: Kongregazio Erlijiosoek irakaskuntzaren monopolioa galtzen hasi ziren, eta laikotasun-kutsu berria hartu zuen irakaskuntzak. Bestalde, metodo pedagogikoak aldatu egin ziren, Zientzia esperimentalak ere sartuz.

Munduaz eta gizakiaz, Descartes-engandik hasita, pentsalari modernoek eskainitako Filosofiak gizarte osora zabaltzeko egokiera aproposa izango zuen. Baina zer dakigu Filosofia hartaz?

Frantsesa, elizetan?

(Errepublikaren politika laikoaren eta indar kontserbadoreen arteko borrokan, hizkuntz eztabaida ere tartean gertatu zen Frantzian. Iparraldean bretoieraren defentsa honela egin zuen euskal kazetari honek:)

"Ministroak Bretaniako prefetei hel-arazi deie: beharko dutela hemendik harat hango erretor eta bikario guztiek elizetan orai arte mintzo ziren breton hura utzirik... frantsesez mintzatu; katixima frantsesez egin; predikuak frantsesez; otoitzak ere ba.

Behazue! Diren bezalako nahasi tzarrek, zertan eta noraino sartzen duten sudurra! Zer joan zeie ministroei, prefetei eta bertze jaunfutre hoier guziei, breton apezek eta burrasoek nahi badiete haurrei erlisionea bretonez erakatsi? Egundaino ez bezala, elizetan predikuak baitezpada frantsesez egin-arazteko, zer esku dute: --Eskurik ez; bainan gaixtakeria ordean".

(J. HIRIART-URRUTY, 1902).

ESKOLA LAIKOA?

"Errepublikazaleak, Falloux Legearen (1850) aurka zeuden; beste arrazoien artean, 'nazioaren' batasuna urratzen zuelako egon ere. 1882ko Ferryren legeak, uzten du oraindik bi Frantziak elkar-lanean saiatzeko lain irtenbide, baina 1886ko Bert-Goblet Legeak ez du hoinbestetarako esperantza biderik. Freppel apezpikuak bortizki esan zien errepublikatiarrei: 'Zeuok sakonagotu duzue banatzen gaituen leizea... Ez gara gu, zeuok zarete geroaren auzia mehatxu-tresna bihurtu duzuenak: alde batetik errepublikazaleak, bestetik kristauak...'

Eta, hori horrela baldin bazen, ez zen posible 'nazioaren' batasunik. Hemen ere arestian aipatua gertatu zen: ikasgai filosofiko konkretu bat (eskolan gazteari ikaskizun bezala eman beharrekoa noski) errepublikazaleen eskutan dogma politiko bilakatu zela, eta hezkuntza, jomuga pragmatiko izatetik "nazio"-ideia jakin baten tresna".

(J. INTXAUSTI).

Oraina, etorkizunetik

"Jaio berria den iraultzaz berotuta dago Hegel eta 1806an bukatzen ari da bere 'Phänomenologie des Geistes' (=Izpirituaren Fenomenologia) Jena-n, hiria gerran dagoen bitartean. Baina Hegel ziur dago mundu berri bat hasten ari dela. Era berean, seguru dago aurreko gizartearekiko eten hau ezin daitekeela izan erabat segidarik gabea, baizik eta berorren bidez mugimendu bat bultzatzen dela: izan ere, iragana oraina ldiaz ernari dago jada, eta geroaz oraina; izan, badena, izandakoaren bitartez ezezik (kausa-efektuen katean alegia), izankizun denaren bidez ere ulertu behar da".

(A. NOIRAY)


II. FILOSOFIA

XIX. mendeak zenbait Filosofi korronte ezberdin garatuko zuen. Muntarik handiena izan zutenak Idealismoa, Positibismoa, Historizismoa eta Bitalismoa ditugu.

A) IDEALISMOA

Idealistentzat ideiak dira errealitate egoki bakarrak gizona eta mundua ulertzeko. G.H. **Hegel** (1770-1831) dugu pentsalari idealista sakonena. Hegel-ek guztia izpirituzko errealitatea eta guztia izpirituak sorturikoa dela baieztatu zuen. Horregatik deitzen zaio Filosofia horri "Idealismo Absolutua".

Izpiritu Absolutua, ideien munduaren mamia da; Hegel-en ustez, etengabe eboluzionatuz doa, historia sortuz. Eboluzio prozesu honek hiru une osatzen ditu: a) **Tesia** edo erlazioen munduaren




G.W.F. HEGEL (1770-1831). Jena, Heidelberg eta Berlineko Unibertsitateetan irakatsi zuen. Hegel-en inguruan eztabaida sutsuak piztu ziren Alemanian. Jarraitzaileak berak ere bi alderditan banatu ziren: ezkertiarrek, batez ere Hegel-en **metodo** dialektikoa hartu zuten; eskuindarrek, berriz, maisuaren doktrina-**edukina**. Hegeltzaleen artean ezkertiarrak izan ziren indartsuenak, azkenik: Feuerbach, Bauer, Marx, Engels.

sorketa (Ekialdeko Aintzinako kultura), b) **Antitesia** edo aurreko sistemaren akatsen aurkikuntza (kultura greko-erromatarra), c) **Sintesia** edo aurreko sistema gainditzea (Erdi Aroko kultura kristaua).

Azken sintesi hau, aldi berean, prozesu berri baten tesia da, horrela, etengabe, prozesua jarraikiz. Hegel-entzat, Estatua da Izpiritu Absolutuaren lehenengo errealitateratzea.


Hegel-en eragina sakona izan da hainbat pentsalarirengan. Zenbait politikok, Hegel-ek egiten duen Estatuaren balorazioan, Monarkia absolutuen legitimazio zurigarria ikusi zuen. Baina Marx-ek, aldiz, Historia esplikatzeko Hegel-en metodo dialektikoa hartu zuen.

KAFETEGIETAKO KULTURA ETA IDEIAK. Kafetegietako lagunarteek aukera egokia eskaintzen zuten albisteak, ideiak eta paper debekatuak zabaltzeko, eta beti ere aldakuntza politikoak prestatzeko. XIX. mendean, aldizkari eta egunkariak ugaritu egin ziren, horretarako askatasuna eta finantz erraztasunak sarritan nahikoa edo osorik moztuta egon baziren ere. Kazetaritza, benetako indar sozialarekin, XIX.ean jaio zen. Adibide bat emateko, "Revue des Deux Mondes" (1828-1945) frantsesa gogoratuko dugu. Urteekin harpidedunek gora eta gora egin zuten: 350 (1834), 2.000 (1843), 25.000 (1868).



B) POSITIBISMOA

XIX. mendean Europan azaltzen den mugimendu indartsua dugu Positibismoa ere. Iraultza Industrialaren eta zientziaren goraldiaren ondorioa den joera berri honek Auguste **Comte**-rengan (1798-1857) aurkitu zuen bere predikari nagusia eta hedatzaile sutsua. Positibismoak metafisikarekin hautsi egin nahi zuen: zientzia esperimentalak dira jakintza jatorraren iturri eta ereduak.



Munduaren ezagutza eta honen domeinua gizakiaren zerbitzuan jartzen ahalegindu zen positibismoa. Aurrerapena ("progrès", "progreso") positibismoaren slogan bilakatu zen, slogan eta baita errealitate ere.

Stuart **Mill** (1806-1873) ingelesa dugu utilitarismoaren sortzailea. Mill-entzat moralaren funtsa baliagarritasunaren edo zorion ahalik handienaren printzipioa da. Zoriontasuna mingabeziarekin eta plazerrarekin parekatzen zituen; zoritxarra, berriz, plazergabeziarekin eta minarekin.

JOHN STUART **MILL** (1806-1873) da Ingalaterrako filosofilari hemeretzigarrendar handiena. Gizon honen bizitza, bitxia izan zen. Filosofilari baten semea izanik, aitak seme honengan frogatu nahi izan zuen, Helvetius-i jarraiki, hezkuntzak gizabanakoagan duen guzti-ahala. Disziplina hertsia ezarri zion: hiru urterekin hasi zen grekoa ikasten; zortzirekin, Herodoto, Jenofon eta Platon-en obra batzu irakurrita zeuzkan; latina ikasi eta beste senideei irakatsi zien. Ez zuen jolasik eta jostailurik. Pasealdiak aitarekin egiten zituen, bezperan ikusitako irakurkizunak beroni laburtuz, eta, ondoren, gizarteaz eta ekonomiaz aitak azaltzen ziona entzunez. Arratsak, aritmetikarako zituen. Hamabi urterekin, Aristotele eta Hobbes-en logika ikasi zituen; hamahirurekin, Ricardo-ren "Principles" (1817) irakurri zuen. Hezkuntz molde honek barru-barrutik atzeman zuen John: "Garaikideei hogeitabost urteko aurrerapena hartu zien", baina oso gazterik zahartu zen, eta 1826an depresio larri batek jo zuen. Hogei urtetan hartaz maiteminduta egon ondoren, Taylor andere alargundu berriarekin ezkondu zen (1851). Bera ere alargundu zenean (1858), Avignon ondoko herrixka batera bildu zen. Azken hamalau urteak idazle-lanean eman zituen, politikan ere sartu-irten bat eginez (1865-1868).

Herbert **Spencer** (1820-1903) Filosofia eboluzionistaren sortzailea dugu. Spencer-i zor zaio Darwin-en ideia eboluzionistei zabalkuntza berri bat emateꞓ ere.

C) HISTORIZISMOA ETA BITALISMOA

Historizismoa eta bitalismoa, elkarren artean gai asko berdinak dituzten joerak ziren. Positibismoaren eta hegelianismoaren aurka jaikitzen ziren biak, bizitasuna eta eraginkortasuna goretsiz. Izaera komuna, irrazionalismoaren sistema, defendatzean eta giza errealitatean sustraitutako bizitza estimatzean datza sistema filosofikoa. Sistema biok, batez ere historizismoak, bortizki ihardungo dute balio absolutuen existentziaren kontra, betiereko egien kontra, eta ontasun aldaezinaren kontra.

Henri **Bergson** (1859-1941). Honentzat, intuizioa zen gizakiaren beste ezagumen-modu bat, eta honen bidez absolutura irits daitekeela uste zuen, gauza guztien azken absoluturaino.

Nietzsche-k (1844-1900), bizitza baloratzeko bere ahaleginean, bizitza honetatik ihesa adierazten duen guztia gaitzesten zuen. Lehenago Jainkoak betetzen zuen tokia, Nietzsche-rengan gizakiak hartu zuen. Gizakia, honela, izaki ahal guztidun bihurtzen da, "supergizona", haren hitz ardatz batekin esateko.



F. NIETZSCHE (1844-1900). Teologia protestantetik hasita, filologia klasikora eta filosofiara pasa zen Nietzsche. Schopenhauer eta R. Wagner-en mireslea izan zen, eta helenismo germaniar dionisiako batèn defendatzailea, gainera. Wagner-ekin hautsi ondoren, krisi sakon batean erori zen; azken urteetan, bizitza erratua eta gaixoa eraman zuen 1889an burutik egin zen arte. Sendatu gabe hil zen (1900).

III. LITERATURA



J.W.GOETHE (1749-1832). 1799--1800 urteetan Jena-n bildu ziren "Jena-ko erromantiko" deituak (Schlegel anaiak, Novalis...). Schiller ere han irakatsia zen (1789-1799), eta ondoko Weimar hirira, Goethe--ren ingurura, joana. Harreman hurbilak egon ziren bi hirietako taldeen artean. Goethe-k kidetasun nabariak zeuzkan erromantiko gazteekin, baina 1805etik aurrera (ez ahantzi Jenako gudua, 1806) urruntze bat sumatzen da. 1813an, Jena--ko ikasle abertzaleek Napoleon-en aurka armak hartzean, Goethe-k geroz eta urrunago ikusiko du bere burua mugimendu erromantikotik, hainbat baliotan haien gurasoa izan arren.

Zientziek, esan bezala, zerikusi hurbila izan zuten mende honen nortasuna definitzean, eta Filosofiari ere aitortu diogu bere lekua. Baina, Erromantizismoari gagozkiola, ideien eta mentalitateen aldetik begiratzen badugu, batez ere literatur lanetan aurki dezakegu espreskienik mugimendu haren aurpegia.

Hemeretzigarren mendean zehar garatzen diren literatur eskolek badute beraien artean iraupenean edo erreakziotan erlaziorik.

Literatur joera desberdinek, elkarren arteko ezaugarri orokorrak izan zituzten eta funtsean XVIII. mendeko literaturari kontrajarri ziren. Denak batera kontuan harturik, mende berri hartako literaturari "modernoa" deituko genioke. Ezaugarririk behinenak zerak ditugu: nazionalismoa, gizakiarekiko kezka, izadiarekiko grina, askatasun-gosea, erlijioa baztertu edo sentimendu-modu berriz bizitzea, aldakuntza sozialen gogoa, arte-zaletasuna.

Nobela, poesia eta antzertia dira genero gogokoenak. Talde eta biltoki literarioak antolatzen ziren. Arte-munduan, Literatura ez zen isolatuta geratzen, musika eta arte plastikoekin erlazionatuta baizik. Literatur aldizkari eta egunkariak agertzen ziren, saioak idazten eta kritika lantzen. Literatur esparrutik at, bidaiez, historiaz, politikaz, zientziaz, soziologiaz eta arteaz idazten zen.

Aurreko mendearen azkenetan jarritako joeren gain eman zitzaion hasiera Literaturaren berrikuntzari. XVIII.eko idazle batzuek erromantikoaurreko bezala eman izan dira. Gehienak klasizismo garaiko poetak ziren, baina haien berezitasun batzuek Erromantizismoa iragartzen zuten. Haien sentimenduak, naturarekiko joera, iragandako mitologiaren edo Erdi Aroaren zaletasuna eta orainaldiarekiko desadostasuna ziren ezaugarririk arruntenak.

Erromantizismoaurreko talde honetako lanen artean izenda daitezke Rousseau-ren "Eloisa Berria" (1761) Frantzian, J. Macpherson britainiarraren poesia osiandarrak (1760-1763) eta Goethe alemaniarraren "Werther" (1774).

Mende honetako Literaturaren aldi eta eskolak honela bana daitezke, gaingiroki bederen laburtuz.

A) ERROMANTIZISMOA

1797 eta 1810 urteen tartean kokatzen da erromantizismoko lehen mugimendua, baina bere loraldi betea ondoko urteetan eman dezakegu, nahi bada, 1820-1850.etan batipat.

Erromantizismoan ere badaude desberdintasunak. Iparraldeko herrialdeek, adibidez, iraganaldiko elementu nazionalak birbaloratu egin zituzten; poeta ingelesek lirismoa maite zuten. Frantsesek, beren aldetik, modernitate-zentzu bizi bat zekarten.

Erromantizismoa eta gizartea

"1806ko saiakera bateko Bonald-en esaldi sonatu batek hala zioen: 'Literatura, gizartearen adierazpena da'. Ondoren, 1825etik aurrerako poeta erromantikoen hitzaurre borrokarietan agerikotzat emango da gizarte berri batek literatura berri bat behar duela. Izan ere, literaturaren eta gizartearen arteko harremanak kasik definiezinak dira. Berritzaileek --ez kosta gabe, noski-- arte guztietan beren jendartea sortzen dute, publiko horren beharrizanei mekanikoki erantzun baino gehiago. Sarritan idazleek erakusten diete irakurleei zer desiratu behar duten edo zer maita, zer daramaten beren baitan jakin ere gabe. Maiz gertatzen da erregimen atzerakoiek literatura erabat kontrakoa sortu edo topatzea (I. eta II. Inperioetan, Italia faxistan, adibidez), eta alderantziz. Staël andereak ongi idatzi zuen (...): Literatura erromantikoak 'gure lurrean zeuzkan erroak(...); gure erlijioaren adierazpena zen; gure historia gogoratzen zuen". (H. PEYRE)



H. HEINE (1797-1858). Düsseldorf-en jaio zen, eta Parisen hil. Amodioaren ezina, Ipar Itsasoko melankonia zituen gai maiteenak. Bidaien poeta ere bada, errealitatea eta fantasia elkarrekin nahasiz. Hegel-en ikaslea izan zen Berlin-en, eta lehenengo hogei urtetan bederen Hegel-en idealismotik ikusi zuen gizakia Heinek ere. Frantziaren mireslea izan zen eta azkeneko hogeitabost urteak Parisen eman zituen.

Herri edo hizkuntza bakoitzak era berezia zuen, eta sortzaileek ere indibidualismo nabaria erakutsi zuten. Stendhal (1783-1842) idazleak honela definitu zuen joera hau: "Belaunaldi batek, arte-era berri batez, sentiberatasun berria adierazteko dituen eskubidea eta beharra".

Ausarta zen Erromantizismoko Literatura, berezkoa, pertsonala batez ere. Poetak bere intimitatea eta mamitasuna agertzen zituen, inpresioa eta sentimenduak. Iragana goraipatzen zen. Erromantikoak maite zituen eskualde exotikoak, paisaje hunkigarriak. Lirismoa eta espresibitatea ere ezaugarri garrantzitsuak ziren.

* 1. Alemania

Alemaniako literatur erromantikoa errealitatetik urrun landu zen; bestalde, epika germaniar zaharraz eratu zen. Gehien nabarmendu ziren poetak F. **Hölderlin** (1770-1843), F. **Novalis** (1772-1801) eta H. **Heine** (1797-1856) ditugu batez ere. Azken hau aparteko lirikoa izan zen.

HEINEren KEZKAK

(Goethe-ren jarraitzaile izandako Heinek azkenik arbuiatu egin zuen maisua, batez ere konpromezu politikoetatik urrun geratu zelako. Alemania berri bat jaioko zela espero zuen A.W. Schlegel izan zuen bere aholku-emailea).

"Aro artistaren bukaera, goethe-zaletasunaren amaia ere bada" (1830). "Iraultza literaturan sartzera doa (...) eta neu naiz agian iraultza horren ordezkari bakarra" (1830).

"Frantsesak dira erlijio berriko herri hautatua; hauen hizkuntzan idatzi dira lehenengo ebanjelioak eta dogmak. Parise da Jerusalem berria, eta Rhin ibaia, libertatearen herria eta filistearren herria banatzen dituena" (1826). "Inoiz ez die frantsesei aleman batek nik bezainbateko sinpatiarik izan, ez literaturan, ezta gizarte gorenean ere".

"Nere bizitzako egitekorik handiena, Alemaniaren eta Frantziaren arteko adiskidantza bihozkor baten alde lanegitea zen. Uste dudanez, badut horretan merezimendurik, nere aberkideen artean hainbat frantsesen aurrean ere".

(H. HEINE: Testamentuan, 1851)

LORD BYRON (1788-1824). Noble poeta ingeles honengan erromantizismo politiko-literarioak bat datoz. Honen jokabideak beste inork baino gehiago egin zuen Greziaren askatasunaren alde.



* 2. Ingalaterra

Lord Byron (1788-1824), J. **Keats** (1795--1821) eta P.B. **Shelley** (1792-1822)gertatu ziren poeta garrantzitsuenak. Poesiatik kanpo, aipa dezagun Walter **Scott** (1771-1832) nobela historiko erromantikoa sortu zuena.

* 3. Frantzia

Alemaniatik jaso zuen Frantziak erromantizismoaurreko eragina. Mugimendua F.A. **Chateaubriand** (1768-1848) erromantiko kristauarekin hasi zen. "Kristautasunaren Jeinua" idatzi zuen (1802).



Erromantizismoa bete-betean bizi izan zen Frantzian: poesia, antzertia eta nobela, hirurak hartu zituen. Gogora dezagun, lehenik, Euskal Herrian ere bizi izan zen Victor **Hugo** (1802-1885): Honen obra zabalean, lirismoz betetako lan poetikoa daukagu, eta nobelatan "Les Misérables" (1862) azpimarra dezakegu. "Hernani" antzerkiko hitzaurrea Erromantizismoaren manifestutzat hartu izan da (1830). Hugo-k artistaren askatasuna aldarrikatu zuen, "teoriak baztertu" eta "eredu eta arauak" hausteko eskubideak eskatuz. Mugimendu erromantikoaren maisutzat aitortu izan da Victor Hugo.

VICTOR HUGO (1802-1885). "Chateaubriand izan nahi dut edo deusez" idatzi zuen bere eskola-lan batean Victor Hugo-k. Hamabost urterekin hasi zen sariak jasotzen. 1848an politikara pasa zen, eta Napoleon II.arekin erbestealdi luzea jasan zuen (1851-1870): demokraziaren profeta bilakatu zen. Komunaren gehiegikeriak kondenatu arren, "komundar" iheseginei babesa eman zien eta ondoko errepresioa gaitzetsi egin zuen. Azken urteak, onarpen sozial zabalenaz inguratuta bizi izan zituen. Hiletak apoteosi nazional bat izan ziren Frantzian. (Ik. ondoko testua).

V. HUGO EUSKAL HERRIAN

"Victor Hugo kanpotarra zen, arrotza zen Euskal Herrian. Bertakoak egingo lukeen baino agian hobeto, laster egin zuen esperientzia, hitz batzu euskaraz hitz eginez gero, jendeak, lehen fidakaitzak, zein adiskideki hartzen zuen. (...). Baina beste hau zen, zoragarria, aipatzera nindoana. Herri euskaldunaren berezitasuna, ez espainol eta ez frantsestasuna, azpimarratu eta, bere gogoeta batean honela jarraitzen du: 'Aspect singulier d'ailleurs et digne d'étude. J'ajoute qu'ici un lien secret et profond, et que rien n'a pu rompre, unit, même en dépit des traités, ces frontières diplomatiques, même en dépit des Pyrénées, ces frontières naturelles, tous les membres de la mystérieuse famille basque. Le vieux mot Navarre n'est pas un mot. On naît basque, on parle basque, on vit basque et l'on meurt basque. La langue basque est une patrie, j'ai presque dit une religion!'

Ez dugu iruzkin batekin dena lardaskatuko; aski izango da berriro irakurtzea (A!, eta 1843koa da)". *(J. AZURMENDI)*

A. **Lamartine** (1790-1869) poeta melankoliko eta delikatu bezala gogoratu ohi da, batez ere bere "Gogoeta poetikoak" (1820) aipatuz. A. **Dumas** aitak (1802-1870) nobela historiko ezagunak idatzi zituen: "Hiru mosketariak" (1844), "Hogei urte ondoren" (1845), "Bragelonne-ko Bizkontea" (1848) eta "Monte-Cristo-ko Kontea" (1845). Frantziako Erromantizismoak, ba, izen handiak eman zituen, olertian ezezik, prosan ere.



M.J. LARRA (1809-1837). Bizitza oso laburra izan zuen: hemeretzi urterekin hasi zen idazten eta hogeitazazpirekin hil zen, bere buruari tiro bat eman da. Kazetari maisua izan zen, politikan sartua, oso ibilia.

* 4. Espainia

Erromantizismo espainola, Napoleon-en aurkako gerratearen ondoren finkatu zen. Literatura erromantiko honi ez zitzaion entzute handiko lumarik falta izan.

Kazetari eta kritikari sozial bezala, M.J. **Larra** (1809-1837) gazteak lan oparoa bete zuen bizitza laburrean. J. **Espronceda** (1808-1842) ere gazterik hil zen, baina ez erbestealdi politiko luzea (1824-33) eta ondoren arrakasta sozial

eta literarioa ezagutu gabe. Espronceda-ren poesia antologia guztietan geratu da, eta "El estudiante de Salamanca" edo "El diablo mundo" poemak Erromantizismoaren fruiturik behinenak bezala gogoratu ohi dira.

Antzertira gatozela, Rivas eta Zorrilla ekarriko ditugu hona. Duque de **Rivas** (1791-1865) neoklasizismo batetik hasita, Erromantizismo asebetera iritsi zen, bere "Don Alvaro o la fuerza del sino" (1835) draman sentimendu eta kontraesan erromantiko guztien laburbilduma eskainiz. Gazteagoa zen José **Zorrilla** (1817-1893): Luze-zabal handiko obra eman zuen; etorri ugariko sormena zuen Zorrilla-k. Honen lanetatik gogora dezagun, gutxienik, "Don Juan Tenorio" drama (1844).


EL VAPOR

PERIODICO MERCANTIL, POLITICO Y LITERARIO

DE CATALUÑA,

publicado bajo los auspicios de S. E. el

CAPITAN GENERAL,

DEDICADO AL MINISTERIO DE FOMENTO GENERAL DEL REINO.


ODA A LA PÀTRIA (1833)

"El Vapor" aldizkarian eman zen argitara Aribau-ren olerki hau, katalantzaletasun erromantikoari ateak irekiz, izan ere "Renaixença" deitua, nolabait ere poema honekin hasi zela esan izan da. Fernando VII.a hiltzean, ideia berriek bestelako erraztasunak izan zituzten etorkizun-bideak urratzeko. Penintsula Iberiarrean, orain hasita gerotxoago, susperraldi bizia izan zuten abertzaletasun literarioek, laster ohizko alderdi liberaletatik kanpo, mugimendu politiko bilakatzen zirela (Katalunia, Galizia, Euskal Herria).

B.C. ARIBAU (1798-1862). Idazle, ekonomista, takigrafo eta politikoa zen. Liberala izan zen, baina geroz eta moderatuagoa. Madrilera joan eta han egin zuen bere bizitza profesionala: negozioak, Salamanca bankariarekin, eta politika, Haziendan. Madril-aldi honen aurretik eta ondoren arduratu zen Kataluniaz eta bertako kulturaz. Hainbat ekintza ekonomiko eta literarioren ondoren, pobre eta etsita hil zen, azken urteak Barcelona-n eman ondoren. W. Scott eta A. Manzoni-ren nobelen itzulpenak bultzatu zituen, eta bere aldetik Schiller-en ideia estetikoak zabaldu.



LORE-JOKOAK. Erromantizismoak sustaturiko abertzaletasunek hizkuntzaren inguruan, literaturan eta kultur lanean bildu zituzten beren indarrak. Hizkuntzaren aldeko ahalegin hauetan, abertzalegoak Lore-Jokoak eta jaialdiak eratu ohi zituen azalpen sozial nagusi bezala: Katalunia (Jocs Florals, 1859), Galizia (Xogos Frorás, 1861), Euskal Herria (Euskal Jaiak, 1879). Marrazkian ikusten duguna Barcelonako 1868ko Lore-Jokoak dira.



"RENAIXENÇA". "REXURDIMENTO". "PIZKUNDEA"

Katalunian, Galizian eta Euskal Herrian aspaldidanik erorita edo inoiz gehiegi landu gabeko hizkuntzek loraldi berriak ezagutu zituzten. Nortasun kultural handiko garaia gertatu zen hau, horrelaxe izen bereziekin ezagutua. Herri hauetako idazleok gogoratzen ditugu hemen: Verdaguer-ek obra oparoa egin zuen, bere poema epikoetan; Rosalia, berriz, bere olerti lirikoagatik gogoratzen dugu. Arrese Beitia-k garaiko Euskal Jaietan lehen lekua irabazi zuen behin eta berriz. Korronte kultural abertzale hauek Europako kideko mugimenduen barruan ulertu behar dira.

Katalunia
J.VERDAGUER
(1845-1902)



Galizia
ROSALIA DE CASTRO
(1837-1885)



Euskal Herria
F.ARRESE BEITIA
(1841-1906)





ANTZERTI ERROMANTIKOA. Bere gehiegikerien ondorioz, antzerti erromantikoa farregarri bihurtu zen, gustua zerbait aldatu orduko. Marrazkia: eszenategian, aktoresa zerratzera doa mairua, "paradisukoek" beheko aterkidunen gain negar egiten duten bitartean.

B) ERREALISMOA

Mendearen erdi inguruan azaltzen den Errealismoa, alde batzuetatik 1830az gero Erromantizismoak zuen kezka sozialari jarraitu zitzaion; baina Errealismoak beregainki hartu eta erabiltzen zituen gaiak, burges nahiz langileriarenak, hau da, erromantikoen giro erdiarotarretik eta exotismoetatik aldenduta. Errealismoak gainera garai, giro eta pertsonaien deskribapenari lekurik behinena eman zion. Gaiek giza egoera ekonomiko eta politikoa azaltzen zuten. Literatura hau, errealitateari atxekia eta zehatza da. Errealismoa, literaturan, gizartearen kritika eta joera antiburgesarekin azaldu zen.


Erromantizismo-garaian gehien landutakoa poesia izan bazen, Errealismoak nobela eta antzertia erabili zituen berezikiago.

FRANTZIA izan zen Errealismoaren sorterria, eta bertan aurkitzen ditugu mugimenduko izenik sonatuenak: Honoré de **Balzac** (1799-1850) nobela errealistaren sortzaile bezala ikusia izan da, nahiz eta haren lana, mendearen lehen erdialdian

HONORÉ DE BALZAC (1799-1850). XIX. mendeak eman zituen erromangile handietako bat da Balzac. Idazle profesionala izan zen: bere bizitzako betekizun bezala hartu zuen egiteko hori. Estilo, teknika eta ofizioko idazlea izan zen, azkenik obra erraldoia burutuz.



F.M. DOSTOIEVSKI (1821-1881). Aita mozkorraren eta ama tisikoaren artean hazi zen Dostoievski, bera ere gaixoa, epilepsiak jota. Mendebaldeko literatura ongi ezagutu zuen. Giza kontzientzia psikologiko eta moralaren gatazka eta kezka gordinenak topatzen ditugu honen obran.



burutu eta erromantizismoarekin erlazionaturik egon. "Giza Komedia" (La Comédie humaine, 1841) izenburuarekin, batez ere burgesiaren deskribapena azaltzen zuen nobela-multzo bat idatzi zuen. Gustave **Flaubert** (1821-1880) nobelistak Errealismoaren lan maisua eman zigun "Madame Bovary" (1856).

INGALATERRAri ere ez zitzaion falta izan luma onik. Gogora dezagun Charles **Dickens** (1812--1870). Gaindiezinezko era batetan deskribatu zituen Londres-eko Industri Iraultzako giro eta injustiziak. Bereziki haurren begiekin ikusitako mundu bat utzi zigun bere lanetan: "Oliver Twist" (1837), "David Copperfield" (1850).

ERRUSIAN, besteak beste (Pushkin, Gógol, Turguêniev, etab.), nobelagintzan aparteko pertsonaia izan zen Fedor M. **Dostoievski** (1821-1881) ekarriko dugu hona. Pertsonalki jasan zituen neke gogorrengatik gizakiarekiko errukia barrutik sentitzen zuen. Honen obra osotik aipa dezagun bat: "Karamazov Anaiak" nobelan (1880) gizakiaren miseriaz eta bekatuaz ihardun zuen, Errusiaren arima mistikora itzuliz.

DOSTOIEVSKIren IRAKURLE SOVIETARRA

"Hogeitamar urte eta gehiagotan debekatua egon da Dostoievski Soviet Batasunean; gaur egun errehabilitatua izan da eta Errusia irabazten ari da. 1955eko azken hilabeteez gero, haren obra osoak bapatean agertu dira merkatuan, edizio herritar handitan. Dostoievski-ren obra, 'mundu kapitalistaren kontrako errebolta'ren adierazpen bat bezala ikusten dute orain sovietarrek.

Nola irakurtzen dute marxistek Dostoievski? 'Objektiboki'; erroman hauek, Errusia zaristaren mundu kapitalistako gizakiaren egoera tragikoa deskribatzen dute: klase edukileen korrupzioak etsipenera, krimenera edo suizidiora eztenkatua. Bestalde, 'subjektiboki', irteerarik gabea ikusten du egoera hau, edo, prezeskiago esateko, hark proposatzen duen irtenbide kristaua prozesu historikoaren kontrakoa da. (...) Marxistek, beraz, onartzen dute haren obraren egia objektiboa eta arbuiatu egiten dituzte autorearen ideia subjektiboak".

(S. MELCHIOR-BONNET)

ESPAINIAN ere ez zen Erromantizismoaren ondoko garai hauetan garrantzizko nobelagilerik falta izan, elaberriaren loraldi bat ekarriz: Pedro Antonio de **Alarcón** (1833-1893), Juan **Valera** (1829-1905. "Pepita Jiménez") eta José M. de **Pereda** (1833-1906). Bereziki izendatu behar da hemen Benito **Pérez Galdós** (1843-1920). Nobelagile honek lan gaitza egin zuen, eta bere "Episodios Nacionales" nobela-bilduman (1873-79, 1898-1913) XIX. mendeko Espainiaren erroman handia utzi zuen idatzita. Bestalde, "Fortunata y Jacinta" (1887) eta "Misericordia" (1897) bezalako obretan bere garaiko giroa oso ondo azaldu zuen Galdós-ek.

Galdós/Pereda/Valdes

"Galdós-en ideologia liberala, Pereda-ren tradizionalismo liberalarekin oso kontrajarrita dago --nahiz eta honen adiskide mina izan-- eta Galdós-en bizitza --apala eta handiusterik gabea-- Valera-renetik erabat bestelakoa da, honen finezi antsiarik gabea. 'Pepita Jiménez'en autorea izaera aristokratikoko humanista da; Galdós, ostera, Madrileko klase ertainarena, giro herritarraren edo historiaren azterketan bizitza espainola bihotz zabalki ulertzen ahalegin osoa jartzen duen gizon xume eta tolesgabearena".


(J. GARCIA LOPEZ)

C) PARNASIANISMOA

Frantzian sortu zen, 1860ko hamarkadan hau ere, Erromantizismoaren aurkako erreakzio bezala. Talde honek oso labur eman zuen mugimenduaren azken xedea: "Arteagatiko artea" da landu behar dena, poesiaren perfekzio teknikoa eta edertasun asebetea bilatuz. Poesia objetiboa nahi zuten, erromantikoen intimismotik iheseginez eta formaren harmoniarik landuena eskainiz.

Mugimenduaren talde-nortasuna 1866-1876 urteetan argitara emandako poesi bildumetatik dator, izan ere ez bait zen iritsi talde hau benetako Eskola bat egitera. Th. **Gautier** (1811-1872) eta Ch. **Baudelaire** (1821-1867) izan ziren joera honen maisu nagusiak. Baudelaire-k, gainera, hurrengo korronteari, Sinbolismoari, ere eman zizkion oinarriak bere "Gaizkiaren Loreak" olerki-bildumarekin (1857).

Ch. BAUDELAIRE (1821-1867). Gaixoa zen Charles. Familiarekin ez zen konpondu, eta gizarteak arbuiatuta bizi izan zen, edariari eta drogari emanda. Bere poesiagatik tribunalek kondenatu egin zuten. Baina ederraren sena oso bizia eta aitzindaria izan zuen olerkari honek. Baudelaire-ren mundua hautsia da, kontraesanez betea, hala ere etorkizun-intuizioz ernaria.



BAUDELAIRE. DROGA ALA INFINITUA?

"Baudelaire manikeua da, jite deabrutar bat duela. Ez da jantsenista: halakorik izan balitz, kristaua izango bait zen. Izan ere, kristau izatea, besteren artean, Eroskundea sinestea bait da, eta hortaz ez bait zen hura arduratzen. Bere etsipen sakonak eragotzi egiten zion salbamena, arte-lanetik kanpo, bestetan ikustea. Instanteko salbamen bat, biderik arriskugarrienetan bilatua, gutxien kristau zirenetan: erotismoa, drogak, sortzailearen kalkulu txiki berekoietan. (...). Baina horrek ez dio eragotzi Baudelaire-ri katolizismoari bere 'mitologia' hartzea (...). Baudelaire, sozialista saint-simon-darra da, gero gizatiarra eta nolabait kristaua ere bai, 'Salbamen Publikoa' aldizkaria sortu zuenean (1848). Infinituak eta betikotasunak obsesionatuta zegoen, eta horrek eman dizkio haren poesiari bere dimentsio metafisikoa eta oihartzun kezkagarriak".

(Cl. PICHOIS)

D) SINBOLISMOA

Mugimendu honetan ere, aurrekoan bezalaxe, poesia da funtsezkoena. Frantzian garatu zen mugimendua, 1880-1895etan. 1880aren inguruan poesi aldizkariak agertu ziren, eta 1886an Jean **Moréas**-ek (1856-1910) eman zion izena mugimenduari, bere "Manifestu sinbolista"rekin.

Sinbolistek, bertso libreaz barru-barruko poesia burutu zuten; impresionista, musikala eta esangura materiala gainditzen zuena. Olerki bateko hitzek, arrazoi eta esangura logikoa gaindituz, doinu edo margozko marra batek eduki zezakeen balore estetikoa dute.

Mugimendu honetako maisutzat Stéphane **Mallarmé** 1842-1898 onartzen da. 1844-1896 urteetan lan isil bat egin ondoren, Paul **Verlaine**-k eman zuen ezagutzera (1884) oraindik oso gutxi ezaguna zen Mallarmé. Hauen lanek eta sinbolismo-mugimenduko poeta gehientsuenek, XX. mendeari hizkuntza poetiko berri bat eskaini zioten. Gizarteari buruz, parnasianistak bezalatsu, garaiko giza problematatik at egon ziren.

IV. XIX. MENDEKO ARTEA

A) MUSIKA

XIX. mendean sortu ziren musika-mugimenduak hiru hauetara bil genitzake: Erromantizismoa, Nazionalismoa eta Inpresionismoa. Baina XVIII. mendetik zetorren Klasizismoak luzatu zuen XIX.ean ere bere bizitza, batzuetan berri haiekin batera, bestetan baita mugimendu nagusi bezala ere.

Espainian eta Euskal Herrian dugun musika-mugimendu nagusia, Klasizismoa da, eta musikagile garrantzitsuena Joan Krisostomo **Arriaga** (1806-1826) bilbotarra dugu. Hamaika urte zituela, jada okteto bat idatzi zuen, eta bi urte geroago eman zen lehenengoz haren opera "Deusez eta asko". Hamasei urte zituela joan zen Parise-ra, hango Kontserbatorioan ikastera. Bi urteren buruan kontrapuntuko maisuordezko izendatu zuten han. Eta, Parise-n hil zen, oso gazte, hogei urterekin. Urte gutxitan, gailur gorenari gaina hartu zion Arriagak. Mozart-engandik hainbat iradokizun jaso arren, ez zuen behin ere bere nortasun musikala ito, eta originaltasun handiko sorkuntzak burutu zituen.



MUSIKA: Durrio-k honelaxe ikusi zuen, estatua honetan irudikatuta, Arriaga musikagilearen lana: Entzunezko artea den Musika irudi plastiko bilakatu da, beraz, hemen.

Europa-n Klasizismoaren eta Erromantizismoaren artean zubi egingo zuena Ludwig van **Beethoven** (1770-1827) izan zen. Beethoven-i buruz esan dugu lehenago ere zerbait (ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa", 355 or.). Azken klasikoa eta lehen erromantikoa dela esan ohi da. Eragina hain handia

Beethoven: garaiko artista

"Jatorriz flandestarra, Bonn-en jaio zen Beethoven. Askatasunaren, berdintasunaren eta anaitasunaren nahia bere erpinean zegoela iritsi zen Vienara. Orduan, ideal hori lor zitekeela uste zen, bere gizatasunari zerion indarraz gizakia berreroskundea lortzera zihoala alegia. Betetasun eta nobleziaz bizitzeko esperientziaren bidez berreroskunde hura irabazteko desira nabaria da Goethe-ren eta Schiller-en drama eta olerkietan. (...). Ingurugiroak gizon baten jarreran norainoko eragina izan dezakeen ikusteko adibide bat daukagu hemen. Erromantizismoaren lehen aldietako idealismoa eta Beethoven-en idealismo musikala bat egin ziren, garai haietako izpiritua halako obra indartsuetan gorputz hartzeko".

(EL LIBRO DE LA MUSICA)

izan zuen, ezen, honen sorkuntza harez geroko musika-lanen oinarri gertatu da. F. Schubert eta maisu erromantikoak (Weber, Schumann, Mendelssohn eta Berlioz) Beethoven-en ikasleak dira, Liszt, Wagner eta Brahms bezainbat.

Beethoven-en aparteko indar espresiboak, baina beti ere logikoak, Erromantizismo harramantsu bati oso munduan kokaturiko klasiko baten kategoria eman diote; duen modernotasunak gaur eguneko musikagileenganaino hurbiltzen du.

Mugaezineko jeinu bat bezala sentitzen dugu Beethoven.

Lanik funtsezkoenak molde ainitzetakoak ditu: Sinfoniak, Piano et orkestarako kontzertuak, Sonatak, Laukoteak, Orkesta eta bibolinerako kontzertua eta "Fidelio" opera.

* 1. Erromantizismoa

Erromantizismoa, XIX. mendearen lehen erdian garatu zen gehienbat, eta mendea ia bukatu arte iraun zuen. Mugimendu honen bultzadak klasizismoaren arau zehatzak emeki-emeki apurtu egin zituen. Musika erromantikoak barne-askapena zekarren, eta malenkoniaren zaletasuna; sentimenduaren bulkada eta maitasunaren eta gauaren espresioa agertzen zituen. Sentsibilitatea arrazoimenaren gainetik dago, eta musikagileak bere artelanetan gorabehera pertsonalak kontatzen dizkigu.

Erromantikoek gogozkoena zuten musika-tresna pianoa zen, artistaren barne-isilpekoak jaso eta banan banan aletuz joateko: Forma musikal gogozkoenak, ostera, lied, poema sinfonikoa eta

forma txikiak dira (impromptuak, nokturnoak, eta abar).

Musikagile ospetsuenak Weber (1786-1826), Schubert (1797-1828), Mendelssohn (1809-1847), Chopin (1810-1849), Schumann (1810-1883), Berlioz (1803-1869), Listz (1811-1886), eta Strauss aita-semeak ditugu. Eta mendearen azkenaldean Brahms (1833-1897) eta Wagner (1813-1883).

F. CHOPIN (1810-1849). Poloniaren ezbeharrak aurreko mendetik zetozen, eta Viena-ko Kongresuan (1815) "betirako Errusiako inperioarekin bateginda" utzi zuten nazio sufritua. Gero, Chopin-ek hogei urte zituenean gertatu zen abertzaleen altxamendua (1830-1831). Testuinguru historiko honetan, Pariseko bere erbestetik idatzi zuen musikagile honek bere obra. (Ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa", 424-425. orr.)



* 2. Nazionalismoa

Erromantizismoaren semea dela esan genezake musika-nazionalismo hau. Europa guztian hedatu zen korrontea, herri bakoitzak bere izaera eta nortasuna adierazi beharra erakutsiz. Eskakizun horrek herrien ohituretan eta folklorean sakontzea ekarri zuen, ondorioz. Eskola Nazionalak sortu ziren; denen artean, Errusiarra gailendu zen batez ere: Glinka (1804-1857), Mussorgski (1839-1881) eta Rimski-Korsakov (1844-1908) musikagile errusiarrek Europa guztiaren luze-zabalean hedatu zuten beren musika.

MUSIKA NAZIONALISTA

"Europako nazionalismo musikala bi zutaberen gainean eraikitzen da: musika herritarra eta hizkuntza, etnia europarren bi adierazpen bezala. Musika eta mintzaira, Gizadiaren bi bizi-adierazpen dira; baina, ez dago zalantzarik, denbora-espazioetan zehar kontzeptu orokor horiek musika eta hizkuntza nazionaletan mamitzen dira. Hauen gain jasotzen du Erromantizismoak, Rousseau-ren hitzetan esateko, bere enuntziatu abertzalea: 'Musika oro nazionala da, bere oinarrizko nortasuna hizkuntza propiotik datorkio; hizkuntza horren prosodia da karektere hori ematen diona'. Erromantiko guztiek, aspertzeke, errepikatu zituzten honelako esaldiak. Baina mundu hau paradoxaz beteta dago: bi fenomeno kontrajarri garatuko dira Europan XIX. mendean. Alde batetik, hizkuntza eta musika nazionalak geroz eta gehiago landuko dira, eta bestetik, Europa alderik alde hartu zuen italianismo musikala nagusitu zen". *(J.A. ARANA MARTIJA)*



B.SMETANA (1824-1884). Dvorák--ekin batera, musika nazionalista txekiarra sortu zuen. 1848ko iraultzan parte-hartu eta porrotegin ondoren, abertzaletasun-legamia ekarri zuen musika-mundura, kontzertu-musika abertzale bat sortuz. Operak eta poema sinfonikoak utzi zituen bereziki. Hauen artean "Má vlast"(=Ene Aberria). Bide beretsutik lan gotorra burutu zuen A. Dvorák--ek ere, batzutan folklorearen doinuak zuzenean erabiliz, eta bestetan etorria iturri herritar beretik dastatuz.

Lehenago aipatu ditugunetatik batzuek espreski egin nahi izan zuten musika nazionalista: Chopin-ek, adibidez, Polonia zapalduaren musika abertzalea utzi zuen; baina B. **Smetana** (1824-1884) eta A. **Dvorak** (1841-1904) txekiarrak, E.H. **Grieg** (1843-1907) norvegiarra edo gure egunerarte lanean ihardun duen J. **Sibelius** (1865-1957) izan dira nazionalismoak eman zituen fruiturik seinalagarrienak.

Erromantizismotik ikasita, joera abertzale honek musika herritarraren erroetatik edan beharra sentitu zuen, obra berrien unibertsaltasun bizia norberaren herritik ere dastatuz.

* 3. Inpresionismoa

XIX. mendearen azken herenean sortu zen. Inpresionismoa, mugimendu handiko egoera baten espresioa izanik, gelditasuna baztertuz, jariotasuna hartu zuen bere jokabidetzat. Gaietatik, arruntak, egunerokoak eta zehatzak interesatzen zitzaizkion. Konposizioek bukatu gabekoak ziruditen, denboraren harian dena aldakorra, mugikorra dela adierazteko. Ederra, mugimenduaren estetikan bilatzen zuen, entzulea bera ere mugitzera behartuz. Musikagile ospetsuenak, Claude Debussy eta Maurice Ravel ditugu.


Claude **Debussy** (1862-1919), paristarra zen. Musika inpresionistaren sortzailetzat hartu izan da; musikari akorde berriak, sonoritate arrotzak, baina atseginak, ematea lortu zuen. Bere artelan garrantzitsuenak hauek izan litezke: "Pianorako preludioak", "Orkestarako konposizioak", eta "Pelea eta Melisenda" opera.

EUSKAL MUSIKA NAZIONALISTA

"Mendea bukatzean badago Euskal Herrian gertaera esanahitsu bat: Gure erakunde musikalek, gure musikariek eta ikasleek moztu egiten dute Madril exotiko eta italiazalearekin beren zilborrestea. Europeismo-antsi moduko bat sumatzen da (...). Baina ez da inportatu nahi handik halako europeismo musikal soil bat, baizik eta une hartako euskal mugimendua, XX. mende-hasierako Europa distiratsuan, bere musika-nortasun propioarekin txertatu nahi da".

(J.A. ARANA MARTIJA)

Maurice **Ravel** (1875-1937) euskalduna dugu. Lapurdiko Ziburun jaioa. Haurra zela eraman zuten Parisera eta bertako Kontserbatorioan bete zituen musika-ikasketak. Debussy bezala, inpresionismoaren eragile eta adierazle izan zen. Pianorako eta orkestarako musikatu zituen lanik gehienak. Ravel Parisen hil zen, 1937an. Bere artelan nagusiak "Le Tombeau du Couperin", "Le Valse", Boleroa, zortzikoaren erritmoan egindako Trioa, eta Euskal Kontzertua izan ziren.




MAURICE RAVEL (1875-1937). Ziburun jaio zen; aita Saboia Garaikoa zuen, ama euskalduna. Zazpi urtez gero hasi zen musika sortzen. Ravel-en musikak jolas-zentzua du batez ere, eta ez du erabiltzen bere sentimendua edo filosofia azaltzeko: inpertsonaltasun jaso batez hitzegin nahi du. Eraikuntza landua du, teknika harmoniko maisua. Garun-tumore baten ondorioz hil zen, azken urteetan gaixorik egon ondoren (1933-37).

B) ARTE PLASTIKOAK

Artelan plastikoen historian, XIX. mendeko arte-mugimenduetatik honako hauek gogoratuko ditugu: Neoklasizismoa, Erromantizismoa, Errealismoa eta Inpresionismoa.

* 1. Neoklasizismoa

XVIII. mendearen erdialdean sortu zen eta zenbait Estatutan XIX. mendearen erdialderarte iraun zuen. Barrokoaren eta Rococo-aren estiloen aurkako erreakzio bezala azaldu zen. (Ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa", 431-433. or.). Bere ezaugarriak Aintzinate klasiko greko-erromatarrean aurkitu zituen, ereduak handixe hartuz.



J.G. SOUFLOT (1713-1780): Panteoia (1764ean hasia). Aintzinatera itzuliz, arkitektura razionalista bat moldatu nahi izan zuen, bide horretatik arkitektura modernoari oinarri nagusi bat emanez. Gotikoaren eta Barrokoaren estetikak kondenatu arren, jakin zuen hauen estruktura-balioak ulertzen.

a) Arkitektura

Arkitektura neoklasikoa monumentu klasikoak berreraikitzen ahalegindu zen, eta horretarako elementu erromatar eta grekoak erabili zituen batez ere. Frantzian, gainera, halaxe nahita, beste esanahi sozial bat ere izan zuen: Iraultzaren estilotzat hartu zuten. **Souflot**-ek (1713-1780) Panteoiaren eraikuntza gidatu zuen; J.A. **Gabriel**-ek (1698-1782) Concorde plaza. Berlin-en C.G. **Langhans**-ek (1732-1808) Brandeburg-eko atea eraiki zuen, eta Londres-en R. **Smirke**-k British Museum-a.

Euskal Herrian estilo hau ongien landu zutenak, Ventura Rodríguez, Olagibel eta Silvestre Pérez izan ziren.

Araban, Justo Antonio **Olagibel**-ek Plaza Nagusia edo Gasteizko plaza berria eta "Arquillos" etxe-multzoa eraiki zituen. Arabako Diputazioa, berriz, Martin Migel Sarazibar arkitektoari zor zaio (1833).

IRUÑEA, BILBO ETA DONOSTIA ZABALTZEN

"XIX. mendearen azken hamarkadetan, Euskal Herriko hiriburuetan proiektazio hiritar eta hirigintza-prozesu garrantzitsuak gertatu ziren. Hiri-sarea hiri erdiarotarretik at irten zen, Zabalduren ereduak jarraikiz (...).

Iruñean, 1888aren ondoren, hiri erdiarotarretik kanpo, Sarasate Pasealekua eta Gaztelu-Plaza zabalgune bezala hartuta, hiri burgesaren lehenengo etxadiak jasotzen hasi ziren Julian Arteagaren Zabaldura-proiektu baten arabera. (...).

Donostiak, 1854ean hiriburutza irabazi ondoren, 1863an hegoaldeko murruak bota eta lehiaketa baten bidez Antonio Kortazar-ek proposaturiko Zabaldura--Proiektua onartu zuen. 1850ean oraindik 15.000 laguneko hiria zen Donostiak ahalegin itzela egin zuen hirigintzan XIX. mendearen azken herenean, urbanizazio eta azpiegiturako obra handiak eginez. Kultur maila hiritar eta arkitektonikoa topatzen dugu Zabaldura-Proiektua betetzean. (...).

Bilbok, 1863an Amado Lázaro-ren Zabaldura-Proiektua arbuiatu ondoren, Atxukarro arkitektoaren eta Altzola eta Hoffmeyer-en Proiektua onartu zuen 1873an. Hiri berriak Abandoko ibaiondoak hartu zituen, Parte Zaharrarekin Arenaleko zubiaren bidez lotuz eta bizkarrezur nagusitzat Gran Vía eratuz".


(X. UNZURRUNTZAGA)

Gipuzkoan, Silvestre **Pérez**-ek XVIII. mendearen bukaeran, Mutrikuko elizaren proiektua eta, era berean, hiri ingurunea proiektatu zituen. Beronena dugu Donostiako Konstituzio Plazako Udaletxea. Ventura **Rodríguez**-ek Azpeitiko San Sebastian elizaren portada utzi zigun. Eta Manuel Martin **Karrera**-k Oñatiko San Miguel elizako dorrea eraiki zuen.


Bizkaian, Silvestre **Pérez**-ek Bermeoko elizaren (1807) eta Bilboko Plaza Berriaren proiektuak (1821) egin zituen. Atxuriko Ospitalea alde batetik eta J. **Rucoba**-ren Arriaga antzokia estilo neoklasikoan eraiki ziren. Eta Bizkaikoa bukatzeko, ezin dugu ahantzi Gernika-ko Juntetxea, Antonio **Etxebarria**-k 1824tik aurrera eraikitakoa.

Nafarroan, Ventura **Rodríguez**-ek katedrale gotikoari fatxada neoklasikoa erantsi zion (1783). Aipatzekoa da, gainera, Nafarroako Artxiboa (1896), eta Jose **Nagusia**-k 1847an jasotako Diputazioa. Gaztelu-Plaza eta San Lorentzo eliza ere gogoan har ditzagun. Probintzian, Ventura Rodríguez-ek Noain-go akueduktuan lanegin zuen; orobat, neoklasikoak dira, Gares-en, Santiago elizako eta Gurutziltzatuaren komentuko dorreak.

Lapurdin, azkenik, Baionako zenbait eraikin zibil estilo honetan jaso zen.




GERNIKAko JUNTETXEA. Estilo neoklasikoko hainbat eraikuntza publikoren artean eman behar da hau, A. Etxebarria-rena (1824).



NAFARROAko DIPUTAZIOA (1843-1847). V. Rodríguez-ek Nafarroara ekarritako tradizio neoklasikoan eraiki zuen Jauregi hau Jose Nagusiak. Eskola bereko besterik ere badago Nafarroan (Gaiarre Antzoki Zaharra, Tafalla-ko Udaletxea, etab.). Estilo sotil eta proportzio onekoa. Hiru oinplano ditu, lehenengoa arkupe batekin, bigarrena balkoi jarraituarekin, eta hirugarrena baoguneetan banakako balkoi eta erlaizarekin. Fatxada irtenak, estilo dorikoko tenplu greziar baten egitura du, askatasunez egina bada ere.



A. CANOVA (1757-1822): "Psike, Amodioak berpiztua". Jaiotzaz eta hezkuntzaz veneziarra zen, baina obrarik onena Erroman eman zuen. Neoklasizismoaren nazioartekotasunari esker, Europa osoan izan zuen ospe zabala. Teknika guztiz zaindu eta landua izan zuen. Canova-ren lanak arrakasta sozialik distiratsuena ezagutu zuen, Erroman ezezik, Napoleon-en Gortean ere.



J.A.D. INGRES (1780-1867): "Bainularisa". Forma klasikoen defendatzaile suharra izan zen. Erretratuak (errealistagoak), biluziak (linearen gozoa) eta gai historikoak (akademikoak) daude Ingres-en obran.

b) Eskultura

Eskultura barrokoaren espresibitate eta errealismoaren aurka, neoklasikoak Aintzinate klasikoaren eskulturen edertasunean aurkitu zuen bere etorria. Bide horretatik, eredu klasikoak imitatzera mugatu zen, beraz. Europan bi artista nabarmendu ziren, guztien gainetik: A. **Canova** italiarra (1757-1822) eta B. **Thorwaldsen** daniarra (1770--1844). Biek egin zuten lan gorte europarrentzat eta Vatikanoarentzat. Nazioarteko eskultore artistak dira biak, eta Thorvaldsen berezikiago. Canova-renak dira Paulina Bonaparte eta Maria Kristina Austriakoaren monumentua; Thorvaldsen-enak ditugu "Jason" (1803), "Maitasuna eta Psike", eta Pio VII.aren hil-monumentua.

c) Pintura

Pintura neoklasikoan marrazkia nagusitzen zaio margoari, eta konposizioak eskultur zentzu batez hornitzen dira. Gairik erabilienak erretratua eta gai historiko-mitologiak dira. Frantsesak dira gehien nabarmendu ziren pintoreak. Aurreko liburukian ("Mendez Mende. Aro Modernoa" 432--433.or.) esan zen zerbait J.L. **David**-i buruz (1748-1825), eta hemen aipa ditzagun beronen "Napoleon-en Koroazioa" eta "Sabinen bahitura" (ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa", 432. or.: "Horaziotarren zina").

David-en ikasleetan ezagunena J.A.D. **Ingres** (1780-1867) izan zen: hamarkada luzetan iraun zuen honen eraginak. XX. mendean ere oso ikusiak

dira Ingres-en "Odaliska" eta "Homero-ren Apoteosia".

* 2. Arte Erromantikoa


XIX. mendearen hasieran nagusi zen Neoklasizismoaren arau akademiko zurrunen aurkako erreakzioa da arte erromantikoa. Erromantizismoak irudimena, grinak eta, arrazoimena gutxietsiz, sentimenduaren nagusitasuna aldarrikatu zituen.

a) Arkitektura


Arkitektura erromantikoak Erdi Aroko estiloak imitatu zituen: bizantziarra, erromanikoa eta gotikoa. Baina batez ere azken hau nagusitu zen eraikin berrietan: neogotikoa.

Garai honetan zaharberritu zen zenbait katedrale handi ere. E.E. **Viollet-le-Duc** frantsesak (1814-1879), neogotikoaren teorizatzaileak, Karkasona-koa zaharberritu zuen, eta beste hainbat J.B.A. **Lassus**-ek (1807-1857), haren ikasleak: Pariseko Andra Mariaren Eliza eta Kapera Saindua berritu zituen honek.

Ingalaterran, Ch. **Barry**-k (1795-1860), "Gothic Revival" deituriko mugimenduaren barnean eraiki zuen Westminster-eko Parlamentua (ik. "Men-



E. E. VIOLLET-LE-DUC (1814--1879): Karkasona (zaharra eta berritua). Artista gutxi bezala, Viollet-le-Duc bere ondoko XX. mende honetan ere eztabaidakizun izan da. Monumentu eta hiriak errestauratu zituen, inoiz erabaki oso eztabaidatuak hartuz. Errestaurazio praktikoen ondoan, irakaskuntza teoriko zabala eman zuen Viollet-le-Duc-ek Erdi Aroko arkitekturari buruz; baina etorkizuna ere gogotan izan zuen, ondorengo Modernismoari hainbat iradokizun eskainiz. Ematen zen irakaskuntzarekin desakordioan zegoenez, honen berrikuntza bultzatu nahi izan zuen. Burdina eta zementua arkitekturarako irabazi beharra aldez aurretik ikusi zuen.



ARTZAIN ONAren KATEDRALEA (Donostia, 1897). Ia mendearen azkenean amaitu zen Manuel Etxabe-k jasotako eliza hau. Beranduko neogotiko eskas bat gertatu zen, Euskal Herriko antzeko beste eraikuntza berantiarrak bezalatsu (Gasteizko Katedrale berria, adibidez).

dez Mende. Aro Modernoa", 310. or.). Espainian ere zaharberrikuntzarik egin zen: Leon-go katedralean, Madril-eko San Jeronimo elizan. Katalunian, Barcelonako Katedraleari fatxada eman zitzaion.

Euskal Herrian ere baditugu antzeko kasuak. Gipuzkoan, Donostiako Artzain Onaren katedralea neogotikoa da (1897), baita karmeldarren eliza eta San Ignazio ere, gotiko hain garbiak ez izanarren. Gasteiz-en, berriz, San Bizente elizako dorrea eta Ospitaleko eliza, biak neorromanikoak ditugu eta neogotikoak Bisitazio Monastegiaren eliza eta katedrale berria.

Bizkaian ere ez da falta hauetako eraikin erdiarozalerik. Deustuko Unibertsitatea eta Bilboko Kanpo Santu berria erromanikoaren bidetik eraman zituen Epaltzak. Aldiz, neogotikoa da Butroe Gaztelu zaharberritua. San Frantzisko parrokia, Lagundiaren Egoitza, eta Begoñako dorrea dira neogotikoak.

Iparraldean ere, Lapurdin, neorromanikoa da Miarritzeko San Karlos Kapera, hiri bereko Santa Eugenia eta Baionako San Ander neogotikoak diren bitartean. Korronte erromantiko honek, beraz, hainbat lan utzi zigun, Euskal Herrian.

ARKITEKTURA, GOTIKORANTZ

"Gotikora itzultzearen aldeko eta defendatzaile bihurtzen dira errestauratzaileak. Arkitektura erromantikoak ez zuen sortu bere estilorik, arte-lan txikietan ezik: denek miresten zuten gotikoa errepikatu zen, gutxi-asko lortua, (...). Asmaketa baztertzea birtute bilakatzen zaio kopistari. Metalezko eraikinetan baliabide erosoak aurkitzen ditu egitura gotikoak imitatzeko. Batzuetan errestaurazioa eta eraikuntza originala batabestearekin nahasten dira, Viollet-le-Duc-en obra askotan bezala, honen asmo onek errestaurazio jatorraren jaiera eta interpretazio pertsonalaren fantasia nahaspilatu egiten bait dituzte. Literaturan bezala arkitekturan, natura baino gehiago gotikoa egiten da, Erdi Aroaren idealizazioa mitifikazioraino eramaten da (Victor Hugo: bere marrazkiak eta 'Notre-Dame de Paris')". *(M. BRION)*

b) Eskultura

Sentsibilitate berri hau mugimenduan oinarritzen zen eta forma aldetik gainazal latzak eta keinu handiosoak hobesten zituen. Adibide bat ekartzearren, F. **Rude** (1784-1855) gogora dezakegu eta bere "Marseillaise"-a Pariseko Garaitzapen--Arkuan (1833-36)


c) Pintura

Pintura erromantikoak kolorearen indarra berreskuratu zuen, marrazki klasikoaren kaltetan. Bestetik, konposizio dinamikoak margotzen zituen, non paisajeak, iraultzak edo hondamenak toki berezi bat bait zuten.

Frantziako pintore garrantzitsuenak ekar ditzagun lehenik. Th. **Géricault**-en (1791-1824) "Medusa-ren Almadia" eta E. **Delacroix**-en (1798--1863) "Chios irlako sarraskia" eta "Askatasuna, herria gidatzen" obrak garaiko ezin egon liberalaren ahotsak ditugu (ik. aurreko ikasgaia). Une berean, Frantzian, J. **Constable** (1774-1827) pintore ingelesaren eraginez, paisaje-eskola bat sortu zen, Barbizon Eskola. Partaideen artean Th. **Rousseau** (1812-1867), J.B.C. **Corot**, eta Klaudio **Lorena** dira gogoragarrienak. Hirurak argiaren aztertzaile saiatuak izan ziren.



Th.GÉRICAULT (1791-1824): "Medusaren almadia" (1819). Berehala ikus daitekeenez, marrazki honek ez du zerikusirik neoklasizismoarekin: gorputz horien formek baretasunak galdu dituzte, eta Michelangelo--ren marrazki boteretsura garamatzate.



JOHN CONSTABLE (1774-1827): "Stour Bailara" (1805). Paisajismo barrokoan hezia, oso estilo pertsonala landu zuen gero. Frantzian eragin bizkorra izan zuen, lehenik Barbinzon--en eta mugimendu inpresionistan gero.

Géricault, aitzindari bat

"Géricault-en konplexutasun harrigarria da erromantizismoaren adibiderik irtenena (eta harrigarriagoa izan zitekeen hogeitamabi urterekin hil izan ez balitz, eta hainbat bide berri irekitzen zuen obra bukatu izan balu). Hemen ikusten dira Erromantizismoak dituen balio bizi, dinamiko eta gaurkoak. Ez da histori pintore bat, Devéria, Delaroche eta Scheffer bezala, hauengan janzkiak eta eranskinak bait dira --emozioen gainetik-- nagusi. 'Medusa' ez da gertakari bat, giza patuaren sinboloa baizik, eta horregatik sortu izan du hainbeste beroaldi, harridura eta haserre. Delacroix-ek, 1819-ko Aretoan ikusi zuen marraztuta bere pintore-etorkizuna, edertasun berri baten hasiera ageri zen oihal handi zaratatsu horren aurrean".

(L. HUYGHE)


* 3. Eklektizismoa, Errealismoa, Naturalismoa

1848tik 1874era arkitekturan Eklektizismoa nagusitu zen bitartean, eskulturan eta pinturan Naturalismoa eta Errealismoa landu ziren. Joera hauek Erromantizismoaren aurkako erantzuna izan ziren, eta A. Comte-ren Positibismoarekin eta zientzien garapenarekin erlazionatu behar dira, ongi ulertzeko.

Positibismoa eta Errealismoa hastapen beretan finkatzen dira: metodo esperimentala onartzen zuten bakarrik, eta izadiaren hautemate zuzena ametitzen. Errealismoa, beraz, kultur, literatur eta arte-mugimendu bat da, garaiko gizartearen errealitatean oinarritua eta errealitate jakin eta hurbiletako iturrietan dastatu zuen. Arte burgesa izan zen hau, klase burgesaren gustua azaltzen zuelako eta baita beroni zuzendutako artelana zelako ere.

a) Arkitektura

EKLEKTIZISMOAK, Erdi Aroko estiloak Aintzinateko elementu klasikoekin konbinatzen zituen. Artistak libreki aukeratzen zuen nahiago zuen estiloa, edo askatasun osoagoz oraindik artelan batetan estilo desberdinak konbinatzen ausartzen zen.



Frantzian, H. **Labrouste**-k (1801-1875) Pariseko Liburutegi Nazionaleko irakur-gela utzi zigun; J.L. **Garnier**-ek (1825-1898) Pariseko Opera eta L. **Vaudoyer**-ek Marseille-ko katedralea eraiki zituzten.

H. LABROUSTE (1801-1875): Liburutegi Nazionaleko Irakurgela (1866). Altzairuaren eta burdinurtuaren erabilerak euskarrien egitura, hutsaren hurreneraino gutxitzeko aukera eman zion Labrouste-ri.



DONOSTIAko UDALETXEA (1882--1887). Aladren-ek eta Morales de los Ríos-ek eraikia da. Erroak Frantzian ditu estilo internazional honek: osagarri eklektiko eta klasikoak ditu. Kasino izan ondoren, 1941ean Udaletxe bilakatu zen.

Espainian, joera eklektizistak mudejarismoa bultzatu zuen, eta estilo honetan zezen-plaza asko eraiki zen.

EUSKAL HERRIAN ere baditugu obra gogoangarriak: Donostiako kasinoa, gaur egun Udaletxe dena, Luis **Aladren** eta Adolfo **Morales** de los Ríos-ek eraikia (1882-1887). Eta Victoria Eugenia Antzokia. Bilbon, Joakin **Rucoba**-k Udaletxea eraiki zuen, eta Luis Aladren-ek Diputazioa. Iruñeko Justizi Jauregia (1880) ere estilo honetan eraikita dago.

b) Eskultura

J.B. **Carpeaux**-ek (1827-1875) "Dantza" eskulturan akademi-arauetatik askatu egin zituen masa eta eskultur formak: dinamismoa, mugimendua eta bizitasuna, eta errealismoa berriz hartzen zituen obrak. J. **Dalou**-k "Errepublikaren garaitzapena" landu zuen. Espainia-n, Agustin **Querol**-ek (1863-1909) "Cánovas-en Hilobia",eta Ricardo **Bellver**-ek (1845-1924) "Erretiro-ko Aingeru jausia" utzi zituzten.



J.B.CARPEAUX (1827-1875): "Hiru Graziak". Bere garaiko arte ofizialetik urrunduz, aurrekoengana jo zuen etorri-bila (Géricault, Delacroix, eta aurreko mendeetara); gizakiaren alde tragikoa eta gizabanakoaren sufrikarioa bereziki landu zituen.

Daumier: gizartearen testigu

"Daumier, eskultore, litografo eta pintorea izan zen aldiberean. Artista eta ofizioko bezala landu zuen litografiak sona eta mantenua segurtatu zizkion. Ofizioaren eta artearen arteko adostasun honetatik ezin zitekeen obra ugari eta libre bat baizik jaio (4.000 litografia): 'egunekotasunaren satiraren jenioa', 'giza izaeraren sena', 'bakoitzaren eguneroko jarreraren azpian keinu iraunkorra' atzemateko gaitasun aparta zuen artista honek. Daumier karikaturistak artearen berarizko forma hasten duela ematen du, marrazkiaren eta modelatuaren artekoa.

Korronte errealistan hitzarmenduta, Daumier bere garaiaren testigua izan zen Frantzian, Balzac bezain garrantzizkoa gutxienik; hau 'La Caricature' egunkari satirikoan lankide literarioa, eta Daumier, marrazkilaria. Idazleak bezala, Daumier-ek ere gizarte burgesaren ohiturak miatzen, eta bere gaiak eguneroko errealitatetik ateratzen ditu, gertaera sozial eta politikotik. Bizitza hiritarraren kronikari hauei beste artista ez gutxiago 'errealista' bat kontrajar lekieke: Courbet, izualdiaren pintorea berau". (A. LOUCCIONI-SOULEZ)

Euskal Herrian, Fortuny eta Rosales-en lagun Martzial **Agirre**-k eskultura oroikarria landu zuen berezikiago, eta Gipuzkoako pertsonaia historikoak eman zizkigun (Okendo, Elkano, Legazpi, Urdaneta, Txurruka, etab.), Isidoro **Uribesalgo**-k eskultura erlijiosoa egiten zuen bitartean.

c) Pintura

Eguneroko bizitzari aurre egiteko desioa eta, era berean, etorkizunera ere proiektatzeko ahalegina pinturan aurkitzen ditugu batipat. Estilo honek klase ertainen eta herritarren bizimodua isladatu zuen. Frantzian, Daumier, Courbet, eta Millet dira pintore azpimarragarrienak.

Honoré **Daumier** (1808-1879). Hasiera batean litografo karikaturista bezala lan egin zuen, satira sozial eta politikoa erabiliz (ministrari eta parlamentariei, burgesen ohiturei eta erregearri berari ere irri eginez). 1848az geroztik landu zuen pinturan ere ironiatsu azaldu zen. Haren lanetatik "Hirugarreneko bagoia" (1862) ekar liteke hona.



H. DAUMIER (1808-1879): "Hirugarreneko bagoia" (1862). Daumier-ek ez zuen aukerarik galdu, garaiko ohitura berrien testigantza eman eta kritika soziala egiteko.



J.-F.MILLET (1814-1875): "Galburu-biltzaileak" (1857).1848-az gero garatu zen errealismo sozialaren barruan dago Millet; ez zaio halako oihartzun bibliko bat falta. Ondokoen estimuan gorabehera eta aldarte handiak izan ditu.

Gustave **Courbet** (1819-1877). Coubert dugu pintura errealistaren ordezkari garrantzitsuena. Artean, edozein idealizazio errefusatu zuen, eta klasizismoaren nahiz erromatizismoaren aurka azaldu zen. Pinturak gauza errealak eta izan badirenak erakutsi behar dituela aldarrikatu zuen. Coubert-en erakusketek kritika zorrotzak jasan zituzten. Artelanak: "Ornans-eko Hileta", "Harrijotzaileak", "Tailerra".

Jean François **Millet** (1814-1875) nekazari normandiar baten semea zen. Nekazarien bizimodua, lana eta nekeak bilakatu ziren Millet-en koadroetako protagonista. Artelanak: "Angelus-a", "Ereilea", "Galburu-biltzaileak".


* 4. Modernismoa. Inpresionismoa

XIX. mendeko azken laurdenean eta XX. mendearen hasieran, arkitekturan Modernismoa nagusitu zen, eta pinturak eta eskulturak Inpresionismoaren bideak hartzen zituzten aldi berean.

Inpresionismoa: garaiko artea

"XIX. mendearen bigarren erdialdian, artegintza osoa arautzen duen arte bihurtzen da pintura. Honen inpresionismoa estilo beregaina bilakatzen da, literaturan oraindik naturalismoarekin borrokan ari diren bitartean. XVII-XVIII. mendeetako literatur nagusitasunaren ondoren, eta Erromantizismoan musikak izan zuen betekizun behinenaren ostean, XIX.aren erdialdean pinturaren aldeko aldakuntza bat gertatzen da. Asselineau arte-kritikariak 1840aren inguruan jartzen du pinturak literaturari lehenengotasuna kendu zion une hori, eta belaunaldi bat geroago hola zioten, gogoberoz: 'Bai abantailatsua pintorearen ofizioa, idazlearenarekin konparatuz...!' Garaiko arterik aurrerazaleena bezala ezezik, kalitatez ere menperatzen zituen pinturak literatura garaikidearen obrak, batez ere Frantzian, esan ere esan bait zitekeen hemen, garaiko poeta handiak pintore inpresionistak zirela".

(A. HAUSER)



V. HORTA (1861-1947): Brusela-ko Solvay Hotela (1895). Ornamentazioan kristalari eta burdin egiturei ematen zaie leku.

A. GAUDI (1852-1926): "Güell Parkea". Gaudí modernistatzat ematen bada ere, osagarriak modu eklektiko batean bildu zituen.




a) Arkitektura

Aintzinako forma artistikoekin zerikusirik ez zuen estilo berri bat sortzeko gogo bizia agertu zuten garai honetako arkitektoek, grina bera guztiengan modu berean ageri ez bada ere. Funtzionalitateari eman nahi zitzaion leku berri bat.

Izadia hartzen zen abiapuntutzat, gai ikonografikoak bertan iradokitzen bait dira: lore-zurtoinak, kapuluak, zuhaitza... Dekorazio-zaletasun handia erakutsi arren, hau beti eraikinaren funtzionalitatearen menpe ezartzen zen. Eta, era berean, orekatsua zen dekorazio hori. Arte guztiak bereganatzen ahalegindu zen Modernismoa: arkitektura, eskultura, pintura, arte grafikoak eta aplikatuak. Eta azkenik, industriak eskainitako material berriak erabiliko ditu arkitektura modernistak: burdina eta zementua, baina baita eraikinei kromatismoa eman ziezaieketenak ere (axuleiuak, adreilu beiratuak, esgrafiatu.

Brusela-ko taldea da Europan Modernismoari hasiera eman ziona. Izenik sonatuenak eman ditzagun: Victor **Horta** (1861-1947) eta Paul **Hankar** (1857-1901) arkitektoak, eta Henry **van de Velde** (1863-1957) eta G. **Serruxier-Bovy** (1858-1910). Histolari gehienek, V. Hortaren "Tassel etxea" (1893) ematen dute estilo berri honen lehen urrats bezala.

Antonio **Gaudí** (1852-1926) katalana dugu estilo honetako arkitekto ospetsuenetako bat. "Milà etxea", "Güell parkea" eta "Familia Sakratuaren Eliza" dira bere artelan ezagunenetako batzuk.




G. EIFFEL (1832-1923): Ormaiztegi-ko "Zubi Handia" (1863). Iraultza Industrialak teknika eta material berriak jarri zituen arkitektoen eskuetan. Burdinurtua da horietako bat, eta Eiffel injineruak, baliabide honen bidez, obra entzutetsuenak egin zituen (Pariseko Eiffel Dorrea, adibidez). Ormaiztegin zubi hau eraiki zuen; Euskal Herriko burdinazko zubirik handiena da: 184 m ditu luzean, 34 altuan eta 1.800.000 k burdin plantxa erabili ziren eraikuntzan.


G. **Eiffel**-ek (1832-1923) burdina erabiliz Pariseko dorrea eraiki zuen. Gogoratzekoak dira Eiffel-ek Gipuzkoan utzi zizkigun obrak: Ormaiztegin, trenbideko zubia (1863) eta Donostian Iparraldeko Geltokiko estalkia. Eraikin funtzionalaren adibide onak dira.

Donostian, Ramon **Kortazar**-ek Bulevard-eko Musika-kioskoa eraiki zuen, eta Luis **Elizalde**-k Prim kalearen eta Foruen Pasealekuaren arteko zenbait etxe. Interes handikoak dira denak ere. Honetaz aparte, Donostiako etxeetako atari asko dira gaur ere Modernismoaren testigu.

Bizkaian, Alberto de **Palacio**-k "Bizkaiko Zubi" esekia (1893) jaso zuen. Beronena da, gainera, Madrileko Atotxa-ko Geltokia. **Goikoetxea** aita-semeei zor zaizkie Bilboko zubi batzuk. Orobat, aipagarriak dira Errekalde kaleko etxea, Campos Eliseos antzokia, eta Santimamine Zumardiko eta Castaños kaleko merkatuak.



DARROQUE: "Campos Elíseos" Antzokia (1901-1902). Sarrera honek, bere originaltasunean, modernismoaren aire berriak ekarri zituen Bilbora, Darroque frantsesaren eskutik. Portada erdiarotar bat iradoki dezakeen estruktura honetan, estilo berriaren ornamentazioa eta kristaleria ikus ditzakegu. Euskal Herriko hirietan, portada, atari eta eskailera modernista franko topa daiteke.



A. RODIN (1840-1917): "Pentsalaria" (1880). Obra ezagun hau brontzezkoa da eta bi metro ditu altuan. Lehenengo batean "Poeta" deitu zitzaion. Rodin--en eskulturen indar osoa du.

BALZACen monumentua

(Artista berritzaileen eta gizartearen arteko harremanak zailak izan ohi dira maiz. Hona, Rodin-i egin zitzaion enkargu baten inguruko estabaida:)

"1883az geroztik letra-gizonen Lagunartean Balzac-i monumentu bat eraikitzeko asmoa zegoen. 1891n,artegintzan joera modernoaren defendatzailea zen Emile Zola-k, Lagunarteko lehendakariak,Rodin-i dei egin zion (...). Orduan hasi zen 'afera'. Bi urte geroago,atzerapenaz haserre edo zeuden mandatu-emaileek izan zuten, ...

b) Eskultura

Inpresionismoa batipat pintur mugimendua izanik ere, korronte honek musika, literatura eta eskultura ere altxarari zituen. Hasiera batetan eskultura ez zen egokia ikusten egurats-dardarak gorpuzteko, baina maisu batzuek asmatu zuten, teknika-berriztapenen bidez, irudietan argi-jokoak sortzen. Hauen artean bat aipatuko dugu hemen: Auguste **Rodin** (1840-1917). Artelan oso aipatuak eman zizkigun: "Musua", "Pentsalaria", "Calais-eko hiritarrak".

Euskal Herrian bi eskultore gailendu ziren une honetan: Nemesio Mogrovejo eta Pako Durrio. Biak bilbotarrak. **Mogrovejo**-k (1875-1910) Parisen eta Florentzian ikasi zuen, Rodin-en eta Ernazimentuko maisu handien artea bereganatuz. Artelanak: "Eva eta Risveglio", "Orfeoren heriotza". **Durrio** (j. 1868) Parisera joan zen eta bertan igaro zuen bizitza osoa, Gauguin-en laguna ere izanik. Honen lanen artean aipatzekoa da Arriaga konpositoreari eskainitako monumentua, Bilbon (1900).

c) Pintura inpresionista

XIX. mendeko azken herenean pintura bilakatu zen arte guztien aitzindaria. Aurreko pinturarekiko eten-unea, Errealismoarekikoa alegia, 1874ean ipin genezake, Pariseko Nadar galerian inpresionisten lehen erakusketa antolatu zenean.

Pintura honen kezka nagusiak bi dira, argia eta kolorea. Gaiak ez du halako interesik, errelitatea aldakorra bait da, eta errealitate aldakor hori bera ere unean uneko argiaren menpe

bait dago. Koloreak huts garbiak, aldez aurretik bata bestearekin nahastekatu gabe, aplikatzen ziren mihisean. Koloreak elkartu eta batu, ikuslearen betseinak egin zezakeen, koadroa begiratzean. Honegatik, ba, pintura inpresionistaren kolore--egitura pintzelkada soltetan eta kolore-orbanetan mamitu zen; ondorioz, desagertu egin zitzaien beren koadroetatik marra. (Ik. Ernazimentuan arazo beretsua: "Mendez Mende. Aro Modernoa", 138 or.: Florentzia/Venezia).

Inpresionismoak pintzel-gizon sonatuak utzi zituen; aipa ditzagun batzuk. C. **Monet** (1840--1926): Honen aire zabaleko pinturek paisajea bihurtu zuten protagonista, eguraldi eta argiune ezberdinen isurian hark hartzen zituen aurpegi aldakorrak atzemanez. Monet-en lanen artean "Rouen-eko Katedralea", "Ninfeak" edo "Saint-Lazare-ko Geltokia" aurkitzen ditugu.

azkenik, proiektua ikusteko aukera: kredazko maketa bat, ferietako borrokalari gisako bat, tripandi eta biluzia. Lagunarteko bazkide mandatariak hola deskribatu zuen: Masa itzel bat, harrigarria, formarik gabea, fetu tzar bat.

1898koa izan zen akabua: azkenik, obra bukatua bera, gela-arropaz jantzita, Aretoan aurkeztu zenean. 1886tik jendartean onartua eta miretsia zen 'Musua' jarri zuen, arreta guztiz, Rodin-ek berriaren ondoan. Alferrikako ardura! Prentsan zera irakurri ahal izan zuen: 'Amets gaiztoa eta zoroa: Elur-mozorroa, Txorimalo bat zakuan, Txotxongilo itzela'. (...) Hala ere, aurrera--pauso bat zen, nahiz eta horretaz hasieran artistak kontzientzia ahula izan".

(A. CATON)

E. **Manet** (1832-1883) dugu, errealismo-aldi baten ondoren, inpresionista izatera iritsi zen beste pintore bat. Pintura espainiarra, Goya bereziki, ongi ezagutzen zuen. Monet-en lanetatik "Belarretako bazkaria"ren eta "Olinpia"-ren aipua egingo dugu hemen.

E. **Degas** (1834-1917) batez ere dantzari--dantzarisen pintore bezala gogoratu ohi da. Barnealde-koadroak pintatu arren, teknika inpresionista erabili zuen. Mugimendua bere aldartean nola atzeman, zen honen grina, eta garaiko bizimoduen testigu izaten ere saiatu zen. "Longchamp-eko lasterketak", "Dantza-saioa", etab. ditu lanik ezagunenak. A. **Renoir** (1841-1919) dugu beste maisu inpresionista bat. Zeruko argitasuna eta koloretasun

E. DEGAS (1834-1917): "Dantza--gela" (1875). Dantzarien kolore- eta mugimendu-mundua biziki maite izan zuen Degas--ek.





G. SEURAT (1859-1891): "Port-en-Bessin-eko Portua eta Zubia" (1888). Puntilismo honek kolorearen zentzu poetikoa areagotu egin zuen, marraren balioa ere berriz irabaziz.

distiratsua agertuko ditu bere koadroetan. Artelanak: "Galette-ko Errota", "Ziburua".

1884etik aurrera Inpresionismoaren inguruan ezinegon berriak piztu ziren. Testuinguru horretan kokatu behar da Neo-inpresionismoa. G. **Seurat** (1859-1891) eta P. **Signac** (1863-1935) izan ziren neo-inpresionista estimatuenak. Haien teknika berriari puntilismoa deritzo: inpresionisten pintzelkada larriaren ordez, kolore biziko puntuak darabiltzate espresabide bezala. Konposizio argi eta handiosoa zuten eta errealitatearen forma ere berreskuratzen ahalegindu ziren, berriro ere, alde horretatik Inpresionismoaren aurrekoetara itzuliz.

d) Pintura postinpresionista


Ondoren aztertuko ditugun pintoreek, bizitzaren zenbait momentutan inpresionista izan arren, eboluzionatu egin zuten, bakoitzak bere bidetik, Inpresionismoak saihestutako balio piktorikoen bila, horrela beren nortasun handia ere erakutsiz. Aipatuko ditugun laurek forma eta bolumena berrirabazi nahi izan zituzten batipat.



Vicent **Van Gogh** (1853-1890). Espresionismoaren aitzindari bezala ikusia izan da Van Gogh: pintzelkada lodia, bizia, urduria, eta argiz eta kolbretasunez betea erabili zuen. "Auvers-eko eliza", "Ekilore-saila", "Arles-eko gela", "Autorretratua" aipa litezke honen obran, adibide gisa.

V. VAN GOGH (1853-1890): "Autorretratua" (1888). Pintore holandar postinpresionista honek aurreko korronteen eragina bizi-bizirik jaso zuen, baina 1888tik aurrera erabat ezarriko du bere nortasun propioa: kolore bortitza, pintzelkada bihurria, argitasuna. Ondoko belaunaldiengan sekulako eragina izan zuen.


Paul **Gauguin** (1848-1903). Gainazal handietan ematen zituen koloreak, biziak, marrazkiak mugatzen duen forma zainduz. Europa utzita, Tahiti-ra joan zen (1891) eta azken urteetako lanek hango bizimodua ispilatzen dute. Beste askoren artean, interesgarriak dira "Kristo horia" eta "Tahiti-ko neskatxak".



P. GAUGUIN (1848-1903): "Kristo horia" (1889). Tahiti-ra joan aurrekoa da koadro hau. Mantxa handitan erabili zuen kolorea Gauguin-ek, marrazkia kolore/forma kolpe batean emanez, gorputzak berriz ere ongi muga-bilduz.

Henri de **Toulouse-Lautrec** (1864-1901). Marrazkilari eta kolorista bikaina. Bere koadroetan kabaretetako dantzarisen giroa azaldu zuen, beti ere ikuspegi pesimista batekin. Baina, agian, bere ekarpen garrantzitsuena kartelena izan zen. Haren lanetatik gogoan har dezagun hauxe, adibidez: "Ivette Guilbert".

Paul **Cézanne** (1839-1906). Honek ere, Inpresionismoa gaindituz, errealitatearen esentziaren bila ihardun zuen; ahalegin horien fruitu bezala, elementu geometriko hutsak aurkitu zituen izadian (zilindroa, konoa eta esfera). Cézanne-rekin, beraz, forma eta bolumenaren berreskurapen osoa gertatu zen, baina Cézanne-ren paletan koloreak ez zuen indarrik galdu. "Karta-jokalariak",



P. CÉZANNE (1839-1906): "Bainulariak" (1900). Kubismoaren aitzindari postinpresionista honengan argi-jokoak eta konposizio-osagarrien oreka azpimarra dezakegu.

"Madame Cézanne", "Bainulariak", "Sainte Victoire mendia" izenda daitezke, esate baterako.

Europako herrialde gehienetan Inpresionismoa akademi tradizioarekin edo joera postinpresionistekin nahasirik ageri zen. Beruete, Mir, Rusiñol, Joaquin Sorolla eta ondoko euskaldun hauek: Adolfo Guiard, Anselmo Guinea, Dario de Regoyos, Ignacio Diaz de Olano eta Fernando Amarika, dira, garai honetako abangoardia piktorikoa.

Joaquin **Sorolla** (1868-1923). Gai historiko eta sozialak landu zituen hasiera batetan, geroko lanetan paisajeak protagonismo handiagoa hartzeko. Sorolla-ren paisajeen artean maiz agertzen dira Valèncìa aldeko hondartzetako ura eta argia. Artelanak: "Oraindik, diote, arraina garestia dela", eta "Hondartzan".

Adolfo **Guiard** (1860-1916). Bilbo sorterritik, Parise-ra joan zen ikastera. Manet eta Degas (hau, laguna eta maisua) biziki miresten zituen. Guiard-ek sartu zuen Inpresionismoa gurean. Beste bilbotar batek, Anselmo **Guinea**-k, mende bukaerako Parise-n ezagutu zuen Inpresionismoa, eta ohitura-gaietara egokitu zuen honek.

Darío de **Regoyos** (1857-1913). Gipuzkoan jarri zuen bere egoitza asturiar honek. Regoyos izan zen, Guiard-ekin batera, Europatik zetorren haize osasungarri eta gardenari, Euskal Herriko eta Espainiako ateak zabaldu zizkiona.

Ignacio **Díaz de Olano**. Sorollismoaren eta XIX. mendeko pinturen artean koka daitezke honen nekazal-eszenak eta hiriko pasadizoak.

Euskal artea

"Euskal arteaz, euskal pinturaz edo eskulturaz hitzegiten den bakoitzean beti dago norbait gure artean irribarre maltzur bat egiteko. Izan ere, kulturaren unibertsaltasunaren egunotan, aipa ote daiteke artelanen baten --pintura edo eskultura dela, musika edo moda dela...-- jatorri-marka?

Egungo filosofiaren eta estetikaren erantzuna, hauxe da: 'Bai, jatorri-markaren posibilitateaz bederen hitzegin behar da'. Horrek ez du esan nahi, jakina, 'gaur egun eta hemen' produzitzen den guztia artelan euskalduna denik, ez eta gauza erraza denik 'euskal artearen' berezitasuna definitzea. Baina, ezin itxi diezaiokegu biderik ahalbide horri 'a priori'. (...)

Izan ere, artea unibertsala da, baina ezin izan da esperantista. Artearen unibertsaltasuna, baldintza bereizgarrien bidez lor daiteke".

(E. KORTADI)

Fernando **Amarika.** Sorolla-rekin ikasi zuen Madrilen. Parisera egindako itzuli baten ondoren Amarika-ren pintura erabat eraldatu zen: ohizko paisaje akademikoak, paisaje argitsu eta kromatiko bilakatu ziren pintore berrituaren eskuetan.


V. ERLIJIOAK ETA ELIZAK, XIX. MENDEAN

Ameriketan hamaseigarren mendean bezala, XIX. mendeko Europaren hedapen kolonial berriarekin batera, munduko erlijioen artean topaketa berri bat suertatu zen, Asian eta Afrikan bereziki.

Eliza kristauen barnean, misio-erakundeak sortu ziren lurralde ireki berrietan lanegiteko. Aipatu dugu Livingstone-ren kasua: hau ere misio-eginkizunetarako irten zen lehenik, nahiz eta, azkenik, bilaketari bihurtu Afrikaren bihotzean.

Europan, bestalde, lagunarte erlijiosoak politika liberalarekin krisi estuan aurkitu ziren une beretsuan; askok konbentu-etxetik kanpo bizi behar zuenez, irtenbide garbi eta leialena misioetarakoa ikusi zuen.

Aro Garaikideko gatazka ideologiko (Filosofia, Teologia, Zientzia berriak), instituzional (Konstituzioak, Iraultzak), politiko (desamortizazioak, Eliz Estatuaren galera) edo erlijiosoen artean aurkitu behar izan ziren irtenbide berriak, erlijiosoentzat ezezik, kristau guztientzat ere.



L. FEUERBACH (1804-1872). Hemeretzigarren mendean erlijioarekiko kritikak, orokorki, eta Kristautasunarekikoak zuzenkiago, indar eta sakontasun filosofiko handiago bat hartu zuen. Hegeltzale ezkertiarren artean gertatu zen hau, batez ere. Erlijio-kritikan leku azpimarragarria izan zuen Feuerbach alemanak. Aipa ditzagun ondoko obra hauek: "Gedanken über Tod und Unsterblichkeit" (=Heriotza eta Hilezkortasunaz Pentsamenduak, 1830), "Das Wesen des Christentums" (=Kristautasunaren Esentzia, 1841) eta "Das Wesen der Religion" (=Erlijioaren Esentzia).

A) ERLIJIO KRISTAU ETA EZ-KRISTAUAK

Europan XIX-XX. mendeetan ezagutzen ditugun erlijioak funtsean lehendik ezagutzen genituen erakunde eta elkarte berak dira, nahiz eta Eliza Katolikoa erlijioso-elkarte berriz aberastu, edo ohizko Eliza Protestante klasikoen ondoan sekta berriak ere sortu.

Europatik kanpo, aldiz, munduko Erlijio handien lagunarteek (Islam-a, Hinduismoa, Budismoa, etab.) Europa-ko Filosofia eta erlijioekin, Kristautasunarekin, topo egin zuten. Alde honetatik, egokiera historiko berri bater aurrean aurkitu ziren denak, alde batekoak eta bestekoak.

Eliza eta mundu modernoa

"Eliz errespetagarritasunaren erorikoa XVIII. mendearen bigarren erdialdian zenbatekoa izan zen jakiteko, Voltaire, d'Alembert eta Diderot bezalako idazle-erasoen ausardia begiratu behar da. Zentsurarekin izandako oztopo batzuk gorabehera, posible izan zen "Entziklopedia" azken bururaino eramatea, eta beronen 34 liburukiak XVIII.eko 'pentsamendu librea'ren Biblia bilakatu ziren. Baina Voltaire-ren epikureismo ozpinduaren, edo Diderot-en edo Holbach-en ateismo garbiki azalduaren arriskuak baino okerragoa zen, beharbada, ohizko erlijioarentzat, giza ontasun naturalaren ebanjelio berria zabaltzen zuen Rousseau-ren erlijiotasun naturala." (M. MOURRE)

* 1. Eliza kristauak

Pentsamendu eta mentalitateen aldetik, XVIII.eko Filosofiak modernotasunaren krisia areagotu egin zuen Eliza kristauen artean. Pentsamendu haren ondoko korronte politikoek (Despotismo "argiztatuak" lehenengo eta liberalismoak gero) dardararazi egin zituzten bai Katolizismoa eta bai Eliza Ebanjelikoak. Ikus ditzagun, beraz, krisi garaikide honen alde jakingarrienak.

a) Katolizismoa

Nahiz eta XVI. mendeko Erreforma protestantearekin hainbat kristau-herriren urruntzea jasan behar izan Eliza Katolikoak, oro har XIX. mendearen hasiera arte sendo mantendu zen, bere hartan, herrialde katoliko deituetan.

Eliza katolikoaren itzala nagusiki mendebal-hegoaldeetako Europa-alde zabal batetara hedatzen zen: Frantzia, Espainia, Portugal, Italiako Estatuetara, Irlanda, eta Alemania eta Suitzako alde batzuetara. Era berean, Austriako Inperioan, Hungarian eta Bohemian ere nagusi zen Eliza Katolikoa, Europako beste toki batzuetan talde txikiagotan irauten zuela. Varsovia-ko Dukerrian ere erlijiorik aurrena zen.

Pizkunde Katolikoaz hitzegin ohi da, XIX. mendeaz mintzatzean. Eliz Estatuaren berreraikuntza eta Aulki Sainduaren izen-hobetzea gogoratzen dira horren agerpen frogagarri bezala; iraultzek sakabatu edo ezereztatutako Ordena erlijiosoen berragerpena ere aipatu ohi da: Iraultza-aurretik desegindako Jesusen Lagundiarena izango litzateke kasurik adierazgarriena.

Eliz erakundetik bertatik kanpo, esanahi handiagokoak izan daitezke mugimendu artistiko eta literarioetan gertatuak: Erromantiko askorentzat ez zen batere lotsakizun suertatu erlijio-zaletasuna. Aristokrazian bezalatsu, herri xumearengan ere erlijioarekiko atxekimendu berria ezagutu zen.

Kontrairaultzako filosofiak eta erromantizismo politiko alemanak, askatasunaren eta berdintasunaren printzipio filosofikoak defendatzen zituen; ateismo iraultzailearen aurrean, ohizko federa itzuli beharraren eta Aita Santuari zor zitzaion menpekotasunaren ideiak aldarrikatu zituen.

Fede katolikora itzultzeko dei hau ez zen literatur edo arte-munduan soilik agertu, burgesia berrian eta noblezian ere konbertsio-mugimendu bat

F.R.CHATEAUBRIAND (1768-1848). Bretainian bizi izan zuen haurtzaroa. Zalantzaz betetako gizona, sinpatiaz hartu zuen Iraultza, baina haren gehiegikerietatik erbestera ihesegin zuen, lehenik Ameriketara bidaia luzea eginez eta Ingalaterrara gero. "Essai sur les révolutions"eko (1797) eta beste lehen idatzietako deismotik federa itzulirik, "Génie du Christianisme" (=Kristautasunaren jeinua", 1802) eman zuen, konbertsio erlijioso baten ondoren. Erlijio kristauari oinarri berriak bilatu nahi izan zizkion: oinarri estetikoak eta sozialak, ez naturaz-gaindikoak. Arazo erlijiosoak gertakari historiko, ekonomiko eta sozialak ere badirela erakustearen meritua izan zuen Chateaubriand-ek, mende-hasieratik bertatik.



piztu zen. Irakaskuntza konfesionala antolatu, ohizko elizkizunetan taldean partehartu edo Ordena erlijiosoak berriz eratu eta ugaldu: denak erakutsi zuen noraino indarberritu zen fededunen gorputz soziala.



S.KIERKEGAARD (1813-1855). Danimarkar honen pentsamendu filosofikoak augustinismo ebanjelikoan ohizkoak ziren balio batzuk azpimarratu zituen: fede-bizitzaren alde pertsonala eta bihozkorra. Erlijio-bizipen sakoneko pertsona izan zen Kierkegaard. Honen lanetatik gehiena gogoratu ohi den liburua "Bebreget Angest" da (=Larriaren kontzeptua, 1844).Erlijiotasun erakundeztatuaren eta "Kristandade"-kristautasunaren kritika gogorra egin zuen, fede-bizitza jator baten beharra aldarrikatuz. Unamunoren erlijio-kritikak idazle honengan zuen iturri nagusi bat.

Dena den, katolikotasunaren loraldi honek ez du esan nahi garai honetako Europa burges eta aristokratikoan Voltaire-rengandik zetorren sinesgogortasuna galduta zegoenik, ezta Ilustraziotik jasotako erlijioarekiko hoztasun razionalista ere hil zenik. Hiri- eta landa-populazioen baitan, gainera, maizenik joera antiklerikalak loakartuta besterik ez zeuden. Edozein egokieratan piz zitezkeen.

b) Protestantismoa

Oro har, Eliza Katolikoak baino hobeto jasan zituen Protestantismoak, bere konfesio desberdinetan, XVIII. mendeko Filosofi krisialdia eta ondoko Iraultzaren bapateko eztanda. Eliza hauek, 1815ean sendo kokatuta zeuden Europako Iparraldean, Ingalaterran eta Eskozian, Herbehereetan eta Helbetiar Konfederazioaren parte batean. Nagusiak

PROTESTANTISMOAREN ZABALKUNDE BERRIA

"XIX. mendean zehar Protestantismoak ezagutu duen gertakaririk bereizgarriena, bere zabalkundea izan da. Herrialde protestanteetako barneko zabalkundea lehenengo; baina baita kanpoko zabalkundea ere, biztanleria gora doan herrietan emigrazio protestanteei esker, jentil-herrietan misioen bidez, herri katolikoetan fededun berriak irabaziz. Protestantismoak --gisa europarrekoak eta eskierki ipartarrak-- bere zabal-barrutia mundu osora eramaten du. Iragan garaietako fenomeno historiko-tradizional izatetik eguneko potentzia izatera pasa zen".

(E.G. LEONARD)

ziren Konfederazio Germaniarrean, eta Frantzian eta Inperio Austriarrean garrantzizko minoriak osatzen zituzten. Hegoaldeko Europan eta Inperio errusiarrean eragin apalagoa zuten, ostera, Eliza protestanteek.

Protestantismoa bi taldetan banatuta zegoen: Eliza Lutertarrak eta Kalbindarrak. Erreforma-korronteen ondoan Eliza Anglikanoa edo Eskoziako Eliza Presbiteriarra bezalako Eliza nazionalak kontuan hartu behar ziren. Ez zen falta, gainera, aurreko mendeetako edo berrikitan jaiotako sektarik ere.

Hain sakabanatu eta estrukturatu gabeko unibertso erlijioso honetan hierarkiak edo doktrinak bigarren mailako garrantzia besterik ez zeukan. Estatu alemaniar batzuetan eta Britainia Haundian teorikoki haien ardura Erregerena zen, baina Elizbarruti- eta Parroki egituretan oinarritua zegoen. Baina normala zen pertsonalitate profetiko eta gutxi-asko iraunkorren inguruan korronte berriak eratu eta antolatzea.

Fede protestantea, ahantzi ezineko indar izpiritual bihurtu zen XIX. mendean. Literaturan, bizitza intelektualean nahiz herri mailan parte zabala hartu zuen kristautasun europarra indarberritzen.

c) Eliza Ortodoxoak

Ekialdeko Europan, Penintsula Balkaniarretik Ural Mendietaraino, Inperio Turkiarrean nahiz Errusiakoan, 1054eko Zismaren ondoren, Eliza Ortodoxoek Konstantinopoliko Patriarkaren inguruan aurkitu zuten beren batasun-ardatza. Baina Erru-

Protestantismo berritua

"Erreformaren ondoren, XIX eta XX. mendeetan ezagutu du Protestantismoak bere pentsamenduaren unealdirik eder eta aberatsenetako bat. Baina gogoeta hori ez da pentsabide bakar batetik egin. Bi errepide zabal izan ditu ahalegin bikain horrek: bata, liberalismoaren barnean hasi eta burutu da; bestea, jatorburu beretik hasita gerora liberalismotik kanpo gailurreratu da. (...)

Puntu askotan pentsabideok tradizio katoliko zaharreneraino heldu dira, eta funtsezko beste zenbait puntutan arras aldenduta daude gaur ere teologia horiek eta pentsamendu katolikoa". (J. INTXAUSTI)

> ***Elizen autozefalia***
>
> *"Eliza nazional autozefaloen erakundeztapena ugaritu egin zen XIX-XX. mendeetan, Inperio Otomandarra behera etortzean, berau bait zen Inperio bizantziarraren oinordekoa (hau izan zen garai batean Ortodoxi zaintzailea). Konstantinopoliko hiriko Patriarkatua prozesu horren kontra jarri zen, beti ere "filetismo"-salakuntza (=nazionalismoa) eginez. Baina dena alferrik, ordea. Greziako Elizak bere autozefalia 1833an aldarrikatu zuen, eta 1850ean ezagutu zuen berori Konstantinopoli-k. Errumanian beste hainbeste gertatu zen 1864ean eta 1885ean". (H.-I. DALMAIS)*


siako Elizak, denetatik muntarik handiena zuenak, bere jabetasuna lortu zuen eta 1721etik aurrera arlo guztietarako Zarraren agintepean gelditu zen. Balkanetan, berriz, gobernari turkiarrek eta Inperioko administrazioak Konstantinopoliko Patriarkaren agintea eskualde-Eliza nazionaletara pasatu zuten.

Doktrinaz, liturgiaz eta eliz estrukturaz berdintsuak dira Europa ortodoxo honetako eliz erakundeak. Bazegoen guztien artean elkarren arteko senitarte eta hurbiltasun bat. Urrunago geratzen zen Mendebaldeko katolikoen mundua, eta, zer esanik ez, kristau ere ez ziren beste europarrak: juduak eta musulmanak.

* 2. Erlijio ez-kristauak

Aurrera jo baino lehen komeniko da, hemen, pausalditxo bat egin eta zera gogoratzea: Aintzinatetik hasita, Erdi Aro osoan zehar, Europako lurrek ez zuten lortu erabat kristau izatea. Europako gizarte erdiarotarrean lehenengo, eta modernoan gero, kristauekin batera erlijio ez-kristauek ere izan zuten beren lekua.

Mendetan zaindu zen toleratzia bati esker eta Berant Erdi Arotik gerora sortutako pertsegizioak gaindituz, ordaindik XIX. mendean juduak eta musulmanak ziren, batez ere, Europaren populazio erlijioso ez-kristaua osatzen zutenak.



JUDAISMOA ere tradizioaren eta berritu beharraren artean aurkitu zen. Berrikuntza horren lehen pausoak XVIII.ean emanda zeuden "Argien" garaian ("Haskala" deitu zioten juduek horri), baina erlijio juduaren era zaharrek luzaro iraun zuten, beren erritualismo eta guzti.

a) Juduak

Jerusalen erromatarrek hondatu zutenetik aurrera batipat (K.o. 70), juduen diaspora berria Inperiora zabaldu zen, eta hiri- eta landa-kolonia ugariak bildu ziren, Mediterraneo inguruko lurralde haietan. Inperioaz sozialki eta politikoki (K.o. 313) kristauak nagusitu zirenean, gisa berean segitu zuten juduek (hirietako judu-auzoetan bilduta, noski), nahiz eta Berant Erdi Arotik aurrera eraso eta jazarraldiak eraman behar izan (Ik. "Mendez Mende. Aroa Modernoa", 33 eta 405. or.).

1750-1875 arteko mende eta laurdenean, Iraultza Frantsesaren ondoren batipat, askapen-garai berria ezagutu zuten juduek. Indar sozial bat ziren, eta Erteuropan eta Eki Europan itxurazko minoriak osatu zituzten: Inperio errusiarrean milioi bat lagun gutxi gorabehera, Hungarian 100.000 bat, eta Austrian 300.000. Mendebaldean, alderantziz, gutxiago ziren, eta sakabanatuagoak aurkitzen ziren Estatu-barneetan.

Juduen askapena

"Asanblada Nazionalak zera ikusita:Hiritar frantsesa izateko, eta hiritar ekile bihurtzeko beharrezko baldintzak Konstituzioak finkatzen dituela; eta, aipatutako baldintzok izanik, hiritar-zina ematen duen edonork, eta Konstituzioak ezartzen dituen obligazio guztiak betetzeko hitza ematen duenak eskubidea duela hark aitortzen dizkion abantailak izateko: Hori jakinki:

Hiritar-zinitza emango duten gizabanako judutarrei buruzko aurreko Dekretuetatik ondoriotutako geroratze, erreserba eta salbuespenak kontraerabaki egiten dira. Emango duten zinitzaz, beren alde lehendik ezagutu zaizkien pribilegio eta salbuespen guztiei uko egiten dietela ulertzen da".

(ASANBLADA NAZIONALA, 1791)

JUDAISMOAREN LITERATUR LAN BERRIAK

"Literatura erlijiosoa ez dago, XIX. mendean, isilduta. Le Malbim-ek (1809-1879), berehala herritartu zen Bibliaren komentario tradizional bat idatzi zuen. Baina batez ere 'judaismoaren jakintza' garatu zen: Historia (H. Graetz, 1817-1891), literatura erdiarotarra (L. Zunz, 1794-1886; A. Geiger, 1810-1874; eta A. Berliner, 1833-1915), bibliografia (M. Steinschneider, 1816-1907), filosofia erdiarotarra (S. Munk, 1803-1867). Interesik handieneko lanak sustatu zituzten; gaur egun ere, horietatik asko baliozkoak dira oraindik guretzat.

Era berean, erreforma erlijiosoa agertu zen Alemanian, berehala Estatu Batuetara eta Frantziara emigratuz. Honekin kontrajarrita, distiratsu indartu zen neo-ortodoxia (S.R.Hirsh, 1808-1888). Italian E.Benamozegh errabinoak 'Moral judua eta moral kristaua' alderatu zituen eta 'Israel eta gizadia'ren arteko harremanak aztertu. Hala ere autore guztiok, hain hebraierazale fin izanda ere, ez zuten erabiltzen hebraiera, gehienetan alemana (inoiz frantsesa) baizik, beren jakitun-tesiak garatzeko. Bi gertaerek markatu zuten hebraierazko literatura 1880-1917 urteetan: Errusiako 'pogrom'ek (1881...) eta 'Sion-en Maitaleen' mugimenduak sortutako sionismo politiko-kulturalak". *(R. SIRAT)*

Kristauen artean bezalatsu, judu fededunen artean ere pentsamendu modernoak krisi larria sortu zuen; judaismoa bi korronte kontrajarritan banatu zen: ohizko forma erlijiosoak indarrean iraun zuten, batez ere Erteuropan eta Ekialde europarrean; Mendebaldean, ordea, mentalitate liberalak eta pentsamendu laikoak lurra jan zieten joera tradizionalei. Gaur egunetararte iritsi da, juduen artean, bitasun hau, Israel-eko Estatuan oso agerian ikusten denez.

b) Islam-a

Albanian, Errumanian, Bulgarian, Konstantinopolin eta Egeo-ko Irletan eratu ziren komunitate islamdarrak Europan, hego-ekialdeko turkiarren konkisten babesean. Nekazal populazioak ziren gehienbat, eta mundu ortodoxoaren barnean isolatuta zeuden. Baina Islam-aren hedapen-indarra, garai batean, Inperio Errusiarrera, Kaukasiara eta Ertasiara ere zabaldu zen, eta berrikitan Afrikan irabazten ari zen lurralde eta herri berriak ez ziren ahanzteko.

ABDUL HAMID II. (1876-1908). Mendebaldearen erasoen aurrean, erantzun-beharra ere sentitu zen mundu islamikoan. Abdul Hamid II.ak, eslaviarren artean paneslavismoak egiten zuenaren gisan, Mendebaldeko inperialismo ekonomikoari panislamismo otomandar bat jarri nahi izan zion aurrez aurre. Islamaren "Kontrarreforma" bat eratu eta gidatu nahi izan zuen, kolonialismoari aurpegi eman ahal izateko.



XIX. mendeak kinka historiko berria ekarri zion Islam-ari, ordurarte kristau-munduarekin izandako harreman sozio-politikoak arrunt itxuralda zitzakeena. Izan ere, kolonialismoa oldartsu agertu zen, erasoko, hainbat lurralde musulmanetan: Ipar Afrikan, gainerako Afrika musulmanean, Inperio Turkiarraren inguruan (Danubialdean, Balkanetan, Ekialde Hurbilean), Afganistan eta Indian, Indonesian, etab. Lehenengo aldiz gertatzen zen, hain zuzen, horrelakorik: Mendebaldearen menpe eroriko ote zen, gero, Islam-a, bere tradizioa arriskuan jarriz eta, agian, Europako kristauen funtsezko pentsamendu-krisiak bereganatuz?

XIX.etik hona Islam-ak --fedean, filosofian, politikan-- zaindu egin behar izan zuen bere nortasuna, aldiberean modernotasunaren balioei erantzuten zien bitartean, ezinezkoa bait zen Europaren presentzia berriari era batera nahiz bestera erantzun gabe geratzea.

Hain zuzen, Europako Elizek, kolonizazioaren interesekin eta kristau-herrien aurrerapen teknikoekin batera, beren arazo larriak ekar zitzaketen, izan ere europarren fede-bizitza ez bait zen urmael bare bat.

"MAIRU BIZKAITARRRA" (1827-1876)

El Hach Mohamed el Bagdady bilbotarra zen, eta jatorrizko bere izena Jose Maria Murga eta Mugartegi zen. Abentura zale honek historia jakingarria du; bere jakin-minak eztenkatuta batez ere Marokko ezagutu zuen.


Ordurako Krimea-ko gerratean egona zen. 1859-60etako Afrikako gerratean ez zuen parte-hartzerik izan, baina Zalduneria utzi (militarra bait zen ogibidez) eta hara joatea erabaki zuen (1863-1866). Horretarako, arabiera ikasi ezezik, medikuntzako zenbait ikasketa ere egin zuen. Lehenengo ibilaldi honetako albisteak liburu batean eman zituen argitara: "Recuerdos marroquíes del Moro Vizcaíno" (1868).

Espainiako iraultza eta errebolta sozio-politikoek lar urduri zeukaten gizona. Bigarren bidaiari 1873an ekin zion. Gaixoturik, nahiko gaizki ikusi zuen bere burua eta itzuli beharrean aurkitu zen laster.

Bizkaitar honen ibilaldiak oso libreak izan ziren, eginkizun diplomatiko edo ikas-asmo berezirik gabeak. Ez zen plangintza baten barnean ibili. Batez ere gizarte-modu ezezagunak ikusi eta bizitzeko, askatasun pertsonal baten bila beti: 'Nik dudana zera da: aiurri arrarotxoa, hala nahi bada; jakin-min puxka bat, oraindik ere ase-gabea, historiako hainbat gauzez (...); gure gizarte zibilizatuko monotoniaz asperra', idatzi zuen berak. Bidaietan bildutakoekin museo bat osatu zuen Markinako Torrebitarte-n.

Islam-aren krisi modernoa

"Mendebaldeko uholde industrialak XIX. mendea hastean sortu zituen bere ondorio doakabeak herri islamikoetan: artisau musulmanen miseria eta hauen berehalako hondamendia. Horrek eman zion kolonialismoaren eta inperialismoaren kontrako Islamaren borrokari, eguneroko ogiaren aldeko herri gosetien gerrate baten esanahi zorrotza". *(ALI MAZAHERI)*



ANTIKLERIKALISMOA. 1833-1839-etako urteetan antiklerikalismo odoltsu bat ezagutu zuen Espainiak: 1835ean, adibidez, su eman zitzaien fraide-komentuei Barcelona-n,parrokiak eta katedralea errespetatu ziren bitartean.Gizartearen eta Elizaren arteko harremanak ez ziren berehala samurtuko, hurrengo hamarkadetan ere.

B) KRISTAU ELIZEN ARAZOAK

XVI. mendeko Erreformaren eta Trentoko Kontzilio Katolikoaren ondoren ez ziren bukatu Europako gatazka erlijiosoak. Aitzitik, orduantxe hasi ziren urratzen pentsamendu modernoaren bide berriak. Eta egokiera berri honek Elizen eta eliztarren bizitza ere laster ikutu zuen.

XVII-XVIII.etan Elizak geroz eta problema latzagoen aurrean aurkitu ziren. Tentsio guzti hauek lau arazotara laburbil genitzake: **1.** Aginte-nozioaz eta eliz administrazioari buruzko zalantzak. **2.** Doktrina-desbiderazioen eta doktrina-garbitasunaren arteko arazoa. **3.** Joera ekumenisten bidezkotasuna. **4.** Elizen eta mundu modernoaren arteko harremanak.

* 1. Boterea Elizaren baitan

Aurreko mendeetan konfesio kristau gehienak administrazio-arloan eta beren Zuzenbidean nolabaiteko komunitate estrukturatutan eratuz joan ziren: batzuk, Eliza Katolikoa bezala, egitura unibertsaletan moldatu ziren; beste batzuk, lekuan lekuko antolamendutan, edo erakunde nazionaletan.

Bestalde, lurralde-antolamendu horien barnean, hierarkiaren eta eliztar xumeen arteko aginte-harremanak desberdinki eratu ziren Elizetan: batzuetan agintea oso zentràlizatu zen eta zentzu monarkiko-teokratiko bat hartu zuen hierarkiak; bestetan, eliztarren komunitateak joko demokratiko eta informalago bat izan zuen eliz eginkizunetan.



ELIZA KATOLIKOAREN BOTEREA. Elizak bere baitandik kanpora zeukan botereaz arduratuta zeuden Mendebaldeko Gobernuak, izan ere jendarteko eritzian eragin handia bait zuen hark: 1800 inguruan 60 milioi ziren Europako katolikoak (22 protestanteak, 25 ortodoxoak). Marrazkia: Bismarck, Vatikanoa lurreratu nahian (1874).

XIX. mendean Aulki Sainduaren eliz botorea ospe eta itzal handiagoz inguratu zen. Eliza nazionalek indarra galdu zuten beren nortasunean, eta "ultramontanismo" Erroma-zale bat nagusitu zen. Horretarako prozesu honi ez zioten gutxi lagundu, noski, Italiako gertakari politikoek.

Pentsamendu honek bere gailurra 1870ean jo zuen, Aita Santuaren hutsezina definitzean. Harez gero, geroz eta gehiago erakunde autokratiko bezala eratuz joan zen Eliza Katolikoa, Aita Santuaren subiranotasunaren gerizpean. Erromako Kuria hartu zen Eliza osoaren botere-ardatz bezala, agintearen tresna praktiko erabat nagusi bezala alegia. Aita Santua, Kongregazioetako Kardinalak, Nuntzioak...: Fededunen komunitate nazionalen, Elizbarrutietako artzapezpiku eta apezpikuen ekimena erakunde zentral haien itzalpera pasa zen. Botere legegilea, beterazlea eta judiziala, teorian eta praktikan, modu zentralizatu batean eratu ziren. Apezpikuen izendapenak Erromatik egiten ziren, tokian tokiko kristau-elkarteari eritzi erabakitzailerik ezagutu gabe: agintea goitik behera, hierarkikoki emanda banatzen zen.

VATIKANO I.a (1869-1870). Hamaseigarren mendeko Trentokoaren ondoren hau izan zen hurrengo Kontzilioa. Eliza Katolikoaren batasuna eta Aita Santuaren boterea erabakiorki indartu zituen.





PIO IX.a (1846-1878). Elizak izan duen aitasaindualdirik luzeena izan zen honena. Lehen urteetako malgutasuna galdu egin zuen gero, inguruko eraso sozio-politikoen ondorioz, eta gizarte modernoarekiko eliz harremanak ozpindu egin ziren guztiz, eliz barnean Aita Santuaren irudia indarberrituta atera zen bitartean.

Pio IX.aren aitasantualdi luzeak (1846--1878) eta une historiko hain kritikoak zerikusi nabaria izan zuten prozesu honetan. Mende horretan egindako Kontzilio bakarrak (Vatikanoko I.ak), aipatu arrazoiengatik ere, ez zion prozesu agintezale hari kontrakargarik jarri ahal izan, eta eliztarren barneko elkarrizketa eta eritziek indarra galdu baizik ez zuten egin. Kuriak landutako eritziak eta betebeharrak, ostera, lege bidez definituz eta ezarriz joan ziren, 1917an Zuzenbide Kanoniko berrian gorputz hartu zuten arte.

Eliza Anglikano, Luterotar, eta Ortodoxoetan gisa bereko joerak ere ezagutu ziren. Ingalaterrako Elizan, adibidez, apezpikuek izendatu eta eliz legeak ematean Koroak zeregin zuzena zuen eta Eliza erakunde estatal bat bezala ageri zen.

Alemanian, Eliza nazional lutertarrek, erret boterearen menpean, estruktura hierarkizatuak mantendu zituzten. Errusiako Eliza Ortodoxoa XVIII. mendetik botere politikoaren kontrolpean jarrita zegoen, Sinodo Santuak gobernatzen eta administratzen zuela.

AITA SANTUAREN BOTEREA ZAINTZEN


"Antonelli idazkariak ez zuen garbi ikusten (1859-60), azken hamar urteetan Europako ideia eta baldintza politikoak noraino aldatu ziren. (...). Pio IX.aren jarrera nahikoa ezberdina zen. Arazo nazional italiarrarekiko sinpatia handia zuen, idazkariaren alderantziz. (...). Pio IX.a ez zegoen pertsonalki subiranotasun tenporalari gehiegi atxekita; baina bere independentzia izpiritualaren berme ezinutzia bezala ikusten zuen hura. Europa guztiko prentsa ultramontanoaren aldarriek, mundu osoko katolikoen aurrean botere horretaz erantzun beharra zeukalako ustean berresten zuten Aita Santua (...). Ingurukoen ametsek eta 'Aita Santu Erregea' aldarrikatzera zetozen erromesen manifestaldi beroek --geroz eta ugariagoek-- 'mirariren' baten itxaropena pizten zioten. Horregatik, Aulki Santuaren askatasun izpiritualaren eskea eta printzipio liberalen errotiko kritika bateginez joan zen Aita Santu zaharra". (R. AUBERT)

* 2. Doktrina-ortodoxia

Beste garai batzuetan bezala, XIX. mendean ere Eliza gehienak heresiaren eta doktrina-desbiderazioen aurrean aurkitu ziren. Nahiz eta Eliza protestanteetan eta juduen sinagogan gatazkak ez falta, batez ere Eliza Katolikoan arazo hau larriagoa izan zen.

Liberalismoaren aurrean, Eliza Katolikoaren jarrera, defentsiboa izan zen batipat. Liberalismoaren doktrinak sakonki aztertu eta katolikotasunerantz bideratu ordez, etxe-barneko doktrina-batasuna mantentzen saiatu zen bereziki. Eginkizun honetan ez zen drama intelektualik falta izan, eta sonatuenetako bat Frantzian gertatu zena.


F. **Lamennais**-ek (1782-1854) fedea herri guztien zentzu amankomun eta arruntean oinarritu zuen; kristautasuna izango litzateke azalpen gorena, eta tradizionalismoaren eta liberalismoaren arteko sintesia ekarriko lukeena. Lamennais eta beretarren teoria eta ahalegin katoliko-liberalei Gregorio XVI.ak Aita Santuak (1831-1846) "Mirari Vos" (1832) eta "Singulari Nos" (1834) Entzikliken bidez erantzun zien, Liberalismoa eta Lamennais-en teoriak kondenatuz. Mundu modernoaren balioekiko elkarrizketarako ahalegin hark ere huts egin zuen, beraz.



F. de LAMENNAIS (1782-1854). Frantziako katoliko liberal aurrerazaleen gidari hau da eliztarrei fede-bizitza moderno baterako eredu berria landu nahi izan zien buru eta ekintzalerik suharrenetako bat. Kontzientzi arazo larri baten ondoren, Elizatik kanpo geratu zen Lamennais.



H. LACORDAIRE (1802-1861). Apaiz eta domingotarra. Lamennais eta Montalembert-ekin batera, liberalismo katoliko bat eratu nahi izan zuen, Aita Santuak **l'Avenir** aldizkaria gaitzetsi zuen arte (1832). Gero, Lamennais-engandik urrunduta, Montalembert-ekin jarraiki zen lanean, Elizan. Pariseko Andra Mari Elizako Lacordaire-ren hitzaldiak sonatuak izan ziren. Napoleon III.aren diktaduraren kontra egon zen.



J. BALMES (1810-1848). Balmes Vic-en jaio zen (Katalunia). Lehen Karlistadaren, eliz Desamortizazio eta Esklaustrazioaren urte larrietan eta ondoko konponketa-urteetan idatzi zuen, epe laburrean lan gaitza onduz: Politika, Apologetika eta Filosofia ikutu zituen bereziki, Eliza gizartean era modernoago baten lekutu nahirik.

Alemanian, fedea subjetibotasun hutsean bildu eta Agerkundea oinarri razional hutsetan galduta eskaini nahi zituzten joera teologikoak suertatu ziren. **Hermes** (1775-1831) eta A.**Günther** (1783-1863) izan ziren ideia hauen defendatzaileak. Hauen eta beste zenbaiten desbiderazio teologikoak, denak batera, izan ziren gaitzetsiak Pio IX.aren Entziklika batean: "Syllabus" deitu eranskinean kondenatzen zituen Aita Santuak "mundu modernoaren errakuntzak" (laurogeitaraino ziren).

Baina Elizaren eta mundu modernoaren arteko gatazka ez zen behin betirako kitatu horrekin. Mendea bukatzean ere berpiztu egin zen arazoa, Erromak Modernismo bezala definitu eta kondenatu zuenaren eztabaidan ikusi ahal izan zen bezala (1907).

Itxialdiak eta kondenak gorabehera, barnean doktrina-garbitasuna zaintzen zen bitartean, Eliza kristauetan bataiatu guztien arteko harremanak eta elkarrizketa ere sustatu nahi izan ziren, ekumenismoaren mugimenduarekin.

LAMENNAISen DRAMA

"1830ean, Askatasun-haizeak gogor jotzen du Europan, eta Lamennais-ek bere lagunekin, (...) 'Estatu librean Eliza librea' kanpainari heltzen dio. 1830eko urriaren 16an ***l'Avenir*** *aldizkaria sortzen du, 'Dieu et liberté' sloganarekin. Honen orrialdeetan Lamennais eta bereak askatasun-barruti guztien defendatzaile bilakatzen dira (askatasun politikoa, irakaskuntzarena, prentsarena, lagunarteena...); Elizaren desengaiamendu tenporalaren alde, herri katoliko zapalduen askapenaren alde (Polonia, Irlanda) agertzen dira (...). Askatasunaren erromes bezala Gregorio XVI.arengana doaz (1831, azaroa), Europako katoliko liberal guztiak, 'Acte d'Union' manifestuaren bidez, batasunera deitzen dituzten unean. (...). Labur hartu zituen Aita Santuak (1832), eta hitz onak entzun zituzten bakarrik, elkarrizketa seriorik gabe. München-en zeuden 'Mirari vos' entziklika eman zenean. (...).1834eko apirilean argitara zuen 'Paroles d'un croyant' (=sinestun baten hitzak), 'Kristogandik saihestutako' aitasaindugo bat salatuz".*

(P. PIERRARD)

* 3. Mugimendu ekumenista

Ahalegin ekumenikoen helburua, dogma-ezta-baidak eta liskar historikoak medio zirela sortutako zatiketa konfesionalari aurpegi ematea zen; bataiatuek fedez onartzen zuten Kristo bakarraren fededunak Eliza kontrajarrietan banatzen zirenez, Ekumenismoak egoera zatikatu hori gainditzera eraman nahi zituen.

Lan zaila zen hori, mendeetan zehar zetorren ohizko intolerantziari, hartu behar bait zitzaion gaina.

XIX. mendean oraindik intolerantzi jarrera gogorrak bizi ziren. Honela, Britainia Haundian eta Irlandako arazoarekin nahastuta, tradizio antipapistak indarra zuen. 1780an Ingalaterran ez zegoen 60.000 katolikotatik gora, baina ondoko urteetan Iraultza Frantsesaren pertsegituek "papista" deituen baliagarritasun politikoa ere erakutsi zuten (Napoleon-en kontrako arerio guztiekin kontatu beharra bait zegoen), eta ondorioz politiko ingelesek haiekiko jarrera aldatzera jo zuten.

1840an, kontinentetik eta Irlandatik Ingalaterrara bildutakoekin, milioi erdi bat ziren katolikoak, eta hierarkia katolikoa 1850ean birjarri zen. Irlanda izan zen, gaur eguneko Eliza

J.H. NEWMAN (1801-1890). Eliza Anglikanoa eraberritu nahi zuen "Oxford-eko Mugimendukoa" zen, katoliko egin zen arte. Gero katoliko liberalekin lanegin zuen (Simpson, Acton: "The Rambler" aldizkaria), Eliza katoliko ingelesari modernotasun-zentzu bat emateko. Katoliko tradizionalistekin topo egin zuen (Ward, Manning, Faber). Newman-ek azkenik arrakasta pertsonal osoa lortu zuen, baina ez halakorik katolikotasun liberalak, mugimendu bezala.

John H. Newmann
Katoliko ingeles ireki bat

"Arrazako intelektual honen ustez, Elizarekiko leialtasun-froga bezala katoliko batzuek defendatzen zituzten jokabide amorekaitzak Elizarentzat kaltegarri gertatzen ziren. Newman-en jarrera mentalak susmoak pizten zituen Eskolastika hertsi bati atxekita zeudenengan eta giza izpirituaren ikerkuntza librearen esparrua agintariek muga zezatela irrikatzen zutenen artean. Newman-ek katolizismo ingelesean izan zezakeen eragin emankorra ahuldua gertatu zen urte askotan, geroago eliz agintariekiko haren egoera hobetu bazen ere, batez ere 'Apologia pro vita sua'ren (1864) ez-ohizko arrakastaren ondoren, izan ere autorearen erabateko ortodoxia agerian jartzen bait zuen halako balio literario eta psikologikoa zuen obra maisu honek". (R. AUBERT)



Suitza: Eliza katolikoa

"1847an, katolikoen 'Sonderbund' garaitua izatea proba-une gogorra izan zen Suitzako zazpi kantonamentu katolikoentzat. Hala ere, 1848ko Konstituzio federalak kultu-askatasun osoa ezagutzeak hobetu egin zuen katolikoak minoria ziren kantonamentuetan berauen egoera juridikoa. Hori ikus liteke eraiki zituzten eliza ederretan: Genęva-ko Andra Maria eta Berna-ko San Pedro. Baina librepentsatzaile radikalak, mende-erdialdetik aurrera, sistematikoki Elizaren garapen libre honen kontra egon ziren. Oraindik irekita zeuden Monastegi eta Komentu ugari itxia izan zen, eta kantonamentu batzuek irakaskuntza erlijiosoa kendu egin zuten".

(R. AUBERT)

Katoliko ingeles-hiztunaren harrobia; industria ingelesek edo kolonia berriek erakarrita, edota legeek eta goseteek irlatik bota eta munduan barreiatuta, irlandarrak gertatu ziren katolikotasun britainiarraren zabaltzaileak. Ez, ordea, hasieran aurreritzi "antipapisten" oposiziorik gabe.

Liberalismoaren mende honetan, oraindik ere izan zuen lekurik gerrak edo pertsegizio erlijiosoak. Suitza izan zen hauetako gudaleku bat: kantonamendu katolikoek, protestanteen politika erlijiosoak urrunduta, Konfederazioaren etorkizuna bera jarri zuten arriskutan ("Sonderbund": katolikoen elkarte independentista). 1848ko Konstituzioaren bidez lortu zen oreka berri bat, kantonamendu guztien artean.

Honelako gatazka erlijioso-politikoak beste tokitan ere ezagutu ziren. Errusia da kasurik aipatuenetako bat: katolikoak Eliza Ortodoxoaren menpe ezarri nahi izan ziren. Baina intolerantziak ez ziren alderdi bakar batekoak.

Katolikoek ere ezin-eraman beretsua erakutsi zuten, lurralde katolikoetako talde protestanteen aurrean. Eta aurkaketa hauek misio-lurretan nabariago agertu ziren, kolonialismoak ireki zituen herri berrietan: Madagaskar-en, adibidez, Frantziaren eta Ingalaterraren arteko lehiaketan arazo erlijiosoak ere ibili ziren politiko-diplomatikoekin batera.

Guzti hauek gorabehera, aldizka eta gutxienengan bada ere, ageri zaigu bake-borondate jatorrik ere. Europan bertan, ezin-ikusien ondoan mugimendu ekumenistak konfesioen arteko elkarrizketa lagundu zuen: Pio IX.ak Ekialdeko Elizei

Entziklika bat zuzendu zien eta 1870ean baita Gregorio Patriarkari Vatikanoko Kontziliora deitu ere. 1894ean Kardinal-batzorde bat eratu zen Ekialdekoekin batasuna bilatzeko eta 1897an greziarrentzako Apaizgaitegi bat ireki zen Erroman. Hala ere, bada kontraesanik franko saiakera hauetan, Ekialdeko Elizak latinizatu nahia adibidez (teologiaz, zuzenbidez eta errituetan). Dena den, eragozpen gehiago topatu zen Erreformatik jaiotako Elizekin benetako elkarrizketa bat sustatzeko.

Erakunde ekumenista bizkorrenak Eliza Katolikotik kanpo antolatu ziren, batez ere misio egitekoetarako elkartu zirenean (1910). Gerora hainbat katolikok ere hartu zuen parte, eta azkenik Joan XXIII.arekin eman zion Elizak bultzadarik ofizialena ekumenismo katolikoari (Kontzilioaren Ekumenismo-Dekretua, 1964).

Dena den, Ekumenismoaren arazoak oso ezberdinak dira, segun nortzuen arteko elkarrizketa nahi den: Ekialdeko Elizak/Erroma, Erroma/Eliza Anglikanoa, Protestanteak/Ekialdeko Elizak, etab. Elizetatik kanpoko gertakariek (gerra-fronteetan eta kontzentrazio-esparruetan elkarrekin bizi-beharrak, adibidez) elkarren ezagupide hobea sortu zuten kristauen artean, eta gizarteko premiak arintzen batabestearekin lanegin ezinik ez zegoela erakutsi.


Ekumenismo ez katolikoa

"Konstantinopoliko patriarkak kristandadeko elizei zuzendutako mezu baten ondoren bakarrik, 1920an, hartu zuen parte ordezkaritza ortodoxo batek 'Elizen bidezko Nazioarteko Adiskidetasunerako Aliantza Unibertsalean', Pio XI.ak Upsala-ko artzapezpikuak egindako inbitazioa aldera uzten zuen bitartean. Harez gero, ortodoxoak ekumenismoaren 'mugimenduan' sartuta geratu ziren: Konferentzia guztietan egon ziren presente. 1961ean, ordurarte arrazoi politikoengatik atzera egin zuen Mosku-ko Patriarkatuak ere --Bulgaria, Errumania eta Poloniako eliza ortodoxoak jarraian zituela-- 'Kontseilu Ekumenikoan' sartu zen. 1970ean, 375.000.000 kristau ez erromatar zeuden erakunde honetan".

(J. BOISSET)

EKUMENISMO KATOLIKOA

"Mugimendu ekumenikoarekin zera ulertzen da: Kristauen batasuna laguntzeko Elizaren beharren eta garaiko egokieren arabera sustatzen eta eratzen diren iharduera eta ekinbideak. Honelakoak dira, lehenengo, anaia banatuen egoerari justiziaz eta egiaz ez dagozkion hitz, epai eta ekintzak baztertzeko ahalegin guztiak, hauek bait dira, hain zuzen, elkarren arteko harremanak zailagotzen dituztenak. Bigarren, Eliza eta Komunitate ezberdinetako kristauen artean izpiritu erlijiosoz moldatutako bilerak, ongi prestatutako adituen arteko ***elkarrizketa****, beronen bidez azaltzen bait du bakoitzak sakonkiago bere komunioaren doktrina, eta berau bere ezaugarrietan argiago aurkezten". (VATIKANO II.a, 1964)*



ELIZA eta GIZARTE ZIBILA. Eliza katolikoak XIX.ean izan zuen arazorik larrienetakoa gizarte zibil laikoarekin bere harremanak nola korapilatu izan zen.Marrazkia: Pellegrino Rossi-ren asasinatzea (1848). Pellegrino, Pio IX.aren gizon politikoa zen. Helburu sozio-ideologiko berriak, Elizaren erakunde-interesekin oso nekez elkar zitezkeen.

* 4. Elizak eta mundua

Elizak mundura irekitzea XIX. mendeko gertaera garrantzizkoa da. Estatuekiko erlazioak hobeki mugatu ziren. Gizarteko problemen eta zientziaren aurrerapenaren aitzinean nahiz kulturaren nondinorakoetan joera edo eritzi ofizialak eman egin zituzten Elizek.

Eliza Katolikoarentzat, Estatuarekiko harreman-problemak, XIX. mendean, era berri batean planteiatu ziren. 1815.ean, Vienako Kongresuak Aita Santuaren Eliz Estatua berrezarri egin zuen. Ordutik aurrera, independentzia izpirituala mantentzeko, Elizak, eskubidezko solaskide berdin bezala, kasik Estatu guztiekin, Konkordatuen edo akordio diplomatikoen bidez finkatu zituen harremanak.

Eliz Estatuaren babesa Aita Santuari Elizaren independentzia zaintzeko ematen zitzaiola ulertzen zen. Ikuspide honetatik begiratuta, Aita Santuaren Estatua gordetzea guztiz premiazkoa ageri zen. Hori horrela, Italiaren batasun-asmoekin estropozu egitea ez zen harritzekoa izango. Problema hau, 1860.etik aurrera, nabariagoa gertatu zen, baina 1830eko eta 1848ko Iraultzetan "Erromako Arazoa" jadanik mahai gainean zegoen. Mendearen bigarren erdialdian, Piamonteren inguruan Italia batasuna moldatuz zihoan neurrian, Eliz Estatua desagertuz joan zen. 1870eko maiatzaren 20an hartu zuen Erroma armada piamontetarrak. Pio IX.a, Vatikanoko jauregira bildu zen, borondatezko presoner.

Aita Santuek ez zuten inola ere onartu egoera berria: gatazka politiko puntzuniatua zen "Erromako Arazoa" deitu hau. Katoliko italiarrak

Estatu batu berrian bizitza politikotik kanpo geratu ziren; Italiak ezingo zuen, beraz, normaltasun politikorik lortu, harik eta arazoari, elkarrizketa bidez, irtenbide hoberik aurkitu arte. Kasik hirurogei urte joan ziren egokiera hori jaio zen arte: 1929an sinatu ziren Lateran-eko akordioak eta Konkordatua. Aita Santuari eta Eliza Katolikoari independentzi gisa berri bat ematen zitzaien, horrela.

Gutxi gorabehera Elizen eta Estatuaren arteko harremanak beti zeuden unean uneko politikarekin lotuta. XIX. mendean erregimen politikoak konturatu ziren nolako garrantzia izan zezaketen fededunek hauteskunde eta politikan. Elizak, bestalde, bidezkoa ikusten zuen politikan katolikoek ere beren hautapena egitea; eta, honela, 1871n Erroma hartua izan zenean, hauta-eskubide horren izenean edo, Italiako fededunei politikan parte hartzea debekatu zien, hautapen politiko bezala.

Aitasaindugoak energia asko eman zituen arazo politikoetan. Mendeetan zehar Jainko-zuzenbidezko monarkietan segurtasuna bilatu zuen Elizak garai berriotan Liberalismoarekin eta Nazionalismoarekin topo egiten du.

Giza errealitate ekonomikoei buruz, XIX. mendean, konfesio desberdinetan, fededunek edo lekuko kleroak eraginda, hainbat giza lan garatu zen. Eliza Katolikoaren kasuan, garaiko giza problemei erantzuteko (ez ahantz Iraultza Industrialean gaudela) karitate-instituzioak sustatu ziren. 1833an behartsu eta gaixoen laguntzarako "San Bizente Paulekoaren Konferentziak" sortu ziren, F. **Ozanam** irakasle eta idazle kristau-sozialaren gidaritzapean. Klase herritar xumeen egoeraz jaramon



LANGILE-INTERNAZIONALA (Lehenengoa, 1864). Iraultza Industrialak klase esplotatu berri bat sortu zuen Europan. "Proletariok, elkar zaitezte" dei egin zuen Marx-ek. Fededun eliztarrentzat erronka bat zen "arazo soziala".

A.F.OZANAM (1813-1853)

Historilari eta apologista katoliko liberala. "L'Avenir"en partehartu zuen, eta kristautasun sozial bat bultzatu. Sorbona-n lanegin zuen, ikasleen artean, ekintza sozialari edukin kristau eta funts intelektual kritiko bat eman nahirik. San Bizente Paul-ekoaren Konferentziak sortu zituen (1833). Lacordaire-rekin "L'Ere Nouvelle" sortu zuen (1848), baina politikatik erretiratu egin zen Luis Napoleon-en Estatu-kolpearen ondoren. "XIX.-ean, Ozanam izan zen apostolu laikorik nobleenetako bat" (Mourre).



LEON XIII.a (1878-1903). Aita Santu honek, bizitza politikoan partehartzera deitu zituen katolikoak (Ralliement, 1890), fedea kultura modernoarekin baketzera, eta arazo sozialaz arduratzera (Rerum Novarum, 1891).

berezirik izandako santu hemeretzigarrendarren bat aipatzekotan, gogora dezagun San Joan **Bosko** (1815--1888). Baina XIX. mendeko Eliza Katolikoak, erakunde bezala, ez zuen langileriaren premietan, zegokion ardurarik hartu: Leon XIII.arekin eman zen pauso berri bat ("Rerum Novarum", 1891), katolizismo sozialari bideak garbiki irekiz.

Katolikoen pentsamendu eta ekintza sozialak lehenagotik hasita zeuden, ordea, lanean. Maguntziako apezpiku W.E. **Ketteler**-i (1811-1877) zor zaizkio mugimendu honen formulazio teorikoa ("Kristautasuna eta langile-arazoa", 1864) eta hainbat lehenengo lan eta kanpaina sozio-politiko.

Sindikalismo kristauak oztopo gehiago izan zituen eliztarrengandik bere garapenerako. Sortu orduko, burgesia katolikoa axolagabe edo aurka agertu zen. Hala ere, Belgika, Alemania eta Frantzian bederen izan zuen nolabaiteko garrantzia. Euskal Herrian, sindikalismo kristaua XX. mendean jaio zen (ELA, 1911).

RERUM NOVARUM (1891)

(Leon XIII.aren Entziklika honen esanahi historikoa nabaria da katolikoen pentsamendu sozialaren historian. Entziklika honen aurretik Aita Santuek ez zioten heldu era sistematiko batean "arazo soziala" deituari. Dokumentu honen alkantzua hola epaitu du gaurko historilari batek:)

"Gizarte kapitalista liberalaren aurrean arazo sozialetan, Estatuak kontuhar zezala onartzea funtsezko erabakia zen idazlan doktrinal honetan (...). Langileen elkartze-eskubidea onartzea zen garrantzi ez gutxiagoko beste irakas-erabakia: zuzeneko eragina izan zuen honek katolizismoaren egitura sozialean (...). Entziklika honen balioa behar bezala epaitzeko, Eliza Katolikoaren ohizko irakaskuntza sozialaren barnean beronek izan zuen egokiera-puntu historikoa hartu behar da kontutan. Egia: ez zituen eboluzio sozial historiko orokorrean bide berriak urratzen; hala ere, muntarik bazuen Entziklikak botere nabariki kontserbadore baten hitza zelako, eta aski lagundu zuen kontserbadoreek eta liberalek politika sozial erabaki baten kontra zeuzkaten erresistentziak baretzen".

(O. KÜHLER)

C) EUSKAL HERRIKO ELIZA


Konbentzio-gerrateak (1794-1795) ongi erakutsi zien, ustez, Hegoaldeko elizgizonei Frantzia errepublikazalearengandik zer espero zezaketen: haietatik asko erbestera eramanak izan ziren orduan. Urte batzuk geroago, Napoleon-en armada hona sartu eta Erregea trukatu zutenean (1808), argi agertu zen zein izan zitekeen herritarren jokabide jatorra: herriek, eta herritarrekin batera hainbat elizgizonek ere, armak hartu zituzten Independentzi gerrate hartan (1808-1814).

Baina horrek ez du esan nahi hierarkia osoa beti bide beretik hasi eta ibili zenik: Kalagurriko Agiriano apezpiku frantsestuak, adibidez (gogoan izan honen menpe zeudela Gipuzkoaren parte on bat, Bizkaia eta Araba), bake-dei bat egin zuen, eta 122 apaiz bizkaitarrek ez zuten irakurri nahi izan berori pulpituetatik; apezpikua bera ere, ihesegin ondoren, frantsesari gerra egitearen alde agertu zen.

Santa Kruz: Gerrara?

(Santa Kruz Hernialdeko apaizak, 1842-1926, armak hartuta, mendira jo zuen: bost ateraldi egin zituen, 1872-74 urteetan. Hamar hilabete, guztira. Orixe-k honela eman zuen hartaz bere eritzia:)

"Oraingo liberalak edo ezkertarrak nai dute apaizgaiak eta apaizak soldatu joatea, ta ez an konpesioetan aritzera bakarra. Baño Elizak eztu nai. Apaizak Jainkoaren eskubidez gerrara gabe daudeke, ta Elizak joatea debekaturik dauka. Berez oker egiña da apaiza gerrara joatea Eliz-legeari miñ ematen baitzaio. Orduko egunetako gertaerai ta saietsai begiratzearekin, Santa Kruzek eztu bear bada Jainkoaren aurrean ainbesteraiñoko erantzun-bearrik. Bere buruari siñistarazi zion nonbait, Erlijioaren aldeko gerrari ekitea on-egoki zala. Erriari ere ala zerizkion. Jakin egin bear Euskalerria nola zegoan egun aietan. Itxukeratu edo zan burutapen orrekin, eta barkakizunago da". (ORIXE, 1929)



BEASAINgo GELTOKIAREN ERREKETA. Santa Kruz apaizak, bere armagizon-taldearekin, su eman zion Geltoki honi 1873ko uztailean. Karlistadetan supituki egindako ustegabeko eraso hauen bidez egin zitzaien maiz gerra Gobernuari eta beronen Armadari Euskal Herrian.

Ondoko urteetan (1808-1833) Euskal Herriko eliza ere Aro Garaikideak zekartzan arazo ideologiko larri, gatazka sozial katramilatsu eta borroka armatu odoltsuen aurrean aurkituko zen. Behin eta berriz (1814/1820/1823/1833...) bidegurutze historiko itogarrietan, alegia. Apezeriak, gehiengorik handienak bederen, Liberalismoan arrisku eta galbide itsusienak ikusten zituen: hondamendia, ohizko euskal Erakundeentzat (Foruentzat) bezala euskal fededunentzat ere (ideia berri libertatezaleak). Euskal Herriko pulpituetatik, beraz, ideia liberalen kontrako predikuak entzun ziren.

ESKLAUSTRAZIOA. 1835-1840etan, Desamortizazioarekin batera Esklaustrazioa ezarri zuen Lege bidez Gobernuak: komentu gehienak itxi egin ziren Espainian, eta fraide eta mojeek erbestera joan edo diozesi-apaizetara pasa behar izan zuten. Lurrak eta ondasunak (etxeak, liburutegiak, etab.) Estatuaren eskuetara joan ziren; enkantetan saldu ziren gero horietatik asko. Baina legeak ahal izan zen gisan bete erazi ziren: Arantzazuko Santutegia Rodil jeneralaren ordenuz erre egin zen (1834), eta, gerra amaitzean, Gobernuak aski esku izan zuenean, beste ordena hau eman zuen Loiolakoa hustutzeko (1840).

GOBERNACION.

Orden de la Regencia mandando cerrar en la provincia de Guipúzcoa todos los monasterios, conventos y demás casas de comunidad.

[En 13] Excmo. Sr.: Por Real decreto de 4 de Julio de 1835 fue suprimida en todo el territorio de la monarquía la Compañía de Jesús, prohibiéndose que bajo ningún pretexto pudiesen volver á reunirse sus individuos; y los bienes rentas y efectos que entonces poseían se

; y aun los que residen en el santuario conocido por de San Ignacio de Loyola están dedicados á la enseñanza pública sin haberse sujetado á las reglas que la ley establece.

La Regencia espera de su celo y acreditado patriotismo que evacuará este importante encargo con la actividad y energía que exige la urgente necesidad de hacer desparecer abusos, cuyas consecuencias pudieran ser muy trascendentales;

, y se atienda al sustento de los exclaustrados que resulten. Dios &c. Madrid 13 de Diciembre de 1840. = Manuel Cortina. = Sr. corregidor político de Guipuzcoa.

Lehen Karlistada lehertzean (1833), euskal eliztarrek ikasita zeukaten leku jator eta zuzena non zegoen: Don Karlos-en alderdiarekin. Erlijio garbia, benetako Erregea, Foruen segurtasuna, erret absolutismoa. Euskal Herriko elizgizonetatik gehienek (batzuetan arma eta guzti ere bai) Karlos-en alderdiari lagundu zioten, eta laguntza hau hain irtena izan zenez, Gobernuak konbentu-etxeak istea erabaki zuen (1834).

Horrek eta ondorengo desamortizazioak areago korapilatuko zuen oraindik Elizaren eta politikaren arteko ezinkonpondua. Elizaren lurrak eta herri-lurrak ezin salduak zirenez ("esku mortuenak" zirela esan ohi zen), burgesia liberalak ezin zituen erosi eta horrela, merkatu librera pasa; hain zuzen, Liberalismo ekonomikoaren kontrako egoera, erabat. "Jabetasun mortu" (= hil) hartatik irteteko, liberalek Elizaren ondasun horiek salgai jartzea erabaki zuten. Horixe zen desamortizazioa, eta liskarkizun luzea piztu zuen horrek.

Desarmortizazioarekin galdutako ondasunak ez ziren Espainian hainbeste izan Euskal Herrian, baina hemen ere esanahi politiko berbera zuen eliztarrentzat. 1869rarte luzatu zen eztabaida hau, Gobernuarekiko harremanak behin eta berriz pozoinduz. Cádiz-eko Gorteek ez zuten hemen deus egiterik izan, baina Jose Bonaparte-ren ministrariek itxi zuten hainbat konbentu eta monastegi. Hirurteko Konstituzionalean, Nafarroako monastegiek eta Bizkaiko konbentu batzuek, jasan zuten desamortizazioaren erasoa. 1834.ean gerrarekin, konbentu asko ospitale, koartel eta espetxe bihurtu ziren. Hala ere, Mendizabal-en garaian (1835--1836) emandako dekretuek ondorio txikiak izan zituzten Euskal Herrian, lehenik gerrarengatik, eta gero, legea bete erazteko, Gobernuak Kalagurriko Gotzainaren beharrezko laguntzarik lortu ez zuelako.


"Desamortizazio-Lege Orokorra"k (1855.ean emana, Madoz Legea bezala ezagutzen denak) kontrako itxia eta eratua aurkitu zuen hemen. Bizkaian, Foruen aurkakotzat jo zen Legea. Nafarroan ez zuen oposizio handirik izan, eta, azkenik, Araban eta Gipuzkoan 1866-1869etan Elizako ondasunei eraso gogorra eman zitzaien.

GASTEIZko DIOZESIA (1862). Erdi Aroan Euskal Herrian hainbat gotzaindegi ezberdinek agintzen zuen: Vaspuesta, Araba, Kalagurri, Oka, Iruñea, Baiona. Aro Modernoan Kalagurri, Iruñea, Baiona izan ziren gotzain-hiriak (ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa", 35. or.): Euskal Elizaren parte handi bat kanpotik gobernatuta zegoen beraz (Kalagurri), eta egoera hori aspaldidanik zegoen gaizki ikusita. 1862an konpondu zuen antolamendu hori Pio IX.ak, hiru herrialde ahizpak Diozesi bakarrean bilduz, baina ez, beren aldetik, euskal batasun horren etsaiek ikusten zituzten arrisku politikoak azpimarratu gabe: "... badute, horrela, beren buruak gobernatzeko beharrekoa den oro, eta erabat independente izateko".

Eliz desamortizazioa

(Komentuen desamortizazioaren ondoren, Esparterok apaizeria sekularraren ondasunak desamortizatu nahi izan zituen: Katedrale eta parrokien ondasunak, alegia. 1841eko irailaren 2ko Legeak eta beronekin zihoazen argibideek hau zioten:)

"Apaizeria sekularraren ukantza guztiak, edozein moetatako eskubide edo ekintza direla ere, edozein sorrera edo izenekoak izanik ere, eta edozein zeregin nahiz xedetarako emanak, erosiak edo hartuak izanda ere, ondasun nazionalak dira". "Urriaren 1--ean, alkatea --Udal-sindiko eta idazkariarekin batera doala-- Estatuaren izenean aipatutako ondasunen jabe egingo da herri guztietan, parroki elizako artxibategian nahiz beste edozein lekutan daudekeen liburu, paper eta agiriak formalki hari emanez".



Año I. Sábado 26 de Julio de 1862. Núm. 8

BOLETIN ECLESIASTICO
DEL
OBISPADO DE VITORIA.

LETRAS APOSTOLICAS

de Nuestro Santísimo Padre PIO IX, para la erección de la Silla Episcopal de Vitoria

En virtud de la Autoridad Apostólica que nos conceden las expresadas Letras elevamos para siempre el mismo templo, ó sea la enunciada Iglesia Colegiata, ya como tal extinguida y que estaba bajo la advocacion de la Bienaventurada Virgen María, la cual conservará en lo sucesivo, el honor y dignidad de Iglesia Catedral, y erigimos por tanto en ella desde hoy para siempre tambien una Silla, Cátedra y dignidad Episcopal para su Prelado que se titulará Obispo de Vitoria, quien presidirá con jurisdiccion y autoridad episcopal á esta citada Iglesia y Ciudad de Vitoria, al Clero y fieles de ella, como igualmente á toda la Diócesis y sus habitantes de uno y otro sexo, á escepcion de aquellos que son en el dia gozan del privilegio de una exencion particular.

Al efecto, apartamos y eximimos del todo de la jurisdiccion ordinaria, superioridad, gobierno y administracion del M. R. Arzobispo de Burgos, y de los R R. Obispos de Calahorra, Santander y Pamplona respectivamente las tres Provincias conocidas con el nombre de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya, es decir, sus territorios co-

Tomo I. 8



BIZENTE MANTEROLA (1833-1891). Gasteizko kalonjea eta Gipuzkoatik diputatua (1869). 1868-ko Iraultzaren ondoren egin zen Konstituzioaren kontra jokatu zen (kultu-askatasunaren arazoagatik). Azken Karlistada lehertzean, karlismora pasa zen.

Elizaren barne-erakundearen aldetik, behinolako foruzaletasunaren bidez ere azpimarratutako aparteko nortasuna indarberriturik irten zen Euskal Herriko Elizan, Gasteizko Elizbarrutia sortzean (1862). Aurrerantzean Araba, Bizkai eta Gipuzkoako fededunen bizitza askoz hobeki antolatua ageri zaigu, nahiz eta azken Karlistadak (1872-1876) berriro ere gizarte osoa, eta Eliza, dardararazi.

Berehala, mendearen azken herenak, Gasteizko Elizbarrutian udaberriaren kimuak ekarri zituen: 1878an jarri ziren Apaizgaitegiaren lehen oinarriak. Gure mendean ezagutu ahal izan dira etxe berriaren fruitu sozialak. Erlijiosoetara bagatoz, liberalek itxitako konbentuek eta sakabanatutako Ordenek berriz ere beren egoitzak irekitzen hasi ziren, Ordena zaharrek (josulagunek, frantziskotarrek, beneditarrek, karmeldarrek...) ezezik, baita Kongregazio modernoagoak ere (pasiotarrek, salesiarrek...). Emakumezkoen elkarte erlijiosoek ere etxeak ugari ireki zituzten. Hogeigarren mendearen hasieran, Combes-en legeak (1901) Frantziatik iraitzitako Kongregazio askok euskal

ARANTZAZU: ERREKETA ETA BERRERAIKUNTZA

"Antselmo Iñurrigarro, Antzuolako semea. Honetxek, beste ehun mikelete gipuzkoar lagun hartuta, zertu zuen Rodil-en ordena. (...). 1834eko abuztuaren 18an, inular-aldera, heldu zen Iñurrigarro Arantzazura bere ehun lagunekin. (...). Gaueko hamaiketan, Iñurrigarrok bakarka hartu Aita Nagusia eta azaldu zion (...): Gau hartan bertan eliz-komentua erre behar zutela. (...). Zumalakarregi Zumarragako ondoan aurkitzen zen. Ezkarga gainean. Negar egin omen zuen (...). Bi ordu baino lehen fraileek abiatu behar zuten (...). Lehenbizi Bitoira, eta handik Espainia barrura. (...).

Liburutegi eta artxibo-paperekin batera, beste gauza asko hondatu ziren han. (...). 1846ko azaroaren 19an bihurtu zen Imajina Arantzazura. (...). Aro berri baten hasiera. 10.000 kristau bildu ziren goiz hartan, lau probintzietatik. (...). Bizkaia eta Gipuzkoatik, 646 langile ibili ziren bidegintzan!, jaiera hutsez, beste alogera gabe" (1879-1886). *(S. MITXELENA)*

Hegoaldean aterpe ona aurkitu zuen, batzuetan baita Iparralde-Hegoaldeen arteko harreman-tradizioa berrituz ere (Belok eta Lazkaoko beneditarrek, adibidez). Erlijiosoen indarberritze honetan irakaskuntza izan zen aukeratutako lan-barruti nagusienetakoa (Lasalletarrek, Salesiarrek, eta emakumezkoen hainbat etxek).

Iparraldea aipatu dugunez, eman dezagun albisteren bat XIX.eko hango Historia erlijiosoaz. Iraultza Frantsesaren ondoren, "Frantzia Katolikoa" deitua oso zigortuta eta erakunde iraultzaileekin zapuztuta geratu zen. Napoleon ondoko Zaharberrikuntzak lehenera ekarri nahi izan zuen egoera, baina Liberalismo eta mugimendu herritar frantsesek ez zioten horretarako lekurik utzi. Gerotxoago, Napoleon III.enarekin egon zen hurbilpen bat (ez da ahantzi behar Aita Santuaren babeslea izan zela orduan Frantzia), baina Komunak eztanda egin zuenean (1871) eta ondoko Errepublikarekin katoliko frantsesek ez zuten jokabide erosorik aurkitzen, molde sozio-politiko berrituetan bizi eta lanegiteko. Leon XIII.ak bultzatu behar izan zituen partehartzera ("Ralliement", 1890), baina Erromaren borondate oneko keinu honek ez zituen Elizaren eta Errepublikaren arteko susmoak itzali. Areago oraindik, XX. mendeko lehenen urteetan, Estatu-Elizen arteko harremanak gaiztoagotu egingo dira oraindik.

Testuinguru honetan berritu zen Iparraldean Baionako Diozesia, bai bere Seminario eta oinarrizko erakundeen bidez, bai Elizbarrutian zeuden edo bertara zetozen elkarte erlijiosoekin. Azkeneko hauen artean gogoratu behar da izen sonatu bat: Betharramdarrak sortu zituen Mikel **Garikoitz** (1797-1863). Bestalde, Diozesiaren berri-

Katolikoak Errepublikarekin

(Leon XIII.ak Frantziako katolikoei Errepublikaren erakundeekiko begiramena eta leialtasuna eskatu zizkienean (1890), kontzientzi arazo bat sortu zitzaion askori. Hiriart-Urruty apaiz kontserbadoreak honela idatzi zuen "Eskualduna" astekarian, 1892--III-4:)

"Adiskide batek izkribatzen dauku harritu dela, iragan astean, 'Eskualduna'ren lehenbiziko artikulua irakurtzearekin.

Ez dugu bada, gure ustez, deusere erran egiarik eta zuzenik baizik. Erran dugu Aita Sainduak kontseilatzen gituela, bakearen gatik eta erlisionearen gatik, Errepublika on bat onets dezagun. Egia erran dugu.

Erran dugu onartzen dugula guk kontseilu hori. Erran dugu orai baino lehen ere, gure baitarik eta aski erakutsi dugu, nor diren gure etsaiak; ez gituela gu Errepublikaren izenak izitzen.

Erran dugu Errepublika ona izan dezakegula, baldin bozkatze guzietan gizon zuzenak, zuhurrak, giristinoak izendatzen baditugu. (...)

Framazonen eskuetan gira, Framazon horiek bere ahal guziak egiten dituzte Frantzian erlisioneari erro guziak moztu nahiz".

(J. HIRIART-URRUTY, 1892)

kuntzan, ikastetxeen lanek munta sozial berria eman zioten Elizari, beti ere pentsamolde modernoetan txertatzeko gaitasun handirik erakutsi ez bazuen ere. Apezeria ipartarrak, ikusiko dugunez, loraldi ederra eman zion euskal Literaturari, XVII.eko beste hura gogorarazten zuela.

Hizkuntza, balio nazionala


(S. Arana-k argitara eman zuen bere lehenengo idazlanean, hizkuntzaren balio nazionala azpimarratu zuen (1886), Donostiako 'Euskal-Erria' aldizkarian. 'Eusko Pizkunde' deituaren ekarpenetako bat da hizkuntzaren eske hau:)

"Zorionekoa bere historia ezagutzen duen herria! Hainbat ikaskizun ugari eta baliagarritan galdu gabe (...), zalantzarik gabe garrantzi ziurra duen bat gogoratuko dugu: euskararen galerak inmoralitatea, ezjakina eta ideien desbiderazioa dakartza (...). Beren hizkuntza galdu duten eskualdeetakoen baitan (...), euskal aiurria galdu egin da gehienengan (...):Hortaz, euskal nazioaren osagarri esentziala da euskara".

(S. ARANA GOIRI, 1886)

VI. EUSKAL KULTURA XIX. MENDEAN

Hemeretzigarren mendean euskal gizarteak lurrikara latzak jasan zituen, gizarte bat eratzen duten funtsezko bere oinarrietan: ekonomian, demografian, pentsamoldeetan, gizarteko harreman-moldeetan, bere kontzientzia nazionalean... Mende-hasierako euskal gizarte hura, 1900era iristean oso bestelakoa zen. Tartean, gertaera aldagarri larriak ezagutu ziren: Karlistadak, Foruen hondamendia, ideia liberalen sarrera, desamortizazioa, iraultza industriala Bizkaian, abertzaletasunaren jaiotza, lehenengo langile-inmigrazioak, "Eusko Pizkundea"...



L.L. BONAPARTE (1813-1891). Napoleon III.aren lehengusua zen. Diputatu aukeratua (1848) eta Senatore izendatua (1852) gertatu zen, urteroko 130.000 liberako dotamentu batekin. Oxford-eko Unibertsitateak ohorezko Doktore egin zuen. Hizkuntzalaritzan eta, batez ere, euskararen alde eman zituen bere denbora eta diruak. Londres-etik gidatu zuen bere eta lankideen lana (Duvoisin, Intxauspe, Otaegi, Uriarte, Salaberri, etab.). Egin zituen bidaiekin eta lankideon itzulpenen bidez, euskalkien geografia eta dialektologia eraiki zituen (1869). Euskaldunok zorrik handiena diogu.

A) GARAPEN LITERARIOAK

Zurrunbilo-testuinguru honetan bizi izan zuen, ba, Euskal Herriak bere bizitza kulturala. Adibidez, ordurarte baino modu biziagoz ispilatu zituen euskal Literaturak garaiko lan eta nekeak. Nahiz eta oztopo handiak egon (obra nagusi batzuk, idatzi eta askoz geroago eman ziren argitara), XIX. mendean literatur lana gehitu egin zen. Kopuruz, literatur ekoizpena aurreko hiru mendeetakoa baino ugariagoa izan zen.

* 1. Prosa-lana

Hego Euskal Herrian mendearen lehen zatia oso aberatsa da idazletan. Larramendiren ildotik zetozen hamalau bat idazle baditugu garai honetakoen artean. Eman ditzagun hemen aipagarrienak:

Historian gabiltzanez, badu interesik Joan Inazio **Iztueta**-k (1767-1845). Gizpuzkoarra zen, Zaldibiakoa. Herrialde honetako dantzei buruzko bi liburu utzi zizkigun, eta Gipuzkoaren Historia bat zor diogu, gainera, Iztuetari. Garaikoei aurrea hartu zien euskararen betekizun kulturala azpimarratzean. Ondoren aipatzen ditugunek eliz eginkizunetarako erabili zuten batipat euskara idatzia, Hegoaldeko hizkuntzari trebetasun berriak irabaziz: Agirre Asteasukoa, Gerriko, Lardizabal, Lizarraga Elkanokoa ditugu.

Joan Bautista **Agirre** (1742-1823) asteasuarra zen; bertan jaio eta bertako parroko izana. "Erakusaldiak" liburu mardula idatzi zuen, predikuetan euskarari bere lekua zaintzearren. Gisa

Gipuzkoako
Probintziaren kondaira, 1847

"Bere azken urteetan idatzi zuen obra hau Iztuetak eta ez zen argitara eman haren heriotza-ondoan baizik. On Ramon Gereka-k, probintziako idazkariak, ohar hau jarri zuen Iztuetaren eskuizkribuaren bukaeran: 'On Joan Ignazio Iztueta 1845eko abuztuaren 18an hil zen hirurogeitamazortzi urte zituela, eta bere azken hiru urteetan idatzi zuen obra hau, eskua dardaraz zuenean, idazkerak berak ere erakusten duenez'. (...). Bere lur eta herriarekin bat eginda zegoen gizaseme honek, hain maitea zuen bere Ama Probintziaren ohoretan egin nahi izan zuen azken omenaldi bikaina da liburu hau. Pentsa daitekeenez, historia bezala ezer gutxi balio du, edo deusez. Zaldibia Batxilerra izan zuen iturria. Zalantzarik gabe, hizkuntz testu bezala askoz gehiago balio du". *(L. VILLASANTE)*

bereko lana egin zuen J.I. **Gerriko**-k ere (1740-1824). Segurar honen idazlanak hilondoan eman ziren argitara (1858): "Kristau-Doktrina". Gaien aldetik zentzu zabalagoa du F.I.**Lardizabal**-ek utzi zigunak (1806-1855). Iztueta bezala hau ere Zaldibiakoa zen. Jaioterriko parrokoa izan zen. Gramatika-lanetatik aparte, "Testamentu Zarreko eta Berriko Kondaira" idatzi zuen. Lardizabal-ek euskara oso zaindua du, idazle handien hegada jasorik ez badu ere.

Idazlerik bada Hegoaldeko beste herrialde eta euskalkietan ere. Bizkaian, J.A. **Mogel** (1745--1804) lehenagokotzat jotzen badugu ere, gogoan hartzekoa da "Peru Abarka"ren argitalpen atzeratuagatik (1881). P.A. **Añibarro**-rekin (1748-1830) eta **Prai Bartolome** (1768-1835) karmeldarrarekin batera, Mogel har daiteke bizkaiera literarioaren sortzaile bezala. Nafarroa Garaian, berriz, J. **Lizarraga** Elkanokoa (1748-1835) izan zen obra idatzirik oparoena utzi zuena; baina, zoritxarrez, haren lanak askoz geroago eman ziren argitara (batzuek gure egunotan, gainera). Iruñerriko euskaraz landutako obra da Lizarraga-rena.

XIX. mendeko euskal Literaturak kanpotar bati zor dio bere itzal sozial berria: Luis Luziano **Bonaparte**-ri (1813-1891) alegia. Bonapartetarren odoleko printze honek euskal idazleak sustatzen eta euskalki ezberdinetako testu idatziak biltzen zituen. Bere ingurura hainbat euskaltzale fin bildu zuen. Honek eta A. **Abadia** (1810-1897) jakintsuak eman zioten Iparraldean "Eusko Pizkundea" izango zen aroari (1876-1918) bere ataurre sozial ederra. Baina honetaz hitzegin aurretik, komeni da Iparraldeaz ere zerbait esatea.

Antoni Abadia (1810-1897)

Ikasle izugarri argia izan zen Antoni, bai hizkuntzetan, bai zientzietan. Sorbona-n, Arago famatuaren ikasle da. Bere anaia Arñorekin, Ethiopiara joateko prestatzen da gisa oroz: bai izpirituz, bai gorputzez. Nilo ibai handiaren iturburuak aurkitu nahi dituzte. Ez dira haietara sekula helduko; baina Menelik Negus-aren adiskidea izan zen. Antoni Brasil-era igortzen du Arago-k. Han berrogeitamar astronomiazko eta geografiazko ikertze egiter ditu magnetismoaz. Hogeitasei urte zituela Agustin Xaho ezagutu zuen. Bere ibilaldietatik itzultzean, A. Abadia Hendaiara bildu zen: Aragorrian jaso zion Abadia jauregia Viollet-le-Duc famatuak (1862-1870), kanpoko ibilaldietan metaturiko ondasunei esker. Euskal argitalpenen eta literatur lehiaketen mezena eskuzabala izan zen A. Abadia. "Euskaldunen aita" deitu zuten, berak bere aldetik euskaldunei "Zazpiak bat" aldarrikatzen zien bitartean.

(J.L. DAVANTenetik moldatua)

Euskal prosak, obra eliz-eliztarren ondoan, mundu liberal laikoaren kontrako apologetika kristau bat landu zuen. Garaiko kezketara jarriz, ohizko gai eliztarrak aberastu egin ziren; baina, eliz literatura horretatik aparte, batez ere, J.B. **Daskonagerre** nahi dugu orain aipatu, beronek idatzi bait zuen lehenengo euskarazko nobelatzat eman izan den obra: "Atheka gaitzeko oihartzunak" (1870).

Bestalde, Iparraldeak benetako loraldia izan zuen, XIX. mendearen azkenetan, 1914erarte, euskal prosalari onenetariko batzuk belaunaldi beretsuan suertatu bait ziren (Duvoisin, Lapeire, Arbelbide, Adema "Zalduby", Joanategi). Besteak beste, J. **Hiriart-Urruti** (1859-1915) da berritasunik modernoena ekarri zuena, ez ideietan, baina bai euskal prosari eman zizkion betekizun sozial berrietan. Euskal kazetaritzaren arbaso eta maisutzat izendatu izan da Hiriart-Urruti, **"Eskualduna"** astekarian egin zuen urtetako lanagatik (1887--1915).

Hauek dira prosa-lanetan nabarmendu nahi genituenak, baina, prosaren ondoan, hizkera ederraren lantzea olertian egin zen berezikiago.



ATHEKA-GAITZEKO

OIHARTZUNAK

J.-B. DASCONAGUERRE

Conseilu Yenerraleko membra batez

BAYONAN

LAMAIGNÈRE ALHARGUNAREN IMPRIMERIAN

1870

"ATHEKA GAITZEKO OIHARTZUNAK" (1870). Lehenengo frantsesez eman zen (1867), gero gaztelaniaz (1867 eta 1872). Aditzera eman zenez, euskaratik itzulia zen; baina jendea originalaren eske jarri zenean, egin egin behar izan zen euskarazko idazketa. Lehen Karlistadan, muga-langile kontrabandista izandako Ganix-en gorabeherak kontatzen dira.

"ESKUALDUNA": APAIZAK ETA ERREPUBLIKA

("Eskualduna" Baionako astekariak 850 irakurle zituen 1888an; 950, 1889an; 1.200, 1890ean, eta 1.300, 1891n. Une honetan nahiko gorabehera sortu zen apaiz, apezpiku, gobernu eta aldizkariaren artean:)

"Orduan kenka gaixtoan gertatu zen ***Eskualduna*** *(...). Gobernuak, haren gain baitzen orduan apezen pagatzea, 35 diosesako apezi kendu zioten urte-saria, bozetan errepublikanoen kontra agertu omen zirelakoan. (...). 1890-eko martxoan etorri zen apezpiku berria: Mgr. Jauffret, errepublikano famarekin heldu zena, haren familia halakoa izanez. Hastapenean segurik Prefetaren mutil zelako itxurak eman zituen: prefetak galde eginik, Mendekoste bezperagoan hamar erretor eskualduni manatu zioten beren parropiaren uztea eta biharamuneko bertze herri batean kausitzea. Ez zen eskandala ttipia izan. Ordainez, gobernuak apez-sari gehienak itzuli zituen".*

(P. LAFITTE)

Trenbidea eta Etorkinak

(Altsasu-Irun trenbidea 1858-1863 urteetan ireki zen. Etorkin atzerritarren jendeketa ekarri zuen horrek. Xenpelar gazteak onela kantatu zuen gertakaria, 1859-1860etako gerrate austro-italiarra ere gogoratuz).

*"**Dozena** bat bertsotan*
nai nuke esplikatu
zenbat estranjero dan
Españian sartu;
lanbide au oraindik
gutxi det usatu,
uts-egiteak arren
argatik barkatu.
***Frantzes** asko ill dala*
diote Austrian,
beraz ez da onezkero
frantzesik Frantzian;
danak emen ditugu
oraingo aldian,
burnizko bide traste
oien aitzakian.
***Frantzes** da italiano*
kasta oiek nasi,
onera etorri eta
dabiltza nagusi;
pegoiari ederki
lana egin-arazi,
berak pikoarekin
beñere ez asi. (...)
***Lenago** etortzen ziran*
ofizialeak
ziran txorrotxale ta
pertz-konpontzalleak
titiri-mundi eta
santu-saltzalleak,
gizonik formalenak
txikiratzalleak. (...)
***Aspaldian** ezin det*
kendu nik buruti
urrengo frantzesada
ez degula urruti;
oiek ateratzea
gure erreiñuti
kosta bear zaigula
uste det larruti. (...)
(XENPELAR, 1859-60)

* 2. Poesia herritarra

Mende honetan hasten gara bertsolarien lehiaketak (1801) eta izenak ezagutzen, eta bertsolarietatik aurrera joaz, baita genero horretatik oso hurbil ageri zaizkigun bertso idatzi jasoagoak ere. **Fernando** Amezketarraren belaunaldiak hasten du, guretzat, historia hori; **Xenpelar**-ena (1835-1869) dator geroago, **Bilintx** (1831-1876), **Etxahun** (1786-1862) eta **Iparragirre** (1820-1881) tartean direla.

Erromantizismoarekin, Euskal Herriko ezbeharren eta poeta bakoitzaren kontakizunen poz, gozamen eta sufrikarioak bertso, kanta eta olerki horietan dasta daitezke. Herritik hain gertu ondutako literatur produkzio honek arrasto sakona utzi du ondoko gure historian.

* 3. Antzertia

Europan, eskierki, Erdi Arotik zetorren nekazal munduko antzertia desagertu egin zen mende honetan. Euskal Herrian ez da horrelakorik gertatzen, Zuberoara begiratzen badugu behintzat.

Izan ere, herrialde hartako teatro herritarrak ez zuen indarrik galdu, eta eraberritu ere egin zen, bere "süjeta" (gaia) aldatu eta eguneratuz. Zuberoako pastoralek, ba, gai profauak gehiago erabiltzera jo zuten, erlijiozkoak bakanduz. Gaur egunean ikusten ditugun gai-aldakuntzen parekoak gertatu ziren orduan.

Hegoaldeko Antzertiaren berrikuntza, aipatzera goazen "Eusko Pizkunde"aren barnean sartuko dugu.

A. KANPION (1854-1837). Euskal Herriaren historia, hizkuntza eta nazio-nortasuna izan ziren Kanpionen kezka biziena ezezik, bizitzan zehar aztertu eta ezagutzera eman zituen gaiak. Sabin Arana Goiri-ren aurretik, hain zuzen hamar urte lehenago, hasi zen Kanpion-en lan intelektuala, Foruei eta karlistei buruzko obra batekin (1876). Nafarroako Historiari eta euskarari eskaini zizkion bere ikerlanak, eta sorkuntza literarioan ere euskal nortasunaren hil-ala-bizizko kinka itogarria da gai nagusia. Ezagutu zuen Europako herrien askapen nazionalaren borroka (Inperio Austriarrean borborrean zegoena, adibidez). Bonaparterekin harreman hertsiak izan zituen, eta beroni eskaini zion Gramatika (1884). Kanpion euskal abertzaletasunaren aitzindaria izan zen, merezimenduz betea, eta gaur egun ere hainbat puntutan baliagarria gertatzen da nafar honen ekarria.



* 4. Eusko Pizkundea

Foruak kentzearekin bat (1876) euskal iragana, errealitatea eta geroa birpentsatu beharra sentitu zen: herriko historiaz, kulturaz eta hizkuntzaz arduratzen hasi zen jende ikasia. Nahiz eta oraindik talde txikietan izan, zabaldu egin zen euskararen erabilera aldizkari, hitzaldi, jaietan, elizetatik kanpo ere, ospakizun sekularretan.

Hegoaldeko lau hiriburuetan lan-taldeak osatu ziren: Iruñean Nafarroako Euskara Elkargoa sortu zen (1877) eta beronen "Revista Euskara" (1877-1883). Arturo **Kanpion**, H. Oloriz, J. Iturralde eta abarrek parte hartu zuten Iruñeko lehenen piztualdi honetan. Nafarrak izan ziren abertzaletasunari oinarri formulatu bat ematen hasi zirenak. Gasteizen J. Apraiz, Federiko Baraibar, Rikardo Becerro de Bengoa eta lagunen lana gogoratu behar da. Bilbon, Aristides Artiñano, Juan E. Delmas, eta Antonio Trueba dira izenik irtenenak.

J. Manterola (1849-1884)

"Erromantiko giroaren seme zela esan dugu. Oroi Iztueta eta Xahok ereindako hazia Bilintx eta Iparragirrerekin loretua zela. Hortik aurrera, erromantikoen gailurrean aurkitzen direnetakoa dugu Jose Manterola eta bere ekintzarik handiena 'Euskal-Erria' aldizkaria sortzean eta bere inguruan garaiko jakitun eta idazle guziak biltzean datza. Bildu ere, mugaren bi alderdietako euskaltzale eta euskalariak bildu zituen.

...

...

Horrela egin zen aldizkari hura bere izenaren jabe. Eta, gure kulturgintzan ari zirenek lehen aldiz izan zuten elkarturik lana egiteko aukera. Gero etorriko ziren ikerketaz eta politikaz ikuspegi berrituagoak eskainiko zituztenak, baina uka ezinezkoa zaigu berpizkundearen hasieretan zein garrantzitsua izan zen Manterolaren lana.

Egia esan, ziorik ez zitzaion faltatu bere gazte denboran. Hurbildik ezagutu zuen karlisten bigarren gerratea, bertako lekukotasunik ere eman zuen kronika gisa 'Diario de San Sebastián' hartan; baina egiazki bultzarazi zuena foruen galerazpena izan zen. Berez pizturik zekarren gogoari su eman bai zion 1876. urteko uztailaren 21ean Espainiako gobernuak gure foruak eragotziko zituen legea eman zuenean. Egun hortan, bere zuzendaritzapean argitaratzen zuen Diario-an berri ematean, orla beltzez agertu zuen, azpian honako hau iragarriz: "Los fueros han muerto!", "¡Vivan los Fueros!". Hori zelata, Institutoko irakasletzatik bota zuten". (L. VILLASANTE)

Dena den, hizkuntzaren aldetik eta izan zuen iraupenagatik Donostiakoa da talderik garrantzitsuena; Jose **Manterola** (1849-1884) izan zuen honek buru. Bizitza labur batean egiteko zabalak bete zituen: Euskal Kantategiaren argitalpena (1877-1880), Euskal Lore-Jokoen antolakuntza eta, batez ere, "Euskalerria" aldizkaria (1880--1918). Manterola-ren lana, indar sakabanatu langileak biltzeko izan zen, beste ezeren gainetik. Hasitakoak, haren heriotze-ondoan zutik iraun zuen.

"Pizkunde" kultural honi bere aurpegi herritarra ematen ziotenak jaialdiak eta herriari zuzendutako ekintzak izaten ziren. Azpimarragarria da, zentzu honetan, Donostian loratu zen antzerti-giroa. Izen bat dugu barruti literarioan guztietan lehena: M. **Soroa** (1848-1902) donostiarra. "Iriyarena" antzerkiak sekulako arrakasta izan zuen bere euskal zatietan (Ziburu-n 1876, Donostian 1878). Hori ikusita, euskal antzerki-sorkuntzara eman zen harez gero Soroa. Imitatzaileak ere izan zituen: J. Artola, E. Gorostidi, B. Mokoroa, etab. Horien artean, ordea, aipu berezia merezi duena Toribio **Altzaga** da, antzerti-lanari segida eskolatu bat eman ziolako.

POST TENEBRAS

Ongi, mutilak; maitatu zagun
beti gure Euskal-Erria
Ipiñirikan odeiaz goiti
Gure odol ta izen garbia;

Munduan ez da, seguru nago,
Au baño erri bat obia;
Gorde dezagun, bada, osorikan
Ama Euskeraren legia.

Otoi gaitean Jaungoikoagaz
Euskal-Erriko Jabeaz;
Oroi gaitean guraso zarrak
Guri utzitako Legeaz;

Oroi gaitean Euskera gozo
Munduan paregabeaz,
Ta aurrerontz ere izango gera
Mirestuak erbesteaz

(J. MANTEROLA)

B) HEZKUNTZA ETA ZIENTZIA

Euskal Herria ez da izan inoiz Zientzia modernoaren erdigune handi bat. Goi-ikastetxeek eta Unibertsitateak ez zuten hemen lekurik izan. Goi-ikasketak egiteko kanpora joan ohi ziren bertoko ikasle gehienak. XIX. mendean, aro industrial berrira igarotzean, ez zen egoera aldatu, batez ere zientzia zehatz eta teknikoetan.

* 1. Unibertsitatea

XIX. mendearen hasieran, Euskal Herrian lehentxoago zeuden hiru Unibertsitateak itxita zeuden. Hiru horietatik bik, Oñatikoak eta Iratxekoak, beren ateak berriro zabaltzea lortu bazuten ere, egoera txarrean gelditu ziren. Iratxekoa 1824ean itxi zen azkenik. Oñatikoari, berriz, gerrek ez zioten batere lagundu. 1866an proiektu berri bat jaio zen Nafarroan: "Universidad Vasconavarra" deituarena. Lau Diputazioek erabakitako lekuan eraikitzekoa zen, Euskal Herrirako Unibertsitate barruti bat eratuz; baina, gorabehera politikoak zirela medio, bertan behera gelditu zen asmo hura.

Unibertsitatea (1874)

(Azken karlistadan, Karlos VII.ak Erret Agindu hau eman zuen Euskal Herrian Unibertsitatea berreraikitzeko:)

*"**1. Art.**: Bere xede akademikoetarako euskal lau Probintziek Unibertsitate-Barruti bat egingo dute, behinolako Oñatiko Unibertsitatea buru eta erdigunetzat duena, Erret Agindu batek Filosofi Ikasketez edo Bigarren Irakaskuntzaz, eta Teologi, Kanon- eta Jurisprudentzi Fakultate handiz hornitu bait du berau azkeneko Otsailaren 12an.*

***2. Art.**: Gaur dauden bigarren Irakaskuntzako eta Lanbide-Irakaskuntzako Etxeak, edo behar den baimenarekin Barrutian sor daitezenak Oñatiko Erret Unibertsitate Pontifizioko Klaustroaren eta Errektorearen menpe egongo dira, beroni inkorporatuak egongo bait dira". (KARLOS VII., 1874)*

UNIBERTSITATEA, UKATUTA (1924)

"1924eko Urtarrilaren 19an Gobernuak Eusko Ikaskuntzari egindako gutuna aipagarria da. Zenbait eritzi barregarri eta zitalen ondoren, ezezko biribila, ukapen osoa egiten dio Unibertsitatearen eskabideari. Hara azken hitzak: "En su visita, S.M. el Rey (q.D.g.) se ha servido disponer se desestime la petición.-- De Real Orden comunicada por el Excmo. Sr. Presidente del Directorio Militar, Jefe de Gobierno lo digo a V.S. para su conocimiento y demás efectos.-- Dios guarde a V.S. muchos años.-- Madrid, 19 de Enero de 1924".

Nik dakidala behintzat, ez da behin ere horrelakorik gertatu Espainiako Estatuaren lur-eremuan. (...). Baina harrigarriena ezetza, ukazioa, espreski, erret dekretu bidez erabakitzea eta esatea da. Gure Herriak jasan dituen zapalkuntzetariko bat, eta ez ttipiena". (J.L. LIZUNDIA)

1869an irakaskuntza librea ipini zela probetxatuz Gasteizko Udalak Unibertsitate bat zabaltzea erabaki zuen eta baita asmoa aurrera eraman ere; baina azken Karlistadarekin behera etorri zen, 1873an ateak itxiz.

Geroztik, 1870ean, Bizkaiko Batzarreak saiatu ziren proiektu berri bat aurrera eramaten, eta Gipuzkoan ere izan zen horretarako gogorik, baina ahalegin denak alferrikakoak izan ziren. Baditugu, hala ere, XIX. mendearen bukaeran jaiotako bi erakunde oraindik bizirik: Deustuko Unibertsitatea (1886) eta Bilboko Injineru-Eskola. Hau 1897koa dugu eta Deustuko Merkatal Unibertsitatea, berriz, 1916koa.

Egoera eskas honen barnean badago, ordea, jasoagoa izan den zientzi barruti bat ere, Medikuntzarena.



J. MADINABEITIA eta ZARATE. "Joan Jose Klemente Eleuterio Madinabeitia eta Ortiz de Zarate, Oñatin jaio zen 1861ean eta Barcelonan hil, 1938an. Bere medikuntz ikasketak Madrilen amaitu zituen 1886an. 1892an Gorteko Ospitale Orokorrean sartu zen eta bertan unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza eta lan kliniko garrantzitsua egin zuen, hain zuzen ere Gregorio Marañón buru duen mediku-belaunaldiaren ikaskuntzarako funtsezkoa gertatu zena.

Barne-mediku bezala egindako lanetan, XIX. mendeko Medikuntzan sartutako diagnostiko-metodo zorrotzak Espainian girotzea eta bertakotzea nabarmenena bada ere, Espainiako Gastroenterologiaren garapenari berak egindako ekarpenak azpimarratu beharra dago, berorren oinarri teorikoak bi liburu garrantzitsurekin hornitu bait zituen: 'Fisiología patológica de la digestión' eta 'Enfermedades del esófago y del estómago', biak ere 1910ean argitaratuak. Honen ikasle eta lanaren jarraitzaile ere beste mediku euskaldun bat izan zen: Luis Urrutia, Madrilgo 'Instituto Madinabeitia'ren sortzaileetariko bat". (L.S. GRANJEL)

* 2. Medikuntza

Industrializazioak eta merkatal iharduera garatuago batek XIX. mendearen bukaeran hazkunde demografiko nabaria ekarri zuten Euskal Herriko hiriburuetan, Bilbon batez ere.

Arazo honek, Medikuntzaren erakunde laguntzaileak berriztatzera eta zabaltzera bultzatu zuen. Adibide argiak dira Gasteizko aintzinako Santiago ospitalearen modernizatzea eta Donostiako San Antonio Abad; orobat, Bilbon Atxuriko ospitalea alde batera utzi eta Basurton egoitza berri eta modernoago batetan zerbitzuak jartzea (1908).

Euskal Herriko hiriguneak medikuez ongi horniturik aurkitzen ziren, eta Udalak saiatu ziren, beren Ordenantzen bidez, bizilagunak gaixo kutsakorretatik zaintzen.

XIX. mendearen lehen herenean, Euskal Herriak sukar horia jasan behar izan zuen, eta lehen Karlistadak kolera eta tifusaren zabalkundea lagundu zuen. 1885ean koleraren azken izurritea jasan zen eta 1918an gripearena.

Industrializazioak eritegi espezializatuak eraikitzera bultzatu zuen. Laster bainuetxeen balio terapeutikoaz ziharduen argitalpenik ez zen falta izan. Argitalpen medikoetan badago, gainera, euskaraz emandakoren bat: Aranburu-k Bergaran argitaratua ("Medikantzako Argibideak", 1899).



N. ATXUKARRO (1880-1918). Gazterik hil zen mediku hau da Cajal-ondoko euskal histopatologorik handiena. Madril, Parise, Florentzia eta München-en ikasi zuen, eta Washington eta Madrilen lan egin. Baliozko obrak utzi zituen idatzita.

ERITASUNAK ETA MEDIKUNTZA PREBENTIBOA (1899)

"Antziñaco demboretan bazan esaera, paquea nai duanac egon bear duala guerraraco prest; eta au bera esan guentzaque gasho pegacorren gañean itz eguiten degunean, bada oei aurrea artu bear zayote eta ez egon escuz-escu jarrita bera azaldu zai, ecer eguiñ gabe gueroagoan cerbait eguiteco asmoan. Erri guciac naiz izan aundiac edo chiquiac, lendabicico eduqui bear dutena contuan erabaquitzen degun arguibide onen gañean da, nola eguin bear duten beren **garbitasuna**. *Izan bear du onec biciro ongui eguiña eta artaraco diranac ipiñi bear dute gauza onec bear duan aiñbateco beguiramentua erreparo aundia artuaz lendabicico errico canale eta ziquinqueriac corrimentua daucaten lecuai; iturrico uren izaera moduari, eta jan bear diran gauzai batezere campotic etortzen diranai. Poz aundi batequin esan bear degu lecu onetan gure euscal-errico provinci oetan eguiten dirala beguiramentu oec beste iñongo lecutan ez becela".*

(MEDICANTZACO ARGIBIDEAC, 1899)

VII. XIX. MENDEKO KULTURA ESPAINOLA

Espainiako arteaz eta literaturaz, adibidez, dagoeneko esan da zerbait aurreko orrialdeetan. Hemen hezkuntzari eta zientziari dagozkienetatik jasoko da albisteren bat edo beste.

A) HEZKUNTZA

Mendebaldeko hezkuntza eta kulturaren garapenaren ondoan, bazeuden herrialde batzuk, eta berauen artean Espainia, atzerapen nabaria jasan zutenak. XVIII.eko Ilustrazioaren berriztapen-ahaleginak moztuta gelditu ziren XIX. mendeko lehen erdialdian: Independentzi Gerrate luze eta hondagarria, liberal eta absolutisten arteko borrokak, Fernando VII.aren politika atzerakoia... Arazo guzti hauek egoera kulturalaren atzerapena baizik ez zuten ekarri.

Liberalismoa garaile zela, irakaskuntza publikoaren berrantolamendua hasi zen, eredu frantsesari jarraikiz. Lehen irakaskuntzarako irakasleak prestatzeko, Eskola Normala sortu zen (1834), eta hogei urte geroago (1854) Institutuetan irakaskuntza ertaina eratu. Moyano ministrariak egindako "Ley de Instrucción Pública" (1857) deituak eman zion luzarorako bere egitura irakaskuntzari: Udaletxea arduratuko zen herriko eskolaz; Diputazioa, Probintziako Institutuez, eta Estatua, Unibertsitateaz.

Irakaskuntza Espainian

"Oro har, XIX. mendeko azken hamarkadetan aurrera egin zuen Espainiak materialki, izpiritualki ere giro hobexeagorik sumatu zen. Baina % 28k bakarrik zekien irakurtzen eta idazten, zeren 1880an analfabetuen portzentaia % 80taraino zen (1887: % 81,16 analfabetu; 1900: % 71,43). Espainiako irakaskuntzaren indarberritzea geldia eta zalantzaz betea izan zen, antzua ezezik kontrakoa ere gertatu zen Fernando VII.aren erregealdiaren ondoren. (...). Moyano Legea (...) har liteke mendearen ondoko urteetaroko Espainiako Irakaskuntza publikoaren oinarri bezala (...). Hiru partetan banatu zen hau: lehen mailako irakaskuntza udalari zegokion; Diputazioei, bigarren mailako Institutuen eta Irakasle-Eskola probintzialena; Estatuak zuen Unibertsitateen, Irakasle-Eskola Zentralaren eta Eskola berezien ardura. Ez dago esan beharrik ere eraberdintasunik itxienak agintzen zuela guztietan."

(F. SOLDEVILLA)

Baina, antolamendua berandukoa eta zentralizatua zenez, mailarik apalenetik hasia gainera, erreformak sortu nahi zuen berrikuntzaren fruituak oso geldiro ikusi ziren.

M.MENENDEZ PELAYO (1856-1911). Espainiako tradizio kulturala izan zen historilari, kritikari eta saiolari honen ikerkizuna, bere nazioa Legenda Beltza deitutik aurpegi-garbitu nahirik.



B) ZIENTZIA

Espainian XIX. mendeko azken herena arte ez zen sumatu berrikuntza zientifikorik; xuxenkiago esateko,Borbondarrek erretaulkira itzuli (1875) eta "Errestaurazioa" ongi mamitu zen arte. Baina ez da pentsatu behar, horretarako erakundeek zuten programa bati esker gertatu zenik; alderantziz, pertsonalitate saiatu batzuen lorpena izan zen. Baliabide eskasekin ahalegindu ziren (eta batzuetan lortu) Espainiako zientziari atzerrikoaren maila irabazten. Halako bakardade ofizialean lanegin zuten haien izen batzuk gogora ditzagun, beraz.

EGIA ala ERRAKUNTZA, LIBRE?

"Nik ez dut errakuntzarako eta gaizkirako eskubiderik onartzen, egiarako eskubidea, zientziarako eskubidea baizik... Niretzat 'zientzi askatasuna' esaera, ez Filosofi barrutian, ez lege-esparruan, ez historian, legitima daiteke razionalki. Ene ustez, 'zientzi askatasuna' esaerak sofisma bat du azpitik, aintzinako logikoek 'iragan-sofisma' deitzen zuten... Nik ez dut sinesten zientziaren libertatean; determinismo zientifikoan sinesten dut; zientzia, halabeharrezkoa dela uste dut; zientziak, barne-lege ezinbaztertua duela uste dut, partez objektutik bertatik datorkiona, partez subjektutik datorrena; egiaren beraren baitandik eratorria; ikerlan zientifikoan darabilgun metodotik sortzen dena, beronen arauak malgutasunik gabeak bait dira. (...).

Eskola-ikasleei zera esango nien nik: zientzia ez dela lehenengo datorrenaren besoetara joango den emagaldua, dama gartxu bat baizik (...). Baina, hala ere, onartzen dut hau ere: giza ahuleziagatik, oso zaila dela, lurreko bizitza honetan, egia horren distira batzuk atzematea". (MENENDEZ PELAYO, 1885)

F. GINER DE LOS RIOS

F.Giner de los Ríos (1839--1915) Espainiako pentsamendu kritiko modernoaren maisua gertatu zen XIX. mendearen azken laurdenean eta gero Errepublika arte, XX.ean. Unibertsitate-irakasle honek bere katedra utzi egin zuen agintariek askatasuna moztu nahi zutela ikustean.Pentsamendu irekiago bat bultzatu asmoz, "Instituto Libre de Enseñanza"n hartu zuen parte (1876), aurreko urtean Unibertsitateari legeak ezarritako baldintzetatik kanpo lanegin nahiz.

Lehenik Letra ederren munduan, Marcelino **Menéndez Pelayo** (1856-1911): Literaturaren historian saiatu zen batez ere. Eduardo de **Hinojosa**, Zuzenbidearenean; Eduardo **Torroja**, Matematikan.

Baina garai honetako zientzi gizon espainol ezagunena Santiago **Ramón y Cajal** (1852-1934) izan zen, bere neurologi aurkikuntzengatik mundu osoan ezaguna. Modernotasunaren hari beretik, Francisco **Giner de los Ríos** (1839-1915) izan zen, pedagogiaren molde zaharrak berrituz, betidanik atzeratuta zetorren hezkuntza aldatzeko erakunde berri bat,"Institución Libre de Enseñanza" (1876), sortu zuena. Espainiako ideologi bilakaeran garrantzi handia izan zuen honek ondoko hamarkadetan.

IRAKAS-ASKATASUNA (1875)

(Orovio-k, Cánovas del Castillo-ren Ministrariak, 1875ean ondorengo zirkular hau bidali zien Unibertsitate-Erretoreei. Irakasle-talde batek bere dimisioa eman zuen orduan; hauen artean, Giner de los Ríos-ek. Egoera bortxatu honi erantzunez, jaio zen hurrengo urtean "Instituto Libre de Enseñanza" deitua, Espainian tradizio intelektual libreago bati erakunde-oinarri bat emanez. Honela zioen Orovio-ren mandatu hark:)

"Jaun horrek begira beza, arretarik handienaz, berorren agindupean dauden ikastetxeetan, dogma katolikoaren edo moral sano baten kontrakorik deus irakats ez dadin; irakasleak beren ardurapean dituzten irakaskizunen azalpenera hertsiki muga daitezen ahaleginduz, errakuntza sozial galgarrien bidetan gazteriaren esaneko izpiritua galbidera gabe...

...Erretorego horren menpe dauden ikastetxeetan, zuzenki edo zeharbidez monarkia konstituzionalari edo herriak ia ahobatez onartu duen erregimen politikoari erasotzea inola ere ez dadila jasan...

eta Jaun horrek zorigaiztoz jakingo balu norbaitek ez duela aitortzen finkatutako erregimena edo beronen kontra azaltzen dela, inolako begiramendurik gabe, dagokion espedientea egin diezaiola". (OROVIO Ministraria, 1875)

"Askatasun bete hau, osoa, ez dudan bitartean, ez naiz eseriko pasadizoko edozein Ministrariren aginte administratiboak, bere oinarri mugiezinetan, mehatxupean daukan katedra batean"
(E. CASTELARek Katedradun-dimisioa aurkeztean, 1875).

EUSKARA ERE ESKOLARA?

A.Pascual Iturriaga (1778-1851)

"Hernaniarra zen Iturriaga, XVIII.an jaioa baina bere heldutasun osoa XIX. mendearen lehen erdialdian eman zuena, apaiz eta maisu bezala. Xehetasun argi gehiegirik ezagutzen ez bada ere, badakigu betekizun publikoetan eskuhartu zuela. Erbestealdi bat ere jasan zuen, lehen karlistadaren garaian (1834-40): Iturriaga apaiz maisua ez zen nonbait ideia liberal berrietatik urrutiegi ibili eta "Trienio Constitucional" delakoan (1820-23), irakaskuntzari begira zenbait aholku-zerbitzu eskatu zioten agintariek. Hala ere, itxura guztiz, ez zen garbiki inolako alderditako lagun izan.

Hemeretzigarren mendearen lehen hamarkadetan hiritar eskolatu aurrerazaleek zituzten ideiak zituen Iturriagak. Hain zuzen, idazle irakasle hau lanean bete-betean ari zen urteetan burutu zen, azkenik, Gipuzkoan XVIII. mendetik amestutako Irakaskuntz Plangintza bat (1823-24), lehen mailako eskoletarako. Eta aldiberean eman zen Madrilen Lehen Irakaskuntzako Egitasmo Orokorra. Gizartean eta Udaletan bizirik ageri zen kezka baten aitzindari eta zerbitzaria zen Iturriaga lehendik ere, berak Hernanin sortutako Eskolaren bidez (1817-18etan eraikia).

Eskola honetako egitaraua ezaguna da, eta berorren arabera badakigu ez zela han euskararik irakasten. Hutsune hauxe da Iturriaga bultzatuko duena pauso berri bat ematera: 'Orain dala zazpi urte umetxoekin denbora igarotzen nuenean ezagutu nuen zer erokeria andia egiten zan emengo eskoletan erderaz gaztiai irakurtzen erakustearekin, izanik, mila bider errazago euskaraz, ikastea eta erakustea'. Eskarmentu horren arabera nagusitzen ari zen sistemaren barnean erdara irakatsi beharra zeukanez, zeregin horretarako tresna pedagogiko bezala hartu nahi du euskara. Hau da, batez ere, bere alde praktikoan Iturriagak dakarren proposamen berria". *(J.INTXAUSTI)*

Gobernuaren 1923ko Zirkularra


(Arau hauetan Lehen Irakaskuntzako Eskoletan Estatuak nolako hizkuntz politika egin nahi zuen ikus daiteke. Aurreko mendeko eskolatik datorren tradizio sortu berria da hau).

"Gaztelaniaren ezagutza, ahalik erarik hoberenean, Espainiako probintzia guztietan guztiz gauza interesgarria izateagatik, berorren irakaskuntza izan da beti Lehen Irakaskuntzako Maisuen eginkizunik behinena; batipat hizkuntza ofiziala ezbezelako hizkuntza edo dialektoak gordetzen dituzten herrialde edo lurraldeetan, eta bertako jendeak bere-bere gauzatzat zuzen eta legez bait dauzka, ahalegin handiago eta iraunkorragoa behar dute egin irakasleek haurrak beren aberkideen arten komunikabide funtsezkoenaz eta kultur elementu ahaltsuaz, nola bait da aberri hizkuntzaren ezagutza, hornitzeko. Horra zergatik dien gogorazten "Dirección General"ak Maisuei, ahantz ez ditzatela beren eginbeharrak gai honetan; orobat dagokion Inspekzioari, haiek duten eginbeharra zorrozkien bete erazteko duten premia, hau da, nork bere eskolan gaztelania irakastea eta irakaskuntza hizkuntza berean ematea, honi buruz, batzuk eta bestek 1902-12-19ko Erret Ordenari behar dutelarik egon, bere lehen zenbakian zera arautzen duenari: Lehen Mailako Inspektoreak ardura bitez atsedenik gabe Maisuek duten eginbeharra, hots, gaztelania erakustea zorrozkien bete dadin, Ministraritza honi nabari litzaketen huts edo eskaskeriez parte emanez".

4
AMERIKA:
LEHEN DESKOLONIZAZIOA (1776-1914)

URTEAK	GERTAKARIAK	URTEAK	GERTAKARIAK
	ESTATU BATUAK		LATIN AMERIKA
1776	Independentzia	1778	Merkatalgo librea
1783	Pariseko Bakea	1780	Túpac Amaru-ren errebolta
1787	Konstituzioa	1781	Granada Berriko komunariak
1799	Washington-ren heriotza	1783	Arandaren: Independentzia Amerikarentzat?
1801-1809	Jefferson, Lehendakari		
1812-1814	Gerrate Anglo-amerikarra	1797	Amerikako portuak, neutralentzat irekita
1819	Floridaren erosketa		
1823	Monroe-ren doktrina	1810	Gobernu-Juntak Amerika espainoleko hiri nagusienetan
1829-1837	Jackson, Lehendakari: gizonezkoen sufragioa		
1845	Texas, Batasunean	1810-1816	Independentzi Aldarrikapenak: Venezuela (1811), Paraguay (1811), Argentina (1816)
1846-1849	Kaliforniako urretegiak		
1854	Japoniarekin ituna (Perry)		
1861-1865	Gerrate Zibila: Esklabuen askapena		
1867	Alaskaren erosketa	1818-1825	Independentzi Aldarrikapen berriak: Txile (1818), Kolombia Handia (1819), Mexiko eta Peru (1821), Brasil (1822), Ertamerika (1823), Bolivia (1825)
1869	Trenbidea, Pazifikoraino		
1886	"American Federation of Labor" Sindikatuaren sorrera		
1887	Indiarren botere politikoaren mugapena: lur-jabetza	1828	Uruguay, independente
		1830	Ekuador, beregaina
		1839	Ertamerikako Batasuna
	EE.BB.etako estatuarteko Merkatal Legea	1846-1848	Mexiko eta EEBBen arteko gerratea
1890	Trust-en kontrako Sherman Legea	1868	Yara-ko Oihua: Kuba
		1889	Brasil: Errepublika
1898	Gerrate Hispano-amerikarra	1898	Gerrate Hispano-amerikarra: Kuba, Puerto Rico, Filipinak
1901	Th.Roosevelt, Lehendakari: nazioarteko politika berria Ibero Amerikan		
		1899	United Fruit Company, Ertamerikan
1915	EE.BB.en neutralitatea		
1917	Armada amerikarra Europan	1911	Iraultza Mexikarra

Hego Amerikako Estatu berriak



AMERIKAKO ESTATU BERRIAK. 1776-1825 urteetan Ameriketan Estatu berriak jaio ziren: Aro Modernoetako lehenengo deskolonizazioa izan zen orduko hura.

Beren Independentzia irabazitako Estatu Batuek, ordea, ez zuten artean gaur eguneko azalerarik:Atlantikoko kostaldeko Hamahiru Kolonia ziren bakarrik; ondoko belaunaldietan joan zen osatuz Ipar Amerikaren mapa politikoa.

Hego Ameriketan, berriz, Independentziaren biharamuneko mugak, oro har, finkatuxeak gelditu ziren hasieratik bertatik; baina barne-kolonizazioan Estatuen ahaleginak gure egunetararte luzatu dira.



1774-1824eko urteen bitartean kolonia amerikarren eta berauen metropolien artean gertatzen den etendura, XX. mendeko deskolonizazio-prozesuaren lehen etapa bezala begira genezake. Honela, eten hau, Ilustrazioak eta burgesiak XVIII. mende-bukaeran bultzatutako ziklo iraultzailean kokatzen da. Denboraldi hori gehitxoago luzatuz, XIX. mende-bukaera arte helduko gara, Kuba eta Puerto Rico-ko independentzi prozesuak aztertzean (1898).

XVIII. mende-bukaeran hasitako ziklo iraultzaile honetan unerik garrantzitsuenetarikoak Iraultza Frantsesa eta "Garai Napoleondarra" dira. Kasu honetan eta ikasgai honi dagokiolarik, hauek

izango dira, Amerikara mugatuz, kronologikoki aztertuko diren puntuak:

I. Independentziaren aurrekinak
II. Independentzi gerrateak
III. Estatu independenteak
IV. Koloniak eta independentzia berriak
V. Ondorioak

I. INDEPENDENTZIAREN AURREKINAK

Amerika ez zen Kolon-en Aurkikundearekin sortu (1492): data, honen aurretik, amerikarrek, tributan antolatuta edo Estatu handitan, Historia ederra bete zuten ipar eta hego kontinenteetan. Baina, hori bai, Aurkikundearen ondoren, Ameriketan egoera soziopolitiko ezezagun bat jaio zen: hango lurraldeak europarren kolonia bilakatu ziren.

Latin Amerika: Egunargitu gabeko kontinentea

"Latin Amerikarekin hasiko gara, berau Ipar Amerikaren aurrerapen paregabeekin konparatzetik eta horien itzalpean deuseztuta gelditzetik aldentzeko. Latin Amerika bere baitan hcrtuko dugu, berak merezi duen bezalaxe: bere balio handiko gizatasunean, bere problema berezietan, bere aurrerapen nabarietan. Duela gutxi arte, beste Amerika baino askoz aurreratuagoa zen, hura izan zen lehenengo Amerika aberatsa eta, beraz, lehenengo gutiziatu izan zena. Baina hori pasatu zen, zoria aldatu egin da. Gaur egun Amerikako kontinenteari asko falta zaio zoriontsu izateko: beltzune gehiegi ditu. Eguna erabat argitu gabe dago oraindik".

(F. BRAUDEL)

A) HISTORIA KOLONIALA

Europarrek lehenengoz kolonizatu zuten kontinente osoa Amerika izan zen. 1492a aurretik, Afrika, adibidez, Europatik hurbilago zegoen, eta ezagunago ere bazen, baina Mundu Berriko lurraldeek erakarri zituzten batipat Europako Monarkiak eta biztanleak, ez Afrikak edo Asiak. Geroago Hego Afrikan edo Australian bezala, birpopulaketa-kolonizazioa izan zen Amerikakoa, Latin Amerikan mestizaia oparo batekin izan bazen ere.

LATIN AMERIKAKO GIZARTE eta ETNIAK

"Lehen konkistari zuriek zibilizazio indiarrekin topo egin zuten, eta, inolako dudarik gabe, basatiro tratatu zituzten. Konkistek egindako hondamendien gainera beste handiago batzuk etorri ziren oraindik, hala nola, esplotazioa eta lan behartua. Sinestuezin ahala gutxitu zen biztanleria indiarra. Garbitua izan zen, bizikera primitiboan (nomada, eta askotan mandiokaz mantenduz), tribu-egoeran bizi zen indiarra; honela gertatu zen europarrekin topo egin zuten lehen-lehenengo unetik. Ailegatuezineko eskualde batzuk bakarrik babestu zituzten, eta haiek ere bertan zuriak oso berandu eta banaka agertu zirelako, Amazonia-n kasu.

ZIBILIZAZIO INDIARRAK

Hala ere benetako zibilizazio indiarrak, zibilizazio sendoak, bizirik gelditu ziren. Baina, nola desarmaturik zeuden, eta erdipurdiko tresneria besterik ez zeukaten (ez zuten ezagutzen gurpilik, ez burdinarik, ez kainoi-bolborarik, ez etxabererik, lama besterik), eta nola bapatean zaurituak izan ziren eta zaurituak ere bihotz-bihotzean (Mexiko/Tenochtitlan, Cuzco), oso ehizagai errazak izan ziren seguru asko. Dena dela, populazio indigena bere dentsitateak berak salbatu zuen. Gaur egun, Mexiko 'herri indiarra' da funtsez, eta harro-harro gainera; eta guztiarekin ere Andetako lautadetan hantxe jarraitzen du oraindik indiarren bizikera tradizionalak, onbehar, baina bizirik, sustrai sendoekin eta lur hartu duen lekutik inork kenduko ez duela.

BELTZAK

Beltzari dagokionez, hantxe jarraitu zuen XVI. mendetik hona, klimak, landaketek, urrezko hondarrek eta meategiek, hirietako luxuak edo soil-soil halabeharrak eraman zuten lekuan, eta esklabutza abolitu ondoren ere hantxe segitu zuen. Geroago, nahiko maiz, industriategi aktiboetara aldatu zen. Beraz, Atlantikoaren kostetan eta lan-indar indiarra falta zen lekuetan aurkitzen da. Horregatik ugari da Ipar Brasil-en --Brasil kolonialaren bihotzean-- eta biziro ageri da Brasil-eko hiri moderno handietan eta Antilletan ere.

ZURIAK: KREOLOAK

Zuriari dagokionez, gutxienez bi txandatan burutu zuen Amerikako kontinentearen jabetzapena, eta aldi bakoitzean etni aportazio banarekin.

Lehenengo konkistaldian, bizirik irauteko modua zuen tokietan ezarri zen, bereziki lehendik baziren indiarren zibilizazio handien marko-barruak, non berez bezala aurkitu bait zuen nork obeditu eta zer-jan ugari; espainiarraren kasuan hiri kolonial nagusiak izan ziren Mexiko eta Lima (azken hau konkistatzaileek eraikia), eta gaurko Bolivia-ko Ande Garaietan, Potosi (konkistari espainiarren beste sorkuntza bat) bertako zilar-meategiengatik (4.000 metroko altueran, 150.000 biztanle 1600ean). Arte kolonial espainiarrak, barrokoak batipat, adierazten du gaur egun hiri kolonialetako aberats berrien distira. Baina ez da ahaztu behar horien giza substantzia indiarra zela funtsean.

Garai kolonialeko xehetasun hauek denek, Amerika kreolo baten ondorioak bururatzen dituzte. (...) Hala ere gauza bera ikusten da alde guztietan. Labore-lurraren jabea, sukre-kanabera-errotarena, zilar-meategi ameskarri edo hondar urredunena bakarrik egoten da diru-ekonomiarekin erlazionaturik, baina inola ere ez horren esklabu edo zerbitzariak. Egitate honek irauteko modua ematen dio harrigarrizko familia patriarkalari, bere nagusi-etxe handiak esklabuen txabola-sailaren gain agintzen duela". *(F. BRAUDEL)*


* 1. Latin Amerika

Latin Amerika izan zen kontinenteko kolonizazioan lehenengoa; batez ere, Mexikotik hegoalderako lurrak izan dira Latin Amerika deituak (Iparraldeko frantses kolonizazioaz geroago hitz egingo dugu). Bi Monarkia europar handik --Espainiak eta Portugalek-- burutu zuten obra hura XV. mendearen azkenetik aurrera, Hispano Amerikan eta Brasil-en.

a) Hispano Amerika

Kolon hara joan aurretik ere baziren Amerikan garapen-maila handia lortutako bertako kulturak. Herri hauentzat erabateko etena izango da kolonizazioa haien berezko eboluzioan; baina mendebaldarren kulturarentzat XIX. menderarte iraungo zuen hedakuntza baten hasiera zen.

Faktore ezberdinek prestatzen dute kolonizazio-prozesu hau: Berant Erdi Aroko tentsioak



LURREN ENKANTEA (Argentina, 1860). Mundu Berriak ondasundegi hondogabea eskaini zien europarrei: Kolon-ek eta konkistariek batez ere urrea zuten amets; gomendariek, ordea, lur-sailak, eta haietarako lanesku indiar nahiz beltz merkea. Kolonizazioan hori, eta Independentziaren ondoren Estatu independenteetan barne--kolonizazioak hasi ziren, batez ere Brasil, Argentina, Kanada eta Estatu Batuetan. Askotan,norberak hesitu eta besterik gabe hartzen ziren lurrak;baina baita legearen arabera egindako enkanteen bidez banatuta ere. Hona, halako subasta bat gogoratzen digun Argentinako grabatua.


gainditzean (Birkonkista Granadan amaitu zen, 1492an, hain zuzen), eskuak libre eta ideialak beren betaroan daude egiteko berriei ekiteko: Amerikako Gurutzadari hel dakioke. Eta beste ideia berriagorik ere badago: Ernazimentuko indibidualismoak berekin zuen abentura-grina. Lehenago Bizantziok Ekialde Urrunarekin mantentzen zuen komunikazioa turkiarren hedakuntzak moztu zuenean, bide berrien bila hasi zen merkatal kapitalismo jaio-berria.

Asmakuntza teknikoek (karabela, busola, kartografiak, etab.) ahalgarri egin zuten itsas handian bidaiak egitea.


Aurkitu-berriak ziren lurraldeetan berehala hasi zen hedakuntzak konkistaren legezkotasun-problema planteatu zuen. Ez zuten balio Amerikaren kasuan Ipar Afrikako lurrak konkistatzekoan erabilitako arrazoi historikoek, zeren eta, Birkonkistaren ildotik, beste gabe berezko hedakuntza bezala onartzen zen Afrikako hau. Lurralde amerikarrak besterik gabe anexionatzea ere ez zen bidezkoa; bertakoek jedeztatuak zirenez, hauek kontutan eduki beharrekoak ziren. Hedakuntza zurituko zuen oinarri juridiko bat behar zen.

Emandako arrazoi batzuk oso kritikatu zituzten Vitoria eta Las Casas teologoek. Honela, gogor jarri ziren indiarra gutxiagotzat edukitzearen aurka, jokabide kolonialistak, Mendebaldeko kultura ez onartzean, haren menperatzea zuzenesten bait zuen, halakoen ustez.

Errege Katolikoek Aita Santuaren Bulden bidez bilatzen zuten legezkotasunaren aurka ere jarri ziren. Era berean, Karlos I.aren Inperio Unibertsalaren ideia ere salatua izan zen.



SANTA FEko HITZARMENA (1492). Indien bila irten aurretik, Kolonek Erregeekin hitzarmen bat sinatu zuen aurkituko omen zituen Indietako bere eskubideak mugatuz. "Las cosas suplicadas e que Vuestras Altezas dan e otorgan a don Cristóbal de Colón en alguna satisfacción de lo que ha descubierto en los mares oceános y del viage que agora, con el ayuda de Dios, ha de fazer por ellas en servicio de Vuestras Altezas son los que siguen" hitzekin hasten zen agiri hura. Hitzarmen hark legeztatu zituen Kolon-en bidaiak, eta haietan aurki zitzakeen lur eta herrien gain izango zituen botereak.



INDIARREKIKO BURUBIDEAK, 1509. Aitari aitortutako (1492) eskubideak beren muga jatorretan zaindu nahirik, Diego Kolon-i emandako burubideak dira agiri honetan irakur daitezkeenak. Aurkikundeaz geroztik Erregeen menpekoak ziren indiarren nortasuna eta eskubideak babesteko eman ziren aholkuak: "Que los indios sean tratados bien y que si recibiesen daño alguno se castigue severamente a los culpables" dio idatziak.

Aitzitik, onartuak izan ziren beste arrazoi batzuk: hala nola, jentilak ebangelizatzeko lana; horregatik, misio-eginkizun bat oztopatzen zuen etsaikeriaren bat aurkitzen zen bakoitzean, bidezkotzat ematen zen konkista.

Eztabaida hau garrantzizkoa izan zen eduki zuen eraginagatik: bertakotarren aldeko teoria juridikoa gararazi zuen eta eragin nabarmena izan zuen Amerikari buruzko legegintzan.

- Bertakotarrekiko tratua (XVI. mend.)

Ustiapen-koloniak eratzean, urrea eta esklabuak atera zitezkeen batez ere lurralde haietatik. Hasieratik planteatu zen indiarrekin eduki behar zen harreman-moduaren problema. Ekonomikoki bi arrazoirengatik ziren indiarrak errentagarri:

- Lanesku merkea eta ezinbestekoa zen herri haiena, ba lur berrietara joaten ziren zuriak gutxi ziren eta garrantzizko ekoizpen batek lanesku ugaria galdatzen zuen meategi eta landaketetan.

- Gainera, Mendebaldean esklabu bezala salduz gero irabazpide handiak lortzen ziren.

Koroaren jarrera indiarraren aldekoa izan zen gehienbat, bai menpekotzat hartuak zirelako, eta bai haiei kristau-fedea emateko konpromisua zutelako, eta han sor zitekeen feudalismo indartsu batek Koroaren boterea ahulduko ote zuen beldur zelako ere bai. Dena den, egoera ez zen argia Koroaren aldetik ere: batetik, indiarraren alde egiteko prest zeuden Erregeak; bestetik, ezin zen

ahantzi, irabaziak gehitzeko produkzio handia behar zela, eta Ameriketan lekututako zuriek laguntza behar zutela. Hain interes desberdinak elkarrekin nahasiz erabaki hauek onartu ziren:

a) Esklabuen salmenta indiar basatienetara eta batez ere kanibaletara bakarrik mugatuko zen. Konkista-urteetan jokaera hau normala bazen ere, geroz eta gutxiago izatera heldu zen; eta esan daiteke, XVI. mendeko bigarren aldian, indiarraren legezko esklabutza desagertuta zegoela.

b) Bertakotarren hilkortasunaren ondorioz, jendegabetzen ari zen lurraldea, eta geroz eta gutxiago ziren indiarrak produkzio-gune garrantzizkoenetara bildu ziren. Irtenbide hau Karibe aldean erabili zen batez ere: urrerik ez zegoen baliogabeko irletatik atera egiten ziren indiarrak, lanesku beharrean zirenetara eramateko. Hala ere, laster baztertu zen praktika hau, gehienak epe laburrean hiltzen ziren eta.

c) Gomendakina (encomienda) deituaren legezko erakundea irtenbide sozio-ekonomiko bezala asmatu zen. 1502an, Nicolas de Ovando lehen gobernadoreak zeramatzan aginduetan ematen zen gomendakinaren funtsa, bai indiarren kristautzeari eta bai bete beharreko lanari buruz.

Sistema honen orokortzeak indiarrarekiko gehiegikeriak ekarri zituen. Gehiegikeria hauek salatuak izan ziren, baina kolonuen protesta gogorrak ere azaldu ziren salatari horien aurka. Eboluzio honen unerik garrantzitsuenak hauek izan ziren:

- Fernando Katolikoak, erretordetza-bitartean "Burgos-eko Legeak" eman zituen (1512) indiarrekiko gehiegikeriak mozteko.



INDIETAKO KONTSEILUA. Hemen, Penintsulan, eta han, Indietan, konkistak eta kolonizazioak aurrera egin ahala, lurralde eta herrien gobernurako erakunde berriak jaio ziren. Penintsulan, hauetako nagusiena "Indietako Kontseilua" izan zen, eta beronen esku zegoen herri indiarrak konkistari eta gomendarien bidegabekerietatik babestea. Ez zen erraza gertatzen hain urruneko lurralde zabaletan legeen itzal ona egintzetan obratzea.



INDIARRA KONTUAK EMATEN. XVI. mendeko irudi xalo honetan, gomendariari diru-kontuak ematen ikusten dugu kazike indiarra. Konkistak, legeria arrotz baten eta etorri berrien esanetara jarri zituen jatorrizko amerikarrak. Menpeko-harremanak praktikagarriagoak izan zitezen ere bai, indiarrentzat zenbait gobernu-erakunde errespetatu egin zen: kazikegoa, adibidez.

- Fernando hil ondoren, Cisneros Kardinaleak hiru fraile jeronimotar bidali zituen gobernadore gisa indiarren egoera ikertzeko asmoz.

- Fray Bartolomé de Las Casas-ek, kritika gogorrak egin zituen, Karlos I.aren gortean oihartzuna izan zutenak: "Lege Berriek" (1542) gomendakinaren legezkotasuna kentzen zuten. Kolonuen erreakzioa ikusi eta handik hiru urtera berrikusi egiten dira lege haiek, eta mantendu egiten da gomendakina legezko erakunde bezala, nahiz eta indiarraren zerbitzu pertsonala kenduta gelditu eta gomendariari zerga bat ordaindu beharra egon.

d) Lan sistematiko batera ohitu gabe zegoen indiarrak oso jarrera pasiboa hartzen zuen zuriak jartzen zizkion eginkizunen aurrean. Biztanleria indiarra urritzean eta berauen lan-ohitura eskasa ikusita , laneskuaren problema konpontzeko, nork defendaturik ez zeukaten esklabu beltzez hasi ziren baliatzen konkistariak. Karibe-ko irletan ugaria izan zen beltzen sarrera eta hainbat mende iraun zuen beltzen esklabutzak, (Kuban, XIX. mendearen azkenetan kendu zen esklabutza).

Gaztelako Koroa indiarraren aldeko politika egiten saiatu zen, eta XVII. mendean gomendakinak indar gutxi zuela esan behar da. Dena den, nahiz eta indiarraren aldeko legegintza gararazi, handia izan zen konkistako lehen urteetan hango biztanleriaren hondamendia. Biztanleak arrunt urritu ziren, eta honela sailka daitezke fenomeno demografiko haren zergatiak:

- Alde batetik, gaixotasunak eta gerrak. Izurrite berriek (gripe, nafarreria) hilkortasuna areagotu egin zuten.

- Bestalde, kultura bien topaketa, elkarjotze gogorra eta kaltegarria izan zen indiarrarentzat. Konkistarien aurrean indargabe sentitzen zen hau, eta bere kulturaren hondamendia ikusirik, mendietara egiten zuen ihes, han goserik eta bizi-pozik gabe bertan hiltzeko, askotan.

Nahiz eta kasu batzutan plangintza jakinik egon ez hangoen egitura kulturala ezabatzeko, lurjota gelditu ziren europarren ekarpenaren aurrean: hangoek jasan zuten hondamen eta esklabutzak, administrazio- eta politika-arloan jasan zuten espainiarren ezarpenek, eta indiarraren kristautzeak kulturan suposatzen zuen eraginak argitzen dute prozesu hori.

LATIN AMERIKAREN EKONOMIA ETENA

(Latin Amerikak, Historian zehar, eten nabariak izan ditu bere ekonomiaren garapenean. Segida falta izan zaio, denboran eta geografian: urre-aldia Mexikon, zilar-aldia Potosi-n, urre-aldia Brasilen, ganadu-aldia Argentinan, sukrealdia Antilletan... Etenka egindako historia ekonomikoa da:)

"Gorabehera ekonomikoak ustekabeko itsasaldiak bezala dira. Amerika bere patu materialaren atzetik doa. Mendeetan ari da horrelaxe, baina beti ere onuradun bezala baino areago kaltear bezala, biktima gisa. (...)

Ziklo hauetako lehena metal preziatuena izan zen eta konkistarekin berarekin hasi zen: urrearen zikloa ez zen XVI. mende-erditik aurrera pasatu, ***zilarraren zikloa*** *(Mexikoko eta Potosi-ko meategiak batipat) 1630-1640a arte. Neke-lan ezingogorragoen prezioa da: kupidagabe indiarrak hartarako biltzerik izan ez balitz, inork ere ez zukeen onartuko, Potosi-n, meatz-lanik edo metal-fundiziokorik, denegatzekoa bait zen, 4.000 metroko altueran, paraje menditsu eta hotzean, egurrik, bizigailurik eta urik ere ez dagoen leku batean. Zilar-lingoteak Pazifikoraino eramaten ziren, handik Callao Lima-ko portura eta azkenik Panama-ra; hemendik mando-karabanatan eta, geroago, txalupan Chagres-ibaian zehar, Antilletako isuralderaino iristen ziren. Azkenik, Espainiako ontziteriek garraiatzen zuten Espainiaraino.*

Baina eta noren mesedetan zen sistema hau? Merkatarien mesedetan, espainiar 'funtzionarien' mesedetan, negozialarien, nazioarteko beste merkatarien, kasu

...

- Hispano Amerika, XVII. mendean

Gaztelan eta Europan jasan zen mende honetako krisialdia, Ameriketan ere nabaritu zen. Konkista handien gelditzeak, eta Europako beste herrialde batzuek ere Amerikako lurraldeetan oinarriak ezartzeko egin zituzten ahaleginek krisialdia areagotu egin zuela dirudi. Dena den, Amerikako beheraldia ez da Gaztelakoa bezalakoa, eta mende honetan ere eraikitzen dira elementu kultural eta ideologiko lokalak, eta ekonomiaren arloan hasierako meatz-esportazioak beste lan batzutara ere zabaltzen dira. Hona mende honetako ezaugarri garrantzitsuenak:

a) Ekonomia. Arlo hau zabaldu egin zen. XVI. mendean hango esportazioak ia meategietakoak ziren bakarrik eta nekazal produktuak eta manufakturak inportatu egin behar izaten ziren; mende honetan, berriz, esportazioan aniztasun gehiago

...

genovarren, mesedetan, zeintzu bait ziren Espainiako Erregeren mailegu-emaile titularrak... Nolanahi ere, sekula ez Amerikaren beraren mesedetan. Hari etengabe kentzen zitzaizkion bere lingoteak, bere zilar-diruak, eta bere eskudirua; Amerikak, berriz, bere burua ere kondenatuko zukeen oihal batzuk lortzeagatik, bai, oihalak eta ogirina, pitxarra olioak, kupela ardoak, esklabu beltzak, etab.

Potosiko zilarra XVII. mendean hasten da beheraka eta, horrekin batera zoritxarreko Hispano Amerika bere patuaren menpe uzten da.

1680an Amerika portugaldarra jotzen du ***urre-grinak****, zeina kasu honetan esklabu beltzen lanari esker lortzen bait zen. 1730 inguruan hasten da beheraka hau ere; garai berean bizialdi berri batean sartzen dira Espainia Berriko (gaurko Mexikoko) zilar-meategiak. Orduan hustutzen da gehienbat Minas Gerais probintzia, geroztik, ahal duen bezain ondo, kotoi-laboretara dedikatzen dena.*

Era berean jarrai daiteke ***ganadularitzaren zikloa****, bere bariante ezberdinekin, Argentinako gaurko ganadularitzara heldu arte; edo* ***sukrearen zikloa****, Brasil-en hasia, baina XVII. mendearen azken aldean Antilletara (Jamaika, Santo Domingo, Martinika aldera) lerratzen joan zena;* ***kafearen zikloa****, XIX. mendean Brasil-en batipat garrantzia handia izan zuena, eta lur-sail handiak beretzakotuz barnealdera gero eta gehiago sartu zena. Argentinako Chaco-a, behiala "quebracho"aren (taninozko zuhaiskaren) eskualde izan zena ere 1945az gero kotoi-leku ari da bihurtzen. (...)*

Zikloen aldaketek krisialdi gogorrak ekartzen dituzte berekin. Horien indar hondatzaileak, herrialde kementsu bateko ekonomia osoa bota dezake, kolpe batean, atzera". *(F. BRAUDEL)*

dago, eta jaitsi egin zen nekazal produktuen eskea. Esportaziorako dauden latifundio handiak gailentzen dira, nekazal eta abelazkuntzako produkzio handi batekin. Gomendakina bukatzera doa behin-betiko.

b) Gizartea. Demografi arloan, indiarren gutxitze-prozesua geldituz doa mendearen erdi-ingurutik aitzina. Biztanleria zuriak eta beltzak mantendu egin zuten hazkunde-erritmoa. Nahiz eta Espainiatik eta Europako herrialdeetatik etorkinak iritsi, handia zen kreoloen hazkunde begetatiboa. Gizarte-mailan, zuri gutxitara mugatuta zegoen noblezia zabaltzeko noble-tituluak eman zitzaizkien aberastutako kreolo batzuri.

c) Administrazio politikoa: Beheraldirik handiena arlo honetan nabaritzen da. Kargu publikoen salmenta zela eta, Administrazioak nozitu zuen ustelkeria handia izan zen. Udalen kasuan, hauen bizitza hutsalduta gelditu zen, eta kabildoen bizitza aberastutako gutxiengo baten eskutan gelditu. Baina, honetaz gain, Bizerrege-karguak ere saldu egiten ziren, eta latifundismo-prozesua indartu baizik ez zen egin, lur-lapurretak ere tartean zirelarik.

Amerikan, mende honetan, ez zen zerga berri askorik jarri, baina horietatik lortutakoa Europako gerra-gastuak ordaintzeko erabili zen, Ameriketako kolonien defentsa geroz eta eskasagoa zen, bitartean. Europatik zegoen distantzia eta kontinentearen handia zirela eta, arazo zailtzat jotzen zen beste potentzia batek hura konkistatzea; baina, oztopo guztiak gaindituz, gogorrak izan ziren mende honetan itsaslapurren ekintzak: Santo Domingo hiriaren arpilaketa, 1655ean, adibi-

Espainiaren herentzia kolonialaz

(Macanaz politikari espainolak, ondoko testu ironiko hau idatzi zuen bere "Testamento de España en principios del reinado de Felipe V" liburuan,egoera kolonialaren itxuragabekeriak salatuz:)

"Nere oinordekoei jabetza eder batzuk uzten dizkiet, neri genovatar batek utzi zizkidanak, enperadoreak erretaulkitik botaz eta herri batzuren libertatea esklabutuz egindakoak; ba eskubide handiagoa dut nik horietarako haiek nereetarako baino; baina handinahi eta indarrarekin kontsultatu ondoren, onartu egin zidaten, eta orain aitortzen dut zer usurpazio eta iruzurrekin dauzkadan hainbesteko sailak, nere kontra aurkezten dituzten arrazoi eta bidezko kexuak adituak izan daitezen. (...). Ez da makala Europaren mirespena, hain sail zabalak gober-

...

... natzeko nere Kontseiluak erakutsi duen zorroztasuna ikustean (izan ere, izanik kontseilariok Espainiako mugetatik atera ere ia egin ez direnak, eta asko beren etxeetako mugetatik ere atera gabeak), eta horiek Amerikari buruz dakitena ez dutela beren ezagutza propioz ez eta irakurketan ahaleginduz lortua, benetan ulertezina eta problematikoa da erabakia; baina jakin bezate ez dakitenek infusoa dela jakintza eta enpleguarekin ematen zaiela. (...)

Tropa, gotorleku eta gerra-abasei dagokienez, lehen ere deklaratu dut, ez dadila ezertxo ere hornitu, ze horrela ezainean-ezainean libertatea itzuliko zaie zorigabeko erreinu haiei, zeintzu beren morrontza auhendatuz azkenean ere armatuko bait dira beren amorruz eta berena dena eskuratuko dute berriro, eta ni libratu egingo naiz, ordu honetan barrua jaten ari zaidan kezka honetatik".

(M. MACANAZ, 1670-1760)

dez, edo Panama-ren errausketa (1670), Morgan kortsari ingelesak erasota. Edota Kariben konkistatutako irlak: Jamaika, 1656an ingelesen eskuetan gelditu zen, eta Haiti (La Española-ko mendebaldea) frantsesek okupatu zuten, 1659an.

- Hispano Amerikako eraldakuntzak (XVIII. mendean)

XVIII. mendean, Hispano Amerikan aurreko garaietako egoerarekin kontrastatzen zuten mugimendu eta eraldakuntzak sustatu ziren. Batez ere, Amerikak eta mundu espainiarrak XVII. mendean izan zuten isolamendua gainditu zen.

Espainiako Gortean Felipe V.a eta Borbondarren dinastia jartzean, Amerika ere mundu zabalera ireki zen. Espainia eta Frantziaren arteko aliantzak, frantses ontziteriaren presentzia ekarri zuen Amerikako portuetan. Utrecht-eko akordioaren ondoren (1713) Ingalaterrak lortu zituen esklabuen "asiento"-eskubide eta "ontzi baimendu" direlakoekin Ameriketarako bidea ireki zitzaion Erreinu Batuari. Horiek, ordurarteko espainiarren merkatal monopolioan zartatu larriak ziren, eta atzerritar merkantziekin batera gizonak, liburuak eta ideiak sartu ziren.

Tradizio-zaleen eskandalurako kreoloak azkar liluratu ziren frantses modekin. Eta batez ere 1750-1760en ondoren sartutako ideia berrien eragina askoz ere handiagoa gertatu zen. Unibertsitate eta ikastetxeetan "filosofia modernoa", hau da, kartesianismoa hasi zen hedatzen eskolastizismo aristoteletarraren ordez. Koroak berak ere laguntza eman zuen ezagutza-maila garatzeko erakunde berrien bidez: Anatomia eta Fisikako ikasketak sustatu zituen, meategi-ikasketxeak eraiki; jakintsu atzerritarren bidaiak bultzatu zituen

(Humboldt) eta espedizio zientifikoak antolatu (Malaspina, Mutis).

Borbondarrek Penintsulan egindako eraldakuntzaren eragina Ameriketako bizerreinuetaraino hedatu zen. Espainiar monarkiaren erakunde zentralak eta kontseilu motelak berritzen hasi ziren: Indietako Kontseiluari mugatu egin zitzaizkion bere betekizun judizialak, 1717an. Horren administrazio-eskukizunak, azkarrago eta efikazagoa izango zen benetako ministraritza bati eskualdatu zitzaizkion: "Secretaría del Despacho de Indias" delakoari.

Ameriketako administrazio-erakundeen berrikuntza polikiago egin zen: ezinezko lehen saialdi baten ondoren (1717-1723), Bizerreinu bat sortu zen Granada Berrian (1739), ondoren Río de La Plata-n (1776). Intendentzi sistema, nahiz eta oposizioa gogorra izan, Ameriketara ere hedatu zen: Kuba (1765), Caracas eta Luisiana (1776) eta Espainia Berria eta Peru-ra (1784-1786). Independentziaren bezperan intendenteen lekua, ia toki denetan "alkate nagusiek" hartu zuten. Intendentzien administrazioak gobernu zentralaren aginpidea gertuagotik sentierazi zuen lehen gobernu-mailatan: honek zentralizazioa gogortzea zekarren eta askoren interesak, batez ere kreoloenak, erasoak izan ziren.

Erret finantzen berrikuntza ardura bereziarekin egin zen Amerikan: Lehen neurriak, Felipe V.arenak, merkurioaren hornimenduari eta Moneta-Etxeari buruzkoak izan ziren. Baina, Karlos III.arekin jarri ziren finantzen administrazioa eta kontularitza-metodoak beren osoan berritzeko eta zergen errendimendua gehitzeko oinarriak (loteria, tabako-monopolioa).

XVIII. mendeko independentzi proiektu bat

"Jaun Goren Horrek utzi egin beharko lituzke bi Ameriketako kontinentean dituen jabetza guztiak, eta Kuba eta Puerto Rico-ko irlak bakarrik gorde iparraldean, eta komeni daitekeen besteren bat hegoaldean, Espainiako merkatalgoarentzat eskala-toki edo biltegi-leku izan daitezen.

Pentsamendu handi hau Espainiari komeni zaion bezala egikaritu dadin, hiru infante ezarri behar dira Amerikan: bata Mexikoko erregetzat, bigarrena Peru-ko erregetzat eta bestea Lurralde Irmoko erregetzat, eta Berorren Majestateak Enperadore titulua hartuko luke.

Zesio izugarri honetako emakidak hauek izango lirateke (...): Mexikoko erregeak ordain dezala feudotzan erreinu haren uzteagatik, urteko marku-kopuru jakin bat zilar. (...) Beste horrenbeste egingo luke Peruko erregeak, bere lurraldeetako urretan ordainduz.

Lurralde Irmokoak kolonietako generotan ordainduko luke bere urteko zerga, tabakotan batipat, erresumako estankoak hornitzeko. (...).

Salerosketa elkarrekikotasunik zorrotzenaren mailan beharko litzateke egin, kontsideratuz, lau nazioak elkarrekin erasozko eta defentsazko aliantza hertsi batekin lotuak daudela beren iraupen eta joritasunerako".

(C. de ARANDA, 1783)

Gomendakinen irabaziak

XVII. mendean, geroz eta gehiago, gomendakinak berreskuratzen ahalegindu zen Koroa, horrela berorien irabaziak Haziendara ekartzeko. Sarrerok erret Haziendarako urtero ematen zituztenak hauek dira, pisutan:

Charcas	80.000
Cuzco	130.000
Txile	12.000
Granada Berria	50.000
Espainia Berria	150.000
Yucatán	100.000
Filipinak	95.000
Venezuela	12.000
Cartagena	2.000
Santa Marta	4.000
Paraguay	6.000
Tucumán	20.000
Trujillo	20.000
Arequipa	25.000
La Paz	80.000
Piura	2.000
Río de la Plata	2.000

(F. MORALES PADRON)

Iharduera ekonomikoa bizkortzen Estatuak berak hartu zuen parte. Merkatal Konpainiak sortu ziren: Caracas-eko Konpainia Gipuzkoarra, 1728; Habana-ko Konpainia, 1740. Sevillaren itsas merkatal monopolioa eztabaidan jarri zen: 1717an "Casa de Contratación" delakoa Cadiz-era lekualdatu zen. Portu honek XVII.ean zehar Sevilla-ren lekua hartu zuen itsasontzien sartu-irtenak kontrolatzeko. 1765ean beste bederatzi portu espainiarrekin ere jaso zuten Cadiz-en pribilegio horren abantaila. 1788ko urtean "komertzio librearen arautegia"k deuseztuta uzten ditu Espainia eta Amerikaren arteko merkatal monopolio-bideak.


Hedakuntza ekonomikoaren ezaugarririk nabarmenena metal preziatuen ekoizpen-gorakada da. Meagintzari laguntzen saiatu zen Estatua, eta Mexikon, 1770ean, "Cuerpo de Minería" deituriko erakunde pribilegiatua sortu zuen. Han aurkitzen ziren edo ustiatzen jarri ziren hainbat meategi zirela eta, munduko lehen zilar-produzitzaile bihurtu zen Espainia Berria.

Nekazaritzan aurrerakada handia egin zen eta autosufiziente ere bihurtu zen bere kolonietako produkzioaren esportazioarekin. Lantzeko lursail handiak zeudelako, lurra ez zen borroka-bide izan.

AMERIKA GALDU EGINGO OTE DA?

"Errepublika bateko barne-ekonomia betiereko altxor bat da. Espainiak katea bat bezala begiratu behar du bere merkatalgoa, itsasoz harunzkaldeko lurralde zabalak bere buruari lotuta gorde behar dituen katea bezala; baina Espainiak, Amerikak baino aberastasun handiagoak dauzka bere baitan eta horregatik areago saiatu behar du seguruko hauek zaintzen, galzorian dituen haiek gordetzen baino. Flandes galdu genuen, Italia galdu genuen, zergatik ez ditugu Mexiko eta Peru galduko? Eta kasu honetan, zer egin behar dugu munduan?"

(CONDE DE CAMPOMANES, 1723-1802)



BANDEIRA BRASILDARRAK (XVI--XVIII.mend.). Portugaldar nekazari eta kolonizatzaileak itsasertzean lekutu ziren, eta kostaldea kolonizatu zuten; baina "bandeira" deitu taldeak laster jo zuten barnealdera. Sao Paulo hiria zen bandeirakideen abiapuntu nagusia: paulista hauek batez ere esklabuak bilatzen zituzten beren sarraldi hauetan; geroago, lurrak eta metal preziatuak. Kostaldean sukre-ekonomia zen nagusi, eta beltza laneskua; barnealdean, abeltzantza zen ardatza, eta indiarra edo mamelukoa, laneskua. Barnera-bidean, ibaiak izan ziren sarbide naturala. Bandeirakideak, Andeetaraino eta Paraguay-ko "Redukzioetaraino" iritsi ziren, Brasil zabalduz eta Espainiaren muga koloniala urratuz. Bienbitartean, "urrealdia" hasi zen Minas Gerais eta Matto Grosso-ko meatzak aurkitzean (XVIII. mend.), barnealdearen kolonizazioa areagotuz.

b) Brasil

Askotan aipu hutsen batean geratu ohi diren jarraipenik gabeko bidaiak elkarrekin konparatzen baditugu, garrantzizkotzat eman behar da Pedro Alvarez Cabral, Brasileko kosta lehenengoz ukitu zuenarena. Lisboa-tik 1500eko martxoaren 9an irten zen, Cabo Verde aldera, eta handik mendebalderantz desbidatu ziren.

Desbidatze hau ustegabekoa izan ote zen galdetu izan da. Itxuraz, portugaldarrek ezagutzen zuten jadanik Brasil, baina isilean zeukaten, haren gutiziarik ez bizteko eta Tordesillas-eko akordioan abantailak lortzeko.

1500eko apirilaren 22an heldu zen Brasilera Alvarez Cabral eta egonaldi labur baten ondoren Ganges aldeko Indiarantz jo zuen.



J.J. DA SILVA XAVIER ("Tiradentes"). XVIII. mendearen hasieratik bertatik piztu ziren independentzi erreboltak Brasilen. Da Silva-rena (1789) sonatu eta eratuenetakoa izan zen.

Beste espedizio garrantzitsu bat Americo Vespucci florentziarrak lurralde honetara 1501--1502ko urteetan egindakoa da. Honekin ziurtasun osoz esan zitekeen, bisitatutako lur berriak kontinente handi batekoak zirela eta ez irla-lurrak. Mundu Berri hau Asiatik aparte zegoela konturatu ziren, ba.

Brasileko historia politikoki hiru etapatan zati daiteke: Kolonia, Inperio, Errepublika.

Epealdi hauek kontutan harturik, Brasil mugatu eta eratu duten ziklo sozio-ekonomikoetan oinarritu behar da haren historia.

Denbora kolonialetan eboluzio berdintsua izan zen Brasilen eta Espainiaren jabe-lurretan, eta hamarkada batzutan batua ere izan zen Koroa bat bakarraren menpean (1580-1640). Baina Ibero Amerika guztia Austriarren menpean egon zen garai hori kentzen badugu, bereizia izan zen beti kolonia hauena. Geografia izan zen faktore isolatzailea.

Politikoki, besteena ez bezalakoa izan zen Brasilen eraldakuntza. Kolonia espainiarrek independentzia lortu zutenean, Brasil, Braganza etxeko dinastiak zuzendutako monarkia inperial bat izatera pasa zen (1822). Kolonia izatetik Inperio izatera, eta Inperiotik Errepublikara (1889) izan da Brasilen bidea.

Lehenengo koloni garaiko ezaugarririk nagusienetako bat mestizazioa izan zen. Portugaldarra indiar brasildarrekin elkartu eta bat egiten zen merkatal monopolioa mantentzeko; "mameluko" deituen giza tipoa sortu zen bion bategitetik. Hau lurraren jabe izango da, kolonizatzaile, nekazari

eta gero "bandeirante" deitutakoa. Bertakoen hizkuntza eta europarrena, biak, ezagutzen ditu: tupia eta portugesa.

Lehen unean portugaldarra indiarrarekin bat egin bazen, gero beltzarekin izan zituen harremanak, eta mulatoa sorterazi zuen. Indarkeriarik gabeko arraza-nahaste baketsua eta estruktura homogenoak zituen gizarte mestizazio bat gertatu zen Brasilen. Jesusen Lagundiaren eragina zela medio, kristautasuna nagusitu zen gizarte honetan. Gizarte-mestizazio honen beste ezaugarri bat, politikan edo ekonomian talde apalagoei menpetasun kultural edo soziala inposatuko zieten gutxiengo pribilegiatuen falta izan zen.

Portugaldar kolonizatzailea itsasbazterrean gelditzen zen bitartean, "baideirante"a barnealdera sartu zen esklabuen bila. Itsasbazterreko ekonomia sukre-produkzioan oinarritutako nekazal ekonomia zen; barnean, alderantziz, abelazkuntza nagusitu zen. Lehen eskualde horretako laneskua beltza zen, bigarrenekoa indiarra eta "mameluko"a. Lehenengoa finko, itsasbazterrean garatu zen; bigarrena nomada, ibaien inguruetan. Desberdintasun honek, bi gizarte-mota sortu zituen: barnean, indiarra, abeltzaina, larruak eta landuz, pobrezian; itsasbazterrean, jauntxoen etxeak eraikitzen ziren, bitartean.

Benetako kolonizazioa kostaldean zegoen, han eraiki ziren etxe handiak, ikastetxeak eta elizak. Mendebalderantz, barnealdera, XVII. mendean zabaldu zen kolonizatze-prozesua. Eginkizun horretan gogoz parte hartu zutenak "bandeirante"ak ziren. Hauekin Brasil autokolonizatu egin zen. XVI. mende-bukaeratik bandeirantea koloniordekoen fundatzaile bihurtu zen.

Minhas Velhas:
Meatz-arrakasta

"Minhas Velhas --Meategi Zaharrak-- XVIII. mendeko meatz-abenturen galdapenak eraiki erazitako hiria da, txeragabeko lurralde menditsu eta erdi mortu baten bihotzean: Brasileko barnealde azkengabean jaso ziren urre-hiririk garrantzitsuenetakoa izan zen. Hiri hauetako batzuk oso goiz izan ziren eraikiak, XVII. mendearen azkenaldean; beste batzuk, gehienak, XVIII.mendearen lehen hamarkadetan sortu ziren. Minhas Velhas-en 1722an, eta apika lehenago, hori zen ustiapena. Dena den, honen hiri-estatutua 1725ekoa da gutxienez eta, 1726tik aurrera bazen Alkatetxea, bertan urtzen bait zen urrea eta bostetatik bat deskontatzen zen Portugal-eko erregeari bidaltzeko. 1746-

...

-1747an 13 libra urre eman zituen bostetatik bat horrek; honek ematen du 65 librako produkzioa; honi gehitu behar zaio, maulako urrea eta zirkulazioan zebilena. Meategi eta hóndar urredunetako urrea ugari izan zen bitartean hiri langile honek ez zuen problema handirik izan: bizigailuak alde guztietatik biltzen ziren hara, baita urruneko lurraldeetatik ere. XVIII. mendearen azken aldetik, ordea, gainbehera egin zuen urreari loturik zegoen aberatsaldiak, bai Minhas Velhas-en eta bai Brasileko beste edonon".

(M. HARRIS, F. BRAUDEL)

"Bandeira"k, "mameluko"-talde batek osatuta, espainiarren lurraldeetan sartzen ziren, oihanak errez eta indiarrak harrapatuz. Haiek Brasil guztian banatu zirenean, bandeirantea populatzaile eta kolonizatzaile bihurtu zen. Gerlari izatetik nekazari izatera aldatu zen. Beren ekintzak batez ere Hegoaldean egin zituzten. Haien eginkizunik nagusiena Brasilen mugei lur-hedakuntza handi bat ematea izan zen.

Beharbada handiegia izan zen hedakuntza eta honegatik ezin izan zuen Brasilek berehala nazio bat osatu. Geografiaren eta bertako ekonomiaren eraginez ideia erregionalista zabaldu zen Brasilen. Garrantzizkoa da bertan ematen den bitasun geografikoa: Amazoniako lurralde ekuatoriarra eta Brasileko mendialdeko epelaldea.

Ibaiek nahastu eta leundu zuten nolabait desberdintasun hau. Hauek mendebalderanzko hedakuntza (bandeirantismoa) eta iparraldearen eta hegoaldearen batasuna lagundu zuten. Ibaiengatik ez balitz, beren artean elkarren berri izango ez luketen herrialdez osatua egongo litzateke Brasil. Ibaiek gainditu zituzten, mendiek ezarritako oztopoak, eta gizon batzuek, bandeiranteek, oztopo horiek gainditu, batasuna eta hedakuntza eman zizkioten herrialdeari.

Politika-arloan, gehiegi sakondu gabe, garai kolonial hartako unerik garrantzitsuenak azpimarratuko ditugu:

- 1531: San Vicente portuan, portugaldarren lehen eraikuntza.

- 1534: Brasil Kapitainia heredagarritan banatu zen Joanes III.aren garaian. Kapitainek beren lurraldeetan subiranotasuna zuten. Koroak

txanponketa eta zergen hamarrena gordetzen zituen beretzat.

- 1549: Lehen gobernadore orokorra (Tomé de Souza), eta horrek ekarri zuen zentralizazioa (soldaduzka, hirigintza).

- Koloniako aberastasunek liluraturik frantses, holandar, eta espainiarrek ere Brasilerako joera erakutsi zuten. Frantsesak izan ziren han lehenengo kolonia eraiki zutenak, Guanabara-n (Río de Janeiro, 1555). 1567an egotzi egingo zituzten handik frantsesak.

- 1572an, bi gobernaziotan banatuta zegoen Brasil: Iparraldean Bahia da hiriburu, hegoaldean Río. 1577an eman zitzaion azkena banaketa horri.

- 1580ko Felipe II.a Espainiako erregearen esku gelditzen da Hego Amerika guztia. Badirudi epealdi hau erosoa izan zela Brasilentzat. Alde batetik lurrez hedatu egin zen eta kolonia espainiarrekin izandako merkatal libertateak bere ekonomian gorakada bat ekarri zuen. Bestalde, Espai-



BRASIL eta METROPOLIA. XVI--XVII. mendeetan, Metropoliko aldarte politikoek Ameriketako kolonia hau ere harrapatu zuten. Mainoren (1568-1649) lauki honetan, Bahia-ko portua ikusten da, baina batez ere Espainia-Portugaletako Felipe IV.a Erregea goraipatzeko aukera edo aitzakia gertatu zen artistarentzat lan hau, hain zuzen portugesek Gaztelaren politika kolonial kaltegarria salatzen zuten unean pintatua.


niaren etsaiak aurrerantzean Brasilentzat ere etsai bihurtu ziren: ingeles eta holandarrek eraso zituzten Brasileko hiriak.

- 1627an holandarrak Brasilen: Bahia-ko hiriburua arpilatu ondoren, orduan ezagutzen zen Brasileko lurraldearen erdia inguru domeinatu zuten.

- 1645ean holandarren aurkako erreakzioa piztu zen Brasilen, eta 1654eko urtean haiek menperatzea lortu zen. Gerrate honen ondorioz aberri-sentimendua sortzera zihoan kolonian.

- 1762an, Brasil bizerreinu bihurtu zen, Pombal markesaren ministrari-garaian. Zentralizazio handiagoa jasan zuen. Aurreko kapitainei emandako pribilegioak abolituak izan ziren.

- 1789an poeta, militar eta elizgizonek, XVIII. mendeko ideia filosofikoen talde jarraitzaile batek, lehen askapen-mugimendua prestatu zuten. Poetak Frantziako Iraultzako pentsalarien lanak itzuli eta gogoratu zituzten eta Ipar Ameri-



SUKREAREN EKONOMIA. Brasileko ekonomiaren sukre-aldia gogoratzen du marrazki honek. Grabatu holandarra da (XVIII. mend.), eta sukretegi brasildar bat ageri da irudian. Holandarrek esku handia izan zuten kolonia portuges haren merkatal bitartekari-lanetan.

kako Independentziako heroiak ere goraipatu. Elizgizonek beren komentuak "Amerikako lehen zentru nazionalista" bihurtu zituzten, eta militarrek beren laguntza eskaini zuten. J.J. da Silva Xabier "Tiradentes" izan zen ondorio handirik izan ez zuen matxinada honen bultzatzailea: 1792an heriotzera emana izan zen.

- 1808an, Penintsula Iberiarraren aurka Napoleonek zeraman erasoa ikusirik, Brasilera lekualdatu zen monarkia portugaldarra, metropolia betiko galtzen zela pentsatuz. Behingoz, Mundu Berriak gobernu-modu tradizional bat nolakoa zen ezagutu ahal zuen orduan.


Brasil benetako kolonia bat zen. Ez zuen merkatal askatasunik, ez industriarik, ez zegoen behar hainbat ikastetxe, ez bide, ez behar hainbat itsasontzi, ez behar hainbateko armadarik. Atzerritarren inmigrazioa debekatuta zegoen, eta portugaldarrak eta esklabuak baizik ez ziren han sartzen. Joanes VI.a erregea, Gortea betiko han egongo zelakoan, egoera hura aldatzekotan zegoen. Brasil erreinu bihurtu zen eta garai honetan eraikitzen dira Independentziaren eta Inperioaren oinarriak.



ESKLABU-KATEA. Brasileko ekonomiak, aurreko mendeetan eta gaur egun ere, beltzen eskulanari asko zor dio. Beltzak, esklabu bezala Afrikatik ekarritako esklabuen ondorengoak ere, esklabu jarraitu zuten, XIX. mendearen azken hamarkadetararte: 1.000.000 lagun ekarri ziren Afrikatik kafe-sailetara 1819-1850etan. Haien funtsezko bizimodu zitalean, eman ohi zitzaizkien batzuetan "bigungarriak" ere. Irudian (1800eko grabatua): Katean elkarrekin lotuta doazen esklabuei tabako-arrazioa banatzen.

- 1821ean, Joanes VI.a Lisboara bueltatu zen, Brasilen Bizerrege bezala Don Pedro, haren semea, gelditzen zela.

Lisboan, ezin zen onartu Brasilen errei-nutasuna, eta ahalegin guztiak egin ziren hura bere egoera kolonialera itzulerazteko.



PEDRO I.a (1822): Koroazio-ondoko agurra Río-ko herriari. Printze gazte honek (24 urte orduan) eraiki zuen Brasil-eko Inperioa. Ez zuen errege-aldi luzea izan, baina beronen semeak bai, ordea: Pedro II.a, 1831-1889. Monarkiari Errepublikak erreleboa hartu zion arte (1889), era-bakiorrak gertatu ziren bi erregealdiok, Brasilen Estatu-nortasuna finkatzeko.

ESKLABUTZA: KRISTAUEN LOTSAKIZUN

"Sinestezinekoa izango da ia gure ondorengoentzat, guk esklabutza-sistema hau honen luzaro onartu izatea Inperio britainiarrean. Egia esan, sistema hau ez litzateke hain harritzekoa beste bazter batzutan gertatu izan balitz, hala nola Hindustan-en, non ohitura paganoak eta benetan lazgarriak dituzten jende-mordoak erori bait dira gure eskuetan (...).

Baina non eta, azkeneko bi mendeez gero, sorreratik bertatik kristau-jendez osatuta egon diren komunitateetan, eta biztanle paganorik, guk geuk hara eramandakoak besterik izan ez dituzten kolonietan honelako esklabu-sistema mantentzea, hori anormalkeria bat da, gure sinesgarritasuna erabat itotzen ez badu ere, etorkizuneko jendeak gutxienez biziro harriturik utziko dituena".

(W. WILBERFORCE, 1823)

* 2. Ipar Amerika

Hego Amerika edo Ertamerikarekin konparatuz, Ipar Amerika nahikoa berandu sartu zen historian. "Aurkikunde nagusietan", 1519an H. Cortés-ek lortutako Mexikoko lurretatik iparraldera gelditzen ziren eskualde zabalez ez ziren kargu egin orduan aurkitzaileak.


Florida eta Mexiko Berria aurkitu zituzten bilaketariak espainiarrak izan ziren. 1513an Ponce de Leõn-ek Floridako itsasbazterrak pasatu zituen, baina barnera sartu gabe. Ondoren, 1528ko urtean Narváez-ek Mexikoko Golkoaren eta Floridaren iparraldea esploratu zituen, Texas-eraino. Urrearen bila, Hernando de Soto Mississippi-raino joan zen, Georgian zehar mendebalderantz. Mexikotik irten eta Vázquez de Coronado-k gaurko Arizona, Mexiko Berria, eta Texas Estatuak igaro zituen, urrerik gabeko lurrak zirela eta horregatik espainiarrei gutxi interesatzen zitzaizkiela frogatzeko.

Espainiarren lehenengo esplorazioak nahikoa etsigarriak izan ziren. Eta horrek esplikatzen du zergatik lekutu ziren han espainiarrak hain berandu. Lehen eraikuntza iraunkorra 1565eko urtean egin zen Florida-ko San Agustin-en. Mendebalderantz, Mexiko Berria, Arizona, Texas eta azkenik Kalifornia izan ziren espainiarrek misio eta gomendakinak ezarri zituzten tokiak.

Frantzia eta Ingalaterra XV. mende-bukaeratik zeuden Ipar Amerikaz interesatuak, baina, ondorioekin hoztuta, utzi egin zituzten saioak. Cabot eta Verrazano-ren bidaiek San Lorenzo eta Carolina iparraldeko itsasbazterrak esploratzea lortu zuten; Jacques Cartier, Kanada izango zena



HAMAHIRU KOLONIAK (1774). Ipar Amerikako kolonia ingelesak lurralde ireki, baina txiki batean bizi ziren. Txikia, zeren kosta-ondoko lehenen mendikateen eta itsasoaren tartean bilduta zeuden orduan Hamahiru Koloniak; baina irekia: lehenik, itsasora eta Amerika-Europetako merkatalgo eta ideietara, eta berehala, mendikateak gaindituz gero, kontinentearen ertaldera. Geografiak eskaintzen zuena, ipar amerikar zahar eta berrien demografiak eta ekimen irudimentsuak ernalduko zuten ondoko belaunaldietan, Estatu Batuei gaur eguneko osotasuna emateraino.



Bisontearen barrutia (c. 1600)


● *Bisontearen oraingo barrutia*

IPAR AMERIKAKO EKOLOGIA. Kolonizatzaile zuria agertu baino lehen eratuta zegoen, noski, Ipar Amerikan sistema ekologikoa, hango gizartearen eta izadiaren arteko harremanak elkarte batean orekatuz. Hartuta zeuzkaten indiarrek bailara, lautada eta mendialdeak; han eskaintzen zitzaizkienak, edota landutako lurrek edo zaindutako ganadu-taldeek ematen zituztenak bertako bizilagunen beharrizanak asetzeko banatuta zeuden. Zurien etorrerak erabat hautsi zuen oreka hura. Bisonteari eta indiarrei gizon zuriak ezarri zizkien biltoki mugatuak dira prozesuaren adibide argigarriak. Bisontearen eremua puntu beltz horietara mugatu zen, bi epealditan: 1730-1840, lurrak laboretara pasatzean, eta 1830tik aurrera, itxura gabeko hilketen ondorioz. Bestalde, horrela, zabalki hedatuta bizi ziren indiarrak aurrerago ikusiko ditugun erreserbetara bildu zituzten zuriek, lur-jabetasunaren esanahi berri bat ezartzean. "Indiarrarentzat, gizon zuriaren laborantza ezbehar ekologikoa izan zen" (Jacobs).

ikustera ailegatu zen. XVI. mendeko gizon haiek metal preziatuak bilatzen zituzten, eta lurralde haiek ez zuten alde horretatik interesik.

Nolanahi ere, bilaketari haiek ukitzen zituzten itsasbazterrak oso aberatsak ziren arrainetan, eta XVII. mendeaz geroztik hainbat eta hainbat arrantzale hurbildu zen hara: frantsesak iparraldera, holandarrak ertaldera (Houdson ingurura), suediarrak hegoaldera (Delaware, Pennsylvania). Bertako indiarrekin ere harremanetan jartzen ziren; harreman haietarako jaso ziren lehen eraikuntzak: Québec 1608an, 1609an Amsterdam Berria, etab. Orduan hasi ziren bertako jendearekin lehen trukeak ere: armak, metalezko tresnak eta pattarra eskatzen zuten indiarrek Europan hain preziatuak ziren larruen truke (ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa" 315. or.).

XVI. mende-bukaeran, Ingalaterra eginkizun honetan sartu zenean, kolonizazioak indar berezia hartu zuen. 1607an merkatari-talde bat James River estuarioan lehorreratu zen, eta han Jamestown hiria eraiki zuten. Hau izan zen Virginia-ko koloniaren hasiera. 1620an beste talde batek May-



flower itsasontzian joan eta Ingalaterra Berriko lehen kolonia eraiki zuen.

Nahiz eta berandu hasi, Ingalaterrak azkar gainditu zuen bere atzerapena. Gatazka internazionalaz baliatuz, egotziak izan ziren suediar, holandar eta frantsesak. 1674ean eskuratu zuten holandarren Amsterdam Berria. Aldi berean itsasbazterra jendeztatzeko emigranteak etorri ziren. Denak ziren politika- edo erlijio-errepresioren batetik askatasuna bilatuz ihes eginak.

Hamahiru koloniek autonomia zabal batekin itxura originala hartu zuten nahikoa azkar. Gainerakoetatik bereizten zuen erregimen propioa zeukan bakoitzak, eta nahiz eta Londres-ekiko harremanak oso urrunekoak izan, ez zeukaten beren artean loturarik. Batzuk Koroaren koloniak ziren, beste batzuk pribilegioaren edo dohaintza batenak, eta beste batzuk ostera lurjabeen koloniak. Baina denetan erakunde berdintsuak aurkitzen ziren: Koroaren ordezkari eta familia zaharrenen artean aukeratutako gobernadore bat, adibidez, eta lurjabeek aukeraturik eta zergak jartzeko ardura zuen asanblada.

Kolonuek indiarrekiko jarrera desberdinak hartu zituzten; puritanoek Satan-en agentetzat hartzen zituzten eta sekulako eraso-grina azaldu zieten, "quakers" direlakoak alderantziz ontasunean berdintasunezko harremanak eramaten saiatu ziren. Indiarrengandik, artoa, tabakoa eta kuia landatzen ikasi zuten eta trukean zaldia, suarmak, eta metalak eman zizkieten, baina gaixotasun kutsakorrez ere izan ziren kaltetuak. Lurraren jabetasuna eztabaidagaia izan zen; kolonuek konkistaren eskubidez eskatzen zutelako, eta indiarrek konkistarien jabetza pribatuaren zentzua ulertzen ez zutelako.

EE.BB.: 1620-1762
Arrakasta demografikoa

"Metropoliarekin eta honen merkatal iharduerarekin harremanean, "in the wilderness" (paraje basatian) sortutako hiriok, Boston, New York, Filadelfiak, abantaila handi bat zeukaten, alegia, beren buruaren administrazioaren jabe ziren eta erdi-libre bizi ziren, Europako Erdi Aroko hiri tipikoak bezalatsu. Gainera, bizi-ro probetxatu ziren Ingalaterrako istiluez: ba istiluok zirela eta, sekta protestante ingelesetako jarraitzaile iskanbilero mordo handi batek egin zuen salto Atlantikoaz bestaldera, Cromwell-en Ingalaterrarekin desilusionaturik. Inmigrazio hau, berriz, hain izan zen ugaria, ze, benetako borroka bukatzean, milioi bat ingeles inguru aurkitu bait zen 63.000 baino pixka bat gehitxoago frantsesen aurrez aurre, 1762an. Ingelesen edo "amerikarren" aukera,izan zen, frantsesen eta espainiarren tartean (Kanada, Mississipi, Florida) indiarren halako leherzorikoa pilatu izatea".

(F. BRAUDEL)

Frantses eta espainiarrak baino askoz gutxiago nahastu ziren anglo-saxoniarrak bertakotarrekin. Nahiago izan zuten, arma bidez, haiek mendebalderantz uxatu. Honela, laster agertu zen Muga kontzeptua, eta bertakotarren kulturaren ordez, hara ailegatu-berriena nagusitu zen.

Beste europarrek, (espainiarrek eta batez ere Kanadan finkatutako frantsesek) Mississippi ibaiaren arroan inperio kontinental bat osatu nahi zuten: Frantziaren Luisiana. XVII. mende-bukaeratik Frantzia eta Ingalaterraren borrokak hasi ziren, eta laster gailendu zen ingelesen nagusitasuna (Utrecht, 1713; Parise, 1763). Florida eta Mexiko-ko espainiarrek ez zuten arriskurik eskaintzen, eta errusiarrek Ozeano Pazifiko aldean egindako aurkikuntzak oraingoz oso urrun zeuden.

EE.BB (1745-1815): Biztanleriaren hazkundea

"Kontinente amerikarreko britaniar kolonia eta lurraldeak izugarri bizkor desarroilatu ziren XVIII. mendearen lehen erdialdean --espainiarren lurraldeekin konparatuz batez ere. Hirukoiztu egin zen lurralde kolonizatua. Ordurainо inoiz ikusi ez bezalako neurrian hazi ziren biztanleria eta esportazio-inportazioak. Laku Handien eskualdean, Iparraldean, eta Florida espainiarrean, milioia pasatuxe ziren biztanleak 1745eko urte inguruan, 1775ean berriz 2,5 milioi inguru. Gobernu federaleko lehenengo zentsuak, 1790ekoak, ematen duenez, 3,5 milioi lagun bizi ziren Estatu Batuetan. Hazkunde-tasa horrekin formula maltustarrera hurbiltzen ziren kolonuak, alegia, hogeitalau-bost urtetan bikoiztu egiten dela biztanleria. Kontzientzia nazionalarentzat eta kolonuen erresistentzi gogoa sendotzeko ez zen garrantzigabekoa beren kopuruaren indarraz jabetzea".

(W.P. ADAMS)

INGALATERRARI LEIAL

"Ez dago zehatz esaterik zenbat lagunek gorde zioten leialtasuna Koroari gerra-bitartean (1776-1783). 80.000 eta 100.000 bat pertsona izan ziren, gataszka-bitartean, kolonia erreboltatuetatik alde egin zutenak, hau da, biztanleriaren 100eko 2 edo 3. Iraultza Frantsesak biztanleriaren 100eko 0,5 bakarrik emigrarazi zuen. Leialetako gehienek Kanadan eta Mendebaldeko India britainiarretan bilatu zuten babeslekua. Askok beren etxeetan itxaron zuten gerraren azkena. Leial aktiboak, gerraren hasieran identifika zitezkeenak, populazioaren 100eko 6tik 16ra bitartekoa osatzen zuten. Frogaturik dagoena da, gizarte-maila guztietakoak zirela. Massachusetts-etik 1778an iraitzitako 300 leialetatik, hirutatik batek merkatari eta intelektual bezala zuen bere ogibidea, beste hirutatik batek nekazari bezala, eta gainerakoek merkatari txiki, artisau eta langile alokatu bezala. Hala ere, zati handi-handi bat kargu-publikodunak ziren, lurjabe handiak, handizka-saltzaileak, erlijioso anglikano eta kuakeroak".

(W.P. ADAMS)

B) INDEPENDENTZIAREN BEZPERAN

XV. mendearen bukaeratik eraikitako kolonia amerikarrak XVIII.aren azkenetan nabaria zuten halako ezinegon bat: Metropoli urrunek gaizki zerbitzatzen zituzten kolonietan garatuz zihoan gizarte berriaren premiak. Mundu Berriko kreoloek geroz eta amerikarrago sentitzen zituzten beren buruak. Amerikaren etorkizunak moldakuntza politikoak eskatzen zituen.

EEUU (1775): Estatuetako bizilagunak

Virginia	500.000
Massachusetts	339.000
Pennsylvania	270.000
Maryland	250.000
Ipar Carolina	250.000
Connecticut	198.000
New York	193.000
Hego Carolina	170.000
New Yersey	130.000
New Hampshire	80.000
Rhode Island	58.000
Delaware	37.000
Georgia	33.000

* 1. Hamahiru Koloniak

Etorkizun hura ezin hobeki iragarri zuen Raynal idazleak, XVIII. mendean idatzitako hitz profetiko hauetan irakur daitekeenez:

> "Inoiz munduan zorioneko iraultzarik gertatzen bada, hau Ameriketatik etorriko da. Mundu Berri honek, suntsitua izan ondoren, berriro

EE.BB.: INDEPENDENTZIAREN KAUSAK

"Amerikako inperio frantsesa bukatzean (1762) gertatu zen, Ingalaterraren laguntza ez zela kolonietan hain beharrezko eta, aldiz, metropoliaren eskakizunak gero eta eraman ezinago bihurtu zirela. Hala ere, ez koloniek eta ez Ingalaterrak nahi zuten, printzipioz, elkarrekin hautsi: hau berez etorri zen, gaizki-ulertze-sail baten kontzesio askiezin eta indarkeria alferren ondorioz. Deskolonizazio amerikarraren ondotik etorri ziren beste gaurdainoko deskolonizazio guztiak ere antzeko giro batean burutu izan dira, beti ere gertaera aski burugabekoen artean.

Seguruenik Ingalaterra izan zen erruduna, emakida zabalagoak eta bizkorrago ez egiteagatik, zerga batzuk ezar erazteagatik, Frantziaren kontrako gerra-galerak biziro justifikatzen zituenak, nahiz eta gero berriro ezabatuak izan, teari buruzko zerga mantentzeagatik, eta mantendu ere halako eran ze Indietako Konpainiaren bi itsasontzitan zeuden kaxa-teak uretara bota bait ziren Boston-eko portuan, 1773ko abenduaren 16an. (...)

Gainera, onargarria da zera ere, eta halaxe uste du ingeles historilari batek ere (1933), alegia XVIII. mende-erdi-aldetik aitzina desplazamendu handi bat somatzen dela ingeles Inperioan, eta ordurarte Amerikan eta Atlantikoan lekutzen zen Inperio hau, handik aurrera, Ozeano Indiko eta India aldera hasi zela lerratzen". *(F. BRAUDEL)*

loratu beharko du eta beharbada Aintzinako Munduaren gain agindu. Politikaz zapalduak edo sugarrez iraitziak diren gure herrien babesleku izango da. Hango biztanle basatiak zibilizatuko dira, eta atzerritar zapalduak aske egingo. Baina beharrezkoa da aldaketa hau hartzidurak, kordokaldiak eta ezbeharrak prestatzea; eta heziketa neketsu batek izpirituak ekintza eta oinazerako prestatzea".

Pare bat mende igarota gero hau irakurtzean harritzekoa da idazle frantses horrek eduki zuen intuizioa eta egindako igarpena.

Suntsiketa baten ondorioz aurreko mendeetan europar potentziek egindako lan positibo eta ekintzetatik etorri zen Mundu Berrira iraultza.

Lehenengo Hamahiru Kolonia britainiarretan piztu zen hori, XVIII. mendean izandako gerra interkolonialen ondorio bezala; gero Haiti-ra pasatu zen sua, Europan gertatzen ari zen Frantziako



ASKATASUNAREN ESTATUA (1886). Frantziak eskainitako estatua honek Amerika librearen sinboloa izan nahi zuen. Hamahiru Kolonien Independentziaren biharamunean, Estatu Batuen sistema demokratikoa nola eraiki, izan zen arazoa. Irudi hau bezalatsu, apurka-apurka lortutako zerbait izan zen, eta ez gatazka latzik gabe, gainera, beti ere 1787ko Konstituzioa ondu eta osatuz.

EE.BB.etako IRAULTZAREN OIHARTZUNAK

"Amerikako Konstituzioak irrikaz izan ziren irakurriak eta gutxienik bost aldiz argitaratu ziren frantsesez 1776tik 1786ra bitartean, eta holandesez ere bai behin behintzat, 1787an. Herria bere botere konstituziogilea erabiltzen ikusteak erasan handia egin zuen frantsesen artean, zeintzuk beste arazo bat ere planteatu bait zuten: alegia, nola egin errepublika batean herentziazko aristokraziarik sortu ez zedin? Mahly-k eta Mirabeau-k beren kezkak azaldu zituzten, ea Goi-Ganbara eta Cincinati Lagunartea bezalako erakundeek noblezia berri bat sortuko ez ote zuten. Eztabaidaok zabaldu egin zuten aurrerapen-kontzeptua eta dimentsio berria eman zieten libertate- eta berdintasun--ideiei. Geroztik Estatu Batuek hartu zuten Ingalaterraren lekua imita beharreko paradigma bezala". *(J. GODECHOT)*

Iraultzaren oihartzun bezala. Ondoren brasildarren bereizte baketsua dator eta kasik batera Hispano Amerikako iraultza gogorrak. Hauekin bukatzen da Independentzi eta gerra-epealdia.

Hamahiru Kolonietan iraultza-prozesua nahikoa moderatua izan zen. Kolonia hauek, urruntasunak eraginda, gozatua zuten autogobernuaren esperientzia. Kolonuek britainiartzat zeuzkaten beren buruak: erregeak aginpide osoa mantentzen zuen, metropoliko Haziendak ikuskatzen zituen zergen sarrerak eta plangintza ekonomikoak Londres-eko Merkatal Ganbara baten ardurapean zeuden; hala ere, urtetik urtera eragin handiagoa zuten tokian bertako Asanbladen erabakiak kolonia bakoitzeko gobernadoreek onartzen zituzten. Nahiz eta kolonia batzutan protestanteetara mugatu eskubide hau, boto-eskubidea kristauek bakarrik zuten, baina horretarako derrigorrezkoa zena lurjabe izatea zen; honen ondorioz, autogobernu-ohitura ahalmen ekonomikoz bereizten zen kolonu-taldera mugatuta zegoen.

Iparraldean Ingalaterra Berriko lau koloniak (Massachussetts, Connecticut, New Hampshire eta Rhode Island) puritanoez eta Stuardotarren jazarralditik ihes egindakoekin jendeztaturik zeuden. Hango eguneroko bizitza, moral erlijioso zorrotz batez markatuta zegoen. Arrantzan eta ontzigintzan oinarritutako industriek bazuten garapenik; Boston-etik hara hedatu zen itsas merkataritza, eta harrera sakona egin zitzaion Harvard eta Yale-ko unibertsitateetan Europako Ilustrazioari. Zehaztuz: merkatalgoan oinarritua, dominatzailea, ekonomikoki boteretsua eta ideologikoki eskolatua zen hango burgesia.

Etorkizuna, aukera da!

"Luzaro batean uste izan du Amerikak, destino berri batean bizi zela, iraganaren itzalik gabe, iraganaldia bapatean berez ezabatuko balitz bezala. Ezinbestekoa zen ia, kateatzen edo erakartzen gaituen guzti hartatik ihes egitea, eta daukaguna dena ustekabearen alde jokatzea. 'Opportunity' edo aukera da hitz giltzarria: Nor izan nahi duen edozein aukerari lotu behar zaio eta azken ondoriotaraino horri segitu. Gizakia 'dema'-giro honetan bakarrik zailtzen da.

Estatu Batuek ere berdin jokatu dute kolektibitate bezala: jendeak zalantzarik gabe heldu dien aukera-eskaintzaz eta 'zorte-kolpez' beterik dago haien iragana, eta ia beti arrakasta izan dute".

(F. BRAUDEL)

Iraultzen kausak

"Zerrendatu ditugun iraultzak honako krisi ekonomiko hauetako bat izan zuten beren sorburuan: prezioen igoera, zerga berriak zirela medio, Amerikako Kolonia ingelesetan 1763 eta 1770 bitartean gertatu zena; eguraldien gogorra eta ondorioz etorri ziren uztaldi txarrak Europan, 1770, 1774, 1783-1784etan eta, batez ere, 1788-1789etan. Alderantziz, berriz, superprodukzioa zegoen, hondagarriro prezioak jaitsieraztean, krisia sortu zuena, Frantziako mahaslantzarekin gertatu zen bezala; ugariegi izan zen ardoa 1770 eta 1790 bitartean, eta honek prezioen beherakada eta ardogileen hondamena ekarri zuen berekin". *(J. GODECHOT)*

Ertaldeko lau koloniak (New Jersey, New York, Delaware eta Pennsylvania) nahasiagoak ageri ziren: holandarrak, suediarrak eta alemaniarrak, denak batera, ingelesak baino gehiago ziren. Bere kokamendu geografikoagatik, ertalde honek ipar-hegoaldeekin etengabeko harremanak zituen. New York eta Filadelfia-ko hiriak zur- eta gari-esportazioen zentru garrantzizkoak ziren, eta iharduera intelektualetan ere nabaritzen zen kolonia haietako bizitasuna.

Hegoaldean (Virginia, Maryland, Georgia eta Ipar eta Hego Karolina) kotoi, tabako eta arrozaren produkziora zuzenduak zeuden. Nekazal egitura zabalduena landaketa handia zen, eta lan-esku bezala esklabu beltzak zerabiltzaten. Klimarengatik europarrentzat oso lan neketsua gertatzen zenez, 1618ko urte ingurutik, azoketan merkantzia bezala saltzen ziren beltzak Afrikatik ekartzen hasi ziren.

Hegoaldeko gizartea hiru taldetan banatuta zegoen: beltzak, eskubiderik gabe, esklabuak; landatzaile aberatsek kasta aristokratiko bat osatzen zuten; eta zuri pobreak, eskubidez hornituak baina pisu sozialik gabeak. Multzo bakoitzaren barnean desberdintasunak ere nabariak ziren. Honela, Pennsylvanian lurjabeek zuten botereak hegoaldeko kolonien itxurako gizarte-estruktura azaltzen zuen.

Independentziak herronka berri baten aurrean jarriko zituen Hamahiru Koloniak: Egitura politiko federal bat lortzeko nola gainditu jatorrizko banaketa politiko hura eta ezberdintasun sozial haiek?

* 2. Latin Amerika

Nahiz eta XVIII. mendean garrantzizko eraldakuntzak gertatu Espainian eta Ameriketan, garai honetako politika ere barne-kontraizate serioekin kutsatua dago. Berau hazienda publikoari buruz eta filantropiaz ardura izan arren, errealitatez ez zuen horrek liberalismo politikorik ekarri. Absolutismoaren nahia beste edozeren gainetik zegoen oraindik.


Hala ere, politika erreformatzaileak nahitaez Amerika kanpoko eragin guztietara irekitzea lortu zuen. Ilustrazioko pentsaera filosofikoak elite kreoloak barrutik hunkitu zituen: Montesquieu, Voltaire, Rousseau eta Raynal abadearen liburuak Ameriketan ez sartzeko jarri ziren debeku guztiak alferrikakoak gertatu ziren. Liburutegi partikularretan, bizerrege, apezpiku, kalonje eta erret ofizialen gisako pertsona ahaltsuen etxeetan ere aurkitzen ziren liburuok.

Irakurketa horiek oso aproposak ziren, administrazio eta politikako erabakietatik bazter-

IDEIEN ZABALKUNDEAK heda-bide arin eta bizkorragoa aurkitu zuen prentsa jaio-berrian Ibero Amerikan ere (lehenengo aldizkaria 1728an, Mexikon). Albiste sozio-ekonomikoak eta arte eta zientzietako berriak ematen zituzten aldizkariok. Buenos Aires-eko hau bezalako askok (1801) zabaldu zuen, egokiera suertatu zenean, Independentziaren oihua ere.

IDEIA FILOSOFIKOEN ZABALKUNDEA

"Ilustrazio-filosofiari zabaltzen lagundu ziotenen artean garai hartan sortu ziren elkarte asko daude, Augustin Cochin-ek pentsamendu-elkarte deitu zituenak alegia, nekazari elkarteak, 'Herriaren Adiskideak' elkarteak, ekonomi elkarteak, irakur-ganbarak eta, azkenik, masoi-logiak. Asko eztabaidatu da frankmasoneriak Iraultzaren sorreran izan zuen paperaz. Esan daitekeena da, logiek, beste "pentsamendu-elkarteek" bezalaxe, indartu egin zutela filosofoen, hau da, razionalismoaren ideien zabalkundea eta ordurarte gizartea funtsatzeko erabili izan ziren printzipioak eztabaidatzeko ohitura". *(J. GODECHOT)*



Núm. 1.

TELEGRAFO MERCANTIL

RURAL POLITICO ECONOMICO, E HISTORIOGRAFO del Rio de la Plata.

Miercoles 1. de Abril de 1801.

Admiranda tibi levium spectacula rerum.
In tenui labor: at tenuis non gloria; si quem Virg. Lib. 4.
Numina læva sinunt, auditque vocatus Apollo. Georg

Spes etiam valida solatur compede vinctum. Tibul. Lib. 2.
crura sonant ferro, sed canit inter opus. Elog 6.

Al inocente asido á la cadena,
la esperanza consuela, y acaricia.
Suena el hierro en los pies, y dale pena;
mas canta confiado en la Justicia.

EL patriotismo, principio el mas fecundo de grandiosos hechos y que, tal vez se convierte en pasion, recurre a todo genero de medios para alcanzar sus fines. No siempre se requieren sacrificios, ni heroycidades para manifestarlo; y quizá está menos expuesto á la sospecha de ostentacion, ó vanidad, quando son mas humildes sus efectos. Esta relevante prenda que, con alguna propiedad, puede llamarse virtud, es la que exige actualmente, la atencion en todas las Naciones, para reglar sus maximas á la constitucion que cada una de ellas tiene: y es tambien la que (qual devoradora llama que tocando en la *Tea*, arde mas quanto á soplos intentan apagarla) inflamando el pecho del *Editor* de este *Periódico* no cedió, ni pudo ceder a sus muchos Opositores.

No pudieron rendirme, no; pero los choques de una continuada Lid, amortiguaron mis fuerzas, desfallecieron mis brios, y aun quebrantaron mi salud en tanto modo, que (como suele decirse) fue fuerza embainar el acero, y descansar hasta hoy, para que los perdidos alientos tomasen á

tuta zegoen gizarte kreolo aberatsagan, kritika eta erreibindikazio-gogoa sortzeko. Era honetan, Espainiako "Herriaren Adiskideak" deitutako lagunarte ekonomikoen antzera, Ameriketako "Pentsamenduaren Lagunarteak" eratzea ("sociedades de pensamiento"), egunkariak eta aldizkari zientifikoak sortzea garrantzizkoa gertatu zen. Bertako eliteek arazo publikoei buruz zeukaten sentsibilitatea frogatzen zuten haiek.

Karlos III.aren politikak behin baino gehiagotan aurre egin behar izan zion Ameriketako eritzi publikoari: honela 1767ko urtean Jesusen Lagundikoak botatzean herri-altxamenduak eta hiri-aristokraziaren oposizioa piztu zituen. 1777--1781etako urteetan Areche-k Peru-ra egindako ikuskari-bisitak ere zailtasun handiak topatu zituen.

Ekonomiaren garapenak ere ez zuen erosotasunik. Klase apala, langabezira eta zorrek sor zezaketen morrontzara kondizionatua zegoen. Korregidoreen gehikeriek 1780an Tupac Amaru-ren izugarrizko altxamendua sustatu zuten Perun, eta 1784--1785eko urteetako goseteak Espainia Berriko indiarren miseria argitara atera zuten krudelki. Ameriketako jendea konturatzen ari zen, bertako aberastasunak urrutiko Espainiarentzat eta haiei ardura ez zitzaizkien helburu politikoetarako bakarrik ustiatzen zirela. Egia da, 1763-1792 urteetan Espainia Berriak Koroarengandik jasotakoa laukoiztu egin zela. Perun Areche-ren helburua, Erret Hazienda berrantolatzea eta errendimendu hobeak ateratzea izan zen; baina hobekuntza guzti horiek ezin izan zuten desosegu politikoa baretu.

Godoy eta Amerika

"Nere pentsamendua izan da, Erretordeak ez baina gure infanteek behar zutela Amerikara joan, eta han printze erretorde-titulua hartu.

(...) Esan ere egingo du bat edo batek, asmo hau ez dela berria, eta Aranda konteak proposatu zuela orain hogei urte, aurreko erregealdian. (...)

(...) Haren proiektua izan zen, Amerika espainiarreko kontinente osoa besterentzea, Gaztelako infanteen eskutan jarriz, eta han hiru erreinu ezarriz. (...) Proiektu hau frantsesa zen osoro. (...)

Baina nere pentsamendua espainiarra da erabat. Ez dago ezer besterendu beharrik, ezta arra batxo ere Indietako Inperio loriatsu eta aberats hartatik. (...) Nere asmoa zen, garai hartan hain nabarmena zen Amerikako herrien leialtasunari indar ematea, eta hori bakarrik". (M. GODOY, 1804)

Kreoloen deskontentua eta indiarren miseria, biak batera, izango dira Independentzi gerraren eragile. XVIII. mende-bukaerako Ameriketako espainiar koloniei Monarkiarekiko leialtasun hutsa baino bestelako koesio-faktoreak falta zitzaizkien. Mende honetako eraldakuntzek administrazioaren eskastasuna konpondu eta ekonomiari bultzada bat eman nahi izan zioten; baina kolonietako problema sozialak ez zituzten konpondu. Politika erreformatzailearekin etsita zegoen gizarte kolonialaren barne-kontraesanetan bilatu behar da 1808-1824etako urteetan Amerikako espainiar inperioa suntsitu zuten mugimenduen sorburua.

Tristeziaren Kontinentea

"Latin Amerika, itxuraz hain antsikabe, hain kontentu-zale, hain esatari, hain herri-festa zaratatsuen zale dena, beti dago sofrimendu sakon eta atergabe batean gaurko munduaren aurrean,aurreko munduaren aurrean sufritzen zuen bezalaxe. 'Tristeziaren kontinentea' ere bada Latin Amerika'".

(KEYSERLING, 1880-1946)

II. INDEPENDENTZI GERRATEAK (1776. 1810-1825)

Historilarien artean "Iraultzen Aroa" bezala ezagutu den garaian (1770-1825), Ameriketak bi une iraultzaile ezagutu zituen, bata Ipar Amerika britainiarrean (1776-1783) bestea Hego Amerika espainiarrean (1810-1825).

A) AMERIKETAKO ESTATU BATUAK

XVIII. mende-bukaeran Ingalaterrak Ipar Amerikan zituen ukantzak, Hudson Badiatik Mexikoko Golkoraino zabaltzen ziren, eta Atlantikoaren itsasertzetik Mississippi ibairaino (1763. Pariseko Tratatua: Zazpi Urteko Gerratearen amaiera).

EE.BB.: Bizilagunak

Urtea	Milioiak
1790	3.900.000
1850	23.200.000
1900	75.900.000
1910	91.900.000
1920	105.700.000
1930	122.800.000
1940	131.700.000
1950	150.700.000
1960	179.300.000
1970	203.200.000

Jurgi III.aren erretaulkiratze-garaietatik hara (1760), metropoliak kolonietan egin zuen presio ekonomiko eta politikoa izan zen bien arteko lehen tirabirak sortu zituena.

* 1. Kausa ekonomiko politikoak

Ipar Amerikako iraultzari buruz interpretazio desberdinak eman dira: batzutan, iraultza politikotzat hartu izan da (Metropoliaren aurkako matxinada); edo haren arazo sozialak azpimarratu dira: merkatarien eginkizuna, klasearteko borroka, kolonien arteko desberdintasunak (hegoaldeko aristokraziaren nagusitasun nabariagatik batipat).

Europarren lehen kolonia independentea

"Iraultza amerikarra ez zen izan kolonu esplotatu batzuren etsipenezko azken erresistentzi kolpea, eta bai ekonomia nazional berri baten garapen bat -ahalbideak defendatzeko egiten zen lehen ekitaldia. Itsasoz bestaldeko europar kolonien sail bat biltzen zen komunitate ekonomiko bat eratzeko asmoz; komunitate bat, lehenengo aldiz, bere erabaki-zentrua Europan izango ez zuena, eta zuzenean Europako ekonomia nazional baten probetxutan lan egingo ez zuena. Hego Amerika, Australia eta Hego Afrika baino lehen, Ipar Amerikan mamitzen zen Europaren zati bat, ekintza politikozko batasun bat eratzeko. Hala ere eskukotasun ekonomiko eta kulturala, hasieratik aldarrikatua izan bazen ere, askoz ere beranduago eta borroka luze-luzeren ondoren bakarrik lortu ahal izan zuen".

(W.P. ADAMS)

Gaur egun, aurreko planteamendu batzuk albora utziz, ekonomia eta politikako autonomia hazkor baten prozesu logiko bat bezala onartzen da Independentzia, eta kolonuen altxamendua, arbitrariotzat jotzen zen agintekeriaren aurkako erantzuna izan zela esan ohi da. Geroko mugimendu antikolonialistekin konparatuz, autodeterminazioaren aldeko borroka haren originaltasuna, hartan etorkin europarrak protagonista izatean zetzan.

Ingalaterraren eta Amerikako kolonien arteko kontrajartzea, Londres-etik emandako aginduek egiten zuten kalteagatik baino areago, Metropoliak printzipioz erabakiak koloniak kontutan eduki gabe hartzen zituelako izan zen. Zazpi Urteko Gerratean merkatal kontrabandoa gehitu egin zuten koloniek frantziar eta espainiar Antillekin, eta gobernu britainiarrak, gerrako gastu-zorrak ordaintzeko, etekin berezi haiei zergak ipintzea erabaki zuen.


Monarkia britainiarrari bidezkoa iruditzen zitzaion gerra batetik sortutako gastuak Koroapeko guztien artean banatzea eta, honela, itun koloniarra indartzea. Neurri guztiak legez-kontrakotzat jo zituzten kontsultatu gabe utzitako koloniek: edonolako zerga berri batek interesatuen artean onartutakoa izan behar zuela defendatzen zuten amerikarrek. Parlamentuak Koroapeko guztien ordezkotasun osoa zuela esaten zuten ingelesek, eta hark bidezkoa zuela, beraz, zergak jartzea.

Problema hau gobernu ingelesak berak larriagotu zuen, Apalatxe Mendien eta Mississippi-ren arteko lurraldeak kanadiar kolonu eta inmigrante berrientzat gordetzea pentsatu zuenean eta horretarako Mendebalderanzko hedapenari oztopoak jarri zizkionean.

1765. urtean publizitate, lizentzia eta egunkarien gain jarritako tinbre-legeak zera planteatu zuen: kolonietako bizitza ekonomikoa zuzentzeko eskumenik Londres-ek ba ote zuen, gero. Boston, New York eta Filadelfia-ko merkatal zentruek boikota egin zieten merkantzia ingelesei, eta honek Londres zerga kentzera behartu zuen. Bi urte beranduago Amerikako produktuei berriro ere zergak ezartzen zaizkie. Ez ziren bereziki handiak zergaok, baina Metropoliaren printzipiozko boterea birretsi egiten zuten erabaki fiskal haiek.

* 2. Etendura

Zergen kontrako kanpaina Iparraldeko merkatariek eta Hegoaldeko landatzaileek sustatu zuten. Ingalaterrak, erdibideko irtenbidea bilatu nahiez, zerga guztiak kentzea erabakiko du, tearena ezik.



ZERGA ITOGARRIAK. Metropoliak ezarritako zergen kontrako kanpainetan honelako kritikak agertu ziren Hamahiru Kolonietako prentsan (1765).

Stamp Act (1765)

"1765eko Tinbre-Legeak zerga bat ezartzen zuen kontsumoari buruz, kolonuen batzarreei inolako parterik hartzen utzi gabe. Hauek protesta gogorra egin zuten beren eskubideei egin zitzaien destainagatik. Antikonstituzionaltzat deklaratu zuten legea eta berentzat galdatu zuten edozein hiritar ingelesi aitortzen zaion eskubidea, alegia, zergarik ez zaiola ezarriko, berak, delako zerga-lege hori egiten, zeharka behinik behin, ordezkari hautatuen bitartez, parte hartzen ez badu: 'No taxation without representation!' (Zergarik ez ordezkaritzarik gabe!) izango zen handik aurrera behin eta berriz errepikatuko zuten eskea. 'Assemblies' izeneko ordezkari-batzarretarako hauteskundeetan bakarrik ematen zitzaien kolonuei parte-hartzeko aukera. Westminster-eko Parlamentuan ez zeuden ordezkaturik, ezta 'birtualki' edo 'egiazki' ere, gobernuaren aldeko foiletoiek zioten bezala".

(W.P. ADAMS)



TEAREN MATXINADA (1773). Indiarrez mozorrotutako kolonuek portuan bildutako tea uretara jaurti zuten Bostonen. Koroaren zerga-politikaren aurkako ekintza izan zen hura, eta Metropoliak halaxe ulertu zuen, gogor erantzunez.

Boston: Tea Party (1773)

"Botere kolonialari egin zitzaion probokazio erabakiorra, 1773ko abenduan, bostondar batzuk egindakoa izan zen; hauek indiarrez jantzi eta portuan aurkitzen ziren hiru itsasontzi asaltatu zituzten eta, jendetza jolasguratsu baten aurrean, uretara bota 342 kaxa te, horren salmentatik sortuko zen zerga-bilketa galeraztearren. Boston-eko 'Tea Party' horren kontra, kolonuek 'Intolerable Acts' bezala kalifikatu zituzten lege batzurekin erantzun zuten Koroak eta Parlamentuak 1774ean".

(W.P. ADAMS)

Urte batzutan bakezko jarrera bat gordeko zuen Londres-ek, baina, krisi ekonomikoaren eraginez, Indietako Konpainia Ingelesari eman zion kolonietako tearen merkatal monopolioa. Egoera honetan, 1773ko abenduaren 16an, "larru-azal gorriz" maskaratutako gizon batzuek Bostoneko portuan zeuden te-kargamenduak arpilatu eta erre egin zituzten ("Boston Tea Party"). Koroak eta Parlamentuak oso gogor zehatu zuen ekintza hau, kolonuei, hauek "jasanezinezko lege" bezala izendatu zituzten erabakiak ezarriz: itxi egin zen Boston-eko portua eta abolitu egin ziren Massachusetts-eko eskubide-askatasunak; aurrerantzean baimena eskatu beharko zen biltzarrak ospatzeko, armadak edifizioetan sartzeko eskumena izango zuen, etab.

Kolonia guztiak Massachusetts-en alde jarri ziren, eta Filadelfian 1774eko irailean bilduko zen Kontinenteko lehen Batzarrera ordezkariak bidaltzea erabaki zuten. Merkantzia britainiarrei boikot efikazago bat egiten hasi ziren. Gatazka armatua bazetorrela ikusten zen, eta kolonu askok horixe nahi zuen. Boston ondoan, Lexington eta Concord auzoetan armada britainiarrak, kolonien munizioak hartzera zihoala, jasan zuen lehen porrota, eta atzera egin behar izan zuen.

1775eko maiatzean Filadelfiako bigarren Batzarrean koloniarteko armada bat antolatzea erabaki zen, George Washington burutzat jarriz. Jurgi III. erregeak gerra-egoeran deklaratu zituen koloniak: soldaduteria handiagoa bidali zen hara, baina artean ez zen uste etendurarik etorriko zenik. Errebolta, Ilustrazioko ideia filosofikoekin hornitzen zen, eta era honetako esaerak: "ingelesak eta amerikarrak berdinak dira", "Jurgi III.a tirano bat da" geroz eta sarriago entzuten ziren.

Urtebeteren buruan, 1776ko maiatzean, hirugarren Batzarrean koloniek Estatu independentea aldarrikatu zuten, Metropoliarekin gerra probokatuz. Ezaguna da Thomas Jefferson-en adierazpena (uztailaren 4ean):

"Gizaki guztiak berdinak sortuak izan direla; Sortzailearengandik debekaezinezko eskubide batzuk hartu dituztela; beren artean elkarrekin bizitzeko, libre bizitzeko eta zoriona bilatzeko eskubideak dauzkatela; gobernuak, eskubide horiek garantizatzeko jarriak direla, eta haien botere juridikoa gobernatutakoen onespenean oinarritzen dela...: baieztapen hauek ageriko egiatzat ematen ditugu".

EE.BB.: IRAULTZA BEREZIA

(Kolonialismoaren historian bi motatako kolonizazio-prozesu ezagutu izan dira: Europarrek jatorriz mendebaldarrak ez ziren herrien gain ezarritakoa bata, eta Europatik joandakoek lurralde berri "hutsetan" sortutako gizarte eta herri gazte berrien konolizazioa bestea. Hamahiru Kolonien kasua azken mota honetakoa izan zen:)

"Bistan dago Amerikako Independentzi gerrak eta geroko Asia eta Afrikako mugimendu independentzizale antikolonialistek elkarren artean duten egiturazko diferentzia.

Amerikan Europako emigratuak borrokatu ziren beren autodeterminazioaren alde, eta borrokatu ere Europako hainbat potentzien laguntza militarrarekin. Gogor egiteko gogoa, beraz, bertako klase ertain zabal eta joritsu baten erabakimenetik sortua da, zeinak bere joritasunarentzat garabide libre bat segurtatu nahi bait zuen gerorantzean. Klase ertain kolonial zabalaren 'pribazio erlatiboaren' berezitasuna zen, ezen 1763tik aurrera --eta honek sorteraziko zuen iraultza-- artean ez zuela iraultzarik ikusi, baina haren beldur zela, beldur, Ingalaterrak hasi berria zuen politika kolonial zorrotzaren ondorioz.

1764-1765eko tinbre-legearen eta sukre-zergaren kontrako erresistentziak --gogorra irudituko zitzaion aurka egite hori noski, kontribuzioak ordaintzen lehendik ohitutako ingeles bati-- agertu zuen, merkatariak, politikariak eta populazio-geruza handi-handiak ez zeudela prest luzaroago metropoliaren interes ekonomikoen azpian makurtuta segitzeko.

Kolonietan ez zegoen benetako klase noblerik, bere patua Ingalaterrakoarekin identifikatzeko gauza zenik. Burgesa izan zen batipat Amerikako iraultza: burgesia kolonial europarraren arteko goi- eta erdimailako geruzek boterea hartu zuten bortizki monarkia konstituzional baten menpera-uziaren kontra".

(W.P. ADAMS)



SOLDADU AMERIKARRA. Hamahiru Koloniek arma bidez irabazi behar izan zituzten beren askatasun eta subiranotasun politikoak, eta armaz egin zen Mendebalderako hedapena. Darley-ek honela ideializatu zituen gerra haietako soldaduak. (1812).

EE.BB.
Aliatuen laguntzak (1780)

"Britainia Haundia isolaturik gelditu zen (1780), eta berdin honek Atlantikoan zehar zituen komunikazioak armada frantses, espainiar eta holandesek erasoak. Ingalaterrak ezin izan zien bere Amerikako armadei indar berririk eta hornidurarik bidali. Bestalde, Frantziak 8.000 gizoneko armada bat garraiatu zuen Estatu Batuetara Rochambeau-ren manupean eta armaz eta munizioz hornitu zituen altxatuak".

(J. GODECHOT)

*** 3. Gerratea**

Kontrajarrita zeuden bi aldeek gerra defentsiboa egin zuten. Ingalaterrak itsasoa dominatzen zuen, baina ez zen gauza itsasertzaren 1.500 kilometroak kontrolatzeko eta gutxiago lehorreratu eta lur-barnean sartzeko. Kolonuak gerrila-gerrara erraz moldatu ziren, baina gaizki entrenatuak zeuden, arma eta munizioak urri zituzten eta ofizial eta estratega batzuren falta ere bai.

George Washington-ek armadaren ardura hartu zuenean (1775), aliatu baten beharraz konturatu zen. Honek itsas potentzia bat izan beharko zuen izan, eta Frantzia aukeratu zuen: mendean zehar Ingalaterrarengandik jasandako humiliazioengatik ordainak emateko desiratzen zegoen nazioa.

Nahiz eta hasieran gerra Metropoliaren alde azaldu, Saratogako guduaren ondoren (1777) ahalgarri bezala ikusi zen kolonuen garaipena. Amerikar kolonuek orduan lortu zuten potentzia europarren laguntza-konpromisua, Frantziarena bereziki. Benjamin Franklinek, Parisen enbaxadari bezala zegoela, akordio bat izenpetzea lortu zuen bi aliatuen artean (1778): banakako bakerik ez izenpetzeko konpromisua hartu zuten. Frantziak bere laguntza militarra eskaintzen zuen Independentzia lortu arte, eta Espainiako erregearen aurrean, Estatu berriaren independentzia onar zezan, bere zuzenmenak egingo zituen, gainera. Ondorioz, ipar Europatik material-bidalpenak gehitu egin ziren.

Saratoga ondoren ingelesek geroz eta zailagoa ikusten zuten garaipena, eta laster, 1781eko urteko urrian, Yorktown-en ingelesen isolamendua

eta hondamena lortu zuten kolonuek eta La Fayettek gidatutako armadak.

Ekintza militarrak orduan bukatu ziren, baina gerraren irtenbide politikoa 1783an, Versailles-eko Itunean, aurkitu zen, Ingalaterrak eta gerran partaide izan ziren potentziek kolonien independentzia onartuz.

Honela izan zen Estatu Batuen sorrera eta deskolonizazio amerikarraren lehen urratsa. George Washington, Jefferson eta Franklin izan ziren prozesu guztia zuzendu eta nazio jaio-berriaren politika-ardatzak ezarri zituztenak.



YORKTOWNeko GUDUA (1781). Artean trintxera-fronteetako gerrarik ez zen egiten; baina gudu-topaketarik egon zen,noski, Independentzi Gerratean. Washington-en eta Lafayette frantsesaren armadek Yorktown--en eraso zieten ingelesei: eraso, eta garaitu. Irudian: G. Washington (1732-1799), bere Estatu Nagusiarekin, Yorktown-en. Federazioaren 1. Lehendakaria izan zen **Washington** (1789-1797).

* 4. Bakea eta Estatu berriak

Buruzagien lehen kezka, Locke, Montesquieu eta Rousseau-ren ideia filosofikoak egintza bihurtzea izan zen, zeren eta, haien ustez, gizarte politikoak itun batean oinarrituta egon behar zuen. Estatu guztietan onetsi ziren Konstituzioak, batzuetan aurrez eskubide-azalpena jarrita. Itxura

FEDERAZIOA, ZERTARAKO?

(Independentziak, berez, ez zuen Hamahiru Kolonien artean lotura berri eta estuagorik eratu: bakoitza zen bere buruaren jabe osoa, eta artean sortzeko zeuden guztien gainetiko eta denentzako erakunde amankomunak. Egoera hartan, beraz, funtsezko arazo bat zegoen konponbide baten eske: Federazioa, zertarako?:)

"Estatuek ez zuten asmorik, sortutako nazioarekin osoro bat egiteko. Haiek ikusten zutena zen bakarrik, helburu mugatu batzuri erantzuteko, gidaritza amankomun bakarra behar zutela.

Honek esplikatzen du, politika-mailan, pertsona bakoitzak duen hiritartasun bikoitza: bakoitza halako edo bestelako Estatutako hiritarra izaten da eta gainera Estatu Batuetakoa. Honek esplikatzen du, hiritar gehienen bihotzean, gaur oraindik oso bizia den abertzaletasun bikoitza edo hirukoitza: Ipar Amerikako hiritar izateagatik bezain harro egoten da bat han Massachusetts edo Texas-koa, eta beraz Ingalaterra Berri edo Hegoaldekoa, izateagatik". *(A. TUNC)*



J. ADAMS (1735-1826). Washington-ekin Lehendakariordea izan ondoren, EE.BB.etako bigarren Lehendakaria izan zen (1797), Jefferson garaitu ondoren. Gobernuarekiko herri-kontrolaz eta politikari gazteez halako mesfidantza bat erakutsi zuen. Bere laurtekoa amaitzean, Jefferson-ek garaitu zuen hauteskundeetan.

askotan Parlamentu britainiarraren moldea jarraitu zen. Virginia-koa izan zen lehen Konstituzioa (1776ko ekaina); oinarrizko eskubideak eta erregimen berriaren zutabeak konbinatzen ziren bertan: alde batetik, askatasuna, jabetza, garantia pertsonalak, detentzioetan juezen eskumena ezagutuz; eta bestetik, botereen banaketa, karguak herri hauteskundeen bidez emanez, etab. Hau da deklaraziorik zabalena eta oihartzunik handiena izan zuena. Gerratean beste Estatu batzuek ere antzeko Konstituzioak onartu zituzten.

Independentzia lortu ondoren, problema Estatu ezberdinak koordinatzea eta erakunde amankomunak eraikitzea zen. Konstituzio-gutunak ezberdinak izatea eragozpen bat zen: exekutiboaren eta jarraipen baten falta, hauteskundeetan arautegi bateratuaren beharra... Egoera honetan Estatuek, Rhode Island-ek ezik, Filadelfian 1787ko maiatzaren 25ean bilduko zen Batzar batera beren ordezkariak bidaltzeko erabakia hartu zuten; konbentzio

EE.BB. (1776-1812): MARINEL-HERRIA

"Lehenengo goraldi amerikarra artean ekonomia batipat nekazaritzakoa zuela gertatu zen. Baina haren arrakasta (nabaria, Kanadako goraldi erlatiboarekin konparatuz gero batez ere) beste zirkunstantzia osagarri batek eragina ere izan zen: hala nola haren marinel-patuak.

Hegoaldetik Iparraldera, urak, komunikazio guztiek, hala itsasoko nola ibaietakoek, txalupek, arrantza eta karga-garraioko belaontziek eta, geroago, apostuetako clippers-ek, denek izan dute garrantzi handia. Itsasoak zeharkatu eta Europaraino, Mediterraneo, Antillak, Hego Amerika, Pazifiko, etab.etaraino iristen dira. Guzti horiek esplikatzen dute zenbaterainoko arriskua suposatu zuten komertzioarentzat eta ontziteria ingelesentzat 'Insurgents'tarren lasterketako belaontziek, 1776 eta 1782ren artean, English Channel/La Manche-raino iritsi zirenek, eta, 1812 eta 1815 bitartean, amerikarrek Ingalaterraren kontra garaitsu burutu zuten gerrak (nahiz eta historia handia, erabat Napoleonekin kezkaturik, beste hauetaz ez den ia arduratu ere egin). (...)

Zalantzarik ez dago, XVIII. mende-bukaeran, Ingalaterra aparte utziz gero, beste edozein naziotakoa baino handiagoa zela Estatu Batuetako flotaren tonaketa, eta beren biztanleriaren proportzioan Estatu Batuak zirela munduko nazio itsaslaririk handiena. Honek munduko ekonomiaren zirkuituan sartzeko aukera ematen die".

(F. BRAUDEL)

honek, Washington-en zuzendaritzapean, Estatuei beren independentzia eta Asanbladei beren eskukizunak mugatzen zizkien Konstituzioa findu zuen.

1787eko Konstituzioak, lehenengo aldiz, konpetentzien banaketan oinarritutako gobernu federala eraiki zuen: gobernu honek kanpo-politikan, defentsan, kanpo- eta Estatuen arteko merkatalgoan subiranotasuna zuen. Estatuek, espreski delegatu ez zituzten arazoetan ezik, bakoitzak bere subiranotasuna gorde zuen justizian, hezkuntzan eta eskubide pertsonalak mantentzean. Amerikarra bere Estatuko hiritarra zen, baina era berean Estatu federaleko hiritarra: bien bizitza politikoan esku hartzen zuen, beraz.

ESTATUAK/FEDERAZIOA

"Arazoa zen, ea zein ziren Estatu bakoitzaren botereak eta zein Federazioarenak.

Estatuek, egia esan, badute beren lekua Estatu bezala ere Federazioko organoen barruan. Kongresuan, ordezkarien Ganbara osatzen dutenak, Estatu bakoitzean, bertako populazioaren arabera, aukeratutako gizonak dira --honek, egia esan, hauteskunde-barruti baten itxura ematen dio Estatu bakoitzari nazio-barruan--; baina, bestalde, Senatuan, bina senatore ditu Estatu bakoitzak, duen biztanleria duela --honek berriz nabariki azpimarkatzen du Estatuen berdintasuna eta ematen du, Aintzinatean eta Ernazimentuan izan ziren liga, ohiki indargabeko, haietako batean sarrerazten dituela Estatuok. Beren burueratan hain kontrakoak ziren bi Ganbara Kongresu batean biltzea, eta hala ere testu bat lege bihurtuko bada bi horiek bat etorri behar dutela aitortzea, horra Konstituzioa onartu ahal izateko lortu behar izan zen 'konpromisu latza'. (...)

Lehendakaria zeharkako sufragioz hautatzen da, eta hautatu ere lehendakari-hautatzaileek egiten dute. Hautatzaileak berriz, Estatu bakoitzean izaten dira hautatuak, ordezkari eta senatoreek osatzen duten kopuru berean: horra konpromisu berria Estatuen berdintasunezko eta nazio-batasunezko burueren artean". (A. TUNC)

Batasun ahula (1783)

"Gerraren bukaera kinka-denbora bat zen Amerikako Estatuentzat. Konfederazioak ematen zuen, berez desegin behar zuela, independentzia eskuratzea beste xederik ez zuela eduki eta. Hamahiru Estatuek interes gutxi dituzte amankomunak eta aitzitik puntu asko dira, haiek bata bestearen kontra jartzen dituztenak: oso desberdinak dira populazioz, jatorriz, tradizioz; desberdinak dira mugetan dituzten zailtasunak, merkatal demaketa eta konkurrentzia. Eskutadatxo bat lagun besterik ez dira, batasunaren interesa ulertzen dutenak, eta ahalegin luze-luzeen ondoren, Filadelfian Konstituzio federal bat botatua izatea lortzen dutenak, 1787-an.

Konstituzio honen berrespena bera ere oso nekez lortzen da. Dena den, Konstituzio hau 1789an sartzen da indarrean".

(A. TUNC)




Th. JEFFERSON (1743-1826), eta Monticello-ko bere etxea. Estatu-Idazkaria (1786-1793), Adams-en Lehendakariordea eta EEBBetako hirugarren Lehendakaria izan zen. Honen Lur-Legeak gidatu zuen geroko lurralde-hedapena. Jefferson,nekazal demokraziaren filosofoa izan zen, eta Estatuen eskumena defendatu zuen, joera zentralisten kontra eta gobernu federalaren boterea mugatuz.

Botereen banaketa, berauek zehazki bereizte batean oinarritua dago Estatu Batuetan: Lehendakaritzan, Kongresuan eta Auzitegi Gorenean banatu ziren.

Botere exekutiboa, lau urtetarako aukeratutako Lehendakari batengan egoten da. Modu berean aukeratutako Lehendakariorde batek laguntzen dio. Idazkari edo ministrari batzuren laguntzarekin gobernatzen du hark. Lehendakariaren botereak zabalak izaten dira, erregimen monarkiko baten itxurakoak: Estatu- eta gobernu-burua, armadako buru ere bada aldi berean, epaileak, ofizialak eta enbaxadariak izendatzen ditu, tratatuak izenpetzen, Senatuaren onespenarekin, eta Parlamentuko legeei betoa jartzeko eskubidea izaten du. Dena den, bazeuden klausula batzuk, haren betoa baliogabe uzteko eta baita traizio eta korrupzio-kasu batean nahasita egonez gero, kargutik kendua izateko ("impeachment").

Legegintza Kongresuari dagokio, eta berau bi Ganbaratan banatzen da: Senatuarena eta Ordez-



EE.BB.en KONSTITUZIOA (1787). Ipar Amerikako Konstituzioa Iraultza Frantsesaren aurrekoa zen, baina hiru botereak ongi bereizi zituen. Ondoko grafikoan ikus daiteke Estatu Batuetan botere politikoari eman zaion egitura. Geroko emendakinekin eguneratuz joan da Konstituzio hura.

kariena. Senatuak Estatuen ordezkaritza izaten du, eta haietako bakoitzari bi ordezkari dagozkio. Bigarren Ganbarako Ordezkarien aukera proportzionalki, populazioaren arabera, egiten da. Sistema hau Estatu handi eta txikien arteko konpromisu batetik irtendakoa da. Senatoreak sei urtetarako eta Ordezkariak lautarako izaten dira aukeratuak. Parlamentuak zergak botatzen eta aurrekontuak finkatzen ditu, eta Lehendakariari legeak proposatzen dizkio, honek izenpe ditzan; tratatuak, berriz, aurretik Senatuaren onespena badute bakarrik onartzen ditu.

Botere judiziala da Konstituzio honen berezgarriena. Auzitegi Goren baten esku dago berau, eta eskubide pertsonalak garantizatu, hiritarren eta Estatu federalaren artean edo Estatu desberdinetako hiritarren artean sortzen diren problemak erabaki eta, batez ere, Konstituzioaren interpretazioa bermatu behar ditu. Botere judizia-

KONSTITUZIOAREN ASKATASUNA ETA MUGAK (1787)

"Inor bai eta Ingalaterra Berriko 'clergyman' bat, Jeremy Belknap, zegoen demokraziazko printzipioez konbentzitua eta hala ere hona zer idazten dion bere lagunetako bati: 'Aurrerantzean ere onartu beharra dago, printzipio bezala, gobernuaren jatorria herrian dagoela, baina praktikan konbentzitu egin behar da herria ez dela gauza bere burua gobernatzeko'.

Horra pentsakera bat definitzen duten hitzak. 'Liberty' eta 'equality'ren izenean ezarritako ordena, kapitalismoaren ordena da dagoeneko, denik eta apalena izan arren oraindik. Aberatsei boterea dagokie, erantzunbeharra. Gainerakoei kontzesio bat egiten zaie, ezen legeak babestuko dituela aberatsen kontra, aberatsak ere haien kontra defendatzen dituen bezala. Beraz, garrantzirik gabekotzat jotzen da Konstituzio amerikarrak bere burua iraultzaile, berri, berdintasunzale eta ekitatibotzat edukitzea, ba bilatzen duena da, elkarrekikotasuna egikarituz, giza animalia, beti izaki berekoi eta uzutzat kontsideratzen denaren grinak orekatzea.

Eta benetan, ondo kalkulatu eta neurtutako mekanismo bat da 1787ko Konstituzioa. Beharrezkoa da 'botereak gorputz ezberdinen artean banaturik eta orekaturik egotea, eta ez dadila inor bere legezko mugetatik pasa, efikazki besteek neutralizaturik egon gabe' (Jefferson). Gizarteari dagokionez, mantendu egiten dira, noski, pribilegioak eta batez ere jabetza-eskubide 'sagaratua'; baina, aldi berean, pribilegioen bidea --diruarena, alegia-- zabalik gelditzen da mundu guztiarentzat. Hau, berriz, nahikoa erraza da izugarrizko lurralde 'berri' honetan". *(F. BRAUDEL)*

la beste biak baino gehiago da, zeren eta Exekutiboaren edo Legegilearen egintzak ere auzitara eraman bait ditzake horrek. Beste bi botereak orekatzeko da botere judiziala.

1787ko Konstituzioa, nahiz eta liberala izan, ezin da demokratikotzat onartu. Espreski Estatu bakoitzaren esku gelditzen zen sufragioaren arazoa, eta batek ere ez zuen onartu sufragio unibertsala. Esklabu-arazoa tartekatu zen berehala. Gizon guztiak sortzetik berdinak zirelakoa ez zitzaion aplikatu arazo horri. Hegoaldeko ordezkariak esklabuen jabe zirela defendatu zuten, eta hori botere publikoak ere horrela bermatu behar zuela. Ordezkarien oinarri demografikoa kontuan hartzeko, bost esklabuk hiru gizon askek hainbat balioko zuela onartu zen. Bestalde indiarrak problematika honetatik baztertuak izan ziren.

Konstituzioa indarrean sartzeko bederatzi Estaturen onespena behar zen, baina hori ez zen posible ikusten Estatu indartsuenen onespenik gabe, noïa ziren: Massachusetts, Pennsylvania, New York eta Virginia. Konstituzioaren onespena poliki joan zen, baina 1788ko uztailerako onetsia zegoen

Konfederaziotik (1781) Konstituzio Federalera (1787)

"Gobernu-modu natural, egoki eta efikaz batean biltzen badira (13 Estatuak), potentzia indartsu, aberats eta gero eta handiago bat osatuko dute, baliakizun eta defentsa-bide handiak dituena. Inongo atzerri-botererik ez da ausartuko hain erraz horiek atakatzera eta iraintzera. Berandu baino lehen izango dira errespetatuak. Eta nola bereziki lehengaiak eta bizigailuak esportatzen dituzten eta batez ere produktu bukatuak inportatzen, Estatu horiekin salerostea izango da Europako eta hego Amerikako kolonietako edozein nazio industrialen (manufakturing nation) xede nagusia. Naturala den bezala, adiskidetasuna eta merkatalgoa bilatuko da horiekin, eta horien adiskidetasunezko harremanak dituen edozein potentziak handitu egingo du bere segurtasuna". *(P. WEBSTER, 1783)*

ESKLABUAK ETA KONSTITUZIOA

"Beste konpromisu bat, oraingoan Iparraldeko eta Hegoaldeko Estatuen artean, esklabuei buruzko hiru xedapenek osatzen zuten. Iparraldekoek galdetzen zuten: 'Zergatik kontsideratu behar dira esklabuak Hegoaldean jabetza bezala, eta aldi berean gizaki bezala, diputatuen aulkiak kalkulatzean?' Iparraldeko eta Hegoaldekoen artean eztabaida gogorra izan ondoren, eta Hegoaldeko Estatuetako ordezkariek erretiratzeko mehatxua egitean amore eman zuen Iparraldeak. Aulkien banaketarako, bost esklabuk hiru gizaki librek adina balioko zuen. Poliki batean 'esklabu' hitza baztertuz, oraindik ere 1808-rarte garantizatu egiten du Konstituzioak esklabuen inportazioa". *(W.P. ADAMS)*

eta New York izan zen nazio berriaren hiriburutzat onartua.

1789ko urtarrilean jarri zen indarrean Konstituzioa, eta urte bereko martxoan George Washington Errepublikako Lehendakari aukeratua izan zen. Garai berri bat hasten zen Estatu Batuetako historian.

Merkatal askatasuna

"Merkatal sistema oso libre baten alde nago ni, eta uste dut, merkatalgoari jartzen zaizkion mugapenak, gehienetan, bidegabekoak, errepresiozkoak eta burumotzak izaten direla. Saiatzeari eta lanari bidea libre uzten bazaie, jeneralean, berek bilatzen dute horiek etekinik handieneko bidea; eta bilatu ere, legegilerik argienak, bere jakinduria guztiarekin, bilatuko lukeen baino seguruago".

(J. MADISON, c. 1790)

B) LATIN AMERIKA INDEPENDENTEA

Berrogeitamar bat urteren buruan, ordea, Mundu Berriak beste pauso handi bat eman zuen bere Historian. Amerikako lurraldeen askapenarekin Hego-Ertameriketan nazio berri talde bat sortu zen; aldi berean, Fernando VII.aren Espainia, nazioartean, potentzia txiki izatera pasatzen da, bere Inperioko kolonia gehienak galdu ondoren.

* 1. Altxamenduaren kausak


Ibero Amerikaren askapen-prozesu hau ikuspegi askotatik izan da interpretatua: Estatu Batuetako independentziarekin hasten diren atlantiar iraultzen gertakari bat da. Ilustrazioaren ideien aplikazioa gertatu zen hau ere.

Geografiak ere definitzen zuen prozesu batean, Espainiaren Amerikarekiko betidaniko politika bestelako bideetatik eraman zitekeen, zeren eta ez bait zen posible, politikaren aldarte berrietan, Ozeano zabalaren gainetik batasun-modua ordurarte bezala mantentzea. Nazioarteko egokiera

Kolonuen kexuak

"Kolonuek eskatzen zutena bidezkoa zen: 1° Eskubide-berdintasuna Amerikako eta Penintsulakoentzat; 2° Libertate osoa nekazaritza eta industriarako; 3° Berebat libertate komertzial osoa Penintsularekin eta Filipinekin; 4° Orobat, monopolioak ezabatzeko eta horien ordez zergak ezartzeko; 5° Meatzak ustiatzeko libertatea; 6° Halaber, enpleguen erdiak amerikarrei emateko; 7° Eta azken xedapen hau betetzeko Juntak izendatzeko".

(G. de REPARAZ, 1933)



MANIFIESTO,

QUE CON INCONTESTABLES HECHOS prueba los grandes beneficios, que ha producido el eſtablecimiento de la Real Compañia Guipuzcoana de Caracas, y califica quan importante es ſu conſervacion al Eſtado, à la Real Hacienda, al bien Publico, y à los verdaderos intereſſes de la miſma Provincia de Caracas.

CARACASeko ERRET KONPAINIA GIPUZKOARRA. Konpainia kolonial honek asko lagundu zuen XVIII.ean Venezuelako garapen ekonomikoa, eta horrekin batera baita Metropolirako probetxu onik atera ere. Salakuntzarik ez zitzaion falta izan; honegatik, salatzaileei erantzunez Manifestu hau ere kaleratu zuen, adibidez.

politikoak, ingelesak lehenengo eta frantsesak gero, eta Espainiako behin eta berrizko gerratek (1808-1839), azkenik, aukera aparta eskaini zieten kreoloei beren asmo politikoak obratzeko. Honelako arrazoiak gogoratu izan dira esplikabide bezala. Dena den, egoki izango da kausa nagusienak hemen ematea.

1810-1824 urteetan luzatzen den independentzi prozesuan benetan bi motatako faktoreak nabari dira: Barnekoak, politiko eta sozio-ekonomikoak, eta kanpokoak, Ilustrazioaren ideologia eta potentzien laguntza.

Kausa **politikoak** aipa ditzakegu lehenik: Inperioak bizi zuen krisia. Mementu honetan Espainiako gobernuak garbi zeukan, Inperioaren barne--batasuna zaintzeko erreforma politiko baten beharra.

Alde honetatik Borbondarren erreformak interesgarriak dira, baina Administrazioaren gehiegizko zentralismo berriak ez zuen luzarora egoera hobetu. Indarrean zegoen administrazioaren konplexutasunak eta ustelkeriak ezinegon urduriak pizten zituzten, gobernu-karguetatik bazterturik geratutako kreoloen artean batipat.

Kausa **sozialek** ere bazuten lekurik. Populazioaren parte on bat, kreoloena, amerikarra sentitzen zen. Amerikara joandako espainiarren ondokoak ziren kreolo haiek, eta gizarte kolonialean protagonismo bat zuen talde honek. Lurjabe handiak ziren eta berauek kontrolatzen zuten merkatalgoa. Talde minoritarioa osatzen zuten, baina botere ekonomikoan oin-hartuta botere politikora iristea zen hauen helburuetako bat. Batez ere, keixu ziren administrazio- eta gobernu-karguetarako funtziona-

riak beti Espainiatik etortzen zitzaizkielako. Kreoloen artean, baztertu-kontzientzia sortzen hasi zen. Izan ere, legeek, arlo batzuetan, "espainiar europarrak" eta "espainiar amerikarrak" bereizi egiten zituzten. Bereizketa horien aurka, kreoloek gizarte amerikarraren berbalorazioa eskatzen zuten. Irtenbide argi baten faltaz, amerikar guztien Independentzi mugimenduaren zuzendari bihurtu ziren, nahiz eta mestizo eta indiarrekin harreman eskasak izan.

Kausa **ekonomikoak** dira barneko beste kausa batzuk. Merkatal erregimen monopolista ezarrita zeukan Espainiak Ameriketan. Monopolio horren arabera, Espainiak bakarrik zeukan hango merkatua manufakturaz hornitzeko eskubidea; baina Espainiaren garapen industriala ezin zen egiteko hori betetzera iritsi. Hori alde batetik, eta bestetik, industri iraultzarekin eta itsas potentzia ingelesarekin, portu irekien erregimena beharrezkoa gertatu zen; baina hau elkartezina zen sistema monopolistarekin. Garai batean Espainiak eraikitako merkatal sistema anakronismo bat zen, eta kontinenteko garapena balaztatzen zuen. Egiturazko beharrizan hauek, ondoko ideia eta asmoetan topatu zuten beren adierazpide teorikoa.

Kanpoko **kausak** batez ere ideologiko eta politikoak izan ziren. Ilustrazioko ideologia: Feijoo, Campomanes, eta Jovellanos-en idatziak, itzulpenik behar ez zutenez, Rousseau edo Voltaire-enak baino askoz gehiago zabaldu ziren kreoloen artean. Kritika- eta askatasun-eritzi intelektualek gutxiengo batzuengan hartu zuten indarra, baina gutxi haiek gidari bilaka zitezkeen. Gizakia aske jaiotzen dela, eta herritarren onespenean oinarritzen ez den gobernua tirania dela baieztatzen duten idazlan-kopuru handia agertu zen

Amerikarentzat Konstituzio espainol berria?

"1°. Hiru Gorte-sail izango dira Amerikan, bata iparraldean eta beste biak hegoaldean. Lehenengoa Espainia Berriko diputatu guztiek osatuko dute, barruko probintziakoak eta Guatemalakoak ere barne. Hego Amerikako bi sailek, berriz, besarkatuko dituzte,batak Granadako erreinu berria eta Lurralde Irmoko probintziak, eta besteak Peru, Buenos Aires eta Txile.

2°. Sail hauek, Konstituzioak Gorte Arruntetarako seinalaturik dauden garaietan bilduko dira, eta denetan Gorteek erabakitakoaren arabera gobernatuko da (...).

3°. Hiru sail hauetako bakoitzean eskuordetza bat izango da, botere exekutiboa erregearen izenean egikarituko duena.

9°. Penintsularen eta Ameriketaren arteko merkatalgoa, erresumaren barruan probintzia batetik besterakoa bezala,barnekotzat joko da".

(Itsasaraindiko Diputatuen proposamena, 1820-1821)

Fernando VII.a: Independentzia amerikarra

"Erregeak, bestalde, ez zuen inoiz jakin ere nahi izan, ez infante espainiarrek herrialde amerikarretan erretaulkietara igo behar zutenik eta ez lurralde haien bizitza independentea izango zenik. Eta leungarririk gabe aitortu zion Infantado-ko konteari, ministrari honek, Frantziak eta Ingalaterrak zirikaturik, koloniekin konponbideren bat negoziatu beharra zegoela edo azaldu zionean: 'kontzientzi kasutzat zeukala hark Ameriketari buruzko bere eskubideei sekula ez uko egitea; Luis XVIII.ak ere iraupenaren iraupenez berreskuratu zuela bere Koroa, bai, eta denborak eta barnean beti kordokalditan ibiltzeak sortzen duen naskak ekarriko ziotela agian aukerarik hari oraindik bere kolonien birkonkista lortzeko'. Fernandok, gainera, Amerikетako arazoa ez zuen nazioarteko gauza bezala ikusten eta bai areago etxebarruko arazo bezala, horregatik esku-sartze bat bezala ikusten zuen arazo hartan atzerriak esku-hartzea".

(F. SOLDEVILA)

Independentzi aurreko urteetan. Rousseau eta Montesquieu-k eta Ipar Amerikako independentziaren oroipenak hain literalki bat izanik, haiek sarritan irakurtzen zituztela pentsatu behar da.

Espainiak eta Portugal-ek filosofoen literaturaren zabalkundea debekatu egin zuten, baina XVIII. mende-bukaeran amerikar askok ideia horien ezagupide ona zuela frogatuta dago. Adibidez, Granada Berriko idazle A. Nariño eta F. Miranda, Venezuela-ko altxamenduaren gidaria, Montesquieu eta Rousseau-ren pentsamenduaren ezagutzaile kezkatuak ziren. Estatu Batuetako Independentzia eta Iraultza Frantsesa ezagututa, antzeko mugimendua bultzatu nahi zuten Latin Amerikan kreoloek, Ilustrazioko ideiek argituta.

Kanpoko kausen artean ez da baztertu behar, azkenik, atzerriko potentzien kooperazio ekonomiko eta armatua; Ingalaterra eta Estatu Batuena berezikiago azpimarratzekoa da.

* 2. Independentziaren etorbideak

Mugimendu iraultzailea gidatuko zuten faktoreak hiri-inguruetan mamitu ziren. Bilgune sozial hauek izan ziren geroago nekazariak independentzi prozesura erakarriko zituztenak eta Estatu berrien egitura antolatuko zutenak.

Deskontentu-zeinu zehatzagoak 1790. urtean soma daitezke, Bogotã-n Nariño-k Giza Eskubideen Deklarazioa itzultzean Ideien ondoan gertakariak: Trafalgar-eko guduak (1805), bere ondorio bezala, itsas komunikabideen etena eta ingelesen itsas kontrola ekarri zituenean, Penintsularen eta kontinente amerikarraren arteko banaketa eginda utzi zuen.

Napoleonen gerrateetako Europak produktu tropikalak behar zituen, eta Ameriketa ez zen, beraz, baztertuta uztekoa. Badirudi, Napoleonek, Espainiako aldaketa dinastikoa onar zezaten, Hispano Amerikara bidali zituela mandatariak; baina, Fernando VII.aren aldeko Junta Leialak agertzean, bere lehen asmoak aldatu egin zituen Napoleon-ek eta Ameriketako espainiarrei merkatal eta industri askatasuna eta monopolioen deuseztapena eskaini zizkien. Independentziaren ideia bera ere eztenkatzeko pauso ona gerta zitekeen, zalantzarik gabe, hori. Hala ere, ez dirudi horrek eragin handirik izan zuenik.


Hori gorabehera, Napoleonen erasoak Espainian ekarri zuen aginte-krisia da kolonien Independentzi Gerraren abiapuntua. Espainian gertatu zenaren antzera, Amerikan ere Fernando VII.-aren defentsarako "Iraultza-Junta Probintzialak" eratu ziren, beranduago erakunde independenteak izango ziren Juntak.

* 3. Iraultzaren aldiak

1809. urtean, gerora errebolta nabariak bilakatuko ziren kreoloen altxamenduak hasten dira. 1810. urtetik 1824eraino luzatzen den gerrate honetan aldi ezberdinak bereizi behar dira:

a) Lehenengo ahaleginak (1810-1816)

Koordinazio gabeko mugimenduak dauzkagu; baina Peru-ra ezik, domeinu kolonial guztietara zabaldu ziren altxamenduok. Sevilla frantsesen esku erortzearekin bat dator haien hasiera: Caracas, Buenos Aires, Bogotá eta Txile-ko Santiago-n kreoloek zuzendutako gobernu independentearen era-



F. MIRANDA (1756-1816). Independentzi gidarien artean aitzindaria izan zen Miranda, ideia eta ekintzetan. Ipar Amerikako Gerratean eta Frantziako Iraultzan parte hartu zuen (Landa-Mariskal izatera iritsi zen). Bestalde, Europan Ibero Amerikaren Askapenerako laguntza-eske ibili zen (baita Errusiako Katalina II.ak agindu ere, 1787). Pitt lehen ministrari ingelesak eta Jefferson-ek lagundu zioten azkenik (1805), eta bitan lur hartu zuen Venezuela-n (1806), baina arrakastarik gabe. Ondoko urteetan Bolivar-ekin bildu ere egin zen, baina ez luzarorako: espainolen aurrean abertzaleak saldu omen zituelako, hauek haien eskuetan utzi eta presondegian egin zituen azken urteak (1812-1816). Miranda-ren esanahi historikoa oso eztabaidatua izan da.

kundeak sortu ziren. Peru-n, ostera, Abascal bizerregea indarraren poderioz mantendu zen bere agintean.

Independentzi gerra, ala gerra zibila ote zen?

"Hainbat eragin ezberdinen artean zatiturik zebiltzan amerikarrak: Hego Amerikako Independentzi gerra ez zen izan amerikarrak espainiarren kontrako gerra bakarrik; aitzitik, gerra zibila ere izan zen. Ez amerikarren artekoa, independentzizale eta menpean jarraituzaleen artekoa bakarrik, eta bai, neurri apalagoan bada ere, Amerikan bizi ziren espainiarren artekoa ere, ba hauetako batzuek beren aberriordearen independentziaren alde jokatu zuten. Horrela izan ez balitz, amerikarrak denak bat, edo behintzat gehiengo handi-handi bat askatasunaren alde agertu izan ez balitz, aisa joko zukeen lurra inondik ere kili-kolo zebilen erresistentzia ofizialak, borrokaren lehen aldian gainera: hau da, Espainiako Independentzi gerratean".

(F. SOLDEVILA)

Independentzigune garrantzitsuenak Mexiko, Caracas eta Buenos Aires gertatu ziren. Mexiko-n, gerra ez zen Metropoliaren eta Kolonien arteko kontrajarria bakarrik, kreolo eta indiarren artekoa ere bilakatu zen. Horregatik, hasieran kreoloak armada erregezaleen alde azaldu ziren. Caracas-en, Francisco de Miranda buru zela, kreoloen sektore intelektual batek zuzendu zuen altxamendua; baina itsasertzeko kakao-sailen jabedunak ez ziren altxatu eta Erregeri leial izan zitzaizkion. Buenos Aires-en, bestalde, gizarte-desberdintasunak ahulagoak ziren, eta kreolismoa Independentziaren alde batuago eta garbikiago jokatu zen.

Lekuko gobernu hauek, nahiz eta independente bezala aritu eta erbestean ordezkari diplomatikoak mantendu, formalki ez zuten beranduagorarte Independentzia aldarrikatu: Mexikon 1813an, Río de la Platan Tucuman-eko Kongresuan, 1816an.

ABERTZALE ERREGEZALEAK

"Hala ere, Fernando VII.ak, altxamendu-prozesuaren hasieran, atxekimendu gutxi edo gehiago sendoa eduki zuen abertzaleen aldetik. (...) Errepara dezagun, Espainiarekiko, hasiera berdintsua izan zutela beste altxamendu batzuk ere, hala nola, Herbehereetakoek, Katalunia edo Napolikoek. 'Espainiako Erregeren menpeko leialak gara', honela hasten zen Holandaren independentziako abesti herrikoiena; eta XVII. mendeko matxinamendu katalana ere, besteak beste, 'Visca la terra et muira lo mal govern' deiadarrarekin zabaldu zen, --Indietako erreboltatu guztiek, baita Tupac Amaru-renak ere, deiadar bera erabili zuten, 1810eko abertzaleek erabiltzen duten 'Biba Errege'ren parekoa--. Hasieran leialtasuna aitortzen zaio Erregeri, eta gorrotoa gobernariei, baina nola gobernariak beti diren eta izango diren Erregeren ordezkari, azkenean erregea bera ukatzen da. Pauso erradikal hau nekezago eta geroago hartu zuen abertzaleen gehiengoak. Separatistak ere bazeuden, Errege Fernando VII.aren edo honen anaietakoren baten manupean Independentzia oihukatzen zutenak". (F. SOLDEVILA)

Alde honetatik, Caracas salbuespen bat izan zen, aldarrikapena aurreratuz (1811).

Caracas-ek, gainera, Independentziaz doktrina landuagoa zuen. Beste lurraldeetan apartapen politiko-fisikoa bakarrik agerian jartzen duten bitartean, Caracas-eko Juntak bere filosofia politikoa eta ideialak ere ematen ditu ezagutzera.

Metropoliak altxamendua zapaltzeko bidali zituen indar militarrak oso urriak ziren, izan ere Penintsulan bertako krisiak eskuak lotzen bait zizkion Gobernuari. Napoleonen erasoaren arriskua gainditu zuen unetik aurrera Espainiaren erantzuna erabakiorragoa izan zen eta, ondorioz, 1816an metropoliaren boterea kolonia gehienetan indarberritu egin zen. Argentina gertatu zen, Tucuman-eko Kongresuaren ondoren, independente iraun zuen bakarra.

b) Bentzutuen garaipena (1816-1824)

Nahiz eta kontraesanezkoa iruditu, orduan hasi zen argitzen Independentzi mugimenduaren behin-betiko iratzarraldia. Fernando VII.aren erregealdiko absolutisten eta liberalen arteko liskar eta elkarren aurkako erasoek Penintsulako politikan oso bigarren mailara pasarazi zuten askapen-mugimendu, amerikarra, eta beronek metropoliarentzat izan zitzakeen ondorio astunen kontzientzia. Larritasunak beste nonbait ikusten zituzten politikariek.

Indarberrikuntza honen sorleku garrantzitsuenak Venezuela eta Argentina ditugu, eta berorietan gidari protagonista bana dauzkagu: Simón

Iguala (1821):
Independentziarako egitaraua

1. "Katoliko, apostolutar eta erromatarra da eta izango da erlijioa, eta ez da tolerantziarik izango beste ezeinentzat";

2. "Espainia Berria independente da Zaharretik";

3. Gobernu-modua monarkia konstituzionala izango da. Errege izango den pertsonari dagokionez, honela deklaratzen du egitarauak:

"Jaun don Fernando VII.a izango da haren Enperadore, eta hautatu hura ezarritako epeetan aurkezten ez baldin bada, haren lekuan izango dira deituak, don Frantzisko Paulako infante Jaun Gorena, Karlos artxidukea (Austriakoa) edo etxe erreinariko beste edozein printze, kongresuak aukeratzen duena".

Azkenik egitarauak ezartzen du (XII. art.) Espainia Berriko biztanleak berdinak direla eskubidez, jatorrizko bereiztasunik gabe.



S. BOLIVAR (1783-1830). Ibero Amerikaren "Askatzailea". Amerikaren batasun politikoa izan zen honen ametsa, eta aldi batean "Kolombia Handia" ere eratu zuen;baina batasun amestua behin-behinekoa gertatu zen (1821-1830).

Bolivar Venezuelan, eta Jorge **San Martin** Argentinan. Ipar-hegoaldeetatik Peruri ekin zioten biek. Espainiako ezegonkortasun politikoak (Konstituzioaren Hirurtekoa: 1820-1823) berriro ere eragin zuzena izan zuen Ameriketan: Bizerregeek ez zuten erreboltatuen erasoei aurre egiteko lain indarrik eskutan.

Simón Bolívar-ek bere ahaleginak Granada Berrian (Kolombia, Venezuela) eman zituen, handik Peru eta Boliviaraino (Sucre) iritsiz. San Martin-ek, berriz, Buenos Aires askatutik iparralderantz egin zuen lehorrez, eta Txiletik itsasoz: horrela erori zen Peru-ko bizerreinua. Beste nolabaitekoa izan zen Espainia Berriko Bizerreinuaren erorikoa: erret armadaren gidaritza hartu eta erreboltatuekin mintzatu ondoren, Iturbide gudal-

GUAYAQUIL (1822): BOLIVAR ala SAN MARTIN?

(Ameriken Askapenean arma-gizon eta politikari handiak topatzen ditugu. Guztien artean handienak San Martin (hegoaldetik gora zihoana) eta Bolivar (Karibetik hegoalderantz egin zuena). Erabateko lehentasuna nork irabazi, zen arazoa:)

"San Martin-ek eta Bolivar-ek Guayaquil-en ikusi zuten elkar, eta biek nahi zuten hiri hartaz jabetu. Amerikako Independentziaren buruzagiak, guztietan handienak, Askatzailea eta Babeslea, aurrez aurre aurkitzen ziren azkenean. Beharrezkoa zen biek elkarrekin lan egitea edo bestela batak bestea ezabatzea. Elkarrekin aritzea zaila zen. Bolivar bortitzago eta handinahiago zen eta bihotzestuago ere bai; ez zukeen onartuko agintea beste lagunaren eskuetan uzterik, ezta San Martin bere ordezkotzat edukitzerik ere. Gehienik ere hiru batailoi eskualdatuko zizkion, beste kontzesiorik egiteko ez zegoen hura prest. Gobernu-moduaren arazoak ere bereizten zituen biok: Bolivar errepublikazalea zen, eta ez zuen monarkientzat Amerikan etorkizunik ikusten; San Martinek, aldiz, uste zuen, erregimen monarkikoa zela Amerikako nazio berriei komeni zitzaien bakarra, eta errepublikak ez zuela han bizibiderik izango. (...)


San Martin, Guayaquil-eko elkarrizketen ondoren, Limara itzuli zenean, Peru-ko Kongresua biltzea erabaki zuen: ahalmenak solemneki utzi zizkion, eta gau hartan bertan igaro zuen muga (1822ko irailaren 22an). Esana zuen berak: bera eta Bolivar ez zirela Perun kabitzen. Eta bera erretiratu zen. Okerrena eta buruzagi prestu eta bihotz-handikoarentzat atsekaberik handiena izan zen, ez Txilen eta ez Argentinan izan zuela gelditzerik. Alde guztietan hartu zuten laidoz eta ikusi-nahiezta. Eta bere alabarekin Europan, Frantzian, bilatu zuen babeslekua".

(F. SOLDEVILA)

buruak berak hartu zuen bere gain Independentziaren ardura. Mexiko eta Ertamerika libre eta burujabe gertatu ziren, beraz.

Azken armada errealista leiala Ayacucho-ko guduan hondatu zen (1824). Handik aurrera akabo metropoliaren inperio-ametsak: Amerikako Independentzi gerratea bukatutzat eman behar zen.

ANDEETAKO ARMADARI MONUMENTUA



Venezuela, Kolombia eta Perun Askapen Gerra galdutzat eman zitekeenean (1816), Río de la Platatik ekin zitzaion berriro garaipenera iritsiko zen bigarren ekinaldiari (1818-1825): José de San Martín izan zen gidari askatzailea.

San Martín-ek (1778-1856) Hegoaldetik Iparraldera gidatu zituen armada askatzailearen pausoak: 5.500 lagun eskas ziren Argentinatik Perura abiatu zirenak.

Andeak pasatu eta Txile-ren Independentzia aldarrikatu zuen, espainolak garaitu ondoren (1818). Txilen, beharrezko ontziteria prestatu eta Perurako irten zen (1820). Arma eta elkarrizketa, biak, erabiliz lortu zuen independentzia.

Bolivar-ekin harreman onak izan zituen, baina erregimen monarkiko baten arazoak banatu zituen elkarrengandik (Guayaquil, 1822). Independentzi ondoko gorabehera politiko kaskarretatik ihes egin nahirik, Europara etorri zen, bere titulu eta kargu ohoragarriak utzita.

ASKATASUNA, AMERIKARENTZAT

(Espainiako Estatu-Kontseiluko lagunen artean, Ciscar Almiranteak proposamen harrigarri hau aurkeztu zuen, 1822an:)

"Neurri hertsatzaileak erabat alferrak izan direlarik, eta elkar-aditzekoak, berriz, mespretxatuak, beste erremediorik ez da gelditzen indarrez edo arrazoiz eragotzi ezin dena onartzea baino; alabaina, jarrera bihotz-zabalago bat hartuko balitz, alegia, itsasoz bestaldeko senideak segurtatzen eta finkatzen lagunduko bagenitu, bi hemisferioetako jendearen artean izan daitezkeen lotura bakarrak federazio-bidez eta zimentatuz..., loriaz beteko litzateke Espainia, segurtatu egingo litzateke kontinente hartan penintsulakoek dituzten interesak eta edukitzak... eta aldendu egingo litzateke itsasoko gerra".

(G. CISCAR, Almirantea, 1822)



AYACUCHOko GUDUA (1824). Ameriketako askapen-gerratean ez ziren handiak izan armadak, eta arma-ekintza gutxi batzutan erabaki zen etorkizuna. Ayacucho-ko hau erabakiorra gertatu zen: Bolivar-en ondoko Sucre-k eta La Serna bizerregeak jo zuten gudu hau. Berau izan zen azkena hamabost urteko gerrate hartan.

BOLIVAR, APEZPIKUARI ERREGUKA

(Eliza, garai kolonialean Erret Zaingoaren menpe zegoen, Erromak ez zuen zuzeneko eskurik Ameriketako Eliza espainiarraren baitan. Lurralde haien Independentzi gerratetik bertatik, Elizarekiko politika zaindu beharra izan zuten gidari politikoek. Bolivar masoiak honela idatzi zion Popayan hiriko apezpikuari:)

"Ez dut uste, Jauntasun Horrek ezaditu egin diezaiekeenik hainbeste ardi atsekabeturen deiari eta Kolombia-ko gobernuaren bozari, zerurako bidean gidarietako bat izateko Berorri eskatzen dionean. Pentsatu egin behar luke Jauntasun Horrek, asko direla kristau fededunak, ume errugabeak, Berorren faltaz Sendotzako sakramentua hartzerik izango ez dutenak; hainbat izango direla Kreatzailearen ministrari-marka gorengarria hartzerik izango ez duten apaizgai gazteak, Jauntasun Horrek bere bokazioa aldareari eta egia santua hotsegiteari sagaratuko ez dielako. Ondo daki Jauntasun Horrek, arimazainak behar dituztela Kolombiako hiri eta herriek, gerrak jainkozko laguntza horiek gabe utzi dituelako, apaiz faltan..."

(S. BOLIVAR)

ERROMA ETA INDEPENDENTZIA

"Erromak, Errestaurazioko izpirituaren eraginpean, iraultza frantsesaren oihartzuna besterik ez zuen ikusten Amerikako mugimendu nazionalistan, hau da, sasi eboluzio bat, historiara igarotakotzat eman zitekeen zerbait alegia.

Hala, Pio VII.ak, ez bait zegoen behar bezala informaturik benetako egoeraz, 1819rarte Amerikari buruz Erromara ailegatzen ziren informazio guztiak Madriletik igarotzen ziren, eta onartu egin zituen isilbidez Espainiako erregeak gotzain abertzaleen kontra hartutako neurriak. Eta areago oraindik: Espainiako erregeak biziro presionatu gabe, gai honetan 'Etsi longissimo' Entziklika argitara zuen 1816ko urtarrilaren 13an, bertan Mundu Berriko gotzainei eskatuz, lagun zezatela bidezko autoritatearen berrezarpena.

Polemika latzak izan ziren Ameriketako errepublikazaleen prentsan Erromaren eta gotzain legitimisten kontra, eta hala --Pouthas-ek ohartematen duenez-- Errestaurazioko Europan Elizaren alde jokatzen zuen printzipio legitimista bera (Erret Zaingoa), garai berean, kaltegarri bihurtu zitzaion Amerikan Eliza berari".

(R. AUBERT)

III. ESTATU INDEPENDENTEAK (1825-1914)

XV. mendearen azkenetan Kolonek Mendebalderako aurkitu eta gero hainbat konkistarik irabazitako Mundu Berriak, bere burujabetasuna irabazi zuen: 1783-1825etan Amerika gehiena Estatu aske berritan eratu zen, hango gizarte eta herriekiko botere-erantzukizunak Independentziarekin eskuz aldatzean. Hau da, ba, Estatu independente berrien historia labur bat eskaintzeko aukera. Beren independentzia lehenengo irabazi zuten Ipar Ameriketako Estatu Batuekin hasiko gara, Latin Amerikarena gerorako utziz.

Estatu Batuak:
Hiri handienak (1760-1775)

Filadelfia	24.000
New York	20.000
Boston	15.000
Charleston	14.000
Newport	9.000

Ez ziren hiri handiegiak: Londres-ek, 1760an, 750.000 zeuzkan, eta Bristol-ek 90.000, adibidez. Filadelfia, koloniarteko merkatalgoaren bihotzean zegoen (errona, sukrea, ardoak, garia, irina, larruak, burdina, zura...).

(W.P. ADAMS)

A) ESTATU BATUAK

1789. urtean Estatu-federazio berri bat jaio zen Ipar Ameriketako Estatu Batuak. Hau, mendebetean zehar munduko potentzia handien mailan jarri zen, eta oraindik mende-erdi bat geroago bi

JARRAITASUN POLITIKOA

"1775etik 1815era erabakimen politikoaren prozesuak gizarteko goi- eta erdimailetako geruza-sektoreen eskutan jarraitu zuen. Honek ezetsi egin zuen botere koloniala, baina, ordena politiko berriarekin, ez zuen jabetzaren banaketa berririk egin nahi eta botere haren itzala indargabetu ere ez. Mende-erdi batean bere barne-homogenotasunean jarraitu zuen Independentzi Aldarrikapenetik hara eratutako gidari-geruza politikoak: iraultzako komandante buruzagia, George Washington, izan zen hautatua lehenengo lehendakari (1789-1797). Kongresu Kontinentaleko frakzio independentzizale gartsuenaren bozordea, John Adams, izan zen bigarren lehendakari (1797-1801); Independentzi Aldakarrikapenaren egilea, Thomas Jefferson, izan zen hirugarrena (1801-1809); eta Konstituzioaren aita, James Madison, izan zen Estatu Batuetako laugarren lehendakaria (1809-1817)".

(W.P. ADAMS)


nagusienetarikoetatik bat izango da. Nola izan da posible, ordea, igoera hau?

Alde batetik, sorrerako Hamahiru Koloniak kontinentean mendebalderantz hedatu ziren, mugak behin eta berriz harago bultzatuz, Pazifikoaren itsasertzeraino; bestalde, nahiz eta Federazio berriak bere batasun-krisialdiak jasan behar izan, aurrera atera zen Batasuna, bere erakundeekin. Horrela mamitu ziren Estatu Batuak.

* 1. Lurralde-zabalkundea

Ipar Amerikaren lurraldezko subiranotasun-hedapena ez zen aurrepentsatutako plan bat izan. Lurralde hedakuntza, prozedura ezberdinez egin zen:

- **Erosketaz**, edo geroago derrigorrezko eroseta batez maskaratutako konkista baten bidez (Luisiana, 1803). Floridaren anexioa kanpaina militar baten bidez egin zen; gero, arazo hori Espainiari bost milioi dolar emanez



ESTATU BATUEN LURRALDE-ERAKETA. Hasierako Hamahiru Estatuetatik, Alaska eta Hawaii Estatu bilakatuz 50 izatera iritsi diren arte, lurralde-hedapen asperkaitza izan da Estatu Batuena. Prozesu hartan epe batzuk ere eman litezke: Lehenengo,Atlantiko-aldeko jatorrizko Estatuak (1776); bigarren, erosi/hartutako kolonia europarrak (Luisiana, Florida); hirugarren, gerra-bidez Mexikori kendutakoak; laugarren, Mendebalde Urruneko lurraldeak; bostgarren, aparteko beste bi Estatuak: Alaska eta Hawaii. Lurraldeok, Federazioaren eskuetara etorri eta handik urteetara bilakatu izan dira nortasun osoko Estatu Federazioaren barnean: hala nola, Alaska 1867an erosi zitzaion Errusiari, baina 1959-rarte ez da Estatu bezala aitortua izan.

zuritu zen. 1867an errusiarrei zazpi milioitan erosi zitzaien Alaska.

- **Armaz.** Adibiderik argiena Texas-ekoa da. Kotoiarentzako lur berrien beharragatik, hegoaldeko landatzaileek desiratzen zuten lurraldea zen, eta populazio anglo-saxoniarraren bidezko kolonizazioa poliki eraman zen. 1835. urtean ez zen onartua izan Batasunean: Iparraldeak mesfidantza zion halako Estatu esklabista handi bati. Hamar urte geroago, Hegoaldeko lehendakari batek, Ozeano Pazifikorako bidean, Texas eta Kalifornia jotzen ditu begiz. Mexiko-ren aurkako gerratearen ondoren (1845), mexikarrak Texas, Kalifornia kontinentala eta Mexiko Berria Estatu Batuei uztera bortxatuta aurkitu zen.

- **Jendeztapenez.** Lurraldeok, gehienak, jendez ia hutsik zeudenak ziren, edo gerora iraitziak izango ziren indiarrek berentzat zeuzkaten. Zurien Batasuneko politikoek lurren desjabekuntzak eta banaketa berriak ezarri zituzten, status politikoa ere aldatuz: Oregón (1859) eta Utah (1896) dira adibide argiak.

Far West-erako, hau da, Mendebalde Urrunerako ibilaldiak metal preziatuen hango aurkikundeek bizkortu zituzten. Batez ere mende-erdialdean Kalifornian idorotako urreak izugarrizko jendetza erakarri zuen (Gold Rush, 1849), eta epe motzean herri meatzariak sortarazi zituen. Beste batzuetan, ezagumendu geografikoen gogoak abentura-grina beretsua piztu zuen askorengan, ipar-mendebalderantz tiratuz.

HIAWATHAren HERIOTZA (XVI. mend.). Indiar irokoitarren heroi historiko honi egotzi izan zaio Irokoitarren Ligaren sorkuntza: Bost Nazioen Elkartea. Zuriek erasotako herri indiarren baitan, honelako heroien oroitzapen historikoek, beste herrietan bezala, erresistentzi betekizuna ere izan zuten XIX. mendean. Paradoxaz bada ere, amerikar zuriek ere honelako iturrietara jo zuten, beren herri-nortasun amerikarraren berezgarri historikoak topatu nahirik, inondik ere. Hiawatha-ri poema bat eskaini zion Longfellow olerkariak, "Song of Hiawatha" (1855), Mugan indiarren kontrako zurien interesak beren betaroan zeudenean, hain zuzen. Irudia: XIX. mendeko grabatua.



Baina faktore tekniko bat datu erabakiorra gertatu zen: lurralde horietan sartzea ez zen hain azkarra izango trenik gabe. Hiru linea transkontinentalek zeharkatuko zuten gaurko Estatu Batuetako lurraldea: Iparraldean, Chicago Ozeano Pazifikoko Astoria portuarekin lotu zuen linea bata ("Northern Pacific"); ertaldean, Chicago Sacramento eta San Francisco-rekin elkartu zuena bestea ("Kansas Pacific"); hegoaldean, Los Angeles-erainoko trenbidea hirugarren ("Southern Pacific" Chicago-tik zetorrena El Paso-n hartuz). Kontinentearen ertaldean Omaha eta Kansas City Chicagotik zetozenen bidagurutzeak ziren. Mendebaldearen esplotaziorako trenaren eragina erabatekoa izan zen, ertaldean lurralde zabalak hutsik bait zeuden trenak jende berriak ekarri zituen arte.

Lurren jabegoa prezio merketan edo doan lor zitekeen; honela, mendebaldeko Estatuetan lurrak urratu eta abeltegietan talde handiak sartzen

EE.BB.: KONTINENTEA OZEANOAREN TRUKE

"Garai berean (1803-1867), Estatu Batuetako ontziteriak lurrinezko itsasontzi ingelesaren konkurrentzia larria nozitzen zuen, jada burdinazkoa zenaren lehia, 'steamer'ena alegia. Nabigazio amerikarraren beheraldi hau guztiz garrantzitsua zen, ba orduan Estatu Batuak kontinentearen barnealdea konkistatzeari emanak bait zeuden eta buru-belarri beren historia kontinentalean murgildurik. Eskuartean daukaten lan gaitzak, hots, beren eremua den hau konkistatzeak, Mendebaldera gero eta gehiago zabaltzeak, trenbideak eta kontinente-zeharreko harremanetarako beharrezko diren kostaldeko eta barneko nabigazio-lineak eraikitzeak, aldendu egiten ditu Ozeanotik. Eta horrekin etapa berri erabakior bat hasten da Estatu Batuen historian.

Estatu Batuetako bizitzan, lege den bezala, arazo batek funtsezkoa izateari uzten dionean, beste bati ekiten zaio: orduan amerikarrak, lehengoa baztertu eta arazo berriari lotzen zaizkio bete-betean. Eta hala, esan daiteke, berak bakarrik, beste inorekin partitu beharrik gabe, hartuko duen lurralde puska handi batetatik trukatu zuela Amerikak Ozeanoa --nahiz eta kontutan izan, guztien arteko partiketaren zati bat besterik ez zitzaiola hemen tokatzen".

(F. BRAUDEL)

zituen bordari-gizarte bat eraiki zen. Paralelo--meridianoak muga nagusitzat hartuta zedarritzen dira Estatuak, Estatu Batuen mapetan ikusten denez, lerro zuzenez marraztuz.

Lurralde-hedakuntza honek ez zuen lagundu herrialde homogeneo bat egiten; Ipar eta Hegoaren arteko aldeak geroz eta handiagoak gertatu ziren. Iparraldean, Ingalaterra Berria industri herri boteretsua bihurtu zen; Hegoaldean, aldiz, ekonomiak kotoiaren landategietan eta esportazioan aurkitu zuen bere funtsa. New Orleans zen New York--eko portuari kontrajartzen zitzaiona. Hegoaldeko Estatuak Senatuko Ordezkari-kopuruaren erdia edukitzen saiatzen dira, beren sistema sozio-ekonomikoa indartzeko, Estatua ez-esklabistari bezainbat esklabistari Batasunean leku eginez.

Estatu Batuen sorreran, Mendebalderanzko abialdia oinarrizko gertaera izan zen: Mendebaldeko lur askeek norgehiagoka suharra piztu zuten, indibidualismoa, zeren eta aitzindariak lur berri horietan egoera ezberdinei bakarka aurre egin behar zien Ekialdetik Far West hartaraino: indibidualismoak eta demokraziak, elkartuta, mamitu zuten izaera amerikarra. Lurralde zaharretako populazio soberakinentzat irteera seguru bat zen "Mendebalde Urruna": Ipar Amerikak berezko super-populazioari han aurkitu zion tamainako aringarria. Europak, adibidez, ez zuen horrelakorik izan bere Industri Iraultzakoan eta handia izan zen, ondorioz kontinentetik kanporako emigrazioa.

Ozeano Pazifikora heltzean, amerikarren muga bultzatu-behar hark esanahi berria hartu zuen bapatean: kontinente "huts" bete-berri hartatik kanpora ere jauzi egin zitekeen; zergatik ez? Horrela, ideia inperialista bat jaio zen.

"Pioneer": aitzindaria


"Gogora dezagun bere lursaila (160 akreko /64 Ha-ko 'hamestead'a) jaso berri duen kolonua. Joan eta egur prefabrikatuz bere etxea egiten du, eta alor ezberdinak elkarrekin piska bat doituz, lehen batean muinoetako lur arinak lantzen ditu eta gero poliki-poliki beheragoko lurrak. (...) Bertan urte batzuk egin ditu, baina ez du han diru-gastu handirik egin beharrik izan, dena aurreztaturik jaso du eta. Bere mantenua kontserba--poteen kontura egin du eta trenbidea hurbiletik pasatzen bazen,ikatza ere izan du etxea berotzeko. Bizpahiru laborealdik diru-mordoska bat biltzeko aukera eman dionean, zalantza-izpirik gabe jakiten du zer egin: erositako lur-saila salgai jarri berriro, bitartean inmigrante berrien etortzeak suposatzen duen plusbalioa probetxatuz, eta Mendebalderago jotzen du, han berriro hasteko. Ekialdera itzuliko balitz garaitutzat edo aitortuko luke bere burua".

(L. GIRARD, F. BRAUDEL)

Amerikar kontinentetik kanporako Estatu Batuen proiekzioa mendearen erdi inguruan hasi zen, Japoniara ate joka hurbiltzean (1853). Geroago, 1898an, Espainiari gerra batekin erasotzen zaio: Kuba, Puerto Rico eta Filipinak eskuratu ahal izan zituen orduan Ipar Amerikak. Badirudi mundutar erantzunkizunen garaia iragartzen zuela ekintza hark. Hedapen politiko hau arazo ekonomikoetako negozio-gizonek bultzatua zen, beren azkartasun industrialak beste kontinenteetara sakatzen bait zituen, merkatuen edo lehengaien horniduraren bila.

Espainiaren aurkako gerratea mementu garrantzizkoa da (1898), izan ere europar nazio zahar baten aurrean nazio berriaren nagusitasun militarra orduan agertu bait zen lehenengoz, kolonialismoaren partiketa berrietan. Kuba-ko arazoan Ipar Amerikaren esku hartzea zuritzeko aipatutako arrazoiak hauetxek izan ziren:

- Lehenengoa, politikoa: Nahiz eta gero arrazoi hau ironiaz ikusia izan, Kuba-ren askatasuna eta horretarako kubatarrei lagundu



LARAMIEko GOTORLEKUA (1837). Siux eta Xeiene indiarren lurretan zegoen gotorleku hau, geroko Wyoming Estatuan. Lehenengo indiarren eta zurien arteko merkatal trukaketetarako azoka izan zen. American Far Company-ren eskuetan egon zen, eta Mendebalderako bidean aitzindari etorkinen pausalekua gertatu ere bai, indiar erreboltatuen kontra, izan ere Siuxtarren "Hodei Gorri" buruzagiak, adibidez, 1865ean Laramie-tik Montanako urre-meatzetarako trenbidearen asmoa moztu egin nahi izan bait zuen.

nahaiaren arrazoi bihotz-zabala azpimarratu izan zen.

- Bigarrena, ekonomikoa: Gerra hura merkatal, finantz eta industri interesek eztenkatutako gerra ekonomiko bat izan zela argi dago.

- Hirugarrena, arrazoi psikologikoa zen: egunkari amerikarretatik espainiarren aurkako ikusiezina eta zaputza zirikatu ziren. Jendarteko eritziek ere su eman zioten, azkenik, gerrari.

Ipar Amerikak gerra irabazi ondoren, Kuba, Puerto Rico eta Filipinak Estatu Batuen eskuetan gelditu ziren. Une hartan hasi zen EE.BB.en kontinenteaz kanpoko hedapena. Nahiz eta ideia honen aurkako jarrerak azaldu, interes ekonomikoak eta nagusitasun-nahiak indar gehiago izan zuten. 1899an, Asian, Txina produktu amerikarrei irekitzea lortu zen, merkatal diskriminazio ororen aurka ekitearen arrazoi edo aitzakiarekin.


Nola esplika daiteke kontinenteaz kanpoko hedapen hau?

- Badirudi finantz indarrak ez zirela gerrari ekitearen oso aldeko, nahiz eta negozioen mundu hartan enpresa industrial guztien jarrera beti horrelakoa ez izan. Izan ere, 1898an, barne-merkatuak berak, kanpo-abenturak alde batera utzita ere, hedapen-ahalbide zabalak eskaintzen zituen. Arazo ekonomikoa baztertu egin beharko litzateke, beraz, gerraren kausante bezala?

- "Frontier"aren edo mugaren teoria Estatu Batuetako historiaren muintzat hartuz gero,

GERLARI INDIARRAK (1869). Argazki ilun honek XIX. mendeko testigantza ez-ohizko bat dakarkigu: Montanan preso eroritako "indiar erroiak" dira. Bakezko harremanik franko izanarren, kolonuak eta indiarrak arruntki gerratan ibili ziren, elkarren kontra. Betidanik indiarrenak ziren lur-sailak eskuratzeko zuriek bi bide zituzten: diruz erosi, edo armaz harrapatu.





LAUTADA ZABALETATIK ERRESERBETARA.Mende baten buruan (1840--1930), Estatu Batuetan garatu zen gizarte zuriak,honela baztertu zituen indiarrak beren ohizko lurralde irekietatik. Kideko fenomeno demo-historikoak ikus daitezke Australia, Kanada, Argentina edo Brasilen, adibidez. Irudian: nabarrez, zurien lurraldeak; beltzez, indiarrenak.

1890ean lurralde kontinentala osorik hartzean, urrutiagorako desira sortuko zitzaion aitzindariari, antza. Inperialismoa izango zitzatekeen muga berria. Esplikabide honetan, nazioartean zabaldutako darwinismo-teoriarekin topo egingo genuke, kasu honetan herri amerikarrari aplikatua: itsaso batetik bestera Kontinente oso bat okupatu duen herriak, epe berri batean, badu munduarekiko betebehar bat bere Protestantismoaren benetako doktrina, demokrazia eta enpresa askearen idealak zabaltzen.

- Kontinentearen okupazioa bukatu ondoren, merkatal bideetan estrategikoki kokatutako itsas baseak beharko lituzke Amerikak. Politikari askok bultzatu zuen ideia hau. Th. Roosevelt-ek (1901-1909) zibilizatutako nazioek atzeratutakoak kontrolatu behar zituztela pentsatzen zuen. Honen garaiko Kolombia eta Karibeko esku hartzeek, adibidez, Panama sortu zuten eta Kanalea amerikarren kontrolpean jarri. Teoriak ekintzarekin osatzen ziren, beraz.

* 2. Gizartea

Gizarte amerikarra aztertzean ikusiko ditugun arlo nagusienak hazkunde demografikoa eta esklabutzaren arazoa izango dira, ekonomiarekikoak gerorako utziz.

a) Hazkunde demografikoa

Estatu Batuetako hazkunde demografikoa sustatu zuten kausak populazio gazte baten jaiotze-tasa handia eta inmigrazio europar baten etorrera izan ziren.


Hona hemen datu zehatz batzuk: 1790. urteko jendetza ez zen 4 milioitara heltzen. 1830. urtean, 13 milioi ziren, ordea; 1870ean, 40 milioitaraino iritsi zen eta 1900.ean 75 milioiak pasatuta zituen. Izugarrizko hazkunde demografikoa da: Europak XIX. mendean 2,5etan biderkatu zuen bere populazioa; Estatu Batuek, berriz, 15etan berena.

1815. urterarte Europan suertatzen diren Napoleonen gerrek bertako hiritarren laguntza behar zuten, eta ez dago ia emigraziorik; baina garai horretatik aurrera, nahiz eta kondizio zailetan izan, itsasozko emigrazio-mugimenduak bizkortzen hasi ziren. Gogoratzekoa da, oraindik 1860. urtean hilabetetik hiru hilabetetaraino luzatzen ziren belaontzizko itsas bidaiak, gaixotasun kutsakorren arriskua zutela. Bidaiari batzuen kontakizunek, joandakoen eskutizketak eta Estatu eta bitartekarien propagandak Mundu Berriarekiko jakin-mina bizkortu egin zuten europarren artean.

Bereziki Ingalaterratik eta Irlandatik batabestearen atzetik migrazio-olatu handiak iritsi ziren nazio berrietara; alemaniarren kopurua irregularragoa izan zen. Garai honetan mundu anglo-saxoniar bat sortu zen Ameriketan. Europako hazkunde demografikoa eta Estatu Batuetako nazio-orubearen eraikuntza aldiberekoak izateak aukera ona eman zion Federazio berriari. Aurreko mendeetan ezin izan zen Hego Ameriketan mundu latindarrik sortu, Europan ez bait zegoen aski jende hara behar adinako indarrean bideratzeko. Orain, ostera, demografia ingelesak eta Industri Iraultzak lagundu zuten Estatu Batuetan, eta, maila apalago batean, beste nazio europarretakoek ere bai. Kontinente zaharrekoen egokiera demografiko-ekonomikoak lagundu zion Amerikaren hazkundeari.



LEWIS eta CLARK (1804-1805). Jefferson-ek bidali zituen Lewis kapitaina eta Clark tenientea Missouri ibaiaren haraindiko lurraldeetan zehar Pazifikoraino bidea egitera. Urtebeteko joan-etorria izan zen (16.000 km), eta hainbat argibide ekarri zuten ondoko aitzindarientzat eta Kanadatik zetozen ingelesei bidea moztekо.



HAZKUNDE DEMOGRAFIKOA (1790--1900). Estatu Batuetako populazioak abiada handian egin zuen gora XIX. mendean. Lurralde-hedapenarekin batera, hazkunde demografiko honek eman zizkion Federazioari bere oinarri seguruenak: horrela, irabazitako lurraldeak jendeztatu egin ahal izan ziren.

Lehen migrazio bolada 1840aren inguruan hasi zen. Britainiar eta irlandarrak dira batez ere harako irten zirenak, eta alemaniar batzuk haien ondoan. Jende pobrea, baina ausarta, zen. EE.BB.etako Ekialdeko itsasertzean kokatu ondoren, lur berriak konkistatzeko asmoz Mendebalderantz abiatu ziren. Nekazal bizitzara eta populazio-gune txikietara erraz moldatu ziren. Ekialdean gelditu zirenak merkatalgora eta arazo ekonomikoetara eman ziren. Hemen geratu edo harantza, Mendebalde Urrunera, joan zirenen gizarte bien nahastearekin aristokraziarik gabeko gizarte burges eta laborari original bat sortuz zihoan Mundu Berrian.

Gerrate Zibilak (The Civil War: 1861--1865) urte batzuetan inmigrazioa moztu egin zuen, eta gerra-galera demografikoak ere ez dira ahantzi behar. Baina, 1865etik aurrera, migrazioaren bigarren bolada hasi zen, goraldiari berriz ekinez. Bigarren aldi honetan, demografi grabitate-gunea Ekialdetik barnealdera lerratu zen: Ohio eta, geroxeago, Texas eta Kalifornia erakar-puntu bihurtu ziren.

1880 urtearen inguruan inmigrazioa areagotu egin zen, eta nahiz eta Estatu Batuen hedapena Pazifikoraino heldu (1890), europarren etorria ez zen moztu. XIX. mendeko azken hogei urteetan, Estatu Batuetako jendetza 25 milioitan emendatu zen.

Herri amerikarraren erakuntzan ezaugarri ezagun batzuk azpimarra daitezke: Gizonezkoen nagusitasuna, beltzen ekarria eta indiarren bazterreratzea, adibidez. Orotara, beltzen portzentaia garrantzizkoa izan zen, eta baita beraien hazkundea ere: 1800ean milioi bat ziren, eta 1900ean

bederatzi milioi. Indiarrak, gerra gogorren bidez, baztertuak izan ziren. Hasiera batean, Estatu bakoitzak bere jarrera zuen indiarren arazoan; 1826. urtean Mississippiren mendebaldera lekuz aldatuak izan ziren, baina kolonu etorri-berriek ostera ere sakatu egiten zituzten haiek. Hegoaldeko apatxe eta komantxeak (Texas eta Arizonakoak) eta ertaldeko navajoak garaituak izan ziren; baina, beren lurrak eta kultura defendatuz, ipar-ekialdeko "sioux"ek (Iowa, Dakota, Nebraska) zuriaren aurka erresistentzia bortitza mantendu zuten, Wounded Knee-ko gudua arte (1890).

Ikus liburu honetako bigarren ikasgaian, EEBBetako lurralde-hedapenari, inmigrazioari eta inperialismoari buruzko beste hainbat argibide. Oro har, ikasgai hark osatzen ditu beste honetan ematen dituguna, bestelako ikuspegi batetik bada ere.

b) Esklabutzaren arazoa

Beltzen problema hau Ipar Amerikako garapena ulertzeko ahantzi ezin den arazoa da. Gerrate Zibilaren arrazoi oinarrizkoena izan zen berau eta Ipar-Hegoaldeen arteko harremanetan gatazka-puntu bihurtu zen.

Esklabutza-sistemaren iraunkortasunaren arrazoia, kotoiaren produkzioa zuten Estatuen egitura ekonomikoan datza. Industria europarraren eskakizun hazkorraren aurrean, kotoi-ekoizpena hamarkadaz hamarkada bikoiztu egiten zen; era honeta, etekina mantentzeko, esklabu beltzen kopurua eta merkatuetako haien balioa gehituz zihoazen. Hortaz, Hegoaldekoak lanesku esklabuaz baliatutako nekazal zibilizazio baten aldekoak ziren. Horren defentsa teorikorako filosofiako argudio guztiak erabiltzen zituzten. Hasteko, ekonomiaren beharrak baieztatuz, hegoaldeko kliman beltzen lana bakarrik zela posible argudiatuz, eta, azken buruan, beltzek askatasun gabezian bakarrik egiten zutela lan, defendatuz.

Arrazonamendu ekonomizista oso argi hauen ondoan, politikakoak konplexuagoak agertu ziren.


EEUU (1775)
Beltzak: Esklabuak

Virginia	270.000
Maryland	80.000
Hego Carolina	80.000
New York (1775)	22.000
Massachusetts	5.000

EEBB (1770) 460.000
Biztanleetatik % 23

Beltzak, batez ere, hegoaldeko Estatuetan bizi ziren, eta gehienak oraindik ere esklabuak ziren. Horregatik, Estatu batzuetan bizilagunetatik portzentaia handia egiten zuten: Virginian, adibidez, erdia baino gehiago. Afrikatik tratuak ekarritakoak edo halakoen ondokoak ziren.

(W.P. ADAMS)



ESKLABU-LURRALDEAK (1820-65). Esklabutza geografikoki mugatu nahi izan zen, behin eta berriz, Gerrate Zibilean erabat debekatu zen arte (1865). Hegoaldeko Estatuek beren sistema esklabistari eusten zioten bitartean, saiatu zen Iparraldea lurralde eskuratu-berrietan esklabutza debekatutzat ematen. Etengabeko eztabaidakizuna izan zen arazo sozio-ekonomiko hau urte haietan.

- Esklabutza debekatua
- Esklabutza onartua
- Erabakia lurraldearen eskuetan utzita

Jadanik 1787. urtean planteiatu zen abolizioaren arazoa; baina, esklabutza jabego-molde bat zela suposatuz, konstituziogileek ez zuten erabakirik hartu. Jabeen interesak eta Konstituzio idatzian hain arranditsu aldarrikatu ziren giza eskubideak harmonizatzeko era, arazoa Estatu bakoitzaren erabakietara uztea izan zen.

Arazoaren gakoa, hartaz kontzientziharrtzearena zela uste zuten Fundatzaileek, eta 1807an esklabuen tratua debekatu bazen ere, ohizko sistema esklabista mantentzen indartsuago agertu zen ekonomia, ideia humanista edo filantropikoak baino.

1830ean, esklabutza abolituta zegoen Iparraldeko Estatuen eta oraindik ere mantentzen zuten Hegoaldeko Estatuen artean arazoaren muga baten konpromisua izenpetu zen; baina, Mendebalderanzko hedapenean, Batasunera erantsiko ziren Estatu berriak, bakoitzak berera (Hego nahiz Iparraldekora) erakartzeko eta nork beraren Estatu-kopurua gehitzeko, esklabutzaren aldekoen eta aurkakoen artean benetako lasterketa bat hasi zen.

Iparraldean, nahiz eta beltzak eskubide politikorik gabe uzten zituzten lege bereztaileak indarrean iraun, kotoi-sailik ezak eta giza eskubideen aldeko agiri programatikoek esklabutzaren aurkako mugimendua sortarazi zuten: batez ere, Hegoaldetik ihes egiten zuen esklabua berriro hara entregatzeko erresistentzia indartuz zihoan. Dena den, 1850eko lege batek ihes egindako esklabua ostera jabeari ematera behartzen zuenez, Kanada-ra iristean bakarrik lortzen zuten haiek askatasuna. EE.BB.en lehenengo laurogei urte independenteetan arazo latza izan zen milioika esklabu haiena.

* 3. Ekonomia

Niveau historilariak, Independentzia ondoko Estatu Batuen industrializaziorako hiru oztopo seinalatu ditu: aintzinako metropoliaren domeinu ekonomikoa, laneskuaren urritasuna eta komunikabideen falta.

Ingalaterra, bere Ingalaterra Berriko koloniei industri garapen mugatu bat ematen saiatu zen Independentzi aurretik ere; baina, batez ere, lurralde hauek lehengaien hornitegi egitea izan zen haren politika. Independentziarekin gainditu zen oztopo hau; hala ere, nazio berria hamarkada batzuetan ez zen gauza izan metropoli ohiko produktuei konpetentziarik egiteko.

Alabaina, beti ere oztopoak gaindituz zihoazen EE.BB.ak. Hazkunde demografikoa azkarra izan zen, eta Iraultza Industriala, Europan baino giza arazo gutxiagorekin egitetik at, hazkunde ekonomikoa bideratzeko adinakoa izan zen. Komunikabideak, bestalde, nolabaiteko azkartasunaz eraiki ziren: Laku Handietatik Pazifikorainoko trenbideak 1860-1900 urteetakoak dira, nahiz eta, adibidez, Kaliforniako Urre-Uholdea 1849-1852etakoa izan.

Beste bi oztopo ere gogora daitezke: tokiko kontsumora zuzendua zegoen artisau-tradizioaren garrantzia, bata, eta irabazien tasa eta soldata-mailen eraginez fabrikapen-kostu handia, bestea. Artisauak lurralde berrietara erakartzeko eta

Europarrak Amerika egiten

"Washington-ek 1791n izenpetu zuen banku nazionalaren eraikuntzako legea, eta Bank of the United States-ak laster zabaldu zituen filialak itsasertzeko hiri handi guztietan. Akzioak izugarri gutiziatuak ziren, eta laster kotizatu ziren beren balio nominalaz gainetik. Europako kapitalisten artean izan zuen popularitatearen seinaletzat eman daiteke, 1793an, 13.000 akzio harpidetu zituztela atzerritarrek eta, 1809an, 18.000. Bankuaren 10 milioiko kapital sozialetik, gutxienez 7,2 milioi Europatik zetozen 1809an".

(W.P. ADAMS)

EUROPARRAK EEBBetan. Handia eta iraunkorra izan zen, dakigunez, europarren ekarria Estatu Batuen eraikuntzan: ezagunena, Europatik joandako emigranteena izan zen; baina, uholde haren parean, kapitalak ere joan ziren hara Europatik. Hauxe da ondoko agiri historiografiko eta estatistikoarekin azpimarra nahi dena.


Merkatalgoa: 1800-1805
Estatu Batuak/Ingalaterra

"Estatu Batuen papera behinenetakoa zen britainiar komertzioan. Askotan urrietsia izan da. Ingalaterratik EEBBtara egiten ziren esportazioak guztiaren % 13 ziren 1902an eta % 21 1805ean: ehunkiak, burdinurtuzko produktuak eta burdina gordina. Alderantziz, gutxi saltzen zuten EE.BB.ek Britainia Haundian (honen inportazio guztien % 6,4 1803-1804etan). Salmenten erdia kotoia zen, eta hurrena eguRRa". *(J. GODECHOT)*

kostuak merkatzeko derrigorrezkoa zen produkzioa gehitzea; teknika-berrikuntzak eta lan-antolamendu berriak helburu horretara zuzendu ziren, beraz.

Beste herrialde batzuk bezala, Estatu Batuek ere teknika ingelesen eragina izan zuten. Baina teknikarena berarena baino garrantzizkoagoa lan-banaketa sistemen aplikazioa izan zen: Oliver Evans-ek (1755-1819) jadanik 1782. urtean jarri zuen (bestalde, lehenagotik beronek asmatua) goi--presiozko lurrin-makina bat. 1800ean, Connecticut-en trukagarriak ziren pieza standard-ez egin ziren armak. Produkzioa erraztu egiten zen, sektore bakoitzean pieza bat egiten bait zen eta, azkenekoan, muntaiaz burutzen. Kateko produkzio-prozesuak izugarrizko hedapen-bidea zabaldu zion Ipar Amerikako industriari. Lan-banaketaren teknika, gobernuak etengabe eskatzen zuen armagintzan aplikatu zen lehena, gero beste sektore batzuetara hedatuz.

Lantegi-hedapena 1820aren inguruan koka daiteke. Fabrikazio-indizeak kontuan harturik,



NEW YORK. XIX. mendearen hasierako irudia. New York-eko portua beti ere garrantzizkoa izan bazen ere, 1825az gero aurrea garbiki hartu zien beste portu lehiakideei.New York, Laku Handietarako giltza bilakatu zen urte hartan (ordurarte baino areago oraindik), Erie kanala irekitzean: portu hartatik irtengo ziren Europara industrialde amerikar emankorrenaren produktuak.

1860. urtean Estatu Batuak munduko bigarrenak ziren. Ehungintza eta burdingintza ziren, elkarren segidan, industri garapenean pisurik handiena zutenak. Ehungintza, Ingalaterra Berrian bildu zen. Munduko industrializazioan, kotoi- eta artile-industrien arteko lehiaketaren testuinguruan, biek ere parekatu egin ziren eta kotoiarenean Estatu Batuetakoa nagusitu zen. Burdingintzak, lehenengo Pennsylvanian eta gero Massachusetts eta New York-en, trenen eta trenbideen eraikuntzan aurkitu zuen bere irtenbide eragingarria. Lehen trena (1830) Ingalaterrakoaren hilabete batzuetara zabaldu zen. 1850-1860 hamarkadan trenbideak hirukoiztu egin ziren, 50.000 kilometrotan lineak eraikiz.


Gerrate Zibila industriarentzako atzera-pauso bat izan zen 1860etako urteetan, baina berreirakuntzak inbertsio handiak ekarri zituen. Gerrate horren ondoren, Hegoaldeko eta Iparraldeko Estatuen arteko ikusiezina eta beltzen integrazio sozialaren arazoak izan ziren buruhausterik larrienak, eta, batez ere ondorio positiboetan gehien interesatzen zaiguna, gerrako ekintzek egindako triskantza ekonomikoei gaina nola hartu zitzaien azpimarkagarria da.

Urte batzuetan, Hegoaldean miseria izan zen nagusi: landatzaileek porrot egin zuten, eta Iparraldeko entrepresariek haienak prezio apalean erosi eta salduz espekulazioan egin zituzten beren negozioak. Hegoaldean, Hegoalde Berriaren ingurua industrializatu zen, baina Ingalaterra Berria baino polikiago. Nolabaiteko atzerapen ekonomikoa, gizarte kontserbadoreagoa, iraganaldiaz nostalgiaz betea eta beltzarekiko bereizkeri sentimendua: hauek izango dira Hegoaldeko Estatuen ezaugarriak.



GEORGIAko KOTOIA. Hegoaldea krisian zegoen, bete-betean. Gerrate Zibilak eta esklabutzaren abolizioak produkzio-sistema osoa aldatu zuten hamarkada eskas batean (1860-1870). Gerrak gastu eskergak ezarri zituen, eta kotoiaren produkzioa goitik behera erori zen: 700.000 zama 1860an, baina 470.000 1870ean. Irudia: Georgian, beltzak kotoi-uzta biltzen (1875).

IRAULTZA INDUSTRIALA
Kronologia erlatiboa



INDUSTRIAREN GARAPENA (XIX. mend.). W.W. Rostow ekonomista amerikarrak honela ikusi zuen prozesua. Ingalaterraren atzetik eta Frantziarekin batera, munduko bigarrenak izan ziren Estatu Batuak iraultza industriala hasten. Heldutasuna, Frantziarekin bateratsu lortu zuen, baina jende-masari dagokion kontsumoan guztiei hartu diete aurrea Estatu Batuek (1959ko datuen arabera).

Gerrate Zibilaren eta Lehen Mundu-Gerratearen tartean (1865-1914) Estatu Batuak munduko lehen potentzia nekazari eta industriala izatera heldu ziren. Goraldi honen faktorerik oinarrizkoena populazioaren hazkunde azkarra izan zen. Hau, inmigrazioaren eraginez, hirukoiztu egin zen urte haietan. Zerikusi handia izan zuten baita makinetan lortutako berrikuntzek eta energi iturri berrien garapenak ere.

Industrilari erraldoien garaia da: Rockefeller, Morgan, Ford, etab. Batasuneko lurralde zabaletan, trenbideei esker, produktuek erraztasun berriak zituzten garraioetan, Kontinentea aldenik alde zeharkatzeko, eta, komeni denetan, Europara iristeko. Laborantza mekanizatu egin zen, makineria asmatu-berriaz baliatuz. Lurralde bakoitzak bere labore berezia aukeratu zuen: garia, artoa edo kotoia. Honekin lotuta dagoen beste arlo bat abelazkuntza zen; honi esker, okela-industria garrantzizkoak eraiki ziren, Chicagon eta Kansas City-n batez ere.

Industri hedapena ikatz- eta petrolio-tokietara bildu zen: Pennsylvania, Apalatxeak, Kalifornia, Texas. Energi iturri ugariak aurkitu ziren toki horietan, eta indar-bila haietara jo zuten lantegiek. Kontzentrazio industriala geografikoki, Ipar-ekialdean kokatu zen, eta geroz eta industri elkargo handiagoak sortu ziren, "trust" direlako monopolioak eratuz.

* 4. Gerra eta politika

1829rarte, Jackson Lehendakari gertatu zen arte, Ipar Amerikako antolamendu politikoaren

oinarriak hauetxek ziren: 1787. urteko Konstituzioa eta gero erantsitako emendakinak; lehenengo Lehendakariak izandako Independentziako gurasoen itzala (Washington, Adams, Jefferson), eta bi talde politiko (errepublikazaleak eta kontserbadoreak), zeinen erabakiak Iparraldeko industri gizonek edo Hegoaldeko landatzaileek kontrolatzen bait zituzten komiteen bidez.

a) Jackson-en garaia (1828-1845)

Lehen mementutik nazio berriari buruz bi kontzepzio kontrajartzen ziren: Estatu bakoitzeko erabakien nagusitasuna defendatzen zuen jarrera, eta, Estatuetako berezitasunen pentzura, erakunde federalei lehentasuna eman nahi ziena.

Jackson jeneralarekin, Lehendakaritza Mendebaldeko gizon baten eskuetara etorri zen. Ordurarteko industrilari eta landatzaileek zuzen-

JACKSONen AROA (1828-1845)

"'Demokrazi aldera'ko mugimendu handi baten ondorioa da 'herritar arruntaren garaipen-aldi hau'. Era askotara agertzen da mugimendu hau.

Lehendabizi, hautesle eta hautagai izateko baldintzak eraberritzen dira. Ordurarte, bizitza politikoan parte hartu ahal izateko onibar-ondasunezko baldintza batzuk bete behar ziren. Gaurgero ez da onibarrezko jabetzarik galdatzen eta batzutan ondasunezko edozein baldintza kentzen da politikan parte hartu ahal izateko.

Bestalde, begitxarrez begiratzen zaie Legislaturei eta organo exekutiboen eraberrikuntzari. Azkeneko hauek bakarrik jotzen dira efektibotzat. Baina demokrazizaletasuna dela eta, erabakitzen da, hauteskunde-bidez aukeratuko direla, bai Gobernadoreak, bai Estatuko organo exekutibo eta administratibo nagusienak, eta baita Epaileak berak ere. Berebat, ahaleginak egiten dira "nazioa hobetzen": bideak eta kanalak egiten, eskolak, ospitaleak eta altxatzen.

Azkenik partiduak berak eraberritzen dira. Hemendik aurrera, hautagaiak aukeratzea eta programak onestea ere ez da gidari-talde txiki baten eskutan utziko, aitzitik partiduaren bizitzan parte hartzen dutenen multzoak egingo du 'Konbentzioetan' bilduz. Jackson bera, Jefferson-en joerari jarraituz, botere federalak zabaltzearen kontrakoa da: 'Gobernurik onena, gutxien gobernatzen duena da'". *(A. TUNC)*






ESTATU BATUAK/MEXIKO. Bien arteko gerra lehertzean (1846--1848),karikaturista ipar amerikar batek honela ikusi zuen Mexikoko arranoa: gerraurretik, gerraostean.

dutako gobernu-egitarauetan, kolonu eta mugatarren ideiak tartekatzen hasi ziren egokiera politiko berri hartan. Erreforma-giro honetan sortu zen Alderdi Demokrata (1828): jabeetara mugatutako botu-eskubidea gaindituz, gizonezkoen sufragio unibertsala jarri zen, eta Ekialdeko interesak defendatzen zituen Banku Nazionalaren monopolioa deusezteko Banketxe hori kendu eta tokian tokikoak sustatu ziren. Kulturaren alorrean, eskola eta egunkariei eman zitzaien laguntzaz hiritarren parte hartzea bultzatu nahi izan zen.

Funtsezko berrikuntza guztiongatik,"Jackson-en garaia" garrantzizkotzat jotzen da Ipar Amerikako eredu politikoaren eraikuntzan.



A. LINCOLN (1809-1865). Mugako familia analfabeto batean jaio zen. Dendari eta postari zela, ikasketak egin eta abogatu bihurtu zen (1836). Aurreko mapan aipatzen den "Kansas-Nebraska Act" (1854) eztabaidatzean sona handia irabazi zuen, esklabutzari bortizki erasoz, orduan eta jendaurreko beste eztabaida politikoetan. Honegatik hegoaldetarrek ez zuten onartu nahi izan Lincoln, Lehendakari hautatua izan zenean (1860). Gizon ondratu eta garbia, batez ere Federazioaren batasuna salbatu nahi izan zuen. Esklabuen askatasuna aldarrikatu eta gerra irabazi ondoren, hegoaldetar batek garbitu zuen Lincoln.

b) Gerrate Zibila (1861-1865)

Historilari batzuek, Ipar-Hegoaldeetako estatuarteko interes kontrajarriak ikusita, nahitaezko bezala ikusten dute gerrate hau. Arazorik larriena beltzen esklabutza zen, baina eritzi zabalago batekin ulertu behar da gatazka hura: bi ekonomi mota, bi bizi-modu eta Estatu federalarekiko bi kontzepzio kontrajartzen ziren, azken buruan.

Iparraldeak, protekzionismoa defendatuz, merkatu nazionalaren monopolioa zuen. Hegoaldeko landatzaileek luxuzko handiki-bizitza zeramaten, baina Iparraldeak ezarritako tarifa babesgarriengatik garestia zen luxu hura. Protekzionismoa eta

libreganbismoa Ipar-Hegoaldeen artekoen gatazken bi azalpen interesatuak eta kontrajarriak ziren, ba.

Maila juridikoan ez zen arazoa batere xinpleagoa: Estatu Batuek, Estatu bakoitzaren gainetik, Federazioaren interesak defendatu behar zituzten. Zatiezina ote zen Estatu federala, ala Estatu bakoitzak bere subiranotasuna gordetzen zuen; halakorik nahi izanez gero, Federazioarekikoa eteteko ere? 1860ko Lehendakaritzarako hauteskundeetan gori-gori agertu zen eztabaidakizuna. Beste batzuren artean, Breckinridge (1821-1875) esklabista eta Abraham Lincoln (1809-1865) errepublikarra, abolizionista, aurkeztu ziren lehiaketan.

Lincoln-en garaipenarekin, Hegoaldeko hamaika Estatu Batasunetik at irten ziren, eta Konfederazioa eraiki zuten, hiriburutzat Richmond eta Lehendakari bezala Jefferson Davis izendatuz: Hego Carolina eta Ipar Carolina, Georgia, Florida, Mississippi, Alabama, Luisiana, Texas, Tennesse, Arkansas eta Eki Virginia. Horiek horrela, Lincoln Lehendakariak bere lehen betebehar bezala Batasunaren osotasunari eustea aldarrikatu zuen.

Gerrate Zibilak berrikuntza militarrak ekarri zituen: arma berriak, armadaren garraiotarako trena (Iparraldeak honetan abantaila zuen). Gerrak guztizkoa izan nahi zuen, eta etsaia erabat birrindu. Horretarako beharrezkoa izan zen populazioaren mobilizapena. Baina bi aldeek diferentzia nabariak zituzten biztanletan: Iparraldeko hemeretzi Estatuek, 19 milioi biztanle zuten, Hegoaldekoetan 11 milioi bizi ziren. Bestalde, lau Estatu esklabista (Missouri, Kentucky, Delaware, eta Ma-



W.T.SHERMAN (1820-1891). Grant buruzagi jeneralarekin batera, hau izan zen Gerrate Zibilean Iparraldekoen arma-gizon abilena. Georgiako kanpaina egin ondoren, 500 km-ko ibilaldia egin zuen 60.000 gizonekin itsasoraino ("March to the Sea"), bide batez arpilaketa gupidagabeak obratuz. 1869-84 urteetan EEBBetako armadaren buruzagia izan zen.



R.E. LEE (1807-1870). Gerrate Zibilaren aurretik, J. Brown antiesklabistaren aurka borrokatu zen, eta, Hegoaldea Batasunetik apartatu zenean, konfederatuen zerbitzura pasa zen, Lincoln-en eskaintzak albo batera utziz. Appomattox-en Grant ipartarrari men egin zionean amaitutzat eman zen Gerrate Zibila (1865-IV-9).

ryland) Batasunaren alde gelditu ziren, Iparraldeari abantaila estrategiko berriak gehituz, nahiz eta Estatu horietako jende asko Hegoaldekoen ondoan borrokatu.

Iparraldeko potentzia demografikoaren nagusitasuna nabaria bazen, oraindik handiagoa gertatzen zen industriarena, baliabideen ugaritasunagatik eta munduko itsasalderik aberatsenetakoa zuelako: Ingalaterra Berria. Itsasoan ere Batasunekoak ziren, hortaz, nagusi, Hegoaldeko merkatalgoa moztu eta itotzeko.

Gerrateak lau urte iraun zuen. Bi alderdiak gerrarako prestatu gabe zeuden; Hegoaldeak, beraz, bazuen janari eta industri landare eta oinarrizko gaietan gertutu beharrik franko. Bestalde, beltzak gerratearen arazotatik at mantendu ziren; Hegoaldearen hondamendia ekar zezakeen altxamendurik ez zen lehertu. Honela ulertzen dira gatazkaren iraupena, suntsiketen zabala eta elkarren arteko gorroto eta gaitzondoa.


Ekintza militarrak burutu ziren toki garrantzitsuenak bi eskualde dira: bata, Ekialdean, Ipar-Hegoaldeen arteko ukipen-puntuaren inguruan, Apalatxeetatik itsasorako haran eta oihanetan (hurbil daude bi hiriburuak: Washington eta Richmond). Arriskutsua zen Washington-eko egoera, motz zitezkeen trenbide ugari bait zituen. Saiatu zen Konfederazioa horretan.

Beste gerra-gunea Apalatxeen mendebaldean edo Ohio ibairarteko eskualdean zegoen gutxi gorabehera. Horren ibaiadarrak diren Tennessee eta Cumberland, Hegoalderantz abiatzeko sarbide erosoak ziren.

Alde bietan gerra, modu azkar batean erabakitzea pentsatzen zen, baina ahalegin hauek porrot egin zuten. 1863an Gettysburg-en jo zen ekintzarik gogorrena, eta Hegoaldeko armada garaitua izan zen. 1864eko negua hil ala bizikoa suertatu zen hegoaldetarrentzat. Hauek unearen larriari aurre egin nahirik, beltzei askatasuna eskainiz armak eskuetan jartzeraino ailegatu ziren. Kontraesanez betetako paradoxa zen halako eskaintza. 1865eko martxoan Richmond, Konfederazioko hiriburua, iparraldetarren pean erori zen. Appomattox-eko auzoan, Grant jeneralak Iparraldetik eta Lee-k Hegoaldetik, armistizioa izenpetu zuten, Konfederazioko Estatuak Washington-eko Gobernuaren esanetara bihurtuz eta esklabutzaren abolizioa onartuz.


Sinadura hauek gorabehera, Hegoaldeko Estatuen Batasunarekiko atxekimendu politikoa eta hango beltzen integrazio soziala problema latzak eta gogorrak izan ziren ondorengo urteetan ere, eta gure egunetaraino luzatu da gatazka.

ONTZI KORAZATUAK. Gerrate Zibilean itsas eta ibai-ekintza armatuek leku azpimarragarria izan zuten.Horretarako,ontziak burdinaz korazatu ziren eta dorre biraketariz hornitu, artileriaz eta babestuta erasotzeko.



ALASKA (1867). Estatu Batuek eskuratu zuten Ipar Amerikako azken lurralde handia da: "Seward's icebox" deitu zitzaion Alaskari, Inperio Errusiarrari 7.200.000tan Seward Estatu-idazkariak erosi ziolako, eta horrelako izoztegia, gainera (1867).

Lehendik zetorren Alaskaren historia europarra: 1725-41-etan iritsi ziren hara errusiarrak; Kaliforniako kostaldetik iparraldera zetozen espainolen hango bilaketak eta itsasoz nahiz Kanadatik iristen ziren ingelesen interesak mugatzeko itunak sinatu behar izan ziren, kolonizazioa bakez egin nahi zela eta (1789, 1790, 1825), eta azkenik Errusia geratu zen erabat Alaskaren jabe, lurraldea EE.BB.ei saldu zien arte. 1959az gero Estatu Federala da.



* 5. Kultura

Askapen politikoaren ondoren, eta XIX. mende hasieran, Estatu Batuetan gustu estetikoak oraindik probintziarra izaten jarraitu zuen. Nazioak sozio-kulturalki nekazal giroa bizi zuen. Hango arte, literatura eta ohituren adierazpideak ohizkoak ziren. Poliki-poliki, nazionalismoa, lurraldeen hedapena, inmigrazioa eta asmakuntzak bizitza eta kultura eraldatuz joan ziren.

Industrializazioarekin batera hasi ziren kultur sorkuntza independente baterako ahaleginak, eta, honela, Literatura izango da lehenengo nazionalizatzen dena, ipar amerikanismoa lehen azaltzen duena. XVIII. mende bukaeratik eta Gerrate Zibila arte luzatu zen literatur aldi hura: indibidualtasuna, baikortasuna, naturarekiko amodioa... izan zituen ezaugarri jakingarrienak. Washington Irving (1783-1859), Edgar Allan Poe (1809-1849) eta Walt Whitman (1819-1892), beste batzuren artean, Lite-

ratura erromantikoan puntareneko izen bezala gogoratu ohi dira.

Gerratearen ondoren, Literaturan, batez ere nobelan, aldaketa handia jasan zen. Industrializazioa agertzean eta "mugatarrak" desagertzean, Erromantizismo haren estiloa aldatu egin zen. Arazo handiak hasi ziren nazioa dominatzen, eta egoera berria ispilatu zen nobelan ere. W.D. Howells-ekin (1837-1920) nobela errealistak hartu zuen indarra Estatu Batuetan. Honek nobelagilearen eginbeharra errealitatea aztertu eta erakustea dela uste du. Howells-ek sartu zuen Errealismoa, nahiz eta korronte honetako ordezkaririk nagusiena Henry James (1843-1916) izan.

Irakaskuntzak izan zituen garaiko lorpen sozial handienetarikoak. Nahiz eta familia aberats askok, bere seme-alabak bidaltzen ez zituen eskola mantentzeko zergarik ordaindu nahi ez izan, Irakaskuntza publikoa eta doakoa hedatu egin zen. 1826aren inguruan argitara zen lehen aldizkari pedagogikoa ("The American Journal of Education"), eta 1839an eraiki maisuak gertatzeko lehen eskola (Lexington). Goimailako irakaskuntzan dohaintzen bidez edo elizen laguntzaz ikastetxe konfesionalak eraiki ziren. Era berean, Unibertsitate publiko eta laikoak fundatzeko ahaleginak ere lehiatsuak



LITERATURA NAZIONALA eta SOZIALA. Mendean zehar, saiatu ziren idazleak nortasun amerikarraren berezgarriak deskribatzen eta beren idatz-moldeetan ispilatzen. W. **Irving** (1783-1859) izan zen Europan aintzakotzat hartu zen lehenengo idazle ipar amerikarra (goiko irudian, bere idazle lagunekin: 1863ko koadroa). Hain zuzen, nazio berriari literatur bikaintasun bat ematea ere izan zen idazleon xedea.




H. BEECHER-STOWE (1810-1896). Independentzia burutu eta berehalako eskarmentu sozio-politikoan oraindik protagonista izan gabe, gizarte berriaren alde on eta eskasagoak bizi izan ahal izan zituen bigarren idazle-belaunaldia ere gogoratu behar da hemen, beroni suertatu bait zitzaion gizarte lehiatsu hartako gatazka eta arazo larrienak bere literatur lanean ispilatzea. Literatura sozial hori lantzen saiatu zen bat Beecher-Stowe izan zen: Honena da "Osaba Tom-en etxola" ("Uncle Tom's cabin", 1851-1852etan idatzia), esklabu-mundua erakusteko sortutako nobela.

izan ziren. Mendebaldeko lehen Unibertsitate estatala Detroit-ekoa izan zen (1817), 1837an berrantolatua.

Arkitekturan, estilo europarrak kopiatzen ibili ondoren, originaltasun batera iritsi ziren. Herrialdeko beharrei aplikatutako formula arkitektonikoak sortu zituzten, funtzionaltasuna zainduz. Eraikin zeru-arraskariak Ameriketako Arkitekturaren obra originalak izan dira.

1825erarte Pinturan koloni garaiko estiloak iraun zuen. Ondoren, naturaltasun bat irabazi zuen eta zerbait tipiko bihurtu. Gerrate Zibilaren ondoren, pinturan tokiko "genero-pintura" eskola baliozko bat sortu zen. Etxe-barnekoak xehetasunez beteriko errealismoz lantzen zituen korronte berriak. XIX. mendeko bigarren erdialdean, pinturan, arkitekturan bezala, imitazio-prozesu bat ezagutu zen, bere etorria Degas eta Renoir-engandik jasoz. Imitazio honen aurka erreakzionatuz, eskola errealista bat ere jaio zen. Zortzien Erakusketa (1908) eta "Armory" Erakusketa (1913), Ipar Amerikako pinturaren originaltasuna frogatu eta oinarritzeko arte-une garrantzitsuenak dira.

Eskulturan, Europatik dastatu zen XIX. mendean, eta XX. mende hasieran ere bai. "Armory Show"ren barnean, Paul Manship-ek eman zion hasiera Estatu Batuetako eskultura serio bati.



WASHINGTONeko KAPITOLIOA. Federazioaren garapen demografiko, ekonomiko eta politikoarekin batera hainbat eraiki-behar agertu zen, eta arkitekturak egokiera hartan aparteko aukerak izan zituen. Hiriburu berria sortzea (Washington), adibidez, ez zen txarrena izan: hirigintz lan osoa egin behar izan zen, lehenik, eta banan banan eraikinak ere jaso. W. Thornton eta Th. H. Walter-ena da Kapitolio klasiko hau (1850-1860).

B) IBERO AMERIKA: ERREPUBLIKA INDEPENDENTEAK

Independentziak arazo eta egiteko berriak ekarri zizkien garai bateko kolonia ibero amerikarrei: Estatua edo Estatuak eratu behar ziren, gizarte arrazainitz bat moldatu behar zen, ekonomi antolamendua egokitu beharra zegoen, kontinenteari proiektu nazional bat edo zenbait eman behar zitzaion... Eginkizunak erraldoiak eta gaitzak ziren egoera berrian. Deskolonizazioak zein ondorio eta eskakizun izan zitzakeen zen galdera, beraz.




KOLOMBIA HANDIA (1821-1830). Simon Bolivar-en amets ederra Amerikaren Batasuna izan zen, edo mugatukiago nahi bada, Kolombia Handi hauxe. Baina, azken buruan, berau ere hiru zatitan banatu zen: Ekuador, Kolombia, Venezuela.

* 1. Ezaugarri nagusiak

Aldakuntz prozesuan karakteristika behinen hauek azpimarra daitezke: a) Kontinentearen zatikapen politikoa, b) Ahultasun demografikoa eta inmigrazioa, c) Militarismoa eta kaudilismoa, d) Estruktura sozialen iraupena. Hauek izan ziren munduan halako neurritan gertatutako lehenen deskolonizazioaren ezaugarri behinenak.

a) Zatikapen politikoa

Bolivar-ek Iparraldeko Estatu Batuen itxurako Federazio handi bat pentsatu zuen Hego Amerikarako, baina bere Kolombia Handiko saiakera politikoaren porrota ikusteko aukera izan zuen jada bere bizitzan, batasun-asmo hartatik hiru Estatu (Venezuela, Kolombia eta Ekuador) sortzean. Mexikon eta Perun ere Estatu federalak eraikitzeko biltzarrak egin ziren; baina, honelako asmo guztien kontra, zatikapena izan zen kolonia ohien patua. Oihan-geografiak, iraganezineko mendikateek eta ibai-arro handiek bortxatu zuten zatikapen hori.



ERTAMERIKA SAKABANATUA (1823--1839). Iparraldeko Río Grande-tik Kolombiara arteko lurraldeek bi unetan galdu zuten beren batasun-politikoa: 1823an, Ertamerika osoa Mexikotik Estatu bakar batean apartatu zenean, lehenengo urtebetea honekin elkartuta egin ondoren. Irudia: "Provincias Unidas del Centro de América" deituriko Estatu haren armarria. 1838an eman zen, berriz, galdutzat Ertamerikaren batasun hau: prest geratu zen, bere ahuldadean, kanpokoek esku sar zezaten.

Batasunak komunikazio errazak eskatzen baditu, han horixe zen falta zena. Andeetako mendikateak, adibidez, Txile Ozeano Pazifikoaren itsasertzeko Estatu baztertu bat bihurtzen du, kontinente-barnetik apartatuz, Amazoniak (oihan eta ibai) Venezuela Antilletako nazio bihurtu zuen bezalatsu. Estatu berrietako mugak ezbaikorrak dira. Bestalde, jendetzak, barruko tarte handi eta hutsuneetatik ihes egin eta itsas bazterretan lekutzera jo zuen.

Garraio-sare baten eraikuntza baldintza geografikoek eta zatikapen politikoek oztopatu zuten. Ibai-arro atlantiarretik Ozeano Pazifikorako pasabidea oso zaila gertatu zen, eta Andeak trabeskatzeko mando zamaria derrigorrezkoa agertu zen, aurreko mendeetan bezala.

Ipar Amerikako Estatu Batuekin kontrastea nabaria da. Han, lautadak ertaldean zeuden; mendiak, ekialde- eta mendebalde-bazterretan: itsasertzetik barnerako sarrera ibai-haranetatik errazki egin zitekeen. Hego Amerikan izadiak iraganezinezko oztopoak eraiki zituen; zatikapen politikoak are zailagoak egin zituen oztopo horien aurkako ekintzak. Koloniak zituen batasun-moldeak haustean eta komunikabide-sare egoki baten eskasiak oraindik ere gizagaineko kontinente bezala mantendu zuten Hego Amerika.


b) Ahultasun demografikoa: Inmigrazioa

XIX. mende hasieratik Latin Amerika munduko jaiotze-tasa handienetarikoa izan duen lurraldea da, baina, hala eta guztiz ere, bertako jendetzaren dentsitatea ahula izan da. Kolonia espainiar guztietako jendetza Humboldt-ek 16 milioi biztanletan (7,5 milioi indiar, 5 milioi mes-

tizo, 3 milioi zuri, 780.000 beltz) eta Brasil-ekoa 4 milioitan kalkulatzen zuen orotara, XIX. mendearen hasieran.

Errepublika independenteen gurari bat etorkin europarrak erakartzea izan zen. XIX. mendearen lehenaldian Brasil izan zen inmigrante gehien erakarri zuen nazioa; hauen artean, laborantzarako lanesku bezala eraman ziren beltzak hartu behar dira gogotan. Uruguay-k, bere dimentsio txikiagatik ere, bultzada demografiko handia jasan zuen frantsesen etorrerarekin: 1843ko zentsuaren arabera, Montevideon bizi ziren 100 uruguaytarren ondoan 168 ziren atzerritarrak. Buenos Aires-en, mendearen erdialdean hasi zen inmigrazio handia. 1853ko Konstituzio argentinarrak bere artikuluetan zera zioen fenomeno demografiko hari buruz: "Gobernu federalak inmigrazio europarra sustatu egingo du..."

XIX. mendeko 1880etako hamarkadan inmigrazio europarra eta, batez ere, espainiarra, Argentinan azkartu egin zen, eta beste herrialde batzuek (Txile edo Kuba) jende berriak hartzeko gertatu ziren. Europan, hilkortasun-tasa jaustean gertatzen den hazkunde demografikoak eta garraioetako iraulketak kontinente berrirako emigrazioa lagundu egin zuten. Hauekin batera hirietako bizimoldeak eta hirugarren sektoreko zerbitzu-lanak gehitu egin ziren Hego Amerikan, bizitza eta kultur estiloak jite europar batez jantziz.



INMIGRAZIOAREN PREMIA. Ibero Amerikako Estatu berri batzuek lurralde-hedapen zabalak egiteko aukera zuten. Halanola: Argentina, Brasil, Uruguay eta abarretan. Baina nekez irabaz zitezkeen lurralde haiek bizilagun berririk gabe: Europa superpopulatuak bidali zituen halakoak. XIX. mendeko aldizkari batek erakusten digun bidaia honen antzeko asko joan zen Ameriketara.



FRANCIA Doktorea. (1766-1840). 1814etik 1840ra berau izan zen Paraguay-ren jaun eta jabe. Gobernari misteriotsu honek erabat itxi zuen Estatua kanpoko harremanetatik, nortasun nazionala finkatzearren. Historilarien artean ezezik, literaturan ere erakarmenik izan du pertsonalitate bitxi honek: ikusi besterik ez dago paraguaytar idazle sonatu Roa Bastos-en "El Supremo" nobela. Independentziako lehenengo hamarkadetan, Hispano Amerikaren patua zera izan zen: hola moduzko diktadurak ala anarkia sakabanatu bat jasan. Bi mutur hauen arteko demokrazia liberal bat ezin lortu izan zen gehienetan.

c) Militarismoa eta kaudilismoa

Hispano Amerikako herriei ezarri izan zaien botere militarraren zama eta hango indar armatuen barne-jokabidea, Ipar eta Hego Kontinenteen arteko berezitasunik nabarienetakoa da.

Armadaren protagonismo hau, Independentzia lortzeko borroka luzearen ondorio bezala ikusi izan da. Gerratean logiko eta derrigorrezkotzat onartzen den militarizazioak, Estatu berriak finkatu ondoren ere iraun egin du. Aginpideak administrazio zibil eraginkor bat ezin antolatu duen bitartean, Errepublika jaio-berriek ezin dituzte ofizial-taldeak beren gainetik kendu. Gainera, aberatsen eskumakila ziren nekazal miliziek (Independentzi gerratekoan ekintza batzuetan eginbehar bat izan zutenak) gerora ere bizirik iraun zuten.

Horretaz aparte, bada militarismoa sostengatzen duen beste arrazoirik: Hispano Amerikan juridikoki naziotasun estatala lortu zuten herrialdeetan nabaria izan da beti egitura estatalen ahulezia; honelako egoerak ere militarismoari aukera egokiak eskaini dizkio politikara pasatzeko. 1810-1824 urteetan independente bihurtu zirenak komunitate makalak ziren eta ez nazio batzuk. Independentziak aginte- eta gidaritza-hutsune bat sortu zuen, eta bizitza politikoan aldi larri bati eman zion hasiera.

Estatu berriak espainiarren administrazio-barrutietan oinarrituta antolatu ziren: Garai bateko Kapitainiek, Audientziek eta muga naturalek zedarriztatu zituzten haien esparru geografikoak.

Indar politiko boteretsuenak lehendik nagusi zirenak gertatu ziren, eta leialtasun pertso-

nalean finkatuak zeuden, sarrienik: latifundio-jabeak, hirietako handiki-familiak, buruzagiei jarraitzen zieten komunitateak, etab. Ondorioz,jauntxokeria eta kazikismoa izan ziren lege. Joera banatzaile hauen aurrean, kaudilismoak Estatu berriaren indartze-zerbitzua eta disziplina nazionala eratzeko zentralizazio-funtzioa bete zuen.

Kaudiloa, beste jauntxo batzuk menperatzen dituen jauntxo indartsuago bat izan zitekeen. Nazio batzuetan, botere bakar eta absolutuarekin gobernatzen duten figura hauek agertzen zaizkigu, adibidez: Argentinan Rosas-ek, bere lehiakideak baztertuta, diktadura ezarri zuen (1830-1852); orobat Porfirio Díaz-ek, Mexikon (1876-1911). Askotan, Kaudiloek, Europan monarkiek bezalatsu, lur-bateratze prozesua osatu zuten. Brasil-en monarkiak nazionalismoaren batasuna osatu zuen, aldi berean kaudilismotik itzuriz.

d) Gizarte-egituren iraupena

Independentziondoko gizartea, bere egitura giza-ekonomikoetan eta bere konposaketa etnikoan, ez zen funtsean gizarte kolonialetik bestelakoa. Industrializazio handirik izan ez zen nekazal eta artisau-herrietan ohizko betidaniko egitura soziala mantendu zen. XIX. mendearen bukaeran eta XX. mende hasieran, jabe handien nagusitasuna orokorra zen Hego Amerika guztian. Eta lurjabe haien nagusitasuna politikoek indartu egin zuten, gainera, haietxen probetxutan eraikitako erregimenak bait ziren, hain zuzen, aipatu diktadurak.

Etnikoki ere koloni garaiko "status"a mantendu zen. Mexiko, Guatemala eta Andeetan, indiar- eta mestizo-taldeek baztertuak segitu zu-



J.M. ROSAS (1793-1877). Politikari argentinar hau Hispano Amerikako diktadoreen artean sartu ohi da (1830-1852). Argentinako Probintzia bakoitza bere gisako politika erabat beregaina egiten ari zen unean hartu zuen Buenos Aires-eko gobernaritza.

Politika sozial bikoitza egin zuen: klase dirudunari negozioetarako ordena babesgarria eskaini zion, panpatarrari eta langileriari ere bereak defendatzen zizkion aldi berean (politika Fiskala aldatu zuen arte).

Probintziekin "Itun Federala" sinatu zuen (1831), Argentinari batasun malgu bat ematearren. Baina politika, gogorkeria gordin batean oinarritu zen: agiri ofizial guztiek ikur hau eraman ohi zuten: "Federación o muerte.Mueran los unitarios". "La Mazorca" deitu jarraitzaileen lagunarteak 20.000 bat etsai politiko garbitu omen zituen 1840--1843 urteetan.

Izan zituen argiune eta itzal ilun guzti hauengatik, gaur egun ere eztabaidakizun da Rosas-en politika historilarien artean. Urkizak iraitzi zuen agintetik, altxamendu baten ondoren.

LATIN AMERIKAKO HERRI XEHEA. Iraultzan eta ondoko gobernuan gidari izandako kreoloen eginkizun sozio-politiko astun bat herritar xumeari politikan eta erakundeetan parte hartzen laguntzea eta horretarako bideak nolabait irekitzea izan zitekeen. Alde batetik, kreolo eta mestizo pobreak ziren agintedun berriengandik hurbilenak; bestetik, urrunago eta pobreago oraindik, indiarrak eta beltzak. Oro har, gobernu liberalek nahiz autokratikoek ez zuten herritar pobreenen (gehienak nonnahi ere) zerbitzutan itxurazko iraultza sozio-ekonomiko bat egin XIX. mendeko Ibero Amerikan. Agian, Mexiko-n XX. mendean egin nahi izan zen iraulketa har liteke ahaleginik saiatuena bezala. Siqueiros-en irudian, Emiliano Zapata (indiar analfabeto bat) laborarien errebolta gidatzen (1911), P. Díaz diktadorearen kontra.



ten. Inoiz, legeetara ere iritsi zen bazterketa hori.

Funtsezkoagoa izan zen esklabutzari buruzko aldakuntza. 1810ean Caracas-eko Batzar Gorenak esklabu-tratuaren eta haien merkatalgoaren geraldia aldarrikatu zuen. Espainiaren aurkako gerratean, Txilen eta Río de la Platan esklabutza debekatuz adierazpenak egin ziren, baina abolizio-legeok ez ziren bete gero. Argentina, Rosas-en garaian oraindik (1830-1852), beltzen salerosketarako merkatu garrantzizkoa izango da. Bitartean, Mexiko, Uruguay, Venezuela, Kolombia, Ekuador, Bolivia eta Txile-ko Gobernuek Ingalaterrarekin konpromisuak izenpetu zituzten, esklabuen merkataritzan ari zirenei jazartzeko. Esklabutzarena bukatzeko beste sistema bat, Independentzi gerrateen garaian zabaldutakoa izan zen: emakume esklabuaren haurra asketzat ematen zen ("sabel-askatasuna" deitu ohi zitzaion esklabu-kumearen eskubide horri).

Azkeneko lurralde esklabistak Brasil eta Antilla espainiarrak izan ziren. Brasil-en, 1888an Urrezko Legea edo "Ley Aurea" delakoaren bidez eta 1873-1880etan irla espainiarretan, amaitu zen legezko egoera esklabista hura.

IRAGARKIA (1822). Puerto Rico-ko "Diario Liberal de Variedades" aldizkarian azaldu zen iragarki bitxi hau (1822-uztaila-2). Ezer gutxik erakus dezake hobeki eta hain llabur garaiko egoera soziala.

AVISO: ESCLAVO PRÓFUGO

Se huyó de Aguadilla una negra achocolatada, de nación francesa, que sabe hablar español, lleva consigo un zambito de nueve meses; de edad como de 30 años, cuerpo pequeño, una marca en uno de los hombros. Al que la entregue a su ama, que vive en los bajos de Don Gabriel Espumarejo, en dicho puerto se ofrece una buena gratificación.

"MARTIN FIERRO" (1872) eta "La vuelta de Martin Fierro" poemek (J. Hernández) gautxo panpatarraren gorabehera eta aldarte on eta txarrak kantatzen dituzte. Argentinak, lurralde berriak irabazteko, sortu behar izan zuen gizarte-modu mugatar baten poemak dira. Argentinan ere, etorkin zuriek indiarren aurka borrokatuz eskuratu zituzten lurrak (Rosas-ek, adibidez, gerra doilorra egin zien haiei).

XVI. mendeaz geroztik, Europako abelgorriak ugaldu egin ziren beren gisara, eta basa eta libre zebiltzan Panpako lautadetan. Lanbide, bizimodu, janzkera eta aparteko hiritartasun bereziak zituen Panpa hartako gautxoak, hau da, zaldizko langile pobre eta ibiltariak.

Estatu berriak, ostera, ondasun haiek (lurrak eta ganaduak) razionalkiago ustiatu nahi izan zituenean (sailak itxi eta ukantzak hesituz) hasi zen galtzen gautxoaren gizarte hura. Gautxo-literaturak gorde eta goraipatu zuen haren oroitzapena, gautxoari eta beronen inguruko gatazka sozialei argentinarren oroimen historiko-literarioan toki bat emanez.

1850. inguruan, ekonomia tradizional batean oinarritutako gizarte geldikor honek, eraldakuntza ekonomiko biziak jasan zituen, garraio-iraultzaren eta Kaliforniako urre-meatz berrien eraginez. Lehen arrazoiak Atlantikoko itsasertzeko herrialdeak ukitu zituen; bigarrenak, Ozeano Pazifiko-aldekoak, hemengo portuetan gizartea eta ekonomia biziberrituz: europarragotu egin ziren, alde batetik; baina, gizarte dinamikoago bat sortaraztean, errazagoa gertatu zen gizarte berri honetan bertakotar indiarrekiko alde sozial larriak samurragotzea.




* 2. Hegoaldeko Errepublika zuriak

Kontinentearen hegoaldean, Argentina,Uruguay eta Txilek beren izaera nazionala marrazten zuten ezaugarri berdintsuak zituzten. Río de la Plata-ko ekialdeko inguruak, geroko Uruguay-k alegia, Argentinako probintzia bat ez izateko borrokatu beharra izan zuen. Izan ere, nazio bien arteko berdintasunik ez bait zen falta:

- Abelazkuntzara emandako Errepublikak ziren biak, Argentina bezala Uruguay ere.

- Ibai-arro eta itsasbazter emankorrak zituzten biek, balio ekonomiko handikoak gainera (Argentinako ipar-ekialdea. Uruguay-ko hego-mendebaldea). Hiritar jendetzaren garrantzi erlatiboki handia zen beste ezaugarri amankomun bat.



TXILEko BIZTANLEAK. XVI. mendetik 1953raino honela joan da, ugalduz, Txileko populazioa. Gorakada pikoena batez ere 1850eko hamarkadatik aurrerakoa izan zen.

- Hau dena, azkenik, inmigrazio europarrak borobildu zuen, gizarte zuri bat politikoki eratu-berria jendez hornituz.

Txilen, Argentinan bezala, populazioa itsasertzeko zirrinda estu batean pilatu zen. Espazio huts zabalak zituen, jabe handien eskuetan. Aberastasunak ustiatzeko, batez ere kapital ingelesez baliatzen zen Txile.

* 3. Andeetako Estatuak

Esan bezala, Bolivar-en asmo federal orokor hark porrot egin zuen: geografiak zatikapen politikoa lagundu zuen azken buruan. Lurralde guzti honetan populazio indiarra ugaria zen, Bolivian batipat, orobat Ekuador eta Perun.

Bolivia, Txileren aurkako gerraren ondoren (1879-1883) itsasorako bidea galdu zuenean, Estatu isolatu eta erori bat bilakatu zen.

Ekuador-eko Independentzi gidaria Juan José Flores jeneral venezuelarra izan zen. Kontserbadoreek Flores-ekin, eta liberalek Rocafuerte-rekin, mendearen erdi-ingururarte beren artean banatu zuten agintea. Mende bukaeran agertu ziren lehendakari progresistak.

Kolombiak (oraindik Panamako istmoa barne) egoera geopolitiko erosoa zuen, Independentzi biharamunean. Jauzika egin zen hango politika: kontserbadorismotik radikaltasunera, klerikalismotik antiklerikalismora, federalismotik diktadura zentralistara. Barne-diferentzia larriko gizartea zen kolombiarra, eta, azkenik, orekarik gabea; baina hango gizarte kreoloa kulturtzalea eta esko-



GARRAIO-SISTEMAK. Ameriketako lurralde mugagabeetan garraio--arazoa beti izan da gaitza. XIX. mendean, aurreko mendeetako ohizko garraio-moduak indarrean zeuden, noski. Irudia (XVI. mendekoa): Lama zamariak, Andeetan.

latua gertatu zen: Bogota-ri "Ameriketako Atena" deitu izan zaio.

Venezuelan, Maracaibo eta Caracas-en arteko lehia-borrokek Estatu federal batean aurkitu zuten irtenbidea. Urre, petrolio eta produktu tropikaletan lurralde oso aberatsa da, baina barne--tentsioek eta gizarte-desberdintasunek ez dute ondasunok ongi ustiatzeko modurik eman.

* 4. Mexiko

Jatorri espainiarreko aristokrazia kreoloaren eta bertako indiar eta mestizoen arteko kontrajarrera iraunkorra izan du Mexiko-k. Kreoloak, estruktura kolonialak luzatuko zituen erregimen monarkiko baten aldekoak ziren: hauek gidatutako iraultzan, indiarrak eta mestizoak peoi hutsak izan ziren.

Batasun-ez beretsua lurraldeetan ere ikus daiteke Mexikon: Texas (1836) Mexiko Berria eta Kalifornia Garaia (1848) azkenik Estatu Batuek



EEBB/MEXIKO. Bi Estatuen artean arazo geopolitikoa ezezik, soziala ere XIX. mendetik bizia izan da. "Bracero" deituek muga pasatu eta iparraldean bilatu izan dute lana, isilpeko eta legezkanpokoa gehienetan. Irudia: karikatura mexikarra, diskriminazioa salatuz.

berenganatuko zituzten, armaz baliatuz. Ezbehar horren ondoan, Sonora eta iparraldeko Chihuahua eta hegoaldeko Yucatan (Mexiko hiriburuko arduretatik hain urrun guztiak) elkarrengandik hain urrun... ez zen samurra gertatu denak Estatu bat beraren barnean elkartuta zaintzea.

Iturbidek (Agustin I.a deitu zen: 1821--1823) elizgizon eta jabeen artean bilatu zuen laguntza. Ondoko hamarkadetan Santa Anna (1833--1855) diktadoreak gidatu zuen Mexiko, barneko altxamenduen eta kanpoko erasoen (Frantziak 1838-an, EE.BB.ek 1836-1848etan) artean. Gerrate zibil baten ondoren, Juárez-ek (1858-1872) hartu zuen agintea, eta erreforma sozio-ekonomiko liberalak ezarri. Kanpo-zorra esekitzea erabaki zuenean, europarren eraso politiko armatuari erantzun behar izan zion Mexikok, han erregimen monarkiko arrotz bat (maximilian I.a) ezarri nahi izan bait zuten Frantziak, Espainiak eta Britainia Haundiak (1863--1867).



Mexikoren modernizazioa Porfirio Díaz--ekin (1876-1911) eraman zen aurrera. Garapen ekonomikoa meategietan, trenbide-eraikuntzan eta industrializazioan oinarritu zen. Hala eta guztiz ere, Mexikok nekazal herrialde bat izaten jarraitu zuen. Porfirio-ren erregimenak sustatutako nekazal politika oso kontserbadorea izan zen, eta hor daude 1910ean hasi zen Iraultzaren sorburuak.


PORFIRIO DIAZ (1830-1915). Porfirio Díaz-en Lehendakari-aldia luzea izan zen oso: 1872-1911. Ezarri zuen diktaduraren truke garapen ekonomikoa eskaini zuen erregimenak: kapital ipar amerikarrak erakartzen ahalegindu zen, Mexiko EEBBen erdi-kolonia bihurtzeraino. Horri esker edo, Díaz-en garaian milaka trenbide-kilometro ireki ziren: 600 km-tatik (1876) 25.000 km-tara pasatu ziren trenbideak (1910). Kapital industrialak, berriz, Europatik heldu ziren. Bienbitartean, burgesia mexikarrak latifundioetan eta diru publikoetan aurkitu zuen bere aberaspidea. Burgesiaren erregimena izan zen "porfirato"a. Erregimen herritarrago bat sortu nahi izan zuen Díaz-en kontra altxatu zen Iraultza Mexikarrak.

* 5. Brasil


Brasil-en Independentzia, hango iraultza guztiak bezala, ez zen bortxakeriaz eta odolez aurrera eraman, konponbide eta akordio politikoz baizik. Prozesuaren hasiera, 1808an, don Joanes erregea Río de Janeiro-n lehorreratu zenean koka daiteke, eta bukaera, haren semeak Brasil-en gelditzen zela erabaki zuenean (1822).

Portugal-etik neurri geroz eta gogorragoak ezarri nahi ziren, eta Brasil-en berotuz zihoan giroa. Lisboan zeuden Brasil-eko diputatuek, beren eritziak kontuan hartzen ez zitzaizkielako, postuak uztea erabaki zuten. Joanes erregea Portugal-era itzultzean, haren lehen seme Don Pedro erretordeak, 1822. urteko urtarrilean, behin-betiko bertan gelditzen zela deliberatu zuen: aro berria hasi zen Brasil-en. Metropoliaren probetxurako asmaturiko politika bat ezarri nahi izan zitzaion koloniari, hain zuzen honek bere nortasun eta interesei buruzko kontzientziarik biziena zuen unean, baina alferrik.

Probintzietako ordezkarien kontseilu batek, Río de Janeiron bildurik, Don Pedro-ri Asan-



KOLONIZATZAILEEN ORGA (Brasil). Kolonizatzaile aitzindarien orga haueḳ erabili ziren Brasilen. EEBBetakoen oso antzekoak ziren, ikus daitekeenez. Familia, etxe-tresnak,armak, norberaren zaldiak, sozio edo morroiak...: denak elkarrekin joan ohi ziren lur berrien bila, ehundaka edo milaka kilometrotan. "Brazil, portrait of half a continent" liburuko marrazkia (Percy Lan)



GARIMPEIROak. Honela deitu zitzaien Brasilen, Mendebaldera isilka diamante bila zihoazenei. Kalifornian edo Australian bezala, Brasilen ere bizi izan zen metal preziatuen beroaldia.

blada Konstituziogile eta Legegilera dei egiteko eskatu zion. Herronka bat zen Lisboako Gorteentzat: Garbiki autogobernua eskatzen zutenei zer erantzun? Portugaleko Gorteek metropoliaren subiranotasuna birretsi baizik ez zuten egin.

Jokabide horren aurrean, Don Pedro-k, Ipiranga ibai-bazterrean, Brasil-en independentzia aldarrikatu zuen (Ipiranga-ko Oihua, Irailaren 7an). Horrela bihurtu zen Brasil bere buruaren jabe oso.


Hurrengo urtean, 1823an, herriari Konstituzio liberal bat emango zioten probintzietako ordezkariak Asanbladan bildu ziren. Ordezkarien artean, ideologia kontserbadoreko erregezaleak ziren gehienak. Hala ere, Asanblada eta Enperadorearen arteko tirabirak lehenengo unetik hasi ziren, eta enperadoreak asanblada disolbatu egin zuen. Estatu-Kontseilu batek beste Konstituzio-proiektu bat burutu zuen eta, herri-kontsulta baten ondoren onartua izanik (1824), indarrean jarri oinarrizko Lege berria. Garairako nahikoa demokratikoa zen berau.

Brasil-eko Inperioa (Erregeak Enperadore titulua hartu zuen) heredagarri bezala antolatu zen. Botere exekutiboa, Enperadorearen esku zegoen; legegintzarako bi Ganbara onartu ziren (senatore eta diputatuena). Diputatuek lau urtetarako eta zuzenki aukeratuak izanbehar zuten, eta senatoreek bizitza guztirako. Hauetatik, hirutatik bat Enperadoreak aukeratuko zuen. Enperadoreak Legegintz Asanbladako deialdia egin eta biltzar hori disolbatzeko eskubidea zuen, baina haren legeei ezingo zien betorik jarri. Eskubide pertsonalak segurtatuak eta pribilegioak abolituak gelditu ziren.

Bi ezaugarri azpimarra daitezke Brasil-eko lehen Konstituzioan: zentralismoa eta laugarren botere bat onartzea. Ohizko hiru botereei (exekutiboa, legegilea eta judiziala) laugarren bat erantsi zitzaion: botere moderatzailea edo Enperadorearena.

Zentralismoarekin, udal eta probintzietako autonomia murriztuta gelditu zen: gatazka-iturri izan zitekeen arazoa, hain zuzen zentralisten eta federalisten arteko gatazka. 1834ean emandako Gehigarrizko Akta batek bideratu zuen eztabaida erdi-federalismo batean, 1889. urteraino.

1831n Don Pedro I.ak bere semearengan abdikatu zuen. Erabaki horren arrazoiak honelatsu laburbil litezke: exekutiboaren gehiegizko botere, askatasun falta, nobleziaren pribilegioak, portugaldarrekiko begikotasuna, Haziendaren egoera larria, politika absolutista, etab. 1831-1840 urteak militarren eta esperientzia berrien garaia izan zen, nahikoa iluna, gainera. 1840. urtean onartu zen Pedro II.a Enperadoretzat. Hainbeste nahaste eta anormaltasunen ondoren herriak pozik onartu zuen brasildar batek zuzendutako monarkia. Orduan hartu zitzaion gaina Koroaren inguruan sortutako gerra-egoerari.



PETROPOLIko ENPERADORE-JAUREGIA. Enperadorearen izena hartu zuen Brasilen Inperioko hiriburuak. Estatuari erakunde politiko iraunkorrak ematea izan zen bi Enperadoreen egiteko baliozkoena (1822-1889). Ahalegin horretan ez zen gerra zibilik falta'izan. Paraguay-ren aurkako gerratean (1865-1870) sortutako armadak eta esklabutzari eman behar izan zitzaion irtenbideak (krisi ekonomiko eta guzti) egotzi zuten,azkenik,Monarkia (1889). Baina ordurako bere funtsezko erakundeetan, muga estataletan eta kontzientzia nazionalean definituta zegoen Brasil.

Brasildarrak (1800-1976)

1819tik 1852ra 1.300.000 esklabu ekarri ziren Afrikatik. 1850etik aurrera hasi zen inmigrazio zuriaren uholdea. Eta kanpotiko kausa hauekin batera brasildarren ugalkortasunak bultzatu zuen populazioaren gorakada. 1850-1950etako hamarkadetan ere etorkinek hainbat lagundu zuten biztanleriaren goraldia:

1800	3.900.000
1830	5.300.000
1870	9.797.000
1890	14.199.000
1920	27.404.000
1940	41.236.000
1950	51.944.000
1960	70.967.000
1976	109.000.000

1889an, hala ere, Enperadoregoa kendu zuen iraultza lehertu zen, aurretik, Enperadoreak beltzen esklabutza abolitu zuelako, jende boteretsuen laguntza galdu egin bait zuen. Ideia errepublikazaleak ere geroz eta indartsuago sartuz joan ziren, eta "hirugarren erregegotasun" baten aurka jarri zen herria. Elizarekin eta militarrekin ere problemak zeuden. Faktore guzti hauek, elkartuta, Brasil-etik Braganza-tarrak desagertzea ekarri zuten eta Errepublika eraikitzea.

XIX. mendeko ekonomia eta gizarte brasildarrek, 1761.ean Rio-n sartutako kafearen ekonomian dituzte oinarriak, honek ekonomia eta gizartea, biak, aldatu bait zituen. "Fazendeiros" deituen klase bat sortu zen urte haietan. 1888. urte-ingururarte laneskua batez ere Afrikatik ekarritako beltzek osatzen zuten. "Fazendeiros" direlako horien inguruan bildu ziren, Rio-n, merkatari, abogatu, mediku eta negozio-gizonak. 1870-etik aurrera, Río de Janeiro-ko kafea jaistean hasi zen krisia: lurren agortzearekin, esklabuen eskasiagatik eta Europako salmentek behera egin zutelako. Esklabutza kentzeak ("Urrezko Legea", 1888) ondorio latzak izan zituen Brasil-eko kafe-produkzio esklabistan. Hala ere, Errepublika-garaian, kafearen bigarren ziklo bat izan zen Sao Paulo-ko lur aberatsagoetan, horretarako inmigrazio-laneskuaz baliatuz.

Brasil-eko XIX. mendeko historiaren ezaugarritara mugatuz, bitara laburbil dezagun bera: a) Politikan herrialdeari egonkortasuna eman zion Monarki erakundeak, eta b) Sozio-ekonomiaren aldetik, kafe-produkzioa izan zen gizarte-estrukturan, aberastasunean eta erregimen-aldaketetan eraginik handiena izan zuena.

IV. KOLONIAK ETA INDEPENDENTZIA BERRIAK

Ameriketako bigarren kolonizazioak une eta erritmo ezberdinak izan zituen kontinente bikoitz hartako eskualdeetan. Batzuetan, Ibero Amerikan batipat, lehenago hasi zen eta sozialki molde batera egin zen kolonizazio hura, baina mundu anglo-saxoniarrean, beranduago ezezik, beste ikusmolde sozial batekin burutu zen prozesua. Ikusita daude jadanik Hego Amerikakoa (ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa", 179-232 orr., eta hemen berton arestian esandakoetan) eta Estatu Batuetakoa. Baina kolonizazio haiek deskolonizazioa eskatuko zuten beren garaian. Hauetatik ere ikusi ditugu bi nagusienak (EE.BB., Ibero Amerika); geroagoko beste bi garrantzizkoenak ekarriko ditugu orain hona: Kanada eta Kuba/Puerto Rico.

A) KANADA

Kanadako historiak eta garapenak badute Estatu Batuetakoarekin antzik franko. Bestalde, alderdi aski ere suma daiteke; hauetxek dira berezienak:

* 1. Kronologia

Hasiera azkar baten ondoren, nabaria da nola atzeratu zen Kanada-ren bilakaera, auzoko EE.BB. boteretsuekin alderatuz, bederen. Mendebalderanzko kolonizazioak ez ditu lehen urratsak ematen 1870eko ingururarte, garai berean Estatu Ba-

Kanadiarrak (1851-1877)

Berrogei urtero bikoiztu egin izan da Kanadako biztanleria, baina gorakada horiek ez dira gertatu igoaldi eraberdin batean; itxuraz, goraldiak inmigrazio-hamarkada indartsuagotan kokatzen dira: 1901-1911, 1951-1961. Hala ere, oro har, 1851tik 1951rako biztanle-gehikuntza osoan etorkinek % 6 edo 7 bakarrik egiten zuten. Mende guzti horretan jaiotze--tasa batek lagundu izan du hazkunde demografikoa.

Urtea	Bizilagunak
1851	2.581.297
1871	3.850.557
1891	5.046.239
1911	7.464.843
1931	10.660.286
1951	14.009.429
1961	18.238.247
1971	21.568.000
1977	23.280.000

tuak muga-bultzaka oso aurreratuta zihoazen bitartean. Atzerapen kronologiko hau, gaur egunean ere, geroztik lortutako ondorio desberdinetan sumatzen da: Lurraldez Estatu Batuetakoa baino hedatuago izanik ere, biztanlez Kanada ez da haien hamarrena ere. Zergati historikoek argitzen dute biztanle-urritasun hau; parte batean behintzat Mendebaldeko lurraldeetako erregimen juridikoak eta Hudson Badiako Konpainiaren monopolioak (1869. urterarte) baldintzatu zuten prozesua.

Baina erantzunkizun garrantzitsuena faktore geografikoetan dago: pausoz pauso neurriz zabalduz doan kontinentean iparralderantz Ozeano batetik besterako distantziak handituz doaz eta ibil-orduak ere luzatu egiten dira. Kanadiar ezkutuak haiz-horma itxurako bat tartekatzen zuen mende bat baino luzaroago ezin elkarturik egon diren bi lurraldeetan: 1) Ekialdean San Laurenti bailara eta Laku Handien inguruak. Hemen kokatu zen luzaro nekazal kolonizazioa, gizarte geldikorra eta antolatua. 2) Mendebaldean lautada handien lurraldea: larruen erresuma eta herri nomaden eskualdea zen. Trenbideak eraikitzeak gainditu zuen oztopo hau.

Zergati guzti hauei klimaren gogortasuna erantsi behar zaie: neguak luzeak ziren, elurteak orobat. Klima ez zen laboreentzat batere samurra.

Kanadako bizilagunen banakuntza

Kanadak 9.975.000 km^2 ditu, eta hamar "Probintzia" eta bi "Lurralde"tan banatzen da Kanadako eremu osoa; baina barruti horiek oso ezberdinak dira azaleraz eta bizilagunez. Ikus bakoitzaren km^2-ak:

Probintziak	km^2
Ternua	404.517
Edwar Printzea I. .	5.657
Eskozia Berria	55.490
Brunswick Berria ..	73.437
Québec	1.540.680
Ontario	1.068.582
Manitoba	650.086
Saskatchewan	651.900
Alberta	661.185
Kolombia Brit.	948.596
Lurraldeak	
Yukon	536.324
Ipar-Mendebaldea ..	3.379.683

* 2. Populazioa

Estatu Batuetako nazioa Europako talde etniko guztien bateratzetik irtendako emaitza berria da. Hainbat herrialde europarretako jendeak nahastu ziren han. Kanadan, oro har, Mendebaldea-

ren populatzeak badu horrekin antzik; baina, mestizaiaren ondoan, aurkitzen da populazio-gune bat bere originaltasuna arduraz gorde duena: frantses jatorriko jendearena. Honek bere tradizio eta ohiturak, eraldakuntza guztiak zehar, mantendu egin zituen. Honetan datza Kanadako originaltasuna: bi nazio bizi dira elkarrekin batean, Estatu bat berean. Kanadako bi taldeon historia espazio geografikoan ispilatu da, gainera.

Kanada modernoa istripu politiko batetik sortu zen: zeharo frantsesa zen jendetza bat britainiarren *menpera pasatzean, alegia.*

1791. urtean Ottawa ibaiak banatutako bi probintziatan banatuta zeuden kanadiarrak: Kanada Beherean, iparraldean, frantsesak nagusi; Kanada Garaian, hegoaldean, ingelesak, ostera.

KANADIARREN JATORRIA: BRITAINIARRAK/FRANTSESAK (1961)

Kanadako populazioaren barnean, jatorrizko bertakotarren ondoan, kanpotik inmigratutako hainbat jatorri ezberdineko bizilagun dago. Batez ere, bi multzo nagusienak britainiarrak eta frantsesak dira:

Lurraldea	**Brit. %**	**Frants. %**	**Besterik %**
Ternua	93,7	3,7	2,6
Edward Printzea I.	79,8	16,6	3,6
Eskozia Berria	71,3	11,9	16,8
Brunswick Berria	55,2	38,8	6,0
Québec	10,8	80,6	8,6
Ontario	59,5	10,4	30,1
Manitoba	43,0	9,1	47,9
Saskatchewan	40,4	6,5	53,1
Alberta	45,2	6,3	48,5
Kolombia Britainiarra	59,4	4,1	36,5
Yukon	47,5	6,8	45,7
Ipar-Mendebaldea	20,8	6,1	73,1
Kanada	43,9	30,3	25,8

Jatorri-banaketa hau ama-hizkuntza bakoitzaren hiztunen kopuruekin alderatu nahi balitz, datuak hauek izango lirateke:

	Ingelesa	**Frantsesa**	**Besterik**
Kanada	% 58,4	% 28,1	% 13,5

Probintzia bakoitzean gobernari ordezko batek agintzen zuen, eta hauen gainetik egoitza Kanada Beherean zuen gobernari orokor bat zegoen. Hau, aginte exekutiboari dagokionez. Legegintza bi Ganbaratan banatuta zegoen: Behe-Ganbara eta Goi--Ganbara edo Legegintz Kontseilua. 1791tik 1840ra, ordezkarien gobernutik gobernu propio batera zeraman bidea egin zuen Kanadak.


Kanada bietako bizimoldeak familiarteko biziera hertsia mantendu zuen. Kanada Beherekoak beren arbasoen erara bizi ziren; kolonu ingelesek ere, zituzten ohiturei eutsi egiten zieten. Kolonu frantsesek, era feudalean probetxatzen zituzten lurrak; britainiarren kasuan, errenta bidez erabiltzen ziren. Labore eta larruen ekonomia gertatu zen azkarrena.

1791. urtetik indarrean zegoen erregimen politikoa ez zen kanadiarren gogokoa. XIX. mendeko lehen hogeitamar urteetan teoria erreformistak azaldu ziren, Asanbladan gehiengoa lortzeraino.

Kanada bietan Konstituzioaren aldeko borroka planteiatuta zegoen. Kanada Garaia bi pro-

Kanada (1836-1949): Antolamendu potilikoa

Mende bat zehar lortu zuen Kanadak bere gaur eguneko barruti geografikoa, politikoki antolatzea. Horretarako mugak definitu behar izan ziren, Estatu Batuekin bereziki, eta barneko lurraldeak biztanleztatu, lur-jabetasunak legeztatu eta antolamendu administratiboak sortu.




bintziak bat egitearen aldekoa zen, nolanahi ere, kanadiar-frantsesak menperatuz, ingelesak nagusituko zirelakoan. Proiektua ez zen erraza aurrera eramatea, kanadiar-frantsesek arrisku horren kontzientzia bazutelako. Asmo horren kontra agertu ziren.

Kanada Behereko frantses gehienek, Louis-Joseph Papineau-ren zuzendaritzapean gobernu autonomoaren alde borrokatu ziren, ingelesek, eskaini bai eta eman ez egiten zuten "responsible government" haren autonomi apurra bera ere iristen ez zen bitartean. Azken buruan, ibai-ertzean Errepublika frantses bat eraikitzea zen, noski Kanada Beherearen ametsa.

Metropoli britainiarra erreboltak hasi zirenean kezkatu zen. Lord Durham izendatu zuen Kanadako gobernari. Herrialdea ikuskatu, neurri bakeraztaileak eman eta Ingalaterraren izenean proposamen hauek egin zituen (1839): Kanada bien bateratzea; bateratutako bi probintziei gobernuan erantzunkizunen bat ematea, eta udal-sistema egokia eraikitzea.

Proposamen hauek aztertu ondoren, Parlamentu ingelesak bi Kanaden arteko banaketa-egoera bukatutzat eman zuen ("Batzorde-Akta", 1840). Bi probintziak gobernu bakar batekin elkartuta geldi-tu ziren.

Egituraketa politikoan beste pauso bat emanez, Kanadaren federalizazioa 1867an gertatu




L.J. PAPINEAU (1786-1871). Bizitza politiko luzea izan zuen Kanadan frantses-hiztunen gidari politiko honek (1808-54), tartean erbestealdi bat jasanez (1838-1845). Kanadiarrek, eta frantses kanadiarrek bereziago, ezin zuten eraman Ingalaterrak ezarri nahi zuen sistema fiskala: 1837-1838etan lehertu zen altxamendu herritarra. Papineau-k boikot ekonomiko batera mugatu nahi izan zuen borroka, baina erreboltatuek indar armatu abertzalea eratu zuten ingelesei aurre egiteko. Nahi ez zuen gerra hura galdu zuenean, Estatu Batuetara aldegin zuen. Orduan ekin zion Ingalaterrak, erakundeztapen berriz (Batasun Gutuna 1840, Dominioa 1867) eta frantsesari ofizialtasuna ukatuz, Kanada britainiartzeko politika erabaki bati.

zen. Kanada Garaia, Ontario probintzia bihurtu zen, eta Kanada Beherea, Québec. Eskozia Berria eta Brunswick-eko probintziek izen berekin jarraitzen zuten, eta Ternua, Ipar-mendebaldeko lurraldeak eta Edward Printzea irla konfederaziotik at gelditzen ziren.

Konfederazio-kolonia desberdinen arteko akordioa zela esan zen, baina franko-kanadiarren eta anglo-kanadiarren arteko ituna zen batez ere. Akordio horren bidez bi nazionalitate horiek beren printzipio erlijioso eta kulturalen arabera gara zitezkeen beren esparruetan, eta bazuen bakoitzak oztoporik gabe Konfederazioan parte hartzeko aukerarik. Konfederazioak bi gobernu-era eta bi jurisdikzio ekarri zituen: federala eta probintziena.

Konfederazio honetan eratutako Estatu berria Kanadako Domeinua deitu zen: Nazio Britainiarren komunitatearen barnean herrialde autonomo bezala geratu ziren Kanada konfederatu hartako herriak.

KANADAREN POPULAMENDUA. Kanadako azalera izugarri hartan, jendeztapena ez da egin izan lurralde guztira gisa berean: 1960ko estatistiken arabera, Kanadaren biztanle-dentsitatea eskasa zen oso (km^2-ko 2,2 bizilagun) eta 9.976.000 km^2--tatik 3.851.800 km^2 ziren ekumene bezala aitortzekoak. Ez da ahantzi behar, gainera, adibide ona den datu hau: Ipar-Mendebaldeko Lurraldeak 35.000 bizi lagun zituen 1971n 3.379.683 km^2-tan banatuta. Hemengo mapa honek ongi erakusten digu populamendua geografikoki nola egin zen, pausoz pauso Ekialdetik barnerantz, beti ere hegoaldeko mugatik ahalik hurbilen.



B) KUBA ETA PUERTO RICO

XIX. mendearen erditik aurrera Estatu Batuetako kanpo-politikak Hispano Amerikan geroz eta ardura handiagoa jarri zuen. Lehen aldi batean, Mexikoko Golkoraino eta Ozeano Pazifikoraino heldu bazen, bigarrenean haragoko helmugak izan zituen: Ertamerikako Kanalea eta Karibeko eta Pazifikoko baseak.

Nahiz eta asmo horiek ezagunak izan, Benjamin Harrison (1889-1893) Lehendakariak eman zuen aditzera ofizialki Kuba erostearen premia. Espainiak, behin baino gehiagotan ezetza eman ondoren, handik indarrez bakarrik irtengo zela esan zuen.

1869. urtean, Kuban erreboltatuek lehenengo Errepublika eraikitzean,espainiarren erreakzioa bi eratara azaldu zen: bazeuden Metropolian arazoa bake bidez konpondu nahi zutenak; baina irlako espainiarrak erregimena indarrez ere mantentzearen aldekoak ziren, nahiz eta horretarako populazioa sakailatu behar.

Altxatutako probintzietan guduak ugariak izan ziren eta, azkenik, Espainiak, indarrak koordinatuz errepresio gogorra ezarri zuen: matxinatuek Zanjón-eko Ituna (1878) sinatu behar izan zuten. Gerratearen eskarmentuak politika koloniala aztertzera eraman zuen Metropolia ere, eta ondorioz zenbait erreforma ere eskaini zen: talde politikoak antolatzeko baimena eman zuen Gobernuak, propaganda politikoa egiteko eta Udaletxeetako hauteskundeetan parte hartzeko egokiera.

Abantaila horiek probetxatuz, alderdi liberala sortu zen, berehala (1881) autonomista bi-

Kubako biztanleak (1861-62)

Kasik lau mendez luzatu zen politika kolonialak gizarte arrazanitz bat sortu zuen Kuban. Independentzia baino urte batzuk lehenago honela banatzen zen hango biztanleria, ofizialki espainol bezala definitzen zena:

Zuriak	Kolorezkoak	Beltzak
728.972	70.034	594.482

J. MARTI (1853-1895). Idazle handi hau izan zen Kubako abertzaleen teorikorik bikainena. Bere eritzi eta argitalpen politikoengatik sei urteko presondegia ezarri zitzaion, eta azkenik Penintsulara ekarri zuten. Orduan idatzi zuen, hogei urte zituela, hemengo obra hau.



MAXIMO GOMEZ (1836-1905). Maceo anaiekin batera, Maximo Gómez izan zen Kubako gerrateetan (1868-1878, 1895-1898) abertzaleen arteko buruzagi militar handiena. Armada espainoleko ofiziala zela, berau utzi (1865) eta nekazaritzara eman zen; baina, gerra hastean, armak hartu eta Kubaren askatasunaren alde abertzaleekin elkartu zen. Lehenengo gerratearen ondoren, erbestealdi luze bat jasan zuen (Honduras, Sto. Domingo). Martí-rekin sinatu zuen altxamen- du-ordena (1895), eta armada abertzalearen buru izan zen: 50.000 lagunetarainoko armada bat bidali zuen Espainiak haren kontra, Weyler jeneralaren agindupean. Askatasuna lortzean, nahiago izan zuen eskainitako Lehendakaritza ez hartu.



lakatu zena. Lehengo erreformistek eta iraultzaileek osatzen zuten taldea. Une berean bestea, kontserbadoreek eta integristek osatu zuten: Konstituzio-Batasunarena (Unión Constitucional). Kubatarren eta penintsularren arteko kontrajarrerak talde bi hauen bidez azaldu ziren ondoko borroka politikoetan.

1890eko hamarkada krisi ekonomikoarekin eta estualdi politikoekin hasi zen. Irla, egoera larrian aurkitzen zen: Independentziaren aita izango zen José Martí-k gidatuta, 1894ean lehertu zen altxamendua. Gerratea herrialde guztian hedatu zen, eta altxatutakoen garaipenak nahikoa erraza zirudien. Dena den, gerra-topaketa batean Martí desagertzearekin krisialdi bat dago iraultzaileen artean, baina garai honetarako Estatu Batuak adi eta interesaturik zeuden Kuban gertatzen zenarekin.



G.C.VALDES (1809-1844). "Plácido" izenordearekin idatzi zuen olerkari kubatar hau familia apaleko mulato bat zen; ogibidez, arotza lehenengo eta orrazigilea gero. Irlako aldizkarietan idatzi ohi zuen. "Eskailera-altxamendua" deituan parte hartu zuela eta, O'Donnell jeneralak afusilarazi egin zuen.

Espainiatik, arazoari azken konponbidea aurkitzeko, Antilletan autonomia ematen saiatu ziren: 1897an Kuba eta Puerto Rico-ri Konstituzioa eta Parlamentua eman zitzaizkien. Bazirudien arazoa konponbidean sartzen zela, baina 1898ko otsailean La Habanako portuan "Maine" korazatu ipar amerikarrak eztanda egin zuen, eta Estatu Batuek ezbehar honetan aurkitu zuten Kuban esku hartzeko

aukera. Kubako gerra, nazioarteko bihurtu zen bapatean.

Itxura eta berdintasunik gabekoa gertatu zen gerra: Ipar Amerikaren garaipenaren ondoren, 1898ko abenduan, Parisen izenpetu zen bakea. Espainiak Kuba Estatu Batuen eskumenean utzi zuen, harik eta irlak bere Independentzia eratu arte. Puerto Rico eta Guam, gerrako kalte-ordain bezala emanak izan ziren, eta Filipinak hogei milioi dolarretan salduak.

Puerto Rico, Kuba bezala, Ipar Amerikako armadaren menpe egon zen 1900erarte. Urte honetan eraiki zen gobernu zibila. Kubari dagokionez, 1899ko Urte Berriarekin gobernua Estatu Batuen eskuetara pasatu zen.

Konstituzioa 1900-1901etan aldarrikatu ondoren, Kuba ohizko botereekin Errepublika erara antolatuta gelditu zen. Ipar Amerikak Batzar Konstituziogilea Estatu Batuei eskubide konstituzional bereziak ezagutzera bortxatu zuen (Platt Emandakina): Kuban esku hartzeko eskubidea, itsasontziak kokatzeko kaiez jabetzeko aukera, eta Kubak beste inorekin izenpetuko zituen itun edo konpromisuak berrikusteko eskubidea. Demaseko eskubideok indarrean egon ziren 1934erarte, Kubatarren burujabetasuna mugatuz. Menpekotasun politikoarekin batera dependentzia ekonomikoa ezarri zitzaion Kubari.

Habana (1792-1862): Esklabu beltzen sarrera

Independentziaren aurreko mendean ere milaka esklabu beltz eraman ziren Afrikatik Kubara. Metropoli europarretatik, Espainia izan zen esklabutza abolitu zuen azkenetako bat: Puerto Rico-n 1873an eta Kuba-n 1880an.

Urteak	Esklabuak
1792-1810	89.039
1817-1821	56.365
1821-1835	76.000
1835-1847	85.700



KUBAko ARAZOA. Hogeitamar urte luze iraun zuen Kubako arazo politiko eta militarrak. Lehenengo Iraultza-Zazpiurtekoan (1868-1874) eta Errestaurazio monarkikoan gero, alderdi politiko espainolek ezin izan zioten irtenbide iraunkorrik aurkitu arazo hari. "La cuestión de Cuba" marrazki honetan ikus daitekeenez, herritar espainolek beren eztabaidagai izaten zituzten irla hartako gorabehera politiko eta armatuak.

V. ONDORIOAK

Ameriketan ikusi ditugun Independentziek luzarora, Gizadiaren Historian eta munduko politikaren luditartzean, Ipar Amerika protagonismoari eman dio bide. Baina hori, azken buruan, Estatu Batuen arrakasta baizik ez da: gaur egunerarte inongo Estatuk izan duen baino botere handiagoa du Ipar Amerikak. Arrakasta handia izan da: ekonomikoa, politiko, kulturala eta, zentzu mugatu batean, soziala.

Nolanahi ere, amerikar gehiago bizi dira Río Grande-tik behera dagoen Latin Amerikan, handik iparraldera baino, eta Gizadiaren Historian leku bat eskatzen du honek ere Hirugarren Munduko eskualde horrek. Koloniatik eta Independentziondoko botereek moldatu dute gaur eguneko egoera.

Hispano Amerikaren Askapenak (1825-1898) bere kostua, eta kostu handia, izan zuen; gogora dezagun zenbait datu:

Hamabost urteko gerrateak (1810-1825) hondamen ekonomiko handia suposatu zuen. Armaden joan-etorriek eta harrapaketek landak hondatu egin zituzten; meategiak utzi eta hondoratu egin ziren. Gerrako gorabeheretan arloteak eta bandidaia nagusitu ziren. Komunikabideen sarea ere hondatuz joan zen.

Burokrazia koloniala desagertzean, denbora luzean administrazio- eta finantz sistemetan ordenarik eza izango da lege. Errepublika berrietako finantz miseria gorria izango da sarritan. Derrigorrez atzerrian, Londres-en batez ere, in-

Kolonia: Gaitz absolutua

"Amerikak, Espainiarekin baturik, Aurkikundetik hona izan den bezain zoritxarreko izan behar badu etorkizunean, hobe zukeen Espainiarekin batuta sekula egon izan ez balitz. Espainiak Amerikaren jabe izatetik, orain arte atera duena beste abantailarik atera behar ez badu, hobe luke jabetza hori galdu. Amerikak Europari, orain arte baino probetxu handigorik ez badio ekarri behar, erokeria litzateke hura aurkitzeagatik zorionka aritzea. Hango urre-zilarrak, eta bertakoen produkzio asko eta asko, Mundu Zaharreko premia berriak asetzeko izan beharrean, premia zaharrak nekezago asetzea besterik ez zuten ekarri". (FLOREZ ESTRADA, 1811)

teres garestitan ordaindu behar zituzten maileguak eskatzera behartuta aurkitu ziren Errepublika gazteak. Metropoli makal baten garai batetako dominazio hura, sarritan merkatal eta industri potentzien hegemonia zakarragoak ordezkatu zuen.

Gizarte- eta politika-arloan Independentziaren ondorioak ez ziren izan arinagoak: Indietako legeek bertakotarrentzat eskaintzen zuen babesaren ordez, kreoloen berekoikeria liberal gordina nagusitu zen. Berdintasun juridikoa teorikoegia gertatu zen, izan ere, errealitatean, ahulenen zapalkuntzarako bidea libreegi utzi zuen legeak. Sistema liberal hark herri-mendi eta sailen jabego komunalaren kaltetan kreoloen latifundismoa ezarri zuen.

Independentziako gerrate zibilek militarismoaren eta kaudilismoaren ondare gaiztoa utzi zuten Hego Amerikan. Nazio ibero amerikarretako barne-politikan gaur egunerarte irauten du oraindik zama larri horrek.

Nahiz eta geografiaren oztopoak nabariak izan, Hispano Amerikak, bere askapen banatuarekin, Espainiako Koroak ematen zion nolabaiteko batasun politikoa galdu egin zuela esa liteke. Izan ere, aginte kolonialaren lotura eten zenean desegin zen eraikuntza politiko haren erakundezko batasuna.

Independentzia politikoarekin batera, Ibero Amerika kanpoko beste Estatuen dependentzia ekonomiko berri batean erori zen, neo-kolonialismo ekonomikoan alegia. Gaur arte dirau horrek.

Konkistak eta kolonizazioak elkarrekin bizitzera behartutako gizarte eta herrien benetako abeniko sozio-etnokulturala oraindik burutu gabe

Latin Amerika: atzo, gaur, gero

"Latin Amerika izugarrizko eremu handi bat da. Bertako gizajendea urria da, eta zalanga-zalanga daukan traje handiegi baten barruan bezala sentitzen da bertan. Larregia da lekua, eta gehiegi honek mozkorrak jota bezala uzten ditu gizakiak. (...)

Iraganaldiko ametsa zen, nekazariak izadi basatitik ateratzea. Hego Amerikako izadiak bai lehen eta bai orain gizaki miresgarriak, pobreak, langileak sortu ditu, hala nola: Panpako "gaucho"a, Brasil-eko "caboclo"a, Mexikoko "campesino"a, peoia. Azkeneko hau beti dago altxatzeko prest benetako buruzagirik aurkituz gero, hala nola, Emilio Zapata miragarria, 1911 eta 1919 inguruan Mexiko inguruan borrokatu zena. (...)

Borrokazko literatura sozial eta landatar bat hasten da bizitzen: gaur egun, behartsua, mundutik izadiak, espazioak edo soil soilik bere miseriak isolatu duena, izaten da batipat gaur oraindik heroi literarioa; baina orain beste literatura-modu bat ere kargutu da hartaz. Berria da literatura hau, borrokalaria, indarrezkoa,zuzenekoa,eta oraingoan onbehar hori gizartearen, eta are zibilizazioaren biktima bezala aurkezten du, hain zuzen honen bizimodu zorigabeari izadi basatiak bezain axolakabe begiratzen dion zibilizazioa. (...)"

(F. BRAUDEL)

aurkitzen da; horixe izango litzateke, ongi ulertuz gero, XX. mendeko Amerikako indar sozialek eskuetan hartu eta burutu beharko luketen proiektu kontinentala: Mundu Berriko Amerika berria.

BRASILDARREI MEZUA (1954)

(Getulio VARGAS bi alditan izan zen Brasil-eko Lehendakari: 1930-45, 1951-54. Diktadura ezarri zuen barnean, baina langileriaren aldeko politika bat gidatuz, eta gerratean bestalde (1939-45), Aliatuen alde borrokatu zen. Lehendakari-hauteskundeetan garaituak gertatuarren (1950), interes-taldeek beren eskuetan zuten artean Estatuetako eta Parlamentu federaleko botérea.

Vargas-ek politika ekonomiko nazionalista bat egin nahi izan zuen, petrolio-tegi eta petrolio-merkatu nazionalak eskuratuz. Interes kapitalistek ez zioten barkatu, eta Getulio-ri maltzurki eraso zioten, haren politika-lana itoz. Interes atzerritarrekin bategindakoen saldukeria salatuz, Getulio Vargas-ek bere burua hil zuen, brasildarrei hilburuko hau utzi ondoren: 1954eko abuztuaren 23a zen bere burua tiroz hil zuenean:)

"Berriz ere herriaren kontrako indarra eta interesa elkartu dira nere aurka. Ez naute akusatzen, iraindu egiten naute, ez naute aintzakotzat hartzen, kalumniatu egiten naute. Ez didate nere burua defendatzeko eskubiderik ematen, isil erazi egin nahi dute nere ahotsa, eta ez didate herria eta batez ere apalak defendatzen utzi nahi, nik beti egin izan dudan bezala.

Talde ekonomiko eta finantzario internazionalen menpean eta lapurretapean urteak eta urteak egin ondoren iraultza baten buru egin naiz eta garaitzeko modua izan dut; askatasungintzako lanari ekin nion, baina utzi egin behar izan nuen: gero herriaren besotik itzuli nintzen boterera. Nazioarteko taldeen azpikanpainari talde nazionalena batu zaio, langileei garantiak ematen zizkien erregimen baten kontra altxatu bait dira.

Hilero-hilero borrokatu dut, egunero, orduero, etengabeko eta atergabeko presio bati gogor eginez, dena isilik eramanez, dena ahaztuz, nere buruari uko eginez, orain babesik gabe aurkitzen den herri bat defendatzeko. Horiek ez dute langilea libre izaterik nahi, ez dute herria independente izaterik nahi.

Nik ez daukat zuei ezer ematerik, nere odola izan ezik. Gaur askatzen naiz ni betiko bizitzarako. Baina ni bere esklabu ninduen herri hau ez da edozeinen esklabu izango gehiago. Nire sakrifizioa betiko geldituko da honen bihotzean, eta nere odola izango da honen askatasunaren ordainsari. Brasilen esplotazioaren kontra borrokatu dut, nere herriaren alde borrokatu dut, nere bizia eman dizuet, orain nere heriotza eskaintzen dizuet. Orain ez dut ezeren beldurrik, lasaitasunez beterik ematen dut nere lehen pausoa betikotasunerako bidean historian sartzeko". *(GETULIO VARGAS, 1954).*

5
ASIA:
TXINA ETA INDIA

URTEAK	GERTAKARIAK	URTEAK	GERTAKARIAK
	TXINA		INDIA
1841-1843	Opioaren gerratea: Nanjing-eko Bakea	1717	Eki-Indietako konpainia ingelesa
1850-1864	Taiping-en errebolta	1748-1754	Ingeles-frantsesak lehian
1858	Tianjin-eko Tratatua: portuak irekita	1778	Inprimagailua Bengala-n
		1853	Lehenengo trenbidea
1860	Armada ingelesa Pekin-en	1857-1858	Sipaien errebolta
1860-1900	Misio kristauen garapena	1859-1862	Erreforma administratiboak
1861-1908	Cixi, enperadoresa	1877	Viktoria Erregina, Indiako Enperadoresa
1870	Mendebaldarren hilketak		
1885	Makao Portugali utzita	1885	Kongresu Nazional Hinduaren sorrera
1889	Lehenengo trenbidea		
1894-1911	Sun-en erreboltak	1905	India osoko Musulmanen Elkartea
1894-1895	Gerrate sino-japoniarra		
1896	Itun sino-errusiarra	1914	1.200.000 soldadu eta langile Gerrarako lanean
1900	Boxeren errebolta		
1911	Iraultza: Konstituzioa	1919	Amritsar-eko hilketak
1920	Gerrate zibila	1919-1921	Gandhi-ren bakezko kanpaina
1927-1934	Lehenengo Herri--Errepublika, hegoaldean	1924	Talde erlijiosoen arteko akordioa
1934-1935	"Ibilaldi Luzea" (Mao)		
1937-1945	Gerrate sino-japoniarra	1929	Gatzaren ibilaldia
1944-1949	Gerratea:Jiang Jieshi/Mao	1947	Banaketa: India/Pakistan
1949	Txinako Herri-Errepublika		Indiaren Independentzia
1950	Adiskidetasun sino-sovietarra	1948	Gandhi-ren hilketa
1950-1953	Koreako gerratea		Kaxemira eta Haiderabad--eko gerrateak
1963	Soviet Batasunari kritikak	1950	Errepublika
1965	Tibet, Txinako Eskualde Autonomo	1961	Muga-gatazkak Pakistan eta Txinarekin
	Iraultza kulturala		Goa, berreskuratuta
1976	Mao et Zhou-ren heriotza	1971	Adiskidetasun-itun indo--sovietarra

I. TXINA XIX-XX. MENDEETAN

A) GEOGRAFIA

Lurralde zabal eta konplexua da Txinakoa. Eta lurraldea ezezik, baita gizartea ere, bere historian eta gaur egungo egoera eta bizitzan. Klima ezberdin ugari ditu Txinak, eta herri ezberdinak ere bai.

* 1. Geografia fisikoa

Siberiako taiga basoetatik Indotxina aldeko jungletara, delta tropikal hezeetatik Ertasiako hondar kiskalgarrietara, badu Txinak paisajea eta klima aldetik aniztasun ugari. Oztopo guzti hauen gainetik, halere, jakin du txinar zibilizazioak bizi duen inguru-mundura moldatzen eta geografia aldeko oztopoak gainditzen.




TXINA, hau da, "Zhonghua Renmin Gongheguo" deitua handia da: 9.550.000 km^2 ditu. Pekin (idazkera berrian Beijing) da hiriburua. Ondoko mapa honetan ikus daitezke Txinako Udalerri, Probintzia eta Eskualde Autonomoak. Probintzietako bakoitzak, berak besterik gabe, Estatu oso baten tamaina izan dezake: Sichuan probintziak, adibidez, 1964eko zifretan, 82 milioi bizilagun zituen bere 569.000 km^2 tarako. Eta Xinjiang aski handiagoa da oraindik, 1.646.800 km^2 dituela. Oraingo datuotatik Historiara pasa nahi bada,berriz, Txinarena munduko zaharrenetakoa da: orain 7.000 urte edo hasi zen han Neolitoa, eta lehenengo dinastiak K.a. XVIII. mendean. Ordudanik hona elkarren ondoan etorri dira, segidan, dinastia txinarrak. Txinako pentsalari handiak (Laozi,Kong Fuzi, Mezi) Greziako handien mende beretsutakoak dira (K.a. VI-IV).Beren iraganaldiaz historiografia ugaria du Txinak, K.a. II. milakadaren hondarretan hasita.

Bere erliebeaz mintzatzean, bi parte oso ezberdin bereizten ditugu: alde batetik, barnealdeko eskualdeak, oso menditsuak, eta, bestetik, ekialdea eta hegoaldea, erliebe aldetik askoz ere zatituagoak.

Txinaren barnealdea mendikate bortitzez hornitua aurkitzen da, bere mendi-gailurrak mendebalde eta hegoalderuntz hedatzen direlarik. Ondoko mendikate ezagun hauek bereiz genitzake: Tien eta Kunlun mendikateak, hegoalderago; Karakorum mendiak mendebaldean eta Himalaia, hegoaldean.


Ipar-ekialdean ordeka handi bat bereiz genezake eta ipar-mendebaldean, berriz, goi-ordeka edo mesetak (Shaanxi eta Shanxi). Loess-ez estalirik dauden lurraldeak dira eta txinarrek errega-dio-sistemari esker oso lurralde emankor bihurtu dituztenak. Badirudi, duela sei mila urte inguru, Ibai Horia deritzanaren goi-arroetan eta aipaturiko loess-ez osaturiko hango goiordeketan ematen dela laborantzarako lehen pausoa. Neolitotik hara jadanik ugarituz doan txinar populazioak lehorte eta gosetearekin obsesionaturik bizi behar izan du.



LOESS lurrak oso landuak izan dira Txinako iparraldean, Shanxi eta Shenxi probintzietan, adibidez. 200 bat m-ko lodia ere izan dezake loess-mantu honek. Lur ona eta samurra da, baina haizeak eta urek errazki higa dezaketena. Horregatik, nekazariek mendez mende egindako zapaldek zaintzen dute mendi-maldetako lurra, euriek eraman ez dezaten. Lur hauetan jaio zen Txinako laborantza neolitikoa.

LANDAREDIA. Txinako klimek landaredi-mota guztiz ezberdinak eskaintzen dituzte. Iparraldeko klima hotzeko konifero-basoetatik hasi eta baso tropikaletaraino. Basamortu menditar edo laurik ez da falta mendebaldean, ezta hosto iraunkor eta erorkorreko zuhaitzik ere beste lurraldetan, izan ere Siberiatik Vietnam-eraino zabaltzen bait da Txina.

Landaredia




Konifero-basoa

Hosto erorkorrekoa

Hosto iraunkorrekoa

Ekialderantz eta hego-ekialderantz desagertuz doaz mendien aztarnak. Altuera handirik gabeko mendikateak dira, gehienik ere, gelditzen direnak, eta Yangzijiang, Sikiang eta berauen ibaiadarren arroek ebakiriko mendiskak. Txinarrek ibai handi hauen uholde kaltegarrietatik etengabe gorde behar izan dute beren burua, dikeak eraikiz, etab.

Klimari gagozkiolarik, berriz, iparraldean eta mendebaldean aurkitzen diren lurraldeak lehorrak eta mortuak dira: Mongolia, Xinjiang eta Tibeten oso urriak izaten dira euriak; aitzitik tenperatur aldaketak, izugarriak. Ekialdean, ordea, izugarrizko garrantzia dute udako euriteek; hegoalderago eta ugariago izaten dira (udako montzoia). Tenperaturak, latitudearen eta itsasoaren eragina dela eta aldatuz doaz: hego-ekialdeko kostaldeetan ia ez da nabari neguaren eraginik, baina iparralderago joan ala, askoz ere baxuagoa da, urteko tenperaturen batezbestekoa; horrela gertatzen da, adibidez, Shanghai eta Pekin/Beijing-en.



HEGOALDEKO LAUTADA. Lautada hau nekazariek erabat ondua da, baldintza naturalak ere aldatuz. Arroz-sailak beharreko zuten erregadio-sistema osoa eratu dute lautada gizatartu honetan laborariek.

* 2. Giza geografia

Ez da hain erraza Txinako populazioaren berri zehatzak jakitea, estatistika ofizialen berririk ez bait dugu. Badirudi, halere, aski uniformea izan dela azken urte hauetan populazio honen eboluzioa: ‰ 33ko jaiotze-tasa, eta ‰ 15eko hilkortasuna. Datu hauen arabera, urteko 15 bat milioitan ugalduko litzateke Estatu honetako populazioa. Nolanahi ere, gazte-jende ugari duen herrialdea da; 1970eko kalkuluek diotenez, biztanleriaren erdiak inguru 20 urte baino gutxiago zituen. Bestalde, 5 pertsonatatik 4 landan bizi ziren. Populazioaren banakera, oso ezberdina da; ondoko datu hauek dira esandakoaren adierazgarri: populazioaren % 90a lurraldearen % 15ean bizi da. Ekialdeko eskualdeak dira, dudarik gabe, jende gehien biltzen dutenak; hegoaldeko itsasertz-inguruak, batez ere, Arro Gorria deritzan eskualdea, Yangzijiang ibaiaren inguruko ibarrak, ipar-ekialdeko ordeka handiak, etab. Mendebaldera goazen heinean, asko jaisten da jendetza honen kopurua, eta zifrarik apalenak, noski, Tibet aldeko paraje menditsuetan gertatzen dira. Adierazgarria da, berebat, hain eremu gaitzetan badirela 50en bat gutxiengo nazional, beste hainbat milioiko jende-kopurua osatzen dutenak.

Bestalde, lan egiten duen jendearen araberako banaketa dago: % 70en batek laborantzan lan egiten du, 50 milioi inguruk industrian eta beste hainbatek zerbitzuetan. Nolanahi ere, kontu handiz ibili beharreko datuak dira, zeren eta laborantza eta industriaren arteko mugak ez bait dira askotan hain garbi ikusten.

Txinako biztanleak

"Badirudi luzaro egon zela biztanleria 60 milioi ingurutik gora pasatu gabe. X. mendetik XI.era bitartean hasten da ugaltzen eta 120 milioitara iristen da 1200 inguruan. Mongoliarren konkistak eta,agian, peste-izurrite batek egundoko gutxitzea eragin zuten XIV. mendean. 1368an Txinak ez zituen izango 70 edo 80 milioi baino gehiago. Ugaltzea XV. mendean hasten da berriro eta herrialdeak 100 milioiko marka pasatzen du. 1700ean 200 milioi bat txinar izango ziren. Inperioak XVIII. mendean, bakealdi luze bat izaten du, eta garai horretan bikoiztu egingo zen biztanleria. XIX. mende eta XX. lehen mende-erdiko gerrate, gosete eta katastrofeek ondorio beltzak izan zituzten. 1850etik 1950era artean gainerako mundu guztiak jaiotze-tasa bortitza ikusten duen bitartean, Txinak % 20 besterik ez du irabazten".
(M.CARTIER; C.MEUWESE, 1981)


* 3. Geografia ekonomikoa

XX. mende-hasieran, Txinako ekonomi sistema aski zaharkitua aurkitzen zen, nekazaritza atzeratu batekin, eta, giza harreman desegoki batzuk zirela bide, areagotu egiten zen oraindik haren egoera. Garai honetan industriak ez zuen garrantzi handirik eta aurrerapen apur bat zutenak, atzerritar kapitalaren kontrolpean aurkitzen ziren. Txina-barruko garraioen atzerapena ere eragozpena zen, Estatu-mailako merkataritza bat indartzeko.

Mao Zedong-en zuzendaritzapean burututako iraultza garaile irtetzean, erabat aldatuko dira, ordurarteko produkzio-harremanak; helburuetako bat ekonomiaren modernizatzea izango da, plan zehatz batzuk jarraituz. Zentzu honetan, azken berrogei urte hauetan egin diren aurrerapenak garrantzizkoak izan dira benetan: jabetza pribatua desagertu egin da nola nekazaritzan hala industrian eta merkatalgoan. Egun, nekazaritzako lurren esplotazioa modu ordenatuago batean egiten da; industrializazio-prozesuaren oinarriak ere ezarri dira eta, oro har, ekonomiaren indartze-prozesuan eman diren urratsek erabat aldatu dute aintzinako egoera anarkiko hura.

Egia da, halere, oraindik ere irauten duela lehendikako hainbat eta hainbat aztarnak: herrialde garatuekin konparatuz, urriak dira hango industrietatik ateratzen diren emaitzak; jenderik gehiena laborantzara dedikatzen da eta garraioen munduan bertan ere, bada zereginik aurrerantzean.

ARROZAREN GEOGRAFIA



ARROZAREN GEOGRAFIA. Erregadiozko arroz-sailen zabalkundea da Txinako laborantzaren lorpenik handienetako bat.Betidaniko mugetatik iparralderantz egin du arrozaren lurraldeak. Prozesu honek ahalbideratu du Txinaren garapen demografikoa ere.

Txinako minoria nazionalak

"Badirudi Txinak ez duela inolako joerarik agertzen, bere burua auzoko herrietara bota eta etxean gainezka daukan biztanle-soberakina haietara isurtzeko; baina, hala ere, bada hor, Txina handian bertan, absortzio-mugimendu astiroko bat, orain mila-pare bat urte hasi zena eta hainbat eta hainbat talde etniko jadanik mapatik ezabatu dituena. Txinan bertan, badira beste hirurogeiren bat milioi bertako jatorrizko berrogeitamar "gu-

...

...

txiengo nazionaletan" banatuak (Tai, Turko, Mongol, Miao-Yao, etab.) eta behinolako biztanleri modua izugarri ezberdina zela frogatzen dutenak. Yi edo Lolo herritarrei beren janzkera nazionaletan egin ohi zaizkien argazki ederrek ez dute ilusiotarako biderik eman behar. Bizitza modernoaren hertsapenak eta, zenbait eskualdetan, Han-dar inmigranteen etorraldiek osoro aldatzen dute bizimodua. Kultur Iraultzaren gehiegikeriak, identitate etnikoaren edozein agerpen baztertzen zutenak, ehundaka urte luzeetan jarraitutako asimilazio-politikaren bide beretik zihoazen".
(M.CARTIER; C.MEUWESE, 1981)

MONGOLAK.Txinatik at,iparralde-ipar-mendebaldetako estepetako herri nomadetatik bat zen mongolena. Zaldia zen herri honen ondasun eta tresnarik preziatuena,artaldeak gidatzeko nahiz gerra egiteko. XIII. mendean eratu zen mongolen lehen inperio handia.



B) ERREGIMEN ZAHARREKO DINASTIAK

Neolitotik hasita gure egunetararte luzatzen da Txinaren historia. Hemen, azkeneko dinastiak hartuko ditugu gogoan: Yuan mongolak lehenik (1280-1368), Ming-darrak (1368-1644), Qing-darrak (1644-1911). Hau da, europarrekin harremanak hasi zirenetik gaurdainokoak.

* 1. Yuan-darrak (mongolak: 1280-1368)

Europan katedrale gotiko ederrenak jasotzen ari ziren bitartean, XIII. mendean, gaur egungo Mongolian, Ulan-Bator-etik hurbil, Karakorum hirian herri estepar batek bere inperioa eratu zuen. Genghiskan (1206-1227), "itsasoetako enperadorea", zen inperio honen buruzagia.

Mongol hauen eskua luzea zen: Ertasian, Ekialde Hurbilean eta Hego Errusian agertu zen Genghiskan bere zalduneriarekin, Mendebaldea ere arriskutan jarriz. Karakorum-etik gertu zegoen, bestalde, hegoaldean Txinako inperioa. Genghiskan-en ondoko erreinu eta inperioak ere ez ziren samurrak gertatu txinarrentzat: 1231z gero etengabe egin zuten aurrera, lehenengo iparraldeko Jin inperioa menperatuz eta hegoaldeko Song-darrenari erasoz. Eta oraindik aurrerago joko zuten: lur konkistatuak Birmania eta Vietnam-eraino zabaldu zituzten, eta inoiz Japonia eta Java-ri ere ekin zioten.

Mongolek Yuan izena hartu zuten Txinan, dinastia berria eratzeko. Gizarte eta herrien gobernurako herriarteko hierarkia bat ezarri zuten mongolek Txinan: hierarkia haren erpinean mongolak

berak zeuden, noski; ondoren, lehenagotik menperatutako herri adiskideak zetozen (batez ere, mendebaldeagoko herriak) eta mailarik apalenean geratu ziren Txinako herririk kulturalki jantzienak (hegoaldeko Song-darrak, adibidez).

Mongolak ongi baliatu ziren erakunde txinarrez, eta berauei esker eraiki zuten halako inperioa. Yuan dinastia honen ekarpenik handienetako bat zera izan zen: bide eta posta-lekuen sare zabal eta arretaz antolatu bat zela medio, harreman-sare bizkorra, Eurasian zabaldua. Txinan bertan ere kanale-sarea berritu eta zabaldu egin zuten. Mongolek ireki zuten mendebaldarrentzat Txina eta Asia ekialdarra, eta ez da, beraz, harritzekoa Karakorum-eraino iritsi ziren bidarien zerrenda ezaguna (Mendebaldeko bidarientzat erakarmen handia izan zuen mongolen inperio hark).




GENGHISKAN (1162-1227). Honek lortu zituen mongolen batasun politikoa lehenik (1196-1206) eta berehalako konkistak gero (1206-1227), Ekialdetik hego Errusiaraino, inguruko herriak ere men egitera behartuz.

GENGHISKAN: HAREN ALDE ALA KONTRA?

"Genghiskan-ek (1206-1227) bere herrian izan zuen eraginaren balorazio orekatu bat egitea, politika-oihartzunezko barne-gatazkabide izan da, azken urteotan, Mongoliako Herri-Errepublikan eta Barne-Mongoliako Eskualde autonomoan (Herri Errepublika Txinarrean); hain da bizia Genghiskan-en oroitzapena mongoliarren artean. Hil zenetik bertatik beretarren izpiritu babestailetzat hartua, kultu organizatua eskaini zioten ondokoek. XVI. mendean, tribu mongoliarrak eskualde honetan kokatzean, Ordos-ko Ejenkhoro-n lekutu tradizio hau, Ibai Horiaren bihurgune handiaren barrualdean (Barne-Mongolian), Darkhat izeneko klan jakin baten ardurapean. Hain zen handia santutegi nomada honen omena, zeren ondorengo botere politikoak japoniarrak eta Guomindang-ak berezi-ki saiatu bait dira hor gordetzen ziren erlikiak (edo hala ustekoak bederen) berenganatzen, mongoliar menperakaitzak seguruago maneiatu ahal izateko. Gobernu komunista, gertaeren presiopean, berrikusi beharrean aurkitu zen, herriaren etsai bezala Genghiskan-i lehenago emana zion gaitzespena eta 1955ean, Ejenkhoro-n eraikin eder bat jaso zuen erliki sakratuak gordetzeko. 1962an, aldi berean eta bi Mongolietan ospatu zen Kan handiaren jaiotzako zortzirehungarren urteurrena, eta afirmatu egin zen haren rola batasun mongoliarraren fundatzaile bezala. Baina geroxeago, kritika errusiarren eraginpean, Mongoliako Herri-Errepublikak nazionalismo antimarxistatzat salatzen zuen kultu hura. Ikuskera hau hartu zen geroago Txinan ere, Kultur Iraultzak gutxiengoak berdindu nahi izan zituenean".

(F. AUBIN, 1968)



MINGdarren HILOBIAK. Beijing--dik hurbil daude Dinastia honen hilobiak; abere eta giza irudi handiz hornituriko ibilbide batetik igarota aurkitzen ditu bisitariak. Obra gaitzak egin ziren han enperadoreen ohoretan. Arte-lan eta gordailu aberatsak utzi zituen Dinastia honek, Wanli--ren hilobia esate baterako (1573-1619).

* 2. Ming-darrak (1368-1644)


Errebolta herritar batek iraitzi zituen mongolak Txinatik: Zhu Yuanzhang (**Hongwu** deitua, 1368-1398) izan zen berorren buruzagia eta Nanjing-en jarri zuen lehenik bere hiriburua. Hongwu-k antolamendu ekonomiko-politiko berri bat eman zion gizarte txinarrari. Botere zentrala oso indartu zen. Gizarte ekintzale eta aginte autokratikoaren artean gero eta urruntasun nabariagoa sumatzen zen. Isilpeko poliziak eta gorteko eunukuen politika ezkutu eta isilak aginduko du Beijing/Pekin hiriburu berrian (XVI-XVII. mendeak).

Yongle (1403-1424) enperadorearen garaian kanpo-politika ireki bat egin zen. Batetik, Inperioaren mugak zabalduz, (mongolak oraindik iparralderago bultzatuz, edota Vietnam alderantz: 1406-1427); bestetik, diplomazia erabiliz (Japonia, Hego-eki Asia) eta Zheng He-ren bidaia ausartez lagunduz (ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa": 182. or.). Bazirudien gizarte txinar indartsu harentzat sorterriaren mugak benetan hertsiegiak zirela; baina kanpora irten-min hura bapatean aldatu zen Txinako politikan.

Arrisku berriak barnetik eta ingurutik agertu ziren: Mongolek indarberrituta eraso zuten ostera eta iparraldetik itsas lapurreria jabetu zen Txinako itsasoaz (merkatalgoa itoz), eta barnean nekazariek --bizi-baldintzak hondatu egin bait zitzaizkien-- ogibide berriak bilatu behar izan zituzten (artisautza, isilpeko meatzari-lana, pirateria, etab.). Handiak izan ziren aldakuntza sozialak eta gatazkak (XVI. mendea). Proletalgo hiritar bat sortu zen, merkatari aberats berrien esanetara lanean. Espainolekiko harremanek (Mani-

la, 1570) Ameriketako zilarra eta barazki ezezagunak eraman zituzten Txinara ere, XVIII. mendeko hazkunde demografikoa ere bultzatuz.

XVI. mendean Inperioko Haziendak estualdi larriak ezagutu zituen, Estatuaren erakunde-gastuei ezin aurpegi emanez: armadaren erreboltak gaitzak izan ziren (1627), eta zergen kontrako matxinada herritarrek (nekazari eta artisau txikienek) ere jaso zuten beren ahots haserretua. Garaiko literatura herritarrak ongi isladatu zuen egoera hura. Haiengatik eta iparraldean agertu zen mantxuen beste arriskuagatik, Ming-darren inperioak kontatuta zituen bere egunak.



JUSTIZIA TXINARRA. Justizia txinarra, beronek zituen zigor zorrotzengatik gogoratu izan da europarren artean; baina Estatu txinarraren antolamendu-tresna bezala ikusi behar da batez ere: salatariak nahiz salatuak apalki agertu behar zuen auzitegian.

* 3. Qing-darrak (mantxuak: 1644-1911)

Gorabehera militar nahasien ondoren, mantxuak jabetu ziren erabat ahulduta zegoen Inperioaz (1644). Jaun-arraza bezala hartu zuten boterea, esklabutzat hartutako herriaren gain autokrazia gogorra ezarriz: ezkontza mistoak debekatu egin zituzten, janzkera mantxua eramatera bortxatu, txinarrak hirietara bildu, mantxuen egoitz tokiak Txina barnean lekutu, Mantxuria txinarrentzat ixten zen bitartean.

Hala ere, hasierako metodo drakondar hauek laster ezagutu zituzten aldakuntzak. **Kangxi** (1662-1722) enperadorea gogoratu behar da hemen. Frantziako Luis XIV.aren erregealdi beretsua izan zuen, eta honi esker inperioaren administrazioan garaile eta garaituen arteko giroa aldatuz joan zen. Alde batetik, enperadoreak funtzionari txinar gorenak erakartzea lortu zuen, administrazioan berriz ere leku emanez, eta, bestetik, aristokra-

Jakitunen gobernua

"Baina esaminatan izendatutako doktore eta lizentziatuei bakarrik deitzen zaie errepublika administratzera eta herri osoa gobernatzera eta honetarako ez daukate inolako fabore-beharrik, ez magistratuenik eta ez erregearen berarenik. Zeren eta edozein kargu publiko bakoitzaren jakinduriatik, bertute,zuhurtasun eta trebetasun ezagutuetatik bait dago, bai ofizioan sartu berriak direnean eta bai lehendik beste gobernu batzuk izan dituztenean".

(M. RICCI, 1552-1610)

Inoiz ez da beranduegi

(Txinako Inperioan funtzionariek goimailarik jasoena lortu zuten gizartean. Horregatik, Estatuaren zerbitzari izatea bizitza osoko xedea bihurtu zen askorentzat. Behin batean, esamina batetik irtetean, Zhou Komisariak esaminatuetako bat ikusi zuen, ibilbide errukarria zeukana, eta galdetu zion:)

"- Fan Jin zara zu, ez da?
- Bai, erantzun zion Fan Jin-ek, belauniko jarriz.
- Zenbat urte dituzu aurten? galdetu zion komisariak.
- Batxiler-gaien koadernoan hogeitamar urte jarri ditut, baina benetan eduki berrogeitamar urte dauzka zure ikasle honek, erantzun zion Fan Jin-ek.
- Honez gero zenbat aldiz aurkeztu zara esaminatara? galdetu zion komisariak.
- Hogei urte zituenetik hona aurkeztu da zure ikasle hau esaminatara; beraz, gaurdaino hogei aldiz baino gehiagotan, aurkeztu naiz, erantzun zion Fan Jin-ek".

(WOU KING-TSEN, 1701-1754)

ESAMINAK. Estatuan lan-posturen bat hartzeko, hautagaiak esamina pasa behar zuen aldez aurretik, Txinan.



zia mantxua txinartzera bultzatu zuen. Elkarrenganatze honen ondorioz, Inperioa indarberritu egin zen, hegoaldea segurtatuz eta Ertasia eta Tibet-erantz zabalduz. Urte batzuk geroago, Qianlong enperadorearekin, ezagutu zuen bere hedakuntzarik handiena Qing-darren Inperioak (1757tik aurrera), jatorrizko eremua bikoizteraino, Nepal, Birmania eta Vietnam basailu bihurtuz.

Inperio honek berehala aurkitu zuen bere funts ideologikoa: Budismo tibetarra hartu zen oinarri erlijioso bezala. Dalai-lama Beijing-a deitu zuen enperadoreak, 1652an, eta hiriburu hau bilakatu zen literatura ideologiko berriaren inprima-leku nagusi. Mendebalderako hedapena segurtatzeko erabaki politiko egokia gertatu zen jarrera ideologiko berria, nahiz eta konkista horiek ezin berehala egin ahal izan.

Hazkunde demografiko eta ekonomiko bortitza ezagutu zuen Txinak une hartan. Esportazio txinarrak Asiako Eki-hegoaldera ezezik Europaraino ere iristen ziren: tea, zeteria, kotoi eta lakazko

ESAMINEN PSIKOSIA

"Beldur zen Fan Jin ez ote zuen ondo ulertu; onartutakoen zerrenda berak irakurri ondoren, beste behin irakurri zuen altu. Eskuak zartaka jo eta algaraka esaten zuen barrez: 'Azkenean, horregatik!, lizentziatu aprobatua naiz!

Hizketan ari zela, atzeraka egin eta lurrera erori zen, hortzak estutu eta konortea galdu zuen. Beldurtu zen ama eta agudo batean ur irakina bota zion ezpain-artera. Senera itzuli zen eta berriro eskuak zartaka altxatu zen, eta algaraka egiten zuen barre:

'Azkenean, horregatik! lizentziatu aprobatua naiz!

...Ate handitik atera zen; handik geroxeago, irrist egin eta putzu batean erori zen".

(WOU KING-TSEN, 1701-1754)

lanak. Txina modan zegoen Europan. Nekazaritzak berrikuntza bat jasan zuen: lur pobreetara oso ongi egokitu ziren landare berriak (patata, artoa, etab.). Aldakuntza hauei esker, **Qianlong** (1736--1796) enperadorearen garaian, 300 milioitara iritsi zen Txinako biztanleria. (Ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa": 320 eta 398. orr.).

Baina oparoaldiaren ondoren, lurralde-hedapen ausartegi baten ondorioz ere bai, minoria etniko eta erlijiosoek (musulmanek bereziki) eta laborariek hainbat altxamendu herritar piztu zituzten, XVIII. mendearen bigarren partean. Odol--hustutze handia ekarri zuen horrek denak, eta Gorteko gehiegikeriak eta administrazioaren ustelak ahulduta utzi zuten Txina, XIX. mendearen atarian, hau da, Europa kolonialistaren herronka berriari erantzun beharko zion unean, hain zuzen.



QIANLONG (1736-1796). Enperadore honekin lortu zuen inperioak bere hedakuntzarik handiena: gaur eguneko Errepublika baino zabalagoa izan zen orduan Txina.

TXINAKO HARRESI HANDIA

Txinako Harresi Handia (txineraz "Wan-li Chang Chen" deitua), Txinako eta munduko eraikuntzarik handiena da. Politika armatu indartsu baten barnean ulertu behar da honelako obratzarra eraikitzeko erabakia: Shi Huangdi (K.a. 221-210) izan zen proiektuaren sustatzailea. Ehundaka mila lagunek parte hartu zuen obretan, bi mila kilometrotan murrua jaso eta luzatzeko. Garaiko beste proiektu batzuren artean (Jauregia, Hiriburu berria) dago Harresi Handia ere.

Harresi hau ez zen iparraldeko herri nomadei aurre egiteko segurtasun-murru hila: Harresiaren inguruan bizitza osoa garatu zen, eta horretarakoxe pentsatuta zegoen eraikuntza hau. Muga bat zen, baina baita komunikazio-bide paregabea ere, Harresian zehar albisteak zeinu bidez bidaltzeko ezezik, baita armagizonak eta merkatariak ibiltzeko ere.

Arkeologiari esker badakigu nolako bizimodua egiten zuten murruko soldaduek; baina armadarekin batera kolonuak ere iritsi ziren, Harresiaren luzean, lur berriak irabaztera: askotan gaiztagin kondenatuak ziren etorriberriak. Biztanleria honek parte zuzena izan zuen Zetaren Bide inguruko aldakuntza ekonomiko-kulturaletan.

Beheraldi baten ondoren (K.o. III.etik aurrera), Mingdarren Dinastiak (1368-1644) indarberritu egin zuen Harresia hegoaldeago, Ibai Horia zeharkatuz. Zeregin zaharrak berritu eta areagotu egin ziren orduan: milioi bat laguneko armada jarri zen murruaren luze osoan, Inperioa mongolen arriskutatik babesteko. Hala ere, mantxuak murrua gainditu eta Inperioaz jabetzera iritsi ziren (1644).

Zibilizazioa eta Estatu eratu handi baten eta iparraldeko herri nomada biztanletsu eta gazteen arteko borrokaren sinboloa da Txinako Harresi Handia.

C) TXINAREN EKARPEN KULTURALAK

Beren asmakuntza bezala jotzen dituzte txinarrek ondoko hauek: inprimagailua, bolbora eta imana; badirudi busola ere txinarrei zor diela Mendebaldeak eta gizartearen aurrerapenerako lagungarri izan diren eskuorga, burdin galdategia, erloju mekanikoa, esklusa, sismografoa, etab. ere txinarrei esker heldu zaizkigula. Esate baterako, F. Bacon, Montaigne eta Voltaire pertsonaia ospetsuek, ez zuten jarri, beren garaian, inolako erreparorik txinarrek gizartearen aurrerapenerako eskaini duten laguntza ametitzen. Seinala ditzagun xeheago hauetako batzuk:


ERDI AROKO TXINAren EKARPEN TEKNIKOAK

Lau asmakuntza handiak	**Txina**	**Europa**
Papera	I-II. mend.	XII. mendean herri islamdarretatik jasoa. Italian XIII. azkenetan egina.
Lehen testu xilografiatua	VIII. mend.	1375aren inguruan (Rhin bailaran)
Karaktere mugikorren lehen erabilpenak	1041-1048	1430-1460
Kanoi-bolbora	IX. mend. Formula aipatuta: 1044	1385. Herri islamdarretatik ekarrita
Itsas busola	1090etik aurrera aipatuta, baina X. mendean erabilia	1180aren inguruan
Beste asmakuntzak		
Burdina-galdaketa	K.a. 513an lehenengoz aipatuta	1380aren inguruan (Rhin bailaran)
Korasta-lema	IV. mendearen azkenetan	1190aren inguruan

* 1. Papera

F. Bacon-ek txinarren garrantzizko inbentu bezala ez du papera aipatzen, baina inprimagailuaren eboluziorik posible izango ote zen, galdetzen du, herrialde honen aportaziorik gabe.

Paperari buruz ezagutzen ditugun aztarnarik zaharrenak gure aroa baino mende pare bat lehenagokoak dira; geroztik aurkientza berriak egin dira papergintzarako, gero eta material egokiagoak lortu ahal izateko: zuhaitz-azalez lehenik, eta geroago, India aldetik zetorren zuhaitz-mota batez, eta marugatzez ere bai, III. mendeaz geroztik. Zetaren ordez erabiliko da papera, hura garestiago zelako; geroxeago, banbuzko zetabea agertuko da eta honi esker lortzen den papera zuriagoa, distira handiagokoa eta finagoa izango da. Song dinastiaren garaian arrozaren eta gariaren lastoz egindako papera ere aterako da, eta baita banbuzkoa ere.




PAPERA. Paper-pasta, landare--sustantziak garbitu eta xehatuz lortzen zen. Ontzi batean egosi ondoren, txiki--txiki egiten da dena. Galbaean pasa eta halako pasta--geruza bat lortzen zuen artisauak. Pasta-masa hau ohol batzuetan jartzen zen lehor zedin. (Tiangongkaiwu-ren marrazkia, 1637).

* 2. Inprimagailua

Dudarik gabe Txinari dagokio inprimagailuaren asmakuntza. XI. mendean egiten da eta ez da Europan bezain arrakastatsua, baizik eta poliki--poliki garatzen da. Ordurarte, estanpazio-prozesua eta xilografia izan ziren erabilienak.

Bi Sheng izan zen, 1048. aldera, inprentako letrak buztinez egiteko ideia izan zuena eta egosketa bidez gogortu ondoren burdinazko plaka batean erantsi zituena. Egurrez edo metalez fabrikatzen ziren gero, eta fonetikoki sailkatzen kaxa birakari batean. Baina, hala eta guztiz ere, liburuetan kaligrafia landu eta eder bat erabiltzeari



ZERAMIKA TXINARRA.Garaiko marrazki honek zeramika-lantegi bat erakusten digu. Marko Polo-ren garaitik europarrak beti harritu zituen zeramika haien kalitateak. Merkatalgai estimatuenetakoa izan da hau, Ekialde-Mendebaldeen arteko harremanetan.

IDEOGRAMAK. Alfabetoaren ordez, honelako ideogramak erabili izan ditu idazkera txinarrak. Hemengo hauek Huizong enperadorearenak dira (1101--1126).



ez zioten uko egin txinarrek, eta XIX. menderarte sendo eutsi zieten printzipio xilografikoei.

*** 3. Bolbora**


Europan XIV. mendean entzun ziren bonbardaketen lehen oihartzunak, Mendebaldeko feudalismoaren agonia adierazten zutenak, IX. mendeko alkimista taoistek egindako esperientzia misteriotsu baten errepika baizik ez ziren.

Txinarrek "suzko droga" deitzen zuten elementu honen lehen aipamenak, berorren osaeraz ere hitz egiten zuen: ontza bi salitre, beste ontza bi sufre eta... Oso sugar biziaz erretzen zela adierazten zen; nolanahi ere, asmakuntza honen aplikazio militarrak X. mende aldera hasten dira.

*** 4. Busola**

Busolaren sortunea K.a. III. mendean jar liteke. Goilare-tankerako iman natural bat zen, eta bere "mantxak" hegoa seinalatzen zuen, ez iparra. Horren aplikazioa ordurarte geomantzia eta asmakuntzatara bakarrik mugatu zen. Baina deklinazioaren arazoa argitu ondoren, Tang-en dinastiatik (618-907) eta Shen Gua-k (1031-1095) imantazio artifiziala aplikatu zuenetik aurrera nahitaezko tresna egin zen.

Dena den, asmakuntza guzti hauek ez zuten aztoratu Txina, Mendebaldea aztoratu zuten bezala. Txinako gizartearentzat teknikaren hobekuntza bat suposatzen du honek eta ez natura menperatzeko arrazoirik, zeren eta txinarrek harmonian egon nahi bait dute naturarekin.



ERLOJU TXINARRA. Historia,astronomia eta denboraren neurketa:horiek guztiek leku handia izan zuten Txinako kulturan. Horregatik honelako erloju gazteluak ere jaso ziren; hemengo hau XI. mendekoa da. Bazuen urez zebilen tresneria bat, planeten mugimenduak erakusteko eta orduak jotzeko. Aurrerapen handiak egin zituzten txinarrek denboraren kalkulu hauetan, baina bazituzten ezin gainditzuko problemak ere. Jesuitak iristean, Europako zientzi iraultzaren aurrerapenak eraman zituzten, XVII. mendean. Hauxe izan zen josulagunen arrakasta sozialaren arrazoi bat.

D) TXINAKO ERLIJIOAK ETA PENTSAMENDUA

Idatzi izan denez, Indiako herriek sen erlijioso biziena erakutsi izan dute historian zehar, baina Txinari buruz bestelakorik esan da: Txinak berak sortutako bi molde erlijiosoak --konfuzianismoa eta taoismoa-- apenas diren, jatorriz, erlijio. Eta benetan erlijioa den budismoa, berriz, Txinaz kanpotik, Indiatik, ekarria izan zen.

* 1. Lehen erlijio-moldeak

Hala ere, mugimendu erlijioso handi horien aurretik ere, ehundaka urte lehenagotik, Txinako herriak bere monumentu eta idazkietan utzi zuen pentsamendu eta sentiera erlijiosoaren aztar-



HILDAKOEN KULTUA.Heriotze ondoren ere, familiartekoak dira hildakoak, biziak bezalatsu, eta zaindu egin behar dira beren hilobietan, intzentsua ezezik, lagun eginez eta jakiz hornituz. Ez dago familia osorik, hildakoak ahanzten badira.

na (K.a. 1500). Izadiari, naturari, adi-adi bizi zen erlijiotasun bat erakusten dute testu zahar haiek: Izadiarekin harmoniarik jatorrenean bizi nahi zuen herria zen aintzinako txinarra. Ama lurrari atxekita bizi zen sinestun hura.

Aintzinako herri-herriarena baino areago boteredunen erlijio-modua ageri da testu haietan: Lehen erlijio hura oso hierarkizatua ikusten dugu: Gizarteko egitura sozio-politikoaren ispilua da jainko-jainkosen hierarkizazio zerutarra. Enperadore zerutarraren gorteak Ortzia (Zerua) du buru, eta azpiko jaun zerbitzariak haren menpeko, hierarkian. Lurrean, ostera, Enperadorea da haren jainko-semea. Pentsakera hau (Txinako erlijio handietan arrotza zena) Beijing-eko Gortean urteoroko errituetan agertzen zen, 19llrarte oraindik.

Izadiarekin bilatzen zuten kidetasunaz gain, ezaguna da, batez ere, txinarrek izan zuten hildakoekiko jaiera eta kultua. Jaurerri bakoitzean arbasoen tenplu bat egoten zen eraikia, eta han oparien bidez hainbat asaben arimak elikatu behar izaten zituzten. Jauntxo ezberdinen familietako arbasoei kultu emanez jarraitzea premiazkoa zen gizarte guztiarentzat: herrialde bat ezin gera zitekeen bere lurreko jainkorik gabe, eta bisitatzera zetozen aintzinateko jainkoetatik aldendurik ere ez. Hil ondoan, hilaren bi arimek patu ezberdina zuten: **huen** edo izpirituzko arima zerura joaten zen, **po**, arima arruntagoa eta penatako egoera batera mugatua, lurpean hilaren inguruan zebilen bitartean.

Jatorburu hauei darien erlijiotasunarekin ondu edo eraiki ziren Txinan, korronte erlijioso

helduago eta konplexuagoak, dinastien garaiko erlijio handiak: Budismoa, Konfuzianismoa eta Taoismoa.

* 2. Budismoa Txinan

Ez dakigu zehatz noiz sartu zen budismoa Txinan; gauza jakina da, gure aroko lehen mendearen erdialdera, budista-komunitate bat bazela Jiangsu-n, luzaro taoismoaren sekta bat bezala kontsideratua izan zena. Budismoaren liburu sakratuak itzultzean garbi ikusi ziren taoismoarekin zituen alde garrantzizkoak. Budismoaren unerik gorena Txinan Tang dinastiaren garaian (VIII-IX.-etan) gertatu zen eta gainbehera, berriz, IX. mendearen erdialdera.

Budismoak zera irakasten zuen: gizonek, hil ondoren, berriz ere haragi-hartzen dute, birjaio egiten dira; bestalde, bizitza mina da eta min hau gainditzeko desira guztiak baztertu behar dira. Desira hauen deuseztatzeak Nirvanara eramaten du gizakia eta honek jainkoarekin bat-egitea eta berraragipenetik libratzea dakar.

Guztiari uko egitea proposatzen duen Budaren moral hau, ez dator bat Konfuziok proposa-



LONGMENeko HAITZULOAK. Txinako budismoan kultur interesik handiena izan dute erromes-tokiek. Longmen da horietako bat: 494ean eraiki zen hemen monastegi budista bat; geroztik han landutako irudi eta hilobiak datagarriak dira. VII.ean haitzulo berriak zulatu ziren oraindik enperadoreen aginduz.

tzen duenarekin, hau da, bakoitzak bere egitekoak gizartearen zerbitzuan ongi betetzearekin.

* 3. Konfuzianismoa (K.a. II. mendea)

Han dinastiaren garaian, Estatuaren doktrinatzat onartua izan zenean, konfuzianismoa ez zen jada Konfuzioren doktrina soila, ezta horren lehen dizipuluena ere. Une honetako ordezkaririk garrantzizkoenak, Dong Zhongshu-k, ideia magikoak sartu zituen bere izkribuetan. Inperioaren babesa galtzean, ordea, galdu egin zuen konfuzianismoak ere bere ospea, eta, Han dinastia desagertzean, inolako sostengurik gabe gelditu zen. "Erdi Aroan" (IV-X. mendeetan), aberats eta indartsu ziren komunitate budistekin hasi zen gatazkan.

Beranduago, XII. mendean, Zhu Xi izan zen neokonfuzianismoaren sortzailea; sistema eskolastiko bat sortu zuen eta irakaskuntza ofizialean inposatu. XX. mendearen egunsentirarte iraun zuen honek. Ming dinastiaren garaian, ospe handia hartu zuen filosofia bat ekarri zuen konfuzianismoak, Japoniara bertara ere hedatu zena.

Erlijio honen helburua, benetako gizon izatera nola iritsi ote zitekeen jakitea zen; baina gizona bakarrik bizi ez denez, arazoa gizartea egoki antolatzearena da, bakoitzak berari dagokion benetako lekua aurki dezan. Konfuzioren doktrina bizitzari buruzko araudi batzutan laburtzen da; hierarkia eta ordena goraipatzen ditu Konfuzianismoak. Gizon bakoitzak bere "daoa", bidea, jarraitu behar du, bere egitekoak ongi betez: "printzeak, printze izan behar du; menpekoak, menpeko; aitak, aita; semeak, seme". Guzti honetatik atera daitekeen ondorioa nabarmena da: Konfuzioren

Konfuzioren alde eta kontra

(Konfuzio begiratu izan da Inperioaren Maisu eta Irakasle bezala. Haren obren autoritatea hain da handia, zeren krimen zigorgarria litzateke haietan aldaketarik txikiena ere egin nahi izatea: asko zen haren irakatsiaren pasarte bat aipatzea, eztabaida oro isil erazteko; jakitun setatsuenak ere amor eman beharrean aurkitzen ziren. Baina, erabateko begiramendu horren ondoan,bestelakorik ere entzun izan da Txinan:)

Aldekoak

"...Horra zer den benetan jakituria txinarra, gobernuaren funtsezko printzipioak biltzen eta inperioan halako ordena ederra gordetzen duena. (DU HALDE, 1735)

"Konfuzioren bidea gizonaren bidea da. Gizadiak luzeena irauten duela ere, aldatu gabe iraungo du Bide horrek".
(WANG TAO, c. 1870)

"Ikasle bat egiaren bila dabilela bere jantzi pobreez eta jateko txarrez lotsatzen bada, halakoak ez du merezi inork hitz egin diezaion".
(KONFUZIO, K.a. 551-479)

...

moralak familia eta Estatua sendotzen ditu, eta hemen dago, noski, Txinako erakundeek hain luzaro eta hain sendo irautearen arrazoietako bat.

Konfuzianismoak, letratuen edo "mandarinen" nagusigoa suposatzen du, jakintsuen gobernua alegia. Hauek dira Konfuzioren arauen berri dakitenak eta pertsonaia honek gobernuari buruz ematen dituen arauak eztabaida ditzaketenak eta, azken finean, mandarinak izango dira erantzukizunik handieneko postuak hartuko dituztenak, ondorengo mendeetan.

*** 4. Taoismoa**

Erlijio-korronte hau, Han dinastiaren inperio-aldian (K.a. 206-K.o. 220) hedatu zen indar handiz, eta bere unerik garrantzizkoena, Sei dinastien garaian ezagutu zuen, Txinaren benetako bilakaera politiko eta erlijiosoa mamitzen ari zenean. Honen sorrera, halere, kristautasuna baino mende batzuk lehenago jar genezake. Konfuzianismoaren garaikide da gutxi gorabehera. Baina VII. mendean, Tang dinastiaren bake-aldia benetan kaltegarri gertatu zen taoismoarentzako, zeren konfuzianismoa nagusitu zen berriro, eta, aldi berean, budismoaren konpetentzia sufritu zuen.

Han dinastiaz geroztik, guztientzat irekitako erlijio bezala agertzen da taoismoa. Bere jarraitzaileak bi klasetan banatzen dira: "dao-she"ak, salbamena beren kabuz lortzen saiatzen direnak, eta "dao-min"ak edo herri fededuna. Hilezkortasuna eta absolutua lortzea da hauen helburua; ugariak eta mota askotarikoak dira beren jaiak, eta gorpuaren kontserbaziorako praktikek, defuntuen hilezkortasuna segurtatzeko egiten di-

...


Kontrakoak

"Historiak frogatu du, ezen konfuziotarrak ez direla inoiz gauza izan beren herrialdearen segurtasuna segurtatzeko eta beren printzea errespetaraztеko. Atzeratu hauek, bertutean iharduteak burulausoturik, eta akats garaikideak salatze antzua beste atseginik ez dutela, perlesiak jota gelditu dira ekintzarako". (Gatzari eta burdinari buruzko eztabaida, K.a. 81)

"Konfuzioren irakatsiaren eragina gure izpirituetatik ezabatzen bada, begiak ondo zabaltzen baditugu, berandu baino lehen maskaragabetu eta borrokatuko genuke edozein arribista gorazale, nahiz eta berau, Konfuzioren irakatsiaren laguntzarekin, historiaren gurpila atzera-bueltaka jartzeko konplotak asmatzen hasi". (Beijing Informa, 1974)

"Printzearen bertutea haizea bezalakoa da; herriarena, berriz,belarra bezalakoa. Haizeak jotzen duenean makurtu egiten da belarra".

(KONFUZIO, K.a. 551-479)



MUSULMANAK. Islam-a, bere lehenengo zabalkunde handian Txinara ere iritsi zen, eta handik hona Txinan ez da falta izan musulmanik. Ofizialki 651n sartu zen Islam-a Otman hirugarren kalifaren garaian, turkiarrei eta merkatariei esker. Gaur egun ere bere antolamendua ongien gorde duen erlijioa da hau. 25 bat milioi izango dira musulmanak Txinan gaur, eta badirudi azken urteotan badutela beren praktiketarako askatasun gehiago ere, 1978an Herri-Errepublikaren politika erlijiosoa zerbait ireki zenetik aurrera alegia.

tuztenek, garrantzizko lekua hartzen dute beren zeremonietan.

* 5. Kristautasuna Txinan

Dakigunez, Txinako lehen kristauak nestoriarrak izan ziren, Pertsiatik hara VII. mendean joandakoak. Eliza nestoriarraren barnean talde indartsua izateraino iritsi zen gero Txinako hau. Katolikoak beranduago iritsi ziren. Badakigu XIII. mendean Erromako Aita Santuak bidalitako frantziskotarrak nola harritu eta txunditu ziren, Karakorum-eko Gortean kristauak aurkitu zituztenean, hantxe, mongolen artean.


Geroxeago Beijing-eraino luzatu ziren europarren bidai haiek (Marko Polo, 1271-1295). Harremanak behin eta berriz berritu nahi izan zituzten Aita Santuek, eta Monte Corvinok bereziki (1289-1328) milaka bataio eman zuen Beijing-en eta bertako artzapezpiku izendatu zuen Aita Santuak.

Hogeitamar mila bat kristau zeuden Txinan orduan (1350), baina Ertasian zehar egin behar ziren bidaiak urte luzeak kostatzen zitzaizkien misiolari bidariei (itzulera bakarrik, bederatzi urte Marignolli legatuari, 1341-1353). Zailtasun horiek eta Ming dinastiaren igoera (1368) tarteko zirela, eten egin ziren harremanak Txinako nestoriar zahar eta katolikoekin.

XVI. mendeko Aurkikundeekin lotuta daude Aro Modernoan Mendebaldeko misiolariek sortu zituzten harreman-molde berriak. Haiek, portugaldarren Indiatik eta espainolen Filipinetatik egin zuten jauzi Txinara. Harremanen lehen pauso handia euskaldun bati zor izan zitzaion: Frantzisko Xabier-ekoari, hain zuzen (1505-1552). Japonian egon ondoren (1549), Txinan sartzera zihoala hil zen Makao aurreko irlatxo batean.

Bide berriak urratu zituena Mateo Ricci izan zen (1582): zientzia, diplomazia eta misiolaritza bat-eginda eraman zituzten josulagun honek eta beronen ondokoek. Mendebaldeko zientziak eta Txinako jakinduria eta kultura elkartuz eraman nahi izan zen misio-lan hura. Ondoko mendean, XVII.ean, Erakunde eta Ordena misiolari berriak eta kristau-talde ugariagoak aurkitzen ditugu Txinan: 1640an, 67.000 katoliko. Hierarkia ere ezarri zen.

GILEN RUBRUCK (1215-1295). San Luis Frantziako *Erregearen adiskidea* zen, eta beronekin Lur Santuetan ibilia. 1241ean bukatu ziren mongolen mendebaldeko erasoak, eta bazirudien, Islam-aren kontra aliatuak izan zitezkeela haiek, erlijio-arloan irekiak agertzen ziren, gainera. Hiru urteko bidaia egin zuen fraide honek Txinara (1253-1255). Konstantinopoli, Krimea eta Errusian zehar iritsi zen Karakorum-eraino. Europarren ezagumendurako interes berezia izan zuen Rubruck-en bidaiak. Haren prediku-asmoek porrot egin bazuten ere, itzultzean idatzitako berri emateak balio handia izan zuen ("Itinerarium ad partes orientales"): beste ezagumendu berrien artean, Kaspio itsasoa lur barneko bezala eman zuen lehenengoz, Balkash lakua ongi lekutu zuen, lurralde, herri eta erlijioen hainbat albiste etnografiko idatzi zuen, fauna, hizkuntza eta idazkerak baztertu gabe. Irudia: Rubruck, Luis IX.ari Asiako albiste-liburua eskaintzen (letra apaindu bateko marrazkia).




Fede-Zabalkunderako Kongregazioa sortu zenetik (1622), misioetan esku zuzenagoa hartu zuen Erromak. Ordenen arteko lehiakidetasunak eta misio-lanei buruzko ikusmolde ezberdinek "erritu txinarren" eztabaida liskartsua ekarri zuten (1645-1742), arazoak misioei ondorio politiko larriak sortzeraino. Azpitik zegoena zera zen: Nola egin Ebanjelioaren predikua Ekialdeko kultura eta gizarte ez europarrei? Erromak emandako erabakiei erantzunez, Txinako agintariek ateak itxi egin zizkieten ondoko mende t'erdian Mendebaldeko misiolariei.

Mendebalde kristauaren Txinako presentzia kolonialismoaren babes nabarmenago batekin agertu



MATTEO RICCI (1552-1610). Aro Modernoan Ricci-k eman zien hasiera Txinan misio katolikoei. Makao-n ikasi zuen txinera mandarina, eta ondoren sartu zen Inperiora: 1601ean Pekin-en zegoen. Mendebaldetik eraman zuen jakintzari esker, kargu ofizial bat eman zitzaion matematikari eta astronomo bezala, baina literatura eta filosofia txinarrak ere ongi ezagutu zituen. Bere aldetik txineraz eman zituen obrengatik klasiko bat bilakatu zen hango literaturan ere. Irudian: letratu txinarrez jantzita, Wanli enperadorearen aurrera agertu zen bezala.



PEKINeko BEHATEGIA. Txinarrek beren egutegia ongi ezagutzeko metodo astronomikoak ongi zaindu izan zituzten. Josulagunek Koperniko eta T. Brahe-ren ideia modernoagoak eraman zituzten, eta behategi hau eraiki zuten han, beren jakitatearen balio hobea erakusteko. Horrela, Gorterako ateak ireki zitzaizkien berehala.

zen ate joka XIX. mendean: Tianjin-eko (Tien-tsin) eta Beijing-eko Tratatuekin (1858, 1860). Bakeak bake, xenofobia bizia piztu zuen Txinan kolonialismo hark, eta boxer-en erreboltaren aurretik eta gero ere (1900) ez zen hilketarik falta izan.

Txinako harreman hauetan euskaldunik ere izan zen tartean: misiolariak lehenengo eta pelotariak ondoren. Josulagun, frantziskotar eta kaputxinoak hainbat misioetxe izan zuten han: Mao-k, "Ibilaldi luzea"ren ondoren hiriburutzat hartu zuen Shanxi-ko Yan'an hiriko katedraleak, halaxe suertatuta, Begoña-ko Andra Maria zuen zaindaritzat.

Shanghai (1930) eta Tianjin hirietan, ostera, pelotaleku ezagunak eraiki ziren. Eta kultur mundua ez dugu ahantzi behar: euskal aldizkarietan gerraurrean hainbat albiste zabaldu ohi zen Txinatik igorrita, eta, beste zentzu batean, hemen azpimarkagarria da A. David (1826-1900) ezpeletarra, Teilhard de Chardin-en antzera, natur zientziez arduratua eta XIX. mendean Euskal Herriak eman zuen natur zientzilaririk handienetakoa. Hark bezala, David-ek ere Txinatik ekarritako landare eta animalien bildumek aberastu zituzten Pariseko Museoak.

ORTZIAren TENPLUA. Enperadoreari zegokion mundua ordenamendu onean zaintzea; horretarako, erritu ugari bete behar zituen. Hauetako nagusienak Tenplu honetan egiten zituen. Eraikuntza honen teilatu biribilak Ortziaren --zeruaren-- sinboloak dira.



* 6. Sinkretismo erlijiosoa

Azken konklusio gisara zera esan dezakegu: Txinako hiru erlijio handiek, hots, Konfuzianismo, Taoismo eta Budismoak, hainbat tirabira izan dituzte elkarren artean mendeetan zehar, ageriak batzutan, disimulatuagoak bestetan, baina beti ere, luzarora, higapena suposatu dietenak. Budismoak eta Taoismoak atzera egin behar izan

Enperadorea zeruari deika

Probintzi erretorde batek jakinerazi ziolarik, haren gobernaherria lehorteak jota dena antzu gelditzeko arriskua zegoela, enperadorea sartu zen bere jauregian, eta barau eta otoitz aritu zen harik eta euria mardul egin zuela aditu zuen arte; honen ondoren ediktu bat eman zuen, aditzera ematen zuena,zenbateraino hunkitzen zuten bere herriaren ezbeharrek. Eta ordena eman zien mandarin handiei, eman ziezaiotela arretaz bakoitzak bere barrutiko berri, esanez, zenbaterainoko ezbeharrak ikusi behar izan zituen barruti bakoitzeko jendeak. Gero hitz hauekin amaitu zuen: "Tian-aren (zeruaren) eta gizonaren artean bada korrespondentzia bat hobenen eta zigorren,otoitzen eta onegiteen artekoa; bete itzazue zintzo zuen eginbeharrak... gure bekatuengatik zigortu gaitu Tian-ak eta".

(Txinako karta ereduzko eta kuriosoak, 1702-1776)

zuten Konfuzianismoaren aurrean eta VII-XIV. mende-artean ez zuten ia funtzionatu ere egiten sistema erlijioso zehatz bezala.

Erlijio-sistema bezala ez bada ere, Txinako ohituren gidatzaile bezala, bederen, eragin handia izan du Konfuzianismoak. Esan behar da, gainera egungo sistema politikoaren aurretik bazegoela herri-mailako korronte erlijioso bat ere aipaturiko hiru erlijioetako elementuen nahasketa batez osatua. Aipatu beharrekoa da, bestalde, txinarren mentalitate erlijiosoaren ezaugarri bezala doktrinekiko haiek duten axola-falta. Ekialde Urruneko zibilizazioek gizonaren garapen izpirituala bilatu dute. Mendebaldeán bezala ulertutako erlijiorik ez dugu aurkitzen han, koherentziaz gorpuztutako doktrinarik. Erlijioa Ekialdean, batez ere, meditaziorako eta bizitzarako arauak dira. Txinarren kezka, beharrezko momentuetan bontzoen zerbitzu erlijiosoetara inguratzea izango da (hiletetan, gehienbat). Erlijio-praktikak izpiritu txarretatik defendatzeko jarriak daude nagusiki.

E) ARO GARAIKIDEAREN HERRONKAK

Hiru puntu nagusitara bil genezake Txina garaikidearen historia: Lehenik, Mendebaldearekin izandako inkontru gaiztoa; bigarren, Txinako erregimen zaharraren erorikoa, monarkia tradiziozal hartatik errepublikara pasatuz; eta, azkenik, Mao-k gidatu zuen Iraultza handia. Pausoz pauso, erabat aldatu da munduan Txinaren presentzia.

* 1. Prozesu politikoa eta Atzerria (1840-1949)

Mende oso batean (1840-1940, gutxi gorabehera), Txinara hurbildu ziren potentzia atzerritarrek (Mendebaldekoek eta Japoniak), sortu zituzten gerren bidez, ongi erakutsi zuten Txina handiaren modernotasunik eza. Txinak, beraz, bere belaunaldi gazte eskolatuetatik hasita, krisi gogorra pasatu behar izan zuen, tradizioaren eta iraultzaren artean, bere errealitate nazionalaren eta Mendebaldearen artean.

Opio-negozioak

"Opioa oso pozoin fina eta ahigaitza da; guztiz kaltegarriak dira horren ondorioak. Askotan eta zorrotz izan da debekatua gai hau herrian sartzea, baina honek ez die galerazten barbaroei gai hori gaur egun Lin-tin irlaren ondoan gelditzen diren ontzietan saltzea. Arazoa azaldu zaio enperadoreari eta ordena zorrotzak eman ditu, gaitza bere zuztarrean desegin dadin".

(Dekretu txinarra, 1832)


a) Mendebaldearekin estropozo

Txinako historia garaikidearen hasiera XIX. mende-erdi aldera jar daiteke, indarrez europar merkatuei ateak ireki beharrean gertatzen denean, 1830 aldera. Azken misiolari jesuitak bertatik iraitzi zituztenetik, atzerritarrentzat erabat itxita aurkitzen zen Txina.

- Merkatal arazoak

Guangzhou/Canton-eko portu batean bakarrik onartzen zen atzerriko merkatariekiko komertzioa eta guzti hau, gainera, txinar merkatarien elkarte baten oneritziarekin eta beronen ardurapean. Makao-ko portugaldarrek eta, batez ere, britaniarrek Indiako kotoizko oihalak eta opioa trukatzen zizkieten, tearen eta zetaren ordainetan.

Baina Txinako agintariek merkataritza-mota hau oztopatu egin nahi izan zuten. Beijing/Pekin-eko aintzinako araudi bat praktikan jartzea zen haien asmoa, hain zuzen opioaren inportazioa debekatzen zuena, eta izan zen agintaririk hori gogor aplikatu nahi izan zuenik ere, baina britaniarrek indarrez erantzungo diete, eta Guangzhou



SHANGHAIri ERASOA. Taiping-en mugimenduak Ibai Urdinaren bokalea hartu zuenean, mendebaldarren hango merkatal interesak ito egin zituen (Ipar Txinarako arroz-merkatalgoa); potentzia mendebaldarrek armaz erantzun zuten. Grabatu hau urte haietakoa da (1855).

bonbardatuko dute, eta Shanghai berenganatu ondoren Nanjing-eraino iritxiko dira, bertan tratatu bat izenpetuaz, 1842an.

Tratatu honen ondorioz, Britainia Haundiko merkataritzari bost portutako ateak irekiko zaizkio eta Hong-Kong-eko uhartea utziko zaio berebat. Opioaren gerratea deitu zitzaion, baina egiazki Txinak atzerriko komertzioari ateak irekitzeko gerrate bat izan zen. Beste tratatu batzuek antzeko abantailak eskainiko dizkiete Estatu Batuei eta Frantziari, eta azken honek, gainera, kultu katolikoarentzako askatasuna lortuko du bere gidaritzapean zeuden misioentzat.

- Oreka desorekatua

Enfrentamendu guzti hauetan Txinaren ahulezia militarra nabarmendu zen. Hondamen guzti hauek txinar askoren baitan benetako gorrotoa piztu zuten atzerritarra zen dinastia mantxuaren aurka. Fenomeno honi nekazaritzaren miseria larria gehitzen badiogu, berehala ulertuko dugu sortzen ari zen krisialdi gogorraren benetako esplikazioa.

Txina barruan sortu ziren inperioaren aurkako mugimenduen aurrean Mendebaldeko potentziak zeinen aldeko jarrera hartu jakin ezinik geratu ziren. Zalantzatan aurkitu ziren, Txinara modernizazioa ekarri nahi zuen matxinadaren alde jarri, ala inperioaren alde borrokatu ezin asmatuz, ordurarteko erregimena arkaikoa bait zen. Baina atzerritar botereek, beren eskabideei Pekinek erantzun bat ematen ziela ikustean, Inperioaren alde jarri ziren, eta sorturiko matxinadak menperatzeko munizioak, teknikariak, trebatzaileak, etab. eskaini zizkioten erregimenari. Inpe-

rio mantxuak, Europaren laguntzarekin, bere burua horrela salbatu ahal izan zuen.

Edozein modutara ere, Gobernu europarren eta Txinaren arteko gatazkak ez ziren hemen amaitu, eta europarrak garaile irtetzean, abantaila berriak lortu zituzten. Txinari ezarri zitzaizkion tratatuak zirela eta, beste hamaika portuk ireki zizkion ateak atzerritar komertzioari. Inperio barnean libre mugitzeko askatasuna ere aitortu zitzaien europarrei. Erlijio-askatasuna guztiz onartua gelditu zen egoera honen ondorioz.


Urte hauetan eta Japoniak egin zuenaren alderantziz, Txina bere tradizio eta ohituretan itxiko da eta fidakaitz agertuko europarrekiko, hauek hango ondasunak esplotatzeko irrikitzen zeudela ikusten bait zuen.

b) Japonia boteretsua

Korea aldean bere nagusigoa ezartzeko egin zituen ahaleginek Japoniaren aurkako gerrate batera eraman zuten Txina (1894). Eraberritua aurkitzen zen Japoniak berehalako garaitzapenak lortu zituen eta lurralde batzuk eskuratu zituen, (Formosa, etab.). Botere europarrek, Japoniaren garaitzapen hauekin aztoraturik, geldierazi egin nahi izan zuten lehiakide berriaren politika hedazale hura. Txinaren ekialdean, beraz, lortu zuen Europak ere berea.

Mendebaldarren parte-hartze honek arrakasta handiagoa zuen iparraldean, gutxiago aurreraturik egotean xamurragoa gertatzen bait zen alderdi horretatik sartzea: 1896az geroztik Mantxuria zeharkatzen zuen trenbide bat urratu zuen

TXINA/JAPONIA. Bi herriok oso era desberdinetan erantzun zioten Mendebaldeari. Txina bortxatua izan zen, eta bere baitara itzuliz xenofobia hutsarekin edo erantzun zion erasoari; Japoniak,ostera,teknologia arrotzak bereganatuz eta barneko egitura sozio-politikoak modernotuz ihardetsi zuen. Irudia:Hutsu-Hito (1852--1912) Enperadore japoniarra gerrate sino-japoniarrean armadari banderak ematen.



Errusiak eta Lüshun (Port Arthur) akuratu. Alemaniak, Frantziak eta Ingalaterrak ere ekialdeko zenbait eskualde hartu ahal izan zuten beren kontrolpean.

Guzti honen ondorioa nabarmena da: Txinako merkatu zabala mauka gozoa zen Estatu hauentzat eta, egiten zituzten inbertsioak zirela eta, irabazi franko ateratzeko aukera izan zuten. Baina txinar askoren artean amorru bizia piztu zuen atzerritarren politikak, berehala herritarren mugimendu bati leku emanez: artisau eta nekazariz osaturiko elkarte sekretuak sortu ziren. "Boxer" taldeak indarrezko kanpaina bat eratu zuen kanpotarren aurka.

Lehen momentuan Legazioak setiatu eta isolatu zituzten; bainan, 1900ean, botere europarrek, elkarturik, espedizio bat prestatu zuten galdutakoak berreskuratzeko. Ondorioz, potentziek beren baldintzak ezarri zizkioten Txinari (1901): atzerritarren egoera segurtatzeko, neurriak hartu beharko ditu Gobernu txinarrak eta 450 milioi taeleko kalteordain bat pagatu beharko du, gainera. Ordainketa hauek egiteko mailegutara jo beharrean aurkitu zen Txina, eta egoera hau probetxatu zuten europarrek beren ekonomiaren nagusigoa oraindik ere areagotzeko.

Ondorengo urteetan agintari txinarren ahaleginak aldakuntza nagusi batzuk egitera zuzendu ziren: Irakaskuntzan, armadaren barruan eta, orokorki, administrazioan. Baina asmo guzti hauek burutu nahi zituen enperadoresa berehala hil zen (1908), eta ondokotzat haurtxo bat izendatuko da oinordetzat. Baina momentuz izendaturiko erretordeak inperioaren ahulezia handiagotzea besterik ez zuen lortu, eta geroz eta indartsuago ziren indar

CIXI ENPERADORESA (1835-1908). Alargundu ondoren, bere eskuetan eutsi zion aginteari (1861-1908), nahiz eta hildakoaren ohekide apala besterik ez izan. Seme eta iloba enperadoreen erregentea izan zen, baina erabat jabetu zen haien botereaz. Benetako Enperadoresa izan zen, ia 50 urtetan. Ideia oso kontserbakorrak izan zituen politikan, eta beharrezko aldakuntza asko eragotzi zuen. Mendebaldarren politikaren kontrakoa izan zen, bestalde.





iraultzaileek denbora asko baino lehen eraman zuten mugimendua garaitzapenera.

c) Iraultza liberala: Ezina ala ez-askia?

Iraultzaile errepublikazaleen ustetan, une hartantxe agortu zituen dinastia zaharkituak bere azken ahalbideak. Sun Zhongshan-ek (Sun Yatsen) amesten zuen Errepublika aldarrikatzeko momentua iritsi zen. Isilpeko bi elkarte errepublikazaleren erabakiz (Wenxueshe eta Gongzhin Hui) lehertu zen matxinada (1911).

Baina behin-behineko Lehendakari izendatutako Sun-ek agintea armagizon bati utzi behar izan zion: Yuan Shikai-ri (1912-1916). Interes nagusien ordezkaria zen hau, baina beronen autokratismoak ez zuen irterbide modernorik aurkitu Txinarentzat. 1912-1919 urteak nahasmendu politiko eta militar handikoak gertatu ziren, batez ere Yuan Shikai desagertu ondoren. Potentzia atzerritarrek ere bazuten horretan parterik.

SUN ZHONGSHAN (Sun Yatsen) (1867-1925). Sun da Txina modernoaren aita. Medikua zen, Honolulu-n ikasi zuen eta USA-ko hiritar ere izan zen denboraldi batean. Iraultzaile antimantxuak hain sakabanatuta ikustean, haien batasunari laguntzea erabaki zuen. Erbestetik hasi zen mugimendu haiek biltzen (1894). Londres-en bahitu egin zuten enbaxada txinarreko funtzionariek, baina gobernu ingelesari esker irabazi zuen berriz askatasuna. Hiru oinarritan laburtu zuen bere asmo politikoa: abertzaletasuna, demokrazia, sozialismoa (1898). Guomintang alderdian egikaritu nahi izan zituen xedeok. 1911ko Iraultzan parte hartu ondoren, Txinaren batasuna laguntzeko erretiratu egin zen, oposiziotik lan eginez. 1922-1925 urteetan oinarri teoriko berria eman zion Guomintang-ari, nazionalistak eta komunistak elkartu nahiz. Haren alarguntsa Herri-Errepublikan lehendakariordea izatera iritsi zen. Argazkia: Sun eta beronen Estatu Nagusia Ming-darren hilobiak bisitatzen. Iraultzak, Txinaren baliozko tradizio eta historia ere jaso nahi zituen.

Lehen Mundu-Gerrateak eta ondoko nazioarteko erabakiek garbi erakutsi zizkieten txinarrei berriz ere, Japoniak zuen errespetagarritasuna eta potentzien Txinarekiko mespretxua. Ikasleek eta langileek bat egin zuten oraingoan intelektualekin: Iraultza Errusiarra eredu esperantzagarria bilakatu zen askorentzat, kapitalismo kolonialista atzerritarraren atzaparretatik ihes egiteko. Iraultza abertzale eta sozialak elkartasun-bide berriak urratuko zituen ondoko urteetan.

Alde batetik, Sun-en Guomindang erakunde nazionalista zegoen (1891n sortua eta 1911n hegoaldean Errepublika ekarri zuena). 1921ean, ostera, Txinako Alderdi Komunista sortu zen. Bi alderdiok beren lankidetza indartu egin nahi izan zuten, baina laster lehertu zen Jiang Jieshi-ren (Tchiang Kai-chek) etsaigoa, hirietan hainbat komunista afusilatuz. 1928an bi gertakari nagusi dauzkagu: Guomindang-ek ipar-hegoaldeen arteko batasuna lortu zuen, aspalditik zetorren gerrate zibilari amaieraren bat emanez.

Baina gertatutakoen ondoren, urte berean Alderdi Komunistak bere armada osatu zuen. Aldi berean, Guomindang-ek hartu zuen Japoniaren kontrako gidaritza nagusia (1931-1945), baina ez Sun maisuaren ideia eta jokabideetatik geroz eta urrunago joan gabe. Bienbitartean, pertsegizioak, eguneroko borroka armatuak, Txinako nekazarien egoera sozialak eta gidarien abildadeak indartu baizik ez zituzten egin mugimendu eta armada komunistak. Hamabi hilabeteko "Ibilaldi Luze" baten ondoren (11.000 km-ko bidea: 1934-1935), Mao-ren armadak, hegoaldea utzita, Shaanxi-n aurkitu zuen bere egoitza (Yan'an hiriburutzat hartuz), Estatu iraultzailea eratzen hasiz. Hortik, erresistentzia anti-japoniarraren bandera hartu zuen bere eskue-

Bizitza, interesen truke (1929)

(Nekazari txinar baten gaztetako oroitzapenak:)

"Lin Ling-era etorri nintzenean ezertxo ere gabe nengoen. Jateko txotxak ere saldu beharrean aurkitu nintzen Yuling-etik alde egingo banuen. 60 zilar-dolar eskatu behar izan nizkion maileguan Li Yu-tse-ri. Hilero % 30 kobratzen zidan interesen interesekin. Gasaila garestia zen, interesak ere garestiak ziren; akuratutako idi-pareagatik 68 kin ordaindu beharra neukan. Urte osoan lan egin eta belar batzuk besterik ezin genuen jan. Urte osoan aritu ginen lastoa alearekin nahasten, gehiago iraun zezan. Hona etorri nintzenean, aita, ama, andrea eta bi anaia txikiagorekin etorri nintzen. Hilean hilean ordaintzen nion Li Yu-tse-ri. Iraultzak zor guztiak kendu zituenean, 1935ean, azkeneko 30 zilar-dolar ez gainerako guztiak ordainduta neuzkan nik. Harro nago horregatik".
(MA HAIXIU, 1962) (51 urtekoa)

MUTIKO LANGILEA (1920-22)

(Txina-ko nekazarien bizi-egoera itxuragabekoa zen askotan. Mao-ren hiriko burua izandako Yan'an-en ondoko herritxo bateko laborari baten historia pertsonala da hau. Honelako gizarte honetan aurkitu zituen Maok Iraultzarako baldintza sozialak. Ching Chung-yin 54 urteko gizasemea zen:)

Bizitza latza zen eta hamabi urterekin hasi behar izan nuen nere mantenua irabazten. 1920ko urtarrilean hasi nintzen lanean Wang Gouhe izeneko etxejaun baten etxean. Oilarrak jotzean iratzartzen ninduen. Ura eta gorozkiak kargatu behar izaten nituen. Denetik egin behar izan nuen. Udako egun batean, meloiak heltzeko garaia zenean, lurrera erori eta lehertu egin zitzaidan bat. Agitura bat besterik ez zen izan, ustegabekoa, baina Wang Gouhe-k, amorru bizian aitzurra hartu eta buruan jo ninduen. Hona oraindik zauri-arrastoa. Zerraldo gelditu nintzen lurrean konorte gabe eta atzera nere baitaratu nintzenean, iluna zen ia.

Inork ere ez daki zenbaterainokoak ikusi behar izan zituen pobre-jendeak. Nik hamabi urte nituen eta praka-pare bat ere ez nuen jazteko; eta etxagunak jo egiten ninduen; eta askotan jo ere. Dena nere erru zen. Askotan bost edo sei aldiz jotzen ninduen egunean. Etxagun aberatsa zen, 600 mu izango zituen gutxienez, ibarrean eta mendialdean. (...).

Hurrengo urtean, hamahiru urterekin, Zhou Guanyu izeneko lurjabe baten kontura lan egin nuen. Artzain ibili nintzen. Eramangarriagoa zen hau. Lau aldiz bakarrik jo ninduten urte osoan. Baina belarrondokoak ematen zizkidaten. (...).

Hogei urte nituela, gosete handia zabaldu zen. 1928an zen. Anaietako bat hil zitzaidan. Ni, nere aita eta nere hiru anaia txikiak Shenxi-ra aldatu ginen. Han bizimodu hobea zegoen. Han nere bi anaia txikienak saldu genituen. Saldu beharrean aurkitu ginen, biziko baginen. 28 zilar-dolar eman zizkiguten batagatik eta 20 besteagatik. Ez dakit nora joan ziren. Geroztik ez dut haien berririk jakin. (...).

Han jornalari bezala lan egin nuen. Pixkana-pixkana, Armada Gorriaren berri entzuten hasi ginen. Nahikoa ondo zegoela eta esaten zuten. Aberatsen lur, animalia eta aleaz jabetzen omen zen, horiek gero herriko jendearen artean banatzeko. (...).

1938an ezagutu nuen komunista bat. Wu Shenzai zuen izena. Erdimailako adina zuen, hogeitamarren bat urte. Yan'an-dik etorria zen han propaganda egitera. Hala esan zidan behin: "urte osoan kondenatu batek bezala lan egiten duzu lur-jabearentzat, baina beti eta beti errukarri bizi zara. Aberastasunak pilatzen ari zara besteentzat, baina zu zeu gosea pasatzen ari zara". Gero Yan'an-ez hitz egin zidan. 1938ko otsailean zen.

Nere aitarekin hitz egin nuen orduan eta erabaki genuen, ni Yan'an-era joango nintzela, esaten zutena egia ote zen ikustera, alegia, pobre-jendeari lurra ematen zietela eta, gobernua ona zela eta. Gau batean Yan'an-era joan nintzen. (...). Gero ikusi nuen, ondo egoten zela han eta esaten zutena ere egia zela".

(CHING CHUNG-YING, 1962)

tan Alderdi Komunistak, Jiang Jieshi-ren (Tchiang Kai-chek-en) utzikeriak salatuz.

Japoniaren kontrako gerrak aukera egokiak eman zizkion armada iraultzaileari armada nazionalistatiko ihesleak bereganatu eta, garrantzizkoa dena, herritar zibilen aurrean askatzaile nazional eta sozial bezala agertzeko. Garaitzapena heldu zenean (1945), Mao --Guomindang-i aurrea hartuz-- japoniarrek galdutako lurralde eta armak hartzeko moduan aurkitu zen. Armada Gorria egoerarik onenean zegoen Jiang Jieshi-rekin gogorki negoziatzeko, eta honen erakunde politikoak (Guomindang-ek, alegia) komunistek ezarritako baldintzak onartu ez zituenean, gerrari ekin zion: urtearen azkena baino lehen (1949), Txina osoa (Taiwan eta Tibet ezik) Armada Askatzaile komunistaren menpean geratu zen. Urriaren lehenengoan aldarrikatu zuen Mao-k Txinako Herri-Errepublika.

"IBILALDI LUZEA" (1934-1935). Honela deitu zitzaion, Mao-k gidatuta, Armada Gorriak estrategia berri baten barnean egin zuen urtebeteko ibilaldi handiari. Hegoaldean, Jianxi-ko probintzian, sortuta zeukaten Errepublika laga eta iparraldera joan zen armada komunista, Herri-Errepublikari Shenxi-n egoitza berria emanez. Hango Yan'an hiriburutik zabaldu zen gero mugimendua gainerako Txina osora.



- Lehenengo Herri-Errepublika (Jiangxi: 1928-1934)
- Shenxi-ko egoitza berria (1934-1944)
- Hedakuntza komunista (1945--1946)
- Lurralde komunista (1949ko lehenengotan)
- Armada Gorria (nagusia)
- Beste armada gorriak

* 2. Iraultza maoista (1949-1976)

Munduan ezagutu diren iraultza sozio-politiko handienetako bat izan da Iraultza Txinarra, zalantzarik gabe. Alde bat baino gehiagotatik begiratuta, baiezta daiteke, gainera, hori: a) Lehendik, Txinak ezagutu gabeko ideologia baten eraginez egin zen berau (Mao-k txineraz ulertu eta aplikatu nahi zuen marxismo-leninismoaren arabera, alegia). b) Molde politiko berriak eraiki ziren Herri-Errepublikan, eta guzti honen azpian, gainera, produkzio-sistema berriak ezarri ziren Txinako ekonomian. c) Azkenik, herriaren partaidetza iraultzailearen parte-hartzea ere berritu egin nahi izan zuen iraultza honek.

Baina xede hauek denak ez ziren, inola ere, berehala eta errazki lortu, lortu zirenetan ere.



MAO ZEDONG (1893-1976). Hau izan zen Iraultza Komunistaren "Lemari Handia". Filosofo iraultzaile, politiko, militar eta idazlea izan zen Mao. Mendebaldeko literaturan ase zuen gazterik bere jakin-nahia, eta errotik ezagutu zuen marxismo--leninismoa. 1922an sortutako Alderdi Komunistak Guomintang--arekin harremanak eten zituenetik (1927), indartu egin zen Alderdian Mao-ren betekizuna. Gerrila eratu zuen, eta aldiberean bere eskuetan zegoen lurraldean lur-erreforma egin zuen, Iraultza herri nekazariarekin batera egiteko (1931). Hegoaldean eta gero iparraldean, azken garaitzapenaren zain egon gabe (1949) ekintza armatuarekin batera aldakuntza sozialak eta ideien zabalkundea bultzatzen saiatu zen.

FEUDALISMOAREN HERENTZIA

"Baina guk Txinaren eta Mendebaldearen arteko harremanen historia sakonago begiratzen badugu eta modernizazioaren aurrerapena trabatu duten faktoreak aztertzen baditugu, konturatzen gara, Txinaren atzera-gelditzearen sustraiak areago daudela bizi-molde prekapitalistarenak diren ekonomia eta pentsaerazko egituretan, eraso inperialistetan baino. Hildako belaunaldi guztien tradizioak, amesgaizto batek bezalakoxe pisua du bizien buruan. Historiaren ironia da, erregimen feudalaren azpian egikaritu zen guztia -- agintekeria politikoa, despotismo kulturala, burokratiko feudala, nepotismoa, xenofobia, atzerriarekiko itxitasuna, kontserbadurismo ekonomikoa, obskurantismoa, zientzia modernoarentzako eta teknologiarentzako mespretxua (...) berriro izan dira berpiztuak kultur Iraultzakoan. Gauza ziurra da, modernizaziorik ez dela emango feudalismoaren arrastoak alde guztietan ageri diren bitartean. Horiek, berriz, ez dira desagertuko herrialdea zuzterretik modernotzen ez den bitartean".

(ZHANG/LUO, 1980)

a) Iraultza-aurrekoak

Batez ere nekazal herria zen Txinakoa, baina hango atzerapen teknikoaren menpean aurkitzen zen bertako lurgintza. Egoera honek, noski, ondorio larriak zituen herri osoarentzat, zeren produkzioak ez bait zien erantzuten, behar adinean bederen, gizarte haren premiei.

Atzerapen teknikoarekin batera bada, ordea, bestelakorik ere. Sistema sozial zaharkitu baten zama zuen gainean nekazari soilak: zergek eta errentek kentzen zioten honi uztaren parte on bat. Nekazari maizter txikiek ez zuten aurrera irtetzeko modurik ikusten.

Lanaren karga, berriz, oso gogorra zen holakoentzat. Produkzioa gehitu edo lana arintzeko baliabide tekniko eskasak zituen: askotan goldea zen tresneria osoa, eta berorrekin lan egiteko gurtabererik zegoenean, hor nonbait. Horrelakorik ez zegoenean --askotan-- giza indarrak jartzen zuen sorbalda. Bestalde, urte oneko uzta aberatsagoek ere ez zuten aurkitzen merkatu erosorik, garraiobideen eskasiaz. Txina zabalean eta gaizki komunikatuan, elkarren ondoan suerta zitezkeen gosetea eta uzta oparoa.



JUSTIZIA BERRIA.Txinako Iraultza sozialak justiziaren aldakuntza ere ekarri zuen. Zuzenbide politikoaz gain, soziala ere garatu da, produkzio-harremanak modu berri batean arautuz. Irudian, ezkon-banaketarako epaiketa bat. Zuzenbide berrian famili bizitzari jite modernoago bat eman nahi izan zaio, senar-emazteen eta guraso-haurren artean bakoitzaren eskubideak hobeki zainduz.

PRODUKZIO-SISTEMEN ALDAKUNTZA (1952-1956)

(Txinako Iraultza komunistaren xederik nagusiena produkzio-harremanak aldatzea izan zen. Hona nola azaltzen duen aldakuntza haren historia, hartan parte-hartu zuen laborari batek:)

"Guomitang-aren okupazio-garaia zen (1948). Berehala hil zen semea, eta gero alaba bat izan genuen. Lehenengo urtean mendian aritu nintzen lurberritzen. Pionero izan nintzen. Gero, bakarrik lan egin nuen bi urtean. 1950ean idi bat erosteko modua izan nuen eta arinagoa izan zen lana. Hurrengo urtean, 1951n, astoa erosi nuen. 1952ko urtearen lehenengo erdian, lana elkarrekin trukatzeko ekipo bat antolatu zen eta ni aukeratu ninduten buru. Batabesteari laguntzen genion, lagundu, baina inoiz ez zen jakiten jendea etorriko zen ala ez; agian bai agian ez ibiltzen zen pixka bat dena. Urtearen bigarren erdialdean, ekipo hartatik beste berri bat egin genuen, produkzioko eta elkarri laguntzeko ekipoa alegia. Hobeto antolatu genuen eta denak konprometitu ziren puntualki etortzera eta beren kontzientzia osoarekin lan egitera.

1953an, gure ekipokoak ziren herriko laborari gehienak. Eritzi desberdinak izan ziren eta eztabaida larriak ere bai gai honetaz. Lana trukatzeko ekipoan aukeratzea zegoen zein pertsonarekin egingo zen lan-trukea eta langilerik onena aukera zitekeen laguntzat. Orain produkzioko eta elkarri laguntzeko ekipoan, bakoitzaren lana puntu jakin batzuren bidez baloratzen zen, 1etik 10era. Hasieran, langile onek ez zuten ezer jakin nahi izaten elkarri laguntzeko ekipo iraunkorki antolatu bati buruz. 'Gure lana langile txar batenaren truke ematen baldin badugu, galtzen ateratzen gara', esaten zuten. Eztabaidatu genuen haiekin arazoa, eta esplikatu genien, puntu batzuren bidez baloratuko zela bakoitzaren lana, demokratikoki, inork bere lana beste batenaren truke ematean ezer galdu ez zezan eta berebat norberaren alferkeriaz edo ezgaitasun fisikoaz inork aprobetxatzerik izan ez zezan. 'Ondo lan egiten duenak, puntu asko izango ditu, gaizki lan egiten duenak gutxiago izango ditu, esan genien. Neri neroni, hasiera-hasieratik iruditu zitzaidan beharrezkoa eraldaketa hura. Batabesteari laguntzen bagenion mundu guztia biziko zela hobeto, pentsatzen nuen nik. Baina hau modu organizatuan eta ondo planeaturik egin beharra dago.

1953ko abendutik 1954eko urtarrilera bitartean eztabaidan aritu ginen, ea gure produkzio-ekipoa ***nekazal kooperatibatan*** *aldatu behar ote genuen ala ez. Jeneralean, lur txarrak zeuzkatenak alde zeuden eta lur onak zituztenak kontra. Adibidez, Chao Thao-pe nere etxekonak eztabaidakoan altxatu eta esan zuen: "Nik ez dut mendira joan nahi, han gogor lan egitera". Frogatu genuen burutsuagoa zela sail handiak lantzea, taldean lan eginez, eta irabazi ere gehiago egingo zela nekazal kooperatiba batean sartuz. 'Lan-eskua akuratuko dut' esan zuen orduan. Erantzun genion, seguraski ez zela hain erraza izango. Orain, nekazaritza kolektibo honekin, ez zegoela jornalaririk eta morroirik. Nahiago zutela denek norberaren kontura nekazal kooperatiban lan egin, ez nekazari indibidual batentzat aritu. Azkenik frogatu genion, ale gehiago eta diru gehiago jasoko zuela bere lanagatik kooperatibarekin batzen bazen. (...).*

Hurrengo neguan, 1955-56koan, gure lurraldeko familia guztiak batu ziren Wangchiakou-ko nekazal kooperatibarekin eta orduan eztabaidatu zen, ea gure nekazal kooperatiba ez ote zen ***nekazal kooperatiba aurreratutan*** *aldatu behar. (...) Lehen hartan izan ziren baten batzuk aldaketa hori onartu nahi ez zutenak. Lur onak eta ganadu asko zituztenak izaten ziren beti ere. Beren ustez, galtzen aterako zirela eta. (...) Frogatu genien, ekonomikoki ez zutela ezer galduko. Kooperatibak erosiko ziela ganadua eta, urte batzuren buruan, ordainduta egongo zela".* *(FENG CHANG-YEH, 1962) (38 urteko nekazaria)*

Industria modernoa oso puntu eta kokagune jakinetan biltzen zen. Shanghai eta Tianjin (T'ien-tsin) bezalako hiriek biltzen zituzten, beren auzoetan, Txina-ko langileria industrialaren hiru laurden. Langileon bizi-modua, pentsa daitekeenez, ez zen batere samurra: 12 eta gehiago orduko egunaldiak, haur-emakumeen lana, soldata apalak, etxebizitza errukarriak.

Intelektual, iraultzaile eta beste askorentzat ere egoera hau ezin luzatuzkoa gertatu zen, ezin jasana benetan. Iraultza-indarren aldakuntz promesa zen, beraz, itxaropidea.

b) Iraultzaren ondokoak

Iraultzaren ihardunbidean aldi jakin batzuk eman ditzakegu: 1) Lehenengo lau urteak (1949-1953): batez ere, egitura zaharrak desegiteko balio izan zuten (ekonomia feudala, familia tradizionala, hizkuntza...). 2) Ondoko urteetako Bosturteko Plangintza (1953-1957): enpresa pribatua kendu, eta produkzio-tasa jaso zen, bizi-maila hobetuz. 3) Hurrengo Plangintzan (1958-1963), aurrekoan hasitako nekazal erreforma areagotu zen. 4) Aldakuntza hauek herrian eta alderdian piztutako gatazkei erantzuteko "Kultur Iraultza" abiarazi zuen Mao-k (1964-1976), lanbide-, herrialde- eta gizarte-taldeen arteko kontraesanak ideologi eta mentalitate-berrikuntza baten bidez gainditzeko asmoz.

Emakumea konstituzioan (1978)

"Emakumeak gizonaren eskubide berak ditu bizitzako alor guztietan, politikan, ekonomian, kulturan, gizartean eta familian. Gizonak eta emakumeak ***lansari berdina*** *jasoko dute* ***lan berdinagatik.***

Ezkontzako kontratuak egiteko oinarria izango da, gizon-emakumeen arteko adostasun librea. Ezkontza, familia, ama eta umea Estatuak babesten ditu. Estatuak goraipatu eta adoretu egiten du famili planifikazioa". (53. Artikulua)

EMAKUMEA, TXINAN. Txina tradizionalean emakumearen lekua erabat bigarren mailakoa zen. Ez-ezkonduak ez zuen rol sozialik, eta ezkondua senarraren esanetara zegoen guztiz. Kong Fuzi-ren filosofia izan zen, neurri handi batean, emakumearen egoera sozial gogorraren kausantea. Familia pobreetan, zoritxarra zen nexka baten jaiotza. Txina berrian berdintasun osoa eman nahi izan zaio emakumeari.

Aipa ditzagun, ba, hemen Iraultza Txinarraren obrarik garrantzitsuenak.

- Nekazal erreforma

Gobernuak heldu zion Erreformari: lehen pausoa 50.000.000 Ha lurjabe handien eskuetatik kentzea izan zen, eta nekazariei banatzea. Lurgintzaren sistema feudala deseginda geratu zen une horretan; bapatean milioika nekazarik aukera izan zuen, auzo-lagunekin bat eginda, bere lur-lanaren gain erabakiak librekiago hartzeko. Jabe txikiak bere hartan jarraitzerik izan arren, batez ere elkarte-lana bultzatu zen.

- Lurren kolektibizazioa (1953)

Lehen fase horretatik aurrera joaz, kooperatiben garaiari ematen zaio hasiera (1953): 700.000 bat kooperatiba eratu ziren, bakoitzak 100 edo 200 jabe zituela. Kooperatiben lehen ekinaldian jabetasuna gorde egin zen, 1956an bigarren aldia hasi zen arte: lurraren jabetasuna herri osoarena bilakatu zen; etxea eta ondoko baratzatxoa ziren bakarrik norberaren ukantza pribatuak.

Jabetasunaren aldakuntza honek erraztasun ezezagunak ekarri zituen lurgintzan, teknika eta tresneria berriak sartzeko, horrela, Txinako lurgintzaren atzerapen-aje hura sendabidean jarriz.

- Industrigintza

Txinako ekonomiaren primitibismoa eta desoreka sektorialak ezagutuz, ahaleginik handienarekin heldu zitzaion, industri eraberritzeari ezezik, industria berriak sortzeari ere. Lehenengo

Bizi-maila apala (1962)

(Ekonomi garapenerako egon diren baliabide mugatuekin, Iraultza maoistaren ondoren ere nekazarien bizi-maila nahikoa pixkaka igo da; baina egitura produktiboa da guztiz aldatu zena:)

"Guri nahikoa poliki doakigu. Gure familian bi gara lan egiten dugunak: ni eta nere suhia Lin Chingtsei. Dezente lan egiten dugu. Ez naiz Partiduko kide, politika ez zait inoiz interesatu. Beste garai batean denok geunden zapalduta, pobreak ez zuen eskubiderik. Hona etorri nintzenean eltze bat besterik ez nuen; orain idigurdia beharko nuke nere gauza guztiak garraiatzeko. Bizikleta bat ere badut eta karro koskor bat ere bai, kautxuzko gurpilduna. Gaur egun badago ondo bizitzeko modurik, lana ere asko egin behar da baina".

(CHING CHUNG-YING, 1962)
(54 urteko nekazaria)

Bosturteko Plangintzak (1953-1957) batez ere oinarrizko industria astunari eman zion lehen tokia (altzairu, elektrizitate, zementu, eta abarri), inbertsioaren % 60 beroni eskainiz.

Planifikazio honetan Soviet Batasunak ereduak, antolamendua, teknikariak eta dirua ere jarri zituen Plangintzarako. Handia eta harrigarria izan zen urte hauetako aurrerakada industriala. Iraultza-aurreko teknikari edo dirudun trebatuk ere parte hartu ahal izan zuen esperientziaren lehen aldian, 1956rako Estatuaren kontrola erabatekoa izan bazen ere.

- Komunak

Aurreko aldakuntza horiek lurgintzari eskakizunak ezarri zizkioten, industriaren eta lurgintzaren arteko oreka berri bat lortuz. Goian aipatutako 700.000 kooperatiba haiek 26.000 produkzio-komunatan bildu ziren. Produkzio-unitate hauetan industria eta lurgintza, biak, elkartu nahi ziren, tokian tokiko ondasunak (landa-produkzioa eta meatzak, adibidez) industria arinetan landuz. Bide horretatik gainera, industria astunak ezarritako zentralizazio industriala hautsi egin zen.

MAOISMOAREN KRISIAK

"Herrialde sozialisten artean Txinak bakarrik igaro du hainbat krisi politiko. Erakunde sendoak eta administrazio gauza-den eta efikaz bat sortu ez zuelako, gerra zibilean erortzeko zori-zorian aurkitu zen Txina Kultur Iraultzakoan.

Nazioaren osotasuna zainduko bazen, beharrezkoa izan zen, Mao Zedong-ekiko leialtasun baldintzagabekoa hots egitea, eta egin ere, politikan atzera-pauso handia adierazten zuen moduak erabiliz, egin zen, hala nola: nepotismoa, ahaide eta bezeroekin partekatutako boterea, ideologi kanpainen aitzakiatan egiten ziren alderdikeriazko borrokak; 'feudalismo faxista'tzat jotzen dira gaur praktika horiek denak; horrenbesterainoxe gogoratzen dituzte horiek erregimen zaharraren ohiturak". *(M. CARTIER, C. MEUWESE)*

Lehen Plangintzak sortutako baikortasunak hoztu egin ziren 1960aren inguruan: Alde batetik, lehorte eta uholdeek ekarri zituzten hondamendiak, eta, politikan, Soviet Batasunaren laguntza-ukazioa izan ziren kojuntura aldarazi zutenak. Komuna txikiagotara jo zen: 74.700etaraino ugaritu ziren holakoak.

Ekonomiaren birmoldakuntzak, ordea, ezingo ditu bere baitandik bakarrik erabakiak hartu. Izan ere, teknokratak eta alderdiko bertako politikoak zuzenean erasoko ditu berehalako Kultur Iraultzak, denei erantzukizun ideologiko garbiagoak hartzera dei eginez.

- Iraultza kulturala eta ekonomia

Herritarrak oro bultzatu zituen erabaki politikoetan parte hartzera Iraultza Kultural honek (1964-1976): Materialismo dialektikoaren printzipioak herritarren mentalitatean txertatu nahi izan zituen, gizarte txinarra, iraultzaren barnean, berriz ere klase-gizarte izatera itzul ez zedin. Eskulana eta burulana elkartu nahi izan zituen, hiriko bizitza eta landakoa, beti ere proletargoaren garaitzapena segurtatuz.

Lehen aldian (1966-1967), produkzio industrial txinarrak beheraldi bat jasan zuen: (% 15 edo 20 gutxiago). Iraultza kulturalak hobeki zaindu zituen bere xede ideologikoak, ekonomikoak baino. 1968az gero aldatuz joan zen joera hori: helburu politikoak eta ekonomikoak era berean zaindu nahi izan ziren. Nekazaritza, altzairu, burdina, makineria, hobekuntza teknologikoa izan ziren alorrik zainduenak.

Kultur Iraultza: Lan-sistemaren kritika

(Kultur Iraultzakoan, langile maoistak ondoko kritika hauek egin zizkioten orduarte Txinako Iraultzak eratutako lan-sistemari, neurri handi batean "taylorista" zela aditzera emanez:)

"Kontatzeko metodoetan kontaezin ala zio izaten zen puntuak kentzeko. Egiten zena egiten zela, puntuak kentzen zitzaizkigun. Komunera joategatik ere puntuak kentzen zitzaizkigun. Hona, adibidez, arau ...

...

batzuk: 'Langile batek bere lanpostua 5 minutu baino gehiago uzten badu lan-jornada erdi bakoitzeko, 5 puntu kenduko zaizkio'. 'Lan-jornada bakoitzeko bere lanpostua 10 minutu baino gehiago uzten duen langileari, jornadako puntu guztiak kenduko zaizkio'. Bide kapitalista jarraitzen zuten Partidu-barneko 'agintariek' modu honetako araudiak eratu zituzten: 'Langileek ez dute komunera joaterik izango eguneko bi aldiz baino gehiago: behin goizean eta beste behin arratsaldean. Aldiko ez dute han 5 minutu baino gehiago egiterik izango'. 'Luzaroago egoten direnei beren puntu guztiak kenduko zaizkie'. Langileak gogor jarri ziren prima-sistema honen kontra. Baina bide kapitalista jarraitzen zuten Partidu-barneko 'agintariek', beren usurpatutako boterea erabiltzen zuten langileak zapaltzeko eta basatiro deklaratzen zuten: 'bai, halaxe da". (GOARDIA GORRIAK)

Ordurarteko (1960-1970) ekonomi politika autarkikoa alboratu, eta erbestetik teknologia berriak eta fabrika osoak inportatzen hasi zen Txina. Badirudi politika honek lortu zituela bere garapen-xedeak.

- Bizimailaren hobekuntza

Txina kontinente oso bat dela esan izan da; izan ere, lurraldez (9.596.000 km^2) eta bizilagunez (1976: 852.000.000) neurri arrunt guztiak pasatzen ditu Txinak. Baina dituen arazoak ere halakotxeak ditu, noski. Eta bat, larrienetakoa, jendearen bizimodu eta maila nola jaso izan da.

Txinarren errenta pertsonala apala da oraindik: 200 dolar. 1949tik honakoan, Iraultzaren lehenengo egitekoa bizimaila apal segurtatu horretaraino iritsi eta hori ziurtatzea izan da, nahiz eta errenta Soviet Batasunak baino hamar aldiz txikiagoa edo Mendebaldeko Estatuek baino hogei aldiz txikiagoa izan.

Dena den, desagertu dira gosete larriak; medikuntz zerbitzuak eta irakaskuntza doan eskaintzen dira; garai bateko epidemi moduak desagertu dira. Haurren eskolatzearekin batera, emakumearen egoera-aldakuntza sozio-laborala izan da lorpenik handienetakoa.



MAOren HERIOTZONDOAN. Iraultzaren barnean, Mao-ren inguruan egin zen, nolabait, batasun-ideologikoa; baina haren heriotzak boterearen eta ideologien borrokak ekarri zituen. Mao-k Hua Guofeng ezarri nahi izan zuen bere ondoko bakartzat (irudian bi argazki bizki horietan sinbolizatzen da hori), baina ondoko hamarkada bat nahikoa izan da, Mao-ren asmoak baztertzeko. Txina komunista berri bat ari da jaiotzen: Mao ahantzi egingo ote da?

1949tik 1981era bitarteko TXINAKO HISTORIAREN LABURPENA


1949an aro guztiz berria hasi zen Txinan, izan ere urte hartako aldakuntza politikoen ondorioz, politikan Herri-Errepublika maoista aldarrikatu bait zen ehundaka milioi bizilagunentzat, eta betidanik beren bizitzak erregimen sozio-ekonomiko feudal batean itota zituzten nekazari herritar pobreei aukera historiko ezezaguna eskaini zitzaien. Testuinguru horretan Mao Zedong Iraultza-gidariaren heriotza arte berau izan zen guztiaren "Lemari Handia", politikaren hariak beti ere eskutik zituela. Botere-erpineko politikariak haren inguruan mugitu ziren. Mao desagertzean (1976), berrikuntza politiko-ideologikoari ekin zitzaion, Deng nagusituz joan zen neurrian.

Gidari nagusiak		**Gertaera nagusiak**
	Zhou Enlai, Lehen Ministraria	
MAO + ZHOU	1949	Lotura estuak Soviet Batasunarekin Landa-jabetzaren kentzea Nekazal kooperatibak Industrializazio-ahaleginak eredu sovietarraren arabera
MAO	1958	Aurrera-salto handia Porrot ekonomikoak Soviet Batasunarekin hautsi Herri-komunen sorrera
LIU/DENG/PENG/ZHOU	1961	Ekonomiaren berreraikuntza Nekazal merkatuak Eragingarri materialak
MAO/LIN BIAO	1966	Kultur Iraultza handia Garbiketak
ZHOU/DENG/LAUAK	1971	Errehabilitazioen hasiera Ekonomia indartzeko ahaleginak
	1975 urtarrila	Zhou-ren hitzaldia lau modernizazioei buruz
	1976	Deng-en erorikoa Aktibismoa
	Hua Guofeng, Lehen Ministraria	
DENG	1981	Mao-ri kritika, eta errehabilitazioak Lau modernizazioak: Defentsa, industria, laborantza, teknologia Gestioa/Efikazia. Landa-merkatuak Eragingarri materialak. Irekiera
	1982	Hua Guofeng gero eta baztertuago: Deng Maoismoa gainditutzat ematen da Txinak 1.000 milioi bizilagun


II. I N D I A

A) GEOGRAFIA FISIKOA: MONTZOIEN FENOMENOA

Indiako lurraldeak Saharako basamortuaren latitude berean kokaturik badaude ere, alderdi hauxe da gure planetako lurralderik populatueneta-ko bat. Zera da gertatzen dena: Egypto Niloren erregali den bezala, Indiako eremu gaitzak mon-tzoien erregali direla. Klima honen mekanismoak, ordea, hainbat anomalia ere baditu berarekin eta, tarteka, hondamendi handiak sortzen ditu; hala ere, populazioak gorakada nabarmena egin du duela hiru bat mila urte eta gehiagotik hona. Indiako natura irenstailea da, baina, aldi berean, onura-garria ere bai. Egia da, baita ere, eskualde bate-tik bestera asko aldatzen direla natura honen be-rezitasunak.




INDIAKO KLIMAK. Kontinente oso bat da India, klimaren alde-tik. Denetik du: Tropikoa eta poloa, basamortu hotz eta be-roak, klima mediterranearra eta ekuatoriala. Guztietara molda-tu dira hemengo herriak.



Itxuraz sinplea badirudi ere, oso konplexua da montzoien mekanismoa xehe-xehe azaltzea. Ekainetik irailera bitartean izugarrizko ur-pilak erortzen dira kontinentearen gainean Hego-hemisferiotik datozen aire-masak Ozeano Indikoan betetzen dira hezetasunez eta Indian sartzen dira mendebaldetik ekialderantz, gero ipar-mendebaldera hartzen dute Himalaiaren luzean aurrera. Hala ere eurite handiok izango badira, aire-masek behar dute gora igo, dela erliebeak eta mendien paretek hartara behartzen dituztelako, dela atmosferako nahasmenduek eragiten dietelako; azkeneko hauek Bengalako Golkoan sortzen dira.

Urtearen gainerako hilabeteetan, alderantzizko joera hartzen dute atmosferako korronteek eta euriak hego-ekialdeko kostetan izaten dira azarotik aurrera; gero eguraldi lehorra eta aski oxkarra izaten da iparraldean martxorarte; azkenik, eguraldi gero eta itogarriago bat iristen da landaredi guztia ihartzen, nekazari-lan guztiak geldierazten dituena, harik eta bizi berriarekin montzoiak etorri arte.

Ziklo klimatiko hauen jasak beti espero dira, itxaropenez eta beldurrez: uzta eta hondamendia, batera, ekar bait ditzake. Izadiaren menpean dago gizakia. Tirania horri mikrobio-iharduera handi bat gehitzen bazaio, insektuen proliferazioarekin konbinatuz, nekerik gabe ulertuko da, zergatik den subkontinente hau izugarrizko izurriteentzako leku aproposa (orain dela gutxi pestea, gaur oraindik kolera); ingurune egokia da endemia handien kokalekutarako ere (hala nola, paludismo, ankilostomasia, eta abarrentzat), zeintzu besteak bezain espektakularrak ez badira ere, askoz hondagarriago bait dira.



HAIZEAK ETA PREZIPITAZIOAK. Urtaro lehor eta hezeetan haizeak dira Indiako euri-elurrak gidatzen dituztenak. Ikusi besterik ez dago, haizeen norabideak eta horiekin batera eurite-kopuruak nola arras aldatzen diren: kontinentetik itsasora, itsasotik kontinentera.

Eskualde guztiak ez daude neurri berean arrisku hauen menpe, baina gutxi dira libre geratzen direnak. Lehortea betikoa da Pakistanen; baina Indo ibaiak eta bere isurkideek posible egiten dute erregularki ureztatzea, batez ere Pendjab-en. Indiako hego-mendebaldeetako kostetan zehar eta Zeilanen erregularrak izaten dira euriak eta urtaro lehorra geroz eta laburragoa izaten da. Himalaia mendien hegoaldeko isurkiak ongi erregatuak daude, baina mendi haien pendiz izugarriek, Indiako beste inon ezagutzen ez den bezalako traba jartzen dute.



INDIAKO HERRIAK. Penintsula handi honetan herri ezberdinek aurkitu dute aterpea. Hiru irudiotan nagusienak biltzen dira: goian, dravida bat bere ehun-lareetan; azpian, iparraldeko amona-iloba mongoloideak; eskuinean, emakume ariar bat. Denak bizi dira han.



B) GIZA GEOGRAFIA

* 1. Herri ezberdinen kokaleku

Historiaurrean eratua zegoen jada Indiako populazioaren oinarria. Antropologi mailan eginiko ikerketek, hizkuntza-mailan egindakoekin osatuz, bost mota ezberdinetako populazioa bereizteko aukera eskaintzen digute. Gaur egun, kasu berezi



batzuk izan ezik, ez dira mantentzen sorrerako egoera garbi hartan, elkarrekin maila ezberdinean nahastuak baizik. Jarraian seinalatuko ditugu bost talde hauek:

- Aintzinako beltzen taldea, eta, multzo berezi bezala, Andaman irletan bakarrik irauten duena, Bengalako golkotik haruntzago.
- Proto-australoideak, munda eta mon-khmer hizkuntzetakoak eta aintzinatik kontinente guztian zehar zabalduak.
- Mongoloideak (arraza horikoak), tibet-birmaniar hizkuntzetakoak, eta Himalaia, Txina eta Birmania inguruko lurraldeetan bizi direnak.
- Dravidak, gure aroa baino milaka urte asko lehenagotik India guztian zabalduak. Kolore ilunekoak badira ere, arraza zurikotzat jotzen dira. Beren hizkuntza eta ezaugarriak garbiago gorde dituzte hegoaldean iparraldeko lurretan baino.
- Ariarrak, gure aroa baino bi mila urte lehenagotik Asiako erdialdetik iritsiak. Argal eta dotoreak, azal argiagokoak, Europako populazio gehienen jatorri berekoak dira; beren hizkuntzak, indo-ariarren multzoan, hizkuntza indo-europarren familia handi berekoak dira. Laster jarriko dira hauek beste taldeen gainetik, eta beren buruak "Arya" deituko dituzte, ("noble" edo "handiki") ordurarteko populazioa baino goragoko mailako bezala kontsideratuz.

Geroztik eta garai historikoetan egon diren inbasio eta migrazioek ez dute garrantzi handirik izan eta jendearen kopuru aldetik ere ez dute asko aldatu hango ordurarteko populazioa.

Bi etnia handiak

"Indiako biztanleriaren zatirik handiena, kastetako jendea, oinarrizko bi tipo etnikok osatzen dute: dravidarrak eta ariarrak. Dravidarrek iluna dute azala eta hegoaldean dira nagusi, han bait dira haien hizkuntzak gorde eta beste guztiei inposatuak izan.

Ariarrak geroago etorri ziren, baina berek eskuratu zuten hango nagusitasun politiko,sozial eta erlijiosoa. Goimailako kastetan dira nagusi batipat,subkontinentearen Iparraldean; hemen beren hizkuntzak inposatu dituzte".

(J. POUCHERADASS)

Grekoak eta barbaroak guztiz asimilatuak izan ziren. Azkena iritsitakoek areago gorde dituzte erlijio-mailako ezaugarriak etnikoak baino. Hori gertatzen da musulmanekin eta kristauekin eta zer esanik ez pertsekin eta milaka batzu judutarrekin.

C) FENOMENO ERLIJIOSOA INDIAN

Erlijio-afiliazioak funtsezko garrantzia du indiarren bizimoduan; erabat identifikaturik sentitzen da bat norberak duen erlijioarekin; baina esan beharra dago indiarrek ez dutela kontsideratzen erlijioa arazo pertsonal bezala, gizartearen barruan txertatzeko baldintza bat bezala baizik. Fenomeno erlijiosoa da, aldi berean, batasunik eta zatiketarik handienen faktorerik garrantzizkoena. Erlijio eta sekta izugarri aurkitzen dira gizarte honetan, baina jatorri eta garrantzi ezberdinekoak dira dudarik gabe. Dena den, bi kategoria handitan bil genitzake guztiak, nahiz eta azpikategoria ugaritan zatikatuak egon.

Hinduismoaren balioa

"Zer da erlijio hindua? Guk 'sanatan dharma', betiko erlijio deitzen duguna? Hindu esaten zaio, nazio hinduak gorde izan duelako bakarrik; lur sagaratu eta zahar honetan ariar arrazari emana izan zitzaiolako, eta arraza hau izan delako mendeetan zehar erlijio hori zaintzeko ardura zuena. Baina erlijio hau ez dago herrialde batera murriztua; ez da partikularrean eta betiko munduko parte mugatu batena. Guk erlijio hindua deitzen duguna, betiereko erlijioa da benetan, unibertsala bait da eta beste erlijio guztiak besarkatzen dituena". (A. GHOSE)

* 1. Erlijio politeista autoktonoak

Populazioaren % 71k praktikatzen dituzte gisa honetako erlijioak. Aintzinako erlijio tribalak, ahozko mitologia bat gordetzen dutenak, hinduismoak irentsi ditu pixkana pixkana. Erritu-teknika arkaikoak gorde dituzte erlijio hauek jainkoen eta hilen kulturako. Hinduismoa eta honen baitan sorturiko sektak, berrikiago idatzitako testuetan oinarritzen dira. Hinduismo ortodoxoa, ariarren eta lehenagoko populazioen erlijio-sintesia da; gure aroa baino mila bat urte lehenago

sortua da eta bera da populazioaren gehiengo batek gordetzen duena. Indian eta Nepalen dominatzen du erlijio-mota honek (% 60).

500 urte K.a.tik hedatzen dira budismoa eta jainismoa ere. Ukapenaren sekta da budismoa eta Asiako erlijio-korronte handienetako bat bilakatu zen. Indiako periferiara izango da baztertua, Sri Lanka-ra, hemen bertako populazioaren gehiengoak profesatuko du, eta Himalaia-aldeko eskualdeetara. Jainismoa, sekta aszetikoa da eta mendebal Indiako merkatari handien artean gordetzen da. Sikhs taldea Indiako Pendjab eskualdean bilduta dago.


* 2. Erlijio monoteistak

Europa eta Ekialde Hurbiletik iritsitako judu eta kristauen tradizioetan oinarritzen dira hauek. Islamismoa, alde guztietan aurkitzen da, baina Pakistanen, Balgla Desh-en eta Indiako Kashmir-en da gehiengoa. Kristautasuna, berriz, katoliko eta protestante sekten artean banandua, gutxiengoa da; Sri Lanka eta Keralatik kanpora, ez du inolako garrantzirik. Judutar batzuk ere badira.


MUSULMANAK, AZKENA ETORRIAK

"Musulmanen konkistarekin Indiak bigarren marka etniko fundamental bat jasaten du (...), arrazazkoa baino kulturalagoa dena. Baziren noski arrazazko elementu berriak ere, hala nola, arabiarrak, pertsiarrak, turkiarrak, afghanoak, mongoliarrak eta; (...) baina musulmanen masarik handiena hindu konbertituez zegoen osatua. Europako espantsioaren ondorioak askoz garrantzi eskasagokoak dira eta bi motatako komunitate hibridoak sortu ditu: mestizo portugesak eta angloindiarrak; (...) kristau indiarren komunitatea ere hortik sortu da".

(NC. CHAUDHURI)



BUDISMOA. Indiako erlijio nagusia hinduismoa izanik ere, Budismoa ere hantxe jaioa da, eta Asiako hainbat lurraldetara Indiatik zabaldu zen. Gaur egun minoria txiki bat da kontinentean eta gehiengoa Sri Lanka-n. Irudia: moje budista bat sinestunak bedeinkatzen.



MUSULMANAK. Penintsulan musulmanek leku handi bat dute: biztanleriaren parte on bat dira (% 26), Pakistan, Bangla Desh eta Kaxmir-en batez ere. Irudia: Haurrak eskola koraniko batean.


Zatiketarik handienak, beraz, (eta ez erlijio mailakoak bakarrik, soziologiko, juridiko eta politikoak ere bai) bi kategoria handi horien artean gertatzen dira. Gatazkarik nagusienak hindu eta musulmanen artean polarizatzen dira; horiek dira, izan ere, komunitaterik garrantzizkoenak, kategoria bakoitzeko buru nagusienak, eta hauen artean egin dira Indiako zatiketarik handienak ere.

D) KASTAK

Kasten sistema oinarritzat duen gizarte hinduan, arauzkoa da berdintasun-falta. Kasta baten barruan jaiotzen da bakoitza, hau da, beren baitan itxitako klan eta famili multzo batean. Gorago edo beheragoko maila batean gelditzen da kasta bakoitza gizartearen barruan eta horrek finkatuko dio bakoitzari norekin behar duen erlazionatu, norekin jan, eta norekin ezkondu. Gainera horrek finkatuko du, gehienetan, bakoitzaren lanbidea ere.



UKITUEZINA. Himalaia aldeko ukituezin bat da hau, musikazalea. Ukituezinen artean kultur tradizio interesgarriak gorde izan dira; Indiako herri pobreen ahotsak dira honelako kantari eta soinu-jole hauek.



Gizarte honetako desberdintasunak gure Erdi Aroko gizamailaketa haietan gertatzen zirenak baino handiagoak dira. Kasten sistema honek gizarte-egitura guztia ukitzen du, goitik hasi eta beheraino. Beste zenbait lekutan izkutuan disimulatzen diren desberdintasunak, inolako hipokresiarik gabe adierazten dira hemen. Hinduen kontzepzioan, gizartea, berez dago zatitua kastatan, bizitza begetala edo animala ere hainbat eta hainbat espezietan banatua dagoen bezala.

Status-eskala baten arabera daude hierarkizatuak kastak eta antzeko bi klasifikazioren bidez adierazten dira. Klasifikazio hauetako bat, zaharrena hain zuzen, profesio-espezializazioetan finkatzen da, hauek lau "klase" handitan banatuz. Bigarrenak, "klaseak" kastatan banatzen ditu, horretarako, errituzko garbitasun-maila kontutan

KASTAK

Portugesetik dator berba hori, eta kategoria eta klana adierazten ditu. Portugesek izen hori eman zieten Indiako gizarte-egitura osotzen eta eratzen duten hermandade modukoei. Indiako hizkuntza gehienetan "jati" izena ematen zaie.

Ehundaka asko dira kastak eta azpikastak. Funtsean lanbidearen arabera banatzen dira. Jaiotzez bere kastari lotuta gelditzen da edonor.

Talde itxiak dira kastak: endogamia praktikatzen dute; kasta ezberdinetakoek ez dute elkarrekin mahain berean jaterik; kategoriari eta kasten arteko hierarkiari eusten diote.


Kasta-sistemak Hinduismoan ditu bere oinarri ideologiko-erlijiosoak. Budismoak eta Jainismoak ukatu egiten dute kastaren esanahi erlijiosoa.

Kasten jatorria eta marko teoriko eta erlijiosoa Veda garaitik datorren klase-banaketan aurkitu behar da. Lau klasetan (Varna) banatzen da gizartea: **Brahmanak**, edo burulanari atxekiak; **Ksatrijak**, edo gerlari eta aitonen semeak; **Vaisjak**, edo nekazariak eta merkatariak; **Sudrak**, edo jopuak eta morroinak.

Gizartearen horrelako eraketatik kanpo gelditzen dira ikutuezinak, gizartetik baztertuak bezala. Pariak izena ere eman izan zaie horiei, nahiz eta ez izan horretarako berba egokia.

Brahmanismoaren arabera, kasta-sistema kosmoaren ordenuaren barnean dago; eta berraragiztapen segidazkoen bidez, fededunak bere kastarekiko lotura gaindi lezake, salbazio-bidean brahman izatera heltzeraino.

Izatez, Hinduismoaren barneko salbazio-bide batzutan (bakthigarma-n, esate baterako) kasta-sistema ezeztatu eta gainditu egiten du. (P.AGIRREBALTZATEGI)



GARBIKUNTZAK. Garbikuntz erritu hauek garrantzirik handiena dute hinduismoan, eta izadiko denbora-gurpilean leku jakina dute, gainera: goizean goiz eguzkia gurtu eta garbikuntza egin behar da, egunero. Irudia: Benare-n, Gange ibaian egunsentiko garbikuntza.

harturik. Goimailako kastek beren komenentziarako egiten dituzten bi sailkapen hauek, behetik hasi eta goraino dago errespetatu beharra; horrela, langintzarik kutsatuenak beheko mailetara botako dituzte goimailetarako garbienak bakarrik uzteko. Mailarik baxuenean ukiezinak aurkitzen dira, kutsatu gabe ukitu ezin direnak: kalegarbitzaileak, musikalariak, larruontzaileak, etab.

Ondoren, beste kutsatuak, zeintzuen ura hartzerik ez dagoen: ikuzleak, harakinak, etab.

Garbien arteko mailarik baxuenean Sudrak aurkitzen dira: mota guztietako artisauak dira, ez dute iniziatuak izateko eskubiderik; hauek baino gorago iniziatuak eta "bi aldiz jaioak" daude, zeintzu hiru talde handitan banatzen diren: Vaisjak, merkataritza eta nekazaritzara dedikatuak; Ksatrijak, aginterako eta gerrarako bokazioa dutenak eta, azkenik, Brahmanak, ohizko irakasle direnak; hauek bakarrik izan daitezke apaiz.

EZKONTZA-HERIOTZAK

(Bizitzako bi ospakizun distiratsuenak ezkontza eta hileta dira. Hinduismoak lau alditan banatzen du gizakiaren bizitza; lehenengoa ikasle garbiarena da, bigarrena etxeko jaun ezkonduarena. Denek ezkondu behar dute. Hildakoaren gorpua erre egiten da, ibaiondoan, eta errautsak haizetara sakabatzen dira, baina ondorengoek, belaunalditan, opariak egiten dizkiote zenari).

"Ezkontza eta hiletak dira hindu baten bizitzako bi zeremonia ikusgarrienak. Ezkontza kolore gorriak sinbolizatzen du, hauxe bait da poza eta zoriona adierazteko erabiltzen dena. Ezkontza, berriz, gizon-emakumeentzat, bizitzako bigarren estadioaren hasiera da, etxeko jaunarena. Zelibatua mespretxatuta dago; denek behar dute ezkondu eta umeak izan, mutilek batez ere.

Hiletak zuriz jantzita egiten dira, hau da doluaren kolorea eta. Gorputzila egur-pilan erretzen da erreka- edo itsasertzean; errautsak sakabanatu egiten dira; gorputziletik ez da ezer gelditzen. Ondoren umeek eta bilobek opariak egin behar dituzte hainbat gizalditan zehar, defuntuaren arimaren alde".

(P. POUCHEPADASS)

Ohore handikoa ez bada ere, ez-hinduek ere badute beren lerrun edo maila, nolanahi ere ukiezinekoena baino jasoagoa. Tribuetako kideak garbi bezala mailakatuak daude eta erraz asimila daitezke. Kristau inmigranteak, musulmanak eta erlijio hauetara konbertituak, kutsatutzat jotzen dira, baina ez dira ukiezinak. Musulmenen eta kristauen komunitateak, bestalde, kastatan banaturik aurkitzen dira beren barnean, nahiz eta Elizetako eta Legeetako Doktoreen protestak ugariak izan egoera honen aurka.

E) KOLONIALISMO-AURREKO INDIA

Indiak milaka urteko historia luzea ezagutu zuen Europako Estatu modernoak hara iritsi aurretik. Horretaz ez dugu hemen gauza handirik esango, baina komeni da datu gutxi batzuk gogoratzea.

Egypto, Mesopotamia, Txina eta India izan ziren munduko zibilizazio zaharrenak garatu zituzten lurraldeak. K.a. 2500-1500 urteetan, Indo ibaiaren haranean zibilizazio eder bat loratu zen, bere hirigintza bikainarekin: Mohenjo Daro eta Harappa-n ikus daitezke haren hondakinak.

Kultur oinarri horien gainera etorriko dira ondoko mendeetan herri eta erakunde politiko berriak: herri ariarrak, eta berauen hizkuntza eta kasten antolamendu soziala. Inperio handien batasuna ezagutu zuen Indiak, baita halakoen ondoko birzatiketak ere.

Indiak eraginik izan zuen Asiako beste lurraldeetan, kontinente-barnerantz bezala hego-ekialdeko penintsuletan ere: Nepal, Tibet eta


Gosete bat behinolako Indian

"1630ean, hilabete luzeetan zehar, Gujerat-en eta Dekkan-en, montzoien aurretik etorri ohi diren hodeiek ez dute lehertu nahi izan, zerua ilun dago, euririk ez dator. Nekazariek beren gordekin urriak xahutzen dituzte eta heriotza hasten da joka. Hurrengo urtean, itxuraz joria dator uzta, baina matxinsaltoek eta arratoiek erasotzen diete laboreei. Hurrena, Gujerat-en, traganarruak hain dira gogorrak, zeren uztaren enparadua txikituta uzten bait dute dena; bitartean kiskal-kiskal egina dago lurra Dekkan-en, lehorte luze bat dela medio. Orduan gurasoek beren umeak saltzen hasten dira. Nekazariek ale bila ateratzen dira beren herrisketatik kanpora; kaminoak eta bideak, indarrak ahitu eta lurreko hautsetan erori diren jendez ereinda daude. Aurreneko urtean, hala diote kronikek, pobreak hiltzen dira batez ere. Hurrengoan aberatsak ere gose dira. Belarra eta zakurrak jaten dira. Batzuk, gelditzen zaien irin apurrari iraun erazteko gorputzilen hezurrez egindako hautsa nahasten diote. Azkenik goseak garbitzen ez dituenak, izurriteak galtzen ditu. 1631-ko urtarriletik urrira bitartean, 3 milioi pertsona hil ziren Gujerat-en eta milioi bat, ekialderago, Ahmednagar-eko eskualdean". (G.ETIENNE)

Txina-ra alde batetik, Birmania, Indotxina eta Indonesiara bestetik; Indiatik zabaldu zen Budismoa, eta marinel eta merkatari tamulen bidez Indiak bere oihartzun kulturala izan zuen hego-ekialdean.

Kanpotik etorritako indarrek ere eskusartu zuten penintsulan: Erdi Aroan Afghanistan-eko musulmanek sortu zuten Delhi-ko sultanerria (XII. mend.), Ozeano Indikoa alde guztietatik itsaso musulman eta arabiar bihurtuz. Industaneko penintsula hura ez zen, ba, lurralde isolatua Vasco de Gama haraino iritsi zenean (1498).

EKIALDEKO INDIETAKO KONPAINIA. Londres-eko egoitza nagusia. Konpainia honen eskuetan utzi zituen Ingalaterrak Indiako merkatalgoa eta politika ere, harik eta sipaien erreboltako krisia etorri zen arte (1857). Orduan, XVII-XVIII.etatik indartuz zetorren Monarkiak,burgesia berriaz baliatuz, bere eskuetan hartu zuen hango politika koloniala.



F) INDIA INGELESEN MENPEAN

XVIII. mendean Indiak bizi zuen anarkiaren barruan, Europako merkatal konpainietako zenbait agente negozioak zabaltzeko asmoak hartzen du.

KRONOLOGIA

1741-1754	*Dupleix, India frantseseko gobernadore.*
1757	*Britaniarren garaipena Plassey-n (Bengala).*
1798-1810	*Indiaren zatirik' handiena konkistatua dago.*
1857-1858	*Soldadu kolonial sipaien errebolta,ingelesen kontra.*
1885	*Indiako Kongresu Nazionalaren sorrera.*
1917	*Lehen agitazio-kanpaina,Gandhi-k gidatuta.*
1947	*Independentzia eta Indiaren partiketa.*

Lehen exenplua Dupleix gobernadore frantsesak emango du 174leko urtetik aurrera Dekkan-eko eskualde handi bat bere kontrolpean hartuz. Baina berehala aurkitzen da India britaniarreko Konpainiaren tropen aurrean. Parisek ez du onartzen bere gobernadorearen politika eta 1754ean itzulerazten du. Ordutik aurrera, Clive haren etsai ingelesak, zabalik izango du bidea bere asmoak burutu ahal izateko. Garaipen batzuren ondoren, berehala emango dio, konpainia britaniarrari Ekialdeko Indiaren zuzendaritza, eta, honela, lurralde honen esplotazio bortitz bati emango zaio hasiera.

Pariseko tratatuak, 1763an, Frantziak eta Ingalaterrak Indian zituzten etsaitasunei amaiera ematen die, Frantziaren esku bost faktoria utziz.

Clive-ren ondorengoekin konpainia britainiarraren merkatal harremanak erregulatu egiten dira *pixkana pixkana Bengalan*. Sistema judizial moderno baten lehen urratsak ere ezartzen dira eta administrazio fiskala eraberritzen da. Konkista militarra 1819an amaitu zen.

Geroztik India britainiarrak zuzenean administratzen dituen hiru alderdi zabal hartzen ditu bere baitan, beren hiriburutzat Kalkuta, Bombay eta Madras dituztenak. Baina eskualde atzeratu eta behartsu askotan, bertako printzeak utzi zituzten beren postuetan, protektoratu britainiarra onartuta gero.


XVIII. mendean iristen diren lehen kolono ingelesak nolabaiteko aurrerapena zuen lurralde batekin topatzen dira Indian. Esan beharra dago, baita ere, deskubrimendu geografiko handien garaiaz geroztik (XV. mendean) artisau-gisako industria bat indartu zela bertan eta hainbat eta



SIPAIEN ERREBOLTA ANTIBRITAINIARRA. Soldadu hauek bertakotarren artean bildutakoak ziren, eta ofizial metropolitarren agindupean zeuden:190.000 bat lagun 1847an. Kristautu egin nahi izan zituzten buruzagiek: asmo honek sortutako ezinegonak eta beren ondasunak bahitu egingo zitzaizkiela beldur ziren printzeek zirikatuta erreboltatu ziren Ingalaterraren kontra. Estualdi larrien ondoren menperatu zen kasik India osora zabaldutako matxinada hau (1858).

hainbat produktuk estimu handia zuela eta ongi saltzen zela Europan. Herrietan kokaturik, arotzak, errementariak, zilarginak eta gisa guztietako artisauak aurki zitezkeen, belaunez belaun beren gurasoengandik ofizioren bat ikasi zutenak, eta nolabait zoriontsua zen bizitza baterako laguntza ematen zutenak. Hirietan, oihalak, tapizak, pitxiak, etab. lantzen eta esportatzen zituzten.

Zergen bilketarako ingelesek aintzinako zerga-biltzaileetara jo zuten, nekazarien gain jabetza-eskubide batzuk eskainiz; guzti honek, "zaminders" edo jauntxoen sorrera ekarriko du. Baina, berehala, jauntxo hauek herrietatik hirietara joaten dira, bitartekariez baliaturik zerga--bilketa lanak egiteko. Nekazariak lur jota geldi-tzen dira, asko bait dira haien bizkar bizi direnak, aipaturiko pertsonaia guzti hauek alegia. Ingelesen zergak zuzenean biltzen zituzten eskualdeetan, dirua eskatzen zuten; baina nekazariek jenerotan ordaintzen zuten beti, dirurik ez zutelako, eta mailegu-emaileengana joatea beste erre-



GOSETEA ETA KOLONIALISMOA. Hemeretzigarren mendeko marrazkia. Arma bidez hartutako India herri errukarria zen europarrentzat, nahiz eta berek ustiatua izan. Kontzientzia "oneko" klase zapaltzaileek arrazismo errukitsu batean aurkitu zuten beren lasapidea.

mediorik ez zitzaien gelditzen. Uzta txarrak zetozenean, ordea, ez zuten zerez ordaindurik eta, orduan, mailegu-emailea nekazarien lurrez jabetzen zen. Ondorioz, lurjabe handien eta nekazari behartsuen herrialde bat bilakatuko da India.

Ingalaterrako lehen erretordeen jokabidea ere ez zen batere hobea izan. Behin baino gehiagotan metropolian bertan izan ziren juzgatuak egindako gehiegikariengatik.

Baina guzti honek baino eragin handiagoa Indietako Konpainiak izango du indiarren bizitzan. Konpainia honek komertzioaren monopolioa zuen eta nabarmena da beronen jokabide maltzurra: Indiako artisauen produktuak oso merke ordaintzen zituen eta laster lur jota utziko ditu Indiako artisautza eta merkataritza.

Azken faktore bezala, metropoliak berak eramaten duen ekonomi politika aipa genezake. Ingeles produktuak Indian askatasun osoz sartzen ziren bitartean, Indiakoek oztopo eta zailtasuna besterik ez zuten aurkitzen Ingalaterran sartzeko.

Lur jota gelditzen diren artisauek nekazaritzara dedikatzea beste erremediorik ez dute izango, lehen larpopulatuta aurkitzen ziren lurrak oraindik ere gehiago kargatuz. Ingelesek garrantzizko obrak egingo dituzte Indian: urtegiak, ubideak, erregadioak... Baina prestatzen dituzten lurrak esportaziorako produktuak ateratzeko erabiliko dituzte, ez dute inolako mesederik ekarriko bertako nekazariarentzat.

Kolonial-gisako ekonomia jartzen da, beraz, praktikan. XVIII. mendean, oihalen esporta-

INDIAKO KOTOIA. Kolonialismoak lanesku merkea eta lur-sail zabalak aurkitu zituen Indian, metropoliko industriari lehengai erosoak emanez. Industri Iraultza burgesak eskatzen zuen ekonomiaren mundializazioa zen hori. Irudia (XIX.eko marrazkia): Kotoi-lepakari indiarrak.



tzaile handia zen India; 1830eko urtetik aurrera, ordea, Ingalaterrako industria handira zuzenduriko lehengaien esportatzaile bihurtuko da. Egoera hau benetan kaltegarria da koloniako ekonomiarentzat, sortzen dituen dependentzia ekonomiko berriengatik.

Lurraldea modernizatu nahirik, "barbaro" kontsideratzen dituen ohiturak deuseztatzen ditu Britainia Haundiak eta trenbideak eraikitzen. Baina berrikuntza hauek sor erazten dituzten erlijioso-gisako ezinegonak, printze desjabetuen haserreek eta zergak direla eta, porrot eginik geldi-tzen diren lurjabeek, matxinada gogor bat piztuko dute 1857ko urtean, sipaien errebolta bezala ezagutzen dena.

1858tik aurrera, altxamendu hau menperatu ondoren, Ingalaterrako erreinuak Indietako Konpainia desegin eta bitartekorik gabe berak zuzenduko du Indiako gobernua.

Indiako oposizioak jokaera politiko berria hartzen du: aurrerantzean, ingeles eskoletan prestatutako burges intelektualak, eskakizun nazionalistak aurkezten hasiko dira. Korronte honen ahotsa gidatzen zuen Indiako Kongresu Nazionala hiritar elite moderatuen eskutan egongo da Lehen Mundu-Gerratea arte.


Baina gerra honen amaieraz geroztik, eta Ghandiren gidaritzapean, erradikalizatu egingo da. Buruzagi karismatiko honek bere inguruan biltzea lortuko du nekazarien artean ere ongi asentatua zegoen masa-mugimendu handi bat. Populazioaren hazkundea ere gero eta handiagoa da. Janari-produkzioa, berriz, berdin gelditu da, edo gutxitu; esportaziorako produkzioa, gobernu kolonialak sustatuta, gero eta gehiago indartuz doan bitartean.



J.R.KIPLING (1856-1936): Idazle ingeles hau Bombay-n jaio zen, baina mezua erabat britainiarra du. Kipling-en obra literarioa inperialismo britainiarraren kantu bat da. Kolonialismoa betaroan zegoen unean eman zitzaion Nobel Saria ere (1907). Haurrentzako obrarik ere badu: irudian hauetako baten azala.

1930ean gertatzen den eroriko ekonomikoak, areagotu egiten ditu problemak. Kongresuak independentzia osoa eskatzen du eta 1942tik aurrera indarrezko erresistentzia batera igaroko da.

Musulmanak, independizaturiko India batean, gehiengo hindu baten ondoan ahul, egoera arriskugarrian aurkituko direla uste dute, eta 1930etik aurrera Estatu independiente banandu bat eskatu zuten. 1947an uzten du India Britainia Haundiak, haren independentzia onartuz eta bi zatitan banatuz: India, gehiengo hindua duena, eta, Pakistan, musulmana.



POBREEN INDUSTRIA. Gandhi bakezaleak bazekien aberriaren askatasuna ez zegoela politikatik bakarrik,beharrezkoa zela hiritar bakoitzaren kontzientzia aldatu eta produkzio-modu zaharberrituak asmatzea: langabeziak alfertasuna lege bihurtu du Indian, zioen Gandhi-k; egunen batean teknikak garaituko du gosea, baina urte asko beharko dira horretarako. Bienbitartean, gorua da irtenbidea pobreentzat.

GAZTE ABERTZALEAK

"Abertzaletasunak eragiten zigun. Lehen batean fede bizi-bizi bat zen zaletasun hori, ia erlijiosoa, gure herrialdearen eta gure nazioaren bigarren etorreran genuen sineste sutsua, ezerk hautsi ez zezakeen konbentzimendu bat. Bagenekien, errukarria zela gure oraingo egoera: herri behartsua zen gurea, azpiratua eta zapaldua, eta hebaindua ere bazegoen zenbait ikuspegitan; baina gu herri handia izanak ginen behinola, eta handiagoak izatekoak etorkizunean... Gaurdanik gure aberriari laguntzen eman behar genuke gure bizitza, hari bere lehengo handitasuna itzultzen. Gure fedeak eta ahaleginek zer egiten duten, horixe izango da gure aberria...

Fede hau gure izpirituetan ainguratua zegoen, ikasten ari ginen kantu abertzale ugarien bidez... Hauetako batek errepika bat zuen, Kali jainkosa izugarriari guri laguntzera hots egiten ziona... Gogoan dut oraindik harako iluntze bat; klaseak ematera bidali gintuzten eta bueltakoan kantu ultra-hinduista hori kantatuz gentozen zintzurra betean, deiadarka, birikak lehertu beharrean igaro ginen polizi koartelaren eta Kaliren tenpluaren aurretik, bata bestearen aldamenean zeuden biok kale nagusian eta. Bi ahots gazte eta garden haiek egundoko oihartzuna ematen zioten erregu-hots izugarri hari iluntzeko baketan. Ilun, beltza zegoen kalea, oso gaizki argitua, eta ezin zigun inork antzik eman". *(NC. CHAUDHURI, 1951)*

G) INDIAREN EGUNGO PROBLEMAK

Gaur egun Indiaz mintzatzean berehala datorkigun irudia gosearena da. Egia da, gosete izugarriek laguntza internazionala hartzera behartu dutela India; baina egia da, halaber, Indian berean egin beharreko aldaketek bakarrik ekarriko diotela irtenbidea arazo larri honi.

Hiru kausa aipa genitzake gose honen esplikabide bezala:

* 1. Superpopulazioa

Indiatik kanpo (1971)

Indiatik hainbat bizi lagun irten izan da erbestera, ogibide samurragoen bila. 1971ko estatiskak dira hemengo hauek eta pakistandarrak ere hor barnean daude. Ordudanik hona Britainia Haundian eta Ertekialdeko petrolio-Estatuetan kopuruak gora egin du, Hego Afrikan eta Sri Lanka-n gutxiago diren bitartean.

1. Sri Lanka	1.244.784
2. Malaysia	910.000
3. Britainia Haundia	750.000
4. Hego Afrika	620.436
5. Maurizio	575.123
6. Trinidad	360.000
7. Guyana	357.000
8. Fiji	266.000
9. Birmania	250.000
10.Singapur	150.000
11.Kenya	139.593
12.Surinam	101.715
13.Bestetan	484.400
Guztira 6.209.051	

Indiak mende honen hasieran 300 milioi biztanle baldin bazituen, gaur egun 699tik gora izango ditu, eta hori Pakistan eta Zeilan kontutan hartu gabe. Bestalde, eta gizakiak bere kontsumorako egunean hiru bat mila kaloria behar dituela kontsideratzen bada, nahikoa esanguratsuak ditugu lurralde honetako datuak: 2.000 kaloria 1960an; 1.600 kaloria 1965ean.

Heriotz tasa, berriz, izugarria da: urtean 20 milioitik gora izango dira Indian hiltzen direnak. Haurren heriotz tasa tragikoa da benetan: laurden bat lehen urtean hiltzen da, eta erdiak inguru bost urte bete baino lehen. Ez dira asko hogei urtetara iristen direnak, eta batezbesteko bizitz esperantza 32 urtekoa da.

Berez hain negargarria den datu honek, ekonomi mailan dituen ondorioak ere ez dira txantxetakoak: herrialde behartsu batean mantenu-beharrean dagoen populazioa da gehiengoa eta lan-adinera iritsi orduko hiltzen dena. Latza da benetan arazoa.

* 2. Atzerapenak nekazaritzan

Kolonialismo-garaian jauntxoek egindako lur-pilaketak desegin nahiz, lege bat eman zuen gobernuak 1952an, baina justu beste muturreraino joán zen, lur-jabetza txikiegiak ezarriz.

Ongarri-gabezia arazo larria da benetan. Eginkizun honetarako hain egokia den simaurra, errekin bezala edo etxeak eta txabolak eraikitzeko material bezala erabiltzen da. Abonu sintetikoen erabilera, berriz, urriegia da.

Probetxagarri diren lur-sail handiak urratu gabe aurkitzen dira oraindik, lan horiek behar bezala egiteko baliabiderik ez dutelako, nahiz eta egin den zenbait planetan lehentasuna eman nekazaritzari.

Errendimendu handiko haziak erabiliz eman nahi litzaioke horri erantzuna, hala nola, Mexiko-ko artoa edo Filipinetako arroza han lekutu eta

POBRE IZATEAREN GARRATZA

(Apu, familia pobre bateko mutikoak, herri bat bisitatzera joan eta herrikide aberats baten etxean igaro zuen gaua).

"Andre gazteak semola gozozko postre bat egin zion. Apu harrituta gelditu zen lehenengo mokaduarekin. Halako gauza gozorik ez zuen hark sekula jan. Zergatik sartu zizkion etxekoandreak semolari mahaspaxak? Bere amak egiten zion semola gozotan ez zion sekula mahaspaxarik sartzen.

Etxean ez zion bakerik ematen Sarvajaya-ri: 'Ama, gaur semola gozozko postre bat egin behar didazu!'

'Bai, egingo dizut, ba, gaur iluntzean', erantzuten zion amak irribarrez. Bitartean ama semola uretan irakin erazten ari zen; bota zion azukre-pats piska bat eta xamurtasunik handienarekin, kolorezko platera batean zerbitu zion enplasto-moduko zera hura.

Apu-k ordurarte pozik jan izandu zuen hura, jakin ere ez bait zekien semolazko postrea benetan gaur eman zioten bestea bezalakoa zenik. Bi platera haien artean mundu baten aldea zegoela iruditu zitzaion. Baina instant batean errukiz eta sinpatiaz bete zitzaion bihotza bere amarentzat. Beharbada, berak ere ez zekien hark nolakoa zen benetako postre hura eta. Orduan jabetu zen zertxobait, pobrea zela haren ama, eta denak ere pobreak zirela haiek. Horra zergatik ez zen haien etxean ezer onik jaten". *(B.B. BANERJI, 1899 j.)*



IRAULTZA BERDEA? Lehen urratsak kanpoko agronomoek eman baldin bazituzten ere, Gobernuaren laguntzarekin indiarrek berek hartu zuten berehala erreleboa. Inbertsio eta ahalegin handiak egin izan dira "iraultza berdea" deitua bultzatzeko, nekazal produkzio handiago eta hobe bat bideratzeko. Baserri-landetan garai bateko irudia itxuraldatu egin da eskualde batzuetan. Bi epetan gertatu da hori: lehenengoan, lur berriak irabazi eta erregadioak zabalduz lortu zen produkzio-hobekuntza; bigarrenean, bestelako teknologia modernoak sartu dira (ongarriak, hazi emankorragoak, mekanizazioa). Gariarena izan da, batez ere, iraultza berdea, ez hainbeste arrozarena. Arrakasta ekonomiko honek, ordea, ez ditu samurtu gatazka sozialak, alderantziz baizik, diferentzia sozialak areagotu egin bait ditu.


zabalduz. Badirudi gobernuaren ahaleginek, zentzu honetan, ondorio baikorrak ekarri dituztela, baina, beti ere, arazo larria da gosea.

* 3. Aurreritzi sozio-erlijiosoak

Ez da erraza herrialde baten ideiak aldatzea, eta are zailagoa, noski, herrialde hori kultura maila apalekoa denean. Indiako zenbait tradizio benetako problema bihurtzen da garrantzizko garapen bat bultzatzeko unean. Animalia sakratu bezala kontsideratzen da behia eta ez diote inolako etekin ekonomikorik ateratzen. Neurri batzuk hartu nahi izan ziren behirik zaharrenak edo elbarriak hiltzeko. Honela, horien haragia aprobetxatu egingo litzateke eta, bide batez, gelditzen direnentzat janari gehiago izango, aldi berean esne-produkzioa gehituz; baina sortutako iskanbilak hain izan ziren gogorrak, ze lege bat eman behar izan zuen gobernuak behi-aziendarik hiltzea debekatuz.


Arestian aipatu dugun kasten sistema ez da inola ere ezabatua izan. Konstituzioak hiritarren arteko legezko diferentziak desegin baditu ere, ezin esan biztanleen arteko aurreritziek jarraitzen ez dutenik, nahiz eta bizitza moderno bateko baldintzek haiek gainditzera bultzatu. Hala eta guztiz ere, situazio guzti hauek problema askoren soluzioa atzeratzea besterik ez dakarte, berez ondasun eta ahalbide faltarik ez den herrialde batean.

Gizadiaren bost lagunetatik bat indiarra da. Penintsula hartan, biztanlez, Indiak du jendetzarik ugariena: India 875 milioi, Bangla Desh 90, Pakistan 80. Azken mende t'erdian eztanda demografiko bat ezagutu du Indiak: garai bateko 1871ko 260 milioitatik 316tara (1921) igo zen populazioa, eta azken hirurogei urtetan hirutan biderkatu kasik. Hilkortasunak atzera egin du eta hori izan da igoeraren kausarik erabakiorrena. Gorakada beldurgarri honi konponbideren bat aurkitzeko, gobernuaren kanpainek jaiotzak gutxitu nahi izan dituzte batipat. - Azpian, erromes-jai bat Keraban.



6
AFRIKAREN HISTORIAREN BILA

URTEAK	GERTAKARIAK
	AFRIKAREN ERROAK (K.a.)
1.700.000	Oldoway eta Zinj-eko gizakia (Tanzania)
1.000.000 -10.000	Eki Afrika: Glaziazio europarren pareko lau Aro "euritsu"
6000-2500	Tasili-ko pinturak (Sahara)
4300	Fayum (Egypto): labore neolitotarrak
6250	Sahara lehortzera doa
2850-715	Egyptoko Inperioak
900-K.o.200	Nok-eko erreinua (Nigeria)
900-K.o.400	Kux-eko erreinuak (Nubia)
c.700	Kartago: Kolonia feniziarra
c.500	Afrika beltza: Burdin Aroa
	AFRIKAKO ERREINU ETA INPERIOAK (K.o.)
III-XX.	Ethiopiako erreinuak, Aksum-etik hasita
640	Islama, Ipar Afrikan
700-1200	Ghanna (Mendebal Sudan)
800-1800	Kanem/Bornu (Txad)
XII-XIX	Hausa-hiriak (Nigeria/Niger)
1200-1500	Mali (Senegal-Niger Garaietan)
1350-1650	Songhai (Niger)
XIV-XIX	Benin
XV	Mossi-Estatuak (Volta)
XV-XVI	Luba (Kongo)
XV-XIX	Oyo (Nigeria)
XVI-XVII	Monomotopa (Zanbeze). Lunda (Kongo)
XVII	Dahomey. Axanti (Ghanna)
1816-1828	Xaka: Errege zulua (Hego Afrika)
	AFRIKAREN KOLONIZAZIO EUROPARRA
1420-1460	Enrike Nabigaria: portugesak Afrikan
1413-1433	Zheng He: txinarrak eki Afrikan
1487	B.Dias: Itxaropen Oneko Lurmuturreraino
1498	Vasco de Gama Indiaraino
1652	Lehenengo holandarrak Hego Afrikan
1750-1870	Esklabu-tratuaren goraldia
1837-1854	Boer-en Estatu: Natal, Trarsvaal, Orange
1885	Berlin: Afrikaren partiketa europarra
1899-1902	Boer-en gerratea
1812	Marokkoren babesle, Frantzia/Espainia



I. AFRIKAK HISTORIARIK BAI OTE?

Sarri esan da, ohizko Afrika beltzak idazkera ezagutu ez duenez gero, historiarik ez duela izan. Honen arabera, Afrikara gizon zuriak heldu arte afrikarrek ez omen dute historiarik izan. Egia ote da, gero?

A) OHIZKO IKUSPEGI EUROPARRA

Honelako usteak nahikoa arruntak ziren XIX. mendean eta hauen azpian honako balore-sistema eta hipotesiak aurki genitzake. Alde batetik, eurozentrismo nabari bat, hau da, historiarik gizon zuriek soilik izan dutelako ustea. Hortaz, historiarik gabeko afrikarrak gizon zuriarekin (islamdar nahiz europarrekin) harremanetan jarri zirenean sartu zirela historian esan ohi da.

AFRIKA AINTZINATEAN. Feniziar, greziar eta erromatarrek ezagutu zuten, noski, Afrika, baina batez ere Iparraldekoa izan zen ezagutu zuten Afrika, eta Itsaso Gorria. XV. mendeko kartografiak,Ptolomeorenak jasoz,honela marrazten zuen kontinentea, Sahara-aldean hainbat laku eta ibai emanez. Geroago ikusiko dugun Ibn Battuta-ren idatziaren arabera (ik. "Nilo-ren ibilbide bitxiak"), hauetako bat (Niger) Nilo-ren ibai-adarra izango litzateke, basamortua mendebaldetik ekialdera trabeskatuz.Hortik ikus daiteke zein ezezaguna zen Afrika (ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa", 183 eta 200 orrialdetako mapak ere).

Espainiako testuliburuek, adibidez, 1970erarte eritzi hori ispilatu izan dute. Bestalde, garai hartako europarrentzat historia ezagutzeko bide bakarra idatzitako dokumentuak ziren; horren arabera, Afrika beltzak idazkerarik ezagutzen ez zuenez, memoria historikorik ere ez zuen.

Europarren logika jarraituz, afrikarrei beren historia ukatu egiten zitzaien eta eskoletan ikasten zuten historia Estatu europarretan gerta-

AFRIKA: HISTORIARIK GABEKO KONTINENTEA

"Benetako Afrika, Saharatik Hegoalderakoa da, kontinente honetako parterik berarizkoena. Kontinente honi buruzko gogoeta batekin hasiko gara, baina baztarrera ere berehala utz genezake, nolabait esateko. Berez ez du interes historikorik; jendeak barbarerian eta basatikerian bizi dira han eta ez diote zibilizazioari inolako aurrerapiderik eman. Historian ahalik eta gehien atzeratzen garela ere, Afrika beti aurkituko dugu itxita gainerako munduaren harremanetarako; El Dorado bat da, bere baitan bildua, haurtzaroan dagoen herrialde bat, gaueko ilunetan bildua eta historia kontzientearen argitatik harunzkaldean aurkitzen dena. Haren isolamendua ez da izaera tropikalaren fruitu bakarrik, eta bai areago haren geografiazko egituraren ondorio. Gaur oraindik ezezaguna da eta ez du inolako harremanik Europarekin. (...)".

Afrikaren kostaldeko zirrinda europarren eskutan dago mendez geroztik; baina barrualdera sartzen ez dira europarrak hasi, azkeneko hamabost urteok arte. (...).

Kostaldeko zirrinda, areatsua da zatiz eta biztandugaitza; baina barrurago emankorra da. Oraindik barrurago, berriz, ingurumen zingiratsua dago, luxuriazko landareriaz estalia, berebat basaberez biztandua eta kiratsezko, ia pozoinezko, atmosfera batez itoa. Hau dela eta, Zeilan-en bezalaxe, hemen ere ezinezkoa da ia barrura sartzea. Ingelesek eta portugaldarrek sarritan bidali dute hona behar adina tropa; baina gehienak ingurumen zingiratsu hauetan galdu dira, eta gainerakoak garaituak izan. Pentsa daiteke, erreka asko direla mendiak zeharkatzen dituztenak eta posible litzatekeela haietatik nabigatuz barrura sartzea. Baina bai Kongo-n, Niger-en ibaiadar bezala kontsideratzen denean, eta bai Orange-n ikusi da, zati batean nabigagarri baldin badira ere, gero goituezineko kataratak ugariz beterik daudela. Izadiaren egikera hau dela eta, europarrek ezer gutxi dakite Afrikako barnealdeaz; eta bitartean, tarteka-marteka, egundoko herri barbaroak atera dira handik, ez bait da haiekin harremanean jartzeko modurik izan (...).

Afrikako zati nagusi honetan, Saharatik Hegoalderakoan, ez dago historiarentzako lekurik. Han ez dago halabeharra eta ustekabea, elkarren segidan, besterik. Ez dago inolako xederik, inolako Estaturik bilatzeko; ez dago inolako sukjektibitaterik; elkar desegiten duten subjektu-sail bat besterik ez dago. Orain arte aditasun eskasa eskaini izan zaio, hemen izpirituak ageri duen kontzientzi modu berezi honi. Eskualde ezberdinetatik bildu diren albisteak sinestezinak dira gehienentzat. Berriok berezitasun izugarriak kontatzen dituzte gehienbat, eta beraz nekez atera daiteke horietatik koadro zehatzik edo printzipiorik, guk nahi genukeen bezala". *(HEGEL, 1770-1831)*

tutakoa zen, Napoleonen guduak kasu; horrela baztertzen zen afrikarrek inguruan zuten historia miresgarria.

1960ko urtetik aurrera herri afrikarrak independentziaren ildoan sartu zirenean, beren historia berreskuratzen hasi ziren, duela laurogei urte (1880) zuten burujabetasunarekin segida berrituz.



HOMINIDO AFRIKARRA. XIX. Menderarte hain ezezaguna izan den Afrikan, gizakiak aspaldidanik utzi ditu bere oinatzak. Tanzaniako Laetolil-en aurkitutako hauek dira zaharrenetakoak: orain lau bat milioikoak dira. Oinatzok animalienekin nahasian ageri dira (hiruatzeko zaldi batenak, adibidez). Salbuespenezko alde egokiak suertatu zirelako gorde dira hauek, eta horietatik jakin ahal izan da hominido haiek zein inguru-modutan bizi ziren.

B) HISTORIA, DISZIPLINARTEKOTASUNAREN ILDOTIK

Herri-oroimena berreskuratze horrek, lehen aipatu eskema baztertzea eta historiara planteamendu irekiekin hurbiltzea eskatzen digu. Beraz, gure galderak hauek izango lirateke: herri baten historia ezagutzeko bidea edo bideak zein dira? Historia izateak zer suposatzen du? Edo historikotasuna zertan datza?


Lehenengoz eta behin, Afrika beltzak idazkerarik ezagutzen ez badu eta historiara hurbiltzeko ohizko bidea dokumentuen testigantza zuzenaren azterketa izan bada, nahitaezkoa da beste bide batzuk jorratzea, hau da, beste disziplina edo zientzien metodoez eta aztergaiez baliatzea. Esate baterako, paisajean zehar gizakiak utzitakoak arakatuz (**Arkeologia**), zera jakin dezakegu: Afrikara etorri ziren lehen ikusketariak ez zirela europarrak izan, ezta islamdarrak ere, indonesiarrak baino, berauek heldu bait ziren Madagaskar-eko irlara K.a. IV. mendean.

Beste adibide bat: gaur eguneko basamortu saharatarra Neolitoan lur emankorra eta populatua izan zela badakigu gaur, kultura aberatsa ezagutu

zuela (labarretako pinturak). Baina aurkikuntza arkeologikorik garrantzitsuenak Afrikaren lehen historiari dagozkionak dira, zeren eta 1960ko hamarkadatik hona egin diren aurkikuntzei esker zera esan bait genezake: gizadiaren jatorria Afrikan koka dezakegula. Honela bada, Afrikako giza historiak, gutxien jota ere, baditu bi milioi urte.

Bestalde, gizakia ingurunean txertatzen denez, ingurugiro afrikar hori ezagutzeak (ekosistemak), **ekologia** dela medio, zera eskaintzen digu: naturak ematen dizkion ahalbideez eta mugez ohartzea. Era honetara, jatekoak, bizitokiak, energi motak, lurraldeaz jabetzeko erak, leku aldaketak, etab. azter ditzakegu.

Herri-hizkuntzak aztertzen baditugu, berriz, **linguistika** erabiliz, hau ikus dezakegu: herrien arteko harremana, migrazioa, kulturen ba-



HISTORIAURRE AFRIKARRA. Orain hamarkada batzuk arte, gizadiaren sorlekua Asian ikusi izan da, baina hogeigarren mende honetan Afrikan aurkitutako aztarnategi eta gerakinei esker guztiz aldatu da hipotesi hura eta, gaur egun, Afrika ikusten da gizakiaren lehen sorleku bezala. Mapa honetan ikus daitezke Afrikako Historiaurreak utzi dizkigun aztarnategi ezagunen kokalekuak. Alde batetik, Saharakoak gogoan hartzekoak dira, ikasgai honetan ikusiko ditugun arrazoiengatik; Laku Handien inguruetakoak ezin dira ahantzi (Oldoway, batipat), aurrerago ikusiko dugun zinjantropoagatik.



AFRIKAKO HIZKUNTZAK. Oso soilduta ageri den mapa honetan zazpi familia linguistiko ematen ditugu. Lurrez zabalduenak hizkuntza hamito-semitarrak dira, iparralde osoa aldenik alde hartzen dutela; Ekuadoretik behera familia bantuko hizkuntzak dira nagusi. Gainerakoek askoz ere lurralde mugatuagoak dituzte.

naketa, herrien pentsaera, baloreak, etab. Bestalde, **etnologiari** esker, ohiturak, errituak, sineskizunak, antolakerak, etab. aztertu dira. Etnologoek, bada, bertako hizkuntza ikasiz eta behaketa zuzenaz baliatuz, herri afrikarren historiaren esparruari etenik gabeko hedadura eman diote.


Ikusten denez, bada, afrikar historiaren berri emateko historilariak beste giza edo natur zientzien beharrean aurkitzen dira.


Azken bi disziplinetan ikus daitekeenez, herriaren hizkuntza bizia ezagutzeak garrantzi handia du herri hauen historiara hurbiltzeko. Bestalde, zibilizazio europarretan historia idatzia izan bada gertaera historikoak finkatzeko era eta, halaber, belaunaldi batetik bestera beroriek hel erazteko modua, Afrika beltzean, alderantziz, gertaerak herri-oroimenean gorde izan dira, belaunaldietan zehar, eta **ahozko tradizioa**ren bitartez besterenganatu dira. Sarritan, tradizioari fideltasun handienaz jarraitzearren, funtzionari bereziak aritzen ziren egunero haren edukina errepikatzen.

Ikusten denez, ba, historiara heltzeko bideak anitz dira, baina ez ditzagun ahantz **iturri idatziak**.



DANTZARIA. Afrikako kulturetan dantzek eta musikak leku nagusia izan ohi dute, eta eguneroko bizitzarekin lotu-lotuta ageri dira. Izadia, erlijioa eta folklorea elkarrekin bateginda datoz herrien tradizio kulturalean: afrikarraren zentzu ludikoa ere hortxe biltzen da. Ahozko tradizioa ere arrasto berean dator, belaunaldiz belaunaldi.






DANBOR HIZTUNA. Doinua, erritmoa eta hitza: hirurak elkartzen dira tresna honetan. Nigeriako yoruba-herriaren danbor-molde hau, urrunera hitz egiteko da. Danbor-hariak jotzean, danbor-burua teinkatu egiten da, berorren arabera nota ezberdinak emanez, zortzidun edo gehiagoko erradioz. Jotzaile on batek tonu-erritmoak aldatuz, danborrari "hitz" eragin diezaioke, tribuko hizkuntzan dauden tonu-eredu ezberdinak imitatuz. Mezuak bidali, dantzak gidatu edo ohizko atsotitzak errezitatzeko balio izaten die yorubei danbor hiztunak: "Izarrak, ilargiak adina izan nahi badeza, ahalegin dadila. Porrot eginen du, Jainko guztiahaldunak ez bait dio horretarako graziarik eman" dio danborraren kantu honek.

ONTZI ERROMATARRA. Afrikaren Iparraldea Inperio Erromatarraren mugen barrutian zegoen, eta Afrika-barnetik haraino iristen ziren produktuak Italiako Hiriraino heltzen ziren. Mosaiko honetako ontzi hau Tripolitaniako (Libya) Sabratha portutik zetorren.



Kanpoaldeko herriak Afrikarekin harremanetan jarri zirenean, haiek eman ziguten besteon berri. Hala **greko-erromatarrek** Ipar Afrikako lurraldeak ezagutzeko egin zituzten ahaleginetan; informazio sakonagoak emango dituzte VIII. mendetik aurrera **musulman bidaiariek** (Ibn Battuta 1304--1377, Ibn Khaldun 1332-1406, etab.), hauei esker ezagutzen bait dugu Tropiko-aldeko erresumen eta ekialdeko itsas hirien berri. Txinan ere aurki daitezke dokumentuak.

XV. mendetik aurrera europarrak Afrika-ra heltzen direnean, han ikusitako kulturen berri emango digute, beren harridura agertuz. XIX. mendean areagotu egingo da idatzita agertzen den informazioa, esplorazio sistematikoak (bidaiariak, geografoak, etnologoak...) eta kolonialismoa (hitzarmenak, praktika juridiko-administratiboak ...) garai horretakoak dira eta.



NILOko ARRAUNLARIAK. Egyptiarrak --batez ere nekazari-- ez ziren nabigari sonatuak izan; baina Punt herrira (Somalia) bidalitako bi espedizio handi ezagutzen ditugu, eta orobat Nilo gora hirugarren kataratararaino egindako beste bat. XVIII. Dinastiako papiro bateko irudiak dira hauek (K.a. XVI-XIV. mendeak): Amenofi (c. 1545-1525) eta Tutmosi (1525-c. 1512) faraonen erregealdietan segurtatu ziren Inperioaren Nubiako mugak, hegoaldean.

C) OSPE HANDIKO HISTORIATIK HISTORIA ARRUNTERA

Esan dugu, bada, historia afrikarrera hurbiltzeko bideak anitz direla. Baina afrikarrek zein motatako historia dute? Gogora ditzagun gai honen sarreran egindako galderak: Historiarik izateak zer esan nahi du? Edota herri baten historikotasuna zertan datza?

1953an idatzitako liburu batean (PITTARD, E.: "Les races et l'histoire", Paris, 1953) honelako eritziak ematen ziren: "Arraza afrikarrek ez dute inondik inora historian parterik hartu". Béraz, eritzi hauek defendatzen zituzten autoreentzat, normalki historia europarraren eredua jarraituz, historian parte hartzeak zera suposatzen zuen: gertaera aipagarriak (gerrak, bakeak, aurkikuntzak...), pertsonaia ospetsuak (erregeak, artistak, politikoak, zientzi gizonak...), eraikuntza miresgarriak (eraikuntza zibilak, militarrak, erlijiosoak...) izatea eta antolakuntza politiko konplexuak (hiriak, erresumak, estatuak, inperioak). Elementu guzti hauek historiaren bizitasuna, mugikortasuna eta aldakortasuna adierazten digute.

Honelakorik bai ote da, gero, Afrikan? Zalantza honi erantzuna emateko, hor ditugu Afrikan zehar hainbat adibide, ekialdeko itsasaldean kokatzen diren merkatal hiriak, Sudan-aldeko erresuma eta inperioak, Kux-eko piramideak, Benin-eko artelan miresgarriak, Tunbuktu-ko unibertsitatea, historilariak, legegizonak, etab. biltzen zituena. Azken hiri honetan, liburuen merkatalgoak beste edozein merkantziak baino irabazkin gehiago ematen zuen, eta gizon baten aberastasuna neurtzerakoan, haren liburutegiko ale-kopurua kontutan hartzen zen.

Baina badago beste Afrika bat Estatu-mailako antolakuntza politikorik eta aipatu ditugun moduko elementurik ezagutzen ez duena. Historian,

ESKLABUTZA AFRIKARRA

"Afrikan gizakiak baliorik ez duenez, ulertzekoa da esklabutza funtsezko erlazio juridikoa izatea. Beltzek europarrekin izan duten eta orain ere duten funtsezko harreman bakarra esklabutzarena da. Eta beltzek ez dute honetan ezer desegokirik aurkitzen. Eta zeini eta ingelesei, esklabu-tratua eta esklabutza ezabatzeko beste inork baino gehiago egin dutenei, begiratzen diete beltzek etsai bezala. Erregexkentzat munta handikoa da beren gatibuak eta are beren menpekoak ere saltzea. Zentzu honetan ondorio gizatiarragoak izan ditu esklabutzak beltzen artean. Beltzak Amerikara eramaten dituzte europarrek eta han esklabu bezala saltzen. Baina beltzaren zoria ia okerragoa da bere herrian, ba han ere bada esklabutza. Esklabutzaren funtsa da, oro har, gizonak bere libertatearen kontzientziarik ez edukitzea, eta beraz gauza baten eta berez baliorik ez duen izaki baten mailara apaletsia izatea. Europarrek bisitatu dituzten Afrikako erreinu guztietan praktikatzen da esklabutza naturala. (...).

Beltzen berezitasuna hezikaitza izatea da. Horien egoera ez da gauza hobekuntzarik eta hezkuntzarik jasotzeko; eta izan ere gaur ikusten ditugun bezalaxe izan dira beti. Arbitrarietate sentsualaren bortxa, izugarria da haien artean eta moralak ez dauka inolako indarrik. Giza izaeraren adierazpen izugarriak ezagutu nahi dituenak Afrikan aurkituko ditu. Beste horrenbeste esaten digute munduko zati horri buruz dauzkagun berririk zaharrenek ere; horrek ez du beraz historiarik. Horregatik bazterrera utziko dugu eta ez dugu gehiago aipatuko. Ez da mundu historikoaren zati. Ez du mugimendurik, ez eboluziorik ageri, eta han, haren iparraldean gertatu dena, asiar eta europar munduarena da. Alderdi honetan Kartago izan zen une garrantzitsu eta iragankor bat; baina feniziar kolonia feniziarra zenez Asiakoa zen. Egypto da kontutan hartu beharrekoa Ekialdetik Mendebaldera izpirituak egin duen leku aldaketaz hitz egitean; baina hau ez da Afrikako izpirituarena. Afrikatzat hertsiki ulertzen duguna, zerbait isolatua eta historiagabea da, oraindik osoro izpiritu naturalean murgildurik dagoena, eta hemen, historia unibertsalaren atari honetan, aipatu bakarrik egin daitekeena". (...). *(HEGEL, 1770-1831)*

bizitza aldakor eta gertaeraz betetakoaren aurrean, mendeetan zehar egunero errepikatzen den historia geldoa eta sinplea agertzen zaigu. Baina, gauzak honela, beti berdin, gertatzen badira, bai ote dute interesik? Eta historiaren ezaugarri bereziena denboran zehar ematen den aldakuntza bada, herri hauek bai ote dute, gero, historiarik?

Lehenengo eta behin zera esan behar dugu: azaleko ikuspegi batetik somatzen den bizimodu sinplearen azpian, denbora luzean zehar burututako gertaera harrigarri bat aurkitzen dela: kontinentearen menperatzea, bertako hain ingurune desberdinetara moldatu ahala.

Honela, bada, herri hauek ingurunearen eragozpenak gainditzeko zituzten arteziak asmatu eta garatu zituzten: harri- eta burdin-teknologia, ehiza jarraitzeko abilezia, baliakizun naturalak hainbat eratara erabiltzeko moduak (jantziak egiteko zuntzak, sendabelarrak, jateko fruituak), adibidez. Beraz, izadiarekiko oreka lortu zuten, natura bera ezagutuz eta egoki erabiliz. Bestalde, herri hauen bizimoldeak era askotakoak izan dira:

EHIZA, LANBIDE NOBLEA DA

"Twa, pigmeo-talde txiki bateko buruzagia da. Erreka-bazter batean bizi dira Kongo-ko oihanean. Asko ikusitako agurea da. Hura bezalakorik ez da antilope harraren marrua imitatzen, emeak erakartzeko. Laxo hutsezinak egiten ere badaki. Baina Twa-k eta bere gizonek nahiago izaten dute txabalina, arkua eta gezi pozoituak erabili. Isil-isilik ibiliz, talde txikitan, ataizean orduak eta orduak egin ondoren, gezikada batez botatzen dituzte basurdeak eta antilope nanoak, edo bestela bizirik harrapatzen dituzte beren sareetan. Zalantzarik gabe erasotzen diote elefanteari ere. Twa-k jaurtitzen du txabalina, bitartean lagunek zankabeak ebakitzen dizkiote animalia tzarrari; hau orduan zerraldo gelditzen da, sabelean sartu dioten arpoinaren gainera erortzean.

Oihaneko Beltz handiei dagokienez, ehizaldiak antolatzen dituzte, Kongo ibaiaren hazialdietan, animaliak uholdetik iheska dabiltzanean. Inguratzen dituztenean, denak hiltzen dituzte. Holakoetan sekulako jatazoak egiten ditu herriko jendeak. Normalean ez bait dute haragirik izaten, eta tarteka tarteka harrapatzen duten ehizi bakan batzurekin konformatzen dira. Ehizaketa handienak sabanan egiten dira, jendeak sastrakategietan sua egin ondoren, animaliak zoraturik ehiztarien sareetan erortzen direnean". *(LAURENT)*

bilketariak, ehiztariak, abeltzainak, nekazariak. Eginkizun horiek aurrera eramateko aparteko organizazio-maila behar zen, eta baita lankidetza eta erantzukizun soziala ere. Portaerak, berriz, arautuak zeuden, usario eta ohituretan oinarritzen zirela, eta honez gain, sineskizunei esker, kohesio eta egonkortasun handia lortzen zuten talde hauek.

Gertaeraz jositako historiaren ondoan, eguneroko historia ezagutzeak ere badu bere interesa, hor aurkitzen bait ditugu bizitzaren eragozpenen aurrean gizakiak emandako erantzunak eta irtenbideak, eta errepikatuz luzaroan iraun badute, horra hor beren egokitasunaren seinalea.

Laburpen eta ondorio gisa: a) Material eta metodo ezberdinen arabera, histori gaiak esparru txikira muga ditzake ikertzaileak, edota, bestela, zabalera handia eman diezaieke; b) Historia bizitzeko era asko daude,eguneroko bizimodu arruntetik hasi eta gertaera apartekoetaraino.

Abeltzainak, harro beren aziendarekin

"Abere larriaren hazkuntza herri nomada batzuren espezialitatea da, eta etengabe larre bila ibiltzen dira batetik bestera. Ganadulari hauentzat, nagusiaren gananina da ganadutalde handiak izatea, baina oso probetxu gutxi ateratzen diote ganaduari: esne-behi batek litro bat esne besterik ez du ematen eguneko!

Batzutan maitasun harrigarria erakusten dute ganadulari hauek beren animalientzat. Gazteak bere kutuntzat aukeratzen duen zezena ez da inoiz botea izango, bere aita-'ordekoa'ren hilobi gainean izan ezik. Aitaren 'kutuna' hiltzean, berriz, lutoa eramaten du hark, ahaide baten heriotzagatik bezalaxe". *(LAURENT)*

Arrantzale kotoko-tarrak

"Logone eta Txari-ren ertzetan bizi dira kotoko-tarrak, Txad Lakutik bertan. Ez zaie trebetasunik falta arrantzale hauen teknikei. Piragua handiak erabiltzen dituzte, egurrezko pieza handiz eginak, eta beren muturretako batean izugarrizko sare triangeluar bat eramaten dute egurrezko bi gakoren gainean jarria, gako hauek pendulo-sistema zuhur batez maniobratzen dituztela. Ohiki ilargiaren argitan egiten da arrantzaldia, piragua-ilara bat errekan aurrera doan bitartean, beste ontzi-taldetxo bat bila ateratzen zaie; hauetako arraunlariek egur-puskekin eta piragua-ertzak jotzen dituzte, arrainak behera joan daitezen. Harrapatutako milaka arrainak ireki, eguzkitan lehortu eta lasto-ketan keatzen dira". *(LAURENT)*

II. POPULAZIOA: NOIZTANDIK AFRIKA BELTZA?

Gizon zuri batek afrikar guztiak berdinak direla, edo beltzak direla esango balu erratua egongo litzateke. Hau da, gizon zurien artean ezberdintasunak nabariak badira, arabiar eta alemaniar baten artekoak kasu, afrikarren artean ere berdin gertatzen da. Beraz, zibilizazio afrikarraren ezaugarririk eman behar balitz, hizkuntz eta etni aniztasunean legoke hau. Hizkuntz arloan, kasu, 1200 hizkuntza inguru ezagutzen dira.

Oldoway

"Tanzania-ko leku bat da, Eyasi Lakutik hurbil dagoena, non jatorri tektonikozko harroil baten paretek estratografia garrantzitsu bat eskaintzen bait dute, 100 bat metro lodikoa. 1911z gero ikertzen zen aztarnategi hau, zituen koaternario zaharreko ugaztunen faunagatik, eta 1913an neantropo-eskeletu fosil bat eman zuen tipo nilotikokoa (Oldoway-ko gizakia). 1931tik hona, Paleolitoko sekuentzia inportante bat aztertu zuen Dr. Leakey-k. I. horizontea, sakonena, eta II. horizontearen azpikaldea aro euritsu kageratarrekoak dira. Horien adina, potasio-argon-metodoaren bidez finkatua, 1.850.000 eta 1.100.000 urteren artean kokatzen da. Uharri tailatuz konposatutako industria bat eman dute (choppers eta choppingtools), Oldoway-tarra.

Hainbat arkantropo-barietateren gerakinak aurkitzen ziren tresneria horren ondoan: forma sendo bat, zinjantropoa, eta forma airoso bat, "Homo habilis"arena. II. horizontearen gorenaldean, plubial kamastarraren hasierara igoz eta 500.000 urte-inguruan dataturik, acheuldarra aurkitzen dugu antropo eboluzionatuago batekin, pitekantropoaren urreko batekin. Acheuldarrak III eta IV. horizonteetan jarraitzen du. Azken hauen kokamenduaren ondoren, 150.000 inguruan, ipintzen da Rift Valley-ren amiltzea sortu zuen iraulketa tektonikoa. V. horizonteak Kenya-ko kapsatarra eman du". *(M. BREZILLON)*

Zinjantropoa

"Australantropo-mota bat da. Honen lehenengo aztarnak 1959-an aurkitu zituen Dr. Leakey-k Oldoway-ko harroiletako jalkinetan (Tanzanian). Zinj esaten diote bertakoek eskualde horri, eta hortik datorkio izena. Gerakinak aurkitzen ziren, animali hezur puskatuekin eta harri tailatuzko zergauza batzurekin batera (choppers), hauek osatzen bait dute industria oldoway-tarra. Kopeta iheskaria zuen zinjantropoak eta garezur-kabiera 700 cm^3 ingurukoa. Aurpegi bete eta luzeak, sudur-zuloaren zabalerak eta begizuloen arteko bankerak tximino-itxura ematen zioten. Baina haren atze-garezurraren egitura gizakiarena da osoro eta erabateko postura bertikala adierazten du. Forma sendo hau, potasio-argon-metodoarekin 1.750.000 urtetan datatzen dena, Oldoway-koa da eta Homo habilis-aren garaikidea. Zalantzarik gabe, hori ez da aurkitzen zuzenean gaurko gizakira datorren lerroan".

(M. BREZILLON)

Gizakiaren sorrera Afrikan gertatu denetik, duela bi milioi urtetik hona, kultur aniztasuna izan da historiaren prozesua sorterazi duen emaitza, desberdintze-prozesu horretan ingurune geografikoak eta migrazioak izan duten garrantzia kontutan izanik.

Abiapuntu horretatik (gizakiaren sorreratik) helmuga honetara (gaurko kultur aniztasunera) heltzeko bide luze horretan afrikarrek izan dituzten problemak hauek izan dira: a) beren kontinenteko lurraldeaz jabetzea, hau da, afrikarrak berak izan dira Afrika ezagutzen ahalegindu diren lehenak; b) inguru geografiko bakoitzetara moldatzea, bizimodu eta kultura bereziak sortuz (ehiztaritza, abelazkuntza, nekazaritza, merkataritza...).

Denbora luze horretan eta lurralde zabal horretan (hedaduraz, bigarren handiena) kultura asko sortu badira ere (milatik gora), jatorrira jotzen badugu, lau talde etniko nagusi aurki ditzakegu.

ZINJANTROPOA. Leakey paleontologoak aurkitu zuen Zinjantropoa deitu izan den gerakin hau, Tanzaniako Oldoway-n: Historiaurrea, hamar bat milioitatik bi milioitarainoko tartean hasita zegoen Tanzaniako inguru haietan.

Askoz geroago, orain bi mila urtetik hona, Eki Afrikako sapalda garai hauek herri, hizkuntza eta kultura ezberdinen topaleku izan dira.

Paleolitotik hona, gerora hegoalderantz egingo zuten boskimanak izan ziren, antza, hango Neolitoa egin zutenak (bertako khoisan hizkuntzen gerakinek adierazten dutenez): K.a. VII-III. milakadetan loratu zen Laku Handietako Neolito hura.



A) LEHEN GIZAKIAK

Gizaki prehistorikoarekin antza duten herriak eta Afrikako biztanlerik zaharrenak diren pigmeoak (ekuadore-oihanean), boskimanak (Kalahari basamortuan), eta hotentoteak (hego Afrikan). Talilu txikia eta kolore beltzaran-horizka duten herri hauek, bilketan, ehizean eta abelazkuntzan aritzen dira. Beltzak (bantuak) hegoaldera heldu zirenean, aipatu herri horiek eskualde baztertuetara (oihan eta basamortuetara) aldendu ziren.

B) AFRIKAR BELTZAK

Beltzak heldu zirenean esan dugu. Honek zera adierazten digu, hasiera batean beltzak ez zeudela Afrika osoan zehar hedaturik.Areago oraindik, K.a. 6000. urteko gizakiaz ari bagara, ezin dugu esan, aipatu gizaki hori artean arraza beltzekoa zenik.

Sahara idortzen hasi zen garaian (K.a. III. milakadan) lurralde horietako jendea Tropiko-aldera (hegoaldera, Sudan-eko lurraldeetara) migratzen hasi zen eta badirudi mutazio edo eguzkiztapenaren ondorioz sortu zela arraza beltza. Une honetantxe sartu ziren, bada, gaurgero beltzak diren **herri sudaniarrak** (Dakar-etik Ethiopia-raino hedatzen direnak).

Tropiko-aldean finkatzen diren nekazal herri hauek, ingurune aproposa aurkitu zuten laborantzarako, eta erosotasun materiala lortu ere bai. Honen ondorioz, hedakuntza demografikoa eta, aldi berean, geografikoa etorri zen. Beraz, populazioaren ugalketa gertatu zenez gero, jendetza hegoalderantz abiatu zen lur berri bila. Hau izan zen herri **bantua**k hartu zuen bidea.

Prozesu hau Burdin Aroan (K.a. 500 inguruan) hasi zen eta neurri handi batean burdinari esker gertatu zen. Ordurarte Ekuadore-aldeko oihanak giza finkapenari oztopo handiak ipintzen bazizkion ere, orain burdinazko aizkora dela medio eta oihanean hazi daitezkeen ñame eta bananari esker, errazago lortuko da pasaezineko esparru itxi hori menperatzea. Ekuadoretik hegoalderantz gure Aroaren lehen mendeetan heldu ziren; VII-VIII.etan Laku Handietako lurraldeetan aurkitzen ditugu, eta X. mendean, jadanik, gaur eguneko Zinbabueraino heltzen dira.



Beraz, bantuek, Ekuadore-aldetik hegoaldera hedatzen diren heinean, beren hizkuntza, kultura eta bizimoldeak (nekazaritza, metalurgia) hedatuko dituzte, bertan aurkitu zituzten jatorrizko herriak berenganatuz, edo zokoratuz.

C) TALDE KAUKASIARRA

Aurreko bi talde etnikoak jatorriz afrikarrak badira, hirugarrena, kaukasiarra zen. Asiatik etorri zen hau, eta K.a. XV. milakadan Afrikako iparraldean (Sahara-n) eta ipar-ekialdean (Somalia-n) zehar hedatu ziren. Familia linguistikoari dagokionez talde hau afro-asiar edo hamito-semitar deritzanarekin elkartzen da. Beraz, Sahara-tik Ekialde Hurbil eta Arabia-raino hedatzen den lurraldeak hizkuntz unitate bera osatzen du. Talde honetakoek beltz bantuak baino altuera handiagoa dute eta beren azalaren kolorea beltzaren eta beltzaren artekoa da.

AFRIKARRAK. Afrikar guztiak ez dira beltzak, eta Afrikako beltz denak ez dira berdinak. Mendebal afrikar beltzak (1) beltzaran ilunak dira; baina hamitak (5) azal argikoak dira. Bantuak (4), ostera, oso ilunak dira eta Ekuadore-hegoaldea betetzen dute, boskimanak (2) basamortuetara bultzatu ondoren (Namibia). Hotentoteak (3), boskimanak bezala, khoisan hizkuntz familiakoak dira, Hego Afrikan zuriek, iristean, aurkitu zituztenak.



AFRIKA BELTZEKO ARRAZAK

- AFRIKA BELTZA
  - Melano-Afrikarrak
    - Sudaniarrak
    - Ginearrak
    - Kongotarrak
    - Nilotarrak
    - Hego afrikarrak
  - Ethiopiarrak
    - Galla-tarrak
    - Abisiniarrak
    - Erdi-kamitak
    - Peul-darrak
  - Negriloak
  - Khoisanak
    - Boskimanak
    - Hotentoteak

Talde kaukasiar honetakoek abelazkuntzan iharduten zuten, eta Saharak ezagutu zuen idorraldikoan eki-hegoalderantz egin; batzuren ustez, bantuak baino lehenago heldu ziren Ozeano Indiko-aldera.

D) TALDE MESTIZATUAK

Azkenik talde mestizatuak aipatu behar ditugu. Ipar-mendebaldean, Senegal eta Txad Lakuaren artean aurkitzen ziren herri abeltzainak (peul herria) iparretik hegoaldera ibiltzen ziren larrealdaketan. Saharako berbereekin eta hegoaldeko oihanetako beltzekin nahastu ziren.

Ipar-ekialdean aurkitzen dugun herri ethiopiarra ere, iparreko zurien (kamito-semitak) eta hegoaldeko beltzen arteko mestizaiaren emaitza da.

MADAGASKAR

"Ozeano Indikoan isolaturik, Mozambike-ren parean, aparteko mundua eta jatorria ondo ezagutzen ez dena da Madagaskar. Hedaduraz (587.041 km^2) munduko hirugarren irlarik handiena da, eta biztanleria eskasa (7 milioi biztanle) eta konposatua (hamazortzi etnia ofizialki zentsatuak) ditu bere lurrean. Ehundaka urteetako nahasturak eta barne-migrazioek benetako biztanleria afro-asiatiko bat sortu dute. Nahastura honetan, jatorri malaio-polinesiarreko hizkuntzak adierazten duenez, Ekialde Urruneko aportazioa nagusitu zaie berriagoak diren beste aportazio afrikar eta arabiartuei. Atzerritar gutxiengo indiarra (musulmana), Comoretarra, txinarra eta europarrak, kopuruz urriak diren arren, garrantzizkoak dira ekonomi aldetik.

*Madagaskar beti egon da bere irla-izateak biziro markatua. Natura bera, landareak eta mineralak, espezie bereziz osatuak daude han zati handi batean. Afrika kontinentalean eta Asian ez bezala han ez da aurkitzen basapiztirik, ez suge pozointsurik. Ostera, era guztietako lemuridoak aurkitzen ziren lehen basoan, honek irla osoa estaltzen bait zuen garai hartan; horietako handienak, eta **oepyornis**-a (txori erraldoia, hegalgabea eta zortzi litroko arrautza egiten zuena), haratu ziren lehenengo gizakiek ondatu zituzten agian.*

Ekumeneko izoztugabeko lurralde handietan kontinente malgatxea izan zen, antza, azken jendeztatu zena. Aurregizakiaren seaska izan diren Afrika eta Asiaren artean, gaurdaino Madagaskar-ek ez du Historiaurrearen arrasto garbirik eman". *(H. DESCHAMPS)*

Hegoaldean, Madagaskar-eko irlan malgatxeak daude. Irla honetan Harri-Aroko giza aztarnarik ez da aurkitzen. Gertaera honek zera adierazten digu, lurralde hau berandu jendeztatua izan zela. Badirudi itsasgizon ziren indonesiarrak izan zirela,montzoiez baliatuz, K.a. IV. mendean ekialdeko itsasalde afrikarrera lehenbizi heldu zirenak; hipotesi baten arabera, beltz bantuekin bertan nahasi ziren.

Dena den, gure Aroaren hasieran irla honetan jadanik finkatuta zeudela esan genezake eta sortu zuten kultura mestizatua zela. Honela, bada, Madagaskar-eko hizkuntza indonesiarra da eta nekazal eta artisau teknikak ere bai; etxabereak eta abelazkuntzarekin lotzen diren teknikak, ordea, Afrikan dute beren jatorria. Dena den, Madagaskar-eko irla historikoki Ozeano Indikoaren zibilizazio-barnean kokatu behar da, gaur egun, kontinentearekiko duen hurbiltasunagatik, historia afrikar garaikidearekin elkarturik egon arren.

Laburbilduz, bada, Afrika karakterizatzeko ezin genezake esan bertan beltz tipo bakarra dagoenik, afrikarrek beltz, beltzaran, mestizatu, eta abarren mosaiko konplexua osatzen bait dute. Kontinenteko mapa etnikoa egitean amaituezinezko gatazkak, lekualdaketak eta nahasketak agertzen dira hango historia-geografietan.

Bantuak

"Emigratzaileak alde guztietara sakabanatzen ziren kontinentean zehar; beste batzurekin topo egin eta nahastu egiten ziren eta gero talde berriak sortzen zituzten; laster zituzten beren menpe Afrikako erdialdea eta hegoaldea. Boskiman eta pigmeo atzeratuei lekua kendu eta elkarren artean ahaidetutako hizkuntz familia handi bat eman zioten Afrikari, bantuera, gaur egun Ekuadoretik Hegoaldera dagoen kontinentearen parterik handienean hitz egiten dena. Prozesu honetan kultura konplexu eta ezberdindu bat sortu zen. Afrikarrek azkenerako, mila hizkuntza ezberdin baino gehiago hitz egiten zituzten eta ia beste horrenbeste portaera- eta sinesmen-sistema zeuzkaten. Sistema hauetako batzuk sortu zituzten gizarteen bizi--maila --mantenu, segurtasun pertsonal eta libertateari dagozkienetan-- Europan garai hartako gizarteek zutenaren parekoa zen". (B. DAVIDSON)

PYGMEOAK

Negrilo edo pigmeoena Afrika tropikaleko populazio bat da; 20.000 bat lagun dira guztiak, taila txikikoak (1,50 m-tik behera batezbestekoa). Azala màrroi-horia dute eta ile ugariz betea, buruko ilea kiskurra.

Arraza-mota hori ez da Afrikako beste inon aurkitzen, baina Melanesia-n bai, negrito-en artean. Bizimoduz boskimanen antzekoak dira, baina ez daukate arraza-ahaidetasunik hauekin. Hauek bezala fruitu-bilketatik eta ehizetik bizi dira; talde nomadatan organizatzen dira, buruzagirik gabe, edo ehiztari zaildu eta trebeenaren agintepean. Pigmeoak galtzeko bidean daude, ez esterminazioz edo iraungipenez, eta bai areago beltzekin egiten duten mestizazioz eta asimilazioz.


E) ESKUALDE KULTURALAK

Lehenago, oinarrizko lau tipo etniko nagusi, bakoitza bere hizkuntza eta kultur unitatearekin agertu baditugu ere, benetan historiaren eraginez sortutako ezberdintasun erregional handiak aurkitzen ditugu.

Arazo hau adibide europar baten bidez ikusiko dugu; hau da, Europa zuriaren barnean, indoeuropar jatorri bera dutelarik, germaniar eta latindar hizkuntz eta kultur unitateak aurkitzen ditugu; baina, historian zehar eman den desberdintze-prozesua dela medio, aipatu unitate bakoitzaren barnean hizkuntz eta kulturazko azpi-unitateak sortu dira: latindar munduan, esate baterako, italiar, espaniar, frantses, kataluniarrak...

Bestalde, badago arretaz itzuri behar dugun hutsegite nahiko arrunt bat: Populazio beltzaz edo beltzaranaz hitzegiten dugunean, Afrikakoetan bestetan ez dugu pentsatzen; baina ez dezagun ahantz jatorrizko biztanleria beltzaranak Indian, Filipinetan eta Malaka-ko penintsulan ere aurkitzen direla. Bestelako arazoak ditu, ordea, Ameriketan gaur egun aurkitzen dugun populazio beltzak, Amerika beltz hau gertaera historiko baten ondorioa bait da: XVI. mendetik XIX. menderarte gertatu zen esklabutzaren ondorioa, hain zuzen ere.

Azkenik esan behar dugu, populazio beltzaren ezaugarri bereizgarriak aipatzean desberdintzapen fisikoak (azalaren kolorea, ilea, etab.) sarritan aipatu direla, era honetara "arraza" beltza definituz eta beste batzuekin kontrajarriz. Une historiko batzutan desberdintzapen horiek,



MOZORROA. Mendebal Afrikako zuhaitz-izpirituaren mozorro hau bezalakoak, orain 2000 urtekoak ere aurkitu dira Nigerian. Greziako antzertian bezala Afrikan ere, mozorroak esanahi magikoa izan dezake: aurpegi-estalgarriak irudikatzen duen izaki traszendentea mozorrodunarengan haragi-egiten da. Ikusmolde magiko hau bizi-bizirik dago oraindik afrikarren artean.

aurreritzi bihurtuz, populazio beltzak gutxiesteko erabili izan dira. Baina sarritan orokortzat jo diren beltzen seinale fisikoak ez dira horrela gertatzen, eta beste batzutan kolore beltzeko azala dutenek zurien aztarnak agertzen dituzte.

Gaur eguneko ezagutzen arabera, beraz, giza espeziearen funtsezko batasuna azpimarratu beharra dago: inolako sailkapenik egitekotan zuzenagoa da gizarte, kultur eta hizkuntz ezaugarriak erabiltzea. Afrikan, bada, bi hizkuntz multzo nagusi bereiz daitezke: Ipar Afrikan kokatzen den multzo afro-asiarra (edo hamito-semita) eta Sahararen hegoaldetik hego Afrikara hedatzen den nigero-kongotar familia zabala, honen barnean sudaniarrak eta bantuak sartuz.

SAHARA EZEZAGUNA

"Sahara da lurbirako basamorturik handiena, bai luze-zabalagatik eta bai idor-mailagatik. Ohiki, lehen 'Sahara frantsesa' deitzen zenaren mugetan kokarazten zen geografikoki, eta 4.300.000 km² hartzen zituen, hau da, Frantzia halako zortzi. Ekialdera Itsaso Gorriraino hedatzen da, Lybia, Nubia eta Egypto Garaia eta Beherea bere altzoan besarkatuz. Honela hartuz gero, 6.000.000 km² inguru izango lituzke azaleraz.

Legenda zahar-zahar batek, agortutako itsaso baten hondoa zela dio; baina hori ez litzateke posible izango, zeren oso denbora antigoaletan jendeztatua egon zela uste bait da orain. Legenda hori asmatua da: Sahara ez da aintzinatean itsaso izandako baten zorua; horren mortutzea nahikoa berria da. Bestalde, Saharako basamortua osatzen dutenak ez dira hondar-masak bakarrik. Kareharrizko eta areharrizko zabaldi handiak eta mendi-multzo handiak ere badaude, hala nola Hoggar (3.000 m), Tibesti (3.400 m), Aïr, Adrar, etab.

Mendi ezberdin hauen tontorrak ibar handiz inguraturik aurkitzen dira; eta ibarrak gaur agorturik badaude ere, biziro zulatuak eta higatuak izan ziren errekarteez iraganean. Gai honetan, izugarri iradokipentsua da Sahararen gainetik hegazkinez jira bat egitea, argi eta garbi ikusten bait da handik lurzoruko sare hidrografikoa, bere adarkadura ugariekin, oso ondo kontserbaturik dagoena. Erreka-kolektore handi asko aurkitzen ziren 1.000 eta gehiago km.tan zehar, hala nola Tafassasset eta Tamanrasset wadi-ak. Garai heze haien lekuko bezala, arrainak, anfibioak eta krokodiloak ere bizi dira mendietako (Tassilin-Aijer, Mauritania, Emmedi-etako) leku kaskar eta wadi-etako ur korronteetan.

Gizonek utzitako harrizko tresna-gerakinak, berriz, oso ugariak dira nonnahi. Giza industriarik zaharrena ere, uharri trakets landutakoena, anglo-saxoinek 'pebble tool' deitzen dutena, eta adinez 600.000tik milioi bat urte bitarteraino heldu daitekeena, hantxe aurkitzen da Mauritaniako Adrar-en, Reggane-Soulef-eko eskualdean, Ténéré-n, etab.etan. Australopitekoei egotzia da tresneria hori, ondo ezagunak bait dira haiek Hego Afrikan, hain zuzen baita Kenyan, Ethiopian eta Txad-en iparraldean aurkitu zen horien matrailezur bati esker ere". *(H. LHOTE)*

III. KONTINENTE AFRIKARRAREN IPARRALDEA

Iparraldean, ipar-ekialdean eta ekialdean Sahara agertzen zaigu, gaur egun, mundu beltzaren muga bezala. Beraz, itsasalde mediterranearretik Sudan-eko Sahel-eraino hedatzen den populazio afrikarra hamito-semitarra da.

Ipar Afrikako esparru saharatar hau giza historiaren garapenaren lekuko izan da. Esate baterako, K.a. VI eta V. milakadako aztarnategiek (Nilo, Hoggar) iraultza neolitikoaren ondorioz agertu ziren kultura (labarretako pinturak, Tassili-ko kultura saharatarra) eta bizimoldeen (abelazkuntza, nekazaritza) berri ematen digute. Beraz, garai haietan Sahara lur hezea zen eta ez basamortua. Baina Sahara lehortzen hasten denean (K.a. III. milakadan) bertako bizilagunak hegoaldera (Tropiko-aldera) eta Nilo-aldera lekualdatu ziren.

Historiaurrean, Europa-Afrikak elkarrekin?

"Orduraino, (garai Levallois-Moustiertarreraino: 100.000) badirudi industriak Europatik Afrikara eta handik hona zirkulatu zutela, ze bi kontinenteetan fazie beretsuak aurkitzen bait dira, eta honek elkarren artean komunikaturik egotea eskatzen du. Mediterraneoko uren haztea, Europako kontinenteko klima berotzearen ondorioa izan zen, eta geologoek 'transgresio flandriarra' deitzen dutenak, moztuko zituen joan-etorriak Europaren eta Afrikaren artean. (...)

Industria 'Levallois-Moustiertarrak' Neanderthaleko gizonari egoztcn zaizkio; hau, berriz, Goi-Paleolitoaren hasieran desagertu zen Europatik, Cro-Magnon-gizakiari leku emateko; baina badirudi geroago arte ere iraun zuela Ipar Afrikan, Saharan batipat, nahiz eta horren hondakinik bat ere argiratua izan ez".

(H. LHOTE)

A) ZIBILIZAZIO NILOTARRAK

Niloren hegalean ezarri zen populazio egonkor horrek, hiru mila urte iraun zuen maila goreneko zibilizazio teokratiko bat eraiki zuen (egyptiarra). K.a. azken milakadan zibilizazio horrek behera egingo du, behin eta berriz kanpoaldeko herrien (ethiopiar, asiriar, mazedoniarren) menpean erortzeraino. Azkenik, K.a. 30eko urtean probintzia erromatar bihurtzen da Egypto.

Bien bitartean, Nilo ibaiaren hegoaldean, jada K.a. II. milakadan, beste erresuma nilotar




NUBIA: AZTARNATEGIAK. Nilo ibaia izan da, lur-lehorretik Afrikaren bihotzeraino iristeko bide nagusi bat. K.a. III. milakadan egyptiarrak lehenengo eta bigarren kataraten tartean kokatu ziren, eta K.a. 1580az geroztik, Kux menperatu ondoren, laugarreneraino iritsi. Ibaiaren arroan hainbat hiri kolonial sortu zuten faraonek. Orduan eta gero Nubian garatutako kulturek eraikuntza miresgarriak utzi dizkigute, UNESCOk Assuan-eko (Sadd al--Ali) urtegitik salbatu nahi izan dituenak.

MEROE. Meroeko hilerriko gerakinak: piramideak, beren aurreko arkupeekin. Hauetan erliebe apaingarriak daude. Joan den mendean lapurrek, ustezko altxor ezkutuen bila, hondatu egin zituzten han eraikuntza hauek, 1836an italiar batek erregina egyptiar baten altxorra aurkitu bait zuen han. 1920tik hona egin dira zaharberrikuntz lanak (Reiser amerikarrak,Hinkel alemaniarrak), Sudaneko Estatuaren laguntzarekin.

batzuk ere aurkitzen ditugu, mundu egyptiarrarekin harremanetan zeudenak eta K.a. 750ean Kux-zibilizazioan gauzatu zena.

Zibilizazio honen barnean bi etapa bereiz daitezke. Lehena **Napata** hiriburuaren inguruan sortzen den erresumarena (K.a. VIII-VII.) eta bigarrena **Meroe** erresumarena (K.a. VI.etik-K.o. IV.-erarte). Mila urte iraun zuen zibilizazio honetan aurrerapen handia lortu zuen metalurgiak; merkatalgoari esker, berriz, bere harremanen esparrua asko zabaldu zen (Egypto, Grezia, Erroma, Arabia, Uganda, etab.) eta kanpotik zetozen ideientzat irekitasun bat sumatzen da. Eraikuntzek (piramideek) ematen dute botere zentralizatuak zuen indarraren neurria.

K.o. 350ean zibilizazio hau (**Meroe** erresuma) desagertu egingo da Ethiopiako errege kristau baten erasoaldiaren ondoren. Baina meroetarren kultura (ohiturak, artea, arteziak) eta kristau--kultura elkartzen direnean, VI. mendean, antolakuntza politiko berri bat sortuko da berriro: **Nubia**ko erresuma kristauak (Nobazia, Makuria eta Alodia), XV. menderarte irauten dutenak.



Ikusten dugu, bada, Nilo ibaiaren ertzean, Egypto eta Sudan-eko lurraldeetan, antolakuntza politikoak etengabeki (4.500 urte) eta bata bestearen ondoren aurkitzen ditugula. Honek zera suposatzen zuen: populazioa egonkorra, hiritartua, eta mailakatua izatea; lan-banaketan oinarritua egotea (nekazaritza, abelazkuntza, artisautza,merkataritza) eta agintearen egitura garatua izatea (erregea, funtzionariak, armada).

B) IPAR AFRIKAKO ITSASALDEA

Historia trinkoa eduki duen beste bazter bat Ipar Afrikako itsasaldea izan da. Zibilizazio mediterranearraren barnean kokatutako eskualde honek itsas eta merkatari-herrien eragina jaso zuen, harreman horietan benetako kolonizazio bat jasateraino.

Beraz, jada K.a. VII. mendean merkatari feniziarren kolonia bat eraiki zuten Tunisia-ko itsasaldean, Kartago izenekoa. Kartagotarrak gaur eguneko Algeria, Tunisia eta Lybia-ko kostaldeetan hedatu ziren.

AFRIKA ERROMATARRA.Gerrate Punikoen eta Kartagoren hondamendiaren ondoren (K.a. 146), Erroma jabetu zen Ipar Afrikako kostalde mediterranearraz. Lurraldeak ekonomi eta hiri-garapen ederra ezagutu zuen orduan, gaur egun ere hondakinetan ikus daitekeenez. Afrika erromatar honek bandaluak eraso zuten arte iraun zuen (K.o. 430), kasik seiehun urte, bitartean kristau-gizarte jantzi bat ere loratzen zela (Tertulian, Augustin).Hegoaldeko nomaden aurka, "limes" (muga armatu) bat sortzen ahalegindu zen Erroma (K.o. II-III. mendeetan). Erromatarren barruti honek garia esportatzen zuen Hiriburura.




AFRIKA ERROMATARRA


Itsas potentzia honek aurrez aurre eduki zuen beste potentzia militarra izan zen, garai berean iparraldean eraikitzen eta hedatzen ari zen Erroma. Bi indar hauen arteko borroka, Mediterraneoaren kontrolaren auzia erabakitzeko, gerra punikoetan (K.a. III-II. mendeetan) burutu zen, gerra hauen ostean Ipar Afrika erromatarren menpean geldituz.

Inperio erromatarraren beheraldian, Erteuropako herri germaniar batek (bandaluak) ezarri zuen bere erresuma Ipar Afrikako lurralde horietan (K.o. 429-534), hegoaldean Mediterraneo itsasoaren kontrola lortuz. Baina VI eta VII. mendearen erdialderarte Ekialdeko Inperio Erromatarraren (Bizantzioren) eskuetan izango da.

Hamalau mendetan zehar, bada, historia trinkoa ezagutu da Ipar Afrikako itsasalde horretan, izan ere eskualde estrategikoa bait da hori, eta itsas eta merkatal kultura izan dira bertako ezaugarriak. Halaber, Nilo ibai aldeko kulturak eta itsasaldekoak ikusi ondoren, zera azpimarra liteke: herriek, itsasertz eta ibaiondo hauetan gizarte eratu eta egonkorrak sortu ahal izan dituztela Ipar Afrikan.



ARRANTZA-TRESNAK SAHARAN. Nilo eta Saharako garai bateko laku eta ibaien inguruetan bizileku iraunkorren hondakinak atera berri dira egun-argitara:hauetan bizi zirenen iharduera nagusia arrantza zen, aurkitutako tresneriak erakusten duenez. Mapan, arrantza-tresnak zeuzkaten aztarnategiak.



HISTORIAURREKO PINTURA SAHARATARRA. K.a. 6000. urte ingurutik honako artelanak aurkitu dira Saharako haitzulo eta haitz-babespeetan, hain zuzen oraingo basamortu hau da Afrikako Historiaurreko aztarnategirik aberatsenetakoak dituena. Penintsula Iberiarreko Paleolitoan ikusten da hemengoaren antzekorik ere (Cogul-en, adibidez). Argazkian ematen dena nahikoa beranduko lana da: K.a. 200; Air mazizoko labar bateko marrazkiak dira (jirafak).

C) SAHARA ALDEKO GIZARTE NOMADA


Iparraldetik hegora, hau da, Sahara-alderan goazen heinean, gero eta urriago aurkitzen ditugu lur emankorrak, eta basamortua nagusitzen da azkenik. Neolito-aroan ezagutzen ziren lur hezeak idortu egin ziren eta nabigagarriak ziren



ERROTA PALEOLITOARRA. Basamortuan, hondarretan galduta, behin baino gehiagotan topatu ohi da gizaki paleolitotarrak sortutako tresnarik. Hona hemen gizonaren eskuz landutako errotarriak, garai bateko saharatarren testigu.

ibaiak agortu. Honen ondorioz, migratzea edo bizimoldeak aldatuz ingurunera moldatzea ziren bi irtenbideak. Honela sortuko da saharatar beduinoen **kultura nomada**. Oasitik oasira bazka eta ur bila egiten duten larrealdaketa izango da beren bizimoduaren funtsa. Herri berberea eta targia (pl.: tuareg) izango dira, dromedarioaren laguntzarekin, basamortuaren jabe.

Hiru mila urteko historia honetan datu garrantzitsu bat gizarte zibilizatuen garapena bada (Egypto, Kux, Kartago...), besteak basamortuaren agerpena eta honen etengabeko hedatzea (gaur egun ere zabalduz doana) izango lirateke. Basamortutze hau dela eta, Ipar Afrika eta Afrika



TUAREGak, BASAMORTUKO GARRAIATZAILEAK. Targi (sing.) edo Tuareg-ak (pl.) etnia afrikar bat dira: 600.000 bat lagun, nomada eta ibiltariak Sahara eta Sahel-en; berbereak dira, baina jatorburu eztabaidatukoak. Bi taldetan banatzen dira: saharatarrak eta saheldarrak.

kin beti ere larre-bila doaz tuareg-ak, familiarte zabal batean bilduta: batez ere ahuntz-aziendak dituzte; gutxiagotan, ardiak. Gameluak, menpekoen esanetara (zergapekoak, esklabuak, etab.), hegoalderago joaten dira. Saharatar hauek Algeria eta Niger Estatuetan bizi dira. Tamahak dialekto berberea egiten dute.

Tuareg **saharatarrak**, basamortuko mendikateetan bizi dira (Hoggar, Ajer). Beren antolamendu sozio-ekonomikoa nahikoa murritza da. Abere-taldee-

Tuareg **saheldarrak**, ostera, Mali eta Niger-en bizi dira, eta lau talde politikotan banatuta daude. Eskualde honek, orain urte batzuk arte euririk ere bazuen uztail-irailetan, eta abelazkuntzak bazuen erraztasun hori. Kolonizazio-deskolonizazioek, beren berrikuntza ekonomikoekin, areagotu baizik ez dituzte egin berezko lehorte klimatikoak. Dromedarioak munta handiagoa du hauen artea: karabana-lanerako da (tuareg-talde batek bederatzi hilabete ematen ditu karabanetan urteoro). Tuareg-ak inguruko herrietako merkatarientzat ere garraioa egiten dute basamortuan, hausentzat, adibidez. Tamaxek dialekto berberez mintzatzen dira.

Alfabeto berezi bat dute, gainera, tuareg-ak: tifanagh deitua, antzinako libyeratik datorrena, baina orain, geroz eta gehiago, alfabeto arabiarra darabilte.

Erlijioz, musulmanak dira. Herritarrak, libre eta menpekotan banatzen dira. Libreen artean azpimarratzekoa da errementarien aparteko kasta; bestalde, menpekoen artean esklabuak daude (askatasun politiko eta ekonomikorik gabeak).

beltzaren arteko harremanak eragotzi egin dira. Honen ondorioz, feniziarrek, greziarrek eta erromatarrek, itsasoz eta Sahara zeharkatuz, Afrika beltzera heltzeko ahaleginak eginarren, XV. mendearte Afrika beltza ezezaguna izango dela esan genezake europarrentzat.

Sahara-aldearen funtsezko ezaugarri bat beduinoen kultura nomada bada, beste ezaugarri bat kultura islamikoa izango litzateke, aurrekoari gainjarririk dagoen kultura. VII. mendean Penintsula Arabiarrean sortzen den kultur eta erlijio-sistema hau berehala hasten da inguruko lurraldeetan zehar hedatzen, pentsaera erlijioso honek funtsean dakarren "gerra santua" tarteko dela.

Bestalde Saharako basamortua Arabiakoaren luzapena gertatu zenez gero, lurralde horretan zehar zabaldu ziren VII-VIII. mendeetan eta erresistentziak aurkitu arren, azkenean Sahara-k gaurdaino ezagutu duen homogeneotasun kulturala lortu zuen. Faktore hauen (basamortuak agertzen dituen eragozpenen eta kultura islamikoaren eraginaren) ondorioz, eragotzi egin ditu Sahara islamdarrak Europa eta Afrika beltzaren arteko harreman zuzenak, eta musulmanek berenganatu dute bitarteko funtzio hori. Bestalde, jatorriz kristau ziren lurraldeak --Nubia-ko kristau-erresumak eta Ethiopia-- isolaturik gelditu ziren. Nubia, lehen esan bezala, musulmanek konkistatu zuten XV. mendean.



ETHIOPIA KRISTAUA ARRISKUTAN. Ethiopia kristauak ipar-ekialdeetatik etor zekizkiokeen eraso musulmanei aurre egin behar izan zien, batez ere IX. mendetik aitzina, izan ere Itsaso Gorritik nahiz Nilo gora irits zitezkeen haiek. Marrazki hau Ethiopiako marrazki herritar bat da (1543): Mohamed Granye-ren kanpaina da (1527), somaliar eta afar-tarrekin egindakoa, eta otomandarrek lagundua, gainera. Herrialde osoa hondatu zuen, monastegi eta elizei su emanez. Aksum-eko Katedralea ere erre egin zuen (1535). Portugaldarrei eskatu zitzaien laguntza, harik eta hamabost urteko gerrate baten ondoren Mohamed hura garaitu zen arte, eta hil (1543).

D) LURRALDE ETHIOPIARRA


Itsaso Gorrira begira dagoen lurralde menditsu honetan, gaur egunerarte iraun duen mundu berezi bat aurkitzen dugu, kultura saharatarretik (iparraldean) eta mundu beltzetik (hegoaldean) ongi bereizia. Bi mundu horien tartean agertzen den populazio ethiopiar mestizatu honek, originaltasun hauek ageri ditu: ia hasieratik (K.o. 350) kristau izatea, idazkera ezagutzea (geez literatur hizkuntza), nekazaritzan goldea erabiltzea, eta berek sortutako antolamendu politikoak XX. mendearte independetzian irautea (1936-41eko tartearen salbuespenarekin).


Lurralde honen historiaren jatorrian (K.a. 500) hegoaldeko arabiar herri baten (**sabeoen**) eragina ikusten da. Merkatal herri hau ethiopiarrekin elkartzen denean, kultur dinamismo handia sortuko da. **Adulis** (Zula, orain) itsas portua harreman-gunetzat zutela, beren joan-etorriak Mediterraneora, Arabiara, Ozeano Indikoaren ekialdeko herrietara, Afrika-ko kostaldera eta Afrika barnera hedatzen ziren.

Gure Aroaren II. mendean, Itsaso Gorriraino zabaltzen zen itsasalde horretan Estatu boteretsu bat sortu zuten, inguruko mendiskatan eraikitako Aksum hiriburutzat zuela. IV. mendean, erregea kristautzen denez, lurralde hauek kristauak izango dira ofizialki, nahiz eta mendealdean bizi ziren tribuek animismoan jarraitu.

Hemendik aurrera Ethiopia aldean aginduko dutenak dinastia kristauak izango dira. Lehen dinastia kristauaren barnean (zague dinastian) **Lalibela** erregea (XIII. mendearen hasieran) aipatu

AKSUMeko OBELISKOAK. II-III. mendeetako eraikinak dira, hauek Ethiopiako Tigre-ko sapaldan Inperio haren hiriburuan jasoak. Basamentu itzel baten gain zazpi monolito ezarri ziren zutik: altuenak 33,5 m zituen, orain apurtua badago ere. Oraindik zutik dagoen batek 23 m ditu.





LALIBELA HIRIA. Hegazkinetik egindako argazki honek erakusten duena ongi ulertzeko premiazkoa da ohar batzuk egitea. Zuhaitzez inguratuta dagoen eraikina San Jurgi eliza da, Ethiopiako Lalibelan. XIII. mendeko eliza hauetan sekulako lana egin zen: San Jurgi-renean, harkaitzean 12 m-ko indusketa bat egin zen lehenengo, eta gero, harkaitz horretan landu zuten eliza bera, gurutze grekoaren gisara. Ezkerretan ikusten den lurpeko trintxera horretatik dago sarbidea. Honelako beste 11 eliza daude Lalibelan. Eraikin hauen atzetik bazegoen asmo politikorik ere: Lalibela erregeak bere dinastiaren alde horrela irabazi nahi izan zuen Ethiopiako Eliza. Baina lan horretan bere ondasun guztiak galdu omen zituen. Azkenik, ordea, benetako kristau pobre egin zen, koroa utzita, eta gaur egun Eliza ethiopiarrak santutzat dauka Errege hura.

behar da. Honen erregealdian, hainbat herri jentil kristautzeaz gain, hiriburua aldatu zen, hiriburu berriari bere izena (Lalibela) emanez eta hamaika eliza miresgarri, harkaitzak zulatuz, eraikiz.

1270ean beste dinastia kristau bat ezartzen da, Salomon erregearen eta Saba-ko erreginaren (Testamentu Zaharreko pertsonaia haien) jatorrikoa zela defendatzen zuena. Hona hemen, bada, erlijioa eta boterea loturik; hots, boterea legitimatzeko testu sakratuetara eta aintzinako tradizioan agertzen diren pertsonaietara joko da.

Mende honetan zehar finkatzen den eta XIX. menderarte irauten duen egitura sozio-politikoa feudala da. Agintearen gailurrean enperadorea aurkitzen da; lur emankorraren heren bat berea eta erret familiarena izango da. Enperadorearen inguruan, gortean, biltzen ziren administrazioa, justizia eta armadako buruzagiak; hauen bizitza ibiltaria zen, agintea sostengatzeko, lurraldeak administratzeko, gortea eta armada mantentzeko eta zergak biltzeko lekuz aldatzea beharrezkoa bait zen.

Nobleak menpekotasunean aurkitzen ziren. Apezeriak lurraren herena izateaz gain, eragin politiko eta kultural handia zuen. Azkeneko maila sozialean, berriz, jabetzarik gabeko nekazariak aurkitzen ziren (1830eko urtean Abadia anaia euskaldunak Ethiopia-an zehar ibili zirenean, honelako gizarte feudal baten aurrean aurkitu ziren. Ik. liburu honetako 3. ikasgaian "Antoni Abadia").

Ethiopiaren historian, izugarrizko garrantzia du bere periferian gertatutako egitate historiko batek, Islam-aren sorrerak alegia (VII. mendean), horren ondorioz Ethiopia kristaua isolaturik gelditu bait zen. Isolamendu hori dela eta, Europan horri buruzko istorio bat sortzen da, Ekialdean dagoen kristau-erregearena (Joanes Prestearena); batzuek Ethiopian kokatzen zuten errege hori.

JOANES PRESTEAREN ERREINUA

"Afrikako barnealdeari dagokionez, Kerenbes, Nubia-ko hiriburu Dongola-ko azken errege kristaua zenak harremanen bat lortua zuen Erromarekin, halako eran ze 1316an Joanes XXII.ak, Santo Domingo-ren Ordenako zortzi erlijiosoz osatutako mandatalgo bat bidali bait zuen Nubia eta Abisiniara; hamalau urte geroago Bartolomé de Tivoli izan zen Dongola-ko gotzain sagaratua. Harreman hauen medioz lortu zen ezagutza geografikoa Pizigano-ren 1367ko mapan ikus daiteke ispilaturik. 1402an, Antonio Bartoli florentziarrak egin zien lagun Veneziara Abisiniako mandatari batzuri, zeintzuk eskuerakutsitan leopardoak eta usaigozoak bait zeramatzaten. Bestalde, ez zen miresteko, Afrikako kostak ezagutzen egindako aurrerapenekin batera, portugaldarrei Joanes Prestea ezagutzeko interesa biziagotzea eta Enrike Nabigaria harekin harremanak izaten saiatzea; (...) Joanes II.ak hura kontinenteko bideetatik bilatzea erabaki zuen.

Bartolomé Dias-ek lurmuturrari buelta ematen zion urte berean, Alonso de Paiva-k Portugal-eko erregearen gutun batzuk zeramatzan Joanes Prestearentzat; Pedro de Covilha-k, bitartean, ahalik eta informaziorik handiena bialtzeko enkargua zeukan, Indikoan zehar nabigatzeko zeuden portu eta helpideei buruz. Paiva-rekin batera Santarem-etik atera zen Covilha 1487ko maiatzaren 7an, eta Lisboa, Valencia eta Barcelonan zehar Napoli eta Roda aldera nabigatu zuten (...). Itsaso Gorria zeharkatuz Aden-era iritsi ziren 1488an. Aldeko montzoiek Indiaraino salto egiteko gogoa eman zioten Covilha-ri, eta Paiva bere mezua eramateko Ethiopian barruratu zen. (...) (Indiatik itzuli ondoren, 1489) Erregeri Kairotik argibideak baidalita, Ethiopiara joan zen. Ez zen handik itzuli. Urte batzuk geroago aurkitu zuten han portugesek, antza, aberastuta eta pozik". *(SALVAT: LA TIERRA)*

Islamaren aurka borrokatu ziren europarrentzat (Erdi Aroko gurutzadak) ezin hobea zen hegoaldean aliatuak aurkitzea. Baina, XV. mendearte europarrek ez zuten haiekin harreman zuzenik izan. Mende horren bukaeran eta batez ere XVI. mendearen hasieran, hego Afrikako bidea irekitzen denean finkatu ziren portugaldarrak Ethiopian eta ethiopiarrak musulmanen kontra zuten gerran hartu zuten parte. Dena den, europarren eta ethiopiarren arteko harremanetan erlijioa sartu zenean nahasi ziren harreman horiek. Erromaren asmoa, jesuitak zirela medio, erritu katolikoa sartzekoa bazen ere, ethiopiarrek beren kristautasun propioan jarraitu zuten (monofisita zen betidanik hango Eliza) eta iraitzi egin zituzten jesuitak.

Ethiopiak, bada, distantziari esker edo lurralde menditsua delako, edota kristau-sinesmena errotua duelako, independentzian iraun du.

ABADIATAR EUSKALDUNAK ETHIOPIAN (1837-1848)

Abadiatar euskaldunak, bi anaiak (Arno eta Antoni), Livingstone bera Afrikara baino zenbait urte lehenago iritsi ziren Ethiopiara, bertako politikan ere parte hartuz. Antoni-ren jakitun-lana handia izan zen: 900 puntu geodesiko lekutu zituen Ethiopian, eta urte batzuk geroago (1873) "Géodesie de la Haute Ethiopie" argitara eman.


"Ondoko urtean (1837) Ethiopia-ra doa Antoni. Han aurkitzen du Arno bere anaia, hura aitzinean joanda bait zen, bidearen egiteko bezala.

Agintzeko egina da Arno. Ethiopiako politikan sartzen da erdiz erdi; gerran ere parte hartzen du. Buruzagi egiten dute hango buruzagiek. Gudu handi bat irabazten dute eta, horren ohoretan, "Ras Mikael" deituko dute: esan nahi bait da, "Mixel Printzea" (aitak bezala Arno-Mixel bait zuen izena). Oso bestelakoa da Antoni: Borroka ez du maite. (...). Bestalde, ez da hain politikaria. Jakintza baizik ez du maite: geografia, astronomia eta lekuko hizkuntzei lotzen da errotik. (...).

Zer nahi gisaz, elkar osotzen eta laguntzen dute bi anaiek. Bere ikerlanetan, Arnoz ederki baliatzen da Antoni jakintsua. Biak Ethiopiako Negus edo errege den Menelik handiaren adiskide dira. Bakoitzak bere gisan laguntzen dute, Ethiopiaren batasunaren alde, baita ingeles eta italiarren hatzaparretatik gordetzeko. Horri esker, ondasun ederrak ekartzen dituzte Ethiopiatik: Antoni-ri probetxuzkoak gertatuko zaizkio, jakintzaren eta euskalduntasunaren onetan". *(J.L. DAVANT. Moldatua)*


IV. AFRIKA BELTZAREN HISTORIA

Afrika beltza bi basamorturen artean aurkitzen da: iparraldean Sahara eta hegoaldean Kalahari, eta bi Ozeanoren artean, mendebaldean Atlantikoa eta ekialdean Indikoa. Lau hesi hauetaz gain geografia afrikarrak beste oztopo batzuk ere ageri ditu: portu onik ez du ia, ibai-bideak urjauzi eta urlasterrek moztuta daude eta estuarioetan hondarra pilatzen da. Aipatu faktore hauek direla eta, oso zaila gertatzen da nabigazioa.



AFRIKA: LANDAREDIAREN BANAKETA.

- Basamortuak
- Mediterranearra
- Sabana "lehorra"
- Sabana "hezea"
- Baso itxia
- Karroo (goi-zelai lehorra)
- Mendia



BASOA, AFRIKAN HESI. Afrikako baso ekuatoriala lurraldez oso zabala izateaz aparte (Ginea Golkoko Estatuetan), altua eta itxia da, gainera: 40 m-tatik gora, eta mota askotako landarez ito-itoan itxia. Lurralde hauek batezbesteko tenperatura 26°/28° ingurukoa izan ohi dute, eta 1.500/4.000 mm-ko euria urteko (zenbait lekutan, baita 8.000/11.000 ere). Giroa, beroa eta hezea da: zuhaitz eta landareen hosto-loreak urtean zehar etengabe berritzen dira. Arbola-enbor itzelak, zuhaitz-ipurdi indartsuak, adaburuetatik lurrerako erroak, tarteko zuhaitz-zuhaiskak eta landare igokari luzeak (lianak, liana-palmondoak, etab.): guztiok itxutzen dute basoa, goian adaburu-sabaia eguzkitatik itxiz eta, lurrean, bide urratu-berriak berehala moztuz. Afrika ekuatorialean, hortaz, ibaiak ziren sarbide bakarrak, hauetan ur-jauzirik ez bazen bederen.

A) INGURU GEOGRAFIKOA, HISTORIAREN MUGA OTE?


Hau ikusirik, kontinente beltzak kanpoaldeko herrialdeekin komunikatzeko eta harremanetan jartzeko nahikoa oztopo izan dituela pentsa genezake. Gogoeta-mota honekin jarraituz, batzuren ustez, geografiak agertzen dituen zailtasun horiengatik, Afrika beltza nahikoa itxirik aurkitu da, eta, europar zibilizatuak heldu arte kultur topaketarik izan ez duenez, ba kultur topaketaren aurrerapenik ere ez omen zuen Afrika beltzak ezagutu; honela esaten zen. Eta argudio hau defendatzeko datuak ematen ziren: Afrika beltzak ez zuen ezagutzen gurpil, golde, gurtabere eta idazkerarik. (Ethiopia eta ipar Afrikako herrialde islamdarrak salbuetsi behar dira hemen).


Esandakoaren arabera, geografiaren determinismoaren aurrean aurkitzen ote gara, ba? Afrika itxita egon ote da, gero? Afrika beltzeko kulturak primitiboak ote dira benetan?

Has gaitezen, hortaz, galdera hauei erantzuna bilatzen. Ez dago zergatik pentsa aipatu barrera horiek pasaezinezkoak zirenik. Sahara bera ere ez bait da beti basamortu izan eta lurralde hori K.a. 3000 urtetik hona basamortu bihurtzen ari den arren, froga daitekeen gauza da, jada gure Aroaren hasieran bezala, Saharan merkatal joan-etorririk izan dela. Eta gehiago oraindik: merkatalgo horren oinarria dromedarioaren sarrera izan zela eta, beraz, eragozpen saharatarra gainditua zegoela badakigu gaur.

Ekialdean, berriz, II. mendean ezagutzen zen jadanik Itsaso Gorriaren inguruan itsas merkatalgoa; VIII. mendetik aurrera swahili herriaren

SAHELA eta SABANA. **Sahelak** aldenik alde trabeskatzen du Afrika, gerriko baten gisa, eta basamortuaren (Sahara) eta sabanaren tartean dago. Azken hamabost urteetako lehorteek (betidanik aldika etorri ohi zirenek) gosea ekarri dute: izan ere, kolonialismoak sedentario bihurturiko nomadek, bizitza berrian, ez dute betidaniko klima gogorrari erantzuteko modurik aurkitu, nomadismoa klima hari erantzuteko asmatua bait zen. --Hegoaldeago dagoen **sabana** hezeagoa da, eta Afrikako faunarik aberatsena du: hemen egiten dira safari handiak. Argazkian: eki Afrikako jirafa "sareztatuak" sabanako zuhaiska eta belarretan larratzen.





ANOFELEA



TSE-TSEA



OTIA

HIRU INTSEKTU dira Afrikaren hondamendia egin izan dutenak, biztanleria bakanduz eta kontinentea itxiz: **anofele** eltxoak zabaltzen du malaria (Afrikako gaixotasunik kaltegarriena); **tse-tse** euliak ziztatzen du lo-gaixotasuna (milaka afrikarri heriotza ekarri izan diona); eta **otia**-k, hamar urtero edo, minutu gutxitan irentsi ohi ditu uzta osoak.

nabigazio-trebetasunak eta musulmanen eraginek sustatu zuen hori eta Ozeano Indikora hedatu zen: belaontziak montzoiez baliatzen ziren horretarako. Bestalde, gogora dezagun, gure Aroaren hasieran indonesiarrak Eki Afrikako itsasaldera heldu zirela, eta gero Madagaskar-eko irlan finkatu. Geroago, XV. mendearen hasieran, txinarrak ere heldu ziren kostalde horretara.

Atlantikoaren itsasaldez ere zerbait esan beharko litzateke hemen: XV. mendean europarrak (portugesek lehenbizi, eta holandarrak, ingelesak, etab. gero) beren lehen aurkikuntza geografikoak egin ondoren, merkatal faktoriak sortu zituzten, merkatal harremanak bizkortuz.

Beraz, Afrika beltza ez zen guztiz itxita egon, eta kanpotik hainbat eragin jaso zuen. Gure Aroaren hasieran jadanik Ekialde Urruneko arroza, ñame eta banana bereganatuak zituen. Geroxeago XV-XVII. mendeetan, Hego eta Ertameriketatik mandioka eta artoa iritxi zitzaizkion.

EKIALDEKO MERKATALGOA


"Afrikako urre guztia ez zen joaten iparraldera basamortuan zehar, edo mendebaldeko Atlantikoko kostaldera. Handik oso urruti, Ekialdean ere bazen beste Estatu-sistema handi bat, elkarrekin loturik zeuden Estatuez osatua eta urre-eskeari esker hazi eta loratu zena, nahiz eta loraldi horren arrazoia urrea bakarrik izan ez. Arabia eta Indiako merkatariek, gaur egun Somalia, Kenya eta Tanzania deitzen diren kosten luzean ainguratzen zituzten beren itsasontziak, urrea, bolia, burdina, dortoka-oskolak eta esklabuak garraiatzeko. Eki kostaldeko komertzio hau ere oso antigoaleko denboratan hasia zen. II. edo III. mendeko idazle anonimo batek itsasgizonen gidaliburu bat argitara zuen, grekoz idatzia, eta bertan Itsaso Gorri eta Ozeano Indikoko kostaldeetako gorabeherak edesten ditu, hegoaldera gaur egun Tanzania deitzen den lekuetaraino. Eta hala dio autoreak: Bazter hauetatik boli asko ateratzen da, eta errinozeronte-adarrak eta dortoka-oskolak ere bai.

Gerora mendeetan zehar, merkatari musulmanen eraginari esker zabaldu zen, batipat, merkatalgo hau". *(B. DAVIDSON)*

B) PAISAJEAK ETA BIZIMOLDEAK

Orain arte, kontinente afrikarrak kanpoarekiko izan duen eta maiz aipatu den bakartasuna eta beronek dituen mugak aipatu ditugu. Baina zer esan genezake Afrikako geografiak giza lekumenduari ezarri dizkion oztopoei buruz?


Afrikan zehar, klimaren eraginez, paisaje ezberdinak agertzen dira. Honela ertaldean, **ekuadore-klima**ren ondorioz (euri zaparrada ugari, bero eta hezetasun iraunkorrak), Ginea-ko Golkoaren inguruan **oihana** hedatzen da. Ekuadore-oihanean bizitzeak dituen eragozpenak nabariak dira. Itxuraz aberatsa agertzen den oihanak, lur mehea du azpian. Luberritzea oso arriskutsua da, izan ere arreta handia jartzen ez bada, oso erraza bait da lurra galtzea, euria eta haizea direla medio. Bestalde, oihan hostotsu honetan zehar ibiltzea oso zaila izaten da, eta aurrera jo nahi bada ibaietatik barna ibiltzea da egokiena.



BASO HOSTOERORKORRAREN ERALDAKUNTZA. Gizaki afrikarra izadira moldatu izan da, eta askotan natura hura bere premietarako eraldatu du. Behar eta ahal izan duenean, gizakiaren eskuak aldatu egin du Afrikako landaredia: berezko baso naturala (A), gizakiaren ardurarik ezak eta lanak bizilekuetan bigarren gisa horretara ekartzen dute (B), laboreak landuz, basoa ekonomia berrira moldatuz eta, behin baino gehiagotan, sua ere landare-garbiketarako erabiliz. Irudian, mendebal Afrikako adibide bat.

Beraz, oihan-aldean giza ezarkuntza egonkorrak egiteko traba besterik ez da aurkitu. Dena den, gizakia inguru honetara ere moldatu egin da. Aintzinako lehen populazioak, pigmeoak adibidez, oihanean bizi dira, ehizean, arrantzan eta oihaneko fruituak bilduz. Bestalde, herri beltzak hedatu zirenean (ikus populazio afrikarraz esan duguna) oihanak bere oztopoak ezarri bazituen ere, gizakiak gainditu egin zituen.

Ekuadoreko lerroaren alde banatara, iparrera eta hegora, bi alde klimatiko simetrikoak aurkitzen ditugu: **zona tropikalak** (Kantzer eta Kaprikorniokoak). Ekuadoretik aldentzen garen neurrian, klimak gero eta hezetasun gutxiago du. Honela, oihan ekuadoriarra kontzentrikoki inguratuz, gero eta lehorrago diren oihan tropikalak agertzen dira: honela, sabana zuhaiztuna, zuhaizkabeko sabana eta estepa. Ibai ertzetan zehar, berriz, basoak agertzen dira.



Latitudearen arabera ezartzen den eskema klimatiko hau, aldatu egiten da eki Afrikan, erliebea eta haizeak tarteko direla. Esate baterako Kenya-ko sapaldak, Ekuadorearen lerroan aurkitu arren, klima jasangarriagoa du.

Ekuadore-aldearekin gonbaratuz, labore-emankortasunaren aldetik, ekosistema eramankorragoa eskaintzen du Tropikoetako eskualde honek. Lurralde honetan hazten diren landareak hauek dira: jatorriz afrikarrak diren artatxikia eta

IBAIAK: UR-JAUZIAK. Basamortuek eta basoek bidea ixten zioten Afrikan europarrari, eta bazirudien ibaiek, kontinente-barnerako nabigazioa irekiz, bestelako erraztasunak eskaintzen zituztela. Gehienetan, ordea, ez zen horrelakorik gertatu: Nilo-k kataratak zituen, Kongo-k katarata eta ur-lasterrak, horrela nabigazioa etenez. Stanley bilaketariak, ontziak ibaitik atera eta lehorrez haiei tira-bultzaka gaina hartu behar izaten zien ur-jauziei. Argazkian: Zanbeze ibaiaren Viktoria jauzia (Zambia).

basartoa eta kanpotik (Asiatik) jasotako eta gure Aroaren hasieran jadanik finkatutako ñame eta arroza, eta banana. Artoa eta kakaoa, berriz, Amerika aurkitu ondoren sartu ziren.

Harri-Aroaren amaieran (K.a. 2000), ekonomia ehiztaria eta biltzailea gaindituz, nekazaritzaren lehen arrastoak aurkitzen ditugu. **Ekonomia emankor** hau, Burdin Aroa, hasten denetik (K.a. VIII. mendean) eta horri esker (tresneria sendoagoa), Afrika tropikalean hedatuko da eta, Ekuadorea zeharkatuz, hegoaldean gure Aroaren lehen milakadan jada finkatuta dagoela esan genezake.

Honela, bada, Afrika beltzak, beste lurraldeetan gertatu zen eran, aipatu dugun une historiko horretan ekonomia **biltzailetik** ekonomia **emankorrera** dagoen salto eta aurrerapen nabaria eman zituen. Baina Ipar Afrika, Ekialde Hurbila edo Europarekin gonbaratuz alderik badago: Afrikarrek goldea eta gurtaberea ez zituzten ezagutzen, europarrak heldu baino lehen; hauen ordez aitzur-kultura hedatu zen leku guztietan.

Halaber, lurra lantzeko erarik arruntena **hedadurazko nekazaritza** izan da; hau da, luberritzea suaren bitartez erretako lurretan egiten zen, eta lurraren emankortasuna urritzen zenean, lekuz aldatzen ziren, lur berrietan lur-lantze prozesuari berriro ekinez. Espazio afrikarren zabalerak (hortik lur berriak aurkitzeko erraztasuna) eta giza dentsitate urriak nekazaritza-mota honi la-



NEKAZARITZA IBILTARIA eta baso-erreketa elkarrekin joan ohi dira, baina ez da arlotekeria ezinegon bat. Lur-sailak aldatuz doaz, luberriak laster luzarorako debet bihurtzen dira. Bigarren une batean, "bigarren baso" eta landaredi laboragarriagoak lantzen ditu nekazariak, baso itxiaren eta laboreen artean oreka berria lortuz. Teknika egoki batez baliatzen dira horretarako: sasi-sastraka itxi bati leku eman eta gero erretzean, errauts hobea atera ohi da, labore-aurreko ongarritarako.

gundu egin diote. Dena den, giza dentsitatea handia zen lekuetan, ongarria eta landareak aldatzeko sistema erabiltzen duen nekazaritza **intentsiboa** ere ezagutzen zen.

Ikusten denez, bada, abelazkuntza, gehienetan, ez zegoen nekazaritzarekin elkarturik, eta nekazal lanetan ia ez zuen funtziorik. Beraz, abelazkuntza, zeregin espezifiko bat zen, eta herri batzurentzat --peule herriarentzat, esateko-- bere iharduera nagusi bihurtu zen. Beste lurralde batzutan, alderantziz, tse-tse euliaren eragin kaltegarriagatik abelazkuntza ez da ezagutu. Abelazkuntza ezagutu duten lurraldeak (ipar eta ekialdean) eskualde dinamikoenak izan dira: leku-aldaketak direla medio, beste herri eta kulturekin harremanetan jarri bait ziren. Abere-jabetza, bestalde, aberastasunaren adierazpidea zen.

Dena den, afrikar gehienen eguneroko otorduan ez zen okelarik sartzen. Beraz, festa, zeremonia eta sakrifizioak egiten zirenean soilik jaten zuten okela, zeren eta ganadua hiltzea ondasunak alferrik galtzeak adina zen. Garbi dago, bada, elikagai garrantzitsuena laborea zela. Baina uhertzetan kokatzen ziren herriek laborezko dietaz gain, arrantzatik jasotako arrain-proteinak berenganatzen zituzten. Tropiko-aldeko beroa arraina kontserbatzeko kaltegarri izan bada ere, kontserba-problema honi emandako erantzuna, arraina kez ontzea izan da.

Laburbilduz, lurralde afrikarrek ezartzen dituzten eragozpenak (klimaren gogortasuna, laboratzeko lurren lodiera eskasa, intsektu batzuren --tse-tse euliaren eta anofele eltxoaren-- eragin kaltegarria, etab.) nabariak badira ere, afrikarrak problema guzti horiek gaindituz moldatu dira

ABELAZKUNTZA IBILTARIA. Bizimodu hau askotan eskakizun ekologiko bat da: basamortuaren mugetan, abelazkuntza mugikorra da inguru naturala ustiatzeko erarik moldatuena (Sahel-en, adibidez). Baina honelako arrazoirik gabe ere, gizarte abeltzainen bizitzak aspaldidaniko kultura eta antolamendu sozialei ere erantzuten die, halako "artzain--atabismo" bat gordez. Gehienetan, era batera edo bestera, talde ganaduzainak eta laboratiak elkartasunen bat izan ohi dute, inoiz modu sozial oso bereziak sortuz, gainera; Tuareg eta Peul-herri artzainek beren zergapeko laborariak izan ohi dituzte, berauengandik zerealak jasoz.



lurralde ezberdin bakoitzera: erantzun propioak aurkitu dituzte, ekonomian, teknologian eta beren antolamendu sozialean.

Baina garapen horrek izan ditu bere mugak ere: herri gehienak burdinaren teknologian eta nekazal ekonomiaren bidean sartu baziren ere, beste herri batzuk (pigmeoak, boskimanak, adibidez) lorpen horien atarian gelditu ziren (harri-teknologian eta ekonomia hondakarian).



ARPISTA. Lanaren antolamenduaren ardurarekin batera, afrikarrek ongi zaindu izan dute jaiaren zentzua. Niam-Niam-dar hau arpista bat da, bere festa-jantziarekin jairako prest.

AFRIKA, GERRAZALEA OTE?

Afrika etengabe tribuarteko gerratan sartua zegoelako ustea okerra da.

Zande-tarrek ziren ezagunenak, beren gerrazaletasunagatik. Nilo-ko arroa, Ipar Kongo-ko erreketatik banantzen duten goi-larretegietan bizi ziren. Haietaz esaten zen, izugarrizko basa-amorruz borrokatzen zirela, hainbat orriko aizto jaurtigarriz armaturik, eta uste zen, gainera, jan egiten zituztela beren etsai zaurituak.


Baina europar bakarra ezagutzen da zande-tarren gudurik ikusi izan duenik, Carlo Piaggia bidaiari italiarra, honek XIX. mendearen erdialdera bisitatu bait zuen zande-tarren lurraldea; baina geroago izan diren beste esploradoreek frogagarri gutxi aurkitu zuten fama atsegaitz horretaz.


E.E. Evans Pritchard antropologo ingelesak urte luzeak eman zituen zande-tarrak ohartematen eta esaten du, haien gudukatzeko modua dela, bi talde borrokalariren artean ahalik eta heriotzarik gutxien egiteko borroka-modu poliki antolaturik dagoena.


"Esan zidaten, idazten du Evans-Pritchard-ek, xedea zela, arerioari alde eragitea, garaipena galera gutxienekin lortu ahal izateko; horregatik, jeneralean, ez zen arerioa erabat inguratzen, hau, ihes egiteko modurik gabe aurkitzean, etsipena hartu eta bere bizia ahalbait garestien saltzen saiatuko litzatekeela eta. Horregatik uzten zen beti tarte bat libre erretagoardian".


Beste borroka-arau batzuren artean bazen bat esaten zuena, 'gudua arratsaldeko lauretan hasi behar zela, galtzeko arriskuan zirenek, ilunaren babesean, erretiratzeko aukera izan zezaten'. Beste hitzetan esanda, zande-tarren gerra-asmoa ez zen heriotzak eta heriotzak egitea.

Gerra, tresna politiko bat zen, auzoko bati benetako edo irudipenezko hoben bategatik zigorra emateko, edo hari alea edo neskatxa ezkongaiak lapurtzeko. Horregatik neurri bereziak hartzen ziren, borrokak behar baino odolgirotsuagoak izan ez zitezen.









ETXOLA EGITEN. 1. Adar luze eta malguak tinkatzen dira lurrean, ahalik sakonen, eta belarkiekin lotzen dira, egitura emateko. Estalki handiak jartzen dira gainean, aterpe seguru bat eratu arte. 2. Lokarriz ongi lotzen dira denak. 3. Atea egin, eta azken ukituak ematen zaizkio guztiari. Etxola zulu bat da hau.

C) HERRI AFRIKARREN ANTOLAMENDU SOZIO-POLITIKOA

Orain artekoan ikusi dugunez, izadiak jarritako desafioari afrikarrak eman dion erantzunak, bizibideak aurkitzeko ingurunera moldatzea izan du bere abiapuntua. Erizpide honekin inguru modu ezberdinak jendeztatu ahal izan dituzte. Aldi berean elkarbizitzarako beharrezkoak diren egitura eta moduak ere sortu dira.

Guk gaur egun eta Mendebaldeko gizarte honetan, elkarbizitza erdigunetzat hartzen badugu honelako erreferentzi puntuak aurkitzen dira: ezkont unitate familiarra, auzoa, klase sozialak, erakunde burokratikoak (eskola...), Estatua, komunikabideak, etab. Hauek dira gure gizartearen alorrak, eta gure pentsamolde, sineskizun eta eguneroko portaerak berton oinarritzen dira. Guztiak, une luze-luze batean zehar burutu dira.

Hasieran bizirik irauteko jana bilatzea nahitaezkoa zen moduan, gero derrigorrezkoa bihurtu zen gizakiaren garapen eta aurrerapenerako elkarbizitzako arauak eta erakundeak sortzea. Beraz, eguneroko bizitzan sortzen diren gorabeherei eta gatazkei konponbidea eta irtenbidea emanez eta guztien esperientzia pilatuz sortu dira kulturak eta zibilizazioak.

"Kultura" eta "zibilizazio" hitzok, badirudi, europarren monopolio izan direla. Honela, zibilizazio europarraren nagusitasuna aitzakitzat hartuz menperatu zituzten europarrek Amerika (1592-1820) eta Afrika (1885-1960).

Beraz, arazoa hau da: europarrak heldu baino lehen Afrika horretan ba ahal zen kultura eta zibilizaziorik? Elkarbizitzaren arazoari nola


erantzun zioten? Nola taldekatzen ziren? Eguneroko bizitzari erantzun jarraitua emateko nolako erakunde edo egiturak sortu zituzten?

> ***Zuzenbide Afrikarra***
>
> *"Beltzek ez dute inolako ipar afrikarren ondasunik konfiskatzen, hau herrialdean hiltzen bada, ezta autuan direnak altxor handiak badira ere. Aitzitik, konfidantzazko gizon baten eskuetan ipintzen dituzte aurkitutako gauzak..., harik eta haietarako eskubide dutenak agertu eta haietaz jabe daitezen arte (...)".*
>
> *(B. DAVIDSON)*

* 1. Antolamendu soziala

Has gaitezen bada gizartearen alorrak aztertzen. Lehenengo eta behin, gizartearen oinarrian aurkitzen dugun egitura **familia zabala** da. Kontzeptu honek adierazten digu, familiako lagunak ez direla senar-emazteak eta umeak bakarrik (ezkont familia); alderantziz, ahaideak ere haren barnean sartzen dira. Bestalde, ezkont familia bera ere zabala da, poligamia onartua dago eta.

Produkzio- eta kontsumo-zentru ziren familia hauek, sarritan independente bizi ziren beren etxe eta lurretan, gizon zaharren edo nagusienaren aginduak eta esanak betez. Famili buruzagiak urtero banatzen zituen lurrak, sail batzuk banaka lantzeko eta besteak taldeka eramateko. Lurraren emaitzak buruzagiak administratzen zituen. Ikusten



LANDAREZKO MURRUAK. Harririk ez, baina flora aberatsa zegoen Afrikako lurraldeetan, auzuneen defentsarako modu irudimentsuak sortu ziren, batez ere Estatu zentralizatu gabeko lurraldeetan. Horma handiak eraiki ordez, landarezko hesiz inguratzen ziren herriak; honetarako, teknika sofistikatuak asmatu ziren: landare-laberintoak eta elkarren ondoko hesi-landare mota ezberdinak. Nonnahi daude Afrikan honelakoak, sabanan eta basoetan. Irudiko hau, Fianga Laku ondoko herri bat da.


denez, ba, lurra ondasun familiarra zen, eta lurraren jabego pribaturik ez zen ezagutzen.

Hurrengo elkarte-maila **leinua** izango litzateke. Erakunde honen barnean aitalehen ezagun batengandik datozen edo odol bera duten senitarteko guztiak biltzen dira. Azkenik, arbaso mitiko batengandik datozen leinuak **klana** osatzen dute. Klan honen buruzagia aipatu arbasoaren ondorengo zuzenekoena izango da eta beronek izango ditu aginte politikoa eta erlijiosoa.

Talde sozial hauek barnean mailakatzeko edo taldekatzeko era ezberdinak zeuden:

a) Sexuaren araberakoa, gizonak eta emakumeak bereizten dituena. Honen ondorioz sexu bakoitzak bere zeregina izango du taldean (emakumezkoak familia ugaltzea edo ardura erlijiosoak; gizonezkoak, aginte politikoa, esate baterako). Orobat, lanaren banaketa sexuala burutuko da: emakumeak etxeko lanak eta produkzioaren atal batzuk, adibidez.

b) Adinaren araberako taldeak. Adin-aro batetik bestera igarotzean (umetasunetik helduen taldean sartzean, edo erretiratzean), aro berriak eskatzen zituen usantza sozial eta erlijiosoak




LANDAREZKO DEFENTSAK. Kolonialistak iristean, herrietara sartzea ez zuten askotan erraza izan: apropos jarritako landarez babestuta zeuden herriak. Beren balio militarrarengatik, botere kolonialek kenerazi egin zituzten landare-eraztun babesgarriok. Irudi hau aurrekoaren osagarria da. Auzoa mendiska batean dago, eta Ipar Kamerun-eko gizigа-tarrena da: hiruzpalau metroko altuera izan zezaketen hesiok sabanan, baina basoetan besterik zen: 30 edo 40 metroko altueraraino igo zitezkeen.

ikasi behar izaten zituen hasberriak, eta sarrera--probak pasatu ere bai. Era honetara, adin talde hauek lagunkidetasunean irauten zuten bizitza guztian zehar, alderdi politiko gisako zerbait eratuz beren biltoki, ardura eta zeregin bereziekin. Gizartearen mailak eta hierarkizazioa, beraz, adinaren arabera egiten zen, eta gazteak zaharragoen menpe egoten ziren.

c) Nekazaritza eta abelazkuntzatik kanporako ofizioetan aritzen ziren familiek kastak eratzen zituzten. Honela, errementariak, belagileak (aztiak), zura eta kobrea lantzen zituzten artisauak, etab. Hauek, mespretxatuak nahiz errespetatuak izan, nekazari eta abeltzainengandik aparte bizi izaten ziren sarritan.

d) Taldeak eratzeko, sexua, adina eta ofizioa halabeharretik sortutako erizpideak badira ere, hauetaz aparte, elkarteak borondatez sortzeko biderik ere bazen. Borondatezko elkarte hauek ge-



NOUPEtarren FAMILI EGOITZA (Nigeria). Barrutian, emakumezko ezkonduak adina bizileku daude, eta seme-alaba ezkondugabeentzako beste bana, gainera. Hau da, hortaz, Noube-tarrentzat famili unitate soziala.



GAZTEAK. Adinezko sailkapen soziala da, bestelako sailkapenen artean, gizartea eratzeko modu bat. Hemengo gazteok, masai-tarrak dira (Eki Afrikan): gerlari-taldetan biltzen dira herri honetako gazteak, eta janzkera eta orrazkera bereziak eraman ohi dituzte, horrela beren gizarte-egoera aditzera emanez.

hienetan erlijiosoak edota elkarri laguntzekoak izaten ziren, elkarte sekretuak ere (gizajaleak kasu) ezagutzen zirela.

e) Bestalde, talde bakoitzaren funtzio eta eginbehar sozialak seinalatzeko, sexuak, adinak nahiz ofizioak muga lezakete hierarkizazio soziala, eta, era berean, baliabideak berak ere izan daitezke familien arteko desberdintasunak mugarritzeko bide. Baina familien aberastasunen neurria zertan den jakiteko, abere-kopurua ezezik, familikideen kopurua bera ere kontutan hartu behar da.

f) Estatu-mailara heltzen diren gizarteetan mailaketa soziala piramidala izaten da. Gailurrean erregea eta honen senitartekoak, gortea osatuz. Inguruan familia nobleak edo handikiak, lurraldeetako buruzagiak eta erregearen aholkulariak bilduz. Boterearen zerbitzuan, esklabu gerlariak ere bazeuden. Sarritan, esklabu gerlari hauek funtzio publikoak betetzen zituzten. Beraz, klase nagusiaren barnean kontsidera daitezke.

Behemailan nekazari eta abeltzain libreak zeuden, hauengandik erregek eta nobleek zergak eta errentak jasotzen zituztela. Azkenik, gerran egindako esklabuak. Ikusten denez, hau guztia klase-gizartetzat eman daiteke.

* 2. Gobernamendua

Afrikako sistema politikoez hitzegitean, alde batera utzi behar ditugu berriro ere gure gaurko kontzeptu europarrak. Erresuma, inperioa, lurralde-monarkia, hiriburu finkoa, muga... eta horrelako hitzek bestelako zentzu bat hartzen dute Afrikan.

Europarron ikuspidez jabetza pribatuak garrantzi handia du, eta gobernamenduaren atal nagusia izan ohi da lurraldearen administrazioa. Gogora dezagun serbuak, feudalismo garaian, lurrari atxekita zeudela. Afrikan, alderantziz, lurra-



ERREMENTARIAK: "Burdin lana, erret ofizioa da", zioen Labat-ek 1732an, Kongo eta Angolako erreinuak deskribatzen zituen obra batean.

Artisau aztia: erremintaria


"Bialeke erremintaria auzo-lagun berezia da herrian, nekazarien artean pixka bat aparte bizi dena. Destainatu egiten dute, baina beldur diote beti ere. Destainatzen dute, jendearen ustez, lurrari mehatz aberastasunak kentzean, mantenua ematen duen lurrari irain egiten diolako. Eta beldur diote, metalgintzako ezkutu beldurgarriak jainkoek beren arbasoei urrutiko herrialdetik etorri zirenean erakutsi zizkietenak, ezagutzen dituelako. Herriko jendearentzat suaren artea eta aztikeria nahastu egiten dira elkarrekin.

Bialeke, erabiltzen dituen tekniken bidez, harreman zuzenean jartzen da indar natural eta misteriozkoekin. Erremintariek beren familiarekin benetako lanbide-kasta bat osatzen dute, lanbide herriaren bizitzarako ezinbestekoa dena, hori gabe ez bait dago erremintarik, ez gurdirik, ez ehizarako armarik. Baina erremintariak azti-susmokoak dira. Herriko inork ez du ezkondu eraziko bere alabarik Bialeke-ren semearekin, eta horren alaba Diaka-k ere ez du senarrik aurkituko herrian. Izpirituen kulturako gauzak ere egiten ditu Bialeke-k, mozorroak adibidez, kutun edo amuletoak eta zorionekarle diren kontaezin ahala 'gris-gris'-ak". *(LAURENT)*

> ***Diaka: ontzigile abila***
>
> *"Askotan eltzegile izaten dira emakumeak. Izugarria da haien trebetasuna. Diakak,Bialeke-ren alabak, edozer gauza modela dezake buztinez, eta modelatu ere zehatz eta akatsik gabe, bai ontzi izugarriak, familia osoaren otordua egosteko adinekoak, eta bai fuente soilak edo etxekoandreak sukaldean erabiltzen duen edozein ontzi-modu".*
>
> *(LAURENT)*

ren jabetzak ez zuen garrantzirik, bai ordea gizon-kopuruz osatzen zen aberastasunak. Honela, hedakuntza politikoaren eta gerraren helburua ez zen lurraldeak irabaztea, gizonak harrapatzea eta esklabutzea baino, hauen lan-indarraz baliatu ahal izateko. Ildo honetatik joz, Afrikako sistema politikoa, funtsean, gizonen gobernamenduan oinarritzen dela uler dezakegu.

Aldez aurretiko ohar hau egin ondoren, Afrikan zehar aurkitzen diren hiru sistema politiko nagusiri buruz mintzatuko gara: anarkiaz, buruzagitzaz eta botere zentralizatuaz.



LABORE-USTIATEGI HANDIA. Baserri handi bat honela eratzen da Ipar Kamerun-eko, masa-tarren artean: famili bizitzari eta produkzioari dagozkien espazioak ordenamendu finko bat izan ohi dute, gizonezko-emakumezkoak (G/E) bereiziz, bizilekuei ondoan sukaldeak (S) jarriz, ale-biltegiak (A) eraikiz, pasealekua (P) moldatuz, eta buruzagiari aparteko trataera emanez (B-E: buruzagiaren etxea, B-A: buruzagiaren ale-biltegia).

a) Anarkia

Badirudi, gaur egun, hitz honen konnotazioak batabestearen kontra aurkitzen direla. Alde batetik ezezkorrak dira, hau da, desordena, nahasmendua, kaosa eta Estatuaren desoreka; bestetik, helburu utopiko bat adierazten du anarkiak: hau da Estatu hertsatzailea desagertuko den garaian sortuko den gizabanakoaren askatasun-egoera.

Hitz honen etimologiak ordea hierarkizazio gabeko egitura politikoa adierazi nahi du. Alegia, ez dago aginterik, edo hobeto esan, aginteak ez du pertsonifikaziorik. Beraz, hierarkizazio eta aginte gabeko gizarte hauetan, buruzagitzarik, administraziorik, poliziarik, presondegirik ez ikustea zen harritzekoa europar batentzat. Hortik europarren galdera: nola da posible baldintza horiekin gizarte bat gobernatzea eta ordenan mantentzea?

Sistema politiko honen izateko arrazoia hau da: anarkia ezagutzen duten gizarteetan antzekoak dira bizibideak, desberdintasun sozialik ez da ezagutzen eta guzti horren ondorioz ia gatazkarik ere ez. Halaber, tradizioz errepikatzen dituzten usario eta ohiturek eta sineskizun erlijiosoek berek kohesio handia ematen diote gizarteari. Beraz, herri hauek daukaten agintea usarioan eta sineskizun erlijiosoetan oinarritzen da (ik. ikasgai honetan "Erlijio afrikarrak").

Tradizioaren eta sineskizunen esanetatik irteteak esanekotasunik eza eta, ondorioz, zigor morala ekartzen ditu berekin: batetik, presio soziala, desbideratu hori guztien mespretxakizun bihurtzen duena, eta, bestetik, halakoarentzat arbasoen edo ezkutuko izpirituen zigorra, gaitz edo heriotza bidez ager daitekeena.

Nilo-ren ibilbide bitxiak

(Ibn Battuta-ren pasarte honek erakusten digu, Afrikaren ezagumenduan Europari eta bere ondoko mendeetako bidaiariei ondotxo aurrea hartu zien kronikari honek ere Niger ibaia Nilo-ren adartzat nola ematen zuen. XIX. menderarte ez zen gainditu uste hau).

"Zagari-tik bideari heldu genion berriz ere ibai handiraino, Nilo-raino alegia (=Niger); ibaiertzean Karsaju-ko herria dago. Nilo-a (=Niger) Kabara aldera eta gero Zaga-ra jaisten da. Herri hauetan erregexka bana dago, Mali-ko erregearen menpean. Zaga-tarrak musulmanak dira aspaldidanik; beren erlijiozaletasunak interesarazi egiten ditu zientzia erlijiosoetan. Gero Nilo-ak (=Niger) bere bidea jarraitzen du Tunbuktu eta Kaw-Kaw (=Gao) hirietan zehar (hauetaz gero hitz egingo dugu) eta ondoren, 'limijjin'-tarren herrialdean, Muli herritik igarotzen da; hau da Mali-ren azken menpe--lurra. Gero Jufi-tik igarotzen da, (Mendebal Afrikako) Sudan-eko lurralderik handienetako bat, jauntzat errege handi bat duena. Zuriek ez daukate Jufi-n sartzerik, hara iritsi baino lehen hilko lituzkete eta. Segidan Nubia aldera jaisten da ibaia; kristauak dira horko jendeak. Eta ondoren Dunkula-ra ere bai, hango hirietan handiena (...). Geroago erreka Janadil (Nilo--ko kataratak) aldera jaisten da; horixe da beltzerriaren muga eta Assuan-a, Goi-Egyptoko lurraldearen hasiera".

(IBN BATTUTA, 1304-1377)

Agintea duten pertsonek (pertsona nagusiek --hildakoen eta bizidunen artekari direnek--, famili buruzagiek, herri-buruzagiek, lurralde-buruzagiek) ez dute inolako aginte pertsonalik, usarioetatik jasotzen dutena besterik. Hau da, horien eginkizuna gatazkak bideratzea eta administratzea da, horretarako usario eta ohiturak gogoratu eta errespetaraziz.

Sistema politiko honek eskaintzen dituen berdintasuna eta oreka mantentzeko, antolamendu sozialean parte hartzen duten elementuen artean (familia, leinu, klan, adin-talde, eta abarren artean) ez du inork nagusitasunik hartzen. Honela, esate baterako, gerontokrazia mugatzeko adin-taldeak daude.

Sistema politiko honen ezaugarri nagusienak aipatu baditugu ere, azpimarratu beharra dago, era askotako antolamendu anarkistak daudela, ehiztarienak eta nekazarienak, adibidez.

Anarkiak leku babestuetan iraun badu ere, sistema honek izan du luzaro irauteko beste arrazoirik ere: nola aginte politikoa ez den bildurik egon, ezin izan zaio horri eraso; aitzitik, belaunez belaun jaso diren usario eta ohiturak izan dira sistema honen ardatz edo benetako aginte.

GATZA BASAMORTUAN

"Gatza zen salgairik garrantzitsuenetakoa afrikarren sal-erosketan eta urrea bezain truke-ordain arrunta izan ohi zen. Gatzagarik nagusienak Sahara-n zeuden. Ohiki honela ateratzen zen gatza: lur gazitan zulo koskorrak egin eta ura botatzen zen bertan. Urak urtu egiten zuen gatza, eta gero ura eguzkitan urrintzean, gatza hondar bezala gelditzen zen; jarraituan gatza palaka atera eta gatz-losak egiteko sakatzen zen. Toki batzutan, Taghaza-n, Mali-n, gatz hutsezko hobitan aurkitzen zen gatza eta orduan hondealanez atera zitekeen. Eskualde honetan, Leon Afrikarrak XVI. mendeko erudituak,erreparatu zuen behin, 'marmola baino zuriago'ko produktua ematen zutela gatz-hobiek". (B. DAVIDSON)


b) Buruzagitza

Sistema politiko honetan leinuak eta familiak buruzagi baten inguruan elkartzen dira. Herrialde batean lehenik ezarritako familiako taldekide edo erlijiozko boterea duen pertsonaia izaten dira buruzagitza dutenak.

Ikus daitekeenez, bada, sistema honetan dualtasun politikoa ere gerta daiteke. Hau da, esate baterako, lurralde-buruzagia, famili zaharrenaren legitimitatea duena alde batetik, eta botere politikoaren agintea duen buruzagia (konkistatzailea kasu) bestetik. Honela, sistema kolonialaren garaian, europarrak buruzagi batekin hitzarmen bat egiten zuten, hori lurralde hartako agintari bakarra zela pentsatuz; baina laster konturatzen ziren, balio eskasa zuela hitzarmen hark, haiek ezagutzen ez zuten beste buruzagi batekin berriro ere elkarrizketatu beharrean aurkitzen zirenean.

Buruzagitza hauetan badirudi aintzinatearen prestigioa eta historiaren legitimitatea erabiltzen zirela familia jakin baten agintea onartzeko. Sarritan, familia hauek kronista profesionalak erabiltzen zituzten arbasoen jatorria gorde edo asma zezaten.

Buruzagiaren itzala, berorren aberastasunaren, esklabu-kopuruaren, indar militarraren eta, batez ere, elkarte erlijiosoen laguntzaren arabera neurtzen zen. Buruzagitza bakoitza lurralde mugatu batera hedatuta egon ohi zen. Bamileke herria, kasu (500.000 biztanle), laurogeitamar buruzagitzatan banatzen zen. Buruzagitza bakoitza aberri independente moduko zerbait zen.




BURUZAGI BAMILEKEtarra (Mendebal Kamerun) bere etxeko ataurrean, eulizkia eskuetan duela. Ate-alboetako irudiek buruzagi-herriko gertakari historikoak gogoratzen dituzte.


Buruzagiaren boterea ez da absolutua, familiek, leinuek, elkarteek, etab.ek duten aginteak mugatzen bait du buruzagiaren botere hori. Dena den, zirkunstantzien arabera, eta herri batetik bestera, aipatu dugun eredu honek itxura ezberdina hartzen du: herri batzutan indar handiagoz agertzen da buruzagiaren agintea eta beste batzutan murriztuta.


c) Botere zentralizatuak


Orain arte aipatu ditugun gobernakerei konplexutasunik falta ez bazaie ere, datozen lerroetan, ekonomia bananduaren eta klase-gizartearen ondorioz sortzen diren giza antolamendu konplexuez arituko gara.

Afrikarren ohizko bizikera irudikatzen dugunean, haien txabola eta txosnak eta han-hemenka sakabanatutako herriskak eman ohi dira. Badirudi populazio handiko hiriak oraintsukoak direla. Honela, 1868an europarrek Zinbabuen harriz egindako eraikuntzak aurkitu zituztenean, ez zuten uste haiek afrikarrek egindakoak zirenik. Bestalde, Afrika beltzean agertzen diren hirien eta inperioen jatorria aztertzean historilari europarrek kanpo-faktoreen hipotesia (eragin islamdar eta urruneko merkatalgoarena bereziki) erabiltzen zuten, honela Afrikako bertako barne-faktoreak baztertuz. Bazirudien, afrikarrak ez zirela gai antolamendu konplexuak sortzeko.










SUDANeko ERREINUAK. Mendebaldeko Sudan-en, VIII. mendetik aurrera lau merkatal inperio dauzkagu:
A GHANA (700-1200) izan zen 1. Inperioa.
B MALIk (1200-1500) bere barnean hartu zuen aurrekoa, eta mendebalderantz bultzatu.
C SONGHAIk (1350-1600) pixkaka Mali beretu egin zuen.
D KANEM-BORNU (800-1800) bere gisara hazi zen, kontinentearen barnealdean.

Baina azkeneko urteotan (1977-1981) egin diren indusketa arkeologikoei esker ezagutu dira, alde batetik, antolamendu konplexuak sortzeko prozesuan barne-faktoreek duten eragina, eta bestetik, historia afrikarrak mundu-historiarekin duen paralelotasuna eta lotura.

- Hiriak

Badirudi gure Aroa hasi baino lehenagokoa dela Afrika beltzeko hiri-egituren sorrera. Garai horretarako ezagutzen ziren han nekazaritza, abelazkuntza eta metalurgia; hau da, ekonomia bananduta zegoen eta giza taldeak bereizten ari ziren batabesteengandik. Burdingintza ezagutu zuten lurralde batzutan (Nigeriako iparraldean kasu), eta arte-lan ikusgarriak sortu zituzten hango zibilizazioek (Nok kultura, K.a. 900-K.o. 200).



AFRIKA (1500-1550). Afrika, alde guztietatik kanpotarren ekintzek ukituta ageri zen: Saheletik iparralderantz islamdarren harremanek presentzia handia zuten (politikoa: Maghreb, Egypto; merkataria: Sahara, eki Afrika); mendebal-ekialdeetako kostaldeetan portugesen merkatalgoa... Baina Afrika beltzaren barnealdea bere gisara bizi zen, nahiz eta kostarako harreman komertzialik ez falta. Afrikak bere herri eta inperioak zituen.

- Kokaleku portugesak
- Eragin portugesa
- Kokaleku espainolak
- Kolonia espainola
- Lurralde turkiarra
- Hiri afrikarra
- Islamaren muga
- Zenbait Estatu afrikarren gutxi gorabeherako muga

JENE: KARABANA-HIRIA

"Tumbuktu ezkutukoa bera baino ere liluragarriago iruditzen zait Jene. Bertaraino heltzeko, Urtarrilean, irla bat bezala erreka-besoek inguraturik zegoela, ebano-egurrezko piragua zahar bat akuratu behar izan nuen. Plaza handi bat zeukan buztin gorriz inguratua eta bertan minarete kurioso batzuk ostruka-arrautza bitxiz apaindurik. Plaza horretatik begiraturik, musulman-munduko merkatal plaza handien ispilu leiala iruditu zitzaidan ***Jene****.*

Niger errekaren beso batean dago kokaturik, Mali inperioaren erdi-erdian. Antigoala, karabanatan gameluek beren pausaje mantsoarekin bideetan zehar garraiatutako produkturik desberdinenak biltzen ziren bertan. Sumaezin ahalako ezberdinak ziren han biltzen ziren produktuak: laboreak, olio-haziak, kola-hurrak, datilak, arrain lehortuak, txarro eztiak, ostruka-lumazko paketeak, elefante-letaginak, urre-agaxkak eta hautsa, burdin-barrak eta gatz-plakak.

Zerrenda honi, zoritxarrez, esklabu beltzak gehitu behar zaizkio, irabazi handiko trafiko-gaia dena. Jene-ko merkatari aberatsek harrera fazatsuak eskaintzen zituzten beren etxe eder, arrosa-urrinez perfumatuetan. Jene-ko damek eder-fama zuten eta festak ematen zizkieten, lurbirako lau bazterretatik berriekin zetozen bidaiariei". *(BIDAIARI BATEK)*

Testuinguru honetan sortu zen K.a. III. mendean **Jene-Jeno** hiria Niger ibaiaren barne-delta baten inguruan. Urtero urgaineztatzen zen lurralde honek elikagai-produkzio ugaria ematen zuen, arroza eta artatxikia bereziki. Halaber, arraina eta ganadua ere franko zen delta honetan. Guzti honek, artisautza, siderurgia eta merkataritzarekin batera, hiri-bizitzari bultzada itzela eman zion. Honela, gure Aroaren 800. urtean 10.000 biztanle inguru zituen eta XII. mendean, inguruko etxaldeak kontatuz, 20.000ra iritxi zen. Merkatal lurralde oso baten burua zen Jene.

Jene-Jenok, hortaz, Niger-en eta Sahara-ren artean, eragin bortitza izan zuen gure Aroaren lehen mendetik aurrera ireki zen distantzia handiko merkatalgoaren sortze eta finkapenean. Data haietatik hona hirigintza aurreratu bat ezagutu zen mendebal Afrikan. Merkatal joan-etorrien inguruetan ziren geraleku, bidagurutze, produkzio-zentru, merkatu, eta abarretan eraiki ziren hiriak: **Tunbuktu** XII. mendean, eta **hausa** herriaren XIV. mendeko zazpi **hiri-estatuak**, adibidez.

TXINAKO JIRAFA MALINDIARRA. Europarrak Indikora eta Afrikako eki kostaldera iristean (XV-XVI. mend.), harrituta geratu ziren hango merkatal hirien ederra eta aberastasuna ikusirik: Sofala, Kilwa, Zanzibar, Monbasa, Malindi edo Mogadixu-n hiri eginak eta biziak aurkitu zituzten. Hiri hauen goraldiak batez ere merkatal harremanetan zuen bere funtsa: Afrika barnealdeko inperioen eta, Indikoa zehar, Asiaren arteko salerosketak gidatzen eta kontrolatzen ziren hiri haietatik. Gaur eguneko Kenya, Tanzania, Zambia, Zinbabue eta Mozambikeko lurraldeetan garatu ziren erakunde politikoek kostalde honetatik esportatzen zituzten beren produktuak, eta berorietan erosi behar zituztenak. Horregatik, Ozeano Indikoaren barnean zegoen merkatal harremana esanahi handikoa izan da, europarrak han azaldu baino lehen ere: Afrikatik Asiara, eta hemendik hara, itsasoa bide irekia eta zabala gertatu zen, hango montzoiaren haizealdi lagungarriei eta nabigazio-teknikei esker. Zentzu honetan, begiratzekoa da ondoko irudi bitxi hau: txinar bat, jirafa gidatzen. Marrazkian barruntatzen denez, testua ideograma txinarrez idatzita dago. Jirafa hau Malindi-ko erreinu afrikarretik iritsi zen Txinara, animalia exotiko bezala, 1415ean. Ondoko urte haietakoak dira aipatuta dauzkagun bidaia txinarrak: ik. "Mendez Mende. Aro Modernoa", 182 or.



TXINA AFRIKAN

"Ming-darren dinastia nazionalak Mendebaldearekiko merkatal trafikoari ekin nahi izan zion berriro, baina konturatu zen, ez zeukala beti bezala Golko Pertsiarreko porturik erabiltzerik, Timur-en kanpainen ondoren erabat trabaturik zeudela eta. Horregatik mandatari bat bidali zen 1422an Aden-era, merkatal frankizien bila, xedetzat hartuz, Zheng He irenaren agindupeko ontziteriarekin 1405ean hasitako hedapen politikoa oraindik areago zabaltzea.

Flota horrekin arakatuak zituen Ekialde Urruneko itsaso guztiak: Malaka-ko kostak miatu zituen, Sumatra eta Java inguratu; Celebes eta Borneo-ko eki kostak nabigatu; Bengalako Golkoa zeharkatu, Andaman-etan ukituz; itsas kanpaina egin zuen Ceylan-en kontra, hemengo subiranoa zerga-ordaintzera behartzeko, etab. Azkenik, 1431 eta 1433 bitartean, itsasketa luzeenari ekin zion Zheng He-k: Mendebal Indiako kostaldean, Golko Pertsiarrean, Aden eta Jidda-n, Meka-ko portuan eta ukitu zuen, bere ontziteriako nabigari musulmanei Meka eta Medina-ko leku santuak bisitatzeko aukera emanez.

Berriro itsasoratu zenean eki Afrikako kostaldea aztertu zuen, eta korrontearen altzoan hegoaldera jarraituz ekialdera biratu zen, Madagaskar inguratu eta, Kalikut ukitu ondoren, Txina-ra itzuli zen". *(SALVAT. LA TIERRA)*

Ekialdeko itsasalde afrikarra, berriz, sartua zegoen jadanik gure Aroaren II. mendean Ozeano Indikoko merkatalgoan. Garai horretan **swahili** itsas zibilizazioaren lehen aztarnak aurki ditzakegu, ondorengo mendeetan itsas hiri jorietan gauzatzen dena: Mogadixu, Sofala, Melinda, Kilwa, Monbasa, Zanzibar, etab.

VIII. mendetik aurrera, musulmanen hedakuntza gertatzen denean, aire islamiko bat izango dute hiri hauek, kultura honen fruituak berenganatuz. Hemengo Swahili kultura, eragin islamdar edo asiarrik jaso arren, afrikarra dela esan genezake, eraikuntza alorrean erantzun propioak emanez (lau solairuko etxebizitzak, hilobi, meskita, etab.).

XII. mendetik XV.erarte egon ziren gailurrean hiri-estatu hauek, eta merkatal sistema konplexu bat burutu zuten (zergak, kredituak, moneta-ekonomia). Hiri swahili hauen merkatal harremanak oso zabalak ziren; barne-Afrikatik urrea, bolia, esklabuak, etab. jasotzen zituzten, eta montzoi-haizez baliatuz India eta Txinaraino heltzen ziren, handik itzultzean burdina, kotoia, etab. inportatuz. 1500etik aurrera, portugaldarrak agertu zirenetik hona, hiri hauek goia jo eta beheraldi bat jasan zuten.

GATZA. Eki Afrikan eztia, kokoa, urrea edo bolia baldin baziren merkalgaiak, mendebaldean eta Saharan urreak eta gatzak zuten pisurik handiena. Argazkian, Txad Lakuaren ondoko gatzaga bat: gatzezko harlosak ehundaka pilatuta. Ontzietan kargatu eta laku-ibaietan zehar eramaten ziren berauek hegoalderantz.



- Erresuma eta inperioak

Sistema politiko zentralizatu hauen jatorria aztertzean hipotesi kontrajarriak tirabiran ageri dira. Batetik, toki bakoitzean boterearen berezko sorrera ikusten dutenen aldekoak eta, bestetik, kanpo-faktoreen eragina (mundu islamdarrarena, bereziki) azpimarratu izan dutenak. Honez gain, beste batzuk, botere zentralizatuaren agerpena Egypto faraondarrean kokatzen dela ikusirik,

MOGADIXU

"Itsasketari ekin genion, eta hamabost egun nabigatu ondoren, Mogadixu-ra iritsi ginen; izugarri handia da hiri hau. Gamelu asko izaten ditu hango jendeak, eta ehundaka lepamozten dituzte egunero; ardiak ere asko dituzte eta merkatari ahaltsuak dira. Hiri honetan egiten dira Mogadixu izeneko oihal paregabeak; gehienak Egypto eta beste leku batzutara esportatzen dituzte". *(IBN BATTUTA, 1304-1377)*

MONBASA

('Sawahil' izenarekin hego Somalia, Kenya eta Tanzanietako kosta ulertu ohi da, baina Ibn Battuta-rentzat batez ere Tanzaniakoa dela ematen du. Kulwa edo Kilwa (portugesen Quiloa) Tanzaniako hegoaldeko hiria da. 'Zany' izenarekin eki Afrikako beltzak izendatzen dira).

"Mogadixu-n itsasoratu eta Sawahil-eko herrialderantz eta Zany-tarren lurraldean dagoen Kulwa hirirantz abiatu ginen; Sawahil-eko lurraldetik bi itsas-ihardunaldiko bidea egin ondoren Monbasa-ko irla handira iritsi ginen. Erabat aparte dago kontinentetik irla hau, eta bertako arbolak bananondo, limonondo eta melisak dira. 'Jammun' izeneko fruta bat ere badute, olibaren antzekoa da eta hezur berdinekoa, baina gustoz oso gozoa. Irla honetako jendeak ez du lurrik lantzen eta laboreak Sawahil-etik ekartzen dituzte. Mantenua bananaz eta arrainez egiten dute batipat".
(IBN BATTUTA, 1304-1377)



MERKATAL HIRIAK.Orrialde hauetan aipatzen diren eki Afrikako hiriak mapa honetan ikus daitezke: Sofala, Kilwa (Quiloa), Zanzibar, Monbasa, Malindi, Mogadixu... Europak oso berandu arte ezagutu ez zuen merkatal mundua zegoen kostalde honetan. Ibn Battuta-k XIV. mendean deskribatu zituen lurraldeok,ondoko agirietan irakur daitekeenez: Monbasa, Mogadixu. Ibn Battuta berak Sahara-peko herriei buruz ere ematen ditu albisteak: massuf-tarrak.


EMAKUME MASSUF-TARRA

(Saharako tribua zen massuf-tarrena; Mauritaniako hego-ekialdeko Iwalatan-en ezagutu zituen massuf-tarrak Ibn Battuta bidaiariak).


"Txundigarria da etnia hau bere ohitura arraroengatik. Gizonek ez dute inoiz emakumeen esparik izaten, eta izena ere beren aitarena ez, baina amaldeko osabarena hartzen dute. Herentzia ilobentzat (arrebaren umeentzat) izaten da eta ez norberaren umeentzat. Holakorik ez dut sekula munduan ikusi, Malabar-eko hindu jentilen artean besterik. Baina massuf-tarrek musulmanak dira eta errezoak egiten, erlijio-legea ikasten eta Koran-a estudiatzen arretaz saiatzen direnak, baina beraien emakumeek ez daukate lotsarik gizonen aurrean, eta aurpegi-estalkirik (belorik) ere ez dute erabiltzen, nahiz eta beren errezoekikoa lerialki bete. Edonork har ditzake emaztetzat, baina bidaietan ez diote senarrari lagun egiten, eta emazteren batek hala nahi balu ere ez liokete bere familiartekoek utziko. Han emakumeek adiskide eta lagun arrotzak izaten dituzte eta gizonezkoek ere bai beren adiskidetasunak familiaz kanpoko emakumeekin. Eta hala, gizon bat bere etxean sartu eta bere andrea adiskide batekin aurkitzen badu, ez du txartzat jotzen jokaera hori". *(IBN BATTUTA, 1304-1377)*







DIRUAK ETA INPERIOAK. Europarrek, Aintzinatetik Aro Modernoa arte, Mediterraneo-inguruan ikusi izan dute zibilizazioaren erdigunea: Fenizia, Kartago, Erroma, Errepublika italiarrak (Genova, Venezia, Florentzia), Espainia. Merkatalgoak, izan zuen leku handi bat antolamendu politiko haietan. Baina mundu mediterranear horretatik kanpo, egon da beste merkatal inperiorik ere: Afrikakoak dira adibide jakingarri bat. Bolia, urrea eta gatza izan ziren merkatal inperio afrikarren oinarri ekonomikoak. Irudietan, goian ezker-eskuin: elefantearen letaginak (eki Afrika), urrezko txanponak (ipar Afrika) eta gatz-harriak (hego Sahara); azpian, diru gisa erabili ohi ziren bestelakoak: lantza-burua, burdin katea, kobrezko gurutzea, kauriaren maskorrak, ezkont moneta, orkatila-zirgilo moneta. Diru afrikarra gisa ezberdinetakoa izan da: ganadua, urrea, esklabua, etab.; baina, inperio handiak eraiki ahala, legezko moneta agertu zen.



hipotesi hau egiten dute: tradizio egyptiarra jaso zuen Meroe-tar erresuma hondatu zenean (K.o. IV. mendea), meroetarrek burdingintzarekin batera, agintearen teknika ere Afrikan zehar zabaldu zutela. Monarkia askotan, kasu, tradizioan gordetzen zen gertakizun horren oihartzuna: lehenengo erregea errementaria zela esan ohi zen, eta, sarritan, errementarien buruzagia izaten zen erregea.

Botere hauen jatorria zertan dagoen jakitea oso argi ez badago ere (sarritan froga zehatzak falta bait dira), hipotesi alderdikoien akatsak ikustea mesedegarri bihur daiteke azterketan, zeren eta ikuspegi bat soilik azpimarratzeak eta hori interpretazio orokortzat hartzeak murriztu egiten bait du errealitatearen analisia.

Honela, ba, boterearen jatorrian, kanpo--faktoreen eragina soilik (Islamarena bereziki) aipatu izan denean, garbi ohartzen gara hipotesi honen balio murritzaz, Ertafrikan, Islamaren era-


ginetik urrun ere, aurkitzen ditugu erresumak eta. Bestalde, boterearen berezko sortzea soilik defendatzen duen hipotesiak alde batera uzten ditu jatorrizko antolakuntza politikoaren sortze-prozesuan sarritan hain eragingarri izan diren kanpo-faktoreak, merkatal harremanak hain zuzen.

- Sistema politiko zentralizatuak

Beraz, sistema politiko zentralizatuen eboluzioan kontutan izan behar dugu faktore ezberdinen elkarreragina ere. Adibidez, buruzagitza baten sendotze-prozesua (barne-faktorea), zentralizaziorantz doana, botere konplexu baten moduan egituratzen da, distantzia handiko merkatal harremanak (kanpo-faktorea) direla medio.

Sistema politiko zentralizatuaren ezaugarriak aipatzean honako hauek aipatu behar ditugu:

a) Herrialde bat lehenengoz populatu duen leinuari ematen zaio agintaria (erregea) hautatzeko eskubidea.



TUNBUKTU HIRIA. Hiri-garapena, Afrika tradizionaleko fenomeno bat ere bada. Merkatalgoak eta inperioen antolamenduak halaxe eskatu dutenetan, horretarako puntu geografiko egokietan hiriak sortu dira: basamortuko ohasietan, kostaldeko bide-buruetan, etab. Tunbuktu da honelako bat (Mali):
Mediterraneotik "beltzen herri"rakoan erdi-bidean zegoenez, han bildu izan da Sahara zehar egiten zen merkatalgoa. Hiria, ur-putzu baten inguruan garatu zen, hemen ikus daitekeen espazioaren izar-banaketa hori eratuz. Tunbuktuk eraikin publiko ederrak izan zituen: jauregiak, meskitak, etab.

b) Famili elkarte, buruzagitza, eta abarren gainetik, aipatu buruzagi horrek, erret kargua duenak hain zuzen ere, lortzen du lehentasuna.

c) Erregeak era askotako botereak biltzen zituen: **1)** erlijiosoa (herriaren ona lortzeko arbasoei erreguak zuzendu eta errituak ospatzeko eskubidea izaten zuen), **2)** politikoa (barne-arazoak eta kanpo-arazoak --gerra, harreman politikoak-- antolatu, erabakiak hartu eta karguak izendatzeko gaitasuna izaten zuen), **3)** ekonomikoa (herrialdeko baliakizunez, produktu bakan eta baliotsuenez bereziki --boli, larru, urre-- eta biztanleriaren lanaz eta emaitzaz jabetzeko eskubidea izaten zuen).

d) Erregearen agintea lurralde zabaletan zehar hedatzen da.

e) Boterearen hedatzea eta erresuma eta inperioen egituratzea honela gauzatu zen: **1)** Konkista militarraren bidez edo inbasio baten aurka defentsa sendotuz, honetarako miliziak adinezko erregimentuez edo gerran hartutako esklabuez osatzen zirela, **2)** Merkatal harremanak eratuz; horretarako, berriz, nahitaezkoa da bide-sareak zaintzea, merkatuak antolatzea eta bake- eta babes-giroa sortzea. **3)** Konkistaren edo merkatal harremanen bidez lortu den lurralde zabalaren gobernamenduak lurralde-administrazioa eskatzen du. Beraz, lurraldeetan zehar bakea mantentzeko, pertsonen arteko eztabaidak konpontzeko, zerbitzu publikoak (bideak, etab.) antolatzeko, eta administrazioaren funtzionamendurako beharrezko ziren zergak (lurraren emaitzak edo lanaren bidez eskaintzen zen zerbitzua) jasotzeko, menpeko funtzionariak izendatzen zituen erregeak leinuetako zerbitzari leialen



BENINeko GORTEAN.Erreinu afrikarrek, edozein Estatu garatuk bezalatsu, beren funtzionariak izan zituzten: izkribauak, jakitunak, epaileak, etab. Gorteko ospakizunetan,ez zen protokolo-zainik falta: irudiko hau merkatari eta ikustari handikiei ongietorria emateko zen.

artean, **4)** lurralde-administrazioan parte hartzen duten funtzionarien gainetik, erresuma osorako goi-mailako erabakiak hartuko dituen Administrazio zentrala egongo da. Erabaki garrantzitsuak hartu behar zirenean, erregeak etxeko funtzionariengana, funtzionari espezializatuengana (armadaren buruzagi, zergen arduradun, justizi administratzaile, eta abarrengana) eta kontseiluarengana jo behar izaten zuen, **5)** Errege-boterearen gehiegikeriazko joera (botere autokratikoa) orekatzeko ere bazen bide instituzionalik. Erresuma batzutan, adibidez, menpeko herriaren kezka eta egoerak jaso eta erregeari kontatzen zizkion kontseilaria ere bazen. Herri bantuetan kontseilari hau, leinukidea ez, baina plebetarra zena, herri-kexutasunen bozordea zen.

Mansa Musa, Mekara (1324)

"Izugarri zabaldu ziren Mali-ko aberastasun eta erlantzaren berriak, batez ere Mali-ko enperadorerik handienak, Mansa Musa-k, 1324ean Meka-ra egin zuen erromesaldiaren ondorioz. Esan zenez, 60.000 gizon omen zituen bere jarraigoan, 500 esklabu barne, eta hauetako bakoitzak 500 metikal pisatzen zuen urre-barra bana omen zeramatzan, hau da, ia bi kiloko pisua.

Ahoberokeria dela emanik ere, argi dago, mirespena sortu zuela Musa-ren erromes-bidaiak". *(B. DAVIDSON)*

Laburbilduz, bada, botere politiko zentralizatuen egituratze-prozesuan elementu askok hartzen du parte, eta guztion artikulazioak sistema konplexua osotzen du. Bestalde, sistema politikoaren kohesioa mantendu eta denboran zehar iraupena emateko ez da nahikoa indar militarraren erabilera soila, sarritan administrazio publikoaren antolamenduak eta horretarako behar diren erabaki eta legeak eragin handiagoa izaten bait dute ordena sozialaren sostenguan eta eboluzioan.

Botere zentralizatuen ezaugarriak aztertu ondoren, ikus ditzagun non eta noiz sortuak ditugun. Baina gogora dezagun, Afrika beltzean inperioak eta erresumak sortzen direnean (VIII. mendean), hantxe zirela ordurako Nubiako erresumak eta Ethiopiako inperio kristaua ipar-ekialdeko lurraldeetan; Afrikako Iparraldea Inperio Arabiarraren parte orduan, eta Europan Inperio Karolingiarra zen nagusi.

- Sudan-aldeko inperioak

Testuinguru honetan, beraz, sabana sudaniarrean eta Niger ibaiaren ertzetan sortu ziren lehen inperioak: **Ghana** (700-1200), **Mali** (1200--1500), **Songhai** (1350-1650) eta **Kanem/Bornu** (800--1800). ("Sudan" izenak, beraz, ez du hemen gaur eguneko izen bereko Estatua adierazten). Tropiko--aldean kokatzen ziren inperio hauek aberatsak ziren labore-lurretan eta abelazkuntzan; honetaz gain, burdingintza ere ezagutzen zen. Urreari esker, lurralde hauetatik ateratzen zen distantzia handiko merkatal trafikoa finkatu egin zen. Beraz, inperio hauek ekonomia eta gizarte plural batean oinarritzen ziren.

Afrikako inperio hauen garrantzia nabaria zen Erdi Aroan, Europa kristauaren eta mundu islamdarraren moneta-ekonomiak urre sudaniarraren

Basamortuko iratxoak

(Ik. 'Bidaia, Sahara zehar' agirian ohar argigarriak).


"Basamortu honetan kontaezin ahala dira iratxo gaiztoak eta bilaketaria bakarrik badoa, jolasean ibiltzen dira berarekin eta atentzioa liluratzen diote eta zertara zihoan ahaztu erazten; azkenean hantxe galtzen da, han ez bait dago biderik eta seinalerik, haizeak eramaten dituen hondarrak besterik ez: behin leku batean ikusten diren dunak gero beste batean ikusten dira. Hango gidaria, bidaia asko egindakoa eta burua argi daukana da. Txunditurik utzi ninduen gureak. Begibakarra zen eta bestea erdi hondatua zeukana; baina bera zen bidatza ongien ezagutzen zuena. Bidaldi hartan konkretatu genuen esploratzaileak ehun urre-metikal kobratu zituen, eta Massufa bat zen".

(IBN BATTUTA, 1304-1377)

Merkatal sarea

"Koloniaurreko garaietan, Afrikako barne-komertzioa --eta Europa eta Asiarekiko merkatal harremanak ere bai-- gaur ezagutzen den edozein sistema bezain egoki zegoen organizatua. Espainia, Portugal eta Italiako itsasontziek erregularki bisitatzen zituzten Afrikako portu mediterranearrak. Hor Europako salgaiuzak (ehunak, zaldiak eta artikulu fabrikatuak) trukatzen ziren datil, oliba, kola-intxaur, kotoi, kobre, eta, bereziki, urrearen truke, hauxe bait zen ekonomia afrikarraren ezin besteko oinarria. Produktu afrikarrak hainbat eratara ailegatzen ziren merkatuetara: asto- edo gamelu-bizkarretan, garraiatzaileen buru-gainean eta gabarra eta belaontzietan. Afrikarrek beren barne-merkatalgoaz gainera,negozio goriak zituzten itsasoz harunzkaldeko India eta Ekialdearekin. Merkatari afrikarrek beren tratalari-sena ere erakusten zuten merkatuan, eta, sarritan, afrikarren merkatal zuhurtasunarentzako errespeto handi batekin itzultzen ziren europarrak etxera".

(B. DAVIDSON)



JENNE hiriak XVI. mendean izan zuen bere loraldirik ederrena, urre-merkatalgoari esker. Niger ibaiaren ibiliaren erdialdean dago Jenne, eta Songhai-tarren inperiokoa zen. Islama, honaino ere iritsi zen: irudiko hau bertako meskita da.

BIDAIA, SAHARA ZEHAR (XIV. MEND.)

*(**Sudan:** Mendebal Afrikako beltzen eskualdea (Mali ingurua). **Sijilmasa:** Saharako hiria. **Alfakia:** Jakitun musulmana. **Tagaza:** Tunbuktutik 800 km-tara dagoen hiri saharatarra. **Iwalatan:** Mauritaniako hego-ekialdeko hiria. **Massufa:** Oraingo Masduf tribu saharatarra izan liteke. **Metikal:** Urrezko moneta-neurri musulmana).*

"Han (Fez hirian) gure jaunari baimena eskatu eta bideari ekin nion beltzen herrialdera (Mendebal Afrikako Sudan-era) joateko asmoz, eta Sijilmasa-ko hirira heldu nintzen. Hiririk dotoreenetakoa da hau eta datil mardul ugari dituena. Basora hiriaren antzekoa da honetan, baina hobeak dira Sijilmasa-ko datilak. 'Irar' izeneko motak ez du parekorik inon. Sijilmasa-n Abu M. Al-Busri alfakiak eman zidan ostatu, nik Txina-ko Qanyanfu-n aurkitutako haren anaia: Lekutan zeuden bata bestearengandik! Al-Busri honek adiguritsuenik tratatu ninduen.

Gameluak erosi nituen eta ederki batean gobernatu lau hilabetetan. Gero bideari ekin nion (1352ko otsailaren 18an) Abu M. Yandakan al-Massufi-k --erruki dezala Jainkoak-- manatzen zuen karabana batean. Sijilmasa eta beste leku batzutako merkatari ugari ere baziren karabana horretan. Hogeitabost eguneko bidea egin ondoren Tagaza-ra iritsi ginen. Laborantzarik ez da auzo honetan eta bitxitasun bat dauka, alegia, etxeak eta meskitak gatzarri-kaskoz eginak daudela eta sabaiak gamelu-larruz estaliak. Lurzorua areatsua da eta arbolagabea. Bada han gatz-hobi bat, gatz-losa izugarriak, bata bestearen gainean, dituena, aurrena landu eta gero lurpean pilatu izan balituzte bezala. Gamelu batek ezin ditu horrelako bi gatz-losa besterik eraman.

Auzoan, Massufa-tarren esklabuak besterik ez da bizi; horiek gatz-hobian lan egiten dute eta Draa eta Sijilmasa-tik ekarritako datilez, gamelu-haragiz eta Sudan-etik datorren artatxikiz mantentzen dira. Beltzak honaino etortzen ziren beren herritik artatxikia gatzarekin trukatzeko; produktu honen karga bat zortzi-hamar urre-metikaletan saltzen da Iwalatan-en, baina Mali-ko hirian hogei, hogeitamar eta berrogei metikaletaraino igotzen da. Beltzek gatza erabiltzen dute diru bezala; urrea edo zilarra balitz bezalaxe, puskak egin eta horrekin negoziatzen dute. Hiriak garrantzi eskasa duen arren, urre-hautsezko kintal askoren balioko tratuak egiten dira Tagaza-n". (IBN BATTUTA, 1304-1377)

beharrean zeuden eta. Goiz Erdi Aroan, bada, Europa Gurutzadak, Izurrite Beltza, Ehun Urteko Gerratea eta hondamén ekonomikoa ezagutzen ari zen garaian, beren loraldia ezagutzen ari ziren sudaniar inperio beltz hauek. Errege afrikar batzuk (**Mansa Musa** (1312-1337) eta **Sonni Ali** (1464-1492), esaterako) beren aberastasunak zirela eta, oso ezagunak ziren Mendebalde kristauan eta islamdarren artean. Inperio hauen hiriburuetako merkatuetan (**Jene**, **Gao**, **Tunbuktu**...) urruneko merkatariak biltzen ziren, eta meskita-inguruetan sortutako unibertsitateek lege-gizonak, olerkariak, etab. inguratzen zituzten.

Aipatu Inperio horiek ere izan zituzten beren gorabehera politikoak. Ghana, kasu, 1077ko urtean almorabideen eskuetan erori zen, azken hauen inperioa Ghana-tik Toledoraino hedatzen zela. XIII. mendean, ordea, Ghana, Mali inperioak beretu zuen. Songhai inperioa bestalde XVI. mendearen bukaeratik (1591) aurrera erresuma marokkiarraren erasoaldi baten ondoren honen nagusitzapean gelditu zen. Dena den, mila urte etengabe iraun duten sistema politikoak ere ezagutu dira: Kanem/Bornu-ko inperioa, adibidez.

- Mendebal itsasaldeko erresumak

IX-X. mendeetatik aurrera Ginea-ko kostaldean eta oihan tropikaletik hurbil hasi ziren egitura sozio-politikoak sortzen. **Yoruba** herrian hiri-estatuak agertu zirenean ez zuten beren artean harreman politikorik, nahiz eta amankomuntasun kulturala eta Ife hiri santua denen arteko erreferentziak izan. XV-XVI. mendeetan, ordea, **Oyo** hiriaren nagusitasun politikoa onesten denean izen bereko inperioa finkatuko da.

Benin-eko Ewuare Handia

"Benin-eko gobernari arrakastatsuenetako bat Ewuare Handia izan zen, erretaulkian 1440tik 1473ra bitartean egon zena.

Ahozko kontaketek diotenez, azti trebea zen, jakintsua, gerlaria eta gizon bulartsu eta buruargia. 201 herri eta auzo bildu omen zituen gero eta handiagotzen ari zen bere boterearen menpean, eta hiri famatua egin omen zuen Benin.

Ewuare-ren Benin zen portugaldarrek aurkitu zutena. Baina hiriaren deskribapenik ederrenak holandarrek egindakoak dira, XVII. mendean hara heldu zirenean.

Zertzeladak zehatz emateko zeukaten trebetasunarekin,merkatari holandarrek eman zituzten lehen deskripzio benetakoak Ginea-ko kostaren luzean agintzen zuten gorabeherei buruz". *(B. DAVIDSON)*

XIII. mendean Niger deltaren inguruan **Benin** erresuma aurkitzen dugu loraldi osoan. Erresuma hau, lehenago aipatutakoekin parekatuz, lurraldez txikia izan arren, garrantziz muga politikoak gainditu egin zituen.

Lur emankorretan kokatua (urtean zehar bi uzta jasotzen dira bertan); giza dentsitate handikoa eta hiri-egitura ere ezagutzen duela ikustean, hobeto ohartuko gara Benin erresumaren muntaz. Haren merkatal harremanak, alde batetik, Saharako joan-etorriekin lotuak zeuden, eta El Kairo-raino iristen ziren, eta bestetik, 1472an portugaldarrak iritsi zirenean, Europara zabaldu ziren harreman haiek, esklabu-merkatalgoa zela medio.

GAOko ABERASTASUNA: ESPLORADORE BATEN KONTAKETA


(Leon Afrikarra, geografo granadarra zen (c. 1495-1550). Musulmana, gero kristau egin zen Erroman; Tunisiara joan eta Islamera bihurtu zen ostera. Pizkundean sona handikoa izan zen Afrikari buruz eman zuen deskribapena).

"Hiri handia da Gao, Kabara-ren antzekoa, hau da, inguruan murrurik ez duena. Hiria, Tunbuktu-tik hego-ekialdera 650 bat kilometrotara dago. Etxerik gehienak itsusiak dira; hala ere, erregea eta honen gortea bizi direneko batzuk oso itxura dotorea dute. Bertako biztanleak, merkatari aberatsak dira, beren salgauzekin etengabe lurraldean zehar ibiltzen direnak. Beltz-mordo handia etortzen da hirira urrea ekarriz, eta horrekin Berberiatik eta Europatik inportaturiko artikuluak erosten dituzte, baina urre guztia gastatzeko hainbat salgauzarik ez bait da egoten, sarritan urrearen erdia edo heren bi atzera etxera eraman beharrean aurkitzen dira.

Hiria oso osasungarri da Tunbuktu-ren aldean. Eurrez izaten da ogia eta haragia, baina ardorik eta frutarik ez. Ugari dira meloiak, pepinoak eta kui ederrak eta arroz-pila handiak ere bai. Asko dira ur gezazko iturriak. Merkatu egunetan kontaezin ahala esklabu saltzen direneko leku bat ere bada. Hamabost urteko neskato batek sei bat dukat balio izaten ditu eta mutil gazte batek ia horrenbeste; ume txikiak eta pertsona larriak kopuru horren erdia inguru balio izaten dute.

Erregeak jauregi berezi bat dauka aparte, emakume, ahaide eta emakume esklabuentzat, eta irenak ere bai emakume horiek zaintzeko karguarekin. Ezinbesteko goardia bat ere badu (...), zaldizko eta oinezko soldaduz osatua; arkuz armaturik ibiltzen dira. Haren jauregiko ate publikoaren eta sarrera pribatuaren artean patio handi bat dago, murruz inguratua. Patioaren alde banatara dauden galerietako bat erabiltzen da entzutegitarako. Arazo guztiak erregeak berak ihardukitzen eta despatxatzen dituen arren, funtzionariak ere baditu laguntzeko, hala nola, idazkari, kontseilari, kapitain eta administrariak".

(LEON AFRIKARRA, c.1495-1550)



HIRI ESTATUA. Grezian edo Italian bezala, Afrikan ere ezagutu ziren Hiri Estatuak. Honelako bateko koroazio-ospakuntza irudiztatzen du ondoko marrazkiak: 1725ean, Gineako kostaldeko Ouiah-n ospatua da hemen ageri dena. Europarrak ere egon ziren ospakizun hartan: Ouiah-k merkatal harreman onak zituen, hortaz, atzerritarrekin.

Bi sistema politiko ezberdinetan gauzatu zen (Oyo eta Benin) Yoruba herriak goren mailako kultura sortu zuen, erretratu-arte eder batean ispilatzen dena. Brontzez eta lur errez egindako eskultura hau XVIII. menderarte ezagutu zen.

XVI. mendetik aurrera Ginea-ko Golkoan ezagutzen ziren erresumek, Benin eta Ashanti-k, adibidez, garrantzi eta botere handia irabazi zuten esklabu-merkatalgoari esker, eta beste erresuma berri batzuk ere sortu ziren. Bestalde, **Dahomey** erresuma, hasiera batean (XVII. mendean), esklabu-tratu horren aurka sortutakoa, azkenean, botere zentralizatu gogorra ezarri ondoren, negozio berean aritu zen.

1482an portugaldarrak Kongo-aldeko itsasaldera iritsi zirenean erresuma eratu bat aurkitu zuten han. Erresuma honen eta portugaldarren arteko harremanak oso adiskidetsuak izan ziren hasieratik. **Kongo**-ko erregea, bere boterea sendotzeko kristautasuna onartzea bide magikoa izan zitekeela pentsaturik, bataiatu egin zen 1491n. Beronen ondorengoak herrialde osoa kristautzeko bideak erraztu zituen, eta XVII. mendean harreman zuzenetan sartu ziren Erromarekin.

Portugaldarrek, kongotarrak kristautzeaz gain, munta handiko esklabu-merkataritza sortu zuten. Erregeak ez zuen merkatalgo horren monopolioa lortu, sarritan erregearen menpekoak berak aritzen bait ziren salerosketan esklabuzaleekin zuzenean. Honela da, pittinka-pittinka, ahulduz zihoan erret boterea, eta XVIII. mendean apaingarrizko irudi bat baino ez zen Monarquia. Boterea kontaezin ahalako buruzagitza ezberdinetan zatikatu zen.

- Barne- eta Hegoaldeko erresumak

XI. mendean herri bantuaren migrazioa Afrikan zehar finkatu ondoren, harremanetan jartzen dira lurralde horietako jatorrizko populazioak (ehiztariak, abeltzainak) eta populazio bantua (nekazariak, errementariak). Harreman honen bidez, nola tradizio kultural ezberdinak bata bestearen gainean jartzen diren, egitura sozio-ekonomikoak ere eraldatu eta desberdindu egiten dira, gizarteak itxura konplexuagoa hartuz.

Migrazioak, herri-nahasturak edo talde migratzaile nagusi baten ordez beste baten nagusitasuna agertzeak, izugarrizko mugikortasuna ematen zion mundu afrikarrari, aginte-egiturak testuinguru horretan forma hartu eta aldi berean eboluzionatuz zihoaztela.

XIII. mendean aurkitzen ditugu, beraz, lurralde hauetan sistema politiko zentralizatuak bazeudela adierazten duten lehen aztarnak. Alde batetik Laku Handietako eskualdean **Uganda**-ko erresuma baten berri ematen diguten Bigo-ko gotorleku eta jauregia aurkitzen ditugu. Uganda-ko lurralde hauetan, 1300etik aurrera, populazio nilotarrak heldu eta herri bantuarekin harremanetan jarri

RUBAGAko GORTEA. Ugandako hiribururik handiena zen Rubagako hau. Erret etxola erdi-erdian dago, eta erret emazteen eta funtzionarienak ageri dira inguruan. Iparralderago, muino batean, bazuen Erregek beste egoitza bat ere, eta ondoko Nabulagala auzoan zeuden merkatari arabiarren biltegiak, hauen esku bait zegoen, joan den mendearen azkenetan oraindik, merkatalgorik gehiena. (Stanley-ren marrazki batetik moldatua).



ziren. Honela, Bigo hiriburuaren inguruan sortu zen erresumaren garai distiratsua 1350etik 1500-erarte hedatzen da.

XVI-XVII-XVIII. mendeetan berriz, aipatu Laku Handien inguruetan administrazio sendoko monarkiak egituratu ziren: **Buganda, Ruanda eta Burundi.**

Zanbeze eta Linpopo ibaien artean dagoen goi-sapaldan, jada X-XI. mendeetan, harriz egindako eraikuntzak eta urre-meategiak aurkitzen dira. XIII-XIV. mendeetako harri-eraikuntzak handiago eta ugariagoak dira. Gaur egun Zinbabuen soilik 150 eraikuntzen aztarnak aurkitzen dira, eta horietako bat Afrikak dituen aztarnen artean harrigarrienetarikoa da, **Zinbabue Handia** deritzana hain zuzen ere. Aipatu eraikuntza honen funtzioa ez zen defentsa, agintariaren boterea eta ospea azaltzea baino.

Beraz, aipatu goi-sapaldatik hasi eta Ozeano Indikoaren itsasalderaino herri bantuak **Monomotapa** izeneko inperio boteretsua eraiki zuen

ZINBABUE: MONOMOTAPAren "GORTE"a


"Sofala-ko kostaren atzekaldean --baraldi bat egin nuen nik hor-- Monomotapa-ren ametsezko erreinua zabaltzen omen da. Ni neu portuan ibili nintzen pasian eta han nere begiz ikusi nuen, kotoi eta zetengatik beren urrea trukatzera etorritako jendea. Gizon horietako batzuk lehoin-larruz jantzirik ibiltzen dira, eta larru hori, harro-harro, lurrean arrastaka eramaten dute beren duintasuna agertu asmoz. Merkatari zurgatxak ere badira gerlari beldurgarriok. Nere aurrean esan zutenez, barrualdera hogeitamar eguneko bidea eginda, bai omen da hiri handi bat, Zinbabue deitzen dutena, eta bertakoen hizkuntzan 'gorte' esan nahi omen duena. Erregearen bizilekua omen da, baina inongo atzerritarrik ez omen da oraindik benturatu hara joaten. Hortik atera nuen, gotorlekuren bat izango zela, zementu eta mortero gabeko harri-puska izugarriz egina. Murru horien barrualdean, erregeak zorrotz gordetzen omen ditu urrea urtzen dakitenen sekretuak; urrea ugari omen da herrialde honetan. Erregeak bizimodu fazatsua eramaten omen du, eta zerbitu ere belauniko egiten omen diote. Menpekoek jainko-txoriak gurtzen omen dituzte; horiek dira gotorlekuaren zaintzaile sinbolikoak eta horien irudiak nonnahi aurkitzen dira harritan grabaturik".

(XVI. MENDEKO BIDAIARI BATEK)

Inguruko erresumak beretuz, konkista, zerga edo merkataritza zirela medio ("Mwene Mutapa" = herri konkistatuen jauna). Inperio honek lanesku ugari behar zuen urre-produkzioan; distantzia handiko merkatalgoan oinarritzen ziren beronen harremanak, Sofala eta Kilwa swahili itsas portuetatik Txinaraino luzatzen ziren.

XVI-XVII. mendeetan portugaldarrekin harremanetan jarri zirenean, azken hauen asmoa urre-produkzioa eta inperioa kontrolatzea zenez gero, krisialdian sartu zen inperioa eta, azkenean, kanpora jaurti behar izan zituzten portugaldarrak goi-sapaldatik. Harrez gero, ia XX. menderarte ahula izan zen europarren presentzia lurralde haietan.

Afrikako Kongoko oihanaren hegoaldeko herri bantuan burdingintza sartu ondoren, aldatu egin zituen ehiza, nekazaritza eta armagintzako teknikak, eta errazago moldatu zen horrela ingurunera. Beraz, populazioaren lekuz aldatzeak, ezarpen berriak bizkarreratu zizkien, eta ekonomi edo bizibide-arazoak sortu. Erabakiak hartzeko gestio-formak berregituratzen hasi ziren. Ondorioz, XI. mendetik aurrera eboluzionatzen hasi ziren sistema



"ZINBABUE" da portugesek errege afrikarren hainbat hiribururi eman zioten izena; baina batipat "Zinbabue Handia"ri deitu zaio horrela. Afrika beltzeko hondakin-leku apartekoa da hau. Hiru multzotan banatuta daude Zinbabueko hondakinak: "tenplu eliptikoa" barruti itxi bat da (244 m-ko murrua, 9 m-tarainoko altuerakoa) eta bi dorre koniko barnean, dena haran batean dago. Ondoko muino batean eraiki zen akropolia, eta barruti haren eta eraikin honen tartean daude etxebizitza izan zitezkeenen gerakinak. Portugesek ezagutu zuten Zinbabue, XVI. mendean, baina geroztik lehenengo europarra ez zen hara iritsi 1871 aurretik. Zinbabue-ren eraikuntzaren dataz eta eraikileen etniaz eztabaidak daude oraindik. 1929an eta 1958an egindako indusketei esker, jakin da behintzat dudarik gabe kultura afrikarraren emaitza dela. 330 hondakin aurkitu dira eta urrezko eta kobrezko 1.150 moneta. ...

politikoak XV-XVI. mendeetan **Lunda** (Angola-aldean) eta **Luba** (Katanga eskualdean) inperioetan eratu ziren.

...

Zinbabuen bazen bizilagunik IV. mendetik hona; X.etik aurrera Kilwa eta Sofalarekin zituen harremanak. Erreinuak gora egin zuen: XI.ekoak dira lehenengo eraikuntza handiak (akropolia), eta, azkenik, Monomotapa-ren hiriburu bilakatu zen. Haraneko barruti eliptikoa XVII-XVIII.etakoa izango litzateke, dinastia berri baten obra. Irudietan: panorama orokorra (ezkerretan) eta harmailadia (azpian).



Afrikako erdialdean kokaturik zeudenez gero, inperio hauek itsasalde biak (Atlantikokoa eta Indikokoa) batzen zituzten merkatal bidateak kontrolatzen zituzten. Lunda inperioak, gerra eta konkisten bidez eta esklabutzan oinarrituz, Atlantikoko merkatalgoa kontrolatzen zuen eta portugaldarrekin harremanetan jarri zen. Bestalde, Amerikatik zetozen landareak (mandioka, artoa, patata, tabakoa, etab.) landuz eta aintzinakoak (basartoa) utziz, produktu hauen soberakinekin espedizio militar berriak antolatzen zituzten.

Gerlari gaztea

"Mutikoa, gerlari bezala gogor entrenatzen hasi baino lehen, bere familian bizitzen da tribuko auzo nagusian, bizileku pilakatu batean: txabola biribil batzuk dira, lokatzez eginak eta lastozko teilatua dutenak; erdiko atari baten inguruan eraikitzen dira. Aitaren ustez, mutikoa bere borroka-trebetasuna erakusteko prest dagoenean, gehienbat 13-14 bat urte inguruan, gizonentzat bakarrik, auzotik kilometro batzutara dagoen kanpamentu batera bidaltzen da. Han bere kemen guztiak ematen ditu, mutil handiagoengandik eta gizonengandik borroka-trebetasunak ikasten, tribuan ospea eta leku bat irabazteko itxaropenarekin.

Ezkont adinera iristen denean, gazte borrokalariak kanpamentuan ematen du urtearen erdia eta etxera joaten denean ere, gudu-erakusketetan parte-hartzeko, hornidurak jasotzeko edo uzta-biltzen laguntzeko bakarrik izaten da. Ezkontzen denean, utzi egin behar izaten ditu kanpamentua eta borroka; nuba-tarrek zalantzarik gabe uste dute, emazteak ahuldu egiten duela gizona borrokarako. Orduan berriro auzora itzuli, bere etxea egin eta lurra lantzeari eta umeak hazteari ekiten dio". *(B. DAVIDSON)*

Ozeano Indikotik zetozen produktuak kontrolatu nahiz ekialdera zabaldu zen, lurralde horietan erresuma berriak sortuz: **Kazenbe** erresuma da honelakoa.

Lunda inperioaren hedakuntzan, beraz, ez zen konkista militarra soilik erabiltzen. Horrez gain, herri lundak berak eskaintzen zuen gestio politikoaren ereduaren bidez beste herrietan sortzen zuen lilura ere eraginkorra zen. Era berean konkistatutako buruzagiei errege-leinuak --genealogiak trukatuz-- sartzeko eskaintzen zitzaizkien erraztasunak eta kudeakuntzan erabiltzen zuten deszentralizazio politikoa bera ere Lunda inperioa indartzeko faktoreak ziren. Eta ez da ahantzi behar lurralde ezberdinak merkatal proiektu berean sartzeko jarri zituzten bideek izan zuten garrantzia ere.

d) XIX. mendeko iraultza politikoak

Jakina da Europako historian mende honetako iskanbila politikoek izan zuten garrantzia: inperio napoleondarraren agertze eta desagertzea, ideologia politiko berrien sortzea (liberalismoa, nazionalismoa...), ideologia horien arabera sortzen diren Estatu-Nazio berrien eraikitzea (Alemania, Italia) edo beste batzuren egitura-sendotzea gogora daitezke batetik, eta egonkaiztasun sozio-ekonomikoak dakarren mugimendu migratzailea dago bestetik.



BASAMORTUKO MESKITA. *Afrikar musulman honek, otoitz-orduetarako, zuhaiska-adarrez egin du bere meskita ordeko hau. Sahelean, Sahararen hegoaldean hiru kulturak egin dute topo: afro-beltzak, arabo-islamikoak eta europarrak. XVIII-XX. mendeetan, gainera, Islam honek "berrikuntza aldi" bat ezagutu zuen bere baitan, eta gidari politiko-erlijioso bilakatu ziren, adibidez, Dan Fodio (1754-1817) eta Umar Tal (1794-1864). Afrikako herri batzurentzat, kolonizazio europarrari aurre egiteko ideologia izan da, gainera, Islama. Nigeriako hausa-tarrak, esate baterako, konkista kolonialekoan, % 50 animistak ziren, gaur egun % 80 dira musulmanak.*

Mende honetan Afrikan ezagutu zen kalapita ez zen izan gutxiestekoa. Ikus ditzagun, sudaniar lurraldeetan eta hegoalde afrikarrean gertatutako errebolten ondorioak.

- Gerra santua (jihad): Estatu musulman berriak

Afrika europarren artean banatu baino laurogei urte lehenago, Islamaren presioaren ondorioz, oreka politikorik gabea zen sudaniar lurraldeetako egoera, baina ondoko hamarkadetan Islam beraren indarberritzeak egitura politiko eginagoak sortu zituen.

Jatorrietara jotzen badugu, erlijio islamdarraren eraginez gertatzen den lehen gatazka soziala XVII. mendean datatzen da: murabit-en gerra, hau da, moje islamdar gerlariena (1673--1677). Iskanbila honetan herri xehea agintarien aurka altxatu zen, esklabutzaren desagertzea errebindikatuz. Seneganbian gertatutako matxinada honek porrot egin bazuen ere, ereduzkoa gertatu zen ondorengo mendeetan izan ziren matxinadentzat. XVIII. mendeko matxinadek (1727-28, 1750, 1770-76) zori hobea izan zuten, zeren eta esklabutza kendu zuten bi Estatu teokratiko sortu bait ziren: **Futa Toro** eta **Futa Jalon.** Dena den, pixkaka aristokrazia musulman berria lehengo esklabutzaren praktikan erori zen.

XIX. mendean pilpilean ziren mugimendu erreformista islamdarrak eta mugimendu hauei jarraituz ermandadeetan biltzen ziren musulmanek, Tunbuktu eta Agades-eko Unibertsitateetan, doktrinetan jakitun zirenen esanak jarraitzen zituzten. Gidari erreformatzaileek, berriz, lege koranikoa bete behar zela defendatzen zutenean, bizitzaren arlo guztiak islamismoz kutsatzearen aldekoak zi-

Islam berria Afrikan?

"Usman Dan Fodio-rentzat, honetan Al Haj Omar jarraitzaile duela, erreformaren bektore nagusia fedegabekoen kontra ***Jihad*** *aldarrikatzea da, haien ustez amore-emaile diren musulmanak ere barnean sartuz. Hala, XIX. mendeko eraberritze islamdarrak areago du iratzar--mugimendu baten antza, doktrinazko berrikuste-lan batena baino. Mugimenduak berak ere, etengabe jatorrizko Islam-eredura itzultzen den tradizio baten barruan ikusten du bere burua. Despota eta bidegabekotzat jotzen diren botereen kontra Jihad-era dei eginez mahomatar eredua errepikatzeko gogoa, herrialde islamdarretan behin eta berriz agertzen diren irrika horietako bat da; ugari dira horrelako adibideak eta aldaketaren buruera espezifiko bat adierazten dute".*

(J.L. TRIAUD)

ren. Beraz, praktika erlijiosoekin batera, ohiturak, portaera politikoak, ekonomikoak, etab. hartzen ziren kontutan. Mugimendu honen inguruan, bada, talde sozial ezberdinak biltzen ziren: musulman sutsuetatik hasita, zergak jasaten zituzten merkatari eta abeltzainetatik pasatu eta boteredunak gorrotatzen zituzten talde sozialetaraino heldu arte.

Testuinguru honetan bada, XIX. mendearen hasieran **Usman Dan Fodio** (1754-1817) erreformatzaileak jentilen aurkako gerra santua aldarrikatzen du (1804). Fulbe herri artzainen laguntza militarraz baliatuz erreformatzaileok hausa hiri-estatuak eta inguruko lurraldeak konkistatu zituzten, eta Usman dan Fodio hil zen arte (1817) garai hortako Afrikako mendebaldean ezagutu zen inperiorik handiena eratu: **Sokoto** inperioa. 1890-ean, Ingelesak Nigeria aldera indarrean sartu zirenean, irauten zuen artean Sokoto inperio honek.

XIX. mendearen erdialdean areagotu egin ziren mugimendu erreformatzaileak eta gerra santuak. Futa Jalon erresuman oinarrituz, inguruko erresumak konkistatu zituen **Al Haj Omar** buruzagiak, bere aitzindaritzapean inperioa eratuz.

Oihanetik hurbil eta Niger haranaren hegoaldean **Samori** gidari musulmanak eta beronen jarraitzaileek beste inperio bat sortu zuten (1867-1892). Iraultza politiko honen funtsa honelatsu labur genezake: asmo erlijiosoak arrazoi ekonomikoak ezkutatzen zituen, zeren eta Atlantiko-aldeko merkataritza indartuz joan zen merkatari musulman taldeari botere politikoak ezartzen zizkion oztopo fiskalak ikusirik, aipatu talde horrek boterea hartzea derrigorrezkoa bait zuen.

Islama: Antikolonialismoa

"Indar eraberdin eta menperaezin bakarra izaki, erresistentzi eta zaputz-betekizun bat hartzen du Islamak orduan (kolonizazioa agertzean). Kontrakultura orohartzaile baten rola hartzen du, beraz (...). Anaiarte islamdarrek, Senegal eta Nigerian bereziki, lagunarte sekular eta berregituratzaile bilakatzen dira, Mendebaldeko kulturari erabat itxiak, nahiz eta inoiz gidariek joko politiko koloniala ere jokatu". *(J.L. TRIAUD)*

Laburbilduz: 1780tik 1880rarte, mugimendu islamdar erreformatzailearen eraginez, Mendebaldeko Sudanen hamabi buruzagik baino gehiagok hartu zuen botere politikoa. Guzti horren ondorioz, egitura politikoak (erresuma eta inperioak) sendotzeaz gain, XIX. mende-amaieran gogorragoa egin zen kolonialista europarren aurkako erresistentzia.

- Mfcane: iraultza zulua

"Mcfane" hitzak zulueraz "problema-garaia" esan nahi du, eta bereziki 1818-1828 garaiari dagokio izendapen hau. XVIII. mende-amaieratik hona populazio gehitze bat izan zen Afrikako hegoaldean. Badirudi hazkunde demografiko honen

TXAKA

"Napoleon beltza esan izan zaio Txaka-ri, bizi ere enperadore frantsesaren garai beretsuan bizi izan zelako eta beste hau bezala buruzagi militar garailea eta ospe handikoa izan zelako.

***Lehen urteak.**- Txaka, zulu-buruzagi baten umea zen. Baina, hala ere, ez zen bere herrian hezia izan. Nandi, haren ama, buruzagiak gutxiena maite zuen emaztea zen, eta bere umearekin alboko talde batean, muthetwa-tarren artean, bizi beharrean aurkitu zen. Herri gerrazale honen buruzagia Dingismayo zen. Txaka, behar hainbateko adinera heldu zenean, gerlari muthetwa egin zen. Laster erregimentu baten agintea eman zitzaion.*

1816an Txakaren aita hil egin zen. Dingismayo-ren laguntzarekin Txakak hartu zuen haren lekua; eta laster hasi zen Hego Afrikan beldurrik handiena zabaldu zuen armada antolatzen, erregimentuz edo, zulueraz esanda, 'impis'ez osatua.

Kanpamentu militarretan bildu zituen adin bereko mutilak eta trebakuntza intentsiboa ematen zitzaien, disziplina zorrotz batean sarturik. Gerlariak oinutsik ibiltzera behartzen zituen, bizi-bizi korritzeko modua izan zezaten; arma berriak eta gudu-taktika berriak ere sartu zituen.

***Zuluen hedapena.**- Laster zabaldu zen zuluen lurraldea inperio egiteraino. Garaitutako buruzagiak Txakaren agintaritza onartzera behartzen ziren, eta borrokakoan hiltzen ez ziren gizonek 'impis' zuluetan sartzen ziren, horrela horien kopurua handituz.*

Inperioa handitu ahala krudel- eta ero-zantzuak eraskusten hasi zen Txaka. Nandi, ama, 1827an, hil zitzaionean, bere menpeko 7.000 pertsona garbitu omen zituen, horien malkogabeko begiek haren heriotza behar adina sentitzen ez omen zutelako. 1828an, senideetako bik hura hil zutenean, ez zen protestarik izan. Txaka, bere hamabi urteko erreinaldian legenda bihurtu zen, baina tirano ere bai". *(J. MACK)*

sustraian ongizate ekonomikoak eta ezkont praktikak aurkitzen direla. Beraz, lurralde horretan giza dentsitatea handitzean, lur-banaketa eta kontrol-arazoak sortu ziren, eta honen ondorioz antolamendu sozial eta politiko berriak sortu beharrean aurkitu ziren. Honela, bada, hegoaldeko bantu herriak, buruzagi militarren inguruan elkartuz, irauteko behar zituzten lurrak konkistatu eta beren lurraldeak zabaltzen ahalegindu ziren.

Bantu-talde horietako batean, zulu taldean hain zuzen,**Txaka** (1787-1828), "Napoleon afrikarra", botereaz jabetu zen indar-kolpez baliatuz (1816). Buruzagi honek, erreforma militar eta konkisten bidez (1818-24), inguruko taldeak beregana-tu zituen. Txakak erreforma militar sakonak egin zituen (armada iraunkorra, erasotzeko armamendua eta estrategia militar berriak ezarriz), eta, era berean, gobernamendu-alorrean, eraldaketa sendoak burutu zituen. Ildo honetatik, botere militarra zentralizatu,lurralde-administrazioa herrialde militarretan egituratu, ekonomia zentralizatu eta agintariena zen zuluera nazio-hizkuntza bihurtu zuen. Beraz, konkista militar eta antolamendu politiko honen ondorioz Hego Afrikako lehen Estatu nazionala eratu zuen.



TXAKA (1787-1828). Errege zulu honek benetako inperioa sortu zuen hego Afrikan. Ik. aurreko orrialdeko agiria.


Iraultza zulu honen eragina nabaria izan zen, zeren eta talde eta herri osoen migrazioa bultzatu bait zuen, hegoaldeko mapa etnikoa zeharo eraldatuz. Herriak nahasi, etnia berriak sortu, herrien arteko gerren ondoren migrazio berriak hasi, defentsarako Estatuak eraiki: hauxe izan zen XIX. mendearen erdirarte Afrikako hegoaldeak ezagutu zuen panorama. Gorabehera hauen ondorioak Tanzania-raino heldu ziren.

AFRIKAREN KONKISTA EUROPARRAREN KONTRAKO ALTXAMENDUAK

Europak, XIX. mendean, Afrikaren konkista eta partiketari heldu zienean, ez zen hori bake-bidez egin; alderantziz, armak, teknika eta politika maltzurra erabili behar izan zituzten Europatik joandako konkistariek.

Ondoko mapa honetan ikus daitezke, gatazka armatu hauen punturik gorienak: Ingalaterra, Frantzia, Italia, Belgika, Portugal, Alemania... guztiek erabili zituzten beren armadak europarren menpe egon nahi ez zuten herri edo printzeak menperatzeko. Berlin-eko Kongresuak, diplomazi bidezko irtenbide bat eskaini bazuen ere, han erabakitakoek ez zuten zerikusirik Afrikako herrien borondate librearekin.

Kolonialismoak irabazi zuenean, alderdi abertzale afrikarrak hasi ziren jaiotzen: Egypto (1897, 1907, 1919), Tunisia (1910, 1920), Hego Afrika boer-a (1912).



D) AFRIKA, MUNDU-EKONOMIA BERRIAN: Esklabu beltzen tratua (XVI-XIX)

Ezaguna denez, esklabutzak leku handia izan du gizadiaren historian. Pertsona gutxi batzuren libertatea eta gehiengoaren balio-eza eta menpekotasuna azpimarratuz, Aintzinateko gizarteetan (Grezian eta Erroman, Mendebaldeari dagokionez) nagusi ziren produkzio-moduen edo lan-sistemen giza esanahia ekartzen dugu argitara.

* 1. Esklabutza: alde eta kontrako jarrerak


Bazirudien V. mendetik aurrera pertsonen arteko harreman hori desagertuz edo behintzat urrituz zihoala. Baina, horra, XVI. mendetik aurrera, Amerika aurkitu ondoren, hango lanetarako behar zen lan-indar ugaria behar zela eta, nola berpizten den berriro esklabutza europarren eskutik. XVIII. mende-amaieran esklabutzaren aurkako teoria abolizionistak agertu ziren europar "argituen" artean, eta XIX. hasieran (1803 Danimarka) eman ziren beltzen tratu horren aurkako lehen abolizio-dekretuak. Mende-erdialdean, Ozeano Atlantikoaren iparraldean behintzat, desagertua zen esklabu-merkataritza ofiziala; baina, hala ere, bazen ezkutukorik, bai iparraldean, bai Atlantikoaren hegoaldean ere.

Esklabu-merkatalgoa astiro desagertu bazen ere (arabiarrek kontrolatutako ekialdeko bidatzetan XX. menderarte iraun zuen), esklabutza bera astiroago amaitu zen (Brasilen, 1888), zeren eta, paradoxazkoa bada ere, Atlantikoko merkatalgoa ezabatu ostean, gizarte afrikarrean bertan sendotu bait zen esklabutza.



ERROMATARREN ESKLABU BELTZA. Ipar Afrika Erromatarra ez zen, noski, Afrika Beltza deitzen dena, eta Erromako Inperioan zeuden esklabuak, oro har, Inperioa egitean menperatutako herrietatik preso hartutakoak izan zitezkeen, ez Afrika beltzetik eramanak. Hala ere, esklabu beltz afrikaren bat edo beste tartekatzen zen: Galian aurkitutako brontzezko estatua hau esklabu beltz batena da.

ESKLABU-TRATUA. Mendeak zehar, Afrika esklabu-harrobia izan da. Tratu honek, kontinente--erdialdetik irten eta hiru irteera-fronte izan ditu: Gineatik Atlantikora, mendebal Sudanetik Mediterraneora, eta Laku Handietatik Indikora. Azken bi merkatal fronte haueta-ko tratanteak edo bitartekariak arabiarrak izan ziren, batzuetan europarrei salduz; Gineako irteera, geroz eta legeztatuagoa egon zen ("asiento"), eta kristau europarrek zeramaten zuzenean beren kontura (XVI-XIX. mend.).



Bestalde, XVIII. mendean sortutako teoria abolizionistak aipatu tratu hori deuseztatzeko ideiak eskaini bazituen ere, XIX. mendearen amaian landutako beste teoria batek (arrazakeriak) europarrek Afrika kolonizatzeko eskubideak justifikatzen zituen. Beraz, ezaugarri fisikotan oinarritutako arraza-sailkapena eginez (goimailako arrazak eta behemailakoak), europarrek beste herri guztiak (beltzak, kasu honetan) menperatu eta zibilizatzeko eskubidea zuten.

Arrazismoaren teoriak giza portaeran izan duen eraginaz gain, historilariek esklabu beltzen merkatalgoaz izan duten eztabaidetan ere izan du bere astindua. Dena den, ideologia kolonialistaren eraginez, historilariek ez dute esklabutza XX. mendearen erdialderarte kondenatu edo zalantzan ipini, sarritan esklabutza-sistema horren existentziaren arrazoia afrikarrengan berengan edo arabiarrengan ikusiz.

Gai honetaz den eztabaida historiografikoa bi joeratan biltzen da. Alde batetik, esklabu-merkatalgoak Afrikan izan dituen ondoren kaltegarriak azpimarratzen dituena, eta bestetik merkatalgo horren garrantzia eta ondorioak gutxiesten dituena.

Batzurentzat, afrikarrek gaur egun ezagutzen duten atzerapenaren arrazoi garrantzitsu bat XVI. mendetik XIX. menderarte gertatu den esklabu-merkatalgoan dago. Beste batzuek, aldiz, ez dute *sinesten ondorio kaltegarri hori gertatu denik*, eta tratu horren irabaziak europarrentzat (iraultza industriala eta garapen ekonomikoa) handiak izan direnik ere. Polemika, bada, pilpilean dago eta ikerketa berriek eskainiko dizkiguten datu berrien arabera joango da osatuz gaur egungo ezagutza urria.



BELTZ AMERIKARRA (1867). Esklabu-tratuaren ondorioz, Ameriketan biztanle-kopuru handi bat beltza da (EE.BB., Brasil, Antilak). Esklabutza honek XIX.aren bigarren erdialdirarte iraun zuen. Askatasun-ideiak bere bidea egin zuenean, esklabuen libertatea bidezko eta beharrezkotzat eman zen, nahiz eta esklabista zurrunik ere ez falta izan. Estatu Batuetan, askapen-prozesu hau, gerrate odoltsu batean erdi-itota suertatu zen (1861-1865). Ez zen samurra gertatu beltzei beren hiritar-eskubideak aitortzea: 1867-1868etan, Ohio, Michigan, Minnesota eta Kansas-ek ez zuten ezagutu beltzen hautarki-eskubidea.Hegoaldeko zuriak beldur ziren ez ote zuten boterea eskuetatik galduko, Mississippi-n, adibidez, 437.000 bait ziren beltzak eta 353.000 zuriak. Irudian: lehenengo botu-emaile beltza (Harpers Weekly, 1867).

* 2. Esklabutzaren ezaugarriak eta ondorioak


Dena den, ikus ditzagun esklabu-merkatalgoak dituen ezaugarri batzu. Lehenengo eta behin esan behar da: Afrikan zehar izan diren gizarte hierarkizatuetan ezaguna zela esklabutza. Esklabutza-sistema honetan era ezberdinetako esklabuak ageri dira: gorteko esklabuak edo etxekoak, armadako esklabuak, lege-haustearen ondorioz zigortuak zirenak, eta gerratan preso hartutakoak.

Amerika aurkitu ondoren, lurralde horietako azukre-kanaberaren ustiategiek behar zuten lan-indar ugariagatik Afrikan esklabuak erosten hasi ziren portugaldarrak. Amerikako eskea handituz joan zenez, esklabu-trafikoa ere ugaritu egin zen, hasierako portugaldarren monopolioa apurtu eta holandarrak, britaniarrak, frantsesak, espai-


niarrak eta danimarkarrak hasi ziren zeregin horretan parte hartzen.

Europarren eta agintari beltzen arteko tratua kostaldean egiten zen, esklabuak harrapatzea eta saltzea bertako agintarien monopolio zela. Salerosketa truke-bidez egiten zen, hasieran esklabuak pitxien ordez trukatuz.

Honela, ba, XVI. mendetik aurrera Europa, Afrika eta Amerikaren artean merkatalgo triangeluar bat antolatuko da, Afrika mundu-ekonomia berrian sartuz. Dena den, merkatal iniziatiba eta irabazi gehienak europarren eskuetan gelditzen ziren. Europarrek Afrikara beirazko txirtxilak, oihalak, kobrezko eta eztainuzko lapikoak, etab. zeramatzaten; afrikarrek, aldiz, esklabuak eta hauen mantenurako behar ziren elikagaiak. Esklabu-merkantzia hau europarrek Ameriketan saltzen zuten, baina prezioa biderkatuz, noski. Azkenik, Amerikatik Europara, ostera, produktu tropikalak ekartzen zituzten. Amerika eta Afrikaren artean ere baziren harreman zuzenekoak.



LANESKU BELTZA. Esklabu beltzak izan dira Ameriketako kolonia europarretako lanesku sofrituena, baina baita Afrikan bertako langile zigortuenak ere, hango inperio, merkatari edo europar kolonialistek hori komenigarri ikusi dutenean. Lanesku-bilaketa honek auzo eta herriak hustu egiten zituen, eta, batez ere gazteak eramatean, etorkizun demografikoa arriskutan jartzen zuen. Irudia: eki Sudan-eko diamante-garbitegi bat (1850).



"ECHAZON DE ESCLAVOS". Gaztelaniaz, ekaitzen batek edo behartuta, ontzitik karga uretara botatzeari "echazón" deitu izan zaio marinelen artean. Esklabuekin ere Ameriketarako bidaietan egin ohi ziren horrelako jaurtiketak, negozioak edo bestelako egokieraren batek hori "eskatzen" baldin bazuen. Kasu bat: 1781ean, azaroaren 29an 54 esklabu bota zituen "Zong" ontziak, eta beste 42 abenduaren 1ean, edateko ura faltatuko zitzaielakoan... Haiek jaurtita gero, egun berean euria egin zuen eta portura iristeko lain ur bildu zuten. Hala ere, kapitainak gelditzen ziren beste 36ak uretaratzea erabaki zuen. Halako galeraren ondoren aseguruei kalte-ordaina eskatu zitzaien, beste edozein karga galtzean egin ohi zenaren antzera.

ESKLABUTZAREN AURKA

(Thomas Jefferson-ek, 1743-1826, Estatu Batuetako hirugarren Lehendakari izango zenak, prestatu zuen (1776) Independentzi Deklarazioa. Honetarako lehen zirriborroan, Ingalaterrako Jurgi III.aren kontra ondoko hau idaztzi zen, esklabu-tratua salatuz:)

"Erregek gerra anker bat egin dio giza izaerari berari, gizakiaren eskubiderik sakratuenak, bizitzeko eta libre izateko eskubideak, urratuz; eta urratu ere, gu sekula iraindu ez gaituen herri urrutiko baten pertsonetan, hauek gatibu hartuz eta beste kontinente batean esklabu izatera eramanez edo horiei harako garraioa bitartean heriotza errukarri bat emanez. ***Sinesgabeko*** *potentziek ere arbuiatu egiten duten pirateriazko gerra hau, norena eta Britainia Haundiko errege kristauren gerra da.* ***Gizakiak*** *erosi eta saldu egingo diren merkatu bat mantendu behar dela erabakirik, bere beto-eskubidea itsustu du, horren komertzio madarikagarria debekatzea edo murriztea bilatzen duten ahalegin legegile guztiak hondatuz".* *(Th. JEFFERSON, 1776)*

ESKLABUTZA: ZURIGARRI ERLIJIOSOAK

"Beltzak heretikoak omen ziren, salbatzeko moduko arima zeukaten heretikoak; hala esaten zen eta afirmazio horretatik justifikazio arrazista bat eman zen, beltz guztiak esklabutzara kondenatuak zeudela zioena. Aitzakia berri honen bermagarri Bibliako testuak ere ekar zitezkeen, hauen arabera beltzak Ham edo Kanaan-en umeak bait ziren, Noe aitagoiak bere madarikazio famatuaren azpian utzi zituenak: 'Eta orduan esan zuen: 'Madarikatua Kanaan; zerbitzarien zerbitzari izango dira betiko horren umeak'' (Genesi, IX, 25). Esklabuketari batzuk neurri guztiak hautsi zituzten Bibli zatiak interpretatzen, alegatuz, bidegabeko litzatekeela kristauak esklabutzea, baina beltza ez zela gizaki eta, beraz, sekula ez zela hura kristautzerik izango. (...). Berkeley gotzainak ere ideia bera adierazi zuen filosofi hizkeran: 'Beltzak --hala zioen-- beste espezie bateko izakiak dira eta ez daukate eskubiderik sakramentuetara onartuak izateko'". *(D.P. MANNIX; D. COWLEY)*

ESKLABU BERRIAREN IZUA


(Olaudah Equiano, Benin-en jaio zen, 1745aren inguruan, eta auzo bateko tribu-buruzagi baten semea zen. Arrebarekin jostatzen zebilela, esklabuzale batzuek bahitu eta esklabu bezala saldu zuten. Ingelesa ikasi eta idaztera iritsi zen Olaudah. Honen oroitidatzietatik jasotzen dugu hau:)


"Kostara heldu nintzenean nere begiek atzeman zuten lehenengo gauza izan zen, itsasoa eta karga zain ainguraturik zegoen esklabu-ontzi bat. Harriturik gelditu nintzen hura ikustean, eta harriturik ezeze izuak jota ere bai, eta halako eran ze oraindik ere ezin bait ditut kontatu, neri, ontzira eraman ninduteneen barrua nahastu zidaten sentimenduak. Bapatean marinel batzuek eskuztatu eta astindu egin ninduten sano nengoela ikusteko; ni etsita nengoen, izpiritu gaiztoen munduan sartu nintzela eta hil egingo nindutela eta. Gorpuzkera gurea ez bezalakoa zuten oso, ilea luzea eta hizkuntza ere hain... (...) Itsasontziari begiratu bat bota eta kobrezko galdara handia kea zeriola ikusi nuenean, (...) ez nuen gehiago nere zoribeltzaz dudarik izan, (...). Nere baitaratu nintzenean beltz batzuk aurkitu nituen nere inguruan. Eta galdetu ere nien, ea jan egin behar ote gintuzten gizon zuri haiek, beren itxura lazgarri, aurpegi gorri eta ile luzeekin".

Merkatal zirkuitu honetan, beraz, Atlantikoan zehar produktu ezberdinak eramanez biderkatu egiten ziren azoka-puntu bakoitzean belaontzi europarren irabaziak. Baina, agintari afrikarrak merkatal sistema horren parte zirenez, berak ere jabetzen ziren irabaziaren atal batez. Honela, bada, buruzagi afrikarren gutizia suspertuz eta Amerikako eskea gehituz, esklabu-tratua hazteko oinarriak ezarriak ziren. Honezaz gain, europarrek afrikarrekin zuten harremanean armak eta bolbora sartu zituztenean (XVIII. mendean), ezagutzen ziren agintarien boterea indartu eta sustrai militarreko Estatu berriak sortzeko bideak urratuta zeuden. Beraz, indarkerian oinarritzen ziren botere hauen bidez eta razzi-ak edo erasoaldiak barneko lurraldeetara hedatuz, lehen Afrikan neurri apal batean ezagutzen zen esklabu-sistema areagotu eta finkatuago egingo da XVII-XIX. mendeetan.

Esklabu-trafikoaren zifrak ematean historilariak ez dira ados ipintzen. Batzurentzat, mende hauetan zehar Afrikatik 100 milioi esklabu irten ziren, hauetatik 40 milioi ekialdeko trafikoari dagozkionak, merkatalgo arabiarrari alegia. Beste batzuk, ordea, esklabu-kopuru hori 10 milioitaraino jaisten dute. Braudel historialariak honako zifra hauek eskaintzen ditu: XVI. mendean

ESKLABUEN ABIAPUNTUAK. Esklabu-tratuak bere nondik norakoak eta ibilerak ongi eratuta zeuzkan. Ohizko abiapuntuak zituen Afrikako kostaldeetan, eta beltzero europarrek aldez aurretik zekiten kontinentearen barnealdetik nora bilduko zizkieten esklabu-talde berriak. Hemen, horrelako bi bilgune historiko dakartzagu, bata ekialdekoa eta bestea mendebaldekoa. Lehenengoa, Tanzaniako Bagamoyo da, Indikoan: uztarpe-katean zetozen esklabuak pilare hauetan lotzen ziren, harik eta ontzian sartu arte. Bigarrena, Senegal-eko Gorea Irla da: hemen biltzen zen mendebaldeko esklabu-merkatu bat; 1678-1817 urte-tartean ingelesak eta frantsesak borrokatu ziren han nagusitasuna lortzeko. Azokara bildutako esklabuak hemendik hasten zuten Ameriketarako bidaia. Irla, txikitxoa gertatu zenean, bertakoek, kontinentera pasatuta, Dakar sortu zuten (1857).





900.000, XVII. mendean 7-8 milioi eta XIX.ean, esklabutza ofizialki debekatua egon arren, 1815tik aurrera (Vienako Kongresua), 4 milioi. Dena den kalkulu zehatzak egitea zaila da, zeren eta Ameriketara edo lurralde islamdarretara heldutakoez gain, razzi-atan eta garraioan hildakoak kontutan hartu behar bait dira.

Guzti hau ikusi ondoren, honako ondorioak atera daitezke. Esklabu afrikarren merkatalgoa Atlantikoko ekonomiaren azpisistema bat dela, eta, aldi berean, Afrikak XVI. mendetik aurrera europarren gidaritzapean sortu zen mundu-ekonomia berrian parte hartzeko era izan zuela. Halaber, afrikarren lan-indarrak Ipar eta Hego Amerikako nekazal ekonomia sendotzeko oinarriak eskaini zituen.

Bestalde, esklabu-merkatalgo hau XIX. mende aurretik gertatu den kontinentearteko migrazio handiena izan da, ez norberaren borondatez, indarkeriaz burututakoa baino. Ameriketako lurralde asko (Brasil edo Haiti bezalako kasuak dira nabarienak), hein handi batean, afrikarrek zibilizatu dute beren pentsamoldeak, ohiturak, sinesmen erlijiosoak, errituak, dantzak, musika, etab. bertan txertatuz.

Esklabu-merkatalgo honek Afrika beltzean bertan izan dituen ondorioak hauek izan dira. Batetik, lan-indar gaztea (umeak izateko egokiena, hain zuzen) galtzearen ondorioz izan den geraldi ekonomikoa eta demografikoa. Bestalde esklabu-sistema finkatzeko sortu diren Estatu militarrek, razzi-ak eta gerrak ugalduz, egonkaiztasun politiko eta sozial iraunkorra sustatu dute.

E) ERLIJIO AFRIKARRAK

Herri guztietan sinesmen erlijioso amankomunak izan dira gizartearen euskarri eta erreferentzia. Afrikaren tradizionaltasuna sinesmen horretan eta horien inguruan sortutako portaeren iraupenean ere badatza. Halaber, iraupen honen arrazoia erlijioak eguneroko bizitzan duen balioan ikusi behar da, zeren eta errezoak, errituak, magiak, etab. gizarteak eta pertsonek dituzten arazo praktikoak konpontzeko balio bait dute.

IRUDI MAGIKOAK. Izadia hezikaitza denez, beraren indarrez jabetzeko irudi magikoak erabiltzen dira. Hemengo hau, "Doba" deitua da: uzta onen familiako aldarea (Burkina Faso/Volta Garaia, herri bobo-an).



* 1. Ohizko erlijioak

Sinesmen erlijiosoek naturazgaindiko eta naturaren misterio eta arazoak (bizitza eta heriotza), eta halaber, gizartearenak eta pertsonarenak ere ordenatu, argitu eta bideratu egiten dituzte.

Munduaren jatorria eta funtzionamendua ulertzeko ia afrikar gehienek **Jainko Handi** batengan sinesten zuten. Baina, giza itxura izan beharrean energia edo bizi-indar moduan ulertzen zuten berori. Munduaren jatorria eta funtzionamendua azaltzeko orduan herri bakoitzak bere erara egiten du, era hori inguru eta bizimoldearen arabera sortzen dela. Beraz, zerua ia ikusi ere egin gabe, oihanean bizi direnek, edo sabanan zeru irekira begira, edo kostaldean edo ibaialdean bizi direnek beharrizan desberdinak eta aldi berean ulermen erlijioso desberdinak izango dituzte.


Aipatu Jainko Handi horren menpean maila apalagoko hainbat jainko aurkitzen dira. Jainko handiaren eta komunitatearen artean bitartekoak diren jainko horiek unibertsoaren funtzionamendu

fisikoan hartzen dute parte. Honela, ugari dira **jainkoak**: ekaitzetakoa, mendietakoa, ibaietakoa, itsasoetakoa, zuhaitzetakoa, etab. Sarritan, **jainko** hauek lokalak izaten dira, hau da, komunitate edo talde bakoitzarenak. Afrikako jainko hauek, bada, naturaren misterioak gobernatzen dituzte, eta afrikarrek jainko horien babesa eta laguntza lortzeko beren errituak dauzkate.

Naturaren elementu guztiek (mendiek, ibaiek...) bizia, izpiritua duten moduan, gizakiek ere, naturaren parte direnez, izpiritua dute: ikusmolde horretan oinarritzen da **Animismoa**. Beraz, afrikarrentzat gizakia, izpiritua duenez gero, ez da hiltzen, izpirituak iraun egiten du eta bizi-indarrarekin elkartzen da. Inor ez bada hiltzen, bizidunen komunitatean hildakoen izpiritua ere kontutan hartu beharra dago. Areago oraindik, jaio ez direnen izpirituak ere komunitatearen parte dira.

Hildakoen izpirituen, hau da, **arbasoen** garrantzia ikaragarria da, haiek bait dira herrialdera lehenengo heldu zirenak eta erlijio, moral eta bizitza sozialean ezarritako komunitate-arauak ere haiek sortutakoak bait dira.

Bizidunak arbasoekin beren betebeharrak (eskaintzak, kultuak) dauzkate. Honela, bien arteko kontratu-harremanak zuzen joanez gero, komunitateak arbasoengandik mesede asko jasoko ditu; baina, harremanok bide okerretik joanez gero, arerio bihurtuko dira. Komunitateak gurtzen dituen arbasoak hasierako aitalehenaren segida zuzenekoak dira batez ere. Hauek dira jatorrizko arbaso eta komunitatearen arteko bitartekotza egiten dutenak, kristauen artean santuek egiten duten bezala.



IRAGANBIDEKO ERRITUAK. Haurtzarotik heldutasunera erritu sozial batzuren bidez pasatzen da: ezkontza edo heriotzako errituek adinako garrantzia dute haiek. Adinekoen erantzunkizunak beren gain hartzeko une hau esanahitsua da gazte guztientzat. Aparteko prestakuntza baten ondoren ospatu ohi dira zeremoniak: nexka jakuba hau (Boli Kosta) horretaroko gertu dago.



HELDUTASUNERAKO OSPAKIZUNAK. Nexkak bezala mutikoak "gizonezko jakintsu eta itzal handikoekin" edo "adineko emakumezko adituekin" prestatzen dira hilabete edo urtetan, iraganbideko errituak ospatuz, adinekoen bizitzari ekiteko: erlijioa, gizarte-bizitza, izadia... dira ikaskizun nagusiak. Prestakuntz garaian hildakoen mundukotzat hartzen dira gazteok, eta errituan, "berpiztu" egiten dira, askotan izen berri bat ere hartuz. Mutikoari erdainkuntza egin ohi zaio, neskatilari ebaketa. Ospakizun hauekiko legeak aldatuz doaz orain Estatuetan. Argazkian, Senegal-eko mutiko erdaindu-berri bat.

ERRITUZKO BAINUA. Gaixotasunek izpirituekin zerikusi zuzena izan dezakete. Horregatik, haiekiko "harremana" berritu eta ondu egin behar izaten da, sendagarria bilatzeko. Irudia: gaixoa bere errituzko garbikuntza osagarria hartzen (Ghana).

Naturazgaindiko, arbaso eta komunitatearen arteko bitartekotza belagileek (aztiek) eta apaizek betetzen dute. Belagileek **magia**ren bidez aldentzen dituzte izpiritu txarrak. Honez gain belagile eta apaizen agintearen oinarria zera da: belar-medikuntzaren ezagutza, zorroztasun psikologikoa eta tokiko egoeraren berri jakitea (jendearen bizimoduaren eta halaber giza izaeraren berri alegia). Erlijioak bada, belagile eta apaizen medioz, eragin terapeutikoa du gorputz-osasuna eta buru-osasuna zaintzeko.

Bestalde **elkarte sekretuak** izaten dira arbasoek ezarritako usario eta ohituren babesle eta eragile. Honela, haurtzarotik gaztarora pasatzeko **iraganbideko erritu**etan gazte berriek, aipatu elkarte sekretuak (benetan hain sekretu ez diren gizonen edo emakumeen elkarteak) direla medio, balore eta heldutasun-frogak egiteaz gain, arbasoek ezarritako bizimolde eta usarioak eta haiekiko kultuak ikasten dituzte.



JAINKOTASUNAREN KONTZEPTUA

"Aurreneko esploratzaileen esatez, afrikarrek ez zuten inolako erlijiorik ezagutzen; Jainkoaganako sinesmen garbirik aurkitzen zutenean, Islam-etik edo Kristautasunetik zetorkiela esaten zuten. Hala ere, 1650eko hiztegi batu batean Jainko goren bat aipatzen da. Bosman-ek 1805ean Mendebal Afrikan egindako oharrak ere aipatu ditugu. Gaur orokorki onartua dago, Afrikako herririk gehienek, denek ez bada ere, sinesten dutela izaki batengan, nahiz eta toki batetik bestera sinesmen horren intzidentzia oso desberdina izan kulturan eta eguneroko bizitzan.

Salbuespenak boskimanen eta pigmeoen artean aurki daitezke, baina ezer gutxi dakigu horiek egikaritzen duten erlijioaz. Boskimanen artean, hotentoteak kristautu egin dira ia denak, eta horien lehenagoko sineskizunei buruz dauzkagun berriak, lehen esploratzaileek eta misiolariek batasun handirik gabe utzi dizkiguten ohar batzuk besterik ez dira. Tsui-goab izeneko izpiritu pertsonal batengan sinesten zuten; horri jainko deitu zioten autore batzuk, beste batzuren ustez, berriz, antigoalako heroeren bat zen. Euriaren jaun eta emaile belaza gurtzen zen eta opariak eskaintzen zitzaizkion.

Kongoko oihanetako pigmeoak izpiritu handi batengan sinesten dute eta mitoak ere badauzkate kreazioari buruz eta zeru-lurrei buruz. Mito hauetakoren batzuk beren auzoko beltzengandik datozkie agian. Schbesta-ren esatez, pigmeo mouti batzuk sinesten dute Jainkoagan, eta Tore deitzen dute berau; horrek egin zuen gizakia eta horrengandik jaso zuen gizadiak sua.

Beltz afrikar, sudaniar eta bantuek izen asko ematen dizkiote Jainkoari. Eki Afrikan oso zabaldua dago Mulungu izena, eta egin diren hogeitamar Biblia-itzulpen baino gehiagotan izan da onartua. Ez da ezagutzen Mulungu-ren etimologiarik, baina kontzeptu honek berekin du Jainko gorenaren eta izpiritu inpertsonal baten ideia. Mulungu, kreatzaile eta jauna da, ahal guztidun eta omnipresentea. Horren boza trumoian aditzen da eta horren ahalmena tximistan agertzen. Justua da: zintzoei saria eta gaiztoei zigorra ematen die.

Jainkoaren beste izen afrikar bat Leza da, eta Kalahariren iparraldetik, Kongo-n zehar Tanzania-raino dago zabaldua. "-ri kontu egin" esan nahi duen aditz batetik ateratakoa izan daiteke eta jainkoaren ardura esan nahi du. Leza-k sortu zituen gauza guztiak, zeruan bizi da eta euria eskatzeko hotsegiten zaio; trumoian eta tximistan agertzen da. Ulertezinekoa dela esaten da, baina "animalia guztien ama" ere esaten zaio.

Beste jainko-izen bat Nyambe da eta mendebaldeko Afrika ekuatorialean erabiltzen da, Bostwana-tik Kamerun-era bitartean, eta Biblia-itzulpen ugaritan sartu da hori ere. Agian badu zerikusi Nyame izenarekin, berau erabiltzen bait da Ghana-n eta Boli Kostan Jainkoa izendatzeko. Antza, horren esanahi funtsezkoena sortzeko ahalmenarena da: jainkoa zeruan bizi den ahalguztiduna da, baina aldi berean izaki ororen baitan dagoen indar misteriotsua ere bai.

Mendebal Afrikako herriek izen ezberdin asko ematen dizkiote Jainkoari, nork bere hizkuntzaren arabera, Amma, Ngewo, Olorun, Chukwu, denek izaki gorenaren ideiarekin. Batzutan garbi-garbi agertzen da ideia hori; Olorun-ek "zeruko jabea" esan nahi du Yoruba nigeriarren artean. Beste batzutan ilunagoa da esanahia; Dahomey-n mawu eta ibo nigeriarren artean Chukwu Jainkoari aplikatzen zaizkio, baina gizakiaren arimari ere bai, hau Jainkoaren emanazio bezala ulertzen dela. Volta Garaiko dogon-en mitologia konplexuan, Amma Jainkoak sortu zituen izadia eta lurra, eta gero lurrarekin batu zen bixki-sail hilkorrak sortzeko"

(E.G. PARRINGER)

AFRIKAKO KONJURO MAGIKOAK

Lasto-puskak
Uztak kaltetatik gordetzeko
Palma-arkuak
Gaixotasunetik gordetzeko
Luma-eskutadak
Bizigela batekoak babesteko
Errafiazko eskobak
Lapurrak urruntzeko
Animalien tailak
Ehiza on bat segurtatzeko
Animalien hortzak
Animalia basatiak urruntzeko
Burdinazko beso-uztaiak
Ernalmena lortzeko
Makila-sortak
Etxea zaintzeko
Banbuzko txilibituak
Sorginkeriatik gordetzeko
Ahuntz-larruzko poltsak
Gaixotasunetik gordetzeko
Mazkatzeko zotzak
Sesioak aldentzeko
Girgilu astunak
Ume ahulak babesteko
Kobrezko uztaiak
Sugearen hozkatik gordetzeko

Norberaren bizitzaren onerako eta komunitatean txertatzeko bide egokiena bezala, arbasoen esanak eta borondatea betetzeko aholkuak jasotzen dituzte. Honen ondorioz komunitatearekiko erantzunbehar sozialaz jabetzen dira eta gizarteak kohesioa eta ordena soziala mantentzen du. Sinesmen erlijiosoa, bada, sistema politiko eta sozialaren euskarri bihurtzen da, bi mundu horiek (mundu erlijiosoa eta sozio-politikoa) oso elkartuak, ia bereiztezinak, bilakatzen direla. Azken finean, erlijio afrikarren indarra honetan datza: bizidunen arteko harreman sozialak, erlijioaren medioz, arbasoen izpirituetara zabaltzean.

Ohizko erlijio afrikarren egitura eta gizartean duten eragina aztertu ondoren, munduan zehar hedatu diren bi erlijio garrantzitsuez (kristautasunaz eta erlijio islamdarraz) ere zerbait esan beharra dago, horien presentzia Afrikan aspaldidanikoa bait da.

OHIZKO ERLIJIOEN ETORKIZUNA

"Zaila da zehatz esatea zenbat diren erlijio zaharretako sinestunak, zenbat kultu berrietara konbertitzen direnak eta zenbat jakinaren gainean guzti horretatik sintesi bat egiten dutenak. Mende honen hasieran, ozta-ozta iristen zen milioi batera Sahara-tik hegoaldera zegoen kristauen kopurua, eta musulmanak ere nekez izango ziren gehiago. 1968ko estudio batek ateratzen zituen ondorioen arabera, hirurogei milioi kristau eta gutxienez beste horrenbeste musulman izango omen ziren Saharatik beherako Afrikan. Tribalista asko gelditzen omen ziren artean, baina etengabe ari omen ziren gutxitzen eta esan omen zitekeen, horietako asko eta asko kristau edo musulman zirela potentzialki. Kristautasunak aborigen asko bereganatu ditu jadanik Australian eta Pazifikoko irlarik gehienetan, baina Hego Amerikan gero eta misio-ahalegin handiagoak egiten dira. Beharbada, Afrikan daude erlijio zaharren jarraitzailerik gehienak, baina egia esan kutsaerrazagoak dira horiek erlijio berrientzat Hego Amerikako oihanetan bizi direnak baino.

Idazkera-gabeko erlijioak beheraka doaz. Horien kanpo-agerpenak galtzera kondenatuak daudela dirudi, nahiz eta agian mende hau bukatu baino lehen ez gertatu. Dena dela, beti gelditu ko dira bizirik postura erlijioso zaharretako asko, eta hauek bai erlijio berria hartu dutenen pentsamoldea eta bai edozein praktika erlijioso baztertu dutenen pentsakera baldintzatuko dute".

(E.G. PARRINDER)

* 2. Kristautasuna eta Islama


Honela inperio erromatarraren garaian eta **kristautasuna**ren lehen hedapenekoan, jada K.o. IV. mendean, Ipar Afrikan zehar baziren kristau-komunitateak. Alexandriako patriarkatua (Egypton) garrantzizko zentru erlijiosoa izan da mendeak zehar. Hortik, Nilo-ren hegoaldeko lurraldeetara eta Ethiopiara ere sartu zen kristautasuna. Ipar Afrikako Kristandade honi ez zitzaion falta izan, gainera, ospe handiko fededunik: San Augustin Hiponakoa, adibidez.

XV. mendean, portugaldarrak Kongo-aldera heltzen direnean, Kostalde hauetako populazioak kristautu egingo dira, buruzagiek Bataioa onartzean. Baina kristautasunaren hedapena Afrikan zehar XIX. mende-amaieran, kolonialismoarekin batera, eta XX. mendean batez ere, misiolarien medioz, burutuko da. Europarrentzat eskutik doaz ebanjelizazioa eta zibilizazioa.

Bi mende hauetan sinesmen afrikar haiek eta kristauak elkartuz, **erlijio sinkretikoak** sortuko dira, neurri handi batean kolonialismoarekiko erreakzio-gisa eta sinesmen europarrak afrikarren moldeetan (zeremonia, erritu, etab.) sartu nahiz.



KRISTAUTASUNA. Afrikarren artean munduko erlijio handiak onartuak izan dira herri askotan. Kristautasuna aspaldidanik errotu zen eskualde batzuetan (Ipar Afrika, Ethiopia, Kongo, Hego Afrika), baina barnealdeko Afrika beltzean batez ere azken mendeko kolonizazioaren ondokoa izan da. Gogora dezagun, baiones batek (Lavigerie Kardinaleak) sortu zituela Afrikaroko "Aita Zuriak" eta "Afrikako Ahizpa Misiolariak" (1869),ondoren kanpaina antiesklabista bat ere eratuz (1889). Argazkia: Haur baten Bataioa, Boli Kostan.



ISLAMA. Afrikako herri zapaldu askorentzat Islama askapen-erlijioa gertatu da, Mendebaldearen morrontzatik ateratzeko. Belaunaldi berriei ere halaxe eskaintzen zaie Mahomaren bizipen erlijiosoa. Argazkia: Ginea-ko Timbo-n, ikaslea eskola koranikoan irakurtzen ikasten.

Islam-a sortuz gero (VII. mendea) Ipar Afrikan hedatu zen berau, saharatar munduari kohesio kultural bat emanez. XI. mendean hedatuta zegoen Sudan aldeko lurraldeetan eta eki kostaldeko hiri-estatuetan, hasieran bertako talde-buruzagiak bereganatu ondoren. Garai hauetan Saharan eta Ozeano Indikoan zehar zebiltzan merkatari musulmanak izan dira erlijio islamdarraren hedatzaile nagusienak.

XVIII eta XIX. mendeetan zehar islamismoak herri xehearen asmoak eta nahiak jasotzen dituenez, protesta sozialari gerra santuaren bidez emango dio irteera, honela herri xumea ere bereganatuz.

F) TRADIZIOZKO AFRIKATIK GAUR EGUNEKORA

Europarrak Afrikaren bihotzeraino iritsiz gero goitik beherea aldatuko zen kontinente honen etorkizuna. Afrikako gizartean, berau guztiz itxuraldatuko zuen prozesuari ekin zitzaion Aro Garaikidean.

* 1. Testuinguru garaikidea

1880ko urtean, afrikarren eskuetan zegoen kontinentearen % 80. 1885ean, ordea, Berlin-en egin zen konferentzian lurralde horiek europarren artean banatu ziren. Hurrengo 25 urteetan (1885--1910) presentzia horren aurkako afrikarren erresistentzi mugimenduak agertuko dira. Europarren teknologia militarrak (metraileta, kanoiak...) kontrako ahots horiek isil erazi egingo ditu. Aldi berean, gisa europarreko administrazio, ekonomi

Gizatasun afrikar berria

"Beltzak dantza egiten du. Eta beharrezkoa da dantza egiten jarraitzea. Baina kontua ez da errepika-moduan dantza egitea, eta bai Iraultzaren moduan dantza egitea. Gaur egun beltz izatearen kontzientzia hartzea, hainbat mendetako morrontza fisikotatik iratzartzea da, bai, hainbat mendetako kultur debaluazio eta adimen-anestesiatatik esnatzea.

Duintasunezko lana da, ezereztasunezko eta humiliaziozko fondo baten gainean egin beharrekoa; ez da nahikoa bizipen pintoresko eta exotikoen ebokazioetara itzultzea, edo jatortasun ezinezko eta alfer baten bila ibiltzea, Afrikari bere norberatasuna kenduta gero. Zibilizazio afrikarra ain-...

eta kultur egiturak ezarriko dituzte. Kolonialismo izenaz ezagutzen den fenomeno hau 1910-1935 bitartean finkatuta aurkituko da.

1885etik 1960ko hamarkadararte (80 urte) Europak munduari eta Afrikari bere nagusitasuna erakutsi eta ezarri zien. Historiak abiadura handia hartzen du garai honetan, eraldakuntzak handiak izan bait dira: industrializazioak eta merkatal harreman mundialen hedapenak, garraioak (automobilak, trenak, egazkinak...) eta komunikabideek (telegrafo, telefono, irrati, zine, telebista, sateliteak...) sortu duten herrien interdependentziak, bi mundu-gerrateek (1914-18; 1939-45) sortu duten ikara (bonba atomikoa), iraultza soziopolitikoek (Soviet Batasunean 1917an, Txinan 1949an, Kuban 1959an), askapen nazionalek (India 1947, Indonesia 1946-1950), Nasser-ek (Egypto 1952) bultzatutako panarabismoak eta Ipar Ameriketako "Black Power"ek eta beltzen eskubide zibilen aldeko mugimenduek izan duten eragina. Guzti hau izan behar da kontutan historia afrikar garaikidea aztertzean.

Afrikak, aipatu laurogei urte horietan kolonialismoaren eraginpean eraldakuntza sakonak ezagutu ditu. Hitz gutxitan esanda, tradiziozko gizartetik gizarte modernora dagoen aldaketa jasan du, baina aldaketa horren erritmoa eta neurria europarrek ezarri zituzten.

Honen aurrean, afrikarrak beren historian betidanik izan duten protagonismoa berreskuratzeko bidean sartu ziren. Bigarren Mundu-Gerratearen aurretik lurralde afrikar independenteak gutxi ziren: ia betidanik burujabe izan den Ethiopiaz aparte, Liberia (1847), Hego Afrika (1910) eta Egypto (1922).

...

tzatestea ez da hango kultur berezitasun nazionalen aurrean txunditurik gelditzea, ezta galdutako jatortasun batekin jostatzen aritzea ere. Norberaren kultura beraurkitzea ez da hori deskubritzea, hori erradikalizatzea baizik: Beltz bakoitzak dauka zer edo zer egin behar egoera aldatzeko eta zibilizazio berri bat sortzeko". (S. ADOTEVI, 1972)


MAPA: Hemen esaten direnak ikusteko, begira "Afrikaren konkista europarraren kontrako altxamenduak" mapa, aurreko orrialdeetan.

Afrikako hiri bat

"Hemen sarritan, bi gizarte izaten dira elkarren bizilagun, baina batabestearen berri ez dakitela: bata neokoloniala da eta europarrak biltzen ditu hiribide zabal, loratsu eta lur-sail handiko auzoetan;denbora kolonialetan baino askoz ugariagoak dira gaur europarrak; Afrika frankofonoan 'desaberrituak' deitzen direnak dira. Beste gizartea txabolazko hiri-bazterretan pilaturik bizi da. Badira noski interpretazioak: zuri txikiak afrikarren artean bizi direnak, eta beltz handiak europarren artean bizi direnak; baina oso arraroak dira oraindik egoera hauek". (Ph. DECRAENE, 1982)



DOGONdarren HERRISKA (Mali). Etxe guztiak berdinak dira, eta norberak egiten du berea: etxagintza hau, aberastasunaren adierazpide baino taldean txertatzeko modu bat da familiarentzat.



HIRI MODERNOA: NAIROBI. Kolonialismo-ondoko hiri handiek itxura mendebaldarra hartu dute, eta garai bateko dagon-dar haiekin ez dute zerikusirik apenas.

* 2. Deskolonizazioa

Baina aipatu Mundu-Gerrate horren ostean, berriro ere metropoli europarren aurkako erresistentzia agertuko da. Honela, 1955ean, **Bandung**eko konferentzia-n (Indonesia) deskolonizaziotik sortzen ari ziren Estatuak bildu zirenean, beren arteko elkartasuna adierazteaz gain, Mendebaldeko potentziei aurrea emango zion Hirugarren Mundua deritzanaren printzipioak ezarri ziren.

Konferentzia honen eragina nabarmena izan zen Afrikan, zeren eta independentziaren aldeko bideek babes internazionala aurkitu bait zuten. Bandung-eko konferentziaren antzera Estatu afrikar independenteek, 1958-60 bitartean, hiru konferentzia antolatu zituzten, Afrika afrikarrentzat erreibindikatuz.Garai horretan erreibindikazio politikoak bultzatuko dituzten lider politiko afrikarrak sortuko dira (M. Krumah Ghanan, Senghor Senegal-en, Kenyatta Kenyan, Nyerere Tanganikan, Seku Ture Ginean).

Europarrek autonomi entseiuak egiten dituzte, independentzi eskeari nola eutsiko; baina afrikarren ezinegonak bortxatuta, desordenu soziala, desobedientzia zibila edo gerrilen bidea nagusitzen dira.

Azkenik, eta batzutan kostu sozial handiarekin (Algeria, Mozanbike eta Angola-ko gerren kasuak), 48 Estatu berri sortzen dira Afrikan 1950-1980 urteetan (6, 1950eko hamarkadan; 33, 1960ko hamarkadan; 8, 1970eko hamarkadan eta 1, 1980an).

Estatu hauek garai bateko muga kolonialen arabera eratu dira, baina ideologo afrikarren ar-


tean ez da falta izan panafrikanismo baten asmorik. Egitasmo hau, 1963an sortzen den Afrikar Batasunerako Erakundean (OUA) gauzatuko da. Era berean, metropoliek ezarritako Estatu-mugak gaindituz, esparru ekonomiko zabalagoak sortuko dituzte. Honela, Ertafrikako Estatuen aduana-batasuna (U.D.A.C., 1964), lau Estatu biltzen dituena; Ekialdeko Afrikaren Elkartea (E.A.E., 1967), hiru Estatu elkartzen dituena, eta, azkenik, mendebaldean Afrikar Herrialdeen Elkarte Ekonomikoa (E.C.O.W.A.S., 1975), hamabost Estatu biltzen dituena.





AFRIKAREN AURPEGI EZBERDINAK. Afrikak berez zituen ezberdintasunen ondoan, kolonialismoak sortu dituenak daude orain. -Nexka gazteok **herero**-tarrak dira (Namibia): urrun geratzen dira mende honen hasieran (1904-1906) alemaniarrei halako gerra bortitza egin zien herriaren egunkarietako irudiak. Gaur egun 25.000 bat lagun dira herero-ak: XVIII. mendearen hasieran edo iritsi ziren Hego-Mendebaldeko Afrikara. Bantueraz mintzatzen dira. -Bestalde, **Boskiman** hauek ez dute, ikusten denez, Mendebaldeko kutsurik (Botswana): basoan zehar migratzen. Gaur egun, 55.000 lagun izan daitezke boskimanak. Aspaldi batean, berauetakoak izan ziren Afrikako bizilagun gehienak, eta superbizi izan direnetatik zaharrenetakoak dira: Goi-Paleolitoan, Saharatik Hego Afrikaraino jendeztatzen zuten kontinentea; gaur egun, Kalahari basamortuan bizi dira. Pigmeoekin batera, boskimanak dira kontinenteko azken ehiztari-biltzaileak. Khoisan familiako hizkuntza dute.

UNIBERTSITARIAK. Afrikak, Estatu zentralizatu neo-kolonialak eraikitzean, behar-beharrezkoak izan ditu mota guztietako teknikariak.Sortu izan diren Unibertsitateetan, edo USA, Soviet Batasuneko nahiz metropolietako ikastetxeetan bilatu izan dira gaitasun teknikoak. Beste arriskuen artean, kanpora joandako ikasleak aberrira ez itzultzea izan da bata, eta itzulitakoak, interes sozial orokorretik aparte, klase teknokrata berekoi batean ixtea bestea.



* 3. (Neo)kolonialismoez dauden eztabaidak

Eraikitzen ari den Afrika berri honen arazoak aztertzean, batetik **kolonialismoa**ren garaitik irauten dutenak eta bestetik gaur eguneko **neokolonialismoa**ren eraginez sortzen direnak aurkitzen ditugu. Beraz, lehenengo eta behin, historilarien artean eztabaidatzen dena kolonialismoa bera da: batzuek kolonialismoaren abantailak azpimarratuz eta beste batzuek, gaur egunerarte fenomeno horrek izan duen eragin kaltegarria nabarmenduz.

Lehen eritzia dutenak honako datu eta arrazoiak ematen dituzte. Afrika modernotasunaren ildoan europarrei esker sartu dela eta europarren presentzia onuragarria izan dela. Hau defendatzeko datu hauek aipatzen dituzte: aro kolonialean komunikabide-azpiegiturak (errepideak, trenbideak, telegrafo eta telefono), osasun eta hezkuntz zerbitzuak, administrazio-burokraziak, hiriak, produkzio-modu berriak, etab. sortu eta eraiki zirela.

Afrikak, bada, tradiziozko gizartetik mundu modernora dagoen saltoa urte gutxitan eman du eta eraldakuntza sakonak ezagutu ditu: trukezko ekonomiatik monetazko ekonomiara, tribu-barnean lan egitetik lan alokatura, herri-lurretatik jabetza pribatura, ahozko kulturatik idatzitakora (eskolak), ama-hizkuntzatik metropoliaren hizkuntzara, tradiziozko sineskizunetatik atzerritar pentsamoldeetara (kristautasunera, adibidez), herrixketatik hirietara, etab.

Honen ondorioz afrikarren eguneroko portaera aldatuz doa, bizitza materialean ezezik (jateko, jantzi, etxebizitza, etab.), pentsamoldeetan ere (hezkuntza, sinesmena eta hizkuntza, esate

baterako). Beraz, afrikarrek europarren moldeak berenganatzen dituzten heinean **akulturazio**-prozesuan sartzen dira, hau da, beren kultura propioa galdu egiten dute eta arrotza zaien kultura europarra jasotzen. Hona hemen, hortaz, Afrikak gaur egun duen kultur arazoa: identitate eta nortasun kulturala aurkitzearena.

Kultur arazo honez gain, kolonialismoaren kritikariek lehen aipatu ditugun eragin positiboak ere zalantzan ipintzen dituzte, zeren eta horiek (komunikabideak, zerbitzuak...) lehenengo eta behin europarren interesen onerako eginak bait ziren eta afrikarrek hortik jasotzen zuten onura azpiemaitza kasuala besterik ez zen. Exenpluren bat aipatzeko, Nigeria-n, 1930ean, 4.000 europarrentzat 12 ospitale bazeuden, 40 milioi nigeriarrentzat 52 baino ez ziren. Errepideak, trenbideak, etab. ez ziren egin Afrika barruko merkatalgoa sendotuko zuten lurraldeetan, periferian baino, hau da, produktu afrikarrak metropolira eramateko eginak izan ziren. Beraz, bide horiekin barne-Afrikako merkatalgoa ia hondatuta gelditu zen.

Bestalde, europarrek sartu zuten merkatal nekazaritza (kakao, kafe, tabako, kakahuete, eta abarren monokultiboak), esportaziorako pentsatuta zegoen. Beraz, nekazaritza banandua alde batera utziz barne-kontsumorako behar ziren elikagaien produkzioaz arduragabetu eta zabartu egin zen. Honela, elikapen desegokiaren, izurritearen, gosearen eta kanpoko elikagaien dependentziaren oinarriak ezarri ziren.

Honez gain, hazkunde ekonomikoaren eta autonomiaren sustraia den industrializaziorik ez zuten europarrek bultzatu. Afrikak duen metal-aberastasuna mehatz-industriak hurrupatu du. Lehengaiak Europara esportatzen ziren, eta hauekin lan-

Altxamendu militarrak

Ondoko Estatu hauetan izan dira, azken urte hauetan, altxamendu militarrak. Afrika independentearen armadek zeresan handia izan dute bizitza politikoan. Zerrenda hau 1978-rainokoa da bakarrik.

Nigeria	*Txad*
Ethiopia	*Burundi*
Zaire	*Somalia*
Sudan	*Benin*
Uganda	*Sierra Leona*
Ghana	*Togo*
Madagaskar	*Ertafrika*
Volta Garaia	*Mauritania*
Mali	*Kongo*
Niger	*Komoreak*
Rwanda	

Hainbeste kolpe militarrek ongi adierazten du Afrikako Estatu gazte batzuek jasaten duten ezegonkortasun politiko instituzionala.



AFRIKA. Kolonialismoak aurpegi ezezagun bat utzi dio kontinenteari, ondaretzat Estatu eta muga berriak ezartzean.

dutako produktu manufakturatuak Afrikara itzultzen. Beraz, Afrikako egitura ekonomikoa produktu europarren kontsumorako merkatu bihurtzen da. Afrika independenteak, bada, burujabetasun ahula du, era askotako menpekotasunak ageri bait ditu (finantzarioa, teknologikoa, kulturala, politikoa) ageri bait ditu. Gaur eguneko **neokolonialismoa**ren sustraiak, bada, ondo ezarririk daude.

Afrikaren barne-egoera aztertzean ezin ditugu arazo politikoak ahaztzi. Eraikitako Estatuek ia ez dute inongo kohesiorik eta ez dute afrikarren historiarik errespetatzen. Hau da, Estatu berrien mugak metropoli europarrek ezarritakoak dira, eta muga horien barnean era askotako etniak sartzen dira, eta, zer esanik ez, etnia batzuk Estatu ezberdinetan sakabanatuta aurkitzen dira. Honen ondorioz, Estatuen arteko muga-arazoak eta sezesio gerrak sortu dira: Biafrako gerra Nigerian (1967-70), Katanga-ko gerra Kongon (1960--1969; 1977-78); Eritreakoa Ethiopian (196letik gaur egunerarte).

NIGERIA: HANDIA, BAINA AHULA

"1970etik 1979ra trabaz betetako eboluzioa izan zuen Nigeria-ko errepublikak. Itxaropen handiak sortu zituen independentzia irabaztean, 1960ko urriaren 1ean, bazirudien abantaila asko ere asko pilatzen zituela eta. Benaz, hango populazioaren kopuruak, haren lurraldearen hedadurak eta dezenteko aberastasun potentzialen existentziak, ekonomiazko potentzia bat izateko lain bihurtzen zuten. Britania kolonizatzaile zaharrak ahaleginak egin zituen han gobernu konstituzional eta liberal baten oinarriak sendo ezartzen; eta bazirudien kalitatezko elite baten presentziak garantizatzen zuela hori. Gero, 1966an, ilundu egin ziren itxaropen guztiak. Multzo geografiko eta gizakizko horren mantentzea eztabaidan jarri zuten Biafra-ko sezesio ahaleginek, lau urteko gerra zibil ezingogorrago baten buruan menperatua izan zenak. Lurralde hau, Afrika beltzean estabilitate-eredutzat hartzeko modukoa zela uste zena, Estatu-kolpeek astindu zuten batak bestearen ondoren, eta horrela militar-ekipoak igo ziren agintera.

Ekonomi mailan ere berdin hutsaldu ziren itxaropenak, ba gerrate zibilak eta gainerako barne-zailtasunek ez zuten utzi aberastasun potentzialak behar bezala ustiatzen. Hala ere, independentetu eta handik hemeretzi urte geroago, badirudi itxura oneko zantzuak ageri direla berriro, eta uste izatekoa da Nigeriako errepublikak hartu duen bideak ahaltsu-posizio batera eramango duela Afrika Beltzean".

(D.G. LAVROFF)

Bestalde, alderdi politikoen tradiziorik ez bait da izan, eta aro kolonialeko egitura finkoenak armada eta burokrazia izan direnez, demokraziaren ezaugarria den txanda politikoaren ordez estatu-kolpeak dira nagusi. Hegemonia politikoa ez dago hauteskundeetan buruzagia aupatu duen etnia eta armadarengan baizik.

Laburbilduz: Ohizko nekazal gizartetik hiri-gizarte industrialera dagoen iraganbidea Europan bi mendetan zehar gertatu bada, Afrikan azken hamarkadetan ari da gertatzen. Prozesu honen abiadurak, gizarte afrikarrean gatazkak eta bortxa sortu ditu. Afrikarra, eredu desberdinen artean aukera egin ezinik aurkitzen da, batetik lortuezinezko aurrerapen europarraren eredua (kapitalismoa, sozialismoa) eta bestetik Afrikan bertan sustraitutako ereduak. Dena den, entseiuak eta ereduen arteko nahasteak anitz izan arren, mundu interrelazionatu honetan, tresna eta erabaki guztien jabe ez direnez, porrotak arrakastak baino maizago agertzen dira. Baina, errealitate gordinetik sortzen den ezin-giroari aldatzeko borondate kementsua kontrajarriz, hortxe dute afrikarrek orainaldiaren herronka eta etorkizunaren itxaropena.

BAGOAZ EZAGUTUZ, AFRIKAREN HISTORIA

"Afrikaren iraganaldira itzultzeak, era guztietako arazoak planteatzen dizkie historialariei; horietako asko inoiz aztertu gabeak dira ia. Historia hau idatziko bada, ahalegin izugarria dago egin beharra, hori estaltzen eta itxuraldatzen duten errepresentazio mentalak eta aurreritziak alde batera kentzen; bai, metodologiazko ahalegin handiak eta gogoeta teoriko eta tematiko sakonak dago egin beharra.

Hegel-en ondotik, historiagabeko lurralde bezala definitu izan da Afrika. Baina gaur, hortxe ari da Afrikaren iragana kanporatzen, europar askok eduki duen isiltasun eta mespretxuzko lekutik ateraz. Poliki-poliki hauts bihurtzen ari dira atzoko 'ziurtasunak'. Oraindik orain arte uste zenez, bantu-hitzegileek ez omen zuten Hego Afrika XVI. mendea baino lehen okupatu: justu-justu, hauxe ba kointzidentzia, portugaldarrak Cape Town-era iritsi ziren une hartantxe izango zuketen gainditua Linpopo. Baina arkeologiak zeharo birrindu du 'egia ofizial' hauskor hau". *(J. DEVISSE)*

7
EUROPA, MUNDUAREN ONDARE?

URTEAK	GERTAKARIAK
	JAPONIA
1543	Portugaldarrak Japonian
1568-1600	Baterakuntza nazionala
1587-1638	Kristauen pertsegizioak
1853-1867	Mendebaldarrekin akordioak
1868-1912	Aro Meijia
1889-1890	Konstituzioa. Kode berriak
1904-1905	Gerrate erruso-japoniarra
1937-1945	Inperio japoniarra Ekialdean
1955-1975	Indarberritze ekonomikoa
	AUSTRALIA
1642-1643	Holandarrak: Tasman-en bidaia (Tasmania)
1768-1771	Cook mendebal Australian
1788	Lehenengo preso-taldea
1793	Lehenengo kolonu libreak
1795	Ardi-aziendaren hazkuntz hasiera
1809-1900	Inmigrazio-, ekonomi eta erakunde garapena
1850-1855	Lehenengo trenbidea
1851	Urre-meatzak
1888	Australia "Zuria"ren politika
1901	Batasuna: Commonwealth of Australia
	ESTATU ISLAMIKOAK
1830-1847	Algeriaren konkista frantsesa
1859-1869	Suez-eko Kanalea (Egypto)
1881	Tunisiaren konkista frantsesa
1882	Egypto: Ingelesen protektoratua
1922	Egyptoren independentzia
1923-1924	Kemal Ataturk, Turkian: Errepublika
1945	Liga Arabiarra
1948	Israel-eko Estatua
1956	Suez-eko krisia. Marokko eta Tunisia, independente
1962	Algeriaren independentzia
1967	Gerra arabe-israeldarra
1979	Iraultza Iran-en: Jomeini

I. HERRIALDE EUROPARTUAK: BI EREDU




AUSTRALIA. Erdikontinente honek oraindik ere lurralde hutsak ditu. Bere 7.700.000 km^2-tan 15.000.000 bizilagun bakarrik ditu, alde batetik, eta bestetik basamortu handiak ere bai; hemen ikus daitekeen hau, adibidez, Australiaren bihotz-bihotzean dago (Alice S.).

Europak eta, geroxeago, Ipar Amerikak beren bizimodu, balore eta era askotako kontzeptuak mundu osora zabaldu dituzte: azkenean, Mendebaldeko herrialde baten ideia osatzen duen oro.

Europartze-prozesu honek, mendebalduta ez dauden herrialde horien artean hedatu denean, ez du eredu jakin bakarra ezarri; aitzitik, era eta modu asko erabili ditu horretarako.

Askotan, europartzea herri garatu eta desgaratuen arteko harremanetan oinarrituta dago, era askotako zapalkuntzak ekarriz, ekonomiko eta politikoak nahiz sozialak. Inoiz, populazio-kolonia besterik ez dira, hau da, jendez urriak ziren herrialde eta kontinenteak asimilatze-prozesu batetan sartzera zuzenduak. Kasu honetan kolonizazio demografikoaz ari gara.

Europartze-prozesu honen konplexutasuna azaltzeko bi adibide eredu aukeratu ditugu, biak joan den mendetik hona garatuak: Japonia eta Australia. Europatik oso urrutikoak biak. Baina bietatik bata sakonki europartua, eta bestea funtsean europarra ere.



KYOTO. Kyoto-ko hiriaren plano hau (K.o. 781-794) Japonia hiritartuaren sinboloa da. Europarrek, XVI. mendean, nazio egin bat aurkitu zuten han. Heian-kyo ("bakearen hiriburua") zuen izena Kyoto-k, eraiki zutenean: 314.000 langilek parte hartu zuen aldez aurretik diseinatutako eraikuntzan, eta Enperadorearen erabakiz jaso zen hiria, aintzinako laku baten tokian.

JAPONIA, hainbat irlatan banatutako Estatua da: japonieraz "Nippon" edo "Nihon" deitzen zaio. Ez da km^2-tan handia: 370.000 km^2. Baina biztanleak 119.000.000. Siberiatik hurbil, itsasoak biguntzen du Japoniako klima Hilabete hotz-beroenak alde handiak dituzte: Tokyo-k 4,4° urtarrilean, 26,3° uztailean.Lurra oso malkartsua da: lurraldearen hiru laurdenek % 15eko pendiza dute, eta ez dago ia lautada laboragarririk. Horregatik ere bizilagunak guztiz ezberdinki banatuta daude geografian, mapan ikus daitekeenez.



A) JAPONIA

Ekialde Urrunean, Japoniak interes bizia sortu zuen europarrengan, hauek XVI. mendean irla haiekin harremanetan jarri zirenetik. Japonia, kulturaz eta gizarte-eraketaz, erresuma garatu eta egin bat bezala agertu zitzaien Europako nabigari, merkatari eta misiolariei: Herrialde interesgarria, historia aberatsekoa.

* 1. Japonia feudala

Europarrekiko harremanak, XVI. mendearen erdialdetik aurrera hasten dira (1542), Portugal eta Espainiatik merkatari eta misiolari batzuk "Cypango" deituriko irlara edo iritsi zirenean.

Biztanleria (900-1900)

"Askoz ere gutxiago ezagutzen da Japoniako biztanleriaren historia, nahiz eta herrialde honek VII. mendetik hona txinarren moduko administrazioa eta zentsuak izan. 800. urte inguruan 6-8 bat milioi biztanle izango ziren arkipelagoan. Gero herrialdeak geraldi luze bat izango zuen, ba japoniarrak apenas ziren 10 milioitik gora 1500ean. Data honetatik bizkortu egiten da hazkundea: 20 milioi XVII. mende-erdialdera, 30 milioi baino gehiago 1720an. Beste goraldi berri baten ondoren, berriro hasten da goraka, eta bizkor, XIX. mende-erditik aurrera".


1549an San Frantzisko Xabier lehorreratu zen lurralde haietan; 1585ean Aita Santuak jesuitei eman zien hango ardura, eta domingotar eta frantziskotarrak laster iritsi ziren. Hauen artean, 1593an, Igokundeko San Martin euskaldun frantziskotarra eta honen lagunak. Hiru urte geroago Pedro Martinez jesuita izan zen Japoniako lehenengo apezpiku.

Hasieran kristautasuna onartua izan arren gurutzifikapen ugari izan ziren 1597tik aurrera, eta XVII. mendearen lehenengo urteetan, berriz, gogortuz joan ziren kristatutasunaren aurkako pertsegizioak, erlijio hau bait zen Europatik etorritako jende berrien sinboloa.

1624ean europarren aurkako neurriak gorengo puntura iritsi ziren, atzerritar guztientzat sartzeko debekua ematean. Baina Japoniako agintariek kanpotarren aurkakoa ezezik, barne-errepresio gogorra ere sustatu zuten, daimyo kristauen altxamenduak erreprimituz, esate baterako.

XVIII. mendean Mendebaldetik isolaturik dago Japonia, lehenago, kristauak hara iritsi aurretik, gertatu zen bazalaxe. Izan ere, mende honetan, jazarpenetatik ihes egindako merkatariren bat edo bestez aparte, oso berri gutxi ditugu europarrei buruz.

Joan den mendearen lehenengo erdialdean, Europarekiko isolamendu-jarrera hura aldatzen hasten da, zenbait klanetako buruzagiek teknika eta arte mendebaldarra onartzean; merkatal harremanak sendotuz joan ziren. 1825eko urtetik aurrera Mendebaldekoen hedakuntza, hemengo potentziek babestutakoa batipat, indartu egin zen, Japoniari merkatal neurriak (beti ere Europarentzat oso mesede-



HIME-JI GAZTELUA (XVI. mend.). Eraikuntza hau aipatu ohi da Japoniako gaztelurik osatuena eta ederrena bezala: gizarte jaso eta garatu baten frui tua.

Japonia, itxita

"Edo-ko (gaurko Tokio-ko) gobernuaren erabaki handia izan zen, 1639an, atzerritarrei Japoniako sarrera ixtea. Handik hara, aurretiaz baimendutako ontziak bakarrik sartu ziren Txinatik eta Holandatik, eta hauek ere ez zeukaten inportatzerik, munizioak, armak, lenteak eta tabakoa besterik. Gainerakoa bere baliabidez zeukan Japoniak lortu beharra. Bai itsasontzi atzerritarrentzat eta bai japoniarrentzat zen debekua. Gainera berauekin hasi zen (1633). Nola esplika daiteke erabaki ondoriotsu hau?

Antza, Japoniako nagusiek beldurra hartu zieten mendebaldarrei. Portugaldarrak izan ziren Japoniara, Kiu-Siu-ra, lehenengo iritsi zirenak,1543-an. Irletako jendeak izuturik gelditu ziren kainoi, alkabuz eta itsasontzi izugarriekin. Areago oraindik,heldu berriek, etorrita berehala, kristauta-...

...

sunarentzat lortu zuten konbertsio-kopurua handia izan zen; erlijio berri honek sustatu edo egingo zituen handikien eta nekazarien erreboltak; 1638an gertatu bide zen bezala. (...)


Azkenik, bistakoa da, mugiezinduta uztea zela bilatzen zena; bai, mugiezinduta mugitzen hasteko prest zegoen gizartea eta askatasunaren irrikitan, eta ia beti etsipenak jota, zegoen nekazari-jendea. Eta kanpoko eraginari atea itxiz, benetan lortu zen nahi zena, hau da, erakundeak 'fosildurik' uztea; eta horiek mugitzeke jarraituko zuten, harik eta 1853an, Perry almirantearen 'barku beltzak' heldu ziren arte". (F. BRAUDEL)

garriak) ezarriz: Ontzi hondoratuei lagundu behar zien Japoniak, errekin-biltegiak ere eduki behar zituen itsas portuetan; merkatariei eta misiolariei askatasun osoa emango zitzaien beren iharduerak buru zitzaten.

1853ko urteak markatzen digu muga Europarekiko harreman berri hauetan. Urte hartan Perry komodoroak, Ipar Amerikarekin sinaturiko tratatu bat zela medio, Mendebaldeko potentzien merkatarientzat portuak irekitzea inposatu zion Japoniari. Umiliazio bat bezala sentitu zuen Japoniak ezarpen hau, eta kanpotarren aurkako gorroto-kanpainak piztu ziren berriro. Gerra lehertu zen, baina ez Japonian bertan ondoriorik gabe: antolakuntza feudala ahuldu egin zen.

Sasoi hartan betaro feudalismoan bizi zen Ekialde urruneko herri hura. 1603ko urteaz geroztik, Tokugawa-tarrek botere osoa kontrolatu ahal izan zuten Xogun izeneko gobernadore militar baten bitartez eta enperadorearen botereak baztertuz. Edozein antolakuntza feudaletan gertatu ohi den bezala, lurjabe handiak ziren nagusi, daimyoak alegia, lur laboragarrietako % 75arekin. Daimyoen azpian samuraiak (gerlari nekazariak) eta klase ekoizleak zeuden (nekazari, merkatari eta industriariak). Zerga-ordainketa espezietan egiten zen, uztaren % 40 eta % 50erainokoa.

Aro Meijian sartu aurretik (1868), Tokugawa-tarren azken urteetan zenbait aldaketa gertatu zen, hala nola laborantza berriak eta teknika-alorreko hobenkuntzak.



HORYU-JI PAGODA (VII. mend.. Nara). Bost solairu ditu, eta azken orratzeraino 31,56 m altueran. Erdiko zutoina, eraikinaren egiturari gehiegi lotu gabe utzi zen, lurrikaretan malgutasunik izan zezan.

* 2. Iraultza Meijia: mendebaltzen

Japoniako egitura feudala, XIX. mendearen bigarren erdialdera arte bizirik iraun zuena, ondo aztertu zuen Mutel-ek. Honek lau ezaugarri azpimarratzen ditu garai hartako Japonian:

- Izaera Irlatarra.
- Nekazal ekonomia intentsiboa.
- Monarkia inperial zentralizatua.
- Feudalismo deszentralizatua.

1868tik 1881era bitartean erreforma sakonak burutu ziren Japonian, hiru alorretan batipat:

a) Erakunde eta politika-alorreko aldakuntzak

Oso nabaria izan zen alor honetan Japoniaren mendebaltzea. Europako eredu eta esperientziak jasoz eta Japonian ezarri berri zen Estatu zentralizatuaren bitartez, ministraritza berriak, departamentuak, probintziak eta banaketa administratibo berriak sortu ziren.

Bestalde, desagertu egin ziren pribilegio feudalak, batez ere samuraiek mantendu nahi zituztenak eta Japoniako Estatu zentralizatu horren aurka zihoazenak. Bide horretatik lortu zen armada feudal guztien batuketa eta derrigorrezko soldaduzka.



MEIJI-TENO (MUTSUHITO: 1852. 1867-1912). Enperadore honek sustatu eta gidatu zuen Japoniaren modernizazioa, batasun politikoa lortuz eta aldakuntza sozio-politikoak bultzatuz. Konstituzio bat eman zion Estatuari (1889) eta parlamentuaren eginkizun politikoa leialki errespetatu zuen. Japoniaren botere militarrak goraldi izugarria ezagutu zuen.

JANARIAK

"Japonia da munduko arrain-jalerik handiena (36 kg urte eta biztanleko, Frantzian 17). Horra zergatik den haien janaria proteina nobletan aberatsagoa. Bestalde, azkeneko hamar urteotan mendebaldeko mantenu-idealak jarraitzen ditu. Hiri-inguruetan, betidaniko txerri- eta hegazti-hazkuntzaz gainera, esnebehien eta haragi-behien ganadutegiak ikusten dira". *(M. CARTIER; C. MEUWESE)*

Mundura irekitzear

Mendebaldea, Perry komodoroaren eskoadra amerikarraren bidez, ate joka agertu zenean (1853), hazkundealdi ekonomiko luze bat dauka Japoniak bere atzetik eta dinamismo handi bat ere bai bere baitan. Bi mende eta gehiagoan Tokugawa-k itxitasun-politika eraman izan arren, Japonia ez zen isolaturik bizi.

Itxitasunaren arrazoirik nagusiena, herrialdea kristautasunaren kutsapenetik zaintzea zen eta harreman komertzialak, XVII. mendean diru-hemorragia larri batek jotakoak, mugatzea. Nagasaki-ko portua benetan kanpo-mundura zabaldutako portua zen eta itsasontzi atzerritar ugari ikusten zen han (txinar eta holandarrak). Merkataritza zela medio, ideia eta teknika berriak sartzen ziren handik. Jakintsu-eskola biziro egikor batek itzultzen zituen holandarrek eramandako zientzi eta medikuntz liburuak. Bestalde, edozein erbesteko konkurrentziatatik babesturik, ekonomi hedapen handisko bat ezagutu zuen herrialdeak, hirien handitzea, merkatal ekonomiaren aurrerapena eta kapitalismo industrialaren hastapena sustatuz. Geldiune demografikoak nekazaritzako aurrerapenekin batera, berriz, nolabaiteko kapital-metaketa bat egiteko bidea eman zuen. Modernotzeko prest zegoen herria zen, beraz, 1868an ateak zabaltzen zituena".

(M. CARTIER; C. MEUWESE)

b) Aldakuntza ekonomikoak

Mendebaldeko ekonomia kapitalistaren bidea imitatuz garapen ekonomikoa lortzea izan zen Japoniako gobernuaren helbururik aipagarriena. Gainera, xede horrek Europarekiko harremanak sendotzen zituen.

Ekonomiaren aldetik, Japoniaren mendebaltze-prozesuak badu berezitasunik franko (Estatuak jokatu zuen funtzioaz ari gara batipat), zeren bankak, enpresa handiak, mehatz-ustiapenak, ontzigindegiak, trenbidegintzak eta abarretako iharduera ekonomikoak burutzean modernizazio japoniarraren bultzatzaile bihurtu zen Estatua, ia bultzatzaile bakarra. Honetaz gain, Estatuak jauntxo feudal anitz konbentzitu zuen, ekimen pribatuak bultza zitzan.

Aurreko faktoreei laneskuaren merketasun eta ugaritasuna gehitu behar zaizkie, eta produktu japoniarrak kanpoko merkatuetan oso erraz saltzea, aurrerapen tekniko nabari bat, makineria modernoa sartzea, irakaskuntza teknikoaren ezarpena eta Europako edozein motatako aurrerapenak zabaltzeko iritsi ziren teknikariak.

Alor ekonomiko honen barnean, nekazal erreforma aipatu behar da. Honekin lur-banaketa egin nahi zen, baina nekazari askok, lur-jabetasuna ez lortzean, zerga altuak ordaintzen jarraitu zuen. Erreforma honek, lur-banaketan porrot egin bazuen ere, kapital-metaketa, industrian inbertituko zena, ekarri zuen berarekin, Ingalaterran XVIII. mendearen azken herenean gertatu zen bezala. Kapitalak pilatuz eta Estatuaren laguntzaz industriaztapen-oinarriak ipini ziren. "Zaibatsu" izeneko trust-ek sortutako lehenengo monopolio ekonomikoak azaldu ziren.

Laburpen gisa aipa ditzagun gobernu Meijiaren helburu ekonomikoak (1868tik aurrera):

- Industria astuna, meategi eta eraikuntzak.
- Gerra-industria.
- Garraio eta komunikabideak.
- Ehungintza.
- Hokkaido-ren kolonizazioa, Errusiaren eragina saihesteko.

c) Erreforma sozial eta juridikoak

Lehen aipatutako pribilegio feudalen desagerpenaz aparte, kode zibil eta penalak, Frantziako ereduan oinarrituak, arautu zuten gizarte japoniarra. Xenofobiazko joerak gainditu ezezik, harreman kulturalak ere sendotu egin ziren Europarekin. Europako modak Japoniako zenbait ohitura eta tradizio aldatu zuen: 1873an egutegi berria, gregoriotarra, ezarri zen; estetikari berari eta arteari buruzko kontzeptua ere Mendebaldeko erara egokitu ziren.

1881etik 1912ra bitartean, aldi berri bat hasten da, eta bertan Meiji-aroak ezarritako oinarriak sendotzen dira. Bitarte honetan hiru izan daitezke Japoniako bilakaeraren lerro nagusiak:

- Antolamendu politiko berria.
- Ekonomi hazkuntza.
- Kanpo-hedakuntza.

Kristautasuna Japonian

"1630erarte, 4.045etaraino igo zen beren sinesmenarengatik hildakoen kopurua. Azken gorakada Shimbara-ko altxamendukoan, 1637-38an, eman zuen pertsegizioak: 30.000 kristau hil zituzten bertan. Japonia gero eta gehiago itxi zen kanpo-munduarentzat, Espainia/Manila-rekiko harremanak 1624ean hautsi ziren, Portugalekikoak 1639an. Holandarrek bakarrik, eta haiek ere nahiko baldintza desohorezkotan, jarraitu ahal izan zuten komertzio apal bat 1854erarte Deshima-ko irlan. Horretarakoxe lagundu zuten Shimabara-ko matxinada ito-tzen. Handik aurrera katakunba-bizitza eramatea beste erremediorik ez zuten izan kristauek Japonian, baina XIX. menderarte iraun ahal izan zuen kristautasunak bizirik".

(J. GLAZIK)

HIRIEN HAZKUNTZA eta UGALPENA

Biztanleak Urteak	1888	1898	1908
-30.000 biztanlekoak	70.272 hiri	13.794 hiri	12.084 hiri
-50.000 biztanlekoak	110 hiri	213 hiri	344 hiri
-100.000 biztanlekoak	8 hiri	12 hiri	19 hiri
+100.000 biztanlekoak	6 hiri	8 hiri	10 hiri

d) Aldakuntza politikoak

1881eko urteaz geroztik, enperadoreak parlamentu berria promestu zuenean, liberal eta konstituzionaltzat jo zen egitura politikoa, oligarkiak kontrolatzen jarraitu bazuen ere. Ito konteak Europatik ekarri zituen konstituzio-ereduak, eta, Prusiakoa imitatuz, 1889ko otsailaren 11n Konstituzio Japoniarra aldarrikatu zen, zeinak bi ganbara eta alderdi politikoak ezarri zituen, aginte exekutiboa Enperadorearen eta honen ministrarien eskuetan utziz. Japoniako oligarkia, modernizazio-prozesu politiko honetan parte hartzeaz aparte, teknokratizatuz eta mendebaldetuz joan zen. Alderdi politikoak, geroz eta boteretsuagoak, burgesiaren ordezkari bilakatu ziren.

1912az gero, Meiji enperadorea hil zen urtetik aurrera, hazkunde ekonomikoa eta armadaren protagonismoa hasiko dira, ondorengo puntuan aztertuko dugun bezala.

Amaitzeko sailka ditzagun, Meiji-aroan izandako aldakuntza-prozesuaren lorpenak:

- Politikan: Enperadorea, monarkia absolutu baten tresna.
- Gizartean: Egitura feudala desagertu egiten da, mendebaltzearen ondorioz.
- Armadan: Derrigorrezko soldaduzka, samuraien ohizko boterea ezereztuz.
- Ekonomian: Trust-ak, Mitsui eta Mitsubishi bezalako enpresak, adibidez.
- Demografian: Populazioak gora egin zuen. 1853an 21 milioi biztanletatik 1914ean 53 milioitaraino.

Iraultza Meijia (1868)

"Meiji-a goitik beherako iraultza da, 'Herrialdea aberastu eta armada indartu' slogan txinarrean inspiratutako iraultza,eta Mendebaldeko aditu ugarien laguntzarekin Japonia erakunde modernoz hornitzea xedetzat duena. Erakundeen mailan, hainbat erreformak eraberritu zuen gizartea: sistema feudalaren ezabatzeak (1869), irakaskuntza orokorrak (1871), eta obligaziozko soldaduzka ezartzeak (1873). Ekonomi aldetik, Estatuak finantzatutako garapen-politika azkar batek ezartzen ditu industrializazioaren oinarriak. Ikusgarriak dira ondorioak,bai ehungitzari dagokionez --zeta gordina eta kotoi-hariak--,eta bai industria astunari dagokionetan. Ikatzaren produkzioa 600.000 tonatatik (1875) 13 milioi tonatara igotzen da denbora gutxian (1905)".


(J. DUPÂQUIER)

* 3. Hedakuntza koloniala

Japoniak egin beharra zeukan hedakuntza koloniala, ba bestela banatua izango zen eta beharbada gainerako potentzien kolonia huts bihurtua, Txina eta Indiako kasuetan gertatu zen bezala.

Inperialismo japoniarrak, Europak egindakoaren bidea jarraitu nahi bazuen ere, baditu aparteko bereiztasunak. Puntuotan labur genitzake:

- Irla izateak hauskor egiten du Japonia. Inguramendu arriskugarri hori gainditzeko, populazio-koloniak fundatzen dira kontinentean (Korean eta Mantxurian, adibidez).
- Lehengai eta merkaturik eza.
- Harrotasun nazionala.



JAPONIA: HEDAPENA (1860-1939)

Irekiera:

- Japonia. irekiera unean (1853) Irekitako portuak
- 1875-1890etan kokaleku japoniarrak

Gerra sino-japoniarra

- Simonoseki-n (1895) Japoniari emanak
- Japoniaren eragin-barrutia, Txinan (1914)

Gerra erruso-japoniarra


- Portsmouth-en (1905) Japoniari emana
- Koreako babes-ardura (1910ean kolonia)
- Japonia eta Errusiaren artean eztabaidatutako trenbideak
- 1914-22etan hartutako lurraldeak

Gerra sino-japoniarra

- Mantxukuo, Estatu basailua (1932)
- Jehol: Mantxukuo-ri erantsia
- Armada japoniarrak hartua (1937-1939)

Estatu isolatu bakartia izatetik, hamarkada gutxitan Inperio oso bat egitera pasa zen Japonia, Ekialde Urruneko potentzia hegemoniko bilakatuz. Harez gero, 1945eko porrotaren ondoren ere, bere lehenengotasun hura berreskutaratu egin du Japoniak.

GERRATE SINO-JAPONIARRA (1894--1895) Gerrako irudi herritar honetan ofizial japoniar moderno bat hainbat soldadu txinarrekin borrokatzen ageri da. Begira japoniarraren janzkera europarra. Orduan ikusi zen modernizazioaren balioa.



Hedatu behar horiek xaxatu zuen Japoniaren inperialismoa, bere isolamendu historiko zaharretik irten eta inguruko herriei erasoz.


a) Gerrate sino-japoniarra (1894-1895)

Japonia garaile atera zen, eta, Simonoseki-ko tratatuaren bitartez (1895), Korea-ren buru-jabetasuna eta honen japoniartzea, "Pescadores" izeneko irlatxoa, Taiwan, Liaotung-eko Penintsula eta kalte-ordainak lortu zituen. Baina hedakuntza hau Europako potentziek (Alemania, Errusia eta Frantziak) mugatu zioten Japoniari.

Baina gerra hura bukatzean, han zeuden beste baterako gatazka-guneak: Port Arthur, Itsas Horirako Errusiaren irteera izan zena, Japoniaren probetxutan galdu zuen hark, momentuz. Hala ere, egoera arazotsu honen aurrean burua makurtu zuen, azkenik, Japoniak. Europak makur erazi zuen horretara; ez, ordea, luzarorako.

"Zaibatsu"ak

"Modernizazioaldi autoritario baten ondoren, norabide liberalagoa hartzeko moduan dago erregimena. 1889an bere etorburua Prusian duen Konstituzio bat eman zen, Enperadoreari eskumen garrantzitsuak bermatu ondoren, klase zentsari bati ere botu-eskubidea ematen diona, eta Dietaren ahalmenak definitzen dituena. Ekonomi alorrean, industriarik nagusienak kontsortzioei laga zitzaizkien --'zaibatsu' edo finantz elkarte famatuei; berauek daude industri inperio handien sorburuan: hala nola, Mitsu, Mitsubishi eta Sumitomo bezalakoetan". (J.DUPAQUIER)



MUKDEN (1905). Kuropatkin jeneral errusiarrak eta Oyama japoniarrak eman zuten gudu hau Mukden hiriaren aurrean: 90.000 gizon galdu zituen Kuropatkin-ek,eta Korea eta Mantxuria japoniarren eskuetan utzi. Gerratearen lehen partea lehorreko hau izan zen; bigarrena eta azkena, Tsuxim-ekoa izan zen, itsasoan, Baltikotik etorritako itsas armada hondora joatean.

b) Gerrate erruso-japoniarra (1904-1905)


Aurreko lerroetan esan duguna kontutan harturik, Errusia eta Japoniaren arteko gerra bistakoa zen. Japonia atera zen garaile: Lüshun/Port Arthur berreskuratzeaz aparte, Mantxuriako kostaldea, Sajalineko hegoaldea eta Koreako babes-ardura eskuratu ahal izan zituen.

*** 4. Japonia, mundu-potentzia**

Barneari begira, talde oligarkiko, finantzari eta militarrek kontrolatzen zituzten ekonomia eta politika, aldiberean: hedatu-grina bizirik dago, armadaren eraginak bultzatuta batipat. Honela, sistema sasi-liberal batetik agintekeriazko sistema batera igarotzen da Japonia.

Kanpo-politikari begira Britainia Haundiarekiko harremanak estutzen diren bitartean, Alemaniari gerra deklaratzen zaio. Japonia mundu-potentzia bihurtzen da (1912-1937), batez ere ekialdeko lurralde kolonialez arduratu zenetik. 30eko hamarkadan Ekialde osoan nagusitzen da Japo-

ONTZIGINTZA (1970 1978). Japoniako ontzigintzak goraldi ikusgarria izan zuen petroliontzi handien premia etorri zenean (Suez-eko krisiaren ondoren),baina petrolioaren krisiak ere zuzenean ukituko du ontzigintza hura eta langileak beste produkzio-barruti batzutara pasatu behar izan dira.





LANGILEA ETA ENPRESA. Japoniako gizartean, langilearen eta enpresaren arteko harremanek atxekimendu-zentzu hertsi bat lortu dute: enpresaren aurreramendua norbanakoaren arra kasta da. Horren arabera, gogoz hartzen dira enpresaren borondate eta planak.

Mendebalduta?

"Ez dago dudarik, eragin handia izan dutela Japoniaren pentsakeran, azkeneko laurogeitamar urteotan izan duen irekierak eta jasan dituen aldaketa sozialek. Gure garaiko gazteria japoniarra sentikorragoa da Mozart-en musikarentzat Japoniako musika klasikoarentzat baino. Berebat, interes handiagoa erakusten du André Gide edo Romain Rolland-en nobelentzako, Japoniako nobelagile handientzako baino. Eta azkenik, begikoago du Marx-en materialismo historikoa, panteismo budista baino. Zailtasunak zailtasun, unibertsitateko estudianteek asimilatu beharrak dauzkate Aristotele, Hegel, Marx, Heidegger eta Mendebaldeko beste filosofo-anda-...

nia, aurreko hamarkadetako hegemoniak aldatuz eta, ondorioz, oreka berri baten premia ezarriz. Izan ere, Japoniak Asiako ordenamendu berria burutzerakoan nazioarteko harremanak eraldatzen ditu, Ardatz-eko potentzien laguntza eta adiskidetasuna erakarriz.

* 5. Mendebaldearekiko konpromezua


II. Mundu-Gerratea eta beronen konplexutasuna alde batera utzirik, azter dezagun gerra-ondoko garaia, susperraldi ekonomikoak eta europartze-prozesuak markaturik dagoena.

1950etik 1955era bitartean, honako zutabeok dira hazkunde ekonomiko japoniarraren oinarri:

- Laneskua: ugari eta merkea.
- Egitura ekonomikoaren batasuna: modernoagoa.
- Industri kontzentrazioa: Ontzigintza, automobilgintza, petrokimika-industria eta abarretan, enpresa erraldoiak sortzen dira (Mitsui eta Sumitono, esate baterako).
- Aurrezkia: Honen tasak gora jo zuen, mundu osoko altuenetariko bat izateraino. Aurrezki honi, inbertitzeko erraztasunak eman zitzaizkion.

1955etik 196lera bitartean hazkunde ekonomikoa areagotu egiten da, mundu-egoera politikoak lagundurik. Israel eta arabiarren arteko Sei Eguneko Gerratea amaitzean, Suez-eko Kanalea ixtea oso mesedegarria izan zen ontzigintza japoniarrarentzat, petroliontzi handiagoak behar ziren eta. Bestalde, industria astunak, oihal sintetikoek eta

kontsumo-ondasunek ordeztu zituzten tradiziozko sektoreak eta kotoi-industria. Hazkuntza industrial eta ekonomiko honek Japonia mendebaltzea zekarren berekin, Europaren aurpegia behin-betiko beretuz.



... na bat. Mendebaldetik zientziak inportatu aurretik, XIX. mendearen azken aldera, ez zegoen Japonian ez filosofia zientifikorik eta ez zientzia tekniko edo sozialik. Gaur egun artezia miresgarri batekin estudiatzen dituzte pentsalari japoniarrek Mendebaldeko pentsaera eta kultura. Japoniak Txinaren aportazioa asimilatzen eta horri forma japoniar berezia ematen jakin izan duen bezala, horrela Mendebaldeko filosofoengana ari da irekitzen gaur egun. Dena dela, beren aurrelarien pentsamendua behar bezala ulertu ondoren bakarrik erakusten dute japoniarrek beren originaltasuna".

(P. eta M. HORIKAWA, 1956)


OPOSIZIOAK. Japonia, txikia da lurrez, handia biztanlez. Garapena ez da egin oposiziorik gabe. Politikari eta ekonomigizonek hartutako erabakiak ez dira eztabaida gabeak izan. Hona hemen segurtasun-itun amerikano-japoniarraren kontrako manifestaldia (1960): 250.000 lagun gobernuaren kontra "suge-dantzan".

GERRAONDOA (1945)

"Ezin daitezke gogoratu gabe utzi gaurko Japoniaren problema sozialak. (...) Besterik ez bada ere, zilegi bekigu esatea, ezen japoniarrak 1945eko zorigaitzaren ondoren Konstituzio berriak segurtatzen dizkien libertateak gora-behera (hala nola, pentsamendu- eta hitz-libertatea, prentsa-libertatea, nazionalismo militarraren garaian hainbeste desiratutakoa), beren buruak etsipenaren eskutan uzteko tentazioan aurkitzen direla, ekonomiak aurkezten dizkien problema ia konponduezinekoen aurrean.

Emigratzeko modurik ez daukate ia (beraz jaiotzak kontrolatzera kondenatuak daude) eta beren produktuak esportatzeko zailtasun larriekin, japoniarrak, gazteak batipat, impasse batecn sarturik sentitzen dira eta beren buruen eta beren familien bizibidea aurrera atera beharraren buruhauste materialetan amildurik".

(P. eta M. HORIKAWA, 1956)



BIZTANLEAK. Europarrak Australiara iristean, 300/400.000 bat bizilagun zituen lurraldeak. Oraindik geratzen direnak oso desberdin banatzen dira: batzuek guztiz isolatuta daude oraindik, erreserbetan (Mendebal Australian, Iparraldean, Queensland-en). Olatutan iritsi ziren emigranteak: 1851-1860, 500.000 lagun (urre-olatua), 1875-1912, 75.000; 1946-1965, 1.500.000. Batez ere, hirietan bildu izan dira etorkinak. Australiak 3.774.000 bizilagun zituen 1901ean; 1967an, 11.600.000 eta 1984ean 15.000.000 eskas. Biztanle-dentsitatea biziki bakana du Australiak.

B) AUSTRALIA

Japonia, bere modernizazio Meijia hastean (1868), lurralde ongi populatua zen: oso zaila zen, hortaz, hura Europatiko emigrazioaren helpuntu bihurtzea. Besterik zen, ostera, Australia: lurralde zabala, baina oso-oso biztanle gutxikoa. Europa superbiztanletuarentzat emigraziorako lurralde prometagarria bilakatu zen.

* 1. Aurkikundea: Kolonizazioa

Holandarrak izan ziren Australia aldera iritsi ziren lehenak, Eki-Indietarako biderik egokiena bilatu nahian. 1642an Tasman hurbildu zen Zeelanda Berrira eta gerora Tasmania izango zenera. Baina benetako aurkikundea James Cook Britainia Haundiko erregearen zerbitzupean zegoen marinel eskoziarrari zor diogu. Honek eman zituen, 1770ean, lehenengo berriak zabalki.

Asko luzatu zen Australiako kolonizazioa, baldintza geografikoak ustez zeharo desegokiak zirelako. Australiaz hala zioen Dampier kortsarioak, XVIII.aren azkenetan: "Australiarekin topo egitean munduko kontinenterik antzuena aurkitzeko 'ohorea' izan dut". Cartens-ek sakontasun gutxiko urak, arrezife beldurgarriak, eskas jendeztaturiko irlak, giza talde basati behartsu eta oso krudelak aurkitu zituen... Lehen argibide txarrok (interesatuak ere bai ote?) ez zuten bizkortu aurkikundea.


Australiako kolonizazioa, benetakoa, Ipar Amerikaren independentzi gerratea bukatu ondoren burutu zen. Ordurarte, Britainia Haundiko preso eta gaizkileak Ameriketara bidaltzen zituzten be-

KLIMAK eta LANDAREDIAK. Tropikoak trabeskatzen du, erdi-erditik, Australia; baina, hegoaldean, Tasmania Euskal Herriaren paretsuan geratzen da, paraleloz. Tartean klima ezberdinak dauzkagu:

--**euriz**: Cairns hirian, eki-iparraldean: 2.210 mm/urteko, Perth, mendebal-hegoaldean: 862 mm/urteko; baina 275 mm/urteko Alice Springs-en kontinente-erdian.

--**tenperaturaz**: Cairns euritsuak eta Alice Springs lehorrak ia berdina dute udako batezbestekoa (27,2°); baina Wyndham-ek iparraldean urteko batezbestekoa 29,1° du, Melbourne-k hegoaldean 14,7° duen bitartean.

--**Landaredia** ere holaxe egokitzen da: argazkietan ikus daitekeenez, badago estepa zuhaiztun erdi-basamortutarrik, eta baita baso tropikalik ere; tarteko klimetako beste landarerik ere ez da falta.







JAMES COOK (1728-1779). Nabigari ingeles honi zor zaio Ozeano Pazifiko eta Australia aldearen esplorazioa. Hiru bidaia handi egin zituen munduan zehar. Pazifikoa ekialdetik mendebaldera, ipar-hegoaldeetara dena zeharkatuz. Zeelanda Berria, Australia eta Polinesia esploratu zituen batipat.

ren kondenak betetzera; baina, esan bezala, hamahiru koloniek burujabetasuna lortzean, Pitt-en Gobernuak Australiako Hego Gales Berrira bidaltzea proposatu zuen. Horrela, 1788ko urte inguruan hamaika ontzirekin 300 ofizial eta 700 preso iritsi ziren Botany Bay-ra. Hona, ba, Australiako populazio europarraren jatorria.

1793an heldu ziren lehenengo kolono askeak. 1825ean Tasmania izeneko kolonia sortu zen, Frantzia urruntzeko eta preso irlandarrak biltzeko asmotan. 1817tik 1845era bitartean Murray Arroa esploratu zuten. Barne-lurraldeetako esplorazioa 1839tik 1841era bitartean burutu zen. Mendebaldea Gregory-k esploratu zuen. 1862an Stuart-ek zeharkatu zuen kontinentea, iparraldetik hegoaldera; ondoren beste espedizio batzuek urratu zituzten basamortu handietako bideak.

Hasiera-hasieratik europar haien bizi-baldintzak samurrak ez baziren ere, pixkana-pixkana, lehen aipaturiko espedizio eta esplorazioak zirela medio, kontinente ustez antzu honetako ahalbideez baliatzen ikasi zuten: Abereen espezieak eta lur laboragarrien emankortasuna hobetzen hasi ziren, esate baterako. Garai hartan hasi ziren lehenengo egunkari eta bankuak fundatzen eta artile-esportazioak egiten.

* 2. Jatorrizko bertakotarrak

Bertakoak, iparralde eta erdialdeko lurretan kokatuta, 45.000 ziren 1966ko zentsuko datuen arabera, eta mestizuak 80.000 inguru, Gales Berria eta Queensland izeneko probintzietan lekututa. Gaur egun desagertzeko zorian daude, Tasmanian duela 50 urte desagertu ziren bezalaxe. Arra-

za ozeaniarrekoak dira, Indiako zenbait herrirekin eta Zeilaneko vedekin antzik badutenak. Itxura denez, Timor itsasartea gurutzatu zuten, azkeneko glaziarartean, egun baino askoz txikiagoa zenean.

Honela deskribatu zituen Cipriani-k:"Azala iluna dute, txokolate-kolorekoa; oso altuak dira, bulartsuak eta lepo garatukoak; burua estua eta luzea dute, aurpegia eta kopeta atzerantza, masilalboak irtenak eta zabalak, sudurra motza eta zabala, sudur-zuloak zabalak. Ilea luzea eta kiskurra..."

Kultur alorrean, erlijio magiko eta totemikoak dituzte; zeruko kreatzailearen ideia ere badute, tximist eta trumoiaren bidez agertzen dena. Bertakotarren artean "aita" izenarekin ezagutzen da kreatzaile hori.

Horrelako giza taldeak eta kulturak galduz joan ziren Europako zibilizazioa zabaldu zen heinean. Izan ere, bertakoek barruko lurraldeetara joan behar izaten zuten, Europakoek nahi ez zuten tokietara, alegia. Gaur egun integratuak izan ez direnak erreserbetan biltzen dira, Australiako tipismo hutsaren sinbolotzat; baina asko eta asko hirietara aldeginez doa.

* 3. Urrea: biztanle-ugalpena

Joan den mendearen bigarren erdialdetik aurrera populazio australiarrak etengabeko gorakada izan zuen, urre-aurkikundeak erakarrita. Hala ere, hau garrantzizko faktorea izan bazen ere, ez zen noski faktore bakarra, Australiako ekonomiaren hobekuntzak ere bultzatzaile izan ziren eta.

Jatorrizko Australiarrak

"Jatorrizko australiarren estudioak asko lagundu die zientzia antropologikoei.

Haien arraza-tipoaren elementu biziro arkaikoek bide eman dute uste izateko, badutela haiek zerikusi goi-paleolitoko (eta zenbaiten ustez, erdi-paleolitoko) gizakiarekin ere. Haien kultura material errudimentarioak eta haien bizimoduak ageri duten zenbait ikuspegiren interesa areagotu egiten da, izugarri antigoalak direla jakitean. Kontinente australiarrean izan duten isolamendua lehen batean uste zen bestekoa izan ez bada ere, haienarekin konpara daitekeen beste edozein gizarterena baino askoz ere isolatuagoa gertatu da.

Haien talde-banaketen modalitateek, haien ezkontzako erregelek, haien kultuak eta honekin loturik dauden agerpen totemikoek bide eman dute totemismoari buruz hainbat teoria elaboratzeko. Arunt-tarrak dira aberastasun eta konplexutasun honen adibide bat ederra; eta aspaldidanik deitu izan du horrek etnologoen atentzioa.

1788an 350.000 lagun inguru izango zen --beste batzuren ustez 150.000 besterik ez-- hango biztanleria osoa; 500 bat tributan banatua zegoen, hauetako bakoitzak zituelarik bere lurralde jakina eta bere ...

hizkuntza edo dialektoa. Tribu hauetako batzuek oso berezitasun apartak hartu dituzte. Azterketa arkeologikoek diotenez, 10.000 urte edo gehiagodanik bizi dira haiek han. 160 urteko beheraldi baten ondoren, berriz ere goraka doa mestizatu gabeko bertakotarren kopurua, Erdiko eta Iparraldeko eskualdeetan batipat:45.000 ziren 1966an,baina ederki iritsi litezke 90.000tara mende-azkenerako". (A.P. ELKIN)

Gorakada demografiko hori deskribatzean, gaizkile eta kondenatu berrien bidalpenak aipatu beharko genituzke, eta kolono askeentzat nekazal lurrak eskuratzeko aukera handiak ere bai. Hori dena tarteko zela izan ziren kolonizatuak Australia eta inguruko irlak.

Esan bezala, joan zen mendearen erdialdean, urre-aurkikundeak gertatu ziren, Australiako bizikera erabat aldatuz: Bazter guztietako joaleak, eta hauen ondoan hornitzaile, saltzaile, meretrize eta era guztietako abentureroak hurbildu ziren aberastasun bila Viktoria eskualdera. 1858an Australiak milioi bat biztanle zituen; urre-aurkikunde berriak ustiatzen hasi zirenean, gora egin zuen kopuru honek.

MENDEBALDEKO AUSTRALIA: LURRALDE HUTSA?

"Australiako Estatu bat da: 2.527.621 km^2 dituena eta 1.084.000 biztanle. Hiriburua, Perth.

Mendebaldeko Australia da Australiako Estatuetan handiena (herrialdearen hirutatik bat ia). Hedaduraz Frantzia halako bost da kasik, baina oso urri jendeztatua dago: populazio-dentsitatea ozta-ozta da hiru km^2ko biztanle bat baino gehiago. Perth-ek Estatuko biztanleriaren bi herenak berak bakarrik biltzen ditu (739.000 biztanle). Perth kenduz gero, batezbesteko dentsitatea zazpi km^2ko biztanle batera jausten da.

Berriki arte, Australiako parte hau oso isolatua aurkitzen zen, herrialdeko beste parteetatik ere. Jendeztapena oso motela eta berandukoa izan da: Perth-eko kolonia txikia 1829an izan zen fundatua, baina 1890ean 46.000 europar besterik ez zegoen han. Urre-aurkikuntzak inmigrante-bolada bat sortu zuen, baina estrakzio-baldintza neketsuek gogourritu egin zituzten banakako urre-bilatzaileak. Dena den, Estatuko biztanleria 239.000 pertsonetaraino iritsi zen 1904ean. Jendea bakanago heldu zen geroztik eta lanesku-faltak trabatu egin zuen ekonomi garapena. Australiako enparatuan bezala, Bigarren Mundu-Gerratearen ondoren bizkortu zen berriro inmigrazioa. Baina nahiz eta biztanleriaren hazkunde-tasa igo (% 2 inguru urteko), baxuegia zen abiapuntua populazioaren eskasia berehalakoan osatzeko.

Lurralde izugarri eta huts honetan, bertakotar batzuk mendebal-zibilizaziotik kanpora gelditu dira; 2.000 inguru ehiztari erdinomada bezala bizi dira. Baina gehienak europarren lekumenduen inguruan finkatu dira. Mestizoak eta guzti kontatuz, ez dira 20.000tik gora pasatzen.

Herrialdearen aberaspidea galerazten duten faktoreen artean konta daitezke biztanleriaren eskasia eta klimaren eta lurraren nolabaitekotasuna. Lurralde handitan klima azpibasamortutarrak agintzen du". (A. HUETZ)

ZEELANDA BERRIA

"Zeelanda Berriko lehen biztanleak polinesiarrak dira seguruenik: Maoriak. Lehenengo europarra (marinel holandar bat, Abel Janszoon Tasman izenekoa, 1603-1659) irletara 1642an ailegatu zenean, milaka gizaki batzuk bizi ziren bertan, maoriak, gehienak Iparraldeko irlan, klimaz atseginagoa delako. Tasman-ek "Estatuen Lurraldea" bezala bataiatu zuen mendebaldeko kostaldea, baina "Zeelanda Berria" izena izango da laster erabiliko den bakarra. 1769-70ean, James Cook-ek inguratu zituen bi irla nagusienak, horrela frogatuz, ez zirela kontinente. Britainiarrek maoritarrekin zituzten harremanak, lehen batean latzak izan zirenak, normalizatu egiten dira poliki-poliki.

Hurrena trafikariak dira, Hegoaldeko Gales Berriko kartzeletatik aldegindakoak, eta balezaleak batez ere, Zeelanda Berriko kostak bisitatzen dituztenak eta, Maoritarrak beren artean gerra odoltsutan hasten diren bitartean, Eliza kristau desberdinetako misiolariek herrialdea ebangelizatzeari ekiten diote 1814etik hara.

1838tik aurrera, Zeelanda Berriko kolonizazioa antolatzea erabakitzen du Britainia Haundiak. Kontsula izan zen lehenengo William Hobson (1839), gero gobernadorea (1841), Waitangi-ko tratatuaren ondoren (1840ko otsailean); honen bidez beren irletako nagusitasuna eman zioten Maoritarrek, ordainetan kolonu britainiarrek haiei babesa segurtatzearen truke. Hasiera batean Hego Gales Berriaren eranskin bezala kontsideratua, Zeelanda Berria, Edward G. Wakefield-ek (1796--1862) gidatutako konpainia batek hartu zuen bere kargu, eta beronek antolatu zuen kolonizazioa (20.000 kolonu urte gutxitan) maoritarren kaltetan; hauen lurraldea Iparraldeko irlaren barruko lur pobreskoetara murriztu zen. Hegoaldeko irla berehalakoan jendeztatu zen, eta hiriak fundatu: Otago 1848an eta Canterbury 1850ean, Iparraldeko irlan Auckland sortzen zen bitartean (1841).

Alabaina, Wakefield-ek erabilitako hedapen-politika zakarrak gerra maoritarrak piztu zituen (1843-1847, 1860-1870), herrialdeko ekonomia biziro ahulduz eta autoktonoak hamarrenduz.

Koloniaren isolamenduak autonomia zabal bat eman zion hari, gero 1852ko Konstituzioak aintzatetsiko duena. Sei probintziatan banatua dago Zeelanda Berria, bakoitzak kontseilu probintzial bana duela; gainera gobernadore bat dauka, inguruan legegintzako kontseilua eta Behe-Ganbara dituena. Kontseilu horretako kideak Koroak izendatzen ditu eta Behe-Ganbara bost urterako aukeratzen da bozketa murriztu baten arabera. 1860 eta 1870en artean arrazazko gatazka berri batek odoltzen ditu irlak, maoritar populazioaren asimilazioa luzarorako konprometituz. Iparraldeko irlak nozitzen du bereziki: honen atzerapen ekonomikoa Hegoaldeari buruz (hemen bizi dira % 60 kolonu) izugarria da orduan.

Bakea itzultzean, gorakada dezentea egiten du Zeelanda Berriak; honetan lagundu ziotenak izan ziren, urrearen aurkikuntza (Otago-n 1861ean eta mendebaldeko kostan geroago) eta Julius Vogel-ek (1835-1899) egikaritu zuen mailegu-politika. Hamar urtetan bikoiztu egin zen populazioa, 500.000 biztanletara iritsiz. Bestalde, zentralizazioa indartu egin zen, 1876an, kontseilu probintzialak desagertu eta konterriak sortzen direnean. Ekonomiak hedadurazko abelazkuntzara jotzen du nagusiki, honek Europarako esportazio masiboa faboratzen duela: haragiarena (hozte-prozeduren erabilera komertzialari esker, 1882tik aurrera), esnearena, eta esnekiena". (P. PIERRARD)

Urrearena aparte utzita, baditugu beste faktore batzuk ere Australiako garapena isladatzen dutenak: Lur laboragarriak hedatuz joan ziren, artaldeak ere bai, merkataritza etengabeko gorakadan zetorren, etab. 1890aren urte-inguruan hiru milioi bizilagun bildu ziren Australiako kolonian, bizi-baldintza onekin.

Baina ongizate hau beheraka hasi zen 1893. urteaz geroztik, batez ere esportazioko prezioak erori zirelako; gainera, abeltzantzari ere jasanezinezko kalteak ekarri zizkion idorraldi batek. Ondorioz inmigrazioa moteltzen da 1891etik 1910era bitartean.

Kinka honetako problemak gainditu eta gero, hasi zen Australia bere nazio-oinarriak

Zeelandako laborantza (1773)

"Laborantza hoberik ez dago espero izaterik, gizonak beretzat bakarrik ereiten duen eta lurrak jendeak bizitzeko behar duena ozta-ozta ematen duen herrialde batean. Tegadao-ra, Pobrezia Golkoaren eta Mendebaldeko lurmuturraren arteko kantonamendura iritsi ginenean, ereinberriak ziren haziak eta artean ez ziren ernetzen hasi. Lurra gure baratzetakoa bezain berdina, harroa eta ondo landua zegoen, sustrai bakoitzak bere lur-tontorra zeukan, denak lerrotan jarrita zeuden, eta soroan zeuden oraindik lan horretarako erabili zituzten ziriak. Ez dut nekazariak lanean ikusteko aukerarik izan; baina aztertu dugu, aldi berean pala eta golde bezala erabiltzen duten lanabesa;egur luze bat da, mutur batean, alde batetik ebakita dagoena, eta, muturretik urrutira gabe, beste egur-zati bat zeharka lotuta daukana, oinarekin zapalduz lurrean aisago sar dadin. Lanabes honekin sei-zortzi bat akreko hedadura duen lursail bat irabiatzen dute, nahiz eta lanabesak zabalean hiru hazbete baino gehiago izan ez; baina lurra arina eta areatsua bait da, ez da lantzen biziro nekeza".

(HAWKESWORTH, 1773)

Neozeelandarrak (1773)

(Cook-ekin, 1769-1771etan, egindako bidaiaren ondoren honela deskribatu zituen bertakotar maoriak Hawkesworth idazle ingelesak:)

"Zeelanda Berriko biztanleak, oro har, Europako altuenak bezalatsu dira tamainaz; gorputz-adar sendo mamitsuak eta egokiak dauzkate; baina ez daude Hego Itsasoko irlatar nagi-sentsualek bezain lodiak. Izugarri eginkor eta indartsuak dira, eta gutxitan ikusi ohi diren bezalako abilezia eta esku-trebetasunak ageri dituzte. Hamabost 'pagaya' (arraunlari) ikusi ditut lanean kanoa batean sinestezineko abailan zihoazela, eta, hala ere, arraunlariek beren konpasa gordetzen zuten mugimenduetan, beso guztiak arima bat berak animaturik baleude bezala. Azala beltxarana dute gehienbat; baina gutxi dira eguzkiak belztutako espainiar batek baino azal ilunagoa dutenak; gehienak askoz ere zuriago dira. Emakumeetan ez da ikusten emakume izateari dagokion bezalako gorputz-adar finagorik; baina ahotsa biziro gozoa dute eta horretatik antzematen zaie gehienbat, ba jantzi berdin egiten dira bi sexuak". (HAWKESWORTH,1773)

ipintzen, kolonia britainiar zen lurralde hura nazio moderno eta garatu bihurtu arte: Ahaleginak egiten dira lana babestu eta segurtatzeko, elkarren kontrako lehia eta borrokak leuntzeko (lanaren eta kapitalaren artekoak batipat); nekazal erreformak burutzen dira, eta, azkenik, Europarekiko loturak eta harremanak sendotu egiten dira. "Australia zuria" eta "Australia australiarrentzat" ohiuek Australia moderno bat aldarrikatzen dute, Ozeanian egon arren, guztiz europartua izango den nazio garatu bat.

* 4. Egitura politikoa

Demografian ezezik, politikan ere, Australia guztiz europarra da. Australiaren bilakaera politikoaz ez da hemen deus esango, baina esan beharra dago, hala ere, hango eredu politikoa mundu anglosaxoinetik eramana dela: "Commonwealth of Australia" deritzona Britainia Haundiko koroapean dago.

Ministrari-kontseilu bat du, botere exekutiboaren kargudun bezala. Legegintz boterea parlamentu bati dagokio. Estatu bakoitzak bere ordezkariak bidaltzen ditu hara, populazio-kopuruaren arabera. Auzitegi Goren bat arduratzen da gobernu federalaren eta Estatuen arteko liskarrez.


AUSTRALIA POLITIKOA. Preso-kolonia bezala hasitako hau oraindik Estatu gaztea da. 1901ean sortu zen Australiako "Commonwealth" deitua: Sei Estatuak eta Ipar Lurraldea (gobernu federalaren menpekoa orain). Estatu Federala da, ba, Australia, Estatu bazkide bakoitzaren jabetasuna Gorte Gorenaren babespean dela.

AUSTRALIA: BANAKETA ADMINISTRATIBOA

Sei Estatu	**Kilometro^2**	**Bizilagunak**
Hego Australia	984.377	1.211.000
Mendebal Australia	2.527.621	1.084.000
Hego Gales Berria	801.428	4.738.000
Queensland	1.727.522	1.947.000
Viktoria	227.618	3.616.000
Tasmania	68.332	399.000
Eskualde federala (Camberra)	2.432	185.000
Ipar Lurraldea	1.347.519	98.000 (zuri)

II. EUROPARTZE-PROZESUEN EZAUGARRIAK

Hemen eta nonnahi, europartze-prozesuak ikuspegi ezberdinetatik beha ditzakegu: oinarrian aldakuntza ekonomikoak ikus daitezke, eta ordenamendu ekonomikoaren bilakaera; aldakuntza horiei dagozkien erakunde politikoak aipa ditzakegu gero; azkenik, Europako kultur moduen nagusitasuna esan nahi du. Ikus ditzagun, ba, alde ezberdin hauek Australiaren historian.



KAPITALISMOA, SOZIALISMOA, DEMOKRAZIA (1942). Schumpeter-ek serioski aztertu nahi izan zituen kapitalismoaren fruituak eta etorkizuna. Autorearen ustez, kapitalismoak ahalegin handia egin du ekonomia arrazionalizatzen, baina sozialismoa da sistema ekonomiko horren geroa.

A) ALDAKUNTZA EKONOMIKOAK

Mundua, hein handi batean, Europaren molde ekonomikoetara etorri dela esatean, ez da ahantzi behar "Europa" kontzeptu horren barruan sartzen dugula Ipar Amerika ere, Mendebaldeko mundua alegia: Asia edo Afrikako ekonomi sistema eta garapen-moduei kontrajarrita ageri zaigu Mendebaldea, esan nahi da.

Mendebalde hau, ordea, beste edozein zibilizazio bezala, aldakorra izan da, eta, batez ere, Industri Iraultzatik hona oso aldakorra, gainera. Mendebaldearen aldakuntzek, berriz, Europaren mundu-hedakuntzarekin zerikusi zuzena izan dute, alderantziz ere esan daitekeen bezalaxe: hau da, kolonialismoak ekonomiaren mundializazioa sortu hala, Europako bertako ekonomia baldintza berri horietara egokitu egin izan da.

Egokitzapen-prozesu honek badu interesik Europak munduan (izan) duen eraginaren zergatia

ulertzeko, Mendebaldearen arrakasta historikoa hobeki konprenitzeko, beraz.


II. Mundu-Gerratetik hona, Europako ekonomiaren garapenak une ezberdinak ezagutu ditu: Berehalako gerraondoan, berreraikitzeko zerbait zen batez ere Europa (EE.BB.ek eta Soviet Batasunak izan zuten hor gidari-betekizun bat); Europa mendebaldarrean batipat lan gaitza egin zen urte haietan (1945-1955). Ondoko hamarkadetan, 1973ra arte, garapen nahikoa desorekatu baten aldia daukagu. Urte hartatik aurrera hidrokarburoen krisialdiak bete-betean harrapatzen du Europa.

Baina munduaren europartzearen historia ezin liteke berrogei urte labur horietara muga, ezta geografikoki kontinente zaharreko indarrei bakarrik egotzi. Ez da ahantzi behar, izan ere, jatorrizko zibilizazio europarrak bere egoitza berrietan aurkitu duela hedapen-indar gazteagoa: Ipar Amerika, Kanada, Australia edo Japoniatik bertatik ere zabal liteke "Europa", hortaz. Mundu ekonomikoan ageri zaigu hau dena argi: Europak sortutako produkzio- eta antolamendu-ereduak egokiagotu egin dira, berriz ere, mundu-behar berrietara, efikazia handiago bat lortu nahirik.

* 1. Sistema kapitalistaren aldakuntzak

Azken urteotan sistema kapitalistak izan duen aldakuntza, bi puntuotara labur daiteke: Produkzio-prozesuaren kontzentrazioa batetik, eta Estatuak parte-hartzea, bestetik.

Egungo enpresak gero eta handiagoak dira: erabiltzen diren kapitalak, langile-kopuruak eta produktuen barietateak izugarriro handitzean eta




USAren MERKATAL INDARRA. Estatu Batuetako sistema ekonomikoaren indarra bere kanpo-harremanetan ere ageri da: aukeratzen diren saltzaileek (inportazioek) eta erosleek (esportazioek) mundu-mailako harreman-sarea osatzen dute, hainbat dependentzia ekonomiko eratuz.

kapital industriala kapital finantzarioarekin bat egitean, guzti horrek erabat eraldatu zituen produkzio-prozesuak. Industri kontzentrazio honen xedea oso sinplea zen: Ahalik eta etekinik handienak lortzea.

Enpresa-kontzentrazio honen ondorioz merkatua bera aldatuko da. XIX. mendearen erdialdean konkurrentzia librea zen merkatuko ezaugarri bakarra, egun, ostera, ez dago jadanik halako konkurrentziarik, eta merkatu monopolista edo oligopolista batek (enpresa gutxi batzuek alegia) beren baldintzak inposatu dituzte. Kontrolak esku ekonomiko gutxi batzutara pasa dira: ikusiko ditugun multinazionalen eskuetara.

Aurreko puntuan esan dugunaren arabera, Estatuak gero eta gehiago ari dira ekonomian esku hartzen, "sektore publiko" delako sail ahaltsua indartuz. Bide asko izan ditzake Estatuak ekonomian esku hartzeko, batez ere presupostuak planifikatzean eta bestelako neurri ekonomikoak ezartzean: hala nola, kreditu-kontzesioak, zerga-politika, moneta-masaren kontrola, etab.




BURTSA. Produkzio-enpresen balioa merkatura atera ohi da, salgai, eta akziotan eskaintzen da Burtsan erosleek har ditzaten. Horrela, Burtsan aukera du kapitaldunak, duen dirua nahiago duen enpresaren eskuetan jartzeko, halakoren akzioak erosteen. Kapitalaren joan-etorriak arindu egiten dira salerosketa-modu honen bidez. Johannesburg-eko Burtsa ikus daiteke irudian, Hego Afrikako metal preziatuengatik kapital-azoka interesgarria.

* 2. Multinazionalak

Multinazionalak ez dira fenomeno ekonomiko berriak, gaurkoak, XVI, XVII eta XVIII. mendeetatik, mende haietako konpainiek merkatua ireki zutenetik datozkigunak baizik. XV. mendean Rothschild-darrek Europa osoan zehar banketxeak sortu zituztenean sortu zen historiako lehenengo multinazionala, edo oso antzeko zerbait. Batek baino gehiagok dio, multinazionalen antzera aritzen dela eliza, munduan zehar hain zabalduta egotean.

Baina benetako multinazionalak edo haien kontzeptu teorikora gehien hurbiltzen direnak, XIX. mendearen azken herenean eta XX. mendearen hasieran sortu ziren, mundu-enpresaren kontzeptua zabaldu, kostuak murriztu eta protekzionismo arantzelarioa gainditu nahirik. 1865ean, EE.BB.-etako Singer Enpresak ipini zuen Glasgow-en lehenengo faktoria, geroztik etengabe joan dira multinazionalak beren ezaugarri berezkoenak osotzen:

- Produkzio-unitateak leku desberdinetan kokatzen dira. Produkzio-lana zatitua dago, ez dago produktu osoa egiten duen lantegirik.
- Merkatu desberdinetan parte hartzen dute, ahalik eta produkzio-kostu txikienak lortuz.
- Ahal duten teknikarik aurreratuenaz baliatzen dira, batez ere industri antolakuntzan, pertsonal-zuzendaritzan eta stock-en gestioan.
- Inbertsio handiak egiten dituzte ikerketan eta hauen aplikazioetan.
- Politika oldartsu eta burutsua dute, beren produktuak merkaturatzeko.
- Sartuta dauden herrialdeak ondo ezagutzen dituzte (politikan, ekonomian, etab.).




NAZIOARTEKO PLAN KONTABLEA (Brusela, 1959). Kapitalismoaren eta enpresen mundializazioarekin, nazioarteko kontabilitate-sistemen eta informazioen komunikagarritasuna samurtu beharra sumatu da, enpresa bat beraren barnean ere erabakiak elkar ulertuz hartzeko. Nazioarteko Plan Kontablerako Kontseiluak nazioarte-kotasun hori lagundu nahi izan du sustatu dituen ekinkizunen bidez: Normalizazio Kontable eta Ekonomikorako Nazioarteko Ikas-Batzordea (1962), Kontabilitatearen Nazioarteko Akademia (1965), etab.

Planteamolde berri hauen bidez lortu dute multinazionalek teknologiak, kapitalak, laneskuak-merkatuak eta antolamendu-sistemak mundu-tamainara eramanez, denak geroz eta gehiago produkzio-batasun razional munstro batean elkartzea.

B) NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK: EUROPAKO EREDUAK

EUROPAKO EKONOMI ELKARTEA. Estatu-mugak gainditu eta merkatu zabalago baten premia bizi-ki sentitu du merkatu librearen ekonomiak. EEEak ere behar horri erantzun nahi izan dio kontinente zaharreko Estatuen artean.(EEEaren Bruselako Jauregia).



* 1. Europan

Aurreko ikasgaian ikusita daukagunez, II. Mundu-Gerratearen ondoren argi agertu zen Europari antolamendu politiko eta ekonomikoak berritu beharra, eta egiteko horrixe ekin zioten orduko politikaririk handienak: De Gasperi, Adenauer, Schumann, Churchill eta abarrek.

Europaren berrerakundeztapen hau ez da samurra eta erraza gertatu, baina eman dira funtsezko pausoak ere batasun ekonomikoa lortzeko. Eta batasun politikoa bultzatzeko ez da erakunderik falta izan.

Europarren armada-batasunak, bestalde, ez du erabat europarra den nazioarteko erakunderik, 1949az gero Europaren defentsa armatua NATOren barnean eramaten bait da gehienbat. Oro har, Europak emateko dauzka oraindik bere batasunerako premiazkoak dituen pausoak. Azkenik ez da ahantzi behar, gainera, EEEak Europa osoa ez, baizik eta Mendebalde europarraren parte bat bakarrik besarkatzen duela.

* 2. Munduan

Hirugarren Munduko herrialde batzuek, Europak eta Ipar Amerikak jarritako ereduei jarraituz, beren erakundeak moldatu dituzte. Horietako bat aukeratu dugu, horrelakoen adibide argigarri bezala: OUA (Afrikar Batasunerako Erakundea) izenekoa aztertzeari deritzogu egokiena.

Addis Abeba hirian sortu zuten OUA, 1963. urtean. Hasiera batean itzal handiko organismoa izan zen hori bere buruzagiak oso herritarrak zirelako eta Deskolonizazio-Batzordeak lan bikaina egin zuelako, mugimendu nazionalistei laguntzen.

60ko hamarkadaz geroztik, partaideen arteko istiluak eta blokeen politika direla eta, krisian dago OUA, baina gogoan izan behar da beti 50 Estatu biltzen dituela bere barnean. Dena dela, erakunde honek badu zereginik, hiru gai hauetan batez ere:

- Neokolonialismoaren aurkako jarreran. Hala ere, kanpotik etorritako tropak Afrikatik aldentzerik ezin izan du lortu.
- Arrazismoaren aurkako politikan.
- Partaideen eztabaidakizunen konponketan.

Hirugarren Mundua, oro har, eta Afrika berezikiago, mundu garatuaren beharretan aurkitzen da. Horregatik, eta hurbiltasunagatik ere, EEEak gogoan izan du Afrika (Yaoundé 1963, 1969. Lomé 1975, 1981). Hein batetan europartu ere egin den kontinente beltza Ipar-Hegoaldeen (aberats-pobreen) arteko gatazketan ito liteke. Afrikaren garapenerako eredu ahantzezina da Europa, baina baita etorkizuneko hainbat desorekaren kausante ere.



HAILE SELASIE (1891-1975). Ethiopiako Enperadore hau (1930-1936, 1941-74) Europan oso miretsia izan zen Abisiniako Gerratean (1935) Mussolini-ri aurre egin zionean. Garai biblikoetatik zetorren inperioa zen Ethiopiako hau, eta, bestelako itxura-mitxurak gorabehera, erregimen feudal bat sostengatzen zuen Monarkiak.Deskolonizazioaren aroan, beronen gidari bezala jokatu zen Haile Selasie (OUAren egoitza Addis Abeba-n dago, hain zuzen), baina iraultzaile afrikarrak askoz ezkerrerago zeuden gehienak.Ethiopian bertan lehertu zen,azkenik,iraultza, egitura sozio-ekonomikoak aldatzeko asmoz (1974).(Argazkian: Haile Selasie 1924ean, Europara egindako bidaia batean).

C) EKARPEN SOZIO-KULTURALAK

Oso gisa ezberdinetako ekarpenak eskaini dizkio Europak munduari, ez denak nolanahi beste kultur-munduetara landatzekoak; baina bai, sarritan, egoera ekonomiko larritatik irteten lagun dezaketenak. Edozein eratan ere, Europaren erro sozio-kulturalek protagonismo zuzena izan dute kulturaren mundializazioan, eta puntu honek merezi du hemen oharren bat edo beste.

* 1. Aurrerapen teknikoak

Bere pentsamendu eta humanismoarekin batera, Europak munduari --eta berezikiago berak kolonizatutako munduari-- eman dion baliozko tresna bat teknologiarena izan da, hau da, izadi gogorrarekin harremanak itxuraldatzeko modu berri bat. Europan jaiotako Industri Iraultzak sortu zituen teknikak gizadi osoaren ondasun bihurtu dira.

Hauxe da, Hirugarren Munduko herri askorentzat, Europak utzi dien ondarerik baliagarriena. Kolonia izandako zenbait Estatu "zuri" (Kanada, EE.BB., Hego Afrika edo Australia, adibidez) gaur egun Europaren beraren moldeetan aurkitzen dira, alde honetatik. Beste zentzu batean, ikusi dugu, dagoeneko, Japoniaren kasua.

Mundu sozialistari begiratzen badiogu, berriz, Soviet Batasunaren aurrerapen teknologikoa ere europarra da bere iturrietan ezezik, gidaritzan eta bere filosofian. Aldi berean, Txinako aurrerapen tekniko-ekonomikoak mendebaldeko ereduen gain egin dira, nahiz eta haien pentsamendua eta praxi soziala neurri on batean originala izan.

Krisia eta multinazionalak

"Azkeneko hamabost urteotan krisian dago mundu-ekonomia. Baina benetan mundu guztikoa ahal dago krisian? Ea, ikus dezagun. Multinazionalek probetxugarri izan dute krisia. Multinazionalek egindako inbertsioen balioa % 15 hazi da urtero batezbeste 1973rarte, eta % 16 data horretatik hona (atzerriko filialen berrinbertsioak barne). Bolumenez, berriz, 1973tik aurrera % 3,6 hazi dira, herrialde garatuetako barne-inbertsioak % 1,9 urteko besterik hori ez diren bitartean. Multinazionalen kapital-metaketa biziagoa izan da krisi-bitartean naziobakarreko firmena baino. Hori, berriz, emankortasun hobearekin lotuta dago.

1966az gero (100eko indizea) beheraka dator Estatu Batuetan batezbesteko mozkin-tasa, aldiz atzerrian inbertitutako kapital amerikarra goraka: % 10, 1966an; % 16,1973an; % 21, 1979an; % 14, 1981ean".

(V. ANDREFF)

Europak definitu du, beraz (teknologiak egin dezakeen neurrian, noski) gizakiak izadiarekiko harremana nola eraman.

Europarren ondare hau da, munduko herrientzat, etorkizunerako itxaropena eta, aldiberean, arriskua: gosetetik eta azpigarapenetik irteteko, edo izadia desorekatu eta, nork daki, hondatzeko.

* 2. Aisiaren kultura

Produkzioa ateratzeko ezezik, inguruaz gozatzeko ere premiazkoa du gizonak kultura. Beharbada, Mendebaldeak munduari eskaini dion baliorik propioenetako bat aisiaren kultura izan da. Zertan aritzen da gizona lanik egiten ez duen bitartean?

Musikak irakatsi dio aisia erabiltzen, baita zinemak ere. Hauez gain egungo giza masak badu beste dibertsio preziatu bat ere, kirol-ikuskizunak. Stadium handietan, indibidualtasuna galtzen den tokietan, libre uzten ditu herri-masak bere grinak eta aurreritziak.

Badugu, aisia nola pasa irakasten eta planifikatzen ahalegintzen den industria-mota bat ere. Hortxe ditugu oporraldiak planifikatzen aritzen diren enpresak, diskoen multinazionalak.

Europa, Ekialdean?

"Pazifikoko eta Txinako eremuetara hedatzeko presioa, XIX. mendearen azken herenean hain markatua izan zena, ez zen lehenengo eta berandu arte gobernu europarretatik sortu. 1894az aurretik, Asiako gobernuetatik eta hauen atzerri-kontseilariengandik edo Australia eta Zeelanda Berriko kolonu europar eta funtzionarietatik sortu zen ia osoro bultzada. Arrazoi bereziengatik, azkeneko hauek laguntza ofizial handia jaso zuten Europatik, 1882 eta 1885 bitarteko denboraldi laburrean; baina, salbuespen hau eginik, Europako gobernuak uzkur agertu ziren, beren erantzunbeharrak eta lehiakidetasunak eskualde honetaraino hedatzeko, mendearen azkeneko urteak arte".

(F.C. LANGDON)

ABIJAN

"Biziki ondo bururatutako hiria dela eta harrotzen da Abijan. Baina, hiriburua autodunentzat bizileku bezala ezin atseginagoa baldin bada ere, gutxiagodunen kaltetan lortutako erosotasuna da hori nolabait ere. Moduzko etxebizitzen eraikuntzak, agintarien babespean, ez du hiriaren zabalkuntzak eraman duen martxa bera eraman. Iritsi berriek, askotan, aldirietan txabola bat jasotzea beste erremediorik ez dute izan. Honela bizi zen, agian, abijandarren lautatik bat, hirurogeiko hamarkadaren azken aldera".

(C. COQUERY)

* 3. Hirigintz fenomenoa


Mendebaldeko zibilizazioaren ezaugarri bat, Hirugarren Munduko herrialdeetara eraman duena, hirigintz fenomenoa izan da. Europako hirigintzaren sorrera XI. eta XII. mendeetan ezarri behar da. Ez da munduak ezagutu duen lehena, noski (gogora Ertamerikan eta Ekialde Hurbilean lehenago izandakoak), baina bai ondorengo urteetan eraginik handiena izan duena, batez ere Industri Iraultza hasi zenetik. Egungo bizimoduaren ardatz bihurtu da hiria, bertan biltzen bait dira garraio-zentruak, iharduera ekonomiko garrantzitsuak, era askotako zerbitzuak, zentru politikoak eta ingurunea itxuraldatzen duen guztia.

Aurreko lerroetan genion bezala, Europa izan da hirigintza bultzatu duenetariko bat, Hirugarren Munduan makina bat hiri sortuz, itsas ertzeko esportazio-hiriak batez ere. Herrialde desgaratuetako hiriak aipatu ditugunez, esan beharra dago, hiri ezberdinak direla zeharo, Europak dituenekin konparatuz gero.

Landatik hi[illegible]etarako migrazioak, joan den mendean Europan azaldu zen bezalakoak, ez du askotan Hirugarren Munduko hiri horietan ogibidea lortzeko aukerarik ematen. Honela hirigintz prozesuak jarraitu beharko zukeen katea desitxuratuta dago (industri kokapena - zerbitzuak - enplegua - inmigrazioa - hirigintz hazkuntza).

Hirugarren Munduko hiriek modernotasunaren antza eduki arren, zibilizazio eta ekonomia desgaratuetako kontraesan tamalgarriak gordetzen dituzte: zeru-arraskarien antzera eraikitako eta multinazionalen egoitza bilakatutako bulego-etxe horien artean, kale gorrian eta aterpe onik gabe

(Bizilagunak milakotan)



HIRIGINTZA. Grafikoan ik. daitekeenez, azkeneko hamarkadetan bapateko goraldia izan du te Afrikako hiriek. 1940ean bost hiri soilik ziren 100.000 biztanle zituztenak (Lagos, Tananarive, Ibadan, Dakar, Accra); gaur egun hirurogei baino gehiago dira. Hirietako biztanleria Afrikako populazioaren batezbesteko hazkuntza baino hiru aldiz bizkorrago doa hazitzen.

ikusten ditugu bertako bizilagunak egunean eguneko biziraupena lortzen.

* 4. Egoera sozio-demografikoak

Europa eta beste herrialde garatuak zahartzen hasi dira, biztanleriak aldaketa izugarria izan duelako. Demografiaren ikuspuntutik hiru fase dauzka Europak:

- Aintzinako fasea: Hiltze- eta jaiotze-tasak oso altuak izaten ziren eta hazkunde begetatiboa eskasa.
- Trantsizio-fasea: Bide berriak irekitzen dituena da. Hiltze-tasek behera egin zuten bitartean, jaiotze-tasak aurreko maila altuetan mantendu ziren: hazkunde begetatiboak gora egin zuen.
- Gaur eguneko fasea: Gauzak orekatzen ari dira. Bi tasak beherantz doaz eta hazkunde begetatiboa oso motela da; areago oraindik, zenbait herritan, garatuenetan esate baterako, hazkundea negatiboa dugu

Laburtu dugun eskema demografiko hau ez dagokio, noski, Hirugarren Munduko herrialde-multzoari. Hauek, jeneralean, bigarren fasean daude, izugarrizko hazkunde demografikoekin eta hirugarren fasera igaro ezinik. Herrialde gehienetan demografi politikak egikaritzen dira Europak egin zuenaren antzera, tamalgarria den desoreka, populazio eta errekurtsoen artekoa, gehi ez dadin. Lorturiko emaitzak eskasak izan baldin badira ere, hona hemen biztanle-soberakina geldierazteko gobernuek hartutako neurriak, beti ere zerbait arindu dute egoera:

Inmigrazioa eta kolonizazioa

"Gazte erradikalek Australia aldera zuzendu zuten beren atentzioa eta Wakefield-ek proiektu bat landu zuen hura sistematikoki kolonizatzeko. Proposatu zuen, prezio garesti batean sal zezala gobernuak lurra, eta hortik ateratako irabaziarekin antola zezala, lurra lantzeko behar zen langileen inmigrazioa. Honek biztanleriaren gehiegia arinduko zion Erresuma Batuari eta, aldi berean, kolonia berri eta jori baten abantaila emango zion. Bentham-ek kolonizazio-sozietate anonimo baten egitasmoa prestatu zion; baita sozietatea eraiki ere bere garaian. (...)

Wakefield-en proiektu irudimentsua parte batean bakarrik burutu bazen ere, haren sozietatearen eraginak interes berri bat sortu zuen Australia eta Zeelanda Berriaren zorte eta etorkizunerako. Inmigrazioa, zatiz, lurren salmentatik ateratako diruarekin ordaindu zen eta, zatiz, gobernu britainiarraren kontzesioekin. Etorkinen bolada,orduarte nahikoa motela izan zena, bizkortu egin zen 1830eko hamarkadan zehar. Hego Gales Berri-ra kondenatuen garraioa 1840an atertu zen, baina Mendebal Australiarakoa berriro hasi zen 1850 eta 1868 bitartean. 1837an Wakefield-ek Elkarte Neozeelandarra fundatu zuen bere ideia sustatzeko, eta bi urte geroago Zeelanda Berriko Nekazal Konpainia sortu zen. Nahasmendu handi baten artean egin zen kolonizazioa, baina 1840an, Waitangi-ko Tratatuaren medioz, koroa britainiarrak eskuratu zuen Zeelanda Berriaren jaurgoa".

(J.M.K. VYVYAN)

- Jaiotze-tasen kontrola (Egypto, India, Pakistan eta abarretan).
- Emakumezkoei kontrol-argibideak. Honekin ez dute jaiotze-tasa erabat murriztu nahi, jaiotzak tartekatu baizik.
- Estatuen kontrol-politika gidatua: Metodo ezberdinak eskaini, presio gogorra egin, etab.
- Emigrazio sustatua: Latin Amerikan, adibidez.

Esan beharra dago, neurri hauek uste baino emaitza apalagoak lortu dituztela, zeren eta oso zaila bait da Hirugarren Munduko pentsamolde haietan Mendebaldeko joerak ezartzea. Baina mendebaltze-prozesuan eragina duten kultur faktoreak ez dira esandakoetara mugatzen; bada lotura sakon eta iraunkorragorik sortu duenik ere: metropoliek gizarte kolonialetan txertatutako hizkuntzena, esate baterako.

Australia "Zuria"

"Autogobernudun kolonia guztiek behar zituzten langileak; baina premia hori aldatu egiten zen ekonomiak zituen gora-beheren arabera; horregatik inmigrazioaren arazoa etengabeko eztabaidagai zen. Eztabaida horretan sartzen zen, berebat, zein pertsona eta zein ez ametitu behar zirelakoaren arazoa ere. Mendebal Kanadan eta Eki Afrikan egin behar ziren trenbideetarako Txinatik eta Indiatik eraman ziren peoiak. Fiji, Natal, Queensland eta Mendebal Indietako sail-jabeek Indiatik eta Polinesia-tik bildu zituzten langileak kontratu bidez.Jokabide honek eztabaida latzak sortu zituen autogobernudun kolonietan, ze bertako langile biziliarrak beldur ziren,asiarren etorrerak bizimaila eratsiko ez ote zien. Columbia britainiarrean eta Australasian erresumin bizia sortu zuen asiar eta polinesiarren esklusioak. Eta mankomunitate australiarra eratu bezain berehala, lege federalek neurriak hartu zituzten, Australiako populazio zuria segurtatzeko asmoz.

...

* 5. Mendebaldeko hizkuntzak

Beharbada, europartze-prozesuaren tresnarik preziatuenetariko bat, hizkuntza da, berau kultura eta sistema oso baten eramaile bihurtu bait da.

Ingelesa, espainiera eta frantsesa bezalako hizkuntzek zabalerazi dute Europaren izpiritua, munduan zehar. Ondorengo lerroetan eredu jakin bakar bat hartzen dugu, frantsesarena, fenomeno kolonial hori hurbilagotik ezagutzeko.

Adituek, honela sailkatu dute frantsesaren mundu-hedakuntza:

a) Frankofonia barreiatua.

Aspaldidanik, XVI. mendetik bederen, hizkuntza frantsesa duten herrialdeek osatzen dute hizkuntz geografia hau; baina gerora frantsesaren ofizialtasuna galdutakoak dira herriok.

Frantses sakabanatu honetan hiru lurralde bereiz ditzakegu:

KANADA: Lurraldeon aurkikuntza J. Cartier-ek egin zuen 1534ean, baina lehenengo kolonoak 1608ko urtekoak dira. 1763an, Pariseko Tratatua zela medio, Britainia Haundiaren eskuetara pasatu zen. 1867ko urtean sortu zen Konfederazio Kanadarra. Kanadan, frantses jatorria duen populazioa lurralde hauetan dago kokatuta:

Quēbec: Bost milioi bizilagun ditu; % 80-ak (lau milioik) frantsesa du ama-hizkuntza. 1867-an elebitasun-akta ezartzen da, "quebecois"-ei

...

Asiarren esklusioari buruzko polemikak politika-alorrera bultzatu zituen langileak, eta federatzera animatu Australiako koloniak. Legeria eraberdin bat behar zen, Australia arraza zuriaren kontinente bezala mantentzeko. Baina ez zen izan arraza-nagusitasunaren ustea, eta bai beren bizibideak babestu nahia, langile australiarrei inmigrazio-arazoan hain jarrera zorrotza har erazi ziena (...).

Frantses hizkuntzako kanadarrak eta beren hizkuntza propioan hitz egiten zuten hego afrikarrak ederki batean jakin zuten britainiar-gisako gobernuaren instrumentuak erabiltzen". (P. KNAPLUND)



L.S. SENGHOR (1906). Politikari afrikar hau idazle ere bada, eta frantsesez idatzi izan du, belztasunaren ("negritude") teoria landuz. Senegal-eko lehendakari eta Frantziako Akademiako bazkide osoa da. Hemen, bere emazte zuriarekin ageri da. Anbiguitatez eta kulturarteko harremanez beteta daude neokolonialismoaren ahaleginak.



Toussaint Louverture. Grabado

TOUSSAINT LOUVERTURE (1743--1803). Esklabu izandako general haitiar hau izan liteke Amerikako beltzen independentzi eta askatasun-gogoaren sinbolo bat. Napoleoni aurre egin zion eta Haiti-ko lehendakari bilakatu zen (1800); baina, garaitua, Frantzian hil zen: "Santo Domingoko askatasunaren zuhaitza bota duzue, baina sustraiak laster haziko dira berriz, ugariak eta sakonak dira eta...". 1804ean lortu zen independentzia; baina hizkuntzak betirako lotzen zuen errepublika berria Frantziarekin.

(frantsesez mintzatzen den hiztunari horrela esaten zaio) ingelesa inposatuz, dekretuz. Azken hogei urteotako hizkuntz politika berriari esker, frantsesak gorakada nabaria ezagutu du Quēbec-en. **Ontario**-n ere badago populazio frantses bat, 800.000 biztanlerekin. **Akadia**-k osatzen du Kanadako lurralde frantses-hiztuna: Akadiako hiru probintzien artean Nouveau Brunswick da garrantzizkoena, frantses jatorriko populazioaren % 40 bat han biltzen delako. Lege berriek, bermatzen dute frantsesa erabiltzeko eskubidea, eta probintziako legegintz asanbladak berak onartzen du elebitasuna.


LUISIANA: Robert de la Salle-k irabazi zuen lurralde hau Frantziako erregearentzat, 1628-an. Frantsesaren ezarpena hiru unetan eta populazio-mota ezberdinekin egin zen: Lehenik, New Orleans-en kokatutako kreoloekin (1730); bigarren, akadiarrekin, 1765ean beren jaioterritik alde egitera behartu eta Luisianara bildu zirenekin; mulatuekin azkenik, hau da, esklabuen ondorengoekin.

HAITI: Bost milioi bizilagun ditu. 1950. urteko Konstituzioak ofizialtasuna eman dio frantsesari. Egia esan, herriak "patois" bat dauka bere hizkuntzatzat. "Patois" honek, frantsesaz gainera, bertako bizilagunen beste ekarpen linguistikoak ere jasotzen ditu.

b) Hedapen-frankofonia

Frantsesaren beste barruti hau XIX. mendekoa da, azken kolonizazioen garaikoa. Lau lurralde bereizten dira:

Maghreb-a: Lehenengo kolonizazio linguistikoak ahulaldi bat izan zuen deskolonizazioa-



INGELESAREN ZABALKUNDEA: USA. Hizkuntzen geografia eta emigrazio kolonizatzaileak elkarrekin lotuta ageri ohi dira mapetan. Garai batean, gaztelania eta indiarren hizkuntzak nagusi izandako lurraldeetan zabaldu zen ingelesa Ipar Amerikan, mintzaera dialektalak honela banatuz.

..... Dialekto-mugak
<---- Migrazioen norabidea

rekin, frantsesak indarra galduz. Azken hamarkadetan berriro sartzen dute eskoletan. **Afrika Beltza**: Frankofonia hau zabala da: Zaire, Rwanda, Burundi, Senegal, etab. **Indiko-ko Irlak**: Hauetan bigarren hizkuntza bezala bizi da frantsesa (Komores, Maurizio, Seychelleak). **Asian** ere kolonialismoak utzi du aztarnarik: Ekialde Hurbilean, Libanon eta Syrian hedatu zen bereziki frantsesa eta Ekialde Urrunean Indotxinan.

Ekonomian, politikan edo kulturan lortutakoen ondoan, mendebaltze-prozesuak izan ditu munduan aurre egin diotenak ere. Ez da erabat borondatez onartu, gutxiagorik ere, kolonialismoak ezarritako europartzea.

AUSTRALIA: BANAKETA ADMINISTRATIBOA

Sei Estatu	**Kilometro^2**	**Bizilagunak**
Hego Australia	984.377	1.211.000
Mendebal Australia	2.527.621	1.084.000
Hego Gales Berria	801.428	4.738.000
Queensland	1.727.522	1.947.000
Viktoria	227.618	3.616.000
Tasmania	68.332	399.000
Eskualde federala (Camberra)	2.432	185.000
Ipar Lurraldea	1.347.519	98.000 (zuri)

III. ERRESISTENTZI FAKTOREAK

A) AFRIKAN ETA OZEANIAN

Afrika Beltza oso lurralde interesgarria bihurtzen ari da Mendebaldeko potentzientzat, kontinente honek dituen baliabide mineralak (diamante, kobalto, uranio, kobre, bauxita...) eta petrolioa kontutan harturik. Aberastasun honek bultzatuta, desoreka handiak soma daitezke Afrikan, petroliodunen eta gabeen artean, baliabide mineraletan pobreak edo aberatsak direnen artean. Desoreka honetan Mendebaldeko potentziek badute zerikusirik. Azken buruan, Ipar-Hegoaldeen arteko gatazka dago funtsean.

OZEANIA: IRLATEGI SAKABANATUA

Australia/Tasm.	7.700.000 km^2
Ginea Berria	810.000 km^2
Zeelanda Berria	296.000 km^2
Britainia Berria	37.900 km^2
Kaledonia Berria	16.750 km^2
Viti Levu Irla	10.500 km^2
Hawaii Irla	10.400 km^2
Bougainville(Sal.)	10.000 km^2
Irlanda B. (Bism.)	8.600 km^2
Guadalkanal (Sal.)	6.475 km^2

Eta beste milaka irla txikik osatzen du Ozeania, Ozeano Pazifikoan erabat sakabanatuta. Apenas den kontinente bat, Ozeanoan galdutako arkipelagoa baizik. Hego Ekialdeko hiru lurralde handiak (Australia, Zeelanda Berria, Ginea Berria) albora utzita, arkipelago ozeaniarrek 140.000 km^2 baizik ez dituzte: oso gutxi halako Ozeano mugagaberako.

Afrikak duen erreibindikaziorik garrantzitsuena ordenamendu ekonomiko berriarena da, hots, herrialdeen arteko lankidetzan oinarritu beharko lukeen ordenarena. Egun ez da praktikatzen lankidetza ekonomiko hori, egiazkorik behintzat, EEE eta ACP (Afrika, Karibe eta Pazifiko-ko Estatu-multzoa) izeneko organismoen artean, lankidetza motel bat azaldu bada ere azken urteotan. OUAk badu zertaz kexatu, herri industrializatuek zatitu egiten bait dute Afrika, gero hartaz jabetzeko asmotan. Asmo neokolonialista hauen aurrean, Afrikak ezinbesteko problema bat planteatzen du, sinple eta ikaragarria: 2000. urterako elikadurazko autosufizientzia lortzea. Tamalez, lortuezinezko utopiatan ari zaio gelditzen Afrikari helburu hau, haraino iristeko gainditu beharreko oztopoak latzak dira eta.

Giro ekonomiko korapilotsu honetan, Afrika lehen kolonizatzaile izandakoen esanetara dago: Metropoliko hizkuntzak mantendu egiten du bere ofizialkidetasuna eta Europatik edo Ipar Amerikatik doazkion bizikerak nagusitzen dira, arbasoen jakituria, mendeetan zehar heldu dena, baztertuz. Gaur egun kontraizan itzela somatzen dugu Afrikako kulturatan: Batetik, Mendebaldeko joerak ari dira nagusitzen; bestetik, eta egun inoiz baino gehiago, goraipatuta dago beltz izatearen kontzientzia, hots, belztasunaren duintasuna errekuperatzen ari dira afrikarrak.

Afrikari eskaini diogun pasartea amaitzeko, esan beharra dago, oso ahula izan dela Afrikako herrialde gehienek egindako erresistentzia; salbuespen bakarra, Dahomey-koa da.

Ozeanian, Afrikan gertatu zen bezalaxe, baztertuak izan dira aintzinakoen kulturak eta bizikerak. Ozeaniako erresistentziak ahulak izateaz aparte, oso desberdinak izan dira, izan ere oso bestelakoak bait ziren hango gizarteak zituen antolamendu-moduak. Gizarte zentralizatu batean, esate baterako, erraz buru daiteke asimilazio-prozesua, ba buruzagiak asimilatuz gero berehalaxe asimilatzen bait da talde osoa ere. Honela, erresuma berriak hasi ziren azaltzen, Europako ereduak imitatzen ahalegintzen zirenak, era askotako antolamendu politikoekin eta aintzinako kultura eta ohiturekin nahastuak. Gizarte deszentralizatuetan, berriz, askoz nekezago egiten da asimilazio proze su hori. Arrazoi honexegatik Melanesiak eskaini du berez erresistentziarik iraunkorrena. Baina ezingo da hemen ahantzi, Ozeanian dagoen Australia ere, erabat europar bilakatua.



ERRITUZKO MUGARRIAK (Ginea Berria). Mendez mende beren heldutasunera iritsitako kulturak topatu zituzten europarrek Amerika eta Asian ezezik, Afrika eta Ozeanian ere. Erlijio, arte eta balio-sistema guztiak kolokan aurkitu dira topaketa hartatik hona.


B) ISLAMaren ERRESISTENTZIA

Herri islamdarren kasua beste gisa batekoa da: Kultur tradizio oso baten zerbitzuan Estatu-antolamendu garatuen babesa izan duten gizarteen kasua. Erresistentzia jator baterako tresnak bazituenarena, beraz.

* 1. Gaurko hedadura

Mediterraneo Arroan ezezik Asian eta Afrikan ere topa ditzakegu herri islamdarrak. Gaur egun 600 milioi inguru dira Mahomaren jarratzaileak, ondoko taldeotan banatuta:

- Islam Arabiarra: Islam-aren bihotza da, bere hizkuntzak eta unibertsitate erlijiosoek duten eraginagatik. Gibraltartik Golko Persiarreraino hedatuta dago. Sunnitak dira gehienak, Xiiten gutxiengoa ahaztu gabe.
- Aurreko multzoaren Ipar eta Ekialdean, arabiarrak ez diren herrialde musulmanak ditugu. Pertsia eta Turkiatik jaso dute beren kultura. Oso egoera desberdinetan aurkitzen dira: Turkiako Estatua laikotzat jotzen den bitartean, Iran-en kleroa da nagusi eta Afghanistan-en gobernu komunista. Orobat, Txina urrunean ere.
- Soviet Batasuneko musulmanak 50 milioi dira, Erdi-Volgan, Kaukasian eta Ertasian kokatuak.
- Asian, Pakistan, Bangla Desh eta India-ko Errepublikek musulmanen % 10a biltzen dute.
- Afrika Beltzean ehun milioi dira musulmanak, Nigeriak % 40a duela.



MOHAMED ALI. Egypto-ko paxa honek bere gobernaldian (1805--1848) erreforma modernoak egin zituen, armada eta ekonomia eguneratuz (kotoiaren laboreak sartuz, adibidez). Teknikari europarrak deitu eta ikasle gazteak Europara bidali zituen. Irekitasun-politika bera eraman zuen paxak ere (Ismail, 1863-1869), beronen adibide hona da Suez-eko Kanalea (1869).

* 2. Musulmanen arteko batasuna

Mende honen hasieratik bi ideologi mota hedatu ziren: panislamismoa, musulman guztien Estatu bakarra bultzatu nahi zuena, eta panarabismoa, arabiarren arteko batasuna bilatzen zuena. Biek porrot egitean, zentzu praktikoagoa izango zuten geroko batasunerako saioaldiek.

Bi erakunde aipagarrienak ekarriko ditugu hona: a) Liga Arabiarra, 1945ean sortua eta 22 Estatuk osatua dagoena. Elkarren arteko lankidetzan aritzeko egina dago. Estatuen arteko istiluez ere arduratzen da. b) Konferentzia Islamdarra, 1965ean sortua, juduek Jerusalem hiria okupatzean. Azken hamarkadetan neurri gogorrak hartu behar izan ditu: 1979an, esate baterako, Egypto kondenatu zuen eta 1980an Afghanistan-eko inbasioa salatu.

Islama: gizarte bitartekaria

"Essad Bey entseiulariak arrazoiz esaten duen bezala, 'Islama basamortua da', baina basamortu hau, edo hobeto esan, basamortu-multzo hau kokatua dago, alde batetik, bi nabigazio-eremuren artean, bi ur gazizko hedaduraren --Mediterraneoaren eta Ozeano Indikoren-- artean eta, bestalde, hiru giza masa aski ugarien artean, nola diren, Ekialde Urruna, Europa eta Afrika Beltza.

Baina guztien gainetik 'kontinente bitartekaria' da Islam-a, hiru eskualde zabal horiek elkarrekin harremanean jartzen dituena". (F.BRAUDEL)

DEMOGRAFIA ARABIARRA

"Arabiarren mundua, idazten zuen Sauvy-k (eta beste horrenbeste esan zezakeen mundu musulmanaz oro har), bere demografian irakin betean aurkitzen da: jaiotzen tasa munduko handienetakoa du 1000ko 50 bat inguru, hau da 6 edo 7 ume familia bakoitzeko. Gutxitu non egingo zen, ugaldu egin da jaiotzen kopurua poligamia murriztean eta higienea handiagotzean. Jaiotza-tasa bortitza bada, heriotza-tasa beheraka doa, izurriteak, goseteak eta tribuen arteko gerrak gutxitu direlako. Ez dago zihur finkatzerik gaurko heriotz indizea zein den, baina beheraka doa dudarik gabe 1000ko 20tsu batera inguratuz. Populazioa urtean 100eko 2,5etik 3ra bitartean gehitzea ez da inolako salbuespena. Algeria, Tunisia eta, duda gabe, Egyptoren kasua da. Hazkunde-erritmo hau (belaunaldi bakoitzean biztanleria bikoiztea) Europa bere garairik jatorrenetan (1etik 1,5ra bitartean urteko) irakiten jarri zuena baino handiagoa da eta ez dauka honek bezala emigrazioaren edo kolonialismoaren lasapiderik". (F. BRAUDEL)

* 3. Islam-a historian

a) Europa Maghreb-ean

XIX. mendearen hasieran, Maghreb-eko herriak, behartsuegiak izan gabe ere, oso ahulak ziren Europarekin konparatuz. Nekazaritza zaharkitua, merkataritza sendorik eza, modernotasunik gabeko hezkuntza erlijiosoa, etab. Testuinguru horretan, indartsu eta tentagarriegia zen Europa.

Ingurune desgaratu honetan kokatu zen Frantzia, ehun urtez, 1830tik 1930era bitartean. Okupazio honen aurka Abd-El-Kader-ek eginiko erresistentzia dugu aipagarri. Algeriaren konkista, Napoleon III.arekin amaitu zen. Tunisia 1881ean eta Marokko 1912an protektoratu frantsesak ziren.

DEMOGRAFIA, TOLERANTZIA ETA ESKLABUTZA

"Gizon gutxiko zibilizazioa izatean, beharturik aurkitu da Islama, iraganaldian, eskueran aurkitzen zituen gizonak beren hartan erabiltzera. (...)

Paradoxaz, gehiegizko populazioa dauka gaur egun, gero ikusiko dugunez: 365etik 400a milioi inguru lagun, hau da, lurbirako gizaki guztien zazpi edo zortzitatik bat; gehiegi, bertako baliabideak kontutan hartuz gero.

Baina, behiala, bere distiraldietan, 30etik 50era milioi gizon izan zituen altuenik ere, 300etik 500era milioiko mundu-populazio batean. Eta gutxi da, ze proportzioa, grosso modo, bere hartan mantentzen den arren, bistan dago, garai hartan Islamak, erlatiboki, askoz ere karga astunagoak zituela gaur baino. Benaz, planeta honetako historia globala gidatu zuen, Amerika aurkitu aurretik Mundu Zaharrak (Europa, Asia, Afrika) bakarrik osatzen zuena.

Hortik zama astunen ugaritasuna: gobernua, merkatalgoa, gerra, zaintza militarra. Horiek behar bezala burutuko bazituen, aurkitzen zituen bezala-bezalaxe onartu behar izan zituen gizonak alde guztietan, Mendebaldeak, bere bakarrean aberatsegi zenak, inola ere praktikatu ez duen tolerantzia batekin. Gainera, bere mugetatik kanpora, bazter guztietan bilatu ditu gizonak, eta bilatu ere halako seta eta insistentzia batekin, zeinak egiten bait du Islam klasikoa zibilizazio esklabista batipatekoena.

(...) Egia esan, hiri musulman guztiek dauzkate arraza, erlijio eta hizkuntza desberdinetako auzoak. 1651n, Padischah otomanaren jauregiko errebolta batean, Babel-eko madarikazioa erori zen Serrailaren barruan, hango paje eta Sultanaren ofizialeen gain, eta ezer egin ezinean utzi zituen. Emozioarekin, osmanli hizkuntza artifizialki ikasia, ahaztu zuten gizonek, 'eta testiguek harriturik, --idazten du P. Ricart-ek (1668),-- ahotsezko eta hizkuntza desberdinezko zarata handi bat aditu zuten. Batzuk georgieraz ari ziren deiadarka, beste batzuk albanieraz, bosnieraz, mingrelieraz, turkieraz, edo italieraz'. Adibide eder bat da, beste askoren artean: nahikoa da kortsario turkiarrez betetako Alger hartan pentsatzea". *(F. BRAUDEL)*

b) Independentziarako hiru bide

Pasarte honetan herrialde musulmanek Europarekiko independentzia lortzeko eman dituzten irtenbide batzuez arituko gara. Hiru sistema edo bide hauek musulmanen nahiak eta jarrerak isladatzen dituzte. Azpian, Islamaren eta Koran-aren interpretazio ezberdinak daude oinarritzat harturik.

- Egypto nassertarra

1945. urteaz geroztik gogortu egiten da independentzi mugimendua: grebek, sabotajeek astindu zituzten okupatzaileak eta monarkia egyptiarra (azken honi potentzien laguntzaile izatea leporatu zitzaion).

EMAKUME ISLAMDARRA

"Beloa, Ekialdean gizadi-erdiaren alineazio-seinale dena, ez dute inoiz erabili laborarien emakumeek, ez finkatuek eta ez nomadek. Benetan, badute horiek tela-zati bat baino hesi zorrotzagorik atzerritarren begiratuetatik babesteko.

Hiri musulmanetan, azken urteotararte, salbuespenik ametitzen ez zuen araua izan da beloa eramatea emakumeentzat; usario hau liburu santuetan aholkatu ikustea aski da atzerritarren izpiritu kurioso askorentzat hori erlijioarekin lotzeko. (...).

Gure hipotesiaren arabera, Hego Mediterraneoko emakumea izango litzateke, tribu nomadek ezinbestean eta etengabe herri eta hirietaratzeko ageri duten joera sozialaren biktimarik nagusiena. (...). Ugari ziren emakumea babesteko zeuden aginduak, baina gutxi bete ziren; emakumearen libertatea murrizten zuten agindu apurrak, berriz, zabaldu eta gogortu egin ziren. Baina ulertzeko modukoak dira testu sakratuaren deformazio bikoitz horren arrazoiak, tribuko egoera batetik hiri zaratatsuko bizimodura aldatzeak emakume-izateari sortzen dizkion aldaketak kontutan hartzen badira.

Sistema honetan, gizartearen arau guztiek helburu bat bilatzen dute: talde sozialaren integritatea mantentzea, eta ahaleginak egitea, senitartekoa ez den gizon bat klaneko emakume batekin ezkontzea galerazteko. Horregatik ezinezkoa da lurralde hau zeharkatzea, emakumearen ahaide batek garantia osoz lagundurik (eta isolaturik) ibili gabe. (...).

Hirietan, ordea, helburu endogamikoak bizirik jarraitzeko modurik izango badu, boto baten egoeran behar du izan; boto honen materializazioa, berriz, beloa da, beloa eta neska islamdarrek jasaten duten klaustramendua".

(F. BRAUDEL)

1952an errepublika aldarrikatu zuen ofizial askeen batzorde batek. Batzorde hartako bi ofizial, Nasser eta geroxeago Sadat Egypto-ko presidente izatera iritsiko ziren; biak ziren musulman suharrak, sozialismoaren jarraitzaile, baina marxismoaren gaitzesleak (erlijioarekiko honek dituen tesiengatik batipat). Arazo nagusi berdinak izan zituzten biek: demografiaren hazkundea eta palestinarren problema.

Islam ibiltaria

"Hainbat mendetan zehar Islamak bakarrik jartzen ditu zirkulazioan Sudan-eko urrea eta esklabu beltzak, Mediterraneoaldera igarotzen den bitartean; Eki Urruneko zeta, piperrautsa,espeziak, eta perlak Europara igarotzean. Asian eta Afrikan Ekialdeko komertzioa monopolizatzen du. Komertzio hau merkatari italiarren eskuetara iristen da,Alexandriatik bakarrik, Alepo-tik, Beirut-etik, edo Siriako Tripoli-tik bakarrik.

Islama beraz, mugimenduko, pasaizoko zibilizazioa da batipat, eta baldintza honek dakartza urruneko nabigazioak eta anitz modutako karabana--zirkulazioa, batez ere Ozeano Indikoaren eta Mediterraneoaren artean hedatua, jeneralean Itsaso Beltzetik Txinara eta Indiara ausartzen dena eta, azkenik,beltz-herrietatik Ipar Afrikaraino efikaza dena. Karabana hauek (Ekialdean elefanteak baziren arren eta pixka bat alde guztitan zaldiak eta astoak ere) gamelutan egiten dira bereziki. Albardako gamelu batek hiru kintalerainoko karga deusgaia eraman dezake.Nola karabana batek 5.000 eta 6.000 gamelutaraino biltzen dituen, ba horren bolumen globala kargako belaontzi kabiera handi-handiko batekin konpara daiteke". (F.BRAUDEL)

ISLAMdar SOVIETARRAK

"Kolonialismo sovietarraz hitz egin ahal daiteke? Gehienean, atalburu klasiko honetan, kolonialismo ingeles, frantses, belgikar edo holandarrez hitz egiten da. Dudarik ez dago, rol gaitza izan dutela kolonialismo horiek. Baina kolonialismo errusiar bat, geroago sovietarra, ere izan da, nahiz eta horretaz hainbat hitz egiten ez den; agi denez, ez dio ukorik egin 30 milioi musulman, gutxienez, bere menpean izateari.

Baina hitz egin ahal daiteke benetan kolonialismoaz? 1917ko Iraultza errusiarraz gero egundoko ahaleginak egin dira emantzipazioa lortzeko eta deszentralizatzeko. Kontzesioak egin zaizkie autonomia lokalei eta egundoko aurrerapen materialak lortu dira. 'Gaur egun, Soviet Batasuneko nazio musulman guztiek, turkestaniarrak eta kaukasiarrak batipat, beren koadro zientifiko, administratibo eta politiko propioak dauzkate, beren 'intelligentsia' propioa. Tartariarren parean jarri dira eta jada ez daukate zertan Kazan-eko intelektualen zerbitzurik eska". Kazan hau da, Errusiako kultura musulmanaren aintzinako zentrua, behinola esklusiboa zena. (...).

Hitz gutxitan, S.B.eko musulmanen problemak, badirudi, eta oraingoz hala da, nazioartean ozenki agertzen diren Islamaren errebindikazio arruntetatik kanpora gelditzen direla. Errepublika musulman sovietarrak independente dira, baina mamikiro loturik daude sovietarren multsoarekin (kanpo-politika amankomuna, menpetasuna defentsa nazionalaren alorrean, haziendan, irakaskuntza publikoan, trenbideetan)".

(F. BRAUDEL)

Nasser presidentea Egypto-ren independentzia segurtatzen ahalegindu zen; horretarako, atzerritarren eragina murriztu eta enpresak nazionalizatu zituen: Suez-eko kanalea (1956).

Sadat presidenteak, Israel-ekiko bakea segurtatzen duen Camp Davis izeneko ituna izenpetu zuen. Presidente honek Nasser-ek harturiko erabaki batzu (Soviet Batasunarentzat mesedegarriak zirenak gehienbat) baztertu egin zituen, EE.BB.ekin

ISLAMAREN IRAULTZA

"Islamak aldi berean bizi behar ditu gaur egun, iraultza erlijioso bat, Erreformarekin konparatzeko modukoa, iraultza intelektual eta moral bat, Aufklärung-ekoarekin konparatzeko modukoa (...); iraultza ekonomiko eta sozial bat, Europak XIX. mendean ikusi zuen iraultza industrialaren gisakoa. Eskualde-sistema handien (bi blokeen, Eki- eta Mendebaldekoen) garaian bere barneko iraultza nazional txiki guztiak bizitzea tokatzen zaio. Itun planetarioak izenpetzen diren garaian herrialde musulmanak oraindik ere beren Garibaldi-en zain eta bila dabiltza.

Nazionalismo oro, lehen eta orain ere, 'kontrakolonialismo' bat da, alegia atzerriko menpetasunaren kontrako erremedio bat: askabide bat". (F. BRAUDEL)

PETROLIOAREN PRIBILEGIOAK

"Royalty direlakoek, gizarte-pribilegio sail bat sortzen dute herrialde musulmanetan. Royalty-etako dirua ez da zuzentasunez banatzen; aitzitik, askotan, kasta baten itxuragabeko luxua handitzeko izaten da, eta luxu honek ez du areagotzen produkzio lokalik: diruak atzerrian xahutzen dira, eta xahutuz ere, herrian bertan sekula emankor izango ez diren ondasunak erosten. Saudi Arabiak petrolioari zor dizkio bere hiri, kamino, trenbide eta aireportuak, eta aurrerapen hau nabaria da noski. Baina errege-familiaren eta tribu-buru nagusienen neurrigabeko luxu anakronikoa ere petrolioari zor dizkio. Ikuskizun honek bere onetik ateratzen du gazteria, Egyptoko iraultzaren exenpluak asaldaturik dagoena, eta burgesia ere bai, irrikitzen bait dago arazo publikoetan parte hartzeko.

Erreparatzaile on batentzat, Ekialde Hurbileko petrolioa XVI. mendean Amerikako zilarra izan zenaren parekoa da: bertako ekonomia indartu gabe igaro zen Espainian barrena, eta Europako ekonomia indartsuak aberastera atera zen kanpora". (F. BRAUDEL)

elkar ulertzea bultzatuz. Mendebaldeko potentziekin lankidetza gero eta estuagoagatik eta Israelganako jarrera berriagatik, Egyptoko armadako talde batek hil egin zuen Sadat presidentea, 1983ko urtean.

- Algeria Independentea

Zailak izan dira Algeriarentzat independentzi ondoko hamarkada hauek, metropoliak ez bait zuen bere kolonia independentziarako prestatu, dependentziarako baizik.

Herri-errepublika honetako agintea hartu zuten FLNeko buruzagientzat Frantziaren aurkako gerra askatasunerako bide ezezik, iraultzarako biderik zuzenena ere izan zen. Herriaren izenean saiatu zen gobernatzen FLNa, ongizatea eta gizarte-justizia lagunduz. Sozialismoaz baliatu zen horretarako; baina, aldi berean, herritarren funtsezko tradizio musulmana ahantzi gabe.

Algeria Estatu autoritarioa da. Bertan presidente bat, botere osokoa, eta kontseilu militar bat daude. Kontseiluak izendatzen eta berak kentzen ditu ministrariak. Legezko alderdi bakarra FLNa da. Islam-a erlijio ofizialtzat hartua dago, nahiz eta beste erlijio edo sinismenak ametituak izan.

Ekonomia nazionalizatuta dago, eta ekonomi planak egiten dira, hazkundea bideratzeko. Industri saila, petrokimika eta gas naturala izan daitezke ekonomia honetako oinarriak. Kanpo-politikari begira, blokeen borrokatik aparte dago Algeria (ez-alineamendua). Herri arabiarren artean, errebindikazio palestinarren defendatzailerik irmoenetariko bat da.

Liga Arabiarra: Gutuna (1945)

"2. Art.- Ligaren asmoa da Estatu kideen arteko harremanak sendotzea, eta horien ekintza politikoa koordinatzea, xedetzat hartuz, elkarren arteko lankidetza indartzea, haien independentzia eta subiranotasuna zaintzea eta Liga, orokorki, herrialde arabiarrekin eta hauen interesekin zerikusi duten arazoetan interesaraztea. Xedetzat du berebat, Estatu bakoitzaren erregimen eta baldintzen barruan, Estatu kideen arteko lankidetza handi bat segurtatzea ondoko arazo hauetan:

a) Ekonomi arazoetan;
b) Komunikabideetan;
c) Arazo intelektualetan;
d) Nazionalitate, pasaporte, bisa, epaien exekuzio eta estradizio-arazoei dagozkienetan;
e) Arazo sozialetan;
f) Sanitate-arazoetan".

- Iran eta Iraultza Islamdarra

Iran ere Europaren azpian egon zen. 1914-eko urteaz aurretik, Ingalaterrak hegoaldea menperatzen zuen, eta Errusiak iparraldea. Potentzia hauek Pertsiatik alde egitean, militar bat, Reza Khan, igo zen boterera, Pahlevi-tarren dinastia fundatuz. 1942an, sovietarrek eta britainiarrek koroa kendu ondoren, Alemaniarekin harreman hertsiak bait zituen, Reza Pahlevi bilakatu zen Xa, 1978ko urteraino. Honek diktadore-moduan gobernatu zuen: alderdi politikoak debekaturik egon ziren, eta Sava izeneko polizia politikoak kontrolatu zuen oposizioa.

Dena dela, politika-mundutik ekonomiara bagatoz, berrikuntza bat ezagutu du Iran-ek Reza Pahlevi-ren erregealdian. Iran gaurkotzen saiatu zen, horretarako petrolio-produkzioaz eta EE.BB.-etako laguntzaz baliatuz: Enpresa petrokimiko handiak, zentral nuklearrak, telekomunikazioko enpresak edonon ari ziren ugaltzen. Hala ere, hau dena gain-estalki bat besterik ez zen. Populazioaren erdia baino gehiago alfabetatugabea zegoen, eta gutxiengo bat aberasten ari zen bitartean, gehienek ez zeukaten ozta-ozta bizitzeko behar zutena ere; miseria gorrian bizi zen herria. Itxurazko lorpen handiak gorabehera, mendebaltzeko asko falta zitzaion Iran-i.

Oposizioa, oso banatuta egonarren, antolatuz joan zen 70eko hamarkadan: Liberalak, iraultzaile antikapitalistak (alderdi komunista), oposizio erlijiosoa... 1978ko urtarrilean hasi zen Iraultza. Istiluak, grebak, errepresio basatia... Gobernua erreforma motel bat egiten saiatu bazen ere, prozesu iraultzailea geldiezina zen ordurako.

Xa-ren gobernuaren kritika

"Gorteko harrera kostosoak eta alferrigaltze guzti horiek kenduko balira, Haziendak ez luke horrenbesteko zulorik eta defizitik izango, eta ez legoke Amerika edo Ingalaterraren aurrera belauniko laguntza eta babes eske joan beharrik! Gure herria pobretu baldin bada, alferrigaltze eta lapurreta horiengatik da. Ez daukagu, ba, petrolioa gure esku? Aberatsak gara gu, izan, baina lapurreta horiek pobretu gaituzte. Hor dago alferrikako organizazio administratibo hori ere, bere burokrazia eta paper-jarioarekin, Islamarentzat osoro arrotz dena, eta altxor nazionalari hainbeste kostatzen zaiona.

Honek guztiak ez dauka zerikusirik Islamarekin eta buruhauste eta denbora-alferrigaltzea besterik ez dio herriari ematen. Aitzitik, oso sinpleak, praktikoak eta bizkorrak dira Islamak erabilitako metodoak. Justizia islamdarra indarrean zegoenean, aski zen epailea bere bi akolitorekin, luma bat eta tintontzi batekin, jendearen arteko haserreak eta konpondu beharrak konpontzeko eta jendea lanera bidaltzeko". *(JOMEINI)*

1979an Iranetik ihes egin behar izan zuen Xa-k. Berehala, Ayatollah Jomeini buruzagi erlijiosoaren itzulera onetsi behar izan zuen ministrari-buru zen Bakhtiar-ek. Honekin berriz iraultza bukatu ez, baina hasi egiten da: Iran-eko Iraultza Islamdarra (1979). Mendebaldeko balio eta loturetatik urrun egin nahi zen iraultza berria, eta batez ere EE.BB.en politika inperialista izan da aurrez aurre gogorkien salatua (Enbaxadari erasoa, 1979).

Iraultza islamdar honek Iran-eko minoria nazionalengan piztu zituen itxaropenak lehenik (deszentralizazio-promesak), baina Iran-eko mugetatik kanpo ere izan du oihartzunik, herri musulmanen artean. Mendebaldeari aurpegi eman dion mugimendu ideologikorik bizienetakoa izan da jomeinismo xiita hau, herri pobreen esplotatzaileen kontrako bandera bere eskuetan hartzean.


ISLAMA: GIZA GEOGRAFIA AHULA

"Islamak, beraz, bere patuari eratxikitzen dizkio basamortuen inguruetan azpian zituen hainbat eratako ahulezia guztiak: bere hiri itoegiak, merkataritz beteak, bere labore-lur murritzegiak, tentsioan bizi zen zibilizazio bat. Beti daude etengabeko zailtasunen mehatxupean.

Haren biztanleriaren egungo mapa batek adierazten du hori argi eta garbi: Islama osatzen dutenak dira, biztanleria eurrez duten eskualde batzuk, tartean izugarrizko hutsuneak dituztela. Ez eraikuntza hidrauliko artetsuek, ez dry farming-en (lur lehorrean laboratzearen) ondorioek, ez nekazari pazientziati eta neurritsuen borondate onak, ez zoragarriro moldatutako arbolen, hala nola olibondo edo datil-palmondoaren, aprobetxamenduak lortu dute Islamearen egunerokо bizitza segurtatzerik eta gutxiago oraindik oparotasun konkreturik.

Edozein oparotasun momentukoa besterik ez da, luxu sozialaren salbuespenezko seinale baten fruitua edo hiri konkretu bateko pribilegio baten emaitza besterik. Ondorioak aisa aurrikusteko modukoak dira. Horren artzantzan eta hainbat eratara bizi den nomadismo baten sorrera da, lehen Arabiaz hitz egitekoan aipatu duguna. 'Mutatis mutandis' deskribatutakoak Arabiako basamortuen espazio guztiarentzat balio du, non hortxe bizitzera kondenatua bait dago Islama".

(F. BRAUDEL)



ISLAMaren GEOGRAFIA DEMOGRAFIKOA. Atlantikotik Pazifikorainoko lurraldea da Islamarena: Nigeria, Mauritania edo Marokkotik hasi eta Eki Afrika, Indonesia edo Filipinetaraino alegia, tartean geratzen den Maghreb osoa, Balkanak, Turkia, Soviet Batasuna, Industan edo Txina bera ahantzi gabe. Arraza, hizkuntza, kultura eta ekonomi molde ezberdinetako herriak irabazi ditu Islam-ak bere federa. Lurralde islamiko hau misiolarien, politikari eta merkatarien ahaleginek osatu dute mendeak zehar. Mapa honetako puntutxo bakoitzak 100.000 laguneko fededun-kopurua adierazten du: ikus daitekeenez, gisa desberdinetan banatzen da biztanleria hori. Batzuetan dentsitate bete-betean (Maghreb, Egypto, Pakistan, Bangla Desh edo Java), bestetan basamortuetako dentsitate bakanarekin; behin baino gehiagotan Estatu musulman ofizialetan bilduta, eta inoiz Estatu laikoetan (Turkia, Soviet Batasuna, Txina) edo beste fedetakoekin nahasita (India, Filipinak). Ez da, beraz, harritzekoa kultura erlijioso bat beraren barnean ere etno-kultura oso bestelakoak topatzea.

ARABIARRAK ETA ISRAEL

"Ez dago zertan harritu, nazionalismo arabiar guztiak, beren betiko etsai Israelen kontra bat daudela ikustean. Israelgo Estatua, Bigarren Mundu-Gerraren ondoren sortu zena, Mendebaldearen, Mendebalde gorrotatuenaren, obra berarizkoa bezala ikusten da.

Israelen ikusgarrizko arrakasta teknikoak --mundu guztitik etorritako kapitalez mantenduak--, hark Egyptoren kontra 1948an egindako indar-erakusketak, haren esku-hartzea Suezeko gatazkakoan, haren armada koskorra, Sinai mendiko penintsula zabalean zehar garaipentsu aurreratu zenean (1956): honek guztiak bekaitza sortzen du, beldurra, etsaitasuna, lehendik ere betidanik dagoen ikusiezina gero eta handiago egiten duena.


Jacques Berque-k arrazoiz idatzi du ondoko hau: 'Arabiar eta juduak, batzuk bezala besteak, Jainko-herriak dira, hala esaterik baldin badago. Baina aldi berean bi Jainko-herri gehiegitxo da diplomatikari eta Estatu handientzat!".

(F. BRAUDEL)

8
EUROPAREN ERRELEBOA MUNDUAN

URTEAK	GERTAKARIAK
1939-1945	II. Mundu-Gerratea.
1945	Munduaren ordenamendua: Yalta, Potsdam, UNO.
1947	India, Pakistan, Birmania: Independentzia.
1947-1962	Gerrate Hotza.
1947	Marshall Plana. Kominform.
1947-1949	Grezian, gerra zibila.
1948	Berlin-eko blokeoa. Israel, Estatu berria.
1949	Atlantikoko Ituna: NATO.
	Txinako Herri-Errepublika (Mao).
	Indonesiaren independentzia.
1950	Armada txinarra Tibet-en.
1950-1953	Koreako gerratea.
1951	EE.BB.en eta Japoniaren artean Bake-Ituna.
	Mau-Mauaren gerrila Kenyan.
1953	Stalin-en heriotza: Krutxef.
	EE.BB.en eta Francoren arteko Ituna.
1954	Frantsesak Indotxinatik kanpora.
	Algeriako gerratea.
	Nasser, Egypton.
1955	Hirugarren Mundua: Bandung-eko Konferentzia.
	Varsoviako Ituna. Bagdad-eko Ituna.
1956	Desestalinizazioa.
	Hungariako errebolta. Suez-eko gerratea.
	Marokko eta Tunisiaren independentziak.
1957	Lehen satelitea: Sputnik-a.
1958	Joannes XXIII.a, Aita Santu.
1959	Fidel Castro, Kuban.
1960-1970	Deskolonizazioa.
1962	Algeriaren independentzia.
	"Kubako krisia" deitua. Vatikano II.a.
1963	Kennedy-ren heriotza.
1966-1971	Iraultza kulturala Txinan.
1968	"Maiatzeko Iraultza" (Parise).
1973-1986	Krisi ekonomiko luzea.





GERRAREN HONDAMENDIAK (1939--1945). Frontearen alde batetik eta bestetik, txikizioak ikaragarriak izan ziren Europan. Sekulako bonbardaketak egin ziren hirietan, industrialdeetan eta bidesarearen gurutzeguneetan. Ezagunak dira, esate baterako, Coventry, Bremen, Varsovia edo Berlin--eko hondamendiak. Hona hemen Varsovia-ko Gazteluaren plaza: Alemanen kontrako erreboltaren ondoren (1944), erreboltatuen gotorleku izandako hau dinamitatu egin zuten naziek. Canaletto-ren marrazkiei esker, XVIII.ean zen bezalaxe errestauratu zen dena, gaztelua ezik.


I. GERRATEAREN ONDORIOAK

Bigarren Mundu-Gerrateak Lehenengoak baino askoz triskantza handiagoak egin zituen.

Lehenengoa ez bezala, 1939-45eko Bigarren hau "guztizkoa", totala izan zen: ez nazio gehiagok parte hartu zuelako bakarrik, parte hartu zutenek beren indar eta baliabide guztiak erabili behar izan zituztelako eta hondamendiak gizarte zibila ere erabat harrapatu zuelako baizik.

Bigarren Mundu-Gerrateak inoiz ez bezala mundu osoa ikutu zuela esan daiteke, izan ere Japonia eta Estatu Batuak partaide eraginkor gertatu ziren berehala. Hala ere, gerraren pisurik handiena Europak jasan behar izan zuen, bertan gertatu bait ziren Alemaniaren aurkako borrokarik gogorrenak.

Giza galerak izugarriak izan ziren: 45 milioi hildako baino gehiago. Hauetatik portzentaia handi bat zibila zen. Airetiko bonbardaketak,



MUSSOLINIren KANPO-POLITIKA. Gerraurreko karikatura honetan (Sennep, 1934), politika faxistaren tragikomedia azpimarratzen da. Dantza- eta musika-modu guztiak zituen, alemanen esanetara ere egonez batzutan ("a la tedesca"), inoiz pentagrama hautsiz, hitz handiak erabiliz edo zerizkionari erasoz (Abisinia, 1935-1941). Politika eraso-min horren azken fruitua, Bigarren Mundu-Gerratea izan zen.

deportazioak eta nazio okupatuetako borroka politikoak izan ziren gertakari bortitzenak.

Gainera, urte haietako janari-eskasiak eta haur-hilkortasunak, gogor altxarazi zuten Europako ohizko hilkortasun-tasa.

Alemanek judu eta komunistei eraso zieten bereziki. Hauez gainera, erresistentziakoak eta gerrako preso sovietarrak ere kontzentrazio-esparruetan bildu eta, gerra galdua zegoela ikusi zutenean, asko eta asko hil egin zituzten.

Bonbardaketak ere oso hilgarriak izan ziren. Gerratearen hasieran, militar-guneak ziren erasoen helpuntu nagusi, baina etsaiaren ahalmen industriala desegitea, armada suntsitzea bezain garrantzitsua da guztizko gerran, eta bai alde batekoek, bai bestekoek, hiri-bonbardaketari ekin zioten: Londres, Berlin, Hamburg, Hiroxima, Nagasaki eta beste hainbat hiri, birrinduak gertatu ziren. Ondorioz, milaka eta milaka izan ziren hildakoak.

Bestalde, **hondamendi ekonomikoa**: Berau, Afrika eta Asiaraino (Japoniara bereziki) ere iri-

GERRATEKO GALERAK (1939-1945)

Estatuak	Galera militarrak	Galera zibilak	Guztira
Soviet Batasuna	--	--	20.000.000
Polonia*	120.000	5.680.000*	5.800.000
Jugoslavia	300.000	1.200.000	1.500.000
Alemania**	3.500.000	700.000	4.200.000
Japonia	1.700.000	300.000	2.000.000
Frantzia	250.000	350.000	600.000
Britainia Haundia	326.000	62.000	388.000
Estatu Batuak	300.000	-	300.000

*1938ko mugetan. (Horietatik, 3.200.000 judu). **1939ko mugetan.

Estatu bakoitzeko biztanleriarekin alderatuz, galeren portzentaiak: Poloniak biztanleetatik % 15, Soviet Batasunak eta Jugoslaviak % 10, Alemaniak % 6, Frantziak % 1,5 eta Estatu Batuek apalena: % 0,2. Beraz, agintedunen jendearekiko erantzukizuna ere guztiz ezberdina izan zen herri horietan.

tsi bazen, zer esan Europari buruz? Ekialdeko Europa desegina zegoen: Frontea Polonian eta Soviet Batasunean egon zen urte batzutan. Alemaniarrak Poloniako baliabide ekonomikoen jabe egin ziren, eta haiek hondatu zituzten ondasun pribatuak ezin dira ahantzi. Gisa berean, Soviet Batasunak ere galera handiak jasan zituen; hala ere, industriaren parte bat, Siberiara eramanez salbatu zen, Batasuneko lurralde erraldoiari eta denen ahaleginari esker.

Mendebaldean, Londres eta Ingalaterrako industriguneak, Italiako hiri handienak, eta Frantzia batez ere, lur jota geratu ziren. Alemaniak, berriz, hain lur jota zegoen berau, bazirudien ez zuela bururik altxatuko.

Hondamendia hondamendi, 1945aren ondoren, herri hauek beren berreraikuntza ekonomikoari ekin zioten gogotik.

Auschwitz

(Auschwitz-eko kontzentrazio-esparrua Polonian zegoen. Bertako buruzagi izandako Rudolf Hosz-ek Nürnberg-eko Auzitegian azalpen hauek egin zituen:)

"Berrogeitasei urte dauzkat eta alderdi nazional-sozialista alemaneko bazkidea naiz 1922az geroztik, S.S.etakoa 1934etik hona, Waffen-S.S.etakoa 1938tik gaurdaino. 1934eko abenduaren lehenengotik S.S.--Herio-Buruhezur erakundekoa izan naiz.

1934az gero kontzentrazio--esparruen administrazioan lan egin dut etengabe. (...) 1940ko maiatzaren lean Auschwitz--eko komandante izendatu ninduten. 1943ko abenduaren 1eraino zuzendu nuen Auschwitz, eta, uste dudanez, gutxienez bi milioi t'erdi lagun izan ziren gasez exekutatuak eta garbituak, eta ondoren erraustuak. Milioi erdi bat gutxienik gose edo gaixotasunez hil zen, hau da, hiru bat milioiko zifra bat. Auschwitz-era bidalitakoetatik % 70 edo 80, alegia. Gainerakoak, esparruaren industrietako lan bortxatuetarako aukeratuak eta enplegatuak izan ziren. (...).

Gasezko talde-exekuzioak 1941eko udan hasi ziren eta 1944eko udazkeneraino luzatu (...). Gasezko exekuzio guztiak R.S.H.A.ren mandatu zuzen, gainbegiratu eta erantzunkizun pean egin ziren. R.S.H.A.tik zuzenki jasotzen nituen nik talde-exekuziotarako beharrezko argibideak".

(R. HOSZ, 1946)


Gerra guztietan gertatzen den bezala, oraingoan ere, izan zen etekin ederrak atera zituenik; gerran parte hartu ez eta europarrei bai elikagaiak, bai industri produktuak saldu zizkietenak hain zuzen: Argentinak, Brasilek, Kanadak, eta Estatu Batuek berek ere, industria bortitza indartu zuten.

Gerra-bukaeran, hondamendiaren gainetik Ipar Amerika eta Soviet Batasuna jaiki ziren gainerakoen gainetik, beren ahalmen militar eta ekonomikoa zela medio. Britainia Haundia, ostera, guztiz atzera geratu zen, eta Europa osoan ez zegoen bi "Handi" hauei aurpegi ematekorik.

Mendez mende XX.erarte, munduaz nagusitutako Europaren behera-beharra da hau. Gerran galdutakoak ezezik, galera berriak bizkarreratuko zaizkio Europari: deskolonizazioaren aroa irekitzen da gerraondoan, kolonizatuek metropoli europarren aurka altxatzean.

II. MUNDU BERRIAREN SORRERA

Bigarren Mundu-Gerrateak ez zien egitura ekonomikoei eta giza bizitzari bakarrik eraso. Ordurarteko balio moral eta ideologikoek ere izugarrizko astindua jasan zuten gerrate hartan: Giza duintasunaren balioa, adibidez, zalantzan jarri zuten nazien metodoek. Duintasun hura indarberritu nahiz, Nürnberg-eko prozesuan gizadiaren aurkako krimenen kontzeptua erabili zen.



NÜRNBERGeko JUDIZIOA (1945--1946). Gerra amaitzean nazien krimenak epaitzeko Nürnberg-en eratu zen aliatuen epaitegia: 80 gidari politiko, militar eta ekonomiko aleman eta III. Reich-eko sei erakunde izan ziren juzgatuak. Hamaika izan ziren heriotzera kondenatuak, beste batzuk presondegira, eta zenbait absolbituak. Lau erakunde nazi izan ziren kriminaltzat emanak. 1946ko urriaren 16an izan ziren urkatuak horretarako kondena zutenak (Goering ezik, honek bere burua hil bait zuen bezperan). Argazkian ikus daitezke judizioan erruztatuak.

Beste arlo batean, arraza zuriaren nagusitasuna mantenduezina gertatu zen, herri kolonizatuak, berauek mendebaldarrengandik entzundako askatasun-, berdintasun-, aurrerapen-ideiak berenganatu eta errebindikatzen hastean. Roosevelt-ek eta Churchill-ek sinaturiko Atlantikoko Gutunak "herri guztiek beren gobernua aukeratzeko duten eskubidea" aldarrikatu zuen.

Politika-mailan, gerra ondorengo Europa bi zatitan banatuta geratu zen: Mundu sozialista Ekialdean eta kapitalista Mendebaldean. Munduko eragin-eremuak ere ardatz beraren inguruan banatu ziren. Arazo hauen eta beste askoren gainetik mundu berriaren eraikuntza hasi zen 1945ean.

A) BOTEREDUN BERRIAK: EE.BB. eta SESB

Bigarren Mundu-Gerratearekin batera hasi zen aldapa-behera larrian Europak mundu osoan zeukan presentzia. Kasu batzuetan, berehalaxe desagertzeraino.

Egia esan, gainbehera hasi, Lehenengo Gerratearen ondoren hasi zen. Orduan Estatu Batuek eta nazio neutralek saldu zizkieten gerran ari zirenei elikagaiak, jantziak... Beraz, Europatik kanpoko lehengaiak, ordurarte ez bezala, lurralde horietan ere industrialki landu zitezkeen. Estatu industrializatu berriak agertu ziren, hortaz: Kanada, Argentina.

Baina Europaren nagusigoaren kontrako eraso erabakiorra Bigarren Mundu-Gerratea izan zen. Lehen esan dugunez, Europak jasan zituen gerratearen ondoriorik txarrenak, eta erabat porrot eginda geratu zen. Beronen ondoan bi erraldoi agertu ziren lehiakide aintzindari: EE.BB.ak, botere ekonomiko apartarekin, eta Soviet Batasuna, zeina oso urte gutxiren barruan egitura ia feudaletatik ekonomian eta militar-mailan potentzia handia izatera iritsi bait zen.

Bi "Handi" hauek markatuko dute handik hona munduaren banaketa. Bere erdigunea Europan zuen garai bateko oreka politiko hura hautsi egin zen, eta haren ordez, bi nazio indartsu hauen eraginpean banatuko da Europa bera, eta ia mundu osoa.

1945ean Europaren Ekialdea sovietarrek okupatuta zegoen, Mendebaldea, berriz, armada amerikar eta ingelesak okupatu zuten. Bien arteko mugak, armada bakoitza gerrako arma-ekintzetan noraino iritsi zen adierazten zuen, eta, batez ere, alderdi bakoitza aurrerantzean zeinen eraginpean geldituko zen: Europaren Ekialdekoa, Soviet Batasunaren itzalpean; Mendebaldekoa, Estatu Batuen gerizpean.

Alemania, non?

(Albert Camus Nobel Sari frantsesak artikulu honekin ospatu zuen Aliatuen 1945eko garaitzapena. Gerratè Hotzaren atari-atarikoa da lana:)

"Edozein dela ere gure barneko grina eta edozein gure errebolten oroitzapena, ongi dakigu, jakin, guk, Alemania baketu baten beharra duela munduaren bakeak, eta herri bat ez dela baketzen nazioarteko ordenamendutik betirako deserriratuz. Oraindik ere Alemaniarekin elkarrizketa posible bada, arrazoimenak berak eskatzen du berorri ekitea. Baina esan behar da, eta indar berarekin esan ere, arazo alemana albo-arazo bat dela, inoiz guztietan lehena bihurtu nahi izater bada ere, begietan jotzen gaituenetik gure arreta saihesteko. Begietan jotzen gaituena zera da: Alemania, mehatxu baino lehen, Errusiaren eta Amerikaren artean herronka bat bilakatu dela. Eta gure mundu honetako arazo larri bakarrak bi potentzia hauen akordio eta etsaigoari dagozkienak dira. Akordio hau lortzen bada, Alemaniak, eta beste zenbait herrik honekin batera, arrazoizko etorkizun bat ezagutuko dute. Alderantziz, bestelakorik balitz, mugarik gabeko hondamendi orokor batean murgilduko litzateke".

(A. CAMUS, 1947)

MUNDU-AGINTEAREN ANTOLAMENDUA (1815-1945)

Nazioarteko botere-sistemen oreka lortzeko etengabe egin izan dira Bake eta Itunak, lendik zegoena aldatu eta hobetu nahiz. Aro Garaikidean Europak jasan dituen gerrate handien ondoren halaxe gertatu da, adibidez:

1815: Vienako Kongresuak napoleonondoko Europa "errestauratua" ordenatu zuen.
1871: Inperio Aleman berriari erantzuteko elkarte politiko-militarrak.
1919: Versailles-eko Ituna: gerra-arriskuak Nazioen Elkartearen bidez urrundu nahi dira.
1945: UNO: Segurtasun-Kontseilua, nazioartean erabakiak ezartzeko.

1815

Bost botereen gidaritza europarra (kontzertu europarra) Europan egikaritzen da 1860rarte, gero Europatik kanpora 1871z geroztik. (Estatu balkandarra, Afrikaren partiketa, influxupeko zonak).
Batasun latinoa, Posta-Batasuna.

1871

Aliantza sekretuen sistema Europan. Aliantza hirukoitza (1882), gero aliantza franko-errusiarra (1892).
Frantziaren eta Ingalaterraren arteko akordioa, 1904ean. "Entente Bihozkorra".
Ingalaterraren eta Errusiaren arteko hurbilpena, 1907an.

1919

Nazioen Elkartea: Aliantza sekretu gehiago, segurtasun kolektiboa, arbitraia, desarmea.
Bi aldi: 1929raino arrakasta; gero sistema ahultzen; berriro aliantzetara (Alemania, Italia, Japonia) eta tratatu aldebikoetara itzultzen.

1945-50

Gidaritza mundiala, Yalta-n Hiru Handiek ezarria, Bosten eta Lauren (Txina eta Frantzia) gidaritza bihurtu zen.
Eskuduntza esklusiboa Alemania eta Austriaren gain.
Konferentzia asko izan dira, ondoriorik gabe.

Aliantzak

1. SESBk, sateliteekin, gero Txinarekin 1946tik 1950era, Defentsa-tratatu aldebikoak.
2. Tratatuak Mendebaldean:
Dunkerque-ko tratatua (1947).
Brusela-ko tratatua (1948).
Atlantikoko tratatua (1949).
OTAN-CECA.

1945

Nazio Batuen Erakundea.
Printzipioak NEarenak bezalakoak; 1945eko ekainean San Francisco-n izan zen eraikia, Gutunaren botazioz.
Segurtasun-Kontseilua benetako boterez jantzia dago; bertan Mundu-Zuzendaritzako kideak esertzen dira beto eskubidearekin.

1945ean EE.BB.ak ziren gerraren benetako irabazleak. Batetik, Alemania, gerrako etsaia, osorik hondatuta zegoen, baina Ingalaterra eta Frantziari ere asko kostatuko zaie beren buruak altxatzea: hauek Afrikan eta Asian zuten agintea desagertzera zihoan. Bestetik, Japonia, erabat menperatua, ez zen aintzakotzat hartzeko kontrarioa.

Beraz, bere lurraldean gerraren erasorik izan ez duen Estatu amerikar hau --are gehiago: gerrari esker, ekonomia indartu zuen herri hau-- bilakatu zen sozialismo gazte eta indarberrituaren aurka borrokatzeko herri prestatu bakarra: Ipar Ameriketako Estatu Batuak.

Izan ere, Bigarren Mundu-Gerratearen helburua nazismoa eta faxismoa zanpatzea izan bazen ere, gerraondoan garbi ikusi zen ez zela arazo osoa konpondu. Bi ideologia politiko eta sozial kontrajarriak (sozialismoa eta kapitalismoa, alegia) gertatu ziren gerra ondorengo gatazka askoren iturri.



ALEMANIA, BANATUTA (1945). Gerrateko ekintza militarren ondorioz, Alemania zonatan partitua gertatu zen. Berlin-en ederki asko ikus daiteke hori: potentzia irabazleen hizkuntzez eta alemanez (letra txikiagoz) adierazten zitzaion hiritarrari nondik nora zebilen hirian. Alemaniaren banakuntzan (batasuna berandukoa zen, azkenik: 1871) bi gerrateren oroitzapenak (1870,1914--1918) eta azkeneko eskarmentu beldurgarriak agindu zuten. Azkeneko 40 urteotan hiru Estatu handi banatuak ezagutu ditugu Alemanian: Alemania Federala, Alemania Demokratikoa eta Austria.

EE.BB.ek beren kanpo-politika osoa xede horretara zuzendu zuten: Soviet Batasunaren edozein ahalegin edo erasoren kontra prestatzera, sozialismoaren hedapena balaztatzera, Europa galtzear zegoen kolonietan komunismoa ahalik ongien mugatuz, eta "herri libre" deituei beren "erakunde libreak" mantentzen lagunduz.

Politika honen ondorio izango dira "herri adiskideei" zuzenduko zaizkien laguntza militar eta ekonomikoak (OTAN, Marshall Plana). Gerora, laguntza ekonomiko hau, komunismoaren eskumenean erortzeko arriskutan ikusten zituzten herri pobreei ere zabaldu zieten (Greziari, adibidez).

Baina diru-laguntza nahikoa gertatu ez zen kasuetan, EE.BB.ek ez zuten inongo kupidarik izan indarrez ere beren interesak defendatzeko: hala nola, Korean 1950-53an, Kuban 196lean, Vietnam-en eta abarretan. Eta ageriko ekintza hauen ondoan, ezkutuko edo ez hain ezkutuko beste asko eta asko ere eraman dute aurrera: Hego eta Ertamerikan, gobernu atzerakoien alde eta mugimendu iraultzaileen aurka, adibidez. Ekintza hauek "askatasuna"ren eta amerikar interesen izenean justifikatu izan dira.

Soviet Batasunaren politikak, berriz, sozialismoa mundura zabaltzen izan du bere helburu behinena. 1945aren ondoren, erresistentzian jokatu zuten paperagatik, eta areago Armada Gorriari esker, Ekialdeko nazioetako agintera iritsi ziren alderdi komunistak: Hungaria, Errumania, Bulgaria, Albania, Txekoslovakia eta Polonia "herri-demokrazia" bihurtu ziren. Beren ekonomia kolektibatu, eta kanpo-politika Soviet Batasunarenarekin adostu zuten. Sovietarrek hartutako Alemaniaren partea

Gerrate Hotza
Soviet Batasuna, totalitarioa

(1947ko martxoaren 12ko hitzaldian eman zuen EE.BB.etako Lehendakariak "Truman doktrina" deitu zena, Gerra Hotzaren doktrina alegia: Demokrazien arrisku berria Soviet Batasuna zen. 1947-1953 urteetan kokatu behar da batez ere gerra-molde honen unerik larriena: Berlin-eko blokeoa, Koreako Gerratea. Truman-ek herri libreak Soviet Batasunaren kontra elkarrenganatu nahi izan zituen:)

"Ez ditugu gure helburuak lortuko... baldin eta erregimen totalitarioak ezartzeko gainera datozkien erasoen kontra, eta beren osotasun nazionala eta erakunde libreak gorde ditzaten, herri libreei laguntzen ez badiegu. Eraso zuzen edo zeharkakoek herri libreei ezartzen dizkieten erregimen totalitarioek nazioarteko bakea azpijaten dutela frogatuta dago, eta ondoriobidez Estatu Batuen segurtasuna... Konbentzituta nago, kanpotiko eraginei edo minoria armatuen menperatze-ahaleginei aurpegi ematen dieten herriei laguntzea izan behar duela Estatu Batuen politikak". (TRUMAN)




NAZIO BATUAK (1945). Potentzia Handien interesak Yalta eta Potsdam-eko akordioen arabera zaindu beharrak, eta gerra berrien arriskuei aldez aurretik aurpegi eman premiak bultzatu zuten nazioarteko erakunde honen sorrera (Eveleigh-en irudi sinbolikoa).

ere, eragin-esparru berera bildu zuten. Testuinguru honetan, Jugoslavia salbuespena izan zen, izan ere Soviet Batasunaren aurrean politika beregaina egin bait zuen "Gerrate Hotzean" (1948).

Lorpen horien ondoren, ordea, oso zaila gertatu zitzaion sozialismoari, ezarritako mugetatik harago egitea. Ekialdeko nazio sozialistak, Estatu kapitalistez inguratuta zeuden; horregatik, 1955aren ondoren, Krutxef-ek Soviet Batasunaren politikari aldaketa handia ekarri zion eta Hirugarren Munduko herri azpigaratuei laguntzen saiatu zen: Kuba, Vietnam, Iraq, Txina...

Orain arte agertu dugun egoera orokor honek oso ondorio garrantzitsuak izan ditu, azken urteetako gertaerek erakusten diguten bezala. Honela labur ditzakegu ondorioak:

- Ekialde-Mendebaldeen kontrajartzea eta bien indarren oreka.
- Bi "Handien" inguruko elkarte-sistemak: OTAN, Europako Ekonomi Elkartea alde batetik, eta Varsoviako Ituna, COMECON bestetik.
- Bi talde hauetatik at geratu nahi duen nazio-multzo gero eta handiago baten ahaleginak: Hirugarren Mundua.



BI POTENTZIA HANDIAK. Besteak beste Gerrate Hotzean, eta gero ere, Soviet Batasunaren eta Estatu Batuen arteko arazo bezala ageri da mundu osoarekiko estrategia politiko-militarra. Elkarrizketa eta mehatxuen artean, arriskutan dago berriz ere gizadiaren etorkizuna.

B) BAKEAREN ANTOLAKUNTZA

Lehenengo Mundu-Gerratearen ondoren eraiki zen Nazioen Elkarteak (1920) ezin izan zuen Bigarren Mundu-Gerratea galerazi. Berorren ordez, EE.BB.ek, Soviet Batasunak eta Ingalaterrak nazioarteko erakunde berri bat sortzea erabaki zuten 1945ean: horrela jaio zen Nazio Batuen Erakundea (UNO/ONU). 1945eko ekainaren 24ean geratu zen eratua San Franciscon, Nazio Batuen Gutunaren bidez.

Erakundearen barrenean bost Estatu sortzaileak izango dira besteen buru: EE.BB., Soviet Batasuna, Ingalaterra, Frantzia eta Txina. Beren interesen aurka doan edozein erabakiri ezetza emateko eskubidea aitortzen zitzaien. Erabakiak Segurtasun-Kontseiluaren esku daude, baina Kontseiluko hamaika bazkidetatik bost, lehen aipatutako nazio sortzaileak dira; beraz, hauetako baten ezetza nahikoa da erabakiak bertan behera uzteko.

UNO/ONUren helburua nazioarteko bake eta segurtasuna mantentzea da, eta, hori ezezik, gizonen oinarrizko askatasunak eta aurrerapen soziala errespetatzeko nazioarteko elkarlana bultzatzea ere bai, gainera.

Baina erakundearen funtzionamendua erdipurdikoa eta nolabaitekoa besterik ez da izan, "nazio handien" arteko tirabirak direla medio. EE.BB.ek eta Soviet Batasunak beren legea ezarri izan dute, sarritan. Dena den, UNO/ONUren meriturik handiena EE.BB.en eta Soviet Batasunaren arteko harreman iraunkorrak etenik gabe mantentzea izan da, agian, eta hainbat lekutan lehertu izan diren tokiko gerrei mugak ezartzea, mundura zabal ez zitezen (Korean, Kongon, Ekialde Hurbilean, esate baterako).

Nazio Batuen Gutuna (1945)

"Nazio batuetako herriok erabakita gaude:

- geure bizitzan, birritan, gizadiari, esan ezin ahalako sufrikarioak ezarri dizkion gerra-zigorretik gure ondoko belaunaldiak gordetzera,

- oinarrizko giza eskubideetan, giza pertsonaren duintasun eta balioan, gizon-emakumeen eta nazio handi-txikien eskubide-berdintasunean gure fedea indarberritzera,

- tratatuei eta nazioarteko beste zuzenbide-iturriei darizkien betebeharren errespetua eta justizia zaintzeko baldintzak sortzera,

- aurrerapen soziala sustatzera eta askatasun-kontzeptu zabalago baten barnean bizi-maila jasotzera, eta xede hauek ditugula, erabakita gaude:

- tolerantzia praktikatzera eta auzoko onak bezala elkarrekin bakean bizitzera;

- nazioarteko bakea eta segurtasuna zaintzeko gure indarrak elkartzera;

- indar armatua denon interesaren zerbitzuan baizik ez dela erabiliko printzipioen eta metodoen onarpenaren bidez segurtatzera, eta

- herri guztien aurrerapen ekonomiko eta soziala sustatzeko nazioarteko erakundeak erabiltzera.


Helburu hauek lortzeko erabakita gaude gure ahaleginak batzera".

(GUTUNAREN LEHEN HITZAK)

C) GERRATE HOTZA

Bigarren Mundu-Gerratea bukatu ondoren, gerran parte hartu zuten Estatuek ez zuten beren egitura militarra desegin. Armada handiak eta gerrarako industriak zutik mantendu zituzten; bestalde, arma berriak asmatzeko ikerlanak bultzatu ziren.


Mundua bi "bloke"tan zatituta geratu zen. Blokeak, ordea, ez ziren politiko edo ideologikoak bakarrik, militarrak ere gertatu ziren: EE.BB.ek eta Soviet Batasunak zeuzkaten munduko ia arma atomiko gehienak. Bi "Handiek" bazekiten elkarren berri, ezagutzen zituzten batak bestearen indarrak eta ahuleziak. Ezin ziren, zuzenean, aurrez aurre indarrean jarri, baina bien arteko oposizioa erabatekoa zen, nahiz eta Nazio Batuen Elkartean biak Segurtasun-Kontseiluko partaide izan.



"ONGI ETORRIA, Mr MARSHALL". Amerikarrek Europari eskaini zioten laguntza ekonomikoa "Marshall Plana" izenarekin ezagutu zen (1947). G.C. Marshall general eta politikari amerikarrak eman zuen asmoaren lehenengo albiste zabala, Harvard-eko Unibertsitatean. Amerikarrentzat Txina galdurik zela ikustean, Europara zuzendu zituen Estatu Batuen ahaleginak, "European Recovery Program" deitu honekin (=Marshall Plana).

Gerra orokor batean gauzatu ez zitekeen azpi borroka honi deitu izan zaio Gerrate Hotza. Hasiera "ofiziala" 1947an izan zuen, nahiz eta gerra bukatu aurretik ere nabaria izan bi "Handien" arteko mesfidantza. 1947an EE.BB.ek garbi adierazi zuten zein zen beren asmoa: Lehenik, Komunismoaren eta Soviet Batasunaren eragina mugatzea, eta bigarren, EE.BB.ek onartutako erregimen politikoei laguntza ekonomikoa eskaintzea.

Marshall Planaren bidez antolatu zen laguntza amerikarra, 1947an. Soviet Batasunak berehala salatu zituen laguntzak zekartzan baldintzak eta kontrola. Bi "blokeen" arteko zuloa geroz eta handiagoa zen. Hortaz, independentzia osoa emango zioten erakundeak sortzen saiatu zen alde bakoitza.



McCARTHYSMOA (1950-1954). Gerrate Hotzaren barneko kanpaina antikomunista bat izan zen McCarthysmoa. J.R.McCarthy politikari amerikarrak (1908--1957) gidatu zuen berau, USAn komunista omen ziren edo ote ziren guztien kontra. Garaiko giro politikoa susmoz eta elkarren arteko errezeloz bete zuen McCarthy-k. (Argazkian, Senatuko azpibatzorde bati Estatu Batuetako Alderdi Komunistaren berri ematen, 1954).

Mendebaldean: Marshall Planak Europara ekarri zuen diru-banaketa antolatzeko OECE (Kooperazio Ekonomikorako Europako Erakundea) delakoa sortu zen 1948an. Erakunde honek garrantzi handia izan zuen Europaren berregituraketa ekonomikoan.

Arlo militarrean, EE.BB.ek Ipar Atlantikoko Ituna (NOTA/OTAN) sinatu zuten 1949an, Kanada eta hamar nazio europarrekin. Gerora, Grezia, Turkia eta Alemania Federala ere sartu ziren. 1981ean UCDren gobernuak Espainia behatzaile bezala eraman zuen NATOra, eta erreferenduak berretsi egin zuen erabakia (1986), Euskadi, Katalunia eta Kanarietan ezik.

NATOren sorreran erabat alde batera utzi zen gerrate-garaiko Alemaniaren etsaigoa, eta antolamendu hura garbiki definitu zen Soviet Batasunaren aurkako bezala. Partaide ziren Estatu guz-



STALINen OHORETAN (1949). Honela --mundu komunistako politikari handiek inguratuta: Mao, Togliatti, Ulbricht,Deng, Krutxef, Ibarruri...-- ospatu zituen Stalin-ek bere 70 urteak Moskuko Boltxoi Teatroan. "Komunismoaren aita" deitzen zitzaion oraindik urte haietan.



CHURCHILL, TRUMAN eta STALIN POTSDAM-en (1945). Adiskidetasunean egindako mundu-partiketaren poza 1945eko aurpegi alai hauetan ageri da. Urte gutxi barru etsaigo eta ezinikusi bilakatu zen dena.

tiek beren armamentua berritu egin behar zuten eta armadak indartu. Honela, Marshall Planak zuen alde ekonomikoa NATOk osatu zuen beste alde militar honekin. Alde biak, ba, plan orokor bat beraren osagaiak dira: Komunismoari hesiak jartzen zitzaizkion, bide batez Mendebaldeko "blokea"ren interesak ere defendatuz.

Bienbitartean, **Ekialdean**, Soviet Batasunak "herri-demokrazien" arteko loturak sendotzearren, gisa berean beste erakunde batzuk sortu zituen: 1947an Kominform (Alderdi Komunisten Informazio-bulegoa); 1949an, Marshall Planari erantzunez, COMECON (Elkar Laguntzeko Ekonomi Kontseilua). Baina hemen ere elkartasuna ez zen mugatu arlo ekonomiko eta politikoetara bakarrik. 1955ean NATOren pareko elkarte militarra eratu zen Varsoviako Itunarekin, "herri-demokraziak" antolamendu militarrerako Soviet Batasunarekin hertsiki lotuz.

Beraz, munduak bi zatitan banatuta moldatu zuen gerra ondorengo berreraikuntza. Alderdi banatako buru ziren bi "Handiek" armamentu atomikoaren lasterketan parte hartuko dute. Ondorioz, biek lortu zuten, ustezko beste arerioa ezezik, mundu osoa ere txikitzeko adina indar. Biek justifikatzen zuten armamentu hain beldurgarriaren beharra, ez besteari erasotzeko, beldurtu eta, horrela, kontrakoaren erasoa aldez aurretik geldierazteko baizik. Honi deitu zaio "Ikararen Oreka".

1945aren ondoren gertatu diren gatazkak espazioan lekuz mugatuak izan dira. Nahiz eta borrokatzaileen atzean bi blokeak egon, ez ziren biok zuzenean elkarrekin enfrentatzen, eta beti ere saiatu ziren bi aldeak gerra orokor batera ez igarotzen.


Hori gertatu zen **Koreako Gerrate**-an, 1950ean. Lehenagotik zetorren historia bati irtenbidea eman nahiak piztu zuen gerrate hau. Korea Japoniak okupatu zuen 1910ean eta harez gero erregimen gogor baten menpe egon zen. Bigarren Mundu-Gerratearen bukaeran Korea Japoniatik libre geratu zen; baina askapenean armada sovietarrak eta amerikarrak, biek, parte hartu zutenez, bitan banatuta geratu zen: Ipar Korea eta Hego Korea 38 paraleloak banatzen zituen.

Alde bakoitzak bere irtenbidea ezarri nahi izan zuen, okupazio-armadak erretiratu aurretik: UNO/ONUn eztabaida ito zenean, ipar amerikarrek hauteskundeak eratu zituzten Hegoaldean (1949). Errusiarrek beste hainbeste egin zuten Iparraldean, eta, hauteskundeon ondorioz, banaketa finkaturik geratu zen. Korean, Hegoaldea amerikazalea bilakatu zen; Iparraldea, ostera, komunista. Mugan gorabehera ugari izan ondoren, 1950ean lehertu zen gerra.

Amerikarrak eta Hegoaldeko korearrak elkarren lagun bihurtu ziren batetik; Iparraldeko korearrak eta txinarrak elkarren ondoan, bestetik (Txinan Mao Zedong-en iraultza garaile zen ordurako). Oso gerra gogorra izan zen, eta ez zen 1953rarte bukatu. Bakeak Korearen zatiketa berretsi egin zuen, berriz ere.


Amerikarrek kontu handia izan zuten gerra Txinara ez zabaltzen, nahiz eta alde biek gerran parte zuzena hartu. Soviet Batasuna, berriz, ez zen zuzenki tartean sartu: Bi "Handiek" ez zuten beste mundu-gerraterik nahi. Antzera jokatu zuten Kuba eta Vietnam-eko arazcetan ere, gerra lurralde jakinetara mugatuz, gehiegi internazionalizatu gabe.







KOREAko GERRATEA (1950-1953). Gerrate Hotzeko gertakaririk larrienetakoa izan zen gerra hau. Korearrak ez ezik, batez ere Mao-ren armada eta USArena borrokatu ziren elkarren kontra. Ikus daitekeenez, gorabehera handikoa gertatu zen.



STALINen HERIOTZA (1953). Stalin-en heriotza garrantzizkoa izan zen, Soviet Batasunaren barne-politikarako ezezik kanpo-diplomaziarako ere. Hildakoaren inguruan ikusten ditugu berehala boterea banatzeko lehiatuko zirenak: Beria, Malenkof, Bulganin... Baina baita belaunaldi politiko berriarekin batera stalinismoaren kritika egingo duena ere: Krutxef. Aro berri bati eman zion hasiera Stalin-en heriotzak. Bakezko bizikidetasuna posibleagoa zen munduan...

D) "BAKEZKO BIZIKIDETASUNA"

Baina "Gerrate Hotza" ezin zen mantendu. Garestiegiak ziren arma-prestakuntzak; arriskuak eta interesak handiegiak, bestalde. Ez zen arrazoirik falta aldakuntza politikoa egiteko:

- Soviet Batasunak bortizki berritu zuen bere armagintza: 1949az gero eskuratu zuen bonba atomikoa, eta 1953an lortu zuen H bonba.
- Mendebaldeko Europaren egoera ekonomikoak geroz eta gehiago eskatzen zuen Ekialdearekin harreman komertzialak berritzea.
- Europan zabaltzen ari zen neutralismo-ideiak zalantzan jarri zuen bi "Handiek" zeramaten armamentu-politika.

Datuek eta jendearen eritziak ezin zuten jada onartu blokeen arteko haustura. Bakezko bizikidetasunaren ideiak bide samurragoa urra zezakeen, beraz.

Soviet Batasuneko eta EE.BB.etako buruen erreleboak egoera berri hau gauzatzen asko lagundu zuen: 1952an Eisenhower hautatu zuten lehendakari, bakea errepresentatzen zuen gizona, hain zuzen.

Soviet Batasunean, ostera, Stalin 1953an hil zen, eta haren ondorengo Krutxef-ek desestalinizazio- eta liberalizazio-politikari eman zion hasiera. "Bakezko bizikidetasunaren" doktrinak baztertu egin zuen etsaiek elkar armaz garaitu behar zuteneko hipotesia. Beraz, norberak beretzat itxaro zuen azken garaitzapena, lehiaketa luze baten fruitu bezala ikusten zuen bakoitzak. Ideologiek zutik iraun zuten, bestalde, eta talde bakoitzaren eragin-esparrua finkoagotu egin zen.

Krutxef EE.BB.etara joan zen, eta beroni harrera ona egin zion Eisenhower-ek. Zenbait gairi buruzko tratuak hasi, eta sovietar-amerikarren artean akordio teknikoak sinatu ziren.

Hala ere, mesfidantzaren lausoa ez zen erabat desegin. Bi blokeek beren eragin-esparruak zaintzen zituzten bitartean, armamentu-norgehiagokak aurrera segitu zuen. Jokabide zaharrak berrituz, bi potentziek, zuzenki ez bazen ere, aipatutako gatazka mugatuetan parte hartzen zuten, alde bateko nahiz bestekoei lagunduz. Horrela gertatu zen Kuba-n 1962an, Vietnam-en 196letik aurrera, israeldar eta palestinatarren arteko akabera gabeko gerran.

E) EUROPAREN BERRERAIKUNTZA

Gerrate ondoren nazio guztiek ekin zioten gogor ekonomiaren altxatzeari. 1945etik hasi eta hurrengo hogei urteetan ekonomiaren hazkundea etengabekoa da. Kontutan eduki behar da gerrak armamentu-industria asko bultzatu zuela, eta, ondoren, industria hori birmoldatu ahal izan zela, gainera.

Bakezko bizikidetasuna

(Bakezko bizikidetasunerako printzipioak Krutxef-ek honela azaldu zizkion Soviet Gorenari, 1959ko Urriaren 31n:)


"Bizitzak berak eskatzen du, sistema sozial ezberdinak dituzten herriek planeta honetan elkarrekin bizitzen ikas dezatela, elkarrekin bakean bizitzen alegia. (...).

Bi sistema ezberdinen existentzia ezagutzea, herriko problema sozial eta politiko guztiak bere gisara arautzeko eskubidea herri bakoitzari aitortzea, subiranotasunaren errespetoa, inoren barne-arazoetan ez-usarpenaren printzipioa aplikatzea, nazioarteko arazo guztiak elkarrizketa bidez konpontzea: hori dena da arrazoiaren gain oinarritutako bakezko bizikidetasunak eskatzen duena. (...).

Sistema sozial ezberdineko Estatuen bakezko bizikidetasunaren printzipioak elkarri amore ematea eskatzen du, elkarren arteko interesak gogoan hartzea, zeren bestela Estatuen arteko harreman normalak moldatzen ez litzateke asmatuko. Ideologi arazoekiko, berriz, marxismo-leninismoaren printzipioetan, harkaitz bat bezain mugiezinak izan gara, eta halaxe izango ere. Ideologi arazoak ezin daitezke arau indarbidez eta ezin ezar lekioke Estatu bati besteren batean nagusi den ideologia".

(N. KRUTXEF, 1959)

EUROPAREN BATASUNA: ERROMAKO ITUNA (1957). Hogeitamar urtetan sofritutako bi Mundu-gerrate odoltsu haiek indarberritu egin zuten Europan batasun politiko baten egarria. Europaren batasun-ideia Erdi Arotik ezaguna zen, eta Estatu monarkiko modernoek ezarri zuten banaketan ere beti ezagutu zuen kulturak, nazioartekotasun bat (Ernazimentuan, Barrokoan, "Argien" mendean, Erromantizismoan...). XX. mendean batasun-gogoa ekonomia eta politikara eraman nahi izan da, berriro ere. Churchill, Adenauer, R. Schuman, De Gasperi, Monet eta abar izan ziren asmoaren sustatzaileak. Erroman sinatu zen E.E.E.aren akordiorik sonatuena.



Etxegintzak lan handia eman zuen, zeren alde batetik bonbardaketek desegindakoa berritu behar zen eta bestetik gerra-urte horietan behar eta eraiki ez zena ere egiteko zegoen. Berreraikuntza EE.BB.en laguntzaz (Marshall Plana), Koreako gerrateak eta berrarmatzeak bultzatuta egin zen. Jakina da, EE.BB.ek Komunismoa geldiarazteaarren eman zietela laguntza ekonomiko hori Europako nazioei; hori zela eta, Alemania ere Marshall Planaren barnean sartu zen.

Lehenengo urteetan, Europak EE.BB.ekin zor handiak egin zituen, handik inportatu behar bait zituen elikagaiak eta beste zenbait material. Egoera honek Mendebaldeko Europako nazioak elkartu beharra dakar, beren ekonomiak koordinatuz, bi "Handien" aurrean "hirugarren indarra" sortzeko edo.

"Europaren Batasunak" pauso handiak eman ditu harez gero. Data jakingarrienak bilduko ditugu hemen:

- **OECE/OEEC** (1948): Kooperazio Ekonomikorako Europako Erakundea. Marshall Planaren barnean sartu ziren Estatuak biltzen zituen.
- **OCDE/OECD** (1960): Kooperazio eta Garapen Ekonomikorako Erakunde bilakatu zen aurreko erakunde hura: Europako Mendebaldeko Estatuak, EE.BB.ek, Kanada, Japonia eta Australiak osatzen zuten berau.
- **Europako Kontseilua** (1949): Elkarlanerako erakundea da. Ez du erabakimenik.
- **EIAE/CECA** (1951): Europako Ikatz-Altzairuen Elkartea. Frantzia, Alemania Federala, Belgika, Holanda, Italia eta Luxemburg-ek ikatza, burdina eta altzairuaren merkatu batua osatu zuten erakunde honetan.
- **EURATOM** (1957). EIAE/CECA osatzen zuten sei Estatuek sortu zuten hau indar nuklearra bultzatzeko.
- **EEE** (1957): Europako Ekonomi Elkartea. Hau da erakunderik garrantzitsuena batasun-bidean. Komunitate barneko pertsona, kapital eta zerbitzuen trafiko librea du.

Gaur egun hamabi Estatuk osatzen dute eta, ekonomi mailan eragin handia izan badu ere, ez du Europaren batasun politikoa lortu. Europako Estatu Batuak oso urruti daude oraindik. Eta arlo militarrean garbi dago, NATO dela medio, Mendebaldeko Europa EE.BB.en esanetara dagoela.

Europako Ekonomi Elkartea

"Herri europarren arteko batasun hertsiago baterako oinarriak etengabe indartuz joateko,

Europa banatzen duten hesiak kenduz herrien aurrerapen ekonomiko eta sozialaren alde denon arteko ekintza amankomuna segurtatzeko;

Herrien bizi- eta lan-baldintzak etengabe hobetzeko asmoa gure ahaleginen funtsezko xedea izanik, (...)

Europa eta itsasoz handiko herriak elkartzen dituen solidaritatea sendotu nahiz, eta berorien ongizatearen gehikuntza segurtatzeko (...),


Europako Ekonomi Elkartea sortzea erabaki dugu (...)".

(ERROMAKO ITUNA, 1957)



EUROPA DEMOKRATIKOA. Hauteskunde libreen gain eratu nahi izan dira E.E.E.ko erakunde politiko berriak, Parlamentuari oinarri herritar hori emanez; baina E.E.E.aren antolamenduan gaur eguneko Estatuei lehentasun osoa eman zaie, eta, aitzitik, Estatu gabeko herriei jokorako leku oso hertsia.

AFRIKAren INDEPENDENTZIAK. Mapan ikus daitekeenez, Afrikaren independentziak, Estatuz Estatu elkarren jarraian etorri ziren, batez ere 1960tik aurrera. Horren ondorioz, Afrikako mugen mapak zuzenean erakusten du europarrek kontinente beltzean ezarritako geografia koloniala. Europarren arteko interesen eta indar-neurketaren arabera marraztutako mugak ziren haiek, ez herri afrikarren arteko banaketaren araberakoak. Bi errealitate kontrajarrion desakordioak (politikoa/etnokulturala) ondorio astunak izan ditzake afrikarrentzat. Estatu kolonialistek, urte gutxitan, ondasun-iturri emankorrak galdu zituzten deskolonizazioarekin.



III. HIRUGARREN MUNDUA ETA DESKOLONIZAZIOA

Deskolonizazioa eta Hirugarren Munduaren agerpena, gerraondoko gertaerarik garrantzitsuenetakoak dira.

1939rarte, Afrika eta Asia ia osoak nazio kolonialen menpean zeuden. 1962rako, berriz, inperio kolonialak ia erabat desagertu ziren eta Estatu berri ugari agertu zen mundu-mapan.

Estatu berri hauetako gehienek ez dute bi blokeen artean aukerarik egin nahi izan. Ez dute ez batarekin ez bestearekin elkartu nahi; Hirugarren Mundu independentea osatu nahi dute; hala ere, oso zaila gertatuko zaie beren independentzia mantentzea.

A) DESKOLONIZAZIO-FENOMENOA

Lehenengo Mundu-Gerrateaz gero hasi ziren ideia nazionalistak herri kolonizatuen artean. Herri hauek, bai soldaduen bidez, bai industrietara lanera eraman zituzten langileen bidez, gertuagotik ezagutu ahal izan zuten beren nagusi zen Europa hura. Gerrateak eta gerraondoak lagundu zuten horretan. Horrela zabaldu ziren herri kolonizatuetako buru argienen artean Mendebaldeko ideiak: askatasuna, aurrerapena, berdintasuna...

Baina, Europaren behar ekonomikoak direla eta, nazio kolonialistek gogor mantentzen dute XX. mendean ere herri kolonizatuen zapalkuntza. Mendebaldeko ideien eta bizi duten errealitatearen arteko kontraizanek, Europaren aurka altxaraziko dituzte herri kolonizatuak. Askatasun-gogoa herri zapaldu guztietan zabalduko da. Mugimendu abertzaleen gidariak metropolietan ikasiak ziren: Indiako Nehru eta Gandhi; Vietnam-eko Ho Txi Minh; Indonesiako Sukarno; Senegaleko Senghor eta beste hainbat eta hainbat.

Bigarren Mundu-Gerratearen ondoren, mugimendu abertzale antikolonialistak geraezinak izango dira. Arraza zuriarekiko begirunea erabat galdu zuten gerrako jokabideak ikusita: Europa, urrutitik uste zen baino itsusiagoa agertu zen kolonietatik etorritako soldadu-langileentzat. Beren bizi-maila europarrenarekin konparatu ahal izan zuten. Bestalde, Atlantikoko Gutunean "herri guztiek nahi duten gobernakera aukeratzeko eskubidea" aldarrikatzen zuten aliatuek. Deskolonizazio-prozesua martxan jarri zen, hortaz. Egokiera historikoak ekarri zuen hori, eta itoezina gertatu zen berau.

Deskolonizazioaren zenbait arrazoi

"Munduaren eraldakuntza sakonaren arrazoiak oso nabariak dira: horien sorburu dira, lehenengo, Estatu kolonialek beren barnean jasan dituzten krisiak, beren prestigio-galtzea, lurralde kolonialen administrazioan aurkitu izan dituzten zailtasun materialak. Baina badira beste arrazoi batzuk ere, eta guztietan garrantzitsuena, bi Estatuk erregimenez elkarren kontrako baina paradoxazki postura antikolonial batean elkarrekin bat datozenek, EE.BB. eta SBk, lortu duten garaipena.

Ezagunak dira Errepublika amerikarreko hiritarrek Europako kolonismoari buruz dituzten sentimenduak. Independente egin dira Hamairu koloniak, eta independentzia hauxe izan da, gerrate latz baten ondoren, Europaren hegemoniari jarri zitzaion lehenengo muga. (...).

EE.BB.en deklarazioa izan zen lehenengo aldarrikapena, "herriek, zein gobernu-moduren azpian bizi nahi duten aukeratzeko, duten eskubidearen" alde; horren ondoren beste manifestazio batzuk ere etorri ziren, koloniei bide ematen zietenak, jadanik formulatutako errebindikazioak aurkezteko, baina aurkeztu ere, adituak izateko segurtasunarekin".

(R. CÉRÉ)



INDEPENDENTZIA OSOA. Independentzia politikoarekin batera, subiranotasun ekonomiko-kulturala ere premiazkotzat ikusi izan dute Independentziaren gidariek, asmo eta helburu horren alde ekintza politikoa eta doktrina teoriko bat ere onduz. Afrika Beltzeko gidari batzuen ahaleginak garrantzizkoak izan dira, eta dira: Senghor, Lumumba, Nkrumah, Nyerere, Kaunda, Neto, Kenyatta, etab.

* 1. Deskolonizazioaren zergatiak

a) Abertzaletasuna

Nazio arrotz baten menpean egotea ez zitekeen naturaltzat onar herri kolonizatuetan; are gutxiago hauetako talde aurrerakoienetan.

Metropoliko Unibertsitateetan ikasitako "indigenek" harrituta ikusi zuten Mendebaldearekiko zalantzarik gabe onartzen zen burujabetasun-eskubidea herri kolonizatuei ukatu egiten zitzaiela.

Errealitate bikoitz eta faltso honen aurka, mugimendu abertzaleek beren herrien eta kulturen berezitasunak aztertu eta goraipatu zituzten: ızkuntza, kultura, "belztasunaren" defentsa (Aimé Cesaire eta Senghor-ek).

b) Nazio indartsuen ideologiak berak

Lehenengo mugimendu nazionalistak Europako liberalismoan oinarritzen dira eta beren herria erregimen parlamentarioz gobernatuta ikusi nahi lukete. Hau izan zen Indiaren kasua.

Geroago ideologia sozialista indartzen da kolonizatuen artean. Munduko bi ideologia nagusien (sozialismoa eta kapitalismoaren) buru diren EE.BB eta Soviet Batasuna deskolonizazioaren alde azaltzen dira, nahiz eta bien arrazoiak desberdinak izan: Soviet Batasunarentzat, kapitalismoaren ondorioa besterik ez dira koloniak. EE.BB.ek, ostera, oso bestelako alde batetik begiratu dute arazoa: EE.BB.en interes ekonomikoentzat kaltegarria zen munduaren parte hain handia Europaren

esku egotea. Nolanahi ere, biek zabaldu nahi zuten beren eragin-esparrua, Hirugarren Munduko Estatu berrien artean lagun berriak eginez. Horregatik bultzatu zuten deskolonizazio-prozesua.

c) Gerratea (1939-1945)


Gerrateak bultzada handia eman zion jaiotzear zegoen mugimenduari. Gerra ondoren, nazio kolonialistek ez zuten dirurik, ez indar militarrik, herri kolonizatuetako mugimendu abertzaleei aurre egiteko.

Estatu kolonialistek, beren gogoz, nahiago zuten koloniak mantendu, adierazpen publikoetan --EE.BB.ek eraginda-- besterik esaten bazuten ere: 1941eko Atlantikoko Gutunean, adibidez. Horregatik, zenbait herrik gerra bidez bakarrik lortu zuen askatasuna: Vietnam edo Algeriaren kasuak.

Nazio kolonialek ezin zuten, noski, historia gerarazi. Herri kolonizatuek, lortuko dute askatasun politikoa bai, baina beste gisa batean herri aberatsen menpean jarraitu beharko dute urte askotan.



KOLONIALISMO KRITIKOA ala ANTIKOLONIALISMOA? "Garaitu dut" zioen karikatura honek (1882). Alexandriako auzo europarra erre-ondoko eraso ingelesaren "arrakastaz" egiten du irri, arma bidezko garaitzapen kolonialista haren balioa dudatan jarriz. Dena den, ingelesek hantxe iraun zuten 1956rarte. Inperialismorik gordinenean, Europan ere ezagutu zen antikolonialismoren bat, politika ofizialak onartu ez zuena.



KOLONIALISMOAREN PARODIA (Kinshasa, 1966). Mobutu-ren eta bertako agintarien eta ordezkari diplomatikoen aurrean honela eman zen aditzera iragandako metodo kolonialisten kritika, independentzi eguneko ospakizunen jai-giroan.

EUROPAREN ERRELEBOA

"Europaren beherakada, 1920an hasi zena, 1945az gero bizkortu zen, kontinentearen partiketa eta Asia eta Afrikaren deskolonizazioa zirela medio. Geroztik horietan gelditzen dena, Estatu kolonizatzaileek beren banaketa kontinentalen arabera egin zituzten partiketa artifizialak besterik ez dira. Baina deskolonizazio honek ez ditu erabakitzen berak planteatutako problemak. Europaren misioa, bost mendeko hedakuntzaren ondoren, bukatu egin da, behiala, gaur iraungita dauden zibilizazio handien misioak bukatu ziren bezalaxe. Eta azken buruan, hauxe da, gerraren eta pakearen arteko garai honetan planteaturik gelditzen den problema funtsezkoena". *(R. CERÉ)*



M.K. GANDHI (1869-1948). Gidari indiar hau Hirugarren Munduko herri eta, oro har, gizarte-talde zapalduen ahots sinbolikoa bilakatu da. Indian jaioa, Londres-en ikasia; Hego Afrikan (1907-1914), bere herritarren aldeko borroka berak gidatu zuen gobernu boer-aren kontra. Indiara itzuli ondoren, Independentziaren borrokari heldu zion; biolentziarik gabeko politikaz baliatu zen. Behin eta berriz hartu zuten preso ingelesek, India askatu aurretik (1947). Askapen-teoria jakingarria landu zuen Gandhi-k.

* 2. Inperio kolonialen gainbehera

a) Asiaren deskolonizazioa

India: 1947an onartu zuen Britainia Handiak Indiaren askatasuna, eta, ondorioz, hiru Estatu berri sortu ziren, populazioaren erlijioaren arabera: India, hinduek osatua; Pakistan, populazio musulmanarekin; Ceylan, erlijio budistarekin.

Indotxina: Independentzi gerrate baten ondoren lortu zuen Frantziatik askatzea; ondoren, Kambodia, Laos eta Vietnam bilakatu ziren Estatu independente. Indonesia: Holandak, 1949an onartu behar izan zuen honen independentzia.

b) Afrikaren deskolonizazioa

Marokko eta Tunisia: 1956an eman zien Frantziak independentzia. Algeria: kolono frantses asko bizi zen hemen (biztanleria osoaren % 12), eta hauek ez zuten inola ere independentziarik nahi: Algeria Frantziaren zati bat zen, eta hori zen dena hauentzat. Gerrate odoltsu baten ondoren, 1962an lortu zuen independentzia.

1960. urtea Afrikaren urtea izan zen: Zaire, Kamerun, Gabon, Nigeria, Tanganika, Senegal, etab. orduan bihurtu ziren Estatu independente.

Hurrengo urteetan Afrikaren independentzia osatuz joango da, eta, azkenik, 1975ean Portugalek Angola, Mozambike, eta Ginea-Bissau askatu zituen, Afrikaren deskolonizazioari bukaera emanez.

Itxuraz, bukatu zen prozesua, baina badago zeresanik herri hauek lortu duten independentziaz. Izan ere independentzia politiko hau, beste gabe, benetako independentzia ahal da? Asia eta Afrikako Estatu berriak eta Latin Amerikako ez hain berriak "Hirugarren Mundu" bilakatu dira. Izendapen-modu honek, beste mundu bat direla adierazten digu, ezgaratua, gisa askotako menpekotasunez gaixoa. Eta, batez ere, menpekotasun ekonomikoak lotuta daukan mundua.

Ho Txi Min-en testamentua

"Vietnam-eko Errepublika Demokratikoa: Independentzia, askatasuna, zoriona.

Eraso amerikarraren kontrako borroka abertzalean, oraindik ere jasan beharko ditugu hildura eta nekeak, baina ziur gaude lortuko dugula garaitzapen osoa. Erabateko ziurtasuna daukagu horretaz. (...).

Zalantzarik gabe, garaituko du gure herriak. Inperialista amerikarrek hanka egin beharko dute. Gure aberria bateratua izango da. Ipar-Hegoaldeetako gure aberkideak teilatupe berean bilduko dira. Gure herri txiki honek, bi inperialista handi, frantsesa eta amerikarra alegia, garaitu dituen nazio txiki baten ohore paregabea izango du".

(HO TXI MIN, 1969)

* 3. Bandung: Herri zapalduen bilera (1955)

Independentzia dastatuz zihoazen neurrian herri zapalduek ezin zuten onartu "zurien" menpean jarraitzea. Beren indarraz eta ahalmenez jabetzean, 1955ean, Bandung-en biltzera eraman zituen beren ahuleziari elkartean gaina hartu nahiak. Hogeitahiru herri asiar eta sei afrikar elkartu ziren han.

Bandung-eko bilera, herri zapalduen arteko solidaritate-agerpen esanahitsua gertatu zen. Partaideen artean, Soviet Batasunarekin edo Estatu Batuekin loturak zituzten Estatuak egonarren, ez

zuten inongo kupidarik izan kolonialismoa eta arrazakeria gaitzesteko.

Horrela, oinarrizko puntu batzuetan adostasunera iritsi ziren, gainera, ondoko printzipio hauek aldarrikatuz:

- Arrazen berdintasuna.
- Asia eta Afrikako Estatuen artean, elkar-laguntza ekonomikoa.
- Bi "Handien" aurrean jarrera neutrala hartzea.

Hortaz, neutralismo berri bat sortu zen: aldi berean neokolonialismo ekonomikoak egunen batean Hirugarren Munduari ezar ziezaiokeen dependentzia arriskugarriari aurrea hartu nahi izan zioten Bandung-en bildutakoek.

Ideia hauek gehiago argitu eta zabalduko zituzten hurrengo urteetan ospatu ziren beste bileretan El Kairo-n (1957) eta Conakry-n.



Hala ere, egoera ekonomikoak batipat koloka jarri du zenbaitetan askapen-asmo hauen balio praktikoa: Menpekotasun ekonomikoak bultzatu ditu, jarrera neutrala arindu eta zein EE.BB.en zein Soviet Batasunaren edo Txinaren laguntza onartzera eta, azken finean, nolabait, haien esanetara makurtzera eraman ditu hirugarren mundutarrak.

BANDUNGeko KONFERENTZIA (1955). Bilera afro-asiarhau Indonesiako Sukarno-ren gidaritzapean egin zen, Hirugarren Munduko Estatu eta mugimendu askatzaileak laguntzeko. 29 Estatuk hartu zuen parte batzar honetan; baina batez ere Txinaren presentzia izan zen erabakiorra. Hirugarren Munduko neutralismoa indartuta atera zen handik. Bandungeko elkartasun hark, ordea, gorabehera handiak izan ditu ondoko hogeitamar urtetan, eta krisirik ere ez da falta izan.

B) NEOKOLONIALISMOA

Azken hogeitabost urteetan maiz aipatu izan da Neokolonialismoa, eta komeni da honaino iristean, horretaz argibideren bat ematea: Zer da, ba, Neokolonialismoa?

Askatasun politikoa lortu ondoren ere, herri kolonizatuak Estatu aberatsei lotuta mantentzen dituen menpekotasun ekonomikoari deitu izan zaio Neokolonialismoa. Zergatik gertatzen da hori, ordea?

Kolonizazio-garaian, potentzia kolonialek, herri kolonizatuen ekonomia beren interesen arabera antolatu zuten, eta horrek ondorio luzeak izan ditu geroztik.

- Komunikabideek, adibidez, garrantzi handia izan zuten. Baina koloniako trenbide, kamino eta errepideak metropoliarekin harreman zuzena zuen portu edo aireportura bideratuak zeuden eta ez inguruko herriekin harremanak errazteko asmoz eginak. Bide-sarea benetan zen koloniala, metropolira begira zegoena.

- Koloniak, ekonomia itxi batetik, hau da, behar zuten guztia herrian bertan produzitzetik, merkatal ekonomiara pasatu ziren, monokultibora joz. Ekonomia berri honetan oso toki mugatua ematen zitzaion koloniari: metropolira nekazal lehengaiak eta meatz-produktuak esportatu behar zituen.

Ekonomia honek ez zuen batere oinarri sendorik, kolonia bakoitzak oso produktu jakinak

Neokolonialismoa (1961)

"Hasieran kontzeptu hau botere kolonialei bakarrik aplikatu bazitzaien ere, kapitalismo aurreratuko herrialde guztietara hedatu zen berandu baino lehen. Neokolonialismoa, behialako lurralde kolonizatuak esplotatzen jarraitzea bezala definituz, zeharkako menpetasun horren errodura nabarmen erazten zen, aditzera emanez, hori ez zegokiela berriki askatutako herriei bakarrik eta bai presio berdinen menpean zeuden beste askori ere. Duda egin zen, ea EE.BB. eta SB ere nazio neo-kolonialen artean sartu behar ote ziren. Baina Pierre Naville-ren artikulu batek biak sartu zituen Neokolonialismoaren kontzeptu berri horretan: Soviet Batasuna ere botere neokolonialista da.

Herri afro-asiarren solidaritatezko konferentzia batean (Bandung, 1961eko apirilaren 10-13etan) praktika neokolonialisten salaketa egotzi zitzaien, ez kapitalismo aurreratuko herrialdeei bakarrik, eta bai nazioarteko organizazioei berei ere, hala nola NATO, OTASE, CENTO, eta abarri, oro har nazioarteko organizazio guztiak, beren programa eta iharduerak herrialde industrial aurreratuen menpean dauzkatelako".

(M. FERRO, 1971)

EE.BB.ak Ertamerikan

"Ertamerika da kanpo-politika ipar-amerikarrean puntu beroetako bat. Ronald Reagan-ek Granada irlaren inbasioa agindu zuen urriaren 24ean (1983), 'eskualdean hedapen kubano-sovietarra geldiarazteko' esan zuen EE.BB.etako Lehendakariak. Apirilaren 27an, bi Ganbaren plenoan esandakoen araberako ekintza zen hori: 'Gure mugetan daukagu sua eta dagoeneko ekin egin behar diogu arazoari'.

Granadako inbasioa, CIAk gerrilari antisandinisten artean daramatzan ekintza jarraituak eta Honduras-en base militarren indar-laguntza:guztiok izan dira Nikaraguako erregimen sandinistarentzat abisurik serioena".

(R. VILARÓ: El País)
(1983-abendua-5)

esportatzen bait zituen, eta beti ere salneurria herri aberatsek erabakitzen bait zuten. Honen ondorio sozialak garrantzizkoak izan ziren: bertako biztanleriaren bizi-maila kaskartu egin zen, zeren esportazio-produktuen ugaritzeak, ohizko nekazal elikagaien urritzea ekarri bait zuen, lurren ahultzea eta ohizko nekazaritzak mantentzen zuen oreka haustea (lugorri-aldien sistema, adibidez). Ondorioz, biztanleriaren elikadura pobretu egin zen, eta zenbaitetan, behar beharrezko janariak inportatzera behartuta aurkitu zen kolonia.

Herri kolonizatuek, askatasun politikoa lortu zutenean, deskribatutako egoera ekonomiko hau aurkitu zuten beren etxean. Nabaria zen aldaketaren beharra, baina egitura ekonomiko kolonialistok konpontzea ez zen batere erraza. Irtenbide bakarra, industrializazioak zirudien, baina oztopoak ez dira nolanahikoak:

- Azpiegitura osoa (trenbide, kamino, portu, aireportu...), esan dugunez, metropoliaren interesei erantzuteko pentsatuta zegoen, eta ez zitekeen egun batetik bestera aldatu, ekonomian eten gaiztorik sortu gabe.

- Bertako kapitalak oso urriak ziren kolonian, eta dependentzia finantzarioa ezarri zuen horrek.

- Ez zegoen nahikoa tekniko eta langile espezialista, eta horrelako pertsonal aditu atzerritarra ekartzea oso garestia zen.

- Produktu europar eta amerikarren konpetentzia, gogorra zen; barne-merkatua, ostera, hain txikia izaki, oso zaila zen produkzio

KENYA: METROPOLIRAKO LANEAN

"Lur landuaren hedadura lurralde nazionalaren % 3a da. Bi produkzio-sektore nabarmentzen dira argi eta garbi. Lehendabizi, kolono europarrek daramatzaten granjak, ezaugarri hauekin: hedadura handia eta teknika modernoen erabilera. Laboreak esportaziorako destinatzen dira eta hauek dira: kafea (80.000 t 1976an) tea, kotoia, tabakoa, azukre-kanabera eta piretrua, zeinaren munduko lehen produzitzailea Kenya bait da (14.400 t 1976an). Laboreen artean gari-uzta (158.000 t 1976an), artoa, oloa, eta arroza gailentzen dira. Basoak lurraldearen % 3a hartzen du. 1976an 12.399.000 m^3 egur eman zuen guztira arbola-mozketak. Ganadularitzak ere nekazaritzak bezalako dikotomia ageri du. Atzerritarren granjatan hazten den ganadua biziro emankorra da (esnea, haragia). Bertakoen ganaduak, berriz, ozta-ozta osatzen ditu ganaduzain hauen beharrak. Behi-azienda gailentzen da 7.500.000 burureKin (1976an)".

(ATLAS ECONOMICO, Spes)

BOLIVIAko IRAULTZA BALDINTZATUA (1952)

"Meatzen nazionalizazioa eta lur-erreforma izan ziren Paz Estensoro-ren berrikuntza nagusienak, eta hauekin batera langile- eta nekazari-jendearen bizi-maila hobetzeko ahalegin batzuk. Ondorio mugatuak lortu zituzten erreformaok: azken buruan, nazionalizatutako meatzengatik kalte-ordain handiak pagatu behar izan ziren eta, gainera, eztainu boliviarra errefinatuko bazen, lehengo meatz-jabeek, badaezpadan, Boliviatik kanpora instalatutako errefinategietan bakarrik zegoen egiterik. Bestalde, gerrak probokatutako prezio handien garaia (Peñaranda-ren gobernuak batere probetxatzen jakin ez zuena) atzera gelditu zen behin-betiko. Salmenta-baldintzak gaiztotu egin ziren, eta pisu hori dena Boliviaren gain eroriko zen osoro. Kondizio hauetan, alokairu-altxatzeak, nekazarien liberazio izan zen lur-erreformak, eta gizarte-erreformako politika osoak berehalako inflazioa probokatuko zuen erremediorik gabe: kontsumitzaile berri mordoa jaurtiki zen merkatura, eta ez zegoen zerez hàiek ase. Azkenik, produkzio-disziplina ere ukitu zuen iraultzak: meatzak ziren orain iraultzaren gotorleku politiko-militarretako bat, eta meatzari-lantaldeek, mugimenduaren ezker-hegalari atxekirik zeudenek, oreka-berdintzen zuten, nekazarien sailetan eratutako beste talde moderatuago batzurekin batera, armadaren kontrakarga. Izan ere, armadan, egindako garbiketa guztiak egin ondoren ere, gobernu iraultzaileak ezin zuen konfidantza osorik ipini. Gauzak honela, ondo ulertzen da zergatik ezin zen, meatzetako lanaren erritmoa ikuspegi ekonomiko soilez finkatu.

Ulertzekoa da zergatik erabaki zuen Paz Estensoro-k hartu zuen bidea hartzea: hots, Bolivia iraultzailea, gerra hotzeko urte haietan, Estatu Batuen erabateko aliatu sendo egitea; horren truke, kredituak lortu zituen, urtean urtean, erdizka bederen, merkatal balantzako defizitak estaltzeko bide ematen ziotenak eta iraultza boliviarrari bizirik jarraitzea segurtatzen ziotenak. Baina soluzio honek gero eta okerragoa egingo zuen giro ekonomiko eta politikoa: laster hasi zen metropolia Boliviako zailtasun ekonomikoez interesatzen eta orduan modan zegoen soluzioa, nahitaez ezarri gurarik, eskaintzen: alegia, liberalismo ekonomikoa eta monetaren egonkortasuna". *(T.H. DONGHI, 1969)*

GUATEMALA/EE.BB.

"Arévalo-ren ondoretzak drama ilun bat sortu zuen armadaren barruan; Aranda koronela, hautagairik seguruena bezala itxuratzen ari zena, eta joeraz moderatua zena, misteriotsuki izan zen erahila; horren kontrarioa, Arbenz koronela, 1950ean izan zen hautatua. Laster hasi zen larritzen EE.BB.ekiko tentsioa: alde batetik, gobernu errepublikarra aurrekoa baino ere sentikorragoa zen United Fruit Company-ren interesentzat, (beronen banana-lurraldeek mehatxupean bait ziruditen) Guatemalako gobernua aurrera eramaten ari zen lur-erreforma zela medio.

Bestalde, lehen ikusi denez, prest zegoen gobernu hori Latin Amerika gerra hotzean mobilizatzeko eta gero eta alarmatuago ageri zen, komunismoak Guatemalako gobernuaren gain zuen itzalaren aurrean; mehatxu horren kontra Caracasen ia ahobatezko arbuioa antolatu ondoren, inbasio militar bat prestatu zuen Honduras-eko lurraldetik hegazkin-laguntza eta guzti; honen kontra, berriz, adore eskaseko jarkipena erakutsi zuen Guatemalako armadak. Arbenz-ek desterrura alde egin behar izan zuen; Castillo Armas, inbasoreen burua, lehendakari egin zuten eta diktadura zorrotza ezarri zuen. Guatemalako iraultza bukatu zen; arazoa azken buru honetara ekarri zuten gorabehera eskandaluzkoek adierazten zuten, elementu berri batek esku hartzen zuela, oreka soziopolitiko berriak bilatzea oraindik zailagotzeko: gerra hotzak, alegia, izan ere honek bere pisu erabakiorrarekin bultzatzen bait zuen Latin Amerika, bidea, gero eta gehiago, desoreka eta borrokatan barna bilatzera". *(T.H. DONGHI, 1969)*

SRI LANDA (CEILAN): EKONOMIA

"Bi multzo handi azpimarra daitezke nekazal produktuen artean. Lehenengo, bertako jendeak uztatzen dituenak, eta, jeneralean, irlako biztanleen mantenu-beharrak estaltzera destinatzen direnak. Horien artean arroza da funtsezkoa, mantenu-modu nazionalaren oinarri dena (125.300 t 1976an); lurralde behere eta zingiratsuetan lantzen da eta mendi-oinetako terraza ondo irrigatuetan ere bai. Kopuru txikiagotan beste labore batzuk ere biltzen dira, hala nola, artoa (35.000 t 1976an) eta artatxikia (20.000 t urte berean). Batata (220.000 t 1976an), manioka (7914.000 t 1976an), tipula (53.000 t 1976an), tomate (20.000 t 1976an), pinaburu tropikala (57.000 t 1976an) eta kakahuete (13.000 t urte berean) etab.ek ere biziro laguntzen dute bertako jendearen mantenu-premiak asetzen. Espezie zabalduenak eta pisu ekonomiko handienekoak bigarren nekazal blokea osatzen dutenak dira. Kasu honetan oso handia da inbertitutako kapitala eta askotan europarren eskutan egoten da landaketen zuzendaritza. Laboreetan bi nabarmentzen dira garbi beren emankortasun handiagatik. Teak, 1976an, 242.000 Ha-ko azalera okupatu zuen eta 197.000 t eman zituen (urte berean), osoro kanpo-merkataritzarako destinatu zirenak.

Petrolio gordina (inportatua) Hapugaskanda-n errefinatzen da. 1973-77 bitarteko garaian Sri Lanka-ren faborezkoa izan zen pagamendu-balantza, nekazaritza eta basogintzako produktuen (te, koko, kautxu, etab.en) salmentak ekarritako dibisei esker". *(ATLAS ECONOMICO, Spes)*

propio bati gutxieneko errentagarritasun bat ateratzea.

Egoera honekin lotuta dago nazioarteko lan-banaketa. Garbi dago kapitalismoak herri pobreetara bultzatu dituela ekintza ekonomiko errentagaitzenak, hau da, mineral-erauzketa eta gutxi teknifikatutako industria (ehungintza, adibidez). Eta herri aberatsetan kokatzen dira industria aurreratuenak, kapitala eta lanesku prestatuena behar dituztenak.

Laburtuz, egoera honetan aurkitzen dira Estatu independente neokolonizatuak: Nekazal produktuak eta beste lehengaiak esportatzen dituzte, eta industri produktuak inportatzen. Hori da sarrienik topatzen duguna.

Egoera hau aldatzen ez den bitartean herri hauek galduta daude, zeren eta industri produktuen salneurria lehengaiena baino askoz azkarrago ari bait da igotzen. Herri hauek, gainera, gehienetan produktu bat edo bi bakarrik esportatzen dituztela kontutan hartzen badugu (laborebakarreko ekonomiak dira, alegia), berehala ohartuko gara zeinen larria den dependentzia ekonomiko hau. Kamerun-ek, adibidez, kakaoa produzitzen du. Kakaoaren salneurria % 50 jaitsi zen 1979-82 urteetan. Liberiak kautxoa esportatzen du, eta, horren truke, kontsumatzen duen gehiena inportatu egin behar du. Eta horrela joan gaitezke, beste zenbait kasu gogoratuz: Senegalek kakahuetea, Mauritaniak burdina, Nigeriak petrolioa...

Herri deskolonizatuak, beraz, Estatu industrializatuen menpean jarraitzen dira, eta bi mundu hauen arteko desberdintasuna areagotzen baizik ez da ari.



ASKAPENAREN PLAZA. Txad-eko (1960) jai honek ez digu ezkutatu behar lurralde deskolonizatu gehienetan bizi den beste ezbehar bat: herrien pobrezia, eta inoiz gose larria ere izan litekeena. Ez dago oinarrizko ekonomiarik gabeko eta justiziazko bizimodu sozialik gabeko askapen osorik.

Bangla Desh: ekonomia

"Bereziki aipatzekoak dira, lortu duten garapen handiagatik, jute-laboreak, Mymeusingh, Rangpur, Comilla eta Dacca-n lokalizaturik daudenak. 1976an 983.000 t-raino iritsi zen produkzioa eta gehienbat esportaziora bideratzen da. Honela, jutea da lurraldeko baliabide ekonomikorik nagusienetako bat.

Industria, orokorki, gutxi garatua dago. Bolumen handieneko manufakturak ehungintzakoak dira (jutea eta kotoia), eta Narayanganj-n lekuturik daude. Dauden industria-moduak dira: nekazal produktuen eraldakuntzakoak (tabakoa), ongarrienak (Tenchuganj-n), siderurgikoak eta zementuarenak. Ontzigindegi garrantzitsuak daude Narayanganj-ko portuan. 1973-76. urteetan, biziro desfaborezkoa izan zen herrialdearentzat pagamendu-balantza". (ATLAS ECONOMICO, Spes)

Herri deskolonizatuek osatzen dute Hirugarren Mundua. Eta bi fenomenoen artean (deskolonizazioaren eta Hirugarren Munduaren artean) erabateko berdinkidetasunik ez badago ere, deskolonizazioaren eta desgarapenaren artean, funtsean, zerikusi zuzena dagoela esan behar da.

IV. MUNDUKO GATAZKAGUNEAK

Gaur egungo egunkariei begirada bat ematen badiegu, laster ikus dezakegu tentsiogune nagusiak neokolonialismoa edo desgarapen-egoera jasaten ari diren herrialdeetan kokatzen direla. Apenas dagoen esan beharrik ere:

Ertamerika: EE.BB.ekiko menpekotasun osoa du eskualde honek. 1960an Kubak, iraultzaren bidez, urte askotako zapalkuntz egoera astindu eta bide berri bati ekin zion, Soviet Batasunaren laguntzaz. EE.BB.entzat oso adierazgarria izan zen Kubaren eredua, eta Ertamerika eta Latin Amerikako beste herriek bide bera jarrai ez zezaten, gobernu atzerakoi eta militaristak babestu zituen han Ipar Amerikak. Gure egunetan Nikaraguaren borroka aski ezaguna dugu.

Ekialde Hurbila: Petrolioak ekonomian duen garrantziagatik, bi Handiak Ekialde Hurbilean "adiskideak" irabazten saiatu ziren: EE.BB.ek Xa-ren Iran, Saudi Arabia, Kuwait, Emiratu Arabiar Batuak. Soviet Batasunak, aitzitik, Siria eta neurri batean Iraq ere bai.

Mundu-alde honetako arazoak oso korapilatsuak dira:



AL-FATAHren GERRILARI PALESTINARRAK. Ekialde Hurbila, konpondugabeko edo erdizka konpondutako arazoen gatazka-lekua da aspalditik hona (Inperio otomanaren desagerpena da horretan data esanahitsua: 1922). Arazoetako bat, hain zuzen, Palestinarena da. Israel Estatua jaio zenetik (1948), herri palestinarrak ez du onartu nahi izan Estatu hori bidezko eta legezkotzat. Ihesi joandakoak, asko inguruko Estatuetan integratu dira, baina palestinar errefuxiatuetatik beste ainitzek gerrilari ekin zion, Palestina israeldarren eskuetatik askatu nahiz.

- Alde batetik, Israel eta palestinarren arteko borroka daukagu. Israelek EE.BB.en laguntza ekonomiko eta militarra du, eta palestinarrek zenbait Estatu arabiarrena. Baina azken hauetako batzuk EE.BB.en lagunak ere badira, beste batzuk Soviet Batasunarenak diren bezala. EE.BB.ek, beraz, bi aldetan dituzte aliatuak. Egoera oso nahasia da.

- Bestalde, Iran eta Iraq-en arteko gerratea, 1980az gero urteetan ari da luzatzen, petrolioaren esportazioan duen ondorio guztiekin.

Gerra-arriskua hain bizia duten herrialde hauek armamentu-erosle handiak dira. Batzuek Soviet Batasunari, besteek EE.BB.ei erosten dizkiete. Horrela, petrolioak ematen dituen irabazien zati handi bat armatan doa. Ez EE.BB.ek, ez sovietarrek ez dute erabat beren eskutik utzi nahi munduko eskualde hau eta bien ontziteriak Mediterraneoan eta Pazifikoan dabiltza etengabe.

Afrikarrak hirietara

"Lehorteak eztenkaturik, eta hirien distirak erakarrita (...), afrikarrek utzi egiten dute landa. 2010ean, batzorde europarrak egin berria duen ikerlanaren arabera, Kinshasa-k 16 milioi bizilagun izango ditu, Lagos-ek, 15, eta Abidjan-ek 16. Eta 77 hiri afrikarrek miliotik gora bizilagun izango dute.

Ordurako, Hego Amerika bezain hiritartua egongo da Afrika. Nork produzituko ditu, gaur egungo 389 milioiren aldean orduko 954 milioi izango diren bizilagunentzat superbizipenerako beharrezkoak diren janariak? Nondik aterako dira horretarako ezinbesteko inportazioak ordaintzeko dibisak?"

(S. GALLEGO-DIAZ, 1984)

Hego Afrika: Beste batzuren artean Namibiaren arazoa dago. Alemaniaren kolonia izan ostean, Hego Afrikaren administraziopean dagoen lurralde honek independentzia nahiko luke. Horretarako erabakirik ere eman du UNO/ONUk. Hego Afrikak, ordea, ez dio jaramonik egin nazioarteko Erakundeari.

Eta, arazo horren ondoan, Hego Afrikako Errepublikak praktikatzen duen "apartheid" deitutako politika, tentsio-sortzailea da eskualde hartan. Populazio beltza, zuria baino askoz ugariagoa dena, lurralde pobre eta mugatu batzuetan bildu nahi da ("bantustan" edo "homeland"etan): horren arabera, beltzek aparteko eskualde horietan garatu beharko lituzkete beren gizartea, politika eta kultura, dena autonomia batera zuzenduz.

Hauek ez dira munduko tentsiogune bakarrak, ez eta nagusienak ere, beharbada. Adibide modura jarri ditugu. Eguneroko komunikabideetara adi egotea nahikoa dugu munduan zenbat eta zenbat gatazka sortzen den jakiteko. Arazorik ez da falta: Indiako hindu eta beste erlijiodunen arteko borrokak, Hego Ameriketako nazioek Estatu aberatsekiko duten zór izugarria, eta, ondorioz, Estatu hauetan sortzen direnak: Bolivian, Asiako hego-ekialdean, Vietnam-en, Kambodian, etab. Bestalde, Soviet Batasunak eta Txinak ere beren babes interesatua eman nahi dute, bakoitzak bere Estatu adiskideei lagunduz, inoiz bloke sozialistaren barnean ere gerrari leku emanez (Vietnam/Txina, adibidez).

Eta denetan, batabestearekiko menpekotasun ekonomiko nahiz militarra ageri da: desgarapena eta pobrezia, Handien antsi hegemonikoa... Hau da Neokolonialismoa.

SAMOA

"Nekazaritzak 64.000 Ha-ko hedadura dauka, hau da, irletako lur guztiaren % 23,1a. Biztanleria aktiboaren % 65a nekazari-lanetan aritzen da. Bi ustiapen-modu aurkitzen dira nekazaritzan. Batetik, ozta-ozta bizitzeko laboreak, metodo errudimentario eta errendimendu urriekin bertako jendeak lantzen dituenak. Bananak, ogi-arbola eta erreboilak dira laboratzen diren espezieak eta bertakoen oinarrizko mantenugai direnak. Bigarren sektorea merkatal laborantza da. Kasu honetan, landaketak atzerri-kapitalarekin egiten dira eta produktua askoz ere emankorragoa izaten da. Uztak esportaziora destinatzen dira osoro. Kakaoa eta koko-urrak aipa daitezke. Banana-uztaren zati bat ere kanpo-merkatura destinatzen da. Basoak irlen erdia baino gehiago hartzen du (% 60,3) eta 167.000 Ha besarkatzen ditu. 1976an 117.000 m^3 egurretaraino iritsi zen arbola-mozketen produktua. Ganadularitza familiarra da eta behi-, txerri- eta zaldi-aziendaz osatua dago. Arrantza mantenu-osagarri da kostaldeko herrientzat. Industria benetakorik ez dago". *(ATLAS ECONOMICO, Spes)*



HERRIALDE ABERATSAK ETA POBREAK. Herrialde garatuen eta pobreen arteko interes kontrajarrien kontzientzia berrikitan argiagotu egin da, Hirugarren Munduko zorrak eta gosea larriagotuz joan diren neurrian. Gizadiaren arazorik konpongaitzenetakoa da bi mundu pobre-aberatsen arteko harremanena. Hego Afrikako beltzen "apartheid" delakoa gaitzesten duten Estatu berek langile inmigrante ez-legalez baliatzen dira (USAko "chicano" mexikarrak dira adibide bat), edo krisia iristean beren etxeetara bidaltzen dituzte halakoak (EEEko langile atzerritarrak), langileon giza eskubideak gehiegi begiratu gabe. Herri eta Estatuen arteko bidegabekeria hauetaz kritikarik aski egin izan da XIX.etik hona. (Mexiko eta USAren arteko harremanen karikatura eta bertso satirikoak).

9
GIZA ZIENTZIAK, FILOSOFIAK ETA ARTEA

URTEAK	GERTAKARIAK
1902	Wright: Ward Willits House.
	Croce: Estetica come Scienza.
1903	Udazkeneko Lehen Aretoa (Parise).
1905	Die Brücke (Dresde).
1906	Picasso: "Avinyó-ko Andereñoak".
1909	Marinetti: Futurismoaren Manifestua.
1910	Russell: "Principia Mathematica".
1911	Blaue Ritter-en erakusketa.
	Kubisten erakusketa (Parise).
1912	Parisen Manifestu futurista.
1913	Sant'Elia: Proiektuak.
1917	Leyde: De Stijl jaiotzen da.
1918	Manifestu dadaista.
1919	W. Gropius: "Bauhaus" Eskola.
	Le Corbusier/Ozenfant: "L'Esprit Nouveau"
1921	Manifestu errealista: Konstruktibismoa
1922	Joyce: "Ulysse".
1923	Le Corbusier: Vers une Architecture.
1924	Breton: Surrealismoaren Manifestua
1926	"Bauhaus" Dessau-n.
1927	Heidegger: "Sein und Zeit".
1932	Kandinsky: Arte abstratuaz.
1933	Alemaniako "Bauhaus" itxita.
	EE.BB.etan "New Deal".
1937	Picasso: "Gernika".
1943	Sartre: "L'Être et le Néant".
	Le Corbusier: "Charte d'Athènes".
1950	Le Corbusier: Ronchamp-eko kapera.
	Arantzazuko Eliza berria.
1956	Oteiza: Sâo Paolo-ko Biurtekoa.
1963	"Kinetic and Optic Art" (Buffalo).
1970	B. Russell-en heriotza.

Ikasgai honetan, gizartearekiko zientzien, eta Filosofia eta Arte Ederren histori hurbilak ikusiko ditugu, Zientzia Zehatzena hurrengo kapitulurako utziz.

I. GIZARTE-ZIENTZIAK

Zientzia izena eman arren, gai hauek ez dituzte Zientzia Zehatz izateko eskatzen diren baldintzak betetzen: oinarri materiala falta zaie, egiaztapen zehatza, etorkizunerako proiekzioa eta aplikazioak.

Gizarte-zientziak, horregatik agian, oso atzeratuta gelditu dira besteekin konparatuz. Zuzenago esanda, alor honetako azterkizunak oinarri materiala ez duelako eta gizakia azterketa honetan bera ere parte denez, ezinezkoa da egiaztapen jator bat, eta ezin dugu, hortaz, ikerlanen gain gerorako proiekturik ere egin. Gizakia edo gizartea ezin da ikertu landareak edo mineralak bezala. Azken hauek indiferenteak dira, gure lanetik kanpora gelditzen dira, baina gizakia eta klase sozialak ez; horiek biziki interesatuak daude gure ikerketaren ondorioekin, eta horregatik iker-egoerak errepikaezinak dira Zientzia Zehatzetako laborategi-lan batek eskatuko lukeen leialtasun osoarekin.



SOZIOLOGIA. XVII. mendetik aitzina, Mendebaldeko zientziek aurrerapen handiak egin zituzten izadia ezagutzen; baina XIX.ean nabaria zen gizartearen ezagumenduan zientziak jasaten zuen atzerapena. A. Comte-k eman zizkion oinarri teoriko sistematikoak soziologiari. Filosofia orokor batek eta Klotilde de Vaux-ekiko izan zuen maitasunak eman zioten Comte-ri bere teoria sozio-politikoa ontzeko adorea (azkenean, zientzia eta erlijioa nahasiz izan bazen ere). Grabatu sinbolikoa (1852).



NEW DEAL ("Hitzarmen Berria"). 1929aren ondoko krisialdiari gaina hartzeko Mendebaldeko kapitalismo liberalak ekonomiari norabide gidatua eman behar izan zion: EE.BB.etako "New Deal" deitua da (1933--1939) honelako kasu baten adibide bat. Erreforma sozio--ekonomiko honek, lehenengo ekinaldian (1933-35),2.000.000 langabeturi lana eman zion, baso-lanetan; beste 4.000.000 laguni obra publikoetan. Bigarren aldian (1935-39), langileriaren aseguru sozialaz eta nekazaritza apalaz arduratu zen F.D. Roosevelt Lehendakariaren erreforma planifikatu hau. Erabaki hauek, EE.BB.etako tradizio ekonomiko liberala hautsi egiten zuten; horregatik, politika ekonomiko honek kritikari gogorrak ere izan zituen bere garaian, marrazkian ikus daitekeenez.

Zientzia hauen garapen-maila, azterketa eta sailkapenetara mugatzen da gaurkoz.

A) ZIENTZIA POLITIKOA

Alor honetan ez da gauza berririk sortu. Liberalismo politikoa ez zen behar zen bezala zabaldu, aitzitik, zenbait naziotan atzeratu egin zen (faxismoa, New Deal...). Atzerapen nabari hau gainditu nahiz, teorizazioa berrituko zela espero zitekeen, baina ez zen horrelakorik gertatu. Izen bakar bat aipatuko dugu, adibidetzat: James Burham (1941). Honentzat mundu kapitalistaren etorkizuna ez da derrigorrez sozialismoa, nagusien (teknokraten) gizartea baizik.


B) EKONOMIA

Keynes dugu hemen teoriko nagusiena. Harentzat kapitalismoa indartzeko honen krisialdi ziklikoak gainditu behar dira; horretarako behar-beharrezkoa da *gobernuaren kontrola, inbertsio* politika gidatuz eta soldatei mugak jarriz.

C) SOZIOLOGIA

Hemen ekarpen teoriko berririk ez egon arren (funtsezko dena zegoen esanda XIX.az gero, A. Comte eta Durkheim-en lanetan), metodologian bada zerbait aipatzekorik: garai honetan, inkesta-teknikak eta estatistikaren aplikazio sistema-

tikoak izugarri bultzatu zuten zientzia honen praktika.



J.M.KEYNES (1883-1946). Iraultza Industrialak sortutako ekonomia berriaren analisia, osorik eta erro-errotik kontra jarriz Marx-ek egin zuen; Keynes teorikari britainiarrak, ordea, sistema ekonomiko liberalaren autokritika teorikoa ekarri zuen. Ekonomiak bere baitan zituela oreka-arauak uste zuen teoria liberal klasikoak; Keynes-ek, ordea, ez du eritzi hori, beste gabe, ontzat emango: alderantziz, dio honek, ekonomiaren oreka ez da berez lortzen, baldintza batzuk zainduz baizik, izan ere sarreren eta kontsumoaren artean aurrezkia ere jokoan bait dago. Testuinguru honetan, monetarekiko teoria zabal bat eman zuen Keynes-ek. Honen ustez, gainera, Estatuak bere inbertsioak langabeziaren kontra ere erabili egin behar ditu.

D) PSIKOLOGIA

Freud eta bere psikoanalisia da hemen teoria berri bakarra; honen bidez, gure nortasunaren eremu ezezaguna (kontzientzipea) ekarri zuen argitara. Horren aplikazioa zabala izan da 1920ko urtetik aurrera, konplexuak gainditzeko eta neurosien tratamendurako batez ere. Horren oinarria ("Nia", "Super-nia" eta "Zera") frogagaitza da eta zentzu honetan nahikoa izpiritualista.

Jung, Adler eta beste jarraitzaileek oraindik gehiago sakondu zuten ikuspegi hau. Gizabanakoa eta beronen barne-bizitza problema sozialen aurrean jartzen dituzte. W. Reich zentzu hau gainditzen saiatu zen eta pertsonaren problema partikularren jatorria, ezarritako arauetan jartzen zuen.

E) HISTORIA. GEOGRAFIA

XIX. mendearen azken hamarkadan eta XX. mendearen hasieran **Historia eruditua** nagusitu zen. Honen bidez edozein garai eta zibilizazioren xehetasun guztiak ezagutu ahal izan dira, baina sintesi orokor baten falta ere bazegoen. Mugimendu erudituan aipa ditzagun oraindik ere baliagarriak ditugun lanak utzi zizkiguten autore batzuk: H. Pirenne ("Histoire de Belgique", 1899-1932, C.

Henri Pirenne (1863-1935)

"Pirenne-k faktore sozial, ekonomiko eta politikoen sintesi bat egin zuen, bere herrialdearen historia (1900--1930), eta batipat zenbait masa-mugimendurena, estudiatzean (...).

Pirenne abangoardista bat izan zen demografia historikoan. XV. mendean Ypres-ek zukeen populazioari buruz egin zuen estudioak araua ezarri zuen Belgikan estudio-mota horientzat (1903). Beste ekarpen inportante bat bere "The Stages in the Social History of Capitalism" izeneko artikulua izan zen (1914), nazioarteko zirkulu historikoetan interes handia sortu zuena, mende honen hasieretan. Hark zekarren teoriaren arabera, kapitalismoa ez zen lerro zuzenean eboluzionatu, eta bai areago eredu zikliko baten arabera. (...).

Pirenne-k bere "Europa erdiarotarraren historia ekonomiko eta soziala" (1933) izeneko obran historia sozial eta ekonomikoaz ematen zuen interpretazio zabalak eragina izango zuen ekonomiaren historilarietan, hura hil eta mende-laurden bat geroago ere. Obra horretako bi ikuspuntuk merezi dute jaramon berezia egitea: urrutiko herrialdeekin egindako merkataritzari ematen zaion garrantzia, hori merkatal eboluzioaren zirikagarri primarioa delako, eta Erdi Aroaren azkenaldeko berezitasuna den kontrakzio-aldia".

(H. van WERVEKE, 1976)

Jullian ("Histoire de la Gaule", 1907-1928) eta K. Lamprecht ("Deutsche Geschichte", 1891-1909).

Historia soziologikoa. Durkheim-en soziologian oinarritutako historia dugu hau. Horrentzat gizartea kanpoko zerbait da, materiala. Legeak dituen gorputzak ez du, berez, indibiduo batek duen askatasunik, eta horregatik objektiboki azter daitekeen zerbait da gizartea. Saiakera-modura emandako lanetan, P. Lacombe-rena gogoangarria da, Historiaren zientzitasunaz eskaini zuen gogoetagatik.

Historia ekonomikoa. K. Marxen materialismo historikoan oinarriturik dagoen historia da, baina honen garapena Soviet Batasunean bakarrik lortu da (Kovaliov, Struve, etab.). Mendebaldean, berriz, ekonomia kontutan hartzeko balio izan du. Horrela, konparagarri diren elementuak azpimarratzen dira, eta Historiaz sintesi baliagarriak lortzeko bidea irekitzen.

Historilari nagusienak Mendebaldean hauek izan dira: C. Bellow Alemanian, eta M. Bloch eta L. Febvre Frantzian.

Posibilismo historikoa eta **geografikoa.** Hau metafisikaren eraginaren ondorioa dugu, edo behintzat horrela kontsidera daiteke.

Materialismoa oso mekanizista zela zioten, eta gizartearen "izpirituak" posibilitate guztien artean bat aukeratzen duela azpimarratzen zuten posibilistek.

Joera honetan, berriz ere, L. Febvre aipatu behar dugu, "Lurra eta giza-bilakaera" liburuarekin. Hauek ez dute gertaera soilik aintza-

kotzat hartzen, gizonek gertaera honi buruz zer nolako irudia duten ere interesatzen zaie.

Italian mitikoagoa gertatu zen oraindik mugimendu hau. Benedetto Croce (1866-1952) dugu horietako filosofo eta historilaririk aipagarriena. "1871tik 1915era doan Italiako Historia" lanean erudizioa eta sintesia batuz lan egin zuen.


II. KORRONTE FILOSOFIKOAK

XX. mendea oso bizia izan da Filosofian, baina sortutako eskola edo korronte guztiak oso sakabanatuak izan dira eta zorroztasuna falta izan zaie. Filosofo batzuek, Nietzsche-k esate baterako, Filosofiaren amaiera gainean zela diagnostikatu zuten.

Eskola nagusiak

Enpiristak (XIX.etik)	
Idealistak (XIX.etik)	
Irrazionalistak	Bizitzaren filosofoak Existentziaren filosofoak
Fenomenologoak	
Neorrealistak	

Ezaugarri orokor batzuk eman behar balira, hauetara-edo muga genitzake berauek:



BERTRAND RUSSELL (1872-1970). Gales-en jaio eta hil zen filosofo eta matematikari britainiar hau. Ia ehun urteko zela hil zen, mende oso bateko gogoeta filosofiko eta arazo politikoak bizi izan ondoren. Hiru aldiz parte hartu zuen hauteskundeetan, baina eskaini zituen programa politikoak ausartegiak gertatu ziren, nonbait, boto-emaileentzat: emakumezkoei botoa eskaintzen zien, eta parre egin zioten (1907); inperialismoaren kontra, kapitalaren gaineko zergen alde hitz egin zuen, irakaskuntzaren erreforma eta Soviet Batasunarekin harremanetan jartzea eskatuz mintzatu zen (1922-23), eta ez zuten aukeratu. 1914eko gerratetik

hona bakezale bezala borrokatu zen Russell, eta preso ere egon zen (1918, 1961): Armamendu nuklearraren aurka, gerra hotzaren kontra, Suez-eko erasoa salatuz (1956), Bakearen aldeko auzitegia (Vietnam-eko krimenak argitara ekartzeko) sortuz, aspertzeke lehiatu zen, gizartea hobetu nahirik. Australiako jatorrizko bertakotarrak, Greziako Erresistentzia eta palestinarrak bihotzez defendatu zituen. Bere bizitzan Filosofia eta politika hain hertsiki elkartu zituen pentsalari honen obretatik, hemen "Principia Mathematica" gogoratuko dugu (1910-1913).

Zertarako bizi izan naizen

"Hiru grina, sinple baina eutsiezinok agindu dute nere bizitzan: maitatu-beharrak, jakiteko egarriak eta gizadiaren sufrimenduen sentimendu jasanezinak (...).

Maitasuna bilatu dut, lehenengo eta behin estasia delako (...).

Beste horrenbesteko amorruz jakitearen irrika izan dut (...). Bertute pitagorikoa nereganatzen saiatu naiz beti (...), zenbakien ahalmena, aldaketa unibertsalaren gainetik, mantentzen duena (...).

Maitasunak eta jakinduriak, eskura nitzakeen neurrian, lurretik gora jasotzen ninduten. Beti eraman izan nau errukiak, eta bihozberotasunak beti lotu naio lurrari. Oinazezko garrasiak oihartzunka ari zaizkit nere barrenean. Ume gosetiek, zapaltzaileen eta torturatutzaileen biktimek ukitu naute: Oinazezko, behargorrizko eta bakardadezko mundu oso bat ari da bizitza, behar lukeen bezalakoa, isekatzen". (B.RUSSELL: ***Autobiography***, *1967-1968)*

- Oro har, munduaren eta gizonaren artean zegoen leizea (mekanizismoa eta subjetibismoa dira horren ondorio nagusiak) gaur egun desagertu da eta gaurko Filosofiak munduari buruz kontzepzio organikoa eta harmonikoa eman nahi du.

- Positibismoaren aurkako jarrera. Natur zientziak ez dira ezagupen filosofikoaren iturri bezala erabili (alde honetatik salbuespen bat badugu materialistek onartzen bait dituzte zientzia haiek).

- Errealismoa, eskola edo mugimendu guztietan (idealismoan ezik) errespetatzen den ezaugarria da. Errealismoa, gure garaiko Filosofian, gizonak izakia zuzenean atzemateko duen gaitasuna da.

- Pluralismoa. XIX. mendeko monismoaren aurka, XX.ean aniztasun esplikagarri irekiagoa bilatu da.

- Gaurko arazoez arduratzean, substantzia, orain arte oso kontzeptu garrantzitsua zena, ez dute onartzen.

- Gizakia, pertsona bezala interesatzen zaie, bere banakotasun sortzailean.

Baina ezaugarri guztiz orokor hauek eskola eta korronte filosofiko bakoitzean aski ezberdinki daude bilduta; ikus ditzagun, ba, haien berezgarriak ere.

A) NEORREALISMOA

Mugimendu honetan Ingalaterrako eskola dugu nagusi, eta Bertrand Russell (1872-1970), Moore (1873-1958) eta Bradley (1846-1924) filosofo garrantzitsuenak. Erkide dituzten faktoreak hauek dira:

- Enpirismoa, hau da, gure ezagutzak esperientziatik datozela diote, lehendabizi.

- Errealismoa: Gu errealitatea zuzenean, errepresentazio psikikorik gabe, atzemateko gauza garela baieztatzen dute neorrealistek.

Russellen eragina gure pentsaeran handia izan bada ere, haren sistematikotasunik ezak zerbait mugatu egin du Rusell-en onargarritasuna.

B) BIZITZAREN FILOSOFIA

Errealitate osoaren ezagutzara ailegatzeko hauek ez dute materia edo ideiaren bidea hartu nahi izan, bizitzaren bidea baizik. Berauen ezaugarriak holatsu laburbil genitzake:

- Mugimendua edo bizitza da Unibertsoan dagoen absolutu bakarra. Izakia, materia, etab. mugimendu horren ikuspegiak edo aztarnak dira.

- Errealitateari buruz kontzepzio organikoa dute (Biologia eta Historia dira zientzia nagusiak haientzat).

- Irrazionalismoa. Intuizioa, esperientziak... dira metodologia bakarrak.

- Onartzen dute errealitate objektiboa, subjektutik kanpora ere.

Mugimendu honetan Henri Bergson (1859--1941) dugu filosofo nagusiena, eta korronte honen sortzailea, eta antzeko bideak jarraitzen dituzten korronteen artean EE.BB.etako pragmatismoa, Alemaniako bitalismoa eta Diltheyren historizismoa dira aipatzekoak. Ortega y Gasset-ek iturri horietan edan zuen bere pentsamendua.



HENRI BERGSON (1859-1941). Filosofo frantses hau jatorriz judua zen. Urtetan egon zen Sorbonan irakastaulki bat ezin eskuratuz, baina Bergson-en argitalpenek oihartzun sozial handia izan zuten beren espresabide distiratsuagatik eta, esan ohi denez, "le Tout-Paris" joaten zen filosofoaren hitzaldiak entzutera; baina Eliza Katolikoak obraren bat "Index"ean sartu zion ("l'Evolution créatrice", 1907). Nobel Saria eman zitzaion 1927-an. 1941ean hil zen Parisen, Elizatik hurbil, baina garaiko antisemitismoari aurre eginez bere herriarekin geratu nahi izan zuen,bataiatu gabe. Bergson-en pentsamendua urrun dago garaiko arazo sozialetatik; baina modu xarmanta du giza senaren mina, iraupenaren jario aldakorra eta biziaren oldarra inpresionismo poetiko batez emateko. Bergson-en baliorik istimatuena, beronen pentsamenduaren "ederra" izan zen.

Edmund Husserl

Moravia-ko Prossnitz-en (garai hartan Austria) jaio zen 1859an eta Freiburg-en hil 1938an. Lehenik matematika, fisika eta astronomia ikasi zituen Leipzig-en Weierstrass--ekin eta gero,bi urtez (1884--1886), Brentano-ren filosofi eskolan egon zen Viena-ko Unibertsitatean; 1887tik 1901era irakasle laguntzaile izan zen Halle-ko Unibertsitatean,1901-etik 1916ra Göttingen-en eta azkenik, 1916an irakasle titular izendatu zutenetik 1928an erretiratu arte, Brisgovia-ko Freiburg-en irakatsi zuen. Brentano-rengandik jasoriko kinadak erabakior gertatu zitzaizkion, berarengatik izan ez balitz ez zuela filosofiaz deus idatziko aitortu bait zuen.

Husserl logika-ahalmen bortitzekoa genuen, bereizketak eta banaketak egiten maisu aparta. Zehaztasun zientifikoaz egiazki grinaturik zegoen. Eszeptizismoan erortzear zekusan filosofiari ohorezko bultzada berria eman zion. Max Scheler, J.P. Sartre, M. Heidegger eta Romano Guardini bezalako izen handiek Husserl-ek sorturiko metodo fenomenologikoa txit ugalkorra, apartekoa, izan dela adierazten dute.

C) FENOMENOLOGIA

Fenomenologian, bi ezaugarri nagusi aipatuko ditugu, sistemaren funtsezkoena azpimarratzeko.

- Metodoa. Fenomenoa deskribatu nahi dute, hau da, bitarteko gabe atzematen dena; horregatik, natur zientziek eta idealismoak erabilitako metodoak baztertu egiten dituzte.

- Objektua. Fenomeno baten esentziara ailegatu nahi dute, hauxe bait da fenomenoaren edukin ulergarri bakarra. Esentzia gure intuizioaren bidez atzematen dugu.

Edmund Husserl (1859-1938) da, Bergsonekin batera, gure garaiko filosoforik ospetsuenetako bat; honen eragina eskola guztietara zabaldu da. Fenomenologia filosofiko baterako sistema landu nahi izan zuen metodoa dugu hau: Zientzia guztiak, eta filosofia batez ere, aurreritzi edo suposamenik gabe garatu behar dira. Gure kontzientziaren aurrean daudenak soilik aztertu behar ditugu. Metodo hau ez da, ez enpirikoa, ez deduktiboa.

D) EXISTENTZIAREN FILOSOFIA

Batez ere II. Mundu-Gerratearen ondoren nagusitu zen Filosofia honen ezaugarririk nabarienak hauek ditugu:

Filosofia existentzialista guztiak "bizipen" batetik sortzen dira. Existentziaren arazo

JEAN-PAUL SARTRE

Parisen jaio zen 1905ean eta bertan hil 1980an. Literaturgintzari erabat ekin aurretik, irakasle izan zen Le Havre, Laon, Neuilly-sur-Seine-ko Lizeoetan eta Pariseko "Condorcet" Lizeoan; 1945ean **Le Temps Modernes** aldizkaria sortu zuen. Bera izan da Frantziako existentzialismoaren ordezkaririk nagusiena edo, behintzat, eraginik bortitzena izan duena. Haren idazlan ugarietan saiakera filosofikoak zein literatur lanak aurki daitezke.



nagusiekin lotzen gaituena horixe da "bizipena" (heriotza, izakiaren ahultasuna...). Aztertu nahi duten gai nagusia, gizakiaren izaera da. Gizona da "existentzia" duen izaki bakarra, edo, hobeto esanda, gizona existentzia da (ez du esentziarik). Existentzia ez da ezer berez (ez da izaki bat), egin egiten da, proiektu bat da. Subjektibistak dira, bestalde, existentzialistak.

Bere literatur balioengatik,Sartre (1905--1983) dugu existentzialisten artean ezagunena, baina arbasoak eta benetako sorburuak Sartre baino lehenagoko M. Heidegger (1889-1976) eta K. Jaspers (1883-2969) alemanak izan ziren.

III. LITERATURA

XX. mendean lan ezberdinak sortzen dira Literaturan; kopuruz eta moldez ugaritasuna da korronte guztien ageriko ezaugarri bat. Mugimendu nagusienak hauetara muga ditzakegu hemen:

- Errealismoa. Naturalismoarekin elkarturik dagoen mugimendua. Burgesiaren ideologiatik sortua eta jende arruntarengana zuzendua.
- Estetizismoa. Egoera politiko eta sozialaz asperturik, kreazio artistikora mugatzen diren artistak ditugu hauek.

- Literatura soziala, gizartearekin konprometitua. Gizartea aldatu nahia da joera honen ardura nagusia. Marxismoa da horretarako erabiltzen duten lanabesa, edota utopiaren baten proposamena.

- Abangoardismoak edo "ismoak" deitutako mugimenduak.Lehenengo Mundu-Gerratearen inguruan sortzen dira eta beste arteekin erlazionaturik daude. Hona ezaugarririk nabarienak: tradizioaren guztiz kontrakoak dira; subjektibismoa eta sentimentua ia-ia desagertu egiten dira; forma tradizionalekin ere eten egiten dute (genero literarioak, forma metrikoa, etab.); jendearekiko ardura gutxi, elite intelektualentzat dihardute lanean; errealitateari ez diote kontzesiorik egiten, artea artearen zerbitzuan: arte hutsa da xedea.

Hona abangoardismo hauen zerrenda soil bat, oroigarri bezala: Italiako Futurismoa, Espainiako Ultraismoa, Alemaniako Espresionismoa, eta Kubismoa, Dadaismoa, Neorrealismoa, Surrealismoa ... Eta II. Mundu-Gerraz gero garatu zirenak: Absurduaren literatura, Letrismoa, Konkretismoa, Errealismo berria, Beat eta Hippy-en mugimenduak, Underground, etab.

- Existentzialismoak aipamen lasaiago bat merezi du. Literatura existentzialista, gizakiaren barrunbeko arazoetara mugatzen da, kanpoko errealitatea gure eraginetik at ikusten bait du. Giza bizitza transzendentziarik gabeko gauzatzat dauka; hortaz, denbora da existentziaren etsaia. Korronte literario honetako idazle nagusietan, J.P. Sartre, S. de Beauvoir, A. Camus, G. Marcel eta Unamuno sar ditzakegu, adibidez.



FUTURISMOA. Marinetti-k 1909an argitara emandako Manifestutik dator izena. Hemen ikusten dugun hau, hain zuzen, Marinetti-ren liburu bateko orrialdea da: "Hitz futuristak askatasunean" (1919). Futurismoa literaturan, plastikan, arkitekturan eta musikan egikaritu nahi izan zen; musikagileek ere, adibidez, zabaldu zuten beren "Musika futuristaren Manifestu teknikoa" (1911), hiri modernoetako ozentasun berriak musikara eramatea eskatuz (zarata, musikagai bihurtuz, alegia).

- Erlijiositate berria, Katolizismoan. XX. mendeko aurren hamarkadetan baliabide salbagarri bezala aukeratzen dute erlijioa, nihilismoa baztertu nahian: Péguy, Claudel, Bernanos, etab. aipa litezke.

- Literatura propagandistikoa, beste edozein garai edo naziotan bezala.

A) INGALATERRA


Mendearen hasierako literatura honek ekarpen literarioek duten alde pedagogikoa goratzen du: H. G. Wells-ek (1866-1946) gai zientifikoak nobela-itxuran zabaltzen ditu. Beste fenomeno aipagarri bat zera da: literatur gizonak periferiatik datozela. B. Shaw, Irlandatik; H. Lawrence (1885-1930), Galestik (nobelan). Lawrencek, gainera, Frantziako joeretan topatzen du bere etorria, hau da, gizabanakoaren libertatea defendatuz. Kasu honetan, gainera, sexutasunaren bidez ("Lady Chatterley's Lover", 1928).

Abentura ere izugarri zabaldu zen elaberrian, gertakariak bi eratako ingurutan kokatuz:

- Europako paisaje hiritarra hartzen dute batzutan. Legez kanpo, edo gizartearen alde ezkutuan gertatzen dena kontatzen dute. Honelakoa izan da nobela beltza. Joeraren ordezkari nagusi bat A.C. Doyle (1859-1930) dugu ("The adventures of Sherlock Holmes", 1892).

- Paisaje exotikoetara jotzen da bestetan: J.R. Kipling (1865-1936) eta J. Conrad (1857-1924: poloniarra berau, baina ingelesez idatzi zuena) ditugu aipagarrienak joera honetan.

H.G. WELLS (1866-1946). T.H. Huxley zientzilariaren ikaslea izan zen luma-gizon hau, eta maisuaren arrastoa nabaria da Wells-en obra literarioan: "The Time Machine" (1895). Ideia sozial eta zientifikoen zabaltzaile-lana egin zuen bere elaberrietan eta kazetari-ihardunean. Shaw-ek antzertian zabaldu zituen ideial aurrerazaleak, Wells-ek beste literatur genero hauetan eman zituen. J.Verne-ren ildo beretik, zientzi fikziozko obra ederra utzi zuen idatzita, baina zentzu politiko, soziologiko, filosofiko eta utopikoa du literatura honek autore ingeles honengan.



Lirikan, berriz, W.B. Yeats (1865-1939) irlandarra nagusitu zen garai honetako Ingalaterran.

1930eko urte-inguruan intelektual guztiek ezkerraldera jo zuten (Europako beste nazioetan bezala), eta korronte honetan G. Orwell (1903--1950) izan da ospetsuena; beste konnotazio batzurekin, V. Woolf (1882-1941) ere sar dezakegu hemen (Emakumearen presentzia dakar literaturan, eta kalitate handiarekin gainera).

J. Joyce (irlandarra hau ere: 1882-1941) abangoardismoaren ordezkari nagusia da Europan. Honekin ezartzen da kubismoa, Literaturan (ikuspegi desberdinak batera, elkarren artean interferentziak dituztela deskribatzea, esate baterako).

A. Huxley (1894-1963) izan zen Ingalaterran, Genet frantsesa bere testuinguru pertsonal hain bereziarekin Frantzian izan zenaren antzekoa: gizartearen kritikari zorrotza eta honen etorkizunaz geroz eta ezezkorragoa. Beste nobelista garrantzitsu batzuk, R. Graves (nobela historikoa) eta G. Green ditugu.



JAMES JOYCE (1882-1941). Idazle irlandar hau gorabehera handiko familia katoliko bateko semea zen. Krisi luze baten ondoren, familiarekin, politika eta erlijioarekin, hirurekin, eteten ditu bere loturak, eta literatur lanean babesten da. Italia, Frantzia eta Errusiako nobela eta literaturak ezagutu, eta Parisen egonaldi bat egin ondoren, Irlandarekin hautsi eta Suitza, Trieste eta Parisera erbesteratu zen.1922-an argitara zuen "Ulysse" obra maisua, eta inguruan zuen literatur munduan haren alde eta kontrako jarrerak biziak izan ziren. Nobela hau, kontaketa literarioaren XX. mendeko gailur bezala geratu da betiko.

B) ALEMANIA


Hemen, Ingalaterran bezala, pedagogiak garrantzi handia izan zuen hasiera batean; baina beste zentzu batekin landuta. Errealitatea eta batez ere hezkuntza aztertzen dituzte, beronen ondorio kaskarrak argitara ekartzeko: Hermann Hesse-ren (1877-1962) "Unterm Rad" (Gurpilaren azpian) eta "Demian" dira obrarik famatuenak. Thomas Mann-ek (1875-1955) "Buddenbrooks" eta "Zauberberg" (Mendi Magikoa) sortu zituen, eta F. Kafka-k Estatu zapaltzailea edo Estatu autoritarioaren ondorioak darabiltza gaitzat.

Lirikan, S. George (1868-1933) eta R.M. Rilke (1875-1926. Pragakoa hau ere, Kafka bezala) ditugu ezagunenak.

B. Brecht-ek (1898-1956) konpromisuzko literatura ordezkatzen du Alemanian. Bukatzeko, H. Böll (1917-1985), G. Grass eta M. Ende dira azken urtetako nobelista ospetsuenak, beren eragina, Alemaniatik kanpo ere zabaltzen dela.

C) ESTATU BATUAK

29ko krisialdiko idazleei esker, EE.BB.-etako Literatura, Europan ere zabaldu zen. Errealismo kritikoa erabiltzen dutenen estiloa dugu: H. Dos Passos (1896-1970), Steinbeck (1902-1968), etab. Ordurako, W. Faulkner (1897-1962) nahikoa ongi ezagutzen zen Europan ere, baina horren balioa ez zuten oraindik Amerikan behar bezala estimatzen.



RAINER M. RILKE (1875-1926). Pragan jaiotako poeta aleman hau armadara sartu nahi izan zuen oso gazterik aitak; baina armada eta Praga behin betirako utzi ondoren, Alemanian bizi izan zen. Errusiara egindako bi bidaiek (Tolstoi ezagutu zuen han) oso markatu zuten Rilke, eta beronen erlijiozko bizi-larriari espresabide berriak eman zizkioten. Emazte izan zuenaren eraginez, Rodin eskultorearen adiskide eta idazkari izatera iritsi zen, haserretu ziren arte. Etengabe lanean eta bidaietan (Italia, Espainia, Suedia, Danimarka, Ipar Afrika, Egypto...), nobleziak babestuta edo bakardade gogorrean, produkzio handi bat utzi zuen, olertian batez ere, baina baita hitz lauez ere, giza existentziaz bere gogoeta poetikoa jaulkiz.

Urte hauetan intelektual amerikar asko etorri zen Europara, egonaldi luzeak egitera; horietako batzuk ez dira inoiz berriro hara bueltatuko. Horietakoak dira T.S. Eliot (1888-1965) eta Ezra Pound (1885-1872). Beste asko, egitekoren bat bete nahian etorri ziren: E. Hemingway (1898--1961), Espainiako Errepublikari laguntzera, esate baterako. G. Stein (1874-1946) jite berdinarekin, gogora dezakegu, eta orobat S. Fitzgerald (1896--1940). Bestalde, H. Miller (j. 1891) ihesbidezko literaturan sar daiteke: sexua da Miller-entzat jasaten dugun egoera lotutik ihes egiteko bide egokiena.

L. Durrell (1912. Alexandriako kuartetoa) erreferentzia garrantzitsua dugu mundu-literaturan.

LOUIS ARAGON (1897). Olerkari, nobelagile eta saiolari frantsesa. Breton surrealistaren lagun eta jarraitzaile izan zen; baina Aragonen lehenengo leialtasuna batez ere iraultza sozialistarekikoa izan da bizitzan zehar (Errusia eta PCE alderdia,alegia). Historia eta gizartearen bila egin du lan Aragon-ek. Nazien kontrako Erresistentzian askatasun-kontzientziaren ahots epikoa bilakatu zen Aragon-ena, surrealismotik urrunduz eta frantsesaren erritmo eta errima klasikoak berreskuratuz.

D) FRANTZIA



Aurreneko urteetan, askatasun indibiduala landu eta defendatzea izan zen lehen xedea Literaturan, eta bide honetan lehen izen bat A. Gide dugu (1869-1951. Homosexualitatearen estetika). Honek desira indibiduala edozein gauza baino gorago jartzen du. R. Rolland (1866-1944) ere joera indibidualista honetan jarri ohi da.

Literatura ezkertiarrak oso garrantzi handia lortu zuen Frantzian, eta beste nazioetakoaren lidertza ere eraman zuen: Giza eskubideen aldeko elkartasunean, idazle antifaxisten lagunartean eta antzeko elkarteetan bildu ziren idazleak. A. Malraux (j. 1901), L. Aragon (j. 1897), etab. dira mugimendu hauetan bozeramaile.

FRANÇOIS MAURIAC (1885-1970). Idazle frantses honek olertia, antzertia eta nobela landu zituen. Saiolari bezala, bere kristau-kezkak agertu zituen. Espainiako Gerrate Zibilekoan, Franco-ren aurka kanpaina bortitz bat gidatu zuen, eta bereziki euskal abertzaleen alde agertu zen Euskaldunen Aldeko Lagunen Elkartean lehendakari izanez. Nobel Saridun (1952) honen obran gaizkia eta santutasuna ("zeru-lurrak, senar-emazte"), elkarren ondoan borrokatzen dira. Argazkian: Mauriac, Ph. Noiret antzezlariarekin.



A. Mauriac (1885-1970) eta G. Bernanos (1888-1948) idazle katolikoak, korronte erlijiosoan, eta A. de Saint-Exupéry (1900-1944) abentura-kontaketan, ditugu idazle famatuenak. Abangoardismoan sartuta A. Breton (1896-1966) dago, surrealismoaren manifestua idatzi zuena hain zuzen, eta idazle konprometitua gainera.

Existentzialismoan S. de Beauvoir, Sartre eta Camus aipatu behar dira, baina J. Genet, lehen esan dugun bezala, talde edo korronte hauetatik kanpo gelditu izan da. Honek oso jokabide bereziak mantendu zituen, bizitzan nahiz literaturan.

E) ITALIA

Mende honetako idazlerik kasik gorena G. D'Annunzio (1863-1938) dugu. Honek Nietzsche-ren ideiak mantendu zituen bere lanetan; gerraondoko urteetan zertxobait baztertua izan da, Faxismoaren aurrean jarrera politiko erabat garbirik izan ez zuelako. B. Croce-k (1866-1952) beste ekarri-modu bat izan du, jarrera politikoetan eta literaturaren bidez bere idealismo filosofikoa zabaltzean.

Abangoardismoan, futurismoan hain zuzen ere, Marinetti (1876-1944) izan zen aitzindari; har ditzagun gogoan, azken urteetako nobelan A. Moravia eta Cesare Pavese ere.

IV. MUSIKA

Musikaren egoera XX. mendean nahikoa konplexua da. Alde batetik tradiziotik datozen ezaugarri askorekin eten egin da eta, bestaldetik, ez da inoiz hainbeste diferentziarik egon jendearen gustoaren eta musikarien produkzioaren artean. Horregatik hauetako gutxi ezagutzen dira intelektuala ez den jendearen artean.

Musika berri honen ezaugarriak gogoratuko ditugu lehenik. Metrika baztertu egiten da: musikagileek ez dute esaldi musikalaren neurria kontutan hartzen. Disonantziak sortzen dira: efektu

EUSKAL MUSIKAREN BIDE BERRIAK

"Europan mendearen hasieratsutik entseiatzen ari diren musika berriak eraginik --hemen 1950aren ingurutik aurrera hasi zen ezaguna izaten--, hainbat izan ziren euskal musikariak, atonalitatearen edo musika esperimentalaren bideetan barna kementsu abiatu zirenak.

Luis de Pablo izan zen denboraz lehena, 1953aren inguruan, bere lehenengo esbozo serialarekin hasi zena eta jada 1957an bere "Invenciones"ekin Europara ailegatu zena. Gerotxoago, 1959an, Karmelo Bernaola ateratzen da mundu horretara, Luis de Pablo-k 'Tiempo y Música' taldea sortzen duen garai berean.

1962an, abangoardiako musikaren beste jarraitzaile batek, Agustin González Azilu-k irabazten du Beka bat, Nafarroako Diputazioarena, eta Parisera joaten da horrekin. Urte horretan bertan Karmelo Bernaolak irabazten du Musika-Sari Nazionala.

1964ean Petrasi-rekin estudiatzen du González Azilu-k, eta 1965ean "Grupo Alea" sortzen du Luis de Pablo-k, Musika elektronikoko Gabinete horren Zuzendari bera dela. 1966an 'Heterofonías' estrainatzen du Karmelo Bernaolak Gernikan, eta, hurrengo urtean, Gotzon Aulestiak Parise-n Olivier Messiaen-ekin estudiatzen duen urte berean, Luis de Pablo-k 'Módulos III', 'Módulos IV' eta 'Módulos V' estrainatzen ditu (...). 1968an Juan Antonio Larrauri elkartzen zaio bere "Dédalo"rekin abangoardisten taldeari (...).

Eta hala, Agustin González Azilu-k 1971n, Musika-Sari Nazionala irabazten duenean, bere 'Oratorio Pan-Lingüístico'rekin irabaziko du. Hau berriz euskararen musikaltasunaren garakizunekin erlazionatua dago. Larrauriren 'Munduak' obra ere izartegiko soinu-mundua aditzera emateko ikuspegi euskaldun bat da apika.

Maria Luisa Ozaita eta Jose Luis Isasak ere entseiatzen dute genero berria gure artean. Baina, beste inon baino gehiago beharko da hemen itxoin-konpas bat egin". *(J.A.ARANA MARTIJA, 1976)*

ez-atsegina lortzeko asmoz erabiltzen dute baliabide hau. Tonalitatea ere desagertu egiten da (erreferentzi falta). Erritmoa: batzutan konpas desorekatuz ekin edo erritmo zehatzik gabe lan egin dute. Eskala berria: betidanik tonua eta tonuerdia izan dira eskalaren oinarri; orain tonu-laurdena eta beste neurri batzuk ere erabiltzen dira. Musika idazteko modu berriak: aparailu elektronikoentzat, batez ere. Tinbrea (kolorea) nagusitzen da eta horrekin batera zarata ere bai. Azkenik politonalitateak agertu dira, efektu berrien bila.

Mugimendu batek baino gehiagok jaso ditu bere erara ezaugarri horiek:

- Inpresionismo musikalean, Debussy eta Ravel ziburutarra ekar ditzakegu hona: harmoniak eta batzutan gai folklorikoek badute lekurik hauengan.



- Espresionismoa. Harmonia diatonikoa berreskuratzen dute eta herri-musika berriak ere bai (Jazz edo Brasileko gaiak, esateko). Erik Satie (1866-1925), D. Milhaud (1892-1974) eta A. Honegger (1892-1955) dira mugimendu honen sortzaileak; korronte berekoa dugu I. Stravinsky (1882-1971) baina beste iturri batzutatik sortua ("Suzko Txoria", "Udaberriko Sagarapena").


IGOR STRAVINSKY edo STRAWINSKY (1882-1971). Familiako giroak lagunduta eta dohain handiz hornituta, oso gazterik arrunt aurreratu zen Igor musika-lanetan, Rimski-Korsakov irakasle zuela, eta honekin ikasi zuen musika-teknikarik trebeena; baina, maisu honekin egindakoetatik ez, baizik ondoko obren bide ausartetatik jaio zen musika modernoa. Laster irabazi zuen sona zabala Parisen ere (1910). 1920tik aurrera, Errusiatik geroz eta urrunago aurkituko ditu inspirazio-iturriak, eta 1953tik aitzina teknika serialak erabiltzen hasi zen, horretan ordurarte hain zapuztua zuen Schönberg-en bideei ekinez. Hollywood-en biziko da azken urteetan. 1956tik hona dodekafoniari bete-betean eman zion leku.

- Dodekafonia. Eskalako hamabi nota erabiltzen dira hemen, eta gainera nota bat bera ez da errepikatzen, lehenengo beste hamaikak erabili gabe. A. Schönberg (1874-1951), honen ikasle A. Berg (1885-1935) eta A. Webern (1883-1945) dira ezagunenak.

- Bruitismoak, zarata ere musika bezala errebindikatu du. Joera honetan E. Varèse-k (1883--1965) egin zuen lan handia.

- Musika elektronikoa. Musika-molde honetan ez dago konpositorerik, edo konpositorearen lanak garrantzi osoa galtzen duela esan dezakegu. Musika-jotzaileak nagusitzen dira.

- Herri-musika, komunikabideei esker, herri bakoitzetik mundura zabaldu da XX. mendean: Jazz, Rock eta Pop musikak dira aintzakotzat hartzekoenak.



ARNOLD SCHÖNBERG (1874-1951). Viena-ko Eskola deituaren burua. Musikaren teorikaria eta musikagilea izan zen Schönberg. Garai batean madarikatua izanarren, oso abonatua izan zen azkenik. Autodidakta izan zen gehienbat, eta urtetan bizitza gogorra jasan behar izan zuen, inoiz ematen ez zizkioten sariketetan ere parte hartuz, irakaskuntzan tokia lortu zuen arte. 1910aren ingurutik aitzina izen zabala irabazi, eta produkzio eta berrikuntza handiak eskaini zituen. 1921ean dodekafoniaren lehenengo obra sortu zuen, eta Stravinsky-ren neo-klasizismoaren aurka agertu zen. Jatorriz judua zenez, irakasle zen Berlinetik ihes egin behar izan zuen: Parisen judaismora berkonbertitu zen, beretarrak naziek hala pertsegituak ikusita, eta EE.BB.etan bilatu zuen babesa. Gaixotasunak azken urteak ilundu bazizkion ere, lanean jarraitu zuen Boston eta Los Angeles-en, bere pedagogi eta sorketa-lanak eskainiz. Debussy eta Stravinsky-rekin batera, XX. mendeko musikagile gorenen hirukotea osatzen du Arnold Schönberg-ek. Askoren ustez, bere eta ondoko garaiei aurreratu zitzaielako, oraindik ere ez da ongi ulertua izan musikagile honen produkzioa.

V. ARTE PLASTIKOAK


Arte plastikoen bideetan ere mila bide dira XX. mendean urratu direnak, Eskolak ugaritu direlako eta lanerako teknika eta baliabide berriak agertu direlako ere.

A) ARKITEKTURA

XX. mendeko arkitekturak bi joera-iturri oso desberdinak izan ditu: irudimen eta emozioari lehentasun osoa eman diena bata (irrazionalismoa), eta batez ere funtzioa eta teknika azpimarratzen dituena bestea (razionalismoa).

Arkitektura beste arte plastikoak baino erlazionatuagoa dago gizartearekin, izan ere arkitektur eraikinak, artistaren borondateaz aparte, faktore sozial gehiago ere behar ditu (finantziazioa, erabilgarritasuna, etab.). Horregatik, joera razionalistak zabalduko dira besteak baino areago.

Hala eta guztiz ere, bi printzipio hauek konbinatuz sortzen dira arkitekturako mugimendu guztiak: Razionalismoaren lehenengo momentuak, Espresionismoa, Futurismoa, Konstruktibismoa, Plastizismo berria, Alemaniako Razionalismoa eta Frantzian, Organizismoa.



SANT'ELIA (1888-1916): Zentral elektrikoa (1913). Mugimendu futuristaren barruan, Arkitekturarekiko Manifestua Sant'-Elia-k idatzi zuen (1914), abangoardismoaren haizeak alor honetara gidatuz. Zoritxarrez, Sant'Elia-ren lanak proiektu hutsak izan ziren.



GROPIUS/MEYER: Fagus Lantegia (1911). Futurismo irudimentsuari kontrajarrita jaio zen arkitektura razionalista, osagarrien ordenamendu neurritsua bilatuz. Fruturik onenak --estetikoki ezezik, sozialki ere-- Lehen Gerrate Handiaren ondoren eman zituen mugimendu honek.

* 1. Nazioarteko joerak


Joera guzti hauek, herri edo Estatu bakoitzeko egokiera sozio-politiko eta artistikoen arabera, gisa eta testuinguru desberdinetan mamitu izan dira Europan eta Mendebaldean. Ikus ditzagun guztiez ohar llabur batzuk.

a) Lehen Razionalismoa

XX. mendearen aurreneko hogei urteetan jar dezakegu mugimendu hau. Utopiak baztertu, eta arkitektura hirigintzarekin lotuta begiratu zuen. Etxebizitzak, teknikaren garapenarekin batera planteatu zituen Razionalismoak. Hormigoia ez da estaltzen, alderantziz, batzuetan kofraduraren aztarnak agerian uzten dira. J.L. Garnier (1825--1898) eta Perret (1874-1954) gogora ditzakegu Frantzian, eta P. Behrens (1868-1940) Alemanian.

b) Espresionismoa

Ez du espresionismo piktorikoarekin paralelismo handirik; baina, hark bezala, funtzionalismoa eta baliagarritasuna arbuiatu egiten ditu. Beiraren erabilpena, arte-lanaren adierazgarritasuna eta banakotasuna zaintzen ditu korronte honek. Arkitektorik ospetsuen bezala B. Tant (1880--1938) eta E. Mendelsohn (1887-1953) azpimarratuko ditugu.



ERICH MENDELSOHN (1857-1953): Einstein Dorrea (Potsdam, 1920). 1919tik ezaguna zen Mendelsohn, erakutsiak bait zituen irudimenezko bere arkitektur marrazkiak: gerora egikarituko zituenen aurrerapen teoriko orokorrak ziren. Eta hemengo hauxe da haren lehenengo obra egina.

ARTEA: TRADIZIOAREN ETA BERRIKUNTZEN ARTEAN

"Espresabide konbentzionalen kontrako borroka sistematikoa, eta ondorioz XIX. mendeko arte-tradizioarekin haustea, dadaismoarekin hasten dira, 1916an. Gerra-garaiko fenomeno tipikoa da dadaismo hau, gerrara eraman gintuen zibilizazioaren kontrako protesta, eta, beraz, derrotismo-modu bat. Mugimendu osoaren asmoa da, lehendik mamituta zeuden formen erakargarritasunari eta klitxe linguistiko erosoei kontra egitea, hauek gastaturik egotean, baliorik ez dutelako eta deskribatu behar duten objektua faltsutzen eta espresioaren espontaneitatea alferrik galtzen dutelako. Dadaismoa (eta surrealismoa ere bat dator osoro horrekin gai honetan) zuzeneko espresabide bat aurkitzeko borroka da, hots, mugimendu erromantiko bat da funtsean. Esperientzia formen bidez faltsutzearen kontra doa haren borroka (...).


Baina XIX. mendeak oreka, bat baino bilatzen ez duen bitartean --oreka zaharraren eta berriaren artean, tradiziozko formen eta indibidualismoaren espontaneitatearen artean--, dadaismoak espresio-bide arrunt eta gastatu guztien desegitea eskatzen du. Espresakera guztiz espontaneo bat galdatzen du, eta horregatik kontraizate batean oinarritzen du bere teoria. Izan ere, nola ulertuko gaituzte, ba, --eta surrealismoak ere ulertua izatea bilatzen du--, aldi berean komunikabide guztiak ukatzen eta desegiten baditu?" *(A.HAUSER, 1968)*

INPRESIONISMO-ONDOKO IRAULTZA ESTETIKOA

"Mende honetako mugimendu erreakzionario nagusiena Arte-alorrean egiten da, Inpresionismoa baztertuz; aldaketa honek eten bat sortzen du Artean, Ernazimentutik honako estilo-aldaketa guztiek egin zutena baino sakonagoa, ba funtsean horiek ez zuten ukitu tradizio naturalista (...). Alde honetatik, laurehun eta gehiago urte iraun duen garapen baten tontorra eta bukaera izan zen Inpresionismoa. Arte postinpresionista bera da lehena printzipioz edozein errealitate-ilusio baztertzen eta bere bizitz ikuspegia, zergauza naturalak nahita deformatuz adierazten. Kubismo, Konstruktibismo, Futurismo, Espresionismo, Dadaismo eta Surrealismoa: adore berdinez apartatzen dira denak Inpresionismo naturalista eta errealitate-zaletik (...).


Arte postinpresionista ezin daiteke inola ere izadiaren erreprodukzio deitu. Izadiarekin duen erlazio bakarra hori itxuragabetzea da eta. Gehienez ere esan daitekeena da, magiazko naturalismo-gisako bat dela, errealitatearen ondoan dauden, baina errealitatearen lekurik hartu nahi ez duten objektuen produkzio-gisako bat. Braque, Chagall, Rouault, Picasso, Henri Rousseau, Paul Klee-ren eta obren aurrean jartzen garenean, beti hautematen dugu, beren diferentzia guztien artean, beste bigarren mundu baten aurrean ote gauden, supermundu baten aurrean edo, eta horrek errealitate komunarekin erakusten dituen arpegiak ugariak badira ere, errealitate hau baino gorago dagoen eta honekin batera ezinezkoa den existentzi modu bat adierazten du beti ere".

(A.HAUSER, 1968)



SANT'ELIAren Proiektu hau Manifestuaren urte berekoa da (1914), arkitektoa gerran hil baino bi urte lehenagokoa: "La Città Nuova".

VLADIMIR E.TATLIN (1885-1956): III. Internazionalari Monumentua (1919). Konstruktibismoaren teoriek, erregimen sovietarrean aurkitu zuten proiektuak jasotzeko aukera.



c) Futurismoa

Italiakoa dugu mugimendu hau, eta pinturarekin batera sortua da. Garai hartako Italiak ez zuen garapen teknologiko handirik, eta, horregatik ere, proiektutan gelditu ziren ideia gehienak. Korronte honek formei dinamismo bizia eman zien; zentzu makinista bat eman zieten beren sorkariei arkitekto hauek: Sant'Elia (1888-1916), M. Chiattone, G. Terragni.

Terragni arkitektoa izan zen, abangoardistetatik Faxismoak onartu zuen bakarra, zeren honen arkitekto ofiziala Piacentini izan bait zen. Azken honek elementu modernoak ere erabili zituen (hormigoi armatua, adibidez), baina eraikuntza ikuspegi sozialetatik baztertuz.

d) Konstruktibismoa

Soviet Batasunean sortutako mugimendua dugu. Iraultza egin ondoren, artista gehienek erregimen berriarekin lankidetzan ihardun zuten. 1920-1930etan arkitekturaren eta pinturaren erdigune nagusia bilakatu zen Errusia.

Arkitektura, hain zuzen, erregimenaren sinbolo egin zuten (Sozialismoarena alegia), beti ere funtzionalismoaren bidetatik saiatuz.

Soviet Batasunak zuen egoera ekonomiko kaskarrak asko mugatu zituen proiektu guztiak, baina ideiekiko leialtasuna behintzat gorde zen. 1930etik aurrera, abangoardismo hau burokraziak ito zuen eta gaur egunerarte ez da berriro holako momentu artistikorik sortu.

Eman ditzagun orduko arkitektoetatik izen batzu: V. Tattlin (1885-1953), A. Vesnin (1883--1959), El Lissitsky (1890-1941), Miliutin, etab.

PROLETKULTURA: LANGILERIAREN KULTURA BERRIAZ

"Proletkulturalistak ezkertiarrak ziren: berrikuntzari amorratu eta erdikoikeriaren nahiz goitik beherako plangintzen kontrakoak zeharo. Herriaren berezko senean sinesten zuten eta honi libre utzi nahi zioten (...). Lenin, erdikoa agertu zen. Dena den, borrokak geroagokoak dira. Lehenengo urteetan (1917-1921) proletkulturalistak nagusi ibili ziren.

Proletkulturalistek 1918 aldera asko zerabilten esaera batek honelaxe adierazten ditu beren asmoak: erre dezagun Raffael gure biharraren izenean, porroka ditzagun museoak eta artearen loreak ostika. Zeharokoak ziren hauetxek: gizarte berriaren berritasunean sinets-sinetsirik, ordurarteko guztia lardaskatzen zuten. Orduarteko kultura ere bai, noski, 'klase-gizarteko' eta klasista iruditzen bait zitzaien hura guztiz. Klase-gizartean sortua izanik, hartantxe orientatzeko balio zuen, hartarako zen on; ez klaserik gabeko gizartean. Hemen, zertarako gabe eta alferrikakoz beste, kaltegarri iruditzen zitzaien, klase gizarteko izpirituz beteko omen bait zuten herria. Iraultza aurreko kulturak Iraultza ostean ez zuela ezertarako balio, iruditzen zitzaien". (J.AZURMENDI, 1973)

ARTE UTILITARISTA

"Gizarte ikuspuntutik 1917an gertatu zena, 1914ean gertatu zen gure lanean, pintura-lanean alegia. Orduantxe onartu bait ziren gure funts bezala 'materialak, bolumena eta eraikuntza'. Aitortzen dugu, ez garela fio begiarekin, eta kontrolpean jartzen ditugula gure sentimenezko inpresioak.

1915ean egin zen Moskun laborategiko eredu eta material eskalara egindakoen erakusketa bat (erliebe eta kontraerliebeen erakusketa). 1917an egin zen beste erakusketa batek adibide-sail bat aurkezten zuen, materialaren beraren erabileran egindako ikerketa konplexuagoen emaitza ziren konbinazio materialei buruz. Honek mugimendua, tentsioa eta harremanak sortu zituen beren artean.

Materialaren, bolumanaren eta eraikuntzaren ikerketak bide eman zigun 1918an artezko forma batean konbinatzen hasteko: burdina eta kristala bezalako materialak, klasizismo berriaren material direnak, beren seriotasunean antzinateko marmolarekin konparatzeko modukoak direnak.

Bide honetatik arte-forma huts garbiak asmo utilitarioekin batzeko aukera sortzen da. Adibide bat III. Internazionalari Monumentua egiteko proiektuan sortzen da". *(TATLIN eta beste: 1920)*

PROLETKULTURA: ARTE PLASTIKOAK

"1. Artista proletari guztiak bildu behar dira langile-komunatan, irakatsi eta aldi berean propagandan lan egin dezaten.

2. Komuna hauei, tailer, estudio eta laborategien antolaera eta instalazioa gomendatu behar zaie, arte plastikoetako eremu guztietan sormen kolektiboa suspertu eta gararazi dezaten.

3. Arte-sormen proletariaren oinarri ideologikoak taldean landu behar dira.(...)

4. Sovietar lurralde osoan sortu behar diren unibertsitateek, produkzio-prozesuari lotuta zuzenean sortutakoek, modu kolektiboan zabaldu eta gararazi behar dituzte arte plastikoaren zientzia proletaria eta horren metodoak (...).

8. Kultur ilustraziorako organizazio proletarien lehen biltzar pan-errusiarrak uste du, arte plastikoetako sormen-obrak, proletal ideologia iraultzailearen eraginez sortuak, alaitasunaren, edertasunaren eta jakinduria praktikoaren iturri behar dutela izan, baina klase-kontzientziaren propaganda-arma bortitz ere behar dutela bilakatu nazioarteko proletal iraultzan".

(PROLETKULTURAREN BILTZARRA. MOSKU, 1918)

ARTE PROLETARIOA

"1. Lan politikoa eta eskolatze-lana ezin daitezke batabestetik bereizi artearen alorrean: batasunezko multzo bezala kontsideratu behar dira.

2. Komunismoan lana alaitasun bihurtzen da, eta artea lanaren arte.

3. Iraganaldian proletalgoak egin duen arte-baloreen asimilazio esklabutarra kaltegarri da.

4. Tradizioa zerako zentzuan ulertu behar da, alegia, arte-baliorik duen hura bakarrik gorde behar dela presenterako (...).

5. Arte-irakaskuntzak egin behar duena da, masak lagundu bertatik eta iraunkorki, helpide intelektualez eta artistikoz jabetu daitezen artegintzarako.


6. Ezabatu egiten da arte-alorrean masak eskematikoki eskolatzeko sistema, ze masen sortu-nahia gauza da bere kultura propioa sortzeko eta bere burua burges-estetikatik libratzeko.

7. Proletalgoak betiko moztu behar du behinola nagusi ziren klaseen lekuera sendoa: alegia, bizitzaren eta artearen arteko kontraizatearekin. Hemendik aurrera ez da arterik izango xedetzat bere burua duenik. Propaganda eta agitazio komunistaren arma zorrotz bilakatzen da proletalgoaren eskutan artea. Produkzio-erreminta, helpide eta produktua, proletalgoaren eskuetan, artea da".

(Moskuko PROLETKULTa, 1920)

e) Plastizismo berria (De Stijl)

De Stijl (mugimenduaren albistariaren izena) edo Plastizismo berria Holandako funtzionalismoa edo razionalismoa dugu. Gerrateko eta Alemaniako nazionalismoaren aurkako erreakzioa da, halako arrisku hartatik gorde nahi bait zuten kultura. Horretarako, historian zehar sortutako teknikak baztertu eta artea zero puntuan jarri nahi izan zuten: hauentzat, lerro horizontal-bertikalen arteko jokoa nahikoa da, artelana sortzeko, edota bi kolore primarioak aski zaizkie pintura bat burutzeko. Sinadurarik sonatuenak T. van Doesburg (1883-1931), J.J. Pieter Oud (1890-1963), W.M. Dudok (1884-1974) ditugu.



J.J.P. OUD (1890-1963): Scheveningen-en eraikitzeko etxebizitzen proiektua (1917). Itxuraz tradizio handirik ez zegoela uste zen Holandan arkitektur berrikuntza bat ezagutu zen (1910etik aurrera); baina, batez ere, "De Stijl"-ekin (1917) jaio zen han nazioartean eragin azkarra izango zuen mugimendu estetikoa. Oud izan zen, taldean, arkitektorik sonatuena; baina beti saiatu zen bere bide originalak lantzen ere, teoria formaletan ito gabe.Hemengo proiektu hau, hala ere, mugimenduko teoriarekin bat dator: zehaztasuna, erritmoa, ordena...


"DE STIJL"en XEDEAK

"1. Garaiaz badago kontzientzia zahar bat, eta berria bestea. Zaharra gizabanakoari begira dago. Berria, ostera, unibertsalari. Banakoaren eta unibertsalaren arteko gatazka mundu-gerran beste ispilatzen da gaurko artean. 2. Gerra, mundu zaharra eta bertako guztia ari da hondatzen: gizabanakoak eremu guztietan zuen nagusitasuna, alegia. 3. Arte berriak argitara du garai-kontzientzia berriaren mamia: unibertsalaren eta gizabanakoaren arteko oreka berdindua. 4. Kontzientzia berria prest dago gauza guztietan egikaritua izateko, baita eguneroko bizitzako gauzetan ere. 5. Tradizioak, dogmak, gizabanakoaren (naturaltasunaren) egikaritze horren kontra doaz. 6. Ondorioz, arte plastiko berriaren sortzaileek dei bat egiten diete artearen eta kulturaren eraberrikuntza batean sinesten dutenei, horien geroko garapena galerazten duten trabak desegin ditzaten. 7. Kontzientzia honek berak eragiten die gaurko artistei, mundu osoan zehar, gizabanakotasunak eta idiosinkrasiak duten nagusitasunaren kontrako gerra honetan intelektualki parte har dezaten. Horregatik datoz bat, bizitzan, artean eta kulturan nazioarteko batasun bat sortzeko borroka izpiritual edo material batean sarturik dauden guztiekin". *(ALDIZKARIAREN I. MANIFESTUA, 1918)*

f) Razionalismoa

Alemaniako razionalismoan **Bauhaus** ("Eraikuntz Etxea") proiektua dugu nagusi. Hau Arkitektur eta Diseinu-Eskola zen; artea, industria eta artisautza elkartu nahi zituen Eskolak edo hobeki esanda arkitektura edozein diseinu industrial bezala lantzea zen helburua.

Walter Gropius (1883-1969) arkitektoa izan zen eskola honen sortzailea; gerratarteko urteak bete zituen beronek Alemanian (1928rarte), eta II. Mundu-Gerratearen ondoren, EE.BB.etan iradokizun-iturria izan zen arkitekturaren berrikuntzan (Harvard Unibertsitatean).



WALTER GROPIUS (1883-1969): "Bauhaus"en gurasoa eta gidaria izan zen Gropius, gerratarteko bere aldi alemanean bezala gerraondoko aro amerikarrean ere. Dohain apartak zituen helmuga estetikoak definitzeko, eta berauek taldean egikaritzeko. Gropius-i zor zaizkio "Bauhaus"en programak eta horien ingurura bildu zituen gizon-emakumeen kudeakuntza zoli eta emankorra.

Bauhaus-ek ez zituen eraikinak bakarrik proiektatu, altzari eta etxe-barneetakoez ere arduratu zen. Bi printzipiori izan zien itzal handia Bauhaus-ek: Ahal zen sinple eta merkeena atera behar zen produktua, eta diseinua trukatu egin behar zen (diseinu industriala arkitekturara eramanez, eta artistikoa industriara).

Gropius-en ondoan aipa ditzagun hemen H. Meyer (1889-1954), M. van Der Rohe (1886-1969). Azken hau Gropius baino enpirikoagoa gertatu zen, eta eraikin altuetan razionaltasun handiagoz lanegin zuen.

g) Organizismoa

1930eko hamarkadan razionalismoaren krisia nabaria zen. Alde batetik, bere jite humanista edo kezka sozialak baztertuz, kapital handiaren zerbitzuan jarri zen Arkitektura, eta bestetik Razionalismoak mito edo ideia faltso askori bidea moztu zion, baina baita desegindako horien ondoan

"BAUHAUS"en FUNTSA ETA EGITARAUA

"Artea edozein metodotatik aparte sortzen da, eta ez dago irakasterik; aitzitik, artisautza ikas daitekeen gauza da. Arkitektoak, pintoreak eta eskultoreak, denak dira artisau, hitzaren jatorrizko esanahian; (...) horregatik, oinarrizko artisau-prestamena eskatuko zaie ikasle guztiei eta hori tailerretan eta esperimentazio- eta lan-tokietan hartzeko modua izango dute (...). Horregatik, Bauhaus-ean ez da irakasle eta ikaslerik izango, maisu, ofizial eta ikastunak baizik. Irakaskuntza-modua tailerraren izakeratik beretik deribatuko da:

Figuragintza organikoa, artisau-trebetasunetik hara landua. Edozein zurruntasun baztertu; sormenezko aldeak landu batipat; bakoitza libre utzi, baina ikasketa zorrotz egin.

Korporazio-moduko examinak izango dira maisu eta ofizialentzat, Bauhaus-eko maisu-kontseiluaren aurrean, edo kanpoko maisuen aurrean.

Ikasleek maisuen lanetan parte-har erazi. Enkargu-bidezko lanak bilatu, baita ikasleentzat ere. Elkarren artean hegada handiko lan utopikoak proiektatu --herri- eta eliz eraikuntza-- geroari begira (...).

Etengabeko harremana herrialdeko artisautza eta industriako elementu garrantzitsuenekin. Harremanak bizitza publikoarekin eta herriarekin, erakusketak eta bestelako agerpideak direla medio (...).


Lanetik kanpora ere adiskidetasunezko harremanak antolatu maisu eta ikasleen artean: antzertia, hitzaldiak, poesia, musika, txantxo-dantzak. Bilera hauetan festa-zeremonial bat sortu". *(W.GROPIUS, 1919)*

DENOK ARKITEKTURARA!: ARTISTAREN ARTISAU-OFIZIOA

"Arkitektura da edozein iharduera figuratiboren azken helburua! Behinola, arte figuratiboen egitekorik ospetsuena eraikinak dekoratzea zen, eta horregatik nahitaez hartzen zuten parte arkitektura handian (...). Arkitekto, pintore eta eskultoreek berriro ikasi behar dute arkitekturaren forma konplexua ezagutzen eta ulertzen, eta ulertu ere bere osotasunean eta bere zatietan; horrela eman ahal izango diete berriro beren obrei, saloi-artearekin galduta daukaten arkitekturazko izpiritua.

Arte-institutu zaharrak ez zeuden, behar zuten bezala, batasun hori sortzeko moduan, artea ez bait da irakas daitekeen gauza. Berriz ere tailerretara itzuli beharra dago. Marrazten eta pintatzen bakarrik dakiten eredu-marrazkilari eta dekoratzaileen mundu honek azkenean eraikitzen hasi behar du berriz ere. (...)

Arkitektoak, eskultoreak, pintoreak, denok itzuli behar dugu artisautzara berriro! 'Ez dago arte profesionalik'. Ez dago funtsezko alderik artistaren eta artisauaren artean. Artista, goragoko mailako artisaua besterik ez da. Zeruko graziak lorarazten du artea eskutik ateratzen zaion lanean, artista bera hartaz konturatu ere gabe; baina edozein artistak ezinbestean behar duena artisau-oinarria da. Hementxe dago sormenezko irudigintzaren lehendabiziko iturria".
(W.GROPIUS, 1919)



LE CORBUSIER (1887-1975). Arkitektoa eta Arkitekturaren teorikaria. Hirigilea ere izan zen. Frantzian, eta Frantziatik kanpo, lan-modu razionalista hedatu zuen. Le Corbusier-en ustez, forma artistikoa arazo ongi planteatuaren ondorioa da, eta, arazoa ondo planteatzeko, bi datuok hartu behar dira aintzakotzat: Izadia eta Historia (espazioa eta denbora).

Hauek dira Le Corbusier-en arkitektur hastapenak: Sinpletasuna, oinarrizko forma geometrikoa erabiliz; euskarrietara eramaten du eraikinaren pisua, eta, horrela, beheko solairua libre utz dezake eta hiriaren mugimenduari ez zaio oztoporik jarriko. Teilatua, horizontala egin daiteke, han lorategiak edo 'solaria'k jarriz. Solairu bakoitza, beharrizanen arabera moldatuko da. Leihoak, horizontalak, fatxadaren zabal osoan emango dira, fatxada-hormak ez bait du pisurik hartzen eta, hortaz, paretak ireki ezinik ez dago.

Hauek dira Le Corbusier-en arkitektur hastapenak: Sinpletasuna, oinarrizko forma geometrikoa erabiliz; euskarrietara eramaten du eraikinaren pisua, eta, horrela, beheko solairua libre utz dezake eta hiriaren mugimenduari ez zaio oztoporik jarriko. Teilatua, horizontala egin daiteke, han lorategiak edo 'solaria'k jarriz. Solairu bakoitza, beharrizanen arabera moldatuko da. Leihoak, horizontalak, fatxadaren zabal osoan emango dira, fatxada-hormak ez bait du pisurik hartzen eta, hortaz, paretak ireki ezinik ez dago.

beste helmuga estetiko batzuk ezarri ere: espazioa, eta gizartea bera, ente abstraktu bezala ikusi zituen. Krisialdia lehenagotik zetorren: EE.BB.etan arkitekto gazte baten sustaturik, F. Lloyd Wright-ek alegia.

Wright-ek (1869-1959), Europarekiko dependentzia eten erazi nahi zuen. Arkitektura originala egin, Historia gabeko herria zenez, amerikarrek egin zezaketen halakorik, ez europarrek.

Arazo soziala ez zitzaion axola, baina bai norberaren askatasuna: etxea, pertsona bakoitzak aurkitzen duen errealitate hurbilena da, eta errealitate horretan mamituz doa gutako bakoitzaren nortasuna. Arkitekturak, hazkundea bezain naturala izan behar du, baina irrazionala. Organizismoa, bizia bezain sistematikoa da.

1910. urterarte erdiko burgesiarentzat egiten ditu etxeak: Prairie Houses hauetan barruko eta kanpoko espazioaren arteko identifikazioa egiten du, dena izadi bakar batean bilduz. Geroxeago Japoniako arkitektura ezagutu zuen, eta han ikusitakoa erabiltzen hasi zen. Wright-entzat, etxegintza eginkizun ekologikoa zen.

h) Azkenaldiko joerak

II. Mundu-Gerra bukatu ondoren, Wright-en bidea nagusitu zela esan daiteke. Ez dugu horrekin adierazi nahi Gropius edo van Der Rohe baztertuta gelditu zirenik; alderantziz, haien eraikinak egunekotasunik handiena izan zuten, baina, hala ere, arkitekto abangoardistek Wrighten erizpideetan oin-hartu zuten beren berrikuntzan aurrera egiteko.

Erizpide gako hauekin definitu zuten beren lana: Espazioa, gizakiaren kreazioa da, eta Artea keinu bezala erabiltzen da; materialen aldetik, arte-lanak izaditik zuzenean hartu beharko lituzke bere langaiak. Artearen eta teknologiaren arteko gatazka aintzakotzat hartuta lan egin beharko da. Artelanak existentzia balore berriz janzten du.

Arkitekto aitzindarietatik ainitzek EE.BB.etan lan egin izan du, nahiz eta gehienak europarrak izan. Pisu eta esanahi handia izan dute ipartar batzuek: Alvar Aalto (1898-1976) eta Ero Saarinen (1910-1961) finlandiarrek, adibidez, edo J. Ultzon danimarkarrak. Gehiegi luzatu gabe, ekar dezagun hona izen jakingarriren bat edo beste: Louis Kahn (estonio-amerikarra, 1901-1974), Kenzo Tangel (japoniarra, j. 1913), F. Candela (espainiarra, j. 1910), Nervi (italiarra, 1891-1979), etab.



ALVAR AALTO (1898-1976): Paimo-ko Osasun-etxea (1929-1933). Aalto izan zen Ipar Europan maisurik handiena. "Bauhaus"etik hurbilena zebilena berau zen. Osasun-etxe honetan ikustekoa da eraikin osoaren hegal ezberdinak nola lotzen dituen harmonia oso bakar batean. Aalto-k Finlandian utzi zuen bere lanetatik gehiena, baina EE.BB.etan ere lan egin zuen.


Ik. xehetasun gehiago: "Arteaaren Historia/3" obran (UZEI. Donostia: Elkar. 160-170 orr.)

* 2. Euskal Herriko Arkitektura

Euskal Herriko Arkitektura XX. mendean atzeratuta etorri dela esan dezakegu, izan ere joera berriak 1930. urterarte ez dira hemen agertu eta orduan ere, sortu baino gehiago kanpoan ikusitakoa errepikatuko da, inongo originaltasun edo balore berririk gabe. Egoera mugatu honetan aipagarriak gertatzen dira azken urte hauetan Arkitektur eskola sortzeko egin diren ahaleginak.

Gerrate zibilaren aurrekoetatik Sekundino Zuazo (1887-1970) arkitektoa gogora dezagun. Lan gehienak Euskal Herritik kanpo egin arren, euskal baloreak erabiltzen ditu bere lanetan. Eta Zuazorekin batera, Bitor Eusa nafarra: berehala razionalismoan ere sartuko dugun hau une honetako gizona ere badugu.

L. PEÑA GANTXEGI izan da azken bizpahiru hamarkadetan euskal Arkitekturari irtenbide berriak --geure tradizio estetikoetatik pentsatuak eta nazioarteko berrikuntzen testuinguruan lekutuak-- bilatu dizkiotenetako arkitektorik ezagunena. Argazkian: Oiartzun-eko etxe-barne bat.



Europa krisialdian sartzen zen unean ezagutu zen razionalismoa Euskal Herrian: Joxe Manuel Aizpuruaren eskutik etorri zitzaigun (1904-1936). Aizpuruak erabilitako razionalismoa, hasieran Holandako De Stijl eta gero Gropius-ena izan zen. Beronenak ditugu: Boluetako "Bitor Briñas" eskolak eta Donostiako Klub Nautikoa.

Gerraondoko arkitektura (beste arlo kulturaletan bezala) iraganari begira gelditu zen; erregimenaren tradizionalismoak eta zailtasun ekonomikoek geldierazi egin zituzten proiektu aurrerazale guztiak. Egoera hau, 1950. urtetik aurrera joango da aldatuz eta, Euskal Herriari dagokionez, Arantzazuko Basilikaren eraikuntza oso sustagarria izan zen egoera artistiko orokorrarentzat.

Arantzazuko Basilikan L. Laorgak eta X. Sainz Oizak parte hartu zuten, lehiaketa batean

irabazle atera ondoren. Nahiz eta zenbait elementu tradizional oraindik gorde (gurutz-planoa, etab.) forma berritara zabaldu zuten proiektua; materiala azaltzeko moduak, hormigoia eta zura konbinatzeko erak eta hutsuneek zentzu modernoa dute.

Azken urte hauetan, Luis Peña Gantxegi arkitektoa gailendu da bere lanekin, euskal tradizio eta estetika berezikiago zainduz. Mutrikun egindako etxebizitzak eta Gasteizeko Foruen Plaza (Txillida-rekin batera) euskal abangoardi lana bezala izendatu ohi dira.



TXILLIDA/PEÑA GANTXEGI: Gasteizko Foru-Plaza. Etxe-eraikinetan ezezik, jendarteko beste eraikin ireki hauetan ere egin da ahaleginik espazioaren euskal ikusmoldea lantzen, kasu honetan eskultura-arkitekturak erabat elkarrekin bilduz gainera.

Txillidaren eskultur bolumenek eta Gantxegiren eraikinek batasun harmoniatsu zabal eta eroso batean besarkatzen dute elkar, inguruari atseden-espazio bat eskainiz. Hutsartearen gozaleku bat da Gasteizko plaza hau, eta hiri modernoaren barnean oasi adeitsua.

B) PINTURA

Eskolatan oso aberatsa izan da XX. mendeko Pinturaren historia, arazo teoriko funtsezkoenei erantzun nahirik birpentsatu egin bait da ondare bezala jasotako tradizio historiko osoa. Ahalegin horien ondorioz, irtenbide guztiz ezberdinak jaio dira.

Argazki-teknikak, alde batetik, eta erreparatu gabeko beste zibilizazioetako eskultura eta pintura ezagutzeak (arte afrikarra edo "primitiboa", adibidez), XV. mendetik aurrera sortutako arte europarra (figuratibismoa) krisira bultzatu zuten. Horrez gain, Fisikan sortutako ikusmolde berriak eta gizonaren inkontzientea ezagutzeko metodoek, mundu berriak ireki dizkiote arteari.

SURREALISTEN "BIGARREN ERREALITATEA"

"Surrealistek Artetik espero dute salbazioa, baina bestalde dadaistek adina zapuzten dute Artea eta gehienez ere irrazionalki ezagutzeko bide bat bezala onartzen dute.

Surrealisten errezeta baino makinatxo bat emankorragoa zen Proust-en prozedura; ba honek ere egoera ameslari batean jartzen zuen bere burua, eta oroipen eta asoziazioen korrontean abandonatzen zuen, hipnotismoko medium baten posibilitatearekin; baina, aldiberean, pentsalari disziplinatu eta arte-sortzaile biziro ahaztun bat bezala egoten zen. Badirudi Freud-ek berak aurkitu zuela surrealismoaren tranpa. Salvador Dalí-k Londres-en bisitatu omen zuen, hil aurretxoan, eta Freud-ek esan omen zion: 'Zure artean interesatzen zaidana ez da inkontzientea, kontzientea baino'. Apika, esan nahi zuena ez zen besterik: 'Ni ez nau interesatzen zure paranoia simulatuak, simulazio hori egiteko metodoak baino'.

Surrealisten oinarrizko esperientzia 'bigarren errealitate' baten aurkikuntza da, zeina errealitate arrunt eta enpirikoarekin askaezinda bategina dagoen arren, hain bait da bestelakoa, ze zer ez den esanez bakarrik hitz egin bait genezake horretaz eta gure esperientziako hutsune eta baoei erreferentzia egitea beste biderik ez bait dugu haren existentzia frogatzeko. Inon ez da modu-bitasun hau zorrotzago adierazten Kafka eta Joyce-ren obretan baino, ba horiek, doktrina bezala, surrealismoarekin zerikusirik ez duten arren, beroriek ere surrealista dira zentzurik zabalenean, mendeko artista aurrerati gehienak bezala".

(A.HAUSER, 1968)

* 1. Munduko Pintura-Eskolak (1900-1945)

Artearen erabilera bera eztabaidatzen da: zein funtzio betetzen du gaur egunean arteak? Artea, zertarako? Galdera hauek, XX. mendeko joera guztien ardatza izan dira.

Beste arteak baino areago, Pintura izango da kezka eta galdera hauen oihartzuna jasoko duena.

a) "Fauve" mugimendua

Fauvismoaren ezaugarri nagusia margoaren balorazio subjektiboan dago. Izadian dagoen bezala ez, baizik bakoitzari izadi horren aurrean pizten zaion sentimendu edo grinaren arabera erabili nahi dira margoak: musu gorriak, zuhaitz urdinak, etab. Koadro bakoitzak berezko logika du, kanpokoaren zerbitzutan ibili gabe.

Margoak gauza guztien forma, espazioa eta argia adierazi behar ditu, eta, horrez gain, sentimenduak isladatu nolabait ere.

Ederra, sentimendu-dohaintza

"Arte modernoa (...) arte 'itsusia' da funtsean; euforia eta inpresionismoaren forma, tonu eta kolore atseginak baztertzen dituena. Balore piktorikoak desegiten ditu pinturan, sentimendua eta irudi zaindu eta koherenteak poesian, eta melodia eta tonalitatea musikan. Larriminez aldegiten du atsegina eta alaia den edozertatik, apaingarri eta graziosoa den orotatik (...).

Asmoa da,adimenarekin idaztea, pintatzea eta konposatzea, eta ez emozioekin (...).

Hortik borroka bat sortzen da sentimendu haragikoi eta hedonistiko guztien kontra; hortik datoz Picasso, Kafka eta Joyce-ren obretako iluntasuna,depresioa eta giro ekaitztsu hura (...).

Schönberg-ek bere sistema dodekafonikoa (hamabi tonukoa) asmatzen du, eta arrazoiarekin esan da Picassori buruz, pintura-artea, dena, berriro asmatu nahi balu bezalaxe pintatzen duela bere koadro bakoitza". (A.HAUSER, 1968)

PINTOREA, OBRAREN TEORIKARI OTE?

"Pintorea, jendeari bere obra aurkeztu beharrean, pintatzeko arteari buruz bere ideietakoren bat azaltzen hasten denean, bide arriskutsu batean sartzen da.

Lehenengo eta behin, jakin bait dakit nola pertsona askok pintura literaturaren menpeko zerbait bezala ikusten duten, eta nola pintoreari eskatzen dioten, ez bere medio eta helpideei dagozkien ideia orokorrez eta bai areago hertsiki literaturazkoak direnez mintzatzea, beldur naiz, aski harritu gabe onartuko ez ote den, pintorea arriskatu eta letra-gizonaren arloan sartzea. Argi eta garbi ikusten dut, pintoreak bere estiloaz eman dezakeen azalpenik onena bere koadroetatik ateratzen dena dela.

Alabaina, Signac, Desvallières, Denis, Blanche, Guérin, Bernard bezalako artistek aldizkarietan ere idatzi zuten". (H.MATISSE, 1908)

OHAR OROKORRA. Ikasgai honetarako irudiak (batez ere, pinturari dagozkionak) diapositiba eta kolorezko arte-liburuetan bilatu behar dira. Lehen pauso baterako balio lezake "Artearen Historia/3"ak (UZEI. Donostia: Elkar. liburukia). Hemen, berriz, batez ere langai teorikoak ematen dira, buruhauste handirik gabe bila daitezkeen irudienak osatzeko.

Mugimendu honen sorrera "Udazkeneko Aretoan" (1905) jar dezakegu. Izan zuen indarrik, berehala, hiru urte beranduago, taldea desegin arren. Handik aurrera, pintore bakoitzak bere bide pertsonala ibili zuen, baita hasierako bide fauvista utziz ere.

Taldearen bihotza Henri Matisse (1869--1954) dugu. Urte hartako erakusketan, "Marra berdezko erretratua" fauvismoaren manifestua gertatu zen. Koloreak ez ziren harmoniatsuak; alderantziz, kontrasteak eta herronka biltzen ziren koadroetan. Matisse-ren ondoan, André Derain (1880-1954) eta M. Vlaminck paisajista (1876-1958) har ditzakegu gogoan fauvista bezala.

b) Kubismoa

"Les demoiselles d'Avignon" (1907) koadroarekin, bapatean amildegi bat sortu zen XIX. mendeko eta XX.eko Arteen tartean.

Ordurarte, errealitatea irudikatzen zen (zehazki nahiz molde inpresionistetan), baina handik aurrera, Artea ez da izango errealitatearen errepikatzaile. Kubismoak bere baitan bilatzen du lanerako arrazoia (L'art pour l'art).

Baina, pertsonalitateak edo indibidualismoak elkarretaratu egiten dira, bere produkzioetan berdindu alegia: oso zaila zen orduan, Braque eta Picassoren arteko diferentziak atzematea. Askotan firmatu gabe ere uzten dituzte koadroak.

Bestalde, lan-teknikak eta moduak ere kontzienteki berdintzen dituzte. Perspektiba ez dute lantzen, baizik eta planoan ari dira. Formak,

KUBISTA BATEN AITORPENAK

"Kubismoa ez da beste pintura-eskolak ez-bezalakoa. Printzipioak eta elementuak berdinak dira guztientzat. Kubismoa luzaro ulertu gabe egon izateak eta gaur oraindik jende askok horretan ezer ez ikusteak ez du ezer esan nahi. Nik ez dakit ingelesik eta beraz ingeles liburu bat hutsa da neretzat. Hala ere honek ez du esan nahi ingelesik ez dagoenik. Zergatik bota inori errurik, neroni izan ezik, ez dakidana ulertzen ez dudalako?" (1923).

"Askok uste du, trantsizioko artea dela kubismoa, fruituak gero emango dituen esperimentu bat dela. Horrela uste dutenek ez dute ulertu. Kubismoa ez da hazi edo umeki bat, formekin diharduen arte-modu bat baizik, eta forma bat egikaritzen denean, bizi propioa izan dezan egiten da" (1923).

"Kubismoa egitean zer asmo nituen? Ba pintatzea eta besterik ezer ez. Pintatu egin nahi nuen, pintatu, inolako errealismo alferrik gabeko espresio berri bat bilatuz, nere pentsamendu soilari lotutako metodo batekin, --errealitate objektibo batekin elkartu gabe eta horren norantzapean jarri gabe.

Nere borondatea da forma hartzen duena, edozein kanpo-eskematatik kanpo, publikoak edo kritikak esan dezaketenari jaramonik egin gabe" (1932).

(PICASSO: 1923, 1932)

ZER DA KUBISMOA?

"Kubismo 'zientifikoa' joera puruetako bat da. Ikuspenaren errealitatetik ez baina ezagumenduaren errealitatetik ateratako elementuekin konposizio berriak pintatzeko arte-modua da.

Edozein gizonek du barne-errealitate honen zentzua. Adibidez, ez dago eskolatua izan beharrik, forma biribil bat asmatzeko.

Lehenengo pintura zientifikoen ikusleak hain txunditurik utzi zituen itxura geometriko hura, funtsezko errealitateak argi eta garbi ematetik zetorren, izan ere ordurarteko arteak akzidente bisual eta anekdotiko batez ezabatu bait zuen errealitate hura (...).

Kubismo 'fisikoa' da, konposizio berriak, gehienbat ikuspen-errealitatetik ateratako elementuekin pintatzea. Arte hau, hala ere, kubistatzat eman behar da bere eraikuntz disziplinagatik. Etorkizun handia dauka histori pintura bezala; handia da horren rol soziala, baina ez da arte purua. Pintakizuna irudiekin bat nahasten da hor (...).

Kubismo 'orfikoa' da pintura modernoaren beste joera bat. Arte-modu berri honetan konposizio berriak pintatzeko elementuak ez dira ikuspenezko errealitatetik ateratzen, aitzitik artistak berak sortzen ditu osoro eta errealitate bortitz batez janzten ditu (...).

'Senezko' kubismoa, pintatzeko arte-modu bat da, bere konposizio berriak ikuspenezko errealitatetik ez, baina senak eta intuizioak artistari idarokitzen diotenetik hartatik ateratzen dituena; aspaldidanik orfismo-aldera jotzen dute".

(G.APOLLINAIRE, 1913)

Picasso:
Estilo finkoa ala eklektikoa?

"Picassoren eklektizismoak, nortasunaren unitatea jakinaren gainean apurtzea esan nahi du; haren imitazioak originaltasun-kultuaren kontrako protestak dira; haren errealitate-deformazioak, etengabe ari bait da forma-berritzen konbentzimendu handiagoz formen arbitrarietatea ikuserazteko, zerako tesia hobestea bilatzen du, alegia, 'izadia eta artea bi fenomeno erabat desberdinak direla' (...).

Eta zapuztu egiten du, ez Erromantizismoa bakarrik, baita Ernazimentua ere, zeina bere jenio-kontzeptuarekin eta obra-batasunaren eta estiloaren ideiarekin Erromantizismoaren aitzindaria bait da nolabait ere. Picassok erabat hausten du indibidualismo eta subjektibismoarekin, erabat ukatzen du artea nortasun nahastuezin baten espresio denik". *(A.HAUSER, 1968)*

margoak baino garrantzi handiagoa hartu zuen (pintoreon ustez, zientifikoagoa zen forma margoa baino); kubismo analitikoan, ia desagertu egin zen margoa (antzeko grisak eta marroiak erabiltzen dira). Lerro zuzena da nagusi, eta kurba, zirkulu bilakatu zen.

c) Futurismoa

Manifestu baten bidez definitutako mugimendua dugu hau. Literarioa izan zen hasieran: Marinetti poetak "Le Figaro"n azaldutako manifestuan eman zen arte-molde honen asmoa (1909). 1910ean eman zen pinturarako pausoa, Torino-n.

Originaltasuna, dinamismoa, desmaterializazioa, produkzio industrialen edertasuna ziren Fauvismoa gehien arduratzen zutenak. Mugimenduaren asmoak ez ziren pinturara mugatzen, arte osoa aldatu nahi zuten.

Mendez mende sortutako arteek desagertu egin behar zutela zioten futuristek, eta berdin izaditik berez zetorren orok ere. Langai modernoak, abiadura, kirolak, gudua eta biolentzia dira miresten dituztenak.

Giacomo Balla (1874-1958) eta Umberto Boccioni-ren (1882-1916) lanak ez dira Futurismoaren adibide txarrak. Hark dinamismoaz (txakur baten jolasak) eta honek materiaren elastikotasunaz lan ereduak utzi zizkiguten.

d) Dadaismoa

"Dada" hitzak ez du deus esan nahi, eta estetikaz arduratuak xaxatzeko erabilitakoa da,

beste esamolde edo ekintzetan dadaistek ohi zutenaren arabera jokatuz.

Zürich-en sortutako mugimendua da, I. Mundu-Gerratean: Suitza neutral mantendu zen, eta gerratik ihesi han errefuxiatu ziren artista batzuek eman zioten hasiera. Suitzatik Parisera lehenik, New York eta Alemaniara gero, zabaldu zen, gerra amaitzean.

Dadaisten helburua Artea deuseztatzea da: estetikak, estiloak, arteari buruzko negozioak, galeriak, denak bukatu behar du. Baina ez da hori aski: gizarte kapitalistak, gusto eta bizimodu burgesek, alderdi politikoek ere desagertu egin behar dute.

ZER DA DADAISMOA?

"Espresionismoa, atzerrian asmatua izan dena, negozio on baten idilio eta posizio on bat lortzeko esperantza bihurtu da arbitrarioki Alemanian. Jada ez du zerikusirik jende ekinzaleen gora-nahiekin. Manifestu honen sinatzaileak, 'dada!' borroka-deira, arte-modu baten propaganda egiteko bildu dira, horrekin ideial berriak burutu-espero dituztelako.

Eta zer da, ba, dadaismo hori?

'Dada' hitzak inguruko errealitatearekin daukagun erlaziorik primitiboena sinbolizatzen du; dadismoarekin errealitate berri bati irekitzen zaio bidea, eta eskubide osoz ireki ere. Hotsek, koloreek eta erritmo izpiritualek, denek batera egindako nahasdura bezala agertzen da bizitza, eta zalantzarik gabe beretzen du hori arte dadaistak, bere eguneroko psike ausartaren garrasi eta sukar sentsazionalekin eta bere errealitatearen gordintasun osoan. (...)

'Dada' klub bat da, Berlin-en sortua, eta inolako konpromisurik gabe bertan sartzeko aukera ematen duena. Hemen denak dira presidente, eta denek dute hitz-eskubide arte-arazoez hitz egiteko. 'Dada' ez da literato batzuren handinahiarentzako aitzakia bat (gure lagunek bestelakorik sinesterazi nahi duten bezala); 'Dada' izpiritu-mota bat da, edozein elkarrizketetan ager daitekeena".

(DADISMOAREN MANIFESTUA, 1918)

Fededun eta konformazale naiz

"Akademiatik urrun bizi izan zaren arte herritar hori, itzuliko ote zara gero inoiz kotan bizitzara? Eskola ez zegoen hilda, egon, baina hain zegoen makaldua, ze ez bait zekien nora jo eta nori jaramon egin ere, naturaletik kopiatzeak ezin izan zuen askatu: gaizki doitua zeukan bere snobismo integristatatik ezin ihes egin; (...).

Askotan gertatzen da, jentilek,begiak zabal-zabalik dituztela ere, biziro argi ez ikustea. Ez ahal dizkigute, ba, belarriak beren dekorazioekin txundituta utzi! Arte dekoratibo deitzen duten zera hori ez da existitzen, artea arte besterik ez da, dela intimo, heroiko nahiz epiko (...).

Ni sinestun eta konformazale naiz. Asaldatzea edozeinek egin dezakeen gauza da; nekezagoa da gure barruak agintzen digunari isilik obeditzea eta gure tenperamentuei eta dohainei, batere baldin badaukagu behintzat, dagozkien benazko espresabideak bilatzen bizitza igarotzea. Ez naiz ni 'ez jaun eta jainko' dioten horietakoa, eskomikatu duten Jainkoaren lekuan gero beren buruak jartzeko...

Ez ahala da hobe Chardin bat izatea, edo hori baino askoz ere gutxiago dena, florentziar handien distira hits eta zorigabeko bat izatea baino?

Angelico-ren pare izateko, ez da aski pintatu aurretik errezatzea; helpide izpirituaIetan fede izateak ere ez du obra egokirik sortuko; lehen--lehenengo sena behar da hartarako, sen gogor eta bizia".

(G. ROUAULT, 1936)

Erro-errotik egin nahi den iraulketa honen argitan begiratu behar da dadaisten produkzioaren nondik norakoa: ordurarte errespetagarriak izan diren konbentzio artistikoak salatu eta ezabatu behar dira.

Dadaisten produkzioa gisa hauetakoa da: pintura herronkatzaile bat, baina konbentzionala, hala ere; "collage" eta fotomuntaiak eta zabor-hondakinekin eratutako eskulturak (komunak, jostun-makinak, etab.)

e) Espresionismoa

"Espresionismo germaniarra" bezala ere ezagutu ohi da, sorrera eta ondoko garapena ere Alemanian izan zuelako, noski. Baina mugimenduaren ekarria ez zen Alemanian agortu.

Alemaniako espresionismoan bi talde behintzat ikusi behar dira, bakoitza bere kezka,

KOLOREA, PINTURA ABSTRAKTUAREN AZTERKIZUN

"Kolorea, beste edozein fenomeno bezala, aztertu egin behar da, eta, aztertu ere, ikuspuntu desberdinetatik, direkzio desberdinetan eta metodo egokiekin. Direkzio hauek, zientifikoki soilik begiratuz, hiru sailetan banatzen dira: fisiko eta kimikoa, fisiologiko eta psikologikoa. (Erlazio soziologikoek aparteko munta duen arazo berezi bat osatzen dute, baina berenez kolore-arazoaren eremutik kanpora aurkitzen dira eta, beraz, estudio berezia eskatzen dute) (...).

Bistakoa da, garrantzi berdina dutela eta ezinbestekoak direla artistentzat hiru sailok.

Artistak, gainera, teorian bi direkziotan iker dezake kolorea; horietan, artistaren ikuspuntuak eta kolorearen ezaugarriek aipatutako hiru sektoreak osatu eta aberastu behar dituzte. Hona zein diren bi direkzioak:

1. Kolorea aztertzea --horren izaera, ezaugarriak, birtualitateak eta efektuak--, horren erabilera praktikoari begiratu gabe, hau da, "xederik gabeko zientzia" eginez eta

2. Kolorea ikertzea, behar--izan praktikoak --xede murritzagoak-- eskatzen duen direkzioan eta kolorea sistematikoki estudiatzea: honek problema handiak planteatzen ditu".

(W. KANDINSKY, 1923)

ezaugarri eta egiteko erarekin: "Die Brücke" deitua (zubia), Kirchner (1880-1938), Schmidt, eta abarrekin, eta "Der Blaue Reitter" (zaldun urdina), Kandinsky (1866-1944) eta Klee-rekin (1879--1940). Askatasun pertsonala goratzen du Espresinismoak, subjektibismoa (Fauve-k bezala), artista eta lanaren arteko harreman grinatia, batzuetan bortxaraino helduz. Biziaren alde ezezkor edo beltzak darabiltzate beren koadroetan (bakardadea, gaixotasuna, obsesio sexualak, beldurra, heriotza ...). E. Munch (1836-1944), M. Pechstein (1881--1955) edo J. Emsor (1860-1949) ere ekar litezke lerro hauetara.

SURREALISMOAREN AZALPENETIK

"Jendartean burugabe zabaldu den gure asmoari eman zaion interpretazio faltsuaren aurrean, aitortu beharra daukagu gaurko kritika literario, dramatiko, filosofiko, exegetiko eta are teologiko totelak hautematen ez duen zerbait:

1. Guk ez daukagu literaturarekin zerikusirik batere; baina, hala beharrez gero, hartaz baliatzeko gauza ere bagara, mundu guztiak egiten duen bezalaxe.

2. Surrealismoa ez da espresio-bide berri edo errazago bat, ezta poesiaren metafisika ere; izpiritua, eta honen antzik izan dezakeen edozertatik liberatzeko bide bat da.

3. Iraultza egitea erabaki dugu, erabat.

4. Surrealismo hitza iraultzarekin elkartu dugu, iraultza honen izaera desinteresatua, independentea eta are osoro desesperatua ere nabarmen erazteko.

5. Ez dugu gizon-emakumeen ohiturak aldatzeko asmorik, baina ikuserazi egin nahi diegu zeinen desegin-errazak diren horien pentsamenduak, eta zeinen oinarri koloken gainean, nolako kobazuloren gainean jaso dituzten beren egoitza kordokariak.

6. Zinezko ohar hau egingo diogu Gizarteari: kontu har diezaiela bere erokeriei, bere izpirituak ematen dituen pauso ustel bakoitzari. Ez dugu kupidarik izango.

7. Bere pentsamenduaren bihurgune bakoitzean, gurekin topo egingo du gizarteak.

8. Iaioak gara Erreboltagintzan. Ez dago ekintza-biderik, hala beharrez gero, guk erabil ez dezakegunik.

9. Mendebaldeko munduarentzat dihardugu batipat: Izan, bada Surrealismoa!".
(L. ARAGON eta beste, 1925)

f) Abstrakzio geometrikoa

Hemen bil litezke Holandako plastizismo berria eta Soviet Batasuneko suprematismoa. "De Stijl" (estiloa) albistariaren inguruan sortu zen: Abstrakzioari eman zitzaion leku, figuratiboa utziz; sinpletasuna balioztatu zen bereziki (lerro zuzena, margo planoak).

Errusiako mugimendua, Suprematismo edo Konstruktibismo izenarekin ezagutzen da: Plastizismoaren hastapen berdinak zituen. Beharbada Holandan baino bariatuagoak dira gaiak.

g) Surrealismoa

Futurismoarekin gertatu zen bezala, Surrealismoa giro literarioan sortzen da eta hau ere manifestu baten bidez (1924), baina, berehala, dadaisten iradokizunez, arte plastikoetara pasatu zen (1925). Emankorra eta luzea izan da mugimendu honen historia.

PINTURA, POLITIKA eta SENTIERAREN HEZKUNTZA

"Oraindik orain, Manet-en natura hil bat erakutsi zidaten, pintatua izan zen garai hartan epaimahaiak ahobatez ezetsi zuena, aitzakiatzat harturik, ez zegoela antzematerik hura zer zen. Koadrotxoak berrematen duena zer izango eta hildako erbi bat buruz behera zintzilika, bere zehaztasunean eta argitasunean argazkiaren inbidiarik ez duena. Joan den mendearen azken aldeko obra poetikoak, misteriotsuenak eta burutik joandakoenak ere, gero eta gehiago ari dira argitzen. Gainerako obrarik gehienak, bapatean ulertuak izateko inolako zailtasunik ez dutenak, iraungi direnean, harritzekoa da nola beste batzuk, uste zenaren kontra, orduantxe hasten zaiskigun hizketan.

Gaurdanik zalantzarik ez dago, obra surrealistek ere, aurreko beste obra guztiek, historikoki lekutuek, bezalakoxe zoria izango dutela. Peret-en poesiak eta Max Ernst-en pinturak duten giroa bizitzaren beraren giroa izango da. Oso ederki ulertu zuten Hitler eta bere akolitoek, ezkertar-pentsamendua une batean behinik lepamozteko, ez zela aski marxistak pertsegitzea, baizik eta abangoardiako edozein arte ere behar zela debekatu. Guri dagokigun (denak ados) izan beharraren indar menperaezina horri kontrajartzea, horixe da giza-bilakaeraren indarra eta". *(A. BRETON, Praga, 1935)*

Surrealismoan estilo asko sartzen da; baina, guztien azpian, irudimena, inkontzientearen bilaketa eta irrazionalismoa topatzen ditugu. Gauzen artean, erlaziorik eza azpimarratuko dute. Bi joera bereiz ditzagun mugimendu honen barruan.

Surrealismo **figuratiboa**. Joera honen aitzindaria G. de Chirico (1888-1978) dugu: pintore metafisikoa deitu izan zaio Chirico-ri. Honen paisajetan jenderik gabeko mundua ageri da, arrazoirik gabekoa. Ikusmolde honek elkartzen du Chirico nolabait Surrealismoarekin, nahiz eta berak bere gisara lan egin izan.

Surrealismo figuratiboan espazioa ongi irudiztatzen da, eta sakontasuna emateko perspektiba-konbentzio guztiak erabiltzen ditu. Espazio

PINTURA KONSTRUKTIBISTA

"1. Kolorea ukatu egiten dugu pinturan pintura-elementu bezala. Kolorea objektuen aurpegi idealizatu eta optikoa da. Kanpoko inpresioa axalekoa da. Kolorea akzidentala da eta ez du zerikusirik gorputzen barne-edukinarekin.

Gorputzen 'tonua', aldarrikatzen dugu, hau da, horien substantzia material argi-zurgatzailea dela pinturazko errealitate bakarra.

2. Ukatu egiten dugu lerroaren balio grafikoa. Gorputzen benetako bizitzan ez dago grafikarik. Lerroa gizakiak objektuetan uzten duen trazadura akzidental bat besterik ez da. Ez du zerikusirik bizitza esentzialarekin eta gauzen egitura iraunkorrarekin. Elementu grafiko, argigarri eta apaingarria besterik ez da.

'Lerroa' onartu egiten dugu, objektuetan gordetako indar estatikoen eta horien erritmoen direkzio bezala.

3. Ukatu egiten dugu bolumena espazioaren forma plastiko bezala. Espazioa ez dago bolumenetan neurtzerik, likidoak metrotan neurtzerik ez dagoen bezalaxe. Kontsidera ezazue gure espazio erreala: zer da hori, sakontasun jarraitua baino?

Sakontasuna aldarrikatzen dugu espazioaren forma plastiko bakartzat". (N.GABO; N.PEVSNER, 1920)

Pintagaien hautapena

"Picasso-k: "Lehengo batean St. Denis karrikatik paseatu nintzen. Ikusgarria da".

Kahnweiller-ek: "O, ikusi duzu! Askotan igarotzen naiz ni ere handik etxerakoan. Huraxe ba ederra, neska guztiak ilaran espaloian dituela".

Picasso-k: "Bai, ederra ere huraxe da benetan; neskak, kinkailariak, loreak: zoratzekoa da. Hala nioen behin nere gisara: Benetan baso bat eta zigarro-pakete bat ere zoragarriak dira, baina azken judizioa bezain zailak; baina berdin dio, ikusgarria litzateke batek hiriko bizitza plasmatu ahal izatea. Baina hau ez dago dena batek egiterik, behinola kubismoarekin bezala egin behar da, talde-lanean".
(PICASSOren etxean:1952.07.3)


Bilbao/Madrid: F. Orbegozo/E. Turner. 50-51. or.

logiko honetan, beti dago zerbait ilogiko edo absurdurik. Kontraste horren indarrez sortzen da surrealistek nahi zuten efektua: ametsa, mundu harrigarriak...

Adibide gisa, Dali-ren (j. 1904) "Oroimenaren iraunpena" jar dezakegu. Hemen paisaje mortu batean erloju asko ikusten dira, baina erlojuak urtuz doazela dirudi. R. Magritte-ri ere (1898--1967) testuingurua irudimenez itxuraldatzea gustatzen zitzaion: harriak zintzilik, odola estatuetan, etab. irudiztatuz.

Surrealismo **ez-figuratiboa**. J.Miró (1893--1985) surrealismo figuratibotik abstraktura pasatu zen. Honen ustez, surrealistei ematen zitzaizkien interpretazioak sobera literarioak ziren. Horregatik, zenbait zeinu edo irudi ez geometriko hautatu zuen, beroriekin bere mundu berria eraikitzen hasteko: kolore sinpleak eta biziak ditu, izar-eguzki sinbolikoak darabiltza, etab.

I. Tanguy-ren (1900-1955) mundua ez da Miró-rena bezain baikorra. Honen espazioak mortuak dira, goibel eta erraustuak.



IVES TANGUY (1900-1955). Surrealismoak Atlantikoa ere pasatu zuen, erakusketetan mugimendu honetako lanak bilduz (Peggy Guggenheim-en aretoetan, 1942-46, adibidez) eta artista europar erbestetuei ateak irekiz. Tanguy bezalako hainbatek jasango zuen korronte surrealisten eragina. Koadro honek, adibidez, oso gertutik gogoratzen digu Daliren lana.

h) Beren gisako pintoreak

Pasarte honetan pintore asko sar dezakegu, izan ere eskola-taldeetan aritutako hainbat ere, une batean edo bestean, isolatuta gelditu bait da, jarraitzailerik gabe: batzuek, korronteren batean egon ezezik, berorren eta bestelakoren buru izan ondoren, beren bide berriak urratzen saiatu direnak (hauetakoa da Picasso), edo urteak zehar beti ere aski beren gisara ibilitakoak. Dena den, honelakoetatik bat aipatuko dugu, espreski: Modigliani.

A. Modigliani (1884-1920), Brâncusi-rekin Afrikako eskultura aztertzen saiatu zen. Laster pasatu zen pinturara, eta hizkera poetiko eta guztiz pertsonala aurkitu zuen. Erritmoa, estilizazioa, ezaugarri pertsonalak baztertzea...: horiek dira Modigliani-ren alde batzuk.

*** 2. Gerraondoko Pintura-Eskolak (1945-1980)**

Bigarren Mundu-Gerrateak, bere etenarekin batera, lan-moldaera berriak ekarri zituen, aurrekoen ondarea jasoz eta, aldiberean, aldatuz.

a) Abstrakzioa

Aurreko abstrakzioa baztertu egin zen (razionalistegia eta zientziaren bilakaerarekin lotuegia ikusten zelako). Abstrakzioa, intuizioaren bidetik eta berezkotasunetik joango da. Kandinsky izan zen mugimenduaren aitzindaria.

W. Kandinsky (1866-1944) 1910ean hasi zen akuarela abstraktuak egiten. Historian zehar,

VASSILI KANDINSKY (1866-1944): "Orban gorria" (1913-1914). Kandinsky guztiz garrantzizkoa izan da abstrakzioa bere hegada librera bultzatzeko. Izan ere, kubismoak artean zituen errealismo-aztarnak ere bazter zitezkeela defendatu zuen artista honek, hau da, artistak besterik gabe bere baitandik atera zezakeela artelana. Kolore oldartsuak edo lirismo maitagarria geometriaren ordena egituratura edo gogoeta baketsu batera eramaten saiatu zen, azkenik, Kandinsky.



errealitatea artistaren presondegi gertatu izan da, zioen Kandinsky-k: izadia kopiatzea izan du bere egitekoa. Kandinsky-k benetako hizkera artistikoa eratu nahi zuen, eta "Bapatekoak" deituriko akuareletan egin zuen bere ikerlana.

Klee eta Miró ere (biok surrealista abstraktu bezala aipatu ditugu) lanean ari ziren gerraondoan. Berauei zor zaie garai honetako artelan abstraktuaren parte esangarritsuenetako bat.

Espresionismo abstraktu bezala ezagutzen da New York-en sortutako joera berri bat. Mugimendu honekin Artearen zentrua (merkatalgoa behintzat) lekuz aldatu zen: Parisetik New York-era, alegia; baina mugimendu hau, amerikarrak ez ziren artistek bultzatu zuten gehienbat: Arshile Gorky (1904-1948) eta Willem de Kooning (j. 1904).

"Action painting" mugimenduan parte hartu zuten pintoreentzat koadroa aukera bat zen pintaketarako, ezeren irudiztapena baino lehen: arte-lana ekintza eta obratze bezala da baliozkoena, hortik atera litekeen emaitza piktorikoa baino areago. Beraz, ez zegoen inongo proiekturik, ekinean berez zetorrena eman behar zen.

Espresionismo abstraktuan bi joera bereiz daitezke:

- Japonia edo Txinako zeinu kaligrafikoak aztertzen dituen joera da bata. Zeinu horiek testuingurutik aparte lantzen dira.
- Inongo kontrolik gabe margotzen duten artistak elkartzen dituen joera da bigarrena. Hemen margolari ospetsuena Jackson Pollock (1912-1956) dugu. Mihisea lurrean jarri eta esku, oin, laban

F. KLINE (1910-1962). Zenbait margolari amerikarrek Ekialdean bilatu zituen balio piktoriko berriak. Kline izan zen hauetako bat. Talde bereko Tolbey-k honela idatzi zuen (1949): "Nolako altxor estetikoa eta formen bikaintasuna aurkituko ote ditugu, gure heldutasuna lortzean eta Ekialdeak gure bizitzetan, dagokion bere benetako balioa har dezanean".



eta piktorikoak izan ohi ez diren lanabesez baliatuz egiten zuen lan honek.


Espresionismo piktorikotik sortu zen pintura **materikoa**, hau da, langaiaren beraren balio estetikoak bereziki zaindu nahi zituen eskola. J. Fautrier (1898-1964) dugu aitzindaria. Pinturan erabiltzen diren materiei bestelakorik gabe ere, gaitasun espresiboa aitortzen zaie, eta berezko gaitasun horien gain egin behar da arretaz lan.

Fautrier-i buruz informalismoaz hitz egin ohi da, bestalde. Informalismo honetan, A. Tapies (j. 1923) katalana aipa dezakegu. Materia ikertu egiten du: berorren ukimen-baloreak, egiturak, iraupena nahiz emozioa aztertuz.

1960aren inguruan Abstrakzioak beste bide bat arakatzen du, abstrakzio geometrikoa bilatzen hasi zen **Op-art** ("Optical Art") delakoa sortuz.

Artista hauek gure pertzepzioaren fenomeno optikotik hasten dute beren gogoeta teorikoa: berorren ikerketarako serieen, erritmoen eta irudi optikoen analisia egiten dute. Aztergai horien garapen zinetikoak irakasten dio artistari bere lana nola burutu. J. Albers, V. Vasarely eta J.R. Soto dira firma ezagunak.

VICTOR VASARELY (j.1908): Barson (1966). "Optical Art"aren barnean jarri ohi dute kritikariek hungariar frantsestu hau. Vasarely-k berak, 1954-etik aurrera, "arte zinetiko" bezala deskribatu du bere lana, eta arte plastikoen kontzeptu humanista bat duela dio gainera (estetikoa, etikoa,soziologikoa, ekonomikoa).



b) Figurazio Berria

1960. urteetan abstrakzioaz asperturik zegoen jendea, eta artistak ere akademizismo abstraktu batean, askotan hotzegian, sartuak ziren. Errealitatearekin zerikusirik izango zuen artearen beharra sentitzen zen: hortik jaio zen **Pop-art** ("Popular Art") delakoa.

Mugimendu honek erabiltzen zituen imajinak, direlako "mass-media" komunikabideetatik hartuak ziren, eta horregatik, berehala herritartu ere egin ziren, EE.BB.etan behintzat. Pintorerik sonatuenak, R. Rauschenberg, R. Lichtenstein eta A. Warhol izan dira Amerikan, eta Europan Rotella, Adami, etab.

c) Beste joerak

1970 urtetik aurrera, artea oraindik gehiago banandu da. Joera berrietatik bat edo beste aipatuko dugu hemen.

Hiperrealismoa. Amerikarra dugu joera hau ere. Bere izenak dioen bezala, errealitatea ongi irudiztatzean datza mugimendu honen muina; baina era hotz eta metaliko batean jaso ohi dute errealitate hori.



KACEREren obra honetan ikus liteke hiperrealismoaren indar espresiboa.

Body-art eta **Land-art.** Bi korronte hauek artearen soporteak berak ere baztertu egiten dituzte; horretarako, artistaren gorputza bera erabiltzen da, adibidez. Artelan hauen lekuko fotografikoa besterik ez da geratzen sorkuntzatik, egindakoak berak ez bait du gorputz iraunkorrik.

Happening. Ekintzak edo prozesuak ditugu hauek, eta talde-lagunartean egin ohi da lana, autore-ikasleen arteko mugak hautsiz eta ekintza antzeztuz, azken buruan emaitza gauzatu bat bilatu gabe.

Azken batean, arte kontzeptualak dioenez, gizonak errealitatean egiten dituen ekintza guztiak estetikoak dira, eta arte bezala kontsidera daitezke. Puntu honetara iritsi da Pintura modernoko hainbat korronte.

* 3. Euskal Herriko Pintura (XX. mend.)

Munduan bezalatsu, Euskal Herrian ere XX. mendeko Pinturaren historia bitan banatzen du gerrateak: Espainiako Gerra Zibilak (1936-1939). "Euskal Eskola" deituaren ibilia erbestealdiko bideetan galdu zen aldi batean. 1900-1940 hartuko dugu, beraz, lehenengo epealdi bezala, eta handik honakoa izango da bigarren unea.

a) Gerrate Zibila artekoa (1900-1939)

Euskal Pintura-Eskola, XIX. mendearen bukaeran sortu zen, egoera artistiko oso pobrean eta hurbileko geure tradizio handirik gabe.

Eskola honetako pintore gertatuko zirenek ez zuten eskola bat eratzeko inongo asmorik: Madrilen ikasi zuten, Arte Ederren San Fernando Eskolan, eta horren ondorioz akademizistak ziren. Erretratuak, koadro historikoak, etab. egitea zen haien zeregin osoa.

Zamacois-ekin (1841-1878), aldatzen hasi zen egoera: Madrilera ordez, Parisera joaten hasi ziren. Poliki-poliki hango abangoardiak Euskal Herrira ailegatuko dira, eta hemengo paisajeaz edo jendeaz arduratuko dira. Hiru joera bereizten ditugu berrogei urte hauetan:

ARTISTA-BERRI SARITUAK
Pintura

1920	E. Martí Montes Iturriotz
1921	Montes Iturriotz Landi Sorondo
1922	Flores Kaperotxipi Karlos Landi
1923	Bienabe Artia Montes Iturriotz
1924	Olasagasti Kaperotxipi
1925	Olasagasti Bienabe Artia
1926	Olasagasti Montes Iturriotz
1928	Montes Iturriotz J.M. Zumalabe
1931	N. Balentziaga Cabanas Erauskin
1933	Alvarez Martínez N. Lekuona
1935	Alvarez Martínez A. Valverde

- Arte burgesa

Industrializazioak sortutako klase sozial berria artelanez ere axolatu zen: produkzio artistiko horren merkatuak gora egin zuen, batez ere pintoreei aukera sozial berriak eskainiz. Joera honen ezaugarri behinenak hauek izan litezke: Euskal Herriko kultur giroa itxuraldatu egin zuen,

garaiko abangoardien esperientzietara bultzatuz. Produkzioa eta ideologia, burgesiatik hurbil izan zituzten, artearen zentzu elitista bat mantenduz. Euskal Herriarekiko loturak molde ezberdinetakoak izan zituzten, jaiotzez eta kontzientziaz ez bait zuten jatorri eta jite bera. Izenik sonatuenak ekarriko ditugu hona:

A. Guiard (1860-1916). Inpresionista zen; neurri handiko koadroak baztertu egin zituen Guiard-ek. Gaiak ere, handikeriarik gabekoak aukeratzen zituen.

D. de Regoyos (1857-1913). Euskal pinturaren barnean ematen dugu, Gipuzkoa eta Bizkaian bizi izan bait zen. Jarraitzaile asko izan du Regoyos-ek euskal pintoreen artean. Euskal Herriko paisajeak aukeratu, bertoko balio piktorikoengatik aukeratu zituen, besterik gabe: hemengo argitasuna eta koloreak bereziki baliagarriak gertatu zitzaizkion haren teknika inpresionistari. Regoyos-ekin Inpresionismoa bete-betean sartu zen gurean.

F. Iturrino (1864-1924). Fauvista zen, Pariseko "fauve" taldean sartuta egon zena. Matisse-rekin Marokkora joan eta elkarrekin ibilaldi bat ere egin zuten. Iturrinok ez zuen inoiz interesik izan hemen, Euskal Herrian. Bere ikasketak Parisen egin zituen, eta gero, gustatzen zitzaizkion paisajeak eta jendea hegoaldean aurkitu zituen. Euskal pinturari eskaini zion ekarria plastikari dagokiona da: argitasuna eta bolumenak nola landu erakutsi zuen, probintzialkeriatik nola ihes egin.

J. Etxeberria (1875-1931). Fauve hau, bere ikonografiagatik, hemengo arazoetatik nahikoa

ARTISTA-BERRI SARITUAK
Eskultura

1920	J. Beobide L. Barrenetxea
1921	Aurizenea
1922	Beobide Aurizenea
1923	Barriola Elgezua
1924	Barriola Elgezua
1925	Barriola Elgezua
1926	Elgezua Zabaleta
1928	Elgezua
1931	Oteiza
1933	Oteiza J. Bengoetxea
1935	I. Bengoetxea Zabala



INAZIO ZULOAGA (1870-1945): "Arratsaria". Zuloagaren baliorik onentxoena ikus daiteke koadro honetan: marrazki bikaina zuen eibartar honek, hain zuzen --horregatik ere bai-- Inpresionismotik urrun ageri da Zuloaga, hemen bezala bere torero eta manoletan ere.

arrotz ageri da, nahiz eta beharbada darabiltzan koloreak, Euskal Eskolakoak gertatu; nolanahi ere ideologiaz eta gaiaz urrun dabil Etxeberria.


I. Zuloaga (1870-1945). 1898ko mugimendu kultural espainiarrean sartu zen, eta Unamuno-ren antzera, Gaztelan finkatu zituen bere interesak eta gaiak. Tradizioa ere, Velázquez eta Espainiako pintore barrokoetan aurkitu zuen. Zuloaga-ren obra Espainiako Espresionismoan sar daiteke.

- Arte nazionalista

Berandu hasi zen eta sakontasun handirik gabe desarroilatu zela esan daiteke. Honen zergatiak, bat baino gehiago izan dira: sabindiarrek ez zioten estetikari halako inportantziarik eman, eta alde honi heldu zioten abertzaleek errazegi jo zuten militantismo batera. Joera honen ikonografian ikusten da hori: arrantzaleak, erromeriak, etab. margotzen dira, baina teknika edo estetikan ez dute ekarpen berririk aurkezten. Izenik aipagarrienak edo Zubiaurre anaiak, Arrue anaiak eta E. Salaberria ditugu.

- Errealismo Soziala

Hemengo industriaz eta proletalgoaz arduratutako pintoreak ziren. Lana eta giro industriala goratzen dute beren koadroetan; ideologiaz sozialistak ziren, eta batzuek bederen jelkideekin harreman zailak izan zituzten: T. Meabe, R. Baste-



AURELIO ARTETA (1879-1940): "Arraunlariak". Artetak sintesi indar handia izan zuen euskaltasuna eta herriaren drama soziala ahalegin berean emateko. Marrazkiak eta bolumenak protagonismo kasik osoa hartu ohi dute Artetaren koadroetan. Funtsezkotasun betea du artista honek; ez da xehekeriatan galtzen.

rra, L. Bello. Aurelio Artetak (1879-1940) eta Julian Tellaetxek (1884-1960) etnizidadea eta konpromisu soziala elkartu zituzten, eta hemendik sortu da geroxeago jarraituko den bidea.

b) Gerratetik hona (1940-1980)

Gerrateak muga nabari bat sortu zuen Euskal Pinturaren belaunaldien artean: orduan edo berehala hildakoak eta askoren erbestealdia, alde batetik; hemen gelditu edo hazi zirenak tradizio zaharretan galtzea, bestetik, izan ziren aldakuntz faktoreak, eta, zer esanik ez, kulturaren garaiko pobrezia.

Gerraondoa, ez da 1950. urterarte egoera hartatik aterako: Arantzazuko Basilikaren eraikuntza gertatu zen egoera hura hautsi zuena; hala ere, 1966. urterarte itxaron behar izan zen euskal kulturaren berbizkundea ikusi arte. Hamarkada haietako ezaugarririk azpimarkagarrienak ondoko puntu hauetara bil litezke: a) Euskal eskola indarberritzeko borondate eta erabakia. Arazoaz zeuden jarrerak eta piztu ziren eztabaidak legami bizia izan ziren. b) Folklorismotatik aldenduta egin zuten lan. Euskal estetikaren bilaketa serios bat egin nahi izan zen. c) Mugimendu aberatsa zen, artista eta pintura-moldeetan. d) Artista gehienak autodidaktak dira, eskola ofizialetatik pasatu gabeak. e) Talde-lanaren ondoan, beste hainbat lan bakarti gogoratu behar da, estilo eta tekniketan.

Oso laburki bada ere, komeniko da Euskal Pinturan hamarkada hauetan ezagutu ditugun korronte nagusiak seinalatzea:

- Inpresionismo atzeratua

Inpresionisten teknikak edo egiteko erak hartu ziren (kanpoan egindako pintura, estilo librea, paisajeak), baina haien ezaugarri abangoardistak kenduta. Euskal Herriko galeriak joera honetan finkatuko dira gaur egunerarte (abangoardiak bazterturik dauden bitartean).

Inpresionista hauek, paisajeak egiten dituzte, baina paisaje hutsak, hau da, jenderik gabeak: baserriak, kaiak, mendiak, etab. Inoiz, azaltzen denetan ere, jendea urrunean eman ohi da, paisajearen parte bezala, hain zuzen. Batzuk aipatzen hasita gogora ditzagun: Nieto Ulibarri, E. Renteria, Arostegi Barbier, E. Erentxun, J. Apellaniz, Montes Iturriotz, etab. Bada bigarren belaunadi bat ere: Bay Sala, García Barrena, F. Grazenea eta García Erguin.


- Eguneroko bizitza

Tematika zehatz honek defini ditzake artista batzuk. Gizona eta eguneroko bizitzako arazoak dira hemengo gairik maiteenak (kezka sozialeraino iritsi gabe). Oso desberdinak dira joera honetan sar ditzakegun pintoreak: C. Pãrraga, Muñoz Condado eta J. Olasagasti.

- Geometrismoa

Horrela deitzen diogu Kubismoaren eta Abstrakzioaren arteko joerari. Ez da, ez batean eta ez bestean sartzen, figurazioa beti errespeta-

JESUS OLASAGASTI (1907-1955). Gerraurreko Sariketetan oso presente egon zen Olasagasti. Hemen ematen dugun koadro hau 1928koa da. Kubismoaren oihartzun garbiak ditu Olasagasti gazte honek, berehala soma daitekeenez.



tu bait zuen, eta errealitatea forma geometriko sinpletan irudikatuz lan egin. A. Santafe Largacha eta J.O. Ormaolea aipa daitezke hemen. Ibarrola joera honetan ere sar daiteke, honen kasuan geometrismoa gizakiarenganaino proiektatzen dela, gainera.

- Surrealismoa

Surrealismoa, gure artean, berandu hasi zen, inoiz hasi bada ere, zeren Uzelai (joera honen sortzaile bakarra) ez da surrealista garbia.



J.M. UZELAI (1903-1979). Pintore bermeotar honek toki berarizkoa du euskal pinturan, lerro-espazioen zentzu berezi horregatik, eta Surrealismora egin zuen hurbilpenagatik.

J.M. de Uzelai (1903-1979) garrantzi handikoa dugu Euskal Herrian; baina, beste hainbat kasutan bezala, ez du ikaslerik izan. Gerraondoan erbestera joan zen, baina baita berehala itzuli ere. Hala ere, orduan hasi zuen bere barruko erbestealdia, Busturian gelditu bait zen inolako bizitza sozialik gabe.

Egiteko modua ez du surrealista; alderantziz, errealismo hutsa dela esan daiteke, baina eszena edo koadroetan jartzen dituen argia edo giroa arraroak dira eta, batzutan, izugarriak gertatzen dira (denbora gabekoak edo aide gabekoak dirudite).

Surrealismoan edo Errealismo fantastikoan, geroxeago D. Txopitea eta Ameztoi dauzkagu (azken hau, Magritte-rekin erlazionatuta).

- Espresionismoa

Espresionismo figuratiboa 1960. urterarte ez da landu Euskal Herrian, eta handik aurrera ere ez gehiegi. Artista bakarrak: Mentxu Gal Orendain (paisaje bortitzak egin ditu) eta L.G. Otxoa

(Mentxu baino sarkastiko eta kritikoagoa) ditugu. Biak dira Madrilen eskolatuak.

- Abstrakzioa

Euskal artea nazioarteko bizitzara irekitzean jaio zen joera da. Honelatsu deskriba daitezke korrontearen ezaugarri nabarienak: Formaren kontzeptuari garrantzi handia eman izan zaio; espazioaren definizioa eta mugak ere bilatzen ditu; balio eskultorikoen bila landutako pintura da; trazu eta margokada kontutan hartzen dira.

Gipuzkoan agertu zen korronte hau 1960-eko hamarkadan, eta ondokoan zabaldu da beste probintzietara. J. Oteizak, Historiaurreko abstrakzioaz emandako teorizazioa oso gogoan izan du eskola honek. Bi uhinalditan bil litezke pintoreak: Lehenengoan M. Paz Jiménez, Gonzalo Txillida, Ruiz Balerdi eta Zumeta datoz; bigarrenean, ugari azaltzen dira izenak eta joera berezituagoak. Espresionismo abstraktuan, Santos Uranga, Diez Alava eta Txupi Sanz; Action-painting-ean, R. Roscubas; abstrakzio analitikoan, Morquillas, Mirantes, Urkijo eta R. Lafuente; abstrakzio geometrikoan, J. Mieg eta Karmelo Ortiz Elgea (biak arabarrak).

CONSTANTIN BRANCUSI (1876-1957)

Eskultura modernoaren guraso bilakatuko zen hau, Errumaniako familia laborari pobre bateko semea zen. Sorterriko arte herritarretik hasi zen Brâncusi.

Brâncusi-k, Afrikako eskulturaz arduratuta, hainbat azterketa hasi zuen Modigliani-rekin batera. Kezka beraren bidetik bilatu zituen hemengo artearen sorburuak, hauek hain zuzen hurbilago bait daude herri europarren "ethos"etik, zioen Brâncusi-k. Gero, ezagutu zituen modernismoa eta kubismoa ere, azkean bere gisara nortasun handi eta bikaineko lana egiteko.

Brâncusiren eritziz, eskulturari buruz egiten diren hitzaldiak edo literatura alferrikako lana dira; eskulturak berak hitzegin behar digu, eta dena (mundu osoa) hitz bakar batez esan, gainera. Brâncusik, bakarrik lan egiten zuen; ez du ikasle ezaguturik; baina XX. mendeko Eskulturan erreferentzi puntu ezinbaztertua da.

- Errealismoa edo figurazio berria

Hemen ere joera asko dugu, eta iturri eta bilakaera oso banatuak ere bai. Euskal errealitate edo egoera politikoaz badute jarrera harturik artista hauek. Ipar Amerikako joera artistikoak aintzakotzat hartzen dira, Espainiako egoeraz interes eskasagoa duten bitartean.

Ez da izenik falta estilo honetan: J. Bilbaok Pop-art-aren antzeko errealismoa landu du, Mari Puri Herrero, C. Olabarri eta J.M. Cundín-ek errealismo magikoa, eta J.L. Zumeta, Zurriarrain eta Nagel-ek errealismo kritikoa eskaintzen duten bitartean. Goenaga-ren obra, ostera, errealismo testimonial bezala izenda genezake.

Errusiako arte utilitarioaz

"Errusia Sovietarrean Artea xede bat lortzeko helpide bezala bakarrik kontsideratzen zen. Utilitarismo hau, batez ere, eskuarteko helpide guztiak propaganda komunistaren zerbitzuan jarri beharrak eta burges-kulturaren estetizismoa deuseztu beharrak baldintzaturik zegoen; ba burges-kulturaren hori, bere "arteagatiko artea"rekin,bizitzaren aurrean duen bere postura kontenplatibo eta kietistarekin, bera da, diotenez, arriskurik handiena iraultza sozialarentzat. Peril horretatik babestu beharrak galerazten die kultur politika boltxevikearen arkitektoei azken ehun urteotako arte-garapenari justizia egitea, eta garapen honen ukatze historikoak egiten ditu haien arte-eritziak hain moda-pasatu. Nahiago lukete artearen egoera historikoa atzera Uztaileko Monarkiaren mailaraino itzulerazi (...).

Plangintza unibertsaleko sistema batean, eta ozta-ozta existitzeko borroka gorritan, ez dago artea bazterrera uzterik, nola salba berak bila dezan. Baina artea arautzeak berak ere badu arriskurik,baita bere xede berehalakoen aldetik ere: ba prozesu horretan, propaganda-tresna bezala ere, balio-puska handia dauka galdu beharra".

(A.HAUSER, 1968)


C) ESKULTURA

XX. mendeko eskulturaren historia egitea ez da batere erraza. Alde batetik, pinturaren atzetik ibili delako, eta sarri, ez dagozkion ikerketetan sartu delako. Bestalde, eskultoreak mugimendu edo une askotatik pasatu dira bizitzan zehar. Hortaz, artisten sailkapenak badu zerbait artifizialik hemen.

* 1. Nazioarteko joerak

Oro har, ikusiko ditugun joerak Pinturan sortutakoak dira: margoaren munduak emandako pausoek gidatu dute Eskultura ere; horregatik, datorren sailkapen hau beste baten oihartzuna da, gehienbat.

C. BRÂNCUSI (1876-1957): "Musua" (1908). Hona hemen 'Brâncusi' zoragarri bat, asebetea. Masa soila da, kasik; baina bolumen 'naturalari' eman zaion ikutuak dena aldatu du, harriari bere esanahi trinkoa argitara ekarriz. Honela, materiaren jatorrizko misterioa irakatsi eta erakutsi zion Brâncusi-k Eskultura garaikideari.



a) Kubismoa


Brâncusi dugu aurreneko eskultore kubista, "Musua" deitutako eskulturarekin. Laster etorriko ziren ahalegin berriak pintore kubisten eskutik: forma eta espazioa, harritan edo material berrietan (burdina) ikertu zituzten.

Kubismoarekin, eskulturaren balore berriak aurkitzen dira: hutsunea eta beronen balio plastikoa (bolumenarena bezain garrantzizkoa); materialetan, burdina forjatua, xafla eta beste berririk bilatu zituzten. Bolumenaren geometrismoa izango da kubismoaren beste berezgarri bat.

Eskultura kubistaren sorrera, 1913an koka dezakegu, nahiz eta Brâncusi, Picasso eta Braque 1909rako honelako lanetan ibili. Errenkada luzea da esperientzia honetan parte hartu zuena: C. Brâncusi (1876-1957), R. Duchamp-Villon (1876--1918), P. Gargallo (1881-1934), H. Laurens (1885--1954), J. Lipchitz (1891-1873), etab.

b) Futurismoa

Mugimendu literario eta piktorikoa dugu batipat, eta eskulturan gutxi aritu izan da. Berebil edo hegazkin bat baino eskultura hobeagorik nekez aurki zitekeela usten zuten. V. Boccioni (1882-1916) pintorea, bere heldutasunean, eskultur lanetan aritu zen, ikusmolde futurista baten barnean, hain zuzen. Honena da botila baten desbilketa espaziala.



KURT SCHWITTERS (1887-1948): "Merz 1003" (1924). Surrealismoak bizitza luzea izan zuen, baina aldiberean bestelako bilaketa-modu batzuk ere ezagutu ziren. Adibidez, 1930ean abstrakzio-zaleek erakusketa handi bat egin zuten Parisen; han bildutakoen artean zegoen, dadaista bezala ere ezagutu den K. Schwitters.

c) Dadaismoa

Artea hilik zegoela, zioten, eta alferrikakoa zela artelanean ihardutea. Gizarte burgesa ez zen akabuera hortaz jabetzen, haien ustez. Testuinguru hartan Artearen merkantilizazioari eraso eta gizartea bera xaxatzeko hasi ziren estilo berrian. Alde batetik, pinto-eskultura egin zuten. Pinturaren eta eskulturaren arteko ohizko aldeak gainditu egin nahi izan zituzten: kale gorrian aurkitutako materialez eraikitzen zituzten espazioak, eta horrela sortutako eskulturakina margotu egiten zuten.

Lan-modu honetan ibilitako artista ospetsuena K. Schwitters (1887-1948) alemana dugu "Merz" deitutako obrekin. Dadaismoaren barnean, "Ready-made" korrontea ere gogora daiteke: produktu industrialak hartu eta testuinguruz aldatuz egiten zuten lan. M. Duchamp da (1887-1968) ildo honetako eskultorerik ezagunena.

d) Konstruktibismoa

1920. urtean egindako manifestuen bidez sortutako joera dugu (Manifestu Errealista eta Manifestu Produktibista). Moskuko abangoardia ziren eta erregimen berriarekin konprometituak.

Artea baztertu egin zuten, eta, horren ordez, teknika goratu (errealitatea aldatzen duen benetako fenomenoa delako).

A. Pevsner (1886-1962), N. Gabo (j. 1890) eta W.E. Tatlin (1885-1956) ditugu gogoragarrienak. Pevsner eta Gabo (elkarren senideak) laster atera ziren Errusiatik: Parisen eta New York-en jarraituko zituzten beren ikerlan estetikoak.

e) Espresionismoa

Multzo honetan, kubista izandako eskultoreak dira taldekide; baina beren bilakabidean espresioari garrantzia ematen diotenak beti ere: espresio figuratiboari ematen zaio leku, beraz.

Formak, bolumenak eta hutsuneak erabiltzen dituzte, baina ez oinarrizko formetan (kubotan); beren burdinazko eraikin eskultorikoengatik dira ezagutuak artistok: P. Gargallo (1881-1934), J. González (1876-1942) eta O. Zadkin (1890-1968).

f) Surrealismoa

Nahikoa zaila da hemen norbait sartzea, izan ere eskultore asko dira barruti honetan ibiliak, baina zeharo sartu edo bertan gelditu gabe. Izen handikoak gertatu dira, esate baterako, A. Giacometti (1901-1966), A. Calder (1898-1976), H. Arp (1888-1966), A. Sánchez, etab. Surrealista bezala aipatuak daude, baina haien produkzioan obraren bat edo beste da halakoa.

Surrealismoak eskulturan duen obra definituena, agian, R. Magritte-k (1898-1967) egindakoa da: Mme. Recamier (Daviden koadroa) eskultura bihurtu zuen; baina, andrearen ordez, sarkofago bat jarriz.

Eskultura konstruktibista


"Eskulturan, masa ukatu egiten dugu eskultur elementu bezala. Edozein injineruk daki, solidoetako indar estatikoak, horien erresistentzia materiala, ez dagoela beren masaren funtzioan. Adibideak: karrila, kontrahorma, labea, etab. Baina zuok, ordea, joera guztitako eskultoreok, mendetako aurreritzi batean ixten zarate, eta uste duzue, bolumena ez dagoela masatik bereizterik. Eta hala ere, lau plano hartu eta 100 kiloko masarekin hainbatekoxe bolumena konfiguratzen dugu guk.

Sistema honen bitartez, lerroa, norabide den aldetik, arkitekturari itzultzen diogu berriro, mendetako aurreritzi batek izkutuan eduki duen norabide-balioa bait da. Honela sakontasuna baieztatzen dugu eskulturan, hauxe da espazioaren forma bakarra eta.

Ukatu egiten dugu milaka urtetan, egyptiarren artetik jasota daukagun uste okerra, sorketa plastikoaren elementu bakarrak erritmo estatikoetan ikustea, alegia.

Elementu berri bat aldarrikatzen dugu arte plastikoetan: erritmo zinetikoak, gure denbora errealaren funtsezko pertzepzio-formak".

(N.GABO; N.PEVSNER, 1920)



BARBARA HEPWORTH (1903-1957): *Zurezko formak* (1938). H. Moore beste ingelesarekin batera, Barbara-k materiaren gozoa eta finezia erakutsi du, beti ere dotorezia ondu eta zaindu batekin.

g) Organizismoa

Forma borobilduak eta hutsuneak darabiltza eskultura organizistak. Formek gozotasun batez janzten dira obra hauetan. Beste estilotan ibilitakorik ez da falta taldean: arestian aipatutako Arp eta Sánchez-ek, adibidez, utzi dute obra organizistarik; baina H. Moore (j. 1898) eta Barbara Hepworth (1903-1957) dira gogoangarrienak estilo-modu honetan.

* 2. Euskal Herriko eskultura

XX. mendean sortzen den mugimendu emankorrena Oteiza-k eta Txillida-k sustatu dituztenak dira: *informalismoa* edo *abstrakzioa*. Bide honetan dugun data nagusia 1957a da: Sao Pauloko Nazioarteko Bienalean saria Oteizari eman zitzaion urtea.

Bi eskultore hauen eraginez, joera abstraktua pinturaraino iritsiko da Gipuzkoan, eta Euskal Herri osoan gero. Eta bi handi horien ingurumarian bada beste artista bikainik, bakoitza bere nortasuna zainduz: N. Basterretxea (j. 1924), R. Mendiburu (j. 1931), B. Larrea, R. Ugarte Zubiarrain, etab.

Euskal Herriaren tradizioaren barnean ezezik, munduan ere ekarri baliotsua izan da XX. mendeko euskal eskulturak historiarako egin duena.

XX. MENDEKO PINTURA-ESKOLAK

Lehen hamarkadak (1900-1945)	
Fauvismoa (1905)	
Kubismoa (1908)	Analitikoa Sintetikoa Mekanizismoa Orfismoa
Dadaismoa (1917)	
Espresionismoa (1905-1933)	
Abstrakzio geometrikoa (1910-1915)	Plastizismo berria Suprematismoa (1913-1915)
Surrealismoa (1914)	Figuratiboa Abstraktua

Azken hamarkadak (1945-1980)	
Abstrakzioa	Espresionista Keinuzkoa Materikoa Op-Art
Figurazio berria	Pop-Art Bacon
Beste joerak	Hiperrealismoa Body-Art Land-Art Happening Etab.

Euskal
Pinturaren belaunaldiak

Lehen belaunaldia (1860)

D. Regoyos (1857-1913)
A. Guiard (1860-1916)
A.M. Lekuona (1831-1907)
I. Zuloaga (1870-1945)
F. Iturrino (1864-1924)
J. Etxeberria (1875-1931)

Bigarren belaunaldia (1880)

A. Arteta (1879-1940)
B. Zubiaurre (1879-1963)
R. Zubiaurre (1882-1969)
R. Baroja (1871-1953)
A. Arrue (1878-1944)
R. Arrue (1892-1978)
J. Tellaetxe (1884-1960)
A. Martiarena (1884-1966)

Hirugarren belaunaldia (1910)

J. Olasagasti (1907-1955)
J.M. Urzelai (1903-1979)
M. Gal (j. 1919)
Ibarrola (j. 1930)

Laugarren belaunaldia (1950)

N. Basterretxea (1924)
R. Ruiz Balerdi (1934)
J.L. Zumeta (1939)
J.A. Sistiaga (1932)
J.L. Goenaga (1950)
K. Ortiz Elgea (1944)

Eta beste zerrenda luze bat.

10
IRAULTZA
ZIENTIFIKO ETA TEKNIKOA

URTEAK	GERTAKARIAK
1895	Röngten: X izpiak.
1896	Marconi: Harigabeko telegrafia.
	Edison: Lehen goritasun-lanpara.
1900	M. Planck: "Quanta"en teoria.
1903	Detroit: Ford-en automobil-fabrika.
1905	Erlatibitatearen teoria espeziala (Orokorra: 1916).
1907	Lumière: kolorezko argazkia.
1909	Blériot: Mantxa gaineko lehen hegaldia.
1912	Taylor: "Lan-gidapen zientifikoa"
1913	N.Bohr: atomo-egituraren teoria.
1916	Freud: Psikoanalisiari sarrera.
1919	Rutherford: nitrogeno-atomoaren desintegrazioa.
1923	L.de Broglie: uhin-mekanikaren hastapenak.
1927	Atlantikoaren zeharkatzea, hegazkinez.
1930	Claude, Baucherot: Itsasoaren energia termikoaz.
1931	Empire State Building: 102 solairu, 380 m.
	Estratosferara lehen globoa: 15.781 m.
1932	Fawcet: polietilenoaren produkzioa.
1933	Joliot-Curie: erradioaktibitate artifiziala.
1937	Ikatzaren estrazio hidromekanikoa
	San Francisco: Golden Gate zubia
1941	Smith Putnam: Haize-turbina (1.250 kw).
1942	E. Fermi: Pila atomikoa.
1946	De Havilland: Hotsaren abiadura-muga gainditua.
1954	Munduko lehen zentral atomikoa (Sov.Bat.).
	"Nautilus": submarino atomikoa (EE.BB.)
1955	Erreakziozko garraio-hegazkina.
1957	Lehen satelite artifiziala.
1969	Gizakia Ilargian.

XX. mendean Zientziak eta Teknikak lortu duten Iraultza kontutan harturik, Iraultza Industrialaren epe berri batean sartuak gaudela esan genezake.

Energi iturri berri batek --energia nuklearrak hain zuzen ere-- era askotako erabilpenetarako ahalbideak jarri ditu gizonaren eskuetan. Automatismoa industriaren arlo askotan sartzen hasi da, enpresen antolamendua eta giza lanaren baldintzak eraldatuz. Kontrol elektronikoek jada makina erremintak menperatzen eta kontrolatzen dituzte.


Ordenadoreei esker, azkar eta zehaztasun handiz egiten dira kalkulu zailenak, eragiketa konplikatuenak ere. Ordenadore hauek duten logika eta memoria, mikroprozesadoreetan oinarrituak daude.

Espazioaren ikerketa ere ahalgarria bihurtu zaigu. Amerikarrek eta Sovietarrek Ludi-sateliteen irtenaldien eta berreskurapenen teknikak menperatuz, "Ilargiranzko lasterketa" hasi zuten 1960ko hamarkadan.

Iraultza zientifiko eta tekniko honetan, teknikarien zeregina gero eta gehiago hedatuz joan da. Baina teknikariak jakintsuen menpe daude: izan ere, zientzia ekonomiaren bilakaeraren oinarrizko faktore bihurtu da, eta gaur egunean herrialde baten botere industriala, bigarren sektorean (industrian) ari den populazioaren arabera ezezik,



BAKEAREN ITXAROPENAK. Lehenengo Mundu-Gerratearen ondoren (halako eskarmentu beldurgarriak zerbait irakatsi ere egingo zuelakoan), nazioartean bake-sistema berri bat sortu nahi izan zen. Wilson Lehendakari amerikarrak bultzatu zuen asmoa; baina hura bezain baikorrak ez zirenek ironia gehiagoz begiratzen zuten etorkizuna.



ALTZAIRU-PRODUKZIOA (1978). Munduko eskualde-desorekak eta aldeak handiak dira: ideologietan, demografian, ekonomian bizi-moldeetan.... Mapa honetan ikus dezakegunez, bigarren sektorean oinarrizko produktua izan ohi den altzairutan, ipar-hego hemisferioak beren artean erabat desorekatuak ageri dira: Ipar Amerika, Europa, Soviet Batasuna, Txina, Japonia dira nagusi, Hego Amerika, Afrika, Ozeania askoz atzeratuago edo deus gabe ageri diren bitartean. Honelako egitura ekonomiko batek nahitaez dakartza nazioarteko gatazkak.

herrialde bakoitzak dituen jakintsuen eta laborategietako ikerketen argitan balioztatu behar da.

Teknika-aldetik aurreratuak dauden herrialde guztiek (baita ekonomia kapitalistan jarraitzen dutenak ere) Estatuaren eskuharmen nabaria dute arlo honetan. Izan ere, Estatuak bakarrik du ahalmenik egin behar izaten diren ikaragarrizko gastuei aurre egiteko. Estatuaren eskuetan dago, adibidez, erabat ikerketa nuklearrak egitea, energia atomikoa industriaren zerbitzuan jartzen ez den bitartean.

Iraultza zientifiko eta tekniko honen nagusitasuna Ameriketako Estatu Batuek, Mendebaldeko Europak, Soviet Batasunak eta Japoniak dute eta herrialde hauetako biztanleak aurrerapen hauen irabaziaz baliatzen dira. Mendebaldeko biztanleak oparotasun-zibilizazio batean sartuak daudela dirudi. Hirugarren Munduko atzerapena, berriz, geroz eta nabariagoa da; "hirugarren mundutarrok" zenbait Estatutan (Brasil, Afrika ekuadortarrean, etab.) izadi aberatsa dute oraindik, baina ondasun horren erabilerak eta ustiapenak jada arriskutan jarria du izadia ere. Gaur egungo arazorik larrienak, munduko gosetea eta uraren eta atmosferaren kutsadura dira.

I. ZIENTZIA ETA TEKNIKA

XX. mendean, kostu handiko baliabideen laguntzaz taldean egiten den lan-modu berri batek, XIX. mendean, laborategian isolaturik, lan egiten zuen jakintsuaren lana ordezkatu du. Gaurko ikertzaile talde hauek, Unibertsitateetan eta enpresa handietan txertaturik daude eta Estatuaren edo erakunde pribatuen laguntza dute. Beraien helburua aurkikuntzak bultzatu eta tekniken aurrerakuntza etengabeki lortzea da. Bestalde, nazioarteko lankidetasun iraunkor eta hertsiagoak, mende honetako zientziaren aurrerapen izugarria ekarri du ondorioz. Aurkikuntzek, batak bestera, honek hurrengora, aspertzeke daramate zientzia aitzina. Azkarra da aurrerapenen abiada! Zientziak teknika azeleratzen du, eta honek, orobat, zientziaren menpean jarriz, tresna eta material berriak lortzen laguntzen du. Aurrerakuntzak, denak elkarri lagunduz doaz.




TEKNOLOGIAREN LEHIAKETA. Zientziaren neutraltasuna, beroorren aurkikuntza berriak teknologiaren eskuetara iristean bukatu ohi da. Izan ere, teknologiak agresibitate militar eta komertzial bizia erakutsi izan du: marrazki honek, Japoniak teknologian aurkitu dituen baliabide eta indarrak gogoratzen dizkigu sinbolikoki.

A) IKERKUNTZAREN BEREZITASUNAK

Historian inoiz ez bezalako neurri batean, mende honetan ikerkuntza sozialki antolatu da, eta Estatuek ikerpolitika bat eduki ohi dute. Egoki izango da, ba, ikerkuntzaren egoeraz zerbait esatea, zeren hortik bait datoz aurreramendu tekniko handienak.

* 1. Sistematikotasuna

Gaur egun zientzien arlo guztiak sistematikoki ikertzen dira, denak gizadiarentzat mesedegarriak direlako. Baina laborategietan egiten den ikerkuntz prozesuaren eta aurkikuntza zientifiko batek duen aplikazio praktikoaren artean, tarteko beste prozesu batzuk daude: premiazkoa da, adibidez, aurkikuntza berriak dituen ahalbideen azterketa, berauen aukera, analisia, prototipoen fabrikazioa, probak eta abar, aplikaziotara iragan aurretik burutzea.



Lehen fasea laborategietan egiten da: Ikerkuntza "hutsa" deitzen zaio. Lehen fase hau ikertzaile batek, edo talde batek, egiten du, eta geroago egingo diren tresna edo zerbitzuekin ez du batere harremanik hasiera hartan. Aurkikuntza zientifiko baten artean eta erabilgarria den objektu baten artean dauden pauso eta prozesuak TEKNOLOGIA deitzen dira. Ikerkuntzak eta teknologiak, biek, osatzen dute, hortaz, gizarteko aurrerapen zientifikoen prozesu osoa.

ZIENTZIAREN UTOPIAK. XX. *mendeko* Mendebaldeak batez ere, itxaropenik handienak izan ditu zientzian eta beronen aurkikuntza berrietan. Hain zuzen, mirespen horrek eraginda, zientzi fikziozko literatura oso zabaldua egon da Mendebaldean: mundu berri hobeagoen ametsa ematen zen aditzera, honelako argitalpenetan.

*** 2. Aurrerakuntza azeleratua**

Historiako une bakoitzak aurrekoak baino asmakuntza gehiago lortu izan ditu. Garapen zientifiko honek, gainera, aro azpimarragarriagoak ere izan ditu: XVII. mendean esperimentazioa lorpen zientifikoak finkatzen hasi zenetik, berauen ekarria are eta gehiago azeleratuz joan da, beti ere hazkunde honi dagozkion legeak gordez:

a) Asmakuntza bakoitzak beste katea bat sortzen du. Elektrizitatetik,adibidez, beste aplikazio asko etorri dira: irratia, telebista eta abar.

b) Dagoen oinarri zientifiko-teknikoa handiago den neurrian, hazkundea azeleratu egiten da. Zaldia hezi eta gurpila asmatu zenetik zaldiz tiratako lehen karretaraino mende batzuk igaro ziren. Eztanda-motorea asmatu zenetik automobileraino hamarkada batzuk besterik ez ziren igaro.

*** 3. Espezializazioa eta zientzilari-kopurua**

Azken belaunaldi honetan lortutako aurkikuntza zientifiko eta asmakuntza teknikoak ugariagoak izan dira Gizadiaren Historia osoan izandakoak baino. Eta, hain ugariak izatean, aurrerapen guztiak lagun bakar batek ezagutzea ezinezkoa egin da. Horregatik gaurko zientzilaria, arlo oso mugatu bateko aditua eta espezialista da, eta, hala ere, bere arloan gertatutako aurkikuntzak zailtasun handiz jarraitzen ditu.

Bestalde, beharrezkoa egiten zaio zientzilari horri beste zientzilariekin lan egitea, potentzia handiek egiten dituzten ikerlan milita-

Einstein-en zenbait pentsamendu

- "Jainkoa sofistikatua da, baina ez gaizki-nahizkoa" (Horrekin esan nahi du, fenomeno naturalek formalismo matematiko oso konplexu bat jokoan jartzen badute ere, lege-sistema baten menpean daudela eta giza izpirituak asma ditzakeela lege horiek).

- Ideia-modu berari jarraituki: "Gauzarik ulertezinekoena, mundua ulergarri izatea da".

- "Nik ezin dut sinetsi Jainkoak munduarekin dadu-jokoan dabilenik". (Heisenberg, Schröndinger eta Bohr-en indeterminismo eta probabilismoari emandako erantzuna).

- "Esperientzia erlijioso kosmikoa da ikerketa zientifiko handienen eta nobleenen arrazoia".

- "Teoria bat esperientziaz froga daiteke, baina biderik ez dago esperientziatik teori sorkuntzara daramanik".

- "Pertsonalitate ospetsuen kualitate moralak garrantzi handiagokoak dira agian belaunaldi batentzat eta historiaren martxarentzat, adimen hutsezko lorpenak baino".


rraren egitarauetan edo industri handietako laborategietan parte hartuz. Aurreratuagoak dauden arloak eta teknikari gehien biltzen dituztenak Kimika eta Elektronika dira.

XX. mendeko Zientziaren historian bi une bereizten dira: a) Bigarren Mundu-Gerratea baino lehenagokoa bata. Une honetan benetako Iraultza Intelektual bat gertatu zen, mundua "irrazionalismo" batera bultzatu zuena. b) 1945etik gure egunetarainokoa bestea. Urte hauetako bereiztasun aipagarriena teknika-mailan lortutako aurrerapen ikaragarria izan da.

B) XX.eko LEHEN MENDE-ERDIA

1895. urtetik aurrerako aurkikuntza zientifikoek zientzi pentsamendu osoa eraldatu zuten. Pizkunde garaitik eta XVII-XVIII. mendeetako ra-

IRABAZIEN KONTZENTRAZIO SOZIALAK: Brasil, 1979. Jendetza aktiboaren barnean, modu ezberdinetan banatzen dira diru-sarrerak (soldata, pentsio, errenta, etab.). Alde batetik, unean uneko banakuntza desorekatuak daude: gutxi batzuek sarrera guztien parte handiegiak hartzen dituzte (adibidez, aberatsenek --populazioaren % 5a bakarrik izanda ere-- sarrera guztietatik % 39,8a jasotzen zuten Brasilen 1972-an), eta urteak igaro ahala klase sozialen arteko diferentziak areagotu baizik ez dira egin. Badirudi pobreagoen kontra joan direla urteak eta hazkunde ekonomikoa.



aberatsenak (% 5)

erdiko klase jasoa (% 15)

erdiko klase apala (% 30)

pobreenak (% 50)

zionalismotik hona, jakitunek beren baitan segurtasun bat zuten, adimenaren indarrez arlo guztiak ulertzea eskuragarri uste zutelako. Baina 1895etik aurrera, zientzietan gertatutako aurkikuntzen arabera, bazirudien materia eta lege naturalak arrazoiaren legeetatik geroz eta urrunago ikusten zirela. Eta logikako arauak eta zientziaren legeak elkarrengandik aldentze honek gizakiari ziurtasuna kendu zion. Horren ondorioz, 1918tik 1939ra, intelektualen artean "mugimendu irrazionalista" bat sortu zen.

1895. urtean Röntgen alemanak (1845-1923) gorputz opakoa zeharka zezakeen erradiazio-mota bat, ordurarte ezezaguna, aurkitu zuen: "X izpiak" ziren, gerora medikuntzan hain erabiliak izan direnak.

1898an D.Hilbert-ek (1862-1943) Euklide-ren geometriaren balioa ezeztatu zuen, matematikarien artean zalantza eta kordokadura sortuz. 1900.ean M.Planck (1858-1947) fisikariak, berriz,

ESPAZIO EZ-EUKLIDEARRA

"Demagun, izaki zapal-zapal batzuk, Lurra bezain handia den esfera lehun batean bizi direla (ik. hurrengo orrialdean). Eta ekuatorearen parean AB luzera bat hartzen dute, metrobetekoa; gero, metro horren ertzetan bi perpendikular jartzen dituzte AC eta DB, metro banakoak hauek ere. Gure izaki hipotetiko horiek lehen mailako eskolarik jarraitu badute, uste izango dute bi 'paralelo' egin dituztela, hau da, bi lerrozuzen zenbatnahi luzatzen direnak eta beti distantzia berdineko gelditzen direnak. Baina hura harridura paralelotasuna egiaztatzen hasten direnean! Orduan konturatuko dira, AB metroa hamar milioi aldiz ACren eta BDren jarraian eraman ondoren (eta eraman ere metro guztiak aurreko horien luzapen bezala zorrotz eramanez), bi lerroen muturrak ezainean-ezainean elkarrengana hurbiltzen direla eta azkenik Ipar Poloan bateratzen direla. 'Geometria esferikoa' paralelorik gabeko geometria da. Hala ere, esfera baten zirkulu handiak plano baten lerro-zuzenekin berdinestea ez da batere burugabea; ez, aitzitik agrimentsore eta arkitektoen teknikarekin oso ados datorrena da.


Erlatibitate orokorrak frogatu duenez (Einstein, 1912), gizakiak, 'Unibertsoan', Lurraren tamainako bola liso baten gainean dabiltzan inurriekin konpara daitezke. Baina Unibertsoak askoz ere kurbadura txikiagoa du (guretzat), delako bola horrek (inurrientzat) lukeena baino, nahiz eta geometria euklidearra, akats nabarmenik gabe, egokia izan gaur ere ohizko espazioarentzat".

(M.BOLL, 1979)

"quanta"en hipotesia eman zuen. Baina batez ere Albert Einstein (1879-1955) judu-aleman jakintsua izan zen iraultzaren aldakuntzarik errotikoena ekarri zuena: Erlatibitateari buruzko lehen legea honela azaldu zuen: "Munduan, ez dago erreferentzi sistema absoluturik". Teoria einsteindarren oinarria argiaren abiadura iraunkorrean zegoen.

Erlatibitatearen teoriaren alderik garrantzitsuena esperimentagarria izatean zetzan. Horregatik, 1919 eta 1922etan, izarren izpi argitsuen makurrera frogatzean, zuzena Einstein-en teoria zela azaldu zen, eta ez Newton-ena. 1915-ean, Einstein-ek Kosmoan, betiko dimentsioaz gainera (luzeera, zabalera eta sakontasuna), beste dimentsio bat ere bazegoela erakutsi zuen, hain zuzen, materiaren aurrean makurtzen zen "espazio-denborarena". Bestalde, Unibertsoa ez zela mugagabea, mugatua baizik, materiaz betea eta mugimendu gabekoa, esan zuen.

1917an De Sitter holandarra, berriz, bestelako konklusiotara iritsi zen: "Unibertsoa --zioen-- materiarik gabe dago, eta eragite iraunkor batek ukitzen du. Mundua mugatua da eta etengabeko mugimendu batek bultzatzen du".



GEOMETRIA EZ-EUKLIDEARRA. Irudi honetan ikus daiteke aurreko orrialdeko agirian ("Espazio ez-euklidearra") ematen den azalpena.

De Sitter eta Einstein-en teoria desberdinak Lemaitre astronomoak batu zituen. Argiaren banaketa espektroskopikoan oinarrituz, Kosmoa etengabe hedatuz doala irakatsi zuen bere teoriarekin.

Ikusten denez, Unibertso tridimentsional ziur eta ezaguna eraldatuz zihoan. Gizonak beste logika bat landu behar zuen, aipatutako iraulketa, kontzeptuala gertatzen ari bait zen. Kosmoaren

kontzepzio tradizionala aldatzen zihoan neurrian, materiaren kontzepzioa ere, ikerkuntza atomikoaren eraginez, aldatuz joan zen.


1897an J.J. Thompson (1856-1940) ingelesak, atomoak elektrizitatez kargatutako gorpuzkiak botatzen zituela aurkitu zuen. Honek behera botatzen zuen ordurarte mantendutako teoria (Aristotele-ren lanetan oinarritua zegoena): Beraz, ez zen egia, materia zatiezinezko atomoz eratua zegoelako teoria tradizionala.

Pixka bat geroago, "planeta-sistema atomikoak" aurkitu ziren: Ideia horren arabera, elektroiak elektrizitate positiboz hornitutako protoien inguruan biraka dabiltza.

Aurrerago "eraikuntza atomikoa" batua eusten duen elementua ikertzen hasi ziren, eta "eraikuntza" hori nola desintegra litekeen jakin nahi zen. Atomoaren desintegrazio hau, lehen aldiz, 1942an lortu zen laborategian. Bide horretatik aurrera, ikerlanok 1945ean topatu zuten bonba atomikoaren aurkikuntza.

Zientzia esperimentalen iraultza horrekin batera, giza zientzien iraultza ere heldu zen, noski.

Geologia eta Paleontologiaz baliatuz, historilariek gizakiaren sorrerari buruzko lanek Gizadiaren Historia uste baino hamaikatxo aldiz luzeagoa zela erakutsi zuten: Milioitik bi milioitaraino luzatu zen Historia, nahiz eta zibilizazioak 5.000/7.000 urte baino gehiago ez zuela ikusi. Zibilizazio handiak, azken buruan, giza bilakaeraren oso beranduko gertakari bat zirela ikusi ahal izan zen.



BIZIAREN ERLOJUA. Ludian bizi izan dituen aroak honela irudiztatu ohi izan dira, erloju batean. Orain 3.000 milioi urte edo azaldu ziren bakteriak edo alga berdeak; animalia fosilek ere historia luzea izan dute: 1.000 bat milioi urte. Gizakiak, esateko, azken instantekoak dira: 2 milioi urte eskas.

Psikoanalisia eta Psikiatria modernoa ere sortu ziren, giza gogo eta adimenean sakonean arakatuz. Sigmund Freud (1859-1939) izan zen zientzia berri honen sortzailea.


XIX. mendean garatutako teoriek ziotena zera zen: Gizakia, abereen antzera, erreflexu kondizionatuz mugitzen da, estimulu fisikoen eraginez, eta, horregatik, libertaterik gabeko automata baten antzekoa dateke. Honen aurka, Freud-ek esan zuena zera zen: Gizakiaren ekintza guztiek inkontzientearen ekintzetan eta bulkada hertsatuetan zutela esplikazioa. Ekintza hauek ametsen bitartez azaltzen dira, eta psikiatrak amets guzti hauek aztertu behar ditu eritasun mentalak diagnostikatu eta sendatzeko.

Beste arlo batean, gogora dezagun, XX. mendean lortutako aurrerapenek gizonaren bizi--itxaropena asko luzatu dutela. Farmakologiak eta medikuntzak bide argitsu bat urratu dute, horretarako.

F.Banting (1891-1941) kanadiarrak eta R. McLeod amerikarrak (1923an Nobel Saria irabazi zutenak) intsulina aurkitu eta isolatu zuten. Diabete gaixotasuna duten milioika lagunek intsulina horretan aurkitu dute beren aringarria. Baina izan da geroztik sendagarri orokorragorik ere.

1929an A.Fleming (1881-1955) ingelesak penizilinarekin antibiotikoen mundua jarri zuen medikuen eskuetan. Antibiotikoak, gaixotasuna dakarten mikroorganismoen hazkundea eta ugaltzea geldierazten duten substantziak dira. Berauei esker, lehen heriotze-tasa larriagotzen zuten zoldura asko menperatu egin dira. Sulfamiden aurkikuntza ere oso garrantzitsua gertatu da. Hauek G.

A.FLEMING (1881-1955). Mediku eta bakteriologo britainiar honek aurkitu zuen penizilina "Penicillium" deituriko lizun batean (1927-1929). Laguntzarik ezagatik, ikerlanak ezin izan ziren jarraitu orduan, eta azkenik 1939-1940etan deshidratatu zen penizilina, berehala botika bezala zabaldu ahal izateko. 1945en eman zitzaion Nobel Saria.



Domagk-ek (1895-1964) aurkitu zituen (1935), hainbat gaixotasunetarako erraztasun berriak eskainiz.

1929.ean Formann-ek bihotzaren zundaketa egin zuen. Eta 1930.ean Theiler-ek (j. 1899) "sukar horia"aren aurkako prebentziozko txertoa aurkitu zuen.

C) AZKEN HAMARKADETAKO AURRERAPENAK (1945-1985)

XX. mendeko lehen urteetan "Iraultza Intelektual"ak gizaki mendebaldarra zalantza eta irrazionalismotara eraman zuela esan dugu. Baina gerraondoa (1945-1973) oparoa izan da zientzi arloan: horrek ekarri dituen hobekuntzak ukaezinak gertatu dira, eta Gizadiak esku-betean jaso ditu aurrerapenon onura eta fruituak. Segurtasun berri bat eta arrazoiarekiko konfidantza indartuagoa sumatzen dira, azkenik.


Adimenaren botere berri honetan sortutako konfidantza hau, adibidez, gaurko biologoek, bizitzaren sorreraz sentitzen duten interesean garbi ageri da. Aipagarriak dira, esate baterako, Kornberg ipar amerikarrak eta Estatu Batuetan bizi zen Severo Ochoa espainolak (biak 1959.ean, Nobel-Sarituak) egin dituzten aurkikuntzak. Bizi artifiziala, material genetikoak erabiliz nola molda, izan da, batez ere, hauen ardurakizuna.

Material genetiko bizi honek, bizidun zelula baten birusa birsor dezake. Laborategian birsortu da azido desoxirribonukleikoa (ADN), izaki bizidunetik oso hurbil dagoen elementua. Nahiz

Bizia, noiztik?

"Zientzilariak konbentzituriK daude gaur egun, Lur planetaren historian bizitzaren erreinuak betetzen duela zatirik handiena. Alabaina, Groenlandian 3,9 mila milioi urteko arrokak aurkitu badira ere, ez dirudi planeta bera bezain arroka zaharrik lurrazalaren gainean gelditzen denik, hau da, orain dela 4,5 mila milioi urtekorik. Lurraren eboluzioko lehen seirehun milioi urteetan, egongaitza izan zen inondik ere lurrazala, eta azaleko arrokek nahikoa maiz ikusi zituzten egitura-aldaketak. Horrelako egongaiztasuna biziaren sorrerarako oso desegokia zenez, espezialista askok uste dute, bizia lurrean agertu zela, orain 3,9 mila milioi urte baino geroago baina 3,5 mila milioi baino lehen. Bi data horien artean ipintzen du biologia klasikoak biziaren jatorria".

(F.HOYLE, 1980)




ITSAS LANDAREAK. Itsasoa betidanik izan da biziaren biltegi aberatsa, eta gizakiak beroren altzotik hainbat jaki eta baliabide eskuratu ahal izan ditu, gehienetan, hala ere, harrapakari bezala jokatuz, hau da, hartu bai baina jarri ez, eginez. Berrikitan, azken hamarkadetan, ordea, itsas ondasunak lantzen ere hasi da gizakia, arrain-haztegiak sortuz eta itsas landareak ere ikertu eta ustiatuz. Hona ur--laborantzan landu den alga bat ("Laminaria japonica"): Txinan oso zabaldua dago beronen laborea; metroka luzatzen da landare hau, eta orain teknika berriak asmatu zaizkio, ongarri emanez eta argialdiak neurtuz, ingurune egokienak moldatuz eta hautespen genetikoak eginez. Antzeko 200 bat alga-genero ustiatzen dira, honelatsu. Giza janaritarako, animalien pentsutarako, labore-ongarritarako, botikagintzarako, energia sortzeko eta beste hainbat betekizunetarako balio lezakete alga hauek.

eta saiodietan ez lortu biziaren sortzea, orain arte sendaezinak ziren gaixotasun batzuei gaina hartzeko ikerlan modernoak bidea irekitzen ari dira. Minbiziaren sendabideak hortik etor litezke, agian.

Lortzen ari diren aurkikuntza hauek, gainera, bizitzan aplikazio praktikoa dute; ez dira bakarrik zientzia hutsetan geratzen. Medikuntz arloan, adibidez, azken urte hauetan egin diren aurrerapenek, Gizadiaren historia osoan egindakoak baino munta handiagoa dute. Gizakiaren bizi-itxaropena arruntki luzatu da: XVII. mendean bizi--itxaropena 30 urtetan zegoen, eta 1984.ean 70 urtekoa da gure artean.

Lorpen hauetan "inmunologia"ri leku seinalatu bat aitortu behar zaio. Zientziaren arlo honek, gaixotasunei aurrea hartu nahi die, gaitza azaltzean, beroni erantzun eta ondorioak ezabatzeko lain izan dadin. Txertoa da horretarako erabili izan den sistema eraginkorrena. Txertoen hedakuntzari esker, izurrite handiak desagertu egin dira (kolera, izurrite bubonikoa, etab.). Bestalde, gaixotasun batzuk, baztanga adibidez, gaurko egunean desagertuak daude, haien aurka txertatzeko beharrik ere ez dagoela, gainera.


Organuen transplanteak direla eta, kirurgian ere pauso handiak eman dira. Bide honetatik, Hego Afrikako C. Barnard medikuak bihotz-transplanteak 1967an hasi zituen, istripu batean hildako mutil gazte baten bihotza etsipena emanda zegoen gaixo bati transplantatu zionean. Gaixoak 18 egun igaro zituen bihotz berriarekin. Ordudanik, geroz eta gehiago izan dira berrezarritako organuak, baina horrelako ebakuntzek arazo ugariak eskaini dituzte. Dagoeneko ebakuntzetan arazorik gutxien dakarren organua giltzurruna da.




EGUZKI ENERGIA. Tresneria egoki baten bidez, posible da, adibidez, eguzkiaren energia etxebizitzetarako berogarri eta indar iturri bilakatzea. Ondoko irudi honetan ikus daiteke horretarako aparatu bat. Lurralde lehor eta urik gabekoetan (eguzkitsuetan) eguzkia izan daiteke etorkizuneko aberastasun handi bat, produkzio-sistema osorako ere.

Arma atomikoei dagokienez, Bigarren Mundu-Gerratea bukatu zenetik ez dira berriz gerran erabiliak izan, eta gaur egunean atomoaren desintegraziotik lortzen den energiak, badu erabilera baketsurik. Energi krisi berriarekin, denbora igaro ahala, energia nuklearra Gizadiaren erreserba bezala agertu da askorentzat, ohizko energi iturriak (ikatza eta petrolioa) ez direla agortezinak ikustean.

Ameriketako Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan, atomoaren lehen esperientzia industrialak 1951n egin ziren, elektrizitate-fabrika nuklear bat eraikitzean. Ordudanik, zentral nuklearrak munduan zehar hedatuz joan dira ohizko zentral termiko eta hidroelektrikoei konpetentzia egiten dietela.



KAREN TERRYren ETXEA (Santa Fe, Mexiko Berria. 1977). Arkitekturak betidanik zaindu izan du hotz-beroen eta eraikuntz moduen arteko zerikusia. Azken hamarkadan (energiaren krisialdia dela eta) premiazkoagoa gertatu da oraindik honelako etxe bioklimatiko "pasiboak" asmatzea. Karen Terry arkitekto sonatuaren etxe honetan, hegoaldea leiho indar-xurgatzailez hornituta dago, eta iparraldea, berriz, lurpean babestuta. Egitura termiko zaindua du etxeak.



UR-EGUZKIAK. Ur gozo gutxi, baina eguzkia eta itsas ur gazia ugari daukaten lurraldeetan, honelako ur gezatzaileen bidez lor dezakete ur garbia, giza kontsumorako ezezik, laborantzarako ere.

Energia atomikoa garraioetarako ere erabilgarria da. Lehenengo horrelako ibilgailua "Nautilus" submarino ipar amerikarra izan zen. Nautilus-ek 1957an 1.000.000 km egin zituen erregaiz kargatu gabe. Geroago (1968), Soviet Batasunaren "Lenin" izotz-haustailea egin zen; "Lenin"ek, zenbait Ozeano edo Itsaso itxitan nabigatu ahal izan zuen. Lehiaketa honetan "Savannah" amerikarra izan zen, 1960. urteen hamarkadan, lehen merkatal ontzi atomikoa.

Zientzilariak, oraintsu, eguzki-energiari buruzko ikerlanak egiten ari dira. Honek dituen abantaila garrantzitsuenak nabariak dira: agortezina da, eta ez da kutsagarria. Badira, gure egunetan, labe eta berogailu-sistematan energi iturri hau erabiltzen duten etxebizitzak.

Zientziaren arlo berri bat Elektronika da. Elektroien jokabideaz arduratzen delako deitzen da horrela. Nahiz eta oso berria izan, aurrerapen itzelak sortzen ari da Elektronika: Adibidez, astronomiari aplikatzean, potentzia oso handiko teleskopioak eraikitzen dira eta laborategietan, mikroskopioen bitartez, mugagabeki txikiak diren elementuetaraino irits liteke giza begia.

Wiener matematikariak (1894-1964) pultsu elektronikoak mugimendu bihurtzea lortu zuen, eta hortik jaio zen Zibernetika. Zibernetika-k "robot"ak sortzen ditu. Hauek dira operazio desberdinak egiten dituzten gailuak.

Kimika-arloan ere ez da aurkikuntzarik falta izan. Petrokimikak, esateko, "plastikoak" produzitu ditu. Gaur egunean, plastikoak leku handia du industrian eta eguneroko bizitzan. Aurrerapen kimikoak, gainera, laborantzan ere oso mesede-

garriak gertatu dira. Ongarrien ekoizpenak, adibidez, aurreratuagoak diren herrialdeetan laboreen emana iraultzatu egin du. Ongarri-konposatuek (potasioa, fosforoa eta nitrogenoa barne) landare askoren errendimenduak hobetu dituzte.

DDT intsektizidaren erabilerak intsektu kaltegarri askoren izurriteak mozten lagundu du. Dena dela, produktu honen abusatzeak kalterik ere ekarri du, eta, azkenik, Ipar Ameriketan eta Europan mugatu edo debekatu ere egin behar izan da berorren erabilera.

D) INJINERUTZA ETA KOMUNIKABIDEAK

Injinerutza, garraioetara aplikatzean, munduko lurralde guztien arteko komunikapen-maila hobetzen ari den giza jakinduriaren arlo garrantzitsu bat da.

XIX. mendean, trenaren agerpenarekin, Planetaren neurriak "txikiagotzen" hasi zen Injinerutza: XIII-XIV. mendeetan Europatik Ekialde Urrunera joan-etorria egiteko urteak behar ziren; "Siberiarrean", berriz, aste gutxitan burutzen zen joan-etorria. XX. mendeak areagotu baizik ez du egin aurrekoan hasitako aldakuntza hura: Orain, ordu batzutan burutzen da joan-etorri bera. Batez ere hegazkina izan da Ludia neurri hertsiago hauetara ekarri duena. Hegazkin-injinerutzak mirariak egin ditu II. Mundu-Gerratetik hona. Hegazkinetarako erreakziozko motoreak orduan asmatu ziren, helizezkoak bapatean zaharkituta utziz. Inbentu hau, abiazio komertzialean geroago orokortu zen, eta gaurko hegazkinek hegaldi batean,

Garraioa nazioarteko merkatalgoan

"Oso modu jeneral batean hautematen da, nazioarteko merkatalgoan, gero eta gehiago direla produktu manufakturatu edo erdi-akabatuak, eta gutxiago lehengaiak. Egia da, ezinbesteko garrantzia duela oraindik landugabeko ondasunen salerosketak zenbait herrialdetako mantenu-beharrari erantzuteko, edota eraldakuntzako zenbait industria mineralez hornitzeko. Baina produktu astunok, sarri sueltoan garraiatzen direnak, oso balio eskasa izaten dute aleko; eta askotan, eraldatu egiten dira portuetatik gertuan. Aitzitik, produktu manufakturatuek eta zenbait tarteko ondasun (pieza sueltoak) edo ekipamenduzko ondasunek (erreminta-makinek, elektrotresnek) maiz balio handia izaten dute aleko, baina batzutan pisu arina (...).

Baina nazioarteko merkatalgoa gehien markatu duen egitatea da, herrialde garatuek, besteen aldean, gero eta parte handiagoa hartzen dutela bertan. 1950ean nazioarteko merkatalgoaren % 60a egin zuten horiek, 1960an % 67a, eta gaur egun % 75a baino gehiago".

(C.CABANNE, 1981)

ehundaka bidaiari garraiatzen dituzte abiadura handiz eta altuera handitan ere. Aipagarriak dira 1969an bere lehen hegaldia egin zuen "Concorde" hegazkin anglo-frantsesa. Orobat "T-V-144" errusiarra eta "Jumbo" ipar amerikarra.

Trenbideetan ere aurrerapen oso aipagarriak lortu dira: gaur egunean tren-makina elektrikoak edo olio astunarekin mugitzen direnak erabiltzen dira. Tren komertzialetan 300 km/h baino gehiago lortzen da, nahiz eta orain mende bete 50 km/h izan, goitik jota ere. Berebilaren konpetentzia ere esplikatzen du trenaren abiaduraren gehikuntza hau, izan ere trenaren errendimendu ekonomikoak jaisten hasi bait ziren berebilen kopurua gehitzen hasi zen neurrian.

Tsiolkovski (1857-1935)


Konstantin Eduardovitx Tsiolkovski, Errusiako jakintsu eta inbentorea zen (Ijevskoe 1857-Kaluga 1935). Hamabost urte zituenetik hegatzeko problemen zale porrokatua zen. Haren lehen argitalpena, 1887an, metalezko zepelin baten estudio teorikoari emana zegoen, eta 1903an aparatu bat bururatu zitzaion erregai likidozko misil-motore batez propultsatua. Hogeitabost urtetan aztertu zuen printzipio hau, hainbat misil-proiektu elaboratzen zituen bitartean, eta jada ordutik idarokitzen zuen propergol bezala hidrogeno, oxigeno eta hidrokarburoak erabiltzea. Hari zor zaio orobat norabide-printzipioa ere, zuzenean ihes-gasaren toberan ipinitako kontrol-azalera batetik hara lortzen dena, eta gero Alemanek 'V2' errepresali armentzat erabili zutena. Artikulu asko idatzi zituen misilen hegatzeko eta espaziora bidaiatzeko teoria matematikoaz, eta frogatzen du, ahalgarri direla planetarteko bidaiak eta satelite-estazioak espazioan eraikitzea.

E) ESPLORAZIO-BIDAIAK

XIX. mendean gizakiaren bilakuntza berriak lurralde ezezagunetara abiatu ziren. Gaur egunean, berriz, Lurraren azalera guztia ezaguna denean, esplorazioak beste bideetara zuzendu dira.

XX. mendeko gizakiaren jakin-nahia, alde batetik itsas sakontasunetara doa. Piccard irakasleak bere "batiskafo"arekin 4.000 metroko sakonetarainoko murgilaldiak egin ditu. Itsas hondoak interesgarriak azaltzen dira, aberastasun ugariak gordetzen bait dituzte eta giza espeziearentzat elikadura-altxor bat bait dira.

Baina gaur eguneko esplorazio handienak espazio-bidaietan ari dira egiten. Espazio-konkis-



SATURN V.a, KOHETE ESPAZIALA. Espaziorako koheteek hainbat fasetako atalak izan ohi dituzte beren bidaietarako: batzuetan, erregaiak eta motoreak eramaten dira; besteetan, ikertresnak eta astronautak. Bidaiaren faseak bete ahala, jaurti egiten dira alferrikako atalak. Kohetea osorik ikus daiteke ezkerreko irudian. Beste bietan, berriz (A eta B), kohete-atalak erakusten dira.

taren lehen urratsa Soviet Batasunak eman zuen, 1957ko Urriaren lean, "Sputnik I"a ortzira bidaltzean. Giza historian lehen aldiz jarri zuen gizonak, bere Planetaren inguruan, "satelite artifizial" bat jira-biraka. 48 cm diametroko esfera bat zen eta 950 km/h abiaduran zihoan. Hilabete geroago, lehen bidaia espaziala atera zen: "Sputnik II"a; bertan txakur eskimal bat joan zen.

Sovietarren balentria hauek mundu osoa ukitu zuten, eta txundituta utzi. Itxuraz, Ipar amerikarrak, lehiaketa honetan, atzeratuta zebiltzan; horregatik arreta handiagoz heldu zieten esperientzia espazialei. Berauen lehen xedea espaziora gizon bat bidaltzea izan zen; baina aurrea hartuta zetozen sovietarrek, berriz ere, irabazi egin zuten: 1961eko Apirilaren 12an Iuri Gagarin komandantea izan zen lehen kosmonauta, hau da, lehenengo "ortziko nabigaria", 327 km/h abiaduraz. G.Titov sovietarrak, bigarrenak, urte berean 17 itzulbira eman zizkion Lurrari 25 ordutan "satelite" batean.

W. von Braun (1912-1977)

Injineru amerikarra da eta aleman jatorrikoa (Wirsitz, 1912). Hermann Oberth profesore alemanaren asistente zela, Walter Dornberger, Kummersdorf-eko estazio esperimentala gidatzen zuenaren laguntzaile izan zen izendatua, 1932an. 1937an Peenemünde-ko zentruaren zuzendari tekniko zen, eta 'V2'aren prototipoa hegaraztea lortu zuen 1942an; 'V2'a 1944ean egin zen operatibo. 1945ean heldu zen Estatu Batuetara eta, White Sands-en (Mexiko Bèrrian), 'V2' misilak, Alemanian atzemandakoak, goi-altueratara jaurtitzeko entseiuak arteztu zituen. 1950ean, Peenemünde-ko bere 120 lagunekin, Hunstsville-ko (Alabama) Redstone Arsenal-ean aurkitzen da zuzendari zibil bezala misilen garapenerako plan batean. Urte berean nazionalitate amerikarra hartzen du bere lankideetako 80rekin. 1960an, Kennedy presidenteak berriro aldatzen du Wernher von Braun-en ekipoa Army Ballistic Missile Agency-tik NASAra; bertan ibilgailu espazial handien garapen eta jaurtiketen arduraduna izan zen .


ESTATU BATUAK ETA SOVIET BATASUNA LEHIAN

U.S.A.: "Merkury" programa		S.B.: "Vostok" programa	
		1961.04.12	Vostok 1 (Gagarin: lehen astronauta)
1961.05.05	Freedom 7 (Shepard)		
1961.07.21	Liberty Bell 7 (Grissom)	1961.08.06	Vostok 2 (Titon)
1962.02.20	Friendship 7 (Glenn)	1962.08.11	Vostok 3 (Nikolaiev)
1962.05.24	Aurora 7 (Carpenter)	1962.08.12	Vostok 4 (Popovitx)
1962.10.03	Sigma 7 (Schirra)		
1963.05.15	Faith 7 (Cooper)	1963.06.14	Vostok 5 (Bikovski)
		1963.06.16	Vostok 6 (V.Terexkova)

1962an bidali zuten ipar amerikarrek beren lehen bidaiari espaziala. J.H. Gleen kapitainak hiru itzulbira eman zizkion planetari, lau orduren buruan Atlantikoan itsasoratuz. Ordudanik txandaka edo ibili dira sovietarrak eta amerikarrak.

1965ean beste pauso bat eman zen: Leonov sovietarrak, espazioan biraka zela, ibilgailu espaziala utzi eta 15 minututan espazio hutsean kulunkatu zen, ontziari loturik zihoan bitartean. Urte berean ipar amerikarrek ere beste hainbeste egin ahal izan zuten.

Hurrengo urrats sonatua "Apolo VIII"arena izan zen: F.Borman, W.Anders eta J.Lowell, 1968ko Gabon egunean, Ilargira iritsi ziren. Hamar itzulbira eman zizkioten beroni, Ilargi-zorutik 150 km-tara hurbildu eta gero Lurrera itzuli ziren, 147 orduko hegaldia izan hura, Pazifikoan zorionts itsasoratu ziren artekoa. Gizakiak Ilargian lur hartzea hurrengo urtean lortu zen: ehundaka milioi lagunek ikusi ahal izan zuten telebistaz gertakari historikoa.



ESPAZIO BERRIETARA. Gizakiaren azken belaunaldi honetan Lurra inoiz ez bezala begiratu ahal izan da sateliteetatik, eta Ilargitik ere. Munduaren irudi berri bat ari da sortzen gure buruetan, hamaseigarren mendeko bidaien ondoren gertatutakoaren antzera. Gizadiak bere buruaz eta inguruaz ezagumendu berriak lortu ditu, baina munduaz lortutako jabetasun hau nola erabil, da orain arazoa, izan ere jakiteak erantzukizun handiagoak bait dakarzkio gizakiari.

II. ETORKIZUNA PRESTATZEN

XX. mendean Bigarren Iraultza Zientifiko bat gertatzen ari dela esan genezake. Lehen aldiz historian, Zientzia eta zientzilariak aurrerapen ekonomiko, industrial eta militarretan osoki sartuta ari dira lanean.

Nahiz eta iraganaldian zientziaren ondorioak errealak izan, historia arruntaren eranskin interesgarri eta distiratsua, baina urruna bezala azaltzeko arriskua zuen zientziak. Beti ere, zientzia haren balioa frogatu egin behar izaten zen.

XX. mendean, alderantziz, kontrakoa da arriskua: ahomen handitxoa ere eman izan zaio zientziari, mende honetan oso hurbiletik ezagutu eta miretsi bait ditugu zientziaren aurrerapen ikusgarriak.

Bestalde, beharrezkoa egiten da, aldaketa garrantzitsu bakoitzean, aurrerapen zientifikoaren ikuspegi soziala ere ezagutzea: garapen zientifi-

koan, nola parte hartzen dute indar ekonomiko eta sozialek (ikerkizunak aukeratuz, lan-erritmoak markatuz, aplikazioak erabakiz, etab.)? Eta beste ikuspegi batetik: gertakizun ekonomikoak eta politikoak eraldatzeko, zeintzuk dira aurrerapen zientifikoen ekarri garrantzizkoenak?

Ikasi eta sakondu behar den giza ihardueren prozesu bat da Zientzia, eta gainerako giza eginkizunei lotuta doan zerbait, gainera. Zientziaren eta gizartearen arteko harremanok interesik handiena dute. Ideia zientifikoek giza pentsamenduan eta ekintza filosofiko, politiko, erlijioso eta artistikoetan ere eragin bizia dute. Zientziaren erabilpena dela medio, aldakuntza ekonomikoek abiada eta jite berriak hartu dituzte. Baina oraindik urriegiak dira giza bizitzaren baldintzak hobetzeko erabiltzen diren zientziazko baliabideak, eta gehiegi, aitzitik, hondamendi eta deuseztapenerako erabiltzen direnak.

Gizarte klasistek, orain arte, gerrara aplikatu dituzte batipat zientziaren aurrerapenak, baina egoera aldatuz doa, erakunde industrial bat eratu delako eta zientzia (teknika beti izan den bezala) gizartearen indar emankorren ezin besteko atal bihurtu delako.



MADARIKATUA GERRA HORI! 1914-1918-etako gerratearen ondoren garaitzapenari eta hildakoei oroitarriak jaso zitzaizkien Frantziako herrietan. Gerra guztien ondoren egin ohi dena: ohorezko oroikarriak dira horiek. Gentioux-eko herrian, ordea, haur umezurtzaren eskuak beste esaldi kritiko hau erakusten du: "Maudite soit la guerre". Monumentu hau ez zen sekula inauguratu. XX. mendean geroz eta odoltsuagoak izan dira gerrateak: etorkizun hobea prestatzeko modu eskasa!

A) ZIENTZIA GAURKO MUNDUAN

Zientzia oso modu ezberdinez banatuta dago munduan zehar. Hala ere, banakuntza hau aldatuz doa, azkarki; hona datu erlatibo batzuk:

- Munduko zientzilarietatik 9/10, 730 milioi biztanle duten (munduko populazioaren % 23) herrialde industrializatuetan bizi da.

- Populazio gehiena duten herrialdeak, oso landuak dauden irla eta ibai handien ertzetakoak dira. Munduko azaleraren % 20 betetzen dute eta 1.400 milioi biztanle dute. Herri laborari hauek zientziaren mozkin urriak dituzte eskutan, beraz.

- Gelditzen direnak, nahiz eta munduko azaleraren % 89a bete, 1.200 milioi biztanle dira. Hauek ere gehienak laborariak.

B) ZIENTZIAREN BEHARRA

Zientzia hain garrantzitsua izatera iritsi denez, ezin da utzi zientzilarien eta politikarien eskuetan bakarrik gizadiaren jakite-alor hau. Herri osoak izan behar du zientziaren kontrola, berori mesedegarri izan dadin eta ez guztiontzat madarikazio bat. Izan ere, gaur egunean zientziak baldintzatzen dituen eta alda ditzakeen bi mehatxu ditu munduak: gerra eta gosea.

* 1. Gerra

Gerra nuklear bat lehertuko balitz, nahiz eta zibilizazioa ez desagertu, gizadiaren atzerapena izugarria gertatuko litzateke: Milioika bi-

Armamenduen aurrekontuen esanahia

"Eurrez arakatu dute ekonomistek gai hau. Adam Smith-en ondoren negatiboak dira tesirik gehienak, baina sarrienik faltsua izaten da eztabaida bera. Tesi honen aldekoek produktibitate hitz honi ematen dioten esanahia hertsia izaten da, alegia, jendeak erabil-aberastasun materialak zuzenean produzitzeko gaitasunari esan ohi dio produktibitatea (...).

Hala ere ez dago zalantzan jartzerik gastu hauen baliagarritasuna, ezta ikuspuntu ekonomiko hutsetik begiraturik ere.

'Stricto sensu', beraz, kontuz bereizi beharrekoak dira produktibitatea eta baliagarritasuna, eta bereizi ere sailketaren eta balio-judizioaren artean inolako ekibokorik eta nahasketarik ez uzteko moduan bereizi behar dira bi kontzeptuok. (...)

Hemen, ordea, elkarren pareko egiten dira produktibitatea eta baliagarritasuna, eta gastu militarrak ekonomikoki inproduktibotzat jotzen dira, politikoki baliogabetzat jotzen direnean; honek, berriz, erabat zabalik uzten du eztabaida.

Baiki, gastu militarrak, gastu publikoak orokorrean bezala, nazio-ekonomiaren zeharkako karga dei daitezkeenak edo dira, gizartearen antolamenduak berekin dituenak alegia. Horien funtsezko baliagarritasuna zalantzan jartzea, gizarte-antolamendu hau bera zalantzan jartzea da. Honek eskatzen duen gutxienekoa, berriz, ondorio horretaz jabetzea izango litzateke".

(P. HERVIEU)

zitza galdu eta sufrimenduak ugari... Gaur egun darabiltzagun gisan, munduko baliabideak mundutar guztion beharrak asetzeko gutxiegi direnez, arrazoizkoa da Estatuen gastuetan gerrarakoak urritzea eta bake-eginkizunetarakoak hobeki zaintzea.

Baina horrek politikaren funtsezko aldakuntza esan nahi du, eta gerratik itzurtzeko herriak berak ulertu behar du gauzen egoera, ulertu eta presio egin. Gerraren mehatxu hurbil hori gainditzean, gobernu kapialisten eta sozialisten artean bizikidetasun-sistema bat ezartzera joko da. Honek, desarmamenduan, oinarrizko neurri batzuk ekarriko lituzke, eta seguraski hitzarmenen bat izenpetuko litzateke, erabateko deseginketak debekatuz. Adibidez, bonba atomikoa, eta gerra biologikoa debekatuko lirateke.

GIZAKIAREN ESKUBIDEAK

1926	11.25	Esklabutzari buruzko konbentzioa.
1948	12.09	Genozidio-krimena prebenitzeko eta erreprimitzeko konbentzioa.
	12.10	Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala.
1952	12.20	Emakumearen eskubide politikoei buruzko konbentzioa.
1954	09.28	Aberrigabekoen estatutuari buruzko konbentzioa.
1955	08.28	Detenituak tratatzeko arau minimoen multzoa.
1959	11.20	Umearen eskubideen deklarazioa.
1960	12.14	Herrialde eta herri kolonialei independentzia emateari buruzko deklarazioa.
1967	09.07	Emakumeentzako diskriminazioa kentzeari buruzko deklarazioa.
	11.14	Lurraldezko asiloari buruzko deklarazioa.
1971	12.20	Buru-urriaren eskubide-deklarazioa.
1974	11.16	Gosea eta mantenu-txarra behin-betiko ezabatzeko deklarazio unibertsala.
	12.09	Pertsona guztiak torturaren kontra eta beste pena edo tratu anker, inhumano edo desduintzaileen kontra babesteko deklarazioa.

Honelako akordio-modu baten ondoren, munduko bi zatien arteko merkatalgoa ugaritu baizik ez litzateke egingo, eta elkar-trukaketa zientifiko eta kulturaletarako egokiera hobeak sortuko lirateke. Baina, lehenengo batean, batez ere, gatazkarik ere ekarriko luke: arma-industrietan birmoldaketa oso bat egin beharko litzateke, atzerapen ekonomiko batetik itzurtzeko. Gaurdainoko arma-inbertsioak birmoldaketa horretan eta beste produkzio-sektoreetan emango lirateke, eta merkatu zabaldu-berrietako eskeak ere lagunduko luke, noski, ekonomia eraldatu horren indarberritzea.

Hirugarren Munduaz ari garela, herrialde azpigaratuek bake egonkor batean eta desarmamendu-egoera batean, ahalegin handiagoak egingo lituzkete kontsumo-ondasunak eta garapen-egitamuak indartzen. Aldakuntza honetan, zientziak izango lituzke abantailarik handienak. Gaur egun ikerkuntza militarrari eskaintzen zaizkion baliabideen zati garrantzitsu bat ikerlan zibilei emango balitzaie, mozkinen eta giza energiaren gehikuntza oparoa izango litzateke ondoriorik nabariena. Era honetara, hilabete batzuetan, zentru militarrak ikerleku zibil bihurtuko lirateke.

Enpresen estrategia geografikoa

"Bretainiarren arrantza-produktuak arrantza-tokien hurbileko lekuetan, Afrikako kostetan, eraldatzen dira gero eta gehiago; ba abantaila bat eskaintzen dute horiek, 'lansari tropikalez' ordaindutako lan-eskua alegia. Abantaila hau berriz, biziro estimatzekoa da, zeren eta nola ia kontserba guztia metropolira bidaltzen den, ba aparteko irabazi handiak ateratzen dituzte firmek (...).

Concarneau-k (Bretainia-ko arrantza-portuak), hortaz, etekin eskasa ateratzen du atun-arrantza tropikaletatik. Hego Finisterre-n 1950ean 124 kontserba-fabrika eta 12.300 enplegu zirenak, gaur 39 fabrika eta 4.500 langile besterik ez dira!



ETORKIZUNERAKO GIDARIAK. Krisi eta beroaldietan batipat, erregimen totalitarioetan ezezik gizarte demokratikoetan ere leaderrek erakarmen handia izan ohi dute, jendearen borondateak biltzeko; baina ez jokabide faxista edo erdi-faxistetan erortzeko arriskurik gabe. Hiritar helduak, dagozkion erantzukizun politikoak bere eskuetan zaindu beharko lituzke beti, kritikarako ere burua argi mantenduz.

Kontserba-fabrika bretainiarrak ixten ari diren bitartean, Saupiquet (kontserba-enpresa) indartzen ari da bere eraldakuntz potentziala Abidjan-en; S.P.L.I.k (Société Parisienne de Lingerie Indémaillable-k) Bretainia-n hiru establezimendu eta 1.500 enplegu ezabatzen dituen bitartean, fabrika berri bat sortzen du Tunisian. Biderman-ek (janzki militarrak) Guérande-n UGECO fabrika (210 enplegu) ixten duen bitartean, beste halako bat irekitzen du Hanoi-n; (...) beste kapital batzuk ere irabazbide hobeak eskaintzen dituzten bazter geografikotan berrinbertitzen dira. Dena den, bizitza ekonomikoaren internazionalizazio hau eta kapitalaren mugikortasun hau, firma handiena besterik ez da".

(C.CANEVET, 1980)

Itxaropen guzti hauek, munduko Estatuen eskuetan daude. Herri guztiek bortxatu behar dituzte gobernuak Hirugarren Mundu-Gerra leher ez dadin.

* 2. Gosetea

Baina, nahiz eta gudarik ez piztu, Gizadiaren etorkizuna beltz ikusten da gaur eguneko egoeratik. XX. mendean, laborantzaren hedatzeak janarien ekoizpen ugaria lortu du, baina ez, bestalde eta aldiberean, lurren agortze kezkagarri bat gabe. Agortze honek planetako lurren erreserbetan ondorio biziki kaltegarriak izan ditu.

Bestalde, populazioaren hazkundea (lehen Iraultza Industrialak sortutako lan-indarraren premiak sustaturik) azkarra izan zen, eta laborantzan, osasun publikoan eta garraioetan aurrerapen garrantzitsuak egin ziren.

Egun, Mendebaldeko egokiera historiko hura gainditua gero, munduko egoera sozio-ekonomiko eta politikoaren oinarriak kapital handiaren zerbitzuan daude. Laborantzak, adibidez eta paradoxaz, teknikarik ultra-aurreratuenak ditu herrialde industrialetan, baina feudal zaharkitua da bere antolamendu sozialean eta zaharkituagoa oraindik produkzio-teknikaz batez ere laborari-lurralde huts direnetan. Gosea da, hortaz, nagusi Hirugarren munduan.

JANARIAK MUNDUAN. F.A.O.k (Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundeak) zioenaren arabera (1967), eskualde ezberdinetan lagun bakoitzari eguneko/gramotan dagokion proteina-kopurua honela banatzen zen.

	Animali proteina	landare-proteina	guztira
Ipar Amerika	65	28	93
Mendebal Europa	38	45	83
Latin Amerika	25	45	70
Afrika	12	49	61
Ekialde Urruna	8	48	56

C) ZIENTZIA, ONGIZATERAKO

Egoera eta jokabide arriskugarri hauen desagertzea (gosearena, gerrarena eta abar) arazo politiko eta ekonomikoa da. Zientziaren erabilera eta garapen egokiek bide arras berriak hartuko dituzte, mundua gerra-arriskutatik segurtatuta izateko, eta baliabide zientifikoak, gizon eta emakume guztien ahaleginak, ongitasunera bideratzeko gai izan gaitezenean.

Zientzia gizadiaren hobekuntzarako erabiltzea arazo politiko bat da: herriak erabaki behar duen zerbait, alegia. Baina, hau ezin liteke egin zientzilariek duten informaziorik gabe. Zientzi gizon-emakumeek, espezialitatetik aterata, eginkizun horien azpitik dauden arazo politikoak planteatu eta gainerako herritarrekin batera (esku-langile, profesional eta intelektualekin elkartuta) zientziaren eta gizadiaren etorkizunaz hitz egin beharra daukate. Zientzilarien egiteko soziala birdefinitu behar da. Zientzilariek ez dute, berez, lan sozialago hau galerazten dien arrazoirik, eta ahalgarri izango da zientzilariak direnen eta ez direnen artean ahalegin amankomun programatu bat eratzea. Nazioarteko erakunde egokitu batzuk behar dira horretarako.

XX. mendeko zientziak iraultza industrial eta biotekniko berri bat sortzea posible du. Honen lehen ondorioa, lan neketsu eta arriskugarriak baztertu edo samurtzea izan liteke, kontrol- eta ekoizpen-mekanismo automatizatuen garapenaren bitartez hain zuen, fabriketako edo administrazio-lanetako monotonia eta ordu-galtze aspergarriak kenduz.


*Ipar **Korea**/Hego **Korea***
Bi sistema ekonomiko

"Egitura arkaikoa du oraindik Korea zaharrak, zeina bi Estatutan zatitua bait dago gerraren ondorioz; benetako 'burdinezko kurtina' batek banantzen ditu bi Estatuok. 1953-tik hara, benetako korrika-apostuan hasi ziren bi Korea hauek garapenaren bila: praktika 'sozialisten' bidetik Ipar Korea, Txinaren orbita-pean; eta praktika 'kapitalisten' bidetik Hego Korea Amerikaren orbita-pean. Ulertzekoa da bien arteko konparazio bat egitea hogeitamar urteko esperientzia baten ondoren, guztiz konparagarri diren alor eta gizarte batean eginak dira eta. Ekonomilari marxistek 'garapen sozialistaren eredu' bezala ikusten dute Ipar Korea, eta Estatuburuak 'sozialismoaren paradisu' dela ere esan du. Ekonomilari liberalentzat, berriz, konparazioa Hego Korearen alde dago erabat: irabazia, urteko eta pertsonako, 1.620 dolar izango litzateke hor, eta ez 719. Berebat, hego korearren erosahalmena, beren iparraldeko senideena baino bi aldiz handiagoa izango litzateke; baina hauek askoz ere babes sozial eta ardura zabalagoa gozatuko lukete Estatuaren aldetik".


(C. CABANNE, 1981)

D) ENERGIA ETA AUTOMATIZAZIOA

Hori dena, energiaren ekoizpen eta probetxapen baten bidez lortzea posible izango da; baina, horretarako arma-produkzioa moztu beharko da. Beharrezkoa egiten da zientzia zentzuz erabiltzea. Energiaz arduratzeak, lehengaiak ere zaintzea suposatzen du (altzairua eta beste: zuntz artifizialak adibidez), industria, garraio, etxebizitza eta jantzietarako funtsezkoak direnak batipat. Eta lehengai hauetaz arduratzeak, berehala dakar fabriketako produkzio-sistemak ere zaintzea: lan-antolamenduak, automatizazioa... Dena katean dator, ba: Hobekuntza horiek (lantegietakoek alegia), ondasunak garraiatzeko sistema razionalagoak eskatzen dituzte, bakoitzak, behar duena, denbora gehiegi galdu gabe lor dezan. Etorkizunerako mundu berritu horretan, aberastasuna, jakinduria eta libertatea izan litezke nagusi... Hori da, bederen, amestu litekeen utopia bilagarri bat.



INFORMATIKA: BOTEREA ETA SORMENA. Informatikaren bidez,lanerako eta gizartearen kontrolerako ahalmen itzela jaio da. Giza sormena bera ere, berezko mugak hautsi eta harago iritsi liteke; bi adibide dakartzagu hona: M. Alexaline-k ordenadorez egindako marrazkia (1974), eta musikan C.N.R.S.en (Frantziako iker-erakundean) lauterako prestaturiko partitura.



E) IZADIAREN ERALDAKUNTZA

Aurrerapen tekniko guztien ondoren ere, gizakiaren jakitateak izadian egiten du lan, horko ondasunen gain, eta lanean jarraitzeko indarrak ere izadian aurkitzen ditu; langaiak eta energia hortxe topatzen ditu giza adimenak, izadi hori bera eta gizadia aldatzeko.

Natura itxuraldatzea lortzeko, Zientzia biologiko eta geologikoak eskaintzen dituzten bideak jarraitu behar dira makineria astuna erabiliz eta, ziur asko, energia atomikoa ere bai. Munduko arro hidrologikoak menperatzea posible da: hauek izan litezke energia ugaria eta garbiena emango dutenak, eta uholdeak, lehorteak eta lurraren higadura pobretzaileak saihestuko dituztenak. Labore-lurrak eta uztak arras zabalduko lirateke, bide horietatik. Gosearen eta azpigarapenaren derehalako ondorioak, behintzat, mugatu egingo dira, eta baldintza egokiagotan bizi ahal izango den populazioaren hazkundea segurtatuko da.

Eta bada besterik ere. Ahalbide interesgarri bat munduko eskualde emankorrak hedatzea izango litzateke, gaur eguneko basamortuak eta leku menditsu helkorrak eraldatuz eta itsasoak egokiago erabiliz.

F) IKERKUNTZAREN BOTEREA

Azaldu dugun guzti hau ez da zentzugabeko proiektu hutsala, dauzkagun material, jende eta jakintza kontutan harturik zerbait benetan egingarria baizik. Eta hau, zientziak prometatzen duena-

Hazkunde ekonomikoaren mugak


"Badirudi hazkunde ekonomikoa aurretiazko zerbait dela masen zoria hobetzeko. Baina bizimaila benetan hondatzen hasita gero ere, epe labur eta ertain batean, ematen da hazkunderik. Ba hazkunde industrialak izugarrizko inbertsioak suposatzen ditu, eta horiek gero jende pobrea pobreagotuz atera behar izaten dira. Berrikuntza positiboek berek ere ustegabeko ondorioak izan ditzakete. Mexikon, esate baterako, % 5 urteko inguru, hazi da erregularki nekazal produktua 1940 eta 1960 bitartean. Baina 1950ean batezbeste 194 egun urteko lan egiten eta 68 dolar irabazten zituen nekazal langile batek, 1960an 100 lan-egun zuen urteko eta 56 dolar besterik ez zuen irabazten. Nekazal produkzioaren hazkunde globaleko % 80a % 3 lursailetan egina zen. XVIII. eta XIX. mendeen bukaeretan, proletari nazionalak bizimodu errukarritan bizi zirela egin zen hazkundea herrialde industriatuetan.

Sinestezinekoa da, bestalde, gaur egun EE.BB.etan ikusten den garapena lurbira osora zabaltzeko modukoa denik: baliakizun naturalak ere ez lirateke aski izango. Osorik gelditzen da beraz arazoa: hazkundea, bai, baina nolakoa? Nolako garapen-moduak behar dira herrialde behartsuenentzat?".

(C.CABANNE, 1981)

ren hasiera besterik ez da, izan ere oraindik ere osorik ezagutzen ez ditugun ahalbideetan bait du bere etorkizuna.

Ikerlanek mugagabeko boterea dute, eta ondo erabiltzen badira, eta zalu eta libre den erakunde baten menpean badaude, Gizadiak behar duen guztia sakon-zabalki eman dezakete. Hau da Bacon-ek amets egindako Argia: "Argitzeko eta guri eskuratzeko gure, gaur eguneko zientziak dituen mugatatik kanpo dauden lekuetan dago gu argitu eta geure baitara ekartzeko Argia". Argi hau, berehala erabilgarriagoa den lekuetan prezatuagoa izango da, bizia luzatzean eta gaixotasunak aldentzean.




LABORANTZA ETA GENETIKA. Izadiaren indar genetikoak ezagutu ahala, laborantzan teknologia genetikoak berrikuntzak ekarri ditu. Hauek plangintza ekonomikoetan ere aplikatu ahal izan dira. Siberia zentralean, adibidez, ikusi da horrelakorik, klima gogor baten aurka ere hiri berri industrialetarako ohizko labore-moduak berrituz. Irudian, Bratsk-eko (Siberia) labore-berotegiak (tomate-sailak).

Xede horiek lortzeko, iraultza ekonomiko eta zientifiko honek baldintza batzuk bete beharko ditu: Kapitalismoaren joera zentripetuak gainditu, eta mundu osoan nekazal oreka eta industri sistema itxuroso bat eratu. Horrek beste indar emankorren ondoan, zientzia ere zabaltzea eskatzen du, eta, beraz, zientziaren presentzia geografiko eta soziala hedatzea.

Zientzian egin beharko liratekeenak mugatzea eta proiektatzea bera, ikergai zientifikoak berak arakatzea bezainbat kostatuko da; baina plangintza sozio-politiko haren asmatzea eta programatzea guztiz onurakorra izan liteke, zientzi lanari berari etekinik probetxuzkoenak ateratzeko. Horrela, zientziaren biziune historiko berri baten atarian egongo ginateke.

Jakina denez, azken mendeetako iraultza industrialak, ingurune organiko eta ez-organikoen gain ahalmen berriak eman dizkio gizakiari: izadiaren domeinu teknikoa, esan nahi da. Hemendik aurrerako iraultza zientifikoak, ordea, gizarteaz



INGURUNE ERASOA. Plangintzek eta obra handiek ez dute askotan giza ingurunea behar bezala zaindu. Genova-ren argazki honetan (1967) ikusten dugunez, autoestratak bere itzal eta kutsadurapean utzi zituen etxebizitzak, eguzkia kenduz eta erregaien gasak gainera jaurtiz.

eta ingurune sozialaz eman beharko dio jabetasun berria. Klase gabeko gizartea lortzea izan liteke helburu bat proiektu horretan; baina horrek ekintza sozial kontziente eta integratua eskatzen du, gizartea osorik itxuraldatzeko.

G) ERANTZUKIZUN SOZIALA

Guzti horrek zientziari lekarkiokeen eraldakuntzaren esanahia ezin da aldez aurretik erabat ikusi. Baina jakintzak eta ahaleginak obra handiak burutuko dituztela itxaro liteke, historiaren esperientzia ikusiz. Bizitza intelektuala, Gizadiaren ekintza praktikoekin lotua egongo da, izan ere guztien artean banatuta eta denek parte hartuz, hertsiago eta erantzukizun handiagoz bizi beharko bait da zientzia.

Gizarte-era berri honek, berorren garapena hiritar guztien arteko erantzukizuna dela jakinda, dagokion berezko moral bat sortu beharko du. Teknika eta zientzia berriek ezingo dute ain-

Lantegi kapitalisten geografia aldakorra

"Joan den mendean, industria astun handiak agertu zirenean, burdin eta ikatz-meategiek agindu zuten haiek non jarri. Ruhr-eko potentzia industriala ikatz-arroan garatu zen garai hartan eta pixkana pixkana Iparralderantz hedatu, ikatz--hobiak lekuz aldatzen ziren neurrian. Lorena-n burdin meatzen inguruan muntatu zen siderurgia. Creusot edo Saint--Etienne-n ikatzarekin lotua dago. Antzeko gauzak esan daitezke mundu osoko beste lekuetan gertatu denaz, batez ere Britainia Haundian (Midland--etan), EE.BB.etan eta Espainian (Bilbo) (...) Industrialde hauen sorrerak giza ondorio izugarriak ekarri zituen, jendea milioika atera bait zuen laborantzatik.

Gure egunetan galzorian daude gehienbat eskema-moduok. Eboluzioaren egitaterik nagusiena garraio-kostuen jaitsiera izugarria da (...). Enpresa kapitalista ahaltsuek ikusmolde planetarioa dute. (...)

Berrikuntza teknikoak zalantzan jartzen ditu berriro lokalizazio berriok, ba automatismoek produkzioan duten rola handitzean, neurri berean gutxitzen da esku-lanarena, eta interesgarriago da fabrikaok herrialde superdesarroilatuetan eraikitzea, produktu bukatuen kontsumitzaileak ere hortxe daudenez gero".

(C.CABANNE, 1981)

tzinako moralitate-moduekin adostasun osorik izan, ezta beste gabe sistema politiko eta ekonomiko zaharrekin ere. Garai batean lortutako erantzukizun indibidual eta kolektiboaren maila are zabaltzenago joango da, iraganean senide eta tribuetara mugatu bait zen.

Lehenago, ezjakiteak erantzukizun-falta esan nahi zuen. Baina, jakintza eta esperientzia hedatuz doazen neurrian, itsutasun hura ez da onargarria eta komunitate industrial modernoek ezin dute beren hartan jarraitu, kalte izugarriak jasan gabe. Honela, erantzukizuna ardura kolektibo eta kontziente bihurtzen da. Gertaerek adierazten dute, besterik ez bada ere, gizonak ez direla unitate isolatuak. Ekintzarik isolatuenek ere mugimendu sozial orokorrean parte hartzen dute: gogoan hartzeko faktoreak dira.

Oinarri material ziur bat konkistatzean eta baliabide naturalak zuhurki erabiltzean, aldaketa garrantzitsuena gertatuko da: gizakien baliabide ezkutuen lehenbiziko liberazioa. Herriarentzat eta herriarekin kontatuz funtzionatzen duen gizarte batean, eta hori lortzeko egiten den borrokan, premiazko eske bat da izadiaren eta gizartearen ezaguera ahalik handiena edukitzea. Beraz, herritarren hezkuntza berri bat behar-beharrezkoa da, errealitatea bera aldatu ahal izateko.

Hezkuntza hau lortzen den neurrian izango da erabakiorra zientzia erabili eta horretaz baliatzeko gizonen gaitasuna. Eta horrela bukatuko da zientziak kultura orokorretik eta herriagandik jasan duen isolamendua. Zientziak, eta beronek bakarrik, sor lezake esplotaziorik gabeko gizarte libreago bat. Hori da, behintzat, ametsa.

Zientziaren beharrak zutik jarraituko du, ez espezialista gutxi batzuetara mugatua, herri guztiaren bizitzako ondare amankomun bezala baizik. Oraindik asko da egiteko gelditzen dena. Lehena eta urratsik zailena zera da: Dagoeneko eskuratuta dugun zientzia guztia, ditugun gaitzak gainditzeko erabiltzea. Bigarren pausoa, ikerkuntza berriak ere helburu horretara eta guztion bizitza eta ongizatea mantentzera gidatzea izango litzateke.

Baina, etorkizunari aurrea hartuz, oraindik barruntatu ere ez diren arriskuak aurkitzera zuzendu behar da ikerkuntza. Eta, era berean, zentzu positiboan, gauza, material berriak eta prozesu berriak aurkitu behar ditugu eta batez ere ekintza sozialerako erakuntzaren oinarri berri eta eragileak. Giza pentsamenduaren lana jakintzarekin bakarrik hasten dela esan nahi du honek.

Iraganaldian, Historia giza asmoen, ekintzen eta gertakizunen deskribapena izan da; baina, askotan, giza asmo haiek oso urrun zeuden kontzienteki jarraitzen ziren helburuetatik. Baina Historian sakondu ahala --ikusi eta ikasi--, munduko indarrak eta "lege" historikoak geroz eta arau formalago bihurtuko dira, gizakiaren iharduna kontzienteago eta era planeatuagoan zuzentzeko. Giza zientziaren aurkikuntzei buruz Engels-ek esaten zuen bezala, Gizadiaren benetako historia oraindik ere hasten ari gara.



BONBA ATOMIKOA. Gizakia atomoaren indarraz jabetu denetik (1945), zientziak ekarri duen ezagumendu honen erantzukizuna nork eta nola administratu, da gizadiaren hil-ala-bizizko arazo ideologiko eta politiko larri eta astunena. Jakitateak ez dakar, beste gabe, biziarentzat segurtasunik. Itxarokizun paregabeak eskaintzen ditu zientziak, baina baita arrisku orainarte ezezagunak ere.

HIZTEGIA

Ondoren ematen den zerrenda hau testuliburu ***honetarakoa*** *da. Ez du, bere horretan, zentzu lexikografiko eginik, balio pedagogikoa baizik. Arrazoi askorengatik, ezin izan da, gainera, UZEIko hiztegietako maila bereraino iritsi, erabakien aurretik egin beharko zen lanean ere. Hala ere, ikasle-irakasleek beren artean iharduteko, argibide gisara ematen da zerrenda, datorren edizioren batetan gauzak helduagoak izango ditugulakoan.*

Hemen zer ematen dugun? Liburuan erabili behar izan ditugun a) histori hiztegi berezia, eta b) hizkuntza arrunteko hitz arraroagoak.

*Ahalegindu gara, modu sistematiko batean gainera, hitzen idazkera beti berdin ematen. Beren osagaietan euskal adjektiboren bat duten izen propioetan, artikulu eta guzti eman ditugu izen horiek: "Itsaso Gorri**a**", "Izurrite Beltz**a**", etab. Izengoitietan ere gisa berean jokatu da: "Luis Germaniar**ra**", "Karlos Burusoil**a**", etab. Gogoan har oharra, batez ere deklinabiderako: "Itsaso Gorri**an**", baina "I. Gorri**ko**, "I. Gorri**tik**", etab.*

Zerrenda hau lantzean topatu ditugun arazoez ezingo dugu hemen deus esan. Ez da lekua. UZEIn barnean eta kanpotik eman zaizkigun laguntzengatik eskerrik asko. (J.I.).

Euskara	*Español* *Espainiera*
A	
abantaila	privilegio
abas	instrumento utensilio
abatetxe	abadía
abelazkuntza	ganadería
acheuldar	achelense
adarkatu	ramificar(se)
adiguritsu	obsequioso
adoba	adobe
Adrian VI.a (1522-1523)	Adriano VI (1522-1523)
aginte goren denboral	suprema autoridad *temporal*
aginte-batasun	unidad de autoridad
aginte-hierarkia	jerarquía autoritaria
aginte-monarkia	monarquía autoritaria
aginte-piramide	pirámide de autoridad
aginterri domeinu	dominio
Agurain	Salvatierra
ahalbideratu	posibilitar
ahari	ariete
ahitu	agotar(se)
ahokatzaile	ensamblador (erretaulen muntatzailea)
aholku-emaile aholkulari	consejero
ahuleria ahulezia	debilidad

Euskara	*Español* *Espainiera*
aintzatetsi	tomar en consideración reconocer
aire zabal	aire libre
aire-berritu	airear
aire-berritzeko kanale	canal de aireación
airetiko bonbardaketa	bombardeo aéreo
aisia	ocio
Aita Santu	Santo Padre Papa
Aitasaindugo	Papado
akadar	akadio
akaiar	aqueo
Akenaton	Akhenaton
Akisgran	Aquisgrán
akitaniar	aquitano
Akraga	Acragas
Akropoli	Acrópolis
alano	alano
alazain	batelero
alboko nabe	nave lateral
aldarri	proclama
alde	diferencia
aldiberean	simultáneamente
Alexander Handi(a) (-355-323)	Alejandro Magno (-356-323)
Alexandria	Alejandría
Alfontso Borrokari(a) (1104-1134)	Alfonso el Batallador (1104-1134)
Allah	Alá

Euskara	*Español* *Espainiera*
almidoi-gari	trigo almidonero
almohade	almohade
alogatzaile	árbitro hombre bueno
alokatu	asalariado
Alpeak	Alpes
altxarazi	hacer fermentar
altzifre	ciprés
amorekaitz	intransigente
Ana Bolena (1507-1536)	Ana Bolena (Anna Boleyn, 1507-1536)
Anaxagora (-500-428)	Anaxágoras (-500-428)
Anaximandro (-610-546)	Anaximandro (-610-546)
Anaximene (-588-524)	Anaxímenes (-588-524)
anbare	ámbar
Andaluzia	Andalucía
anega	fanega
angeluzuzen	rectangular
anglo-saxoniar	anglo-sajón
Anibal (-247-183)	Aníbal (-247-183)
antzaldatu eraldatu	transformar
apaizgo apezgo	sacerdocio
apaizgo unibertsal	sacerdocio universal
apaletsi	humillar
apartapen	secesión separación
Apeninoak	Apeninos
apezpiku gotzain	obispo

Euskara	*Español* *Espainiera*
arabiar	árabe
Aragoa	Aragón
arakne	aracne
arautu	reglamentar
arbaso bibliko	patriarca bíblico
arbuiatu	despreciar
Argantzun	La Puebla de Arganzón
argilun	claroscuro
ariar	ario
arima-ardura	cura de almas
Aristotele (-384-322)	Aristóteles (-384-322)
arkibolta	arquivolta
Arkimede (-287-212)	Arquímedes (-287-212)
arku zorrotz	arco apuntado
"Arkularien Erliebe(a)"	"Relieve de los Arqueros"
arma-zerbitzu	servicio de armas
armada	ejército
Aro Garaikide	Edad Contemporánea
aro helenistiko	época helenística
aro klasiko	edad clásica
arpilaketa zakuraketa	saqueo
arrabol	rodillo
arrain ondu	pescado seco
arrakasta	éxito
arrandi	ostentación
arranpa zurrunbilo	remolino

Euskara	*Español* *Espainiera*
arrazainitz	multirracial
arro	cuenca
arrokaia	rocalla (dekoraziogai asimetriko, uhintsu eta oso kargatua)
arrotz	extraño extranjero
arruntkeria	ordinariez grosería
arta zilo	silo de maíz
artatxiki	mijo
arte erabilkor	arte mobiliar
"arteagatiko artea"	"el arte por el arte"
artisau	artesano
artisautza	artesanía
artxipelago	archipiélago
Artxipelago Malaiar(ra)	Archipiélago Malayo
asaldu	turbulencia perturbación
asapala	galope
asegarri	satisfactorio
Asia Txiki(a)	Asia Menor
Assyria	Asiria
assyriar	asirio
asturialdi	asturiense (iz.)
asturiar	asturiense (adj.)
ataize	acecho
atari	atrio
ate-zango	jamba
ate-zerga atesari	portazgo

Euskara	*Español* *Espainiera*
Atena	Atenas
atena(ta)r	ateniense
atika	atika
atu	mobiliario bagaje
atzerritar	extranjero
Augustindar Ermitau	Agustino Ermitaño Ermitaño de S. Agustín
auhendatu	lamentar
aurignakaldi	época auriñaciense
aurkientza	invento descubrimiento
aurkitzaile	descubridor
aurpegibiko aizkora	hacha bifacial
aurrebaldintza	condición previa
aurrekin	antecedente
autrigoin	autrigón
"Auxerre-ko Dama"	"Dama de Auxerre"
azafrai	azafrán
azeribuztan	cola de caballo
azilaldi	aziliense (iz.)
azildar	aziliense (adj.)
"Azken Judizio(a)"	"Juicio Final"
azken-mugatu	definir delimitar
azpigaratu	subdesarrollado
azti belagile	hechicero brujo

Euskara	*Español* *Espainiera*
B	
babes-hiri	ciudad de refugio ciudad de asilo
badia	bahía
baimendu	autorizar
bakezko bizikidetasun	coexistencia pacífica
Bako	Baco
balazta	freno
balaztatu	frenar
baliabide	recurso
balizko ustezko	supuesto
Baltiko	Báltico
baltsamatu hilondu	embalsamar
banaketa sozial	división social
bandalo	vándalo
bandeirakide	bandeirante
baogune	oquedad vano (iz.)
baraila	mandíbula inferior
baraldi	bonanza
"Baratzeko Otoitzaldi(a)" (Salzillo)	"La Oración del Huerto" (Salzillo)
barbareria	barbarie
barla	patio corral
barne-merkatalgo	comercio interior
baroin	barón

Euskara	*Español* *Espainiera*
barrundegi	dependencia habitaciones interiores
basagaragar	cebada silvestre
basailu	vasallo
basailu-jaurespen	homenaje vasallático
basailutza	vasallaje
basailutza anizkoitz	vasallaje múltiple
"Basati On(a)"	"El Buen Salvaje"
bataiategi	baptisterio
baterakuntza	unificación
baztanga	viruela
baztanga-txerto	vacuna de la viruela
beha-grina	pasión por la observación
beha-tresna	instrumento de observación
behaketa astronomiko	observación astronómica
behategi	observatorio
behategi astronomiko	observatorio astronómico
behatu	observar
Behe-Inperio	Bajo Imperio
behe-noblezia	baja nobleza
Behe-Paleolito	Paleolítico Inferior
beheraldi geldi	descenso lento decadencia lenta
beheraldi laster	descenso rápido decadencia rápida
beheranzkor	decadente

Euskara	*Español* *Espainiera*
behinen	principal propio característico
behinola	otrora
beira	vidrio
beirate	vidriera
bekain-arku	arco supraciliar
bekain-arku irten	arco supraciliar saliente
bekozkotasun	frontalidad
bela-ontzi	velero
belagile azti	hechicero brujo
belamendu	velamen
belatz	halcón
beltzero	negrero
Berant Erdi Aro	Baja Edad Media
berantiar	tardío
bereki	propio
beretar	partidario de sí
berezko hautespen	selección natural
beroin	berón
berrantolaketa	reorganización
berreraikuntza	reconstrucción
berretsi	confirmar
bertakotar	aborigen autóctono indígena
bertset	versículo
berun	plomo
betaro	plenamente
beterazle	ejecutivo

Euskara	*Español* *Espainiera*
beterazteko boterea	poder ejecutivo
betsein	pupila
bezeria klientela	clientela
bezero (Erroman)	cliente (Erroman)
Bi Larrosen Gerrate(a) (1455-1485)	Guerra de las Dos Rosas (1455-1485)
Biasteri	Laguardia
Biblia soiletiko hutsezin	infalibilidad por la sola Biblia
bide-zerga	impuesto de peaje
bidesari	peaje
bihurtezin (Descartes)	irreductible (Descartes)
bihurtu	reducir(se)
bilakatu	venir a ser
biltegi	almacén
biltzaile, ekonomia	*economía* recolectora
biltzarre kuriar kuri komizio kuri biltzarre komizio kuriar	comicio curiado
biltzarre zenturiar zenturi komizio zenturi biltzarre komizio zenturiar	comicio centuriado
Birkonkista	Reconquista
bitarteko erauspen	percusión indirecta
bitasun	dualidad
bizerrege (inoiz: erretorde)	virrey
bizerreinu	virreinato
bizi-elixir	elixir de vida

Euskara	*Español* *Espainiera*
Biziera Elkartuko Anaiak (1380)	Hermanos de la Vida Común (1380)
bizigarriak jan-edariak	víveres
bizilekutu	establecer(se) sedentarizar(se)
bizitegi	morada
biztanleria populazio	población
biztanleria trinko--bildu	población densa
bolbora	pólvora
"Bolboraren Konplot(a)" (1605)	"El Complot de la Pólvora"
boli	marfil
bolkanketa	actividad volcánica
bonbardaketa	bombardeo
bonbazia	pomposidad
borbondar	Borbón borbónico
Bordale	Burdeos
bortizkeria	violencia
bortxa	fuerza
bortxa-leku	escenario de violencia
bosten	un quinto
botere	poder
botere denboral	poder temporal
botere lurtar	poder terreno
botere-antolamendu	organización del poder
botere-sistema	sistema de poder
boteredun	detentor del poder

Euskara	*Español* *Espainiera*
Brandeburg-eko Hautesle(a)	Elector de Brandeburgo
"Breda-ko Menerapen(a)" (Velázquez)	"Rendición de Breda" (Velázquez)
Britainia Haundi(a)	Gran Bretaña
britainiar	británico
Brugge	Brujas
bular-erroi	endurecimiento mamario
Bulegategi-Kontseilu	Consejo de Despachos
bulegokrazia bulegokeria	burocracia
bultaka	por arranques
burdina	hierro
burgu	burgo
burgumaisu	burgomaestre
burtsa	bolsa
burualde	cabecera
buruaski	autosuficiente autárquico
burutu	poner término poner fin
buruzagitza	jefatura caudillaje
busola iparrorratz	brújula
buztingintza	cerámica (industria)
buztinki	cerámica (pieza)

C

Cape Town (ing.) Kaapstad (afrik.)	Ciudad del Cabo

Euskara	*Español* *Espainiera*
Champagne	Champaña
Cluny	Cluny
Cro-Magnon	Cro-Magnon
D	
"Dama Erdinude Zuriz jantzi(a)" (El Greco)	"La Dama del Armiño" (El Greco)
damas	damasco
Danimarka	Dinamarca
debet	barbecho
Dekan	Deccan
"Delfos-ko Auriga"	"Auriga de Delfos"
Demokrito (-470-370)	Demócrito (-470-370)
desorekatu	desequilibrar(se)
destaina	desdén
destainatu	despreciar
"Diadumeno"	"Diadumeno"
dignatari	dignatario
Dionisio Halikarnasoko(a) (-I.a)	Dionisio de Halicarnaso (-I)
doakotasun	gratuidad
dobela	dovela
dohaintza	donación
doitu	ajustar
dokumentategi	documentación archivo documental
domeinu aginterri	dominio
domingotar	dominico
doriar	dorio
doriar, ordena	orden dórico
dorretxe	casa-torre
dotorezia	elegancia
drakondar	draconiano
duke	duque
dukerri	ducado
E	
ebaketa	disección
ebaki	incisión
ebazpen	solución resolución
edertasun-produktu	producto de belleza
edertzapen, eskuizkribuen	iluminación de manuscritos
ediktu	edicto
Edinburg	Edimburgo
Egeo-ko Irlak	Islas del Egeo
egiantzekotasun	verosimilitud
egitura	estructura
egoiliartasun	sedentarismo vida sedentaria
egonarri	paciencia
egonkor	estable
egonkortasun	estabilidad
egontegi	dependencia
egotzi jaurti iraitzi	destituir deponer
egotzi eratxeki	imputar atribuir

Euskara	*Español* *Espainiera*
egozte	expulsión deposición
egutegi gregoriotar (1582)	calendario gregoriano (1582)
eguzki-orban	mancha solar
egyptiar	egipcio
Egypto	Egipto
Egypto Behere(a)	Bajo Egipto
Egypto Garai(a)	Alto Egipto
ehiza(ldi)	operación o jornada de caza
ehizi	pieza de caza
ehule	tejedor
ehun	tejer
Ehun Urteko Gerrate(a) (1337-1453)	Guerra de los Cien Años (1437-1453)
ehuteko makina	tejedora (máquina)
Ekaitzen Lurmutur(ra)	Cabo de Tormentas
ekarkin	aportación elemento aportado
Ekialde	Oriente
Ekialde Hurbil(a)	Oriente Próximo
Ekialde Jori(a)	Oriente Fertil
"Ekialdeko Indietako Konpainia"	"Compañía de las Indias Orientales"
Ekialdeko Pomerania	Pomerania Oriental
ekialdetartu	orientalizar(se)
ekilore	girasol
ekimen	iniciativa
ekoitzi	producir
El Kairo	El Cairo

Euskara	*Español* *Espainiera*
eliz botere	poder eclesiástico
eliz selauri	galería de la iglesia
Eliz Zaingo	Patronato Real
Eliza Ebanjeliotar	Iglesia Evangélica
eliza ikuskor	iglesia visible
eliza ikustezin	iglesia invisible
eliza kolomari	iglesia columnaria
Eliza Presbiteriar	Iglesia Presbiteriana
elizgizon (iz.)	eclesiástico
elkarretaratze, lur--sailen	concentración de tierras
elur-orein	reno
emakida	concesión
emankor	fértil
emankortasun	fecundidad fertilidad
emendatu	aumentar
emendio	aumento
Emiratu Arabiar Batuak	Emiratos Arabes Unidos
enbaxada	embajada
endekatu	degenerado depravado
enkante	subasta
Enpedokle (-490-430)	Empédocles (-490-430)
enperadorego	dignidad imperial
eoliar	eolio
epealdi	etapa
erabakiorki	decisivamente
eraberdintasun	uniformidad

Euskara	*Español* *Espainiera*
eragin-gune	centro de influencia
eragotzi	derribar
eraikidura	constitución
eraikuntza	construcción
erakundeztatu	institucionalizar
erakundeztapen	institucionalización
eraldaketa eraldakuntza	transformación
eraldatu antzaldatu	transformar
eraso-dorre	torre de asalto
erasole, politika	política agresiva
eratsi	destituir deponer derrocar
eratxeki egotzi	imputar atribuir
erauspen zuzen	percusión directa
erauzketa	amputación extracción
erbeste-arazoak	asuntos exteriores
erdeinuzko	peyorativo
Erdi eta Hegoaldeko Europa	Europa Central y Meridional
Erdi-Paleolito	Paleolítico Medio
erdi-puntuko arku	arco de medio punto
erdiarotar	medieval
erdibanaketa	división reparto
erdigune	centro
Erdiko Inperio	Imperio Medio
erdiko nabe	nave central

Euskara	*Español* *Espainiera*
erdirako	aparcería
erdirakodun	aparcero
erditzal	penumbra
ereintza	siembra
erlaiz	cornisa
erlantz	brillo
erlijio-aniztasun	pluralismo religioso
erlijio-ospakizun	celebración religiosa
erlijiotasun erakundeztatu	religiosidad institucional
erlojugile	relojero
ermandade	hermandad
ernari	grávido
Ernazimentu Pizkunde	Renacimiento
eroraldi	época de decadencia
eroriko	caída
erosahalmen	poder adquisitivo
erraldoitasun	gigantismo
erregalia	regalía
erregario ureztapen	regadío irrigación
erregario--nekazaritza ureztapenezko nekazaritza	agricultura de regadío
errege	rey
Errege Eguzki(a) (Luis XIV.a)	Rey Sol (Luis XIV)
erregealdi erreinaldi	reinado
erregexka	reyezuelo

Euskara	*Español* *Espainiera*
errei	riel
erreinari	reinante
erreinu erresuma	reino
errentagarri	rentable
errepublika	república
erreserba	reserva
erresuma erreinu	reino
erresuma helenistiko	reino helenístico
erret /-	real
erret aholku-emaile	consejero real
erret botere	poder real poder regio
Erret Kontseilu	Consejo Real
Erret Zaingo	Patronato Regio
erretaula	retablo
erretaulari	retablero
erretaulki	trono real
erreterri	señorío 'real tierras de realengo
Erretetxe	Casa Real
erretorde	regente (inoiz: virrey)
erretordetza	regencia
Erribera	Ribera
errolda	empadronamiento
Erroma	Roma
Erroma-Germaniar **Inperio Saindu(a)**	Sacro Imperio Romano-Germánico
erromanizazio	romanización
erromantizismoaurre	prerromanticismo
erromatar	romano
erromatartu	romanizar(se)
erromeria	peregrinación
erromes	peregrino
errusiar	ruso
Erruso-japoniar, **Gerrate** (1904-1905)	Guerra Ruso- -japonesa (1904-1905)
Ertamerika	Centroamérica
ertar	compatriota indígena
Ertasia	Asia Central
Ertasialde	región del Asia Central
Erteuropa	Centroeuropa Europa Central
ertz-ganga	bóveda de arista
Eskandinavia	Escandinavia
Eskeko Ordena	Orden Mendicante
eskeletu hezurdura	esqueleto
esklaberia	esclavitud (esklabo- -multzoa)
esklabu	esclavo
esklabutza	esclavitud (esklabu- -biziera)
esku mortu	mano muerta
esku-langile	obrero manual
eskubanda	antepecho
eskubide-dohaintza	donación de derechos
eskuegin	manufactura
eskuharmen	jurisdicción

Euskara	*Español* *Espainiera*
eskukizun	competencia
eskukotasun	emancipado, condición de
eskusatu	evitar
eskuzkribu	manuscrito
eslabiar	eslavo
Esmirna	Esmirna
Espainia	España
espezie suntsitu	especie extinguida
"Espolio(a)" (El Greco)	"Expolio" (El Greco)
estalki	cobertura
estamentu	estamento
estamentuzko gizarte	sociedad estamental
Estatu	Estado
Estatu hesi	Estado tapón
Estatu Lau	Estado Llano
Estatu Orokorrak	Estados Generales
Estatu-boterearen eraketa	organización del poder estatal
Estatu-Kontseilu	Consejo de Estado
estatua	estatua
estatua venus	estatua venus
eten	discontinuidad discontinuo
eten irato	hernia estrangulada
etesiar	etesio
etorkin	inmigrante
etruriar	etrusco
etxekotu	domesticar
etxetiko lan	trabajo a domicilio

Euskara	*Español* *Espainiera*
Eufrate	Eufrates
Euklide (-IV-III.ak)	Euclides (-IV-III)
eulizki	cazamoscas
Euripide (-480-406)	Eurípides (-480-406)
Europa	Europa
eurrez	abundantemente profusamente
eustarri sostengatzaile	sustentante
ez-usarpen	no-ingerencia
ezarkuntza	imposición dominación implantación
ezegonkor	inestable
ezegonkortasun	inestabilidad
ezeroso	molesto incómodo
ezpataina	espadaña
ezpelta	escalda; épeautre (fr.)
eztainu	estaño

F

Faisto	Festo
falka	cuña
falkaire	cuneiforme
familia sendi	familia
faraon	faraón
fazatsu	fastuoso
Federiko Gilen I.a (1713-1740)	Federico Guillermo I (1713-1740)

Euskara	*Español* *Espainiera*
fedezko zuzenespen	justificación por la fe
feniziar	fenicio
Ferdinan II.a (1619-1637)	Fernando II (1619-1637)
feuderri	dominio feudal
Fidia (-490-430)	Fidias (-490-430)
finantz erakunde	institución financiera
finantzari	financiero
Florentzia	Florencia
franko	franco
franko-kantauriar	franco-cantábrico
frantsesmendu	afrancesamiento
frantsestu	afrancesado afrancesar(se)
frantziskotar	franciscano
fresko	fresco (artea)
funts jasoin	fundamento
funtsak (pl.)	fincas fundo
funtsezko	fundamental
funtzionalgo	funcionariado

G

gain eman, norbaiten	atribuir a alguien
gainazal	superficie
gaineratiko soberakin	excedente
gainjarri	superponer
gaio-errota noria	noria
gaitu	dotar capacitar
gako	clave
galdaketa	fundición (ekintza)
galdategi	fundición (lantegia)
Galen(o)	Galeno
galendar	galénico
galentzale	galenista
galeoi	galeón
galtxuri	engrain (fr.)
gananina	prurito timbre de gloria
ganbara-pintore	pintor de cámara
ganga	bóveda
gangadura	abovedamiento
Gantzileria	Cancillería
gara	edad madura
garabide	vía de desarrollo
garagar	cebada
garai	hórreo
garaikin	trofeo
garaipen-arku	arco de triunfo
garako	de edad madura
garapen	desarrollo
garapen demografiko	desarrollo demográfico
garatu	desarrollar(se)
garezur	cráneo
gari, bi ilarako	trigo de dos hileras
garondo	nuca

Euskara	*Español* *Espainiera*
garondohezur irten	hueso occipital saliente
gartxutasun	sobriedad
gas irrigarri (=oxido nitroso)	gas hilarante
gazitegi	saladero
Gaztela	Castilla
gaztelau	castellano
gelazain	aposentador
Geneva	Ginebra
gerakin	resto
gerlari	guerrero
gerra	guerra
gerra-gatibu	cautivo de guerra
gerra-harrapakin	despojo de guerra botín de guerra
gerrate	período de guerra
Gerrate Italiar (-90-89)	Guerra Itálica (-90-89)
Gerrate Kantauriarrak (-29-19)	Guerras Cántabras (-29-19)
Gerrate Medotar (-V.a)	Guerra Médica (-V)
Gerrate Puniko (-III-II.ak)	Guerra Púnica (-III-II)
geruza	capa
gimnasi leku	gimnasio
ginbela	capitel
gizarte goren	alta sociedad
gizarte-zatiketa	división social
gizatartu	humanizar
glaziazio	glaciación
glaziazioarte	interglaciación
gleba-serbu	siervo de la gleba
gogoeman	reflexionar
gogoeta-egoera	estado de reflexión
goi-burgesia	alta burguesía
goi-funtzionari	alto funcionario
goi-kontseilu	consejo superior
goi-noblezia	alta nobleza
Goi-Paleolito	Paleolítico Superior
goi-presioko makina	máquina de alta presión
goi-zelai sapalda	meseta
Goiz Erdi Aro	Alta Edad Media
gomendakin	encomienda
gomendari	encomendero
gomendazio	encomendación
gora egin	prosperar
goraldi	ascensión ascenso
goranzkor	ascendente
gordailuzain	depositario
gorenaldi	época de encumbramiento
Gorentasun-Akta (1534)	Acta de Supremacía (1534)
Gorgia (-487-380)	Gorgias (-487-380)
gori	abundante
gorpu hilotz	cadáver
gorpuen ebaketa	disección de cadáveres

Euskara	*Español* *Espainiera*
gorputz-hartu	tomar cuerpo encarnar(se)
gortesau	cortesano
goru	rueca
goruburu	rocadero
"Gorulariak" (Velázquez)	"Las Hilanderas" (Velázquez)
gotorki	firmemente
gotorleku indarleku	fortaleza
gotu	godo
gotzain apezpiku	obispo
gotzaindegi	obispado sede episcopal
gotzaineria	episcopado
gotzainerri	señorío episcopal
grabitate-erdigune	centro de gravedad
Grakotarrak	los Gracos
greko-erromatar	greco-romano
greko-mazedoniar	greco-macedonio
Grezia	Grecia
Grezia arkaiko	Grecia arcaica
Grezia Handi(a)	Magna Grecia
Grezia klasiko	Grecia clásica
greziar	griego
grina	pasión
guda-orga	carro de guerra
gudasaio	torneo justa
Guiana	Guayana Guyana

Euskara	*Español* *Espainiera*
Guiena	Guyena
gurutzada	cruzada
gurutzada-bulda	bula de la cruzada
gurutzadura	crucero
gurutze eraztuneztatu	cruz anillada
gurutze-ganga	bóveda de crucería
Gutun Bikain(a) (1215)	Carta Magna (1215)
Gutun Eman(a) (1814)	Carta Otorgada (1814)
guztizko gerra	guerra total

H

Habsburg-(e)tarrak	los Habsburgos
hainbanaketa	prorrateo
haize-arrosa	rosa de los vientos
halabehar	necesidad hado
halabehartu	obligado obligatorio
"Hamabi Tauletako Legeak"	"Leyes de las Doce Tablas"
Hamburg	Hamburgo
handios	grandioso
hankabikotasun	bípeda, condición
hanpuruskeria	arrogancia
haraindi	más allá de
hara(i)ndiko, itsasoz	de ultramar
hari-kuarteto	cuarteto para cuerda
harizko laukote	cuarteto de cuerda

Euskara	*Español* *Espainiera*
harlandu irten	sillería salediza
harlauza	losa
harmonia	armonía
harmoni(aren) sen	sentido de armonía
harmoniko	armónico
harrapakari	depredador
harrapakeria	depredación
harrapakin	botín
harresi murru	muralla muro
Harresi Handi(a)	la Gran Muralla
harrespil	cromlech
harri landuaren aro	edad de la piedra labrada
harri leunduaren aro	edad de la piedra pulimentada
harroil	fosa garganta
hartzuri	alabastro
hasberri	incipiente iniciado
hastapen	principio
hastapen-ideia	idea de principio
haur miresgarri	niño prodigio
haustura	fractura
hautabidezko hautapenezko	electivo
hautapenezko monarkia	*monarquía electiva*
Hautesle(a), Brandeburg-eko	Elector de Brandeburgo
Hauteslerri	Electorado (lurraldea)

Euskara	*Español* *Espainiera*
hautespen natural	selección natural
hautetsi	seleccionar
hedakuntza	expansión
hedakuntz gerrak	guerras de expansión
hedatu	difundir extender expandir
Hegiratiko urte	año de la Hégira
Hego Amerika	Sudamérica
Hego Itsaso(a)	Mar del Sur (Ozeano Pazifikoa)
Hego-Mendebalde	Sudoeste
heladetar	helénico heleno
helenistiko	helenístico
Herbehereak	Países Bajos
herio-dantza	danza de la muerte
Hermandade Santu(a)	Santa Hermandad
herres	prenda arra
herri-biltzarre	asamblea popular
hertsatzaile	coercitivo
heziketa fisiko	educación física
hezur-hondakin	resto óseo
hezurdura eskeletu	esqueleto
hierarkizatu	jerarquizar
hieratikotasun	hieratismo
hieroglifiko	jeroglífico
higadura	erosión
higanaut	hugonote

Euskara	*Español* *Espainiera*
hilkortasun	mortalidad
hilondu baltsamatu	embalsamar
hilotz gorpu	cadáver
hiltegi	cámara mortuoria
Hipokrate (-460-377/359)	Hipócrates (-460-377/359)
hiri estatu	ciudad-estado
hiri gotortu	ciudad fortificada
hiri-mundu	mundo urbano
hiri-zibilizazio	civilización urbana
hiribildu	villa
hirigintza	urbanismo
hirigune	espacio urbano centro urbano
hiritar	urbano ciudadano
hiritar-eskubide	derecho de ciudadanía
hiritargo	ciudadanía
Hirurteko **Konstituzional** (1820-1823)	Trienio Constitucional (1820-1823)
hitzarmen sozial	contrato social
hitzartu	acordar comprometer(se)
Hogeitamar Urteko **Gerrate(a)** (1618-1648)	Guerra de los Treinta Años (1618-1648)
hondakin-geruza	capa de restos
hondeatu	cavar
hondeatzeko makina	máquina excavadora
hondoratu	rehundir
horma-pintura	pintura mural
horma-zisku	hornacina
hornibide	ruta de aprovisionamiento
hornikuntza hornizio	aprovisionamiento avituallamiento abastecimiento
hortzadura hortzaginak	dentadura
hozi	germen
hutsezin(tasun)	infalibilidad
I	
ibai-garraiakin	aluvión fluvial
ibaiondo	ribera
ibi	vado
ibil-jende	gente nómada
ibilgune	camino
ikaslari	aprendiz
ikuskatu	inspeccionar
ikuskatzaile	inspector
ikusmen **estereoskopiko**	visión estereoscópica
ilargialdi	fase de la luna
ildaskatu	estriado
ildo	surco estilo
iltze-belar	clavo
inbeztidura	investidura
inbeztitu	investir
indar-gaztelu indarleku gotorleku	fortaleza

Euskara	*Español* *Espainiera*
independentzi aldarrikapen	proclamación de independencia
Indiak	Indias
Indiar Erroi	Indio Cuervo
Indieta(ra)ko Ibili(a)	Carrera de Indias
Indietako Ontziteria	Flota de Indias
indo-europar	indoeuropeo
indusketa arkeologiko	excavación arqueológica
industegi	lugar de excavación
industriaurreko	preindustrial
industu	excavar
Ingalaterra	Inglaterra
ingerada	contorno
ingurubiratu	circundar
injineru	ingeniero
inkimanka	forcejeando ten con ten
Inperio Otomandar(ra)	Imperio Otomano
inperio-hiri	ciudad imperial
Inperio-Zaldun	Caballero del Imperio
intxaur muskatu	nuez moscada
Ipar Afrika	Africa del Norte
Ipar Italia	Italia del Norte
Ipar Itsaso(a)	Mar del Norte
iparrorratz busola	brújula
ipotxa	enano
iragan-sofisma	sofisma de tránsito

Euskara	*Español* *Espainiera*
iragarri	anunciar predecir
iraitzi	expulsar
iraitzi egotzi jaurti	destituir deponer
Iraizpen, Josulagunen (Esp.: 1767)	Expulsión de los Jesuítas (Esp.: 1767)
irakas-askatasun	libertad de enseñanza
irakastaulki	cátedra
irakastun	instructor
iratxekuntza	anexión
iraultza	revolución
"Iraultza Ospagarri(a)" (1688)	"Revolución Gloriosa" (1688)
iren	eunuco
irudikatu	representar
irudiztatu	representar
iruinarri	menhir
iskriba izkriba	escriba
islamdar	islámico
islamdu	islamizar(se)
isun	multa
italiar	itálico italiano
itsas ontziteria	flota marina
itsasarte	estrecho
Itsaso Beltz(a)	Mar Negro
Itsaso Gorri(a)	Mar Rojo
Itsaso Ilunbetsu(a)	Mar Tenebrosa

Euskara	*Español* *Espainiera*
Itsaso Mediterranear(ra)	Mar Mediterráneo
Itsaso Mortu(a)	Mar Muerto
itzeltasun	grandiosidad
itzul-sistema	sistema de rotación
itzuri	evitar escapar
izkriba iskriba	escriba
izkribakera	escritura
izotz-haustaile	rompehielos
izpi	rayo
iztuku	estuco
izuaren oreka	equilibrio del terror
izuikara	terror
izurrite	peste epidemia
Izurrite Beltz(a) (1348-1350)	Peste Negra (1348-1350)

J

jagole	vigía vigilante
jaiera	devoción
jainko-zuzenbidezko	de derecho divino
jainkozko	divino
Jakes I.a (1603-1625)	Jacobo I (1603-1625)
jaki	alimento
jalkin	sedimento
jan-edariak bizigarriak	víveres
jaregin	soltar librar desprender
jaregin-sari	pago de rescate
jasanbera	tolerante paciente
jasoin funts	fundamento
jatazo	tripada
jaun-eskubide	derecho señorial
jaun-zerga	impuesto señorial
jauralde jaurerri	dominio señorial señorío
jauregi gaztelu	palacio-fortaleza
jaurespen	homenaje (jaunari)
jauretxe	casa señorial
jaurti egotzi iraitzi	destituir deponer
jazarraldi pertsegizio	persecución
jeinu	genio ingenio
jentilgizon	gentilhombre
jite mendu	carácter aptitud
Joanes Lurraldegabe(a) Jon Lurraldegabe(a) (1199-1216)	Juan Sin Tierra (1199-1216)
joglare	juglar trovador
joko	juego
Joko Olinpikoak	Juegos Olímpicos
joniar	jonio
joniar, ordena	orden jónico

Euskara	*Español* *Espainiera*
jonko	junco
jopu serbu	siervo
joputza serbutza	servidumbre condición de siervo
Josulagun	Jesuíta
Juda	Judas
judu	judío
judutasun	judaísmo condición de judío

K

Kaapstad (afrik.) Cape Town (ing.)	Ciudad del Cabo
kainoi-ganga	bóveda de cañón
kakalardo	escarabajo
kalamu	cáñamo
kalatu zingo	calado
Kaligula (37-41)	Calígula (37-41)
kalostra	balaustrada
kalota esferiko	casquete esférico
kaltiar	perjudicado
Kanaria Handiko Las Palmas	Las Palmas de Gran Canaria
Kanariak	Canarias
Kanisio (1521-1597)	Canisio (1521-1597)
kanon	canon
kanpanaire	campaniforme
Kanpezu	Santa Cruz de Campezo
Kantauri Itsaso(a)	Mar Cantábrico
kantauriar	cántabro
kapelagile	sombrerero
kapera	capilla
Kapera Sixtoren(a) Sixtoren Kapera	Capilla Sixtina
kapetar	capeto
kapsatarra	capsiense
Karakala (211-217)	Caracalla (211-217)
karistiar	caristio
Karlomagno (768-814)	Carlomagno (768-814)
Karlos Burusoil(a) (843-877)	Carlos el Calvo (843-877)
Karmeldar Oinuts	Carmelita Descalzo
karolingiar	carolingio
kartagotar	cartaginés
kartesiar	cartesiano
Kartusia (1084)	Cartuja (1084)
Kartusiar	Cartujo cartujano
katakunba	catacumba
Katalunia	Cataluña
kateko produkzio- -prozesu	proceso de producción en cadena
kauri	caurí porcelana
kima	crin de caballo
kinkaileria	quincallería
kirurgilari	cirujano
klankide	miembro del clan
Klazomene	Clazomenes
klientela bezeria	clientela

Euskara	*Español* *Espainiera*
klima-kontrastasun	contraste climático
Klistene (-600-570)	Clístenes (-600-570)
Klunitar	Cluniacense
Knoso	Cnossos
kofamendu	ahuecamiento rehundimiento
kokamendu lekumendu	asentamiento
koloma oroikarri	columna conmemorativa
kolonaurreko	precolombino
kolonizazio	colonización
kolonizazio-gune	centro de colonización
kolonutza	colonato
koloregai	colorante
komizio	comicio
komizio kuriar kuri komizio kuri biltzarre biltzarre kuriar	comicio curiado
komizio zenturiar zenturi komizio zenturi biltzarre biltzarre zenturiar	comicio centuriado
Komoreak	Comores
komuna	comuna municipalidad
Komunen Ganbara	Cámara de los Comunes
Konstantinopoli	Constantinopla
Konstantza	Constanza
Konstituzio- **-Hirurteko** (1820-1823)	Trienio Constitucional (1820-1823)
konte	conde
konterri	condado
kontrahorma	contrafuerte
kontralehia	resistencia
kontrastasun	contraste antagonismo
Kontsul	Cónsul
kontsumari	consumero
kontzentrazio	concentración
kontzientzia argi eta bihurtezin (Descartes)	conciencia clara e irreductible (Descartes)
kopernikar	copernicano
Koperniko (1473-1543)	Copérnico (1473-1543)
kopeta-ihesi	huída de la frente
korasta-lema	timón de codaste
kordokaldi	sacudida
korintiar	corintio
korintiar, ordena	orden corintio
koroa	corona
kosta-zirrinda	franja costera
kotoi	algodón
kotoizko	de algodón
kotoizko ehun	tejido de algodón
Krelim(a), Mosku-ko	el Kremlin de Moscú
kretar	cretense
krisiaren funts	fundamento de la crisis
Kristandade	Cristiandad
Kristandade- **-Kristautasun**	Cristianismo de Cristiandad

Euskara	*Español* *Espainiera*
kristautu-betebehar	obligación de cristianizar
"Kristoren Antz--Bide(a)" (1441)	"Imitación de Cristo" (1441)
kui	calabaza
kultu-askatasun	libertad de culto
kulturatze	aculturación
kuri biltzarre kuri komizio biltzarre kuriar komizio kuriar	comicio curiado
kutun	amuleto

L

labar	panel de roca
laborantza	agricultura cultivo agrícola (iharduera)
laboratu	cultivar
labore	cultivo (fruitua)
labore-lur	tierra de cultivo
labore-sail	campo de cultivo
laborebakar	monocultivo
laburbildu	resumir
lagin	muestra
laido	afrenta ultraje
landa	campo
landaredi	flora
lanesku	mano de obra
larpopulatu	superpoblar
larru	cuero
Lateran	Letrán
latin amerikar	latino-americano
laun, kolore	color plano
laurdendu	descuartizar
laurdenkamendu	descuartizamiento
laute	laúd
lazgarri	terrible
laztasun erlijioso	austeridad religiosa
lege bereztaile	ley discriminatoria
Legenda Beltz(a)	Leyenda Negra
legionari	legionario
lehengai	materia prima
lehentasun	prioridad
lehiakide	émulo
"Lehoi Hego--Adardun(a)"	"León Alado con Cuernos"
"Lehoi Zauritu(a)"	"León Herido"
lehor-bide lehorpide	ruta terrestre
leihoburu	dintel de ventana
leinargitasun	hidalguía nobleza
leinu	linaje
lekadun	legumbre
lekuak hartu	aclimatarse
lekugunezko zenbaki--sistema	sistema de numeración posicional
lekumendu kokamendu	asentamiento
lekuztapen	localización
lemazain	piloto
"Lepantoko Maingu(a)"	"Manco de Lepanto"

Euskara	*Español* *Espainiera*
lerrokadura	alineamiento
lerromakur	curvilíneo
lerronahasi	mixtilíneo
lerrozuzen	rectilíneo
letagin	colmillo
leundu	pulir
leunketa	pulimentación
Libya	Libia
liho	lino
liserigarritasun	digestibilidad
Lleida	Lérida
loia	lonja
lokadura	luxación
loktenente	lugarteniente
Londres	Londres
loraldi	florecimiento
Luis Germaniar(ra) (843-876)	Luis el Germánico (843-876)
lur-ekonomia	economía rural economía agrícola
lur-sailen elkarretaratze	concentración de tierras
lurjabe	propietario de la tierra
lurjabetza	propiedad de la tierra
lurralde historiko	territorio histórico
lurralde mugakide	territorio fronterizo región fronteriza
lurralde--baterakuntza	unificación territorial
lurralde-monarkia	monarquía territorial
lurtar	terreno (adj.)
Luter (1483-1546)	Lutero (1483-1546)
lutertar	luterano
luzetarako ebakidura	sección longitudinal

M

magdalenaldi	edad magdaleniense
magdalendar	magdaleniense (adj.)
magistratu	magistrado
mahasti	viña viñedo
mailakatu, piramide	pirámide escalonada
mailorkar	mallorquín
mainel	mainel parteluz
maizter	arrendatario
malda	ladera
mandatalgo	misión
maneakuntza	laboreo
marai	maravedí
Maria Odoltzale(a) (1553-1558)	María la Sanguinaria (1553-1558)
marineleria	marinería
markerri	marca marquesado (barrutia)
marraizkora	raspador
marraizkora bikoitz	raspador doble
Martitz	Marte
martiztar	marciano

Euskara	*Español* *Espainiera*
maskor	concha
matriarkatu	matriarcado
maula	fraude
Mazarin (1642-1661)	Mazarino (1642-1661)
mazedoniar	macedonio
meategi	depósito de mineral
meatz	mina
meatzari	minero
mediterranear	mediterráneo (adj.)
medotar	medo
mehatxu	amenaza
Meka	La Meca
mende	siglo
Mendebalde	Occidente
"Mendebaldeko Indietako Konpainia"	"Compañía de las Indias Occidentales"
mendebaldu	occidentalizar(se)
mendikate	cordillera
Mendiskak, Erromako Zazpi	las Siete Colinas de Roma
mendoitz	talud
mendoitz-horma	muro en talud
mendu jite	carácter aptitud
mengoatu	obligar
menpehartu	ocupar conquistar
menperatze-sistema	sistema de dominación
merkatal elkartrukeak	intercambios comerciales
merkatal iharduera	actividad mercantil actividad comercial
merkatal lehiaketa	competencia mercantil emulación comercial
merkatalgo merkataritza	comercio
merkatalgune	centro mercantil centro comercial
merkatari	mercader comerciante
merkatu	abaratar(se)
merkatu-lehiaketa	competencia de mercado
Mesopotamia Garai(a)	Alta Mesopotamia
metropoli	metrópolis
mezena	mecenas
miesa	lienzo tela
mihise	tela (pint.)
milakada	milenio
Milanalde(a)	Milanesado
Milano-ko Ediktu(a) (313)	Edicto de Milán (313)
ministrari	ministro
ministraritza	ministerio
Mino	Minos
minoar	minoico
Mizena	Micenas
mizenatar	micénico
mohamatar	*mahometano*
Moise (-XII.a)	Moises (-XII)
moje-erreforma	reforma monacal

Euskara	*Español* *Espainiera*
mojego	monacato condición de monje
monastegi	monasterio
monastegi-erreforma	reforma monástica
moneta-anarkia	anarquía monetaria
mongoliar	mongol
mortu	desierto
mozkin	beneficio
mozorrotu	enmascarar(se)
muga-babespen	protección fronteriza protección aduanera
muga-babes(tai)le, **politika**	política proteccionista
muga-gotorleku	fortaleza fronteriza
muga-langa	barrera fronteriza
mugalde	zona fronteriza
mukulu	bulto
mukulu biribil	bulto redondo
mukulu biribileko **eskultura**	escultura de bulto redondo
munta	importancia
murru harresi	muro muralla
musikagile	compositor

N

nabigazio	navegación
Nabigazio-Akta (1651)	Acta de Navegación (1651)
Nafar-Auzo(a)	Navarrería
Nafarroa Behere(a)	Baja Navarra
Napoli	Nápoles
nardari	desdeñoso
narritu	excitar
neanderthaldar	neanderthalense (adj.)
nekazaltze	ruralización
neobabiloniar	neobabilonio
Neolito(a)	Neolítico
nerbiodura	nervadura
neurritsu	sobrio comedido
noria gaio-errota	noria
Norvegia	Noruega

O

oasi	oasis
obrantza	acción
obratu	llevar a cabo ejecutar
-ohi(a)	ex- (lagun-ohi = ex-compañero)
oholtxa	tablilla
oihal	paño
oihalgai	producto textil
oihulari	pregonero
oin	piso
oinartu	tomar pie tomar como fundamento
oinetxe sortetxe jauretxe	casa solar casa solariega

Euskara	*Español* *Espainiera*
oinplano	planta (ark.)
ojibazko arku	arco ojival
olibadi	olivar
oligarkia	oligarquía
olio-hazi	semilla oleaginosa
ondare	patrimonio
Ondorengotza- -Gerrate(a) Segida-Gerrate(a) (Esp.: 1700-1714)	Guerra de Sucesión (Esp.: 1700-1714)
ondorio balaztagarri	consecuencia que frena
ongarriztatu	abonar
onibarrak	bienes raíces
ontzi	barco embarcación
ontzigindegi	astillero
ontziteria untziteria	flota escuadra
ontziteria, itsas-	flota
opaitzur	azuela
opaldu	sacrificar
opil, gatz-	pan de sal
orainaldiaren historia	historia del presente
oramen	prensilidad
Ordena Teutoniko(a)	Orden Teutónica
ordezkotasun	representatividad
oreka natural	equilibrio natural
orkatila-zirgilo moneta	moneda aforcada
orno-muin	espina dorsal
oroatzemaile, historia	historia globalizante
osagai bizigabe eta jarrai (Descartes)	elemento inerte y continuo (Descartes)
"Ospagarri(a), Iraultza" (1688)	Revolución Gloriosa (1688)
ospakizun-hilketa	matanza conmemorativa muerte ritual
ostatatu	albergar
ostrogotu	ostrogodo
ostruka	avestruz
oti	langosta
otomandar	otomano

P

Palatinatu(a)	Palatinado
paleokristau, arte	arte paleocristiano
Paleolito(a)	Paleolítico
palestinar	palestino
Parmenide (-VI-V.a)	Parménides (-VI-V)
Partenoi(a)	Partenón
pausaldi	detención
Penintsula Balkaniar(ra)	Península Balcánica
Penintsula Iberiar(ra)	Península Ibérica
Penintsula Italiar(ra)	Península Itálica
Pentsionari Nagusi(a)	Gran Pensionario
pertsegizio jazarraldi	persecución
Pertsepoli	Persépolis

Euskara	*Español* *Espainiera*
Pertsia	Persia
pertsiar	persa
petxari	pechero
pezo	adobe
piperrauts	pimienta
piretru	pelitre
pisu (moneta)	peso
Pitagora (-VI.a)	Pitágoras (-VI)
pitxerrandi	jarrón
Pizkunde Ernazimentu	Renacimiento
Pizkunde Garatu(a)	Alto Renacimiento
Pizkunde Goiztar(ra)	Renacimiento Temprano
pizkundetar	renacentista
Plantagenetarrak (1154-1485)	los Plantagenet (1154-1485)
plebe	plebe
plebetar	plebeyo
plebetarren biltzarre	asamblea de la plebe
plubiositate	pluviosidad
Po Ibar(ra)	Valle del Po
ponpa	bomba
populazio biztanleria	población
praktikari	practicante
prediku	predicación
prehistorilari	prehistoriador
presioz printzak ateratze	esquirlado por presión
presiozko printzaketa	esquirlado por presión
presoner	prisionero
pretoriar	pretoriano
printze	príncipe
printzerri	principado, territorio del
Probentza	Provenza
produkzio-baliabide	recurso productivo
profil	perfil
proletari	proletario
Protagora (-485-410)	Protágoras (-485-410)

R

rabbi	rabino
rhindar	renano
Roda	Rodas

S

sabai laun	techo plano
Saboia	Saboya
sago-palmondo	palmera de sago
saihesbera saihestu	disidente
saihespen erlijioso	disidencia religiosa
saihestu, talde sozial	grupo social marginado grupo social disidente
saiodi	tubo de ensayo
sakailakatu	acribillar
salomondar, zutabe	columna salomónica

Euskara	*Español* *Espainiera*
San Bital Ravenna-ko(a)	San Vital de Ravena
San Joan Lateran-go(a)	San Juan de Letrán
San Marko Venezia-ko(a)	San Marcos de Venecia
San Paul Harresiz Kanpoko(a)	San Pablo Extramuros
San Zernin	San Cernín
Sandrati	San Adrián
Santa Maria Erreteliza (Olite)	Santa María la Real (Olite)
Santa Maria Nagusi(a)	Santa María Mayor
Santa Sofia Konstantinopoli-ko(a)	Santa Sofía de Constantinopla
Santiago-Bide(a)	el Camino de Santiago
sapalda goi-zelai	meseta
sare-gailurreria	crestería reticulada
saripeko	mercenario
sarraldi	entrada
sarraski triskantza	matanza
sastagai	puñal
Saudi Arabia	Arabia Saudi
saxoin saxoniar	sajón
Saxonia	Sajonia
Segida-Gerrate(a) Ondorengotza--Gerrate(a) (Esp.: 1700-1714)	Guerra de Sucesión (Esp.: 1700-1714)
Segismun II.a (1548-1572)	Segismundo II (1548-1572)

Euskara	*Español* *Espainiera*
segizio	séquito
Segovia-ko Akueduktu(a)	Acueducto de Segovia
sekularpen	secularización
senatu	senado
sendi familia	familia
seneko	instintivo juicioso
serailu	serrallo
serbiar	servio
serbu jopu	siervo
serbutza joputza	servidumbre condición de siervo
sigi-saga	zigzag
sinestun	creyente
sipai	cipayo
siroko	siroco
sistema hirurogeitar	sistema sexagesimal
Sixtoren Kapera Kapera Sixtoren(a)	Capilla Sixtina
soberakin gaineratiko	excedente
sorbaldako	espaldarazo
sorgailu	generador
sorkuntza	generación
sorteliza	iglesia madre iglesia matriz
sortetxe oinetxe jauretxe	casa solar casa solariega
soslai	de costado de soslayo

Euskara	*Español* *Espainiera*
sostengatzaile eustarri	sustentante
Soviet Batasun(a)	Unión Soviética
Suedia	Suecia
sufre	azufre
sukar hori	fiebre amarilla
sustatu	estimular

T

taket	estaca
talasokrazia	talasocracia
talde sozial	grupo social
talde sozial saihestu	grupo social marginado grupo social disidente
tartegune	espacio
Taula Errodolfotarrak (Kepler, 1627)	Tablas Rudolfinas (Kepler, 1627)
taulamendu hautsi	entablamento quebrado
tenplu	templo
teorikari (iz.)	teórico
termak	termas
Ternua	Terranova
Titikaka Laku(a)	Lago Titicaca
Tiwanaku (kitxuaz)	Tiahuanaco
tona	tonelada
traganarru	tromba
trantseptu	transepto
tregoa	tregua
tribu-biltzarre	comicio por tribus
trikuharri	dolmen
trinkotasun	densidad
triskantza sarraski	matanza
trukalari	cambista
truke-letra	letra de cambio
txanpondu	acuñar
txanpongintza txanponketa	acuñación
txautu	gastar malgastar
txekiar	checo
txerpolari (saltzaile ibiltaria)	buhonero
tximino	simio mono
tximistorratz	pararrayos
Txina	China
Txipre	Chipre
txukatzeko ponpa	bomba de achicar
txurrigeresko	churrigueresco

U

ugate	compuerta del saetín dique
ugaztun edentatu	mamífero edentado
uhertz	orilla del agua
uhindura	ondulación
ukantza	propiedad posesión

Euskara	*Español* *Espainiera*
untziteria ontziteria	flota escuadra
ur-eraikuntza	construcción hidráulica
ur-etorri	caudal
uresi	* errotara datorkeen zaborra geldierazteko hesia
ureztapen erregario	irrigación regadío
ureztapenezko nekazaritza erregario--nekazaritza	agricultura de regadío
urgaineztatu	desbordar(se)
"Urketari(a)" (Velázquez)	"El Aguador" (Velázquez)
urmael	balsa (de agua)
Urrezko Adar(ra)	EL Cuerno de Oro
usarpen	ingerencia
ustelkuntza	corrupción
ustezko balizko	supuesto
ustiapen-kolonia	colonia de explotación
ustiatu	explotar
uzi	pretensión
uzkur	reacio
uzta	cosecha

X

Xa	Sha
xaboi	jabón
xedapen	disposición
Xenofane (-VI-V.a)	Jenófanes (-VI-$\overline{V}$)
Xogun	Shogun

Z

zakuraketa arpilaketa	saqueo
zaldiketaldi	cabalgada
zaldun	caballero
zango, leiho-	jamba de ventana
zapalda	bancal terraza
zarrastelkeria	despilfarro
zeharkako zerga	impuesto indirecto
zeihar-plano	plano oblicuo
zekale	centeno
zelatatu	acechar espiar
zelta	celta
zenbakikuntza arabiar	numeración arábiga
zenbakikuntza hamartar	numeración decimal
zentralizapen--prozesu	proceso de centralización
zentsari	censitario
zenturia	centuria
zenturi biltzarre zenturi komizio biltzarre zenturiar komizio zenturiar	comicio centuriado
zenturioi	centurión
zereal	cereal
zerga-bilketa	recaudación de impuestos

Euskara	*Español* *Espainiera*
zergari	recaudador de impuestos
zeru-arraskari	rascacielos
zerutar dohatsu	bienaventurado del cielo
Zesar (-102-44)	César (-102-44)
zeta	seda
"Zetaren Bide(a)"	"la Ruta de la Seda
zibilizazio-gune	centro de civilización
zibilizazio(aren) erdigune	centro de (la) civilización
zientzilari	científico
zilargin	platero
zilueta	silueta
zinborio	cimborrio
zingiber	cingíber
zinginarri (Ataun)	amuleto (historiaurreko kutun bat) (Ataun)
zingo kalatu	calado
zirgilo	argolla
zirrikiton	sarga (oihal-mota bat)
zistertar	cisterciense
zizel	cincel
zizkolatsu	estridente
zoldura	infección
Zornotza	Amorebieta
zorpetu	endeudar
zubiburu	cabeza de puente
zuhain-landare	planta forrajera
zuhaizti	arbolado
zuhur	prudente
zur preziatu	madera preciosa
zurgatx	astuto
zurrunbilo arranpa	remolino
zutoihal	estandarte
zuzeneko zerga	impuesto directo
zuzenestapen ideologiko	justificación ideológica

AURKIBIDEA

* AUTOREAK 5
* HITZAURREA 7
* KRONOLOGIA 9
* HIZTEGIA 667
* AURKIBIDEAK 699
Azalpenak 701
Testu aztergarriak eta irudi-oharrak 715

1. EUROPA, ARO GARAIKIDEAN (1789-1973)

Azalpena

I. ALDAKUNTZA SOZIO-EKONOMIKOAK 12

A) Iraultza demografikoa 13
B) Nekazal iraultza 16
a) Nekazaritza intentsiboa, Mendebaldean..... 16
b) Nekazaritza estentsiboa, herrialde berrietan 16
c) Labore ekuatorial eta tropikalak 18
C) Industri iraultza 19
D) Kapitalismo ekonomikoa. Pentsamendu liberala 24

II. ALDAKUNTZA POLITIKO-SOZIALAK 27

A) Erregimen zaharraren amaia 27
1. Zergati orokorrak 28
2. Sistema burges-liberal berriaren ezaugarriak 29
a) Aldakuntza politikoa 29
b) Aldakuntza soziala 30
3. Frantziako Iraultza 30
a) Iraultzaren sorburuak 31
b) Iraultzaren faseak 33
- Biltzarre Konstituziogilea (1789-1791) 33
- Biltzarre Legegilea (1791-1792) 35
- Konbentzioa (1792-1794) 36
- Erreakzio termidortarra 37

B) Zaharberrikuntzarako ahaleginak 39
1. Vienako Kongresua (1815) 39
2. Iraultza liberalen jarraipena 40
a) Lehen ekinaldi iraultzailea: 1820 40
b) Bigarren ekinaldi iraultzailea: 1830 41
c) Hirugarren ekinaldi iraultzailea: 1848 44
3. Mugimendu nazionalak 46
a) Italiaren bateratzea 47
b) Alemaniaren bateratzea 50
4. Gizarte-mugimenduak 54
a) Doktrina sozialak 56
b) Langile-iraultzak 58

III. EUSKAL HERRIKOAK 64

Testu aztergarriak eta **Irudi-ohar baliagarrienak**

ik. 715 ik. 716

****

2. MUNDUA, MENDEBALDEAREN MENPE: INPERIALISMOA

Azalpena

I. KONTZEPTUAK 73

II. EUROPAREN LEKUA 76

A) Mende-hasierako egoera 77
1. Herentzi kolonialak 77
2. Kolonialismoaren izen gaiztoa 78
3. Toki ezezagunen esplorazioak 80
B) Potentzia kolonialen egoera (1815) 82

III. MENDEBALDEAREN HEDAKUNTZA BERRIA 84

A) Kolonialismoaren faktore eragileak 84
1. Faktore sozio-demografikoak 85
2. Faktore ekonomikoak 88
3. Faktore politiko-estrategikoak 90
4. Faktore ideologiko eta moralak 91
B) Ideologia koloniala 92

IV. KOLONIALISMOAREN UNE ETA MODUAK 93

A) Konkista 93
B) Antolamendua 94
1. Elkargoa 95
2. Babespena 95
3. Kontzesioa 95
C) Ustiapen ekonomikoa 96

V. INPERIO KOLONIALEN ERAIKUNTZA 97

A) Inperio ingelesa 98
1. Hedakuntzaren zergatiak 99
2. Lortutako lurraldeak 100
3. Lurraldeen "status" ezberdinak 102
a) Dominioak 102
b) Ustiapen-kolonialak 103
B) Inperio frantsesa 104
C) Beste zenbait inperio 106

VI. AFRIKAREN BANAKUNTZA 114
1. Mediterraneoko kostaldea 117
2. Mendebaldeko kostaldea 118
3. Ekialdeko kostaldea 119
4. Okupazioaren azken pausoak 119

VII. HEDAKUNTZA KOLONIALAREN ONDORIOAK 120

A) Iharduera ekonomikoan 121
B) Ondorio sozialak 123
C) Politika arloan 124
D) Kultur bizitza 125

Testu aztergarriak eta **Irudi-ohar baliagarrienak**

ik. 717 ik. 718

****

3. MENDEBALDEKO GIZARTE INDUSTRIALAREN KULTURA

Azalpena

I. ZIENTZIEN eta TEKNIKEN AURRERAPENAK 129

A) Natur zientziak 134
1. Astronomia 134
2. Geologia 135
3. Fisika 136
4. Kimika 137
5. Biologia 139
B) Giza eta gizarte-zientziak 141
1. Mikrobiologiatik Medikuntzara 141
2. Psikologia 143
3. Soziologia 144
4. Historia 144
5. Geografia 146
6. Antropologia 147
7. Arkeologia 148
8. Irakaskuntza 149

II. FILOSOFIA 153

A) Idealismoa 153
B) Positibismoa 155
C) Historizismoa eta bitalismoa 156

III. LITERATURA 157

A) Erromantizismoa 158
1. Alemania 159
2. Ingalaterra 160
3. Frantzia 160
4. Espainia 161
B) Errealismoa 164
C) Parnasianismoa 166
D) Sinbolismoa 167

IV. XIX. MENDEKO ARTEA 168

A) Musika 168
1. Erromantizismoa 169
2. Nazionalismoa 170
3. Inpresionismoa 171
B) Arte plastikoak 172
1. Neoklasizismoa 172
a) Arkitektura 173
b) Eskultura 175
c) Pintura 175
2. Arte Erromantikoa 176
a) Arkitektura 176
b) Eskultura 178
c) Pintura 178
3. Eklektizismoa, Errealismoa, Naturalismoa 179
a) Arkitektura 179
b) Eskultura 180
c) Pintura 181
4. Modernismoa. Inpresionismoa 182
a) Arkitektura 183
b) Eskultura 185
c) Pintura inpresionista 185
d) Pintura postinpresionista 187

V. ERLIJIOAK ETA ELIZAK, XIX. MENDEAN 190

A) Erlijio kristau eta ez-kristauak 191
1. Eliza kristauak 191
a) Katolizismoa 191
b) Protestantismoa 193
c) Eliza Ortodoxoak 194
2. Erlijio ez-kristauak 195
a) Juduak 196
b) Islam-a 197
B) Kristau elizen arazoak 199
1. Boterea Elizaren baitan 199
2. Doktrina-ortodoxia 202
3. Mugimendu ekumenista 204
4. Elizak eta mundua 206
C) Euskal Herriko eliza 210

VI. EUSKAL KULTURA XIX. MENDEAN 215

A) Garapen literarioak 216
1. Prosa-lana 216
2. Poesia herritarra 219
3. Antzertia 219
4. Eusko Pizkundea 220
B) Hezkuntza eta zientzia 222
1. Unibertsitatea 222
2. Medikuntza 222

VII. XIX. MENDEKO KULTURA ESPAINOLA 225

A) Hezkuntza 225
B) Zientzia 226

Testu aztergarriak eta **Irudi-ohar baliagarrienak**

ik. 719 ik. 720

****

4. AMERIKA: LEHEN DESKOLONIZAZIOA (1776-1914)

Azalpena

I. INDEPENDENTZIAREN AURREKINAK 231

A) Historia koloniala 231
1. Latin Amerika 233
a) Hispano Amerika 233
- Bertakotarrekiko tratua (XVI. mendea) 235
- Hispano Amerika, XVII. mendean 239
- Hispano Amerikako eraldakuntzak (XVIII. mendean) .. 241
b) Brasil 244
2. Ipar Amerika 252
B) Independentziaren bezperan 256
1. Hamahiru Koloniak 256
2. Latin Amerika 260

II. INDEPENDENTZI GERRATEAK (1776-1783, 1810-1825) 262

A) Ameriketako Estatu Batuak 262
1. Kausa ekonomiko politikoak 263
2. Etendura 264
3. Gerratea 267
4. Bakea eta Estatu berriak 268
B) Latin Amerika independentea 274
1. Altxamenduaren kausak 274
2. Independentziaren etorbideak 277
3. Iraultzaren aldiak 278
a) Lehenengo ahaleginak (1810-1816) 278
b) Bentzutuen garaipena (1816-1824) 280

III. ESTATU INDEPENDENTEAK (1825-1914) 284

A) Estatu Batuak 284
1. Lurralde-zabalkundea 285
2. Gizartea 291
a) Hazkunde demografikoa 291
b) Esklabutzaren arazoa 294
3. Ekonomia 296
4. Gerra eta politika 299
a) Jackson-en garaia (1828-1845) 300
b) Gerrate Zibila (1861-1865) 301
5. Kultura 305
B) Ibero Amerika: Errepublika independenteak 308
1. Ezaugarri nagusiak 308
a) Zatikapen politikoa 308
b) Ahultasun demografikoa: Inmigrazioa 309
c) Militarismoa eta kaudilismoa 311
d) Gizarte-egituren iraupena 312
2. Hegoaldeko Errepublika zuriak 314
3. Andeetako Estatuak 315
4. Mexiko 316
5. Brasil 318

IV. KOLONIAK ETA INDEPENDENTZIA BERRIAK 322
A) Kanada 322
1. Kronologia 322
2. Populazioa 323
B) Kuba eta Puerto Rico 328

V. ONDORIOAK 331

Testu aztergarriak eta **Irudi-ohar baliagarrienak**

ik. 722 ik. 723

****

5. ASIA: TXINA ETA INDIA

Azalpena

I. TXINA XIX-XX. MENDEETAN 336

A) Geografia 336
1. Geografia fisikoa 336
2. Giza geografia 339
3. Geografia ekonomikoa 340

B) Erregimen zaharreko dinastiak 341
1. Yuan-darrak (mongolak: 1280-1368) 341
2. Ming-darrak (1368-1644) 343
3. Qing-darrak (mantxuak: 1644-1911) 344

C) Txinaren ekarpen kulturalak 347
1. Papera 348
2. Inprimagailua 348
3. Bolbora 349
4. Busola 349

D) Txinako erlijioak eta pentsamendua 350
1. Lehen erlijio-moldeak 350
2. Budismoa Txinan 352
3. Konfuzianismoa (K.a. II. mendea) 353
4. Taoismoa 354
5. Kristautasuna Txinan 355
6. Sinkretismo erlijiosoa 358

E) Aro garaikidearen herronkak 359
1. Prozesu politikoa eta Atzerria (1840-1949) 360
a) Mendebaldearekin estropozo 360
- Merkatal arazoak 360
- Oreka desorekatua 361
b) Japonia boteretsua 362
c) Iraultza liberala: Ezina ala ez-askia? 364
2. Iraultza maoista (1949-1976) 368
a) Iraultza-aurrekoak 369
b) Iraultzaren ondokoak 371
- Nekazal erreforma 372
- Lurren kolektibizazioa (1953) 372
- Industrigintza 372
- Komunak 373
- Iraultza kulturala eta ekonomia 374
- Bizimailaren hobekuntza 375

II. INDIA 377

A) Geografia fisikoa: Montzoien fenomenoa 377
B) Giza geografia: Herri ezberdinen kokaleku 379
C) Fenomeno erlijiosoa Indian 381
1. Erlijio politeista autoktonoak 381
2. Erlijio monoteistak 382
D) Kastak 383
E) Kolonialismo-aurreko India 386
F) India ingelesen menpean 387
G) Indiaren egungo problemak 393
1. Superpopulazioa 393
2. Atzerapenak nekazaritzan 394
3. Aurreritzi sozio-erlijiosoak 395

Testu aztergarriak eta **Irudi-ohar baliagarrienak**

ik. 725 ik. 726

****

6. AFRIKAREN HISTORIAREN BILA

Azalpena

I. AFRIKAK HISTORIARIK BAI OTE? 398

A) Ohizko ikuspegi europarra 398
B) Historia, disziplinartekotasunaren ildotik 400
C) Ospe handiko historiatik historia arruntera 404

II. POPULAZIOA: NOIZTANDIK AFRIKA BELTZA? 408

A) Lehen gizakiak 409
B) Afrikar beltzak 410
C) Talde kaukasiarra 411
D) Talde mestizatuak 412
E) Eskualde kulturalak 414

III. KONTINENTE AFRIKARRAREN IPARRALDEA 416

A) Zibilizazio nilotarrak 416
B) Ipar Afrikako itsasaldea 418
C) Sahara aldeko gizarte nomada 420
D) Lurralde ethiopiarra 423

IV. AFRIKA BELTZAREN HISTORIA 427

A) Inguru geografikoa, historiaren muga ote? 428

B) Paisajeak eta bizimoldeak 430

C) Herri afrikarren antolamendu sozio-politikoa 435
1. Antolamendu soziala 436
2. Gobernamendua 440
a) Anarkia 442
b) Buruzagitza 444
c) Botere zentralizatuak 445
- Hiriak 446
- Erresuma eta inperioak 449
- Sistema politiko zentralizatuak 452
- Sudan-aldeko inperioak 455
- Mendebal itsasaldeko erresumak 457
- Barne- eta Hegoaldeko erresumak 460
d) XIX. mendeko iraultza politikoak 464
- Gerra santua (jihad): Estatu musulman berriak 465
- Mfcane: iraultza zulua 467

D) Afrika, mundu-ekonomia berrian: Beltzen tratua (XVI-XIX) .. 470
1. Esklabutza: alde eta kontrako jarrerak 470
2. Esklabutzaren ezaugarriak eta ondorioak 472

E) Erlijio afrikarrak 477
1. Ohizko erlijioak 477
2. Kristautasuna eta Islama 482
F) Tradiziozko Afrikatik gaur egunekora 483
1. Testuinguru garaikidea 483
2. Deskolonizazioa 485
3. (Neo)kolonialismoez dauden eztabaidak 487

Laburbilduz 497

Testu aztergarriak eta **Irudi-ohar baliagarrienak**

ik. 727 ik. 728

****

7. EUROPA, MUNDUAREN ONDARE?

Azalpena

I. HERRIALDE EUROPARTUAK: BI EREDU 492

A) Japonia 493
1. Japonia feudala 493
2. Iraultza Meijia: mendebaltzen 496
a) Erakunde eta politika-alorreko aldakuntzak 496
b) Aldakuntza ekonomikoak 497
c) Erreforma sozial eta juridikoak 498
d) Aldakuntza politikoak 499
3. Hedakuntza koloniala 500
a) Gerrate sino-japoniarra (1894-1895) 501
b) Gerrate erruso-japoniarra (1904-1905) 502
4. Japonia, mundu-potentzia 502
5. Mendebaldearekiko konpromezua 503

B) Australia 505
1. Aurkikundea: Kolonizazioa 506
2. Jatorrizko bertakotarrak 507
3. Urrea: biztanle-ugalpena 508
4. Egitura politikoa 512

II. EUROPARTZE-PROZESUEN EZAUGARRIAK 513

A) Aldakuntza ekonomikoak 513
1. Sistema kapitalistaren aldakuntzak 514
2. Multinazionalak 516
B) Nazioarteko erakundeak: Europako ereduak 517
1. Europan 517
2. Munduan 518

C) Ekarpen sozio-kulturalak 519
1. Aurrerapen teknikoak 519
2. Aisiaren kultura 520
3. Hirigintz fenomenoa 521
4. Egoera sozio-demografikoak 522
5. Mendebaldeko hizkuntzak 523
a) Frankofonia barreiatua 524
b) Hedapen-frankofonia 525

III. ERRESISTENTZI FAKTOREAK 527

A) Afrikan eta Ozeanian 527
B) Islamaren erresistentzia 529
1. Gaurko hedadura 529
2. Musulmanen arteko batasuna 530
3. Islam-a historian 531
a) Europa Maghreb-ean 531
b) Independentziarako hiru bide 532
- Egypto nassertarra 532
- Algeria Independentea 535
- Iran eta Iraultza Islamdarra 536

Testu aztergarriak eta **Irudi-ohar baliagarrienak**

ik. 729 ik. 730

****

8. EUROPAREN ERRELEBOA MUNDUAN

Azalpena

I. GERRATEAREN ONDORIOAK 540

II. MUNDU BERRIAREN SORRERA 543

A) Boteredun berriak: EE.BB. eta SESB 544
B) Bakearen antolakuntza 550
C) Gerrate hotza 551
D) "Bakezko bizikidetasuna" 555
E) Europaren berreraikuntza 556

III. HIRUGARREN MUNDUA ETA DESKOLONIZAZIOA 559

A) Deskolonizazio-fenomenoa 560
1. Deskolonizazioaren zergatiak 561
a) Abertzaletasuna 561
b) Nazio indartsuen ideologiak berak 561
c) Gerratea (1939-1945) 562

2. Inperio kolonialen gainbehera 563
a) Asiaren deskolonizazioa 563
b) Afrikaren deskolonizazioa 563
3. Bandung: Herri zapalduen bilera (1955) 564
B) Neokolonialismoa 566

IV. MUNDUKO GATAZKAGUNEAK 571

Testu aztergarriak eta **Irudi-ohar baliagarrienak**

ik. 731 ik. 731

****

9. GIZA ZIENTZIAK, FILOSOFIAK ETA ARTEA

Azalpena

I. GIZARTE-ZIENTZIAK 576

A) Zientzia politikoa 577
B) Ekonomia 577
C) Soziologia 577
D) Psikologia 578
E) Historia. Geografia 578

II. KORRONTE FILOSOFIKOAK 580

A) Neorrealismoa 581
B) Bizitzaren filosofia 582
C) Fenomenologia 583
D) Existentziaren filosofia 583

III. LITERATURA 584

A) Ingalaterra 586
B) Alemania 588
C) Estatu Batuak 588
D) Frantzia 589
E) Italia 590

IV. MUSIKA 591

V. ARTE PLASTIKOAK 594

A) Arkitektura 594
1. Nazioarteko joerak 595
a) Lehen Razionalismoa 595
b) Espresionismoa 595
c) Futurismoa 597
d) Konstruktibismoa 597
e) Plastizismo berria (De Stijl) 600
f) Razionalismoa 601
g) Organizismoa 601
h) Azkenaldiko joerak 604
2. Euskal Herriko Arkitektura 605

B) Pintura 607
1. Munduko Pintura-Eskolak (1900-1945) 608
a) "Fauve" mugimendua 608
b) Kubismoa 609
c) Futurismoa 611
d) Dadaismoa 611
e) Espresionismoa 613
f) Abstrakzio geometrikoa 615
g) Surrealismoa 615
h) Beren gisako pintoreak 618
2. Gerraondoko Pintura-Eskolak (1945-1980) 618
a) Abstrakzioa 618
b) Figurazio Berria 620
c) Beste joerak 621
3. Euskal Herriko Pintura (XX. mend.) 622
a) Gerrate Zibila artekoa (1900-1939) 622
- Arte burgesa 622
- Arte nazionalista 624
- Errealismo Soziala 624
b) Gerratetik hona (1940-1980) 625
- Inpresionismo atzeratua 626
- Eguneroko bizitza 626
- Geometrismoa 626
- Surrealismoa 627
- Espresionismoa 627
- Abstrakzioa 628
- Errealismoa edo figurazio berria 629
C) Eskultura 629
1. Nazioarteko joerak 629
a) Kubismoa 630
b) Futurismoa 630
c) Dadaismoa 630
d) Konstruktibismoa 630
e) Espresionismoa 632
f) Surrealismoa 632
g) Organizismoa 633
2. Euskal Herriko eskultura 633

Testu aztergarriak eta **Irudi-ohar baliagarrienak**

ik. 732 ik. 732

****

10. IRAULTZA ZIENTIFIKO ETA TEKNIKOA

Azalpena

I. ZIENTZIA ETA TEKNIKA 638

A) Ikerkuntzaren berezitasunak 639
1. Sistematikotasuna 639
2. Aurrerakuntza azeleratua 640
3. Espezializazioa eta zientzilari-kopurua 641

B) XX.eko lehen mende-erdia 641
C) Azken hamarkadetako aurrerapenak (1945-1985) 646
D) Injinerutza eta komunikabideak 650
E) Esplorazio-bidaiak 651

II. ETORKIZUNA PRESTATZEN 654

A) Zientzia gaurko munduan 656
B) Zientziaren beharra 656
1. Gerra 656
2. Gosetea 659
C) Zientzia, ongizaterako 660
D) Energia eta automatizazioa 661
E) Izadiaren eraldakuntza 662
F) Ikerkuntzaren boterea 662
G) Erantzukizun soziala 664

Testu aztergarriak eta **Irudi-ohar baliagarrienak**

ik. 733 ik. 733

****

1. EUROPA, ARO GARAIKIDEAN (1789-1973)

1

Testu aztergarriak

Emigranteak 14
Badator trena! 22
Berlineko hiria (1800-1900) 26
Asanblada Nazionala (1789) 29
Egitarau politikoak (1789) 30
Erreakzio termidortarra (1794) 37
Iraultza: Sistemaren arriskua 39

Askatasuna: Nahi eta ezin (1820) 40
Herrien kontzientzia 42
Haur greziarra 42
Poloniarren askapen-altxamendua (1830-1831) 43
Nikolas Zarraren manifestua 43
Zapalkuntzaren berriak 43
Aita Santuaren hitzak 43
"Abertzaleak" aurrera 44
Garai zaila (1815-1871) 45
Iraultzaren herentzia (1848) 46
Naziotasuna 46
Eliz Estatuak zertarako? 48

Gurutze Gorria (1864) 49
Solferinoko itsua 49
Berlineko unibertsitatea 52
Gerra, batasunaren oinarri 52
Kulturkampf 53
Altsazia, alemaniarra? 54
Altsazia: Mugen dantza 54
Kroazia 54

Emakumezkoak lantegietan 55
Legea eta haur-lana 57
Haurren lana 57
Manifestu komunista 58
Iraultza-ondokoa (1871) 61
Konstituzioa, iraultzaren kontra? 63

Konbentzioa eta Euskal Herria (1793-1795) 67
Monarkia, Euskal Herriari erasoan? 68

★★★

Irudi-ohar baliagarrienak

Zapatari baten familia (1845) 12
T.R. Malthus (1766-1834) 13
Londres (1872) 13
Mugimendu demografikoa 14
Hiritar-populazioaren hazkundea 1850etik 1914era (taula) 15
Migrazio-mugimendu europarrak (taula) 16
A. Young (1741-1820) 16

Kafe-saila (Sao Paulo. Brasil) 17
Esklabu-zigortua (Río. Brasil) 18
Produkzio-energia 19
J. Verne (1828-1905) 20
G. Stephenson (1781-1848) 20

Lurrin-goldea (1854) 21
Lokomotoreak (1860) 21
Trenbideak 22
Trenbide-sarea (1840-1880) 23
Ingalaterrako bankua (Manchester-eko Egoitza) 24
Librekanbismoa 25
Luditak (1811-1818) 26

Libertatearen bandera 27
Kexu-koadernoak 28
Ideia politikoak (taula) 30
Estatu nagusiak (1789) 31
Iraultzaren ideiak 32
Bastilleko gazteluaren hartzea (1789) 33
Konstituzio zibila (1790. urtea) 34
Marie-Antoinette (1755-1793) 35
Frantzia erasota 36
G.J. Danton (1759-1794) 36
M. Robespierre (1758-1794) 37
Napoleon Bonaparte (1769-1821) 38
Europaren konkista? 38

Aliantza saindua (1815) 40
K. Metternich (1773-1859) 41
Karlos X.a (1824-1830) 41
Chios irlako sarraskia 42
Belgikaren independentzia (1830) 44
Konstituzioaren pilula (1848) 44
Iraultza (1848) 45
Serbia 46

Italiaren bateratzea (1870) 47
"Halako botarentzat azkenik oin ona!" (1860) 48
Pio IX.a (1846-1878) 49
G. Garibaldi (1807-1882) 50

Aduana-batasuna 51
Alemaniaren bateratzea (1971) 51
O. Bismarck (1815-98) eta Leon XIII.a Aita Santua (1878-03) .. 53
Prusia/Frantzia 54

★ ★ ★

Serbuen askapena 55
Zorrotzaileak 56
Haurren lana 56
Karl Marx (1818-1883) 58
Kritika soziala 59
I. Internazionala (1864-1876) 59
Komunaren azkena (1871) 60
Irlanda pobrea (c. 1860) 61
Siberiara! 62
Lenin (1870-1924) 62
Errusia inguratuta 63
Iraultzaren propaganda 64

Asanbladara joateko? 65
Fenizia berria (1808) 66
Konbentzio-gerratea (1793-1795) 67
Gerrate karlistak 69
Estatu liberala 70

2. MUNDUA, MENDEBALDEAREN MENPE: INPERIALISMOA

2

Testu aztergarriak

Kolonialismoa eta gerra 78
Kolonien konkista 79
Inperialismo kolonial kapitalista 82
Kolonialismoaren helburuak 83
Harreman ekonomiko berriztatuak 84

XIX.eko emigrazio europarra 85
Ipar Euskal Herritik Ameriketara 86
Baserritik Pampara (1865) 87
Potentzia lehiakideak 88
Kolonialismoaren defentsa 89
Kolonialismoaren kontra 90
Kolonia eta irakaskuntza 91
Negozio kolonialak (1905) 92
C. Rhodes, kolonialista 92

Vietnam-dar antikolonialista 93
Sozialista: antikolonialista 93
Opioaren gerratea: ondorioak (1840-1842) 94
Suez 98
Algeriaren premia 105
Inperio Holandarra 106
Kolonialismo espainiarra 108

Estatu Batuak: inperioa? 110
Indar-politika 110
Mexiko ala Estatu Batuak? 111
Estatu Batuen eta Panamaren arteko tratatua (1903) 111
Telegrama antikolonialista 112

★ ★ ★

★ ★ ★
Berlin (1885) 116
Emigrazio arautua 120
Marokko "espainola" (1912-1920) 120
Kolonialismoaren izugarrikeria 122
Boxer txinarrak (1900) 124
Idazkera arabiarra, latinoarekin trukatu? 125
Kontzientzia antikoloniala? 126
Asimilazio kolonialaren kontra 126

Irudi-ohar baliagarrienak

Herritarrak 72
Meatzariak 72
Kolonizazio zibilizatzailea? 73
Txina 73
J. Cook (1728-1779) 74
Herrialde biztanletsuak 74
Kolonu lur-bilaketariak 75
Burdinbideak 75
Trena, ganbeluaren truke 76

Afrika (1800-1870) 77
Simon Bolivar (1783-1830) 78
Txinako merkatua 79
D. Livingstone (1813-1873) 80
Livingstone, beltzen artean 80
H. Stanley (1841-1904) 81
Ipar lurburua (1909) 81
Estatu-Batuak: etorkinen sorterriak (1850-1940) 84
Emigranteak 85
Ipar Euskal Herriko emigrazioa 87
"Ongi etorriak guztiok!" 88
Algerian lurren banakuntza (1863) 89
F. Lesseps (1805-1894) eta Suez 90

Irakaskuntza koloniala 91
Gerra kolonialak 94
Kotoi-merkatua (Bombay) 95
Urre-bilaketa 96
Diamante-meatzak 97
Inperioaren bideak 98
Merkatalgo koloniala 99
Erreinu Batuan kontsumitutako gariaren sorlekua (taula) 99
Opioa (India, 1882) 100
W. Hastings (1732-1818) 100
Boerren herria 101
Kolonia "hutsak" 102
Viktoria erregina (1837-1901) 103
Algeria "frantsesa" (1830-1962) 104
J. Ferry (1832-1893) 104

Txina, garaituta 105
Eskola eta Kolonizazioa 106
Alemania eta interes ekonomikoen libertatea (1905) 107
Siberian zehar Vladivostokeraino! 108
Japonia/Errusia (1904-1905) 109
★ ★ ★

★ ★ ★

Kuba eta Filipinak (1898) 109
"Interbentzionismoak" 112
Ingalaterra/Estatu Batuak 113
Gerrate erruso-japoniarra (1904-1905) 113
Afrika, nola bana? 114
Afrikaren banakuntza europarra (taula) 114
Livingstoneren bidaiak 115
Afrikaren partiketa (1885-1919) 116
Algeria eta Maghreb (1830) 118
Faxoda (1898) 119
Euskaldunak Afrikara? 121
Deportatuen koloniak 122
Diskriminazio kolonialak 123
"Zerriari tiro eta ardiak lepamoztu" 124
W. Jones (1746-1794) 125

3. MENDEBALDEKO GIZARTE INDUSTRIALAREN KULTURA

3

Testu aztergarriak

Analfabetismoa eta eskola 129
Lanbide-heziketa 131
Kultura eruditua eta kultura herritarrak 132
XIX.eko eskolagintza 133

Astronomia, XIX. mendean: Neptuno (1846) 134
Aro eta sistema geologikoak 135
Fisikak etorkizun motza ote? 136
Volta-ren pila 136
Atomoaren aurkikundea 137
Kimika organikoa eta medikuntza 138
Kimika eta industria 138
Mendel: Genetika 140
Biologiatik medikuntzara 141
Bakteriologia 142
Anestesia eta kirurgia 143

Historiaurrearen jaiotza 144
Harria, brontzea, burdina: historiaurreko hiru aroak 145
A. Humboldt: Geografia modernoa 146
Gizaki fosilaren bila 147
Frantsesa, elizetan? 152
Eskola laikoa? 152
Oraina, etorkizunetik 153

Erromantizismoa eta gizartea 158
Heineren kezkak 159
V. Hugo Euskal Herrian 161
Dostoievskiren irakurle sovietarra 165
Galdós/Pereda/Valdés 166
Baudelaire. Droga ala infinitua? 167
Beethoven: garaiko artista 169

★ ★ ★

Musika nazionalista 170
Euskal musika nazionalista 172
Iruñea, Bilbo eta Donostia zabaltzen 173
Arkitektura, gotikorantz 177
Géricault, aitzindari bat 179
Daumier: gizartearen testigu 181
Inpresionismoa: garaiko artea 182
Balzac-en monumentua 185
Euskal artea 189

Eliza eta mundu modernoa 191
Protestantismoaren zabalkunde berria 193
Protestantismo berritua 194
Elizen autozefalia 195
Juduen askapena 196
Judaismoaren literatur lan berriak 196
Islam-aren krisi modernoa 198
Aita Santuaren boterea zaintzen 201
Lamennais-en drama 203
John H. Newmann, katoliko ingeles ireki bat 204
Suitza: Eliza katolikoa 205
Ekumenismo ez katolikoa 206
Ekumenismo katolikoa 206
Rerum novarum (1891) 209

Santa Kruz: Gerrara? 210
Eliz desamortizazioa 212
Arantzazu: erreketa eta berreraikuntza 213
Katolikoak Errepublikarekin 214
Hizkuntza, balio nazionala 215
Gipuzkoako probintziaren kondaira, 1847 216
Antoni Abadia (1810-1897) 217
"Eskualduna": Apaizak eta Errepublika 218

Trenbidea eta Etorkinak 219
J. Manterola (1849-1884) 220
Post Tenebras 220
Unibertsitatea (1874) 222
Unibertsitatea, ukatuta (1924) 222
Eritasunak eta medikuntza prebentiboa (1899) 224
Irakaskuntza Espainian 225
Egia ala errakuntza, libre? 226
Irakas-askatasuna (1875) 227
Euskara ere eskolara? 228

Irudi-ohar baliagarrienak

Espainiako eskolen miseria (1866) 128
Emakumezkoen hezkuntza 129
Eskolagabeko haurrak 130
Langileen hezkuntza 131
Luisa Michel (1830-1905) 133

Ilargia (1896-1899) 134
Harri geologikoak 135

★ ★ ★

J. Maxwell (1831-1879) 137
John Dalton (1766-1844) 138
Ch. Darwin (1809-1882) 139
Charles Darwin (1809-1882) 139
L. Pasteur (1822-1895) 142
Ch. Gerhardt (1816-1856) 143
Aspirina (1823, 1853, 1897) 143

Auguste Comte (1798-1857) 144
Alexander von Humboldt (1769-1859) 146
Egyptologia 148
Indusketa arkeologikoak 148
Idazkera hieroglifikoa 149
Arkeologia egiten: Champollion eta egyptologia. Schliemann (1822-1890): Troia eta Mizena 150
G.W.F. Hegel (1770-1831) 153
Kafetegietako kultura eta ideiak 154
John Stuart Mill (1806-1873) 155
F. Nietzsche (1844-1900) 156
J.W. Goethe (1749-1832) 157
H. Heine (1797-1858) 159
Lord Byron (1788-1824) 160
Victor Hugo (1802-1885) 160
M.J. Larra (1809-1837) 161

B.C. Aribau (1798-1862) 162
Oda a la patria (1833) 162
Lore-jokoak 163
"Renaixença". "Rexurdimento". "Pizkundea" 163
Antzerti erromantikoa 164

Honoré de Balzac (1799-1850) 164
F.M. Dostoievski (1821-1881) 165
Ch. Baudelaire (1821-1867) 166
Musika 168
F. Chopin (1810-1849) 170
B. Smetana (1824-1884) 171
Maurice Ravel (1875-1937) 172
J.G. Souflot (1713-1780) 173
Gernikako Juntetxea 174
Nafarroako Diputazioa 174
A. Canova (1757-1822) 175
J.A.D. Ingres (1780-1867) 175
E.E. Viollet-le-duc (1814-1879) 176
Artzain Onaren katedralea (Donostia, 1897) 177

Th. Géricault (1791-1824) 178
John Constable (1774-1827) 178
H. Labrouste (1801-1875) 179
Donostiako udaletxea (1882-1887) 180
J.B. Carpeaux (1827-1875) 180
H. Daumier (1808-1879) 181
J.-F. Millet (1814-1875) 182
V. Horta (1861-1947) 182
A. Gaudí (1852-1926) 182
G. Eiffel (1832-1923) 184
Darroque: "Campos Elíseos" Antzokia (1901-1902) 184

★ ★ ★

★ ★ ★

A. Rodin (1840-1917) 185
E. Degas (1834-1917) 186
G. Seurat (1859-1891) 187
V. van Gogh (1853-1890) 187
P. Gauguin (1848-1903) 188
P. Cézanne (1839-1906) 188

L. Feuerbach (1804-1872) 190
F.R. Chateaubriand (1768-1848) 192
S. Kierkegaard (1813-1855) 193
Judaismoa 195
Abdul Hamid II. (1876-1908) 197
"Mairu Bizkaitarra" (1827-1876) 198
Antiklerikalismoa 199
Eliza Katolikoaren boterea 200
Vatikano I.a (1869-1870) 200
Pio IX.a (1846-1878) 201
F. de Lamennais (1782-1854) 202
H. Lacordaire (1802-1861) 202
J. Balmes (1810-1848) 203
J.H. Newman (1801-1890) 204
Eliza eta Gizarte Zibila 207

Langile-Internazionala (Lehenengoa, 1864) 208
A.F. Ozanam (1813-1853) 208
Leon XIII.a (1878-1903) 209
Beasaingo geltokiaren erreketa 210
Esklaustrazioa 211
Gasteizko diozesia (1862) 212

Bizente Manterola (1833-1891) 213
L.L. Bonaparte (1813-1891) 215
"Atheka gaitzeko oihartzunak" (1870) 218
A. Kanpion (1854-1837) 220
J. Madinabeitia eta Zarate 223
N. Atxukarro (1880-1918) 224
M. Menéndez Pelayo (1856-1911) 226
F. Giner de los Ríos 227

4. AMERIKA: LEHEN DESKOLONIZAZIOA (1776-1914)

4

Testu aztergarriak

Latin Amerika: Egunargitu gabeko Kontinentea 231
Latin Amerikako gizarte eta etniak 232
Zibilizazio indiarrak 232
Beltzak 232
Zuriak: kreoloak 232
Latin Amerikaren ekonomia etena 238
Espainiaren herentzia kolonialaz 240
XVIII. mendeko independentzi proiektu bat 242
Amerika galdu egingo ote da? 243

★ ★ ★

Minhas velhas: meatz-arrakasta 246
Esklabutza: Kristauen lotsakizun 251
Ipar Amerika: 1620-1762. Arrakasta demografikoa 254
Biztanleriaren hazkundea (1745-1815) 255
Ingalaterrari leialak 255
EE.BB.: independentziaren kausak 256
EE.BB.etako iraultzaren oihartzunak 257
Etorkizuna, aukera da! 258
Iraultzen kausak 259
Ideia filosofikoen zabalkundea 260
Godoy eta Amerika 261
Tristeziaren Kontinentea 262
Europarren lehen kolonia independentea 263
Stamp Act (1765) 264
Boston: Tea Party (1773) 265
EE.BB.: iraultza berezia 266
EE.BB. Aliatuen laguntzak (1780) 267
Federazioa, zertarako? 268
EE.BB. (1776-1812): Marinel-herria 269
Estatuak/Federazioa 270
Batasun ahula (1783) 270
Konstituzioaren askatasuna eta mugak (1787) 272
Konfederaziotik (1781) Konstituzio Federalera (1787) 273
Esklabuak eta Konstituzioa 273
Merkatal askatasuna 274

Kolonuen kexua 274
Amerikarentzat Konstituzio espainol berria? 276
Fernando VII.a: Independentzia amerikarra 276
Independentzi gerratea, ala gerra zibila? 279
Abertzale erregezaleak 279
Iguala (1821): Independentziarako egitaraua 280
Guayaquil (1822): Bolivar ala San Martin? 281
Askatasuna, Amerikarentzat 282
Bolivar, apezpikuari erreguka 283
Erroma eta Independentzia 283

Jarraitasun politikoa 284
EE.BB.: kontinentea ozeanoaren truke 287
"Pioneer": aitzindaria 288
Europarrak Amerika egiten 296
Merkatalgoa: 1800-1805. Estatu Batuak/Ingalaterra 297
Jacksonen aroa (1828-1845) 300
Kolonia: Gaitz absolutuak 331
Latin Amerika: atzo, gaur, gero 332
Brasildarrei mezua (1954) 333

Irudi-ohar baliagarrienak

Amerikako estatu berriak 230
Lurren enkantea (Argentina, 1860) 233
Santa Feko hitzarmena (1492) 234
Indiarrekiko burubideak (1509) 235
Indietako kontseilua 236
Indiarrak kontuak ematen 237

★ ★ ★

Gomendakinen irabaziak 243
Bandeira brasildarrak 244
J.J. da Silva Xavier ("Tiradentes") 245
Brasil eta Metropolia 248
Sukrearen ekonomia 249
Esklabu-katea 250
Pedro I.a (1822) 251

Hamahiru Koloniak (1774) 252
Ipar Amerikako ekologia 253
EEUU (1775): Estatuetako bizilagunak (1790-1970) (taula) 256
Askatasunaren estatua (1886) 257
Ideien zabalkundeak 260
EE.BB.: Bizilagunak (taula) 262
Zerga itogarriak 264
Tearen matxinada (1773) 265
Soldadu amerikarra 267
Yorktowneko gudua (1781) 268
J. Adams (1735-1826) 269
Th. Jefferson (1743-1826), eta bere etxea 271
EEBBen Konstituzioa (1787) 271

Caracaseko Erret Konpainia Gipuzkoarra 275
F. Miranda (1756-1816) 278
S. Bolivar (1783-1830) 281
Andeetako Armadari monumentua 282
Ayacuchoko gudua (1824) 283

Estatu Batuak: Hiri handienak (1760-1775) 284
Estatu Batuen lurralde-eraketa 285
Hiawatharen heriotza (XVI. mend.) 286
Laramieko gotorlekua (1837) 289
Gerlari indiarrak (1869) 290
Lautada zabaletatik erreserbatara 291
Lewis eta Clark (1804-1805) 292
Hazkunde demografiko (1790-1900) 293
EEUU (1775). Beltzak: esklabuak 294
Esklabu-lurraldeak (1820-1865) 295
Europarrak EEBBetan 296
New York 297
Georgiako kotoia 298
Industriaren garapena (XIX. mend.) 299
Estatu Batuak/Mexiko 301
A. Lincoln (1809-1865) 301
W.T. Sherman (1820-1891) 302
R.E. Lee (1807-1870) 303
Ontzi korazatuak 304
Alaska (1867) 305
Literatura nazionala eta soziala 306
H. Beecher-Stowe (1810-1896) 306
Washingtoneko Kapitolioa 307

Kolonbia Handia (1821-1830) 308
Ertamerika sakabanatuak (1823-1839) 309
Inmigrazioaren premia 310
Francia Dr. (1766-1840) 311
J.M. Rosas (1793-1877) 312

★ ★ ★

★ ★ ★

Latin Amerikako herritarrak 313
Iragarkia (1822) 313
"Martin Fierro" (1872) 314
Txileko biztanleak 315
Garraio-sistemak 316
EEBB/Mexiko 316
Porfirio Díaz (1830-1915) 317
Kolonizatzaileen orga (Brasil) 318
Garimpeiroak 319
Petropoliko enperadore-jauregia 320
Brasildarrak (1800-1976) 320

Kanadiarrak (1851-1871) 322
Kanadako lurraldeak 323
Kanadiarren jatorria: britainiarrak/frantsesak (1961) 324
Kanada (1836-1949): antolamendu politikoa 325
L.J. Papineau (1786-1871) 326
Kanadaren populamendua 327

Kubako biztanleak (1861-62) 328
J. Martí (1853-1895) 328
Máximo Gómez (1836-1905) 329
G.C. Valdés (1809-1844) 329
Habana (1792-1862): Esklabu beltzen sarrera 330
Kubako arazoa 330

5. ASIA: TXINA ETA INDIA

5

Testu aztergarriak

Txinako biztanleak 339
Txinako minoria nazionalak 340
Genghiskan: Haren alde ala kontra? 342
Jakitunen gobernua 344
Inoiz ez da beranduegi 345
Esaminen psikosia 345
Konfuzioren alde eta kontra 353
Enperadorea zeruari deika 359
Opio-negozioak 360
Bizitza, interesen truke (1929) 365
Mutiko langilea (1920-22) 366
Feudalismoaren herentzia 368
Produkzio-sistemen aldakuntza (1952-1956) 370
Emakumea Konstituzioan (1978) 371
Bizi-maila apala (1962) 372
Maoismoaren krisiak 373
Kultur Iraultza: Lan-sistemaren kritika 374

Bi etnia handiak 380
Hinduismoaren balioa 381
Musulmanak, azkena etorriak 382
Ezkontza-heriotzak 385

★ ★ ★

★ ★ ★

Gosete bat behinolako Indian 386
Kronologia 387
Gazte abertzaleak 392
Pobre izatearen garratza 394

Irudi-ohar baliagarrienak

Txina 336
Loess 337
Landaredia 338
Hegoaldeko lautada 339
Arrozaren geografia 340
Mongolak 341
Genghiskan (1162-1227) 342
Mingdarren hilobiak 343
Justizia txinarra 344
Esaminak 345

Qianlong (1736-1796) 346
Txinako harresi handia 346
Erdi Aroko Txinaren ekarpen teknikoak (taula) 347
Papera 348
Zeramika txinarra 348
Ideogramak 348
Erloju txinarra 350
Hildakoen kultua 351

Longmeneko haitzuloak 352
Musulmanak 355
Gilen Rubruck (1215-1295) 356
Mateo Ricci (1552-1610) 357
Pekineko behategia 357
Ortziaren tenplua 358
Shanghairi erasoa 361

Txina/Japonia 362
Cixi enperadoresa (1835-1908) 363
Sun Zhongshan (Sun Yatsen) (1867-1925) 364
"Ibilaldi luzea" (1934-1935) 367
Mao Zedong (1893-1976) 368
Justizia berria 369
Emakumea, Txinan 371
Mao-ren heriotzondoan 375
1949-1981etako Txinako historiaren laburpena (taula) 376

Indiako klimak 377
Haizeak eta prezipitazioak 378
Indiako herriak 379
Budismoa 382
Musulmanak 382
Ukituezina 383
Kastak 384
Garbikuntzak 385

★ ★ ★

★ ★ ★
Ekialdeko Indietako Konpainia 387
Sipaien errebolta antibritainiarra 388
Gosetea eta kolonialismoa 389
Indiako kotoia 390
J.R. Kipling (1856-1936) 391
Pobreen industria 392
Indiatik kanpo (1971) 393
Iraultza berdea? 395
Indiarrak munduan 396

6. AFRIKAREN HISTORIAREN BILA

6

Testu aztergarriak

Afrika: historiarik gabeko kontinentea 399
Esklabutza afrikarra 405
Ehiza, lanbide noblea da 406
Abeltzainak, harro beren aziendarekin 407
Arrantzale kotoko-tarrak 407
Oldoway 408
Zinjantropoa 408
Madagaskar 412
Bantuak 413
Sahara ezezaguna 415
Historiaurrean, Europa-Afrikak elkarrekin? 416
Joanes Prestearen erreinua 425
Abadiatar euskaldunak Ethiopian (1857-1848) 426
Ekialdeko merkatalgoa 429

Afrika, gerrazalea ote? 434
Zuzenbide Afrikarra 436
Artisau aztia: erremintaria 440
Diaka: ontzigile abila 441
Nilo-ren ibilbide bitxiak 442
Gatza basamortuan 443
Jene: karabana-hiria 447
Txina Afrikan 448
Mogadixu 450
Monbasa 450
Emakume massuf-tarra 450
Mansa Musa, Mekara (1324) 454
Basamortuko iratxoak 455
Merkatal sarea 455
Bidaia, Sahara zehar (XIV. mend.) 456
Benin-eko Ewuare Handia 457
Gao-ko aberastasuna: esploradore baten kontaketa 458
Zinbabue: Monomotaparen "gorte"a 461
Gerlari gaztea 463

Islam berria Afrikan? 465
Islama: Antikolonialismoa 466
Txaka 466
Esklabutzaren aurka 474

★ ★ ★

Esklabutza: zurigarri erlijiosoak 474
Esklabu berriaren izua 474
Jainkotasunaren kontzeptua 480
Afrikako konjuru magikoak 481
Ohizko erlijioen etorkizuna 481
Gizatasun afrikar berria 483
Afrikako hiri bat 484
Altxamendu militarrak 488
Nigeria: handia, baina ahula 489
Bagoaz ezagutuz, Afrikaren historia 490

Irudi-ohar baliagarrienak

Afrika aintzinatean 398
Hominido afrikarra 400
Historiaurre afrikarra 401
Afrikako hizkuntzak 402
Dantzaria 402
Danbor hiztuna 403
Ontzi erromatarra 403
Niloko arraunlariak 404
Zinjantropoa 409
Afrikarrak 411
Afrika beltzeko arrazak (taula) 411
Pigmeoak 413
Mozorroa 414

Nubia: aztarnategiak 417
Meroe 417
Afrika erromatarra 418
Arrantza-tresnak Saharan 419
Historiaurreko pintura saharatarra 420
Errota paleolitotarra 420
Tuareg-ak, basamortuko garraiatzaileak 420
Ethiopia kristaua arriskutan 422
Aksumeko obeliskoak 423
Lalibela hiria 424

Afrika: landarediaren banaketa 427
Basoa, Afrikan hesi 427
Sahela eta sabana 428
Hiru eltxo 429
Baso hostoerorkorraren eraldakuntza 430
Ibaiak: ur-jauziak 431
Nekazaritza ibiltaria 432
Abelazkuntza ibiltaria 433
Arpista 434
Etxola egiten 435
Landarezko murruak 436
Landarezko defentsak 437
Noupetarren famili egoitza (Nigeria) 438
Gazteak 439
Errementariak 440
Labore-ustiategi handia 441
Buruzagi bamileke-tarra (Mendebal Kamerun) 444

★ ★ ★

Sudaneko erreinuak 445
Afrika (1500-1550) 446
Txinako jirafa malindiarra 448
Gatza 449
Merkatal hiriak 450
Diruak eta inperioak 451
Tunbuktu hiria 452
Benineko gortean 453
Jenne 456
Hiri estatua 459
Rubagako gortea 460
Zinbabue 462
Basamortuko meskita 464
Txaka (1787-1828) 468

Afrikarren konkista europarraren kontrako altxamenduak 469
Erromatarren esklabu beltza 470
Esklabu-tratua 470
Beltz amerikarra (1867) 472
Lanesku beltza 473
"Echazón de esclavos" 473
Esklabuen abiapuntuak 475
Irudi magikoak 477
Iraganbideko errituak 478
Heldutasunerako ospakizunak 478
Errituzko bainua 478
Kristautasuna 482
Islama 483
Dogondarren herriska (Mali) 485
Hiri modernoa: Nairobi 485
Afrikaren aurpegi ezberdinak 486
Unibertsitariak 487
Afrika 489

7. EUROPA, MUNDUAREN ONDARE? 7

Testu aztergarriak

Biztanleria (900-1900) 493
Japonia, itxita 494
Janariak 496
Mundura irekitzear 496
Kristautasuna Japonian 498
Iraultza Meijia (1868) 499
"Zaibatsu"ak 501
Mendebalduta? 503
Gerraondoa (1945) 504

Jatorrizko Australiarrak 508
Zeelandako laborantza (1773) 511
Neozeelandarrak (1773) 511
Krisia eta multinazionalak 519
Europa, Ekialdean? 520

★ ★ ★

★ ★ ★

Abijan 520
Immigrazioa eta kolonizazioa 522
Australia "Zuria" 523
Islama: gizarte bitartekaria 530
Demografia arabiarra 530
Demografia, tolerantzia eta esklabutza 531
Emakume islamdarra 532
Islam ibiltaria 533
Islamdar sovietarrak 533
Islamaren iraultza 534
Petrolioaren pribilegioak 534
Liga Arabiarra: Gutuna (1945) 535
Xa-ren gobernuaren kritika 536
Islama: giza geografia ahula 537
Arabiarrak eta Israel 538

Irudi-ohar baliagarrienak

Australia 492
Kyoto 492
Japonia 493
Hime-ji gaztelua (XVI. mend.) 494
Horyu-ji pagoda (VII. mend., Nara) 495
Meiji-teno (Mutsuhito: 1852. 1867-1912) 496
Hirien hazkuntza eta ugalpena (taula) 498
Japonia: hedapena (1860-1939) 500
Gerrate sino-japoniarra (1894-1895) 501
Mukden (1905) 502
Ontzigintza (1970-1978) 502
Langilea eta enpresa 503
Oposizioak 504

Australia (mapa) 505
Biztanleak 505
Klimak eta landarediak 506
James Cook (1728-1779) 507
Mendebaldeko Australia: lurralde hutsa? 509
Zeelanda berria 510
Australia politikoa 512
Australia: banaketa administratiboa (taula) 512

Kapitalismoa, Sozialismoa, Demokrazia (1942) 513
USAren merkatal indarra 514
Burtsa 515
Nazioarteko plan kontablea (Brusela, 1959) 516
Europako ekonomi elkartea 517
Haile Selasie (1891-1975) 518
Hirigintza 521
L.S. Senghor (1906) 524
Toussaint Louverture (1743-1803) 525
Ingelesaren zabalkundea 526
Australia: banaketa administratiboa 526
Ozeania: irlategi sakabanatua (taula) 527
Errituzko mugarriak 528
Mohamed Ali 529
Islamaren Geografia demografikoa 530

Testu aztergarriak

Auschwitz 543
Alemania, non? 545
Gerrate Hotza. Soviet Batasuna, totalitarioa 548
Nazio Batuen Gutuna (1945) 550
Bakezko bizikidetasuna 556
Europako Ekonomi Elkartea 558
Deskolonizazioaren zenbait arrazoi 560
Europaren erreleboa 563
Ho Txi Min-en testamentua 564
Neokolonialismoa (1961) 566
EE.BB.ak Ertamerikan 567
Kenya: metropolirako lanean 568
Boliviako iraultza baldintzatua (1952) 568
Guatemala/EE.BB. 569
Sri Lanka (Zeilan): ekonomia 569
Bangla Desh: ekonomia 571
Afrikarrak hirietara 573
Samoa 574

Irudi-ohar baliagarrienak

Gerraren hondamendiak (1939-1945) 540
Mussoliniren kanpo-politika 541
Gerrateko galerak (1939-1945) (taula) 542
Nürnbergeko judizioa (1945-1946) 544
Mundu-agintearen antolamendua (1815-1945) (taula) 546
Alemania, banatuta (1945) 547

Nazio Batuak (1945) 549
Bi potentzia handiak 549
"Ongi etorria, Mr Marshall" 551
McCarthysmoa (1950-1954) 552
Stalinen ohoretan (1949) 552
Churchill, Truman eta Stalin Potsdam-en (1945) 553
Koreako gerratea (1950-1953) 554
Stalinen heriotza (1953) 555
Europaren Batasuna: Erromako ituna (1957) 557
Europa demokratikoa 558
Afrikaren independentzia 559
Independentzia osoa 561
Kolonialismo kritikoa ala Antikolonialismoa? 562
Kolonialismoaren parodia (Kinshasa, 1966) 562
M.K. Gandhi (1869-1948) 563
Bandungeko konferentzia (1955) 565
Askapenaren plaza 570
Al-Fatahren gerrilari palestinarrak 572
Herrialde aberatsak eta pobreak 574

Testu aztergarriak

Henri Pirenne (1836-1935) 579
Zertarako bizi izan naizen 581
Euskal musikaren bide berriak 591
Artea: tradizioaren eta berrikuntzen artean 596
Inpresionismo-ondoko iraultza estetikoa 596
Proletkultura: langileriaren kultura berriaz 598
Arte utilitarista 598
Proletkultura: arte plastikoak 599
Arte proletarioa 599
"De Stijl"en xedeak 600
"Bauhaus"en funtsa eta egitaraua 602
Denok arkitekturara!: artistaren artisau-ofizioa 602
Surrealisten "bigarren errealitatea" 607
Ederra, sentimendu-dohaintza 608
Pintorea, obraren teorikari ote? 608
Kubista baten aitorpenak 610
Zer da kubismoa? 610
Picasso: estilo finkoa ala eklektikoa? 611
Zer da dadaismoa? 612
Fededun eta konformazale naiz 612
Kolorea, pintura abstraktuaren azterkizun 613
Surrealismoaren azalpenetik 614
Pintura, politika eta sentieraren hezkuntza 615
Pintagaien hautapena 616
Pintura konstruktibista 616
Errusiako arte utilitarioaz 629
Eskultura konstruktibista 632

Irudi-ohar baliagarrienak

Soziologia 576
New Deal ("Hitzarmen Berria") 577
John Maynard Keynes (1883-1946) 578
Bertrand Russell (1872-1970) 580
Henri Bergson (1859-1941) 582
Edmund Husserl 583
Jean-Paul Sartre 584

Futurismoa 585
H.G. Wells (1866-1946) 586
James Joyce (1882-1941) 587
Rainer Maria Rilke (1875-1926) 588
Louis Aragon (1897) 589
François Mauriac (1885-1970) 590
Igor Stravinsky edo Strawinsky (1882-1971) 592
Arnold Schönberg (1874-1951) 593
Sant'Elia (1888-1916) 594
Gropius/Meyer: Fagus lantegia (1911) 594
Erich Mendelsohn (1857-1953) 595

★ ★ ★

★ ★ ★

Sant'Elia 597
V.E. Tatlin (1885-1956) 597
J.J.P. Oud (1890-1963) 600
Walter Gropius (1883-1969) 601
Le Corbusier (1887-1975) 603
Alvar Aalto (1898-1976): Paimo-ko Osasun-etxea (1929-1933) ... 604

L. Peña Gantxegi 605
Txillida/Peña Gantxegi: Gasteizko Foru-Plaza 606
Ohar orokorra 609
Ives Tanguy (1900-1955) 617
Vassili Kandinsky (1866-1944) 618
F. Kline (1910-1962) 619
Victor Vasarely (j. 1908). Barson (1966) 620
Kacere 621
Artista-berri sarituak. Pinturan (taula) 622
Artista-berri sarituak. Eskulturan (taula) 623
Inazio Zuloaga (1870-1945): "Arratsaria" 624
Aurelio Arteta (1879-1940): "Arraunlariak" 625
Jesus Olasagasti (1907-1955) 626
J.M. Uzelai (1903-1979) 627

Constantin Brâncusi (1876-1957) 628
C. Brâncusi (1876-1957): "Musua" (1908) 630
Kurt Schwitters (1887-1948) 631
Barbara Hepworth (1903-1957): Zurezko formak (1938) 633
XX. mendeko pintura-eskolak (taula) 634
Euskal pinturaren belaunaldiak (taula) 634

10. IRAULTZA ZIENTIFIKO ETA TEKNIKOA

10

Testu aztergarriak

Einstein-en zenbait pentsamendu 640
Espazio ez-euklidearra 642
Bizia, noiztik? 646
Garraioa nazioarteko merkatalgoan 650
Tsiolkovski (1857-1935) 651
W. von Braun (1912-1977) 652
Armamenduen aurrekontuen esanahia 656
Enpresen estrategia geografikoa 658
Ipar Korea/Hego Korea bi sistema ekonomiko 660
Hazkunde ekonomikoaren mugak 662
Lantegi kapitalisten geografia aldakorra 665

Irudi-ohar baliagarriak

Bakearen itxaropenak 636
Altzairu-produkzioa (1978) 637
Teknologiaren lehiaketa 638

★ ★ ★

★ ★ ★

Zientziaren utopiak 639
Irabazien kontzentrazio sozialak 641
Geometria ez-euklidearra 643
Biziaren erlojua 644

A. Fleming (1881-1955) 645
Itsas landareak 647
Eguzki energia 648
Karen Terryren etxea (Santa Fe. Mexiko Berria. 1977) 648
Ur-eguzkiak 649
Satur V.a, kohete espaziala 652
Estatu Batuak eta Soviet Batasuna lehian (taula) 653
Espazio berrietara 654

Madarikatua gerra hori! 655
Gizakiaren eskubideak (taula) 657
Etorkizunerako gidariak 658
Janariak munduan 659
Informatika: boterea eta sormena 661
Laborantza eta genetika 663
Ingurune erasoa 664
Bonba atomikoa 666